

FRAY MATEO DE ZABALA

AITA JUAN MATEO ZABALAREN
SERMOIAK (I)

Edizio kritikoa
Fr. Luis Villasante Kortabitarte

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA
BILBAO 1996

JUAN MATEO DE ZABALA

Franciscano
(1777-1840)

Nació en Bilbao y falleció en el convento de Zarautz (Gipuzkoa). Por causa de las revueltas que conoció la villa de Bilbao en la época de Napoleón, tuvo que huir a Galicia y pasó algunos años en Herbón (Coruña), en el Colegio de Misioneros de la Provincia franciscana de Santiago. Allí descubrió su vocación.

Al volver a su Provincia de Cantabria pidió y obtuvo ser admitido en el Colegio de Misioneros de Zarautz, en el que residirá hasta su muerte.

Fue superior por dos veces de este Colegio y se dedicó a predicar —junto con otro religioso que no siempre fue el mismo— misiones en los pueblos vascongados del dialecto vizcaíno.

Después de su muerte se publicaron diversas obras suyas: *El Verbo Regular Vascongado del dialecto vizcaíno*, 1848, editado por cuenta de la provincia de Guipúzcoa; *Noticia de las obras bascongadas que han salido a la luz después de las que cuenta el P. Larramendi*, San Sebastián 1856; «Fábulas en dialecto vizcaíno», publicadas por Julio Urquijo en la *RIEV*, I, 90, 529 y III, 27.

Se le considera también autor de un Diccionario de voces oídas en diversos pueblos con ocasión de las Misiones que predicaba. Consúltese a este respecto la Biblioteca de D. Julio de Urquijo, (hoy en la Diputación de Gipuzkoa).

Mantuvo correspondencia con Léluse, vascólogo de la Universidad de Toulouse, Mendizábal, etc.

Sus sermones, llevados —se supone— por frailes exclaustrados que los consideraban como una preciosa ayuda para sus predicaciones, han ido apareciendo en nuestro siglo en diversos lugares (Arantzazu, Bermeo, Irún, Jerusalén).

La edición de este primer tomo, preparada por Luis Villasante, José Luis Zurutuza e Itziar Rekalde, se publica gracias al respaldo y aliento del Diputado de Cultura D. Tomás Uribeetxebarria de Bizkaia y a la ayuda económica de la Excm. Diputación Foral de esta Provincia.

Creemos sinceramente que los sermones de misión del P. Zabala pueden servir para su mejor conocimiento del dialecto occidental del euskera, llamado «dialecto vizcaíno», pero tal vez fuera mejor llamarlo dialecto occidental del euskera, pues además de Bizkaia se habla en amplias zonas de Gipuzkoa y Alava.

Arantzazu, 30 de octubre de 1986

Fr. Luis Villasante

(7k 2101L -I

AITA JUAN MATEO ZABALAREN
SERMOIAK (I)

Colección EUSKARAREN LEKUKOAK-18

FRAY MATEO DE ZABALA

AITA JUAN MATEO ZABALAREN
SERMOIAK (I)

18

Edizio kritikoa
Fr. Luis Villasante Kortabitarte

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA
BILBAO 1996



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Kultura Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Cultura

© REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA
Plaza Barria, 5 - 48005 BILBO

I.S.B.N.: 84-85479-81-5
Legezko Gordailua BI: 2099-96

Maketazioa: R.B.U.

Fotokonposaketa: Ikur, S.A.
Cuevas de Ekain, 3, 1º - 48005 BILBO

Moldiztegia: A.G. Rontegui, S.A.L.
Avda. Ribera de Erandio, 4 - 48950 ERANDIO (Bizkaia)

AITA JUAN MATEO ZABALAREN
SERMOIAK
I. tomoa

SARRERA	IX
Argitalpenari zenbait ohar	XXVII

1. ATALA

1. Misiñoraco sarbidea (J, 1-12).....	3
2. Arimearen balio andiaren ganeco sermoia (B, 203-208. or.).....	15
3. Jaungoicoaren graciaren ganeco sermoia (B, 209-214. or.)	25
4. Jaungoicoaren errukia (J, 121-128. or.).....	35
5. Jesucristo-c gu erostea (J, 129-141. or.).....	45

2. ATALA

1. Yesucristoren Pasiñoaren ganeco sermoia (A, 1-18. or.)...	59
2. Baricu-guren arratsaldeco yazkeraco sermoia (B, 1-11. or.).	83
3. Baricuguren arratsaldeco eresqueracoa (B, 169-176. or.)	97

3. ATALA

1. Autsen eguneraco sermoia (B, 161-166. or.).....	113
2. Garizumaco domequetaraco icas-bideen aurreco sartzaierac (B, 113-121. or.).....	119
3. Garizumaco lenengo domecaraco Penitenciaren ganeco sermoia (B, 215-219. or.).....	129
Garizumaco lenengo domecaraco Penitenciaren ganeco sermoi bera, papel cintzoago batetic artua (B, 220-224. or.).....	135

4. Garizuma arratsaldeetaco eusquerazco sermoeac. Sartzaiera. (B, 121. or.)	143
5. Pecatuaren ganeco sermoea (B, 122-126. or.).....	145
6. Pecaturaco bidea emotea [eskandaluzko pekatua] (J, 201- 210. or.).....	155
7. Pecatu-bideen ganeco sermoea [arrisku eta okasioak] (B, 145-152. or.).....	171
8. Pecatura barriro biortuten direanen ganeco sermoea (B, 153-157. or.).....	181
9. Yangoicoagana biurtutea eriotzaco orduraco luzatuten daveenac (A, 1-10. or.).....	191
10. Ce bideti galduten direan pecatariac: pecatari gogor- tuen ganean (J, 189-199. or.).....	201

4. ATALA

1. Eriotzearen ganeco sermoia (B, 127-131. or.).....	215
2. Eriotza osteco, edo Bacocharen Judicioaren ganeco sermoia (B, 197-202. or.).....	225
3. Infernuaren ganeco sermoea (B, 133-138. or.).....	235
4. Infernua (J, 158-171. or.)	245
5. Purgatorioco arimeen lenengo sermoia (B, 177-181. or.).....	259
6. Purgatorioco arimeen ganeco bigarren sermoia (B, 181-185. or.).....	267
7. Purgatorioco Arimeen irugarren sermoea (B, 186-191. or.).....	275
8. Ceruco gloriaren ganeco sermoea (B, 139-144. or.).....	285
9. Ceruco gloria (A, 1-10. or.)	295

JUAN MATEO ZABALA AITAREN (1777-1840) MIXIOETAKO SERMOIAK

SARRERA

1. Aita Zabalaren garaia

Aita Zabala 1777. urtean jaio zen Bilbon eta Zarautzen 1840an hil. Berak bere abizena batzutan b-kin idazten zuen eta beste batzutan –eta sarriago, segur aski– v-kin.

Bilbok garai hartan 10.000 edo 11.000 biztanle izango zituen¹; uri elebiduna zen. Eta gure Juan Mateoren etxean bai euskaraz eta bai erdaraz ere egiten zen. Gurasoak, aita, Bakion eta ama Villaron jaioko zituen. Bai aitak eta bai amak, bi-biek Zabala abizena zuten.

Garai nahasia benetan fraide honi bizitzeko gertatu zitzaiona. Frantziako Iraultza handia eta horren ondorioz han-hemen igarotako nahasmenduak. Baina garai horretan egin zuen bere egitekoa gure Zabalak eta bai zintzo eta konplituki egin ere. 1808. urtean, eta Bilbon hain zuzen, altxamendu edo matxinada bat gertatu zen frantsesen kontra, eta San Frantzisko komentuko fraideek ere parte hartu zuten. Horren ondorioz, sasi-errege Jose Bonapartek fraideak komentutik atera arazi zituen. Orduan Aita Zabala, Bilbo utzi eta hortik eta hemendik ibili (Galizian, etab.), eta azkenean Zarautzen finkatuko da.

Euskal literatura ez zaigu garai horretan hain antzu agertzen. Hor nunbait ditugu Mogeldarrak, Añibarro, J. Bta. Agirre, Gerriko, Astarloa anaiak, aita Bartolome karmeldarra, Ulibarri Okondoko perratzailea, Jose Kruz Etxeberria, etab.

Karlisten lehen gerratea ere ikustea tokatu zitzaion gure Aita Zabalari, Zarauzko komentuan bizi zela.

Bilbo, gure idazle honen jaioterria, Euskal Herrian halako salbuespen bat bezala izan zen. Karlisten eta liberalen arteko gerratean Bilbo erabat liberalen aldeko azaldu zen.

¹ Ikus Enciclopedia Auñamendi, «Bilbao», 137 orr.

Bere sermoietan, ordea, gure Zabalak ez du sekulan politika-arazorik aipatzen.

Lehendik ere ezaguna genuen Aita Zabala euskal literaturan. Ezaguna batez ere aditzari buruz egin zuen liburuagatik, euskal literaturaz utzi zuen bibliografi zerrendagatik eta euskarazko alegi eta fabulengatik. Baina haren euskal sermoiei buruz ez genekien tutik ere. Aita Ruiz de Larrínagak, gure Zabalari eskeini zion monografian, espreski dio berak ez duela haren sermoirik ikusi².

Baina gure mendean hor-hemen azaldu dira hiru liburu txukun enkuadernatuak, Zabalaren letra txiki eta ederraz idatziak. Non azaldu dira liburuok? Bata Bermeoko gure komentuan, beste bat Jerusalemen —San Salvadoreko gure komentuan— eta bestea, azkenik, Irungo Pasionisten komentuan.

Edukiaz denaz bezan batean, hiru liburu horietan sermoi batzuk errepikatuak daude, baina egilearen beraren hobekuntza batzuekin.

Aipatu ditugun tokietara heldu arte zer-nolako ibilerak eta gora-beherak ezagutu zituzten liburu hauek? Hori ez da jakiten erreza. Uste dudana esango dut. Aita Zabala hil zenean, fraideen exklustrazioa gertatu zen Zarautzen. Orduan fraide batzuek hartu eta berekin eramango zituzten liburuok beren predikuetarako lagungarri izango zituztelakoan. Liburuok zituztenak, ordea, hor-hemen barreiatu ziren —exklustrazio garaia zela ez da ahaztu behar—, eta azkenik iñork ere ez zekien beroien berri. Urte askoren buruan, berriz, esandako tokietan azaldu dira.

Sermoe hauek bizkaieraz daude idatziak denak. Euskararen gordairuan toki bat zor zaiela uste dugu, eta hala Bizkaiko Diputatu Nagusi zen Alberto Pradera jaunari beroiek argitaratzeko laguntza eskatu genion eta bai berak laguntzeko hitza eman ere. Laguntza honi esker kaleratzen dira, bada, eta hargatik neure eskerrona agertu nahi dut.

2. Aita Zabalaren bizitza

Aita Juan Mateo de Zabala —esan dugun bezala— Bilbon jaio eta San Antongo elizan bataiatua izan zen 1777. urtean. Bere aita Juan, Bakiokoa zen eta ama Josefa, Areatza edo Villarokoa. Bi-

² RUIZ DE LARRINAGA (Fr. Juan), *El Vascófilo franciscano* R.P.Fr. Juan Mateo de Zabala. Estudio Bio-bibliográfico. San Sebastián, 1927, p.12-13; p.40ss. Lan hau *RIEV*-en ere agertu zen. Ikus *RIEV* VI, 33, 313, 337 orr.

-biek, aita eta amak, alegia, Zabala abizena zuten. Gurasoak elebidunak ziren: bai euskera eta bai erdera ere zekitenak, alegia. Eta berdin gure Juan Mateok ere. Honek arreba batzuk ere izan zituen, eta horietako batzuekin gero har-emanak izango ditu eskutitz-bidez. Lehenengo ikasketak etxean eta eskolan egingo zituen, noski.

Oso goiz, dirudienez, gurasoak ohartu ziren seme hark fraide izateko bokazio-aztarnak bazituela, eta latina ikastera jarri zuten. 15 urte zituela frantziskotar Ordenako habitua hartzen du eta Nobiziadoa egiten. Non? Ez dakigu. Aita Larrínagak dioenez, Bilbon ez zuen hartu habitua, beste komenturen batean baizik. Apaizgorako ikasketak ere Bilbotik kanpo egin zituen, Kantabriako Probintzi barruko etxe-komentuetan, hots, erderaz egiten zen herrietako komentuetan. Zein herritan, ordea? Ez dakigu. Orduñan? Gasteizen? edo Arabako beste komenturen batean? Ez jakin. Dena den, berberak esaten du orduan dorpetu edo atzeratu egin zela euskeraz. 1804. urtean Filosofiako Lektore izendatzen dute. Bonaparte-ren exklaus-trazioa dator, ordea. Orduan Bilbotik irten beharra izan zuen.

1803. urtean argitaratzen da Astarloaren euskal apologia³. Astarloa honek anaia bat zuen fraidea eta Probintziala izatera ere iritsi zena, gainera. Gure Zabalak liburu hori irakurri eta euskera hobeki ikastera lotzen da sermoi eta aitortza-lanak hobekiago betetzeko asmoz. 1800. urte inguruan hartzen du apaizgoa eta predikari eta aitore izateko onespena ematen zaio.

Aita Ruiz de Larrínagak dio 1808. urtean —Bonaparteren exklaus-trazioa dela eta— irten zela Aita Zabala Bilbotik.

Badakigu, gainera, bi urte edo gehiago egin zituela Herbón-en (Coruña), hango Mixiolari-kolejioan. Eta han aurkituko du bere bokazioa. Hain zaletu zen etxe horietan egiten zen bizimoduaz, non Bilbora itzultzean, 1814ean, eskatuko du Zarauzko Mixiolari-kolejiara joatea eta hartako baimena lortuko du. Zarautzera joate hori 1815ean izan zen. Hemendik aurrera, hil arte, Zarautzen biziko da, bada⁴.

Zer ziren «Mixiolari-kolejio» horiek? Frantziskotar komentuak, noski, baina xede berezi bat zutenak, hots, herrietan mixioak ema-

³ ASTARLOA, Pablo de (presbítero), *Apología de la lengua bascongada, o ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen: en respuesta a los reparos propuestos en el diccionario geográfico histórico de España, tomo II, palabra navarra*. Madrid, 1803. (Ikus, A. VINSON-en *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*, Paris, 1891).

⁴ Mixiolari-kolejioei buruz, ikus, PARRONDO, Fr. Domingo, OFM., *Historia de los Colegio-Seminarios de Misiones de la regular Observancia de N.S.P.S.Francisco existentes en esta Península de España*, Madrid 1818.

tea. Eta Zarauzkoak bazuen bere eremu propioa lan hori egiteko: euskal eremua, noski.

Zarauzko kolejio honek Sahagungotik hartu zuen hasiera 1746. urtean, nahiz eta frantziskotar komentu bezala lehenagokoa izan, 1610. urtean sortu baitzen, eta 1840ko exklausurazioaz izan zuen bere azkena. Egia da Restaurazio edo berriztatze-garaian berriz zabaldu zela, baina komentu bezala soilki, ez mixiolari-kolejio bezala.

Dena den, 25 urte, bere bizitzako azken urteak, Zarauzko kolejio horretan emango ditu Aita Zabalak. Eta han estimu handitan izan zuten. Bi aldiz izendatu zuten Guardian eta behin Bikario. Hil zenean ere Guardian zen.

Obra handiak egin zituen komentua eta eliza hobetzeko. Mixioak ematera ere maiz ateratzen zen, eta beti Bizkaira eta Arabako zenbait herritara. Zergatik? Bizkaieraz egiten zituelako bere sermoiak —hala uste dugu—. Aita Añibarrok, bizkaitar izanarren, mixioak ematen zituenean, berdin joaten zen Bizkaira, Gipuzkoa edo Nafarroara, baina Aita Zabala ez, dirudienez. Kontuan eduki behar da euskalkien mapa, euskalki bakoitzaren hedadura eta mugak zekarzkiena, egin gabe zegoela oraindik. Aita Zabala hil ondoren Bonaparte printzeak egingo du euskalkien mapa famatu hori. Bizkaiko euskalkia zen, bada, Aita Zabalak menderatzen zuen euskalkia eta horregatik —uste dugu— Bizkaian eta Arabako bazter-herri batzuetan xoilki ematen zituen bere mixioak.

Bi fraide gutienez joaten ziren herri batean mixioak ematera, bertako erretore jaunaren baimena izan ondoren, noski. Eta zenbait egun irauten zuten mixioek. Aita Añibarro hil zenean (1830), gure Aita Zabalak egin zuen, luze idatziz, haren aipamena Zarauzko komentuko kronikan.

Aita Zabalak mixio asko eman zituen. Bizkaiko herrietan eta Arabako zenbaitetan —euskalkiagatik, noski—. Hark mixio emandako herri guztien zerrenda osoa, segur-aski, ez dugu ematerik.

Aita Zelestino Solagurennek dioenez, Aita Zabalak 1817-1818 urteetan honako herri hauetan eman zituen mixioak (Ruiz de Larrinagari pasatu zaizkionak, noski): Zaldibar, Elorrio, Durango, Laudio, Zamudio, Mallabia, Urduliz, Mungia, Gorozika, Munitibar, Mundaka, Plentzia, Busturia, Ereño, Ipazter, Arratzu, Zeberio, Berriatu. Mixio hauetan Aita Manuel Ignacio de Aldekoa izan zuen mixio-emale lagun.

1819-1821 urteetan, berriz: Arrigorriaga, Abadiño, Berriz, Gamiñiz, Getxo, Lumo, Arrankudiaga, Sondika, Bakio, Ibarrangelu, Mañari, Muxika, Gernika, Mungia, Bernagoiti, Zaldibar, Leioa, Erriegoiti, Dima, Ea. Aita Juan Ignacio Astigarraga, Basaurikoa, zuen

berarekin batean mixio-emale lagun. Euskaraz egiten zen Arabako zenbait herritan ere eman zituen mixioak: Okondo, Baranbio, ...

Mixioak ematera zihoanean poltsikoak liburuskez beteak eramaten zituen. Hartako kantuen letrea zekarzkiten liburuskak ziren, alegia, jendeari partitzeko. Eta liburuskok inprimarazi egiten zituen⁵.

Lehen ere exklausrazioa ikusia zen Aita Zabala eta berriro ere horrelakorik ikusi beharko ote zuen beldurrak kezkatzen zuen. Baina Zarauzko komentuan behintzat, Aita Zabala bizi zen artean ez zen exklausraziorik ezagutu. Aita Zabala 1840. urtean hil zen. Eta hura hil eta bertatik, bai, etorri zen exklausrazioa.

Mendizabal-en desamortizazio-legea 1836. urtean emana izan zen, baina Gipuzkoan 4-5 urte igaro arte ez zen lege hori indarrean jarri, eta, hain zuzen, bitarte horretan gertatu zen Aita Zabalaren heriotza.

Esan behar da, azkenik, Aita Zabala gorputz osoko fraidea izan zela, guztiz jainkotiarra, otoitz-zale aparta eta bere barne-bizia arduraz zaintzen zuena. Anaia lego izateko gogoaz zegoen Hermano batetik —Miguel Antonio Altuna— idatzi zituen komentuko kronikan lerro murriztatzuk berari buruz, eta beroietan hara zer dioen: «Era Sabio y Santo.... de poco comer y de poco beber, de poco sueño y mucha oración»⁶.

3. Aita Zabala euskalari

Aita Zabala, herri-mixiolari izateaz gainera, estudio-gizona ere bazen, intelektual bat, alegia. Euskera sustraitik ikasi eta aztertu zuena. Herrietan mixioak ematen zebilenean, entzuten zituen hitzak hartu, eta beroien ahoskera zehazki jasotzen zuena.

Adibidez, bada liburu bat argitaragabea eta egile-izenik ez duena, Azkuek «manuscrito de Otsandiano» deituraz bataiatua, eta gaur Urkixo liburutegian dagoena (Donostiako Diputazioan, alegia). Itxura guztien arabera, Juan Mateo de Zabala da beronen egilea. Hala uste dute Azkue berak eta bai Berriotxoa anaiak eta Koldo Mitxelenak ere. Ikus Azkueren hiztegiaren hitzaurrean irakurtzen duguna: «La obra que figura con la abreviatura de «ms-Ot» es otro vocabulario anónimo, (debido, creo, al P. Zabala), que me lo regaló el Sr. Cura de Otsandiano»⁷. Hitz asko —edo hobeki esan, hitzen

⁵ Ikus, LEZAMA-LEGUIZAMON-en eranskina Ruiz de Larrinaga-ren monografian, 79-80 or.

⁶ Ikus, RUIZ DE LARRINAGA-ren monografia, 20. or.

⁷ Ikus, AZKUEren-ren hiztegiaren hitzaurrea, XIV.or.

adiera asko— datoz Azkueren hiztegian laburdura honen azpian. Gaur hiztegi hori Gipuzkoako Diputazioaren Urkixo liburutegian dago (argitaragabe, noski). Hartzen duzu, esate baterako, Azkueren hiztegian, *enda* hitza. Lehenik dakarren esanahia hauxe da: «casta, raza», eta bigarrena «(B, ms.Ot) hebra». Honelako aipamenik askotan egiten da Azkueren hiztegi honetan.

H.V.B. (Hermano Valentín de Berriotxoak) artikulu koxkor bat du *Boletín de Amigos del País*-en eta berak ere hiztegi hau Zabalarena dela uste du⁸. Eta aburu berekoa da baita Koldo Mitxelena ere: «Más sobre el manuscrito de Ochandiano»⁹.

Azkue jaunak 1918. urtean Oñatin Eusko Ikaskuntzaren lehen biltzarrean euskal fonetikaz egindako hitzaldian hara zer dioen: «Los autores que más fenómenos fonéticos de esta naturaleza han mostrado en sus escritos son los vizcaínos; tales como los presbíteros Micoleta y Moguel (el mayor) y en especial los religiosos franciscanos Añibarro y Zabala, castizos, de lenguaje fluido y seguramente por su estilo, los más recomendables de cuantos han cultivado este viejo dialecto»¹⁰.

Aita Zabalaren obrarik ezagunena honako hau da noski: *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno*, San Sebastián 1848, Imprenta Baroja; 109 orrialde. Ikusten denez, egilea hil ondoren atera zen; baina hil zenerako, argitara ahal izateko Ordenaren baimenak eskuratuak zituen.

Azkuek txitean-pitean aipatzen du liburu hau *Morfología Vasca-n* (Ikus obra honen «Índice de autoridades»).

Eguzkitza-tar Jon euskaltzainak artikulu koxkor bat du *Euskera* agerkarian: «Zabalak idatzitako adispiakera batzuetaz zerbait», *Euskera* III (1922), II. zenbakia (1922), 30-35 or. Euskal aditzaren flexio batzuez ari da, eta bereziki zu, berez aintzina plural zenak, singular bihurtetik sortu diren istiluez¹¹.

Esan dugun bezala, Azkue bere *Morfología Vasca* liburuan, aditzari buruz hitzegitean, maiz ari da gure Aita Zabala eta beronen liburuak aipatzen. Batez ere aipatzen ditu Zabalak aditzari buruz daukan liburua eta bai beronen alegiak edo fabulak ere, Azkue be-

⁸ H.V.B. «El manuscrito de Ochandiano, de la Biblioteca Julio de Urquijo», *Boletín de Amigos del País*, San Sebastián 1962, 80-82 or.

⁹ MITXELENA, Koldo, Ikus BAP 1962, 82-83 or.

¹⁰ AZKUE, Resurrección M^h de, *Fonética Vasca* en Primer Congreso de Estudios Vascos, Bilbao 1919, 478 or.

¹¹ Beste lan bat ere badu Eguzkitzak Aita Zabalarari buruz, hots: «Zabala Aita ta euskereazko bere lanak», *Lenengo Euskalegunetako itzaldiak*, Bilbon 1920, 13-30 or.

rak Parisko Biblioteka Nazionalean 1904 urtean aurkitu zituenak¹².

Zabalaren alegiak aipatu ditugu. Zabalak berak esaten digu gai-xorik zegoen aldi batean, beste ezer egiterik ez izaki eta, alegiok idatzi zituela. Alegi edo fabula hauek *RIEV*-en argitaratu ziren lehenik¹³. Eta geroztik liburu bezala ere azaldu dira behin eta berriz¹⁴.

Euskal bibliografi labur bat ere utzi zuen Aita Zabalak egile-izenik gabe, eta halaxe, izenik gabe, argitaratu zuen Bonaparte Printzeak Donostian 1856. urtean: «Noticia de las obras vascongadas que han salido a luz después de las que cuenta el P. Larramendi, San Sebastián, imprenta Baroja, 1856 (10 orrialde)¹⁵.

Euskaltzaindiko *Euskera* agerkarian berriz, 1922. urtean, gure Zabalaren beste lan bat argitaratzen da, hots, «103 Conjugaciones del presente perfecto de Indicativo en el dialecto vizcaíno ó Muestra de los 206 presentes de Indicativo que da al vascuence D. Pablo Pedro de Astarloa, escrita por Fr. J.M. de Zavala para Mr. Fl. Lécluse, catedrático de Literatura griega, Secretario de la Facultad de Letras, Caballero de la Legión de honor. En Zarauz, en 17 de Febrero de 1829 años»¹⁶.

¹² Azkuek bere hiztegiaren hitzaurrean dioenez, Antoine d'Abbadie-ren erregalu gisa joan ziren alegiok Pariseko liburutegi horretara. Ikus hiztegiaren hitzaurrea. XIV or.

¹³ Ikus *RIEV* I,90-98, 529-543; III, 27-40 orr.

¹⁴ Klasikoak sortan agertu ziren Anjel Zelaïetaren ardurapean, Labayru Ikastegia, Bilbo; inprimatzailea Itxaropena, Zarautz. Ez du urterik jartzen. Sorta berriari sarrera emanez Koldo Mitxelena-ren hitzaurre luze bat dakar 9-19 orrialdeetan. Mitxelena-k sarrera honetan ez du Zabalaren aipurik egiten. Anjel Zelaïetak, ordea, bai. Ikus 21-28 or. Alegion jatorriaz eta iturriez mintzo da Zelaïeta orrialde hauetan. Alegion iturriez denaz bezanbatean, Juan Antonio Mogel aipatzen du Zelaïetak (ikus 23. or.). Ikus baita ere KORTAZAR, Jon, «¿Fábulas inéditas de Juan Antonio Moguel?» *FLV* 1980, 253-277 or. Ikus, baita ere, «Zabala-tar Matai», Eusko Alegiak, Euskaltzaleak, Donostia 1934.

¹⁵ Aita Larramendik bere garaian eman zigun euskal liburuen zerrenda osatu edo gaurkotu nahirik, geroztik eta bere egunera arte irtendakoen berri ematen digu hemen Aita Zabalak; baina, jakina, bera hil ondoren, 1856 urtean, alegia, agertu zen lan hau Bonaparte Printzeari esker. *Noticia* delako honetan Aita Zabalak esaten digu berak ez duela liburuen kritikarik egingo, liburuok kritika ona merezi dutenean baizik. Orain, bada, *Devocionzo vicitzaraco sarre-rra*, San Francisco Salesec aterea eta Aita Frai José Cruz Echeverria-k euskeratua 1821. urtean agertu zen Tolosan.

Aita José Cruz Etxeberria hau Zarauzko Mixiolaria zen; Aita Zabala bizi zen komentu berekoa, beraz. Eta Zabalaren katalogo honetan Jose Cruz Etxeberriaren liburu hau etorri badator, baina ez dio bat ere kritikarik egiten, eta berak egin digun abisuaren arabera, badakigu horrek zer esan nahi duen: Zabalaren ustez liburu honek ez duela kritika onik merezi, erderakada gehiegi sartzen dituelako etab., seguraski. Aita Añibarroren liburuci, berriz, laudoriozko kritika egiten die. Baina Aita Etxeberriak bazekien Zabalaren iritzi-aburuen berri eta, agian, aldezaurretik erantzunez bezala, hitzaurrean hauxe esaten dio irakurlari: «Uteci bada aurque-riai. Eta beguiratu sustanciari». Iracurtzalliarri advertencia labur; p.6. Tolosan, Don Francisco de la Lama-ren echean, 1821. urtean.

Hitzen kontu horiek haurkeriak ziren Etxeberriarentzat; Zabalarentzat, berriz, ez.

¹⁶ *Euskera* (1922), 36-64 or.

Tituluan bertan esaten denez, lan hau Lécluse-rentzat prestatu zuen Aita Zabalak.

Aita Zabalaren beste idazki bat orain arte Zarauzko komentuko artxihoan sekula argitaratu gabe dagoena, honako hau da: *Correciones a la obra Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac, ceinzubetan azalduten dan Erromaco Catecismua...* Lenengo liburua; Bilbon, Eusebio Larumbe, 1816. Bigarren liburua, Bilbon baita ere, handik bi urtetara irten zen¹⁷.

Aita Astarloa hau frantziskotarra zen eta Kantabria Probintziako frantziskotarren Probintziala izatera heldu zen. Abizen bereko euskal apologistaren anaia, gainera. Aita Zabalak haren liburuari egiten dizkion zuzenketak purismo aldetik eginak dira batez ere, eta neurri batean aditzaren erabileragatik ere bai.

4. Aita Zabalaren eskutitzak

Eta honenbestez pasa gaitezen beste sail edo arlo batera, hots, eskutitzen sailera, prediku eta mixioen saila azkenerako uzten dugula. Aita Zabalaren eskutitzak —guk ezagutzen ditugunak, noski— honela sailkatuko ditugu:

- a) Familia artekoei egin zizkienak
- b) Fl. Lécluse-rekin Zabalak izan zituen har-emanak
- c) Mendizabal Tolosako inprimatzaileari egin ziona
- d) José Paulo de Ulbarri y Galíndez-i egindakoa.

a) Familia artekoekin izan zituen har-emanak Luis de Lezama-Leguizamón jaunari eskerrak ezagutzen ditugu. Jaun honek bazuen ahaidego edo senidetasun hurbila Aita Zabalaren familiaz, eta hala, berri asko jakin izan ditugu beragandik. Aita Ruiz de Larrínagak, eraskin gisa sartu ditu eskutitz horiek Aita Zabalari eskaini zion monografian. Eskutitzok erderaz daude denak, bai etxekoenak eta bai Aita Zabalarenak, baina honek hor-hemen sartzen ditu euskal esaerak eta bai esaldiak ere. Gu ipi-apa guztietara ez gara hedatuko, noski. Pixka bat gaineratik eta gaingiroki ukituko dugu gaia.

Bere aitari —Juan de Zavala— idazten dio Zarauztik urriko 28an, 1827. urtean, eta esaten dio esklaustrazio-zurrumuruak entzuten direla. Eta gaineratzen du: Espero dut Jainkoak sekularizaziotik gordeko nauela, eta gaur dela 34 urte hartu nuen bizibidean hilko naizela.

¹⁷ Ikus VINSON, *Essai d'une Bibliographie de la langue basque*, n^o 183. Liburu hau Aita Pedro Astarloarena da, noski.

Bere arrebari idazten dio Zarautzik 1822ko abenduaren 8an, komentuko Bikario izendatu dutela jakinaraziz.

Eta arreba honi beroni 1822ko azaroaren 7an exklustrazioa etorriko ote den beldur eta zurrumurruak agertzen dizkio, eta bera, bere anaia fraideak doazen bide beretik joango dela jakinarazten dio. Jainkoak daki —esaten du— zer komeni zaigun. Esaten dio, baita ere, Arantzazuko komentuarien zati bati su eman diotela Konstituzioaren aldekoek eta fraideek Oñatiko Bidaurretara jetxi beharra izan dutela.

Abenduko 8an berriz ere idazten dio arreba honi Aita Emaldia-
ren eskutitz bat bidaliz. Eta hauxe gaineratzen du: Aita hau Foruko komentua kendu zenean Arantzazuko komentura bidali zuten, baina hango fraideak Bidaurretan daude eta han lekurik ez izanez, honera etorri da —Zarautzera, noski—.

Abenduaren 16an idazten dio berriz ere: erabakia dago jadanik 450 auzotar ez dituzten herrietako komentuek kentzea. Gure herri honek —Zarautzek— ez ditu horrenbeste. Ez dut ahaztuko zuk zeuretan ematen didazun aholkua: Jainkoak, alegia, gure onerako zuzentzen dituela gertaera guztiak. Dena den, azkenean bukatzen du: Jainkoak eman diezaizkigula Gabon asko, aurtengoak baino zoriontsuagoak.

1826ko abuztuaren 24ean idazten dio aitari Guardian izendatu dutela esanez. Eta izan ere, berehala hasten da hobekuntza-obra egiten, bai elizan eta bai komentuan ere. Santuen imajinak Bilbotik ekararazi zituen.

Hunkigarriak dira, baita ere, ama hil zitzaionean idatzi zituen lerroak (1826).

Bergarako besarkadaren ondoren (1839) berriz idazten dio aitari, gerragatik ez baitzuen idazterik izan. Bigarren aldiz Guardian izendatu dutela jakin arazten dio. Baita ere, Getaritik Gobernadorea etorri zaiela zera esatera: Beldurrik ez izateko, alegia.

1840an esaten du Getarira preso bezala eramana izan dela, Zarauzko herria zergak ordaintzeke dagoelako.

1831ko otsailaren 17ko eskutitz batean Juan Manuel Sagarminagak zera idazten dio: entzuna duela bera —Aita Zabala, alegia— hiztegi baten egile dela. Aita Zabalak erantzuten dio berak ez duela hiztegirik egin; aditz-jokatzeaz, ordea, bai, baduela eginik, edo ia bukatu-ekin, lan bat. Lan hau 1840. urtean bukatu zuen. Eta hain zuzen, urte horretan hil zen Aita Zabala.

b) Fl. Lécluse-rekin Zabalak izan zituen harremanak.

1. Léclusek Aita Zabalarari (1830, urriak 5). Euskal aditza buruhauskarri bat dela esaten dio, eta laguntza-eske Aita honengana jo-

tzen du. Oraingoz indikatiboko presente eta perfektoa soilik eskatzen dio. Eskatzen dio, bada, aipatutako denboren formak idazkiz bidaltzeko. Baita ere eskatzen dio seme galduaren parabola hiru dialektotan (B, G eta L, alegia). Inglesek nahi omen dituzte.— Gero eskutitz berean Larramendiri buruz ari da. Larramendik bere hiztegiaren ez du jartzen —eta behar zuen jarri— zein aditzek galdegiten duten *naiz*, eta zeinek *dut*. Ezta ere ez du jartzen hitzen bukaerako *a* noiz den artikulua eta noiz hitzaren beraren zatia. *Dut* laguntzailea aditz iragankorretan soilki jartzen dela eta eraman dezakeela osagarri bat zuzena eta beste bat zeharkakoa, etab.

2. Aita Zabalak Lécluse-ri (1830, abenduak 5). Labur bilduz, esaten dio eskatzen duena —aditzari buruz— ez dela lan makala, baina halere, berari atsegina ematearren, saiatuko dela eskabideari erantzuten. Eskerrak ematen dizkio *Plauto Poligloto*-ren bi ale erregalatu dizkiolako, etab.

3. Lécluse-k Aita Zabalari (1830, abenduak 12). Berriz ere argi eske Aita Zabalarengana jotzen du. Aditzari buruz, etab. duda-muda batzuk agertzen dizkio. Leizarragaren aditzaz ere mintzo da.

4. Lécluse-k Aita Zabalari (1831, irailak 17). Bere atrebentziagatik barkazioa eskatuz, Lécluse-k bidaltzen dio —ez eskutitz honetan, honekin batera baizik— Mendiko hitzaldiaren itzulpena, oker daudenak zuzentzeko eskatuz. Euskal aditzaren adizkiak ere eskatzen dizkio. Euskal ortografiari buruz berak dituen ikuspuntuak ere bidaltzen dizkiola jakin arazten dio. Egiten dituen hutsak zuzentzeko etab. eskatzen dio.

Ikusten denez, Lécluse irakasleak estimu handitan zituen Aita Zabalak egiten zizkion aholkuak, zuzenketak, etab. euskerari buruzko gauzetan.

c) Mendizabal Tolosako inprimatzaileari egindakoak.

Mendizabal hau Tolosako Lopez Mendizabal euskal editore famatuaren arbaso da, noski. Harremanetan zegoen Lécluse-Zabalarekin —eskutitzetatik ikusten denez—, Frantzialdeko editore eta abarrekin. Bitartekotzat hartzen dute, alegia, Mendizabal hau, bai Zabalak eta bai Léclusek, liburuak, etab. elkarri bidaltzeko.

Léclusek Mendizabali egindako bi eskutitz datoz Ruiz de Larrínagak dakarren eraskinean, eta horiek zer ikusi dute Aita Zabalarekin, noski, baina zuzenean Mendizabalek Aita Zabalari edo honek hari egindakorik ez dakar.

d) Aita Zabalak Ulibarri Galindez-i egion zion eskutitza.

José Paulo de Ulibarri eta Galindez (1775-1847), arabarra zen, Okondon (Oquendo) jaioa eta Abandon, «Bilbo Uriyaren alboan» perratzaile bezala lan egiten zuena. Euskaltzale sutsua zen. Euskal

gauzetan nabarmentzen zirenei eskutitzak zuzentzen zizkien; eta bai idazten eta bai hartzen zituenak ere, berak *Gutunliburua* deitzen zuen liburuan kopiatzen zituen. Gaur *Gutunliburua* Donostiako Diputazioan dago, Urkixo liburutegian. *Gutun liburu* honen faksimil gisako argitalpena egin zuen Arabako Diputazioak Ulibarri Galín-dezen bigarren mendeburua ospatzean¹⁸.

Hemen dator, bada, Ulibarrik Aita Zabalari egindako eskutitza eta bai honek hari erantzunez egin ziona ere. Bai bata eta bai bestea ere euskaraz daude. Ulibarrik¹⁹ eskatzen dio, bada, Aita Zabalari Bizkaiko Fueroa euskaraz jar dezan; eta hori guti balitz, euskal gramatika bat eta bi hiztegi idatz ditzan. Aita Zabalak hauxe erantzuten dio:

«¿Cer: burua galanto ausi liburuac eguin ecinic, urtu orreec arguitara ateraceco, or, ogueta amar, edo berrogei milla errial, ta guero saguac, cedenac, ta autsac yateco; edo dendeetan euracaz tabacoa edo piperra salduteco? Ezcagoz orren zoroac! eztakit nic cetaraco naucan Iangoicoak; baya orain beintzat eztarabilt alango amesic²⁰.

5. Aita Zabalaren Mixioetako sermoiak

Zerbait bitxi da Aita Zabalaren sermoe-liburuekin gertatu dena. Zarauzko frantsizkotarren komentuko artxiboan Aita Zabalaren hainbat gauza direlarik, haren mixio-sermoiei buruz ez da fitsik.

Aita Ruiz de Larrínagak 1927. urtean argitaratutako bere monografian aitortzen du berak ez duela ikusi Aita Zabalaren sermoirik, ez Zarauzko artxiboan eta ez hango bibliotekan ere²¹.

Egia da, bestalde, Aita Larrínagak berak dakarrela Anaia Miguel Antón de Altunak Aita Zabalari buruz etxeko kronikan idatzi zuen berri laburra. Eta bertan, beste gauzen artean, hauxe dio: «Compuso muchos sermones».

¹⁸ Reproducción facsímil del «*Gutun liburu*» de José Paulo de Ulibarri y Galíndez, 1975.

¹⁹ Ulibarri y Galíndez, 1975.

²⁰ Ulibarri Galíndez-i buruz ikus «Disertación del P. Aquesolo sobre la figura de Ulibarri», *Euskera* (1971), 35-48 or. Ikus baita ere Okondon egin zitzaion omenaldian irakurri zirenak, hots, Lino AKESOLO: «José Paulo de Ulibarri Galíndez (1775-1847). Actualidad de su obra»; M.B. ALTZOLA GEREDIAGA: «Ulibarriren idatzi-lanen ganean hitz batzuk»; E.KNÖRR: «Ulibarri eta Okondo»; Federiko BARRENENGOA: «El euskera de la tierra de Ayala». Ikus denak *Euskera* (1976), 167. eta hurrengo orrialdeetan.

²¹ RUIZ DE LARRINAGA, op. cit., 40. or.

Berri labur hau, ordea, ez da Aita Zabala hil zenean idatzia, urte asko geroago idatzia baizik. Edozein modutan ere, Zabalaren sermoi idatziei buruz zerbait zekien hark.

Sermoi idatzi hauekin gertatu dena ulertzeko, kontuan eduki behar dira, nik uste, urte haietako gertaerak. Aita Zabala hil zen urte berean esklaustrazioa gertatzen da Gipuzkoan (beste probintzietan lehenago gertatua zen).

Fraide exklustratu haiek, ordea, apaiz bezala bizi zitezkeen. Eta batek baino gehiagok, bere apaiz-lanetarako mesedegarri izango zituelakoan, hartu eta berakin eramango zituen sermoiok. (Hala uste dugu).

Horrela sakabanatu ziren Aita Zabalaren sermoiak. Urte askoren buruan, ordea, —gure mendean, alegia—, Aita Zabalaren hiru sermoi-liburu eskuz idatziak hor-hemen azaldu dira: bat Bermeoko frantziskotarren komentuan, beste bat Irungo Pasionistetan, eta bestea non eta Jerusalemen (hango San Salvador izeneko komentuan).

Jerusalemgoa, Aita Solagurenek uste du Aita Gerekak (1846-1912) eramango zuela, eta gero, handik bueltatu zenean, oharkabez edo, han utzi²².

Irungo Pasionistetan zegoena Lemoako apaiz batek mezaberriko erregalu bezala eman omen zion Pasionista bati²³.

Liburu horietatik zaharrena Bermeokoa da, eta data hau dakar: 1816. Irungoa, berriz, 1822-33 alderakoa. Jerusalemgoak ez du data-rik. geroagokoa, itxuren arabera²⁴.

Guzti hau esplikatzeko, gure ustez, kontuan eduki behar da zer gertatu zen Aita Zabalaren heriotza-inguruan: fraideen esklaustrazioa Gipuzkoan. Espainiako beste lekuetan lehenago gertatu zen; Gipuzkoan pixka bat atzeratu zen, baina azkenean honera ere heldu zen.

Fraide esklaustratu horiek apaiz bezala bizi zitezkeen, ordea, eta liburu horiek beren predikuetarako mesede egingo zietela pentsatuz, hartu eta berekin eraman zituzten. Horrela sakabanatu ziren eta gero inork ere ez zekien non zeuden; baina azkenean, liburu horiek zeuzkatenak hil zirenean edo, pixkaka hor-hemen azaldu dira. Hori gure mendean gertatu da.

Zein da, ordea, liburu hauen edukina?

²² Aita Solagurenek eskutitz batean Villasanteri adierazia.

²³ Ikus L. VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*, bigarren agerraldia, 1979, 43 orrialdeko nota batean.

²⁴ Hiru liburu horietaz gainera, badira Arantzazuko bibliotekan Aita Zabalaren sermoi solteak.

Mixioetan, eta bereziki Garizuman, predikatzen ziren gaiak. Adibidez, azken egiak: Heriotza, Judizioa, Infernua, Zerua, Purgatorioko arimen sermoia, Penitentzia, Erospena, Grazia, Arimaren balioa, Jainkoaren errukia, Garizumako domekatarako sermoiak, Misiorako sarbidea, Aitortza, Jainkoaren Aginduak, zer egin bear den onean irauteko, hots, hartutako gogo onean irauteko. Garizumako domeka-arratsaldeetarako sermoien gaiak: Bekatua, Heriotza, Judizioa, Infernua, Zeruko gloria, Bekatu-bideak, Birrerioriak, Arimaren balioa; Jaungoikoaren grazia, Purgatorioko arimen sermoia, Barikuguren arratsalderakoa, etab.

Fedearen gordailuko egiak aldatu ezinak dira, noski; beti bat dirautenak dira, alegia. Baina mende eta tokien arabera lehentasuna ematen zaio bati besteari baino areago, misterioaren alderdi bat sakon daiteke bestea baino areago, etab. Horrekin zer ikusi handia du, baita ere, fededunaren adinak, kulturak, etab.

Gure mixiolariak bazekien, noski, zer gizaki-mota zuen entzule, eta hauen adin eta irizpide eta premietara egokitutako sermoiak egiten zituen. Beraz, euskaldun xaloak, fededun bai, baina askotan pixka bat nagi eta ezjakin zirenak, horietxek nahi ditu argitu, bizkortu eta kristautasunean sendotu.

Batzuetan badaki deskribapen oso biziak egiten, mozkorkeriaz mintzo denean, esate baterako.

Baina Aita Zabalarengan adimen edo buruak agintzen du. Entzuleei dotrina zuzena nahi die irakatsi; egiak, alegia, argi dezala gizonaren bizia. Ez da saihezbideetan galtzen, xedera doa zuzen.

Joan mendeko hasieran Bizkaia nolakoa zen jakiteko, batez ere herri txikietan, ez dira ispilu txarra Aita Zabalaren sermoiak. Berak maite du herri hau, baina ez dago itsuturik akatsak ez ikusteko, eta nahi dio lagundu eta bide zuzenera ekarri.

Sermoion dataz, eta beste.

Aita Zabalaren beraren iskribuetan agertzen da sermoe batzuen data: 1816, 1822, 1825, 1833, etab. Beste sermoi askotan ez da datarik ageri; baina inguru horretan eginak dira guztiak. Denbora nahasiak ziren politika eta ideologia berrien eraginagatik; Aita Zabalak, ordea, ez dut uste politika egoeraz fitsik esaten duenik. Betiko kristau dotrina eta moralak azaltzera mugatzen da.

Aita Zabalaren mixio-sermoiak argitaratzea, hori da, bada, gure xede eta helburua. Merezi dutela uste baitugu. Euskal gordailua ez da ugariegia, eta izkribu hauek, lehen ere galdu-gordean egon direnak, berriz ere —eta agian betiko— gal ez daitezen, nahi ditugu argitara eman eta euskal irakurlearen eskuetan jarri. Beroien barne-

ikerketa egitea, etab., irakurlearen esku uzten dugula, halere. Gure zeregina, beraz, hauxe da: izkribu hauek argitara eman eta irakurlearen eskuetan jartzea.

6. Aita Zabaleren euskara

Aita Zabala bizi zen garaian euskal baratza ez zen guztiz antzua. Baziren, alegia, gramatikalari, apologista eta idazle batzuk; eta esan beharrik ez dago: Zabalak liburu horiek irakurtzen zituen eta beroiei buruz bere iritzi propioa moldatua zuen. Zabala bera dugu bizkaieraren aditza lehen aldiz osorik bere adizki eta aldi guztiekin eman ziguna, eta bai Larramendiren ondoren atera ziren euskal liburuaren zerrenda osatu zuena ere, bi liburuok —aditzarena eta euskal bibliografiarena— bera hil ondoren agertu baziren ere.

Garai hartan euskara batuko bidearen ametsik ez zuen inork egin eta praktikan euskal idazleak bere inguruko euskera-modua segitzen zuen, hots, euskalkia. Hala egingo du Aita Zabalak ere. Bizkaiko euskalkia erabiliko du bere sermoietan eta euskalki hori mintzo den tokietan xoilki egingo ditu bere sermoiak. Baina muga hau denek, dirudienez, ez zuten gordetzen. Aita Aûibarrok, esate baterako, ez zuen eragozpenik izaten mintzoz bizkaitar ez ziren herrietan ere mixioak emateko; Zabalak, aldiz, bai, dirudienez.

Bizkaiera zen, bada, berak arretaz ikasia eta menderatua zuen euskalkia, eta berau hartu zuen lanabes-gisa bere mixio-sermoietarako. Eta hainbestearino da hori egia, non, mixioak emateko Bizkaia eta Araba-aldean euskaldun ziren herriak xoilki hartu zituen mixioak emateko eremu bezala.

Nondik hartua eta ikasia zuen Zabalak bere euskara? Mintzaira bizitik aurrena —etxetik, kaletik—, eta liburuetatik gero. Familia elebidun batean jaio eta hazia zen. Aurki konturatu zen apaizak Elizan bete behar dituen zereginak betetzeko, behar zuela euskara errotikan ikasi, eta horretarako, eskumenean zeuzkan liburuak erabili zituen.

Bizkaieraz zein liburu zeuden orduan argitaratuak? Frai Bartolomé Santa Teresa karmeldarrarenak²⁵ eta Fr. Pedro Astarloa frantziskotarrarena²⁶. Astarloa hau beste Astarloa apologistaren anaia zen,

²⁵ Frai Bartolomé Santa Teresaren obrak: *Euscal Errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizko gatz-ozpinduba*, Pamplona, 1816; *Jaungoicuaren Amar aguindubeetaco leleno bosten icasiqizunac*, Pamplona, 1816 (Hiru tomo dira).

²⁶ Aita Astarloaren obra: *Urteco Domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac, ceinzubetan azalduten dan Erromaco Catecismua*. Bilbao 1816-1818 (Bi liburu dira).

frantziskotar fraidea eta Kantabria Probintziako Probintziala ere izan zena.

Hauek baino lehenagokoak ditugu Juan Antonio Mogel-en²⁷ eta haren iloba Juan Joserren²⁸ liburuak ere.

Beraz, bizkaiera literarioaren guraso edo aitaponteko bezala aipa ditzakegu —lehenagoko batzuk aipatu gabe²⁹— honako autore hauek: Mogeldarrak, Añibarro, Aita Prai Bartolome karmeldarra, Astarloa frantziskotarra eta bai gure Zabala bera ere, baina honen idazkiek ez dute gaur arte argia ikusi.

Aita Zabalaren sermoien egiturari begiratuz, trinko eta arduraz tajutuak daudela esan behar, bai hizkuntza aldetik eta bai mamiaren aldetik ere. Euskalkia zen orduan idazlearen bidea. Iparraldean lapurtera; Hegoaldean, berriz, gipuzkera eta geroago bizkaiera ere bai, esan dugunetik agiri denez.

Gure egunotan zabaldu da *euskara batua*, idatzizko arrunta bezala erabiltzeko, euskalkien gainetik (hauek erabat baztertu gabe). Baina problematika hau berria da, eta Aita Zabalak ez zuen batere ezagutu.

Euskal apologistek euskara goratzeko erabiltzen zituzten ahoberoeriak gure Zabalak ez zituen gehiegi maite. Ikus, adibidez, Lécluse-ri egiten dion karta baten zatitxo hau: «no he visto la obra del Abad de Iharce y no puedo asegurar he podido hacerme cargo de sus aciertos o desaciertos, pero su prospecto, que le tengo, no me satisfizo, y me pareció que podríamos tener en él no un segundo Astarloa, sino un nuevo Sorreguieta, falto de lo que en los talentos del hombre llamamos juicio (y es aquel peso con que damos a cada razón su propio mérito) o peso con que graduamos el mérito de las razones y damos a cada una su propio lugar»³⁰.

²⁷ Juan Antonio MOGEL, *Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac*. Pamplona, 1800 (Gipuzkeraz); *Confesino ona*. Vitorijan, 1803 (Bizkaieraz); *El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua vascongada en la Universidad de Basarte o Diálogo entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan*. Durango, 1881.

²⁸ Juan José MOGEL, *Baserritar nequezaleentzaco escolia*, Bilbao, 1816. *Egunoroco lan on ta erregubac meza santuba ondo enzuteco, confesino eta comuninoya biar dan leguez eguiteco prestaera eta zuzenbidiak*. Bilbao, 1820.

²⁹ MICOLETA, Rafael, *Modo breve de aprender la lengua vizcaína*. (Micoleta XVII. mendekoa da, baina haren liburua 1880ra arte ez zen argitaratu eta orduan ere Bartzelonako errebista batean. Bizkaiera da berak irakasten duen euskara).

³⁰ Ikus RUIZ DE LARRINAGA, op.cit., 67. or.

Hitz batean esanik, Aita Zabalak mixioak emateko bizkaiera erabiltzen zuen beti. Hauxe zuen sustraitik ikasia eta menderatua, eta hain urrun eraman zuen hori, non beste euskalkirik erabiltzen zen lekuetan ez baitzuen mixiorik ematen. Egia da euskalkien mapa egin gabe zegoela orduan. Hau lehenbiziko aldiz L.L. Bonaparte Printzeak egin zuen gure Zabala hil eta gero, baina zer euskara –modu egiten zen toki batean eta bestean, handizka bederen, baze-kiten gure mixiolariak, eta guk dakigunez –Aita Añibarrok ez bezala–, gure Juan Mateok Bizkaiko herrietan eta euskaraz egiten zen Arabako batzuetan xoilki ematen zituen mixioak.

Bestalde, badakigu J.A. Mogelek adiskidetasun mina izan zuela Zarauzko kolejio edo komentuko fraide mixiolari batzuekin³¹ eta Zarauzko komentuan egon zela gorderik Mogelen *Peru Abarca* arik eta 1881. urtean argitaratu zen arte³².

El verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno bere libururari ipini zion bibliografian 30etik gora liburu aipatzen ditu, bai Hegoaldeko eta bai Iparraldekoak ere³³. Ongi jantzia genuen, bada, Aita Zabala euskal gauzetan.

Guk orain lehen aldiz argitaratzen ditugun mixio-sermoiak idazki gotorrak dira, ongi taxutuak eta egituratuak, bai azalez eta bai mamiz. Ezpairik gabe, euskararen lekukoen artean egotea merezi dutela iruditzen zaigu.

Euskalkian daudela eta ez euskara batuan? Bai, hala da, eta ezin izan zitekeen bestela. Eta euskara batuari deus kendu gabe, euskalkiak ere hor daude eta berauentzat gero ere leku bat izango dela uste dugu. Euskararen iturri eta lekuko diren idazkiak behar ditugu berreskuratu, bildu eta ezagutzera eman. Hizkuntza batek behar du bere gordailua zaindu.

Labur, Aita Juan Mateo Zabalaren sermoi hauek mamiz eta azalez ongi landuak diren idazkiak ditugu, eta bestalde, —gizonen lane-kin beti gertatzen den bezala— beren garaiko eta tokiko seinale eta zantzuak dituztela, aitortu behar.

³¹ Ikus L. VILLASANTE, «El Padre Palacios (1727-1804). Estampa de un gran Misionero de nuestro siglo XVIII», *Scriptorium Victoriense*, 1961, 7-101 or.

³² Nola eta noren bidez joan zen Zarautzera *Peru Abarca*, ikus VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*, 2ª ed., 1979; nº 315.

³³ Ikus RUIZ DE LARRINAGA, op.cit., p. 22-23.

7. Gure argitalpena

Gure asmoa da, bada, egilearen testua ahalik eta zehatzen ematea, baita ortografia bera ere errespetatuz.

Eskerrak eman beharrea gara Bizkaiko Diputazio eta beronean Kultura Sailburu den Tomas Uribeetxebarria jaun agurgarriari eta lan hau aurrera eramaten modu batera edo bestera lagundu diguten guztiei, eta bereziki Aita Jose Luis Zurutuza, Itziar Rekalde, Luis Arozena, Joan Barrena eta Aita Zabalaren bizitzako xehetasun batzuk jakinarazi dizkigun Aita Zelestino Solaguren-i.

ARGITALPENARI ZENBAIT OHAR

1. Aita Juan Mateo Zabalak hiru sermoi liburu idatzi zituen: Bermeokoa (B), Jerusalemgoa (J) eta Irungoa (liburu bakoitza nondik datorren adierazten dugu era horretara). Aita Zabala Zarauzko komentuan goardian eta bikario bezala bizi izan zen bitartean, bere lehengo sermoiak eraberritu eta oso txukun idatzi zituen berriro. Sermoi hauexek jasotzen dira Irungo liburuan. Beste bi liburuetan, berriz, sermoiak beren lehen edo bigarren idazkeran azaltzen dira, orrialde ertzetan ohar ugari dituztela. Arantzazuko (A) artxiboan badira Zabalaren beste sermoi batzuk ere.

2. Orrialdeen ertzetako oharrak testu barruan sartzen dira argitalpen honetan, bakoitza bere lekuan eta parentesi artean. Zenbait alditan, zalantzak izan dira ohar horiek non ezarri.

3. Zabalaren sermoietan hitz asko agertzen dira azpian puntu-
txoak dituztela. Era horretan, esanahi berdineko hitz ezberdinak ematen ditu edo erabil daitezkeen gramatikazko beste era batzuk: «intenciño» (edo «asmu»), «bailitzan legue-che» (edo «balitz leguez»)... Argitalpen honetan ez dira, noski, jasotzen puntutxoek zehaztasun horiek, orrialde ertzetan beroriei dagozkien oharrak ez baidatoz behintzat.

4. Lehenengo bi liburuetako puntuaketa nahiko nahasia da eta ez beti era berdinekoa. Argitalpen honetan, irakurketa errazteko, zenbait zeinu sartzen dira behar-beharrezko edo komenigarri direla uste den tokietan, komak normalean. Beste zenbait aldiz, gaurko erara egokitzen da puntuaketa, esate baterako, bi puntuak eta puntu ta koma erabiltzerakoan.

5. Noizean behin hitz batzuk, ohartu gabe seguru asko, gaizki idatzita daude, Zabalaren beste sermoietatik ikus daitekeenez. Horiek zuzen jarri dira, berak ohi duen bezala. Beste zenbait hitz, nahiz eta Zabalak oso letra ona eduki, ez dira errazak irakurtzeko; kasu horietan, gure ustez egokien datorren irakurketa eman dugu. Geure aldetik zerbait osatuz eransten dugunean, kortxete artean ipintzen dugu.

6. Latinezko aipamenetan, lehen idazkeraren ondorioz nonbait, akats batzuk irakur daitezke. Behar den erara jartzen dira huts horiek.

7. Aita Zabalaren Bermeoko eta Jerusalemgo sermoiak zenbait sailetan ordenatuta ematen dira hemen, sermolariak berak egiten duen eran gehienbat: Jainkoaren eta Graziaren saila, Jesusen nekaldiarena, Garizumako sermoiak, bekatuaren saila, Azken Egiena, Aitortzaren eta Jainkoaren aginduena, beste eratako zenbait sermoi...

8. Aipatutako hiru liburuetan gai berdintsuak lantzen ditu aita Zabalak, misioetan eta Garizuman erabili ohi zirenak gehienetan. Hala ere, idazkera nahiko ezberdinean datozenez gero, probetxuzkoa iruditu zaigu Bermeoko eta Jerusalemgo sermoi guztiak argitaratzea. Sermoi hauen artean ez dago Andra Mariarenik, ez Santuenik. Beste nonbait ote daude?

9. Sermoi bakoitzaren hasieran, zein liburutatik hartua dagoen zehazten da, eta liburu horretan dituen orrialdeak ere bai. Jerusalemgo liburuko orrialde zenbakiak geuk Arantzazun jarriak dira. Batzuetan aita Zabalak berak ematen ditu aurkibidean sermoiak dituen zatiak.

10. Zenbait sermoitan parentesi zeinuak ageri dira, atal batzuk kanpora utz daitezkeela adierazteko. Parentesi horiek ez dirudite aita Zabalak ipiniak eta hemen ez ditugu jaso.

11. Sarri ikusten dira hitzaldi hauetan hitz laburtuak: Ygcoa edo Jgcoa (bi eratara, beti argi ez badago ere), J.C.^o, Cc. (cristiñauac), Ne. E. Mc. (neure entzula maiteac), pctua (pecatua), ne. (nere, neure)... laburdura horiek beren horretan utzi ditugu, irakurtzea nolabait oztopatzen ez badute behintzat.

1. ATALA

1. MISIÑOAREN SARBIDEA ³⁴

(J, 1-12. or.)

Sicut missit me Pater, et ego mitto vos.
Joan. 20. v. 21.

(1) Barri onac, eta guztizco onac dacartzueguz, cristiñauac. Pecatupean bici zareen pecatari errukigarriac, pecatu mortalaren catea gogorraz loturik, eta catigu zagozenoc, poztu zaitece. Ceuen arimeen salbaciñoagaz ichiric, edo erdi ichian, eta ernegadu aguinean aurkituten zareenoc, zabal zabal eguizuez ceuen biotz estu-larri orreec, bada gaurco arratsaldean dator ceuec gana ceuen eguillea, eta ceuen aita gozoa. Datortzue ceuec ainbeste bider ceuen pecatuacaz oñen-azpian erabili izan dozuen yaun errukior au, ceuec-gaz bakeac eguitera, eta ceuen arimaac pecatuen carcela ilun-icaragarri orretaric ateratera. Datorkizue Yesus ceuen, eta guztioen aita, ta erredentore maitagarria, ceuen arimaac pecatuen loikerietaric garbitutera, eta bere graciagaz edertutera, ta apaindutera. Icusten dau daucazuezala ceuen arima orreec icatz baltza bera baño beré baltzago; zagozela iya infernua amilduteco, eta betico galduac izateco bidean; eta onec erdibitu deutso bere biotz biguna; eta atera guraric ceuec ceuen bide okerretaric, biralduten deutsue misiño santu au ceuen errira, ceuei adietan emoteco, bene benetan ondu gura badozue, prest dagoala bera baita ondo prest, ceuei parcatuteco, eta ceuen adiskide izateco.

Bai, neure erri noblea, Yaungoicoac bere erruki andiz biraldu gaituz ona neure lagun maitea ta ni; eta ori eguiteco onetara ecarri dituz gueure biotzac, eta beste guztienac beré: eta esan guiñaike eguia oso osoagaz, eta ao betean ece, etorri eguin gareala alan gura izanic bertoco cabildu beneragarriac, yusticiaco yaun prestuac, eta errico zar-gazte, andi-chiki eta umeguiñoacoac. Eldu yaco Yesus gozoari berac ceuri eta inguruetaco erriai bere ontasuna eracusteco, eta mesede andiac eguiteco icentaduric eucan aldia. ¡Ay, N.N.! ¿Ceinbat eta ceinbat izango ete dira ceure semeen artean, eta albo-

³⁴ Aita Juan Mateo Zabalaren sermoiek bi ardatz hauek dituzte: Misiñoa eta Garizuma. Misiñoak garizuman emango ziren sarritan. Hori gogoan hartuz, sarrera-sermoi hau jartzen dugu lehen liburukiaren hasieran, eta azken agurraz itxiko dugu nolabait bigarren liburukia.

rengo errietaco semeen artean aspaldico urteetan Ygcoa ganic iguesi eta deslai dabiltzazanac? ¿Ceinbat ete dira pecatuan bici direanac, eta gaistakerian beguibietaguiño ondaturic dagozanac? ¡Ay! orain emenche berton aguertuco balituz gueure guztioen barruac, ¿celan icusico ete guendukez gueyenen arimaac? Gueyenac ceuen pecatuacaz barrien barri curutzean eskegui eguin dozue Yesucristo gueure yaun maitea; gueyenac pecatuacaz galduric daucazue Ygcoaren gracia ederra, galduric daucazue ceruraco ceunkeen (2) escu-bidea: galduric daucazue ceuen Ygco laztana; eta orainche elesha au beera baletor, eta guztiac azpian zapaldu, derechat ece gueyenac infernuraco izango ciñatekezala. Eztiñot nic au albastoa ta destayuan: lar beré lar dakit celan bici direan gaurco egunean cristiñauric gueyenac.

Baya, neure entzula maiteac, biotz zabala. Orainche da ceuen aldia: aushe da Jesus gozoac ceuei bere ontasuna eracusteco iminiric izan daven abegune ederra. Onetaraco biraldu gaituz gheu erri onetara; eta gueuri dirauscu beste aldi baten Apostolu santuai legueche: *sicut misit me Pater, et ego mitto vos*. Neu neure aitac biraldu ninduan legueche, alanche nic beré ceuec biralduten zaituedaz. Ni yatzi nintzan mundura galduric egozanac billatuten eta onduten, eta ceuec beré ori eguiten yoan bear dozue. Nic ondu nevan Samaria-co emacume pecatuan ascotan yausia: izango dira erri orretan beré zar-gazte asco seigarrenecoan sarri yausi izango direanac, eta oneec ondu bear deustazue. Nic ona izatera ecarri nevan santa Maria Madalenea, errian cer esan andiac imini cituzana: izango dira erri orretan beré, ta ez guichi guichi, euren pecatuacaz berba lecu andia imini izango daveenac, eta orreec ondu bear deustazue. Nic san Pedro-ri ezagutu eraguin neutsan bere deungaro eguina, eta negar andiac eguin cituzan bere biraoac gaitic, eta guzurraren ganeco yuramentu okerrac gaitic: badira erri orretan beré birao eguiten dakienac, eta guzurragaz yuramentu eguin izan daveenac, eta ea orrei garbatu eraguin albadeyozue alan eguina. Nic atera nevan san Mateo escu artean erabiltzazan tratu okerretatic; badira erri orretan beré tratu okerrac eguiten dakiezanac, eta orrei galarazo bear deustazue alango tratuac. Nire esanagaitic Zakeoc atzera emon cituzan ondasun deungaro irabaciac: badira erri orretan beré iño-ena eureneturic eta mamiñ eguinic daukeenac, eta orrei esan bear deustazue errescatat eguiteco, eta bacochari berea emoteco. Eta azkenean izango dira beste era ascotaco becatariac, eta eguin bear dozue aleguinac oneec pecatuetic ateretaco, nic atera nituzan leguez adore bagaric egozan guizon cadenac, eta beste asco.

Ara emen cetaraco biralduten gaituzan Yesus maiteac, eta ceta-

raco etorri garean gueu erri onetara: ceuec pecaturic atera-ta ceruraco bidean iminteco. Ez zatoz, ez, ceuon ondasunen atzean (billa): ceuen etseac, ceuen basterrac, ceuen abereac, beeca-riac (guiberriac, umerriac) ceuen escu-artecoac ceuentzaco: gueugaitic orche oso oso-ric gueldituco yatzuez. Baya arimeen atzean gatoz, eta arimaac emon bear deuscuzuez, ez gueuretzaco, ezpada Jesus maitearentzaco. Pecatuz baltzituric, eta bete beteric badaucazuez beré, ezta ecer orregaitic. Yaun onec eztau gura pecataria (3) galdu dedin, eta betico il dedin: gura davena da ondu daiteala, eta betico bici daiteala. Ichi gura badozuez bada orain arteco bide okerrac, eta lengo pecatuai bein betico agurra eguin, eta Yaunaren esanac eguiten dozuezala, gura badozue berac eracusten deutsuezan bide artezetatic ibili, berac artuco zaituez, berac parcatuco deutsuez pecatuac, eta guero, erio-tzea ezkerero eroango zaituez ceruco gloriara. Orretaraco galdu bear dozuez orain arteco izcune charrac, alde eguin pecaturaco izan dozuezan, eta izan daikezuezan bideetatic, ichi lagun deungaac, baco-chari berea biurtu, guztiacaz bakeac eguin, berba baten emetic aurrera cristiñau on batzuc izan bear tzare (dozue).

(3)

Baya alan eguin bearrean, aurrera eroan gura badozuez orain arteco zantarkeriac, loikeriac, gorrotoac, biraoac, ordikeriac, lapurreriac eta osterantzeco pecatuac, yakin bear dozue ece, etzala Yesucristo bacarric etorri mundura pecataria ondutera, baita beré etorri zala pecatari gogortuac galdutera. Simeon santuac esan eutsan Maria santissimeari lelengo bere besoetan yaun au eleshara eroan evanean: yakin eguizu ece, umechu au izango dala asco galduteco, eta asco biztuteco: *positus est hic in ruinam, et resurrectionem multorum*. Eta alan misión santua entzun-da onduten ezpazare, bildur izan bear tzare, ceuen buruen ganera etorrico dala yaunaren aserre gogorra. Bear bada aushe da Ygcoac ceuentzaco daucan azkenengo gracia; bear bada aushe da azkenengo eguingo deutsuen deia: eztozue bear bada beste misiónoric entzungo; beintzat yakina da guztioac entzungo eztozuela, eta ceuen zorigaistocoac, alan izanic, misión onegaz balietan ezpazare.

Baya ¿nor izango da neure entzulen artean alan eguingo davena? ¿Noc zarratuco (gortuco) dituz bere belarriac Yesu-en dei gozoac ez entzuteco? ¿Noc gogortuco dau bere biotza Yesu-en dei gozoai ez erantzuteco? Ez, eztot uste alangoric izango danic. Biotzeric gura izan dozue misiónoa, gogo onagaz asi zare etorten; eta derechat ece aleguinac eguingo dozuezala aurrera beré etorteco, zeuen arimaac garbituteco. Yangoicoaren bideetan sartuteco, eta aurrerantzean onac izateco. Eta au gogo obeagaz eguin daguizuentzat esan bear deusuet ece, elesha ama santuac beré orishe gura davela, eta ori

eguitea gaitic guztizco indulgencia, eta parcamen ederrac aguinduten deutsuezala.

(4) Lelengo bada, misiño denporaraco Aita Santuac emonic daucaz lau indulgencia plenaria, edo parcamen oso osoac. Lelengo parcamen irabaci lei misiñoac dirauan arteco edocein egunetan, eta edocein beré eleshatan confesadu, ta comulgaduta. Bigarrena, eta irugarrena irabazten dira gueuc icentaduco doguzan comuniño (4) generaleco egun bietaric baten, edocein eleshatan confesadu, eta guero elesha onetan comuniño santua artu-ta: eta bata egun atan berean irabazten da, ta bigarrena gueratuten da eriotzaco orduraco beste egun baten esango deutsuedan leguez. Laugarrena arimeen funciñoa eguingo dan egunean, edocein eleshatan confesadu ta comulgadu, eta elesh' onetan oraciño eguin-da; baita egun atan bertoco altara guztiac dira purgatorioco arimea ateratecoac. Onezaz ganetic misiño santua entzun eskero, ilean bein daucazue zazpi urte ta zazpi berrogei eguneco parcamenac confesadu ta comuniño santua artu-ta. Entzuten duzuen doctrina bacoheco eun eguneco parcamenac. Iñor aguinduten (botetan) badozue misiñoco doctrinara, edo etorteco bideric emoten badeutsazue, beste berreun egunecoa, eta au irabaci cinaie gurasoac, ugazabaac, eta ugazaba-andreac, ceuen umeac, eta oguituoco (otseñac) biralduta: Misiñoa esaten dan eguna bada bulda santuac dacazan estaciñoetaco eguna, irabazten dira Erromaco zazpi eleshac icusita (visitauta) irabaci leitekezan indulgencia guztiac.

Oneec indulgencioc irabazteco arimea pecatu mortaleric garbi izatez gane euki bear da guztien bulda santua, baita escatu bear yaco Ygcoari, arren bada beguiratu daguiola bere elesha santuari, galdu daguizala heregia guztiac, ecarri daguizala herege etá fedebagacoac bere legue santura, eta emon daguiela erregue eta principe catolicuai euren artean bake ona eguiteco, eta alcar ondo artuteco gracia. Edo laburrago ta errazago, escatuco deutsazue Ygcoari, aita santuac aguinduten dituzan gauzaac gaitic. Ara celango indulgencien ondasun-teguia irabaci ciñaikeen misiñora etorrita. Eta obeto aditu (ulertu) daguizuen ondasun onen balioa, cerbait esan bear deutsuet indulgencien ganean.

Batec pecatu mortala eguiten davenean merecidu dituz infernuco betico penaac. Confesiño onaren bidez parcatuten deutso Ygcoac pecatua, eta quenduten deutso bere infernura bearra: baya ezteutso beti parcatuten pecatuaren zor guztia, cein kitadu ta pagadu bearco daven edo mundu onetan gauz' onac eguinagaz, edo bestean purgatorioco pena ecin gogorrageaz. Confesoreac aguinduten daven penitenciagaz bere ateraten da zor ori: baya ez orregaz beré beti guztia,

ezta onago beré. Azaz ganetic pitian pitian eguin daroaguz pecatu venialac, ceintzucaz bere zor andiac artu daroaguz gueure lepo ganen. Elesha ama santuac emon gura leuskioe bere semeai zor orreec ateretaco (paguetaco) modua. Eta ¿cer derichazue eguiten davela? Daucaz bere contura Yesucristo-c emon-da, Yesucristo beraren merecimentuacaz, Maria santissimearenac gaz, eta santu-santeenac gaz eguiten direan ondasunen guiltzaac. Ondasun orrec bada idiguiten dituz, eta emoten deutse (5) bere semeai gauza onen bat eguiten daveenean merecimentu onetario batzuetan gueyago, batzuetan guichiago cegaz atera, edo bai cegaz buruzpeeratu euren zorrac. Esaten yatzuenean bada indulgencia dagoala, edo irabazten dala, da esatea leguez aita santuac, edo obispo yaunac zabaldu daveela eleshearen ondasun au, eta eurac esaten daveena eguinagaz artuten dogula, eurac emoten deuscuen beste ondasun, cegaz erantzun Yaunari deutsagun zorrari.

(5)

Indulgencia edo parcamen au da modu bitacoa, bata da osoa, ta bestea ez osoa. Indulgencia osoa da Ygcoari zor guztia paguetaco bestecoa dana. Ez osoa da zorraren zati bat paguetaco bashen ezta; contu eguizue zazpi urteco indulgencia, edo eun egunecoa. Eta entzuten dozueanean au edo au eguin da, zazpi urteco indulgencia irabazten dala, eztozue uste bear ece, batec zazpi urtean purgatorioan egon bearco beeban, orren parcaciñoa irabazten davela. Esan gura davena da, eguingo balituz batec anchina elesha santuac aguiduta eguin oi cirean zazpi urteco penitenciac, orregaz irabacico evan gaña parcaciño irabazten davela orain zazpi urteco indulgencia irabacita. Baya eztakigu gueuc ceinbat parcatuco leuskion Ygcoac purgatorioco peneetatic zazpi urteco penitencia eguiten davenari, eta orregaitic ecin esan guiñaike ceinbat laburtuten yacan purgatorioan egon bearra zazpi urteco indulgencia irabazten davenari. Baya alanbere beti da asco, eta gueuc uste guiñaikean baño ascoz gueyago.

Ea bada, neure entzula onac, aleguinac eguin bear dozuez ez galduteco, ez elesha ama santuac zabalduten deutsuezan indulgencia eta parcaciño ederrac, ezta Yesucristo-c beragaz bakeac eguiteco opa deutsuen era ecin ohea. Naguikeriac, eta gogo charrac bost achakia eta atzera-bide iminico deutsuez ez etorteco: batzuetan esango deutsue lan estuac dozuezala, eta denpora asco galdu bear dozuela misñora etorrta; beste batzuetan burura emongo deutsue, ea cer eguingo dozuen emen ordu t'erdian misionisten contuac entzuten, eta onetario beste milla gauza. Diabrua beré ezta lo izango ea galarazo albaleizuez arimaco ondasunac. Baya ceuec contu eguin bear dozue ece, bear bada misñora etortean dagoala ceuen betico salbaciñoa: eta derichat ece, alan izango dala ceuen arteco ascoren-

tzat. Lanac barriz, goshagochu yagui, bearrari gogoz ekin, eta alan aurreratu ta biribilduco dozuez. Eztozue eguño entzun izango misiñora etorteagaitic iñor pobretu ta meetu izan dala, edo arto ta gari guichiago artu izan dala. ¡Ay! balegoz or alboco erriren baten ilteco cecen entzute andico batzuc, nonbaisteberé e-litzake lan esturic izango: e-lichakio luce erechico ango egon bearrari.

- (6) Baita bear bada bateri bateri entzungo deutzazue gueuc misionistoc arguiroegui (6) berba eguin daroagula, ascoren beguiac pecaturaco idigui daroaguzala. Baya ori diñoenac eztave misiño denporan (aldian) confesonario andiric berotu. Gueu leguez orco ol arteetan yarrico balira, icusico leukee ez gueure esanetatic pecatu barriac eguiten dituezala, ezpada-ce gueuri entzun-da confesetan dituezala gueuri entzun baño leen eguin cituezanac, eta iños confesetaco biotzic izan eztaveenac, uste izanic ece confesoreac alango pecatuto tzar andien barriric eztakiela, edo ibiliric bein pecatu badireala, bein ezti-reala, beti biotzketaz, beti euren barruco kezcaz, baya bein beré esaten asartu bagaric. ¡Beguiac idigui! eta gaurco egunean! ¿Nori? ¿Nori guero? ¡Ay! Larregui izan doaz errietan gazteai beguiac idiguiteco tokiac, ta lagunac. Larregui izaten dira gazteai lotsaric artu bagaric, euren aurrean esan oi direan berba nasaiac, eta larregui eguin oi direan zantarkeriac. Badira beré guraso ardurabagaco nasai (zabar) asco, bacarrean eguin bear leukeena, umeac alboan dituezala, edo ez beintzat urrun urrun, eguin oi daroenac. Eztoqu gueuc esango seigarrenecoan, barbaraco, biguira edo celai batu baten eguiten dan amarrenic. Eta beste aldetic barriz guztientzat eguiten danean, guztien onari beguiratu bear yaco, eta ez alango uste-ez-eco norbaiten caltari, diño Marchant yakitunac. Alan bada onelango ipuiñai yaramon bagaric, eurrez, eta ertzean, eta bide beteetan etorri bear tzare misiño santura; ergoienetan, eta bas-etse goyetan bat ichi etsea yagoteco, eta ganeco enparaduac sermoira.

Eta etorte au ceuen onic andieneraco izan dedin, yakin bear dozue celan etorrigo zareen, celan egongo zareen, eta arantzean cer eguin bear dozuen. Onantzean eta arantzean etorrigo zaree guisase-meac guisasemeetara, eta emacumeac emacumeetara, ez nasteen, eta ez batzaan. Eztiñot nic au senar-emazteac-gaitic, ez guraso eta seme-alabaac gaitic, ez neba-arrebacgaitic. Ondo dirudie senar-emazteac alcarregaz; ederto gurasoac umeac alboan dituezala; eta polito ta ez deungaro neba-arreba onac euren lotsa onean datoza-nac. Baya izan oi dira gazte zorapillo, gogo arin batzuc, baita urteetan gazte gazte eztirean beste batzuc, baya sentzuna gazte ta ero daukeenac, ceintzuc ez misiño santuari, ez gauzaric santuenari beré itzalic artuten eztakien, eta onelangoac gaitic esaten deutzuet: eta

bein danic bein ondo dirudianac ondo dirudi, eta ondo da alan eguita. Eta bideetan etzaree etorrico ipuinac esaten, ezta chancha burristaac, eta barre eragin-garriac bere. Errosario santua, edo beste oraciño batzuc esaten bacentoce, ori ondo litzateke, eta ori zan anchina lecu ascotan eguin oi zana. Beinic bein berba onac esaten etorrico zaree, eta orregaz guero misiño santuric on gueyago ateraco dozue ¿Cer eguin (7) daroa achurlariac cerbait erein bear davenean? (7) Aurretiaz prestetan dau bear dan leguez lurra. Alanche prestadu bear dira biotzac, Yaungoicoaren berbearen acia erne, aci, eta laborea emotera etorri dedintzat.

Sermoian zagocen artean egongo zaree moduz, eta ishilchuric, barriketa bagaric, entzuten predicadorearen esanac. Estula baletortzue, lotutera eguin bear dozue. Baakit nic ecin beti eguin izaten dala, baya ascotan icusten dana da, batec estula badagui, besteac bere alcarren leyan leguez eguin bear izaten daveela. Guero galduten dira berba asco, edo beintzat ezta ain ondo entzuten, ez eta ain gogoz bere. Loac bazaroace, lo ori ushatu eta galarazo bear dozue, eta albocoac lo badacutsuez, iratzartu, baya moduz eta iñori barreric eraguin bagaric. ¿Cetaraco izango dozue misiñora etortea, guero sermoian loac artuta sanguilica egongo bazare? Ume titicoac beré misiñoraco eztira onac: aec gaishoac eztakie asco cer eguiten daveen, eta onic onenean negarrez asten dira: eta predicadoreari galerazo, entzulaai galerazo, eta beste gauz' onic estave eguiten. Baya iñor nori ichi euki ezta, umeagaz baletor, ori at'ondoan paradu bear da, umechuac negarrari emoten badeutso beré berlan canpora urteteco. Eta onelangoac eguin bear leukeana da, umeari eleshara baño leen ordu biz odo iruz leenago loa galerazo, guero emen loac artuta ishi ishilic egoteco. Baya esana esan, oba da ume chikiric ez ecartea.

Eta ez yatzue aserratu bear gueuc esango doguzanac gaitic. Ezcagoz gueu iño-en contra: ezteuscu iñoc gachic eguin: ezteutsagu iñori gachic opa: guztioac maite zaitueguz Yesucristo-gan eta Yesucristogaitic: eta, gueure escuan balego, orain bereon ceuec besondotic artu-ta guztiac eurrez, garauric beré ichi bagaric, ceruan sartuco cindukeeguz. Eta alan gueuc baguenki gueure berbaren batec iñori min emongo leuskiola, ez gueunke alango barbaric aoric beré ateraco: eta alangoric yazoco balitz, yakinic zagoze ece, yakin-ez-ean, eta gogoaz bestera dala. Gueure gorroto guztia da pecatuen contra: oneec nondi-nora galduco doguzan gabiltz, oneec erri onetaric erbestetu gura guendukeez, eta orretaraco izango dira gueure nekeac, gueure icerdiac, gueure buruco-minac, gueure deadarrac, gueure aserrear, eta gueure guztiac. Beste arerioric gueuc eztogu, besteri calteric eguin gura ezteutsagu, besteric lotsatu gura eztogu.

(8) Baita onen contraco gueure berbac entzuten dozuezanean, etzare ibili bear, ceuen artean batari ta besteari limosnea balitz leguez zabalduen, eta esaten: onec urlia oso osoan atrapetan dau; bestea urleciari (urlinayari) ;ce ederto yatorkion! Ez, bacochoac bere buruari ondo yatorcana, beretzat leguez (8) artu, contu eguinic á bere oneraco esan dala, eta besteai bake bakean ichi. ¡Ay! alan eguingo balitz sermoietan, eta ez predicadoreen berbaac batari eta besteari ezarten ibili, beste onariric ateraco litzateke sermoietaric. Baya ascoc okerreco guztia eguin daroe. Egongo da misionistea ordien contra gogor eta irrime eguiten: eta emacumeac edaten eztakienac egongo dira orduan zabal zabalic, ezpanetatic beera adurra dariela, eta biotza pozen pozez urtuten daukeela, urliari eta besteari orduco sermoia ezarten. Eguingo dau besteren baten murmuraciñoaren contra, eta esango dau, orretan emacumeac deungaro esateco latzac direala, eta orduan egongo dira guizonac arro arro, zabalzen zabalez azalac beré ecin artu dituzala, eta emacume á, edo bestea gogoan daveela. Esaten badau misionistead cerbait tratu okerretan dabiltzazanen contra, beingoan diño ascoc euren artean: jah bada! urliac oraingoan baaroa bear davena. Beti izan da eguia achinaco esakerea: iñoren buruco sitza icusi oi da, eta norberen buruco otsoa ez. Baya ez, neure cristiñauac, gueure buruari beguiratu bear deusagu, eta ez besteenari; gueuretzat ondo datorrena artu, eta besteai ichi gueldi gueldi, eta onelan guztioentzat ona izango da misiñoa.

Guero sermoia ezker artez artez artuco dozue etseraco bidea: ez ibili or etsetan sartu-urtenetan gastuac eraguiten, ezta erbeste-coac beré. Au erri guztietan esan daroagu, eta baakigu gueuc cegaitic dan, eta onetan gustu emon bear deuscuzue gueure esana eguinic. Ez ibili bere ardan-guelan (tabernan) sartuten: sermoi osteco berbe-teac, eta barriketeac sermoian artu zan biotzeco berotasuna, eta samurtasuna galarazoten dau. ¿Cer eguiteco izango da aci ona ereitea, estaldu etzalaco choriac yaten badavee? Onelango ereitzeagaz ezta gose andiric kenduco. Alanche izango da bada gueuc ereiten doguzan berbacaz beré, ceuec biotzean ondo gordetaco aleguinac eguiten ezpadozuez. Beragaitic etseraco bidean beré, leen esan yatsuen leguez, yoango zare guizonac guizonetara, eta emacumeac emacumee-tara, misiñoan entzun dozuezan berba onac ceuen artean darabil-tzuezala. Eta guero gaubean, edo ceuec esan, edo gazteai eraso ceen ganean izan dan sermoia, etsean guelditu (lotu) direanac beré guztia galdu eztaguientzat.

Onezaz ganetic misiño arteco egunac penitenciazco eguntzat artu bear dozuez, eta eureetan besteetan bashen cerchubait gueyago eguin bear dozue. Ondo izango da gauza orretaraco barau bat edo beste eguitea; elesha ingurueta-coac egunean eguneango mecea en-

tzutea, eta baserri goicoetacoac, eta guztiac ceuen lanetan, eta bearrretan diñarduzuela, errezu batzuc esatea.(9) Onetara dator beré, eta penitencien artean eguin ciñaie leen esan deutsuedana tabernantan, eta etseetan ez ecer (arean) artuteco. Gogora ecarri bear dozue Ygcoa ceuen pecatuacgaz aserratu izan dozuela, eta bear bada urte osoetan bici izan zareela. buruan ulleac gaña pecatu mortal eguiten dozuela. Eta Yaun au datortzuenean ceuecgaz bakeac eguin guraric, ceuec bere ceuen aldetic aleguinac eguin bear dozuez ceuen biotzac bigunduteco, eta aren deiari ondo erantzuteco.

Orain bada baakizue cer eguin bear dozuen misiñora zatocenean, celan egon bear dozuen sermoian, celan biurtuco zareen etsera, eta cer eguin bear dozuen misiñoac dirauan artean. Eguizue bada alan, eta derechat ce orregaz Ygcoac escu beteacaz botaco dituzala ceuen biotzetara bere graciac, bere arguitasunac, ta bere laguntzaac, eta pecatari asco eta andiac sartuco direala Yaunaren bideetan. Alan guerta dedintzat imini daigun bitarteco gueure ama Maria santisimea.

Gueure ama laztana, gueure biotzeco guraso maitea, ara emen non batu direan N.-tarrac, baita inguruetacoac beré ceure semeagaz bakeac eguin guraric. Bai, ama, bai, lotsaturic gaukeez gueure pecatuac, icusiric ce andiac, ce eskergaac, eta ceinbat direan. Guztioen parcaciñoa gura guenduke, eta orretaraco gatoz ceure oñetara, ceuri escatuten, arren bada izan zakigula ceure seme orregaz gueure bitarteco. Ceuri emoten deutsuz elesha ama santuac gueuri gozo eguiten yacuzan icen ederrac. Ceu zara aren esakeran pecatarien iges-lecua; ceu larri dagozanen poza eta zabaltasuna, ceu cristiñauen laguntasuna. Oneec yakiteac biotza zabalduten deuscu, eta uste bete-betean gatoz ceugana, pecatari andiac izan arren, ez gozuzala ceure oñetariac botaco. Eta ceu bitarteco zaitugula guztia eguintzat eguiten dogu. ¿Cer ucatu leyo semeac amari? ¿Cer ucatu Ygcoac bere sabelean erabili evan amari, bere ugatzagaz aci evan amari? Bear dogu arguitasuna gueure pecatuac eza gututeco: bear dogu damuaria gueure pecatuacgaiti negar eguiteco; bear dogu biotz andi bat urrengoan alangoric ez eguiteco gogoac artuteco. Orreec guztioac eske gagoz. Bakizu ceuc ondo ceinbat balio daven gueure arimeac. Ea bada ama maitea...

[EGUIN PENITENCIA]

(10) *Paenitemini igitur, et convertimini ut deleantur peccata vestra. Act.3.v.19.* (10)

San Pedro apostoluac Israel-darrai bein baten eguin eutsen sermoian, mosuan esan ezkeron celan eurac il eguin even Yaungoicoa-

ren seme Yesucristo, bere bician pecaturic eta erruren izpiric izan ez evana, berba eguin eutsen onelan. «Neure anayaac, baakit nic, alan ceuec, alan ceuen aguintariac ondo ez yakinean ori eguin izan cenduela. Eguizue bada penitencia, eta biurtu zaitece Ygcoagana, pecatuen parcaciñoa izateco». Aushe berau esan bear deusuet nic beré ceuroi neure entzula maiteoi. Eguizue penitencia pecatuen parcaciñoa izateco. Bai, bada ¿ceinbat eta ceinbat izango ete dira ceuen artean pecatu eguin-da Yesucristo gueure yauna barriro curutzean yosi izan dozuenac, eta ez bein, ez birritan, eta bai ascotan eta ascotan? ¿Ceinbat gazte izango dira Madaleneac leguez euren nasakeriacaz errian berba-lecu andia imini izan daveenac? ¿Ceinbat emacume bai nescatillac, bai andra ezconduac, Samaria-coa leguez bear eztanagaz, eta eurena eztaenagaz ibili izan direanac? ¿Ceinbat guisaseme ezcondu eta ezcontzagacoac, Herodes leguez araguizcoetan ondaturic bici direanac? ¿Ceinbatec Ygcoa ofendidu izango dozue san Pedro berac aldi baten leguez ceuen biraoacaz, yuramentu okerracaz, eta ernegamentuacaz? ¿Ceinbatec Zakeoc leguez lortu izango dozuez ceuen diruac legue eztan bidetic, eta artu-emon eta salduerosi okerracaz?

Izango dira seme-alabeen artean, baita berein, gurasoi lotsa charra artuten dakienac. Izango dira, baita ez guichi guichi, gurasoen artean euren umeac bear dan Ygcoaren bildurtasunean aciten ezti-tuezanac. Izango dira ezconduen artean bere banacaac alcarregaz bear leukeen bicitza ona eztaoenac. Eta azkenean izango dira asco ta asco aserrecor-ocasiñotsuac, ordiac, loyac, lapurrac, deungaroesalaac, eta beste era ascotaco pecatariac. Baya ¿cer diñot nic: «izango dira, izango dira?» ¿Ceinbat ete dira gueure artean nondi andi cetan edo atan pecatu eguin eztaevenac? Eta ¿ceinbat pecatu eguin ezkerro bear dan confesiño ona eguin izan daveenac, eta lotsaz dala, bildurrez dala esan ecinic ibili eztaevenac? ¡Ay! Orain emenche berton aguertuco balituz Igcoac gueure guztioen barruac ¡celan icusico ete guendukeez gueyenen arimaac! Bay gueyenac ceuen pecatuac direala medio (lasio, bitarte) galduric (11) daucazue Ygcoaren gracia ederra, galduric daucazue ceruraco ceunken escu-bidea, galduric daucazue ceuen Ygco laztana, eta orainche elesh au beera baletor eta guztia azpian zapaldu, derechat ece gueyenac infernuraco izango ciñatekezela. Eztiñot nic au albastoan eta destayuan; lar bere lar dakit celan bici direan gaurco egunean cristiñauric gueyenac.

Bada cristiñauac, san Pedro-c ciñoana: eguizue, eguizue penitencia, eta biurtu zaitece Ygcoagana, pecatuen parcaciñoa izateco. Baakit nic ondo ez yakinean eguin izan dozuezala ceuen pecatuac. Batzuc bestearen contraco su beroac itsutu cinduezan bengai artuteco:

(11)

beste batzuei odolaren berotasunac, edo iñoganaco on-erechi itsuac lañotu eutsuen burua legue etzirean zantarkeriac, eta nasaikeriac eguiteco; beste batzuc premiña estuac, eta gaucea bearrac eraguinta iñoena eguin cenduen: eta gueyenac eguin izan dozue pecatu, contuac ondo atera ez izanagaiti: munduco gaucen keagaz itsuturic, cerucoai bear ceunkeen begui arguiacaz beguiratu ezteutsazuelaco, eta nekez izango da ceuen artean pecatu eguitea gaitic, beste bagaric, bear eztana eguin izan davenic. Onec pecatua garbituten ezpa-deutsue beré, achakia apur bat baucazue orregaiti Ygcoaren beguie-tan, eta yaun onec ceuen ez yakinari, eta argaltasunari beguiraturic lasterrago, eta errazago parcatuco deutsuez pecatuac beragana biur-tuten bazare, osterantzean, ondo yakinaren ganera eguin izan bacen-due baño. Penitencia bada, penitencia: biurtu zaitece biotz-biotzeric Ygcoa gana penitencia benetaco baten bitartecoz, ceuen pecatuen parcaciñoa izateco.

Ecín orretaraco opa lekikezue orain daucazuen baño abegune obaric. Aita Yaungoicoa deyez yagotzue, eta berac yuramentuaren beian esaten deutsue ece, gaistoari onduten dan eguneric eta gueya-go ezteutseela calteric ecarrico ordura arteco gaistakeriac. Ygco Semea izango dozue, eta dozue bere Aitagaz bitarteco ederra eta escu andicoa, ceuec gaitic beti escatu bai escatu dagoana. Espiritu-santu yaunac dei gozoac eguiten deutsuez ceuen biotz barruan, eta emon-go deutsuez penitencia eguiteco, eta onduteco bearco dozuezan laguntza guztiac, ceuec ceuengan dagoana eguiten badozue. Maria-santisimea izango dozue ceuen ama gozoa ceuec-gaitic bere Seme laztanari escatuco deutsana, eta Aingueru santuac, eta ceruco Santu-Santaac izango dozuez beste ainbeste bitarteco, ceuec gaitic Yaun-goicoari erregututeco.

Ea bada, pecatari maiteac, biotz zabala. Orainche da ceuen aldia: aushe da Ygoco gozo-bigunac ceuei bere ontasuna eracusteco icen-taduric izan daven aldi (12) ederra. Onetaraco biraldu gaituz neu-re lagun maitea eta ni erri onetara, ceuei adietan emoteco, bene benetan ondu gura badozue, bera prest dagoala, baita ondo prest, ceuei parcatuteco, eta ceuen adiskide eguiteco. Pecatuz atsituric, eta bete beteric bazagoce beré, ezta ardura: orain artean ceuen arimeen salbaciñoagaz ichiric edo erdi ichian, eta ernegatu aguinean bici izan bazare beré, ezta ecer orregaitic. Yaunac eztau gura pecataria galdu dedin eta betico il dedin; gura davena da pecatari ori ondu daiteala, eta betico bici daiteala. Ichi gura badozue bada ichi orain arteco bide okerrac, lengo pecatui beti betico agurra eguin, eta Yaunaren [naia] eguiten dozuela, berac eracusten deutsuezan bide artcetatic

(12)

ibili, berac artuco zaituez, berac parcatuco deutsuez pecatuac, eta guero eriotzea ezkereroango zaituez ceruco gloriara.

¿Cetan zagoce bada, peccariac? ¿Ceintzuc dira ceuen gogoac? Baya ¿cetan nago ni? Gogo-gogotic, eta egarri andiagaz gura izan dozue misión santu au, eta esan guñaike ece, gueu etorri izan gareala erri onetara alan gura izanic bertoco cabildu beneragarriac, yusticiaco Yaun prestuac, eta errico zar-gazte, andi-chiki eta ume-guiño-coac. Gogo onagaz asi zare etorten, eta nago ece aurrera beré aleguinac eguingo dozuezala etorteco. Eta ¿eztozuela Ygcoagana biurtu guraco? Eztozuezala ceuen bici-moduac ondu guraco? Ez beintzat, ezteust niri biotzac alangoric aguinduten (emoten). Nic derichot ece, aleguin guztiac eguingo dozuezala confesión on bat eguiteco, ceuen arimaac garbituteco. Ygcoaren bideetan sartuteco, eta aurrerantzean onak izateco. Eta gogo obeagaz eguin daguizuentzat, esan bear deutsuet ece, elesha ama santuac beré ori gura davela, eta orretara ceuec ecartearren, misión denporaraco indulgencia ederrac, eta parcamen andiac omoten deutsuezala. Ara celangoac.

Lelengo bada, etc.

2. ARIMEAREN BALIO ANDIAREN GANECO SERMOIA

(B, 203-208. or.)

Cognosce justitias, et judicia Dei.
Eccli. cap. 17. v.24

(203) 1. Izan zaitetz zure arimearen erruqui Jaungoicoari gustu emonagaz, dirauscu Espiritu Santuac³⁵. Au eguingo dogu bere legue eta aguindu santuetatic ibiliagaz: orregaitic esan ezquero Escritura Santeac biurtu gaitetzala Jaungoicoarengana, ichi daiguzala pecatuac, iñes eguin daigula euren bide ta pelleburuetatic, dirauscu bertatic ibili gaitetzala Jaungoicoaren legue eta aguinduetatic³⁶. Aushe da bada gueure arimearen erruqui izaitea, eta Jaungoicoari gustu emoitea. Obeto ta obeto erruqui au euquiteco, eztaucagu beguiratu bashen ce laztan izan daven gueure arimea, eta ce erruqui andia euqui deutsan, cer eguin daven beragaitic, eta noraguiño eregui daven, eta aushe izango da asco ez bacarric al daigun guztia arimeagaitic eguiteco, baita ezagututeco beré ce guichi eguiten dogun guc beronegaitic. Aushe da gaurco egun onetan esan gura neusquezuena puntu bitan. Lenengoan cer eguiten daven Jaungoicoac gueure arimeagaitic. Eta oneric ezagutuco dozue bigarreanean ce guichi eguiten dogun guc beragaitic. Jaungoicoaren arimeaganaco caridadearen anditasuna, eta gure ardura guichia beraganaco, izango da sermoe guztico gueia. (203)

Lenengo zatia

2. Beti betico amodioagaz maite izan zaitudaz, dirauscu Jaungoicoac Jeremias-en aotic³⁷. Ez egoan oraindicoarren luurric, ez egoan ceruric, ez egoan beste gauzaric Jaun andi au guganaco amodioan

³⁵ Miserere animae tuae placens Deo.

³⁶ Cognosce justitias et judicia Dei.

³⁷ In charitate perpetua dilexi te.

erreric egoanean. Oneec eguin cituzanean guretzat eguin cituzan. Aingueruac izaitea artu be even gure gordetzalla ta yagola izaiteco artu even. Ceruac zabaldu bacituzan, gure bicilecutzat zabaldu cituzan. Luurric ifini beeban, guri yanari emoiteco ifini evan: chori, animalia, arrain edo beste gauzaric badacuscu, guztia da guretzat. Eta alan guizona bere escuetatic bere antz edo irudira atera evanean guztien aguintari eguin evan, eta direanac imini cituzan bere aguidura. Ezagutu eta esquerrac emon bearrean lenengo guizon onec neurribaco mesede oneec gaitic, yagui zan bere eguille andiaren contra, eta artu cituzan asmuac bera beste izateco, eta ara non galdu evan eucan nagusitasuna, eta guelditu zan Demoniñoaren mempeco edo esclabo eguinic. Ce castigu mercedu ez evan Adanec pecatu onegaitic? Baya, ¡o Jaungoicoaren guizona ganaco amudio paregabea! Atera evan pecatutic eta biurtu evan bere adisquidetasunera. Esquer deungacoa izan bazan bere onguilleaganaco, etzirean obagoac izan bere Semeac. Ez castiguagaz, ez palaguagaz, ez mesedeacaz ecarri al izan cituzan Jaunac bere amodiora. Ain modutan egoan lur guztia pecatuz beteric ce, etzan Noe baño beste onic aurquituten mundu guztian. Castiguetan dituz uriolacaz, eta eztira guizonac obago: emoiten deutso munduari bere leguea, eracusten deutse celan bici bear daveen, eta eurac eztaveé gorde gura bere aguiduric. Eguiten dituz miraari arrigarriac euren Jaungoicotzat euqui daguien, eta eurac adoretan dituez urregorri, cirar (edo urre), arri eta zurezco idoloac edo talluac. Ycusiric Jaun andiac ce bide galduetatic ibiltzazan guizonac, biralduten deutsez bere servitzalle, Ygarla edo Profetac esan dayoen biurtu deitezala daroen bidetic betico galduac izan ezteizan: datozala atsera benetaco Jaungoicoagana; emon daioela zor deutsezan eguiquera edo obra onen frutu gozoac. Baya eurac ez bacarric etzituezan enzun gura izan Patriarca, eta Profeta oneen deiac, ezpabere batzuc azotadu cituezan, beste batzuei arrica eguin eutseen, eta beste batzuc modu ascotara il cituezan. Etzan orregaitic beré acabadu, ez amaitu Jaungoicoaren erruquia: bialduten dituz beste bere criadu batzuc ea ondu al daitezcan guizon galduac, esaten deutse oneec emon daioela Jaunari zor deutesen adoraciñoa, ezautu daiela euren yaube eta onguillatztat, aushe eguinagaz beste bagaric zorionecoac izango direala, euren (204) pecatuac andiac badira beré, eztaielá bildurric artu, ce ichiten badituez darabiltzezan bide oquerac eta badatoz beragaz, berac parcatuco deutsezala, eguin daveen gach guztia; eguzquia baño bere garbiago eguingo dituzala, bere beso artean estuturic mozu ta laztan gozoac emongo deutsezala eta bere Seme maite eguingo dituzala. Baya gogorturic guizonac ezituez enzun gura Jaungoicoaren bigarren bialdu oneec, botaten di-

tuez, ilten dituez, (banatuten, ta) birrinduten dituez. Biralduten dituz Jaunac bere otsein edo serbitzalleac irugarrenez, laugarrenez, bostgarrenez, eta bardin eguiten davee euracaz.

3. Ycusiric Jaungoicoac guizonen itsumendi au, ifinten da pentsan leguez (esate baten) ea ce modu artuco ete daven guizonaren biotza bigunduteco; eta alan diño: cer eguin nei guizona galdu eztedin?³⁸ Ce modu artu neique guizona neure adisquide eguiteco?³⁹ bere borondatea irabazteco, neugana ecarteco, zorioneco eta neure Seme eguiteco?⁴⁰ Emon deutset nire leguea, eta eurac eztave artu gura izan: dei eguin deutset, eta ezteuste yaramonic eguin: bialdu deutedaz neure servitzalleac mandatari, baita eurac il dituez. Ce modu artuco dot, bada, ain laztan dodan guizona galdu ce daguidan?⁴¹. Ara or ce ardura andia daucan Jaungoicoac gure arimegaz, ce atsacabe andia emoiten deutsan gu galdu bearrac. Baya cer derichazue eguiten davela, edo ce modu artuten davela gu beretzat irabazteco? Arritu ta icaratu zaitece lur, ceru eta Aingueruac. Neure Seme maitea biraldutera noa⁴², diño bere artean. Cetara edo cetaco biraldu gura dozu, Jauna, zugaz izaite bat, Jaungoicotasun bat, zugaz gauza bat dan Seme bacarra? Da benturaz castiguetaco guizonaren zuanaco lotsabacotasun neurribaguea? Bialduco dozu beragaz naste Aingueruzco exercitu icaragarriren bat zatitu daiezan zure serbitzailleac il dituezalaco? Ez, Cc., ez, eztau bialdu gura Jaungoico andiac bere Semea munduac euqui deutsan esquer deunguea benguetara, larregui beré lar gura deutso guizonari onelango gauzaric eguiteco; bialdu gura dau aurquitu daguian galdu zan arimea, osatu daiozan bere zauriac eta gachac, aberaztu daguian miraarizco ondasunacaz, eta arturic bere lepoan, eroan daguian bere echera, an betico zorion eta gozotasun artean bici dedin⁴³. O Jaungoico baten gure arimea ganaco amudio parebaguea! O caridade neurribacoa! Nequez sinistu leiteque fedecac eracutsico ezpaleu ain ardura andia emon deutsanic ceru-lurren eguilleac gueure arimeari.

4. Yatziten da bada cerutic lurrera Jaungoico baten Seme bacar maitea. Baya celan derichazue? Ez ceruluurren eguilleari datorquion anditasunagaz, ez mundu guztiaren yaubeari datorquion magestadeagaz (itzalagaz), ezpada gure araguizco yazteco zar, urratu

³⁸ Quid faciam.

³⁹ Quid faciam.

⁴⁰ Quid faciam.

⁴¹ Quid faciam.

⁴² Mittam filium meum dilectum. Joan 3.v.17.

⁴³ Non misit Deus filium suum in mundum ut iudicet mundum, sed ut salvetur mundus per ipsum.

eta zantarragaz yanciric, gure anaye eguinic, gure pecatuac lepoan dituzala. Yaioten da ez yauregui, edo etse zabal ederretan, ezpabere abel-eche pobre, zar, eta zatar baten; otzac ilic, quiquilduric, neque eta premiña artean; bere lenengo cumea asca bat dau, bere oea lasto pusca bat, eta bere guela eta salea cimaurrez edo tela-arañaz (aramauaz) beterico animalien corta bat. Orra celangoa dan gueure billa lelengo emoten daven pausua, ¿Cer eguin ez evan ogueta amairu urtean gure oneraco? Celango ibillerac, celango icerdiac, celango nequeac, celango otzac, eta beroac, celango gose eta egarriac, celango baraiac eta gogortasunac (gogortadeac), celango gaubela eta oraciñoac! Yzanic mundu guztiaren yaube ez evan bere etse bat non bici, bere yaztecoa zan pobrea, guztiz ortosic, eta mundu guztia bere contura evala. Batzuetan erbestetuten dave, beste batzuetan bicitzea quendu gura deutse: orain dirautse Demoniñoa dauquela, guero guizon ordiacaz batzainduten dala. Oneec deituten (dei eguiten) deutse Moyses-en arerioa, a-ec guzurti eta engañadorea; eta Yudegu eta Yentilac bat eguinic, artuten dituez aldaiezan asmuac, eriotzaric gogor eta lotsagarriena emoiteco. Aushe zan, Ne.Cc., Jaungoicoaren seme benetacoaren gurariric andiena, equialaco bere eriotzeagaz ateraco evala gueure arimea Demoniñoaren aguindupe- eta poderiotic, eguingo cituzala Jaungoicoaren eta gure artean baqueac; eguingo evala bere odolagaz (205) gure arimaac garbituteco bañu bat, idiquico cireala ceruco atead, eguingo guinduzala Jaungoicoaren seme, eta ceruco yaubeguei, ta herederu Yaquinic pasiño gogorra, eta eriotza cruela gueure arimearen oneraco zana, poz andi bategaz, eta borondate oso osoagaz irago evan, eutsen amudioaren anditasunagaitic; poz pocic artu cituzan bost milla azote eta gueiago. Poz pocic euqui evan burua arantzazco coroe gogor bategaz zulaturic. Poz pocic euqui evan bere gorputz guztia burutic beatzera zauri bat eguinic. Poz pocic emon evan bere zanetaco odol guztia. Poz pozic igon evan curutzera, eta poz pozic galdu evan bere bicitzea untze gogorracaz yosiric. Aushe zan bere guraari guztia, eta alan sarri ascotan esan oi evan, bere biotzeco guraari guztia gugaitic bere bicitzea emoitea zala.

5. Ar'or, Cc., ceimbatean euqui evan Jaungoico batec gure arimea. Eguin dau eguño gurasoc semeagaitic, edo semec bere gurasoagaitic, mundu guztico Jaunac gure arimea gaitic eguin daven beste? Eztaquit aurquitu al daiquezuen. Baita asco erechi eutsan gure Egulla andiac oneri? Ez, Ne.E^a. Mc., ez: aurrera daroa bere gure arimearen ganean daucan ardurea. Ygoten dau ceruetara gure bitarteco Aita beticoagaz izaiteco. Anche gugaitic erregututen deutso, gure erruqui euqui daguiala. Orretaraco eracusten deutzaz gugaitic artu

cituzan zauriac; eta seguridade andi bat euqui daigun dirauscu ce, ezteuscula ucatuco bere ta gure Aitac bere ucenean escatuten deusagun gauzaric. Yzanic ain ona guretzaco bera lango bitarteco bat ceruan euquitea, orregaitic beré necatu ez guenguizan bere yoateac, ichi euscun Elesha bat cein garbitu evan bere odolagaz, guztiz garbi, eder, eta orban ta loitasun baguea izan cedin, artu evan bere esposa maitetzat, aberastu evan bere bicitza, pasiño, eta eriotzaco mercedimentuacaz. Yfini cituzan bere ondasun guztiac nai guenduzan guztian artu guenguizan. Onetaraco idigui dituz bertan zazpi Sacramentuac, zazpi iturri ugari leguez, ceintzuei darioezan ceruco doe, ondasun, eta gracia gura dogun guztian euracaz aberastuteco gure arimaac. Ezteuscu iñoc galaazoten euretara elduten, eta darioen Jaungoicozco ur gozo eta cerucoagaz naico bestean aseten; ez yacu onetaraco diruric escatuten, doa doaric emoten yacu ceimbat gura. Guizonic aberatzenac, Erregueric andienac, eta mundu guztiac ecin emon leiquegu Jaunaren iturri onetan emoitzen yacun beste ondasun. Eurac irabazteco eztogu mundu onetaco ondasunac batuteco igaraiten dan lainbeste neque igaro bear: eztaucagu cer emon izardiric, eztaucagu cer necatu, ez adicatu. Bein irabaci ezquero, gueuc gura ezpadogu, ecin quendu leiqueguez, ez lapurrac, ez Demonioac, ez infernuac, ez eriotzeac. ¿Cer gueiago eguin leiquean Jaunac gure arimeagaitic? ¿Ce ardura andiagoric euqui leiquean? ¿Ce amudio erreagoric eracutsi leiquion? Bada orregaitarren beré guichi erechi deutso oneri guzti oneri, eta bere neurri bagaco yaquituriagaz asmau dau guizon eta Aingueruri buruac emon beré ecin al leiquion modu bat gueiago ta gueiago adierazoteco deuscun amudioa, eta ceimbatean daucan gure arimea.

6. Ain zan andia ongura au ce beti gura euquean gugaz egon, eta alan gach eguiten yacan gu bacarric ichita cerura yoatea. Baya eusan ce, guztiz convenidu yacula bera yoatea Aitaren aurrean gure bitarteco izaiteco, eta guretzat lecu prest iminteco: gura euscun mesede neurribaco au guri eguin cerura yoanagaz, baya gogor eguiten yacon gu bagaric egotea puntuchu bacar baten beré. Eta ¿cer derichazue eguiten davela cerura yoateco eta gugaz egoteco? Noc asmau euquean onelango gauzaric, Jaungoicoac berac bere cabubaco yaquituriagaz ez izanic? Eguiten dau Altaraco Sacramentu Santua gugaz betico egoteco, berac esan evana leguez. «Aror celan nagoan zueca munduaren azqueneraguño». Yoan zan cerura gure arimearen ardurea euquiten ta lotu zan gugaz gu bera bagaric egon ez gaitetzan, urrago euqui daigun etzan lecu baten bacarric (206) gueratu mundu onetan egon zanean leguez; errian errian aurquituten da. Orra non daucazuen, orche orche, Altara orretanche daucazue. Gu-

(206)

ra dozuen guztian eztauczue beragana etorri bashen, beragaz egon, berari berba eguin, eta beragaz poztutera eldu. Onetaraco dago Altara orretan, gure lagun eguinic, eta au guzti au guichi bailitzan legue-che, ain da andia gure arimeari deutzan amudioa, ce gura dau ceuc ceure barruan euqui daguizun, eta ceu bat izatera eldu zaitezana. Naien daven gaucea da Altara orretaco maira eldu zaitezala, artu daguizula zure aoan bere gorputz eta odola, iraga dagizula zure zamatic bularrera, ceugaz estutu daguizula, eta beragaz gauza bat izatera eldu zaitezala.

7. ¡O Jauna, o Jauna! cer esan guinaique aimbete ardura zuga gure arimeaganaco icusiric? Ez ceuntsan asco erechi mundu guztia guretzaco eguiteari, gure aguindura guztia ifinteari, eta gure ardurea euquiagaz ez ceuntsan asco erechi gure pecatuac zure ganean arturic euracgaitic, eurac gaitic zure odol eta bicitzea, eurac guganic quendutearren emoteari, ezteutsazu asco erechi zure Aita eta gure artean baqueac eguiteari, ceruco atea idiguiteari, eta betico erreinu bat guretzaco irabazteari. Emenche, emenche gueratu yacu gueure ogui, gueure ardao, gueure yanari, eta edaari eguinic, guc artu daiguzan, eta ceu izaitera igaro gaitezana. Asco edo balio dau gure arimeac, bada au guztiau eguin dozu bera zuretzat erostearren. Bada zuc aimbetean euqui badozu gure arimea, eta aimbete eguin badozu bergaitic, ¿cer eguin bear eztoqu guc? Eta alan da guzti, ain gagoz itsuric cé, onegaz guzti onegaz beré nagui gagoz bergaitic ecer eguiteco. Zoraqueria andia benetan; baya larregui beré lar yazoten dana. Aushe da neure Sermoearen

Bigarren zatia

8. Ytanduco baneu pulpitu onetaric ea gorputzaren ala arimearen ardura gueiago euqui bear dogun, derichat guztioac ao bategaz eranzungo ceusquedala: Jauna, bada, ori noc eztaqui? Leenago da arimea gorputza bashen, cé arimea galduten bada, guztia galdu zan, eta eztave arean beré balio mundu onetan aberatz ta Erregue bera izaitea arimea infernuan yausten bada. Aushe diño mundu guztiac, guztiac dauque eguia au sinisturic. Baya orregaitio ecer gaitic beré ezta guichiago eguiten arimeagaitic baño. Baderichazue au ponderaciño andiren bat dala, beguiratu eguizue cer eguiten dan gorputzagaitic, eta oneshegaz bacarric esan bearco dozue eguia diñodala. Noc eguiten dau arimeagaitic, diruac irabaztearren eguiten dan laimbete? Guizon bat aberastu gura bada, ¿ce lanac igaroten dituzan! Gau ta egun (egun ta gau) dago pensetan ce modu artuco, gueien irabazte-

co; ce saldu-erosic ondo urtengo deutsan, celan urten leian tratu onetan, edo bestean, eta bein onetariac batera gogoz itzuli ezquero ezta atseguinic artuten, batzuetan galdu, beste batzuetan erosi; orain yoan batera, guero etorri bestera. Yrapaci on baten icharomen edo esperanzaric badauco, ichiten da echea, ichiten da familia, ichiten da atseguina, iragoten dira otzac, beroac, euriac, edurrac, ecachac eta afrontu guztiac; botaten da burua ichasoaren erdira onci baten pensura; fietan yaco bicitzea ol zati bateri, ¡Ce gaubelac! ¡ce nequeac! ¡ce gose ta egarriac! Ybilten da erriric erri, uriric uri, eta provinciaric provincia, eta au guztiau ontzat eroaten da diru zati bat irabaztearren bada; eta ostera ostera ocasiñoric bada, beste onembeste batuteco, poz pocic igaroco dituz beste ain beste. Barriz arimaco ondasunac irabazteco ¡ce atseracuntzea! Aste osoac igaroiten dira beragaitic ecerbere eguin bagaric, ez gomutau beré bagaric. Esango balitz parcamen edo indulgencia andi bat dagoala urlia Eleshea bisitadu ta icusiagaz, eranzungo litzateque leenago dala bearra eguita. Elduten da yaieguna, enzuten da meza bat arrastaca, al deitean arinena, eta orra arimeagaitic eguiten dan guztia.

9. Gueshotuten bada gorputza, betor bertatic medicua edo barberua gueshoac indarra artu baño leenago, laster artuten da osasunagaitic botiquecoa, aguinduten bada edatecoric garratzena beré, topetan da cegaz (207) pagadu, eta gacha igaroten bada, ondo osatu artean ichiten da tabernea, ichiten da yolasa, ichiten dira zaleago direan gauzaac. Austen bada azurren bat, urteiten badau oiñ, cadera, escu edo besoac, billatuten da noc imini, eta min andiac bear badira, direanac ontzat artuten dira, azurra, oña, besoa, edo escua compondutarren. Yausten da arimea gueshoric pecatuan, eta euquiric osaguillea ta osasun-gueia, edo medicua ta medicinea ezta ecer eguin gura: eguneric egunera, asteric astera, ileric ilera eta urteric urtera isten da gachagaz egoten. Elduten da confesorea gana, cein dan arimaco medicu osaguillea, astun eta garratz eguiten dira aguinduten dituzan osasunguei edo medicinac. Aguindu badagui ichi deila tabernea, ezteila yoan yolasera, biurtu dagueiola yaubeari ostu edo quendu yacona, parcatu dayola gach eguin deutsenari, edo deungaro esan davenari: «ecin osasunguei edo medicina au artu leiteque, laarregui estututen dau confesore onec, ez nas beragana gueiago biurtuco». Dirautso Confesoreac osatu-arren arimea, ichiten ezpadituz araco leen gueshotu even gauzaac, araco berba aldiac, araco adisquidetasunac, araco ibillerac, barrien barri gueishotuco dala, pecatuan beste bein yausico dala, ezta yaramonic eguiten; ezta artu gura arimearen oneraco osasunguei edo medicina oneec. Cer esango dot, bada, gorputzari yanaria, yaztecoac, eta beste bear dituzan gauzaac

(207)

emoiteco artuten direan neque eta arduraac gaitic? ¡Celango izardiac! ¡celango nequeac! ¡celango euriac! ¡celango beroac! Cer eguiten ezta? Gosheric arratsera zagoce achurra, layea, yorrea, edo beste onelango instrumenturen bat escuan dozuela, eguzqui beguian, erre eta quisquilduten; guichitan daucazuez euriac, guichitan izotzac, guichitan edurrac, eta guichitan ceuen necatu eta adicatureac, ce artuten badozue laborea, area, bedarra, edo matsa, ontzat eta pocic daroazuez eguin dozuezan bearrac, eta emon dozuezan icerdiac. ¿Noc eguiten dau beste onembeste arimeagaitic? ¿Cer esango ceunquee aguinduco beleutsue bear guzti au eguin daizuela, neque guzti oneec igaro daizuezala, icerdi guzti oneec emon daizuezala arimeagaitic?

10. Eztirautsut, C^a., eztaizula bearric eguin gorputzagaitic; errazoe andia da bear eguitea, ce aushe da Jaungoicoac Adan-eri, eta Adan-egan guri guztioi aguindu euscuna, esan euscunean: «ceure arpeguico icerdiagaz yango dozu oguia». Eta S. Paulo Apc. diño ce, bearric eguiten eztavenac eztaguiala yan beré. Gura neunqueana da, ezteila bearra gorputzarentzat izan, aazturic dauquezuela arimea. Gaiiac, egunac, asteac eta urteac daroaguz gorputzac; beretzat bearra, beretzat etsea, beretzat oea, beretzat yatecoa, beretzat nequea, beretzat bearra, beretzat guztia; arimea, barriz, aizturic: eguño beré gomuta eztogula, gorputzari egunean egunean emoiten yaco yaten goshean, egüerdian eta arratsean, eta arimeari sei ilabete, eta ameneco urtebeteric urtebetera Sacramentu ori, cein bacarric dan bere yanari ta edaria, eta orduan beré ez arimearen ardurea daucalaco, ezpada chantelen bildurrez, eta Abade Maisua Jaunac castigadu ce daguian. Au da, Cc., arimea leenago izaitea gorputza baño? Au da arimearen ardura gueiago euquitea gorputzarena baño? Eztaquit azartu edo atrebiduco zareen baietz esaten. Baya ¡ay Cc.! Ce zoraqueria andia, ce itsumendi negargarria! Confesetan dogu, sinistuten dogu arimea Jaungoicoaren alabea dana, gorputza, barriz, lur zati bat, simaur, eta satz puzca bat bashen eztana eta alan beré gorputzac daroaguz ardura guztiac eta arimea daucagu azturic. Esan eguidazue, ezpabere, sartuco bachine Jauregui edo Palacio baten, icusico bacendue otsein mempeco, edo criada baltz ezain bat, seda, urregorri, cirtar edo urrezurizco soñecoacaz apainduric sala edo estradu baten yarriric etseco guztiac aora beguira cer aguinduten daven bertatic eguiteco, eta beste aldetic echeco andrea, Yaureguiaren yaubea berez guztiz ona, ta ederra erropa zar etendu batzucaz, bazter baten sarturic, iñoc yaramoiten ezteutsala, goseac ilic, ¿cer esango ceunque? Etzeunquee esango au eguiten davenac eztaucala sensunic, zo ro dala eta eroa? (208) Bada beste onembeste eguiten dozue zuec Arimea da Jaungoicoaren Alabea, ceruco yaubeguei ta herederua,

eta gauza guztien yaubea, da guztiz ederra berez Jaungoicoaren antz edo irudira eguina dalaco. Gorputza da arima onen otsein eta agin-ducoa, baita onetaraco eguin evan, eguin, Jaungoicoac; ezaina da, bada ezta luur zati bat, simaur eta corta, itz puzca bat, eta usteltasuna baño; eta alan da guzti gorputz au apainduten dozue aldaiuzen guztia, ceüen sensunac dagoz beguira cer agin duten daven berper-tatic eguiteco; beretzat dozuez, beretzat atseguinac, beretzat yan edanac, eta beretzat al dozuen guztia, eta arimea daucazue bazter ta oquelu baten sarturic causiñoric eguin beré bagaric eta goseac ilic.

11. Baya ¿cer diñot, gorputza? Ceüen abere edo animalien ardu-ra gueiago daucazue arimena baño. Egunean egunean emoiten deusazue yaten: gueshotuten badira, austen bayaque oiñ edo besoren bat, bertatic aleguiña eguiten dozue; galduten bayatzue idi, bei, zaldi, aari edo aume bat, edo auntzen bat, zabiltz mendiric mendi bere atsean. ¡Ce naibaguea, ce nequea, ce tristecea bera galdu dalaco! Galdu da arimea, eta eztago sentimenturic, eztago atsacaberico, edo penaric; eztago arduraric billatuteco. ¡Zoraqueria neurriba'coa bene benetan, diño S. Agustin-ec: galduten da asto bat, bertati doz bere billa; yausten da trocaren baten, guztiac doz bera ateratera. Jausten da arimea pecatuaren trocan, ezta yaramonic eguiten. Lotsaz beteric euqui bear guenduquez, asto bat arimea baño gueyagotan euquiteac, dirauscu S. Juan Crisostomo-c. Ezpaberé icusi daigun Jaun onegan ce andia dan gure arimearen balioa. Aurquitu al cinaiquee ceruan ez lurreean Jaun onen beste balio daven gauzaric? Sinistuten dozue guizon sensun ba'coa Jaungoico benetacoa dana curutze onetan dacusun au? Bada yaquin eguizu eztabela aushe baño guichiago balio zure arima orrec, bada oneshegaz erosia izan da; Jaun onec erosi cinduzan ez cirragaz, ez urreagaz, ez arri baliotsuagaz, ez eguzqui, irargui edo izarrac gaz; ez Aingueruren bategaz, ezpabere beronen odolagaz ¿Eta alan beré ain guichitan euquico dozu ceure arima ori? ¿Nor engañetan ete da, ala Jaun au ain bestean erosi davenean, ala ceu ain guichitan daucazunean? Cc., ez gaitez an zoroac izan; eza-gutu daigun gure arimearen balioa, eta arturic damu andi bat, ain itsuturic egon garealaco, esan daiogun Jaun oneri: Neure J.C^o Jauna.



3. JAUNGOICOAREN GRACIAREN GANECO SERMOIA

(B, 209-214 or.)

Sta in sorte propositionis. Eccli. c.17.v.24

(209) 1. Bein Jaungoicoaren adisquidetasuna, eta gracia artutera eldu bazara, zagoz sendo egoquera edo estadu orretan⁴⁴. Ecin euqui leique guizonac zorion andiagoric mundu onetan, bein emon yacan gracia ondo gordeteen baño; eta alan guizonen artean aurquituten dan zoraqueriaric andiena da ain yaramon guichi eguitea, Jaungoicozco doe au bagaric badagoz, bera euquiteco, eta dauqueenean ez galduteco. Euqui daguizuezan beguien aurrean, ezagutu daguizuen cer eguiten daven Jaungoicoaren gracia gure ariman, zoraqueria aushe nai neunque ezagutu daguizuen; eta onetaraco esango deusuet sermoe onetan: Lenengo cer eguiten daven gracia onec gure ariman; eta emetic ezagutu dozue bigarreanean, ce guichi eguiten dozuen gracia onegaitic. Lenengoan eguingo dot aleguina adierazoteco ce onra eta anditasun neurribacoa ereguiten daven gracia gure arimean; eta aushe ezagutuagaz bacarric icusico dozue ce itsumendi andia daucagan gracia onegaitic ecer ez gura izaitean. (209)

Lelengo zatia

2. Ain dira andi eta Jaungoicozcoac gracia guran eguiten dituzan miraariac ce, nequez iñoc sinistuco leuquez fedec eracutsico ezpaleu. Ain da zoragarria emaiten deusuan edertasuna ce, ez beguic icusi, ez belarric enzun, ez guizonen gogotara eldu al leiteque bera leezcoric. Yrargui eta izarren arguitasuna gueiagotu eguizu al daizun guztia; bada au guztiau, bat eguinda beré, ezaintasun eta iluntasuna baño ezta gracia dagoan arimearen parean. Eta alan icusico baguendu arima bat gracia dagoanean, ceruan gagozala usteco gueunque; mundu onetaraco gauzaric ederrenac antoju emongo leusque-

⁴⁴ *Sta in sorte propositionis.*

güe; gure guraaria bera icusten egotea izango litzateque, anche egongo guinateque cocoturic berari beguira, gomutaric izan бага ez yateric, ez edateric, ez loric. Orregaitic ez evan gura Jaungoicoac icusi guenguian gueure arimea gracian dagoanean, arroturic bere edertasuna icusiagaz, galdu ez guinaitez, Lucifer bere edertasuna gaitic galdu zana leguez; bada aimbeste edertasun icusiagaz gueugan, uesteco gueunque Jaungoicoa beste gareala; ac uste izan evana leguez. Ceruco aingueruac arritu eta muturic dagoz gracian dagoan arimearen edertasuna icusiagaz; euren guraari guztia da berari adi egotea, diño S. Juan Crisostomo-c. Eta aushe adierazo gura izan evan David Erregueac esan evanean bere arpeguia icusi guraco evala ceruco aberatsac, eta alan dirautse biurtu zaitez, biurtu zaitez onantza, icusi zaiguzan. Ycusiric bere edertasuna ain zoragarria, itanduten deutse batac besteari: ¿Nor da datorren au egunsentico izarra bashen ederrago, ilarguia bashen miragarriago, eta eguzquia bashen arguiago, eta bere arerioentzat exercitu ondo ifiniac baño bildurgarriago? Au guzti au eta gueiago esaten oi davee Aingueru santuac gracian dagoan arimeagaitic.

3. Baya ce mirari Aingueruac modu onetan berba eguitea eta arrituric egotea arimearen edertasunagaz, Jaungoicoa bera guraariz beteric badago bera icusteco, beragaz egoteco, eta beragaz berba eguiteco, diño S. Juan Crisostomo-c? eta aushe berau aitu gura evala Davidec esan evanean: icusi guraco dau Erreguec zure edertasuna. ¡Ce berba gozoac esaten deutzaz zoraturic leguez beragaz ain ederric dagoalaco! Dirautsa: guztiz zara ederra, neure maitea, icustecoa da zure yancia. ¡Ay ce ederra zarean! Beste batzuetan dei eguiten deutso bere esposa laztana, bere usoa, bere bacarra; eta beste batzuetan Erreguiña. Berba guzti oneetan gura dau ezagutu daigun ce andia dan deutzan amodioa, eta lecu altura ereguiten daven gracia ari me, bada eguiten dau bere Esposa maite (210), eta orregaitic Erreguiña ez lur zatiren bateco, ez urien batzuetaco, ezpada lur guzti eta Ceruco; bada S. Paulo Apc. dirauscu ce, gracian dagoana J.Cogaz batera dala Aita beticoaren herederu. Aushe berau diño Apostolu onec beste lecu baten. Graciac, diño, eguiten gaituz Jaungoicoaren seme: baita seme bagara, bere ondasun guztien herederu ta yaubeguei⁴⁵. Gueratu gaitez emenche pisca baten, eta beguiratu daigun, al daigun ondoen, S. Pauloc diñoana ezagututeco cerbaist noraguiño erantetan gaituzan gracia. Jaungoicoaren herederu diño eguiten gaituzala, eta J.C^o.ren lagun herencia onetan. Herencia onec emoi-

⁴⁵ Quod si filii, et haeredes.

ten deuscun escubidea, J.C^o.ren direan gauza guztietara elduten da, eta alan, esan evanean gauza guztiac ifini cituzala Aita Eternoac bere escuetan, zan esatea oneec guztioc emon euscuzala guri beré. Biztu eguzuz orain zure pensamentu eta guraari guztiac, eta icusi eguizu ea aurqitu al daizun graciac emoten ezteuscun gauzaric. Alperric ibilico zara billatuten, bada ez bacarric eztozu aurquituco, ezta ecin gogora beré ñori eldu leiquio onelango gauzaric, bada graciac emoiten deuscuna ezta urre gorria, ez arri baliotsoac, ez luurra, ez eguzquia, ez irarguia ez ceruac, ez Aingueruac; Jaungoicoa bera da, bere ondasun, ontasun, eta yaquituriagaz eta orregaitic cirautsan David Erregueac Jaunari, zu zara neure herencia.

Beguiratu nosbait, Ne.Ea.Mc. (neure entzula maiteac), graciac arimeari emoiten deutsan ondasun miragarri au. Yagui zaitetz nosbait pecatuaren lupatzatic. Yratzartu zaitetz nos edo nos lo-zorro orretaric, eta icusi eguizu Jaungoicoac opa deutsun zori-on, sinistu beré nequez leiqueana: zure escuetan daucazu, gura badozu Jaungoicoaren seme izan. Jaungoicoac emon deutsu escubidea gura dozunean bere Seme (izaiteco) eguiteco, dirautsu S. Juan Evangelisteac⁴⁶. Mundu onetaco aguintari, Erregue eta andiac izanic gu leguez guizon ilcor ta ilbear batzuc, auts pusca bat, cimaur zati bat, gu leguez ilbear direanac, gu leguez luur biortu, eta ustelduco direanac sepultura baten, ez gaituez equi gura adisquidetzat, ozta berba eguiten deuscue, ozta beguiratuten deuscue. Baya Jaungoico neurribaga, cabubaga, eta azquen-bagueac, izanic mundu guztiaren yabea, ceruluurraren eguillea, ez bacarric beguiratuten deuscu, ez bacarric izan gura dau gueure adisquide, ez bacarric nai dau beragaz bici gaitezan, baita beré gura dau bere seme izan gaitezan, eta gueure borondatean ichiten deuscu nai dogunean graciaren bitartez bere seme eguiteco⁴⁷. ¡O ontasun parebacoa! O Jaunaren guizonaganaco amudio sinistu bere ozta leiquiana! O caridade errea! Cer da, Jauna, guizona bere gomuta izan zaitezan, edo guizonaren semea aimbestean equi cenguian? Guizon batec bestea baño puscachu bat andiago dalaco, hacienda apur bat gueiago daucalaco, edo diru zati batzuc dituzalaco, ozta beguiratu gura deutsa besteari, ozta berba eguin gura deutsa, ozta beragaz ibili gura dau, eta nequez bere adisquide ta laguntzat gura dau, eta izanic ceu ceru-luurraren yaubea, eta guizona pobre, necatu eta caden bat; ceu Angueru, eguzqui, ilargui, izar eta gauza guztiac adoretan zaituezana, eta guizona yayo orduco igues eguiten

⁴⁶ Dedit eis potestatem filios Dei fieri.

⁴⁷ Dedit eis potestatem filios Dei fieri.

daüen gueriza bat; ceu mundu guztia ceure anditasun neurri baguea-gaz betetan dozuna, eta guizona luur puscachu bat: ceuc gauza guz-tiac eta guizona bera ecer-bere ecetatic eguin cenduzana, eta guizo-na ceu ceure escuacaz eguina; eta alan-da guzti ceure aldean ecer ez-tan guizon oneri ez bacarric beguiratuten deutzazu, ez bacarric berba eguiten deutzazu, ez bacarric gura dozu ceure adisquide izan dedin, ez bacarric isten deutzazu zugaz naste etse baten bici izaiten, mai baten yanari bat yaten, ezpabere nai dozu ceure seme izan dedin, eta aguinduten deutzazu izan dedila, emoten deutzazula oneta-raco escuicunea nai daüenean eguiteco Jaungoicoaren seme⁴⁸. Cc., ce poz ta atseguin, ce olgura emon bear ezteuscu, Jaunac emoiten deuscun escubide onec? Cer eguin bear eztoгу anditasun onetara eldutarren? ¿Ceimbatean euqui bear eztoгу semetasun onetara ere-guiten gaituzan gracia?

- (211) (211) Esan eguidazu, Ne.E^a.M^a., artuco bacenduz Erregue España-coc bere semetzat, aguinduco baleu ezagutu zaguiezala Asturia-co Principetzat, artu edo escogiduco bacinduz bere ondasun ta Erreinu guztien oñordeco ta herederu, ¿celangoa izango litzateke ceure on-rea, ta celango poza ta atseguina asmauco etzenduke ceure biotze-an? Eta castigaduco ta biralduco baleutsue orainche zoazala bere yauregui-palaciora, bertan bici izateco, beragaz mai baten yan, bera-gaz ibili, Erregue baten semeari datorquion anditasun guztiagaz, lu-zatuco ceunque egunerico egunera yoatea, echeco cereguin bategaitic, diru pusca bategaitic, hacienda zatiren bategaitic, edo olgura, yolas ta dibersioñoren bategaitic? Cein guichi. Leenago sinistuco neunque nic cer-eguin guztiac, diru guztiac, hacienda guztiac, eta fiesta guz-tiac, ichico ceunquezala ta bertatic, al daguizun bashen laster, yoan-go ciñatequezala Erregue gana, icustearren ceure burua an onra an-dian. Baya ¿cer da Erregue España-coc emongo leusquezun onra ta ondasun guztiau, Ygcoaren gracia-c emoten deutzunaren parean? Ecer-beré ez, neure Cristiñauac; ece Erreguec emon leiquezun se-metasunac, ceu leguezco guizon baten seme baño etzeunquez eguin-go, ta beti gueratuco cintequez ilcor ta il-bearra, lur pusca bat eta gachez ta nequez beteric beteric leen leguez; barriz gracia-c eguiten gaituz Yangoicoaren Seme Ceruco, ta eriotza bagac Erreguec emon leiquezun ondasunac eta erreinuac, luur zati baño ecin izan leite-quez; baya gracia-c emoten deutzun herencia da ceruco ondasun guz-tia. Erreguec emon leiquezun onreac guztiz guichi iraungo dau, den-pora pusca bateraco baño izango ez da: baya gracia-c emoten dabena

⁴⁸ Dedit eis potestatem filios Dei fieri.

beti beticoa izango da. Erreguec emon-arren erreinua, quendu leiquezue, edo galdu cinaique; baya graciac emoten deutsun erreinua, ceuc gura ezpadozu, ecin iñoc quendu leiquezu, ez eriotzeac, ez Demonioac, ez infernuac.

Guizon arroac, guizon andiguraac, zabaldu eguizuez ceuen guriac: biztu eguizue ceuen gogoa, eta icusi ea eldu al-bacinateequezan Yangoicoac emoten deutsuen beste gura izatera, nai dala ondasunetan, nai dala onran, nai guztietan. Necazale triste, gaisho ta necatuac, ¿cetaaco daucazue guizon aberatsen ondasunen, diruen, yanarien, etse ederren, ta onreen enbidia? Ceuec euqui cinaique au guzti au baño gueiago; Yangoicoac emoten deutsue onetaraco escu-bidea. *Dedit eis...* Eguin zaitece graciaren bitartecoz Yaungoicoaren seme, eta euquico dozuez guizonic aberatsenac eta ondraduenac euqui leian onra, ta ondasunac baño gueiago. Ateric ate eskean zabiltzen edadeco tristeac, ¿cetaco daucazue Erregueen, Principeen, Duqueen, ta Marquesen enbidia? Ceuen escuan daucazue aec baño onraduago ta andiango izateco escu-escuinea. Eguin zaitece Yaungoicoaren Seme, graciari inifiric ceuen arimea, eta ezta aurquituco Erregue, Principe, Duque, ez Marquesen artean zuec baño guizon ondradua-goric, ez andiagoric. Neure Cristiñauac, ¿cetaco necatu zuen buruac, mundu onetaco ondasun, onra, dignidade, eta lecu ereguiac alcancetarren? Ez eguizue urten ceuen biotzetatic; orche orche daucazue bacoachac erreinuric zabal, eder, eta andiena, eta aberatsena, dirautsue Yesucristo-c. Baliau zaitece Yaungoicoac emoten deutsuen escubideagaz, eta eguin zaitece Yaungoico. Arrituten tzare berba onec entzunda? Eztozue sinistu gura? Ara bada cer dirautsuen san Paulo Apostoluac: Yaungoicoac emon deutsue, diño, gracia bere izatearen parte ta lagun izan zaitecen⁴⁹. San Paulo Apostoluac diño, Yangoicoagaz graciaren bitartecoz batuten dana, espiritu bat bera-gaz eguiten dala⁵⁰. Yesucristo-c dirauscu: Neuc esan dot, Yaungoicoac zare zuec, eta ceruco Yaunaren semeac guztioac. Pozturic bada anditasun onegaz esan daguigun san Yoän Evangelisteagaz: Yaungoicoaren semeac gara⁵¹. Ara or, neure cristiñauac, cer eguiten gaituzan graciac. Eta orregaitic bere, mundu onetaco gauzac-gaitic bear gueiago eguiten dogu Yaungoicozco doe au-gaitic baño? Larregui itsumendi aushe adierazoten da bigarren zatian.

⁴⁹ ut efficiamini divinae consortes naturae.

⁵⁰ qui adhaeret Deo, unus spiritus est.

⁵¹ nunc filii Dei sumus.

Bigarren zatia

(212) (212) Eztauca guizonac mundu onetan gurago daven gauzaric, andi izatea baño. Eztau ecegaitic bear gueiago eguiten, lecu ereguira igotea gaitic baño; eztau beste gauza gaitic, au-gaitic baño neque gueiago iragoco. Au-gaitic artuten dira nequeac, au-gaitic igaroten dira pellebruc, au-gaitic galduten dira ondasun eta diruac, au gaitic guichitan izaten dau batzuetan bicitzea bera. ¿Ceinbat bicitza dacusguz galduric, guizon batzuen Erregue izateco guraria-gaitic? ¿Ceinbat odolegaz lurra bustiric; ceinbat eche erreric, ceinbat uri iruliric? ¿Celango guerrac, celango ibilerac, celango eriotzac, celango gastuac? Mundu guztia errebolbiduric ibili da, batac baño besteac andiago izan guraric. Eta ¿cer atera dave guizonac euren neke, lan, icerdi, eta ibilera onecaz? ¿Cer atera dave ainbat guerra, ainbat degrollu, ainbat eriotza, ta ainbat odolegaz? Ecer-beré-ez. Il tzirean: yaio ezpalira leguez ishilic guelditu cirean, aztu zan euren icena eta sepultura baten lurpetu zan beti iraungo evala uste izan even onra, anditasun, eta gloria guztia. Oneec gura izan, ta alcanzadu ecin izan even onra eta anditasuna baño andiagoa opa deusú Yaunac. Badaqui guizonen biotzetic ecin quendu leitequeala gurari au, eta nai ta nai ez leguez, aurquituten dala gogo onegaz: eta dirautsue benetaco anditasuna eta gloria billatuteco. Au alcancetaco eztozue bear mundu onetaco guizon arroac eguin even beste. Ez yatzue aguinduten batuteco ejercitu andiac, aurquituteco ondasun andiac onei paguetaco; ez irulietaco uriac, irabazteco gazteluac, ilteco guizonac. Ezteutsue aguinduten eguiteco ontziac, sartuteco euretan, igaroteco ichasoac. Ezteutsue aguinduten isteco ceuen etseac, aztuteco gurasoac, umeac, senarra, emaztea, eta aideac. Berba baten, munduan aurquitu al leitequean baño onra andiagora elduteco, ez yatzue escatuten guizon ascoc bertatic iragoten dan ashe pusca bat alcancetaco igaro daven nequeren eungarren parteric.

¿Cer escatuten yatzu bada? Yangoicoaren gracian zagocela, eta nosbait ceuen argaltasunez galduten badozue, ainbat lasterren barriztadu daguizuela ceuen ariman, Yaunari parca escatu, eta confesaduagaz. Au eguin cinaikee ceuen etseco atseguin onean zagocela, ceuen cereguinac aztu-bagaric, ceuen senar, emazte ta familia ichibagaric, loa galdu-bagaric. Eta orregaitic bere nequez eguin gura da cerbait Yaungoicoac opa deuscun lecu eregui onera elduteco; eta aror non yazoten dan, ozta sinistu leitequean gauza bat. Gueugan daucagu onra, dignidade, eta lecu gorera ereguiteco gurari bici bat, ceinec indarrez leguez garoazan ashe alcancetara; ceinbat eta andiagoa eta altuagoa dan onrea, ainbat (213) eta gueiago ishiotuten da

(213)

bere guraritan, bera yadiesteco ta alcancetaco esperantzatic badago. Onetaraco ez da aleguinic eguin bagaric isten; dirua bear bada, tope-tan da; adisquideai berba eguiten yaque; billatuten dira bitartecoac. Eta au alcanzadu ezquero, beste lecu gorago bat aguri bada, barriro eguiten dira aleguinac arashe igoteco. Beste aldetic, sinistuten dogu ta autortuten dogu eztagoala munduan, ta ecin izan beré leitequeala, Yaungoicoaren Seme izatea baño onra andiagoric. Eta izanic ain erraza lecu onetara igotea, eztogu aushe, gauza erraz au, eguin gura, Yaungoicoaren Semetasun onetara elduteco; Dei-eguiten badeu-tsuee lapurra, esaten badeu-tsuee guzurraren ganean yuramentu eguin dozuela, norbaitec badiño yudegu-castac zareela, bertatic di-ñozue: «ondra galdu deust, ecin ichi neio;» belan querellea; escri-baua batetic, letradua bestetic; gastetan da dirua, ichiten da bearra, eta au guzti au ontzat eroaten da, yagotearren onrea. Galduten da arimaco onrea pecatuagaz, eta izanic ain erraz barriro onra orretara biurtutea, gogor eguiten da. Esaten bada nongura daucazala confesoreac, yaiegun gosh bat artu daguiala Yaungoicoaren Seme izatera biurtuteco, onetaraco eztavela bitartecoric cer billatu, eztavela diruric gastau bearric, gosh bateco cereguina dala graciara biurtutea, ez-ta falta izaten achaquiaren bat: nora-bait yoan bear dala, norbaitegaz egon, edo cer eguin daucala, familia andia daucala, euren ardureac ezteutsala isten astiric confesetan yoateco. Modu onetan luzatuten da Yaungoicoaren Seme eguitea. Badago esperantzaren bat (no-berre burua edo) seme bat ondo ifinteco, lecu onen baten sartzeco, guizon andi eguin dedintzat; ce cereguintsu ibilten da: guichituten dira, al daitean guztia, eheco gastuac, berari lagundutearren, bada biar edo etsi izango da gueure onragarri. Baya Yaungoicoaren Seme izatera elduteco pagadu (atera) bear badira zorrac, biurtu bear bada ostua, quendu edo eguin dan caltea, eztago cegaz, ozta ozta elduten yat mantenietaco (echea estalduteco).

Bada Cristiñauac, ain astun, ain gogor eguiten bayatzue Yangoi-coac escatuten deusuen puscachu au eguitea, bere Seme izateco, bere erederu, bere ondasun guztien yauve, eta beragaz batera ceruco andi, ceruco Principe, eta ceruco Erregue, ¿cer esango ceunque escatuco baleutsue eguiteco, guizon arroac eguiten davena, mundu onetaco gaur bada, biar izango eztan nagusitasuna gaitic? Baya ¿cer diñot? ¿cer esango ceunque eskatuco baleutsue beragaz bat izan gura bazare, eguin daguizuela mundu onetaco ondasun, onra, edo guztiz gura dozuen gauza bategaitic eguiten dozuena? ¡Ay, neure cristiñauac! Baquizue cer adierazoten dozuen alan eguinagaz? Gueiagio balio daveela mundu onetaco ondasun, onra eta olgurac, bere seme izateac baño; bada ceinbat eta gueiagio eguiten dan gauzaren bate-

(214) gaitic, ainbat eta gueiago eguiten da gauza ori, ainbeste aleguin eder eguiten da beragaitic; baya guichitan badaucagu cerbait, eztoгу ecer eguiten beragaitic. Da esatea deungaro eguiten eveela santuac, ainbat lan, neque, gose, egarri, oraciño, barau, gaubela igarotea (eguitea) Yangoicoaren Seme izatearren. Da esatea deungaro eguin evala Yesucristo-c ainbat azote, ainbat zauri, pasiño ain garratza, ta eriozta ain gogorra igarotea (icustea) zuec bere seme eguitearren, eta graciagaz zuen arimac apaindu ta edertutearren. Esan eguidazue, neure cristiñauac, derichazue (214) yaquitunagoac zareela santuac, eta santuen santua baño? ¿Esan ciñaique aec baño obato daquizuela cer balio daven Yangoicoaren Semetasunac? Eztaquit asartuco bazare, ta biotzic ta arpeguiric izango badozue au esateco. Bada ainbestean euqui badabe aec Yaungoicoaren Seme izatea, ¿celan zuec daucazue ain guichitan? Ainbeste maitatu badavee aec Yaunaren gracia, ¿cela zuec ain guichi eguiten dozue gracia ori? ¡O itsumendi arrigarria! ¡O zoraqueria guztien artean zoraqueriaric andiena! Yaungoicoaren Semea eguiten da guizonaren seme, guizonaren semea Yaungoicoaren seme eguitearren; eta guizonaren semeac ezta-vee Yaungoicoaren Seme izan gura. Yangoicoa eguiten da aragui, aragua Yaungoico eguitearren, eta eztau araguiac Yaungoico izan gura. Yaungoicoa yazten da lurrera, lurra cerura eroatearren, eta lurrac eztau cerura igon gura.

Iratzartu zaitece nosbait pecatuen lotan zagocenoc: eta ezagutu eguizue Yaungoico baten Seme onegan, ceinbat maitetu bear dozuen (ce balio andicoa dan) Yaungoicoaren seme izatea.

Beguiratu eguizue Yangoicoaren seme onegan, ce laztan izan bear dozuen Yaungoicoac opa deutsuen gracia. Zuei doe au ecartera etorri zan mundu onetara, zuec beragaz aberastutearren eguin zan pobre guztiaц baño pobreago; zuec beragaz edertutearren dago dautsuen moduan ezainduric; zuec beragaz edertu ta apaindutearren, dago guztiz billosic; zuec beragaz osatutearren dago berau gueishoric eta zauri bat eguinic; eta zuei beragaz bicitzea emotearren dago berau ilic; zuec beragaz onreterren dago ain lotsari eta desonra andian curutzeco urcamendi onetan yosiric. Beguiratu eguiozue, eta icusico dozue cer eguin bear dozuen beronen seme izateco, beronec ainbeste eguin ezquero. ¿Nori yoaco gueiago, neure cristiñauac, zuec Yaungoicoaren seme izatean, zuei ala Yaun oni? ¿Cer yoacan Yaun oni mundu guztia galdu balitz beré? ¿Etzan ain andi, ain altsu ta poderosoa, eta ain yaquituna izango, cein da guizon guztiaц salbau balira? Ecin ucatu cinaie. Eta ¿cer izango da zuecaz, Yaun onenac ezpazaree? Demonioaren menpeco, galduac betico infernu baten. Eta orregaitic beré ainbeste eguinic Yaun onec zuec bere seme beti-

co zorioneco, eta ceruco Principe izan zaitezzen, eztozue cerbait eguingo ain lecu altura, ain onra arrigarrira eldutearren? Benetan diñot eztaucazuela sensunic, etzareela guizonac, bada guizon guztiac dauque gurari bici bat lecu altu eta onragarriraco; ta ceinbat lecu ereguiago ta onragarriago, ainbat gurari biciago. Eta alan baceunque guizonaren biotza, gura ta gur'ez leguez eguingo ceunque aleguiña Yaungoicoaren seme izatearren: bertatic sartuco cinatequez gurari bician confesiño on bat eguiteco, eta bicitza barri bat (eguiteco) asiteco. Ezagutu, bada, nos edo nos; eta icusiric ce guichitan euqui dozuen orain artean Yaungoicoaren gracia, parca escatu eguiozue Yaun oni. Emon eguiozue berba oso bat, ainbat lasterren confesetaco, eta emenche aguindu eguiozue, onic aurrera euquiteco beti ceuon arimea bere gracian; esan eguiozue biotz guztiric: Neure Ye.C°.

4. JAUNGOICOAREN ERRUKIA

(J, 121-128. or.)

*¡Quam magna misericordia Domini et propitiatio
illius convertentibus ad se!
Eccli. 17. v. 28.*

(121) Neure entzula onac, ¿nondic edo cegaz asi nei nic obeto (121) gaur asten dogun misino santu au Ygcoaren erruquitasunaren gane-co sermoiagaz baño? Misiñoac izan oi dira gueien pecatariac Yaunaren bideetara ecarteco. ¿Eta onetaraco: cer izan leiteque obeto datorrena Yaun onen erruquitasunaren gañeco sermoi ori baño, ceinec zabalduco deutseezan pecatariac euren biotz larri-estucac, eta ecarri-co dituzan bete betean Yaun oneri euren pecatu andien parcacñoa escatuten? ¡Ygoicoaren erruquitasuna, Ygcoaren erruquitasuna! Berba gozoa beintzat: gueure erraiac urtu bear dituzan berbea. ¡Ay, noc ecarri leiqueezan ona gaurco arratsalde onetan mundu zabaleco guisaseme eta emacume guztiac, Ygcoaren erruquiaren ganeco sermoi gozoa entzutera! Bada bai neure biotzeco pecatari laztanac, gaur entzun bear deustazue gueure Ygco maitea dala errai samurre-tacoa, biotz bigunecoa, eta guztia erruquia beragana biotzetic damu-tuta datozañan pecatariantzac.

Baaquit nic, eta alanche diraust S. Cyrilo Yerusalen-goac⁵², munduco miñ guztiac, bat eguinda beré, ez leuqueela Yaunaren erruquitasun orren dan izpiric chiquiena bere adierazoco. Baaquit nic, eta alanche diraust S. Yoan Crisostomo-c⁵³ ain dala andia Ygcoaren erruqui ori ece, ecin ecetara beré berbeagaz iragarri eta azaldu leiquean: eztagoala ori ulertu eta adituco daven bururic: eta gueure arguiac eta zuertasun guztia baño goragoco gaucea dala Yaunaren erruquitasun ori. Alanberé celan-alan onen ganean cerbait esango al deusuet, eta derichot ece, Ygco beraren gracia lagun dodala, bateri bateri biotza zabalduco yacala.

⁵² Cath.2

⁵³ Homil.2. in Psal.50

Ara bada ceen ganean izango dan arrastegui onetaco sermoia. Eracutsico deutsuet guztizcoa dala Ygcoac pecatari damutuentzat daucan erruquia, eta eztala mundu onetan pecatari ain galduric, cein da Ygcoac parcatuco ezteutsan, benetan damututa, parca escatuten badeutso. Orretaraco nic iragarrico deutsuet Escritura Santuac onen ganean dacarrena, eta ceuec egunean egunean icusten dozuena. Escritura Santuetatic esango deutsuet Ygcoac cer esanic daucan bere erruquiaren ganean, eta cer eguin izan daven gueure pecatuen parcañoraco; eta onen osteian gogora ecarrico deutsuet celan pecatari-ia icharoten deutsen, eta celan dei-eguiten deutsen beragana etorteco, zuec icusten dozuen leguez. Aror bada arrastegui onetaco nire sermoi-guei guztia.

Baita, barriz, ¿nondic asi nei nic obeto Ygcoaren erruquicuntza onen ganeco berbetea, Ygcoac berac onen ganean esanic dituzan berba gozoetic baño? ¡Ay, eta ceinbat berba zoragarri esanic dauca, erruqui andi onen ganean! Eta noc leuquean guztiac batuta, ceuei bein banaan esateco astia! E-litzateque besteric bear sermoi luce eder bat eguiteco. Baya ganeco guztiac ishilic gorde bearco badodaz beré, ezta ishilic igaroteco Ezequiel santuaren bitartez⁵⁴ esan cituzan berba gozoac. «Esan egueizu, esan eutsan bein baten Ygcoac Ezequiel-eri, esan egueizu nire partez Israel-go pecatari galduai: Ceuec diñozue: gueure pecatuac ganera eguin deuscue, eta gu bashen gueiago dira: eta orregaitic galduta gagoz. ¿Celan bici guintequez bada? Esan egueizu ceuc; Ygcoraco, diño Ygco Yaunac, eztot nic gura gaistoa il ta galdu dedin, ez: gura dodana da gaisto orrec bide charrari ichi daguiola, eta bici dedila. Ausi eguizuez, ausi, ceüen bide (122) (122) oquerroc. ¿Cer eguiteco il bear tzare? Ara bada, gaistoa onduten dan edocein bere egunetic aurrera ezteutse gachic ecarrico bere gaistaqueric. Eta nic esan-arren gaistoari: ilgo zara, il: berac penitencia eguiten badau, eta gueiago ondo bici bada, ezta ilgo, ez: echa-co arteco peaturic ari ezarrico».

¿Cer gueiago gura dozue, pecatari gaishoac, cer gueiago? Ygcoac berac ceinen berbaac eguño eztaveen utsean ez yo ta ez yoco: Ygco andiac, ceinen berbaac iraun bearco daveen ceru-lurrac yoan da beré⁵⁵ berbea emoten deusue ceuen pecatuac, direanac direala, parcatuac izango yatzuezala, baldin ceuec orain arteco bide charrac ichi eta beragana penitencia benetaco baten bitartez biurtuten bazare? «Ez , diño S. Lorenzo Yustinianoc⁵⁶, ez evan Ygcoac icentadu ez

⁵⁴ c.33.v.v.10,11,14,16

⁵⁵ Ez du oharra osatzen.

⁵⁶ Ez du oharra osatzen.

penitencia eguiteco bearco zan aldiric, ez pecatuen ceinbatic, ez parca escatuteco lecuric. Eztiño, betoz gaztetan, edo onenbeste urtera artean penitencia eguin gura daveenac, betoz, osasun onean datoza-nac; baya zartzarooran eta gaishoan datozañai ezteutset nic parcatu-co. Eztiño, nic parcaciñoa emongo deutset bein edo bein bategaz edo alan seigarrenecoan erracuntzaren bat izan daveenai: baya ez urte osoetan zoro zantar eguinic bici izan direanai: edo nic parcatuco deutset ezconbaacoagaz ibili direanai, baya ez ecelanbere ezcondua-caz eguin daveenai. Eztau esaten eztagoala parcaciñoric abere mu-tuacaz, ganadu zantarracaz deungaro ibili direanentzat, edo iñoren etseari edo basoari su emon deutesenentzat, edo iñoren calte charre-an guzurracaz yuramentu eguin daveenentzat. Eztau esaten ni prest nago parquetaco euren bacarrean, edo euren buruen aurreti baño pecatu eguin eztaveenai, baya, besteac galduten ibili direanac eztau-que nigaz cer eguinic. Ez beintzat, eztiño Ygcoac alango gauzaric. Bete betean diño: gaistoa onduten dan edocein beré eguneti parca-tuco yacazala bere pecatuac; ezteutsela calteric ecarrico bere pecatuac; onegaz iragarten deuscula eztavela berac erruqui izateco loca-rriric ez laburgarriric». Eta bere berbea asco ezpalitz leguez, berbea emon ez-ece, baita beré berba orren ganean yuramentu eguiten dau. ¿Eldu leiteque gueiagora Ygco baten gunganaco ontasuna? «¡Ay, gue-re zorionac, esan bear dogu pozen pozez Tertuliano-ren berbacaz⁵⁷, gueure zorionac, bay, Ygcoac yuramentu eguin gurea, gueuri pecatuen parcaciñoaren usteac (esperantzea) bete betean emoteco!» ¿Ez alda asco izango au guzti au, pecatari gaishoac, ceuen biotzean espe-rantza ederraren sua biztuteco? Bayez nago.

Baya ori asco ezpalitz beré derichat ece, ascoco dozuela gogora ecartea, cer eguin evan Ygco onec, guc pecatuen parcaciñoa izan daigun. Fedec daracuscu, eta ceüec guztioac daquizue ondo, Ygcoa-ren semea, Trinitade santuco bigarren personea, Aiteagaz eta Espi-ritu Santuagaz Ygco bat dana, guizon eguin tzala gueure guztioen pecatuen parcaciñoraco dana⁵⁸. Entzun dozuez berba laburroc, en-tzun dozuez? Laburrac dira, bay, baya asco baño gueiago esan gura davee. Ygcoa guizon eguintzan gueure pecatuen parcaciñoraco!» ¡Erruquitasun andia! esaten dau S. Agustin-ec⁵⁹ orregaz poz-arren dana urtuta; ¡Erruquitasun neurribacoa! Ceuc, ceuc bay ta ez bestec ecarri euquean cerutic lurrera Ygcoa bera». Bai barriz, gueure pecatuen parcaciñoraco etorri zan mundura Ygcoaren Semea, aushe izan

⁵⁷ Ez du oharra osatzen.

⁵⁸ Ez du oharra osatzen.

⁵⁹ Ez du oharra osatzen.

evan bere betico escu-arteco cereguina, berau bere yana, bere edana, bere loa, eta berau bere guztia.

Emetic etorcan pecatari damutuacaz ain bigun izatea, eta beragana etozanean ain gozaro artutea. Bayatorco damuturic eta negarrez ito bear evala araco errian cer esan andiac imini, eta deungueraco bidea ascori emon eutsan emacume galdua? Bada, Yaunac bigun bigun artuten dau, eta dirautso gozaro: «Emacumea, parcatuten yatzuz ceure pecatuac; zoaz baquean»⁶⁰. Ecarten deutse bere aurrera andra ezcondu bat araguizcoan bear ez evanagaz topau eveena? Eta Yaunac, dacusalaco lotsaturic eta damuturic dirautso: «eztot nic ceure contra emongo. Zoaz bada eta ez gueiago alangoric eguin»⁶¹. Elduten yacaz beste pecatari asco bere berba gozoac entzuten? Eta berac ondo artuten dituz, eta bear bada eztauco atzera-bideric eurenera bazcalduten yoateco, ezta bear bada euren artecoac bere escolan artuteco beré⁶².

(123) Baya ezta ori guztia. Y.C^o: bera dabil dandarrez pecatarien atzean. ¡Ay egon bacine (123) Sicar-go iturriaren parean, ceuec icusico cenduen celan egoan Yesus bidez necaturic icerdiz galduric, eta goseac ilic, Samaria-co emacume, zantar eguinic bici zan, baten beguira; celan aguertu eutsazan berac gordeta eucazan pecatuac, eta celan gueldi gueldi ecarri evan Ygcoaren bideetan sartutera⁶³. Egon izan bacine Yerusalen-go pozu uzabalaren ertzean, icusico cenduen celan Jesus beguira yoacan itanduten ogueta amazortzi urtean oaturic egoan guizon cadena gorputza artuta eucanari, eta alango amesic burutan artu beré ez evanari, ea osatu gura beeban, eta celan gorputzeco osasunagaz batera arimacoa beré emoten deutsan, esaten deutsala, ez gueiago pecaturic eguiteco oquerragoren bat etorri (yazo) ce daquion⁶⁴. Eta ¿cer cirean Yaun onec pecatariac onduteco icusi cituzan goseac, egarriac, ibilerac, icerdiac, burucominac eta arrastacac?

Baya ¿cer? ¿Derichazue ori izan zala Ygcoaren Semeac pecatarien oneraco eguin evan guztia? ¿Derichazue ez evala besteric eguin? Bai beintzat, ori baño gueiago eta gueiago eguin evan. ¿Baa-cutsue ceinbat doian guerizaric eta gorputzera, irudineric eta izatera? Bada ori guztiori eta gueiago doa nic esan dodaneric eta J.C^o.c eguin evanera. Guericea da, irudina baño ezta, utsa da niri entzun

⁶⁰ Ez du oharra osatzen.

⁶¹ Ez du oharra osatzen.

⁶² Ez du oharra osatzen.

⁶³ Ez du oharra osatzen.

⁶⁴ Ez du oharra osatzen.

deustazuena Ygcoaren semeac eguin evanaren aldean. Au ceuei eracusteco ezteutsuet gogora ecarrico celan ceru-lurraren yaubea yaio zan abel-etse edo esquepe baten: ez celan bici izan zan guztiz pobre eta artu. Alde batera ichico dot celan yaiota zortzigarren egunean emon bear izan evan bere odola. Alde batera berac eguin cituzan barau gogorrac, bere erritarrac ganic eta beste asco ganic icusi bear izan cituzanac, eta beste onetarico asco. Bacarric bada gogora ecarri gura deutsuet Y.C^oren pasioño garratza.

Zatoce, bada, orain ceuen gogoagaz Yerusalen-go errira. Sartu zaitece Gesemanico ortuan, eta anche icusico dozue Ygcoaren Semea ain larri, ain estu ece, larriaren larriz odol garbi garbia dario icerdi orde bere gorputzeco alde guztietati. Icusico dozue oraindo celan bertan preso artuten daveen bere arerio gogorrac. Yarrantu eguiozue guero Anás-enera, Cayfas-enera, Herodes-enera eta arritucico zare icusiric celango guzur tzarrac asmetan deutsezan eguño pecaturic eguin ez evanari; gogortuco zare icusiric celan zoro eguiten daveen Ygcoaren yaquituria: eta betico icaraturic eta biotz-quetauric lotuco zare icusiric celan darabilden barregarri belarr-ondo, cocotecoca, osticoca. Pilatos-enean sartuten bazare, ¡ay! anche icusico dozue celan bost-milla eta gueiago azote emonda, gorputz guztia bana bana eguiten deutsen: icusico dozue oraindo celan arantzazco coroe gogorragaz bere buru guztia galduten deutsen. Baya Calvario-cio mendi ganean, ¿cer icusi bear dozue? ¡Ay! Emen, lecu itzal onetan icusico dozue Ygcoaren Seme au gueure pecatuacaitic curutze baten esqueguiric dinguilizca, escu-oñetatic untze lodiacz yosiric, eta minen-minez bicitzea galduten.

Eta onec guztioic ¿cer esan gura dave? Gueure Ygco laztanac biotzetic, eta ondo biotzetic parcatu gura deuscuzala gueure pecatuac, orretaraco bere Seme bacarra mundu onetara aguindu evanean, gueure anaye eguin evanean; gugaitic ainbeste neque eracutsi eutsanean, eta azquenean gueu pecatuetatic ateratearren (124) curutze baten ain gogor il evanean. Pecatari gaishoac, ¿bear dan leguez damututa zagoze? Bada errazqui bildurrac alde batera botaco dozuez. ¿Celan galdu guraco zaituez ceuec irabaztearren ainbeste eguin evanac? ¿Cer? diño S.Paulo-c; ¿Cer? bere Seme bere bereari parcatu ez eutsanac, eta bai gu guztioic gaitic Seme ori emon evanac, ¿celan beragaz batera emongo ezteuscuz osterantzaco gauza guztia? Eta Ygcoaren Seme ori gueure pecatuen parcacianoagaitic guizon eguina, ainbeste neque icusia, eta curutze baten ila, ¿eztogu gueure alde izango parcaciano ori izan daiguntzat? Bai beintzat, bai. Pecatu eguin badogu, diño S, Juan-ec edo obeto esateco, diño Ygcoac berac S. Joan-en bitartez, «J.C^o.gan daucagu bere Aitegaz gueure

(124)

bitarteco, eta berac gozatuten eta bigunduten dau aren aserrea, ez bacarric gueure pecatuac gaitic daucana, baita mundu guztico pecatuac gaitic daucana beré». Eta Ycoa gueure alde dogula, ¿nor izango da gueure contra? Alan bada eldu zaitece bete betean Ygco erruquior onegana confesiño on baten bitartez, eta berac izango dau ceuecaz erruqui.

Orain artean beré Yaun onec ondo, eta ondo baño obeto eracutsi deutsue parcatu gura deutsuela. Beguira ezpaberé celan artu zaituezan Ygcoac bere contra pecatu eguin dozuenean. Yshilic egon yatzue castiguric emon bagaric; epea eta astia emon deutsue beragana gura badozue beré, eta berac ceuei orretaraco dei eguin deutsue. «Bai, dirauscu S. Buenaventura-c, bai, ondo ta ondo aguiri da Ygcoaren erruquitasuna, pecatariari luzaro icharotean: cegaiti ece, celan guizonac pecatu eguiten davenean Ygcoari bide-ba'aco andi bat eguiten deutsan, eta Ygcoaren Semea barrien barri beragan danetic curutzean yosten daven, ordu beretic galdua izan bear leuque Ygcoaren erruquia bitarteco sartuco ezpalitz». Alanche da, pecatariac; ceuec pecatu eguin da Ygcoaren contra yagui ciñeenean, ceuen contra aserre parau cirean munduco gauza guztiac, eta galdu eguingo cindueezan, Ygcoac ichi izan baleutse. Lurrac iruncico cinduezan, suac erre, urac ito, abere uzu mistoac eta pistia zantarrac apurtu eta etzan izango munduan ceuei al evan calte guztia eguingo ez eutsuen gauzaric. Beguitanduten yat entzuten nagoala celan Ygcoari esaten eutsan ceuecgaiti onetarico bacoachac: banoa ni, Yauna, eta il bear dot chacur gaisto ori.

Baya, ¿Ygco erruquiorrac? *Expectat Dominus, ut misereatur vestri*. Ez bein, diño Yaun bigun onec, bego bein. Neure contra dabilen ori, nic eguin dot neuc, eta eztot nic galdu gura nire escuetaco gaueca. Neure contra aserre diñarduan orregaitic neure Semeac escatuten deust, eta nic entzungo dodaz Seme on onen escariac, berari zor yacan lotsa onagaitic. Bego bada bein, eta icusico dogu ea bere senera badator, eta sartuten bada bear dan bidean. Ezteuste nire erraiac ichiten ori, orren gaistoa dala beré, ain laster galduten; ece nic aserre nasanean beré ecin aztu nei nire erruquia. Alanchec eguin dau bada zuecaz pecatari gaishoac, alanchec, Yaun erruquiorrac. Orain artean ezteutsue bere aserreric eracutsi.

(125) Osterantzean ¿cer izango zan ceugaz guizona, cer ceugaz andrea, guzzurraren (125) ganean testigai oquerra emon cenduana? ¿Etzinean egongo oraingotz infernuco ondarretan erretan eta quiscalduten? Ygcoaren erruquiagaitic ece; cer izango zan biraoti orregaz, batec gauzaric chiquiena eguiten deutsun orduco ceure biraocaz luurra gora, eta cerua beera ecarri bear dozunagaz? ¿Etzinean infernuan

egongo? Ygcoaren erruquiagaitic ece ¿cer izango litzateque ceugaz, loi orregaz, ceinec ceure buruagaz dala, lagunagaz dala, eta ¡lotsagarrri gogorra! ganadu mutuacaz beré bai, beti ibili bear izan dozun zantarquetan, araguzcoetan, beti loi-ciquin eguinic? ¡Ay! *Misericordiae Domini quia non sumus consumpti*. Ygcoaren erruquitasunari esquer andiac bici bagara, galdu ez bagara, ondatu ezpagara. Bai, cé ganecoan gueureac eguingo evan, bein betico galduac izango guinean. Galdua izango cinean ceu lotsaarren ceure pecatua cõnfesau ecinda ainbeste urtean erabili dozuna, bitartean Confesiño eta Comuniño oquerrez ase ta bete eguiten zareala. Galdua izango cinean ceu araco pecatutic sortu yatzun seiña galduteco Ygcoac daquizanac eguin cenduzana. Galdua izango cinean ceu iñoren ondasunacaz aberaztuta galanto bici zareana. Eta berba baten esateco, Ygcoaren erruquiagaitic ece oraingotz galduta cengocen, infernuan ondatuta egongo cineen pecatari errucarri guztiac.

Baya Ygco erruquiorrac etzaituez galdu gura izan, eta orregaitic icharon deutsue, eta beragana biurtuteco astia emon deutsue. Ezta ori guztia; orrez ganetic berac dei-eguin deutsue, beragana ecarri gura izan zaituez. Yaunac berac esanic dauco aserre danean beré, bere su-mina ta guzti, eracutsi bear izaten davela bere erruquitasuna, eta ondo ta ondo aguertau dau ori ceuecaz pecatari gaishoocaz. ¡Ay ceinbat bider dei-eguin deutsuen Yaun onec, ceinbat bider esan deutsuen anchina Yudeguai Yeremias-en bitartez legueche: «beguira, beguira guztiz dozuela oquer ceuen Ygcoa ichi izana! ¿Ezta eguia pecatu eguinda guero berein bider ceuen barruan Ygcoaren deia asmau izan dozuela? ¿Ezta eguia pecatu eguin barritan, (eta guero beré, eta bear bada ceuen poz-zoroen onen onenean) ceuen biotzac erretan cinduezala, min emoten eutsuela, eraguiten cinduezala? Bada ori zan Ygcoac zuei pecatutic urteteco eguite' eutsuen deia. ¿Ezta eguia urlia eguneco sermoia entzunda, artu cenduzala ceure bicitzea onduteco gogoac? Bada ori izan cenduan Ygcoaren dei gozo bat. ¿Ezta eguia ceure laguna, edo ceure ume-galanta il yatzunean, edo adisquidea, aidea edo atzea il-tzanean ceure barruac estututa artu cenduela confesiño on bat eguiteco burua? Bada ori zan Ygcoac eguin eutsun dei gozo bat.

¡Ay! Eta ceinbat bider gogora ecarri deutsuezan, berac ceuei eguifico mesede ederrac ceuentzat prestauta daucan gloria zoragarria, onelan ondo esanean ceuen biotzac erosteco! ¡Ceinbat bider icaratu gura izan zaituezan infernuco pena eta neque gogorrac zuei gogora ecarrita ea gachean eguin al beevan onean ecin evana! Ecin ucatu cinaiquee gogotic igaro yatzuela, eta ez bein, ez birritan, eta bai sarri eta sarri, ea noraco zareen ceuec daroazuen bici-moduagaz;

(126) ecin ceruric icusi cinaiqueela; infernuac izan bearco davela ceuen betico toquia, ta bici-lecuan beste bici-modu bat icasten ezpadozue. Eta orreec ¿cer derichazue izan direla? Ygcoaren arguitasunac, Ygcoaren deiac, Ygcoaren gracia gozoac, Ygcoaren deiac izan dozuez modu berean, Ygcoac berac alan (126) gura izan da ceuec icusi izan dozuezan gaishoac, atsacabaac, naibacoac, laburqueriac, nequeac, eta osterantzeco icusi bear guztia, eta bein bashen sarriago euretati etorri izango yatzuez ceuen bicitzea onduteco amesac.

Eta ¿cer da Ygcoaren deia eta dei andia baño, berac ceuen errira ecarri deutsuen Misiño santu au? Esan eguidazue, arren, ¿ezta eguia Misiño au ceuen errira etorrico zanaren barria entzun cenduenetic asi cineela batzuc batzuc, ¿cer diñot batzuc? ¿ezta eguia asco eta asco asi cineela ceuen artean confesiño on bat eguin bear cenduela; ceuen bici-modu charra ondu bear cenduela? Autortu eguizue bada Ygcoac bide ascotati billatu zaituezala, beragana eroateco dei-gozoac eguin deutsuezala, eta bere aldetic aleguinac eta eçin eguinac eguin dituzala. Eta ori guztiori eguin deutsue zuecaz aserre dala, zuec beré arerio zareela. Eta ¿parcatu guraco ezteutsue, beragana parca esque, pecatuen damuagaz, elduten bazare? ¡Ay! Esan bear deutsuet Yuditec beste aldi baten bildurrez ilic egozan batzuei ci-rautsena: Yaunac galdu gura izan bacinduez, ez eutsuezan oneec guztioac eracutsico.

Ara bada, Cristiñauac, ceinbat aldetatic icharon bear dozuen Ygcoaganic zuen pecatuen parcaciñoa. Ygcoac berac esanic dauco, pecatariari parcatu gura deutsal, eta benetan ondutera badator, ezteutsela calteric ecarrico ordura arteco pecatuac. Ygcoac berac gueure pecatuen parcaciñoraco bere Seme bacarra mundu onetara biraldu evan, eta neque andiac, pasiño garratza eta eriotza gogorra eracutsi eutsazan. Ygcoac epetasun andiagaz egon yatzue beguira, ea beragana biurtuten bazare, eta ori eguiteco berac sarri ta sarri era ascotara dei eguin deutsue. Eta ¿ceuec? Ceuec ¿cer diñozue? Oraindo beré egongo zare ez etorrico bai etorrico, parcatu guraco ezteutsuenen bildurrez? ¡Ay! ori alan eguiten davenac eztaqui asco gueure Jangoicoa parquetaco nor dan. Onenbeste eguiten davenac pecatariac beragana ecarteco, ¿eztituz artu guraco beragana datozeanean? Parcaciñoa opaca dabilenac, ¿eztau parcatu guraco parca-escatuten deutsueanean? ¿Noc ori esan lei? ¿eta gueure Ygco on-laztan maitegarriagaitic?

Ceuec pecatuetatic alde eguin gura ezpadozue: aurrera eroan gura badozuez orain arteco bide charrac, orduan ez, ezteutsuet nic esango Ygcoac orain artean leguez icharongo deutsuela: guero bere ceuen pecatuen parcaciñoa emongo deutsuela. Ygcoac berac, ez nic,

dirautso alan eguiten davenari: «ez eguizu esan: Yaunaren erruquia andia da, eta nigaz izango dau aurquiz nire pecatuac parquetaco; ece Ygcoagan erruquitasuna eta aserretasuna alcarren urrean dabiltz, eta bere aserretasunac pecatarietara dauca beguia. Orregaitic ez berantau Yaunagana biurtutea: ez luzatu eguneric egunera, ece supitoan eta beingo beingo baten bere aserrea ceure ganera yausico da, eta galduco zaituz vengaiia artuteco aldia yatorcanean». Onelan dirautso Ygcoac beragana biurtu gura ez-ic dabilen pecatariari, eta ceuec beré alan bazabiltze, bildur izan bear tzare alan yazoco yatzuela.

Baya pecatuetatic alde eguiten badozue, confesiño on bat eguiten badozue, eta guero bicitza on bat badaroazue, ez bildurric izan. Ygcoac parcatuco deutsuez pecatuac, baita munduco esquergueenac eta icaragarrienac badira beré. Eztago J.C^o.ren odolagaz (127) osatu ecin leian zauriric (Bernr.). Batec il izan balituz Apostolu santu guztiac, araguzcoan munduco emacume guztiacaz yausi izan balitz, J.C^o. bera curutzean yosi izan baleu, eta guero baletor Y.C^o. berberagana biotzeric damututa, eta parca escatuco baleutso, beingoan parcatuco leusquio Yaun onec, diño S. Vicente Ferrer-ec. Alan bada eriotzac eguin izan badozue, aleguinac eguin izan badozuez sabeleco seiña galduteco, izan bazare seigarrenecoan alde ascotara loiac eta zantarrac, zeuen buruagaz, dan leguezco lagunagaz, edo abereagaz, ibili izan bazare urte ascoan ceuen pecatuac lotsarren confesau ecinic, izan bazare biraotiac, lapurrac, iñoren gorrotoan bici izan zareenac, eta eguin izan badozuez buruco ulleac baño edo ichasoco ondarrac eta ur tantaac baño pecatu gueiago, ezta ardura. Inquisiciñora bagaric, Erroma-ra bagaric, ceuen buruac aguertu bagaric, ceuen errian izango dozue guztien parcaciñoa confesiño on baten bitartez. Orren gura da Ygcoa; orren beguira dago Ygcoa. ¿Ez alda asco orrenbestegaz, neure biotzeco pecatariac, ceuen biotzac bigunduteco? ¿Ez al dozue asco entzunac ceuen erraiac lashatuteco eta zabalduteco? Izan bedi bada guichienez, izan bedi J.C^o.c berberac bere ao gozotic esan evan parabola edo irudin ederra. Entzun bada.

Seme bi cituzan guraso batec, eta gazteenac esan eutsan bein: Aita, betor niri yagotan senipartea. Emo'utsazan Aiteac bere diruac, eta Seme gazte ori diruoc artuta yoan tzan erri urrunetara (asa-goetara). An oparo yan, naroro edan, galanto yanci, emacume zantarracaz deungaro ibili, eta yocoetan eta zoraquerietan beingoan yan ta ondatu cituzan bere diru ederrac. Onetan goseta andi bat etorri zan erri atara eta goseac ilten ebilen gaishoa. Bere burua alan icusi evanean gazte onec ain arlote, eta ain artu, billatu evan ugazaba bat, eta ugazaba onec aguintu evan laguñecoac yagoten. Emen bere go-

sea emendatuteco yan guraco cituzan laguñecoai emoten yaqueezan ezcur, ceruca, leca eta anabaqueetatic, baya ori beré ez eutsen laquetuten. Premiña estu onec contuan yausi eraguin eutsan gazte zoro oneri, eta esan evan bere artean: ¡Ay, bada! Nire aitenean ceinbat otsein eta aloguereco dagozan ogui andi gura ezta dauqueela, eta ni nago emen goseac ilten! Banoa bada, gurasoagana, eta esango deusac celan pecatu eguin dodan ceruaren eta bere contra, eta eztodala nic mereci berac semetzat artutea: baya alan ta guzti artu naguiala aloguerecotzat. Esan ta eguin. Artuten dau erriraco bidea. Aiteac icusten dau urruneti celan datorren; eta bere erraiac ecin-ichita, bayoaco arin arinca, artuten dau besartean, emoten deusaz mosu gozoac. Esaten deutse otseinai: ea gazteac: arin ecarri eguiozuez yantzquiric onenac eta oñetaraco zapatac; il eguizue chalic guizenena, bada gaur alazoco conbit bat eguin bear dogu, ece seme au il yatan, eta biztu eguin yat, galduric neucan eta aurquitu eguin dot.

(128) Gueu gara, neure Cristiñauac, gueu J.C^o.c esan evan Seme galdu eta galtzallea, pecatua dala medio Ygcoaganic urrun bici izan gareanac, bere graciazco ondasunac, ondatu eta galdu eguin doguzanac. Baya gueure ceruco Aiteac barriro artu gura gaituz bere adisquidetasunean; atzera emon gura deuscuз gueuc galdu doguzan graciazco ondasunac, eta ain egarri andia eracusten dau gueure arimen ece, berac dirauscu bere aotic ece, pozcari andiagoa izango dala Aingueruen artean pecatari bat Ygcoagana biurtuten danean, ece ez laurogueta emeretzi on penitenciaric bear eztaveenacgaitic. ¿Ceri beguira gagoz bada Yaunagana biurtu (128) ez eguiteco? ¿Esango dogu gueuc beré anchina beste batzuc leguez: gueureac eguin dau, onezquero ecin ondu guintequez, aurrera eroango doguz gueure gogo charrac eta oquerreriac?

5. JESUKRISTO-C GU EROSTEA

(J, 129-141. or.)

Sic Deus dilexit mundum, ut Filium suum unigenitum daret, ut omnis, qui credit in ipsum, non pereat, sed habeat vitam aeternam.

(129) Yesucristo gueure Yaunac esan eutsazan Nicodemus-eri oneec berbooc: «onenbestean maite izan evan Ygcoac mundua ece, emon eutsan bere seme bacarra, beragan sinistuten evenac galdu etzitezentzat, eta bai equi daguientzat betico bicitzea.» Eta zan esan izan baleu leguez: beti ta beti izan deutse Ygcoac guizonai onerechi (amodio) andi bat, eta aguertu izan deutse berac eguin izan deutsezan ainbeste mesedeetan. Berac eguin cituzan eurac ecer-zeric, emon eutsen arima eder bat gorputz galant bategaz batera: berac euren bicitzeari iraun eraguiten deutso: berac emoten deutse yan-edana, oña ta soña, eta ganeco ondasunac. Eurentzat eguin cituzan munduco baster guztietan direan gauza ederrac; eta direanac imini cituzan euren aguindu-pean. Berac egunean egunean onentzat eta gaistoentzat aguertu eraguiten deutso eguzkiari, eta bitzuoentzat biraldu daroaz bear direan euri gozoac. Baya etzan onetan lotu (guelditu) Ygcoaren gizonac ganaco asco-gurea. Bere seme bacarra, beragaz bat evan seme laztan au guiûocoa, emon eutsen, beragan sinistu gura even guztiac galdu etzitezentzat infernuan euren buruac ondatuta, ezpabere gauz'onac eguinagaz betico cerua irabaci leguientzat. Orretaraco biraldu ninduan ni, mundu onetara, eta ordena estua emon eustan neure bicitzea guizonac gaitic emoteco (emon bearco nevala). Eta alanche izan bearco dau izan beré; preso artuco nave, azotaduco nave, eta curutze baten eskeguiric ni ilgo naz guizonac pecatuetaric ateretearren.

¡Ce berba gozoac oneec, gueure biotzac Ygcoa-ganaco amodioan sutu, eshetu, eta erre eguinbear leukeenac! Ygco bat berac eguinico guizon esker-gaistocoac-gaiti guizon eguin... Ygco bat berac eguinico guizon esker-gaistocoac-gaiti neke andiac icusi, eta bere bicitzea galdu... ¡Ay bada au beti beguien aurrean bagueunco, Ygco ain laztana maite izateco, eta aren esana gauza guztietan beti eguiteco! (130) Bai alperric ece (nonbaiste beré, aurkich.) ori gogoan ondo ondo

(130)

artuta ezgueunke ainbeste bider aren contra eguingo, ez aren legue santua ainbeste bider ausico. Aushe bada entzun bear deustazue arratsalde onetan, ea berotu albalediz ceuen biotz otz edo epel orre-ec Yesus maitearen amodioan. Iкуси bear dozue ceinbat eguin evan Jaun onec gueure oneraco, gueu pecatuetaric aterata ceruan sartute-co. Oneshen ganean bada izango da gaurco sermoia. Erdue bada cristiñau onac, Jaunac eracutsi dituzan bideetatic zabiltenoc, icusi eguizue cer eguin evan ceuec gaiti Ygcoac, eta orregaz ezagutuco dozue ceuec eguiten dozuen guztia eztala ecer ari zor deustazuenen pareraco. Erdue ceuec beré pecatari gaishoac. Yaunaren contra gorroto gogorrean zabiltenoc edo itsu-itsuric ebili zareenoc, eta icusi eguizue ceuen esker gaisto eskerguea: baita ezagutu eguizue celan Ygcoac errai erraietaric gura izan daven ceuen ona, eta celan orain beré besoac zabalíc dagoan zuec artuteco beragana biurtu gura ba-dozue.

Eta gauza oneri sustraia artuteco, gogora ecarri bear dozue celan Ygcoac osterantzeco gauza guztiac eguin ezkeró, eguin evan guizona guztien buru, nagusi, eta aguintari izateco. Emon eutsan buru iratzarri-arguia, biotz zabala, prestua eta noblea, gurari ederrac eta citelkeria bagacoac. Edertu eutsan arimea gracia santuagaz, eta ain eguin evan bere adiskide ece, bete betean esan leitekean ece, Ygcoac guizonagaz eucala bere gozo guztia. Guizon au betico zorioneco eguin guraric, prestau eutsan gloria eder bat, non, munduco egot-aldia eguin ezkeró, egon bearco evan bere aurrean, bera icusten, eta bera gozetan betico eta betico, munduan bici zan artean Yaunaren esana eguiten beeban. Erraz eucan orduan Adan-ec Ygco orren aguindua eguiten. Ez eucan gueuc leguez arerio gogor indar andicoric: araguiac ez eutsan guerraric eguiten, biotzac ez eutsan citelkeriaric ez okerreriariic emoten, diabruac ez eucan bere contraco indarric, etzan iûon lagun charric; eta berba baten, zan bere buruaren yaube oso osoa, eta eucan bere alde Ygcoa gauza guztietan lagunduteco. Eta ¡ay, alan eguin izan baleu! Ez bera ez ece, baita beraganic guentozan, guztiac beré bera leguezco (lango) zorionecoac izango guinean gueuc gueure erruz gueure burua galdu ezic.

(131) Baya eta ¿cer yazo zan? ¡ay! ta ¿noc gogora ecarrico dau negarric eguin bagaric Adanec eguin evana? Esker-gaistoco guizon onec ez evan eguin gura izan Ygcoaren esana. Yaunac esan eutsan (zaiguetz) sagar-ondo bateco frutaeitaric ez yateco (yan ez eiteco), baya berac Yaunaren esanari ez yaramon eguinda yan eguin evan, (131), eta gauza ain erraza ez eguin gurea gaiti galdu evan Ygcoaren gracia eta adiskidetasuna, eguin tzan beragaz arerio, guztizco indar andiac artu cituzan diabruac bere contra, gorputza beré mukerca abiadu yacon

arimeari esanic eguin gura ezic, galdu evan ceruraco eucan escubi-dea (escuicunea), eta ecarri eutsan bere buruari betico infernuan erreten egon bearra. Eta ez evan bere burua bacarric galdu, gueu guztioac beré galdu eguin guinduzan, eta gareanoc (danoc) gueure lenengo izateric aldean izan guenduan bera ganic dacargun (yatorcun) pecatu originala, eta pecatu onetaric yatorcuzan negargarrizco calteac.

¿Cer eguin bear eutsan Ygcoac ain esker-gaistoco agertu yacan guizon oneri? ¿cer eguin bear eutsan ainbeste mesede bere escuetaric artu ezkeroc, alango ecer-ez-keria bat eguin gura izan ez evan guizonari? ¿Parcatu bear eutsan, ala infernuco ondarretan ondatu eta galdu bear evan? Eztakit nic cer esango leukeen gauzaric chikiena parketan eztakienac, eta iñogaz ecer izan orduco, N.ra ta ostera dabilzanac kerellaac mundu guztiari ecarten. Baya gueure Ygcoac gueyegui gura eutsan guizonari ez errukiric artuteco, eta ez eutsan biotzac ichi alan galduric icusten, ¿Cer eguin evan, bada? Erabagui (ebatsi) evan bere Seme bacar laztana, Trinitade santuco bigarren personea, Aitegaz eta Espiritu-santuagaz Ygco bat dana, guizon eguin cidila, guizon pecatuan yausia pecaturic aterateco. Erabagui evan oraindo gueyago; erabagui evan Ygco guizon eguinico onec neke, irauna, eta ala gogorrac icusi, eta curutze itzal baten untzeacaz yosita bicitzea galdu leguiala, guizonari galdu evan arimaco bicitzea atzera emoteco.

¿Cer? Ygcoa guizona pecaturic ateretearren guizon eguin? ¿Ceru-lurraren eguillea berac eguin evan guizonari mesede eguitearren guizon eguin? ¿Ygco andia iñoren bearric eztaucana bere contra yagui yacon guizona bere adiskide eguiteco guizon eguin? Eta guizon eguin bere guizon eskergaistoco orregaitic nekeac icusteco, iraunac eroateco, eriotza icaragarria igaroteco? ¿Cer gueyago eguin eukean Ygcoac bera guizon izan eta guizona Ygco? Eta ¿cer eutsan Ygcoari guizona galdua-gaitic? Ecer ez (Bapere ez, arean ez). Ain andia zan Ygcoa, ain gloria andicoa, ain atseguintasunez betea guizon guztiac galdu ezkeroc, cein-da guizonac irabaciric. Milla asco urteetan, edo obeto esateco, betico guztian egon tzan Yauna bapere guizonic bear bagaric, berac beragan gaur alaiña (edu, lainbeste) (132) gloria eta atseguintasun evala. Guizonarentzat zan mesede eta on guztia, bada Ygcoac pecatuetaric ascatu ezpaleu, egon bearco evan guizon orrec Ygcoa Ygco dan arte guztian infernuco ondarretan erreten eta kiscalduten.

(132)

Baita bein guizona pecaturic atera gura izatecoan, ¿ez eucan Ygcoac orretaraco bera guizon eguita bashen beste bideric? Baya eta

¿noc ucatu lei, diño san Bernardo-c, gura daven guztia eguin leikea-nac bere escuan beeucazala ori eguiteco beste milla ta milla bide? Aingueruai emon euskioen ori eguiteco ordena: eguin eukean pecatu bagaco guizon barri bat, eta ac kitadu leiala beste guizon errudunen zorra: parcatu euskion doan (doaric) guizonari bere becatua. Baya ez, diño Ygcoac. nire contra ibili dan guizonari, nire arerio eguin izan dan guizonari eguin bear deuscat eguin al-neikion mesederic andiena: eguin bidi guizon neure seme maitea, il bidi lapur bat leguez curutze baten eskeguiric, eta orregaz eguingo dira guizonagaz nire arteco bakeac. ¿Eguin euskigun Ygcoac beste onango mesederic? ¿Eracutsi euskegun on-erichi, eta ondo-gura andiagoric? Ygcoac berac emoten deutso *amodio larreguiaren* icena. Eta Zacarias santuac esan evan izan tzala Ygcoari errai erraietaric urten eutsan errukia. Baya obeto ezagutu eta adituco dozue amodio onen anditana icusiric cer eguin evan Ygcoaren seme onec gueu pecatuetaric ascatuteco.

Eta onen ganean berba eguiten asi baño leenago, guztien sustrai-garriztat esan bear deuscat celan Ygcoaren seme guizon eguinac eguin leikean gauzaric chikien chikiena ascoco zala gueure guztioen pecatuen parcañoraco. Eta alan aren negar anpulu (malco) bat, icerdi tanta bat, odol tistilla bat, oraciño labur bat, eta beste edocein beré gauza asco zan guizona pecaturic ateretaco eta (ori beré bai baya) aric gora eguin evan guztia gueuri euscun amodioac erazota eguin evan. Dacusgun bada orain Ygcoac lagunduten deuscula, Yaun onec eguin cituzanen arteco batzuc. Eldu zanean Ygcoac icentaduric eucan aldía (denporea) Ygcoaren seme-guizon eguintzan, eta yaio zan andra Maria Virgineaganic Yesucristo gueure Yauna. Baya eta ¿celan yaio beré? ¡Ay! cerulurraren eguillea, Yaun guztien Yauna, Erregue guztien Erregue; Ygcoa bera yaio zan ama pobre bateganic, ez etse barruan, ez oeric egoan lecuan; ezpaberé abel-etse baten, edo esan daigun corta zantar baten: askea (estramiñea) izan tzan Yaun andi onec lenengo izan-evan cumea, lastoac bere oea (oguea). Yaiota zortzi-garren egunean asi zan bere balio andico odola emoten.

- (133) (133) Eta ¿Ceinbat neke, burucomin eta icerdi icusi etzituzan gugaitic Ygcoaren semeac? Gugaiti egon tzan Ygcoa andra baten eta guizon baten mendean, bere amaren eta san Josepe-ren esanac ishilchuric, semeric esanecoenac leguez, eguiten cituzala. Gugaitic bici izan tzan ogueita amar urteguiño bere icerdiagaz oguia irabazten evala. Gugaitic ibili bear izan evan erriric erri baster guztietan Jgo bere Aitaren berbea zabalduten evala, eta sarri icerdia, gosea, egarria, nekea aldean ugari cituzala. Gugaitic eguin evan bapere (arean)

artu bagaric berroquei eguneco barau gogorra. Gugaitic entzun bear izan cituzan lancean lancean (pitean pitean) ereguiten, erantetan eutsezan milla deitu charreco guzur oker: yan-edan ondo eguiten zalea zala; deungacaz batzanduten (batuten, lagunduten) zala; bera beré gaisto oker bat zala, eta beste asco. Gugaitic erabili even il guraric bai Herodes erregueac, bai bere erritarrac, bai beste ascoc. Gugaitic. Baya bere pasiño gogorrac daroat niri gogo guztia: emen iñon baño obeto aguiri da Ygcoaren guganaco on-erechi eder laztana; eta alan onen ganean astirosheago eguin bear dogu.

Baita gauza bic nauke ni Yesucristoren pasiño orretan icaraturic, eta conorte bagaric leguez: bata da Ygcoaren semea guztien osticopean icustea: bigarrena, barriz, Ygcoaren seme orrec icusi cituzan ala gogor-ecin gueyagocoac: eta derechat ece, ceuec beré niri entzunda beste orrenbeste esan bearco dozuela. Entzun bada. Bai satza leguez darabilde guztiac Yesus. Bere escolaco batec, beragaz ogui baten bici izan tzanac, salduten dau, eta dollorkeriaric citelenagaz iminten dau bera ilteco ebilco-zan arerio okerren escuetan. Beste batec biraoca eta erneguca diño beragaitic ece, berac eztazaüela alango guizonic: Eta ganeco guztiac, atzea emon-da, igues eguiten deutse. Mutil otsein icuski batec emoten deutsan belarrondoco eskergueagaz lotsea dariola iminten (ichiten) dau Pontifice nagusiaren eta errico bana-banaceen aurrean, iñoc orregaitic berba bat otsein orreri esaten ezteutsala. Soldaduac barriz beguiac estaldu (estari) barregarri darabilde, matrallacoca, chistu (tistu, chu) loiac eta gorro atsituac arpeguira urtica, dirautsela destañez barre zantzo artean: «ea igarlari, ea celan igarten doan noc yo auban.»

(134) Eta ¿noc negar bagaric gogora ecarrico dau celan santutasuna eta ontasuna bera danari milla guzur oker lenagocoaz ganetic (ostean) ezarri eutseezan: erriai yagui eraguiten ebilela, Erregueari zor yacazan contribuciñoac (pechuac) paguetea galarazo gura evala; Ygcoaren contraco berba deungaac esaten cituzala, eta onelangoac: Celan barrabas okerra bashen okerrago eguiten daveen; celan lapur biren erdian ilten daveen bera buru eta nagusi balitz leguez? ¿Nori biotza ausico ez yaco icusiric Ygcoaren yakituria Herodes-ec zoro eguiten davela, eta berac burla-zar yantzi eraguin eutsen soñeco zurriagaz daroela caleetatic cear, mundu guztiac irri ta barre eguiten deutsala? ¿Nori azkenean errayac apurtuco echacoz dacusanean araco guizon noble odol onecoa, Ygcoa bera Aita davena, eta amatatic ogueta bat erregueen odoletic datorrena billau bat leguez azotaduric, eta lotsagarrizco curutzean (curtzioan) ilic?

Baya ezta beingoan igaroteco arantzazco coroaren cera..., barre lotsarizco negar-garria. Soldaduac, iñoren leporic barre eguiteco beti

(134)

prest egon doazanac, icusiric Yesus laztana nekeric andienetan beré ishi ishilib egoala, eta bakeric bapere (arean) galdu bagaric, eta yaquinic beste aldetic ari edozein charkeria eguina-gaitic, Pilatos-ec ez eutsela buruco-min andiric emongo, Yudeguai barriz orregaz biotza zabal zabal eguingo eutseela, artu cituezan asmuac (buruac), beragaz barre aldi bat izateco. Eztakit nic obato esango ez neunkean dia-bruac gauza ori burura emon bear izan eutsela, bada eurac asmadu eveena eztirudi iñondi beré munduan danec ames beré eguin leikea-la. Entzun izan even celan Yesus gozoari beste gauceen artean ezarten eutseen bere burua erregue eguin gura izan evalacoa, eta orretaric buruac emon eutsen burlazarrezco erregue eguin bear eve-ela.

Esan ta eguin. Eyoten dave arantza gogorracaz coroe icaragarri bat, erantziten deutseez soñecoac, ezarten deutse sorbaldeetatic beera (achina) capa gorri zar bat, yesarri (yarri) eraguiten deutse aulki (lenca) baten ganean, eta buruan yosten deutse indarca arantzazco coroe ori. Emoten deutse escura cetro orde, cañabera bat eta asten yacaz erregueri leguez agurrac eta esku-munac eguiten. Paretan (iminten, yarten) yacaz batzuc aurrean, belaunico (belaunbico) eta algaraz eta carcayaz dirautse: «agur Yudegüen erregue..» Besteac artuten deutse escuetaco cañaberea eta beragaz, blast, yoten dave buruan. Baya asco cirean leguez, ecin guztia ain urrera eldu yacazan orrenbeste eguiteco; baya orreec beré euren citalkeria eracusteco (arren, arric) gorro atsitu loyac eguiten eutseezan arpeguira. An cirean algaraac, an barre-zantzoac, an iji-ajac, an berba zantarrac, anche barallea eta iscanbillea.

- (135) (135) Neure biotzeco cristiñauac, ¿ete dira oneec ipuiñen batzuc, edo amesen batzuc? ¿Eguin ete cirean onelango gauzaac guizon oker gaisto bici beré bear ez leukeanen bategaz? Ez, eztira eguia uts utsac baño, eta ceru-lurraren eguilleagaz, Ygcoagaz beragaz eguin cireanac. Yaun au da araco yaun andia, ceinen aurrean aingueruric goyenac eta nagusienac beré euren aurpeguiac estaldu bear izaten dituezan; eta cerutar guztia auspez lurrean (celaian yarriric) echunic opa (opatuten eskinduten) deutseezan euren buruetaco coroiac. Baya soldadu aldra billau batec darabil munduco guizonic okerrera leguez, edo satzena leguez, dandarrez barregarri. ¡O Yesusen paciencia diño san Bernardo-c, o umiltasun miragarria, eta o amodio parebagacoa! Ezagutu daguigun gugaitic eguin izan dituzanetan, ceinbat gura deuscun. Ceinbat eta bere burua guichiago eguiten daven, ainbat eta gueyago eta gueyago aguiri da gueuri deuscun leguea eta ondo-gurea. Baya ezta orretan bacarric aguiri: aguiri da beré gugaitic icusi cituzan neke eta ala ecin esanezcoetan.

2. Ez eucan orretan beré Yesucristo gueure yaunac gueu pecatuetaric ateretaco ainbeste icusi bearric: baya bere amodioac eta gueuganaco on-erichiac arr-arazo eutsazan, eguño munduan guizon-ec icusi dituzan gogorrenac. Munduco gogorrenac esan dot, eta ez-tot nic neure berbea yango. Baakit nic munduan ascoc icusi izan dituezala Yesucristo-c icusi cituzan gauzaac langoac, baita aec bashen ascozaz eta ascozaz gogorrangoac beré; baya ez eutseen aei orreec gauzoc onenbeste min eta ala emon, ceinda Yesucristo-ri bereac. Zagoce pusca baten, eta nic esango deutsuet cegaitic. Ceuec ondo dakizue gueure fedead daracuscuna, ece, Yesucristoren gorputza zala Espiritu-santuac bere graziaz eta birtutez eguina, eta esateraco moduan Espiritu-santuac berac bere escuz eguina. Beragaitic Yesucristo-ren gorputza zan osterantzeco guizon guztien gorputzac baño obeto eguina. Zan bada edocein beré gauzataraco besteenac bashen zuurrangoa. Mina emoten dau bear dan baño gogorrango, latzago, edo bear ez leukean leguez ucutu, yo, edo sartu eguiten dan gauceac, eta bardinean zuurrango dan gorputzean min gueiango eguin bear dau edocein gauzaac, sorrago danean baño. Alan bada izanic Yesucristoren gorputza Espiritu-santuac eguina leguez, beste ganeco guztienac baño ascozaz zuurrango, ascozaz beré minbereago izan bear evan besteenac baño, eta bardinean, eta guichiagogaz beré, ascozaz gogorrangoa izango zan ac artuco (136) evan mina, besteac artu leikeena baño. Au aurretic dozuela entzuzue orain celango min emoteco gauza icaragarriac icusi bear izan cituzan Ygcoaren Seme onec.

(136)

Ain icaragarriac izan cirean ece, preso artuco even gau atan berean gogora etortec ceinbat eta celangoac cirean icusi bearco cituzan onenbeste larritu eutsan biotza ece, gorputzeco alde guztietatic eriozan zara zara odol garbizco icerdi tantaac. Eta alan eguin beutsan etorteco egozanen gomuteac ¿cer eguin bearco ez eutsen orreec guero etorri-ta igaro bear izan cituzanean? Bai beintzat: ez Yesucristo-c leguez gorputza eguinic eucanari ez ece, baya guizonic gogorrenari, eta sorrenari beré icaragarriac eta latzac erechico yacazan neke eta ala orreec, berac igaroteco izan balituz. Isaias profeta santuac zazpireunta urtegaz leenagoric (aurretitic) icusi evan gueure pecatuac gaitic birrinduric, bururic eta beatzetara zati (atal) osoric ez eucala: eta esan bear izan evan ece, beintzat ac alen eta gaishoen barri ondo ekiala. Eta Isaias-ec ain anchinaric icusi evana, ondo ta ondo, eta ondo bashen obeto yazo zan pasiño santuan. Onen ganean orain artean beré makina bat gauza entzun deustazue, baya alanbere ceuei obeto adietan (ulertuten) emoteco bere aldia eldu-ta escu artean darabilgun gauza au, gogora ecarri gura deutsuedaz Yesucristo-

-ren pasiño gogor orreco neke arrigarri bi, eta oneec dira bere azoteac, eta curutzeco eriotzea.

(137) Ea bada entzula maiteac, errazki orain biotzera eguingo dozuez ceuen indar guztiac, bada edo biotzic izango eztozue edo erdibitu bearco yatzue, ceuen beguien aurrean imintera noyanagaz, beintzat bai Yesucristo-ganaco amodio apurren bat badozue. Goazan bada lenengo Pilatos-en etsera, icusteco an ce aserre, ce barregarri darabilden Yesus laztana. Pilatos bildurtia icaraturic Cristo-ren contra chacur eguinic egozan Yudegüen cemacontzacaz, aguindu evan gueure Yesus biotzeco ori azotetea, ea ecetara bigundu al baleguizan Yudegu gogor orren errai (gogorrac) aserreac. Eta Yudegüen aserre au chitozco aserre gogorra zan leguez, icaragarria zan leguez, alan gura izan evan beré Yesucristo-ri emongo yacazan azoteac guztizco gogor-icaragarriac izan citecen. Esan ta eguin. Ozta ozta (nekez) aotic atera evan Pilatos-ec berba ori eta orra non artuten daveen Yesus borrreru nabarbenac, erantziten deutseez soñecoac billos billosic narru gorrian ichi artean (guiñocoan) lotu, (137) estuten dave sendaro irrimetarra (pillare arri-abe) batera, eta asten yacaz draunba draunba emon ta emon. Baya ¿celan emon bere? Euren indar itzal guztiagaz. Entzuten dan zumenen (mimenen) brrina zoliac bildurtu lei, ugalen eta cordelen brrunberia aserreac icaratu lei, eta azoteen durundio itzalac gogorturic ichi lei. ¡Ay Yesus gaishoaren gorputz biguna, oraingoan beintzat celan gelditu bear dozun! Baltzunac eguin..., araguia anditu..., zauri zaconac idigui..., zanic urratu..., azurrac aguirian imini..., eta gorputz guztia bururic beatzeta lлага luce bat eguinic ichiten deutse. Osticopean dabiltz aragui atalac (zatiac, lurrean eguin da odolezco erreca bat, borrreru tzarrac ecin besoai eraguin deutsee, eta oraindo beré (oraindocoarren) anche dago Yauna azotecada barrien beguira. Cristiñau maiteac, ¿beguiratuco ceunskioe negar bagaric? ¿E-lichakezue erdibituco minen minez biotza Yesus biotzeco laztana alan icusiric? Orain bada eguizue ceuen artean celangoac izango cirean Yesucristo-ren alaac, Espiritu-santu yaunac eguin evan gorputz bigunaren minac alan banatu eta trimindu eveenean. Eta contuac luceac eta zabalac eguin izan dozuezanean, nic esango deusuet ece, ori baño min gueyago emon eutsan beste gauza bat icusi bear izan evala, eta aushe da curutzean untzeacaz yosita iltea.

Yesus maitea curutzean untzeacaz yosita il even. ¡Ay ce laster esaten dan au, baya celango arrigarrizco alaac icusi bearco cituzan yaunac ori eguin eutsenean! Curutzean yosita il... ¿Egon tzare iûos ceuen artean ea cer izan leitekean alan iltea? Anchina ori ascotan icusten tzan gaucea zan, eta aldi ataco yakitunac diûoe ece, ori zala

eriotza gogor guztien artean gogorrena, eta ori baño ascoz beré obea zala surtan erreta iltea beré, lasterrago eguiten tzalaco. Guizon bat escu-oñetatic untzeacaz yosiric dagoana, odola zara zara guelditu bagaric dariona, mementoric mementora argalduaz doyana, dardar icara dabilena eta egarriac ito bear davena, ¿baliteke bera baño gauza errukigarriagoric? Beso bateric ordu betean eskeguiric egotea asco izaten da guizonic gogorrenari eta sorrenari eguia aitortu eraguiteco (erasoteco). Bada ¿cer izango zan escu-onetatic untzeacaz yosiric egotea, eta iru orduan egotea, Yesus laztana biciric egon tzan leguez? Escu-oñetan batuten (batzaiten) dira zan guztia, eta orregaitic escu-oñac dira chitozco minberaac: besoac zabalac (idiguiric) egotea, eta zabalac beré, curutzean bear-dan leguez (138) curutzean yosiric egoteco, da guztiz nekegarria: gorputzaren pisua beti egongo zan untzeen cilloac (zuloac) etenduten eta gordinduten, eta gueroago eta zabalago eguiten; eta orregaitic beti egongo yacon odola urten eta urten, beinberé lotu bagaric. Onetatic etorrico yacon icara bildurgarrizco bat, egarri eta argaltasun guztizco andi bat, eta gorputz guztico ala icaragarriac, ceintzuc gueldi gueldi bicitzea kenduco eutsen curutzean egoan gaishoari. Onelango eriotza gogorra (aserrea) emon izan deutse Yesus gozoari, onen gogor il izan dave Ygcoaren semea.

Niri beguitanduten yat orainche, anche dacusdala curutzean eskeguiric bururic beazetara alde oso bagaric, anchina Isaias-ec icusi evan legueche. Burua dauco arantzaz galduric, gorputz guztia azotetz ebaguiric, eta alde guztietatic odol beroa dariola, arpeguia matrallocoacaz andituric eta baltzituric, miña, ao-sabaya, eta eztarria (samea) egarriac leorturic eta sicuric, eta beaztunez minduric, escu-oñac untzez yosiric. ¿Cer gueyago icusico evan geugaitic Yesus laztangozoac? ¿Baaucó bere gorputz guztian min barri batentzaco lecuren apurric? Ainbestera eldu zan bere nekea ece Yaunac berac, pasiño guztian ez ay bat, ez zotin bat eguin ez evan. Yaun onec, bere burua curutzean alan icusi evanean, asi yacon bere Aita Yaungoicoari esaten: «Ene Ygcoa, ene Ygcoa, ¿cegaitic alan ichi nozu? berba laburrac beintzat, baya alango Yaun paciencia eta bake andicoaren aoan asco baño gueyago esan gura daveenac.

¿Baacutsue orain, neure cristiñauac, baacutsue no'guiño elduten dan Yaungoico maiteac gueuri eracutsi deuscun amodioa? Baacutsue? Gueugaitic guizon eguin tzan, gueugaitic icusi cituzan neke, icerdi eta buruco-ala andiac: gueugaitic ibili zan guztien oñen azpian; gueugaitic eroan (igaro) evan eriotzaric gogorrena. Bai gueugaitic, bere contra ainbeste bider yagui izan garean okerroc gaitic; bere

(139) esanac eguin gura ecic ainbeste bider ibili izan garean mukerroc gaitic ainbeste icusi izan dau ceru-lurraren eguilleac, gueu eguin guinduzan, eta biciric gaucazan Ygcoac. Eta au entzunda, ceuen biotzac ¿eztira bigunduco? Pecatari gaishoac, onenbeste gura izan deutsue Ygcoac, eta ¿ceuec ezteutsazue ari ondo guraco? ¿Eztozue aren esanic eguin guraco? ¿Aren gorrotoan bici guraco dozue? ¿Alan eguiten yaco Ygcoari? ¿Cer da au, neure cristiñauac? ¿nongo zorakeriac artu deutsue burua? Ygcoac ceuei ainbeste amodio eracutsi, eta ¿ceuec salduco dozue arrac yango daveen araguiaren gustu zantar bategaitic? (139) Ygcoac ceuei ainbeste amodio eracutsi, eta ¿ceuec salduco dozue egun bireco baño izango eztirean diruac gaitic? Ygcoac ceuei ainbeste amodio eracutsi, eta ceuec saldu guraco dozue laster ichi bearco dozuen adiskide char batzuc gaitic? Ygcoac ceuec gaitic ainbeste icusi, eta ¿ceuec neke erechico deutsazue bere esana eguiteari? ¿Etzare lotsa bere seme-alaba gazteac Ygcoa ceuei mese-de eguitearren bere amaren eta san Josepe-ren aguindupean esanac ishilic eguiten icusi-ta, ceuec gorasoac ecer esaten deutsuen orduco erremushcadaca, burrufadaaca, carcabu charca aguindua eguin gura ezic (eztozuela) ebilten? ¿Etzare lotsa senar-emazte bake charrecooc, Ygcoa ceuen oneraco ainbeste charkeria eta ainbeste neke bake onean eroaten icusita, ceuec beti alcarren kezcan, beti chacur catuac leguez alcarren aserre gogorrean ibilten? ¿Etzare lotsa cristiñauac icusiric ceuen Ygcoa ishi-ishilic bakean deungaro andiac entzuten, min ala eskergaac icusten, eta eriotza arrigarria igaroten, ceuec deungaroren bat esan daguizuen orduco? chacharkeria apurren bat eguin daguizuen orduco, bengaya, kerellea, demandua gorrotoa, besteric ez erabilten? Ygcoaren Semea gueugaitic alaz eta minez ase ase eguinic, eta loi zantarrac araguiaren atseguintasun cikinez euren buruac asazcatu ecinic. Ygcoaren Semea gueugaitic barau gogorrac, goseac, egarriac icusten: ordi concorrac ardaoz sabelac bete ecinic. Ygcoaren Semea gueuri on eguitearren bicitza necosoa, eta eriotza itzala daroyala: testigu okerrac adiskidea serbidutearren aren damu gorrian aren icen santu lotsa andicoagaz guzurragazco testi-gantza (gaia) gaistoa emoten daveela.

¿Cer da au, neure cristiñaua? ¿Non da gueure aurpeguia? ¿Non da gueure biotza? Ygcoaren Semeac gueure oneraco ainbeste eguin, eta ¿gueuc eztozu aren esanic eguin guraco? Eztot ondo esan. Gueuc gueure pecatuacaz, gueure pecatu anditzarracaz, barrien barri curutzean yosi bearco dogu? Ez, neure biotzeco entzulaac, ez. Amodioari amodioagaz erantzuten yaco: on-erechiari on-erechiagaz, eta ondo-gureari ondo-gureagaz. Eta bada Ygcoaren Semeac ceuec gaitic ainbeste eguin izan dau, ceuec beré aleguinac eguin bear do-

zuez bera ondo servietaco, bere esanac gauza guztietan eguiteco. Au escatuten deusue Yesus maiteac; eta au eguin bear deusazue Yesus maiteari. Eta au eguiteco gogoac artuten badozuez, errazki yoango zare bete betean beragana: berac esan evan bere aotic bera pecatarien billa etorri zala mundu onetara. Yesus gozoac (140) escatuco deutso bere Aitari ceuen pecatuen parcaciñoa. Curutzean min alaz ilten egoala escatu eutsan bera alan imini evenac gaitic: eta orainche gugaitic eguiten dagoala dirauscue San Yoan eta san Paulo apostoluac, eta ez gueure pecatuac gaitic ez ece, baita mundu guzticoac gaiti beré. Ceruan dagoala beré eztau galdu izan Ygcoaren Seme onec lengo guganaco on-erechi eta laztantasun gozoa, eta alanche dirauscu esatera noatzuen urrengo exemplu onec.

(140)

San Carpo izan tzan obispo santu arima-zale, eta bere contura eucazanen ardura andicoa. Yazozan bein, onetarico bat fedebagaco yentil batec engañadu-ta euren fiesta zantarretara eroatea. Araco san Carpo-c ori yakin evanean, su-min andi batec artu evan dana, eta bere artean erreten ebilen euren contra, ez cer esan, ez cer eguin bere ez ekiala. Gaubean gaubean gauberdiric goraco guztia emon eroian oraciñoan, eta gau atan Ygcoari beragan egoan beroric andienagaz escatuten eutsan arren bada, eta arren bada castigadu leguizala gaiskin bi aec, galdu leguizala besteen oneraco bere alango guizon okerr-nabarbenac. Onetan egoan santua ekin ta ekin, bere erechian bear tzana bashen Ygcoari escatuten ez eutsala: baya Yaunac besteric uste evan, eta besteric aguertu eutsan urrengo visiño eta icusgarri onetan. Lur-icara bat izan tzan bera oraciño eguiten egoan lecuan, eta erdiz erdi zabaldu yacazan ceru ederrac eta icusi evan aingueru artean Yesucristo, arguiz eta gloriaz yantziric egoala. Idigui yacon bea beré, eta icusi evan ondo-bagaco cilo eta leza icaragarrizco bat, eta aren ertz ertzean larri egozala yausi aguinean bere pecatari biac, eta leza bee ataric etozan suga eskerga ascoc euren aguin zorrotzacz eta busten luceacaz aleguinac eguiten cituezala biac antza eroateco.

Arguitu yacon orregaz san Carpo-ri biotza eta luce erichola aen yausteari berac beré bultzadaca bota gura cituzan andic beera. Baya orra non icusten daven celan Yesus gozoa ta gozoa eta milla bider gozoa, guizon errucarri orreen larria icusiric, ceruric yazten dan aingueruac lagun dituzala, eta biai escua emon ta kenduten dituzala lezaren munaric. Au eguinda Yesus-ec berac Carpo-ri arpegui artuten deutso dirautsala: ea Carpo emenche nacazu: eta ainbeste suz beteric zagozan ezkeru esetsi eguidazu barriro ta barriro beré. Prest nago beste bein, eta beste milla bider bicitzea emoteco arimaac ceru-

(141) ra eroatea gaitic: eta ori iñoren pecatu bagaric eguin al baledi, atseguintasun andi bat artuco neunke nic orregaz. Eta bada ceuc ainbeste arimeen celo (141) eta egarri eracusten dozu, ea beguira ceuretza-co cein guraago dozun, ala infernuan demoniñoacaz betico erretan egotea, ala ceruan aingueru ederracaz beti beti Ygcoa icustea.

Onelango Yesus-en berba gozoac entzun-da eztira gueure biotzac bere amodioan bigunduco? Eztira urtucó? Bai beintzat: orainche bigundu bear doguz Yesus maitearen oûetan. Yesus laztana, neure biotzeco Yesus gozoa, ¿cec eguin zaituz gueugana orren echuna eta onen urtua? Baya, ¿cec? ¿cer icusi dozu gueugan ceure biotza gueuri onelan emoteco? Eracutsi deusugu gueuc besteric ezpada laburtasuna, chachakeria, eta okerreria? Bada, ¿cec zaucaz gugana ain itsuturic? ¿Cer dirauscuzu? Baya, ¿cer esango deuscuzu? Anchinna israel-darrai esaten ceuntsezanac. «Andra batec aztu lei berac eguiûico seña errukiric ez izateco bere errayetaco umeari? Bada ac aztuco baleu beré, ez nic ceuec. Nic neure escuetan escribiduta zaukeedaz.» Bai Jauna, escuetan escribiduta gaucazuz untzeac eguin eutsuezan zuloacaz, gorputz guztian escribiduta gaucazuz guganaco amodio beroac artu eraguin eutsuzan ainbeste zaurigaz eta orregaitic ecin aztu guiñazuz. Onec eracusten deusazuz ceure Aita eternoari gueugaz bigun eguiteco, eta gueure pecatuen parcaciñoa yadiesteco. Eracutsi eguiozuz arren orainche gueuc, ceu bitarteco iminiric, biotzeco minagaz pecatuen parcaciñoa escatuten deusagun arte onetan.

Aita-eterno, gueugaitic ceure Seme maitea mundu onetara ilteco ordena estuagaz biraldu cenduana, «Ecce homo» ara emen, beguiratu eguiozu ondo celan egon tzan curutzean, gueure pecatuen parcaciñoraco bere bicitzea emon evanean. Beguira, aita, buru arantzaz galdu oneri: beguira aurpegui anditu eta baltzitu oneri: beguira sorbalda zatitu onei: beguira gorputz banatu eta trimindu oneri: beguira escu-oñ untzez yosi onei: beguira albo zulatu eta irigui oneri. Onec guztioce ceuri gueure pecatuen parcaciñoa eske yagotzuz: onen odolac deadar eguiten dau ez gueure contra, ezpada gueure alde. Beronec bici zanean eguin eutsuzan escariac entzun cenduzan bere lotsegaitic: entzun eguizuz orain eguiten deusuzanac beré, eta parcatu eguiguzuz gueure pecatuac. Baya celan entzungo eztozuz ceure Seme laztan onen escariac? ¿Celan ucatuco deuscuzu ceure Seme laztan onec guretzaco escatuten deusuna? Berau seme gozo au gueuri emon ceuscun: ¿celan bada beragaz batera (nastean) emongo ezteuscuzuz ganeco gauza guztia?

2. ATALA

1. YESUCRISTOAREN PASIÑOAREN GANECO SERMOIA⁶⁵

(A, 1-18. or.)

(1) *Opressit me dolor meus...Aperuerunt super me ora sua, et exprobrantes percusserunt maxillam meam, saturati sunt poenis meis. Azpian artu navee alac: idigui dituez nire contra eguiteco euren aoac, ni osticopeian erabilteco matrallan yo nave: aspertu ta asazcatu izan dira neure nekiacaz.*

(1)

Iob c. 16. v.v.8. et 11.

Il da Yesucristo gugaiti: gugaiti il Yesucristo. ¿Ce besteric, bear da, onec berboc esatea, eta santocristo bat beguien aurrian imintia baño Pilatosen beinolaco berbacaz: *Ecce homo*: Cristiñau direanen biotzac damuz, minez, eta atsacabez beteteco ? Bai: ce onegaz gogoac beingoan emongo leuskioe Yaungoicoaren Semea, Trinitade santuco bigarren personea, Aitagaz, eta Espiritu santuagaz Yaungoico bacar bat dana, ceru-lurren eguillea il dala, eta il bere eguin dala, gu bere arerioac adiskide eguiteco beragaz: guri okerroi, galduta guenduan ceruraco bidea emoteco. Emongo leuskioe oraindo eurac dakiezan Yaun orren neke andiac, bada beguiac eracutsico leuskioez buru arantzaz galdua, arpegui matrallacoz baltzitu, ta mallatua, sorbalda azotez apurtuac, escuan unzez yosiac, eta gorputz guztia bururic eta beatzetara birrindua, eta zati osoric baacoa.

Alanche da: baya zuec etzare onenbestegaz aspertuten, eta obeto berotuteco ceuen biotzac, ceatzago entzun guraco cendukez Yesusen neke orreec. Ondo eguinic dago bada, neure entzula onac, eta ori izan da beti guiza-aldi guztietaco cristiñau guztien guraria, eta Elesha ama santeac berac egunocaz iracurri eraguiten deuscu meza santuan, neke onen ganean evangelista santuac escribidu eveena. Eguingo deusuet bada, eta ondo ta ondo gogoti, bada nic neuc, nasan epela izan da beré, neugan icusten dot, anchina san Leon-eciñoana, eztala gauza gozoagoric, ez atseguintasun gueiago emoten davenic, gure Salbatzallearen pasiñoaren ganeco berbetea baño.

⁶⁵ Sermoi hau Arantzazuko artxiboan dago, ohar honekin: «Sermón del Padre Zabala». Beste norbaitek egindako kopia da, eta hutsez betea dago, Zabalaren idazkera gogoan badugu. Hemen huts horiek zuzenduta daude. Zenbait hitzetako ea>ia aldaketa bere horretan utzi dugu. (Ikusi, hala ere, «Lapurquerija» 2. liburukian).

Eta au zuei bear dan argui bidean eguiteco, gogoac emon deust, Yesucristoren aotan imintia, araco Yob santuac burutic eta beatzera zauriz beteric, alde guztietati atsacabez, eta naibacoz inguraturic, eta iñondi bere onic ez eucala, esan bear izan cituzan berba larri oneec: «Azpian artu nave alaac, zabaldu dituez nire contra euren aoac, eta ni ostico pean erabilteco matrallan yo nave: aspertu ta asazcatu izan dira niri emonico nekiacaz.» Bai beintzat, oneec berboc Yesucristoc bere pasiño aldian Yob santuac baño ascoz ta ascoz, eta milla bidar ascoz obeto esan eukezan, bada ordu onetan bere iñon dirian nekeac uriolatu dave, eta ez celan-naico nekeac, ezpabere beragaitic aspal-dico urteetan esanic egoana, infernuco nekeac: osticopean, ta zatz eguinic erabili dave, guizona ez, eta lureco ar-tzantar bat balitzan legueche, eta azquenean alango yoteac, alango zauriac, alango desgarrioac eguin izan deutsez ece, beragaiti esan bear da Isaias Profeteac anchinaric esanic eucana, burutic eta beatzetara ez eucala atal ororic, ez urraturic, ez eucan zatiric.

(2) Aushe zuei eracustea da nic neure buruari emoten deustadan gaurco gosheraco arloa ta sailla. Eta pasiñoric gueiengan, eta guztiz bere atsenengo neketan, (2) guztiac erabatera aguiari badira bere, orregaiti alde batzuetan batzuc, beste batzuetan beste batzuc argui-roago icusten dira, eta beragaiti iru zati egingo dot Yesucristoren pasiño ori. Lenengoan eracutsico deustuet, cé itzalac, eta ceinda gueiagocoac izan cirean Yaun onec Gesemanico ortuan icusi bear izan cituzan biotzeco min-alaac. Bigarrenac artuco dau andic eta azoteac artu bear arteco guztia, eta berean icusico dozue Yaungoicoa zatz eguinic guztien oñ azpian. Eta irugarrenian entzungo deustazue enparaduan Yaun berac irago cituzan gorputzeco ala icaragarri lotsagarriacoac. Orregaz eroan-garriago eguingo yacu zuei eta niri, lucsheago izan doian pasiñoco sermoia, eta ichi aldietan arnasa apur bat, eta indar barriac artuco doguz, nic esateco, eta zuec enzuteco, esan ta entzun bear direan ainbeste gauza. Barriz bitartean ecin esan bagaric ichi neikezue, Yesucristoren pasiñoa entzutean, bigundu bear yatzuezala biotzac: baya bigundu, pecatuen damutasuna, ta garbaia izateco, eta gueiago ez eguiteco, goguac artuteco. Bada, ¿cetaraco izango da Yaunaren pasiño ori entzut-orduan erraiac samurtutea, eta gura badozue apurtutea, eta guero lengo pecatari guelditutea? Yerusalengo andra batzui esan eutsena: «ez niri negarric eguin, eta bai zuen buruai, eta zuen umeai; bada oneec zugatz (arbola) eceagaz eguiten badira, egur igarracaz cer eguingo dira?»

Baya ezteutsazue orreri beré asco erechi bear, ezpada ce, icusiric, celan Yesucristoc Aitaren esana eguitea-gaitic, poza alde batera ichi, lotsariari echaramon eguin-da, bakean eroan izan evan, gaisto oker

batzuc eracutsi eutsen alango pasiño garratza, alanche zuec bere Yangoicoaren vorondatea eguitearren, penitenciazco bici-modu bat eguin bear dozue, munduco zorakeri, poz zoro, ta atseguin guztietati albora eguiten dozuela (aldenduten zareela) ceuen buruai nekegarria, ala ta damuaria emoten deutzazuela, eta ezta munduagaiti beré pecatu eguiten eztozuela. Aushe adierazo (ulertu eraguin) gura izan euscun Yaunac berac esan evanean: «neure atzean etorri gura dave-nac, artu bere curutzea, eta yarraitu beguit.» Eta san Pedroc dirautsue: «Cristo il tzan gugaiti, guri bidea eracusten euscula, bere oñatzai (lorrotzai) yarraitu daguiozuentzat. Aushe da Yesus laztanaren pasiño garratza gogoan erabilteco modu egokia, ta mesedegarria.

Eta Yaunari ondo erechico yacon moduan eguiteco, echun gaitetzan orain bere Ama Virgíña Maria-ren oñetan, eta esca gaguiozan arren bada yadietsi deigula, guc orretaraco bear doguzan laguntasunac. ¡O Ama biotzeco gozoa! inoc eztaki zuc bashen ondo cerzuc eta celangoac icusi cituzan ceure Seme laztanac. Ceuc, andrea, ceuc icusi cenduan, celan egoan curutzean eskeguiric, alde guztietatic min alaaaz, atsacabez, ta naibaguez inguraturic eta urjolaturic. Orduco eta pasiño guztico Ama Semeen nekeacgaiti, arren izan zakiguz Yaungoicoaren aurrean bitarteco, bitzuen Seme orren pasiño garratza au bear dan leguez orain gogoan erabilteco, berataric guero bear dogun arimaco onurea aterateco. Mesede au escatuten deutzagu biotz biotzeti, eta orretaraco guztioac esaten deutzugu: Ave Maria.

Lenengo Zatia

Eldu zanean Yaungoicoaren Semeac bere bicitzea guizonen oneraco emon bear evan aldia, yoan zan Yaun andi au, Apostoluac lagun cituzala, Gesemanico (3) ortura. Emen san Pedro, Santiago, ta san Yoän-egaz besteac-ganic alde eguinda, beinguan artuten dau Yauna bildur icaragarrizco batec, ilun ilun eguiten yaco biotza, eta eztacus iñondi beré, atseguin apur bat emon leikion gauzaric. Dirautse bada onei: «gutziz ilun daucat biotza: zagoce emen oraciño guñan, tentaciñoan ez yausteco.» Eta puscachu bat aldendu ta, belanico yarriric, asten da bere Aitari escaari au eguiten: «Aita, ecetara albada, eztaguidan nic edan caliz au: baya ori ecin bada, eguin bedi zuc gura dozuna.»

(3)

¡Ay ene Cristiñauac, aushe gogoan artuten dodanean, beingoanche gogoac emon daroat: ¿Cer da au, edo cer dau Cristoc, onelan bildurtuteco, eta biotza onen yausi izateco, bere il bearra beguien aurrean dacusanean? ¿Ezta Yaun au orain artean esaten izan dabe-

na bera, estu bai estu dagoala, eta luce derichola egun au eldu artean? ¿Ezta berau beti eriotza ta pasiño au gora eta bera erabili bear izan dabena, berau balitzan leguez mundu onetan atseguin gueiago emoten deutsan gaucea? Cec bada, cec, orain onen larri ta icara eguiten dau. ¿Cegaiti ilunduten yaco ainbeste biotza? ¿Ete da ilteco beldurrez? ¿ete da iya ganean dacusazan neke ta ala gogorren itzalez?

¿Cer izango da, neure entzula onac? Yesucristo gure Yauna, Yaungoicoa bazan beré, zan orregaiti gu lango guizon egin eguina; berac ondo ta ondo daqui cerzuc eta celango icaragarriac icusi bear dituzan; eldu yaco orretaraco aldia: iya dacusaz bere ganean, eta eztau galarazo gura izan, onelangoac guizonai eguin daroaken eraso. Baita barriz icusi izan da, eta ez bein, eriotzaco sententia iracurrita, buru guztia urdinduten, odolez icerdituten, il aguinian, baita ilic bertanche beste bagaric gueldituten. Eta dana dala, beti izan doa eguia, san Gregorio andiac dinoana ece, oraño neke gueiago emon daroakela guizonari, ganean dacusden eriotzeac, ilteac berac baño.

Yesucristoc icusten evan, gau atan berean asita, biaramon (biarume) arratsalde erdira artean eroan bearco zituzan nekeac: ¿baya celango nekeac? Ez beracautaco nekeac, ez alboric araco ala arinen batzuc: ezpada neke gogorrac, neke itzalac, ecin gueiagoco nekeac. Eta icusten etzituzan bestiac oi dogun leguez, albastean, erdi icusian ta nasteen leguez; ezpabere ceatz, arguiro, eta bacochoa berez. Anche dacusaz bere contra atzeac eta oratuac, aide nagusiac, Elesh-guizonac, errico aguintariac, eta Erregue guiñoacoac. Anche dacus, celan bere escolaco batec saldu bear daben: celan beste bat lotsatuco dan bera maisua davela autortuten; eta celan besteac, bera bacar bacarric ichita, igues eguingo deutsen. Danzuz erneco deutsezan guzurrac eta emongo deutsezan iraunac: bere ganean asmetan dituz artu bearco dituzan otzac, azotiac, arantzaac, untze gogorrac, eta curutze itzala. Berba baten, guero bana banacean icusi bearco dituzan guztiac, anche erabatera, ta arguiro arguiro beguien aurrean iminten yacaz: eta esan guiñaike ece, orduanche icusi bear izan cituzala alde batera, guero bein banan eroango cituzanac. Eta bacochoac ainbeste cer icusi beucan, cer izango zan, guztiac erabatera bere ganean yausi cireanean? ¡Ay! Orduan esan eukian nonbait David-ec bashen obeto, eriotza-minac, infernuco alaac alde guztietatic (inguratu) erdian artu nave.

- (4) Eta arren bada orrec baño besteric izan ezpaleu: gach-erdi baño etzan izango orduan. Baya ¡Ay! orrec eta orrec, gueiago eta ascoz bere gueiago icusi bear izan evan; edo obeto esateco, orrec besten aldean ecer eztira. Gueiago, esango dozue, gueiago? ¿eta

orren parean ain andiac? ¿Certzuc guero? ¡Ay! bai, izan cituzan orrec baño min gueiago emon eutsen gauza bi, eta oneec dira, icustea munduan Yaungoicoaren contra eguin eta eguingo cirean pecatu guztiac, eta ainbeste ta ainbeste betico infernura galdu bearra.

Yaungoicoac biraldu (aguindu) evan Yesucristo, munduco pecatuen zorrac bere eriotzeagaz ateratera. Orretaraco bere lepora ezarten deutzaz gure guztioen okerreri ac eta pecatuac, eta guztien zorkide bera eguiten dau, berberac guztiac eguin bailituzan leguez. Eta yakin leguiantzat certzucac zan zordun, eta ceen contu luceac garbitu bearko cituzan dan-danac (direan direanac) beguien aurrean iminten deutzaz. Ez ezteutzaz Yesus laztanari eracusten Ezekiel-eri leguez, bacarric Israel-eco aldi ataco nagusien okerreria icaragarriac, ez: eracusten deutzaz arguiro arguiro, ta bein banan aldi guztietan mundu zabalean icusi, ta icusico direan pecatu eskerga tzarrac.

¡Ay celango pecatu errencada lucea, ce okerreria itzalac icusi bear izan cituzan ordu atan Yesus gozoac guztiacaz errudun bere burua eguiten evala! ¡Ceinbat eregia deunga! ¡Ceinbat Yangoicoaren contraco lotsagalduco berba! ¡Ceinbat yuramentu oker iñoren caltean, edo ainbagan eguinac! ¡Ceinbat lotsa char, ta gogorkeria gurasoai, ta nagusiai eracutsiac! Icusten dituz mundu zabaleti anchina seigarrenecoan araguiz, escuz, berbaz, gogoz alde ascotara eguingo direan ainbeste ta ainbeste pecatu icaragarri: icusten dituz lapurretac, bestiai ernerico guzurto tzarrac, eta Yangoicoac dakizan osterantzeco pecatu eskergac: eta icusten dituz direanoc euren ezain ta itzal guztiagaz, orduanche bere beguien aurrean eguingo balira legueche. Eta ezta ori guztia: ezpada ce, dacus bere burua pecatu onen guztionen errudun andi: ce Isaias-ec diñoan leguez, Aitac bere ganean ezarri cituzan gure guztioen okerreri ac eta pecatuac. Gure guztioen pecatuac, bai, zuenac beré, neure Cristiñauac, zuenac beré. Ceuec pecatu eguiten dozuen orduan, ondo azturic, eta atzera botaric izaten dozue: baya Yaunac ortuan beguien aurrean [eukazan] zuen okerreria guztiac.

Ara emen, nire entzula onac, Yesus gozoari biotzean damu, min, ta lotsa icaragarrizcoa emon bear izan eutsana. Zan Yesucristo Yaungoicoaren Seme laztana: maite evan inoc ez leguez Aita, eta eucan bere biotza agana echunic, eta urturic. Ondo ekian ceta-guiño elduten dan pecatuaren okerreria itzala, eta celango bidegabe eskergea eguiten yacan Yaunari, pecatu eguiten dan baco chian. ¿Cer eguingo evan bada, icusten evanean ainbeste pecatu ta ain andi tzarrac eguin, ta eguingo cirela? ¿Celango min andiac artuco ez eutsan biotza? Beste aldi baten cordel batzucac azotea lango bat eguin-da, saltzallaac Yerusalengo Eleshati canpora bota cituzanean, esan bear

(5) izan evan san Yoän-ec ece, bere Aitaren etsea lotsa onean icusteco eucan garrac, Yaun oneri erraiac guztiac yan eutsazala. ¿Cer eguingo eutsan Aitaganaco gar orrec, Aita ori onenbeste pecatu eskerga tza-rregaz osticopean zatz eguinic icusten evanian? Erre eguingo eutsazan? ¿Urtu? ¿Deseguin ta ecereztu? ¡Ay cristiñauac! Guc (5) beco-rrroc, guc Yaugoicoanaco epeloc, edo obeto esateco guc argui-baaco itsuoc eztakigu ondo, celango nabarben acia dan pecatua, eztazaugu, cé bide baaco andia eguiten yacan Yaungoicoari; eta bear bada argaltasuna dala, gazte-zaroac dacarrena dala, cera dala, achakia billa ibili goaz gure pecatuac edertuteco, edo ameneco (bear bada) ecer eztireala gueure buruari, ta bestiai iruditeco: eta orregaiti ecin eguin dogu, cetara guñoco mina artuco evan Yesucristoren biotzac, munduco pecatuen pillo eskerga tzarra ain arguiro icusita. Baya esan bear dogu, alanche da eta, munduan bestec eztabela alangoric izan bere gurasoari, eta oratuai, edo berari, edo Yaungoicoari eguin izan deutsezan bide baga, nabarbetasun, calte, ta okerreri-ac-gaiti. Alan, eztira aotan bere artutecoac ez David-ec Yaungoicoaren contraco okerkeriac-gaiti izan evan min-ala, ez Elias-ec Yangoico guzurrez-coai legue gaistoa Israel-go errietaric garbituteco, eracutsi evan garramore, ta egarri errea, ez Yeremias-ec Yerusalengo pecatuac gaiti artu evan damua, eta eguin cituzan negar saminac. Eta au da alde bateti.

Baya besteti, ¿cer irago bearco evan Yaunaren arima gaishoac, icusten evanean bere burua ainbeste pecatu, ta ain icaragarrien azpian, eta bera guztien yaube? ¿Cer, icusten evanean ataric bere gamera etorrela bere Aitaren aserre gogor guztia, eta arerio gorrotogarrria leguez aserre artu, eta onec erabili bear ebala? Ay! Pecatariari berac eguinico pecatu uts utsac, cer-eguin andia, ta lan gogorra emongo deutse, eta onenbestecoa izango da Judicioco egun icaragarrian euren pisua ece, betico yausico dira, gueiago indar bagaric. ¿Cer egingo eutsen bada Yesus gozoari bere bizcarrean cituzanac ez guizon batenac, ez bienac, ez millenac, ez milla milloenac ezpada mundu guzticoenac: eta ez guizaldi bat, edo bicoenac, ezpada mundua danic eta izango dan arteco guztienac?

Cegaitic ece Yaun biotzecoac eztaucaz ganean bacarric David-ec leguez seigarreneco eten bat, eta eriotza gaisto bat, beti beguien aurrean erabili bearco cituzanac: ez san Pedro-c leguez, maisua ucatua, guzurrezco yuramentuac; eta arrenezco birao okerrac eguina, negar garratz ta zoli eraguiteco: ezta Manases-ec leguez alde ascotara berac eguin, eta bestiai eraguin eutsezan pecatu icaragarritzco eskergac; euren penitencia eguin bear izateco: ez beintzat, ez: Yesus biotzecoac, berac garauric eguin ezpadau beré, bere lepoan dacusaz mun-

duan izan direan, ta izango direan dan danac, coscolic beré atera бага, euren ezaintasun, eskergetasun ta itzal guztiagaz: dacus euren contra Yaungoicoac daucan sua, ta aserre erria: dacus euren zor guztia pasiño garratzagaz, eta eriotza cruelagaz aterateco arduria.

¡Ay Yesus laztana! Eta celan zacusdazan besteen pecatuacaz guztiori loituric, ta cikinduric. Edo san Paulo-c leguez berba eguiteco, ¡celan zagozan, zuc pecatu eguin ezta, zu ceu pecatu eguinic! Baya eta ¿cer eguiteco? Ceure irudia san Yacob-eri bere amac estaldu eutsazan (sama) idun-escuac aumeen narru ulletzuacaz, Aitaren (bendiciñoa) bedeincaciñoa atrapetaco. Ceure icena (ucena) eucan Yesus Sacerdotea Zacarias Profeta santuac icusi evan soñeco zantarrrez, Aingueruaren aurrean egoala; baya aingueru orrec aguindu-ta bertati (berbelan) yantzi eutsezan soñeco ederrac; eta garbitu, euki eukian gaistakeria guztia. Baya ¿Zuri? (6) Zuri yantzi deutsuz Aitac munduco okerreria guztiac, zu bein madaricatuteco, edo zu ceu madaricaciñoa bera eguiteco: eta ezteutsuz erantzico (erontzico) aric-eta curutze baten ilic icusi artean. Ceuc, bai, ceuc esan ciñaike oraindo Yob santuac baño obeto: «ene berba guztiai mina darie, ce Yaungoicoaren saguitac nigan dira, eta euren aserre gogorrac gogo guztia[c] daroaz, eta Yaunaren itzal bildurgarriac ene contra yaguita dagoz».

(6)

Cristiñauac, ¿Cer da au? ¿Gure pecatuacaz onenbestean larritu izan dogu Yaungoicoaren Seme laztana? Baya ¿guc, bere escuti ainbeste mesede eder artu izan dogun gueuc? Nora beguira egon gara ori eguiteco? ¡Ay ze itsuac, eta eskergalducoac ibili izan garian! Arpeguia yausi bear lichakegu, eta biotza erdibitu ori eguin izan dogulaco. Baya, eta... Eta... Icusi cituzan Yesucristoc gure pecatuac: icusi guinduzan pecatari? Baya; icusi ete guinduzan betico infernuan galduac? Ay! Eztakit nic: bildur izatecoa bada, gueure arteco batzuc batzuc icusico cituzala. Bein-danic bein icusi cituzan asco ta asco, eta munduco gueienac, infernu gogor itzal orretan betico galdu bearco cireala, eta aushe izan zan Yesus maitea larritu evan irugarren gaucea: eta larritu bere larritu bear. Enzun, ta icusico dozue.

Guizon-ematicumeac pecatu-pean galduric, eta galdu bearrez icusteac biotza yota, yatzi zan Yauna ceruric eta lurrera: orretaraco izan tzan guizon eguitea: orretaraco orain artian bere bici necosoan icusi izan dituzan goseac, egarriac, ibilteac, icerdiac, eta bestiac, eta orain icusi bear dau pasiño gogorra, eta eriotza aserrea. Eta alanda guzti, ¿Cer da dacusana? ¡Ay ene! Negar bagaric esan bere ecin dana. Guizon oneec ain nekez erosiac, bere odolagaz garbituac, gueienac galduco direala. Bai gueienac, Cristiñauen artecoac bere, san Agustín-ec, san Gregorioc, san Yoan Crisostomoc, eta beste ascoc diraus-

cueneti. ¡Ay ceinbat gure arteco icusico cituzan bear bada infernura-co guintzala! ¿Eta onec ez eutsan min emongo? ¿Ez eutsan biotza apurtu bear ain gora erosi cituzan arimac galdu bearrac? Ez euan onen laztan David-ec bere seme Absalon: ez euan bere odolagaz erosi; eta alanbere yakin evanian seme ori il ta galdu eutsela, minen andiz burura eraguin balichacon leguez, asi zan deadar bai deadar: «Ene seme Absalon, Absalon ene seme! Ay eta noc emon leikedan neu zure lecuan zugaiti iltea, Absalon ene seme, ene seme Absalon». Onenbeste eraguin leio gurasoari umea-ganaco on erechi andiac. ¿Cer eguingo eutsan bada Yaungoicoaren Semeari berac bere odolagaz erosico cituzan arimaac-ganacoac?

(7) ¡Ay! Esango eutsan Aitari, *In vacuum laboravi*. Yauna, ¿cer da au? Zuc eguin nozu ceure mandatari, guizonen artean ceure icena ta ondrea zabalduteco. Nic aleguinac, eta ecin eguinac eguin dodaz. Baya, eta ¿cetaraco? Alperric bearra eguin dot; utsean ta ecer ecian eracutsi izan dodaz nic neure indarrac. ¿Cer Yauna? Nic ainbeste lan, ainbeste buruco ala (min) eta ainbeste neke guizonai pecatua galarazoteco, eta ¿oneec leengo gaistoac? Nic pasiño garratza, nic eriotza icaragarria, guizonac ceruan betico zorionecoac eguiteco, eta oneec ¿Betico infernuan galduco? *In vacuum laboravi*. Aita, *si possibile est transeat a me calix iste*. Ecelan albada, kendu eguidazu one-lango edaari mina edan bearra. Baya, Yauna, zuc dakizu ondo cer eguin bear dan: eta eguin bedi zuc gura (7) dozuna eta ez nic nai neunkeana.

Onec iru gauzoc, bada, berac icusi bearco cituzan nekeac, guizonen pecatuac, eta onen galdu bearrac estututa larritu even ecin esan guñocoan Yesus laztanaren biotz andia. Beguira, celan dagoan be-launico, lurrean auzpaz, becokiz echunic, iru ordu osoetan Aitari escariac eguiten: gueroago ta larriago eguiten da: eta agonia icaragarri baten sarturic, zara zara dario lurrera-guino alde guztietati odol tantazco icerdi labana. Aitac orren larri Semea icusita, Aingueru bat biralдутен (botetan) deutso biotz puscachu bat emoteco.

Yangoico andia, ceinen beguietan mundu guztia, ta berean dagozan gauzac iñurri bacar bat alaguiña bere eztirian: ¿Cer da au? ¿Cer da ene beguiac dacusdena? ¿Celan dagoz ceure soñecoac odolez gorrituric? Guero azoteac, arantzac, eta untzeac ebagui edo cilloac eguin daguizezarian, orduan bai, baakit nic cec eguin izan deusun. Baya ¿orain? Orain iñoc ucutu bere bagaric ¿noc edo cec? ¡Ay bada! Cer izango da? Larriac, bai, larriac, estutasunac, biotzeco ala (itzalac) icaragarriac emon eraguin deutse alango icerdi arrigarria. Eta gu onezkero ¿izango gara leengo deungac? Onenbesteco larrira eldu, araco Yaun andia, ceinen ucutza (ukiera, ucutu) bacar bat asco zan

gaishoac osatuteco, cadenac indartuteco (gogortuteco), itzuac arguituteco, eta ilac biztuteco. Onembestera eldu da Yaungoicoaren Semea, Aitagaz ta Espiritu santuagaz Yangoico bat dana: eta gu onez-kero lengo okerrac? Esango dau gu-gaiti anchina beste batzuc-gaiti Ezekiel-en aoti ciñoana: «nekearen andiz icerdia emon izan da: baya orregaiti ecin garbitu izan yake uguerra? Zure loiac loi guztizco okerrac, eta gorrotogarriac dira: garbitu gura izan zaitudaz; baya ceu leengo cikina gelditu zara.

¿Cer? Yesucristo larriaren larriz odolez icerdituten, eta ¿Cristiñauac seigarreneco atseguin loiac euren buruai emon ecinic? Yesucristo estuaren andiz odola izerdi dariola, eta ¿cristiñauac yan-edanetan, eta ordikerietan? ¿Eta onec dira cristiñauac, Cristoren guizonac edo emacumiac? Ez, eztira Cristoren lotsagarriac, eta lotsagarriac baño. Pecataria, zariana zariala, alan baderichazu, ondo, aurrera eroaizuz zure pecatuac: esaiozu Yesucristori, zure eguiteacaz beinic bein: macurtu adi; auzpaz yarri adi, gu igaroteco. Orain Yaun onec zugaiti edan bearco dau Yaungoicoaren aserrearen edari samina: baya etorrigo yatzu ceure elorrio, eta orduan ceuri beré Yangoicoac iminico deutsu edari min ori, eta infernuan betico edaten egon bearco dozu. Baya ez, cristiñaua; Yesus gozoaren nekeac bigundu bear tzaituez, eta bere ortuco larriac erasoren bat eguin badeutsue, entzuzuz orain, icusi bear izan cituzan lotsariac ea orregaz bigundu albacintekez. Eta onec esatera noa orain, esango dodan bigarren zatian.

Bigarren zatia.

Guztai gogor eresten yake iñoren osticopean ibili bearra. Gais-toac ecin eroan izaten dabe: onac nekez, eta batzuetan erraiac ichi ez-ta, arbindu eguiten direala: eta Yaungoicozco andia bear da bakean ta onean eroateco, eta orduan beré ez biotzac min eta min andia artuten eztabelaco, ezpada min ori barruan itotera, eta Yauna-gaiti, bengairic opabagaric, iragotera eguiten dalaco. Baya, ¿cer diñot nic osticopean ibili? Bateri zor yacan, edo berari derichon lotsea ez yagoteac bere cereguin, icusikizun latza ecarri daroio. Aman Asuero Erreguiaren adiskide cutunac utsa ta ecerbereza (arean-eza) eguiten cituzan bere ondasun, zorion, ta anditasun guztia, Mardoqueo, besteac leguez, bera igarot-orduan, belaunico yarten (paretan) echacolaco.

Alde onetati andiac, eta chitozco (8) andiac izan cirean Yesus Yaungoicoaren Semeac icusi cituzanac, eta ain andiac ece, san Pau-

(8)

lo-c Hebreo-tarrai, curutzeaz ostean, aushe baño besteric aitaturen ezteutse. Guztiac Yesus laztana, guztiac osticopean, guizonic satzena leguez, erabili bear izan even. Guztiac bai, bere escolacoac, elesh-guizonac, aguintariac, andikiac, erri guztiac oñ azpian, sorkia leguez, darabilde. ¡Ay ondo icusi evan Isaias-ec, guizonic satzena eguinic, eta inoc-pere yaramon (eramon) gura ez eutsala: ondo esan evan Yermias-ec, iraunez ase ase eguingo eveela.

Lenengo bere escolacoac oñen azpian darabilde. Batac salduten dau, bestiac ucatuten dau, bestiac igues eguiten deutse. Yudas-ec, Yesus onac, mundu gaistoric aterata, bere Apostolu andi eguin evanac: Yudas-ec Yesusegaz bici, mai baten yan, ta beti beragaz, bere barru guztia zabalduten eutsala, bici zanic: Yudas onec bada salduten deutse Yesus ori bere arerio okerrai; ilteco ebilcozan arerioai. ¡O ce lotsakizuna maisuarentzaco, bere escolaric, eta bere etse barruric alango guizon dollorgaldua, alango billaukeria eguingo evana urten bearra! Cleitu ona zabalduco yacan beintzat, ori guztien belarrietara zabaldu zanean!

Baya eta ¿celan saldu evan? Eguizue zuen artean, celan saldu leitekian zamea baño balio eztaben gauea, eta ezterichat, asco esan izango dozuela. Ara entzun. Bayoake Yudas danori, Yesucristo iltea, ya erabagui even elesh-guizonen nagusiái, eta dirautse: «cer emon gura deustazue, eta nic iminico deustuet escuetan?» Besteac aguinduten (eskiniten, opa) deutsez ogueta amar urrezco (cidarrezco) diru, eta onenbestegaz bardinduten dira. Cristinauac, ceuen arteco ceinec saltzen dau onelan beia, aaria, edo olloa? Baya ¿ce bei, ce aari, ce ollo? Arrautza bat, sagar bi, zamea (zamarra) salduteco bada, eztabilzaz saltzallac eta eroslaac, ceinec pizca bat bera beré malla bat botaco daven? Baya Yudas-ec Yangoicoaren Semea salduteco? Ceinbat emoten deustazue, eta nic zuen escuetan iminico deustuet? Eta lenengo berbaan bardindu: eta nago ce oguei, edo amar diru opa (eskini) izan baleutse, beste ainbeste eguingo evala. Ez evan nonbaitabere alan salduco, Magdaleniac Yesucristoren burua ta oñac igozten emon evan ubientu usaintzua, eta irureun diru eguingo leukiala, berac esan evana. Baya ¿celan izango da? Yesucristo ezta Yudas-entzat ubientua, ezta onago bere; edo obeto esateco, ubientuaren parean zamea da, eta zamea baño guichiago. Onen guichi eguiten dau guizon gaisto onec Yangoicoaren Seme laztana.

¡O Yangoico andia, ceru-lurren eguillea ta yaubea, eta ceñenac direan urre-gorri guztiac! Urteac dira Zacarias, zure Profeta santuaren bitartez saltzai lotsarizco onen mina eracutsi cenduala, esanic: «neure igartzallaac ogueta amar (cidarrezco) diru eguin nave. Precioaren bizarra! (Alaroco). Bestelaco precioa beintzat! Baya ¡jay!

Yudas zure barri iñoc (izateco) yakiteco yakin bear evanac, ezta orrenbeste bere eguin etzaituz. Nonbait arentzat caltegarrizco matoratzuren bat izan bear dozu, edocegan munduric garbituco zaituezanai, saltzen zaituezanean. Eta aushe izan tzan Yesucristoren saltzaiera lotsagarria: baya bera emotea, etzan izan obea.

Arturic Yudas-ec guizon pillo (aldra) andi bat lagun euren ezpata ta egurrac-az (makillacaz) bator ortura gaisto baten billa baletorren legueche. Onei dirautse: «ara nic mosu emongo deusadana, orishe dozue, zuec bear dozuena; oratu bada, eta contuz ondo ondo lotuta ecarri». Aurreratuten yake, bada, lagunai, eta elduric Yesus Yaungoico, eta guizon eguiazcoa egoan lecura... (9) O Aingueru santuac, Yaunaren aurpeguia icusteco garrez beti zagozeenoc, estaldu eguizuez orain zuen beguiac, ez icusteco Yudas-ec eguin bear davena. Elduric bada dollor cital au Yesus gozoa egoan lecura, alde aetati adiskideac alcar icustean, eguin eroaken agurra eguiteco leguez, mosuan laztan eguiten deutso, dirautsala: «Agur maisua.»

(9)

¿Ce okerrago, ce dollorrigo ta nabarbenago eguin eukean Yudas-ec? ¿Etzan ori mundu guztiari esatea leguez, etzala Yesucristo, berac esaten evan Yaungoicoaren Semea: Bere milagroac, eta arteco (arte ataco) gauza arrigarrriac guzurrac, diabruen lanac, eta irudi utsac, besteric etzireala: guizon oker bat, bici bere bear ez eban deunga bat zala? ¿Etzan Yaunari berari, au guztiau mosuan esatia leguez? ¿Ez cirautsan Yudas-ec bere eguinagaz, baita ondo arguiro: ic esan doc Yangoicoaren Seme asala i: guzurra doc ori. Ic esan deustac, baakiala ic, ni cetan nayabilen: echoat nic ire arduraric. Orche yaiozac, iri eracutsico deuenac? ¿Eta au escolacoac maisuari, mendecoac ugazabari, mesedetuac mesedeguileari, Apostoluac Yangoicoari? ¿ta Yangoicoari beré bere arpeguian? ¡O esker-galdua! ¡O nabarbenkeria munduan iños izan bada! Nago ce, Yesus-eri bere pasiño guztian ez eutsala bestec ainbeste min emon.

Baita arren, bada, berau bacarra balitz bere escolacoen artean Yesus laztana lotsatu bear dabena! Baya ¡ay! San Pedroc beste alde bateti, okerrez ez, baya argalez, cleitu charra eta lotsatuteco bide andia eracutsi eutsan. Ara celan. Euken Yesucristo gaiskin oker bat leguez esturic Yuesen aurrean, carguac eguiten: ebilcozan achakiac asmetan ibili ta ibili, eguin eutsen leguez, curutzean bicitzea kenduteco. San Pedro anche inguruan ebilen, icusteco, ea cetan yoten eban bere Maisuaren gauza (contu) onec. Onetan bertaco nesca batzuc, eta an egozan beste batzuc, dirautse iru bidarreco aldiz iraunez, ta destañez leguez: «Zu bere, bada, orren discipuluen artecoa zara, ce berbeac esaten deutso Galile-arra zareala.»

Lotsatu zan betico san Pedro, au entzunda, eta asi zan Yaungoicoac obea, ezetzca bai, ezezca, yuramentuca, eta bere buruaren con-

tra biraoca, ta arrenca; berac ez eucala agaz cer eguinic: nor zan beré berac ez ekiala. Ea ¿cer derichazue, celango lotsarikizun gogorra izango etzan Yesus laztanarenzat bere bigarren Apostolu batec alan ucatu bearra? Alanche ezagutu evan san Pedroc berac; eta ollarrac bigarrenez yo evan soñua entzun, eta Yesus gozoac egoan lecuric beguiratuta, conturatu zanean, belan urten lecu ataric, eta asi zan negar ta negar, damuaren andiz biotza apurtu bear yacola. Baya eguina eguin, eta san Pedroc Yesucristos atz eguin evan.

Eta alan eguiten badeutse bere escolacoac: ¿cer eguingo deutse atzeac? Yarrantu dayogun gueure maisuari, baya ez bera lotsatuteco, ez gueure pecatuacaz bera ucatuteco; ezpada icusteco, ce barregarri, ta lotsa gorrian (charrean) darabilden. Ozta ezagutu even Yudas-egaz yoazanac Yesus ona, eta orra otso amurratu oneec esesten deutesen pecatuac kentzen dituzan bildots oneri, eta lapurra ta gaiskilla galdua bailitzan legueche oratu, estu, ta Yuecen aurrera daroe. Bada Yaungoicoaren Seme au, ceñeri Aita eternoac emonic deutsan guizonai contu artu, ta sententia emoteco escu (escurantza, escuicuna) guztia: ceinen aurrean icaraz dagozan Aingueruac, itzalaren andiz euren arpeguiac estaliric, daroe oker deunguetzat guizon Yuez okerraren aurrera. Eta asco ezpalitzan leguez (10) baten aurrera eroatea, darabilde oker baten etseric beste okerrago batenera; Anas-eneric Caifas-enera, Caifas-eneric Pilatos-enera, Pilatos-eneric Herodes-enera, oneric ostera Pilatos-egana. Beguira, celan dagoan santua, errubacoa, eguño pecaturic eguin ez evana, esturic, loturic, ishi-shilic, arpeguia yausi yausi eguinic, eta lotsea dariola: berba baten, gaiskilla oker eguinic. Non-gura milla guzur ernetan deutsez, non gura milla bidebaaco, ta lotsakizun eracusten deutsez; non-gura satz eguinic osticopean dandarrez darabilde.

Eta elesh-guizonetaric asten gareala, sartu gaitezcan Anas, ta Caifasenean. Aitaguiñarraba, eta suiñ oneec cirean Pontifice nagusiac, contu eguizu gaurco egunian Aita-santu Erromacoa legueche; Anas leen izana, eta Caifas aldi atacoa, eta bitzuen etsera eroana izan tzan Yesucristo. Anas Pontificeac bada, bere aurrean icusi evanian Yauna, asi yacon itanduten bere escolacoac-gaiti, eta iracatsi cituzan gauzac gaiti (gaucen ganean) Yesus-ec bigun bigun erantzun eutsan: «nic beti aguirian berba eguiten izan dot; sinagogan ta eleshan, Yudegu guztiac batzandu oi direan lecuetan; eta e-nas ni eguño bere ibili basterretati ecer esaten. ¿Cer itanduten deustazu bada niri? Itandu eikiezu entzun deustenai; eurac dakie ondo, cer esan deutse-dan.»

Orduan bertaco otsein morroscos tzar lotsa galduco batec Pontificearen aurrean, eta guztien aurrean, alango guizonari eguiten yaka-

nean, eceri beguiratu bear ezpailichacon leguez, besoa gora eguinda, blausta, emoten deutso belarrondoco eskerga bat, dirautsala nabarbenac: ala erantzun bear deutsac bada Pontificeari? Nongo Yuecen aurrean eguiten yaco alango.... ezta dan guizonic deunguenari, eta satsenari beré: otsein icuski batec, iñoc aguindu beré bagaric, matralan yo? Bada Yangoicoaren Semeari eguin yacon: eta orregaiti ez Pontificeac, ta ez iñoc ezteutso aurpeguiric artuten, ez chitic (mistic) eguiten, Yesucristori eguin ezkeru, ondo eguinic dagoalata.

Baturic Caifas-enean Sacerdoteen eta aguntarien batzarra, bertara daroe Yesus gaishoa bere causea icusteco. ¡Ai bada, celangoen aurrean aguertu bear daven Yaunac! An dagozan guztiac, Caifas ori aurrengo dala, bere contra chacur eguinic dagoz: eurac oraindo aurtemin erabagui even, oba zala, bera iltea, erri guztia galdutia baño: eurac dira, bera preso artutera, lagunac eurenz aguindu dituezanac: eurac Yudaseri diruac emon deutsezanac: eurac testigu oker billa ibili direanac. ¿Celan bada urtengo dau alangoen tribunalean? ¡Ay! deungaro. Eguiten dituez aleguinac testigu oker orrecaz, ea andi edo emeti eder dirudianen bat ezarri albaleioe, errudun aterateco, eta il bearra eguitemo. Baya alperric guztia: Yaungoicoaren Semeac eztauco achakiaric. Baña dala oker edo macur, Yesus-ec il bear dau, eta eurac celan-naico edergarriren bat bashen bear eztave, orren erioztea on eguitemo.

Asmu onegaz Caifas-ec, nonbait ordura arteco aleguinen alperrac su emonda, yaguiten da dagoan lecuric, ta dirautso Yaunari: Yaungoicoaren partez aguinduten deusut, esan deiguzula, ea zu zareanez Cristo, Yaungoico bedeincatu orren Semea? Bekian Yesus laztanac, guztia ekian leguez, cetara yoco evan bere erantzuteac. Baya entzun dau Aitaren icena, eta Aitaren icenari lotsea yagon bearco deutso, eta artean, bere burua (11) garbituteco, ezta ao bete berba beré atera eztabena, orainche erantzungo deutso, yakinda beré, onic ateraco eztabela, eta bai bere buruaren caltea. Dirautso bada Yesucristoc: «Bai, ni nas orishe. Eta dirautsuet ece, laster icusico nozuela Yangoicoaren escoatati yarriric, eta odoi ganean etorten. Au erantzun evan Yesus-ec, baya ori izan zan asco pecatari ecin gueiagoco galdua, Yaungoicoari lotsea galduten eutsana, eta il bearra eguitemo. Caifas gaistoac bada, Yangoicoaren ondrearen alde eguin gura davelacoaz, soñecoac tiracada bategaz eten ta urratu, ta diño guztien aurrean: «Yaungoicoaren contra berba eguin dau: ¿cer eguitemo bear doguz testiguac? ¿Eztozue entzun blasfemia? ¿Cer derichazue oneri?» Eta besteac amen eguin-da, diñoe ao baten eriotzea mereci davela. Onelan galdu batzuc pecatari eguiten dave ontasun berbera: Yaungoicoaren contraco Yaungoico orren Seme laztan biotzecoac: eta il bearra, guztiai emoten deusena bicitzea.

(11)

¡Ay! Celangoac eguin eutsezan onen ondoren gogor aretan! Guizonic galduenari, eta zamea beré eztanari eguitea oker direanac. Ecin gueiagocoac deieguiten deutse san Yoän Crisostomoc Yesucristoren gau ataco irauna ta lotsagarriai. Asten yacaz arpeguira chistu (chu) loiac, eta gorro atzituac eguiten: asten yacaz otsac emoten: estalduten beguiac: onec cocotean yo, ac belar-ondoan, besteac osticoagaz or emen: besteac ucabil biacaz arpeguira emon: batac tira, bestiac bultza, barregarri darabilde zoro eguinic. Miñac bitartian eztaukez gueldi: «igarri eguic, dirautse, igarri eguic noc (ceinec) yo auban» eta aoac dacarkioezan Yaungoicoac dakizianac. ¿Au da Yaungoicoaren Semea? ¿Au munduaren eguillea? Bai; aushe, berberau; baya gugaitic oñen azpian erabilia.

Onelanche irago evan Yesus gaishoac egüen-gureneco gau guztia, Yaungoicoac berac, bestec ezdaquizan lotsagarritzco gauzac eguiten eutsezala. Baya ¡ay! Baricu-gureneco egun itzala, eta ce lotsariac, eta lotsagarriac gorderic daucazuzan Yaun biotzeco onenentzat! Ozta ozta eguna zabaldu evan, eta orra non barrien barri Caifas-ec, eta bere lagun aguinalariac batzarra eguin, eta bart-arratsean leguez ebasten (erabaguiten) daben, Yaungoicoaren contra berba eguinagaiti Yesus-ec il bear evala eta orretaraco Pilatos Erromaco Presidentia-gana eroan bear eveela. Baya euren aleguin guztia, eta euren edergarri guztia alperrac izan cirean, Pilatos-eri sinistu eraguiteco Yesus gaikilla oker eriotza-bearra zala. Laster igarri eutsan, guizon onec erruric ez eucala, eta ecin-icusiz eta gorrotoz baño ilgura ez evela. ¡Arren bada ori ezagututa, ascatu izan baleu, bere escuan eucan leguez! Baya bere biotz chikiac ez eutsan lagunduten, eta gura ez eukeala bere, lotsakizun andiac; eta oiñpean ibili bear-ez guichi berac eracutsi, eta Herodes-eri beré eracusteco bideac emon eutsazan. Baita bestelan: ¿celan Yaunac ateraco guinduzan gueure lotsagarritzco pecatuetati? Yarrantu daguiogun Yesus laztanari, Herodes-eneric asita.

(12) Aspaldi zan Erregue deunga onec Yesucristo ezagutu gura evala, entzun izan cituzan bere gauza miragarriac gaiti, eta arguitu yacan biotza aurrean icusita. Gura eukean ikusi Jauna milagroak eguiten, eta milla itauna gora ta bera eguin eutsan. Baya Yesucristoc ez evan iñoz alangoric egingo, ez bear beré, Erreguearen icus-gura zoroagaiti; eta ain guichi orduan, bere Aitac (12) bera guztien osticopeean gura evanean: eta alan ezta berbachu bat beré ez eutsan erantzun. Eta ¿Herodes-ec? Erregue arro, loi, san Yoan (Doneane) Bautistaren iltzalla (eralla), buru-erechi orrec ontzat artuko deutso ishilic egote ori? Ez beintzat. Herodes-ec bada aintzat beré artuten eztau:

zoro ta guichien eguiten dau; eta orren icenian soñeco zuri batez yancirik, barre ta burla galantac eguin ezkeru, atzera biralduten deutso Pilatos-eri. Orra Cristo Yaungoicoaren yakitura, Aitari munduco gauza eder andiac eguiten lagundu eutsana, zoro ta guichien eguinic, eta burlazar barregarri erabiliric.

Ya daucagu Yesus laztana azkenez Pilatos-en aurrean. ¡Ay eta esan bear banituz emen eracutsi eutsezan lotsari guztiac! Eliteke besteric bearco sermoe luce bat eguiteco. Baya onetarico bat-ez guztietan lotsez ganeti, ala andiac beré icusi bear izan cituzan leguez, bat ori bashen orain ezteutsuet esango: baya berean icusico dozue, Yesus ona guizonic okerrena baño okerrago erri guztiac eguinic. Pilatos egoala, Yudeguai sinistu eraguin ecenic, Yesus-ec ez eucala ilteco erruric, asi yacan laguntegui andi bat deadarca eske, urtean urtean eguin oi evan leguez, carcelaco preso bat ateretaco libre. Pilatos-ec eguin evan bere artian ece, aushe evala era ederra Yesus eriotzaric libre aterateco. ¿Cer eguiten dau bada? Carcelan egoan presoric okerrena, Barrabas lapur gaistoa, eriotza-guillia, eta osterancean beré ez ona, eta Yesus santutasuna berbera bat eguiten dituz, uste izanic ece, alango guizon errebes bat ez ascaturearren, Yesus escatuco eveela: eta dirautse: «Cein gura dozue libre emon deizuedan, Barrabas, ala Yesus, Cristo derichona?»

Orra non daucagun alcaturic Yaungoicoaren Semia, eta alde ataco guizonic deunguena, eta ori beré yakiteco, cein libre emongo dan, ta cein ez. ¡Ay bicitza emollea erallegaz bat eguin da! ¡Pecatuaren eta deunguearen suindaric (usainic) bere eztaucana okerto andi tzar bategaz! ¡Eta Yueza-ac itanduten dau: ea cein gura daven ascatu, Barrabas ala Cristo esaten yacon Yesus! Ori baño besteric izan ezpalitz beré, lotsa char asco zan Yesucristorentzaco, alango guizon galduagaz bere burua bat eguinda icusi bearra. Baya ez, etzan ori, ain andia izan da beré, asco izan bere Aitac gura evana eguiteco. Eta ori baño lotsari andiagoo icusi bear izan evan. Alanche izan zan bada. Elesh-guizonac eta agintariac puztuta, asi cirean guztiac erabartera dearca: «il eguizu Yesus, eta libre emon Barrabas!» eta asten yacoz Pilatos-eri cemaca, eta euren deadarracaz machinadea leguez ereguiten, eurac gura eveena eguitera ecarri-artean. Profeta santua, zuc esan cenduan ece, Yauna deunguen eta errebes okerren artean sartua izango zala. Baya orain euren artecoa ez ece, baita eurac baño okerrago eguinic beré bacusgu, eta ain okerrago ece, bere aldean ezteriche ecer dala Barrabas, eta alan oneri carcelaric canpora yoateco dirautse, eta Yesus curutzean il bear dabe. ¡O Aingueru santuac! ¿Cer esaten cenduen, icusi cenduenian zuen Yaun santua, ceinen parean zuc ez onac, ez garbiac e-zaren, alan arturic? ¡Ay celan

cantaduco eutsen, anchina Isaias-ec entzun eutsena: Santua, santua, santua, da exercituen Yaungoico Yauna.

- (13) (13) ¿Cer gueiago gura dozue, neure enzula onac? Bere escolaco Yudas-ec saldu dau, san Pedroc ucatu, lapurra leguez preso artu izan dabe; gaistoa, okerra, ilbearra, zoroa eguin izan dave: cocotecoca, belar-ondoca, osticoca barregarri erabili izan dave; eta azquenean, Barrabas bera baño deungago eguinda, curutzean iltera condenadu izan dave. ¿Eztira onec Yaunarentzat lotsakizunac? ¿Eztira bideba-coac? Ezta au izan, Yangoicoaren Semea satz eguitea, ta oñen azpian erabiltea? ¡O Yesus-en umiltasun andia! Esan bear dot san Bernardoren berbacaz, eta ¡O guganaco amodio parebacoa! Ezagutu daigun gu-gaitic eguin izan dituzanetan, ceinbat gura deuscun. Ceinbat eta bere burua guichiago eguiten izan daven, ainbat eta gueiago, ta geiago aguiari da gueuri deuscun leguea, ta ondo gurea. Baya eza-gutu daigun, guc peré aleguinean beste orrenbeste eguiteco: gure burua guichi eguiteco: bakean ta onean eroateco, bestec eguiten gaituzanean, eta guztiai biotzeric parketaco. Baya ezta orretan bacarric aguiari Yaunaren guganaco on-erechi ori: aguiari da beré, gugaiti icusi cituzan neke eta ala ecin gueiagoco gogor lotsagarrizcoetan, eta aushe eracutsico deutsuet neure sermoiaren irugarren zatian.

Irugarren zatia

Ceinbat eta gueiago sartuten garean Yesucristoren pasiñoco guertacuntzetan, ainbat eta gogorrigo, eta lotsaarizcoago aguertuten yacu pasiño ori. Ya onezkero biotza minberaturic, edo guztiz minduric izango dozue, entzunic Yesus laztanaren ortuco larriac, eta Yuez aurreco lotsakizunac, eta osticopean erabilteac: baya ain erdibitu bearco yatzue nonbait, enparaduco ala gogorrac, eta lotsaari garratzac entzunda. Yesus-en min gogorrac! Yesus-en lotsakizun eskergac! Bai beintzat, eta munduan bestec alangoric icusi eztituzanac. Bakit nic, munduan ascoc icusi izan dituzala, Yesucristoc icusi cituzan gauzac langoac, baita aec bashen ascozaz ta ascozaz gogorrigoac beré: baya ez eutsen aei oneec gauzoc ainbeste min emon, ceinda Yesucristori bereac. Zagoce pusca baten, eta nic esango deutsuet cegaiti.

Ceuec dakizue ondo, gure fediac dirauscuna ece, Yesucristoren gorputza zala Espiritu Santuac bere graziaz ta virtutez eguina, eta guc esateco moduan, Espiritu Santuac berac bere escuz eguina. Beragaiti Yesucristoren gorputza zan osterantzeco guizon guztien gorputzac baño obeto eguina. Zan bada edocein beré gauzataraco bes-teenac baño zuurragoa. Mina emoten dau bear dan baño gogorrigo,

latzago, edo bear ez leukian leguez ucutu, yo, edo sartu eguiten dan gauceac, era bardinean, zuurrago dan gorputzean, min gueiago eguin bear dau edocein gauzac, sorrago danean baño. Alan bada, izanic Yesucristoren gorputza Espiritu santuac eguina leguez beste gañeco guztienac baño ascozaz zurragoa, ascozaz minberia goa, izan biar evan besteenac baño, era bardinean, eta guichiagogaz beré; ascozaz gogorragoa izango zan ac artuco evan mina, besteac artu leikena baño. Au beti beguien aurrian izan bear dozue, eta ez aztu, entzute-co dozuezanen cargu ohea eguiteco.

Ea bada, ene entzula onac, eguizuez biotzera ceuen indar guztiac, entzuteco Yaunaren ganeco neke, ta ala gogor lotsarizcoac. Eta asi gaitazan lelengo lelengo (14) Pilatos-en etseric. Pilatos bildurtiac, bada, icaraturic, Cristoren contra chacur eguinic egoan Yudegüen cemauntzacaz, aguindu evan, Yesus laztanori azotetaco, ea ecetara bigundu albaleguizan Yudegu gogor aren errai situac. Eta Yudegüen aserre au zan leguez chitozco aserre icaragarria, alan gura izan evan beré, Yesucristori emongo yacazan azoteac, guztizco icaragarriac izan citecen. Azotiac eta curutzeango eriotza lotsagarria cirean Erroma-tarrai, eta euren foruac cituezan nobleai ecin emon leikioezanac; baya Yaungoicoaren Semiari, Amatati aimbeste erregueren odoleti etorrenari echacazan nonbait Erroma-tarren Foruac zor. Baya ¿Cer diñot Foruac? Ezta erri atan, guizonic satzenentzat egozan legueac beré, echacazan gorde, eta ogueta emeretzi azote ez ece, baita millacadaac emon yacazan.

(14)

Ozta ozta, bada, aoric atera evan Pilatos-ec berba ori, eta orra non (artuten daven Yesus) borrreru azcar, nabarbeenac ganean ezarten yacazan, otzo gosiac-ilac bildotz (azuri) gaishoari ezarri oi yacazan baño bere oraindo amorru andiangoagaz, erantziten deutsez soñecoac, billosh billosic narru-gorrian ichi artian (guiñocoan), estuten dabe sendaro (irrimé) arri-abe batera, eta asten yacaz draunba draunba emon ta emon. Baita ¿celan emon beré? Euren indar tzar guztiagaz. Eztau uda-goieneco urriac ainbeste astrapalada ta dregollu (trillu) ateraten (eguiten) maztuetan, ezta uriola andi batec ainbeste desgarrío ta calte eguiten doian lecuetati, ceinda borrreru cruelac (gogorrac) eguin even Yesus laztanaren gorputz bigunean. Entzuten dan zumenen (mimenen) brina zoliac bildurtu lei: ugalen ta cordelen brunberia itzalac icaratu lei: azoten durundio aserriac gogorturic ichi lei. ¡Ay Yesus gozoaren gorputz biguna, oraingoan beintzat celan guelditu bear dozun! Baltzunac eguin ..., araguiac anditu..., zauri zaconac idigui..., zana urratu..., azurrac aguirian imini... eta gorputz guztia bururic eta biatzetara llaga luce bat eguinic ichiten deutse. Ostico-pean dabiltz aragui atalac (zatiac) lurrean eguinda

odolezco erreca bat, borrero tzarrac ecin besoai eraguin deutse, eta oraindo beré anche dago Yesus azotecada barrien beguira.

Ainbeste ta ain gogorrac artuta beré, echaco Yaunari entzuten ez ay bat ez zotin bat. Beguiac cerura eguiten dituz: baya eztacus an beretzat errukiric: beguiratuten deutse gozaro borreru gogorrai, baya onec ain guichi bigunduten yacoz. ¡O guizon gogorrac, o guizon biotz bacoac eta arrizcoac! ¿Onen aserre artu bear dozue, bada, Yesus gozoaren gorputz biguna? ¿Cer gueiago eguingo ceunskioe, araguizcoa, ta aragui bigunetacoa dan leguez, arrizcoa, edo burdiñazcoa balitz? Cristiñau maitiac, ¿beguiratuco ceunskioe negar bagaric? E'lichakezue erdibituco minen andiz biotza, Yesus biotzeco laztana alan icusiric?

(15) Baya etzan onetan guelditu bear. Yesucristoc izan bear evan munduco guztien artian alezco guizona, eta guizonen arteco satzena; eta beragaiti beretzat gorderic egoan, munduan eguño bere icusi ez-tan lotsarizco ala. Soldaduac iñoren leporic barre eguiteco beti prest (guertu) egon doazanac, icusiric Yesus laztana nekeric andienetan bere ishi-ishilic egoala, eta bakeric bapere (arean) galdu bagaric; eta yakinic beste aldeti, ari edocein charkeria eginagaiti, Pilatos-ec ez eutsela buruco min (ala) andiric emongo, Yudeguai, barriz, orregaz biotza zabal zabal eguingo yakeela, artu cituezan (15) asmoac (buruac) beragaz barre aldi bat izateco. Eztakit nic obato esango ezto-dan: Diabruac gauza ori burura emon biar izan eutsela, bada eurac asmadu evena, eztirudi inundi beré munduan danec ames beré eguin leikeala. Beinic bein san Yoan Crisostomo-c bete betean alanche esaten dau. Entzun izan even, celan Yesus gozoari beste gaucen arte-an ezarten eutsen, bere burua erregue eguin gura izan ebaalacoa, eta orretati buruac emon eutsen ece, burlazarrezco erregue eguin bear ebeela. Esan ta eguin. Artuten dave Yauna guztien erdian, erle aserratuac bat artu daroen leguez: eyoten dave arantza gogorracaz coroe icaragarri bat, erantziten deutsez soñecoac; ezarten deutse sorbaldetati achina (beera) capa gorri zar bat; yesarri (yarri) eraguiten deutse aulki (lenca) baten ganean; eta buruan yosten deutse indarca arantzazco coroe ori. Emoten deutse escura cetro orde, cañabera bat, eta asten yacaz erregueri leguez agurrac, eta escumunac eguiten. Paretan yacaz (yarten yacaz) batzuc aurrean belaunico, eta algaraz ta carcayaz dirautse: «agur Yudegüen erregue». Besteac artuten deutse escuetaco cañaberea, eta beragaz, blast, yoten dave buruan. Baya asco cirean leguez, ecin guztiaic ain aurrera eldu yacazan, orrenbeste eguiteco: baya orrec beré euren citalkeria eracusteco, gorro atsitu loyac eguiten eutsezan arpeguira. An tzirean algarac, an barre-zantzoac, an ifi-afaac, an berba zantarrac, eta anche barallea (bullaco fusa), ta iscanbillea.

¿Cer asmadu leiteke au baño gogorragoric, eta lotsagarriagoric? Bai beintzat, berbacaz esan leitekeanac baño bere gogorrangoac dira guizon nabarben orrec, ecer uts eguin ce teien (ez eguiteco) bildurrez leguez gogor asmadu ta lotsagalduan eguin eutsezanac. Onelanche eguiten deutse araco Yaun andiari, ceinen aurrean aingueruric goienac eta nagusienac bere euren aurpegiac estaldu bear izaten dituezan eta cerutar guztiac auspez (lurrian yarriric) celayan echunic eskinduten (opa) deutsezan euren buruetaco coroiac. Ez eukean iñoc uste, izango zala biotzic, Yesucristo onelango tayuan icusita, bigunduco etzanic, eta orregaiti Pilatos-ec atera evan Yauna egoan leguez canpora guztiac eracusten, ea onegaz amatau al beutzen euren su-min aserrea. *Ecce homo* dirautse. Ara: beguira guizonari. Ecarri deustazue, bere burua Yangoicoaren Seme eguiten davela, erregue eguiten davela, cera eguiten davela. Onen bildurric ez izan. Yaungoicoaren Seme ta erregue izateco bestelacoa dago. Okerric eguin izan badau, artu dau bai, bere saria. Beguira, beguira guizonari. Eta Yudeguac? ¿Bigundu dira? Errukitu yacoz? Bay cera. ¿Ce bigundu ta bigundu oste? Len baño gogorrango, eta okerrango eguin tzirian, eta asi cirean deadarrez ecin gueiangoan: «Tolle, Tolle, ken, ken; curutzean yosi eguizu, curutzean yosi eguizu». Alperric izan tzan, bete betean esatea: Yesucristoc ez eucala erruric; gueroago ta deadar gueiango, eta iscanbilla gueiango. Azkenian Pilatos-ec bildurrez emon evan bere contra eriotzaco sententia okerra.

Ya daucagu Yesu biotzecoa eriotzaco sententia ganean daucala (lepoan daucala), ya yantziten deutse bere soñeco lucea: ya eguiten deutse sorbalda ganera, bera ilteco izango evan curutze astuna, ya daroe Calvariora lapur biren erdian. Baya, eta esan bearco ete deustuet bide nekezco onetaco nekea, aragui biciai (eratziai) (16) oratuta eucan soñecoa erantzi-t-orduco min arrigarria, ta bere burua ainbat milla lagunen beguietan (aurrean) billosh billoshic icust'orduco lotsari gogorra? Oneec zuec eguizue zeuen artean, cer izango cirean. Nic bacarric berba eguin gura deustuet curutzeco ala, ta neke icargarrien ganean.

(16)

Baita igarteco celanbait, celangoac izango cirean Yesucristoren alaac curutzean untze (ultze) gogorracaz yositecoan (yosi even orduan), contu eguizu, entzula ona, orche eleshearen celaian curutzean ezarten davela, eta aginduten deustuela, ganean aratinic luce luce echuteco. Batzuc dautsue pisho (indar) besoric, beste batec ezkerreco escuan untze lodi luce bat artu, escoacoan (escuman) mallu bat, eta draunba draunba errukibagaric escu zabaleti yosten deustula. Beste orrenbeste eguiten deustue escoaco escuagaz, beste orrenbeste guero oin biacaz. Ea ¿cer derichazu, ce alaac, ce min icaragarriac

icusico etzenduekez? Etzinatekez gueldituco (lotuco) minen minez zoraturic leguez, non zagozan beré ozta dakizula? Ay! bai, ce escu-oñetan batuten dira zan guztiac; eta orregaiti dira chitozco minberac. Bada orishe eguin eutsen Yesucristori gueuc baño ascoz ta ascoz gorputz bigunagoco Yaunari. ¿Cer icusico evan, bada, orduan?

Eta ¿cer guero curutzea zutunic, lureco zuloan sartuta, ichi evenian, ago or, ta il adi nosh-gura? ¿Cer ea, cer icusico evan, anche egon zan iru ordu aetan? ¡Ay bada! beso bateric ordu betean eskeguiric egotia, da ain bildur-garrizco neke gogorra ece, asco izan doa, eguia esa-arazoteco guizonic zorrenari, eta gogorrenari, yakinda bere alan esanagaiti, urcamendian il bearco dabela. ¿Cer izango zan bada Yesus laztanarentzat iru orduan besoac zabalic, untzeacaz yosiric, escu-oñetati eskeguiric egotia? Ori anchina ascotan icusten zan gaucea zan; eta aldi ataco yakitunac diñoce ce, ori zala eriotza guztien artean okerrena eta ori baño ascozaz beré obea zala, surtan erreta iltea, lasterrago eguiten dalaco.

Ea bada, ya daucagu Yesus gozoa, Yangoicoaren Semea esclavoentzat, lapurrentzat, eta erallentzat (eriotza guillentzat) bashen etzan zur gogorrean eskeguiric, eta madaricatu eguinic. Eta eriotza oneri oraindio lotsari gueiago emoteco, lapur oker bi, albo banatati bat euren curutzetan yosita, iminten deutsez, lapurren buru, eta euren arteco gaistoena Yesus eguiten dabela. Beguira ondo, neure entzulac, beguira bururic biatzera celan dagoan. Burua dauco arantzaz galduric, sorbaldac azotez ebaguiric, escu-oñac untzez yosiric, aosamaac (eztarriac) egarriz igarturic, eta dana dago alaz erreric. ¿Bauca min barri batentzaco lecuric? Eztakit nic, baya bai lengoac gueldi bagaric barriztetan yacazala. Gorputzaren pisua beti yagoco eten ta eten gueroago eta zabalagoac, eta gordinagoac eguiten untzen cilloac: gueldi bagaric zara zara dario lau zuloetati odola, mementoric mementora argalduaz ta indarguetuaz doa: icara itzal batec artuten dau, eta egarriac, egarriaren andiac ito bear dau. ¡Ay cé iru ordu Yesucristoc curutzean icusi cituzanac! Orain bai esan leikiala Yaun oneec, bera dala arra eta ez guizona, eta minen barri ondo ekiana (17).

(17)

Eta au bada gorputzeco minen aldeti, ezta guichiago arimacoenetati (biotzecoenetati). Bada ¿Cer dauco edo cer dacus Yesus errucarriac biotza alatu biar ezteutsanic? ¿Nora biortu leiz beguiac, min artuco eztaven lecura? ¿Gora, bera, alboetara, urrunera? ¡Ay! inondi beré ezta aguiri atseguin-garriric, ez biotza arguigarriric. Goico Aitac aztuta leguez dauca, yaramoten ezteutsala (eramaten) atseguin-eraco beinic bein. Curutzearen parean dacus Ama, biotza minez erdibituric daucala. Urrunsheago dacusaz aideac, discipuluac, ta

adiskideac, ondo aguiri daveela arpeguian, euren barrua celan dauken larriric. Eta onec dira onac. Barriz gaistoac? ceinbat eracusten ezteutse? alboco lapur batac, soldaduac, sacerdoteac, errico aguintariac, aide-nagusiac, meeac, guztiac iraunez, ta deungaro esaca ito bear dave. Buru-eraguinacaz, siñuacaz, kiñuacaz, irribarreacaz dirautse: «Ah panparroia! Eleshea bera eguinda, barriro iru egun barru eguingo enduana, ea celan ire burua ateraten doan agoan lecuti. Bestiai mesede eguiteco izan doc, bere buruari eguiteco, ez yaucac indarric. Yaungoicoaren Seme baas, yatsi adi curutze orretaric ta sinistuco deuvagu», eta onetarico asco.

Onenbestera eldu zan Yesus onaren aldi onetaco nekea ece, Yaunac berac, pasiño guztian ez ay bat, ez zotin bat eguin ez eban. Yaun onec bere burua curutzean alan icusi evanian, asi yacon bere Aita Yaungoicoari esaten: «Ene Yangoicoa, ene Yaungoicoa, cegaiti alan ichi nozu?» ¡Berba laburrac beintzat, baya alango Yaun epetasun ta bake andicoaren aoan asco baño gueiago esan gura davenac! Neure biotzeco cristiñauac, ¿Bazauzue ceru lurren erreguia, eguillea ta yaubea? Bada nic bazaut, baya san Bernardoc leguez, ezaugarri eztagoalaco: bazaut orainche eguiñic dagoalaco Isaias-ec anchinaric esanic euscun modu-moducoshea, edertasun guztia, ta antz guztia galduric; guztien oñen azpico eguinic, alaz ta (gachez) minez galduric, eta lepraz betea, ta Yaungoicoac castigadua dirudiala.

Baya nosbait yoan bear yacazan bere nekeac: eguin izan dau, aita eguiteco esanic eutsana: eta orain Aita orregana bear dau. Osasun onean dagoan baten indar, ta ascortasun guztiagaz deadar eguiten dau: «Aita, zeure escuetan emoten dot ene arimia» eta orrenbestegaz burua macurtuta, ilten da. Il da Yesus gozoa: il da Yesus laztana: il da Yesus biotzeco: etá il eguin da alaz, nekez, iraunez ta lotsariz asazcaturic. Baya ¿cer diñot: il eguin dala? Il eguin dogu guc: guc il dogu gueuc gure pecatuacaz. Ez esan: Yudeguac il daveela, soldaduac il daveela: Pilatos-ec il daveela. Eguia da, Yudeguac bere eriotzea escatu izan davela, eta Pilatos-eri deadarca, ta cemaca sententia okerra emon arazo deutsela: eguia da, soldaduac azotez apurtu (evagui,eratzí), arantzaz coroatu, ta curutzean yosi izan davela: baya eta ¿noc dauco errua pecatuac baño? Emenche dago sustraia; aushe da Yesucristoren neken ta lotsarien etorburua. Pecaturic izan ezpalitz, ez Yudeguac, ez Pilatosec, ez soldaduac, ta ez iñoc ez eutsan, ecer eguingo.

¿Gueure pecatuac il daveela Yesucristo? ¿Gueure pecatuac birrindu davela Yaungoicoaren Semea? ¿Non zara lotsea? ¿Non zara damua? ¿Celan yausten echacu (18) aurpeguia, ta erdibituten biotza? Eguzkiac eztau arguiric emon gura izan, Yauna curutzean da-

(18)

goan artean, lurra icaratuten da, eta achac eurac apurtuten dira, euren eguillea il yakenian, eta gure biotzac, ¿egongo dira pecatuan gueldi, achac baño gogorrigo eguinic? Yesucristo ilten icusi evenac, yatsi cirean Calvario-ric, damuarren bularrac yoten, eta gu egongo gara gueure pecatuetan, okerrerietan gogor? Ez beintzat, ez. Damutu bekigu, Yesus laztana ilteco bidea guc emon izana; baia ez Yudas okerraren damuaz, ceinec bere biotzeco garbaia, ta lotsea eroan ecinda, bere burua urcatu euan; ezpabere Lapur onaren damuaz, eta san Pedroren garbaiaz, eurac leguez parcaciñoa izateco. Yesucristoc berac orretaraco bide andia emoten deuscu, bada curutzean dagoala, Aitari bera il davenen parcaciñoa escatu deutso, dirautsala: «Aita, parcatu egueizu, eztakie, cer eguiten daveen eta.» Echun gaitzean bada Yesus ilaren beraren oñetan.

¡Ay Yauna! ¿Cer dacusgu guc emen? ¿Cer da au? ¡Ay! Burutic eta beatzetara, eztaucazu zati osoric. Ez beintzat, ez. Orraco buru eder, ceinec beti ta beti Yangoicoaren gloriaric andiena, eta guizonen mesederic onena, besteric erabili izan eztaben, arantzaz galduric dago. Orraco begui ederroc, euren beguiracunacaz (adicunacaz) ainbeste pecatarien biotzac bigundu izan dituezanac, dagoz aunzturic, ta itzuturic. Orraco aoa, ainbeste berba gozo esan dituzana, dago mututuric: orraco escuoc, guizonai mesede eguiten baño yakin eztabenac, untzez yosiric; eta oñ orrec pecatarien oneraco ainbeste ibilte eguin izan daveenac, curutzean errukibagaric[...] Ezta ori guztia: ezpada ce, arantzazco coroe gogor orrec dirauts, celan barrezco erreque eguinic, dandarrez erabili izan zaituezan: arpeguico baltzunac, eta andituac, celan guizon zoro, guichien, ta becor eguinda barregarri yoca erabili zaituezan, eta curutze onec, eta sorbalda[...] oneec esten deuste ao betean ece, lapurra ta gaistoa eguin izan zaituezala.

¡O Yaungoico laztana, ce eriotza gogorra icusi bear izan dozun! Ce eriotza lotsagarria! Eta ori guztiori ¿cer eguiteco? Gu pecatari okerrac, gu nabarben zarroc, zure contra ibili bear izan dogunoc, peaturic aterata, betico ceru ederrera eroateco. ¡O Yangoico baten guizona-ganaco on-ereste, laztantasun, ta ontasun gozoa! Betor Yauna gure ganera zure odola, baya ez Yudegüen ganera leguez gure galtzaigarri gueiagoraco, ezpada gueure pecatuen loi guztiaz garbituteco. Ez Cristiñauac, ecin guc esango dogu ece, eztaucagula, guri on eguiteco guizonic, ez: ara emen guizona: Ecce homo eta guizon bat Yaungoicoaren Seme egiazcoa dana, eta bere Aitari beti ta beti gure pecatuac gaiti, eta mundu guzticoac gaiti parcaciñoa eske yagocana. Pecatariac orain artian izanagaiti, ez uste ece, guretzaco eztagoala parcaciñoric: baago, bai, biotzeric damututen bayacu onduteco asmu ederrac artuten badoguz: Yaun onec [...], eta beti Aitari

eder eresten deuscan oni zor yacan lotsa onagaiti, entzun, eta parca-
ciñoa emongo deuscu. Ea bada, aushe eguin bear dogu orain: bai
arren, gugaiti il dan Yaungoicoaren Seme onegaiti: gugaiti ainbeste
icusi izan daveen Yaungoicoaren Seme laztan biotzeco onegaiti. Biz-
tu daiguzan biotz epeloc, eta aldaigun berotasun, damutasun, ta laz-
tantasunic andienagaz esan daigun biotz biotzeric. Neure Yauna Ye-
sucristo.

2. BARICU-GUREN ARRATSALDERACO YAZKERACO SERMOIA

(B, 1-11. or.)

In hoc aparuit charitas Dei in nobis, quoniam Filium suum unigenitum missit Deus in mundum, ut vivamus per eum.

Epist.1 Joan. c.4 v.9.

(1) Yangoicoac eguin dituzan gauza guztiac dirauscue ce neurri-baacoa dan bere gunganaco caridadea ta ondo-gurea, bada guztiac eguin evazan guetzat. Eguin bacituan Aingueruac, ge. gordetzailletzat eguin cituan. ceruac ge. bici-lecutzat. Luurra bear guenduana emoteco. Eguzkia, irarguia, ta icerrac guri argui eguiteco. Berba baten, beguiratu daguigun gauza guztietara, eta aurkituco ez dogun gueuretzat eguin ez evan gauzaric. Orregaitic esaten deuscu san Paulo Apostoluac: (Yangoicoac eguin dituzan gauza guztiac adierazoteco deuscue ce neurri baacoa dan gugana daucan ondo-gurea, bada guztiac eguin cituzan guretzat. Eguin bacituan Aingueruac, gure gordetzailletzat eguin cituzan: ceruac zabaldu bacituzan, gure bicilecutzat zabaldu cituzan, luurra ifini beevan guri bear guenduana emon eguigun ifini evan: eguzkia, irarguia, eta izarrac izatea artu beevan guri argui eguiteco artu even. Berba baten esateco, beguiratu daguigun gauza guztietara eta eztogu aurkituco gauzaric guretzaco ez-tanic. Orregaitic cirautsen S. Paulo-c Corrinto-arrai): «Zuenac dira gauza guztiac, nai dala mundua, nai dala bicitzea, nai eriotzea, nai aurrean daucazuena, nai guero etorrico dana. Eta alan (orregaitic) diño san Agustinec ce, celan Jaungoicoac guizona beretzat eguin evan , alan guizonentzat eguin evazala gauza guztiac, eta orregaitic esan ditekeala Ygcoac. beste arduraric euki ez davela, guizona zori-onezcoa eguitea baño. Baya ah! andiac badira mirarizco mesede oneec (oneec mesede mirarizcooc), orregaitic berè eztauke cer icusiric bere Seme bacarra biralduagaz eguin deuscuanagaz, cegaitic ece bere bicitzea curutze orretan emonagaz eracutsi euscun Yaun onec eracutsi al litekean ondo-guraric, ta laztantasunic andiena, ece berac ciñoanetic, ondo-gurearen anditasuna ez dala ecetan beré obato ezagututen, cein-da bicitzea adiskidea gaitic emotean. Eta san Yoän

(1)

Evangelisteac diño ce, onetan aguiuri dala, Ygcoac deuscun maitetasuna ta caridadea, bada bere Seme bacarra biraldu evana mundura, gu beragaiti bici gaitazan.

Andia izan bazan bada au mundu au eguin evanean, Ygcoac. gu eracutsi euscun asco-gurea ori eguiteco ez (zan) evan bere burua ecerchu bere necatu: bere esan bat asco izan tzan gauza guztiac ecer ecetic izatea artzeco; baya, ¿ceinbat costa ez yacon au mundu au barrizteta? ¿Ceinbat neke artu ez evan onetaraco? Ez eutsan asco erechi guizon eguin, ta gure pecatuac bere ganean artuteari. Ez eutsan asco erechi abel-etse baten lasto artean, ez-euki andianean, otzac ilic yaioteari. Ez eutsan asco erechi ogueta amairu urtean neke, lan, gose, egarri, ta icerdi artean bici izanari. Ez eutsan asco erechi bere negargarrizco pasiño garratzean ainbeste azote, ta zauri artuteari. Ez eutsan asco erechi bere zanetaco odol guztia emon ta bere bicitzea galduteari: ezpada ce gura izan evan bere eriotza au izan cidin guizon batec igaro al leikean lotsagarriena, minbereena, ta gogorrena. ¡O Ygcoaren gizonaganaco ondo-nai neurribaaco! ¡O maitetasun beintzat miragarria! Ygcoac guizonari ondo-gura izatea izango zan, bai, mesede neurriric eza: Ygcoac guizonaren ardurea eukitea izango zan amudio chito andia: ¿Cer izango da bada, guizona-gaitic curutze orretan⁶⁶ lotsari artean bicitzea emotea? ¿Noc adierazo leike noguiño eldu zan asco-gura onen su-gar bicia? Izanic san Yoän Evangelistea Ygcoaren gaucetan ain zuorra ta yakituna, diño San Yoän Crisostomo-c ece, ez eucala barbaric ulertu eraguiteco maitetasun onen anditasuna, eta alan bacarric esan evala ece, onenbeste maitetu evala Ygcoac mundua ece bera pecatuetatic ascatuteco emon evan bere Seme bacarra. Orregaitic diño San Agustín-ec: «Ez guizonec, ez Aingueruc ezagutu daike noraiño eldu zan Ygcoac curutze orretan il tzanean guri euki euscun ondo-gurea; Ygco bat pecatuaren araguz yantziric ¿Ceru-luurren eguillea billosic? ¿Bicitzaeriotzen yaubea curutzean illic? (2) ¡Mundu guztiaren yaubea gurutze batetic eskeguiric! Guizonen ta Aingueruen Erreguea lotsariz ta desonraz estalduric!

(2)

¡O Yauna ta Aita-Eternoa! ¿Cer eguin dau ceure Seme maite orrec, era orretan curutze gogor baten yosiric, eriotza ain itzaltza eroateco? ¿Il al dituz guizonen batzuc? ¿Erre al dituz uri edo erriren batzuc? Edo ¿yagui al da Erregueren baten contra? Baya ¿cer diñot, Yauna, neu banaz eriotza ain itzal ori emon deusadan borraru gogorra? Neu naz, bai, neu curutze icaragari orretan yosi davena. Neu-

⁶⁶ Ez du oharra osatzen.

rea da castigu orren errua. Nic pecatu eguin dot, eta ceure-ganean Jesus neurea, etorri da castigua. Nic aser-erazo neuntsan Ygcoari, eta ceure ganera bota dau Yaunac bere aserrearen su guztia. Ao betean autortuten dot, eta bete betean nago, neure erruz dagoala urcamendi lotsagarri orretan. Neureac dira Yauna, azote orreec, zauri orreec, untze, curutze orreec, eta eriotza ori. Bai ne. cristiñauac, bai. Bildots orrec ez dauco beste erruric, guri ondo-nai izatea baño. Maitetasun onec idigui eutsazan zauri orreec. Maitetasun onec urratu, ta zatitu eutsazan bere araguiac. Maitetasun onec yosi evan untze gogorraz curutze orretan. Eta maitetasun onec emon evan bere contra eriotzaco sententia Yesusen contra. Icusi guinduzan eriotzara condenaduric, eta sententia gogor onen papela urratu, eta curutzean yost-earren igon evan curutze orretara. Madaricatuac guengoan, ta birao au guganic kendutearren dago curutze orretan bera birao eguinic, San Paulo[c] dirauscun leguez.

Baya ¿cetaraco eracutsi gura izan euscun ainbeste laztantasun, ta asco-gura onen andia? ¿ah? Guc bera maite izan daguigun, dirauscu san Bernardoc. Nai izan evan, gueuc gueure bitza berari emon guenguion, eta onetaraco eracutsi euscun berea curutze orretan laztantasunaren su-gar bician erreric. Aushe bacarric da, cristiñauac, Yaun orrec escatuten deuscuna. Beste eskerric escatuten ez deuscu, eguin deuscuzan mesede neurribacoen alderaco. Pagu erraza, baita berè zorionecoa gureztat, cristiñauac: Baita escatuten ez deuscu, gueure bear dalaco, eta bai ori emonda bedeincatuac izan gaitazan. Orregaitic Ygcoac. bere semea curutze orretan il cidin emonagaz, eracutsi euscun bere asco-gura pare-baacoa, eta gueuc ceinbat zor deutsagun ondo-gura onegaitic: baita ar'emen neure sermoiaren berba (bidea)-gueia zati bitan. Lenengoan eracutsico deusuet celan curutzeco sacrificioaren anditasunetic igarten dan Ygcoac guri deuscun ondo-gurearen anditasuna. Bigarreanean, celan curutzeco sacrificioaren anditasunac adierazoten deuscun cein maitetasun andia ta beroa zor deutsagun Ygcoari, eta ce gogorra dan ge. esker gaistoa maitetasun ori ezpadeutsagu. Berba baten lelengoan icusico dozue noguiño elduten dan Ygcoaren guganaco laztantasun gozoa: eta bigarreanean, noguiño elduten dan gueuc beraganaco daucagun esker deunguea.

¡Ay Yauna! ¿Guc esan daikegun guztia zer da, zuc guri eguin deuscuzun on andiaren parean? ¿Cer da gure biotza zure neurribagaco ontasuna paguetaco? Baita Yauna, ain gara pobreac ta euki-
ezac, ain gara ecetaraco-ezac, ain otzituric gagoz ece, escatuten deuscuzun zor chiker au berè ezdaucagu cegaz pagadu, ceuc emoten ezpadeuscuzu. Biraldu eguiguzu, arren, cerutic amudioaren su au, eta erre gaguizuz azurretagiño, eta eracutsi eguiguzu ceinbat maitetu

guinduzuzan curutze orretan biurtu daguigun amudio au, ceuc escatuten deuscuzun moduan. Aushe escatuten deutsugu bitartecotzat iminiric orraco curutzearen oñean dagoan ceure ama laztana. Ave Maria.

Lenengo zatia

- (3) Mundua eguin baño anchinagocoa da Yaungoicoaren gizonaganaco maitetasuna, bada san Yoan Crisostomo-c dirauscun leguez, mundua guizona-gaitic eguin evan, eta alan ez evan guizona beste gauzac leguez eguin. Cerua, lurra, eta beste gauzac eguiteco berba bacar bat izan evan asco. Eguzkia ta irarguia eguin cituzanean, esan «eguin bedi eguzkia, eguin bedi irarguia, ta orrenbestegaz eguin evazan. Guizona barriz ez evan onelan atera bere escuetatic: ez evan esan eguin bedi guizona; ezpada ce, guelditu balitz leguez, bere artean balego legez celan guizon ori eguingo evan gauzaric miragarriena, ta osoena, diño: «Eguin daguigun guizona ge. antzera ta irudira, ta imini daguigun arrañen, chorien, ta abere guztien aguintari: Onetara bada eguin evan Ygcoac. guizona. Apaindu evan guizon ori gracia ta onra zoragarriz, eta ifini evan Paradisuco gozotasun artean, mundu guztiaren yaube, ta aguintari eguinic. Baya ¡ay zori-gogor negar-garria! Ondo guichi iraun evan gueure lelengo guraso onec zorion ta gracia onetan. Sinisturic sugue madaricatuaren berba labanai, ausi evan Ygcoaren aguintua, eta alan ez bacarric galdu evan eucan arimaco edertasun guztia, baita bere guelditu zan ecin beguiratu leikion moduan. ¿Ce castigu uste dozue merecidu leukeala Adanec eguin evan pecatu icaragarria-gaitic? Artuten dau Yangoicoaren escuetatic bere izatea, eta orregaitic beré artuten dituz bere eguillea lain-beste izateco asmu zoroac. Ifinten dau Ygcoac bere ordeco ta gauza guztien aguintari: eta eguiten da Demoninoaren mendeco. Emoten deutso Ygcoac yakituriaric andiena: eta orregaitic beré gura dau Ygcoac lainbeste (alaguiña) yakin: Ygcoac eguiten dau Adan mundu guztico erregue: eta Adanec nai dau cerua bera bere aguintura euki. Ygcoac eguiten dau Adan guizon guztien buru: eta ilten dituz Adanec guraari cital bategaitic bere seme ta ondorengo guztia. ¡O! ¡ceinbat pecatu ta ceinbat gach eta nekegarri ecarri cituan mundura desobediencia gogor onec! ¿Noc usteco ez evan berpertatic infernura botaco ez evala Ygcoac au guizon esker gaistoco au, icusiric beracer eguin evan Aingueru gaistoacaz? Baya ¡o Ygcoaren guizonaganaco maitetasun azken-baucoa! Guizonaren erri izan tzan, eta emon eutsan penitencia eguiteco astia, eta atera evan eguin evan pecatutic.

Baita etzan onetan guelditu Yaun andi onen guizona-ganaco maitetasun ori, ezpada ce icusiric Adanen pecatuagaitic guelditu guintzala aren seme guztiac gachez, nekez, eta laceriaz galduric artuten dau gogo gaeu egoera negargarri atatic aterateco. Eta ¿celan guero uste dozue, eguin gura izan evala mesede au? ¡O! Ain andia zan guizonac pecatu onen bitartecoz ganean artu evan zorra ece, ez egoan ez ceruan, eta ez lurrean cegaz atera. Guizon ta Aingueru guztiac bat eguinic beré etzirean asco zor au garbituteco, eta alan bear tzan criatura guztiac baño garbitzalle andiago bat, eta au ecin izan zaitekean Ygcoa bera baño besteric. Zorpe onetatic urtengo baguintzan, eta aspertuco bazan Ygcoaren yusticia zucena, yatzi, beré neurri-baaco yaquituriac iminiric eucan leguez bear evan bere Seme bacar maiteac, eta guizon eguin bear tzan,(4) artu bear evan bere lepoan ge. zor guztia, eta guelditu bear tzan curutze orretan, or dacutsuen leguez. Niri beguitanduten yat, cristiñauac, icusten dodala Ygcoaren biotza, maitetasun biren erdian estuturic leguez: eta biac sendoac, biac indartsuac ta gogorrac: Bata bere Semea-ganacoa, ta bestea guizona-ganacoa. Semea-ganaco maitetasuna cirautsan ece, etzala ondo bere Seme ain laztan Ygco eguiascoa guizonac-gaitic aguindutea ain eriotza gogorrera: eta ea berari cer eutsan ta cer yoacon mundu guztia galdua-gaitic: bera ain andia, ain yakituna, ta ain zorionecoa izango zala guizon guztiac galduric, cein da orrec betico zorioneco izan-da. Adanec pecatu eguin beevan, berac gura izanda eguin evala, ta ea cegaitic, bada, erruric ez eucanac eroan bearco evan bestearen errua: ori legue etzalata. Eta ea cegaitic bada, berari emon bearco eutsan ainbeste ardura guizonaren erremedioac, guizon ori auts ta luur pusca bat baño etzan ezkeru. Guizona bashen ascoz ta ascoz ederragoac, ta izate obeagocoac izan cireala Aingueruac; baya orregaitic pecatu eguin eveanean, ez yakela aei parcatu, ta ez eutsela erremedioric billatu. Cegaitic bada eguin bearco evan guizonagaz, Aingueruagaz eguin ez evana. Beste aldetic barriz, guizona-gana eucan ondo-gureac ekiten eutsan, arren ta arren erremedio bagaric ez itziteco bere arerioen escuetan, ece arro arro gueldituco zala Demonioa guizona galduric icusita. Ondo ekiala berac guizonaren argaltasunaren barri, eta Demonioac aren contra eucan su erre bicia, eta pecatuan yausi eraguingo eutsala. Arren bada, guizon orren erruki izateco eta barriztadu leguiola lenengoan euki evan edertasuna.

Ea bada cristiñauac, edo guizona guelditu bear da galduric, edo Ygcoaren semea imini bear da bere arerioric gogorrenen escuetan curutze itzalean galdu daguien. Guizona-ganaco asco-naiac gueiago eguiten badau Ygcoaren biotzean, bere semeac galdu bear dau bici-

(4)

tzea curutze arrigarrian orche icusten dozuen baño gogor Semeagana-
 nacoac gueiago eguiten badau, guizonac naita ez guelditu bear dau
 gauzaric errucarrienac. ¿Cein uste dozue izango dala gueiago Ygcoar-
 en biotza irabazteco? ¿Noren bicitzea derichazue guraco davela
 Yaunac gorde, bere semearena, ala guizon pecatariarena? ¿Nori par-
 catu guraco deutsalala, esango ceunke beragaz izate bat, eta Ygcota-
 sun bat daucan Seme eguiazcoari, ala auts la luur pusca bat baño
 eztan guizon ilcorrari? ¿Noc usteco ez evan Ygcoac gueiago gueiago
 eguingo ez evala bere seme maitearen bicitzea, guizon bere arerioa-
 rena baño ? Baya ¡o Ygco baten guizonaganaco ondo-gura neurri-
 baacoa! ¡O gure Eguillearen maitetasun azken-baacoa! Guraago dau
 guizonaren bicitzea, bere Seme maitearena baño. Bere Seme maitea-
 ri parcatu ez eutsan, dirauscu san Paulo Apostc., guizonari parcatu-
 tea gaitic. *Proprio Filio suo non pepercit Deus*, Orc. Il bedi neure
 Semea, diño, guizona bici dedin. Guizonari parcatu guraago deutsal,
 neure Seme maiteari baño. Artu begui ne. Semeac bere buruaren
 ganean guizonaren errua ta zor guztia, eta zor au aterateco galdu
 begui bicitzea. Aita-Eternoaren aguindua izan tzan, Cristiñauac, be-
 re seme maitea curutze itzalean ifini evana. Sentencia gogor ori
 emon eraguin eutsan Ygco ta guizon orren contra guri euscun laztan-
 tasun andiac. Ondo-gura onec zauritu deutso Yaunaren Semeari be-
 re gorputz guztia. Ondo-gura onec zulatu deutso bere buru guztia.
 (5) Ondo-gura onec yosi dau curutze orretan, eta ondo-gurea (5) izan da
 bicitzea kendu deutsal borerrerua. Eta ¿celan derichazue eguin evala
 Ygco ta guizon orrec bere Aita-Eternoaren aguindua? ¡Ay, cristi-
 ñauac! Gogo-gogotic ta pozarren ozta, berac gueuri euscun amo-
 dioac eraguinda. Maite guinduzan, eta yakinic gueure oneraco cirea-
 la, igaroten cituan neke, lan, zauri, eta eriotza gogorra, gogo betez
 artu evazan, lepoan ge. zorrac: eta onec garbituearren igaro evan
 pozen pozez pasiño ta eriotza itzal ori. Oblatus est quia ipse voluit.
 ¿Noraiño Yauna, eldu da ce. guganaco asco-gurearen garra?
 ¿Noraiño igon dau ce. caridadearen indarrac? ¿Ez al evan ondo ta
 ondo adierazoco cein laztan guinduzan, Aingueruren bat biraldua-
 gaz, becuric gu aterateco, zu ceu mundura esclabo-yantziagaz yatsi
 bagaric? Eta ge. guizontasuna artu nai beevan berè ¿cetaraco, Yau-
 na, cetaraco ainbeste neke, ta-ainbeste min icaragarri? Ez ceuncan,
 Yauna, beste bideric, gu pecatuaren, ta Demoniñoaren escupeptic
 aterateco? ¿Ce. gura-izate, edo ce. berba bacar bat ez al tzan ascoco
 gueuri mesede-on au eguiteco, mundu au ecer ecetic eguiteco asco
 izan tzan leguez? ¡Ay! Bai Yauna, bai Yauna. Baya obeto gueuri
 iragarteco ce. guganaco asco-gurearen andia, icusi nai izan cenduan
 eriotza arrigarri ori. Barriz ¿cer icusi evan Yaunac guizonagan ain

maite izateco? ¿Ce mesede artu evan bera-ganic? ¿Ce adiskidetasun, edo ce edertasun egoan guizonagan, ain zoraturic leguez beragana egoteco?

Ecer beré ez, cristiñauac, ez egoan guizonagan Ygcoac maite izan al leikeanic, bada egoan becatuz ezainduric ta loituric. Bere arerio guinean, eta bere contra guenbiltzan guerra bician sarturic. ¡ Onetan, bai, igerten dala bere asco-naiaren anditasuna! Onen ganetic dirauscu san Paulo Apostoluac: «Izanic gheu Yaunaren arerio..., orregaitic beré gugaitic il tzan Yaun ori. Bere adiskide, bere onguilla, ta bere guraso gu izan baguina beré, izango zan ondo-gura guztizcoa, gugaitic bere bicitzea galdu gura izatea. Ce au da ondo-nairic andienaren aguiria ta ezagugarri arguia ¿Cer izango ez da bada, arerioac gaitic eriotzea igarotea, ta eriotzaric bere lotsagarriena, gogorrena, itzale-na?

¡O on-este neurri-baacoa! ¡O ontasun pare-baguea! Bada Ygco chito altsua ta escuric ecin da andieneco dacust beguien aurrean ilic, guizona lango puskea-gaitic. Erruric izan ecin leukeana dacust urcamendi baten untzeacaz yosiric pecatariac-gaitic. Bere izatez santua dana dacust madaricatu eguinic gu madaricatuac-gaitic. Ceru-lurren eguillea dacust lotsariric andienean, guizona onraz yantzitearren. ¡O Yesus ona! Eta ¡ce sendoa ta andia izan dan ceure gure alderaco ondo-naia! Bada gueiagotan euki dozu ge. zorientasuna, ce. bicitzea baño. ¿Cer biurtu neinkezu bada, Yauna, ainbeste mesedeen orde? Ez daucat, eta euki beré ecin neike, Yauna, cegaz erantzun alango asco-gura miragarrizco orreri. Baya, ¡ay Yauna! baakit nic ece, zuc gauza bategaz asco dozula, eta besteric guganic gura ez dozula ge. ceu-ganaco maitetasuna baño. Baita guc, cristiñauac, ¿izango dogu arpeguiric gauza orren apurra berari ucatuteco? ¿Eukico dogu biotzic, ainbeste deuscun Yaunari ge. biotza ez emoteco? ¡O gogortasuna! Gueiegui daucagu, gueiegui cristiñauac, bigarren zati onetan icusico dogun leguez.

Bigarren zatia

(6) Ygcoac atera gura izan baguenduz pecatutic bere berbeagaz bacarric, ez evan cer igaroric pasiño ain gogorra, ez eriotza ain bildurgarria. Baya gura izan evan ge. errendenciñoa era onetara eguin, ge. biotzac irabazteco, eta gheu berari asco nai izatera eroateco. Guc obligaciñoric asco ta asco gueuncan Ygcoa maite izateco; baya icusiric Yaun orrec ge. biotza otz, atzera ta gogor egoala bere escutico mesedeac ezagututeco, yatz-ten da bera mundura, eguiten da ge. (6)

anaie, artuten dau ge. araguaia, eroaten dau pasiñoric garratzena, eta eztericho asco, curutze orretan, zuec dacutsuen leguez, bicitzea galdu artean ¡O celan egon bear leukeen ge. biotzac, deadar eguiten dau san Bernardo-c, asco-gurearen su garretan eresheguiric ta esheturic, ge. Ygcoa. gugana ain maitetsu icusita! Eta alan izan bear leuke benetan ne. cristiñauac: bada yakiteac nor dan curutze orretan dascusun ori, ezauturic ce santu, eta miraguille dan, eta noraguño eldu zan bere humildadea, eta icusteac be icaragarriac direan iragotzen dituzan neke, eta ala aciác bete bear guendukez gueure biotzac aganaco ondo-guraz, yakinic au guzti au eguiten davela guc bera maite izatea-gaitic. Eta ¿orregaitic beré¿egongo gara otzic, ta pena bagaric? Beguiratuco deusagu begui legorracaz Aingueruen pozgarriri orreri, egonic gugaitic ain minez beteric? ¡Ah! emen agueri da abereric uzuenac baño beré ezaukera guichiago daucagula, bada idiac ezagututen dau bere yauvea, eta astoac bere yaunaren askea, eta guc eztoqu ezagutu gura Yaungoico orrec bere eriotzeagaz eguiten deuscuzan mesedeac. ¡Ah Ceruac! Arritu ta icaratu zaitzeze, icusiric guizonaren esker deungueau: bada Ygco batec bere burua ecerztuco da curutzeco eriotzaguiño, guizonaren bicitzea irabaztearren, eta ¿guizona egongo da aleguin guztia eguiten, Yaun maite orreri bere biotza ez emotearren? Ygco bat emoten bere zanetaco odol guztia esclabo cital bat Demonioaren escupetic ateratearren, eta ¿esclabo onec eztituz ezagutu guraco eguiten yacon mesede parebaaco au? Ygco. batec galdu bere bicitzea, guizonari bicitzea emotearren, eta ¿guizon onec ez maite izan gura bere onguilla andi au?

¡Ah gogortasuna! ¡Ah achac baño gogorragoco biotzac! Aushe esker deunga au da ne. cristiñauac Yesus laztan orren biotza erdi bi eguiten davena. Eztavee ainbeste necatuten coroe, azote, untze, eta curutze orreec, cein da ge. astutasunac. Ge. gogortasun onec deadar erazoten deutso curutze orretatic:» Ne. Semea, ne. maitea, ne. laztana, betico asco-gura eguiazcoagaz maitetu zaitudaz. *In charitate perpetua te dilexi.* Oraindiño ez ceuncan izateric eta ne. asco-gura bician nengoan erretan zuganaco: Ni e-nintzan ze. bear: banenkian zuc niri ecer eguin ecin cinaikedana; baya orregaitic beré ecin egon zan ne. ontasuna zu maitetu bagaric. Ezagutu gura bozu ne. zugaco ascónaiaren berotasuna, gora eguizuz ce. beguiac curutze onetara, eta oneshegaz bacarric ezagutuco dozu cer eguin daven zu gana daucandan ondo-gureac gorputz onetan. Ondo-gura onec ifini nau zauri bat eguiniac burutic beatzetara, eta ondo-gura onec kendu deust bicitzea, eta alan (da guzti) beré; au guzti au ezta asco izango ce. biotz ori bigunduteco? ¿Oraindo beré gueratuco zara gogorturic? Bada ¿cer

falta yat (daukat) zugaitic gueiago eguiteco?⁶⁷ ¿Ce beste ondo-gurearen ezaugarri andiagoric nai dozu emon daguidazudan? ¡ah! Ezta-
kit gueiago escatu al daikedazun. Eta orregaitic beré eztozuz ezagutu guraco eguin (7) deutsudazan mesedeac? ¿Oraindo beré
ezdeustazu ondo-guraco? Ea ne. cristiñauac ¿Cer derichazue Ygco. (7)
Yaun orreri? ¿Cer erantzuten deutzazue ceuen aita, cn. onguilla, eta salbatzalle orreri? ¡Ah! Derichat ece cn. miñac diñoala ezagututen
dozuezala oneec mesede guztioac, eta maite dozuela ceruco Erregue ori, baya ceuen biotzac, ceuen eguiteac, ta cn. bicitza moduac dagoz
gutziz urrun berba orreetaric; bada icusten dana da ce, eztozuezala gordetan Yaun onen legueco aguinduac. Alde baten icusten da loi-
keria eta araguzco pecatua; eta bestetic entzuten direanac dira berba loi, pecatu zabaldu-garriac. Alde batetic icusten dana da ordike-
ria, lapurreria, eta tratu engañuzcoac; eta bestetic icusten dana da gorrotoa, aserracuntzea, eta alcar ecin-icustea. Eta alan da guzti
esango dozue Yaun Ygco ori maite dozuela? Bada nic dirautsuet san Yoan Evangelistaren berbacaz ece, guzurtiac zareela, eta guzurra
diñozuela. *Qui dicit*⁶⁸

Orra ce esker moduac emoten deutzazuezan guizonac, Yesus laz-
tana, Mundu guztia yagocu esaten maite izan daigula ce. magesta-
dea, eguin deusczuan mesedeac gaitic lecu guztietan: Curutze orre-
tan icusten dodan sacrificioan dago deadarrez ne. ondo-gurearen
eske: altara orretan icusten dan caridadezco suac ezagutu eraguiten
deust nic daucadan obligaciñoa ceu maite izateco coroe orrec, azote
orrec, zauri orrec dirauste: maite izan eguizu biotza emon eguiozu
ain laztan izan zaituzanari. Eta ¿oneec guztioac eztira asco izango ge.
biotzac bigunduteco? ¡Ay Yauna! Andia edo da ge. gogortasuna, ece
mundu guztia icaratuteco asco izan dan eriotza ori ezta asco ge.
erraiac samurtuteco. Ceu curutze orretan illic icusiric eguzkia ilun-
duten da, irarguia odolez betetan da, sepulturac idiquiten dira, men-
diac eurac erdibi eguiten dira, arriac eta achac zatituten dira, eta
beste gauza guztiac euren eguillearen eriotzan eracusten davee da-
mutasunic ta naibagueric andiena eta guizona bacarric egongo da
bere gogortasunagaz? ¿Guizona egongo da naibagueric ta biotzketaric
bapere bagaric?

Ne. Cristiñauac, etzan Ygco Yaun ori il curutze orretan ceruac-
gaitic, eguzkia gaitic, irargui, izar, arri eta mendiac-gaitic: gugaitic,
gugaitic bacarric il tzan; gugaitic emon evan bere azkeneco arnasea:

⁶⁷ Ez du oharra jasotzen.

⁶⁸ Ez du oharra jasotzen.

eta orregaitic beré achac, mendiac, eta arriac baño gogorrigo egongo gara gu? ¿Cer eguingo even senzun baaco gauza oneec eurac gaitic il zan balitz gugaitic il tzana leguez? ¿Non da bada ge. fedea? ¿Non da ge. buruco arguia? ¿Non da ge. sentzuna? Autortu daguigun, ne. cristiñauac, arriac, achac, eta mendiac eurac guc baño sentzun gueiago daukeela: ez gaitezaz azartu esaten fedea daucagula, ez sinistuten dogula dacusgun ori dala Ygcoaren Seme eguiazcoa, bada gauza guztiac yaguico litzatekez ge. guzur au arguituten. Ez daguigun esan maite dogula gu-gaitic curutze orretan dagoan Yaun ori, bada ge. eguinac, ge. bici-moduac deadar eguingo leukee ge. contra, eurac esaten davee, ge. asco-gura guztia miñean baño eztaoala.

(8) ¿Cer derichazu Yesus gozoa, ge. biotz achac eta arriac baño gogorrigo onei? ¡Ay, ne. semeac! diño ¿Nondic nora dauczuez ain biotz gogor ta arrizcoac? Nic ez neuntsuen emon alangoric, ezpada araguizco bigun ta errukiorkak: nic ceuen biotzetan escribidu nevan ne. legue barria, eta maitetasunaren aguindua, eta gura izan nevan erre ne. caridadearen suagaz. Su au ecartera etorri nintzan cerutic lurrera, eta aushe isioten ibili naz ogueta amairu urtean munduan: aushe ondo-gurazco su au (8) eshetutea-gaitic igaro dot pasiño icaragarri bat: igon dot curutze onetara eta emon ne. bicitzea. Baya ¡Ah! eta ce icaragarria dan ceuen biotzen gogortasuna! bada mundu guztia erreteco asco izan dan caridadearen sua ezta asco zuen biotzac berotuteco beré. Otz otzic eta biotz-min bagaric curutze onetara beguira zagocelaco, eta deungueago dana pecatuen eta Demoniñoen bici-lecu eguinic zagoelaco. Aushe ceuen esker deunga au da ne. biotza erdi bi eguiten deustan ezpataric gogorrera, eta curutze itzaltsu onec baño neke gueiago emoten deustana ¿Cegaitic zagoce bada ain gogor, ne. seme maiteac? Ete da zuec-gaitic asco eguin eztoalaco? ¿Ete da zuen biotzac oraindiño ez gueiago bigundutea merci dodalaco? Ea bada ne. Semeac, emen nago prest edocein gauzatara-co eguin eguizue nigaz zuec gura dozuena, ece pocic eroango dot edocein beré gauza cn. arimac irabaztearren: edocein moduco erio-tza iragoco dot ostera ceuen biotzac amudioan eshetuteagaitic. Ea bada ne. seme maiteac, ezagutu eguizue ni nazala cen.(ceuen) aita ona, cn. onguilla andia, eta cn. on guztia: eta orain artean niganic iguesi ibili bazaree beré, erdue erdue cn. aita-gana, eta ez eguizue bildurric euki, bada emenche nago ni poz andiagaz besa-artean arturric ne. bularraren contra estutu, ta laztanduteco. Emen nago cn. arimac irabaztearren edocein gauza eguiteco prest: erdue bada ne. Semeac neugana, erdue laster, eta idigui eguidazuez cn. biotzeco atea, bada ceuecaz bici gura dot, eta zori-oneco eguin gura zaituedaz.

¡Ah ne. cristiñauac! ¿Nos artean egongo gara gogorturic Ygco baten deietara? ¿Nos artean eukico doguz ge. biotzac astunduric? ¿nos artean izango gara esker deungacoac Yaun andi onegaz? Ezagutu daguiguzan nos edo nos, ne. cristiñauac, bera-ganic artu doguzan mesedeac. Idiqui daguioguzan ge. biotzeco atea: eta emon daguiogun atseguin guztia ge. borondate onagaz. Aushe biotz au da escatuten deuscuna: ondo-gura onegaz pagaduco deutzaguz ge. zor guztia. Ea ¿cer diñozue? ¿Alzagoze orain bere gogorric? ¿Ezteutsazue oraindiño beré emon gura cen. arimea? Eztozue oraindiño urten gura pecatuaren egoera negargarri orretatic? Enzuzuez edolanberé bere Ama guztiz santearen negarrac ta cispuruac. Beguiratu eguiozue celan dagoan curutze orren oñetan, noc poztu eztaucala, bada ereguiten badituz be. beguiac curutze orretara, erdi bi eguiten yaco biotza, icusiric bere ume maitea arnasa bagaric. Eta alan negarrezco iturri bi eguini bere beguiac dirautso Semeari: «¡Ah ne. Seme maitea! ¿Modu onetan ichten nozu? ¿Cein ba obago izango zan, neuc igaro izan banevan, zuc igaro dozuzan neke-alac, zu biciric gueldituteagaitic? ¡Ay ene Seme biotzeco, ce bacartasun ilunean itzi nozun! Zu cinean ne. aita, ne. poz, atseguin, eta on guztia: eta orain gueratu naz ume zurtz guraso бага, alargun lagun бага, neke eta naibague artean ilic bicitzea бага ¿Nogana biurtuco naz bada? ¿Noc poztuco nau ain zori gogor andien erdian? ¿Aita Eternoac? ¡Ay! Bere justiciaco ezpateac il dau ne. Seme errubaaco Isaac. ¿Poztuco navee Aingueruac? ¡Ay! Eurac dagoz negarrez euren eguillea, ta Erreguea ilic dacuselaco ¿Poztuco navee guizonac? ¡Ay ene penea! Eurac eurac, bai, emon deutse (euren) pecatuacaz eriotzaric gogorrena ne. Seme laztanari. Euren pecatu ta gaistakeriac gaitic, ne. semea dago ilic: eta eurac dira oraindiño ne. biotzari damu ta atsacaba gueiago emoten deutesnac; ezagutu gura eztaueelaco ne. semeac eguin deutsezan mesedeac: eurac dira ne. arerioric eskergueenac, daukeelaco nabarbenkeria acia, oraindo beré ne. Seme maiteari ekiteco. Baita ¡ay! onango (9) tristura ilun ta lan minen erdian baneunca guichienez ne. seme biotzeco onen corpua curutzetic eratsia! Baya ¡Ah ene zori-charreco! bada au nai au, eta atseguin apur au beré eztaucat noc emon. Aita-Eternoa, ¿ezta oraindo beré amatadu ce. justiciaren aserrea? ¿Eztau oraindo beré pagadu bioen Seme onec bere ganean artu evan pecatarien zorra? ¿Eztozu oraindo beré gura sepultura bat emon dakion ce. Seme bacarraren gorputz ilari?»

(9)

Bai, Ama naibaguez ta nekez betea: entzun dituz Ygcoac ce. deiac, eta gura dau obiratu dedin ce. Semearen gorpu ori. Aror non biralduten deutzuzan guizon errukior orreec ce. guraria eguiten. Ea guizon onac, eldu zaitece ama neke beterico orregana, eta escatu

eguiozue ceuen biotzacaz bere baiezcoa gogotic igarota daucazun lan andi ori eguiteco. Ez bacarric emon guraco deutsue, baita beré eskerric asco emonic esango deutsue David Erregueac Saulen gorpua luurpeetu evenai baño obeto: «Ygcoac bedeincatu zaguiezala ceuon Yaunagaz eguin gura dozuen eguinen onagaitic. Eta nic beré emongo deutsuet ceuon borondate on orrec mercedu daven saria. Ea bada guizon beteac, igon eguizue arbola orretara eta betor gugana frutu gozo ori, kendu dedin mundutic Adanec frutu garratza yanagaz ecarri euscun eriotzea. Igon daguigun ne. cristauac mendi santu onetara, eta icusi daguigun nora-guiño eldu dan Yaunaren guganaco amodioa, eta ge. pecatuen gogortasuna, eta asco ezpada Ygcoaren semearen eriotza ori ge. biotzac bigunduteco, autortu daguigun ao betean ece, arriac eta acha baño gogorracoac gareala.

Errotulua

Asi eguizue Ygcoaren ministroac eguiteco andi ori; kendu eguizue curutzearen buruan dagoan ol ori; orche iracurric dozue nor dan guizon ori, bada orishe guztiori bear da nor dan yakiteco ainbeste azote, zauri, eta yotegaz itzi daveelaco ecin ezagutu-garria. Eroan eguiozue bere ama nekez ta atsacabez bete orreri. Ara or Martiri guztien Erreguinea nori biralдутen deuntsun ce. Semeac ol orren bitartez, ez bere erreinuaren erdia Asuero-c Esterr-eri leguez, ez pada oso osoric: nai dau ceu izan zaitezcan ceru-lurren, ta guizon-aingueru guztien Erreguinea, baita beré gu guztioen ama ondo-guraz beterico bat. Kendu eguizue Ygcoaren serbitzalleac eta emon eguizu Aingueruren bateri ondo gorde daguion.

Arantzaco coroea

Eldu zaitece guizon errukiorrac lotsa ta itzal guztizco bategaz Yaun orren buru santura eta kendu eguiozue arantzaco coroe gogor ori, eta eracutsi eguiozue elshaco yente oneri. Orra guizon esker deungacoa ce andiac direan zure pecatuac, bada ceruen yaubearen burua zulatu davee. Coroe gogor orren sustraiac ce. biotzetic urten dau: ce. biotzean erne da, eta ce. biotzetic igon dau buru atara. Eretzi eguizue beera Ygcoaren ministroac bada ori icusiagaz beré eztira bigunduten guizon oneen biotzac. Eracutsi eguiozue beinic bein beré amari, eta esan eguiozue ceuen biotzacaz batera: «Ara emen andra bedeincatua ce. semearen buruan sarturic egon dan coroea: Oneshec arantza arroc (punto) dira santu guztien burua zulatu daveenac. Baya arantza oneen sustraiac urten badau guizonen biotzetatic, badiño ce ebaguico dituezala sustraitic, au da, kenduco dituezala eu-

ren pecatu ta gaistaquerien bide guztiac, eta eregingo dituezala eguite on, eta birtute guztien (10) lora eder usaiñtsuenac ¿Eztiñozue au ne. cristiñauac? Ea bada kendu eguozu Ygcoaren ministroa bere beguien aurretic ori icaragarrizco coroi ori, eta emon eguiozu Aingeruren bateri. (10)

Untzeac

Atera eguizuez Yaunaren onguilleac untze gogor orreec. Baya ¡ay! ce sendo yosiric euki dozuezan Ygcoaren escuac! Atera eguiozu lelengo escoaco hori yaitzi deitezán ge. ganera escu orretan dagozan benediciño ugariac. Atera eguiozue ezkerreco untze ori, eta betor gugana or gorderic dagozan ondasun parebaacoac. Atera eguiozue oñ orretan daucan untze arrigarrizco ori. Eta ¡ah! ¿Noc esan leike oñ orreec direala infernuco dragoe indartsua zapaldu eta humildu daveenac? Eroan eguiozue be. amari, iä cer diñoan orreec icusiric». ¡O untze gogorrac! esango euan negarretan urturic. ¿Celan azartu zaree Ygco ta ne. Semearen escu-oñac zulatu ta zatituten? ¿Nolan eldu ta azartu zaree yosiric eukiten mundu guztia ecer-bere-ez-etic eguin cituezan escuac? ¡Ay! naiago izango nevan ne. biotza zulatu izan bacendue! Bada onelan e-nevan ainbeste min artuco ¡Ay! ce arrigarria dan pecatuaren gogortasuna, bada eldu da Ygco eguiazcó baten escu-oñac yostera! Kendu eguiozuz Yaunaren ministro yauna Virginia orreri bere beguien aurretic burdina gogor orreec, negarrez zatitu ezteitean bere biotz atseguin-baacoa.

Gorputza - erestea

Ea guizon bedeincatuac, azkena emon eguiozue asi dozuen errukizco lan orreri: Betor betor beera arbola orretaric Adan barria, bada orrera igon badau, izan da Adan zaarraren cateac urratuteagaitic. Yaun orren erru orrera igoteco izan da, gu laztan izan gaituzalaco: curutze orretara igon badau izan da Ygcoagaz ge. artean bakeac eguiteco. Betor, betor beera, eta eroan eguiozue bere amari, ea ezagututen badau bere Semearen gorputza dan ala ez. Ceruco Erreguiña, ¿ete da gorputz ori Espiritu santuac ce. errai garbietan eguin evana? Bai aushe da, diño Virginia orrec; baya ain dago zatituric, ain urraturic ce, e-neunke ezagutuco ne. biotzaren asco gureac esango ezpaleust berau dala. Baya ¡Ah ene Semea! ¿Noc imini zaituz orrelan? ¡O ceruetaco edertasuna! ¿Noc orrelan castigadu zaituz? ¿Noc zatitu deutsu buru ori? ¿Noc urratu deutsuz ce. aragui orreec? *Ehu mihi! fera*, etc. ¡Ay! Pistia uzuren batzuec galdu davee ne. semea, bada, guizonen artean cein topadu leiteke ain biotz gogorric. ¡Ay ne.

Seme maitea! ¿Nun da ce. edertasuna? ¿Celan dagoz orreec beguioc, eguzkia baño arguiago izan direanac? Celan dagoz ainbeste mesede eguin dituezan escuoc? ¡Ay! Guizonac izan badira modu orretan imini zaituezanac, guizonen asco-guraz bazagoz modu orretan, ¡ay! ¡ce erruki-baacoac izango direan aleguin guztiagaz maitetuten ezpa-zaituez!

(11) Adanen Semeac erdue, erdue icusten pecatuaren calteac, beguira cer eguin daven gorputz orretan cen. gaistakeriac. Orra pecatari lotsabaguea cer eguin dozun: ze. pecatuac dira gorputz Ygcozco ori modu onetan zatitu daveenac: ze. gaistakeriac gaitic yausi da gorputz orren ganera Aita Eternoaren aserre artez guztia. Eta etzagoz oraindo beré asperturic? ¿Ezteutsazu orain bere ichico pecatuari? Erdu bada, eta ezarri eguiozuz ce. escuoc, azotadu eguizu barriro, eta yosi eguizu barriro curutze atan: emon eguiozu eriotzea gogorrago bat: erdu pecataria, eta eguizu (11) Ygcoaren Seme orregaz gura dozun guztia. Baya ¿nor azartuco da au eguiten? ¿Nor? Zu zara pecataria ce. biotz gogor orregaz pecatu bacochean oneec guztioac eguiten dozuzana: zuc ce. pecatuagaz emoten deutzazu ce. aldetic danetic Yudeguac baño eriotza gogorragoa. Eta ¿azartuco zara esaten ezteutsazula gura emon eriotzaric? ¿Izango dozu arpeguiric esateco maite dozula Ygco Yaun ori? Guzurra diñozula dirautsu Yesus maite orrec, baldin itzirik pecatuari, beragana biotzetic biurtuten ezpazara. Ea bada ¿cer diñozue pecatariac? Biurtuten tzaree edo ez?

Bai ge. Yesus salbatzallea: badazaugu orain artean izan gareala ce. arerio, ta borreru gogorrac, eta ezcagukera onegaz gura dogu ceugaz bakeac eguin: eztogu gueiago luzatu gura zugana biurtutea, eta orainche bertatic astearren bicitza barri bat diñogu biotzac urratuaz. Ne. Yesucristo Yauna.

3. BARICUGUREN ARRATSALDECO ERESQUERACOA

(B, 169-176. or.)

Spiritus oris nostri Christus Dominus captus est in peccatis nostris.
Thren. c.4.v.20.

(169) 1. Jaungoicoac berac esan eta fedecac iracatzico ezpaleuscu Jaungoico benetacoa iltzala urcamendi baten eriotzaric gogorrenagaz, ez litzateque aurquituco misterio arrigarri au sinistu guraco leuqueanic. Araco agindu eutsanean Jaunac Ysaías-eri escribietaco bere seme maiteac igaroco evan pasiño gogor eta eriotza Cruela uste izan evan Ygarla edo Profeta onec, ez evala iñoc sinistu guraco, eta alan esan eutsan Jaunari: Jauna, noc sinistuco dau nire esana? *Domine, quis credit auditui nostro?* Eta orretan beré Ne. Cristc., ezpagueunco federic zoraqueria anditzat euquico geunque sinistutea araco Jaungoico neurriba'co, andi eta azquen-bagea il dala? Nor escandalizauco ez litzateque enzunic araco Jaungoicoaren seme benetacoa, beragaz izaitte eta Jaungoicotasun bat daucana, Ceru eta Aingueruac edertasunez yanci cituzana, eta izaitte daucan guztia ecerbere ecetatic eguin evana ez bacarric il dala, baita bere igaro dauen eriotzea izan dala guizonic madaricatuenac, eta deungueenac irago al leiquean lotsagarri, mimbera, eta deshonoragarriena? Alanche uste even Yudegu Yentilac, bada S. Paulo Apostoluac dirauscu: Jesus crucificadua escandalua da Yudeguentzat, eta zoraqueria Yentilentzat. Orregaitic diño S Juan Crisostomo-c, ain dala gach guizonari adierazotea misterio au cé, sinistuco bazan Elesha Santaan, Espiritu Santua yatzi izan bear zala, bada bes-telan ez evala sinistu guraco. Artu dogun ezquero bada Jaungoicoaren Espiritu au Bautismo Santuan, sinistu bear dogu Elesha Santeac iracazten deusczan misterio andi onec. Ycaragarriac dira, arrigariac dira: baya confesau bear dogu curutze orretan madaricatu eguinic dacusgun ori dala Jaungoico guztiz altsu edo poderoso benetacoa: urcamendi lotsaari orretan lapur bat leguez yosiric dagoan ori dala ceru, luur eta izaitte dauqueen gauza guztia eguin cituzana. Mempeco edo esclavo zital eta gueisto bat leguez azotadu eta odol-usturic dacusgun ori dala berez bereincatua eta Aingueruac bedeincatu eta zorioneco eguin dituzana.

2. Bai Jaungoico andia, bai eguille edo Criadore altsua, badacuzgu bere curutze orretan pecatari madaricatu bat leguez castigadu ta illic, confesetan dogu dana Aita Eternoaren Seme maitea, nogan daucan bere atseguin guztia. Guztien burlagarri, eta oiñ-azpico eguinic badago beré, daquigu dana Erregue guztien Erregue eta Aguintarien Aguintari, dagoana yarriric Aita beticoaren escomatatic, non adoretan daven aimbat milla Aingueruc ezagututen daveela euren eguille, onguille eta burutzat; becatu antzeco araguiaren soñeco loiazgaz yanciric badacuzgu beré daquigu ceruetaco edertasuna dana, eta eguzqui, irargui, izar eta Aingueruac arguiz apaindu cituana. Arantzaz zulaturic, azotez aseric, burutic beatzetara zauri bat eguinic, guztiori birrinduric, eta untze gogorracaz escu-oñac yosiric badago beré siñistuten dogu dala araco Jaun andi ceru zabalac ecin artu davena, [...] atzetic mundua dinguilizca daucana, luurra escu barruan escutauten davena. Baya ¿noc edo cec ecarri dau ceru alturic mundu onetara? Cec borrareru cruel gogor, eta erruqui бага, asartu edo atrebidu Jaungoico ain andi bat modu orretan humildu, azpiratu, zatitu, birrindu eta eriotza ain icaragarriagaz iltera? ¡Ay Ne. Cc., emenche bai miraariz bete bear gareala; emenche bai arritu, mututu eta gogor gogor izosturic gueratu bear gareala. Gure pecatuac ecarri dave cerutic lurrera, gure pecatuen catee eta socac lotu eta estu dave. *Spiritus oris nostri*, etc. (170). Gure pecatuac zauritu, zatitu, eta birrindu dave. *Vulneratus est propter iniquitates nostras, et attritus est propter scelera nostra*. Gure pecatuac ifini davee curutze orretan dacuzcun moduan zauri bat eguinic, odolosturic, guizonen antzic beré bagaric eta ain ezain, ain ichusi, ce ecin ezagutu beré leique. ¡O pecatuaren icaragarrizco indarra! ¡O gure zauri, gach eta enfermedadeen usteltasun bildurgarria! Osatuco bada ceru-luurraren eguillearen odolagaz eguin bear da osasun-guei edo medicinea.

3. Baya ¿nondic nora uste al leian guizonac Jauna galdu guraco evala? ¿Celan asartu edo atrebidu zatequean luur uts pusca batec icharoten mundu guztiaren yaubea, ez bacarric yatsico zala cerutic beera bera bisitetara, baita beré beragan artuco cituzala eucazan gach icaragarriac, eta bera osatutarren iminico zala curutce orretan? Baya ceuc ceure cabubagaco ontasunagaz irago dozuz bere icharomen edo esperanza eta uste guztia. Baya ¿cer yoacon, Jauna, guizonaren zorionean aimbat ardura beragaitic artuteco? Etzan ain andi, ain altsu, ain yaquitun, eta ain Jaungoico izango mundu guztia galdu balitz, cein da bera barriztadu ezquero? Bai, Jauna, bai Jauna: baya aimbeste erruquitu cinean gu ain nequegarri icusiagaz ce, ecin zure biotz samurrac sufridu al izan evan gu erremedio bagaric ichitea, aimbeste costaco bayacon beré. Baya Jesus laztana, etzeuncan au

bashen beste moduric gu pecatupeetic aterateco? Bai, Cc., beucazan beste modu asco gu demoniñoaren mempeetic aterateco, baya nai izan evan igaro eriotza itzaltsua ezagutu guenguan pecatuaren anditasuna eta ezauquera onegaz bildur izan guintezan pecatupeera biurtuten. Baya itsuturic pecataria bere guraari citelacaz, eztau ezautu gura ce prezio emon bear izan zan bera pecatuperic aterateco, eta orregaitic biurtuten da Jesucristo-c urratu eutsazan cateacaz estutera. Ytsumendi icaragarria benetan! Zoraqueria esquerguea! Ylten dau J.C.^o.c pecatua bere eriotzeagaz eta biztuten dau guizonac bere borondateagaz. Quenduten deutso J.C.^o.c guizonen Demonioari ganean eucan nagusitasuna, botaten dau mundutic eta ichiten dau loturic ta esturic, eta emoiten deutso guizonac Demonioari, J.C.^o.c quendurico escubidea, biurtuten dau leen eucan nagusitasunera, eta iminten dau azcaturic. Jaungoico batec galduten dau bicitcea guizonari bicitzea emoitearren, eta guizonac galduten dau bicitcea, pecatuari bicitzea emoitearren. Jaungoico batec eguiten dau Demonioaren mempeeco zan guizona bere Seme, eta guizona eguiten da Jaungoicoaren semetic Demonioaren mempeco. Anditasun icaragarria pecatuarena, bada Jaungoico bat il bear izan zan bera goitu edo bencietaco, baya andiagoa da guizonen itsumendi eta gogortasuna; bada bere guraz biurtuten da Jaungoicoac eriotzeagaz venciduco pecatura. Aror neure Sermoe guei edo asuntua. J.C.^oren eriotzean ezagututen da pecatuaren anditasuna, lenengo puntua. J.C.^oren eriotzan ezagututen da pecatura biurtuten dan guizonaren zoraqueria, bigarren puntua.

Lenengo zatia

(171) 4. Guztioe Adan-egan il eguin guinean, beragan pecatu eguin gendualaco, diño S. Paulo Apostoluac. Eztauque neurric pecatu oneganic etorri yacuzan calteac. Berac sarratu euscuzan ceruco ateac, aserratu evan Jaungoicoa gugaz, idigui evan guretzat Ynfernua, condenadu guinduzan eriotzara, imini guinduzan Demonioaren mempean, eta ecarri euscuzan gueugan daucaguzan negar, cispuru, eta ayariac. Ain erquin, ain caden, ain argal guelditu zan guizona, ain izan cirean cruelac, ain gogorrac, pecatu onec eguin cituzan zauriac ce, ez egoan eurac osatuteco osasun guei edo medicinaric. Eucan Demonioac bere azpian presondegui, edo carcela ilun atsitu, ta itsaltu baten, baita ain sendo gorderic, eta ain irrime loturic ce, ez egoan guizon eta Aingeruen artean andic atera al leian indarric. Etorri zan Moyses Levitea legueagaz, baya ecin atera al izan evan

(171)

egoquera edo estadu onetario, bada leguea ona, santua ta Jaungoicoac emona izan arren, ez eucan indarric guizona libretaco, diño S. Paulo Apc.: «Etorri zan Aaron Sacerdote nagusia sacrificioacaz, baya onec beré ecin osatu al izan cituzan guizonaren gach eta zauriac; ce Apc. berac diño: ecin leitequean gauea dala, auntzen, eta cece-nen odolagaz pecatuac parcatutea. Baya ¿cer diñot, abere edo animalien odola? Arpelic botaco zan munduaren asiqueratic eta azque-ne-guiño izan ta izango direan[en] odola, etzan asco izango guizonaren gacha osatuteco. Arpelic batuco cirean odol onegaz Aingueru guztien santidade eta merecimentuac, ce ain zan andia guizonac pecatuaren bitartez artu eban zorra, ce guzti guztioac etzirean elduco bera paguetara. Baque andi baten gueuncazan Demonioac bere aguindupean, ez egoalaco ceru luurreco criaturatan indarric bere azpitic aterateco. ¡Ah, guizon gueishoa! Andia da itsasoa leguez zure zori galdua! ¿Noc osatuco zaituz?⁶⁹ Eztago iñondi beré zure gach onentzaco erremedioric.

5. Atera gura euquean Jaungoicoac Demonioaren escupeetic eta eguin bere seme, baya onetaraco qitu eguin bear zan (eutsan) guizonac Jaunaren justiciari (eutsan) zorra, eta ez eucan cegaz. Ebilen Jaungoicoa beguira ea aguiari bazan bere artean guizonagaz bitarteco izan al leitequeanic, baya ez egoan⁷⁰, eta orregaitic guztia egoan estutu eta larrituric⁷¹. Ycusiric Jaungoico andiac ez egoala iñondic moduric bere antzera eta irudira eguino guizona bere zori gogorretic aterateco, abietan da asmetan ea celan biurtu al leion guizonari galdu evan zoriona, ta alan diño⁷²: ¿Cer eguin nei ain laztan dodan guizona erremedietaco?⁷³ Legueac eztauco indarric onetaraco, Sacrificioac eztira asco, orainguiño biraldudodazan Patriarca, Profeta eta osterantzaco nire servitzalleac ecin urratu al izan dituez bere cateac, ecin goia-artu izan deutse Demonioari, ecin quendu al izan dave pecatua. ¿Cer eguingo dot bada guizona galdu eztedin?⁷⁴ ¿Cer derichazue eguingo davela Jaungoicoac? ¿Ce asmu artuco dau pecatua munduti quenduteco? ¿Noc sinistu leique? ¿Nori buruac beré emon leio? *Mittam filium meum dilectum*, biralduco dot, diño bere artean, neure seme laztana, Jaungoico andia. ¿Cetaraco bialdu gura dozu ceru altutic lurrera ceure Seme maitea zugaz izaitte bat eta Jaungoicotasun bat daucana? ¿Da, bada, castigu icaragarritzoren

⁶⁹ Quis medebitur tui.

⁷⁰ Vidit et non erat vir. Is. 59,16.

⁷¹ Et aporiatu est quia non est qui occurrat. Is 59,16.

⁷² Quid faciam?

⁷³ Quid faciam?

⁷⁴ Quid faciam?

bat eguiteco guizonacaz, zugaz eguin daudeen esquer gaistoac gaitic? ¿Edo uriolez lurra estalduteco Noe-ren egunetan leguez? ¿Edo ceruco suagaz erretaco mundua zure contra eguin dituezan pecatuac-gaitic anchina Sodoma ta Gomorra leguez? Ez, Cris.c, ez, eztau onetara biralduten Jaungoicoac bere Semea⁷⁵ ezpada mundua salvetaco⁷⁶.

6. Eta ¿celan bialduten dau ain maite daven Seme au? Ez Jaungoico bateri datorquion anditasunagaz, ez ceruco Erregue bateri datorquion gloriagaz; biralduten dau, diño S. Paulo Ap.c, pecatuzco araguiz yanciric, gure pecatuac bere ganean dituzala eta eurac gaitic mempeco, edo esclavo eta madaricatu eguinic yoten dau, azotetan dau, zaurituten dau, birrinduten dau, ilten dau curutze orretan dacusuen moduan. Aror pecatari itsua, cer bear izan dan zure pecatua mundutic quenduteco; (172) aror celango osasunguei, edo medicinaea bear izan dan zure zauri eta gachac osatuteco; aror celango precioa bear izan dan zure zorrac quitu ta paguetaco. Erdue, erdue, Adanen Semeac, curutze onen oñetara, baita icusi eguizue cer eguin dozuen ceñen pecatuacaz. Gachezco uriolez eztaldu cenduan mundua, eta uriola oneec quenduco bacirean, Jaungoico bat ondatu bear izan da neque, pena eta tormentuzco uriola garratzetan, ceintzuc sartu yacozan arimaguiño. Zuec arrotu eta puzturic Jaungoicoaren contra, eta arroqueria au quenduco bazan, Jaungoicoa bera humildu bear izan da eriotza-guiño, eta curutzeco eriotza-guiño. Eguin cinduezan Jaungoicoac bere seme, eta zuec iges eguinic Jaungoicoaganic, eguin ciñeen Demonioaren aguindupeco; urtengo bacenduen bada, ugazaba gogor onen azpitic, eta biurtuco baciñeen Jaungoiaren seme izaitera, Jaungoicoa eguin bear izan da guizonaren seme, eta igon bear izan dau curutze orretara, orche urratu, eta yosteco Demonioac zuen contra eucan escriturea. Beguira curutze orretara, orche orche ezagutuco dozue noguiño elduten dan pecatuaren anditasuna.

(172)

7. Orretan beré, Ne.C.c., ezta ecetan beré obeto ezagututen pecatuaren icaragarrizco gogortasuna Jaungoico baten eriotzan bashen. Andiac dira pecatuac munduari ecarri deutzazan calteac. Urioleac luur guztia estaldu badave, eta zortzi guizonez besteac ito badira, yausi bada cerutic sua eta erre badituz uri osoac, guerreac erri, Provincia eta Erreinu zabalac ermu ishil biurtu badituz neque lan, atsacabe, naibague, sotin, cizpuru, premiña, ta larritasunez inguraturic badagoz, pecatuac ecarri dituz gach guzti oneec. Baya ¿au guzti au

⁷⁵ Non misit Deus Filium suum in mundum ut iudicet mundum.

⁷⁶ Sed ut salvetur mundus per ipsum.

cer da Jaungoico baten eriotzearen aldean? Ezta au pecaturic euquelaco, ez peccataria zalaco, ezpabere pecatu antzeco araguiz yanciric egoalaco. Aushe bacarric asco izan zan bere Aitaren aserracuntza guztia bere ganean yausteco, eta bere arerioric gogorrena bailitzana leguez curutze orretan dacutsuen moduan ifinteco. Beguira, guizona, celangoac direan pecatuac eguin deutzuzan zauriac, ce osatu bacirean J.C.^o. zauritu bear izan da, diño S. Bernardo-c⁷⁷. Goia-artu eutsan J.C.^oc pecatuari; baya pecatuac berac beré goia-artu eutsan celanalan J.C.^o.ri. Yl evan J.C.^o.c pecatua; baya pecatuac berac beré il evan Jaungoicoa. Arerio esquerguea Jaungoicoa pecatuarentzat, baya arerio esquerguea pecatua bera Jaungoicoarentzat. Arerio bi onen artean yazo zan arcal icusi ecin direan guizon biren artean yazo leitequeana. Urteiten daudee peleetan, eta biac gueratuten dira ilic, batac besteari emon deutzan golpe ta zauriacaz. Goiartute carua benetan, bada irabazteco bota bear dau zanetaco odol guztia, eta galdu bicitzea eriotzaric lotsagarrienagaz.

8. Cer izango zan gugaz, Js laztana ceu gure bitarteco zure Aita-gaz izan-ez-ic? Guztioac uts eguin guenduan ardi galdu, deslai dabiltezanac leguez, guztioac sartu guinean gure bide oquerretatic. Galdu guintzan guztioac, eta ez egoan iñondic beré gu aurquitu guñaiquezanic. Zuc, o Arzain arduratsua, urten cenduan Aita ganic gure billa, eta aurquitu guinduzuzan; baya celangoac guengozan? Sarna atsitu bategaz ustelduric, zauri icaragarrizcoz beteric, zorren pisu andiagaz zapalduric eta infernuco otso amurrutuaren erpe ta aguin artean. Guztiz erruquituric gu ain negargarri icusiagaz, artu guinduzuzan zure lepoan, eta orra non erantzi gueuntzuzan guere sarna, gueure escabi, eta gueure gach guztia. Bay, Jauna, gu osatutarren zukan artu duzuz gure gach, eta gure ala ta miñac⁷⁸. Ain modutan bete dogu gure sarna atsitu, eta escabi ustelez ce, eztau aguri arpeguia beré, eta alan ecin ezagutu leique⁷⁹. Baya, Js. laztana, ¿cer dira ceure escu, oiñ bular eta gorputz guztian dacusdazan zauri orreec? ¿Cer da ceure buruan dacusdan coroe burlazco ori? Etzara ceu, Jauna, Aita beticoaren Seme maite, ceinegan daucan iminiric atseguin guztia? ¿Celan bada yausi da bere aserre guztia zure ganean? Etzara ceu araco Jaun andi noen aurean bildurren bildurrez icara dagozan ceru-lurreco guztia eta nor adoretan daven aimbat milla millinoe Aingueruc belaunico yarri eta auspaz lurre-guiño macurturic? Nondic

⁷⁷S. Bernd. Agnosce, homo, qualia sunt vulnera pro quibus necesse est Christum Dominum vulnerari.

⁷⁸Vere languores nostros ipse tulit, et dolores nostros ipse portavit.

⁷⁹Et quasi absconditus vultus ejus, unde nec reputabimus eum.

nora bada dagoz madaricatu eguinic urcamendi orretan esqueguiric, narrugorrian billosic guztien burla ta barregarri? Etzara ceu araco Jaungoico benetacoa, nogan bici garean, gabiltzan, eta izaitea dauca-gun? ¿Nondic nora bada zagoz arnasa bagaric, odol bagaric, guizonaren antzic beré (173) bagaric, guztiori mallatu, puscatu, eta birrinduric? Madaricatura izan deila nire pecatua, ce bera da zure borregu cruela. Alanche bear gueunque guere miñ eta eguiqueracaz: baya gagoz emetic, bada yaquin arren cer costa zan gu pecatupetic ateratea, lotsabagatasun andienagaz biurtuten gara pecatupeera; aushe da nire

Bigarren zatia

9. J.C^o.c atera eguin guinduzan bere odolagaz Demonioaren agindupeetic, baita igaro eguin guinduzan bere Erreinura, diño S. Paulo Apc. Onetaraco igon evan curutze orretara, ichi evan yosiric curutzean, eta quenduric gueure arerioac euquen guztia, irabaci evan eurac ganic goitute edo vitoria, eta triunfo miragarri bat, dino Ap.c berac. Curutze orretan il eguin evan eriotzea, erbestetu ta campora bota eguin evan pecatua, zapaldu evan Infernua, idigui Cerua, eta leen Jaungoicoaren arerio guineanac, ez bacarric eguin guinduzan bere adisquide, baita bere seme, eta bere ondasun guztien yaubeguei edo herederu. Orra ce mesede arrigarriac eguin euscuzan J.C^o.c bere eriotzeagaz. Baya, ¡o guizonaren itsumendi negargarria! ¡o pecatariaren astuntasun bildurgarria! Ez bacarric ez deutzaz emon gura Jaunari esquerrac eguin deutzazan on pare baco oneec gaitic, ez bacarric ez dituz gomuta, ezpabere ilundu gura dau J.C^o. ren goi-artute edo vitoria andia, barriro biztuten dituzala Js. maiteac il eta zapaldu eguin cituzan arerioac.

10. Bai pecatari sensun baguea, aushe da pecatu bacotzean eguiten dozuna: J.C^o.c galduten dau bicitzea pecatua iltarren, eta zuc biztuten dozu pecatua zure arimearen eriotzeagaz. J.C^o.c quenduten deutso Demonioari zure ganean eucan nagusitasuna eta escuicunea, eta eguiten zara barriro bere aginduco ta bere escupeco. J.C^o.c quenduten deutso Demonioari zure contra eucan escritura, borretan dau, urratuten dau; eta yosten dau curutze orretan, eta zuc eguiten dozu escritura barria Demonioagaz, ceinen bitartez ezagututen dozu ceure ugazaba ta nagusizat. J.C^o.c botetan dau bere sanetaco odol guztia, eguiten dau osasunguei, edo medicina cerucoa, garbituten dituz beragaz zure loiqueria atsituac, osatuten dituz zure zauri guztiak; eta quenduten deutzaz gach ta gueisho guztiac, eta zuc

quenduten dozu zuganic Jaungoicoaren odolezco osasunguei au; ezarten dozu luurrera, eta zapalduten dozu, loituten dozu arimea; idiguiten dozuz leengo zauriac bashen andiagoac, eta betetan zara leengo gacha bashen andiagoagaz. J.C^o.c madaricatu eguinic curutze orretan galduten dau bere bicitzea zu zorioneco eguitarren, eta zuc naiago dozu madaricatu izan bedeincatu baño. J.C^o.c emoten dau daucan guztia, ezteutso parcatuten bere odol, eta bere bicitzeari zure arimea erostarren, eta zuc guraari citel bategaitic ondasun apur bategaitic zabalduten deutzazu Demonioari Jaungoico baten odola, eta eriotzea balio daven arima ori.

11. Js. ona, ceuc esan cenduan curutze orretara igon cenguianean campora botaco cenduala Demonioa; eta gauza guztiac eroango cenduzala zugana; baya pecatari itsu eta astunac guzurtadu gura zaituz, ez leuque gura bete edo eguin dedin zure esana, bada bere biotzean emoten deutso bicilecua Demonioari eztaguian euqui cer urten campora. Eztau gura curutze orretan zugana eroan daizuzan gauza guztiac, esan cenduana leguez; bada icusi ez dedin eguia au, ezteutsu emon gura bere biotza, galazo gura dituz zure aleguin guztiac; guraago deutso Demonioari emon ceuri baño; guraago dau bere arerioaren sar lecu eguinic euqui, zure baño; gueiagotan dauco guraari apur citel bat ceuc ceure eriotzeagaz irabaci ceuntsan betico gloria baño. Zuc esan cenduan Moyses-ec ermuian suguea eregui evana leguez, alanche conveni zala ceu curutze altu orretan egotea, ceu icusten cinduzanic galdu ez dedin, eta bai guztiac euqui eguien betico bicitzea; baya pecatari gogorrac ezteutsu ceuri beguiratu beré eguin gura, bere beguiac zarratuten dituz ceu ez icustarren. Naiago dau Ynfernuc sugue madaricatuac pecatuaren veneno gogorragaz il daguian, curutze orretara ceugana elduagaz betico bicitzea euqui baño. ¡Zoraqueria sinis-ez-garria benetan guizonarena! ¡Astutasun bildurgarria!

(174) 12. Cristiñauia, ¿non da zure fedea? ¿Non da zure arrazoia? ¿Non da guichienez zure sensuna? Jaungoico (174) bat daucazu beguien aurrean curutze orretan yosiric, azotaduric, zaurituric, odolozturic eta ilic; ta ¿orregaitic bere gueiagotan euquico dozu Demonioac isquintzen deutsun guraari apur bat, Jaun orrec irabaci deutsuzan ceruco ondasun ugariac bashen? Benetan diñot eztaucazu federic, ez errazoeric, ez sensunic. ¿Ba'quizu cer derichadan yazoten dala Jaun orregaz eta zugaz pecatu eguiten dozun bacochean? Ara obeto eza-gutu daguizun zure pecatuaren anditasun icaragarria. Derichat, bada, zacusdazala Jaun orren eta Demonioaren artean. Bioc eguiten daudee aleguina zu erosteco. Alde batetic Jaun orrec bere besoac zabalic dei eguiten deutsu curutze orretaric, eta beragana eroateco

ifinten deitsu beguien aurrean cer eguin daven zugaitic. Beguira curtze onetara, dirautsu, eta icusico dozu noguiño eldu dan nire zuganaco amodio eta ongureac. Ain modutan galdu cinean ce, ez egoan noc atera cenguizan estaduric negargarrietic neu zure erruqui izan ezpanintz. Zu pecatupeeric aterateco enevan biraldu Aingueruren bat, ez serafinen bat, ez Querubinen bat; neu izanîc guztien Jaun, Jaungoico eta Yaube yatsi nintzan cerutic luurrera, eta eguin nevan oraindio gurasoric maiteenac eguin eztavena semegaitic. Zugaitic yaio nintzan abel-etsechu pobre baten, zugaitic bici izan naz ogueta amairu urtean neque pena, gose egarri, otz, bero, icerdi ta pobreza artean. Zugaitic artu ditudaz bost milla azote ta gueiago; zugaitic zulatu deust neure burua arantzazco coroe icaragarri batec; zugaitic gueratu neure gorputza zauri andi bat eguinic burutic beatzera, zugaitic igon nevan curtze gogor lotsaari ta iltsaltsu batera; zugaitic emon nevan neure zanetaco odol guztia, eta zugaitic galdu nevan bicitzea eriotzaric icaragarrienagaz. Nai badituzuz eguia onen testiguac iracorri eguizuz beguiac curtze onetara, eta icusico dituzuz. Testigu dira nire gorputz au estalduten dituezan zauriac. Testigu nire buruan dacutsun coroe au; testigu yosiric nauquen untze oneec; testigu nire gorputz zatitu, banatu, odoloztu eta birrindu au; eta testigu curtze au non nagoan esegui eta ilic, lapur guesto eta madaricatu bat leguez. ¿Cer gueiago eguin neunquean zugaitic eta e-nevan eguin? Eta ¿au guzti au ezta asco zure biotz ori irabazteco? ¿Ezta asco izango zu esquer oneco eguiteco? ¿Zu nigana ecarteco? Bada ezpazara nigana etorri gura esquer oneco, erdu guichienez beti betico zorioneco izatarren. Neure eriotzeagaz idigui deitsudaz zuc zure pecatuagaz zarratu cenduzan ceruco ateac, ainche daucadaz zuretzat gorderic, ez beguiac icusi, ez belarriac enzun, ez gogotara eldu al leitequezan neurri bagaco pozac, azquen bagaco atseguinac, eta cabu bagaco gloria. Erdu bada nigana Jaungoicoaren seme izaitera, ceruco Principe, eta ondasunen yaube.

13. Beste aldetic deieguiten deitsu Demoniñoac, eguiten dituz aleguinac beragana eroateco. Ecin esan leiquezu mesederic eguin deitsula, bada beti eguin deitsu al daguian gach guztia; baya esquinzen deitsuz beragana bazoaz guraari citelchu bat, ondasun bertatico bat, diru apur bat, eta guericea bashen eztirean gustu amesac; eriotza zori galduco bat, infernu icaragarri bat, su bildurgarri beti betico erretan egongo dan bat, tormentu, ala, neque cabubaga, azquen bago iraungo daven batzuc, eta atsacabe, naibague, desesperacino eta gach guztiz beterico eternidade madaricatu bat. Orain bada, ¿noren aleguinac izango dira altsu edo poderosoagoac zure biotza irabazteco aimbeste mesede eguin deitsuzan Jaungoico orrenac, edo

al daian gach guztia eguin deutsun Demoniñoarenac? ¿Noen deiac ezunzun gurago dozuz ceure eguille, ceure Jaungoico, ceure onguille, eta ceure erredentzaile orrenac, ala ceure arerioric gogor eta crueleenac? ¿Nor euquico dozu gueiagotan J.C.^o ala Demoniñoa? ¿Nogana yoango zara? Noc esango ez leuque Jaun onen lenengo deira etorricozareala ichiric ceure arerioa, bere asmu guztiacaz. Baya o pecatari itsuaren zoramendia! Botetan dozu ceugandic Jaunaren leguea⁸⁰; erantzuten deutzazu Jaunari: eztot zure servitzaille izan gura⁸¹. Lotsabagatasun icaragarriagaz emoiten deutzazu atzea Jaun orreri, eta zoaz arin aringa ceure burua Demoniñoaren escuetan ifintera, ezagututen dozu bera zure Ugazabatzat, eta eguiten zara bere agunduco. ¿Ucatu cinaique aushe eguiten dozula pecatu bacochean? Ori ecin ciñai, ce Jaungoicoac berac diño ce, pecatariac pecatu eguiten davenean, atsea emoten deutzala, beraganic iñes eguiteco⁸². J.C.^o.c berac diño ce, pecatu eguiten davena pecatu eta Demoniñoaren escupeco eguiten dala⁸³.

(175) (175) 14. Aushe da pecatari zoro, eta sensun ba'coa Jaun oneri zor deutzazuna eguin deutzuzan mesedeac gaitic, euqui deutsun amodioagaitic, eta zugaz artu daven ardurea gaitic?⁸⁴ ¿Ezta zure Aita maite ecerbere ecetatic eguin cenduzana, zaindu ta yagon zaituzana?⁸⁵ Gomuta eguizuz araco anchinaco egunac, eta icusico dozu cellan aurquitu cenduzan pecatuaren basamortu itsaltsu, eta bildurgarrian, eriotzara condenaduric, euqui bagaric noc atera cenguizan, abere edo animalia uzuen atzamarretatic. Berac euqui evan zure erruqui, eta eguinic zure arzain artu cenduzan lepoan, eta eroan cenduzan bere Aitaren etsera. Zuri mesede au eguitarren artu dituz bere ganean zure gach guztiac, eta eurac gaitic gueratu da curutze orretan dacutsun moduan eta alambere ezta au guztiau asco izan zu esquer oneco eguiteco ceure onguilleaganaco, bada ichi cenduan eguin cinduzan Jaungoicoa⁸⁶. Aiztu eguin cenduan zure Jaun eguillea⁸⁷ yausi eguin cinean Demoniñoagan. Euqui cinaique guichiagotan

⁸⁰ A saeculo confregisti jugum.

⁸¹ Et dixisti non serviam.

⁸² Verterunt ad me tergum, et non faciem.

⁸³ Qui facit peccatum servus est peccati.

⁸⁴ Haecine reddis Domino popule stulte et insipientes?

⁸⁵ Numquid non ipse est pater tuus qui possedit te, et fecit et creavit te?

⁸⁶ Deum qui te genuit dereliquisti.

⁸⁷ Oblitus es Domini creatoris.

Jaungoico baten eriotzea; eguin cinaio despicio andiagoric ceure Jaungoico eta onguilleari? Ay Ne.C.^a, zure esquer deunga oneshec emoiten deutsa Jaun orreri nequeric andiena. Eztave aimbeste necatuten zauri orreec, ultze orreec, coroe orrec, eta curutze orrec, cein da zure itsumendi, eta beraganaco gogortasunac; oneshec deadar erazoten deutso curutze orretaric⁸⁸. Nos artean izango zara nire are-rio? Nos artean ibilico zara niganic iguesi?⁸⁹ ¿Nos artean nai dozu icharon daizudan?⁹⁰ ¿Nosh artean euqui gura nozu curutze onetan? Ezta nosh edo nosh demporea nigana biurtuteco, eta neure pasiño, odol eta eriotzeagaz erosi nevan arima ori biurtuteco? Erdu, erdu ceure Aita gana seme galdua, biurtu eguin zaitex Ama batec bashen laztanago zaituzan Jaungoicoagana, eta niganic gueiago iñes eguin ce daguizun, sartu naguizu ceure biotzean. Cristiñaua, etzaitex gor izan Jaun onen deietara, bada zure biotzean sartu gura badau, ezta zure bear dalaco, ezpada zu ceruco ondasunez betetaco; emon eguiozu atseguin au ceure biotzean, eta eguin zadiz Jaunaren gorputzaren yaube. Erdue bada, erdue pecatari guztio, igon eguizue Jaunaren mendira icustera ce icaragarria dan pecatuaren gogortasuna, eta cer bear izan dan bere gachac mundutic quenduteco; baya eldu gaitexan araco curutzearen oñean dagoan Jaungoicoaren Amaren bitartez.

15. ¡O Ama, neque, pena, atsacaba, eta naibaguez betea, ba'quigu gueuc zauritu doguna zure biotza, gueuc gueure pecatuacaz bicitzea quenduric ceure erraietaco Semeari, eta eztoguna orregaitic mereci ceure seme izaitea; baya daquigu beste aldetic ceu emon deuscuna gure Amatzat; oneshec emoten deuscu ceugan confianza andi bat, bada pecatari andiac izan bagara beré, daucagu ceure Semeari biotza emoteco guraari andi bat, baya leenago nai gueunque ondo garbitu gueure pecatuac, damu benetaco bategaz, izan dedin obia edo sepultura barri bat non atseguin artu daguian zure Semearen gorputz orrec. Alanche izango da gure bitarteco bazara. Betor gure barrura, bada, Jaungoico eta guizon eguiazco ori, berorregaz etorri daquigun on guztia. Jaunaren serbitzalleac igon eguizue curutzeco arbola orretara, eta eretzi eguizue or dagoan frutu bedeincatu ori, ceinec quendu daüen mundutic, Adan anchinacoac arbola bateco (176) frutuagaz ecarri euscuzan gachac.

(176)

⁸⁸ Usquequo adhuc.

⁸⁹ Usquequo adhuc.

⁹⁰ Usquequo adhuc.

Errotulua

Quendu eguizue curutze orren goian dagoan ol ori non dagoan escribiduric curutze orretan ilic dagoan ori dala Juduguen Erregue. Eroan eguiozue bere amari. Ezteutso asco erechi ceure Semeari, curutzetic esanari euqui gaguizuzala zure semetzat, ta guri artu zaiguzala gueure amatzat, nai beré dau izan zaitezcan munduco Erreguina, zaindu gaizuzan guere arerio gogorrac ganic. Artu eguizu, Anrea, Ceruetaco Erregueac emoten deutsun officioa, ta ezagutu gaguizuz ceure serbitzalletzat; bada izanic gure aguintari eta gordetzalle, eztaucagu iñoen bildurric.

Aranzazco Coroia

16. Quendu eguizue, guizon erruquiorrac, Jaunaren burutic icaragarritzco coroe ori, eta eracutsi eguiguzue guztioi, ezagutu daguigun gure pecatuen anditasuna. Orra ce frutu emon daven, pecataria zure biotzeco mastuiac. Jaun orrec landaratu, achurtu, garbitu, eta yagon evan ardura chitozco bategaz, eta uste evanean santidade ta virtute mats gozoac emongo cituzala, etzenduan ecarri sasi eta arancea baño, ceinecaz zulatu dozun Jgco orren burua. Eroan eguiozu Erreguiña penaz beterico orreri, ezagutu daguian coroe orretan, ce andiac direan gure gachac. Ar'or, gueure Ama ona, ce esquer moduac emon deutsagun ceure semeari, eguin deuscuzan mesedeac gaitic; baya ezagututen dogu, gueure Ama ona, gueure itsumendia, eta atera gura doguz sustraitic pecatuaren arantza guztiac euren orde emon daguian gure biotzeco lurrac Santidadeco frutu gozoa.

Ulceac

Urten begui Jaun altsu edo poderoso orren escoia yosiric euqui dauen untze gogor ori, yatziric guganuntz artu daguiguzan bertan dagozan bendiciño ugariac, merecidu daigun alde orretatic egotea ardi bedeincatuac leguez mundu juzguetara datorrenean, enzun daigun bere bendiciño gozoa. Urten begui ezquerretico orrec beré, artu daiguzan escu orretan daucazan ceruco ondasun ugariac, euracaz aberazturic, pagadu daiguzan pecatuagaz artu doguzan zorrac, quenduric gueure ganetic euren pisua, eregui al daigun burua, bere azpitic ifiniric Jaun orrec ezquerra, emon daigun beti laztana. Atera eguizue aimbeste pausu eder eguin dituezan oñ orrec yosiric daucazan un-

tze gogor ori. Untze gogor ta indartsua benetan, bada eldu da yosiric euquitera, araco mundu guztia aulquitzat dauquezan oñac, araco Demoñño, eriotza ta infernua zapaldu dituezanac. Eroan eguizuz bere amagana. Orra, Anrea, celango burdinagaz yosi daüen gure pecatuac zure Semea. Guc eguin doguz il-ultze orreec, gueuc zulatu doguz eurocaz zure Semearen escu ta oñac, eta gueuc euracaz yosi dogu curutze baten. Ondo ezaguturic daucagu eguia au, eta alan gura gueunque untze orreec yosi daiezan gure escuac, gauza deungara zabaldu eztaiguzan gueure oñac, bide oquerretatic ibili ez gaitetzan, eta gueure araguiac, Jaunaren bildur santu bat euqui daigun.

Gorputza erestea

17. Betor curutze orretaric gugana orraco Adan barri ori, quendu daguian guganic Adan zarraren irudia, ta barriztadu daguian paradisuian galdu zana. Betor betor gorputz birrindu ori, ce ain zatitu, ain ezainic badago beré; guizon antzic ezpadauco beré, orche dago Jgco-tasuna bere ondasun guztiacaz gu aberaztuteco. Eroan eguioezu bere amari. *Fera pessima devoravit (filium)*⁹¹. ¡Ay ene penea! diño cispuru artean Erreguiña triste onec; pecatuaren abere uzuac il dau nire semea, berac lotu dau soca eta catea sendoacaz; berac zatitu, zauritu, eta odol ustu dau. Baya ¡ene Semea! ¿Ce gach eguin deutsezu guizonai modu orretan imini cenguiezan? Ostu dozuz ondasunen batzuc, il dozuz guizonen batzuc, edo eguin dozuz beste calte andiren batzuc? Ez, ene Semea, ecin daitequean gauea da, zuc onelango gauzaric eguitea. ¿Cegaiti zacusdaz, bada, guizonic guestoena baño gogorrigo castigaduric? Badaquit, Seme laztana, guizonac ganaco amodioac eguin daüela au guztiau zukan, eta guztiau bear izan dala urtengo beevan pecatupeetic. Baya ¡ay celango penazco ichaso mingotzean ondatu dozu zure ama au! ¡Ay ene Semea!

Yenteari eracustea

Quendu eguiozue aurretic Virginia orreri bere Semearen gorputza eta eracutsi eguiozue guizonari. Ara pecataria sensun baguea, cer eguin dozun Jgco bategaz. Zu, zu izan zara modu orretan ifini dozun borregu cruela. Zuc zatitu deutzazuc bere araguiac; zuc zulatu deu-

⁹¹ Genes. 37.v.33.

tsazuz escu eta oñac; zuc yosi dozu curutzean; zuc bota eraso deutsa-
zu bere zanetaco odol guztia. Eta oraindino beré beste aimbeste
eguiteco gogoaz zagoz? Yratzartu zaitez nos edo nos pecatuaren lo
zorrotic, eta icusi eguizu noraiño eldu dan zure gogortasuna, ta arritu
ta bildurturic ezauquera onegaz esan eguiozu ceure biotz guztitic.
Ne.J.C^o. Jauna.

3. ATALA

1. AUTSEN EGUNERACO SERMOIA

(B, 161-166. or.)

Memento homo quia pulvis es et in pulverem reverteris.
Gen. cap. 3.v.19.

(161) Eguinic Jaungoicoac gure lelengo gurasoa bere antz edo irudira, imini eban paradisuco gozatasun, eta atsegin artean mundu guztiaren aguintari. Zorionecoa izango zan Adan ezagutu gura izan baleu bere Eguille andiaren escuetatic arturico mesede neurribaco au, bada elduco zan nosbait betico gloria artutera. Baya etzituzan ezagutu, eta arroturic, sugue madaricatuaren berba labanacaz artu cituzan Jaungoicoa beste izaiteco asmu zoroac. Yan eguin eban Jau-nac eragotzirico sagar garratza, eta enzun eban pecatu onen castigu Jaungoicoaren aotic bere eriotzaco sententia. Luurra zara, dirautsa bere onguilleac, eta luur biurtuco zara. *Pulvis es et in pulverem reverteris.* Sententia itsaltsua benetan, baya baita misericordia ta ontasunez betea, bada ecarri beeban lelengo guizonac bere ganera bere soberbia-gaitic sententia aushe berau da arrotasun onen osasunguei edo medicinari alsu eta poderosoena. Pecatu eguin beeban gure le-lengo buruac yagui bazan Jaunaren contra bere burua ez ezaialaco eguin bevan zoraqueria au; yaquin eguian bada nondic etorren, eta cetan gueratuco zan adi-erazo eutsan gure Yaubeac sententia. Aushe berau gugaz eguin gura dau Elesha santeac gueure buruan autsa iminten deuscunean urtean bein. Gura dau ezagutu daigun gure ecer-eza, humildu gaitazan ezauquera onegaz. Nai dau yaquin dai-gun cetan gueratuco garean penitencia eguitera biztu gaitazan, eta orregaitic dirauscu: autsa zara, eta auts biurtuco zara. Esango baleuscuna leguez. Zareana zareala nai Marques, nai Conde, nai Du-que, nai Erregue etzara beste gauza bat auts pusca bat bashen. Orra cetan gueratuco direan diruac, ondasunac, edertasuna, indarrac, eta munduan direan beste gauza guztiac. Etzaitetz bada arrotu euren yaube izanagaitic; Aror cetara etorri dan gura dituzan guraari guz-tiac emoiten deusazuzan gorputz ori ifini eguizu bada arimearen aguindura penitenciaren bitartecoa. (162) Aushe da Elesha santeac guganic atera gura daven frutua autsa buruan iminiagaz. Aushe be-
rau da nic adierazo nai neuquezuna gosh onetan puntu bitan, cein-

tzuc emongo daveen sermoiaren guei edo asuntua. Artu dogun autsac adierazoten dau mundu onetan euqui al daigun guztia eztala irudi igarocor bat bashen, eta orregaitic ez gara arrotu bear eurac euquiagaitic, lenengo puntua. Artu doguzan autsac dirauscue gure gorputza auts biurtuco dana, eta orregaitic penitencia pean euqui bear dogu, bigarren puntua. Berba baten, gaurco autsac dirauscu cer dan mundua, eta cer garean gu. Yaquituria andia bene benetan, eta guztiz bearra, bada baleuque guizonac ez litzatequez aimbeste adicatuco ondasun galducurren billa, ez litzatequez aurquituco aimbat guizon munduco ondasunac gaitic amurruturic.

Lelengo zatia

- (163) (163) Gueriza utsa da munduan dagoan guztia diño Salomon-ec. Alperric ibilico da guizona bere guraariac emen anditzat daucaguzan gauza guztiacaz beteetan; bada ezta iños beré elduco contentu egotera. Salomon-ec berac iñoc baño obato ezagutu evan eguia au. Esan evan bere gogoan emetic aurrera batuco dodaz guizon batec euqui al leizan gozatasunac ta bicico nas olgura artean. Guraari onegaz urteiteco ustiagaz eguin cituzan yauregui, edo palacio zoragarriac, imini cituzan maaztiac, eguin cituzan ortuac, bete cituzan fruta genero guztiacaz, batzandu evan guztiz ugari urrea, cirarra, eta arri balioitsuac, eucazan nai cituzan otsein eta criaduac, ez eucan neurric bere ondasunac, bada beretzat zan provincia, eta erreinu areetan bazan gauza onic. Echacazan falta ardao gozoric ez yanari ederric, ez cantore enzungarriric. Azquenez guztia beingoan esaterren, ez eutsen ucatu bere begui eta biotzari nai al leiqueen gauzaric. Ycusi evanean bere burua aimbat gozatasunez inguraturic uste izan evan eldu zala guizon batec euqui al leizan zorionic andienara, eta bera zala munduan aurquitu zan, edo aurquituco guizonic suertetsuena. Baya imini cituzanean bere beguiac bere azquenengo egunean, eta icusi evanean cetan gueratuco cirean aimbeste neque eta arduraz beteric ondasun oneec bertatic ezagutu evan ez zireala ashe pusca bat baño eta alan deadar eguin evan; *Vanitas vanitatum et omnia vanitas*. Alperric adicatu nas, alperric necatu nas ondasun eta olgura onen atsean, ce eztira ecer, guztia da utsa.

Eta orretan beré Cristiñaüac, eztago munduan eriotzea bashen juez artzagaric. Berac dirauscu mundu onetaco anditasun eta naguitasuna eztala satz pusca bat bashen, ondasunac auts zati bat, gorputzeco edertasuna guzturtia, honra eta lecu altuac ashea, eta munduco guizonac anditzat dauqueen guztia ecer bere ez. Mundu onetan

gagozan artean uste dogu guizon batzuc zorionecoac direala eta beste batzuc zori galducoac dacuscuzalaco lenengoac yauregui edo palacio zoragarrietan, bigarrenac barriz burua non sartu eztaunqueela; areec dagoz yanari gozoz aseric, oneec ateric ate esquean ogui copau bat cer yan baleuqueela; batzuc dagoz soñeco zoragarriz apainduric, eta beste batzu araguiac aguirian: batzuc ondasunez yosiric, otseinez inguraturic olgura eta gozotasun artean, eta beste batzuc pobrerice bacarric, neque lan eta naibaguepean macurturic. Baya ez eguizue sinistu eurenac dituezala diru, ondasun, yauregui eta yanci eder orreec, ñoenac dira, prestaduac dira (eta ondasun, yauregui, eta yanci eder areec besteganic artuta dauquez), eta baderichazu au eguia ez-tala yarraitu eguiezu euren etsera cein dan obia edo lurpea, eta anche ezagutuco dozu cer direan. Ainche icusico dozuez guztiac nastauric aberatzac pobreacaz, andiac chiquiacaz, aguintariac esquecoacaz, ugazabac otseinacaz, yauregui apainduetan bici cireanac chaboleetan echuten cireanacaz. Eztozue or ezagutuco cein dan coroe urregorriccoagaz egon oi zan burua, eta cein estalgui zaarrragaz, nor dan erregue eta nor menpeco, ez nor guizon arro erropa arrigarrizcoz yancia, ez nor alsi osoric ez eucana, ez cein dan principe ez cein dan achurlari: guztiac dagoz bardinduric, guztiac nastauric, calaberac calaberacaz, azurrac azurracaz, autsa autsagaz. ¿Non dira orain araco olgura atseguin, ondasun eta arrotasun artean bici cirean Erregue, Duque, Conde, eta Jaun andiac? Yl cirean, eta yatzi cirean luurpera, obi batera sepultura batera. *Distenti sunt, et ad inferos descenderunt.*

Baya ez yoan ain urrin, beguiratu eguizu cer yazo dan ceien egunetaco ezagun, adisquide, aide eta gurasoacaz, eta ezagutuco dozue dirautsuedan eguia au. Erdue bada eta icusi eguizue (164). *Veni et vide.* Achurtu eguizue sepultura ori. ¿Nor da aguri dan ori? Ori da araco Jaun andi aberatsa. Eucazan ondasun andiac, hacienda zabalac, eta diru ugariac. Eucazan yauregui ederrac, guela apainduac, yanci zoragarriac, eta nai cituzan gauza guztiac. Bere aguindura eucan erri guztia, bere esana eguin bear zan alde guztietan, bere berbeac bildurrez betetan cituzan guztiac, eta ez egoan bere borondatea baño beste legueric. Aror bada celan dagoan orain, ce bacar, ce pobre, ce billoz. ¿Non dituz araco etse ederrac, non guela apainduac, non diru andiac, non bere arrotasun andigura eta aguintasuna? Galdu dau guztia. Etzirean bereac, pretauric emon eutseezan, etorri zan eriotzea, eta gueratu zan ain-bagaric. *Veni et vide.* Erdue gizon gazte sendo, indartsu eta buru erechia, idigui eguizu sepultura ori. ¿Nor dacutsu or? Ori da zure araco lagun maitea. ¡Ay ce mutila zan bere demporan, ce sendoa, ce galanta, ez egoan erri guztian bera

(164)

langoric, ez egoan noc escuric ezarri eion; ce gorputz ederra, ce conversasiño gozoa, ce lagun ona, ce adisquide benetacoa, ez eucan bere gauzaric; berac berba eguiten evanean guztiac eucazan aoa zabalic. Erdu bada, eta icusi eguizu celan dagoan araco gorputz sendoa, ezta azur pillo bat bashen. Beguiratu zaitetz, beguiratu zaitetz espillu orretan. Olanche aurquituco zara dempora guichi barru. *Veni et vide*. Erdu nescatilla zoroa, idigui eguizu obia edo sepultura ori. ¿Nor da or dacutsun ori? Da zure lagun laztan bat. O ce nescachia zan, ce arpegui ederra eucan, ce azal zuria, ce gorputz zoragarria. Erromeriara yoianean mutil guztiac egozan bere beguira zoraturic ebiltzan bere atsean, bere ullea bacarric zan asco edocein edertuteco. Erdu bada, eta icusi eguizu, cetan gueratu direan miraarizco gauza orreec guztioc (guzti orrec). Araco arpegui miraarizcoa dago calabera eguinic, azal zuria baltzituric, gorputza ustelduric, eta araco ulle non eroian bere ardurea eta cein apainduten evan sereni eta lazuakaz, ezta aguiari. Galdu cirean erromeriac, galdu cirean yolasac, galdu cirean dantzaac, eta galdu cirean buru atan erabiltzan ashezco gogo arroac. Erdu oraindio urrago, eta icusi eguizuz zuri izaitea emon eutsuezanac. Achurtu eguizu zure aasaben obia edo sepultura ori. Orraco azur pillo ori da zure aita, ar orreec zure ama eta usteltasun ezain, eta atsitu ori zure aistac. *Putredini dixi pater meus es tu, mater mea et soror mea vermibus*. Orra cetan gueratu direan, eta gueratuco direan mundu onetaco anditasun, arrotasun, edertasun eta gozatasun guztiac. Bai Cristiñaiac, eun urte barru Elesha onetan gagozan guzti guztioc ez gara azur pillo, eta luur pusca bat baño izango.

Cer daucagu bada arrotu algaizan gauzaric? Cetan gueratuco da guc euqui aldaigun guztia? Guztia biurtuco da auts, guztia ar, guztia sartuco da obia edo sepultura baten non gueratuco garean guztia-c...aazturic. ¿Cetaco bada, arrotu leiteque guizon bat, auts zati bat baño ez izanic? Da venturaz ondasunac daucazalaco, edo diru ugarien yaube dalaco? Eztituz bereac, iñoenac dira, bapere bagaric yatsico da obia edo sepulturara. Da sendoa, indartsua edo ederra dalaco? ¡Ah! Dempora guichi barru ezta izango azur pillo bat, luur zati bat eta aarren yanaria baño. ¡Ay ce ezain, baltz, eta ustelic aurquituco dan egun guichi barru! Cec bada arrotu leique luur zati bat? Cec soberviaz bete auts pusca bat? Au bagueunca beguien aurean, beguiratuco bagueundu cer garean, cetan biurtuco garean, ez guinatequez aimbeste ereguico. Bete guichitan euquico guinatequez, bete humilduric bicico guinatequez. Aushe guganic nai dau Elesha santeac dirauscunean luurra zara, eta luur biurtuco zara. Gura dau ezagutu daigun gure ecer-eza, ezauquera onegaz gueure araguia arimearen aguindura euqui daigun, eta penitenciaco bidetic ibili gaitazan cein dan opa neutsun.

Bigarren puntua

(165) Penitenciaraco daucagun astuntasun guztia pecatuzco aragui onetari dator dino San Paulo-c, Jaungoicoac Adan eguin evanean araguaia edo gorputza egoan arimearen aguindura, egoalaco arimea Jaunaren aguindura. Baya yagui zanean arimea, eregui zan araguaia bere arimearen contra, eta emetic asi zan araco Apostoluari negar eraguiten eutsan guerra bicia. *Caro concupiscit adversus spiritum, spiritus autem adversus carnem.* Araguia luurrezco eta pisutsua leguez gorroto deutso penitenciarari, eztau gura mortificaciñoa, nequez daroa curutzea, eta nai leuque legue bagaric ibili. Arimeac beste aldetic gura leuque gorde Jaungoicoac emon eutsan nagusitasuna gorputzaren ganean, macurtu bere gogortasuna, quendu bere gurariac eta ifini penitenciapcan. Baya ¿cer yazo oi da? Yarrantuten deutsa arimeac gorputzari, doa bere gurari citelen ondoren, izanic nagusi eta aguintari eguiten da serbitzaile, ichiten deutsa bere gustu citeletan ibiltan, eta sartuten da pecatuaren bide oquerretan, eta doa bere galtzainera. ¿Ce erremedio bada gorputza eciteco, eta araguaia aspertuteco? *Memento homo quia pulvis es, et in pulverem reverteris.* Gomuta izan cer yazoco yacun egun guichi barru, euqui beti gogoan celan aurquituco garean il ezquero.

Bai neure enzula maiteac, eriotzea beguien aurrean euquitea bacarric asco izango da gure araguiari gorroto santu bat euquiteco, eta gorroto onegaz Jaungoicoaren borondate pcen aspiratu, eta eciteco, santu andi eta ascogan eguin evana leguez. Ysabel Erreguñaren gorputz il eta atsitua icusiartu sartu evan S. Francisco Borja-co penitencia icaragarrizco batetic: oneshec ichi erazo eutsazan ondasun, anditasun, olgura eta munduac opa eutsazan honra andiac: berac artu erazo eutsan bere araguiaren contra guerraric biciena, eta berba baten esatarren eguin evan orain dacusgun leezco santu andi. ¿Noc eguin evan Sta. Margarita Cortona-coa pecatari anditic santa miragarri, eta escandalu bildurgarritic birtuteen exemplu? Eriotzaren gomuteac. Nos itsuago ebilen bere gurari loien erdian, nos egoan Jaungoicoaren gueien aazturic, nos yoian arinago infernuraco bidetic, icusi evan bere adisquide galgarriaren gorputz il, ezain, eta atsitua, eta aushe bacarric asco izan zan eroian bide oquerretic atsera biurtuteco, eta ceruraco bide artecekatic sartuteco. Etzaitz arritu; eriotzaren consideraciñoac eguin dituzan aldantza onec icusiartu, bada, ez deuscu ecec beré obeto adierazoten ce igarocorrac direan mundu onetaco gauza guztia, berac baño. Ez dogu iñon beré obeto icusten ce guichitan euqui behar dogun araguaia berac baño. Bera da espillu ciur bat ceinetan dacuscun claru claru, eta guzur bagaric auts pusca bat baño ez gareala, arren yanaria, eta autsa.

(166) Eta ezpabere sartu gaitzan gueure barruan, beguiratu daigun celan aurquituco garean il ezquero, pensadu gaitzan sepultura baten sarturic luur písu icaragarrizco bat gueure ganean dogula, iluntasun guztizco itsaltsu baten bacar bacarric aarrac baño beste lagun bagaric, onaco buru au calabera biurturic pistia loien bici-lecu, escu oneshec euroc baltzitu eta ezainduric, araguaia ustelduric, gorputz guztia azur pillo bat eta adisquide andienac (gandic) aazturic eta ichiric, eta icusico dogu celan consideraciño oneshec bacarric eroango gaituzan ezagututera ce zoraqueria neurribaguea dan auts eguingo dan araguaia gaiti gueure ardura andiagoa euquitea arimegaitic baño, eta laztanago izaitea Jaungoicoac bere esposa maitetzat, ceruco erreguinatzat, eta mundu guztiaren yaubetzat autu edo escogiduric daucana baño luur zati bat. Orregaitic diño S. Juan Crisostomoc, eztago irauten daven gauzaric, guztia doa, guztia galtzen da, guztia igaroten da. Yragoten da eguzquia, iragoten da ilarguia, iragoten dira izarrac, iragoten da luurra, iragoten dira ceruac: galtzen dira diruac, galtzen dira olguraac, galtzen da edertasuna: arimea da bacarric betico iraungo davena, betico izango (bicico) dana, eta orregaitio beré guizon zoroac, guizon ichuac, guizon sensun bagueac (166) gueiagotan dauca gustu citel bertatic igaroten dan bat, olgura bertaticotsu bat, ceruac eta daucazan gauceataric baliotsuena baño. ¡O ce zurcea, o ce sensun bagaac garean! Aazturic daucagu, ichiric eta salduric J. C^oren odolagaz garbiturico arimea; galdu gura dogu betico Jaungoicoaren alabea eta ceru-luurraren yaubea ez ucatutearren gueure arerioric andienari, cein dan gorputza, bertatico gustu cital bat. ¿Yazo leiteque buruera zoroagoric? ¿Ycusi leiteque itsutasun gogorragoric?

Baya ez Jauna, ez. Ez deutzat autortuco gorputz gueisto oneri guraariric. Ezteutsat emongo bide-baco olguraric pecatuzco aragui oneri, beti euquico dot arimearen aguindura, ecico dot penitencia-gaz. Badaquit, Jauna, astun eguingo yacana curutzearen pisua; baya gogoz eta borondatez artu daguian eztot burutic quenduco cetan gueratuco dan. Aushe da Jauna, biztucu navena zure legue santuan artez ibilteco. Eztot beste gauzaric gura mundu onetan bici nasan artean zure borondatea eguitea bashen, eldu deinean neure azquena bildurric ez euquiteco eriotzeari eta enzuteco zure aotic bencicino gozoa, ceinegaz sartuco nasan betico atseguintan. Amen.

2. GARIZUMACO DOMEQUETARACO ICAS- -BIDEEN AURRECO SARTZAIERAC

(B, 113-121. or.)

LENENGO DOMECARACO

Dominum Deum tuum adorabis, et illi soli servies.
Matth. c.4.v.10

(113) 1. Elesha ama santeac, gu penitencia eguiten biztuteco, iminten deuscu gaur Evangelioan J.C^o. gure Jaunac ermu bacar baten berrogei egunean eguin eban baraüa. Ain izan zan gogorra barau au ece, ez eban ecerbere artu dempora guzti onetan. Ygaroric egun oneec, sartu yacan gose andi bat. Ez eban galdu Demonioac Salbaguillea tentetaco era au, eta alan elduric beragana esan eutsan: Jaungoicoaren Semea bazara, ogui biurtu eguizuz arri oneec. Etzan aserratu Jaungoico guztizco escu andicoaren seme benetacoa lotsabacotasun onegaz, eta ontzatasun, ta mantsotasun andi bategaz, erantzun eutsan: Ezta ogui utsagaz bici guizona, ezpada Jaungoicoaren aotic urteiten daben berbeagaz. Goia artu eutsan berba onecaz Demonioari; baya ain tematia ta andiustea (buru-erechia) dana leguez, uste izan eban oraindiocoarren azpiratuco ebalu guizona; eta barriro tentetaco eroan eban Eleshaco lecuric altuenera, eta esan eutsan: bota eguizu emetic beera zure burua, ce echatzu gachic eguingo, bada Jaungoicoac berac aguinduric deutse Aingueruai zaindu eta yagon zaiezala gachic eguin ce daquizun. Eranzun eutsan Jaungoico-guizon eguiazco J.C^o.c: Ezta olangoric eguin bear, ce esanic dauco berac: Ez eiquezu tentau ceure Jaun ta Jaungoicoa. Ycusiric Demonioac deungaro urte'etsala bigarreno tenta-aldi onec beré, asmetan dau irugarren bat, ceinetan eguin cituzan aleguin guztia Jaungoicoaren semea galduteco eta pecatura yausi arazoteco. Daroa bada mendi gora baten bizcarric goienera, andishe eracusten deutzaz munduco erri, uri, erreinu ta ondasunac, eta guzurraren guraso guzurti galdu onec esaten deutso: bacutsu; oneshec guztioac neu-

reac dira; baita guztioen yaube eguingo zaitudaz, lurren ganean auspez iminita, adoretan banozu. Aserratu yacon [zan] orduan J.C^o. Demonioaren contra, Jaungoicoari berari bacarric datorquion honrea beretzat gura ebalaco eta esan eutsan: oa ortic, Satanas; quen adi neure beguien aurretic, ce papelean yatzac: ire Jaun ta Jaungoicoa adoraucoc doc, eta bera, ta ez besteric, serviducoc doc. Berba indar andico onecaz astindu eban Diabru gaizquina, baita ondatu beré infernucoc garren artean: etorri yacazan Aingueruac, eta ecarri eutsen cer yan. Aushe da, neure Crisc., gaurco egunecoc Evangelioac dirauscuna, eta berean Jaungoicoaren semeac, gure maisu eguinic, iracasten deuscuz yaquinbide andiac: baya euren artean, neure erechian andiena, araco azquenengoc berbeetan dirauscuna; Ceure Jaun eta Jaungoicoa adoraucoc dozu, ta bera bacarric serviducoc dozu. Aushe da Jaungoicoac imini deuscuzan aguinteetaric lelengoa ta nagusiena; baita oneshegaitic esan eutsen J.C^o.c berac beste aldi baten Fariseoai, itandu eutsenean ea cein zan leguecoco lelengoc aguindua; «Maite izan eguizu ceure Jaungoico Jauna biotz guztitic, gogoc osoagaz, eta indar ta aleguin guztiagaz: aushe da aurrengoc aguindua, ta bertanche sartuten dira legue guztiac ta anchinacoc Ygarlari Santuac diñoen guztia». Berau bada izangoc da gaurco berba-gueia, eta azaldu ta esplicaducoc deusuet Jaungoicoaren leguecoco lenengoc mandamentua.

Jaungoicoaren lelengoc mandamentuac, etc.
(Ikus 1. mandamentua 2. liburukian).

BIGARREN DOME CARACO ICASBIDE-AUREA

Transfiguratus est ante eos.
Math.c.17.v.2.

- (114) 2. Gaurco Evangelioan gogora dacargu geure Elesha ama Santeac, J.C^o.c bere discipuluai eracutsi eutsen mirari guztizcoac, ciertu ta seguru egon citezan eguia dala esanic eutsen guztia, baita bera zala gueroracoc aguinduric eutsen gloriaren antz eta irudin eguin eguina. Onetaracoc eroan cituzan Tabor-goc mendi ganera. S. Pedro, San Tiago, eta onen anaye S. Juan evangelistea, eta iruroen beguie-tan bestetu.ta argui argui eguin zan. J.C^o. gueure Jaunac, guizona zanez, eucan sortu zanetic ara guc ceruan eucoc dogun gloria; eta orain ez eban besteric eguin, ezipabere campora atera besteac icusi leien, gloria onen tangachu bat. Gueratu zan bada Jaunaren arpeguia oraindicocarren eguzquia udacoc eguerdietan bashen beré ascocaz arguiagoc ta ederragoc, eta bere sonecoc edurra bera baño zuria-

go. Ordu berean aguertu cirean Moyses ta Elias J.C^o.gaz berbetan (Lc. 9.v.31), euren artean eragoioela, gugaitic Jerusalem-en icusi be- arco eban cituzan neque gogor, ta eriotza aserrearri. Ycusiric S. Pedro-c onembeste gloria, onembeste edertasun, ta onembeste miraari, ez euquean andic eguño beré alde eguin gura, eta bertanche egon guregaz, beragan eztagoan batec leguez, zoro-zororic esan eutsan J.C^o.ri: Jauna, onen onena litzateque gu emenche betico egotea. Baderichazu, emen eguin guiñaz iru echechu, edo iru chaola; bata zur-zaco, bestea Moysesentzaco, irugarrena barriz Elias-entzaco. Au esan orduco odoi guztizco argui batec bere barruan artu cituzan, eta odoien erdi-erdtic urte'eban Aita Eternoaren bozac, ciñoala: ara emen, aushe dot nire Seme maite-laztan, nogan daucadan nire atse- guin ta poz andia: bere esanac eguin bear dozuez. Bildurrez icara icara gueratu cirean iru Apostoluac, eta ain conorte (adin) bagaric ece, egon ecinic, oñen ganean, auspez lurrean etzin cirean. Bitartean barriz Moyses-ec eta Elias-ec andic alde eguin eben. Eldu yaquen bada Jesu.Cristo eta yaguiten aguindu ezquero esan eutsen: beguira, ez esan ñori emen icusi dozuena, aric-eta ni ilen arteric biztu artean.

3. Derichat, Cristiñauac, mirari andi au icusi gura bero beroan sartu zareela au entzunda, eta zuen artean zagocela: ¡Ah, bada, mendichu atan egon baguina, J.C^o.ren edertasun zoragarria icusteco! ¡Ycusi baguina iru Apostolu zorionecoen laguntzan! Entzun baguenduz Aita-Eternoaren, bere Seme bacarraren, Moyses-ta Eliasen berbaac! Alperric ece, ezquenduan besteric bear zorioneco-zorionecoac izaiteco. Baya, Cristiñauac, eztaucagu cetan onen damuric euqui egunean egunean icusi guiñaque Jaungoicoaren semea gloriaz, mirariz ta edertasunez yanciric, ez gorputzeco beguiacaz, baya bai arimacoacaz. Eztaucagu onetaraco cetan yoan Tabor-go mendico aldatsetic achina: bertanche, eta edocein beré Eleshatan icusico dogu nos gura, biztu gura b'ogu gure fedea; emenche enzungo doguz, an enzun cirean baño, gureztat berba gozoagoac. ¡Ah bagueunque bear gueunquean fedea, oraindiocoarren S. Pedro-c bashen beré pozago esango gueunquico Altara orretanche dagoan Salvaguilleari; Jauna, guztiz da ona gu emen egotea. Baya ¿au non da? Ah, Cristiñau negar eguitecoa da, baya eztaucagu siniste macal, epel, ganorabaco, eceta- 'co eztan bat baño, eta orregaitic astun eguiten yacu Eleshara etor- tea, eta lucero bertan egotea: nequez gatoz J.C^o. icustera, eta neque- zago gagoz bere aurrean. ¿Cer diñot? Yai-egunetan, bai yai- egunetan, meza enzun bearra daucagun egun oneetan, celango acha- quiac ez dira (115) asmetan ez etorteco Eleshara? Eta arrastaca ta gura ta gur'ez leguez etorrira beré ¿ceimbat egoten dira meza dem- poran debociño bagaric, meceari eztagocazala, albora beguira, eta

(115)

mezaric laburreena luce eguiten yaqueela? Negarra erazoteco gaucea da bene-benetan, eta sinistu beré ecin leiqueana guere beguiacaz lancean bein icusico ezpaguendu. Onango epeltasuna, edo otz gogorra, edo celan esango deuntsagun, quendu albanengui, quenduteco asmuacaz, banator gaurco egun onetan, eta onetaraco berba eguingo deuntsuet Meza-enzun-da yaiegunetan eguin bear doguzan osterancheco gauceen ganean.

Jaungoicoaren legueco irugarren mandamentuac, etc.

(Ikus 3. mandamentua 2. liburukian)

IRUGARREN DOMECACO ICAS-BIDE AURRECO SARTZAIERIA

Erat Jesus ejiciens Demonium, et illud erat mutum.

Luc.c.11.v 4.

(116) 4. Mutu bat daucagu gaurco Evangelioan, baya berba-laari (barritsu) asco; baita charrago eta deungagoac egozan, miña libre erabilenac, catigu euqueenac baño; bada mutuaren miña loturic ta catigu beecan Demonioac, berba-laarien arimeen yaube zan; barriz deungago da, ta ascozaz oquerrago arimea pecatuacaz lotuta euquitea, gorputza Demonioac catigu euquitea baño, gaurco eguneco Evangelioan dacuscuna leguez, ceinetan esaten dan, ce J.C^o.c egin eban mirariagaz, mutua libre ta berbeagaz gueratu zala, berba-laari (berba-erio) barritsuac barriz (116) leen bashen oquerrago ta gais-toago. Alanche diño S.Juan Crisostomo-c. Ecarri eutsen, bada, gueure Jaunari gaizquiñac eucazan guizon bat, ceinec barbaric arean beré ecin eguin eban, barruan eucan Demonioac mututu eguin ebalaco. Eta erregutu eutsen, arren bada librau eiala guizon ç alango yaube gogorra ganic. Erruquituric Salvaguillea, enzutea emon eutsan euren escariai; eta bere damuan urte'eraguin eutsan Demonio gaisquiñari, eta berbetan asi zan orduraguño mutu izan zana. Mirari chitozco andi au icusi-ta bertan egozan yenteac asi cirean Jaungoicoa bedeinquetan. Baya ez Escriba eta Fariseo gogorrac, ce idigui bearrean euren beguiac icusteco J.C^o. zala Jaungoico eguiaczoa, gueiago ta gueiago gogortu cirean euren pecatuan. Ecin ucatu eben, guztien beguien aurean eguin zan, miraria; baya eztabe sinistu gura Jaungoicoaganic eucala onangoetaraco escua, eta alan diño Bercebu edo Demonioagaz daucala cer icusi, eta onen indar ta escuagaz eguin ebala. Beste batzuc, barriz, tentazar escatuten eutsen gure ganeco ceruan alango mirarizco gauzaren bat eguin eguiala. Baya jöh

Jaunaren ontsatasun, ta epetasun guztizcoa! Beecusan euren intenciño (asmu) oquerrac, eta orregaitarren beré ez eutsen aguiracenic eguin, diño S. Juan Crisostomo andiac; eta bacarric, cein guzurrac balio daquien, dirautse eguia humiltasun andiagaz. Ecin iraun leique, dirautse, baqueric eztauquen (eztaucan) erriac, bada alcarren contra badabilz euren artean erreinu barrucoac, laster eguingo dabe bata besteen ganean errico echeac. Orain bada Demonioac botetan badau guizonaganic Demonioa, ecin onen erreinuac iraun leique. Beste aldetic, barriz, nic Berceburen icenean botetan badodaz Demonioac, ¿zuen semeac noen birtutez botetan dituez? Ytandu eiquioezue arren, eta ¿nire fabore urten daguiela, eta nire alde eguin daiela? Barriz, nic Jaungoicoaren icenean, eta berac emonico indarragaz botetan badodaz, eldu da zuen artera bere erreinua. Esango baleutsena leguez, (117) gura ta gur'ez autortu ta confesadu bear dozue icusi dozuen miraria Jaungoicoaganic etorri dala; baita, nire escutic eguin daben ezquero, neu nasala, sarri-ascotan esanic deutsuedan, bere seme, ta Mesias benetacoa, zuec icharoten cenduen erregue andia ta munduco osasun ta Salbaguillea.

(117)

5. Neu nas, dirautsa oraindio, neu nas zuen arerio au goitu edo vencidu dodana. Orain artean etzan eldu mundu onetara bera bashen indartsuagoric; eta orregaitic seguru egon da, eta baque andian euqui dau bere nagusitasuna. Baya neu nas bera baño indar andiagocoa, eta alan neuc ateraco dot bici dan etsetic. Baya ain da cruela ta gogorra ce, botaric leen eucan bici-lecuric campora, dabil lecu bacar ta ermuetic arteric artu ecinic. Guero beré gogaituric diño bere artean; banoa, bada, leen ichi nenduan echera. Orretaraco artzean dituz zazpi lagun bera baño oquerragoac aleguin gueiigo eguiteco, ta euracaz naste, sartzean da lengo guizonagan; eta aror non guizagashoa gueratuten dan leen baño deungago. Js. gure maiteac oneec esaten cituzan artean, yente-arteco andra batec eregui eban boza, ta esan eutsan: Zorionecoa da, zu erabili cinduzan, sabela, eta zorionecoa artu cenduzan (ugatzac) bularrac. Egua da, andrea, diño Jaunac, diñozuna, baya, ascoz zorionecoagoac dira nire esanac enzun ta eguiten dituezanac. Ara emen, Cristiñauac, gaurco Evangelioac dirauscuna: berean dacusgu Jaungoicoaren Semearen escuescune guztizcoa; dacusgu araco bere ontasun andia, ceinegaz erruquituric mutagaz, biurtu eutsan berbea, eguiten eutsala miraari andi onegaz chitozco mesede andi bat. Baya nire erechian mesede andiagoga eguingo lichaquio ascori, miña quenduagaz, eta berba bagaric betico ichiagaz; ce Jaungoicoac daqui ceimbat daroazan miñac infernuco ondarretara. ¡Ceimbat juramentu guzurrezco, ta alper; ceimbat birao; ceimbat berba loi; ceimbat iraina ta injuria; ceimbat deungaro esaca ta murmuraciño! Baita ¿cer dira oneec, ezpada beste aimbeste

catea lodi, guizonac bere galtzaiera ta betico condenaciñora daroezanac? Baya celan guztien artean calteric gueien eguiten dabena dan biraoa edo maldiciñoa, aushe da orain azaldu ta esplicaduco deusuedana..

Da, bada, biraoa, etc.

(Ikus 2. mandamentua 2. liburukian)

IRUGARREN DOMEARACO

Cum eiecisset Demonium locutus est mutus.

Luc.11.v.14.

- (118) (118) Modu ascotan adierazoten deuscu Elesha santeac guizon
(119) batec pecatuan dagoanean daucan (119) negargarrizco egoquera edo estadua. Batzuetan diño dala guizon caden, gueisho, adinbaco bat leguez: beste batzuetan seme gueisto, eta esquer deungaco bere Aitaganic iguesi dabilen bat leguez: beste batzuetan gorputz il atsitu eta usteldu bat leguez. Baya gaurco Evangelioan iminten deuscu itsu, mutu eta gor baten irudian, nogan dagoan sarturic Demonioño gaisquiña. Irudi guzti oneetan adietan emon gura deuscu ce calte gogorrac eguiten dituzan pecatuac gure arimaan, bildur izan gaitetzan pecatuan yausten. Aushe berau nai neuque nic beré adierazo gosh onetan aleguin guztiagaz iñes eguin daguizen bera ganic, eta alan esango deusuet lelengo cer eguiten daven bere buruagaz. Emetic ezagutuco dogu, ce mesede andia eguiten deuscan Jaungoicoac pecatutic ateraten davenari. Mesede au ezagutu daigun eguin gura izan euan gaurco miraaria mutuari berbea emonagaz.

LAUGARREN DOMEARACO ICAS-BIDEAREN BERBA AURRECOA

Accipit Jesus panes, et cum gratias egisset distribuit discumbentibus; similiter et ex piscibus quantum volebant. Joan c.6 v.11.

6. Mirari andi bat dacargu gaurco eguneco Evangelioan gueure Elesha ama santeac, bada dirauscu ce, bost ogui ta arrain bigaz emendatu, ta ase cituzala J.C.c, bost milla guizon, aren baten. Urte'eban aren Magestadeac Galileaco ichasoco beste aldera, yente guztiz andi bat bere yarra ebalá. Onec guztioac yoazan bere atsean, ecusi cituezalaco, gueshoac osatuten eguin cituzan, guztico miragarri andiac. Eldu cirean, bada, ermu bacar batera goseac illic, eta cer yan

bagaric. Ycusi cituzan Jesus laztanac, eta euren erruquiz beteric esan eutsan S. Felipe-ri tentazar (ce berac bequian cer eguingo eban): Ea Felipe, ¿cegaz erosico dogu onei yaten emoiteco oguia? Ay, Jauna, erantzun eutsan S. Felipe-c; ezta berreun errealeco oguia elitzateque asco izango, bacochari pusca bana emoiteco. Aurrean egoan S. Andres-ec esan eutsan: Jauna, emenche dago mutilchu bat garagarrezco bost ogui eta arrain bitzucaz, baya ¡bestelaco gaucea! ¿onec cer dira aimbesteentzaco? Orduan J.C^o.c esan eutsen: yesarri-arazo eguizuez. Yarriric bada basamortu ataco elbitza ganean aimbeste milla guizon, artu cituzan Jaungoicoaren Semeac bost oguiac, eta bere Aita Eternoari esquerrac emon ezquero, asi zan bacochari emoiten oguietatic eta arrañetatic naicoa. Eta ase ase eguin ezquero, aguindu eutsen Apostoluai batuteco emparau cirean otzurac. Baita ¿baquizue ceimbat batzaindu (cituezan) eben? Amabi zarancada. Ycaraturic gueratu cirean olango gaucea icusita, eta alan esaten eben J.C^o. zala Jaungoicoac achinatic aguinduric eucan Ygarlari, edo Profeta santua, eta Mesias aguindua. Baita etzirean onetan parau, ce artu cituezan, euren Erregue eguiteco asmuac. Jaunac barriz, yaquinic euren gogoen barria, iñesi eguin eutsen bacar-bacarric, ta ostendu yaquen mendi, gura bo'zu, baso baten. Aushe da, Cristiñaiac, gaur J.C^o.c bere atsean ebiltzezanai eguin eutsen combitea: etzan combite onetan erregalu andiric icusi, ezta ardaoric beré. Gura izan baleu, ondo errez yacan ardaoa emoitea, beñolan Cançaco eztegiuetan legueche, ura ardao eguin-da beré; baya ezeutsen beste gauzaric emon, ezipabere garagarrez eguinico oguia, eta arrañac; adietan emoiteco J.C^o.ren bideetatic ecin ebili leitequeala, yan-edanetan dabilena. Baya oraindocoarrean ardao larreguiac gueiago urrunduten dituz guizonac Jaungoicoaren bideetatic; ce Espiritu Santuac berac dirauscu ardaoa dala fedea, eta sinistea guizonai larga arazoten deutseena. Baita eztau bacarric galtzean Cristinautzea, oraindocarren beré quenduten deutse guizonai guizon izaitea. Orregaitic berba eguingo deusuet ardao lar edateco edo ordituteco ecanduaren ganean. Baquit probechu guichi ateraco dodana.

(Ikus 2. liburukian 5. mandamentua, ordikeriari buruz)

Ycasbidearen acaberea

Baya ez, Neure enzula maiteac: iñes eguizue edan-larreguiric, lagun ordiac-ganic; edan eguizue zuen erreguela onean bear dozuena, baya ez gueieguiric, ez orditu guñocoric⁹². Onan gueiagotuco ya-

⁹² Operarius ebriosus non locupletabitur Eccli. 19.v.1.

tsuez indarrac, osasuna, dirua, escu-artecoa, baquea ta icen ona. Eci eguizuez zuen gorputz orreec, ucuric onango bide-baco gustu citel, arimeen galtzaigarri direanac; mercedu daguizuen beste munduan artutea araco J.C^o.c euren curutzea daroenai isquinduric, ta aguinduric deuten gloriaco coroa. Amen; alan guerta deilla.

BOSTCARREN DOMECACO ICASBIDEAREN ASIQUEREA

Si veritatem dico vobis ¿quare non creditis mihi?

Joann.c.8.v.46

- (120) (120) 7. J.C^o. gueure Jauna daucagu gaurco Evangelioan adietan emon guraric Escriba ta Fariseoai bere Jaungoicotasuna, oneec barriz sinistu gura-ez-ic Salvaguilleac diñozan eguiac, eta esaten peccatari oquer bat, eta guizon galdu bat dala. Orregaitic dirautse Jaunac: zuen artecoric nor izango da niri peccaturen bat arpeguian ezarteco? Eguia badirautsuet ¿cetan sinistuten ezt ezteustazue? Jaungoicoarena danac enzuten dituz Jaungoicoaren berbaac, baita zuec enzuten ezpadozue, Jaungoicoaren semeac etzareelaco, da. Aserratu yaquen onegaz Escriba ta Fariseoai, ta esan-eutsen: badiñogu guc Samaria-rra zareala ta Demonioa aldean daucazula. Demoniooric nic eztaucat eranzun-eutsen, Jaunac; nic eguiten dodana da, nire Aita Jaungoicoari honrea emon, (121) baita zuec lotsea galduten deustazue. Yaquin bear dozue eznabilena nire honrearen atzean, bago bai ori noc-eguin, eta bai noc justicia eguin beré. Benebenetan ta eguia guztiagaz dirautsuet: nire esanac eguiten dituzanac eztau beinbere eriotzaric icusico. Oneetara erantzun eutsen: Ara, ondo ezpadiñogu Demonioa daucazula. Gueure guraso Abraham andia iltzan, Profeta igarlariac il cirian, eta zuc diñozu zure esanac eguiten dituzana eztala eguño beré ilgo. ¿Ceu altzara Abraham gure aita baño andiago, edo Profetaac baño gueiago? Nor eguiten dozu zure buru ori? yaquin eguizue, eranzun eutsen J.C^o.c; yaquin eguizue, eranzun eutsen J.C^o.c; yaquin eguizue ce Abraham-en betico biotz biotzeco guraria izan zala, ni icustea. Eta ni icusiagaz poztu zan. Ecin ulertu ez aitu euquean Judegu itsutuac au celan izan zatequean, eta alan esan eutsen: Berrogueta amar urte oraindocoarren eztaucuz, eta Abraham baño achinacoagoa nasala. Baita alanche zan, ce C^o Jaungoicoa danez beticoa da, ta Abraham eta mundua bera baño beré lenagocoa. Baya Judeguac, su emon baleutsena leguez eguia andi ta errespetogarrí onegaz, artu cituezan arriac, berari arrica eguiteco. Baya escutadu ta ostendu yaquen beguietatic, eta urten eban Elestiac campora.

8. Ce eguia andiac esan cituzan Evangelio onetan J.C^o.c! ce iracatzigarri, ta doctrina zoragarriac! Ce berba osasuntsuac! Baya ez eben sartu, ez sustrairic bota biotz gogor aetan. Enzun cituezan, baya ez eben aitu gura izan, belarri batetic sartuac bestetic urteiten eutsen, ecerbere erantzi bagaric gogortu cituezalaco euren biotzac: Isaias-ec achinatic esanic eucana leguez. Ceimbateri yazoten ete yaque gaurco egunean aushe berau? Gaurco Evangelioaco berbaac etzituzan esan J.C^o.c. Escriba ta Fariseo-entzaco bacarric: Cristiñau guztientzaco esan cituzan. Guztioi dagocu araco berbea: *Eguia badirausuet ¿cegaitic sinistuten ezteustazue?* Baita asco dira gorturic dagozanac berba oneec ez enzutearren. Ardi galduac leguez, euren arzain onaren deiai yarraitu bearrean, dabiltz deslai ecan du citel ta deungueen atsean, guraago dabeela beti betico galduac izan gustu-chu bategaitic, betico zorionecoac izan baño neque pusca bat igaroric. Baya au alan izanic ecan du guztiacaz, alambere eztau beste ecan du onenbeste gogortuten Cristiñaüa, Jaungoicoaren deia ecentzuteco cein-da araguizco pecatuac. Eztau bestec aimbeste itsututen guizona. Orregaitic gura neunque onen ganean berba eguin. Ba'quit eztana erraz bear dan leguez.

(Ikus 6. mandamentua (bi sermoi) 2. liburukian).

Ycas-bidearen azquena

9. Jaungoicoaren Ama, Virginia guztiz garbia, idigui eguiguzuz gure arimaco beguiac lo eguin ce-daigun pecatuaren eriotzan. Arguitu eiguzuz gueure sensunac ezagututeco ce gogorrac direan pecatu zorigorreco onen cateac ta calteac. Emon eiguzu arren indarra Demonioaren sare eta laquio oneec urratuteco, eta garbi izaiteco berba, eguicune, gogo ta pensamentuetan; mercedu daigun guere araguiaren naicunde ta guracuntzaac goituric, Jaungoicoaren semearen olgura ta libertadean ibiltea ceruco bideetatic, guero-beré arashe eldu gaitez, anche beti-betiro cantetaco Jaungoicoaren erruquitusun andiac. Alan guerta daiteala. Amen.

3. GARIZUMARACO LENENGO DOMECARACO PENITENCIAREN GANECO SERMOIA

(B, 215-219. or.)

Ecce nunc tempus acceptabile, ecce nunc dies salutis.
2 Corinth. c.6, 2.

(215) Aldi guztiac dira onac gueure pecatuen penitencia eguiteco: baña guztietaric onena da Garizuma santua: Orregaiti Elesha Ama santeac denpora onetan gueure beguien aurrean ifinten deuscu ge. Jesucristo Jaunac basamortuan gugaiti eguin evan penitencia, bere ejenpluagaz bizturic ge.⁹³ pecatuen penitencia eguin daigun. Bada izanic Jaun au geure maisua, ez bacarric berbacaz, baita beré eguinacgaz iracatsi gura izan euscun ceruraco bidea. Beekian argala zana ge. araguaia, eta gogor eguingo yacona penitenciaco bidea: orregaiti capitae ona leguez gura izan eban ge. aurreti joan. Ez beste gauza gaitic bada Elesha Ama Santeac, ge. ama ona leguez, eracasten deuscu Jgcoaren Semea lecu bacar baten lagun bagaric bere gorputza non echun ez eucala, berrogeuei egunean cizpuru artean Aita Eternoari ge. pecatuac gaiti erregututen eutsala.

Idigui eguizuz, pecataria, ceure arimaco [beguiac], eta gogotan artu eguizuz J.C^o. ge. Jaunac irago cituzan berrogeuei egun oneec, eta icusico dozu cer eguin bear dozun ceure pecatuac gaiti. Bada ainbeste eguin beeban Jaun onec izanic pecatu baguea, Aitaeternoaren seme bacarra, Jgco. eguiazcoa, ceruaren eta lurraren eguillea; ¿cer eguin bear dozue zuec ceuen pecatuac gaiti? Ce errazoe dago Jesus maitea necaturic aurkituteco, eta zuec pecatuz beteric egon ezkeron penitenciarri gorroto erechiteco? ¿Ce errazoe dago pecatu bagacoac penitencia eguiteco, eta zuec pecatu artean pozez egoteco? ¿Ce errazoe dago ceru-lurren eguillea cizpuru ta negar artean bici izateco; eta zuec lur puscachu bat izanic, atseguinez beteric egoteco? ¡O Jgcoaren ontasuna, eta guizonaren biotzeco gogortasuna! Ceinbat zu ona-

⁹³ Sarritan honela idazten du: «ne./ce./ge.; guk «neure/ceure/gueure; ipini dugu, irakurtzea errazteko, erabilera argi dagoenean.

go, ainbat eta gu gagoz deungago. Ceinbat eta on gueiago eguiten deutsezun guizonai, ainbat eta esker deungagocoac dagoz eurac.

Eta zuec, cristiñauac, nos artean izango zare ain esker deungacoac ceuen Jgcoa-ganaco? ¿Nos artean euquico dozuez ceuen biotzac gogorturic? Yagui zaitece nosbait ceuen pecatuetic, eta beguiratu eguizue ceuen arimea gaiti. Orainche da aldiric onena: *ecce nunc tempus acceptabile*⁹⁴. Orainche da demporea pecatuac ichiric Ygcoa gana biurtuteco. Baña celan uste dozue? Penitenciaco bideti: onetaraco gaur esango deusuet celan eguin bear dozuen.

Puntu bacarra

(216) Diabruac pecatariari iminten deusant tentaciñoric andiena da, penitenciacen atzeracuntzea, seguru leguez iminten deusala gueroago, eta obeto aurkituco direala penitencia au eguitemo. Eta ainbeste itsututen dituz ece, gauza ciurra leguez sinistu eraguiten deutse ece gueroago eguingo daveena: bada san Agustinec diñoan leguez, emoten deutse seguridadea, beragaz galduac izan (ditenzat) deitezana. Sensun bagaco seguridade onegaz pozturic pecatariac bici dira euren (216) pecatuetan sarturic, eta penitenciacen yaramonic eguin bagaric. Baya esan eguidazu pecataria: ¿cetan daucazu ceure seguridade ori ifiniric? ¿Uste al dozu nos edo nos obeto egongo zareala penitencia eguitemo? Sei ilabete barru, edo urte bete barru, erantzuten dozu, eguingo dot penitencia: bada orduan egongo naz cer eguinic eztaucadala: auci au acabadu (amaitu) ezquero, edo arazu ta cer eguin andi onec ichi ezquero. Aushe erantzuten davee pecatariric gueienac: eta charrago dana, beste batzuc erantzun daroe: Orain ecin eguin nei penitencia: gazte nazan-arte olgadu bear naz: orain seme asco daucadaz, arrabiadu eraguiten deuste: ezetara ecin neike eurac daucadazan artean Yangoicoagana biotz osotic biurtu: bacocha bere lecuetan imini ezquero, eta bacarric gueratu ezquero, eztot beste gauzaric biotzean eukico Yangoicoa baño. Aushe da, cristiñauac, munducoen esakerea, eta ezta besteric, ezpada Diabruac emoten daben putza, diño San Agustinec⁹⁵. Aushe esaten dozu: aushe sinistuten dozu eta aushe yazoco yatzula uste dozu. Baya esan, pecataria: ¿cetic, edo nongo sustraic daucazu zuc penitencia eguingo dozulaco ori? ¿Noc esan deusant orduan izango dozula zuc astia, gracia, ta penitencia eguitemo gogo? Iru gauza onec bagaric penitencia ecin eguin cinai-

⁹⁴ Orainche da J.C.º. gueure Jaunac santutu evan denporea: Ecce nunc dies salutis.

⁹⁵ Immittit securitatem, ut inferat perditionem.

ke. Eta ¿badakizu orduan eukico dozula (dozun) astia? Badakizu emon guraco deutsun Yaungoicoac bere gracia lagungarria? Badaquizu zuc ceuc eguin guraco dozun orduan penitencia? Ecin zuc iñondic yaquin cinaike. Bada nondic zagoz zu ain bete betean, buruac emoten deutsun aldian penitencia eguingo dozula? Iñondic beré ez cristiñaua: iñondic beré ez. Orregaitic bada eztozu gueroraco ichi bear penitencia ori; eztakizulaco eukico dozun ez astiric, ez graciatic, ez gogoric.

Lelengo eguin bear dozu ainbat lasterren penitencia eztakizulaco guero astiric izango dozun. Gauza icaragarria da beintzat, ce, izanic ain laburra guizonaren bicitcea, ain asco ta andi-tzarrac pecatuac, ain sarritacoac bat-bateco eriotzac, eta ain itzaltzua gueroco bicitzearen gogoraciñoa ta acordua, orregaitic bere gura izatea pecatariac euren buruen betico condenaciñoa, eta betico ceruco gozo atseguingarren ain yaramon guichi eguitea. Gogora eguizuz orain arteco ceure bicitzea, orainguiño eguin dozuzan pecatuac, eta erabili dozuzan bide gaistoac, eta euretatic atera cinaike ea badaucazu errazoe onic uste izateco Yaungoicoac zuri emongo deutsula penitencia eguitemo astia eta abaeguna. Baakit Yaungoicoaren ontasuna andia ta andia dala; baya orregaz batera esaten deutsu Espiritu Santuac, ez luzatuteco egunerico egunera beragana biurtutea, cegaitic ece ustez uste baacoan etorrico da zure ganean bere aserrea, eta betico galduric gueldituco zara⁹⁶. Ceinbat eta ceimbat penitencia eguitemo gogoa eukeenac yatzi dira ain bagaric infernetara? Nos guichiago uste even eldu yaken euren azkeneco eguna, eta ez eutseen ecer balio izan euren gogo ero orreec. Alainche yazo yacon araco Evangelioac dacarren aberatsari: batu cituzan ondasun guztiz andiac, eguin cituzan etse zabal-ederrac, eucazan yanari ta edari gozo naicoac, etzaczan falta gogoac emoten eutsazan gustu ta atseguingarri guztiac, eta bici zan guztizco gozoz ta pozez uriolaturic. Eta alan esaten eutsan bere buruari: «Ea urlia, badozac urte ascotaraco ondasunac: eztaucac bada yan, edan, ondo bici, ta ire buruari gura yoan guztia emon baño.» Baya ¡ay! (217) onetan egoala entzun evan cerutic boz icaragarri bat, esaten eutsala: «¡Ah ero garbia!, gaur gabeen kenduco deue bicitzea, ta ondasun orreec noenac izango dozac?»⁹⁷ Beste onenbeste bear bada yazoco da zugaz, pecataria: gaur gabeen il bearco zara (dozu), baita ¿cer izango da zugaz? Eta ceure bicitzeagaz ¿ce contu emongo dozu?

(217)

⁹⁶ Ne differas de die in diem, subito enim veniet ira ejus, et in tempore vindictae disperdet te.

⁹⁷ Stulte, hac nocte animam tuam repetent.

Guizon guztiac dakie, yakin, au yazo lekikiela, baya iñoc beré eztau gura onen ganean bururic ausi⁹⁸. Contrara pecatari asco dagoz uste daveenac ece, euren escuan daukeela gura daveen artean bici izatea, eta gura daveen leguez euren gogora zatituten dituez euren urteac. Aushe eguingo dot gazte nazan artean, aushe ta aushe gue-roago, eta azkenean, au ta bestea eguin ezkeru, biurtuco naz biotzetico Yaungoicoagana, eta eguingo dot penitencia. Onelangoai esan lekikioe bete betean Yudit-ec beñolan Betulia-co sacerdotelai cirautsena: «Ceuec buruac emoten deutsuen leguez Yaungoicoaren errukiari iminten deutzazuez aldiac, eta zeuen gogora neurtuten ta ebaguiten deutzazuez egunac.» ¡Ay! ta ce zorigororrecoac direan onelan euren egunac ta urteac atalduten dituezanac, ta zartzaroco azkenengo egunac penitenciaraco ichiten dituezanac, urteac eta egunac eurenac baleveezan leguez! ¿Noc emon deutzuz peccataria, ainbeste urte, edo nori erosi deutzuz zureac izateco? ¿Aguertu al yatzu Aingueruren bat, eta belarrira emon, etzareala ilgo Garizuma au yoan artean? ¿Celan bada zagoz penitencia eguin bagaric? ¿Celan darabiltzu zure burua arri ain labanaren ganean, betico zori-deungaco izateco bide bidean? Cegaitic ece oraindino ezteutso Yungoicoac asti yakinic iñori beré aguingu; ezteutsu zuri oraindiño esan izango dozula astiric penitencia eguiteco. Berac bacarric, bai bacarric, ta ez bestec, daki noraguño elduco direan zure egunac. Guichien uste dozunean etorrico yatzu bera, contu artutera⁹⁹. Orduan bai, ordu atan ezagutuco dozu, alperric izango bada beré, ce ondo izango cenduan orain penitencia eguinda. Orduan negarretan urturic, esango dozu, baita ondo gogotic: ¡Ay bada, penitencia eguin baneu denporaz! Orduan guztiz larrituric billatuco dozu penitencia eguiteco astia, baita ez yatzu emongo. Bada cristiñaua, ez icusteco ceure burua alango estutasunean, orainche eguin bear dozu penitencia ori, abaugune on au daucazun artean¹⁰⁰.

Eta yakinda beré izango dozula penitenciaraco asti ori, agaz guztiaz beré bertatic eta ainbat lasterren eguin bearco cenduke penitencia, ce eztaizuz Yaungoicoac emon guraco deutzun eguiteco gracia edo laguntasuna. Eguia da, eta alan izan doa batzuetan, ece peccatariric itsuenari emon leikiola Yaungoicoac gracia lagungarri ori, eta alanche biurtu cirean Yaunagan san Paulo, san Mateo, santa Maria Madalenea eta beste asco ta asco; baya edoceinec eguin albalei penitencia bere graciagaz, ecin iñoc beré eguin leike gracia au bagaric,

⁹⁸ Non est qui recogitet corde.

⁹⁹ Veniam tamquam fur ad te.

¹⁰⁰ Ecce nunc tempus acceptabile.

Trento-co Concilio santuac diñoan leguez. Pecatari guztiai gracia au emoten yake; baya ez beti ta nos-gura, ezpada Yaungoicoac gura davenean. Baita cer uste dau Yaungoicoaren gracia orain ecer eguiten eztaven cristiñauac? Orain ecer eguiten ezpadozu, uste dozu guero zuc gura dozunean emongo deutsula?¹⁰¹ Baliteke, baya gach eguiten da sinistuten. Errazago sinistu liteke, bide obea dakarta, ece aserraturic Yauna zure pecatuacaz (218) ucatuco deutsula, ascori ucatu deutsan leguez. Orduan bear bada erantzungo deutsu: «Dei-eguin neuntsun, eta zuc ez ninduzun entzun. Bada neuc beré orain dei-eguiten deustazunean ez deutsut aitu gura». Orduan diño Yaun onec irri ta barre eguingo deutsula-¹⁰²: Orain artean munduari, Diabruari, eta araguiari yarraitu deutsezu: zoaz, zoaz orain eurac gana penitencia eguiteco gracia-eske. ¿Cer? Gogor derichazu oneri Yaungoicoarentzat? ¿Uste al dozu Yaun errukior orrec ecin leguikela alango gauza gogorric? Esan, arren: balioa guizon bat Erregue-gana, eta balirautso: Yauna, gaztea nazan artean ta indarrac azcar dauca-dazan artean nic daucat ustea berorren arerioacaz bat eguinic bici izateco, eta nire bearric badauke, nire indar guztiagaz berorren contra guerran ibilico naz; baya zaartu ezker, eta indarrac macaldu ezker, ichico dodaz berorren arerioac, eta orduanche berorren gana biurturic, izango nachaco adiskide cutuna, guztiz andia; eta orretaraco ezteust berorren adiskidetasuna ucatu bearco. Alan esango baleuskio bada, ¿cer derichazu erantzungo leuskiola Erreguec guizon azartu, eztakit celango lotsabaaco oneri? Eta guero artuco leukeala zartzaroan adiskidetzat? Emongo leuskiola bere adiskidetasuna? Beguiac arpeguian daucazan edoceinec esango dau ezetz. Bada neure cristiñaua, aushe berau eguiten dozu zuc Yaungoicoagaz. Orain gazte zarean artean, edo ceuen pecatuetan sarturic zagozen artean, Yaunaren arerioacaz bat eguinic zabiltz: ordikeriacaz batzuc adiskide eguinic, eta beste batzuc pecatu loi zantarracaz, lapurretacaz, eta gorrotoacaz. Euracaz batera eguiten deutsazu guerra latza ta aserrea: pecatu mortal bacoachagaz barrien barri yosten deutsazu curutzean bere seme Yesucristo. Eta orregaitarren beré bete betean zagoz, zuc dei eguinda, anche prest prestic idiguico deutsula zabal zabal bere graciaren atea? Andia da (eguia da, ta ezteutsu iñoc ucatuco) andia da, diñot, Yaun onen errukia ta biotz samurra; alanberé bildur, ta bildur andia erantzun eztaguizun anchinaco dontzella zoroai erantzun eutsena: «Etzatzuedaz»¹⁰³ Ez, etzaitudaz gura adiski-

(218)

¹⁰¹ Ego quoque in interitu vestro ridebo.

¹⁰² Ego quoque in interitu vestro ridebo.

¹⁰³ Nescio vos.

detzat: leen ceure adiskide izan gura izan nevan: dei eguin neuntsun predicadoreen, eta confesoreen bitartecoz: opa neuntsun neure gracia: zuc barriz gueiago gura izan cenduan ibili ceure atseguinkeria ta poz-zoro citalen artean: ainbeste ta ainbeste bider ecetan artu ezdozu nire gracia: bada neuc beré ezteutsut orain emon gura, zuc gura dozunean.

Bada neure Cristiñaua, orainche Yaungoicoac gracia opa deutsun artean, Bere laguntasunagaz batera urratu eguizuz pecatuen cante orreec, ce laguntasun ori bagaric ecin urratu cinaikez, ta guero ameneco eztozu izango. Eta ¿cer eguingo dozu orduan? Nogana echungo zara, Yaungoicoac itziten bazaitu? ¡Ceure galdua orduan beintzat! Ecin gueiagoco errucarria aurkituco zara, Yaungoicoac ceure deiari bapere yaramonic eguin bagaric, burla, irri ta barre eguin daguizunean. Eta aushe da luzatu bagaric penitencia eguiteco dagoan bigarren errazoa: irugarrena barriz ez yakitea guero izango badau pecatariac penitencia eguiteco gogo cintzo ta zolia.

(219) Orretan beré orain gogor eguiten bayaco pecatariari bere pecatuen esaminea (219) eguitea, gueroago astunago eguingo yaco; cegaitic ece ceinbat gueiago direan pecatuac, ainbat eta aldatz-gora garratzago eguiten da eurac burutara ecartea. Orain gach eta gaci eguiten bayaco pecatu eguinen damua izatea, ta betico ichi bearra ordikeria, berba loi nasaiac, atseguinkeria citalac, eta osteranchaco pecatuac, gaciago eta gachago eguingo yaco onic bost, amar edo oguei urtera, ecandu deunguea gogortu eta sendotu danean, eta ainbeste pecatu esateco lotsea aci ta gueiagotu danean. Eta ¿cer? Orain errazago dozunean gura eztozuna, guero gachago ta gogorrigo dozunean guraco dozula? ¿Noc sinistuco dau ori? Berez beintzat okerrretara dator eta gach dana nai ezpada, gachago dana guichiago gura izaten da, eta zuc ceuc alanche ebatsico ceunque beste edoceinbere gauzatan.

Izango dana bada, ta yazoco yatzuna da ce, ceure burua ainbeste pecatugaz icusiric, etsico deutzazu buruari; usteco dozu zuc ecetara beré ecin ondo confesadu ciñatekezala, ecin gauza onic eguin ciñaikeala. ¡Ay! esango dozu ceure artean, ¿celan nic esaminea eguin ta burutara ecarri, nic eguin dodazan ainbeste pecatu? ¿celan ascatu alango matasa nastitua? ¿Celan esango deutzadaz confesoreari ainbeste pecatu, ta alango itzal tzarrac? ¿eta celan egongo naz aurrera pecatu bagaric? Ni ¿seigarrengoan garbi, nire gorputz deungaro ecanduac bakeric emoten ezteustanean? ¿Celan ichico dot tabernara bidea, nire larreguiac eta ordikeriac gaitic confesoreac esango deustan leguez? ¿Celan adiskidetu ta tratadu urliagaz ta urleciagaz, esango deusten leguez? ¡Ay! Orain ecin nei: gueroago eguingo dot, onic

onenbeste urte garrenean, ain alditan, onen alditan eguingo dot; orain ez deust lagunduten ez arpeguiac, ez biotzac. Eta celan guero diñoanac bego diñoan, alanche ibilico da beti gueroco luzamentuetan, beinbere oraingoric aitatu bagaric, beinberé bere burua erabagui bagaric. Beti guraco leuke; beinbere guraco eztau; beti eguiteco, secular eguin ez. Gueroago ta gachago, ta azkenean, eriotzaco ordua aitatuco dau, eta... eta orduan bere eztau eguingo, orduan iños baño gachago izan davelaco. Bildur bada, bildur beti luzatuaz luzatuaz darabiltzuenoc zuen penitencia ta Yaungoicoagana biurtutea, ce alan ibilita, eztozue bear bada izango aztiric, Yaunaren graciatic, ez eguiteco gogoric; edo beinic bein ez irurac; baita irurac bagaric ecin ecer eguin ciñaike; eta ecer eguin bagaric, yakina da, betico galduco zaree: eta infernuan betico damu gauza eztireanac izango dozuez. Icusu eztaguizun.

GARIZUMACO LENENGO DOME CARACO PENITENCIAREN GANECO SERMOI BERA, PAPEL CINTZOAGO BATETIC ARTUA

(B, 220-224. or.)

Cum jejunasset quadraginta diebus, et quadraginta noctibus, postea esuriit. Math. c.4 v.2.

(220) Garizuma santu onetaco sermoi oneri asiorea emoteco ecin berba obagoric artu neike san Paulo Apostoluenac baño: «Ara emen, eldu yacuz egun onac; oneshec dira osasuneraco egunac»: oneshec araco egunac ceintzuetan dirauscun Yaunac entzungo gaituzala, eta lagunduco deuscula. Urteco egun guztiac dira santuac Yaungoicoa-gana biurtuteco: guztietan dago Yauna prest, aita biotz samurrecoa leguez, gu bere besartean artu, eta estuturic, amudioz benerico laztan gozoac guri emoteco; baya orregaitic bere garizumaco egunac dira onenac gueure aita beticoaren adiskidetasuna ondo ondo irabazteco. Aldi onetan iños baño dei guei ago eguiten deuscu Yaungoicoac: idiguiten deuscu bere errukizco atea: eta gura dau, ece, guc itziric bide okerrac, beragana biurtu gaitezana. Egun oneetan iños baño zoliago erregututen deutsa Elesha ama santeac Yaungoico bere esposo maiteari parcatu daguiola bere puebluari, eta ez daguia-

(220)

la bere arerioaren escuetan itzi, bere odolagaz garbiturico guizona. Orregaitic bada, neure enzula maiteac, eztoguz igaroten itzi bear egun osasunguei onec, ez osasuneraco daucagun abaegun eder au. Biztu gaitazan penitencia eguitera. Urratu daguiguzan gueure biotzac damuaren andiz. Onetara biztu gura gaituz Elesha ama santeac, ifinten deuscula gaurco evangelio santuan, Yaungoicoaren Semeac gure pecatuac gaitic erremu baten eguin evan penitencia, yakin daguiguntzat ece, ainbeste eguin beeban Ceru-lurren eguilleac gueugaitic, cer eguin bear dogun gueuc gueure oneraco. ¿Ce biotz ain gogo-bagacoa aurkitu leiteke, cein da guraco eztaven penitencia eguin, Ygcoaren semea orretan icusita?

Gora daguiguzan, Cristiñauac, gueure beguiac mendi itzaltsu atara; icusi daguigun cer bizi-modu arrigarri eguiten daven berrogueri egun oneetan, Yaungoico guztia daian baten Semeac, eta icasi daguigun guc bere cer eguin bear dogun pecatuac-gaitic. Anche aurkituco dogu Aita beticoaren Seme bacar maitea, ceru-lurren eguillea, munduaren yaubea, eta Ygco eguiaczcoa, lecu icaragarri baten, lagun bagaric, etse bagaric, cer yan eztaucala, ez oeric non etzan, gau-egunac igaroten bere Aita eterno betico-ari gugaitic erregututen, negar ta cizpuru artean, Ygco-agaz guizonen arteco bitarteco eguinic. Au icusiric, ¿noc penitencia eguingo eztau? ¿Nori astun ta garratz eguingo yaco gorputza necatu bearra? Baya alanberé ain da itsua guizona, ain sentzun baguea, eta ain esker deungacoa bere eguillearentzat ece, ezteutso yarraitu gura eracusten deutsan bidetic. Zarraturic dauquez euren belarriac, artzain onaren deiac ez entzutearren, eta ichiten dituez beguiac mirarizco icusgarri eracutsi-andico au ez icustearren. Guraago davee euren ecandu cital, ta olgura lotsagarriai yarraitu, Ygco.aren oñatsa osasuntsuetatic ibili baño, gueroco itziten daveela euren arimearen oneraco bear eguitea. Baya engañaduric zagoce cristiñauac, uste badozue orain (221) gorturic egonic Yaunaren dei gozoac entzuteco, guero zuec gura dozuenean entzungo deutsuela ta penitencia eguitemo astia, gracia ta gogoa emongo deutsuela. Bildur izan cinaitekece ucatu eguingo deutsuela, eta penitencia bagaric artuco zaituela eriotzeac. Bildur santu aushe gura neunke euki daguizuen ceuroen biotzetan, penitencia luzatu ez daguizuentzat; eta alan, izango da ne. gaurco sermoi-gueia, ceuei adierazotea, ta ulertu eraguitea, ainbat lasterren eguin bear dozuela ceuroen pecatuen penitencia, luzatu bagaric eriotzaco orduraco, etc.

Lenengo zatia

Laburrac dira guizonaren egunac diño Job Profeta-igarla Stuaac.

Ygcoac bacarric daki noguiño elduco direan: berac icentadu evan norainoco ori, eta eztira aurrerago iragoco. Izanic au ain gauza ciurra, eta eguiazco andi andia, orregaitic beré ain da eskerguea guizonaren itsumendia ece, bete betean egon doaz, eurac gura daveen asti guztia izango daveela penitencia eguiteco. Esan leike ce, euren escuan daukeezala orduac, illac, eta urteac. «Orain eztaucat astiric ecetaraco beré, diñoe batzuc, neure bici guztia da dandarrez arrastaca ibiltea; lagun asco daucat etsean; umeac gogait-arazoten deuste, eta galdu eraguiten deuste arimea; ta ardura bagaric gueratu naitenean, guzti au biurtuco naz Ygcoagana». Beste batzuc esan daroe: «Cer eguin oneec amaitu ta escu arteric kendu ezkeru, ne. auci onec atzera-aurrera eguin ezkeru, ta bakean gueratu ezkeru, izango da era ta sasoi ona Ygcoagana biurtuteco». Beste batzuc deungagotic yoten davee. «Aldiari berea emon bear yaco, esan oi daroe mutil-nescatilla zoroac. Orain gaztea naz, ta gazteac olgadu bear dau. Zaartuta guero Ygcoagana echungo naz. Orain odola beré bicia dago: bicia dir bere gurariac eta erraz eztira erraz lotuten. Zartzaroan odolac oztuta, izango da abaegun galanta confesiño onac eguin, da bicitzea onduteco.» Onelango achakiac ateraten dituez ascoc eta aushe da egunean bein dantzugun leloa. Baya au guzti au eztala Demonioac, emoten dituzan putzac baño besteric, diño s. Agustin andiac. «Emon daroa, diño Santuac, emoten dau Demonioac gueroco bildur-eza, guero arimac alan galduteco.» Gogora eguizuz orain arteco zure pecatuac, erabili dozuzan bide macurrac, eta Ygcoari biurtu deutzuzan esker deungac, eguin deutzuzan mesedeen alderaco, eta icusico dozu beguian, ea errazoeric badaucazu uste izateco Yaunac emongo deutzula, buruan darabiltzun asti-une ori penitencia eguiteco. Lasterago sinistu cinaike aserre daucazula ceure gogortasuna-gaitic, eta bere deiai eguiten deutsezun gor-eguite orregaitic; eta ucatu eguingo deutzula, ta galduric gueldituco zareala. Baakit nic, eta ori eguia garbia da, andia dala bere ontasuna, neurri bagacoa bere biotz-biguna, eta azkenic eztaucana bere errukia; baya ara orregaitic celan cematuten gaituzan Ygcoac berac Salomon yakintsuaren aotic: «Ez eguizu, dirauscu, egunerice egunera luzatu ceure penitencia, ta Ygcoagana biurtutea; bada bestelan beingoan yausico da zure ganean bere aserretasuna, eta galdurice gueratuco zara.» ¿Ceinbateri yazo ez yaque zori gogor ori? Luzatu ta luzatu ebili cirean bere penitencia, zuec orain leguez, usterice guero eukico eveela astia, etorri yaken bat batean eriotzea, ez even lecurice izan ecetaraco beré, eta euren esperantza guztiac uts yo even: ta ez eutsen ecer balio izan euren (222) gueroraco uste bete beteac, eta gogo benetacoac.

(222)

Alanche yazo yacan araco evangelioac aitatuten daven aberatsari. Batu cituan onec ondasun guztiz ugariac; eguin evazan etse zabal

ederrac; eucazan gura al leikezan yanari, olgura, atseguinac: gauza guztia eucazan bere gogora bete betean, eta zan guztiz zorionecoa munducora. Bere burua alan icusita, cirautsan buruari: «Ea urlia, badituzac, bai, ondasunac naroro; eztaucac bada ezpada yan, edan, ondo bici ire gogora, ta ire buruari emon gura yoan guztia (baño)». Baya ¡ay! oraindo erakeria orreec buruari esaten ciñarduala, esan eutsan Ygcoac: «¡Ay, eroa! gaur gabean kenduco deuve bicitzea, ta ¿noenac izango dozac ondasun orreec?» Beste onenbeste yazo leki-kezu zuri: zuc uste dozu ece urte ascotaco bicitzea daucazula; baya bear bada gaur gavean Ygcoac dei eguingo deutsu. Baya cer diñot nic gaur gavean? ¿Al dakizu zuc, mutil, nescatilla, edo zareana zare-ala, eta alango gueroco contuacaz zabiltzana, al dakizu ordu bateco bicitzea badaucazu, edo memento onetan eriotza ilunac yo ta botaco bazaituz? ¿Ce aguindu, ce berba, ce escritura eguin deutsu onetara-co, orduan contu estua artuco deutsun Yaunac? Eta au alan bada ¿cer izango da zugaz? ¿Ce contu emongo deutsazu Yaun oneri? Ta ¿cetan gueratuco dira zure uste, gogo ta propositu guztia? ¿Cer balioco deutsue guero bicitzea onduteco darabiltzuzan adi ta gogo sendooc? ¡Ah! au alan yazoten bayatzu ceure errukiena! Damuen damuz esan bearco dozu: «¡Zori-gaistoco nire gueroraco gogo eroac! Zori-gogorreco nic penitencia eguiteco erabili nituzan atzerapen ta luzacuntzac! Madaricatuac biurtu yañaz neure uste, esperantza ta proposituac! ¡Ay bada ne. arimearen galdua seculaco ta eternidade guztiraco! eta neure negar-garria!» Contu bada Ygcoagana biurtutea luzatu ez eguiteaz, guizon eta andra, mutil eta nescatilla, gazte eta zar contu beste onenbeste yazo ez dakizuen.

Guztiac ao betean autortuten davee eguia au: guztia dakie gar-biro eztaukela ordu segururic; baya eztakit cec naguituten edo sortu-ten dituzan, bada eurenac balituezan leguez bicitzaco aldiac, icenda-tuten dituez urteac. Esan oi dave ascoc: «Orain gazte nazan artean au eguingo dot, guero bestea, eta guero au ta bestea eguin ezker-o, biurtuco naz Ygcoagana. Orduanche eguingo dot penitencia. ¡Ay ce bete betean esan leki-kioen onelangoai. Yuditec beñolan Betuliaco Sacerdote Aguintariai cirautsena: «Nortzuc tzaree zuec Ygcoaren tentazar ibilteco?» ¡Ay zuen zoroac! bada arturic Ygcoari escua, icentetan deutsazue Yaunari erruki izateco aldia, eta zuen gogora ta zuen burutic zati eguiten dozuen egunac. Baya esan: «Noc zureac eguin dituz egunac eta urteac, zuc onetara zatituteco? Etorri ete ya-tzu cerutic Aingueruren bat, eta esan, bicico zareala garizuma onetan? Eguin al dozu Ygcoagaz escrituraren bat, ceinetan erosi deutsa-zuzan urteac? ¿Berba emon al deutsu Yaunac ezteutsula bicitzea kenduco onenbeste egun, il, edo urtetan? Eztakit nic nondic esan

cinaikedan orlango gauzaric. ¿Celan bada azartuten zara icentetan ta atal eguiten ceure egunac, ceuc celan gura, azkenengoa ichiten dozula Ygcoagana echuteco?» Ara bada, ne. cristiñaua, cer dirausun Ygcoac: «Etorrico natzatzu ishi ishilic gau lapurra leguez: eztozu yakingo nos, edo ce ordutan natortzun. Orduan escatuco deustazu denporea, eta ezteutsut laketuco ez emongo. Orduan ezagutuco dozu, ce zoro garbia izan zarean Ygcoa gana biurtutea luzatuagaz, baya ezteutsu orduan ezagüera orrec ecer (223) balioco. Eztaguiguzan euki geure buruac arri ain labanaren ganean; epea ta asti-unea daucagun artean eguin daguigun al dogun guztia dirauscu S.Paulo Apc. Entzun daguiguzan orain Ygcoaren deiac ta deadarrac, entzun gaguizan (tzat) berac araco urreraturic azkenengo eguna, dei eguin deguiogunean; ece berac dirauscu esateco «oraindo asti lucea daucat» cegaitic ece guztiz aserratuten dau gogoera onec, eta dacar ge. ganera bere justicia, bigarren zati onetan icusico dozuena leguez.

(223)

Bigarren zatia

Bacenki bere guero gura dozun asti guztia izango dozula Ygcoagaz ondo paretaco, etzeunke orregaitic beré guerocoaren beguira egon bear penitencia eguiteco; bada eztakizu lecua izan arren, emon guraco deustun Yaunac eguiteco gracia. Eguia da pecatariric andienari ta gogorrenari emon leikiola, eta batzuetan emoten deutzazala bere doe ta gracia, eta orregaz edoceinec eguin leikeala penitencia. Alanche eguin even S. Mateoc, S.Pauloc, Sta. Maria Madalenac, eta beste pecatari ascoc: baya bera bagaric ecin ñoc eguin leike. Gracia au guztiai emoten yake, baya ez beti, Ygcoac gura davenean baño: eta berac bacarric daki nosh guraco daven, eta celan emongo daven. Baita orain Ygcoac opa deustun gracia guichitan daucazun peccataria, ¿baderichazu emongo deustula ceuri gogoac emoten deustunean? Bildur izateco da, erantzun eztaguizun araco Yakintsuaren aotic cematuric daucan moduan. «Dei eguin neuntsun, ezeunstan erantzun: zabaldu neuntsuzan» neure graciaco besoac, euren artean estururic, laztan gozoac emoteco, eta ezeunstan beguiratu beré; ecelan bere artu ez cenduzan nic emonico buruac; bada nic beré irri ta barre eguingo deustut, araco ceure azkenengo eguna elduric, dei-eguiten deustazunean, ezteutsut entzungo erreguric; billatuco nozu, ta e-nozu aurkituco.» Aushe berau dirauscu Ye.C^oc. «Orduan ibilico zara ne. billa, ta eznozu topaduco, eta ceure peccatuan ilgo zara.»

Gogor eguingo yatzu bear bada berba au, eta usteco dozu ece, ezabela alangoric eguingo Ygco. batec, noren errukitasuna dan neu-

rri baacoa. Baya nic irudi bategaz adietan emongo deutsut. Balilloa-ko Erregueri guizon bat, ta balerautsa: «Yauna, tratu bat eguin gura neunke berorregaz, eta modu onetan. Orain gazte nazan artean, ta indarrac lagunduten deusten artean, berorren arerioen alde ibilteco asmuac daucadaz: ne. bear badira, lagunduco deutset aleguina, eta euracaz bat eguinic, ibilico naz erruz berorren contra guerra bician: baya zartzaroan, araco indarric eztaucadanean, berorregana biurtuco naz, berorren adiskide izango naz, eta orretaraco ezteust ucatu bearco berorren adiskidetasuna.» ¿Cer derichazu erantzungo leuskiola Erreguec guizon oneri? ¿Uste dozu esango leuskiola ondo eguinic dagoala ta yoateco, bera beti anche izango davelata? ¿Uste dozu artuco leukeala adiskidetzat, beragana biurtu gura leukeenean? Edoceinberac esango dau ce parebagaco zorakeria ta nabarbenkeria dala ori esatea, ta alan uste izatea.

(224) Bada cristiñaua, beste onenbeste eguiten dozu Ygcoagaz ceuc, luzatu ta atzeratu gura dozunean pecatuen penitencia. Orain zabiltz bat eguinic pecatuacgaz, ceintzuc direan bere arerioric gogorrenac. Euracaz batera eguiten deutzazu guerraric biciana: curutzean yosten dozu barriro bere Semea, ta eguiten deutzazu burla ta algara: eta orregaitic beré, uste dozu ece gogoac emoten deustunean bere atantan dei eguiteco, bere adiskidetzat artuco zaituzala? Esan deustu leenago andia dala bere biguntasuna (224) eta samurrac bere erraiac; baya alan da guzti beguiratuten badogu Escritura santuan cer eguin daven onelangoacaz bildurturic ta arrituric gueratuco gara. ¿Cer yazo yacan Antioco Erregueari? Bici izan tzan bere denpora guztian Ygcoa gomuta bagaric, bere contra guerra eguiten. Loitu evan bere tenplua, banatu Yerusalengo uria, il Sacerdoteac, eta eguin cituzan beste calte icaragarri asco. Eldu zan guero beré ezagututen bere gaistakeriac, eta asi zan Yaunari parca eske; baya alperric; bada ez evan misericordiaric alcanzadu, eta il tzan bici izan tzan modu moduan. Bardin yazo yacan Saul, Yudas, ta beste ascori. Orregaitic bildur izan ciñaitেকে, erantzun eztaguizun araco Birgina sinzorga-zoroai leguez: «Etzazaudaz. Orain artean sarri ta sarri ceure adiskide izan gura izan naz: sarri ta sarri opa izan deutsut neure gracia: baya eztozu zuc gura izan: bada neuc beré eztot orain gura, ceuc gura dozunean. Orainguiño ni baño laztanago izan dozuz ne. arerioac, ne. deiac baño obeto entzun dozuz eurenac: eurai yarraitu deutsezu. Zoaz bada eurac gana; escatu eguioezu penitencia eguiteco gracia.»

¿Nogana biurtuco zara orduan pecatari tristea? ¿Nori escatuco deutzazu gracia? Eta ¿celan entzungo deutzazuz Yaunari burla one-ec? ¿Celangoa izango da zure naibaguea, ta biotzeco iluntasuna!

esan daguizunean Yaunac, araco otsein alperrari cirautsana: «Eztozu ne. diruagaz ecer irabaci gura izan: eztago bada orain zuretzat carcela ilun bat baño, non beti betico pagadu ta atera bearco dozuzan, niri eguin deustazuzan destiañac ta (desprecioac) osticopean erabilteac.» Lotsaturic, mututuric, eta arrituric gueratuco zara cristiñaua orduan. Ezagutuco dozu, orain ezagutu gura eztozuna; baya ezteutsu orduan ecer balioco ezagüera orrec. ¡Ah ce zori-gogorreco egunen beguira zagozen Ygcoagaz bakeac eguitea atzeratuten dozuenoc, zuei beste onenbeste yazo badakizue! ¡O ce zori-gaistocoac zuen burutasunac! Iкуси eztaguizun bada ceure burua estutasun onetan ezagutu eguizu orain eguia andi au, eta ez eguizu luzatu penitencia, cein dan bideric onena, ta seguruena, Ygcoaren gracia orduan aurkituteco. Biurtu zaitetz bada beragana laster biotz guztiagaz, negar benetacoacaz. Erdibitu eguizu ce. biotza damuaren damuz. Kendu eguizuz okerreriataraco bide gaisto eta lagunoc: bada asco ta larregui dira orainguiño-co citalkeriac. Ez eguizu bada biarco luzatu penitencia, cegaitic ce eztakizu elduco bazara biarco egun orretara. Gaur daucazu Yaunaren laguntasuna; orainche daucazu era ona, ez eguizu bada abaegun au alperric galdu. Asi zaitetz ainbat lasterren: orainche pecatu guztiac gomuntara ecarri, ta damu ta propositu oso bategaz ceatz confesetara. Andiac izan arren zure pecatuac, andiagoa da Yaunaren errukitasunaren iturria. Ez lotsatu bada ce. arimaco zauriac ceruco medicu oneri eracusten: ce au eguinic, mundu onetan arimea penitenciagaz ondo osatu ezquero, alcanzadu ta yadietsico dozu bestean Aita Eternoaren laguntasunean betico osasuna eukitea, cein dan zuei opa deutsuedana Aitearen, ta Semearen, ta Espiritu Santuaren icenean. Amen.

4. GARIZUMA ARRATSALDEETACO EUSQUERAZCO SERMOEAC. SARTZAIERIA.

(B, 121. or.)

In omnibus operibus tuis memorare novissima tua, et in aeternum non peccabis. Eccl.c.7 v.40.

(121) 1. Mundu onetaco gauza guztietan aguri da Jaungoico es-
cu-andicoaren ontasuna: bada direanac eguin cituzan guizonaren one-
raco: ceruac, lurra, eguzquia, izarrac, abere edo animaliac, eta beste
dacusguzan gauza guztiac. Eta ez bacarric oneec, azaz ganetic mundu
onetan direan gach, neque, lan, eta naibagueac beré ao betean diraus-
cue Jaungoicoa guztizco on-ona dala guretzaco. Alazo baten diño onen
ganean S. Juan Crisostomo-c:ezta guichiago igarten Jaungoicoac deus-
cun amodioa gu castiguetean, palaguetean baño: eta alan ezta maite-
tsuago, ez laztanago gloriaco ondasun ta pozac aguinduten deuscuzane-
an, infernuco penacaz cema-cemaca yagocunean baño. Baita esan leite-
que, diño santu andi onec beroneshec, oraindocoarren andiagoa dala
infernuagaz cematut'orduan eracusten deuscun amodioa, cerua opa
deuscunean baño. Cegaitic-ce indar gueyago dauco eriotza, juicio ta
infernuaren bildurrac gu pecatu ta ecandu deungueetatic aterateco,
gloriaren acorduac bashen. Orregaitic pecatu eguin bagaric bici izaiteco
eztago gauza obaric, gueure beguien aurrean gure bicitzearen atserenac
euquitea baño (eztago gueure beguien aurrean... euquitea langoric),
dirauscu Jaungoicoac berac¹⁰⁴.

2. ¿Cegaitic guero? itanduten dau S.Bernardo-c. Bildur onec
quentzean dabelaco pecatua, eta biztuten gaituzalaco eguiquera edo
obra onac eguiteco. Gomuta izanac, guero ta guero beré cetan yoco
dogun, amatetan dau araguiaren sua, S. Juan Crisostomo-c diñoandi,
quenduten dau ondasunen zaletasun larreguia, beera eguiten dau
gure andigura ta asco-erechia, bigunduten dau biotzeco gogortasuna,
eciten dau araguaia, ereguiten dau arimea, biztu caridadea, eshetu
Jaungoicoaganaco amodioa, eta maite izan eraguiten deuscu arerio-

¹⁰⁴ Memorare Novissima, etc.

ric andiena. Eta beingoan esateco, Santu onen ustez (erechian), ecin leitequean gaucea da, au sarri buruan darabilenac pecatu eguitea¹⁰⁵, eta ezta onelangoa secula beré infernura joango¹⁰⁶. Oquerretara barriz, zori-gogorrecoa, ta betico galdua izango da gauza oneec aiztuten dituzana¹⁰⁷. Aushegaitic artuco dodaz garizuma onetaco neure sermoe-guei ta berba-bide-garrizat. Baita mundu onetaco neque, lan eta arduraac epetasun eta paciencia andi bategaz igaro daizuezan, esango deusuet, celango saria daucazuen ceruan: eta ezagutu daguizuen, ceinec zarratuten deuscuzan ceruco atea, eta botaten gaituzan infernura, adietan emango deusuedaz pecatuaren calteac. Ara bada ce-en ganean berba eguingo deusuedan bost domeca onetan: gaur enzungo dozuez ceimbat, eta celangoac direan pecatuac dacarguzan gachac. Bigarreanean, ce itzaltsua dan eriotzea, eta celan aurquituco zareen orduan. Yrugarreanean esango deusuet ce icaragarrizcoa izango dan eriotza-ostean Jaungoicoari emon bearco deusagun contu estua. Laugarreanean ce arrigarrizcoac direan infernuco su, ala, min ta penac. Bostgarreanean, barriz, ce zori-onecoac direan ceruco atseguin eta pozgarri chitozco andiac.

3. Jaungoicoaren ama, Aingueruen erreguiña, eta guizonen icharomen edo esperanza, izan zaitez bitarteco zure Seme Jesus-egaz gure artean, eta alcanzadu eguiguzuz beraganic bear dana leguez, sermoeac eguin eta enzuteco bear doguzan gracia: adi-erazoteco neure enzula maiteai ce iraun-guichicoac direan mundu onetaco gauzaac, eta ceimbat balio dabeen bestecoac. Yosi eguizuz, arren, gueure biotzac Jaungoicoaren bildur santuagaz bere legueco bide artecetic ibili gaitez. Ea bada, gueure ama ona, ama laztana, eta amodioz bete! emon eguiguzu escua gure ecandu deungueetic urteiteco; gorde gaizuz gueure arerioen atzamarretetic, eta bialdu eguiguzu gracia ugaria, gure arimaac edertu-ta, Jaungoicoaren seme maite eguin gaguizan. Aushe escatuten deusugu gure biotz guztitic esaten deusugula Aingueruagaz batera Ave Maria.

¹⁰⁵ Crisost. Non est possibile ut anima de gehenna sollicite cogitans cito peccet.

¹⁰⁶ Idem. Nemo eorum qui gehennam ob oculos habent in gehennam incidet.

¹⁰⁷ Nemo gehennam contemmens gehennam effugiet.

5. PECATUAREN GANECO SERMOEA

(B, 122-126. or.)

Per unum hominem peccatum intravit in mundum et per peccatum mors. Paul. ad Rom. c.5.v.12.

(122) 1. Neurriba'coac dira pecatuac munduari ecarri deutzan calteac. Gure lenengo gurasoen pecatu bacar batec ecarri euscuzan, gueugan dacusguzan gach, neque, lan eta zori gogorreco gauza guztiac. Berac imini guinduzan Demonioaren aguindupeean; berac condenau guinduzan eriotzara, zarratu euscuzan ceruco atea, eta eguin guinduzan Jaungoicoaren arerio. Ain izan zan andia pecatu onegaitic eguin guenduan zorra ce, ez egoan guizon eta Aingueru guztien artean zegaz quitutu edo cegaz pagadu; eta alan bear tzan Jaungoicoa bera guizon eguin-da, modu onetan, gure pecatuac arturic, bere odola emoitea. Baya jo guizon itsuaren itsumendia! Azturic, bada, calte oneec, eta gomuta izan bagaric cer costa yacan Aita Eternoaren Semeari, gu pecatuetatic ateratea, bera bere guraz biurtuten da, pecatu astunaren cateacaz estututera. Baita asco ezpailitzana leguez bat edo beste eguitea, ur otza legueche parra-parra edaten dituz pecatuac. ¡Ah bada: ondo balequie cer eguiten dabeen Jaungoicoagaz, eta celango calteac dacarrezan euren buruentzat alperric, ece gogo guichiago euquico leuque celambere pecatu eguiteco. Orregaitic bada esango deutsuet arrastegui onetan, lenengo cer eguiten dozuen Jgcoagaz pecatu eguiten dozuen bacochean; eta bigarreno, celango calteac dacarzuezan pecatuac.

Lenengo zatia

2. Gauza oquer bi eguin dituz nire esquergaistoco yente onec, cirautsen israel-tarrai Jaungoicoac Jeremias-en aotic. Izanic ni euren Jauna, ni euren yaube ta onguillea, neu ichita pecatuen atsean dabilz¹⁰⁸. Aushe berau errazoe andiagagaz esan leigu gueuri Jaun

¹⁰⁸ Me derelinquerunt fontem aquae vivae, et foderunt sibi cisternas, cisternas dissipatas, quae continere non valent aquas. Jerem.c.2.v.13.

onec, bada izanic ascozaz andiogoac gueuri eguinico mesedeac, andiogo da eta gogorragoa gure esquer-deunguea. Eguin guinduzan ecer-ez-etic, emon euscun bere antzeco arima bat, baita imini cituzan gure aguindura bere escuetatic urtenico gauza guztiac. Barriz ezagutu gura bagaric guizonac chitozco mesede andi oneec, biurtu zan Jaungoicoaren contra pecatu guztiz esquergueacaz, guerra bicia eguiten. Baya jo Jaungoicoaren ecin-esanezco ontasuna! nos eta gueiago bere Magestadearen contra yaiguiten cirean guizonac, orduanche eracusten deutse bere biotza euren amodioan erreric. Orduanche bialdu euscun bere Seme bacarra gu Demonioaren aguintutic aterateco, eta bere seme eguiteco. Eguin eban Jesus onac Aitaren esana; baya ¿cer costa e-chacan? Abelechechu baten lasto artean yaio bear izan eban: bere precio andia baño andiagoco odola yaio-ta zortzigarren eguneraco emon bear izan eban. Barriz ogueta amairu urtean ¿celango neque, lan, izardi, gose, egarri eta arduraac icusi bear izan etzituzan? ¿Eta noc esan, bere pasiño gogorrean igaro cituzanac? Aimbeste larritasun, aimbeste zauri, bost milla ta gueyago azote, arantzazco coroe gogorra, escu-oñetaco untze lodiaco, ¿eta noc daqui cer? Bai, Cristiñaiac, Jaungoicoaren seme J.C^o.c, bere aitagaz Jaungoico dan seme onec emon eban gugaitic bere bicitzea curutze baten yosiric neque, min-alen, eta deshonoragarrizco lotsarrien artean.

3. ¿Noc usteco ez eban odolezco ichaso onetan itoric gueratuco cireala seculaco mundu onetaco pecatu guztiac? ¿Noc esango ez eban etzala izango guizonic, aimbeste amodio Jaungoicoagan icusita, pecatura biurtuco zanic? ¿Noc sinistuco eban oraindocoarren beré gogorturic gueratuco zala guizonaren biotza? Bay ¡ay ene, neure Cristiñaiac! lar beré lar dacusgu achinacoac bashen deungagoac ezpagara, beintzat obeac ez-careala. J.C^o. gure Jaunaren odolagaz erosiaco izanic, barrien barri zapalduten dogu balio andico odol au. Bay, peccataria, aushe yazoten dala, pecatu eguiten dozun bacochean dirautsu S. Paulo Apostoluac (Hebr. 10.cv.20). Aizturic, Jaun onec eguin deutzuzan mesedeac, osticopean darabiltzu bere odola, eta ceure peccatuaz barriro loituten dozu bere gorputza, eta ecetan beré eztauczuz zugaitic eguin dituzan miraari guztiac, eta zugaitic igaro dituzan neque, lan, pasiño ta eriotzea. ¿Cer dago au baño gauza icaragarriagoric? ¡Ah Cristiñaiac, bacenqui ondo cer balio daben Jesus onaren pasiño, ta eriotza ta odolac, aushe asco izango litzateque nombaist santu andi bat izaiteco, diño S. Juan Crisostomo-c. Batu eguizuz santu guztiac eguin dituezan penitencia, gaubela, gogortasun, barau, negar eta cizpuruac: Martiri guztiac icusi dituezan prepondegui, ezpata, su, catea, ta ganeco icaragarrizco nequeac: eta ce-

rucu Aingeru guztien mercedentuat. Direanac, bada, bat eguin-da beré, eztira eltzean Jesus onaren odol tanta (123) baten baliora: bada guzti guztioac Ama Virginearen mercedentuat naste bat eguin-da beré e-litzatequez asco izango parquetaco pecatu bacar bat beré; barriz Jesus maitearen odol tistilla bat asco da guztien parcaciñoraco. Eta orregaitic beré ain da andia guizonaren zoraqueria ce, mundu onetaco guraari citel chiquienagaitic salduten dau ceru-lurrac dauquen ondasunic andiena, gura leuqueala bere aldetic, Jaungoicoric ezpalego, eta bere escuac ezarten deutzazala bere borondate deungueagaz. (123)

4. Ameneco usteco dozu au lar esatea dala. Enzun bada S. Bernardo-c dirautsuna. Gauza icaragarrizcoa da, baya lar (gueiegui) beré eguia da, guizonaren borondate deungueac Jaungoicoa ilten dabela¹⁰⁹. Bada pecatu eguiten daben bacoachac guraco leuque Jaungoicoric ezpalego, edo bai guichienez bera castiguetaco escuneric ezpaleuco, baita au ezta beste gauzaric Jaungoicoa Jaungoico izan eztedila gura izaitea baño. Beste-ain-beste diño Job santuac: peccatariac peccatua eguiten daven orduan (eguit-orduan), bere besoa gora eguiten dau Jaungoicoa yo-iteco legue-che¹¹⁰. Ain gauza lotsaba'coa bada, eta aimeste castigu mercedu badau gurasoa yo-itera eguiten dabenac, ¿cer izango ete da aushe berau bere Jaungoicoaren, bere eguillearen, bere salvatzailearen, ta bere Jaun ta yaubearen contra eguiten dabenac? Baita ezta emen gueratuten peccatari itsuaren gogortasuna, bada bene-benetan ilten dau aleguinez Jaungoicoa berbera, diño S. Juan Crisostomo-c¹¹¹. Bada onelangoa Jaungoicoaren arerioacaz batzaindu eguiten da, al-daian gach guztia eguiteco, baita al balegui, cerura igon, ta bertanche ilgo leuque Jaungoicoa bera, castigadu ce-daian. Onetara dator S. Paulo Apostoluac diñoana: peccatariac, pecatu eguinagaz, barriro yosten dau curutzean Jaungoicoaren semea, barriro burlazar ta irri-barreca yagoco¹¹². Ay neure maiteac, noc euqui leiquean Apostolu andi onen indar eta espiritu guztia, zuei adietan emo-iteco cer dan Jesus maitea peccatuacaz iltea! Yaquin eguizue bada dala bere negargarrizco neque, larri, eta tormentu guztiac barrieztetea, bost milla ta gueiago azote emotea, arantza gogorrezco corioia buruan sartutea, curutzearen pisua bashen andiago bat bere lepoganean imintea, eta curutze baten untze lodiaca yosi-ta eriotza lotsagarrizco bat emo-iteco.

¹⁰⁹ Bern. Horribile dictu, Deum perimit propria voluntas.

¹¹⁰ Tetendit manum suam contra Deum. Job c. 15.v.25.

¹¹¹ Vere omnis homo malus quantum ad voluntatem suam mittit in Deum, et occidit.

¹¹² Rursum crucifigentes sibimetipsis filium Dei, et ostentui habentes. Hebr.c.6.v.6.

5. Bein baño gueiagotan aserratu eguin izango zare, baita tint, Judasen eta Yudeguen contra Jaungoicoaren Semeagaz eguin cituezan gogortasunac enzut-orduan, diño S. Juan Crisostomo-c, bada ara, yaquin bear dozue ece, andiagoa dala zuen itsumendia a-ena baño, gogorragoa zuen oquer-gaistoa, eta esquergueagoa zuen pecatua. Cegaitic-ce a-ec ez ebeen ezagutu J.C^o Jaungoicoaren semetzat; uste ebeen guizon galdu, guzurti oquer bat zala, eta alan ain eriotza gogorra emoten eutsenean euren erechian Jaungoicoaren borondatea eguiten ebeen, eta venguetan even euren leguea ta Moyses-en honrea. Eguia da ez euquela euren erracuntzan achaquiaric, bada J.C^o. gueure Jaunac, eguin cituzan miraariac asco ta asco cirean edoceineri sinistu eraguiteco Jaungoicoa zala; baya beindanic bein ez ebeen ezagutu, ce ganecoan ez eutsen eriotzea emongo, diño S. Paulo Apostoluac (1 Cor.c.2.v.8.). Orregaitic curutzean egoala esan eutsan bere Aita Eternoari J.C^o.: Aita parcatu eguioezu, ce eztaquiecer eguiten dabeen. Baya zuec ezaguturic nor dan Jesus amodioz betea, yaquinic Jaungoico eguiazcoa dana, Aita Eternoaren seme bacarra dana, ceru lurraren eguillea dana, eta aintzacotzat sinistu eta confesaduric, orregaiti beré zatituten deutzazuec zuen pecatuacaz bere araguiac, urratuten deutzazuec bere burua, zulatuten deutzazuec bere escu-oñac, eta azquenean emo-iten deutzazuec eriotza guztiz necatu bat. ¿Au da, Cristiñauñac, Jaun oneri emoten deutzazuen mesedeen ordea? ¿Oneshec, euqui deutzazuen amodioaren, eta eracutsi deutzazuen ontasunaren esquerrac? ¿Ezta bera zuen Aita, zuen eguillea, zuen salbatzaillea, zuen Erredentorea? Bada ¿celan daucazuec bera ilteco biotzic? ¿Celan bera ilteco gogoric? ¿Celan bera yosteco vorondateric eta curutze baten esqueguiric icusteco beguiric?

6. Aushe da, Jesus ona, pecatariac emoiten deutzazuen ondo eguinen pagua, aushe, eurai eguinico mesedeen saria. Eurac-ganaco amodioz beteric, emon deutsezu daucazun guztia: asco ez erechiric eurac ceure antzera, ta irudira eguinari, ceure odol-guiñocoa emon dozu, eurac pecatuen menpetic ateratearren. Baya jo guizonaren ecin-esanezco gogortasuna! Ezagutu gura bagaric ceu euren onguilletzat, ostera yosten zaituez curutze baten, Yudeguac bashen untze gogorragoacaz. Baya, Jauna, andia bada beré guizonaren gogortasuna, andiagoa da zuc edocein beré gauzataraco daucazun escua. Ea bada, Jesus maitea, bigundu eguizuz gure biotzac ezagutu daigun gure (124) pecatuaren esquerguetasuna, baita asco ezpada onen ezaupidea berari gorroto artuteco, izan bedi edolambere yaquitea celango calteac dacarguzan gure arimearen arerio aserre onec, eta aushe da esan deutzazuedan.

Bigarren zatia

7. Ain da andia guizonaren biotzeco astuntasuna ce, ezta ecetara beré biurtuco, ez-izanic bere onen, edo gachen bildurragaitic. Andia da celamberé Jaungoicoari zor deusagun amodioa, eta ecin-esanez-coac dira berac eguin deuscuzan mesedeac, eta orregaitic ez gueun-que aushe baño besteric bear, Jaungoicoaren adisquidetasuna galduten bildur izaiteco. Alambere au ezta asco izaiten guizon esquer gaistoco zoroa pecatuen gorrotoan sartza-iteco: baita orretaraco indar gueyago equi daroa beragaz bere buruari eguiten deusazan calteen ezaupideac, Jaungoicoari emoiten deusazan atsacabeen anditasunac baño. Enzuzuez bada pecatuaren calteac.

8. Escritura Santea iracurtea baño bear eztoqu ezagututeco ce negargarrizcoac direan pecatuac munduari ecarri deusazan gachac (1 Pet.3.v.20). Pecatuacaitic gueratu zan lurra uriolacaz estalduric, eta zortzi guizon-ez ganeco guztiac itoric: pecatuacaitic yatsi zan cerutic sua Sodoma, Gomorra eta beste iru Uriren ganera, eta cireanac erre cirean. David Erreguearen pecatuagaitic irurogeta amar milla guizon il cirean. Ermuan eguin ebeen pecatuagaitic ogueta ama-iru milla Ysrael-tarrai emon eutsen eriotzea. Jangoicoaren puebluari pecatuacaitic etorri oi yacozan neque, lan, gach, eta gauza gogor guztiac. ¿Cegaitic iminten cituzan Jaungoicoac euren arerioen men-pean? Euren pecatuacaitic. ¿Cegaitic eroan cituezan catea astunacaz esturic Egipto, Asiria, Babilonia ta Damasco-co Erregueac? Euren pecatuacaitic. ¿Cegaitic derichazue dagozala gaurco egunean erre-gue bagaric, legue bagaric, elesha ta altara bagaric? Euren pecatuacaitic. Baya ¿cer daucagu, cer yoan Ysrael-ecoac-gana? Gueuc gueure egunetan dacusguz pecatuaren calte chitozco esquergaac. (Dempora) Aldi onetan dacusguzan auci, supituco (beingoango) eriotza, su, gose, pobreza, labore falta ta beste neque ta gach guztiac pecatuetic datoz. Alanche esaten eutsen Moyses-en bitartecoz Jaungoicoac berac Yudeguai (Deut.28). Emon deusuedan legue santua gordetan ezpadozue, zori-gogorrecoac izango zaree zuen gauza guztietan: zorigogorrecoac urian, ta zorigogorrecoac campoan; zorigogorrecoac echean, ta zorigogorrecoac soloan. Ereingo dozue garia ta artoa, eta eztozue ezerbere artuco: euria bear dozuenean, eztau eguingo; eta eguzquia bear dozuenean, ezta icusico (aguertuco). Broncezcoa izango yatzie cerua, eta burruhezcoa lurra. Biralduco deusuet gosetea, gacha, eta zori gaistoa; ilgo deusuedaz ardiac, aariac, idiac, beiac, zaldiac. Suac, eta eguraldi charrac erre ta galduco deusuez echeac, mastuiac, sagastiac, ortuac eta (mendiac) basoac. Quenduco deusuedaz eriotza gogorragaz semeac, alabac eta gura-

soac. Emongo deuntsuet gacha gacharen ganean, nequea nequearen ganean, eta zauria zauriaren ganean. Azquenean barriz, quenduco zaituedaz lurraren ganetic, eta ilgo zare biotzeco bildur itzal artean.

9. Gach oneec guztioc, baita ascozaz beré gueyago yazoco yacazala dirautso Jaungoicoac bere puebluari, berac emonico leguea gorde-ez-ic. Bada Moyses-en bitartecoz emonico legue gogorra ez gordeteac ainbeste gach merecietan beeban, ¿ceimbat eta celangoac derichazue mereciduco dituzala, J.C^o.c emonico legue bigun, santu ta amodioz betea ez gordeteac? ¿Ceimbat andiagoac izango dira legue onen contraco pecatuac dacarguzan calteac? Ain dira andiac ce, mundu onetan dacusguzan guztiac bat eguin-da beré eztira asco beragaitic artuten dogun zorra paguetaco, Jaunaren ontasun ta erruquitasunac parcatu ez-ic. Eta jarren bada, mundu onetan icusico baguenduz gach eta neque andiac, eta onetan gueratuco balitz pecatuen calte guztia! Baya bildur nas, Cristiñauac, bildur nas, cein beste mundura eldu daitezcan emen pagadu gura eztoguna, an pagadu arazo ce-daigüen. Baita andiac badira pecatuac gorputzari ecarten deutzazan calteac, andiagoac dira celambere arimeari eguiten deutzazanac. Da arimea pecatu eguin baño leen, Espiritu Santuaren bici lecu, Jaungoicoaren egoitza, Aita Eternoaren seme, J.C^o.ren anaye, S.Pedro-c diñoandi, Jaungoicotasunaren partilla, eta laguna. Baya ¿cer uste dozue, eguiten deutzala pecatuac? Lapur batzuc bidezco bateri eguin leiquioena. Sarri-ascotan yazo oi da guizonen bat bere bidean yoatea diru zati andi bategaz. Urteiten deutse lapurrac, eta ez bacarric quenduten deutse daroian diru guztia, baita beré (125) (125) ilten dabee ta bertanche ichiten dave lurrean luce luce, zauriz beteric, billosic, odolusturic eta ezain ezain eguinic. Beste onenbeste eguiten deutso pecatuac arimeari. Quenduten deutsoz gradiaren ondasunac, bat-bere ichi bagaric, zauriz ta llagaz betetan dau: ilten dau, baita ichiten dau mundu onetan dagoan gauzaric ezainena baño ezainago; eta ain billosic ce, ezteutso isten cegaz estaldu Jaungoicoaren aurrean bere ezaintasuna. Orregaitic diño Ecequiel Profeta igarlaric: Pecatuac ushalduten dau guizon santua (c.3.), eucan santidaderic, albora (igues) eraguiten deutso bere ontasunetic, eta ezteutse balioco arean ordura arteco obra on guztiac.

10. Bai, Cristiñaua, bai: baceuncaz, santu guztiac euqui dituezan merecimentuac beré, pecatu bacar bat asco litzateque guzti guztiac beingoan galduteco. Ecarri bacenduz Jaungoicoaren ezaiërra Apostoluac baño yente are gueyago; (igaro) icusi bacenduz martire guztiac bashen presondegui neque, su, orio iraquin, metal urtu, azote ta tormentu gogorrangoac; eguin bacenduz confesore eta virgina guztiac baño penitencia, barau, gogortada, ta gaubela andiagoac; direa-

nac beingoan galduco ceunquez pecatu bat-egaitic. Baceuncoz ceruco santu eta Aingueru guztien graciac beré, pecatu eguin orduco ba'peré bagaric gueratuco cinatequez. ¿Gur'uzu enzun gueyago? Bada ara, ta icaratu zaitex enzut-orduan. Bazeunco Andra Virginia Maria-Santisimeac eta J.C^o.c berberac dauqueen gracia beré pecatu bat bacarric eguinic (eguin orduco) dan-dana galduco ceunque. ¡Ay, ta celan esan guinaian pecatuan dagoan arimea gaitic Jeremias-ec beñolan negarretan urturic ciñoana: Sartu da arerioa, arimaco urian, eta eucazan gauzaric onenac artu dituz: ichi dau guztiz pobreric, banaturic eta ilic!¹¹³ Baya jo guizonaren miragarrizco gogortasuna! Ain da andia euren itsuqueria ce, ur otza legue-che parra-parra edaten dituez pecatuac: gueyago yoaquela uste dabee mundu onetaco gauzaric chiquien chiquiena (edocein ecerezqueria) galtzean. Jaungoicoaren gracia eta adisquidetasuna bagaric gueratuten direanean baño (gueratutean). Galduten badozu mundu onetaco ondasunen bat; erretan bayatzu echeren bat, galduten bayatzu idi, bei, aari edo beste ganaduren bat; celango penea, celango nequea! Mundu guztia aracatuten dozu bera topetaco, gau ta egun zabilz mendiric mendi, echeric- eche, laarraric laarra ta bazterric bazter bere atsean. Ylten bayatzu maite dozun seme-alabaren bat, edo senar, emazte edo gurasoren bat, ¡celango negarrac, celango cizpuruac! Quenduten badeutsue diru puscaren bat ¡celango atsacabea, celango tristecea! Eztago noc poztu zaguizan; guztia da gomuta izaitea, galdu dozun gaucea, ecin quenduric ceure burutic: barriz ezteutsu arduraric ceruan ta munduan daucazun gauzaric onenagaitic; eztozu yaramaiten ceure arimea ilic euqui-arren.

11. Ydigui eguizuz, arren, ceure fedeco beguiac ceure arimea pecatuan dagoanean icusteco: beguiratu eguiozu celan dagoan ilic, Demonioño bat dirudiala, icatza baño baltzago, gorputz atsitu bat baño beré atsituago. Ycusi eguizu celan dagozan bere yaube eguinic Demonioñoac, eta celan dauqueen catea lodi ta astunacaz estuta. Eta arritu ta icaratu zaitex icusiric arpilloa gorputz ustelean legue-che, dabiltzezala Diabruac ceure arimaan batecoric bestecora. Baita galtzaiera oneei asco ezpaderichazu, yaquin eizu oraindo pecatu eguiten dozunean ushatuten dozula Jaungoico guztiz maitea zure arimarric, eta bein-betico agurra eguiten deutzazula J.C^o. gueure Jaunari, Andra Virginia Maria guztiz gozoari, ta Ceruco Aingueru ta Santu-Santai: galtzean dozuz Jaungoicoaren semeac, bere icaragarrizco eriotzeagaz irabaci euscuzan, chitozco ondasun ta merecimentuac;

¹¹³ Manum suam misit hostis ad omnia desiderabilia ejus. Thren.c.1.v.10.

(126) eta eciñ ciñoaquez cerura. Agur, diñozu alango orduan, agur, agur, ceru ederrac, etzaituedaz nic gura neure bici-lecutzat; guraago dot neure pecatu, guraari eta gustu citaletan ero eroric ibili, zuen atseguin, pozgarri eta contentu artean beti-betico bici baño. Agur ceruco santu eta Aingueru guztiac, ez eguizue nigaitic erregutu, eztot gura zuecaz batera bici ceruco glorian, eztot gura zuen lagun izan; naiago dot Demoniñoacaz naste erretan secula betico infernuan egon. Agur Ama Virginia Maria, eztot zure arpeguiric icusi beré gura, ez eguiozu nigaitic erregutu zure seme Jesus-eri, ce gurago dot neure pecatuetan sarturic egon: naiago dot neure arerio gogorracaz naste bici infernuco su, neque, ta zorigororean, zure laguntzan bici baño. Agur ceu beré, neure salbatzaille, Erredentore ta Eguilla, gorroto deutsut, etzaitudaz icusi gura: bota naguizu zure aurretic Ynfernetara:(126) bada gurago dot zure gorrotoan eta ecin-icusian bici, pecatua ichi baño. Ba'quit infernetara betico noiala, baya ezta ardura: ezteust arean, mundu onetan nagoan artean neure gustua eguiten badot.

12. ¿Cer dirautsazu, Jesus Maitea, pecatari galdu oneri? ¿Cer esango deusat? Neure semea, neure maitea, nire Cristiñau laztana, ¿ce gach eguin deutsut nic, edo cetan izan nachatzu astuna ta gogaitgarria¹¹⁴? ¿Ce pecatu icusi dozu nigan, modu lotsagarrizco onetan ni ichiteco? Edo ¿ceta'co zure ta nire arerioai, niri baño amodio gueiago euqui deutsezu? ¿Eguin deutsue orreec nic baño mesede gueiago? ¿Eguin zaituz ecerbere ecetic Demoniñoac? ¿Emon deutsu bicitza munduac? ¿Edo al dira andiagoac, araguiac emon daiquezuzan atseguin, poz-aldi ta contentuac, nic zuretzat ceruan daucadazanac baño? Eta oneri guichi baderichazu, ez munduac, ez Demoniñoac, ez araguiac, ezpabere, neuc, neushec erredimidu ta erosi zaitudaz, ez urre-zuri ta gorriagaz, ez cerubacaz, ez eguzqui, irargui ta izarracaz, ezpabere neure balio andico odolagaz. Testigu dira artu nituzan bost milla ta gueiago azote; testigu buruan daucadan coroe gogor au; testigu escu-oñac bateric bestera zulatu deusten untze gogor oneec: testigu dira dacusuzan zauri edo llaga oneec: eta testigu curutze au, ceinetan yosiric nacutsun. Baya orregaitic beré min andiagoa emoten deust zu galdu bearrac. Aushe da nire biotza erdibituten daben ezpatea. Ea bada nire seme laztana etzaitetz galdu, erdu nigana. Bıldur bazara aimbeste pecatugaz ni-gana etorten, yaquin eguizu etzaitudazala botaco. E' nituzan bota S.Paulo, S. Mateo, Sta. Maria Magdalenea eta beste pecatari asco ta andiac. Ea bada, neure Cristiñau maitea, bizcortu zaitetz; erdu laster; eta bazagoz ica-

¹¹⁴ Popule meus, quid feci tibi, aut in quo molestus fui.

tza baño beré baltzago, eta Demonioac baño beré ezainago, edurra baño zuriago, eta eguzquia bashen ederrago eguingo zaitudaz. Poztu zaitetz, pecataria, opa deutsun parcacíoagaz, eldu zaitetz Jesus maite onen oñetara, eta esan eguiozu negarretan urturic: Neure Jesu-Cristo Jauna.

6. PECATURACO BIDEA EMOTEA

[ESKANDALUZKO PECATUA]

(J, 201-210. or.)

Vae mundo a scandalis... Vae homini illi per quem scandalum venit.
Math.c.18.v.7.

(201) Pecatu bat munduan ascoc eta ascoc eguiten dabeena: pecatu bat besteac bashen arima gueiago galduten dabena; pecatu bat ceinen contra Yesucristo-c cemauntza itzalacaz berba eguin eban: aushe da gaur nire berba-bideraco artuten dodan gueia. Besteai (lagunai) pecaturaco bidea emotea, aushe da pecatu orren zabaldua, ainbesteen galgarria, eta ceinen contra eracutsi eban ainbeste su Ygcoaren Semeac. Pecatu guztiz zabaldua, bai, eta eztaikit esan eztaguidan gueienac eguiten dabeela. Bada, noc esan lei: nic garbi daucat burua, nic iñori beré ezteutsat deungaroraco bideric emon? ¡Ay! orretaraco ezta bear, ascoc oker usteco dabeen leguez, pecatu eguitemo esatea, ez alangoraco burutasunic, edo aurrera bideric emotea: asco da, ciñoian anchina Tertuliano-c, eta diñoie guero ta gaurco eguanean teologo yakintsuac, eurac eguin leikeen gauza okerren bat euren beguietan eguitea. Baita ¿cein da ori eguiten eztabena? ¿Ce bildur artuten yaco besteen aurreti ondo eztana edo oker dana eguiteari, edo deunga dana esateari?

Emeti guero cer? ¡Ay! gachagaz dagon bat asco izaten da erri guztia, eta batzuetan erreinu guztia atsituteco. Eta ainbestec pecatuaren gach okerragaz galduta dagozanac eta besteai eztitu (eradendu, ezarri, erantzi) ecinic dabiltzazanac? ¿cer eguin bearco eztabe? Eguiten dabeena eta yazoten dana da, ainbeste ta ainbeste donga eguitea, mundu guztia galdutea, eta infernua guizon-emaumez bete-bete eguitea. Onec su-min andi bat emon eutsan J.C.ri, eta biguntasuna eta errukia bera zan Yaun gozo au asi zan aiai bildurgarrica, bai alango bideac emoten dituezanen contra, bai orretati galduten direanen contra¹¹⁵. Ay munduagaz, ciñoian, pecaturaco bideac gaiti! ¡Ay onelango bide dongaac emoten dituezanacaz! Oba leukee oneec

¹¹⁵ Calmet in hunc locum. Proverb. 25, v.8.

errota-arri bat iduneti (samati) estuta, ichasoan ondatuco balituez. Onelango berbacaz adietan emoten ebala gutzizco calte andien beguira dagozala bitzuoc. Onetati aguri da ce mesede-garr ia izan leki-kezuen onen ganeco sermoia, eta zorionecoac zuec, beratati alango bideric gueiago ez emoteco, eta leen emonen penitencia eguiteco bideac eta asmuac artuten badozuez, eta nic esker andiac emon bearco deutsadaz Jaunari neure bidez mesede andi ori eguiten badeutsue. Dendatu bear dot bada, ea Jangoicoa lagun dodala, ea alangoren bat eguin albanegui.

Eta ¿ce berba-bide oberic artu nei nic J.C^o.c, aitatu deutsuedazan berbetan artu ebana baño? Bai, Jaun au uste dot artu niri bide ori eracusteco guidaaritzat. Esango deutsuet bada bere berbacaz. Vae mundo a scandalis: ay munduagaz pecatu bideac gaiti! Eta ¿cegaiti? Bide char orreec ascoren ta ascoren arimeetan eguiten dituezan calte icaragarriac gaiti: aushe izango da lenengo zatia. *Vae homini illi per quem scandalum venit*: ¡ay deungueraco bidea emoten dabeenagaz! Eta ¿cegaiti? Bere buruaren ganera dacazan calteac gaiti: ara emen bigarren zatia. Berba baten pecaturaco bidea emoten dabenac bere buruari, eta besteai eguiten deutsezan calteac eguingo dabe ne. sermoi-guei guztia¹¹⁶.

(202) (202) *Vae mundo a scandalis... Vae homini illi per quem scandalum venit. Math. c.18.v.7.*

Arratsalde onetan Ygcoa lagun dodala esan bear deutsuet gueyenac bear dozuen, eta ondo arturic mesede andia eguingo deutsuen sermoia. Bear bada zuec entzuten dozuenean besteai pecaturaco bidea emotearen ganean izango dala, eztozue alan usteco, eta zuen artean esango dozue: ¿cer, gueyenac bear doguna? Gueyenac emoten al dogu pecaturaco bidea? ¿Orren gaistoac eguin gura gaituz gueyenac? Ez, eztaroagu guc orrelango pecatu tzar andiric eguiten: olango pecatu eskergaac guichitan icusten direanac dira. Onelan uste dabe ascoc munduan, eta emeti dator gauza oneri ain bildur guichi artutea. Baya ezta ori olan, eta deungueraco bidea emoteco ezta bear errian berba lecu andia iminico daben, edo imini leikean pecaturic, eta ain guichi pecatu eguiteco garbiro esatea, edo orretaraco buru charra emotea, osterantzecoacaz beré sarri ta sarri emon yoake. Orretaraco asco da ciñoian Tertuliano-c, eurac eguin leikeen gauza charren bat euren beguietan eguitea, eta au gueienac eguiten dabe edo eguin daroazue. Eztago munduan pecaturic eztaucanic, eta besteric uste dabenac berac bere buruari guzurra sinistu eraguiten deutso. Gueienai esteutse ecer (arean, ardura) euren ondo ezтана

¹¹⁶ in speculo animæ. c.1.

iñoren aurreti eguina gaiti. Eta ar'or asco dana pecaturaco oñ okerra emoteco: ar'or gueyenac pecaturaco bidea emoten. Eta ¿emeti cer? Gueyenac indar gueyago dauken leguez deungueraco, enparaduac oneraco baño, emeti guero pecatuac gueyagotutea, eta mundua deungagotutea: emeti ainbeste pecatu ta pecatari: emeti ainbeste calte arimeetan. Orregaiti esan deutsuet ceuen arimeen mesede-garri andia izan leitekeala gaurco sermoia, eta alanche izango da izan beré, zuen biotzean alango pecatu icaragarrien gorrotoa beratati sartuco baneutsue.

Eta ¿ce berba-bide oberic artu nei nic orretaraco, Yesucristo ge. Jaunac artu eban cemauntzazcoa baño? Jgco ta guizon eguiazco onec, biguntasuna eta errukia berbera dan Yaun andi onec, alango pecatu-bide deungueen ganean berba eguiten eban baten, su santu bat artuta (asi zan ay-ayca itzalacaz cemaca bai cemaca bide char orreec artuta pecatu eguiten ebenai, bai bide orreec emoten dituezanai. *Vae mundo a scandalis* esan eban: ay munduagaz pecatu-bideac gaiti. *Vae homini illi per quem scandalum venit*: ay pecaturaco bidea emoten dabenagaz. Aushe da bada zuen oneraco nic artuten dodan sermoi bidea) asi zan aiai-ca, adierazoten ebala oker andiac egozala bai pecaturaco bidea emoten dabenentzaco, bai bide ori artuten dabenentzaco. Nic bada bere berbaac artuta esango deutsuet: *Vae mundo a scandalis*, ay munduagaz pecatu-bideac gaiti! Eta ¿cegaiti? Bide char orreec ascoren ta ascoren arimeetan eguiten dituezan calteac gaiti: aushe izango da lenengo zatia. *Vae homini illi per quem scandalum venit*, ay deungueraco bidea emoten dabenagaz! Eta ¿cegaiti? Bere buruen ganera dacazan calteac gaiti: ara emen bigarren zatia. Berba baten pecaturaco bidea emoten dabenac bere buruari, ta besteai eguiten deutsezan calteac izango da ne. sermoi-guei guztia. Zorionecoa ni, pecatu itzal onen bildurra ta gorrotoa zuen biotzetan sartuta bera eguiteric alderatuten bazaituedaz.

Modu bitara emon yoake gueyen besteai deungueraco bidea. Bata da iñori pecatu dan gaucea eguiteco aguinduten yacanean, edo orretaraco burutasuna, aurrera-bidea edo gantza emoten yacanean edo bestea celan-alan orretan iminten danean. Alan eguiten dabe gurasoac, umeai ecer ostuteco aguinduten deutsenean: alan iñori guzurraren ganean bere alde yuramentu eguiteco esaten deutsanac: alan besteren bateri esaten deutsanac eztaguiola lagunari parcatu esan deutsan berba charra; bera leguez balitz kerella bat esarrico leuskiola: baita beré alan emon daroe ascoc munduan seigarrenera-co bidea. Bigarren bide deunguea emoteco modua da oker dana edo oker dirudiana besteren aurreti eguiten danean, besteac orretati guero orrenbeste eguiteco burua artuco badau, edo artu albaleike.

(203) Eta au yazoco da beti iñoren aurrean gauza (203) charra eguiten danean ain onac ezpadira ori dacusenac ece icusia gaiti eztaben okerrera bideric artuco, edo ain deungaac ceinda ori bagaric bardin bardin eguingo leuken. Pecaturaco bidea emotea da berba loiac (barre-eraguingarriac izanagaiti) besteen aurreti, guztiz bere gazteentati, esatea; canta ipuin edo destaña cikinac esatea: baatzaco dantzac eguitea; mosua, laztana besartean artzea, ukiera okerra mutilac neskeari edo bestera neskeac mutilari eguitea; emacume gauceac soña bear eztan leguez erabiltea.... eta arabere gueyago gazte gaishoi seigarreneraco zantarkerietarako beguiac idiguitea. Pecaturaco bidea emoten dabe gurasoac umeen aurreti biraoac, añenac, berba zantarrac, gazte-zaroco zorakeriac esaten dituezanen, edo andichu eguin ezkeru euracaz naste eratzoten badituez, edo euren gelaan, orregaiti gueldi egoten eztakiela, eta ondo eztan besteren bat seme-alaba orren beguietan eguiten badabe. Beste onetarico asco sermoian bertan aitatuco deutsuedaz. Au aurretico dozuela, icusi daigun celango calteac eguiten deutseezan besteai alango bide-char emollac.

¡Ay bada gogotan artuco balebe besteai pecaturaco bidea emoten dabilzazanac, celango calte eskergaac eguiten deutseezan! ezterichat izango leukeela orretaraco biotzic. Onec dira araco Ygcoac diñozan guizon gaishoz galduac, erri guztia atsitu bear daveenac; onec, Ygcoaren icena araco anchinaco Profeta guzurti okerrac leguez erriric garbitu gura daveenac, eta onec San Pauloc ciñoan guizon gaisto errebesa leguez, diabruaren lanac eta cer-eguinac eguin bear dituezanac. Bai beintzat onelango cristiñau charrac galduten dituez arimaac, kenduten deutse Ygcoaren gracia ta adiskidetasuna, galarazoten deutse ceru ederra, ta ondatuten dituez infernu gogorran. ¿Baakizue guero au cer dan? ¿Egon izan tzare iños zuen artean ceinbat balio bear daben arima batec? Baya ¿eta noc au aditu? ¿Noc berbacaz ulertu eraguin?

¡Jesus laztana! zuc erosi cenduzan arima orreec nekeacaz zeure odolagaz, eta zeure Eriotzeagaz, eta zuc dakizu ondo ondo ceinbat balio daben arima batec. Esaiezu bada, arren, arimaac bildur bagaric galduten dabilzazanai arima orren balioaren anditasuna. Erdu ona gacheraco bide okerra emoten dozuna, edo emon izan dozuna, eta emen entzungo dozu Yaun onen aoti arimearen balioaren barria. ¿Baakizu Yaun au dala Ygco eguiazcoa, Trinidadeco bigarren persona? ¿Baakizu berau guizonen arimaac pecaturic aterata ceruraco irabaztearren guizon eguin tzala, bicitza gogorra, pasiño garratza ta eriotza itzala igaro ebala? Bai, baakizu: baya orreec gogoari obeto emoteco, yarri zaitez belaunico santocriso baten aurrean, eta beguira ondo ondo ce errucarri gaisho eguinic dagoan.

Beguir bada celan daucan burua arantzaz galduric, arpeguia matrallacoacaz baltzituric, andituric ta ezainduric, gorputza azotez ebaguiric, eta dana bururic eta beatzetara birrinduric eta zati oso bagaric. Eta alan icusten dozunean alen alez il aguinean itandu eguiozu: Yauna, ¿cec edo noc ecarri zaituz onetara? ¿Ce escu gogorrec, ce borreru itzal biotz-baacoc eguin izan dau zukan onelango desgarrioa? Zu ceru-lurren eguillea, zu Aingueruen erregue, zu Yg-co eguiazcoaren seme bacarra, zu guizonen aguintaria, zu pecatu baacoa, ta zu Ygco berbera, eta ¿onetara? Gaisto okerren eriotza gogorra icusi bearrera? Guizonic satzena leguez guztien ostico-pee-ra, guztien barregarri izatera? Eta entzungo dozu erantzuten deusula: Ay guizona, zu ta besteac pecaturic aterata cerura eroatearren daroadaz nic oneec guztio: eta arima bacar bat irabaztearren bear balitz beste onenbeste, beste onenbeste, ta milla bider beste onenbeste eroango neunkez, eta ondo pocic. Ainbeste eguiten dot nic guizonaren arimea.

Baita zuc pecaturaco bidea emoten dozunac, ¿cer eguiten dozu? Ygcoac ainbeste nekegaz irabaci izan daben arimea zuc galarazoten deusazu: Ygcoaren semeac bere eriotza gogorragaz biztu izan daben arimea, zuc ilten deusazu; eta Ygcoaren Semeac ainbeste eguiten daben arimea zuc betico infernuan ondatuten dozu. ¡O nabarbenkeri acia! ¡O lotsa bagakeri eskerguea! ¡O calte ecin gueyagocoa! ¡Ay! ondo esan eban San Bernardo-c, gueyago eracusten eutsala Y.C.ºri bide deunguea (204) emoten dabenac, eriotza gogorra emon eutsen Yudegu okerrac baño: bada aec, okerrez bazan beré, emon eutsen berac ain biotzeti ge. oneraco gura eban eriotzea; ez yakinean bazan beré, ge. oneraco bota-arazo eutsen bere odol ederra: baya gacheraco bidea emoten dabenac bere aldeti daneti barrien barri emoten deutso lengo eriotza, iñorentzat gauza eztana, eta bai il ta galdu eguiten deusazala lengo eriotzeagaz erosi ta biztu zan arimea, edo arimaac.

(204)

Baita baakizu onetan zabilzan lotsa-galduco pecataria, baakizu ce calte gogorrac yatorcazan zuc pecatu eraguiten deutsezun arimai? ¡Ay bada! nic orain eguin albanengui anchina andra andi Agripinac bere Semeari eguin eutsana! Onen Seme zan escu-urratu galdu bat, diruac ta diruac gatz bagaric emona gaiti ecer ez eutsana! Bein baten bada Seme orrec berreun ta berrogueta amar millaren bat erreal emoteco aguindu ebanean, seme ori alango bide macurretati aterateco, ecarri eraguin cituzan direanac, eta bere beguien aurrean mai baten zabaldu ta esan eutsan: ene seme ara, ara, cer emoten doan. Onenbeste eguin al banengui nic, orainche zure beguien aurrean iminico neuskezuz emeti ceru ederra bere betico atseguintasun ta

pozcarri gozoacaz, andi infernu itzala bere seculaco neke aserre guztiacaz. Erdu, esango neuskezu. Lenengo cerua aurreti cenduala, erdu ona, ara aushe da Cristo-c bera biotzetic maite dabenentzat eta bere esana eguiten dabeenentzat prestauta daucan lecu ederra: aushe ceru-lurretaco erregueac bere ondasun ta aberastasun andien alardoa eguiteco edertu izan daben toki zabala: ara an non dagozan izer polit eguinic ainbeste milla santu-santa: ainbeste milla millinoe Aingueru: ara an Maria Santisimea irargui bete ederra: ara an Yesucristo bera eguzki argui eguinic: ara Ygcoa bera milla eguzki baño ederrago. Emen guztiac bici dira alcarren bake onean, eta eder-erechi gozoan: iñoc eztaki emen cer dan gacha, gaishoa, nekea, mina ta naibaguea: guzti guztiac bici dira zorientasun, atseguin ta pozezco ibaian uriolaturic. Eta oneec guztioc eztira urte bateraco, ez berrogei edo lauroguei urteraco, ez eun bir-milla, edo berreun milla urteraco, ezpada betico ta betico, ta milla bider betico.

Onelango gauzacaz gogorturic eta zoraturic leguez icusten cindudazanean, eracutsico neuskezu beste alde baten infernu bildurgarria. An icusi bearco cendukez argui motel baten bidez demoniño icaragarriac, su-gogorra, eta bertan dagozan osterantzeco gauza arri-garriac: zure belarriac entzun bearco leukeez ango neke bildurgarri artean dagozan zorigaistocoen ayariac, chilioac, uluac, eta garras-hiac: eta suurrac emongo leuskezuez bertaco kirats ta atsitasun nas-cagarri guztiac. Eta icareac eta bildurrac conorte puscaren ichi, eta arnasea betetan asi cintekezanean esango neuskezu: ara, oneec nekeoc eztira urte bateraco, ez milla urteracoac; dira secula ta beticoac. Baya ¿cer eracutsi? Bildur nas cein orretan guengozala batac baster bateti besteac besteti, ce. umeac, oguituacoac, lagunac, urten leikezuen sua ta garra dariela, zu bertan apurtu guraric, eta dirautsuela: euc, euc, galdu gozac, euc ona betico ondatu gozac: bada emen euc beré erre bear doc, emen betico galduta egon bear doc.

Baya nic oneec zure beguien aurrean imini ezinagaiti, fedec daracutsu, eta zuc dakizun eguia arguia da, onac ceruraco direala, non izango dituezan araco ez beguic icusi, ez belarric entzun, ez guizoneri biotzec eguño emon izan ezteutsazan pozcarriac: deungaac barriz betico suetaraco direala, non seculaco neke, ala, zorigaisto ta amurru ecin esan al-artean erretan ta erneguetan egon bearco daben. Bada zuc pecaturaco bide charra emoten dozunac, zuc Ygcoaren Semeac ainbeste nekegaz, eta eriotza ain garratzagaz erosi ta biztu cituzan arimai betico ceruco atseguintasun orreec galerazoten deutezuz: eta betico infernuco neke ecin gueyagoco orreec ecarten deutezuz betico zorientasun ederra, kendu, betico zorigach itzala emon.

¡Ay noc leukean orain San Paulo Apostolu andiaren biotz guztia, eta bere berotasun ederra orain zuei, berac beste aldi baten Corinto-coai leguez, zoli zoli esateco: *¿Peribit infirmus in tua scientia frater propter quem Christus mortuus est?* ¿Cer? Zuec sinistu batec pecatua gaiti ceru ederra (205) galdu, ta infernu gogorra irabaci eguiten dabela: alangoric yazon eztakion J.C^o.c curutze baten lotsarizco eriotza itzala igaro eba: eta orregaitic peré ¿galdu guraco dozue gaisho ori, zuec gacheraco bidea emonda? Gurasoa zeure umearen aurreti berba loiac, biraoac, arrenac, eta añenac esaten dozuzana, edo zugaz batera eratzota, beguiac bear eztaneraco idiguiten deutzazuna, *Peribit*, baucazu biotzic betico galduteco ceure ume gaisho ori, ceinegaiti il tzan C^o.? Ugazaba gaistoa loikeriaco suan erretan zagozana, *Peribit*, izango dozu biotza betico galduteco C^oren odolagaz eresia izan tzan ceure otsein gaishoa; ceinec bear bada, ceure etsera bagaric ez eban alangoen barriric yakingo?

Lotsa galduco mutilla, seigarrengoa besteric ceure berbeetan, escuetan ta eguicunetan eztakizuna, *Peribit*, galdu guraco dozu betico infernuetara araco nescatilla garbia, edo nescatillaac, alango burutasunic beré ez eukeenac, edo araco mutil inocente, zantarkerien barriric bapere ez ekiana? Nesca urten, zorapillo, zarabancadea, *Peribit*, emon bear deutzazu bide deunguea ceure irri-barreacaz, edo barre zantzoacaz, ceure berba arin ernariacaz, edo nasaiacaz alango amesic ez eban mutilari; edo ceure ukiera (ucutza)caz, eta zantarkeriacaz eracutsi biar deutzazu lagunari ez ekiana, eta beinberé yakin bear ez ebana? Nonbait zuec etzare zuen artean egon cer galarazoten deutzazuen, eta ce calte eskergaac eguiten deutzazuezan, osterantzean eztot uste ecelanberé alango gauzaric eguingo cendukeenic.

Esan eguidazue ezpabere, entzungo bacendue or dabilela guizonen bat bideetara urteten, diru moltso andiac kenduten, eta eriotzaac eguiten: edo lagunac artu, etseetan sartu, etse bere galantac ecer bagaric ichi, eta etsecoac beré ilten, ¿cer esango cendukee alango guizona gaiti? ¿Ce castigu usteco cendukee asco dala arentzaco? ¿Cer erechico ceunskioe aren calteai?¹¹⁷

Bada ¿cer dauco cer icusi guizon oker, errebes, galdu orrec eguiten dituzan calte guztiac zuec eguiten dozuezanacaz? Guizon orrec kenduten dituz mundu onetaco ondasunac eta gorputzeco bicitzea, zuec galarazoten deutzazuec arimaco gracia ta ondasunac; ilten dozuec Jesucristo gueure Yaunac bere eriotzeagaz biztu, garbitu ta

¹¹⁷ S. Gregor. lib. 26 in Job c.9.

edertu cituzan arimaac. Lapur orrec garbituten deutsez denpora guichi barru ichi bearco dituezan gauzaac; zuec eragozten deutzazuec betico ceruco atseguintasunic ederrac, eta eguiten dozuec betico infernuco neke gogorren yaube. Eta ¿cer dauke cer icusi calte batzuc besteacaz? mundu onetaco calteac andico aldeco calteacaz: egun bireco ondasunac galtzeiac betico zorionac galdu bearragaz: begui ichi-idigui bateco alac betico min, ala ta zorigaistoacaz?

Ez beintzat. Aushe da munduan eguin leitekezan okerreria caltegarrien artean caltegarriena: aushe da diabruen eguicune okerra. Bada ¿cer gueyago eguiten dau diabruac? ¿Sareac zabaldu, lakioac eta tranpaac imini arimai yausi eraguiteco? ¿Deungueraco bideac eta gantza emon? Okerrera palagau, lorenyau, ta kili eguin? guero infernuan galduteco? ¿Guerrea eguin Ygcoaren legue gordetan dabeenai, eta Yesucristo-ren sillua daukenari? Eta ori guzti ori eztozue zuec eguiten deungueroraco bideac emonda? Bai, bai, zuec gaiti ondo ta ondo esan lei San Yoan-ec pistiaren icenagaz Anticristoagaiti esan ebana: zuei laketu (emon) izan yatzuela onai guerra eguiteco ta azpiratuteco escurantzea (escua). Bai, zuei ondo ta ondo emon lekikezue San Paulo-c onelangoetan ebilen bateri emon eutsan diabruaren semearen icena; edo Satanas-ena, J.C.^o.c san Pedro-ri bein baten emon eutsan leguez ondo etzan gauzaraco biruac emoten ondo-ustean bazan beré abiau yacalaco). Lotsatu zaitece bada, lotsatu: eta arpeguia yausi bekizue alango eskergetasuna eguin izan dozuelaco: baya yausi bekizue zuen oneraco, eta alangoen damutasun beneta-coaz Ygcoagana biurtuteco. Ganecoan galduac zare eta zuen ganean icusico dozue Yaun onen escu gogorra. Onen ganean orain eguin bear deutsuet ea besteen calteen anditasunac erasonen bat eguin deutsuenac, ecarri al baciñadez guztiz ondutera, pecaturaco bideac emoteac zuen ganera ecarrico deutsuezan calte icaragarriac eracutsita.

Bigarren zatia

- (206) (206) Ceuei adietan emoteco bide deunguea emoten dabiltzazana castigu icaragarriac izango dituezala asco liteke esatea leen entzun deustazuena, celan Y.C.^o.c. esan eban: ¡ay pecaturaco bideac emoten dabenaz! bada santuac eta yakitunac ao batez dirauscue ece, escritura santuan ay ay iñorgaiti esaten danean, esan gura dala ece arentzat izango direala castigu eskergaac. Baya nic zuei eguia au argui obean imini gura deutsuet. Ara bada berba baten cer eracutsiteco gogoan nagoan. I. Pecatu onec emoten dau osterantzeco peca-

tuac baño infernuraco bide gueyago, eta II. bera izango da infernuan besteac baño gogorrago castigadua. Entzun bada.

I. Esan deutsuet leen celan deungueroraco bidea emoten dabena galduten dituzan, Y.C^o. ge. Yaunac ainbeste nekegaz, ta eriotza ain gogorraz irabaci ta biztu cituzan arimaac. Emeti yatorco 1^o izatea bere pecatua osterantzeacoac bashen okerragoa: yatorco 2n. izatea, noc bere contra Ygcoaren aurean escatu: eta yatorco 3n. bere contra aserre (ta errime) izatea sententia emon bear deutsan yueza. Eta oneec alan izanda , ¿ceen beguira dagoala uste dozue bide oker ori emoten dabena?

1^o Eta zuec entzuten deustazuenean pecaturaco bidea emotea dala bestelaco pecatuac bashen okerragoa, uste izango dozue ece, nic berba eguiten dodala eguiten dituzan calteac gaiti, eta ezteutsuet nic ezezcoric esango. Eguia da ori beré, baya eztozue ori okerragoa izateco bide bacarra. Beste alde bateti beré bauco pecatu onec osterantzeacoac baño oben charragoa, eta da bide emoten dabena lepora datozalaco bide atati guero eguingo direan pecatu guztia. Ezteutsat nic au neure araguiari kenduten. San Basilio andiac esana da alango bide charrac emoten dituzanen erru Ygcoac iminico dituzala, besteac guero atati eguin daikezan pecatuac, baita eurac il da, eguingo dituezanac beré.

Baita ez beronec ez bestec esango ezpaleu beré, berez datorren gaucea da. Izan beré pecatu bidea da ereiten dan acia, ceinetaric guero ernetan direan ainbeste becatu-buru, barriri ereingo direanac. Eta ¿eztira orreec izango ereintzallearentzat? Da larrari, edo sasiari emon yacan su apurra, ceinec guerora guerora indarrac artu, zabaldu, eta basoac, eta baso ederrac erre bear dituzan. Eta ¿echacola guztien errua emongo lenengo sua emon ebanari? Bai beinñtat, Ygcoac Jeroboan-en lepora eguin cituzan, berac bidea emonda bere, aldico Israel-darrac, eta guiza-aldi ascotacoac eguin cituezan pecatuac, eta escritura santuac bera ilda beré bere (ondorengo) oñordeco Erreguen pecatuac aitutean. Jeroboan gora, Jeroboan bera, beti gogoan dituz Jeroboan-en pecatuac, euretan guztien sustraia billatu bear baleuen leguez. Peccata Jeroboam qui peccaverat et peccare fecerat Israel. Zuc bide-deunga emollea, uste izango dozu bear bada ece, bide char ori emoten dabena gaucea eguit-orduan, pecatu bacar bat eguin cenduala. Izan bedi, ondo, zuc gura badozu, yakitunac besteric esango badeuscue beré, baya pecatu ori izango dozu pecatu ernaria, beste ascoren yaube eguingo zaituzana. Ceuc emon dozun oñ orretati erne ta sortuco direan pecatu guztia ceure bizcarrera datoz, eta Ygcoac sartuco deutsuz zuc eguinen artean. ¡Ay, ce contu icaragarria beintzat, baya guichic gogotan artu gura dabena! Bera gaiti eztoqu au ain arin igaro bear.

(207) Guraso charra, umeac Yaunaren bildurpean aciten eztozuzana, erdu ona icusten celanbait ceure pecatuen errescada lucea. Guztien contu arteza guztia dakizan Ygcoac atera leikezu, eta nosbait atera-co deutsu: baya ni ez nas gura orain artean leguez itsu mustuan bici zaitez. Ceuc, barbaraco, daucazu arturic birao edo yuramentu urtica egoteco (iñarduteco) izcune charra, edo lagunari iraunac, errieltaac, aserrre-aldiac emotecoa, edo ardaoan yaustecoa (igarotecoa), edo seigarrengo berbetan, edo ganecoetan etzara garbia. Ara bada, zeure umeac icusi edo entzun eguingo dabe, zeure eten eta oben donguea, eta, yakina da, icasico dabe beste ainbeste eguiten, eta zu langoshe eguin-eguinac urtengo dabe, eta besteric sinistutea zorakeria da. Ezconduco dira biar edo (207) etsi ume orreec, iracatsico deutse euren umeai, oneec eurenai, oneec eurenai, eta alanche Ygco-ac dakian belaueraguño yalguico yake gurasoetaric umeai, mayorazguia leguez ecandu okerra: eta ori da, ta ez besteric zuec esan daroazue-na, etseren baten abe charra izatea, edo angoac zan gaistoa izan bearra. Ezta ori guztia: zuri eta aei icasico deutsue lagunac, auzoac, erricoac eta erbestecoac: iracatsi bearco deutse Ygcoac dakizan lagunai, oneec besteai, aec besteai, eta alan. ¿Ceinbat pecatu derichazu oneec guztioac eguingo dituezala? ¿Ceinbat? Bada orreec guztioac datoz zeure lepo-ganera eta Ygcoac artuco deutsuz zuc eguinac legueche. *Qui peccaverat, et peccare fecerat.*

Ceuc mutil gazte, edo zuc nescatilla iracasten deutzazu lagun bateri seigarreneco bear eztan zantarkeria, edo zure esanagaz, zure eguinagaz beguiac idiguiten deutzazuz alango gauceetaraco. Bein onetara ezkeronekez egongo da gueldi, eta berac eguin ecece, baita besteren batzuei iracatsi bearco deutse. Oneec beste ainbeste, bestecac beste ainbeste, eta alan yoango da Ygcoac dakian artean. ¿Ceinbat pecatu eguingo dituez guztien artean: ceinbat? Bada guztia datoz ceure bizcarrera, eta direanac ezarrico deutzuz Ygcoac zuc eguinac legueche. *Qui peccaverat et peccare fecerat.* Alanche da guichi goiti beiti beste muetetaco pecatuacaz beré, eta ezta izango euren artean bat, bein deungueroraco bidea emon ezkerone, bere erduan bat pecatu andi tzar ascoren yaube eguingo eztabenic. ¡O celango pecatu errescada lucea ganean dabeela aguertu bearco dabeen Ygcoaren aurrean onelango bide gaistoac emoten dituezanac! Eta ainbeste calte eguiten dituzan pecatu batec, ainbeste pecatu ain andi tzarren yabe eguiten daberen pecatu batec ¿eztau infernuraco bide andia emongo? ¿Ceinec guero gueiango?

Eztakit nic emeti bayatorke pecatu-bide emolleai, izan oi daberen biotzeco itsutasuna ta gogortasuna. Eztituez gueyenean ezagututen onelango pecatuac, eztituez confesetan, eztae euren ganean damu-

tasunic artuten: eta ansia bagaric eta ardua bagaric bici oi dira bapere okerric eguin izan ezpaleben leguez. Yazoten yake onelangoai David erregueri leguez. David erregue artean ain santua izan tzana, argala leguez yausi zan Bersabe andra ezconduagaz. Eta cateac catea daroian leguez, bere pecatua estalduteco, Urias, aren senarra il, eta andra orregaz ezcondu eguin zan. Bere erreinu guztian berba lecu andia imini eban, eta ez ebilen beste cer-esanic: orregaiti beré David sor ta gor, eta Ygcoagana biurtuteco burutasunic ez. Alanche egon tzan urte oso baten, eta bear bada egongo zan secula ta betico Ygcoac berac Natan Profeta santua biraldu (aguindu, bota) ezpaleutso. Alanche bada yazoten yake pecaturaco bide charra emoten dabeen ascori, eta egunean bein icusten dogun gaucea da ori.

Nescaren bat basterretaco bear ez litekezan ibilcune ta erabilcuneac gaiti seindun sortu izango da: eztau orregaitic peré bere burua ostu naico, eta guztien beguietara zabaldu guraco dau bere pecatua. Erri guztian dabil cer-esana, eta guztiac, zantar eguiten dabe, eta eztau pecatutzat bere artuco besteac esaten imintea, eta ameneco eztau confesiñoan autortuco ezta bere burua alan icusteco eguin bear izan daben pecatua. Bicico da deungaro urlia mesedea berac dakianagaz, edo bein bategaz, bein bestegaz, aldaben guztiacaz ibili bearco dau. Eztago errian ori ez dakianik guztiac orpoac yaten deu tsez; eta bera epetasun zabalean eta bake andian bici da, alango bideac ichiteco asmu bagaric, eta eztau aintzat beré artuten alango pecatu aguriacaz besteai deungueraco bidea emotea. Ordia, yuramentu edo birao pitean bein eguiten dabeenac, berba loiac non gura esaten dakiezanac... eztituez ezagututen euren pecatuac, eta confesau beré eguin ez oi dituez. ¡O Ygco andia! atzera biralduco (aguinduco) baceunscu Natan Profetea, eta ceinbateri esan bearco leuskion beñolan David erregueri leguez: *tu es ille vir.. blasfemare fecisti...* Zu, zu zara ceu ascori Ygcoaren contraco gauzaac eraguin deutsezuna.

2. Baya euren pecatuac ezagutu eza gaiti beré batuten dituez oneec lagunac euren contra Ygcoaren aurrean errime eguin bearco dabeenac. Ceinbat arima eder pecatuan galdu izan dituezan, ainbat arerio oker izango dituez, euren castigua Yaunari escatuteco. Umeac, neba-arrebaac, lagunac (208), aideac, adiskideac ta ainbaacoac, berba baten zuc galdu dozuzan guztiac, zuc galduac galdu dituezanac, eta oneec eta oneec galduac, guztiac bat eguingo dira zeure contra, zeure castigua eske, edo obato esateco ya orain-ganic dagoz ceure contra yaguíta, bada celan Ygcoarentzat eztagoan leengoric ez guerocoric, orain-ganic dantzuz guero eguingo deutsezan deadarrac. Eta ¿ce castigu? Infernu gogorra ez besteric: betico su gogorra, infer-

(208)

nucu su icaragarri aec: zuc eurai eguin deutsezun calte berbera. ¿Cer, pecaturaco bide-emollea, uste cenduan ezetz? Ez eutsun gogoac alangoric emon? Baya ¿cer? Ygcoac berac diñoanez, cristiñauen arerioac il tztuezanen arimaac deadarrez dagocaz, euren odolaren bengaia eske: Ygco berac esan eutsan Cain-eri, berac il eban anaie Abel-en odola bere contra deadarca egocala: eta oraindo gueyago dana aloguerecoai galarazo yaken euren aloguer irabaciac deadarrez egon doaz yusticia eske Yaunaren aurean; eta zuc il dozuzan arimaac, zuc infernura bota dozuzan arimaac, zuc ceru ederra eragotzi deutzazun arimaac? eztabela zeure contra castigua escatuco? Escatuco dabe, bai: eta errime, eta aserre escatuco dabeela: gau ta egun ichi-aldiric eguin beré bagaric, egongo yacaz eske ta eske.

Yauna, esango deutse, zugaiti ondatuta datzazan infernucu ondarrerati, Yauna ceuc dakizu ondo noc daucan gu emen egoteco errua. Urliac bai, urliac bota gaituz infernu onetara: beragaitic ece ez kinean gu oneraco: ceruraco guinean, baya berac pecatu bide deunguea emonda, galarazo deuscu ceru eder ori, eta ondatu gaituz infernu icara-garrizco onetan. Eta bada ceuc esanic daucazu bacochari berea emongo deutzazula, betor bere ganera ceure aserrea, emoiizu eguin deuscun caltearen modu-moducoshe castigua, izan bedi bera beré betico galdua. ¿Cer Yauna? gugaz baño etzara gogorra (arteza) izango? Eztabe gueure lagun izan bear geure pecatuen erru guztia daukeenac? Gu emen betico galduric su itzal onen erdian erretan, eta gu onetara ecarri gaituezanac betico ceruan? ¡Ay! ez Yauna; ezta ori legue.

Eta ¿cer derichazue, entzungo eztituzala, zuec galdu dozuezan arimeen escariac? ¿Sor ta gor eguingo yakeela, zuei infernuraco bidea ez emoteco? Baliteke: baya nic zuen escuetan ichi gura dot, zuec erabaguiteco. Ceuc dakizue, eta niri entzun deustazue ceinbat eguin eban J.C^o. Ygco ta guizon eguiazcoac guizonac irabazteco eta cerura eroateco; celan mundu onetara orretaraco etorri zan; celan icusi bear izan eban bicitza gogorra, pasiño garratza, eta eriotza bildur-garria. Berberac esan eban gach-bidea emonda arimaac galtzen dabiltzazanac-gaiti ece, oba leukeela onelangoac errota-arri bat iduneti (samati) estuta ichasoan ondatu balituez: eta au esan eban diño san Bernardo-c ulertuten (adietan) emoteco, guero ain alaguñaco nekeac eta alaac izan bearco dituezala infernuan ece, aen parean eriotzea pocic artu leien. Zuec galerazo deutzazue berac ainbeste nekegaz, eta ardura ain andiagaz irabaci cituzan arima orreec: galdu deutzazuec betico, berac ain laztan cituzan arimaac. Zuec galdurico arima orreec ezteutse besteric escatuten ezpada bere berbea yagoteco, eta berac alango pecatarientzat eguinda daucazan cemauntzaac

zuen buruen ganera ecarteco. ¿Cer diñozue bada, entzungo deutse? Eracutsico deutsue, eurac zuentzaco escatuten deutsen infernu gogorra?

3. Niri derichat ece zuen contra aserre, ta aserre baño beré aserreago egongo dala, eta iñoren escatu bearric beré izango eztabela zuei alango castigua emoteco. ¿Baakizue celan egon doian azten egoan artza, umeak kendu deutsezanean: celan orroeca mendi guztia beera ecarri bear daben: celan ori eguin deusana erpa artean baleuco, bertanche apurtuco leukean? Bada alanche diño Ygcoac urtengo deusela pecatariai: eta au guztientzat bada beré, ascoz beré obeto esan bear da pecaturaco bidea emon daveenac gaiti, bada oneec dira benetan umeac kendu deutseezanac, curutzean ainbeste minegaz eguin cituzan seme-alabaac: oneec dira il izan deutseezanac araco bere maiteac, ceinei ucututea bera dan Yaunari beseñean ucututea legueche.

Yesucristo-c bada, ceineri Aita-eternoac emonic deusan guztiai contu artu, ta betico sententia (209) emoteco escu bete betea esan bearco deutse onelango bide deungacoai beste aldi baten Saulo-ri cristiñauac carceletan sartuten yoianean esan eutsana: *Ego sum Iesus, quem tu persequeris*: ni nas Yesus zuec galdu guraric ibili zareena. Eta oneec berbooc Saulo-ri, bere oneraco esanda beré onenbeste bildur, icara ta itzal emon beutsen ece, bertanche yausi zan zaldi ganeti beera, icararen andiz dardar orria leguez ebilela, eta non egoan, edo cer tzan beré ozta ekiala, ¿cer eguingo ez deutse pecatubide emolleai? Aurrera daroazala bere carguac, ezteutse onei esan bearco, ni gose ta egarri nintzan, eta zuec ez ceusten yaten ez edaten emon; gaishoric edo preso nengoan, eta zuec ez cinchatacen etorri ni icusten. Ez. Esan bearco deutse: zuec niri betico cerua galarazo deustazue, betico infernua emon deustazue. —¿Celan, Yauna, guc zuri cerua galarazo? ¿Celan infernua emon?— Bai, ce niretacoric chikienari eguin ceuntsena niri neuri eguin ceunsten. Zoace bada, zoace madaricatuoc, diabruarentzat prestauta dagozan betico suetara, zuec galdu dozuezanacaz naste zuen pecatuac, eta besteai eraguinac paguetara.

(209)

II. Bai, aushe da pecaturaco bide okerra emoteac daucan azkenengo zori-gacha besteai eraguinico pecatuen castiguan beré eroan bearra. Alanche dirautsu San Agustin-ec: «ceinbateri okerreraco gantza emon izan deusazun, ainbategaz, eta ainbategaiti betico castiguac icusi bearco dozuz». Beste onenbeste esaten dabe san Basilio-c ta san Eusebio Emiseno-c. Baita ¿ce beneric izan leiteke?, noberaren ganera badatoz, batec besteai eraguin deusazan pecatu guztiac, baita aetati guero aec eta besteac eguin izan dituezanac? ¡Ay ce

icaragarrizco lana au! Aushe, neure entzula onac, gura neuskezue zuen biotzetan errime yosi: bada ain gogorrac, eta bildurgarriac bada bacochari bere pecatuac gaiti infernuan emongo yacazan castiguac, ¿cer izango da aen ganeti emoten bayacaz besteac eguin izan dituezan ainbesteenac?

Emenche, cristiñauac, gura neunke al dozuen gogoric andienagaz entzungo bacendue orain nic esango deutsuedana: bada berariz (beren-beregui) ichi dot lecu onetaraco, ea puscachu bat bigunduta zagocela, sinistu nai badozue, osterantzean zuen oneraco esanda beré sinistu gura izaten eztozuea. Gueure misiñoetan ekin daroakegu, eta ez bein, ta bai sarri ta sarri fiesteen, dantza nastuen, ta gaubeguireen ta onelacoen contraco berbeteari, dakigulaco ece orreec gueyenean eta gueyentzaco pecaturaco eta pecatu andietaraco bide andia izaten direala. Orregaitic peré alperrac izaten dira ascorentzat geure aleguinac, eta eztago noc orrei burutan sartu. Ara bada ceen beguira dagozan, alangoac eguitemo bidea emon edo galerazo al leikeela ez galerazo, edo euretara dabilzanac.

Eguiten da erriren baten fiestea, baatoz errico gazteac, eta albo errietacoac beré: izaten dira dantzaac; gazte orreec eguiten dituez milla zantarkeria dantzaan bertan, etseraco bidean eta etsean: esaten dituez berba loiac; artuten dituez aurrera beré orreec eta gueyago eguitemo bideac: ascori idiguiten yakez beguiac deungueraco: izaten dira ordikeriac, errieltaac, eta errieltetati gorrotoac, kerellaac, auziac. Aurten alan eguin dalaco, eguiten da beste ainbeste datorren urtean: yarraituten yaco bestean, eta aric urte eta urteetan. ¡O Ygco maitea! ¡eta celango pecatu errescadea! Zuc Yauna, eta ez bestec yakin lei ceinbat eta ce icaragarriac direan orreec guztioac. Bada ceuc fiestaraco bidea emon dozuna, ceuc daucazuz ceure lepo-ganean orreec guztioac; guztioen contu Ygcoac artuco deutsu, eta guztioen castigua infernuan emongo deutsu. Zuc gurasoa ceure umea alango lecura aguindu dozulaco, daucazuz ceure bizcarrean ceure ume orreec eguin, eguingo ta eraguingo dituzan pecatuac: guztioen contu Yangoicoac escatuko deutsu, eta guztioen castigua infernuan emongo deutsu. Ceuc gaztea daucazuz ceure lepoan zuc bidea emonda besteac eguin, eguingo, ta eraguingo dituezan pecatuac. Beste ainbeste esan bear da bere moduan yolas, gau-biguira, baatzar nastu, ta onelangoen ganean.

Eztira oneec ipuiñac, ez neure asmuac, eta arren alan balira, ece buruco ala asco geure buruari kenduco gueunskio. Baya Ygcoac daki nik sermoi guztian eztan gauzaric esan ezteutsuedala, yakinen ganean beinic bein, eta ez nas beré ni zalea, iñor bildurtutearren eztan gaucea, edo (210) dan baño gueyago esaten. Zabiltze, zabiltze orree-

tan eta Ygcoac ateraric izango dituz orreec contuoc, eta berac eracutsico deutsa infernuco suari celango indarrac bearco dituzan zuei guztien castigua emoteco. Baya ¿cer diñot nic suari? Ceuec pecaturaco bidea emonda galdu dozuezan arimaac eurac ceuen seme-ala-baac, lagunac, adiskideac eta orreec izango dira ceuen borrreru gogorrac, euren biraoacaz ta araoacaz apurtu ta ondatu bearco zaituezanac.

¡O ce pecatu bildur-garria dan gacheraco bidea emotea! Bai beintzat, bada berac emoten dau beste osterantzeco pecatuac baño infernuraco bide gueyago, eguiten dabela bestec ez leguez besteen pecatuen yaube ta errudun: batuten dituzala bestec ez leguez Ygcoaren alderaco ainbeste arerio ta salatzalle aserre, eta eguiten dabela besteac baño aserreago yuez izan bearco daben Yesucristo: berau azkenez izango da infernuco suacaz besteac baño gogorrago castigadua.

Orreec alan direala, esango deustazue iñori pecaturaco bidea emon badeutsagu, gureac eguin eban, errazki geure buruari ichico deutsagu, eta galdutzat emon bearco doguz. Ez alangoric, ne.cc., oneec alan dira, baya eztozuez zuen buruac galdutzat emon bear orregaiti. Bide deunga ori emon ebeen asco ta asco dagoz ceruan. David-ec, Manases-ec, eta Madaleneac alango bideac emon cituezan, eta gaur dan egunean dagoz Ygcoa icusten. Baya esan bear artez, eta atzera ta aurrera bagaric, ori eguin ezkeru gachago dozuela cerua, cegaitic ece zuen ganean dozuez besteen ainbeste ta ainbeste pecatu, zuen contra deadarrez daucazuez zuec galdu dozuezanac, eta atati guero galduco direanac, eta Y.C^o.ri zuec azerre izateco bide andia emon izan deustazue. Orregaiti ceruraco izango bazare osterantzecoac baño gueyago eguin bearco dozue.

Eta, ¿baakizue cer? Ara bada san Eusebio Emiseno-c diñoana. Besteen arimeen caltegaz berea galdu izan dabenac, besteai ejemplo ona eracutsita irabaci bear dau. Eta alan eguin bear dozuena da, confesiño on baten bitartez Ygcoa-gana etorteco aleguinac eguin ezkeru, zuec-gan dagoana eguin bear dozue Yaunari galerazo deustazuezanen orde beste arima batzuc irabazteco. Ori eguingo dozue lenengo ceuen bici-modu onagaz: sarrichu orretaraco confesetara etorri, sarrichu gueure Yauna artutera, eguneango errosario santua, eta ereac aguintuten badeutsue mez-entzutea beré, yaiegunetaco curutzetacoac eguitea, altaraac icustea, limosnaac eguitea, eta gauza guztietan modu ona (eracustea) aguertutea, eta cristiñautasunac eracusten daben bicitzea. Guero onezaz ostein aleguinac eguin bear dozuez besteen pecatuac eta pecatu-bideac eragozteco: berba loyac, yolas nastuac, baatzaco dantzaac, gau-beguiraac, erroldaac, fiestaac

edo al dozuezanac. Orregaz ceuec irabazten dozuezan arimaac Ygco-aren aurrean zuen alde eguingo dabe, eta estaldu ta indarra kenduco deutse besteen ceuen contraco deadarra. Orregaitic peré David-ec leguez, ez beguien aurrean beti, kendu bere bagaric, erabili pecatu ori, Yaunari bere parcaciñoa escatuteco: bada guztiz da icaragarria, eta bear bada ya zuec gaiti batzuc batzuc infernuan datzaz, edo orretaraco bidean dagoz.

Ara ce bildur-garria erechi yacon Berengario-ri eriotzaco orduan besteac galduten ibilia. Guizon onec Sacramentu santu altaracoaren ganean ereguia eracutsiric, ascori galdu eraguin eutsan orren ganeco fede ona. Etorri yacon guero ta guero beré guztioi elduco yacun il bearra damutu yacon ordu atan alango ereguiac eracutsi izana, eta alango bide deungaac besteai emona, eta, ustez beinic bein, aleguinac eguin cituzan Ygcoagaz ondo paretaco. Baya pecatu guztiac bildurtasuna emoten beutsen beré, besteen arimaac galdu bearrac icara icara eucan, eta icara onen artean ciñoian: ¡ay bada! Cer izango da nigaz! Nic uste neukean Ygcoac neure damuari ta eguin dodan penitenciaric beguiratuta parcatuco eustazala neure pecatuac: baya eta ¿nic galdu dodazan arimaac? eta ¿nic ceruraco bideric atera dodazan arimaac? ¿noc oneec gaiti erantzungo dau? ¡Ay ene errukiena! Cris-tiñauac beste onenbeste yazo ce dakizuen laster bai laster eta biotzeric Ygcoa-gana bear dozue.

7. PECATU-BIDEEN GANECO SERMOEA

[ARRISKU ETA OKASIOAK]

(B, 145-152. or.)

Convertere ad Dominum, et relinque peccata, deprecare ante faciem Domini, et minue offendicula... et gloriaberis in miserationibus illius.
Eccli. cap. 17.v.21,22 et 27.

(145) 1. Mundu onetan gagozan artean, ardura andi bategaz bici bear gara, bada guztiz dira andiac inguraturic gauquezan pelleburuac. Orregaitic dirauscu Jaungoicoac berac: Beguira celan zabiltzan bada zure bide guztiac laquioz eta sarez beteric dagoz¹¹⁸. Berba oneshec beti beti euqui bear gueunquez gueure beguien aurrean, diño San Juan Crisostomo-c ce aushe asco izango da pecatuan yausi ez eiteco. Aushe ondo beguiratuagaz ezagutuco dogu celan igues eguin bear dogun pecatuen pelleburuetatic; bada yaquingo dogu alperric urtengo dogula pecatutic quenduten ezpadoguz bere ocasiño ta bideac, eta ecin esan guiñaiqueala pecatuac ichiteco gogo edo propositu sendoric daucagula, pelleburuetan gueratu gura bagara. Ain da gach pecatuaren pelleburuan egonic ez pecatuan yaustea ce, S. Bernardo-c diño, miraari andiagoa dala, ilac biztutea bashen¹¹⁹. Eta alan, neure enzula maiteac, ez deutsue ecerbere balioco pecaturic urteiteac, pecatuaren pelleburu ta bideac quendu ecic. Orregaitic bada arratsalde onetan esango deutsuet lelengo puntuan celan pecatuaren pelleburuac quentzean ezpadozuez gura ta guraecic yausico zareen pecatuan. Bigarreanean celan guztiz quendu bear dozuezan pecatuaren bide ta ocasiño guztiac bat beré ichi bagaric.

Lenengo zatia

2. Eztau Demoniñoac beingoan pecatuetara tentetan. Daqui ce beingo beingoan tentauco baleu benturaz ez guenduquela guraco.

¹¹⁸ Agnosce quod in medio laqueorum transis.

¹¹⁹ Majus miraculum est inter vehementes tentationes non cadere quam mortuos suscitare. Crisost. t.2, fol.150.

Pecatua berez guztiz da ezaina, eta bildur andieguia emoiten dau beingoan gura izaiteco: orregaitic puscaca puscaca pecaturaco bildurra galdu-erazoten dau. Lenengo ifinten dau ocasiñoa, guero guraari otz bat, guero icioten dau guraari au, eta güenian yausi erazoten dau pecatuan. Aushe da Jaungoicoac diñoana: pecatuaren pelleburuan egon gura davena pecatuan yausi eguingo dala, eta gauza chiquien yaramonic eguiten eztavena, andietan gueldica gueldica yausi eguingo dala. Modu onetanche yausi dira pecatu guztietan guizonic guejenac. Lelengo munduan eguin zan pecatuan au guztiz claru icusico dogu. Gu guztion ama Evac ez evan beingoan yan, Demonioñoac yateco esan eutsan, sagarra. Lelengo beguiratu eutsan, eta icusi evan guztiz ederra zana¹²⁰. Guero artu evan escuetan¹²¹, guero azquenean sartu zan yateco gurarian, eta yan evan¹²². Beste aimbeste yazo zan Cain madaricatuagaz. Ez evan beingoan Demonioñoac tentau bere anaye Abel iltera, cein pecatuaren anditasunac bildurtu eguian, ez-pabere lenengo opetzi eta aguindu erazo eutsan Jaungoicoari gauzaric charreena, guero bete evan embidiaz ta icusi-ecinez; azcanean barriz tentau evan bere anayea il eguian. ¿Cer eguin evan Esau-gaz, eta celan galdu evan bere aitaren bendicioña? Lenengo euqui evan yateco guraaria, beragaitic saldu eguin evan lelengotasuna, edo mayorazguia, eta güenian eldu zan bere anaye Jacob il gura izaitera.

(146) 3. Nondic asi zan Judas-en galtzaia ta condenacioña? Noc esan leique! Lelengo ecin-icusitic; guero sartu zan diruen zaletasun ta guraaria; andic asi zan oñoten ta deungaro esaten; otzitu zan bere maisuaren amodioan, eta eldu zan güenian bere Jaungoicoa saldutera, eta desesperaduric bere burua urcatutera. Ez neunque, neure Cristiñaiac, amairic emongo beste onelango exempluac ecarri gura banituz, bada Escritura (146) santea guztiz dago beteric. Faraon, Sanson, Saul, Salomon, Acab, Athalia, Josan, Nabucodonosor, Antioco, beste asco onanche yausi cirean pecatu guztiz icaragarrizcoetan. Gorputzeco gachetan, Cristiñaiac, yazoten dana, yazo oi doa arimacoe-tan beré. Gueishoa gueienetan ez oi da beingoan eldu: lelengo sentietan dau buruco min pusca bat, gorputzeco astuntasuna, alboco min chiqui bat, edo alango gauza chiquiren bat. Orduan itanduten badeutsue cer dozun, bertatic eranzuten dozu: ezta ecer, laster igaroco yat: baya ¿cer yazoten da? Guero baño guero aci eguiten (aciten) da mina, oean echun bear, barberuari, edo medicuari dei eguin bear yaco, Sacramentuac artu bear dira, guztiz chaarric dagoalaco eta

¹²⁰ Vidit quod bonum esset lignum et pulchrum oculis, aspectuque delectabile.

¹²¹ Tullit de fructu illius.

¹²² Et comedit.

aror gauza guichitzat egoana, non gach andi bat eguiten dan. Baya ¿cetaco nabil, Ne. Enzuc., irudi oneec ecarten? Eztot zuce bashen beste testiguric bear, eguia esan gura badeustazue. Aste guztian egongo zaree ardaoaren gomute edo acordu bagaric: elduten da yaieguna, eta orra non zoacen tabernara. Ytanduco baneutsue, ea nora zoacen eranzungo zeuzquede: Aita, aste guztian egon nas bada bearrean, eta orain banoa puscachu bat dibertietan, cuartilluchu bat edango dot, eta guero iluntzean echera. Sartuten zare tabernan; topetan dozuez adisquide bi edo iru; asten zare edaten; ardao doa, ardao dator, ya igaro zare esan cenduen neurritic, asten zare yocoan: yocatuten dozue edan dozuen ardao, berotuten zare, eta yaquin bagaric ce ordu dan elduten da gaüerdia. Urteiten dozue echeraco, bideric zabalenac estu ta bedar dozuezala, eta orra non dagoan infernua, emazteac berbachu bat esan badagui deadarra batetic, demoniñoa bestetic biraoa ta añena eta aserrea, eta ameneco golpeac. Biaramonean barriz bearric eguitemo gogo bagaric. ¿Nondic datoz gach guzti oneec? Ocasiónetic. Tabernan sartu ezpaciña, etzan onango gauzaric izango, demporaz yoango cinean echera, eta igaroco cenduan baque andi baten gaüa.

4. ¿Cer yazo oi da gueienetan? Aserratuten zare alcarregaz, esaten dozuez berba astunac, edo bear bada ezarten dozuez escuac, eta lauciri balio eztaven gaucea gaitic zabiltze alcar ecin icusiric, atertan dozue querella bat, asten zaree aucitan, daucazuen guztia escribaüac, eta letraduac daroatzue eta gueratuten zaree cer yan eztaucazuela, ez cegaz semeac mantenidu. ¿Cer esango dot araguiaren pecatuac gaitic? Batzainduten dira yolac eta erromerietan yente gazteac eta derichazue beingoan yausten direala pecatu andietan? Ez, Cristc., lenengoan ezta beguiraune bat baño, andic igaroten da berba gangarretara, guero guraari chaarretara, eta azquenean yausi ezquero pecatu obrazcoan, eta lotsea galdu ezquero eztago eguiten eztan paturic. Eztot ceüec bashen beste testiguric bear. Ceüec daquize ondo cer yazo yatsuen orrelango pecatuacaz, cé eztot nik loitu gura euren ezaintasunagaz lecu santu au. Baya gueienac eranzuten dave: Aita, beti beti dagoz orren ganean prediquetan; baya nic neure bician beré eztot ecer sentidu, eztot pensamentu deungaric beré euqui. ¡Ay! neure enzulaac, engañaduric zagocela derichat, cegaitic ce dacusdana da Santu guztiac ocasiónoen iguesi dabiltzana, eta orregaitic beré beti beti dagoz bildurrez euren araguiac eguiten deuten guereagaitic. S. Paulo Apostoluan dacusgu au ondo claru. Aimbete miraari eguin ezquero, aimbete penitencia eguin ezquero, aimbete barau, aimbete gose, aimbete gaubela irago ezquero, bere gorpuzari urte luceetan atseguinic emon bagaric bici ezquero, etzan ara-

(147) guiaren tentaciñoetatic libre aurquitu; eta alan esaten oi evan: nire araguaia beti dabil arimearen contra¹²³. Baita zuec aimbeste santidade euqui bagaric, derichazue, modu orretan alcarregaz nastauric ibiliric, garbi garbiric gueratuten zareela. Eztaquit; bildur izan cinaitequeze ceüen buruac engañetan dozuezala. Conciencia bear dan moduan aracatu ta esaminauco bacendue, eta arimaco arguiagaz ondo beguiratuco (147) bacendue, derichat ez ceunqueela ori esango.

5. Eztaquit, Cristiñauac, nondic nora euqui cinaiqueen au seguridade au. Santuric andienac dacusguz munduti iñesi. San Geronimo sartuten da ermu icaragarrizco baten, eta ainche dago negar, cizpuru, eta oraciño artean eta orregaitarren bere eztagoala seguru derecho. Ytanduten badeutsazue, Vigilancio-c esaten eutsana leguez, ¿cetaco condenetan dan ain bici-modu icaragarrizcora? bertatic esango deutsue: argala nas, araguiz yanciric nago, eta orregaitic nabil ocasiñoetatic iñes¹²⁴. San Antonio Abad, S. Paulo, S. Hilarion eta beste santu guztiz andiac mundutic iguesi dabiltz eta sarturic Tebaida-co mendietan eztauque beste cer-eguinic euren ganean ardura andi bateco gaubelac eguitea baño, eta orregaitic eztagozala seguru uste davee. Eta derichazue venturaz ez eveela aimbeste bildur euqui bear? ¡Ay neure enzula maiteac, ceimbat eta ceimbat yausi dirasantidade guztiz anditic icaragarrizco pecatuetan! Exemplu guztiz asco ecarri neiquezuez; bat esango deutsuet. Yacobo erichon padar edo ermitañu bat bici izan zan berrogueta amar urtean. Ecin esan nora-guiño eldu-zan dempora onetan bere santidadea; guztiz izan cirean andiac penitenciac, dempora guzti au igaro evan negar cizpuru eta oraciño artean, eta ain santu andi izaitera eldu zan, ce, bere miraari guztizcoac arrituric euqueezan andic egozan erri guztiac. Osatuten cituzan gueishoac, biztuten cituzan ilac, eta botaten cituzan gorputzetatic Demonioac. Ecarri eutsen besteen artean nescatilla gazte bat osatuteco, edo atara eguien beraganic Diabru gaisquiña. Atara evan bada, ¿baya cer derichazue yazo zala? Gueratu zan egunen batzuetan nescatilla au lezatic campora, eta ar'or non pecatu eguin evan beragaz. Baita etzan emen gueratu bere pecatua: cé lotsaturic, eta yaquingo zalaco bildurragaz artu evan cañibeta edo cuchillo bat, eta il ezquero bota evan nescatilla ibai batera. Eta Jaungoicoac biraldu ezic Aingeru bat Ynfernuc penac eracutsi eguiozan, ya yoian mundura bere araguiaren gustu citelac cumpletian.

6. Orain bada, Santu andi au aimbeste penitencia eguin ezquetiño, aimbeste Santidade alcanzau ezquetiño, aimbeste miraari eguin

¹²³ Caro concupiscit adversus.

¹²⁴ Fateor imbecillitatem meam nolo spe pugnare victoria, ne perdam aliquando ictoria.

ezquetiño, bere aragua errazoaren azpian imini ezquetiño, anra batagaz bacarric aurquitu zalaco, pecatuan yauzi bazan, eta pecatuac pecatuaren ganean ifini bacituzan, ¿celan uste cinaiquee etzareela pecatuan yausico aibeste pelleburutan zuen buruac sartuarren? Au ecin izan leiteque, Cristiñaiac, eta quendu-*ez-ic* pelleburu ta pecatubide orreec gosh edo berandu yausico zaree. Ocasíño orreec peste gogorra dira, diño S. Bernardo-c, eta gacha sentidu bagaric gorputzean sartuten dana leguez, alanche igaroten da ocasíñoa biotzera-guiño. Peste eta gach onegaz il dira santu andi asco diño S. Agustinec. Sinistu eguidazue, diño Santu andi onec, sinistu eguidazue, Jaungoicoaren aurrean nago, eta berac daqui guzurric ez diñodala; icusi dodaz guizon santu eta andiac ceintzuc e-nevan sinistuco iñondic beré yausi eguingo cireanic pecatuan; baya ocasíñoa eldu danean, pecatuac goia-artu eutsen, eta benciduric gueratu cirean. ¿Eztacusgu David Erreguea yausiric? Baita ¿cegaitic? Beguiracune bategaitic. ¿Eztacusgu Saül Erregue condenaduric? Eta ¿cegaitic? Ecin-icusi bategaitic. ¿Eztacusgu Salomon galduric? Eztacusgu beste asco ocasíñoac gaitic pecatuetan sarturic eta au gu baño sendoago, irrimeago eta santuago izanic? Bada, Cristiñaiac, eztaigun aibeste confianza gueugan euqui, bildur izan gaitezán, eta igues eguin daigun pecatubideetatic, eta modu onetan ibilico gara ceruraco, orain icusico dozuena leguez.

Bigarren zatia

(148) 7. Aserraturic dagoala mundu guztien contra dirautso Jaungoicoac Ezequiel Ygarla edo Profeteari, eta orregaitic laster etorrico dala guizon guztien ganean bere aserracuntzea. Ezta gueratuco iñor beré, diño Jaun onec, guztien amaia, ta azquena dator bertatic, eta nire justiciaren ezpateagaz il eguingo dodaz direanac; guztia izango da nequea, guztia gosea, gacha, atsacabea, naibaguea, pestilencia; ilgo dira soloan dagozanac; eriotzea etorrico da urietan bici direac gana, eta ezteusat iñori beré, iñori beré parcatuco. Eta ¿cegaitic gach guzti onec? pecatuz beteric dagoalaco mundu guztia. Baña, Jauna, ezta iñor beré zure justiciaganic salbaduco? Eztai iñoc zure aserretic iñes eguingo? Bai. Eta ¿Ceintzuc izango dira? Pecatuen bildur izan direanac, eta orregaitic euretatic igues eguin daveenac¹²⁵. Aushe berau dirautsuet nic beré, Cristiñaiac; gura dozue ce-

¹²⁵ Et salvabuntur qui fugerint ex eis.

rura eldu? Bada onetaraco pecatuac guztiz ichi bear dozuez, eta pecatuac guztiz ichiteco ichi bear dozuez euren ocasiño edo pelleburuac beré. Eta au baquizue celan? Ara bada S. Juan Crisostomo-c dirautsu. Beguiratu eguizu ondo celango pecatuetan yausi zarean orainguiño, eta cec yausi erazo deutsun, eta sustraitic atera eguizu ocasiño au. Orainguiño ordi izan bazara, ez eldu tabernara beré, orainguiño pecatu loyetan yausi eguin bazara, igues eguin araco pecatu eguin dozun lagunaganic. Orainguiño berba loiac esan badozuz ichi chanchaco berbaac beré. Orainguiño bestegaz aserratu bazara, ez aderdeco barbaric beré euqui beragaz. Berba baten, Cristiñauiac, ichi bear deutzazuez pecatuari ate guztiac.

8. Baya bertatic dantzut cer eranzungo deustazun. Ay, Aita, esango dozu, gauza gogorreguia da ori. ¿Nor egongo da tabernara yoan bagaric? ¿Eztogu barbaric eguingo andracaz, edo guizonacaz? ¿Ez gara yolas edo erromerietara yoango? ¿Ez-cara chancha alegrauco? Bada orretaraco ichi daiguzan echeac, eta erriac, eta gozan mendietara penitencia eguiten. Eztiñot nic ori modu orretan: ezpabere orainguiño gauza orreec pecatuan yausi eiteco bidean imini bazaituez. Eta esango baneu beré ¿cé larregui escatuco neusquezu? Esan eguidazu Cristiñaua, esango baleutsue tabernaco etxea yausi aguinean dagoala, ¿yoango cinatequez? Bacenqui ardaoac beneoa daucala ¿edango ceunque? Esango baleutsue araco pecatu eguin dozun anreagaz berba eguiten badozu, edo aserratu zarean guizonagaz aderde burlezarrec barbaric badaucazu, daucazun guztia quenduco deutsuela, eta urcamendi baten iminico zaituela ¿berba eguingo ceunque, edo bacarric egongo cinatequez? Ezetz eranzungo deustazu. Bada ¿non da gure sensuna? ¿non da gure errazoia? Obipe edo sepultura baten atsituric eta ustelduric gueratuco dan gorputz bat gordetaco eguiten doguz aleguinac, echiten doguz naien doguzan gauzaac, ¿eta beti betico iraungo daben arimeagaitic, cein dauca Jaungoicoac bere alaba, eta ceruco yaubegueitzat auturic? ¿eztugu gustuchu bat beré ichi gura? Arimearen medicuac esaten badeutsu argalic zagozala oraindio, eta ichi daguizuzala au edo beste gauea; ecin eguin leiteque: baya gorputzecoac gueiago aguinduten badau beré, pozic eguiten da osasuna alcancetearren. Ara bada, neure enzulaac, guztiz ichiten ezpadozuez peleburu orreec laster barriro yausi eguingo zaree pecatu andietan, cé Espiritu Santuac diño cé, pecaturaco bidea gura davena bertan yausico dala¹²⁶. Ezpadozuez ichiten pelleburu orreec, gura ta gura ez yausi eguingo zaree, eta guero ne-

¹²⁶ Qui amat periculum peribit in illo.

garretan urturic ezagutuco dozue nic errazoia neucana, ascoc orain artean negar eguin daveena leguez.

9. Guztiz dira guichi pelleburuan imini ezquero pecatuan yausi eztireanac; eta oneec pelleburuetatic iñesi eguin baleve etzirean yausico diño S. Juan Crisostomo-c. Gu guztioen lelengo Amac beguiratu eguin ezpaleutso Jaungoicoac yan ez eiteco aguindu eutsan sagarrari, etzan yausico yaateco tentaciñoan, eta ez euscuzan ecarrico gueugan dacusguzan neque, (149) lan eta gachac. Jose-ren anayeac goitu baleudec lenengueran euqueen icusi-ecinchu pisquea etzirean elduco eriotzea emon gura izaitera, ez eudeen erbestera salduco, eta ez eutsen euren aitari aimbeste atsacaba emongo. ¿Cegaitic eldu zan Judas madaricatua bere maisua saldutera? Beste Apostoluai eutsen ecin-icusia lenengueran quendu ez evalaco; au quendu baleu, etzan icusico, guerora eldu zan negargarrizco estaduan. Erreca bategaz yazonen dana yazo oi da pecatuagaz beré. Errecac asieran iturrichu bat bashen eztira, eurac igaroiteco eztoa bear zubiric, dacarren ur guztia escuacaz, arri bategaz edo luur pusca bategaz gueratu leiteque, ur guichi oneri batzanduten yaco beste ur zatichu bat ya da pusca bat gueiago; emetic iturri bat, bestetic beste bat eguiten da errecachu chiqui bat, ta ceimbat eta beerago aimbat eta ur gueiago, eta azqueanean ya da ibai andi bat, elduten da guero uriola bat, eztago beretzat zubiric, eztago presaric, eztago errotaric: guztia banatuten dau, eta daroa beragaz. Ara emen pecatuaren irudia: lenengueran ocasiño chiquer bat izan doa, guero pecatuchu bat, guero andiango bat, eta azqueñez eguin ezquero ecandu edo usadio charra, eta eldu danean tentaciñoaren uriolea, eztago cec gueratu daguián, guichitan dagoz lotsaaria, Jaungoicoaren leguea, gracia galdutea, arimea iltea eta beste aurquitu al leian gauza guztiac. Ycusi gura dozue Escritura sagraduan eguia au? Enzuzue bada.

10. Eldu zan Jacob Patriarquea Palestinara, eta imini evan bere bici-lecua Siquen-go uriaren albo baten. An egoan artean eguin zan fiesta edo erromeria bat Siquen-en. Escaturic licencia, urte evan Dina bere alabeac angó andrac celangoac cirean icusten. Ycusi evan Dina erri ataco Erreguearen Semeac, icio zan bere amodio ta guraari bician, eta aguindu eutsen bere criaduai ecarteco etsera nescatilla ashe: eguin evene oneec bere aguindua; artu evene eta ecarri eutsen bere Yauregui edo Palacióra, non quendu eutsan zaldun onec bere osotasun, doncellatasun edo virginidadea. Pecatu onegaz sartu zan gueiago Dina-ganaco amodioan guizon gazte a, eta esan eutsan aitari artu eiola emaztetzat anra ashe. Joan zan Siquen-go Erregue Jacobgana, eta esan eutsan celan bere semeac ezcondu gura evan bere alabeagaz, eta alan emon leyola. Enzunic Jacob-en semeac cer yazo

zan euren arrebeagaz, eta aserraturic lotsaari agaz artu cituezan ben-
guetaco gogoac. Baña escututearren euren asmuac ez evenen senti-
menturic eracutsi; eta alan eranzun eutseen Erregueri au ecin eguin
leitequeala lelengo Siquen-go guizon guztiac circuncidau ezic, edo
ebaguiten ezpeeven aragui zatichu bat gorputzeco alde minbera ba-
ten. Etorri zan pozic onetara bere semearen guraaria eguiterren. Ba-
ya ¿cer yazo zala uste dozue? Sartuten dira Jacob-en Semeac Si-
quen-go urian irugarren egunean, ceinetan egozan guizon guztiac ala
edo minez beteric. Ylten dituez Erreguea eta bere semea, ilten di-
tuez guizonac, ezteutse parcatuten agura, anra, ez ume chiquerri
bere, iruliten dituez etseac, su emoiten deutse erriari, eta gueratuten
da galduric eta dan dana ondatu ta acabauric Siquengo uria. Eta
¿celan gueratu zan Jacob? Negarretan urturic bere semeac, eta ala-
beac eguin eveena gaitic, eta iñesi urten bearric erri atatiac bere
contra etorri ez ceitezan.

11. ¿Noc sinistu eraguingo eutsan Dinari bere erromeriara bea-
rrac aimbeste gach ecarrico cituzala? ¿Noc usteco eñan aimbeste
calte etorrico cireala bere buruera atatic? Bada beste aimbeste yazo-
co yatsue zuei, Cristiñaiac, pecatuen bideac ta pelleburuac ichi ez-ic.
Zoace, zoace tabernara, ce icusico dozue celan larregui edango do-
zuen; celan yocoan yarrico zareen, celan aserratuco zareen, celan
berandu etsera etorrico zareen, celan infernua irudingo dauen zuen
etseac, eta celan azquenez guztiz pobrerico gueratuco zareen, cer yan
ez cer yanci eztaucazuela. Cegaitic ce ¿nori datorquioz aserrea, ga-
cha, nequea; nori itsutasuna, nori gauza deunga guztiac?¹²⁷ Diño
(150) Jaungoicoac. Eta berac eranzuten dau: ardao-zale (150) direanai¹²⁸.
Orregaitic diño: Ez egiozu beguiratu ardaoari colore gorria daucane-
an, eta basuan guztia ederric dagoanean¹²⁹. Baquizu, guero, cegaitic?
Bere guraaritan sartu ce zaitzezan; ce sarri esaten oi dozu: aay ce
colorea daucan, ecin ichi leiquio. Guztiz gozo eta bigun igaroten da
eztaarritic bera¹³⁰; baya cer eguiten dau barruan Espiritu Santuac
berac dirautsu: Güenian sugueac legueche usiguico deutso eta bene-
noz beteco dau¹³¹. Zoace, zoace yolas eta erromerietara, batzaindu
zaitzeze zuec bashen zoro eta gangarrago batzuecaz; zabiltze sensun
bagaric, eta esan eguizue orregaitio bere eztagoala pellebururic; az-
quenac esango dau. Derechat Dinari yazo eguin yacana, yazo eguin-

¹²⁷ Cui vae? cuius patri vae? cui foveae? cui sine causa vulnera? cui suffulsio oculorum?

¹²⁸ His qui commorantur cui rixae vino, et student calicibus epotandis.

¹²⁹ Non intuearis vinum quando flavescit, et splenduerit in vino color ejus.

¹³⁰ Ingreditur blande.

¹³¹ Sed in novissimo mordebit ut coluber, et sicut regulus venena diffundet.

go yatsuela: gueratuco zare galduric, onra bagaric; orduanche negarretan urturic ya erremedioric eztaucanean esango dozue eguia esan nevala, eta gueratuco zare araco esate zoroan: noc esango evan, noc sinistuco evan. Ychi eguiezue gurasoac seme alabai nai dituezan lagunacaz ibilten, gura daven artean, ez eguizue arduraric artu goshetic echera etorri deitezán, emon eguioezu gura daven escubide edo licencia: etorricox da egunen bat ceinetan aurquituco zareen Jacob baño beré atsacabe, naibague eta pesadumbre gueiagogaz. Eztozue orduan erremediauco esanagaz: yaquin izan baneu celan ebaguico neutsazan laguntasun oneec. Lenengotic quendu bear dozuez ocasiñoac, pelleburuac burua ateraten asi eguin daitezanean, bertatic ito bear dozuez diño San Juan Crisostomo-c, bada bestelan indarra artuten ichi badeyoezu, eurac ilgo zaitueze erremedio bagaric. Eche baten sua eshetuten danean, laster elduten badira eta guichi dan artean pichar bete uragaz amatetan da, baya indarra artuten badau, erreca bateco ur guztia beré ezta asco amatetaco. Bada orrenbeste yazoco yatzie lenengueratic quenduten ezpadozuez ocasiñoac Wolfgango erichon guizon bateri yazo yacana leguez.

12. Eucan zu lango Jaun eta Varoe Wolfgango-c bere izeneco seme bat cein aci evan ardura andiATEGAZ Jaungoicoaren bildur santuan, eta Ama Virginearen devociñoan. Eldu zanean amalau urtera bialdu evan Ungriaco erregueren Yauregui edo Palazioara obeto aci cedin. Urte bete eta gueiagoan iraun evan gurasoac iracatsi eutsan devociñoan. Baya baturic beste Erregueren page bicitza galduco bategaz asi zan bere laguntasunagaz bere devociñoan otzituden guztia ichi artean. (Contu lagun deungacaz!) Ycusi evanean Demoniñoac modu onetan asi yacan tentetan Palacioan egoan Dama eder baten bitartecoz. Escribidu eutsan onec amodioz beterico carta bat ceinetan eracusten eutsazan bere guraari loiac. Engañaduric onegaz yausi zan Dama onegaz pecatu guztiz ezainetan, eta aimbeste itsutu cirean alcarregaz ce, galduric Jaungoicoaren bildurra, eldu cirean uri guztico escandalu izaitera. Enzun evanean Erreguec oneec bioc euquen bici-modu galdua artu cituzan alcarganic apartetaco moduac, eta onetaraco sartu gura izan evan conventu baten Lucrecia (aushe zan Dama madaricatu onen uzena). Baya yaquinic bioc Erregueren gogoartu even al eguien diru guztia eta baturic euqueezan joya guztia igues eguin even Alemania-ra, non bici cirean ezconduric balegozan leguez icaragarritzco pecatuetan sarturic eta itsuturic alcarreganaco amodioan. Baya ¡o Jaungoico andiaren neurribaco erruquitasunac! cein amatau ecin izan eudeen Wolfgangoren pecatu guztia! Bialduten eutsazan biotzera argui-aldi santuac; dei-eguiten eutsan beragana biurtu cedin: baya ain egoan gogor bere pecatuan

ce, ez euan yaramonic eguiten. Orregaitarren beré ez euan ichi Jaunaren ontasunac guizon galdu au. Aguertu yacon J.C^o. gure Jauna bere ama guztiz santeagaz batera, eta esan eutsan: ¿Cer da au Wolfgango? Nos artean izango zara niganaco esquer deungacoa? Cein da ederragoa Lucrecia, ala ni? Andra bategaiti ichi gura dozu Jaungoicoa? Eta Lucreciagaitic nire ama eta ceruco erreguiña? Ea bada neure Seme Wolfgango etzaitz galdu: erdu nigana, izan gaitez an adisquide, ce gura badozu zure pecatu guztiaz parcatuco deusudaz, eta

(151) zorioneco eguingo (151) zaitudaz. Arri bat derichat bigunduco eudeela berba oneec, baya arria bashen gogorrigo egoan Wolfgangoren biotza, eta alan ez euan yaramonic eguin. Gueratu zan bere pecatuetan, eta aurrera eroazan bere pecatuac. Baya orra non bete zan bere pecatuen neurria, eta castigadu euan Jaungoicoac laster icusico dozuena leguez. Convidadu euan egun bateraco adisquide batec eta erregutu eutsan yoateco Lucreciagaz naste uritic campora euan etse batera non igaroco even eguna alegrancia andian; eldu zanean gaüa ondo afaldu ezquero euqui eudeen comedia eta sarao andi bat, eta amaituric echun cirean guztiaz lotara: baya aror non gaüerdian aguertu cirean Demonioñoac, Lucrecia burdiña gorizco anda batzuetan ecarrela, eta bere alboan ifiniric Wolfgango eroan cituezan biac infernetara. Orain bada, Cristiñauac, nondic etorri yacan guizon galdu oneri galzaimen edo perdicioño au? Ocasioña ez ichiagaitic: iñes eguin baleu araco page galduaganic, echacazan gach oneec etorrico. (152) Ygues eguizue bada ocasioño guztietatic, eldu zaitze Jaun onegana, eta esan eguizue Neure Jesucristo Yauna.

8. PECATURA BARRIRO BIORTUTEN DIREANEN GANECO SERMOEA

(B, 153-157. or.)

Avertere ab injustitia tua.
Eccle. c.17.v.23

(153) 1. Zorionecoa izaiteco ezta asco Jaungoicoagana biurtutea, ce oster beraganic inesi eguiten badau beraganic, eta barriro yausten bada bere arerioaren agindupean galduco dau ceruraco eucan escubidea, bada J.C^o.c ez diño Jaungoicoagana biurtuten dana salbauc dala, ezpabere azquenaguño Jaunagaz dagoana pecatuetara biurtu bagaric. Baya ¿cer diñot? Jaungoicoagana etorri ezquero, atzera biurtuten dana, eta oster lengo estadu negargarrizcoan yausten dana, bildur izan daiteque eztala barriro Jaunaren gracia biurtuco, eta leen baño deungago gueratuco dala. Gauza arrigarria benetan, eta cein zorigogor au yazo daquizun, ta bein peccaturic urten badozu, oster biurtu cein zaitezcan, adierazoco deusut puntu bitan ce gach dan bein Jaungoicoagana etorri ezquero, oster igues eguin davenac, barriro Jaunagana etortea. Lenengo Jaungoicoaren aldetic, bigarrenge ceure aldetic. Jaungoicoaren adisquide izanic peccatua yausten dana nequez yaguico da, Jaunac emongo ezteusalaco venturaz andic urteiteco socorro edo laguntzaric, lelengo puntua. Jaunaren gracia galduten davena nequez biurtuco da barriro artutera, gachago izango yacolaco Demonioaren escupetic urteitea, bigarren puntua. (153)

Lenengo zatia

2. Neurri bacoa da Jaunaren ontasuna, eta ain andia bere biguntasuna ce, berac dirauscu ce edocein beré ordutan beragana etorri dedin peccataric itsutuena ta ezainena, berac artuco davela, eta guztiz loiric badago beré berac garbitu, edertu, eta apainduco davela. Baya ecin peccaturic beragana iñoz biurtu leiteque berac bere gracia-gaz lagundu bagaric, eta aimbeste aserratuten da bere adisquideac bere arerio biurtutea ce eztau ecec beré aimbeste sicatuten bere erruquiaco, ta misericordiac iturria cein da esquer deunga onec ba-

da aushe da Jaun oneri eguin cinaion injuriaric andiena, cegaitic ce da esatea bera baño obea dala Demoniñoa eta orregaitic naiago dozula ugazabatzat bera (Jaungoicoa) bashen. ¿Gogor eguiten yatzu au alan dala sinistutea? Ara bada. Pecatuan zengozanean cinean Demoniñoaren serbitzalle, eta bera ceuncan ceure ugazabatzat. Pecaturic urtenic, penitenciaren bitartecoz graciara zatozanean, ichiten dozu leen ceuncan ugazaba, artuten dozu Jaungoicoa ugazabatzat. Orain bada Demoniñoa eta Jaungoicoa biac euqui dozuz ugazabatzat, biac daquizu celangoac direan, eta nogaz obeto yoan yatsun. Bada ichiten badozu Jauna, eta bazoaz pecatuaren bitartecoz Demoniñoaren serbitzalle izaiten, da aituten emoitea ugazaba obatzat daucazula Demoniñoa Jaungoicoa baño eta orregaitic zatozala bera serbietan. Eta derichazu Jaungoicoagana osteria biurtuten zarenean artu guraco zaituzala bere echean eta adisquidetasunean? Eztaquit, Cc. Contu eguizu daucazula otsein criadutzat guizon bat cein egoan carcela baten urcamendi batera condenaduric, eguin cituzan gach icaragarriacgaitic, eta zor andiac gaitic. Pagadu ta quitu eguin cenduzan bere zorrac, eta atera cenduan carcelatic campora, iminten cenduala bere orde z ceure seme bat, ecarri cenduan etsera, euqui cenduan seme bat bailitzan leguez, ceure maian yan ceuc yaten cenduan guztia, ceugaz bici, ceugaz ibili; eta onegaz ez contentaduric oneri asco ez erechiric eguin cenduan ondasun guztien yaubeguei ta herederu, eta diru andien yaube. Aizturic guizon esquer deungaco onec zor eutsuzan mesedeac, ilten deutsuz ceure semeac, zatituten dituz ceure etseco tresna guztiac, erretan dituz zure etse guztiac, eta igues eguinic zaganic, bat eguiten da zure arerioric cruelenacaz, aldaian guerraric cruelena, euracaz batera zuri eguiteco; baya damutu yacolaco, eta parca escatu deutsulaco, artuten dozu ceure adisquidetzat, dacarzu echera, eta ifinten dozu leen egoana leguez. Orain bada biurtuco balitz au guizon au lengo esquer deungara, eta eguinic leen baño beré gach eta calte andiangoac, iñes eguingo baleu barriro leen leguez zure (154) arerioacgana, leen bashen guerra gogorrago bat eguiteco, ¿artuco ceunque lengo moduan ceure criadutzat, eroango ceunque ceure etsera, eta iminico ceunque lenagoco moduan damutu yacolaco, eta parca esque yagotsulaco? Eztaquit, Cristiñaiac, nequez sinistuco neuque, e-neuque ain laster zure bayezcoaren fiadore urtengo.

3. Ara bada, Ne.Ca., beste onenbeste eta gueiago yazo da Jaungoicoagaz zure artean. Cengozan pecatuaren presondegui edo carcela ilun eta atsitan zorrez beteric eta eriotzara condenaauric. Etzeuncan cegaz pagadu zor oneen, eznoc libradu eriotza gogorretic. Erruquituric (erruquituta) zugaz Jaungoicoa atera cenduzan carcela

gogor onetatic, pagadu cituzan zor guztiac, emoiten evala zure ordez bere Seme maite bacarra eriotzara condenadua izan cedin. Eroan cinduzan bere etsera, cein dan Elesha Santea, eguin cinduzan bere ondasun andien yaube, yarri cinean beragaz mai baten, eta emon deutsu yanari bere gorputza, eta edaari bere odola, eta esan deutsu bere ondasunen eta ceruco Erreinuaren yaube-guei ta herederu zarea, eta ondo serbietan badozu, eta beraganic igues eguiten ezpadozu, emongo deutsula, ez luurreco erreinuren bat, ez urre edo cirar zatiren bat, ezpada iños beré amaituco ez galduco ez dan erreinua. Baya ¿cer eguin cenduan zuc? Aazturic neurri bagaco mesede guzti onec galdu cenduzan ondasun guztiac, il cenduan bere seme bacar maitea, iñesi eguin cenduan beraganic, esan cenduan bere Seme izan gura etzenduala, eguin cinean Demonioaren serbitzaille, eta beragaz bat eguinic, ibili zara ceure Eguilla andiaren contra guerra andian edo bician. Damutu yatzun ain esquer deungaco Jaun andi onegaz izaitea (izana), parca escatu ceuntsan, eta biurtu cinean beragana; eta aizturic Aita bigun onec bere contra eguin cenduzan gach eta gaistaqueriaac, ezarri eutsuzan bere besoac, estutu cinduzan bere bularraren contra, emon eutsuzan mosu eta laztan gozoac, yanci cinduzan soñeco ederracaz, eroan cinduzan bere etsera, eguin evan Aingueruacaz batera fiesta andi bat, zu biurtu cinealaco, atzera emon eutsuzan galdu cenduzan ondasunac, eta aguindu eutsun bere Erreinu guztien herederu ta yaube egingo cinduzala ostera igues eguiten ezpacenduan. Eta ¿euquico dozu biotzic Jaun onec emon deutsuzan ondasunac botetaco? Euquico dozu biotzic bere Seme maite bacarra (bacar maitea) barrien barri il eiteco? Euquico dozu biotzic beraganic beste bein iñesi eguiteco? ¿Euquico dozu biotzic bere arerio ta Demonioaren aguindupeco izaiteco? ¿Eta beragaz bat eguinic Aita ain maite, ain bigun, ain on, ain onguilleari guerra eguiteco? ¿Eta derichazu guero zuc gura dozunean Jaun onegana biurtu izango al dozula eta gura badozu beré, artu guraco zaituzala Jaun onec?

4. Eztaquit, Ca., cer esango deutsudan (esan daizudan), esan deutsut leen beré eztaucala neurric bere ondasunac, cabubacoa dala bere biguntasuna, eta azquen bacoa bere erruquia, alan beré ara cer dirauscun S. Paulo Apc. Ecin leitequean gaucea da diño Apostolu andi onec, ecin leitequean gaucea da bein arguituac izan direanac, Jaunaren doeagaz ase izan direanac, eta Espiritu Santua artu daveenac, ostera pecatura biurtuten badira, Jaungoicoaren Semea crucifiquetan daudeela, eta burla ta barre eguiten deutseela, barriro biurtutea penitencia eguitera, cegaitic ce, diño, gure biotza luurra legueda. Luur onac artuten dau Jaunac biraldurico euri ta iñontza: bada

(155) emoiten badau eguiquera edo obra onen berarra, bedeincatua izango da, baya emoiten ez badau, pecatuen sasi eta arantzac bashen, urrean dago madaricatua izaiteco. Beste ain beste diño S. Pedro Apc.: Jaungoicoagana bein etorri ezquero, ostera ichico badozu, eta lengo becatuetara biurtu eguingo bazara, oba ceunquean ceure pecatuetan egon, oba ceunquean Demoniñoaren serbitzalle izan, oba ceunquean ez etorri Jaunagana; ce aimbeste aserratuten dau Jaungoicoa esquer deunga onec ce diño: ¡Ay ce zori galducoac direan, erabilezan bide artzac ichiric, bide oquerretara biurtuten direnac! Eztave onelangoac amai edo azquen onic euquico (izango). ¿Cegaitic guero? ¡Ay Ne. Enzula maiteac, uleac laztutecoa da S. Paulo Ap.c. diñoana: Gueure borondatez pecatu eguiten badogu, diño, Jaunaren adisquide bein izan azquero, eztaucagu (155) cec adisquide eguin gaguizan Jaungoicoagaz, eztaucagu cec bigundu daguian bere aserrea. Eztago onelangoentzat, ezpabere juicio icaragarri bat, eta su bildurgarri bat, ceinec erre eta quisquilduco dituzan Jaunaren arerioac. Bildur izan cinatequez, lenengo eguin daguizun pecatuan, etorrico dala zure ganera Jaunaren aserracuntzea guztia, eta betico galduric gueratuco zareala, pecatuac ichiteco, eta penitencia eguitemo aztiric euqui beré bagaric. Baquizu, guero, cegaitic? Ara bada.

5. Gauza guztiac eguin dituz Jaunac; eta daucaz ifiniric bere pisu eta neurrian, eta ecin ecec neurri onetatic urten leique, eta alan guztiac yazoco dira, berac icentaduric ta iminiric daucan moduan Beste gauza guztietan leguez dauco ifiniric bere, ceimbat pecatu bacochari parcatuco deutzazan, batzuei oguei, beste batzuei berrogei, onei gueiago, aei guichiago, diño S. Agustin-ec. Orain bada, ecin yaquin cinaique ceimbat pecatu-guiño icharongo deutzun Jaunac; eztaquizu ea bere yaquituriac iminirico neurria beteric badago azquenengo eguin cenduanagaz; eta au alan bada urrengo eguin daiquezunac eztauco parcañoric, bera izango da zure condenagarria. Alanche yazo zala diño S. Paulo Apc. Noe-ren egunetan. Paciencia ta epetasun andi bategaz icharon eutsen guizonai onaco Jaunac, berac bere neurribaco yaquituriagaz imini cituzan pecatuetara eldu arte guztian; barriz eldu zanean á, beingo beingoan etorri cirean uriolac eta cirean cireanac gueratu cirean itoric. Paciencia andi bategaz sufridu (icusi) cituzan Sodoma eta Gomorra-tarren pecatuac euren neurria bete guinocoan, baya bete zanean, beingo beingo baten yatsi zan cerutic sua, eta erri ta erritar guztiac gueratu cirean erreric, penitencia eguitemo aztiric emon beré bagaric. Alanche yazo eguin yaquen beste ascori. Jaunaren ecin ezagutu leitequean justicia oneshec euqui bear gaituz bildur santu bategaz icara, beste bein pecatura biurtu ez eiteco, bada ecin inondic beré yaquin guinaique atzerengo eguin guen

duanagaz, bete bada gure pecatuen neurria. Orregaitic artu daigun S. Paulo Apc. emoitén deuscun, itunde (conseju) ta bide ona. Jaunaren adisquide bagara gagozan zorion onetan, eta ez gaitezán biurtu osterá Demonioaren aguinduco ta escupeco izaitera; ce beste bein yausi eguiten bagara bere laquioetan, leen bashen gachago izango yacu urteitea gueure argaltasunagaitic, eta Demonioaren ardura andiagoa gaitic cein dan.

Bigarren zatia

6. Jaungoicoac ucatuco ezpaleuscu beré, pecatura biurtu esquetiño, leen emon oi euscun gracia ta laguntasuna, orregaitic beré guztiz gachago izango litzatequegu barriro bere adisquidetasunera biurtutea, bada leen yagui guinean graciagaz ez cara yaguico, ce osterá yausi ezquero indar guichiagogaz aurquituco gara Demonioaren contra eguiteco. Arimaco gachetan yazo oi da, gorputzecoetan yazo oi dana. Sarri icusi izango dozue gueisho andi bategaz dagoala norbait: visitetan dau Medicuac, emoitén deutzaz osasunguei edo medicinac, urteiten dau gachetic edo enfermedadetic, eta ya dago osaturic; biurtuten bada gachera, edo eguiten badau errecaidaric, leen bashen deungago gueratuten da eta sarri-ascotan yazo oi da lelen goan osatu zana, bigarreanean iltea. Bardin yazo oi da beso, oñ, escu edo caderaren bat urratuten danean, lelengoan osatuten erraz izan arren, biurtuten bada urratutera, guztiz da gach osatutea. Aushe berau yazoten da arimeagaz; lelengo yausten danean eztau oraindicoarren oituraric edo eanduric artu; baya osterá yausten bada eandua artuten asten da indar guichiago dauco Demonioaren tentacinoen contra, eta ceimbat eta pecatu gueiagotan yausten dan, aimbat eta indar gueiago galtzen dau arimeac. Dagonen tayu edo idolotzarrean daucagu onen irudi bat. Araco Filisteoen Sacerdoteac imini eveanean testamentuco cuhea tayu onen ondoan, aurquitu even, Dagon biaramonean lurrean altaratic yausiric. Biurtu even leengo lecura; biurtuten dira biaramonean, eta ez bacarric aurquitu even yausiric, baita beré escuac urraturic, eta burua ebaguiric. Onenbeste yazoco yatsue zuei beré. Pecatu eguin cenduanean (156) yausi eguin cinean graciaren altaratic; non cengoan Jaungoicoagaz batera, artu cinduezan Sacerdoteac penitenciaren bitartecoz, eta imini cinduezan, leen cengozen lecuan. Bada orain barriro yausten bazare, ezta leen leguez izango, ce galduco dozuez escuac; au da, guichituco yatsuez indarrac, Jaungoicoagana biurtuteco, eta obra onac eguiteco. Ebaguico yatsue burua, ilunduten yatsuela censuna, eguin

dozuen pecatuaren ezaintasuna ezagututeco, galduten dozuela miina. Jaunari parca escatuteco, eta gueratuten zareala Dagon legueche zubil bat eguinic mobimentu bagaric eta gogo bagaric Jaungoicoaganantza ibilteco.

7. Sinistu gura ezpadozue au, enzuzue J.C^o.c bere Evangelioan diñoana, eta gura ta gura ez confesadu bearco dozue eguia au. Adierazoteco Salbaguilleac, Jaungoicoagana etorri ezquerocoan pecatura biurtuten danaren egoquera, edo estadu negargarria, dirauscu: Demoniñoa guizonaganic urten ezquero dabil lecu bacar eta lurritatic-(sic) bici lecuen atzean (billa), baya ecin aurquitu dau, eta alan diño bere artean; biurtu nadin (banoa bada) lengo lecura. Aurquituden dau uts utsic garbiric, eta berac gura daven moduan apainduric. Artuten dituz beragaz naste beste zazpi Demoniño bera bashen charragoac, eta sarturic bertan, eguiten davee eureen bici lecu, eta aror non gueratuten dan guizon zorigalduco ori, lelengo pecatuan egoanean baño beré deungago. Obeto ezagutu daguizuen pecatura barriro biurtuten danaren pelleburu andia, enzuzue irudi aushe. Enzun izango dozue, eta bear bada edonos icusi beré bai, celan justiciac sartzen daven guizon bat preso. Eztau lenengueran carcelazainac ain gogor artuten, eztau estu ifinten, ichiten deutso nosean bein guizonen bategaz, edo adisquideren bategaz berba eguiten. Ezteutsaz aimbeste grillu iminten, eztau atearen beré ain ardura andi andiric euquiten. Ygues eguiten dau; bertatic aspertuten da Carcelazaina, biralduten dau emetic guizon bat, bestetic beste bat, escribietan yaque justiciai iñondic aguiri bada oratu daioen, eta ezta ichiten aleguinic eguin bagacoric leen egoan lecura ecarteco. Artuten davee guero beré, eta ifinten dave lengo carcelan. Derichazue, ne.Cc., lengo biguntasunagaz euquico davela carcelazainac? Ez beintzat, ne. Enz.c., ez, iminten dau lecu seguruenean, leen grillu batzucac beecan, ifinten deutsaz bitzuc edo irutzuc, leen giltz bategaz zarratuten beeban, bigaz edo irugaz zarratuten dau orain, leen gordetzaile batec yagoten beeban bic edo iruc gordetan daude orain, zarratuten deutsaz orain bentana leio eta zulo guztiac, gau ta egun (egunez ta gaubez) icusten dau ea ondo loturic dagoan, ezteutso adisquideacac berba eguiten ichi gura, eta guztia beingoan esatarren, ostera igues eguitemo icharome nic edo esperantzatic ezteutso ichiten.

8. Onenbeste yazoten da pecatariagaz Demoniñoaren artean. Lelengo pecatu eguiten davenean guizonac, gueratuten da Demoniñoaren presondegui edo carcelan. Orduan eztau ain astun artuten, gueratuten yaco devociñoen bat edo beste, obra onen bat edo beste. Baya ¿cer yazoten da? ¿iñesi eguin cenduan presondegui edo carcelati? Bada bertatic artuten dituz Demoniñoac aldaizan asmuac, ba-

rrien barrian zu bere aguindupeera, ta escupeera biurtuteco, biralduten dituz batetic tentaciñoac, bestetic ocaseñoac, emetic guraariac, andic pelleburuac. Pensamentu deungaac, aserreac, ibileraac, bideunac, yolasac, erromeriac, berba-aldi loiac, canta gangarrac, tabernea, soñu zoroac, eta pecatura garoacen gauza guztiac. Demonioñoac gu barriro artuteco bialdu dituzan criaduac dira, eta bera bere euren artean dabil; zure zorigogorra becauaren presondeguira edo carcelara barriro biurtuten bazaitu! leen bashen gachago izango yatzu andic urteitea, gueiagotuco dituz cateac eta grilluac, iminten deusula pecatuac confesetan etorteco naguitasuna, eurac esateco lotsea; quenduco (galerazoco) deusula adisqueideagaz berba eguitea quenduten deusula leen Santuac ganaco ceuncan debociñoa; zarratuco deusuz ate, bentana leio, eta cilo guztiac. ¿Ba'quizu, guero, celan? Ara bada. Ba'qui gaisquinac nondic leen igues eguin ceuntsan, eta aleguin guztia eguingo dau bide au zarratuteco. Leen Ama Virginaren edo beste Santuren baten debociñoa izan bazan atera cinduzana, epeldu edo otzituco deusula debocino au, gueiagotuten (ascotuten) dituzala zure cereguinac, gomuta beré izan ce daquizun. (157) Leen urten bacenduan eriotzaren edo infernuaren bildurragaitic, aaztu erazoco deusuz gure azquen icaragarri bi oneec. Sermoiren batec atera bacinduzan leenago bere presondegui edo carcelatic, beteco zaituz eurac enzuteco naguitasunez. Limosnearen bitartecoz urten bacenduan sinistu erazoco deusula ceure gauzaren bat Jaungoicoagaitic emoten badozu pobreza andian yausico zareela. Gueiagotuco dituz ceure cereguinac, eche ta familiaren arduraac, cein confesadu zaitezcan, sinistu eraguiten deusula leenago dala seme alaben ardurea, eta beste eguinbearrac, confesetea baño, eta batagaz ta bestegaz ecin cumplidu leitequeala, bada gura ta gur'a ez aserratu bear dala euracaz, ecin leitequean gaucea dala maldicino eta birao eguiteco ecandua galdutea, eta Seme-alabaac dagozan artean ecin euqui leitequeala ondo confesetaco bear dan baquea. Verba baten leenago Demonioño batec bacarric (baccar batec) zainduten bacinduzan, zortzic guero yagongo zaituez, diño J.C^o.c, eta guero euquico dozun egoquera edo estadua, leenago ceunca bashen charragoa izango da.

(157)

9. ¿Cer eguingo dozu orduan? ¿Celan urtengo dozu presondegui edo carcela ilun, atsitu eta gogor orretatic? Orduan esan daiquezu anchina Jeremias-ec Jerusalem-en icenean esaten evana. Orma lodiz edo muralla ecin urratu al neinquenez inguratu nau¹³². Ain modutan estutu nau ce ecin urten neique nagoan lecutic¹³³. Grillu ta catea

¹³² Aedificavit in giro meo. Jerem.Thren.

¹³³ Circumaedificavit adversum me ut non egrediar.

astun eta sendoac ezarri deustaz ganera¹³⁴. Arri landuacaz zarratu dituz urteiteco (urten) bideac¹³⁵, eta iruli dituz igues eguiteco moduac¹³⁶. Eta cer yazoco yatzu negargarrico estadu onetan? Atzeratu eta atzeratu penitencia, eta pecatu batac bestea dacarrena leguez ezarri pecatuac pecatuaren ganean. Aushe diño Ysaias Ygarla edo Profeteac. ¡Ay ce zori-gogorrecoac, direan, diño Jaungoicoaren ice-nean, niganic igues eguiten daudeen Semeac!¹³⁷, bada eurac ezarten dituez pecatuac pecatuaren ganean¹³⁸. Bada S. Gregorio Andiac diñoandi penitenciaco uracaz laster garbituten ezpadira pecatuac, bere pisuagaz dacar guizona beste pecatu batera, eta oneec biotz pisu andiagoo dauquena leguez errazago dacarde bestera, eta modu onetan yausten da guizon itsutua pecatuaren ondo edo ondarre-guino, eta orduan ozta ozta dauco erremedioric; ce diño Espiritu Santuac: Pecatariac, pecatuen ondora edo ondarrera elduten danean, guztia dauco guichitan. Ez deutsee arduraric emoiten ez infernuco penaac, ez cerua galduteac (galdu bearrac), ez Jaungoicoa aserraturic euquiteac, ez beste mundu onetan, ez bestean yazo al leiquion gachec ez nequec, bere pecatuac aurrera daroaz¹³⁹ bada gogorturic bere ecan-du citeletan, guraago dau infernuco sugar bicietan yausi, bere ecan-du citelac ichi baño, naiago dau cerua, eta Jaungoicoa arpeguiz arpegui icustea galdu, bere gurariac baño. ¿Cec ateraco dau pecatari zori gogorreco au pecatuaren presondegui edo carcela onetatic? Bildur izan leiteque yausi ce dedin Ynfernuco carcelan beti betico. Orregaitic bada, Cc., urten badozue pecatutic zagoce zorioneco egoquera edo estadu orretan, dirautsue S. Paulo Apc., eta etzaitece biurtu beste bein Demonioñoren aguindupeera. Errazago izango yatsue Jaungoicoaren adisquidetasunean egotea, ostera bertara biurtutea baño. Eta zuen argaltasunagaitic, edo Demonioñoren tentaciaoagaitic yausten bazare, aimbat lasterren biurtu eguin zaitece Jaungoicoagana penitenciaren bitartecoz, ce ichiten badozue egunen batzuetan ichico dozue aste osoetan, eta andic luzatuco dozue iletan, eta iletaric elduco zare urtera confesetaco, eta bicico zare Demonioñoren servitzaille.

10. Ez, Cc., ez, etzaitece ain zoroac izan. ¿Cein da ugazaba ohea Demonioña, ala ceruetaco Erregue au? Derichat dirautstazula obe dala Jaun onen etsean otseinic chiquien izan, Demonioñoren etseco

¹³⁴ Agravabit compedem meum.

¹³⁵ Conclussit vias meas lapidibus quadris.

¹³⁶ Semitas meas subvertit.

¹³⁷ Vae filii desertores.

¹³⁸ Ut adderetis peccatum super peccatum.

¹³⁹ Impius cum in profundum malorum venerit contemnit.

yaun baño. Bada ara cer dirautsun Jaun onec. Neure semea, pecatu eguin badozu, ez eguizu luzatu nigana biurtutea, eta biurtu ezquero ez eguizu niganic igues eguin, ceuc urteiten ezpadozu etzaitudaz nic botaco. Eztot nic oraindio iñor nire echeric bota, eta nosbait urteiten badozu beré biurtu zaitez aimbat lasterren ecandu citeletan sartu bashen leen. Biurtu zaitez aimbat lasterren ceure Aita gana. Enzun daiguzan Ne. Enza. maiteac, gueure aita laztanaren dei onec, biurtu gaitez beragana, eta echunic bere oñetan esan deiogun: Neure J.C^o. Jauna.

9. YANGOICOAGANA BIURTUTEA ERIOZACO ORDURACO LUZATUTEN DAVEENAC

(A, 1-10. or.)

(1) Asco ta lar dira Cristiñauen artean euren bici-erea (modua) ondutea, ta Yangoicoagana biurtutea eriozaco orduraco luzatuten daveenac. Yaunac berac dirautse, ta dirauscu guztiai: «ez luzatu nigana biurtutea, ta ez berantau egunerik egunera, cé ustecabean ta batbatean nire aserrea ganean izango dozue.» Dirauscu beti prest egoteco, gueuc eztakigun orduan etorrigo yaculata: gau-lapurra lequez ustiz uste bagaric ganean ezarrigo yacula, ta beste onetaricoasco. Baya alperric alangoentzat. Eguitegaz, berbeagaz ezpada beré, diño, araco anchinaco, Isaias-ec dirauscuzan gaistoena: «guc erioztagaz tratua eguinda (ic) daucagu. Guzurragan gure usteac imini doguz, eta dana dala, berac yagon gaituz.» Baya pecatariac, ara cer cirautsen aei Yangoicoac, ta cer dirautsuen zuei. «Nic, nic deseguingo dot ceuen erioztagazco tratu ori: (iñestasiac) abasuseac lurreratuco dau, guzurragan dozuezan ceuen uste zoro orreec, eta euriyasac uriolatuco dave, berac eguiten deutsuen gueriz guztia.»

¿Ce zorakeria da au zuena, neure entzula biotzecoac? ¿Nongo asheac artu deutsue burua, ceuen penitenciaren ta ceruaren usteac ain bete betean iminteco, ceuen escuan eztagozan, ta Yangoicoac abasusea ta euria bashen gauza argalacaz galerazo leikezuezan gaudetan? Eta ¿ezpacendukeez guero? Eta ¿Yaunac urratuten badeutsue erioztagazco tratu ori, ta eracusten ezpadeutsuez, zuec uste dozuezan astia, abegunea, erea ta laguntasunac? -Baya izango doguz, diñozue zuec zuen artean. -baya nic dirautsuet, gueiago sinistu bear dozuela, eztozuela izango; bada gueienac ez oi davee izan. ¿Gach eguiten yatzue ori sinistuten? Bada nic egingo deutsuet ondo argui: eta eracutsico deutsuet ece, erioztago gaish-aldiraco ichiten badozue ceuen Yangoicoaganaco biurtutea, eztozuela izango gauz' onic eguiteco ez uneric, ez bururic, ez conort' onic, ta betico galdu egingo zareela. Aushe izango da gaurco arrastegui onetaco neure berba-bidea. Sinistu (2) eraguiten badeutsuet, ta bazacardeez leenbait leen ceuen arimaco gauzaac eguin, ta bicitzea ondutera, gauza andi bat eguin izango dot. Entzun bada.

Ichiten badozue eriotzaco orduraco pecatuen confesiñoa, ta Yangoicoagana biurtutea, ecingo dozue orduan. Ta ¿baakizue cegaitic? 1º Astiric izango eztozuelaco. 2n. astia izanda beré, gachac ichico ezteutsuelaco. 3n. edo gachac ichiarren, zuen ecandu charrac galarazoco deutsuelaco. Ara emen iru eguia yakin-bear, ceuen biotzetan ondo ondo yosi gura neunkezanac.

1º Dirautsuet bada, lenengo ece, zorakeria garbia dozuela arimaco gauzaac ichitea, izango (ba) dozuenez beré eztakizuen aldi bataraco, eta cein ceuec bashen deungaac izan eztireanai beré sarri ta ascotan ucatu deutsena Yangoicoac. Esan ezpabere: ¿noc esan deutsue gach luce bategaz (gaisho luce baten ostein) ilgo zareela, ta ez bat-batean, ustez ustebaaco eriotzeagaz? (Lendañez) Aurretiaz igarrico deutzazuela ceuen buruai, ceuenac iya eguin bear davela, ta eriotzea ganean dozuela? ¿Noc esan deutsue, ichasoan edo ibai baten itoco (iratoco) etzareela: beera datorren orma batec (azpian artuco) zapalduco etzaituezala: yausi mutu batec bertan il gogorric ichico etzaituezala: arerio gaisto batec, lapur oker batec, edo bear bada alango gogo charric eztaucan besteren batec, ecetaraco lecu bagaric beingoan bizitza kenduco ezteutsuela? ¿Nondic yakin ciñai-kee, ceuen barruan sortuco eztala gachen bat, ceinec berba bagaric beingoan eroango (garbituco) zaituezan? Onec eta onelangoac ecin yazo lekikezue? ¿Ain barachi icusten direanac dira? Urteric izaten da alangoren bat edo bat eztanic?

¿Ceinbat bider entzun eztozue, urlia ustez osasun onean (oniñoian) arratsean oean echun, ta goshean illic (aurkitu) topau daveela: (ulinaia) urlicia mayan pozez bascariten (bescariten) dagoala, accidente batec artuta, bertan berba bagaric il eguin dala: bestea bidean, bestea soloan, ta ez guichi pecatu eginda belan (ber-bertati) edo bear bada atan diñarduela, beste aldera (mundura) ecer eguiteco lecu bagaric yoan direala. «Etorri yacan abadea, esan doa; baya orduraco ez egoan gaishoa ecetaraco.» ¡Ay ce biotzketaac: ce zuen arteco bildurrac! ¡Ce gogo ederrac! «Ez bada, eztozu atzera beguira egon bear, beste onenbeste guerta eztakigun.» ¿Uste dozue orreec cireala nora-ececo burubaaco bildur batzuc? ¿Ceinbat pider ceuen beguientan bear bada (ameneco) yazon eztira onango bildurgarrizco eriotzaac? Eta ceuen etseric urten bagaric beré, ¿eztozue batzuc batzuc etsapean orrenbeste (3) icusi? Orain itandu gura deutsuet: ¿cer derichazue erabili izan davela Yangoicoac orreec eriotzoc ceuen beguian aurrean imini, edo ceuen belarrietara eroanda? Bear bada iragarri nai izan deutsue ece, ceuena beré alangoshe eguin eguina izango dozuela. ¿Noc taki zuen barruan badaucazue beré eriotzea, ceinec bere bearrac eguin, ta zuen buruac nosh guichien uste dozuen lurraren ganean icusico dozuezan?

Cein da, bada, zuen zorakeria, cristiñauac, iminten dozuenean ceuen salbaciñoa, ceuen escuan eztagoan ta ain guichi fietaco dan gaucearen pensutan? Salbetaco (arean) ecer balira adiskideac, ondasunac, aideac, aguintaritasuna, ta orreec, orduan bear bada cerbait esan ciñaikeen. Baya ¿denporea? baya ¿astia? baya ¿abegunea? ¿Ceinec ori segurutu? ¿Noc bayezcoa emon? ¿Noen esanera dagoz egunac eta urteac? ¿Aguindu ciñaikioe eguzkiari, anchinaco Yosuec leguez, gueldi egoteco, aric-eta zuen arimaco arerioac azpiratu, il, ta deseguin artean? ¿Edo Isaias-ec leguez, onenbeste bide atzera eguiteco, arima orren osasunaren segurantzea izateco? ¿Iñoc, ezta dan aberatsenac, aguintarienac, ta escu-andicoenac beré, baaucu bere escuan urrengo ordua, edo aren izpiric chikiena? Luzatu leike tindi tindi (apur apur) bat peré bere bicitzea? ¿Eztau au Yangoicoac beretzat, eta ondo beretzat gorde?

¡O ene Yangoicoa! Ceu zara ceu, neure bicitzeari luce-laburra emon deutzazuna: ceu nire buruco ulleac leguez, nire urteac beré icendaturic ta iminiric daucazuzana: ceu nire yaiotz-eguna leguez neure eriotzaco ordua beré erabagiric (ebatsiric) daucazuna: eta ceuc dakizu ea egun au ur edo urrin [ala asago] daucadan: barriz nic dakidana, eta ecetara bere aaztu bear eztodana da ece, bein bertara [egun orretara] ezkerro, ecin luzatu neinkeala, ezta dan tangaric (pildinic) chikiena beré, ta berbertatishe aguertu bearco dodala ceure aurrean.

Baya esango deustazue bear bada ece, onelango subituco eriotzaac eztireala ain sarriac, nosic-pein batecoac (banaketacoac) baño eztireala izaten. Baya ¡ay! nic esan bear deutsuet ece, eztireala ain meatzac, ta anchina (leen) alango bein edo besteco guichitan (bas-hen) baño, icusten etzana, gueure egunetan chatean pitean, ta puntuan bein icusten (dala) dogula. Baya baderichazue, ondo, izan bitez onango eriotzaac barachi (guichitan) icusten direanac; baya orregaitic peré bildur izan bear tzaree, cegaitic ece alan ilten direan guichien artecoac ceuec izan (zaitekece) cintekece. Bacenkie beré bat paño besteric ilgonan ilgo eztala, orregaitarren beré (4) bildur ori biotzean euki bear tzeunke: cé eztakizue, ta yakin beré ecin ciñaikee, ea zuec izango bazaree bat ori. Ichasoan ontzi bat daucan mercataria icara icara eguiten da, dantzuanean ontziren bat galdu izan dala, berea baño beste asco ichasoan izan arren.

Baya nic esan bear deutsuet ece, ez bat ta ez guichi, eta bai asco ta asco, ta gueienac ustez uste bagaric beingoan ilten direala, eta Yangoicoaren eguna beti lapurra leguez etorri doiala, batec guichien uste davenean. Esan bear deutsuet ece, eriotzaco gaishoagaz, eriotzea iya zamaan (estarrían) dozuenean beré beguitanduco yatzuela

(4)

ece, oraindo-coarren urte luceac munduan eguiteco dozuezala: arimaco gauzaac atzeratu ta atzeratu ebilico zaree... : confesorea dato-rreanean beré usteco dozue... ece ori dala gaishoacaz eguin oi dan gaucea; baya zuec ilteco etzagocela: confesiñoa beré eztozue... eguingo Yangoicoaren aurean aguertu bear dozuenac leguez: guero eguiteco, guero esateco cerbait ichico dozue... Esango deuntsuet ece, agoniaco arnasacaz egonda beré, egongo zareela ceuen artean oraindio egun batzuc baño ezpada beré bicico zareela. Esan bear deuntsuet azkenez ece, gaistoen eriotza guztiaac izan oi direala ustebaacoac, ta peccatarien artean (coscolic) garauric beré eztala ilten, ilten dala, sinistuta: eta direan direanac icusi doazala Yangoicoaren aurean arimaco gauzaac arteztu bagaric. Bai, bai: zagoce epetasun andian (zabalean, bake onean) ustez uste baaco eriotza subituac barachi (meatz, guichitan) icusten direalata.

2. Baya gura badozue izan daguizuela asti ta abegune ori, eta sacerdote batec esan deguizuela, beñolan Isaias Profeteac Ezekias Erregueari leguez: «ea urlia, iltera zoaz, ta ceure gauzai cobru (buru) emoiezu.» Baya zuec zagocen leguez egonic, ¿izango ete dozue bururic arimeari beguiratuteco, ta gauz' onic eguiteco? Ara emen bigarren eragoz-garria (bidea). Cegaitic ece, ¿nosh esaten yaco gaishoari gueianean, ta celan egon doa barri ori emoten yacan orduco? Lenengo barritan ezta uste izaten gaishoa ainbestecoa (danic) izango dala, eta etsecoac, icusten (ra) yoacazanac, oficialeac, ta gaishoac berac diñoelaster yoango yacala, laster osatuco dala. Asten dira erremedioacaz: bitartean gachac beré bearrac eguiten dituz, ta egunean baño egunean deungago. Gaishoac berac ezteutso igarten bere buruari: besteac barriz, eztavela ondo artuco, larritu eguingo dala, au dala, bestea dala, eztauco iñoc biotzic esateco. Azkenean, bere buruaren yave iya eztanen, ecetaraco eztagoanean, ta biciric baño ilic dagoala obato esan (5) leitekenean, orduanche esaten yaco eleshacoac eguin (artu) bear dituzala. Galanta dago beintzat gauzaac ondo eguiteco. Esan ezpabere, cer eguin leike urte ascotaco peccatari galdu batec iya gaishoagaz burua cocorroturic, miiña motelduric, ta gorputza indargueturic, ecetaraco adore bagaric dagoanean? ¿Uste dozue orduan egongo dala aren burua ainbeste urteco esaminea eguiteco, conciencia nastitu baten matasaac ascatuteco? ¿Gura dozue iya bere buruaren yaube ozta danean, atera daguizan bana-banaan bere birao errescadaac, seigarreneco, ta beste alde ascotaco Yangoicoac dakizana, confesiño-comuniño okerrac, ta osterantzeco noctaki certzuc? Eta burua ilunduric, ta concorturic daucanean, ta lo (murdian) mustuan dagoan batec baño argui gueiago eztaucanean, Yauna-gana biotzetic biurruteco [...].

¿Cer uste dozue dala Yangoicoagana biotzeric biurtutea? «Nic pecatu eguin dot» celan guraco damuagaz esatea? Ori esan even- ,baita damu ondo zoliagaz, Saul-ec, Yudas-ec, ta Simon Mago-ac, ta ori baño gueiago Antioco-c; baya etzirean Yangoicoagana biotzeric biurtu. Yangoicoa-gana biurtutea da gorroto izatea gauza guztien g- neti, leen maite zan pecatu deunguea, ta laztan izatea, leen gorroto eresten cireanac, edo beinic bein eguiten etzireanac, ta Yangoicoac aguinduric daukazanac (gauz' onac). Biotza onenbestean aldatu ta barriztetaco ¿celango aleguiñac, celango gogo betea ta irmea bear ezta? Osasun onean, burua argui, gorputza min bagaric, ta guztiac lagunduten davenean Yangoicoac daki celango aldatz gora garra- tzac, ta celango mendi gogorrac leundu bear izaten direan. ¿Ceinbat pider esan eztozue confesorearen belaunetan (oñetan) beré, ecin az- tu dozuela ecandu gaistoa, azpian arturic zaukeezala, ecin biotzeric atera dozuela ain gauzataraco eder- erechi ta lera deunguea? Ta gura dozue, iya arimea ezpanetan daucazuenean ta ecetaraco gauza [prestu] etzareenean, izan daguizuen alango gauza gacheraco bear dan biotza, bear dan burua, bear dan erabaguitasuna, ta bear dan guztia?

¡Ay, neure Yangoico maitea! Ceu zagoco orduan iñosco iñosh bashen ardura obeagaz biotzera beguira ilten dagoan pecatari oke- rrari. Eta ¿cer icusten dozu beragan asco danic, ainbeste urteco bici- tza deunga baten parcaciñoa izateco? ¿Biurtuten da benetan ceuga- na aren biotz gaistakerian zaldua? ¿Escatuten deutsu gogo-gogotic ta ondo ondo damuturic bere okerreria andien parcaciñoa? Ala ¿iya eztago alangoetaraco? ¡Ay, Yauna, eztakit nic beré artegatasun guz- tia, (6) ta bere larri guztiac eztirean (ezpadira) eriotzeagaz darabil tzazan burrucaac, ta ez-ilteco eguiten dituzan aleguinac!

(6)

Esan eguizue ezpabere zuec il aguinera bein baño gueiagotan eldu ta guero osatu zareenoc: guztiz deungaric, ez yoango bay yoan- go cengocenean, ¿ecer eguiten cenduen ceuen arimaco contu okerra zucenduteco (arteztuteco)? ¿Cetan ciñarden orduan? ¿Ezta eguia ece, orduan burutan ceranbiltzen gogoeta guztiac, lotaco amesac le- guez an aren baten cireala? ¿Ezta eguia, eta eguia beré ondo andia, ece, ozta ozta gogoan dozuela confesadu cineela, gueure Yauna artu cenduela, oleaciñoa emon eutsuela? Eta orduan il bacine, dericha- zue ondo cengozela Yesucristoren aurrean aguertuteco?

¿Eztozue bein bashen sarriago esan ece, zorakeria dala orduco ichitea, orduan ecin gauz' onic eguin leitekeala, (aurretiaz, aurre- bidez) leenagotic gauzaac prestadu bear direala? Eta orregaitic pe- ré barriro ceuen buruac palagadu (lorenyau) bear dozuez, ta ordura- co ichi ceuen confesiño ona, ta Yaungoicoagana biurtutea?

Baya gueien icaratu bear gaituzana, ta Yangoico itzalaren bildurtasun gueiago emon bear deuscuna da ece, onelango euren confesiñoa, ta Yauna-gana biurtutea eriotzaco orduraco ichiten daveenacaz egunean bein icusten doguna ece, euren gaishoan (aldi) asti arguiren batzuc badituez, direanac emon bear izaten dituezala ingaratu ta arteztu ecinic testamentua, umeen senipartea, ta etorkizunac. Azkene-raco, iya ecetaraco gauza eztirean orduraco ichi bear izaten dira ari-maco gauzaac, artean esango balichaco icaratu eguin litekealata. Orduan, ozta gogorrean nor dan beré ezagutuco davenean, orduan, bai, dei-eguiten yaco confesoreari. ¡Confesiño galanta eguingo deus-cu onelango gaisho erdi-ilac! Gauzaac erdi esanean esaten dituz, erdi esana esan albaleikio ganetico ucutu arin bat eguitari, edo azaletico aitatute arin bateri. Baya eztago gueiagoraco, ta orrenbestegaz guel-ditu bear. Esan oi deustaguz milla gauza damuaren ganean: eguin oi doguz aleguinac bere biotza biztuteco; baya biztu al leiteke iya il da dagoan biotza? Emon daroakegu ezpanetara mun eguiteco Santocristoa: baya ¿ete daki Santocristoa bada, edo cer dan?

(7) Guero beré bayatorco bere ordua: ilten da peccataria. ¡Ay, Yauna! ¿Cer da bere arimeari igaroten yacana? ¿Cer icusten dau, gorputzeric urten da lasterrean? Eta ceure escu (itzaletan) itzaltzuetan yausten danean, ¡ay ce icarea berea, lotaric iratzartuta leguez, icusten davenean bere burua ceure aurre bildur-garrian? (7). Dacus bere beguetan infernua aoa zabalic: eta bere bicitze deungueagaz ceure sentencia gogorraren artean ezta besteric izan, egun guichico gaisho baten lo zorroa baño. Cristiñauac ¿cer besteric esan neikezue nic oneec aitatuten deustuedazanean ezpada araco David Erregueac ciñoana: «entzun, entzun oneec Yangoicoa (aztuta) atzera botata bici zareenoc, guero eriotzeac beingoan artu, ta (noc bere escuetaric atera, ez izatea) yazo eztakizuen, noc bere escuetaric atera ez izatea.»

3. Baya eztozue guichiago burutan artu bear orain nic esango deustuedan irugarren eguia au, eta da ece, orain bashen argui ta zoli burua eriotzaco orduan euki-arren, orregaitic peré gach ta gach izan-go dozuela orduan Yauna-gana biurtutea, ordura artean luzatuten badozue, ceuen ecandu gaistoacaiti. ¿Cer uste al dozue ece, ceuen urte ascotaco ecandu charrac, ta bear bada bici guztian yarraitu deustueenac, orduan beingoan galduco dozuezala? ¿Uste al dozue ce, artean biotza deungaroagaz yosita bat eguinic leguez eukita, orduan beingo baten azcatuta, ona izatera ecarrico dozuela? Beguira arren cer yazoten dan gaisho andi bategaz eleshacoac eguin ezkerro, osatu direanacaz. ¡Ce damuac, euren gaishoan! ¡Ce berba ederrac! Ez bada, Yangoicoac gaisho onetaric ateraten banau, beste bicitza barri bat eguingo dot. Yangoicoac osasuna emoten badeust, e-nas

orain artecoa izango. Osatu cirean, eta guero? Leengo eguin eguinac. ¡Ay! Eztira oneec lenengo trangadaan eguiten direan gauzaac.

Uste dozue neure entzula onac ece, urte luceetan seigarrengoan gaistoac ta zantarrac izan, eta egun bico gaishoagaz galduco dozuela ecan du gaistoa, ta alango (gauz') etaraco lera ta gogo (gaistoa) deunguea, ta onac ta garbiac eguingo zareela? ¡Ay! Bear bada, Yangoicoari alan gura izanda, orduanche gogoac emongo (ecarrico) deutsuez gauzaric loienac, ta zantarrenac, eta gorputza macal ta yausi dozuela, biotza seigarreneco sutan ta garretan eukico dozue. Bear bada orduanche izango dozue etse barruan, edo beguien aurrean alaz ecin egonic zagocen oiaren parean pecaturaco lagun izan dozuen adiskide deunguea. ¡Ay! Yangoicoac esana da ece: onelangoen azurrac gaztetaco (zaroco) pecatuz ase ta bete eguingo direala, ta okerreria orreec euracaz luurpean [obian etzango] lo eguingo daveela. Eta ezta bein ta birritan icusi dana, ta bai sarri ta ascotan, onetari-coac iltea, alcarrerri betico adiskidetasuna opaca, ta oraindo berbea aoan daukeela, Diabruac oratu ta euren arimaac infernuan ondatuten dituezala. ¡O Yangoico andia, (8) eta ce bildur-garria zarean, pecatari deunguea ceure escuetatic botata, bere biotz galduaren escuetan ichiten dozunean!

(8)

Uste dozue ece, bere bici guztia, ondasunac nai oker, nai macur batu (batzandu) ecinic emon davenac, ta besteen leporic ta besteen caltean aberaztu danac, ordu atan sinistuco davela ece, bere ondasunac okerrac ta bide charrecoac direala, eta naico davela, batari ta besteari, berea emonic, bera ta umeac ecer-ez-ean cale gorriaren (gogorraren) ganean guelditutea? ¡Ay! Yangoicoac diño onelangoac gaiti ece, atera ta errebesadu bearco dituezala, iruntzi cituezan ondasunac: baya ez berac guraco davelaco, ta bai Yangoicoac berac botarazoco deutzazalaco. *Divitias quas devoravit, evomet, et de ventre illius extrahet Deus.*¹⁴⁰

Uste dozue ece, artean fedeco eguiac, ta andico aldeco eguia sinistu gura ezic ibili dana, orduan beingoan direanac sinistuco dituzala, ta Yangoicoagana biotz biotzeric biurtuco dala? Orduanche, bear bada, adierazo guraco dau orrec, alangoen ganean berac besteac baño argui obeac, ta biotz gueiago izan davela, ta eztavela orren damurric ez alango (gauceen) ipuiñen bildurric: bear bada eztau guraco elshacoric bat-pere artu [eguin], ez cristiñaua danic peré eracutsi, ilten ezpada aurrean dagozanai berari guero barre eguiteco bidea emongo deuselata.

¹⁴⁰ (Job. 20, 15).

Uste dozue ece, emacume buru-erechi bat, bere edertasunac zoratuturic, bederatzigarreneco ta seigarreneco zantarkerietan ta peccatuetan ondatuturic bici izan dana, eztala damuz beteco, ichi bear dituzalaco ordurarteco (guiñoco) atseguingarriac, yaztecoac, ibileraac, ta ain gozo eguiten izan yacazan osterantzecoac? ¡Ay! Orduan Yangoi-coac alan gura izan da, iya iya ilten dagoanean bere edertasuna gora, bere edertasuna beera, besteric gogotan eztau erabilico: beti egongo da bere artean ea cer [erason] calte eguin izango deutsan arpeguian luzaroco gaishoac (gachac), ta ezaindu izango davelaco damuagaz; pocic entzun guraco dituz bestec orren ganean esan gura deutsazan labankeriac: eta azkenengo arnasacaz dagoala beré ecingo dau galdu munduco zorakerien zaletasuna: ta esango dau Amalec Erregueac beñolan leguez: «Onelan il bear dot neure urteric ederrenetan? *¿Sic-cine separat amara mors?* Zuc, Yauna, zuc esanic deuscuzu Escritura santuan ece, (bacocho) celan bici, alan il eguingo dala bacocho. *Quorum finis erit secundum opera ipsorum*. Seigarrenecoan gaistoac bazaree, alangosheac ilgo zaree: ondasunen amorru gueieguiaz bici izan bazaree, amurru orrec yarraituco deutsue erioztaco orduan beré: bici izan bazaree ez gatz ta ez ura Yaingoicoaren gauceetan, ilgo zaree sen bagaric, ta (9) prestacuntza bero andi bagaric: beti ibili bazaree ontzeco, ontzeco, bein beré ondu bagaric, ilgo zaree gogo onez beteric ta eguite onez utsic: bici izan bazaree bein yausi bein yagui; orain pecatu eguin, guero confesadu: ostera pecatu, ostera penitencia, zuen erioztaco prestaeraac, confesiñoac ta besteac izango dozue argalac, ta indargueac: zuen negarrac urtengo davee biotz samur batetic, baya ez biotz bete betean (oso osoan) damututic. Berba baten ilgo zaree ceuen pecatuan, Yaungoicoagana biurtuteco astiric ta abegune onic izango eztozuelaco; edo badozue, gachac galera-zoco deutsuelaco; edo bai beintzat ecandu charrac: edo azkenez, oi eztana, Yaungoicoagana biurtuten bazaree, laster atzera pecatura biurtuco zareelaco.

(9)

¿Cer eguin bear dogu bada? Entzun ta eguin Yesucristoc dirautsuena: «zagoce beti prest, (usteric guichien) guichien uste dozuenean ni etorrico nachatzue-eta.» Bai esan bear deutsuet, Yeremias-ec beste aldi baten Judea-coai leguez: «emon Yaungoicoari gloria, zuen bicitzea ondu, confesiño onac eguin, ta biotzetic parcaciñoa escatu bear deutsazue erioztaco ilun-tasunac (beac) artu zaguiezan baño leen... guero ezpabere alperric billatuco dozue arguia: Yaunac biurtuco deutsue guztia erioztaco gueritz ta iluntasun.» Esan bear deutsuet San Paulo-ren berbacaz: (astiac) denporeac dirauscun artean on asco eguiteco (eguin bear dogula)

Esan bear deutsuet Isaias-ec Ezekias Erregueari leguez: *Dispone domui tuæ, quia morieris*. Eguizue osasun onean, ta gueiegui luzatu

bagaric ceuen testamentua, aurretiaz (lendañez) emoten deutsezuela zuen gauzai izango daveen bidea: ichiten dozuezala artezturic zuen gauzaac, bada orreec, obeto eguinaz ganeti, ezteutsue galarazoco eriotzaco orduan Yangoicoagazco gauzaac ondo eguitemo ain bearra izango dozuen denporea (astia). *Dispone domui tuæ*. Atera eguizuez al dozuezan zorrac, neke pusca bategaz bada beré, ondorengoai ichi bagaric aterateco: ecin dozuezanac, paperean garbiro imini eguizuez, artez esaten dozuela cer zor dozuen ta nori: cer arturen (arkien) daucazuen ta non: eriotzaco orduraco lan charrac dira orreec; eta alde batetic eztira ondo eguiten, eta bestetic barriz eroaten davee beste gauza obagoraco bear dan astia. Oneec guztioac alan zucen erabili ezkerro, nai eriotzea datorrela ustez uste bagaric, eta ecer (bapere, arean) eguitemo lecu (asti) bagaric, nai (10) astiro ta lecu andia (10) emoten davela ezta ardura, eta ondo il oi doa, osterantzean deungaro; bada san Agustin-ec esan evana, ta eguia andia, da ece, ecin deungaro il leitekeala ondo bici izan dana, ta nekez izango dala ondo iltea deungaro bici zana. Entzun orain exemplu bat.

(10)

Ingalaterra-n gauzaac naastauric ebiltzazanean, eta catolicuai biciten beré ichiten echakeenean (ez eutseenean), egoan guizon aberats bat, ondasunac galdu gura etzituzana, eta cerua beré ez albalegui. Orretaraco beretzat eguin evan: «cerua irabaztea ez yagoc ondo bici izatean, eta bai ondo iltean. Egingo yoadana bada bakean ichi yeguideen, eta neure gauceetan ucutu ez yeguideen izango da ce, canpotic eta aguirian protestante (hereyca) izango noc. Ondo yakiat nic au pecatu mortala doana; baya eriotzaco orduan confesauco noc, eta estuen estuen nayabilela beré, damuaren señale bat emonda ausolbiduco nayoc». Asmu onegaz confesorea beti escuan izateco, artu cituzan confesore bi, Londres-en, eta beste urichu baten eucazan etse bietan, banatan bat izateco. Bein baño sarriago ekin eutsan Erli-gioso on batec ori etzala ondo: Yaungoicoaren contra ezegoala asmu onic: ac guizonac baño gueiago yakin, ta escu gueiago daucalata. «Yauna, esaten eutsan, ecin il cintekez lo zagozala? Ecin, accidente batec artuta, bertan ilic gueratu cintekez, Yesus esateco asti bagaric? Ecin gelditu (lotu) cintekez gaishoaren andiagaz (cocorroturic) corromorroturic, cer eguiten dozun, eta non tzagozan beré asco eztakizula? Ecin burura eguin lekikezu? Ecin guelditu cintekez yausi mutu bategaz bertanche ilic? Ecin beste (alde) modu ascotara il eguin cintekez, ecetaraco (lecu) asti bagaric? ¡Ay zorakeria andia da, ain erraz galdu leitekean gauzaren pensuan, gure salbaciñoa, arimea, imintea. ¿Yangoicoari asmuacaz? Belu (Berandu) gauz' onic. Baya berac: izango evala nonbait confesetaco astia: izango evala aurki confesetaco erea, ta ez eutsan yaramaiten (yaramoten). Onelan bici

izan zan aberats ori eriotzaco orduco confesiñoaren usteacaz. Baya ¿cer yazo yacon? ¡O Yaungoico bildurgarria! ¿Nos icusico ete davee guizon itsuac ceure contra eztagoala gauza dan asmu onic? ¿Nos sinistuco ete davee guizon zoroac eriotza ona eguiteco leenagotic arteztu bear direala arimaco gauzaac? Bein baten bada yoiala guizon ori Londres-co etseti eta beste urico bere etsera, accidente batec emon eutsan. Arin arinke...

(Sermoiari orrialde bat edo falta zaio. Arantzazuko artxibokoa).

10. CE BIDETI GALDUTEN DIREAN PECATARIAC: PECATARI GOGORTUEN GANEAN

(J,189-199. or.)

Curavimus Babilonem et non est sanata; derelinquamus eam.
Jerem, c.51.v.9

(189) ¡Ay cristiñauac! bacenquie celan daucadan nic biotza gaurco arratsaldeco sermoia eguiteco! Banator eguitera Jgcoac.mundu onetan pecatari bateri emon leiquion castiguric gogorrenaren ganean. Berba eguin gura deutsuet araco pecatariac pecatu eguinagaz ta eguinagaz guero ta guero beré artu oi daven biotzeco gogortasunaren ganean, araco Jgcoac ecin beragaz ecer ateraric gogaituric leguez bere escuti ichita dirautsanean: zabiltz zabiltz ceure gogora, eguizu gura dozuna, pecatuz ase ase eguin zaitetz. Eta onelango gauza itzal au gogora etortecac neure biotza ilun ilun eta larri larri eguiten deust. ¡Ay baneunco nic orain anchinaco Profeta santuac izan even santutasuna ta indarra onango gauza itzal icaragarrien ganean bear dan leguez eguiteco! Ysaías, Jeremias, Ezequiel noc euqui leiquean orain zuen indar guztia, neure entzula maiteac ulertuten emoteco cer dan, ta ce bildurgarria dan Ygcoac pecatari itsuai mundu onetan emoten deutsen castigu gogorra, araco bere escuric ichita pecatuan gogortuten ichiten deutsenean! Baya ¿izango ete litzateque asco ori indar guztiori alango icaragarrizco castiguaren ganean bear dan leguez eguiteco? Balitz or neure entzulai esatea euren pecatuac gaiti galdu bearco dituezala euren ondasun guztiac, asco izango litzateque zuc leguez, Isaias, narrugorrian billosic urtetea. Balitz or esatea pecatuacaiti preso castigu eroango dituezala erbesteco erri (aragoetara) urrunetara, asco izango litzateque zuc leguez, Jeremias, cateaz beteric urtetea. Balitz esan bearra euren pecatuacaiti goseta andi esqueraac icusi bearra asco izango litzateque zuc leguez, Ezequiel, berrogeui egunean yatea errari utsa bei corotzagaz nastauta. Baya eguin bear dodanean Jgcoac pecatariari gogortuten ichita emoten deutsen castiguric gogorrenaren ganean, ¿cer eguin nei, edo cer esan nei? ¡Ay! eztaquit nic ondoen izango ez bada esatea zuc leguez, Jeremias, ume bat nasala eta eztaquidala barbaric eguiten (berbetan eztaquidala).

Pecataria, pecatuaren lo zorroan gogor gogorric zagozana, esan eiquezu anchina beste batec leguez: nic pecatu eguin dot, baya ¿ce gach izan dot orregaitic? Bear bada ceure buru-ganean daucazu Jgcoac. munduan emoten daven castiguric gogorrena, edo ameneco urrean zagoz castigu ori zure ganean icusteco. Bear bada ya orainganic zagoz infernuco ilinti baltz izateco ebaguiric, edo ebagui izateco urrean. Iratzartu zaitetz, iratzartu albacintequez eta beguiratu eguiotzu ceure buruari guztiz galdua izan baño leen. Eta ori eguin daizuntzat nic arrastegui onetan cer dan biotzeco gogortasuna (azaldauco deusut).

(190) Eta asi baño leen, yaquin bear dozue Ygcoac ñori beré ñori beré ezteutsala ucatuten cerua irabazteco bear direan besteco gracia. Baya gracia eta laguntza oneec modu bitacoac izan oi dira: batzuc dira ceruraco bidean paretaco eguin eguinac direanac; beste batzuc dira pecataria beingoan ceruraco bidean paretaco (190) eztireanac, ezpabere beste gauzonen bat eguiteco, cein eguinda emongo lichaquion, gueldi gueldi emongo lichaquion ceruco bidean sartuteco gracia bere. Lelengo moduco graciai esan daroquie Teologuac gracia urrecoac, bigarrenai gracia urrenecoac. Alan pecatari batec Jgcoaren bidean yarteco bear dau damu zolia, ta cindoa, bear dau aleguinez confesiño ona, bada ori eguiteco gracia Jgcoac emoten badeutso, izango da gracia urrecoa. Baya emongo ezpaleutso, confesateco gracia, ezpabere beste gauzonen bat eguiteco, barbaraco, limosnea, edo oraciñoa eguiteco, cein eguinda guero emongo leusquion confesiñoa bere eguiteco gracia, orrec izango leuque gracia urrunecoa. Orrelango gracia urrenecoac ezteutsez Jgcoac ñori beré ucatuten ezta pecatariric andienari beré; baya bai, eta ascori, gracia urrecoac.

Yaquinda egon bear zare beré pecataria pecatu eguinagaz ta eguinagaz artuten daveela pecatu orrentzaco echuntasun, zaletasun, eta egarri andia, eta eguiten direala Jgcoaren graciai indar eta contra andiac eguitera. Emeti yatorque guero izcunez pecatu eguitea eta Jaunaren graciai ez erantzutea, eta onetara eldu direan pecataria esan yoaque pecatari gogortuac, Jgcoaren graciaz onduten eztirealaco, eta ondu beré eguingo eztirealaco. Au yaquinda, entzuzue orain celan asten dan gogortasun ori; celango aurrera bideac dituzan, eta cetara yoten daven gueroenean.

(191) (191) *Induraverunt cervicem suam supra petram, et noluerunt reverti.... confregerunt jugum, ruperunt vincula... Numquid super his non visitabo dicit Dominus? Aut super gentem hujuscemodi non ulciscetur anima mea? Jerem. c.5. v.3, 5 et 29.*

Fedeac eracusten deuscun eguia ederra da: bici garean artean, eta arnaseac dirauscun artean edoceanbere ordutan Ygcoagana biurtu guintekezala, eta biotzeric eguiten badogu, izanngo dogula gueure pecatuen parcaciñoa. Ezequiel profeta santuaren aotic Yaunac berac diño ece, eztavela berac gura pecatariaren eriotzaric, ez iñoren galzairic; ezpada guztiac ondu eta bici ditezan. Baya ¿cer diñot nic, esan? Yuramentuaren azpian dirauscu Yaun orreec ce pecataria onduten dan edoecin beré orduric eta gueyago ezteutsela gachic ecarrico ordura-arteco (artietaco) pecatuac. Ori alan da, baya orregaz batera Escritura santuan esaten yacu ece, Ygcoac batzuen beguiac itsutu eguiten dituzala, eta euren biotzac gogortu, beguiacaz ecer icusi eztaguientzat, eta biotzagaz ecer aditu (ulertu) eztaguientzat; esaten yacu ece, Ygco orrec gura davenen erruqui dauela, eta gura dituzanac gogortu eguiten dituzala. Yaun orrec bere aoti eguiten deutse pecatariai cemacontza bildur-garri au: «Nic deyez eguin da ceuec muquer egon zareelaco, nic escua luzatuta, ceuec beguiratu beré eztozuelaco; osticopean erabili izan dozuelaco nire ondo-eracutsiac, eta nire aguiracai yaramonic beré eguin ezteutsezuelaco, nic beré ceuen eriotzaco orduan barre eguingo deustuet, eta burlazar egongo nachatsue bildur zareen aldi charra etorri dakizunean. Orduan, diño aurrera, dei eguingo deuste, baya nic ez entzun eguingo deutseet, Yaunaren bildurra alde-batera bota eveelaco.»

¿Celan da bada ori, esango deustazue, alde bateti Ygcoac guztiac ondu gura, guztiai parcatu gura, guztiac salbau gura; eta besteti, barriz, batzuc itsutu, gogortu; beste batzuei barre eguin, dei eguiten deustenean beré, ez entzun eguin? Celan dan au? ¡Ay! ori da bada biotza minez bete bear deuscuna. Ygcoac guztiai dei eguiten deutse, guztiac ondu gura dituz, guztiai yagoque parcaciñoa opaca; baya ascoc ezteutse yaramaiten, aurrera eroan gura dituez euren okerreriac; Yaunac dei, eurac ez entzun; Yaunac deadar, eurac gor; eta onelan euracaz pelasca, eta burruca leguez ebili ezquero, azkenean gogaituric leguez esaten dau bere artean: bada, eztozu nire esanic eguin gura? Or dozula; eguizu gura dozun guztia, ece ni nire aldeti nago. Ceu etorrico zachataz escupera; eriotzean nic atrapaduco zaitudaz eta orduan alcar icusico dogu. Onetara ezkerro beré, eguia esateco, (192) emoten deutsez bere gracia, laguntasun batzuc, eta dei batzuc; baya ez lengo dei zoliac eta laguntasun indartsuac, eta celan eurac pecatu eguinagaz eta eguinagaz euren biotzac lengo aldean gogorrac eguin izan dituezan, leen dei zoliagoai ez entzun eguiten beutseen, guero motelagoai obeto eguingo deutse, eta leen laguntasun eta gracia indar andiagocoacaz onduten ezpacirean, guero laburragoacaz guchiago onduco dira. Onelangoai esan daroaquegu Yg-

(192)

coac. gogortuac, ez Ygcoac gogortasun ori emon deutseelaco, ezpada ce Ygco orrec ainbeste aleguin alper euracaz eguin ezquero, lengo yaramon andiric eguiten ezteutseelaco, eta orregaz guero eurac euren buruac gogortuten dituezalaco. Eta ori eguitera ezkeru, jay ce zorigaistocoac direan pecatariac! Ya eguin evan eurenac: iltea besteric bear eztave infernua icusteco. Onduco balira orain beré, artuco leukeez Ygcoac: bear dan leguez damutuco balichake, parcatuco leusquioe; baya echaque damutuco eztira onduco; eta alan yaquina da euren infernura bearra.

Izango eta da neure entzuleen artean alango pecatari gogorturic? Izango eta da alangoric? Eztaquit nic: baya beldur nas, izateco urrean asco zagocela. Baya ez: irartzartu bear dozue arratsalde onetan: ezagutu bear dozue ce arri labanaren ganean zagocen labrast (larraprast) eguin eta infernua yausteco. Beintzat nic orretaracq aleguinac eguiteco asmuac dacardaz. Entzun bada ceen ganean izango dan gaurco arratsaldeco sermoia. Eracutsico deusuet nondi asten dan pecatari bat galduten; celango bideac daroazan guero; eta cetara yoten daven azquenean. Edo laburrago esateco azalduco deusuedaz pecatari gogorraren asierea, gueroco bideac, eta azquen charra.

(193) (193) *Cum diabolus jam misisset in cor ut traderet eum Judas Simonis Iscariotae. Joann.c. 13.v.2.*

Oneec berboc entzun dozuez puntuan cantau dan Evangelio santuan: Diabruac emon eutsala Judas-eri Jesucristo salduteco burua; eta nic euretati bidea artuten dot zuei berba eguiteco pecatari gogortuen ganean, eta zuei iragarteco celango bideetati galdu oi direan pecatari errucarriac, euren pecatuen ondarrean eta biotzeco gogortasunean yo artean. Orretan bere, Cc., beguiratuten badogu cer eguiten daven J.C.c Judas-en aurrean, eta Judasegaz beragaz, eta cer eguiten daven Judas gaistoac ¿cer icusico dogu Judas-egan, guizon guztizco oquer bat, eta pecatari gogortu bat baño?

J.C.º. ge. Jaunac afaia yan ezquero, yaguiten da mairic, quenduten dituz ganeco soñecoac, ifinten dau garriti miesa eun garbi bat, garbituten deutsez banaan banaan oñac Apostulu guztiai Judas euren artean zala. Yesarten da barriro lengo lecuan; bertanche asmetan dau modu miragarrizco bat, bere gorputza guizonai yanari emoteco, eta bere odola euren edari eguiteco eta bera oso osoric eta bici biciric oguiaren eta ardaoaren irudian euren bularrean sartuteco; emoten deutso Judas-eri berac bere escuz comuniño santua. Baya Judas ori ezta orregaiti bapere onduten, ezta arean atzeratuten bera salduteco arturic eucazan asmuetati. Ulertuten emoten deutso J.C.c.

Judaseri, berac baquiela aren gogoen barri, bequiala celango asmu charrac darabiltzazan escu artean. Baya orregaiti beré Judas beti gogor, beti gaisto, eta onduteco gogo bagaric.

Baya ¿cer diñot nic, leen leguez gogor eta onduteco gogo bagaric? Leen baño gogorrigo eguiten da Judas, leen baño gaistoago, eta egarri gueiago eracusten dau bere Maisu Jauna salduteco. Eta alan diño Evangelio Santuac comunio santua artuta berla sartu zala Judas-en biotzean Satanas, eta beingoan urten evala bere maisua gau atan berean bere arerio gogorren escuetan iminteco gogoagaz. Aushe da, Cc., pecatari ascogaz yazoten danaren irudi eguin eguina. Onenbestean sartuten eta gogortuten dira euren pecatuetan ece ezтира ecegaz bere onduten, ez sermoiacaz, ez liburu santuacaz, ez Jau-naren deiacaz ez areanegaz beré. Ay eta ceinbat onetarico izan oi direan Misiño santuac eguiten direan errietan. Batzuc Misiñoa errian izan arren, eztira sermoietara elduten, eta besteac Jgcoaren bideetan sartuten direan artean, gueldituten dira eurac leen baño deungago ta gogorrigo. Beste batzuc batoz sermoietara edo icustearren Predicadoreac celan eguiten daven, edo euren creitua yagotearren, eta munduaren beguietan eder-erestearren. Baya entzunda entzunda beré eztira onduten, eta iñosco alditan Jgcoaren. berbeagaz icara aldi bat artuten badave, laster aztuten yaquez entzun dituezan berbaac, eta galduten dave icara ori. Gauza icaragarria beintzat, eta bildur andia emon bear deuscuna. Zuen biotzetan onelango bildur santu au sartu dedin, eta contuz ibili zaitecen alango negargarrizco moduetara ez etorteco, berba eguingo deuntsuet biotzeco gogortasunaren ganean.

(194) 1. Ezta iñor beingoan ta batpatean deunga deunga eguiten. Pecatariric andienac asi dira gauza chiqui bateti, gauza chiqui onen atzean eguin dave gauza andiagochu bat, guero andiagochu bat, gueroago ostera andiago bat, eta ibilian ibilian, eldu dira azquenean pecatu anditzarrac beré eguitera eta galdu batzuc izatera. Gorputzeco gachacaz yazo oi dana, yazo oi da arimaco gachacaz bere. Gorputzeco gachac eztoaz beingoan etorri: lelengo sentietan da burucomin puscachu bat, gorputzeco astuntasuna, alboco errencurachu bat. Orduan itanduten badeuscue ea cer dogun, laster erantzun daroagu: ¡eh! Ezta ecer, laster yoango yat. Baya guerora guerora deunguetuaz doa gacha, echun bear izaten da oean, oficialeari edo medicuari dei-eguin bear, elshacoac artu bear; eta ataric atara (atan onetan) erio-tzea beré etorri doa. Alanche da bada pecatuacaz beré, eta pecatari andito tzar guztiai yazo yaque araco Jgcoaren esana: gauza guichien yaramonic eguiten eztavena bera gueldi-gueldi andietan bere yausico da.

¿Nondic uste dozue asi direala lapurto tzar andiac? Lauciri laumarai ostuteti: sagar bat, arrautza bat, arta micher bat, cabilla bat quenduteti. Guero quendu cituzan diru apur batzuc, eguin eutsen soñeraco gurasoai laborea: gueroago quendu cituzan orreec baño gueiago cirean gauzac: eta azcanean lapur galdu eguinic orche dabil bideetara urteten ta ondasun andiac ostuten, edo lagunac artu eta etsetan sartu eta etse beroa galantac ecer bagaric ichiten. ¿Nondic asi zan galduten araco gaurco egunean seigarrenecoan begui bieta-guiño ondatuta bici dan gazte ori? Lelengueran etzan izan dantza nastu baten edo gau biguira baten labanqueriachu bat epelic entzutea bashen, guero gogoz eta barrez entzuten cituzan berba arinac eta celebrequeriac, gueroago berba nasaiac beré bai; gueroago abiau zan besteari erantzuten, eta berac beré beste ainbeste esaten; gueroago izan evan uquiera arinchu bat, guero cirri bat, guero mosu bat, guero laztanga bat, gueroago zantarqueria bat, escua bear eztan toquietati erabilte bat, eta guerora guerora araguzcoan bere yausi zan. Lelengoa eguin ezquero errazagoa izaten da bigarrena, errazagoa oraindo irugarrena eta laugarrena; eta azquenean onenbestean bota dituz itzalac eta galdu deutse bildurra araguzco orrei ece, ur otza legueche parra parra edaten dituz gaurco egunean.

Aushe da pecatari galdu guztiac eroan daven bidea: pecatu mortal tzarren oña beti izan da pecatu chiquiren bat. Birao andien oña birao chiquerra, guzur andien oña guzur chiquerra, murmuraciño andiena murmuraciño chiquerra. Gurasoai lotsa charra artuteena burrufada (murruscada) bat, gorroto andiena ecin icusi bat, ordi galantenac traguchu bat gueiago ezartea, eta alan besteetan. ¿Nondic asi zan zorigorresco Cainen galdu-bearra? Daquiguneti bere lelen-go pecatua izan zan Jgcoari opatutea artu cituzan frutuetic chondorrenac eta mochorrenac; guero izan zan bere anaye Abel-eganaco ecin icusia; gueroago gorroto gogorra bere bai; guero il evan anaye ori, eta azquenean penitenciaric eguin gura bagaric ebili zan Jgcoaganic iguesi. Saul Erreguearen galtzaieraren oña ta asierea izan zan Jgcoaren aguindu chiqui bat ez yagotea; guero ausi evan beste andi-go bat; guero ecin icusi izan evan David; gueroago ain gorroto aserrea sartu yacon biotzean ece ascotan ta ascotan ibili zan nondi nora ilgo evan David ori, eta azcanean il tzan pecatari gogor eguinic.

Baya ¿cetaraco izango dot burua auste onelango yazocuntzaren atzean gaurco Evangelioac aitatuten deuscun Judas-egan badaucagu onen-ganeco yazocune icaragarritzico bat? Judas-egaiti dirauscue S. Agustinec, S. Leonec, S. Gregorio Naciancenoc (195) eta beste yaquitun ascoc lelengo asiqueran guztizco santu andi bat izan zala, eta milagro andiac beré eguin cituzala. Baya ara guerora cetara yo evan.

Eta ¿baquizue cein izan zan beré galdu bearraren sustrai guztia? Judas-ec eucan lagunen arteco diruen contua: ataric atara asi zan ciri-miri cerbait bere aldera atzeratuten eta lapurreta chiquiac eguiten; otzitu zan J.C°. eta Apostoluac-ganaco amodioan, deungaro beré esan evan Madalenea gaiti: ibili ta ibili J.C°. Jgco. ta guizon eguiazcoa saldu evan, eta comuniño santua deungaro artu evan; eta azquenez bere buruagaz ernegauta berac bere escuz urcatuta iltzan pecatari gogor eguinic. Alanche izaten da pecatari gogortuen galzaierea pecatu chiquiren bateti.

2. Baya, ¿celangoa izan doa euren aurrerantzaco bicitzea? ¡Ai! guztiz deunguea eta pecatuz alde guztietaric betea. Onelango pecatariac pecatu chiquiac eguinagaz ta eguinagaz lotsea galduten deutse onelango pecatu chiquiai, eta artzen dituez bideac pecatu andichuagoac beré eguiteco; onei lotsea geldi gueldi galduta datoz eguitera pecatu mortalac beré; onei beré laster lotsea galduten deutse eta onelango pecatu mortalac eguinaz yausten da pecataria pecatuen ondarrera, eta ¿orduan? Orduan Jgcoac berac diñoana: Becataria pecatuen ondarrean yausi danean *contemnit*, eztau eceren yaramonic eguiten, eztau ecegaitic bildurric artuten, ezteutso eceri bere lotsaric yagoten. Ezteutse lotsaric artuten ez gurasoai, ez maisuai, ez bere buruari zor deuscan cleitu ta icen onari, ez munduaren esan errazoazcoai, ez Jgcoari berari. Eta alan orretara ezquero ur otza leguez parra parra edaten dituz pecatuac. Judasegaitic Evangelioac diñoana yazoten yaque onelango pecatari galduai: sartuten yaque Satanas barruan, eta onelango yaubea biotzean dauqueela ¿cer eguin leie ezpada diabruaren obra gaistoac, pecatua, ta pecatua, ta pecatua?

Icusi dozue cer yazoten dan ibaiacaz neguan araco euri andiac eguinda uriolea etorri danean? Bada aushe da pecatari galduacgaz yazoten danaren irudi eguin-eguina. Ibaiac lelengo eran eztira izaten iturrichu batzuc bashen. Iturrichu onec dacarren ur guztiari gueldieraguin leiquio escuagaz, orbel batzuc, arri bategaz, zoi bategaz, edo edocein gauzagaz. Ur pusca oneri batzaiten yaco beste iturri baten ura, guero beste batena, guero beste batena, eta gueldi gueldi eguiten da erreca bat. Erreca oneri batuten yaco emeti erreca bat, besteti beste bat, besteti beste bat, eta eguiten da ibai bat. Datoz guero euritza andiac, eguiten da uriolea; eta orduan cegaz lotuco da (lotuten dave) ibai ori? Ecegaz bere ez. Ateretan dituz ondarretic arech zar lodi sustrai ta erro andietacoac; daroaz urrunetara arri astun pisu andicoac; daroaz errotac, zubiaco, presaco, olaaco, berba baten, ezteutso lotsaric aurrean iminten yacan edocein gauzari.

Ea ezpabere, ¿cer yazoten da seigarrenecoan begui bietaguño ondatuta bici direanacaz? Leleng'ueran ¿celango lotsea emoten eu-

(196) tsen araguzco pecatuac ez ece, baita beré edocein zantarqueriac, edocein berba-loic! Alangoren bat icusi edo entzuten even orduco, gorri gorri eguiten yaquen arpeguia, eta non egozan bere ozta ozta yaquiten even. Guerora berbai lotsea galduta beré ¡ce lotsea gauza charra eguiteco! ¿Ceinbat bider ebili cirean eguin guraric eta lotsaarrren esan ecinic? Gueroago eguiten abiau cireanean, ori eguiteco bazterretati, eta oqucluetati ebili cirean, eta iñoc yaquin leguioen bere gura ez even. Baya guero azcanean onenbestean galdu deutse lotsea (196) seigarreneco orreri ece eztirudi ezpabere ori dala beuren yana, beuren edana, beuren loa, beuren guztia. Gau ta egun, lagunagaz ta bacarrean, ezcutuan ta aguirian, plazai, bideai ta eleshai eurai beré parcatu bagaric beti darabildez escu artean seigarrenecoa. Beuren gogoac ezteutse besteric ecarten seigarrenecoa baño: beuren miñac eztaqui beste barbaric eguiten seigarrenecoac baño: beuren escuac beti dagoz prest zantarqueriac eguiteco: beuren gorputza beti bero seigarrenecoan ibilteco. Al daven guztian al daven guztiacaz dabilz; ezteutse parcatuten ez nescatilleari, ez alargunari, ez ezconduari, (ez libreari), ez atzeari, ez aideari ez batari ta ez besteari. Eta S. Pedro-c diñoan leguez¹⁴¹, eztaquie onelangoac celan ichi pecatu eguitea.

¿Cer yazoten da tratu oquerretan sartuta bici direanacaz? Lelengoan bildurrez ebiltzazan puscachu bat euren aldera quenduteco, atzeratuteco, apur bat neurrian ta pisuan laburrago (gazachuago) emoteco: guero ardura bagaric ta bildur bagaric ostuten dave gueichuagochu izan arren edo asco izan arren beré, ezteutse ecer tratu oquerrac eguin arren, eta erri guztiaren aotan ibili arren, eta lapurren icena izan (entzun) arren, ezteutse ardura aberaztuten badira ece (sic). ¿Cer da yazoten dana araco ordi concor galduagaz? Araco lelengo ardaoan igarota bere buruaren yaube etzala guztien aurrean barregarri eguinic parau zanean, ¡celango lotsea biaramunean!, ¡celango atseracuntzea iñoren aurrean aguertuteco! Ta gaurco egunean? Al daben guztian ordituten da bapere ezteutsala guztien aotan ibiliagaitic, guztiac bera orditzat dauqueela. Ibili zaitece alan bein banaan pecatari andi-tzar guztietati, eta icusico dozue celan lelengoan lotsa andi bat eta bildur andi bat artuten eutsen pecatuari; celan yoan direan gueldi gueldi apurca apurca bildur ori galduaz; eta celan azcanean itzalac guztiac galduric, ezteutsen eceri bere lotsaric artuten; celan eztituzan ecec beré atzeratuten pecatu eguiteric, eta alan ur otza leguez zarra zarra edaten daveela, eta eztaquiela celan ichi pecatu eguiteari.

¹⁴¹ 2 Pe.c.2.v.14.

3. Emetic yatorque onelango peccatariai euren gaistoquerian gogorturic egotea, eta ecegaz beré ez ondutea, ezta bear dan bidean sartutea. Arpelac dira onelangoentzat beste modutaco peccataria onac izatera ecarteco asco izaten direanac: arpelac sermoiac, arpelac liburu santuac, arpelac sacramentuac, arpelac egemplu onac, arpelac errian yazoten direan subituco eriotzac, arpelac euren ganera Jgcoac biralduten dituzan castiguac, arpelac euren biotzetara Jaun onec biralduten deutseezan argui-aldiac eta dei gozoac. Bera ebilico da alangoetati iguesi, berac ichico dituz beguiac, berac zarratuco (gortuco) dituz belarriac, berac gogortuco dau biotza alangoric ez icusi, ez entzun, ta ez artu eguiteco. Eta iñosco alditan biotzez contra ta gogoaz bestera alangoren batec artuten davenean, ezta oneraco puscachu bat bere cirquinduco, edo laster itoco dituz biotzean erne ta biztucu yacazan (biztu lequiquezan) samurtasunac eta gogo santuac.

Judas-egan daucagu onen ganeco irudi ta yazoquera bildur-garri bat. Egoan Judas J.C^o.ren escolan: bici zan Jgco ta guizon onegaz eta Apostolu santuacaz batera; egunean egunean icusten cituzan onen exemplu on ecin obeac, eta bere aurean eguin cirean milagro ta mirari guztiz andiac, eta beste Apostoluac bere lagunac gueroago ta obeago eguiten cirean artean, Judas gueroago ta oquerrago eguiten tzan eta onenbestean ece artu cituzan asmuac beré Maisu Jauna ceru-lurraren yaubea salduteco, eta bera ilteco ebilcozan arerioen escuetan iminteco. Onetara ezquero beré garbituten deutsez J.C^o.c oñac apostoluai Judas bera euren artean tzala; lotsatuten da S. Pedro bere Maisua bere oñetan alan icusiric; baya Judas (197) ezta orregaiti bigunduten. Ulertutera emoten deutso J.C^o.c bequiala berac aren biotzaren barri; bequiala ac escuarlean ce dollorqueria erabilen; baya ezta Judas orregaitic atzeratuten, eta bere burua guztien aurean garbi eguin gura dau: emoten deutso Jesusec bere corputz santua comuniñoan yaten, ta bere odola edaten, eta orduan urteten dau J.C^o.ren arerioagaz egoten, eta oneec ecarten Jaun ori preso artuteco. Bator soldaduacaz eta Pontificen otsein mutilacaz Jesus preso eguitera, emoten deutso, besteai irudina emoteco, bere arpeguian guzurrezco mosua; eta ori ecer ezpalitz leguez esaten deutso J.C^o.c bapere aserratu bagaric, guztiz gozoro: adisquidea, mosu bategaz salduten nozu? Baya ezta orregaiti bigunduten. Damututen yaco azquenean bere oquer eguina araco bere Maisua ain gogor artuten icusi evanean, baya eztau orduan bere onduteco asmorice artuten, eta Jgcoari parca escatu bearrean, eta penitencia eguin bearrean, bere burua urcatuten dau.

(197)

Bai, Cc., bai; arpelac izango dira peccatari gogortuac onduteco aleguin guztiac, eztau berac ondu guraco, eta aleguin orrei utsean yo

eraguingo deutse. ¡Oh eta ceinbat onetarico icusten direan gure artean! Eztauczue beguiratu bashen cer yazoten dan ascogaz misiño demporan. Bator misiñoa erri batera, asten dira sermoiac eta orra non datoza lagunac eurrez ta bide beteetan Jgcoaren berbea entzuten. Baya pecatari gogortuac edo eztave oñic iminten eleshan, edo badatoz izango da munduaren esa-mesa gaiti, edo icustearren predicadoreac celan eguiten daven. Dei eguiten da confesetara etorteco, batoz asco ta asco euren arimac garbitu guraric, eta Jgoicoagaz baqueac eguin guraric. Baya pecatari gogortuac? Orreec bai. Eztira confesorearen oñetara elduteco, edo elduco dira onduteco gogo bagaric, pecatu-laguna etseti campora quendu gura eztavela, pecatuen bideetati, dantza nastuetati, gau-biguireetati, mutil-nescatillen batzarretati alde eguin gura bagaric, ecandu gaistoac galdu gura bagaric, bacochari berea biurtu bagaric, eta biotza otz otzic eta gogorturic daucala. Baita izan doaz onen artean damu artuten davenac Misiñoa errira datorrelaco, eta aleguinac eguiten dituezanac galarazoteco, cein Jgcoac bere berbeagaz biotzera bildurren batzuc bota daguioezan, edo cein pecatu-laguna sermoiacaz ondu daquien.

Egongo da errian bat edo bat chiquitaric asi zana seigarreneco zantarqueriac eguiten, andi eguinda pecatuac bere andiago eta ugarriago eguin dituzana, tratu oquerretan sarturic dagoana, edo ardaoan sarri igaroten dana; confesiño, comuniño onic eguiten eztavena eta berba baten azur ta guzti pecatuz eta oquerqueriaz betebeteric dagoana. Jgcoac bere erruqui andiz biralduten deutzaz nequeac, eta betetan deutzaz arantzaz bere bide guztiac, ea iñondi ecarri al balegui ona izatera. Galduten dituz auciac; suac erretan deutzaz etseac; urac daroioz presac eta errotac; ilten yaco laguna, ilten yacaz umeac; galduten dau osasuna, eta beti dabil gashoqui eta macal. Artuten daue nequeac nequeen ganean, atsacabeac atsacabeen ganean, (198) naibacoac naibacoen ganean; (198) ozta ozta dauco aldi gozoric ez pozezcoric; eztirudi besteric, ezpabere Jgcoac bere gauza guztiac asensioz eta beartzunez bete deutzazala, ea alan ama batec umeari ugatza leguez galerazo albaleio pecatu-gauceetaraco daucan zaletasuna eta onerechia. Baya ondo arpelic: arpelic yo (ebagui) dau Jgcoac bere cigorragaz¹⁴², arpelic bana bana eguin dau; eztau icasi gura izan Jaunac iracatsi gura izan deutzan bidea; aurrera eroan gura dituz orain arteco bide macurrac eta gaistoac.

¹⁴² Frustra percussi. Jerem. 2,30.

Bai, arpelic izango dira Jgcoac, besteac onduteco artu daroazan bideac, ezta ecegaz beré onduco: ezta ecegaz beré bear dan bidean sartuco. ¿Cer eguingo dau bada Jaunac onelango pecataria bide onean sartuteco? ¿Artuco dituz beste bide gogor eta indar andico batzuc? Baya onelango bideac ezteutsaz iñori zor, eta berac daquizan eta berac gura dituzan aldiren batzuetan baño artuten eztituz. Eta artuta beré, ¿onduco ete litzateque pecatari ori? Eztaquit nic: bildur nas onduco e-litzatequeala. Nic dacust escritura santua bete beteric alango pecatari gogortu onelango bide indartsuacaz beré ondu ezti-reanacaz. ¿Ce castigu gogorrangoac eta itzalangoac eguin euqueezan Jgcoac Faraon gogorrangaz eguin cituzanac baño?¹⁴³ Eta ¿ondu zan? Ez beintzat, eta gueroago ta gogorrango eguin tzan. ¿Ce predicadore obaric biraldu euquion Herodes-eri S. Juan Bautistea baño? Eta ¿ichi eutsan coñateagazco adisquidetasun loiari? Ez beintzat; eta atati artu evan Sn. Juan Bautista ori ilteco bidea. Etzan asco izan ceruco Angueru bat aguertutea Balan gaistoa onduteco, eta aurrera eroan evan bere gaistoqueria. Etzan asco izan J.C^o. Jgco ta guizonac eguin zituzan milagro andiac, ez bere sermoi guztiac Yudegu gogorren biotzac bigunduteco, eta onac izatera ecarteco, eta euretati (andishe) artu even bidea J.C^o. bera curutze baten ilteco. Eta J.C^o berberaren esana da, eta eguia J.C^o.ren esana leguez; Jaungoicoaren legueac diñoanagaz, eta Profeta santu Jaunaren partez eguiten davenen berbacaz onduten ezti-reanac, elitequezala ondu ezta il bat beste munduti prediquetan baletorque beré¹⁴⁴. Eta alan onei Jgcoac ondoen ondoen eguin leiquioena da, ainbat lasterren mundu onetari garbitutea, eta infernuco ondarretan ondatutea; bada ceinbat eta mundu onetan gueiago dagozan, ainbat eta pecatu gueiago eguingo dituez, eta infernu gogorrangoa irabacico dave.

¡O ce bildurgarria dan, eta ce negargarria arima gogor baten suerte zorigaistocoa! ¡Ce su guichitati asi dan, eta celango abaro andi zabal ederra erre dan, ecegaz beré amata ecin dala artu daven garrac!¹⁴⁵. Pecatu chiquietati asi zan galduten pecataria, eta gueldi gueldi eldu zan andiac beré eguitera; galdu eutsen onei bere lotsea, eta ardura bagaric ecer ezpalira leguez eguiten dituz: eta gogorturic bere biotza ezta ecegaz beré onduten, ez bear dan bidera etorten.

Eta itanduten badeustazue ea cer diñodan zuecaiti, ea zuec pecatuan gogorturic bazagoce, nic esango deutsuet ceüen biotzari beguiratuteco eta oneec esango deutsuela bazagoce edo ezpazagoce. Be-

¹⁴³ Exod.

¹⁴⁴ Luc.16.v.31.

¹⁴⁵ Jac.3.v.5.

(199) guira sermoiacaz bigundu bazare, eta aleguinac eguiten badozuez zuen arimac garbituteco, pecatu bideetati alboratuteco, ecandu charrac galduteco, bacochari berea biurtuteco, azpaldico zorrai erantzuteco, (199) eta berba baten Cristiñau onac izateco, etzagoce gogorturic. Baya alango indarric eguiten ezpadozue, zuen biotzac ecetara beré bigunduten ezpadira, eta lengo pecatuetan lotuten bazare, bildur izan bear tzare pecatuan gogortuta dagozala zuen biotzac. Bein danic bein pecatu asco ta anditzarrac eguin dozuezanoc bildur izan bear tzare gogortuteco bidean zagozela, eta orretaraco aurrera andiac eguinda daucazuezala.

Eta guztien artean bildur izan bear dira bestei pecaturaco bideac emon deutseezanac; bada bestei oneraco bidea emoten deutseezanac ceruan icer ederren moduan argui eguingo daveen leguez, alanche besteac galduten dituezanac izan bearco davee infernuco ilinti baltz bertaco surtan erre bearco direanac. Bildur bildur bada gurasoac, zuen biraoacaz, ta araoacaz, zuen añaenacaz, zuen berba loiacaz, eta iñoren deungaro esanacaz zuen umeai pecaturaco bidea emoten badeutsazue; bildur zuecaz naste eratzoagaz bear eztaneraco beguiac idiguiten badeutsazuez; bildur, fiestetara, yolasetara, gaubeleeta, biguireetara yoaten ichiagaz zantarqueriac eta loiqueriac eguiteco bideac emoten badeutsazuez. Bildur bildur batzarreetan, escaratzeetan, bear-lecuetan esaten dituezan celebrequeria eta berba arin loiacaz gazteac euren artean erretan iminten dituezanac. Bildur bildur nescatilla, artean garbiac, pecaturaco bidea emonda galduric ichi dituezanac. Bildur bildur mutil gazteai zantarqueriac eta loiqueriac eguiten iracasten deutseezanac. Bildur bildur euren yoco larreguiacaz, alperqueriacaz, ordiqueriacaz, ascori galdu batzuc izateco bideac emoten deutseezanacaz. Oneec eta olangoac bildur izan bear dira euren biotzac pecatuan gogorturic dagozala edo orretaraco bideac darabildeezala, eta guero ta guero beré orretara yo bearco daveela. Eta zuen artean badago iñor alangoric, bildurtu bedi, eta eguin beguiz aleguinac bere biotza samurtuteco eta Jgcoaren bideetan sartuteco. Eta aleguin orrec eguiten badituz aguiri dau oraindo coarren gogorturic eztagoala. Baya ez luzatu, bada laster sartu lequiquezue biotzeco gogortasun ori. Ea bada gaur entzuten badozue Jaunaren deia, *nolite obdurare corda vestra*.

4. ATALA

1. ERIOTZEAREN GANECO SERMOIA

(B, 127-131. or.)

O mors, quam amara est memoria tua!
Eccli. c.41.v.1.

(127) 1. Guztiz da garratza eriotzearen gomutea dirauscu Yaungoicoac berberac. Baya bildurgarria bada beré, eztago bera bashen gauza obagoric bacochari pecaturic iñesi eraguiteco, biotza garbi gordetaco (gorderazoteco), eta pecatuen penitencia benetacoa eraguiteco; eguicune edo obra (gauz) onac eguiten bici izaiteco, eta cerua alcance-taco. Orregaitic bada beguien aurrean iminico deutsuet eriotzaren gomuta au, eracusten deutsuedala lenengo celan aurquituco zareen il-aguinean zagozanean; eta bigarrenengo celan egongo zareen il ezque-ro. Eta aushe izango da arratsalde onetaco nire cereguina. (127)

Lenengo zatia

2. Ez yaquiteac non, nos, eta celan ilgo garean bildur andi bat emoitien dau, eta berau gaitic bacarric ez gueunque ordu lauren baten beré pecatuan egon bear. Alanche dirauscu Yesus onac: «egon zaitece bizcor ta prest gau ta egun, bada eztaquizue nos elduco dan zuen ordua»¹⁴⁶. Guichien uste dozuenean ta ardura guichien daucazuenean, orduanche etorrigo nas (nachachue ni) ishil-isilic lapurra legueche»¹⁴⁷. Ez, eztaquizue gaur, biar ala etsi¹⁴⁸ izango dan zuen atserengo ordua, ezta sermoi guzti au enzun baño leen izango bada beré. Eta aushe gaitic zuen bicitzaco memento guztietan egon bear dozue, eriotzaco orduan aurkitu (egon) guraco ceunquena legueche (ceunquen moduan). ¿Noc esango eutsan aberats escu-eutsi diruzale-zoroari, bere dirutsa andia, ondasun galantac, eta acienda zabalac contetan ciñarduanean, gau atan berean cireanac ichi bearco cituzala? Baita ¿celangoa gueratuco zan enzun bear izan ebanean cerutic

¹⁴⁶ Vigilate quia nescitis qua hora Dominus vester venturus est (Mth. 24.v.42.).

¹⁴⁷ Veniam ad te tamquam fur (Apoc. 3.v.3.).

¹⁴⁸ Era honetako grafiak nahiko ugariak dira Zabalaren sermoietan, Bermeoko liburuan batez ere. Norbaitek huts bezala joko lituzke, baina ez dago batere garbi. Oroi gaurko bizkaitarren «etzea» ahoskera; Zabalak beti «etsea» idazten du.

deadar bat; ¡Ah guizon itsu eta ah guizon zoroa! gaur gaubean quenduco deutsue arimea, baita ¿no-enac izango dira (dituc) orreec ondasunoc? ¿Noc esango eutsan Herodes-eri urregorritz burutic beatzetara yanciric egoanean, eta bere biotza arro arro eguin-da erechiz ta puttez beteric eucanean, yente guztia esaten eutsalaco etzala bera guizona ta bai Yaungoicoa, ordu atan berean, ta lecu atanche bertan icusico ebala bere gorputza arrez beteric, eta atsituric eta bere arimea infernuco gar beroen artean berpertatic icusico zala? ¿Noc esango eutsan Holofernes-eri oera yoat'orduan, baita ez asmu ononacaz, gau atanche infernuetara yausico zala beti betico? Eta ¿noc esango deutsue zuei, pecatu mortalean zagozenoi, gau gabean oera echun-da, biar goshean yaguico zareela?

3. Alanbere, Cristiñaua, daigun, gura bozu, oe baten guesho luce baten ostein ilgo zareala. Baya ¡ah! ¿celangoa egongo zara orduan? Burutic beatzetara min alaz beteric, loric eguin ecinic, arteric artu ecinic, calenturaz erreric, egarriz ito bearrez, barbaric eguin ecinic, eta burua non daucazun beré ozta-ozta daquizula. ¡Celango atsacabea, celango pesadumbrea artuco dozun esan daizuenean Medicuac eta Barberuac, guztiz chaarra zagozala, eta alan disponidu (prestadu) bear zareala Sacramentu santuac artuteco (Eleshacoac eguiteco)! Asico zara conciencia examinetan, eta pecatuen billacuntzea eguiten, baya ¿celan eguingo dozu aimbat neque, aimbat larri, ta minen artean? Orain buruco minchu bat daucazun orduco etzagoz ave-marichu bat beré (errecetaco) esateco, ¿cer eguingo dozu bada minarren arteric artu ecin-da zagozanean? ¡Ah! Orduan celambere artuco ceunque baceunco onduteco orain daucazun eta ain erraz galtzen dozun astiunea ta era-aldia (estimetan eztozun demporea, ta ecetan beré eztaucazun astiunea). Guraco dozu egunen bat edo beste luzatu ea alac cerbaist guichituten badira; baya eztau gachac eperic emoitzen, eta aimbat lasterren confesadu bear zara. Barriz ¿celangoa izango ete da confesiño au? Eriotzearen bildurac alde batetic, eta minen anditasunac bestetic, eztabee ichiten pecatuac burura ecarten; eztabee ichiten biotza Yaungoicoagana biurtuten; eztabee ichiten bear dan damuariric artuten; eurac daroe atenciño ta buru guztia. Orregaitic da ain pellebruz betea ordu ataco confesiñoa. Baya ¿cer eguingo da (yaco) ezpadago gueyagoraco (demporaric ez) astiric? Guero beré confesetan da celan alan, baita artu beré (Sacramentu santua) gure Yauna. Sacramentu oneec gueshoari atseguin emon bear leusquioe, bada eurac dira benetan gure pozgarria; baya yaquin ecin leiqueana leguez ondo ala deungaro confesau ete danez, beste aldetic barriz orduco confesiño gueyenac arrastaca eguinac izan oi direana leguez, oneshec beronec estutuco dau guesho tristea.

Eta onetara ezquero ¿noc, edo cec poztuco dau gasho tristea? Egunerik egunera, ta orduric ordura chartuten da, deungagora doa gacha, ta ibili ta ibili eltzean yaco eriotzaco ordua. Oztituten yacaz oñac, yaguiten yaco (128) bularra: aunztuten yacaz beguiac; galduten yacaz indarrac; yausten yacaz pulsuac, eta dago oean bateric bestera aldatuteco (gorputzari eraguiteco, itzuliteco) beré balio (aguin-te, adore) bagaric. Esaten deutse eztaucala erremedioric, eta alan artu bear dabela oleaciño santua. Barriz au artu ezquerocoan ¿nora biurtuco dituz beguiac? Yminten badituz igaroco urteetan, anche dacus erabatera leguez, errazoera eldu zanic eta ordu-guiñoco pecatu guztiac. Ycusico dituz esan dituzan araco berba loyac (arinac), araco bere adisquide nasaiacaz euqui dituzan pensamentu ciquin, escutasun loi eta eguiquera deungaac: lapurretac, ordiqueriac, trampac, engañoac, aserracuntzac, ta gorrotoac: eguin dituzan confesiño charrac, pecatu mortalean artu dituzan comuniñoac: anche ceatz ceatz icusico dituz eguin dituzan pecaturic chiquerren guiñocoac; baita direanac erabatera esango deutse: Ea; guztioac gara zure semeac, ceuc eguin gozuz, eta ceugaz naste yoan bear dogu Yaungoicoaren aurrera, eta gueuc salatu edo acusaduco zaituguz bere aurrean. Onen pecatu guztioen ezaintasunac bildurtuco (lotsatuco) dau gesho tristea, euren anditasunac larrituco dau, euren pisuac igongo deutso buru ganera, eta macurtuco dabee lurra'guiño, David erregueac ciñoana leguez¹⁴⁹.

4. Ifinten badituz bere beguiac aurretic daucazan gauceetan, eztabee guichiago bildurtuco, ta larrituco. Aurquituco da, diño S. Juan Crisostomo-c, Demoniño ezain eta bildurgarriz beteric (inguraturic). Ycusico dituz celango ardureagaz (zur ta bizcor) dabiltezan bera galtzeaco (galtzearren). Botaco deutseez batzuetan desesperaciñooco tentaciñoac, esaten deutesela, ya dagoala emonic bere condenaciñooco sentencia, eta eztaucala cer uste izan Yaungoicoaren misericordia (ontasun) ta erruquitasunean: beste batzuetan eztaucala bildurric cecan artu; (bada) neurriba'coa dala Yaunaren ontasuna, baita, bere aldetic ecer eguin ez-arren, parcatuco deutzazala pecatuac. Bein esango deutsee oraindocoarren osatuco dala, beste bein (guero) ondasunen ta munduco gustuen gurariz beteco deutsee burua. Baita ¿celango larritasuna, ta bildurra berea, aimbat arerioen artean bere burua icust-orduan? Biotzeco egalac yausico yacaz, eta gueratuco da desconortauric legueche, cer yazoten yacan (non dagoan bere) ezta-

¹⁴⁹ Iniquitates meae supergressae sunt caput, et sicut onus grave gravatae sunt super me. Psalm.35.v.5.

quiela. Beguiratuten badau guerora (gueroco gaucetara) icusico dau ordu guichi barru il bear debela, baita aguertu J.C^o.ren aurrean bere bici guztico contu emoiten; barriz ez yaquin (bagaric) celan urtengo daben, eta celangoa izango dan, emongo yacan, sentencia, ala betico zorionecoa, ala seculaco zorigogorrecoa. ¡O ce larritasunac, Cristiñaiac! ¡Ce izerdi otzac! ¡Ce tristeza, ta nequea! Orduan ezagutuco dau ce deungaro eguin daben, osasuna eucan artean penitencia eguiazco bat ez eguina: orduan esango dau: ¿cetan emon dot nic neure bicitzea? ¡O Santu andi bat izan banintz, neure escuan egoana leguez! ¡Eguin banituz, Santuac ermuetan eguin cituezan penitenciac; iñoz pecaturic eguin ezpanendu; neure guraari ta ecandu citelai yarraitu ezpaneuntse: ecerbere ostu ezpaneu; bestegaz (iñogaz) aserraric egon (aserratu) ezpaninz; eta ordiquerietan eguño beré ibili ezpaninz! ¡Ay! orain baneunco galdu dodazan egun galantetatic bat, Yaungoicoari parca escatuteco! Baya ¡o ene penea! Ya eztago niretzaco alango egunic; eztau gachac eperic emoiten, baita eriotzeac ya dauco besoa gora, nire bicitzea ebaguiteco. ¡Ene larria! ¡Ene triste-
a!¹⁵⁰

5. Noc edo cec poztuco zaituz ordu atan, pecataria? Senarrac, amazteac, edo seme-alabac? Eurac icusiac berác burura ecarrico deutzuz euracaitic eguin dozuzan pecatuac. Ceimbat bider Yaungoicoa ofendidu cenduen Senar-emazteoc ezcondu aurrean: ceimbat bider aserratu eraguin (pecaturaco bidea emon) deutzazun, seme-alabai aciera charra emonagaz, eta euren aurrean gauza oquerren bat eguinagaz; eurac burura ecarri erazoco deutzue ceimbat lapurreria, trampa, eta engañu eguin dozuezan eurentzaco ondasunac batutearren (batu ecinic). Poztu ceinquez andra Virginia Maria-ren ontasun ta biotz bigunac? Lotsaren lotsaz egongo zara bear bada, icusiric eztozula ceure bici guztian ecerbere eguin beragaitic (aren alderaco). Azquenean, barriz, ¿Yaungoicoaren erruquiac eta errai samurrac poztu eguingo zaituez? ¡O zure tristea! ¡O zure galdua! Eztozu arpeguiric beré euquico (izango) berari erregututeco, yaquinic zure bici guztian eztozula besteric eguin, bera ofendidu bashen. Sarri ascotan dei eguin deutzue, eta ceuc ezteutsazu yaramon beré; berba eguin deutzue, baita ceuc enzun beré eguin ez: bere egapean artu gura izan zaituz, zuc barriz eztozu yoan beré gura izan. Baita ¿celan asartu ta atreviduco zara orain beragana elduten, bere erruquiaren atentan yoiten, aimbat bider curutze baten yosi badozu ceure pecatua-
caz? Eta dei eguin-da beré, ¿derichazu eranzungo deutzula? Bildur

¹⁵⁰ Coarctor nimis, tenent me angustiae. 1 Reg.c.28.v.15.

izan cinatequez ez enzun eguingo deutsula ta yaramonic (causiñoric) beré eguingo ezteutsula. Ba'quit nic ondoba'coa dala bere erruquitasuna, ta neurric eztauquena bere ontasanac; (129) baya ba'ntzut Jaungoicoac berac diñoala: guichitan euqui dozuz orain artean nire consellu ta aguiracac, yaramonic beré eguin ezteustazu dei-eguin deutsudanean; bada nic beré irri ta barre eguingo deutsut zuri erioztaco orduan, eta burlazar egongo nachatzu, bildur zarean aldia eldu daquizunean¹⁵¹.

(129)

6. Larritasun eta tristeza onen artean guraco leuke peccatariac luzatuco balichaquio puscachu bat bicitzea, peccatuac gaitic negar eguiteco; baya bete dira epeac, eztago onezquero demporaric. Ya dago pulstu bagaric, beguiac iruliric, colorea galduric, gorputz guztia otz otz eguinic (otz otzic), ta arimea urten aguean daucala. Guero ta guero emoten dau azqueneco arnasea, urteiten dau arimeac gorputz atatic, eta agur eguin dau obeceac. Au da, neure enzula maiteac, mundu onetaco guizon ta andra guztiac euquico (izango) dabeen acaberea; guztic igaro bear dogu pausu (ordu) larri ta itzal au. Bai peccatariac, bai: eun urte garrengo luceen luceenez, (urtegarren dala luceen luceenez, urtegarrengo luceen luceen izanez) beré Elesha Santa onetan gagozan guzti guztic igaroco dogu, eta icusi eguingo gara yoat'aldi latz ta icaragarri onetan. ¿Cer balioco deuscue orduan mundu onetaco zorion, ondasun, ta escuarteco andiac? ¿Non dira zuen guraari oquerrac, ta mundu onetaco yolas, pozaldi ta atseguiac? ¿Non aimbeste nequegaz, aimbeste izerdi ta pellebrugaz irabaci dozuezan diru ta ondasunac? ¿Non dira zuen adisquide maiteac, senideac, gurasoac, senar edo emazte eta seme-alabac? Eguioezue dei bat etorri daquizezan: esan eguioezue poz-aldichu bat emon deizuela darozuen bide orretan. Baya ¡o negar eguiteco gaucea! Bacar, pobre, ta billos billosic etorri cineen mundu onetara, baita bacarric, eta utsic urten bearco dozue-; bici izan zareen artean eguin dozuezan obra on edo charrac lagunduco deutsee zuen arimai, bestec ez. Baya ichi daiogun bein oneri, icusteco bigarren zatian, leen esan deutsuedana leguez, cer yazoten yacan zuec il ezquero zuen gorputzari.

Bigarren zatia

7. Eztau ecec beré aimbeste lurrera eguiten (lurreratuten) gure arroqueria, gangarra, ta erechitasuna (andiustea), cein-da gogora

¹⁵¹ Despexisti omne consilium meum et increpationes meas neglexisti: ego quoque in interitu vestro ridebo, et subsannabo, cum id quod timebatis advenerit. Prover.1.v.25.

ecarteac il ezquero celan gueratuco garean. Aushe ondo ondo gogoan euquitea da asco ecetamberé ez euquiteco mundu onetaco zorion, doe, ondasun ta gauza guztiac. Gogoeta onec, berac bacarric guichituco deuscuz araguiaren gurari citelac: bizcortuco gaituz penitencia eguiteco, baita emongo deuscu indarra guichitan euqui ta pacienciaz. igarointeco mundu onetaco neque, lan, eta gachac. Berau bacarric izan zan asco, Salomon-eri erasoteco mundu onetan egoan guztia ashe pusca bat (irudi utsa) baño etzala. Eguño zorionecoric mundu onetan izan bada, Salomon onec izan bear eban. Eucazan mundu onetaco olgura ta ondasun euqui al guztiac. Bera Erregue zala beegoan Jerusalem-en, caleetan arriac laimbeste, urre ta urregorri. ¡Celango etseac bereac, ain andiac ta alazoco galantac!¹⁵² ¡Ceimbat otsein eder! ¡Ceimbat musica ta cantalari belarriai gustu emoiteco! ¡Celango mai modu guztico yanariz ta ardao gozoz beteac, naroro ta opaaro yan ta edateco! Celango etse-barruco edergarri, ta urregorizco tresnaac! ¡Celango maztui, sagazti, arestui; celango ortu ederrac! ¡Ceimbat milla buru ganadu ce, ta gorrizcoac! Baya ¿ceta'co da burua austea onango gauzaac icentetan (icentau ecinic), Salomon-ec berberac badiño eguño bere buruari ucatu ez eutsala ez icustea berac gura eban guztia (gauzaric), ez artutea asmau al leitequezan gustu da diversiñogarriac (diversiñogarriric)? Alambere nos edo nos imini cituzan beguiac (imini zan adi) bere atserengo orduan (orduari), eta icusi ebanean cetan yoco ebeen anditasun ta ondasun guztic, esan bear izan eban secula aitzu (burutic joan) bear e'licheaquegun berba au: guztia da utsa ta putza, guztia ashe tanga bat¹⁵³, guztia ecerbere eza. Eucazan nai cituzan olgura guztiac, batu cituzan ondasun andiac, eguin cituzan eche zoragarriac, eucazan gura cituzan otsein guztiac, bici zan gura cituzan gustu ta contentu artean, eta ez eutsazan ucatu bere begui ta biotzari nai ebeen gauzaric: baya imini cituzan beguiac bere azquenean eta icusi ebanean cetan gueratuco zan anditasun guzti au bertatic esan eban: Guztia da utsa, etc.

8. Bai celambere, neure Cristiñaiac, ezteuscu ecec beré obato beguiac idigui eraguingo, mundu onetaco ecerbere eztasuna icusteco, mundu onetatic urten ezquero celan gueratuco garean gogora ecarteac baño. Ycusi eguizu celan gueratuco dan zure gorputz ori arimeac urten ezquero. Ain gueratuco (lotuco) da ezain eta bildurgarri ce, eztabe biotzic euquico beragaz dempora lucean egoteco ez emazteac, ez senarrac, ez semeac, ez adisquideac, ez iñoc: guztiac

¹⁵² Nudus egressus sum de utero matris meae, et nudus revertar illuc. Job 1.v.21.

¹⁵³ Vanitas vanitatum, et omnia vanitas. Eccle.c.1.v.2.

dagoz mututuric. Enzunic il-campaiaic itanduten dabee batzuc: ¿nor il da? Urlia. Yaungoicoaren glorian guerta deilla; eranzuten dabee; ta oneshegaz bacarric paguetan deutsuz munduac bera servietarren artu dozuzan ardurac, emon dozuzan izerdi eta pausuac. Aibat las-terren quendu gura zaituez beguietatic, iminten zaituez anda batzue-tan, baita botetan zaituez sepultura baten, ganean lurra emoitzen deutsue. Ezarrico deutsue lur zati bat (ganetic) ceure ganean, baita agur mundua zuretzaco, eta zu munduentzaco. Alper alperric euquico (izango) dozuz ondasun andiac, alperric hacienda zabalen yaube izango zara, alperric izango zara (130) etsagun mayorazgu, marques, conde, duque, principe, erregue, edo emperadore, bada orduan bardin bardin izango zara pobrerico pobreenagaz. Lur gogorra izango da zure oea (diño Ysaías-ec¹⁵⁴) beste guizonen baten buru-azurra izango da zure aburtico, burruco ta almoadea, eta zure estalguia izango da azur atsituac ta lur quiratsa, (ta ameneco guztien ganetic arri andi bat iminico deutsue); barriz zure ondasunac ta lagunac izango dira citza, cedena ta arrac¹⁵⁵.

(130)

9. Bai, neure enzula maitea, bai; urte guichi barru orraco gorputz ori, berac gura dituzan mizqueria ta gustu guztiaic emoten deutzazuzan gorputza, egongo da iñoc icusi bere ecingo daben moducoa. Orraco buru ori, ceinetan daucazuzan (darabilzuzan) aibeste gogoeta ero ta pensamentu erechi, atsituric, ezainduric, aragui bagaric, garaun bagaric, eta buru-azur motz motz bat eguin-da (eguinic) aurquituco da. Orraco sabel ori cein asetearren zabilzuzan necaturic ta arduraz beteric, ar pillo bat biurtuco da. Orraco escu orreec ceintzuecaz iño-ena ostuten dozun, ta besteai gach eguin-da, J.C^o. bera barrien barri curutzean yosten dozun, egongo direz baltzituric, echurabacoturic, eta azurrac bata besteen ganean aguiri direala. Orraco oñoc ceintzuecaz zabilzuzan pecatu-bide galgarrietatic azur utsac baño eztira izango, ta bear bada egongo dira oquelu ilunen baten ausiric, urraturic eta zatituric. Eta beingo baten esateco: ori gorputz ori, cein daucazun zure Yaungoicotzat, atsitu, usteldu, ezaindu, eta arren bici lecu izango da. ¿Non egongo da, bada, orduan araco zure edertasuna? ¿Non araco ulle zoragarria, ceinetan ceuncazan iminiric zure arduraac (ardura guztiaic)? ¿Non araco eracutsi guraric erabilten cenduan (ebilten cinean) arpegui ederra? ¿Non da araco gorputz eregui, mardo ta galanta ceineri uste cenduan e'chacala bein bere gachic elduco? ¿Non dira araco zure indar guztizcoac, ceintzuecaz

¹⁵⁴ Subter te sternetur tinea et operimentum tuum erunt vermes. Isai.14.v.11.

¹⁵⁵ Hereditabit serpentes, et bestias et vermes. Eccli.10.v.13.

uste cenduan edoceineri goya-artuco ceuntsala, baita banaan-banaan venciduco cenduzala errian egozan (cirean) guizon guztiac? ¿Cer eguin zan araco diruacaz ceintzuc irabaztearren ibili oi cinean gau ta egun neque-pean amurruturic (arrastaca) eta bear bada arimaco galtzaigarrietatic, ta pecatu-bideetatic? Guzti guztiac quendu deutzuz eriotzeac, eta aguertu zara mundu onetaco gauza bagaric, billosic, ezainduric, eta azur uts eguinic. Sepultura itzaleco iluntasun artean gueratu dira zure eroqueria ta fanfareriac; zure erechitasun eta andiguraac; zure uste andi ta gustu citelen guraariac.

10. ¡O neure Cristiñauac, baneunco nic orain Ezequiel Profeta igarlari andiaren santidadea ta espiritua (escubidea), sepultura orretan dagozan azurrai yaiguiten aguinuteco! Ycusico ceunquez zuen gurasoac, zuen osabaac, zuen senar ta emazteac; zuen seme-alabac, eta zuen adisquideric andienac (kutunenac) azur utsetan, eta nortzuc direan beré igarri ecin lequiquiela; ez cein dan (izan zan) aberatsa, cein pobrea: cein ugazaba, cein otseina, cein erregue eta cein necazalea. Baya bein aimbesteraco escuric ecin dodan ezquerocoan, eldu gaitezán gueu eurac'ana; idigui daigun pensamentuaz biar-etsian euquico (izango) dogun bici lecuá, baita icusi daiguzan gugaz naste egongo direan, lagunac. Ytandu daiogun ea cer balio izan deutseen aberatsac mundu onetan izanac; cer balio izan deutseen errico guizon andi (nagusi), eta urietaco aguintari izanac: cer acienda ta baster zabalac euquiác; euren seme-alabai diru galantac ichiac, euren bici guztia asmau al besteco pozgarrietan, guraarietan, mizqueria ta eroquerietan emonac, eta eranzungo deutzue: ecerbere ez: eztira gauza izan areane'co, gure galtzaigarriraco ez izanic. ¡Arren bada, orrei zoraqueria guztioi ichita, euretan galdu guenduan demporea, negarretan, cizpuruetan ta penitencia-guiñan, emon baguendu! ¡Ushela orain beste ezagutu baguendu zoraqueria andi bat cireana, ashe pusca bat, eta ames bat cireana! ¡O eta ce beste modutan icusico gueintezuezan gure buruac gaurco egunean! Enzun daigun, Cristiñauac, celan dirauscuen artuteco emoitén deuscuen (euren) consellua, bada eurac dacusguzana legueche, gure burubac beré dempora guichi barru icusico doguzala. Beguiratu eguin gaitezán ispillu triste onetan, eta eztaiguzan, yaramonic eguin beré bagaric, ichi euren esanac. Berba ishíl ta mutuacaz, baya ondo zoli ta bildurgarriacaz dirauscuen eurec gomuta daigula celan dacusguzan, bada (ce) gure aldía beré eurená langoa izango dala (elduco yacula)¹⁵⁶. Guri atso yazo yacuna, diñoé, zuei biar yazo eguingo yatzue. Guri atso lurra emon euscuená

¹⁵⁶ Memor esto iudicii mei, sic enim erit et tuum. Eccli.38.v.23.

leguez, zuei beré biar emongo deatsue. Gu orain lurpean ondo ondo zacaturic, ilun itzal artean, atsitutasunez ta quiretzez beteric gagozana leguezche, zuec bere biar-etsian egon bearco dozue.

11. Orain bada, neure Cristiñauac, ain zoroac eta itsuac izango zare emetic aurrera, cein-da ardura gueiago euquico dozuen gorputzagaz, arimeagaz baño? Non da zuen sensuna? Non da zuen errazoa (burua)? (131) Esan eguidazue ce zoraqueria garbiagoric izan leiteque cein-da izanic arimea J.C^o.ren odolagaz garbitua, ceruco yaubetzat, Espiritu Santuaren bici-lecutzat eta J.C^o.ren anayetzat autua, bera aitzu-ta, arrac yango dabeen gorputzaren ardurearen ardureagaz amurruturic ibiltea? A, cristiñauac, (ondo ederto diño onen ganean S. Juan Crisostomo-c:) guztia igaraiten da, guztia galtzean da, guztia acabetan da: Ygaroten dira diruac, zorion ta ondasunac, baita edertasuna beré; igaroten dira ilabeteac, egunac eta urteac: gauza bacar bat dacusgu beti irauten dabena, beticoa izango dana, eta eguño beré ilgo eztana; eta aushe da gure arimea. Eta orregaitearren beré pecatari itsuac guraago dituez mundu onetaco, asheac daroazan gauza uts ta zoroac beti iraungo dabeen atseguinac baño; gurago dituez beti betico negar, cispuru ta tormentuac igaro, arrac jango dabeen gorputza penitenciaren azpian erabili baño. Guraago dituz beti betico negar, cispuru ta tormentuac igaro, arrac yango dabeen gorputza penitenciaren azpian erabili baño. Guraago dituz gorputz ta arimea galdu betico, neque pusca bat gorputzari emon baño. Yratzartu zaitez bada, peccataria, nos-edo-nos (bein edo bein) peccatuaren lo zorrotic, yaigui zaitez ilen arteric, baita icusi eguizu cer costa yacan Yaun oneri zu Demonioaren atzamarretatic ateretea. Ara emen: beguira ondo ondo ce mantso dagoan. Baya yaquin bear dozu ece, peccatuan sarturic egon gura badozu orain zure Aita biguna dana, guero Juez zorrotz ta gogorra izango dozula. Ara bada ordu atan lotsaturic icusi ce-zaitez, osasuna daucazun artean irabaci eguizuz arimearentzat ceruco ondasunac¹⁵⁷. Baya ¡ay ene Yesus laztana! Cer eguingo dot nic zure lagun-tasuna euqui ez-ic? Ba'quit, Yauna, merezidu eztodana mesede au, neure biotzeco gogortasunagaitic.

12. Baya andiac badira beré nire peccatuac, andiagoa da zure on-tasuna ta erruquia. Euren ezaintasunac icaratuten (bildurtuten) nau, ta aimbeste izaitzic icara dardar narabil; baya nogana elduco nas erremedio esque zugana ez-izanic? Ea bada, nire Aita biotzeco, ez naguizu bota zure beguiren aurretic¹⁵⁸. Enzun eguizuz nire deiac, nire

¹⁵⁷ Dum tempus habemus, operemur bonum. Ad Gala.c.6.v.10.

¹⁵⁸ Ne projecias me a facie tua. Psal.50.v.13.

negarrac, nire zotínac, ta izan zaitéz nire erruqui¹⁵⁹. Osatu naguizu arren, bada nire azurrac direanac icara gogorrac artu dituz¹⁶⁰. ¡O neure Jesus ona! ¡O neure Jesus laztana! Eriotzaco ordu itzal au gogora yatortan bacochean, bildurraren bildurrac arimea conorte bagaric legue-che ichi daroat¹⁶¹. ¿Cer eguingo dot triste onec ordu atan¹⁶²? Nogana yoango nas zugana izan-ez-ic¹⁶³? Ymini naguizu ordu estu atan zure alboan, esanic nire arimeari lapur onari curutze orretatic esan ceuntsana: gaur egongo zara nigaz naste ceruco glorian¹⁶⁴. Bai, Cristiñaiüac, prest dago Yesus maitea zori-oneco dei au eguiteco, zuec pecatua ichi-ta beragana biurtuten bazare. Ea, bada, Cristiñaiüac, eldu zaitece curutze onen oñetara, eta damuric andienagaz, bera aimbat pecatugaz ofendidu dozuelaco esan eguioezue biotz guztiz: Neure Yesu-Cristo Yauna.

¹⁵⁹ Miserere mei Domine, quoniam infirmus sum. Psal.6.v.3.

¹⁶⁰ Sana me Domine quoniam conturbata sunt omnia ossa mea. Psalm.6.v.3.

¹⁶¹ Anima mea turbata est valde. id. Ps.6.v.4.

¹⁶² Quid faciam miser. Ecclesia in offi. Defunc.

¹⁶³ Ubi fugiam nisi ad te, Deus meus? ibid. 5. et m.n.

¹⁶⁴ Hodie mecum eris in paradiso. Luc. 23. 43.

2. ERIOTZA OSTECO, EDO BACochAREN JUDICIOAREN GANECO SERMOIA

(B, 197-202. or.)

Omnes nos manifestari oportet ante tribunal Christi ut reddat unusquisque propria corporis quae gessit sive bonum, sive malum.

2.Corin. c.5.v.10

(197) 1. Salomon-ec munduan icusi cituzan zoraquerietaric andienen artean, etzan guichien arritu evana izan ain ardura bagaric guizonac pecatu eguitea. Beguiratu evan nondic yaioten ete yaquen seguridade au, eta icusi evan, eta ezagutu evan ce yatorquela icustetic Jaungoicoac etzituzala bertatic castiguetan euren gaistoqueriatic, eta Jaungoicoaren paciencia andi au gaitic bildur bagaric pecatu eguiten eveela. Baya paciencia oneshec beronec biztu bear gaitu aimbat lasterren pecatuac ichi eta penitencia eguitera dirauscu S. Paulo Apc. Ceimbat eta gueiago luzatuten dan castigua, aimbat eta gogorrigo izango da guero. Etorrico da Jaunaren eguna ishil ishilic lapur bat legue-che eta ateraco dituz arguitara gure biotzeco basterric ezcutuenac. Orduan icusico dira gure pensamenturic chiquienac; artuco davela diño bere justiciaco ezpatea, eta gogor castigaduco dituzala bere contra eguinico pecatuac. Gauza bi oneshec eguiten davee ain itzaltsu Jaungoicoac eguingo daven juicioa: bere yaquituriac eta bere justiciac. Bere yaquituriac ateraco dituz arguitara zure pecaturic ezcutuenac ta baperé ichi bagaric, lenengo puntua. Jaungoicoaren justicia, edo arteztasunac juzgaduco dituz zure pecatuac erruqui bagaric, bigarren puntua. Lelengoan beteco zare bildurrez zuen biotzean bada pecaturic. Bigarreanean icusico dozue celango euqui bear dozuen, ez aserratuteuco Juez ain gogor bat.

(197)

Lenengo zatia

2. Arimeac gorputzetic urten ezquero lenengo emongo daven pausua J.C^o.ren aurrera izango da, bere bici guztico contu emoitera. Ain izango da ceatza, ain estua contu au ce, ezta gueratuco arguitara urtengo eztaven pecaturic. Eguiquera edo obraric aaztuenac, barbaric ishilenac, eta pensamenturic ezcutuenac ifinico dira aguirian. Ba-

ya ce icaragarria, ce itsaltsua, ce bildurgarria derichazue izango dala juicio au? Eztago guizon ez Aingueruen artean adietan emon leiquean miñic. Alan bere cerbaist ulertu daguizuen ara cer dirauscun S. Juan Crisostomo-c. Yarrico da Jaungoicoaren Semea, Daniel Igarlari edo Profeteac icusi evana leguez, suzco yarlecu, edo tronu baten, bere aotic urtengo dau su-gar biciac, bere berbaac izango dira ezpata zorrotz bat langoac, milla millinoe Aingueruc euquico dave euren erdian, edo inguratuco davee, alde batetic egongo dira Demoniñoac zu salatu edo acusetaco, bestetic Aingueru guardaco yagolea zugaitic berba eguitemo, escoatatic dago gloriaco coroa ondo urteiten badozu, ezquerretatic barriz infernua condenaciñoco sentencia emoitzen bayatzu. Aingueru eta Demoniño guzti onen erdi erdian egongo zara zu lotzaz beteric, bildurrez icara gogorrean. Ydiquico da zure conciencia liburu eta iminico dau Jaungoicoac bere neurriba-co yaquituriarena. Ainche urtengo dave Aingueru eta Demoniñoen beguetara zure pecatu guztiac euren ezaintasun eta anditasun icaragarriagaz. Ainche aguertuco dira araco ceuc bacarric baño bestec iñoc eztaquizuzan pecatu-esquergueac, araco zure biotzeco gorrotoac, araco ceuc bacarric baño bestec iñoc eztaquizuzan pecatu esquergueac, araco zure biotzeco gorrotoac, araco ceuc ceure araguiagaz eguin dozuzan loiqueriac, araco gau utsez, eta iñoc etzencusala eguin dozuzan lapurqueriac, araco beste pecatu ceinen gomuteac betetan zaituzan orain lotsaz. ¡Ce larria izango da zurea, ce bildurra, ce lotsaaria icusi daguizuzanean araco pecatu itzuci, eta ezainac ceintzuc etzeunquean gura luurrac berac beré yaquin deizuzan, eta ceintzuc bear bada emoitzen eutsuen lotseagaitic etzarean azartu edo atrebidu confesetan!

(198) 3. Esan eguidazu confesaduco bacina nigaz, eta esango baceustaz ceure bici guztian eguin dozuzan pecatuac, eta aitzuric nic ishilic egoteco daucadan obligaciño estua, asico banintz (198) pulpitu onetatic direanac zabalduen zure senar, emazte, guraso, anaye, adisquide eta ezaunac dantzuela celan guertuco cinatque? Esango baneu guizon bategaz pecatu loi eta barregarrietan ibilic, ceure ondra ez galdutearren seña galdu eguin dozula; galduric ceure guizonari zor deutzazun amodioa beste bategaz ibili zareala; ceure araguiagaz eguin dozuzala pecatu guztiz ezainac: zu izan zareala urlia Eleshaco lapurtea eguin davena: Aibat aucitan guzurragaz juramentu eguin dozula; eta modu onetan ceatz ceatz esango banituz direan direanac etzinatequez erdi ilic guertuco? Bada emen equi cinaiquean lotsaari guztia ezta orduan euquico dozunaren guerticea beré, cegaitic ce gach guzti onec esan arren ameneco ez leuquede guztiac sinistuco, eta artu cinaique moduren bat ni guzrteetaco, edo ucatu cinai-

quez; baya juicio atan ecin pecaturic chiquienic bere ucatu leique, ce guzti guztien aurrean aguertuco dira, eta zure conciencia euquico dozu testiguric gogorren ta oquerrena: berac deadar eguingo dau zure contra, eta mundu guztiaren aurrean salatuco zaituz. Berac esango dau sarri ta sarri aguiraca eguiten eutsula pecatu eguiten ciñoazanean, etzituzala iños ichi castigu bagaric zure pecatuac agincada, usigui edo erremordimentuacaz, eta pecatu eguin ezguero beti egoala deadar ta deadar ea irartzartu cendizan. Beste aldetic Demonioac izango dira salatariric eta acusatzailleric cruelenac, eurac ateraco dituez zure pecaturic ezcutuenac. Eurac esango davee nayago izan cenduzala enzun euren guzurrezco berbaac, Jaunaren dei gozoac bashen; nayago izan cenduala euren aguindupeeco izan Jaungoicoaren seme bashen; eta eurac icusi cituezala zure pecatu guztiac, eta escatuco deutse Juezari ifini zaguizala euren escuetan infernuetara eroateco, zure pecatuac mereci daveena leguez.

4. Baya zure conciencia eta Demonioac ishilic egongo balira beré, munduan direan gauza guztiac yaguico dira zure contra, diño Escritura Santeac, guztiac berba eguingo davee eta izango dira zure guestaquerien testigu; ceure eheco ormeetaco arriac deadar eguingo, diño Habacuc Ygarlari edo Profeteac¹⁶⁵; eta etseco zurac deadarrez egongo dira¹⁶⁶. Ceure oeco izarac esango davee ainche bacarric ta ilunean cengozala uste cenduanean, eguin cenduzala loiqueria esquergagarriac; ceure guelaco olac, eta adrilluac esango davee anche bacar bacarric cengozanean, artuten cenduzala asmu eta gogo oquer rac lagun proximuaren contra. Echeac, arbolaac, ortuac, soloac, bedarrac, mendiac, achac, eta ganeco gauza guztiac izango dira zure contra; ucatu ecin cinaiquezan testiguac dira. Au yaquiteac icara bildurrez eucan S. Geronimo, berac dinoandi. Beti beti nago, diño Santu andi onec, larri, eta atsacabez beteric, ozta ozta azartu edo atrebietan nas arnasa bere artuten, daquidalaco neure guelaco ate, ventana, adrillu, ol eta ormaac izango direala neuc, bacarric nagoala, eguiten dodan gauzaric chiquienen testigu, ta direanac deadar eguingo daveela nire contra. Baya ¿cetan nago, neure Cc.? Eztan gure Jaun eta Jaungoicoac testiguric bear gure pecatu guztiac arguitan iminteco euren ezaintasun guztiagaz; ecin aurqitu leiteque bere neurribagaco yaquituriaganic ezcutadu ez ostendu al leiquean gauzaric, guizonaren malicia ta oquerqueria guztiac ecin beraganic estalduric euqui leique, pensamenturic ez gogoaldiric chiquiena beré. Eta

¹⁶⁵ Lapis de pariete clamabit.

¹⁶⁶ Lignum quod inter juncturas aedificiorum est respondebit. c.2.v.11.

¿derichazu eztituzala arguitara atera guraco Aingeru eta Demonioen beguetara zure gaistoqueriac? Ay Ne.Ca., enzuzu cer dirautsun bere Ygarla edo Profeteen aotic.

(199) 5. Azquenengo egunean ezteutsut ecer parcatuco, diño Ezequiel-en bitartecoz: aguirri aguirian iminico dot zure ezaintasun guztia, zure lapurqueria, pecatu loi eta ordiqueriac. Icusico dira, diño Isaias-ec, zure lotsagarri guztia; eztago au eragotzi leiquedanic. Botaco deusdaz arpeguira zure oquerqueria guztia, aracatuco ditudaz ceure bici guztian emon dozuzan pausuac, ba-peré ichi baga. Orainguiño yaquin izan dozu celan escutadu ceure bicimodu gueistoa. Sinistu eraguin izan deutseezu guizonai ona zareala ishilean, eta eurac ecin yaquin leien moduan eguin dozuzalaco eguicune edo obra deungueenac. Baya ezteutsue oraingoan nigaz balioco asmu orreec. Emenche icusico dozue (199) emen dagozan Aingeru, eta Demonioac, ce gaisquiñac izan cirean¹⁶⁷, ce deungaac, ce lotsagarrizcoac. Ecin ucatu cinaiquet emen arguitara ateraco deusdudan pecaturic; ce neuc icusi cindudazan eguiten¹⁶⁸. Araco ilunean eta bacarric cengozala ceure araguiagaz pecatu loiac eguiten cenduzanean anche nengoan ni adi, eta icusi cindudazan¹⁶⁹. Araco gaüez ino-en solo, ortu, eta etsera ciñoazanean, eta ostuten cenduzanean bildur bagaric iñoc yaquingo ez eutsulacoan, anche nengoan ni beguira eta icusi cindudazan¹⁷⁰. Araco iñoen senar edo emazteagaz pecatu eguiten cengozanean lecuric ezcutuenean eta oqueluric ostenduenean, lotsabagaric bacarric cengozalacoan, bertanche nengoan neu zuri adi, eta icusi cindudazan. Araco ceure buruan asmu charrac artuten cenduzanean ceure arerioagandic benguetaco, neuc icusi nituzan zure pensamentu eta gogoeta guztia¹⁷¹. Araco guzurragaz juramentu eguiten cenduzanean, eta besteri dirua emoten ceuntsanean eguiteco, anche nengoan ni eta icusi cindudazan¹⁷². Neure aurrean, neure beguien aurrean eguin cenduzan pecatu icaragarrizco oneec¹⁷³. Orduan ishilic egon nintzan, neure beguiacaz icusi arren zure bici galdua. Gura nevan paciencia onegaz irabaci zure biotza ichiric zure pecatuac nigana etorri cinte-zan, baya itsuturic zu paciencia onegaz, uste izan cenduan zu leguezcoa nintzana¹⁷⁴ eta enecusala zure bizimodua. Baya orainche bertan

¹⁶⁷ Revelabo (nudabo) ignominiam tuam. Ezeq. c.16.v.37.

¹⁶⁸ Ego sum, ego vidi. Jerem. c.7.v.11.

¹⁶⁹ Ego vidi. Ibid.

¹⁷⁰ Id.

¹⁷¹ Id.

¹⁷² Id.

¹⁷³ Faciebatis malum in oculis meis.

¹⁷⁴ Existimasti quod ero similis tui.

atera gura ditudaz zure pecatu guztiac; ceure beguien aurrean iminico deutsut zure bici guztia¹⁷⁵. Ycusi eguizue ceruac, icusi eguizu luurra, icusi eguizue Aingueruac, icusi eguizue Demoniñoac guizon esquer gaistoco onen lotsabacotasun esquerguea.

6. Cer eranzungo deutzazu, pecatari tristea, Jaungoico oneri? ¿Ce achaquia emon cinaio? ¡Ay, Cc., milla itaunde eguiten baditu, ecin bateri bere erantzun leio, diño Job Santuac. Eztozu aurquituco cer eranzun. Alperric ucatu guraco dozuz, alperric artuco dozuz al daizuzan asmuac escutatuteco. Alperric esango dozu gurasoac, emazteac, senarrac edo umeac euren genio deungueagaz galdu erazo eutsuela paciencia; ce artu al daizuzan achaquia guztiac ezteutsue arean balioco ceure ezaintasun (andia) atsitua estalduteco¹⁷⁶. Artu eguizuz orain, baderichazu, araco dempora baten aztu oi cenduzan oquerqueriac, eguia ezcutetaco. Billatu eguizuz testiguren batzuc zure fabore juramentu eguin daien; escatu eguiezu adisquide batzuei erregutu deioela Juezari zugaitic; topadu eguizuz empeñuren batzuc Juezentzaco; ucatu eguizuz ceure erruac, eta sinistu daguien eguia diñozula, ezarri eguiozuz zure buruari maldiciño icaragarriac; emon eguiozu Juezari diru zati andiren bat; eroan eguiozuz erregaluren batzuc sententia ondo emon deizun. Baya ¡ay! eztau juicio atan onelango asmuac balioco. Alperric izango zara mundu onetan guizon altsu, eta escu edo poderio andicoa; alperric euquico dozuz adisquide andiac; alperric yaquingo dozuz auciric oquerrenac arteztuten; alperric izango zara ondasuntsu bat, eta diru ugarien yaube, etzaituez libraduco egun icaragarri eta aserre atan¹⁷⁷. Orduan bai idigui-co dozuzala beguiac ezagututeco ce guichi balio daven Jaunaren aurrean trampa eta engañuac eguiten yaquiteac; auci deunguea dagoanean testigu guzurtiac eroatea; Juecen beguiac diru eta erregaluacaz itsututea; eta beste mundu onetaco aucietan eguiten oi direan asmuac. Mututu, arritu eta lotsaturic gueratuco zara, lapur bat ostu daven gaucea escuetan davela artuten daveanean gueratu oi dana leguez, diño Jeremias-ec; edo andra ezconduac bere senarrac bestegaz pecatu eguiten topetan daveanean leguez. Cc., idigui daiguzan nos edo nos geure arimaco beguiac eta ezagutu daigun ce guichi balio daven mundu onetan andi edo miragarriztat daucagun guztiac; eta ezau-era onegaz eguin daigun aleguina benetaco arimaco ondasunac batuteco, bada euracgaz eranzungo deutsegu Jaungoicoaren justiciac eguingo deuscuzan cargu icaragarritzat. Euren itzaltasuna da Sermoiaren bigarren zatia.

¹⁷⁵ Statuam contra faciem tuam.

¹⁷⁶ Si laveris te nitro et multiplicaveris herbam borith maculata es in iniquitate tua.

¹⁷⁷ Argentum eorum et aurum eorum non valebit eos liberare in die furoris Domini.

Bigarren zatia

(200) 7. (200) Ezteuscu ecec beré obeto adierazoten Jaungoicoaren gubahanaco ontasun, biguntasun eta amodioa, eguin deuscuзан mesede neurribacoac baño, diño S. Juan Crisostomo-c. Euretán dacuscu Aita maitetsu, arduratsu, eta samur bat, ceinegaitic esan gueinquean eztavela beste cereguinic euqui gu ondo ifintea bashen. Euren gomuteac eguiten gaituz esquer oneco Jaun ain on bat ganaco. Berac maitarazoten deuscu ain laztan izan gaituzana, ezagutu eraguiten deuscu ceimbat zor deusagun, eta garoaz zor au aldogun guztia paguetara. Pecatu eguiten badogu, gomuta onec emoiten deuscu icharomen edo esperancea, eta gaucaz desesperaciñoan yausi ez gaitezan; bada iracazten deuscu andiac badira beré gure pecatuac, guztiz dala andiagoa bere erruquitasuna, eta parca escatuten badeutsagu, beti dagoala prest, eta besoac zabalic, ez bacarric parcatuteco, baita bere bularraren contra estutu eta laztan gozoac emoiteco, graciaren soñeco ederragaz apainduteco, eta bere seme maitetzat bere etsean euquiteco. Baya mesede andi oneec mundu onetan bici garean artean gure pozgarri badira, gure condenagarri izango dira juicio atan, eta euren ganean eguingo yacuz cargu gogorrac. Eurac ezagututen emongo davee ceimbat eguin daven Jaungoicoac gu salvetaco, eta ce gichi eguin dogun guc, eta condenetan ez gareala Jaunaren erruz, ezpabere gueurez.

8. Yarriric bada yar lecu, edo tronu bildurgarrian, eta iminiric zu bere aurrean, asico yatzu contu ceatz eta estua artuten¹⁷⁸. Emon eguidazu ceure bicico contu, esango deuscu arpegui aserre eta itzaltsu bategaz. Ce irabaci atera dozu ceure ardurara ifini nituzan talentu edo diruacaz. Cer eguin dozu emon neutsuzan ondasunacaz. Ea Aingueruac, Jerusalem santaco auzoac, juzgadu eguizue nire eta guizon onen artean. Ycusi eguizue nire berauganaco ardura, amodio eta ontasuna, eta beronen niganaco astuntasuna ce neurriba'coac izan direan eguin deusadazan mesedeac, eta ce arrigarria ta esquerguea biurtu deustan esquer deunguea. Nic eguin cindudazan ecerbere ezetatic, guizon esquer gaistocoa, eta emon neutsun arima bat neure antz edo irudira; eguin cindudazan mundu guztico aguintari, eta ifini nituzan gauza guztia zure escupean. Ceruric imini banevan; luurra eguin banevan, ichasoac izaiteric artu beeban, abere, arbola edo zuaitz, mendi, arri, ur, su, eta beste gauzaric badacutsu; guztia eguin nevan zure oneraco. Neu izan nas ceure aita bigun, maitetsu eta

¹⁷⁸ Redde rationem villicationis tuac.

arduraz bete bat; neure escuetatic euqui dozu bear izan dozun guztia: osasuna, bicitzea, yanaria, yaztecoa, eguzquia, euria, eta beste gauza guztiac. Aberats izan bazara, euqui badozu ondasunic, diruen yaube izan bazara, neuc emon deutsut. Eztozu euqui, eta ecin euqui beré eguin cinaian nic emon bagaco gauza onic. Eta baderichazu au guichi dala, beguira zer izango zan zugaz eguin ezpaneutsu gogoac emon al leiquean mesederic andiena? Cengoan pecatupean Demoniñoaren aguindu gogorraren azpian presondegui edo carcela ilun, itzaltsu eta atsituan, zaurituric, gueshoric eta negargarrizco eriotzara condenaduric. Etzeuncan noc atera cenguizan, neuc zure erruqui izan ezpaneu. E-nintzan contentadu, eta ezneutsan asco erechi nequezco estadu onetaric zu aterateari, erantadu ta eregui gura izan cindudazan neure seme maite izatera, ceruco ondasun guztien yaubeguei edo herederu, eta ceruco erreinuco Principe nagusi. Zuri neurri bagaco mesede au eguiteco e-nevan biraldu Patriarca eta Ygarla edo Profetaren bat, ez santu edo beste guizon andiren bat, ez Aingueru, Querubin edo Serafinen bat. Neu neu, neu yatzi nintzan cerutic lurrera, artu nevan zure izaitea, eta eguin nintzan guizon. Zugaitic yaio nintzan abelechechu baten; lenengo euqui nevan oea ascachu bat izan zan, lastoac baño beste erropa ta soñeco bagaric. Zugaitic bici izan nintzan gose, egarri, neque, lan, eta pobreza artean. Zugaitic irago nevan negargarrizco pasiño cruela, zugaitic artu-nituzan bostmilla azote ta gueiago, euqui nevan neure buruan aranzazco coroi gogor bategaz, eta gueratu nintzan zauri andi bat eguinic burutic beatzera. Zugaitic galdu nevan neure bicitzea lotsaariz beteric (201) curutze baten, ultze gogorracaz yosiric.

(201)

9. Andiac izan badira bere mesede guzti oneec, e-neuntsan orregaitic asco erechi, baita ecarri cindudazan Elesha Santara, non ifini neutsuzan Sacramentu Santuac ceure argaltasuna gaitic, nosbait yausten baceinean beré, ainche ceuncan penitenciaco Sacramentua graciara biurtuteco. Ainche egon nas zure lagun eguinic, eta nai cenduan guztian yarriric neugaz mai baten yan cenguian neure gorputza. Ecin ucatu cinaiquez mesede guzti oneec, ce mundu guztiac daquiz, testigu dira Aingueruac, testigu cerua, testigu luurra, testigu nire escu, oiñ eta bularrean dacusuzan zauri oneec; eta testigu curutze au, non emon nevan azquenengo arnasea. Orain bada esaizue cer gueiago eguin bear nevan guizon onegaz, eta e-nevan eguin¹⁷⁹. Baya a Seme gogorra, O maztui madaricatua, uste nevanean birtute eta santidadearen fruta eta maats gozoac emongo cenduzala, eztozu eca-

¹⁷⁹ Quid ultra debui facere vineae meae, et non feci.

rri sasi, eta arantza gogorrac baño, ni barriro zulatu, zatitu, eta zaurituteco. Nos dei andiagoac eguiten neutsuzan, orduanche niganic urrinago igues eguiten cenduan; nos berba gozoago eguiten neutsun, orduan lotsabacotasunic andienagaz botaten cenduan nire leguea, eta esaten ceustan: Eztot gura zure zerbitzalle izan¹⁸⁰. Nire Aingueruac, izan zaitece Juez nire eta guizon onen artean, eta esaizue cer eguin behar dodan beronegaz. Ne.Ca., cer eranzungo deutzazu orduan Jaun oneri? Ce descargu emongo deutzazu? Eztozu aurquituco cer esan. ¡Ce larritasuna zurea! ¡Ce estutasuna! ¡Ce bildurra, icusiric ceure burua infernuco demoniñoen escuetan yausi aguinean! Cer eguingo ceunque ordu atan santuric andienen merecimentu guztia euqitarren? Ai, eta celan guraco dozun ceure bici guztia igaro bacedu penitencia, nequegarri, barau, gaubela eta oraciño artean! Celan guraco dozun santu andi bat baciña; iños icusi ezpacenduz orain aimbeste gura dozuzan atseguin, olgura, yolas, dantza, ondasun, yoco, edaari eta beste gustuac.

10. Orduan esango dozu: ay orain baneunco araco arpelic galdu nevan demporea, araco cetan irago e-nenquizan ordu eta egun osoac, neure pecatuen penitencia eguitemo, eta arimaco ondasunac irabazteco. Eta ce poz, ce atseguin artuco ceunque esango baleutsu Jaungoicoac biurtu zatezala mundu onetara urte bete edo bico! Eta esan eguidazu igaroco ceunque demporea, orain igaroten dozun moduan? Biurtuco cinatequez orduan oraingo pecatuetara, ordiqueria, murmuraciño, loiqueria, dantza, yolas, eta beste gustu citaletara? E-tzeunquez beguiratuco zoraqueriatzat mundu onetaco ondasun, anditasun, onra, eta arroqueriac? Etzeunque bene benetan artuco penitenciaco bidea? Baya ¡ay Ne.Ea.M^a, ezyatzu emongo orain emoten yatzun demporea. Alperric dei eguingo dozu araco doncella zoroac leguez: Jauna, Jauna, emon eguidazu obra onac eguitemo aztia. Ce eranzungo deutsu Jaunac a-ei erantzun eutsena leguez: zarratu zan atea¹⁸¹. Aztia ceuncanean, etzenduan gura izan: bada orain gura dozunean, echatzu aztiric emongo¹⁸². Sarri ta sarri demporea zan artean opa izan neutsun neure laguntasuna, idiguiric equi nituzan neure misericordiac ateac, eta etzenduan euretatic sartu izan gura: ya zarratu dira, eta [ez] dira gueiago idiguico¹⁸³. Nogana biortuco zara ordu atan, pecatari tritea? Nori erregutuco deutzazu? Ama Virginia Santisimeari? Ay berac erantzungo deutsu bicitzea iraun eutsun arte

¹⁸⁰ Confregisti jugum, et dixisti non serviam.

¹⁸¹ Clausa est janua.

¹⁸² Clausa est janua.

¹⁸³ Clausa est janua.

guztian egon zala prest zure erreaguac enzuteo, sarri ta sarri gura izan evala bere bitartecotasuna billatu cenguian; baya etzendum nai izan, eta edonos ecer escatu bacendum bacarric izan zala devociño bagaric eta oztasun andi bategaz; irago dala demporea, eztala ya ama bigun samur eta erruquiz betea leen legez, ezpabere zure biotzeco gogortasunaren testigu eta salatari¹⁸⁴. Dei eguingo deutzazu zure Aingeru gordetzalleari. ¡Ay! eranzungo deutsu, amaren sabelean sortu cineanetic, eta orduraguñño euqui davela zure ardurea, etzaituzala eguño bere bacarric ichi, beti beti eguin davela aleguina Jaungoicoaren bideetatic eroateo; sarri eta sarri atera gura izan cinduza-
 (202) la (202) pecatutic penitencia eguiteo arguialdiac biralduagaz; baya etzendumzala artu gura izan. Amaitu ta azquendu zala bere demporea, eta eztaucala zugaz cer eguinic¹⁸⁵.

(202)

11. Cer eguingo dozu orduan, peccatari necatua? Jueza aserraturic, bere ama gorric, Aingeru yagoleac yaramonic ez eguin, eta ceru luur ta ganeco (Jgc. eguinic) gauza guztia zure contra. Guztiori larritu, eta estuturic, guraco dozu yaio ezpacina, eta icusiric au ecin dan gaucea dala, asico zara negarretan urturic esaten mendiai: yausi zaitece nire ganecan, eta azpian artu naguizue; eta achai eztaldu naguizu icusi eztaguidan araco yar-lecu icaragarrizco atan yesarriric dagoan Juez aserratua, baya echatzu au autortuco ez emongo. Ebilico zara eriotzearen atsean, eta eztozu aurquituco: guraco dozu il, eta eriotzeac igues eguingo dau zuganic. Ainche egon bearco dozu Demonioñoz inguraturic Juez aserratu baten aurrean, cein doian ceure sententia emoiterra. ¡Ce larritasuna! Ce atsacabea! ¡Ce bildurra! ¡Ce esturea! Sentenciaren beguira egon bearra, yaquin bagaric cer enzungo daven Jaunaren aotic: ala berba gozo ta amudioz beteac, ala berba astun, gogor, eta odoi edo trumoe bat bashen itzaltsuagoac. Alde batetic Aingeruac, sententia ona emoten bayatzu, euren erdian artuta cerura eroateo betico atseguin eta zorioneco azquen bagaco pozaldietara, eta, beste aldetic, Demonioñoz cruelac amurraturic sententia deunguea emoten bayatzu, zure ganecan ezarriric catee sendoacaz loturic beti betico suetara eroateo.

12. Cristiñauñac, ¿ba'ucagu federic, ba-ucagu errazoeric? Sinistuten dogu gura ta gur'ez icusico gareala icaragarrizco estucuntza onetan? Bayetz, eranzungo deustazue. ¿Bada non da gure fedea, non da gure sinistea? ¿Non da gure errazoea? Sinisturic dempora guichi barru aurquituco gareala modu itzaltsu onetan, eztozu ardura gueiago

¹⁸⁴ Clausa est janua.

¹⁸⁵ Clausa est janua.

ifinten sententia on bat merecietaco lauzuri edo laumarai balioco ezpaleuena leguez. Andia da celambere gure itsumendia; eta gogorra baño beré gogorragoa gure biotza, bada yaquinic, sinisturic, eta confesaduric gosh edo berandu nai ta nai ez aurquituco gareala egotaldi garratz, eta trance esquerga onetan; egon gura izaitea sententia gogor bat euquiteco peleburuan, eta enzuteco Jaungoico baten aotic: Zoaz madaricatu ori betico suetara. Gura dozu bota deizun Jesus onac sententia bildurgarri au? Enzuteac bacarric laztuten dituz ulleac. Nai dozu esan daizun: erdu bedeincatu ori. Aita beticoac zuretzaco gorderic daucan erreinua artuten? Noc enzun guraco eztau ain berba gozo ori? Bada ceure escuan daucazu. Au alcancetaco bear dozun guztia emoten deustu Jaunac. Baya cer eguiten dozu onetaraco? Ce ardura ifinten dozu? Bapere ez, Cc., bapere ez, eta orregaitic esan leiteque ezteutsula arduraric sententia onac edo charrac urten, edo obeto esatearren condenaciñoco sentenciaren billa zabiltzazala, bada aleguin guztiagaz zabiltz zeure eguiguera edo obra condenagarrietan. Yagui zaitetz nosbait pecatuaren lo zorro orretaric, eta asi zaitetz sententia on bat mereci izaiteco moduac artuten. Ara emen sententia au emongo daven Jauna. Ara ce otzan, edo manso, ce bigun, ce erruquior dagoan besoac zabalic prest zure erreaguac enzun eta zure pecatuac parcatuteco. Orainche eldu bear zara erruquizco demporea dan artean, eta atea ichi baño leenago, ce bein zarratuten bada zarratu, eztozu aurquituco noc eranzun deizun. Ez eguizu luzatu, bada eztaquizu nos zarratuco dan dempora au, eldu zaitetz beragana. Aita bigun, samur eta maitetsu dan artean, baqueac eguizuz beronegaz, izan ez daquizun guero Juez gogor, eta erruqui baguea. Escatu eguiozu garbitu zaguizala orain bere odolagaz, aberaztu zaguizala bere ondasunacaz, guero entzun daguizun bere aotic betico iraungo daven bedeincaciñoa; esan eguiozu onetaraco Neure J.C^o. Jauna.

3. INFERNUAREN GANECO SERMOEA

(B, 133-138. or.)

Dominus dabit ignem, et vermes ut urantur et sentiant usque in sempiternum. Judith, cap.16.v.21.

(133) 1. Eztago neure cristiñauac, mundu onetan infernuarena baño beguiraune eta gogoeta bildurgarriagoric, eta alan guztiz astun eguiten yaque, eta garratz euren guraari cital eta pecatuetan sarturic bici direanai: bere icena enzunagaz beste bagaric, icaraturic gueraturen dira deseperaduric legue-che, baita gomuteac betetan deutsez beztun minez euren gozotasun eta olguraac. Orregaitic e-neunque bere ganean barbaric eguingo, banenqui ni ishilic egonagaz amatau edo guichituco litzatequezala ango suac, edo berba eguinagaz gueiagotuco lichatequezala; baya ez berba eguin arren gueiagotuco dira, ezta ishilic egon arren guichituco beré; nai berba eguin, nai eguin ez, beti sen baten izango dira; ni ishilic egon arren, etzare andic librauco, eta bear bada nic berba eguin-da, etzare an yausico, ce dirauscu S. Juan Crisostomo-c eztagoala Ynfernua beguien aurrean equitea langoric infernura ez yoateco, arimaco pecatuen orban edo loique-riac garbituteco. Ango suen ala, eta zorigogor icaragarrizcoen gomuteac pecatari chito asco ta andiac atera dituz ecandu deungueetatic, eta ameneco beste onenbeste zuei yazo lequiquezue. Orregaitic, bada, iminico deusuet arraztegui onetan ceuen beguien aurrean Ynfernuc mineen anditasun esquerguea, zati bitan: lelengoa da suac an emoiten daben tormentua, eta bigarrena concienciaco arrac emoten dabena.

Lenengo zatia

2. Esanic J.C^o.c arpegui aserre ta berba gogorraz pecatari galduari: «zoaz ortic zorigogorreco ori, Diabruentzaco iminita dagozan suetara»; yausico da araco lecu ilun eta itzalera, non guztia da nequea, lana, atsacabea ta argui-ba'co sua: non eztagoan gauza onic, ez artezic, ezpabere deadarra, negarra, ulua, garrashia ta arrabia. Eztau lecu onetan euquico condenadu tristeac atseguin ez argui pusca bat;

eztira iños beré ala eta tormentuac azquenduco, ez guichuituco; ez tira bere negar ampuluac eguño beré leortuco. Egongo da gosez amurururic, eta echaco ogui apurchu bat beré emongo: egongo da egarriz itoten, eta echaco ur tangachu bat beré emongo, emon echacana leguez ainbeste milla urte onetan araco J.C^o.c evangelioan diñoan aberatzari. Guztia izango da mina, guztia ala, guztia zorigogorra, guztia amurrua; bere alde eta sensun guztia egongo dira, esan beré esan ecin leiquezan min-alez yosiric. Beguiac aimbat Demoniño ain ezain, eta icaragarri icusiagaz: cé bat bacar-bacarric mundu onetan aguertuco balitz, bera izango litzateque asco, guizon guztia ilic gueraturteco. Belarriac eztabe enzungo deadarra, negarra, cispurua, incirria, garrashia, biraoa, ta blasfemiac bashen. Suurac euquico dituz asufre, uya eta beste qué atsitu quiretzacaz, eta ainbeste condenadu ustelen usain atsagaz beteric. Gustua beztunic mingotzenagaz, eta beneno gogorenagaz: azquenean, barriz, gorputz guztia euquico dau erreric, burdiña gori bat suteguiti urte-itorduan dagoana leguez.

3. Yatsi gaitezán, neure Cristiñauac, gure arimaco beguiacaz lecu atarache, baita icusi daigun su icaragarri au. Contu daigun suzco edo berun (edo plomo) urtuzco ichaso bat iraquiten: anche condenadu tristeac sarturic arrañac ichasoan dagozana legue-che, euren alde guztietatic sua dariela: aotic sua,urretatic sua, belarrietatic sua, beguetatic sua, escu, oin, sabel, eta beste alde guztietatic sua: bere garaun, odol eta araguaia urturic, eta iraquiten: an guztia dagoz bata besteen contra estuturic, sardinac otsaran legue-che, cirquinic beré ecin dabeela. ¡Ah ce bici-modu negargarria! ¡Ce egocuna bildurgarria! ¡Ah icustecoric erruquigarriena! Baita ¡Ah pecatuaren malicia esquerguea! Baya oraindocoarren cerbaist obeto ezagutu gura badogu infernuco necatuen egoquera itsaltsua uste eguizue guizon bat dagoala buruco min andi bategaz, beguiac canpora urtenic, belarriac andituric, aoa pustulaturic, aguinac alez ausiric, azurac urraturic, (134) araguaia ustelduric, escuac ebaguiric, oñac zapalduric: batetic alboco mina, bestetic tripa alac, samaan garrotilloa, oñetan errematizmu gogorra; calenturaz erretan, egarriz itoten; eta escu, oñ eta beste alderic minarren bateric bestera eroan ez mobidu ecin dabela. ¡Ce icusgarri erruquigarria egongo litzateque! ¡Celango negarrac eguingo leuquezan! ¡Ce inciriac! ¿Noc bere erruqui euquico eleuque?

4. Bada ará, neure Cristiñauac, au guzti au ezta infernuco penaric chiquienen guericea beré, bada ac guizon ac equi leique oe bat, edo bai guichienez lurra non echun; baya infernuco tristeac eztauco su icaragarzico bat bashen non echun. Guesho ac artu leique atseguin apur bat bateric bestera aldatuagaz; barriz infernucoac ecin cirquin-

chu bat bere eguin leique; ce an yausten dan moduan egon bearco dan betico. Guesho ac euqui leiquez seme, guraso, senide edo adisquideren batzuc icusi-ta consuelugarri emon leiquioenac bere erruqui izanagaz eta berba bigun eta onacaz: baya infernucoac eztau euquico bere borraru direan Demoniñoac bashen beste lagunic, eta beste condenaduac, ceintzucaz egongo dan aguinca, alcar zatituten direala, chacur amurrutu batzuc leguez-che. Guesho ac esquindu ta opa leioz Yaungoicoari bere min ta nequeac bere pecatuen ordean, ceinec emoiten daben poz-andi bat: infenuco condenaduac, barriz, ezta atseguinchu au beré ecin euqui leie, bada gorrotoz beguiratuten deutse Yaunari, eta dauque euren arerioric andientzat. Guesho ac baqui nos edo nos, eriotzeagaz baño ezpada beré, azquendu ta quenduco direala bere gachac: baya infernucoac eztauco alangoric, daquialaco betico izango direana, eta Yaungoico dan arte guztian iraungo dabela, eternidade guztiraco beragaz izango dituzala.

5. Gueratu gaitezcan pusca bat emenche, neure Cristiñaüac, eta beguiratu daigun, al dogun ondoen, cer dan betico iraupide au, caburic ez euquite au, eta iños beré, iños beré, iños beré ez azquendute au. Contu eguizue mundu guztia dagoala areaz ceruetaraguiño beteric, eta eun milla urteric eun milla urtera quenduten dala garau-chu bat. ¿Ceimbat milla millinoe urte bearco ete litzatequez area pillo au quentzeaco? Bada nos edo nos dana quenduco, ta aldatuco litzateque: barriz eztira eguño beré amaituco, eztabee iñosco aldian atsere nic izango infernucoen penaac. Ygaroco dira egunac egunen atsean, asteac asteen atsean, ilac ilen atsean, urteac urteen atsean; igaroco dira eun urte, igaroco dira milla urte, igaroco dira amar milla, eun milla, igaroco dira milla milla millinoe, eta beti egongo dira infernuco necatuac leengo lecuan erre eta quisquilduten. Asico da beguiratuten ea icusi ta beguiztau aldaian, urrunetic baño ezpada beré, bere icaragarrizco neque ta zori gogorren azquena, eta eztau icusico, eta gogoeta onec, pensamentu oneshec emongo deutso, min eta alaric andiena. Negarretan urturic esango dau erremedio-ba'co cispuru artean: ¿Nos acabauco dira tormentu icaragarri oneec? Iñoz beré ez. ¿Nos amatauco da su au? Iños beré ez. ¿Nos guichituco dira ala eta min oneec? Iños bere ez ¿Nos urtengo dot emetic? Iños beré ez. ¿Noc nire erruqui euquico dau? iñoc beré ez. ¿Noc pozaldichu bat edonos emongo deust? iñoc beré ez. ¿Eztago niretzaco erremedio-ric? ¿Emetic milla urtera ezta izango? Ez. ¿Emetic amar milla urtera? Ez. ¿Emetic milla millinoe urtera? Ezta beré.¿Cer eguingo dot bada? ¡Ah ene tristea! egon-da egon: erre ta erre: quisquildu ta quisquildu; desesperadu (ernegau, amurrutu), aguinca eguin nire aragui (buruari) arrabiaren arrabiagaz, negar, cispuru ta garrashica

secula betico egon. Onelanche dago, neure Cristiñauac, Cain zori-galducoa igaroco sei milla urte oneetan, eta alanche egongo da gueure Yaungoicoa Yaungoico dan arte guztian, beti, beti-betico. ¡O betico zori-gogorra! ¡O azquenba'co iraute beticoa! ¡Ce latz, eta ce itsaltsua dan zure gomutea! Eta orregaitic beré ain da gogorra gure biotza ce, au guzti au ezta asco ardura artu erazoteco lecu atatic alde eguiterren.

(135) 6. Yaigui gaitezán nos edo nos lo zorro onetatic, eta enzún daigun S. Juan Crisostomo-c dirauscuna. ¿Ceimbat urte bicico zareala uste dozu? Itanduten dau Santu andi onec. Elesha onetan gagozanac eranzun bear bagueunsequio, esango gueunque batzuc oguei urte; beste batzuc ogueita bost, edo berroquei. Baya daigun eun urte bicico zareela, edo gueiago; baita gura b'ozue Juicioco egunera artean; (135) bitartean, barriz, bicico zareela gura dozuen atseguin, olgura, pozgarri eta gozo artean: ta beingoan esateco, guizon batec mundu onetan gura al leiquezan zorionez beteric, edo esan daroaguna leguez, esnetan legue-che. Baya ecin aurrera igaro cinaitequece: gosh edo berandu etorrico da zure bicitzearen atserengoa. Baita orduan, ¿cer izan zala usteco dozue bici izan zareen dempora guztia? Bart eguin dozuen loa, edo amesa langoa. Ezpabere esan eguidazue, ¿cer derichazue dala bici izan zareen arte guztia? Derichazue atso cembiltzela oraindio ume, zuen lagunacaz yocoan, edo enredetan eta olguetan. ¿Ceimbat bidar esan daroazue araco ume edo gazte demporaco (egunetaco) gauzaren bat conteta-orduan, eta esan ezquero ceimbat urte igaro direan yazo zala:¿ce laster doazan urteac! Atso yazo zala uste dot. Bada eztira gueldiago igaroco ganeco urteac atsean ichi dozuezanac baño. Orregaitic ciñoan Job santuac: emacumea (andrea) ganic yaio-co guizona dempora (apur bat bici orduco) guichi barru betetan da gachez: urteiten dau lora eder batec leguez, eta lei otzac edo eguzqui beroac yo orduco, guericac legue-che iñesi eguiten dau: eztago iños sen baten. Ume demporea doa sensun bagaric, eta ecer yaquin ez ezagutu bagaric: bator gaztetasuna, eta eldu orduco beingoan gagoz atso-agurac eguinic: gueure bici guztia gueroco beticoaren parean puntuchu bat da, begui ichi-idigui bat, edo obeto esatearren, ecerberzqueria bat. Itandu daguiogun ezpabere Caineri; ea cer derichan mundu onetan bici izan zan demporeari: eta eranzungo deuscu, ozta gomuta dabela bici izan zanic: urrunera beguiztetan dabela bere bicitzea puntuchu chiquer, nequez icusi leiquean bat leguez, eta beguitanduten yacala yaio orduco il tzala. Aushe diño orainche, neure Cristiñauac, infernuco guztia: Escritura Santeac dirauscuneti¹⁸⁶, eta aushe berau esango dozue zuec beré, zori-gogorrez

¹⁸⁶ Nos nati continuo, desivimus esse. Sap.5.v.13.

an yausten bazare. Eta orregaitic beré dempora apur, pusca onegaitic, eta berean euqui al daguizuezan gustuchu beingo bateco batzucaitic, gura dogu arimea galdu beti-betico? Neure Cristiñaiac, ezgaitzezan ain zoroac izan; ucatu daioguzan gorputzari bere guraariac, izan ce-din euren gomutea infernuan gure (arerio ta) nequeric aserreena: eta aror non daucazuen

Bigarren zatia

7. Ecin esanezcoac, eta guztiz icaragarriac dira, benetan, infernuco suac condenaduai emoiten deutseezan min-ala eta tormentuac; baya eztira, ez, chiquerragoac izango concienciaco arrac emongo deutseezanac. Gauza bigaz egongo da ar au gau ta egun aguinca zatituten ta urratuten infernuco tristearen biotza; igaro dabeen bicitzea gomuteagaz, eta galdu daben ceruco gloriaren anditasunaren ezauquereagaz. Etorrico yacaz burura, diño Espiritu Santuac, bere pecatu guztiac¹⁸⁷, eta mundu onetan eguin cituzan gachac (oquerqueriatic) izango dira bere salatari, edo acusadoreric aserreenac. Gomutauco dau ce erruquiorra dan Yaungoicoa, eta cembat bider atera gura izan daben (eban) pecatutic: onetaraco biraldu eutsazala gachac, nequeac, pobrecea, eta lanac: onetaraco dei eguin eutsala batzuetan bere biotzera bialduten eutsazan argui-aldiacaz, beste batzuetan predicadoreen, eta confesoreen bitartecoz: sarri ta sarri bildurtu gura izan ebala, orain daucazan tormentu icaragarrien gomuteagaz; barriz berac beré biotz gogorragaz guichitan euqui cituzala Yaungoicoaren ardura guztiac, eta gurago izan ebala bere gurari citalai yarraitu, ecen-ez Yaungoicoac eracusten eutsan bideti ibili. Pensamentu onecaz amurruturic usica eguingo deutse bere araguiari (buruari), zatitu, eta urrutuco dituz aguinca, beteco da tristeza itzalez, eta esango dau damu eta garbai ecetaco eztan bategaz. ¿Non dira orain araco nire adisquide eta lagun maiteac, ceintzucaz aibat pozegaz neucazan (euqui oi nituzan) nire guraariac, olgurac (dantz), eta yolasac? Non dira araco oe bigun ta astinduac (astin eguinac), non araco yateco, ta edateco gozo zalegarriac? Non dira munduan neuncazan atseguinac (atseguintasunac)? ¿Non dira araco soñeco eder eta baliozcoac, neure burua apaindutearren, eta munduaren aurean (beguietan) eder iruditerren, precioari beguiratu bagaric, eta bear izan bagaric (ez nituzala) erosten nituzanac? Cer ba-

¹⁸⁷ Venient in cogitatione peccatorum suorum timidi. Sap.4.v.20.

(136) lio deuste orain araco aimbat arduraz, aimbat icerdiz, aimbat gaubelaz, aimbat trampa ta engañuz baturico (batu nituzan) ondasunac?¹⁸⁸. Cer balio deust orain nire asco-erechiac, andigureac, aguintari izanac, eta gura neban guztiagaz beti urteinteac?¹⁸⁹. Cer balio deust orain neure aide, eta adisquideac ondo acomodeteac, izan bazan injusticiagaz, eta beste obeago bateri (136) emon bear yacana-gaz? Ygaro cirean direanac odoi guericea igaro oi dana leguez, yoan cirean egaz aidetic doan (yoan oi dan) choria leguez oñatsic ez igargarriric ichi bagaric (Sap.5.). Eta ceimbat e-neban burua galdu arean balio ezteusten guraari ta ondasunacaitic? Gau ta egun egon niñ oan arteric artu beré eguin bagaric, burua austen, nondic nora gueien irabacico neban: ¡Nic icusi nituzan otzac, beroac, indriscac, iñastasiac, euriac, edurrac, diru apur bat irabaztearren! ¡Galdu nituzan gau ta gaberdic neure loiquerietaco lagunacaz egotarren, eta iñoen gaucea ostutearren! ¡Ah! beste onenbeste eguin izan baneu neure arimeagaitic! ce beste modutan icusico neunquean nic orain neure burua! Errazago izango neban cerura yoatea, erabili dodazan bideetatic ibiltea bashen¹⁹⁰. Adu-galducoac izan daitezala, arren, nire lan eta neque guztiac: adu-galducoac nire gustu citalac; adu gogorrecoac gorputza ondo euquiteco emon nituzan icerdi eta pausuac: adu-gogorrecoac pobreai emon bearrean, aberaztuteco, eta gorderic euquiteco batzaindu nituzan diruac eta ondasunac, baita adu-gogorrecoac nire gorputza, cein libradu ecin izan dabeen arrac'anic nire aleguin guztiac, bada orainche dago ustelduta (obia edo sepultura baten) lurpean, eta nos edo nos etorri bearco dau su icaragarrizco oneetara. Oneshec dira, neure Cristiñauiac ango soñu, canta eta berbaicunaac¹⁹¹.

8. Bigarren, concienciaco arrac infernuan dagoanari emongo deutzan, paratzagaco usicadea izango da burura ecar-arazotea santuac ceruan dauquen zori-on ta suertea. Ycusiric euren gloria, eta zoragarrizco pozac, beteco da atsacabez, eta gogaitgarrizco tristuraz, eta negarretan urturic, ta ai-aica itsalacaz esango dau: ¡Ay! Ara celan dagozan Yaungoicoaren seme egin-da, munduan bici guinean

¹⁸⁸ Divitiarum jactantia quid contulit nobis? Sap. 5.v.8.

¹⁸⁹ Quid nobis profruit superbia? ibi.

¹⁹⁰ Ambulavimus vias difficiles. ib.v.7.

¹⁹¹ Talia dixerunt in inferno hi qui peccaverunt. ib.v.14.

artean araco nic guichitan neucazanac. Nic ecetan beré e-neucazan, araco nire asmu eta trampac, eguin gura etzituezanean, burla ta barre eguiten neuntsen, ni leguez etzebiltzalaco danzetatic, yolas eta dibersñoetic, eta lagundu gura ez eustelaco (meriendetan) gaubaz ibiltan, lapurretan eguiten eta tabernara yoaten. Simpletzat neucazan sarri confesetan cirealaco, Eleshan errecetan egozalaco, al eiezan sermoiac enzuten cituezalaco, eta pecatu zala enzuten ebeen (gauzaric) guztia eguin gura ez ebeelaco. Escrupuloso batzuc cireala esaten oi neban, yai-egunetan bearric eguin gura ez ebeelaco, gugaz batu gura etzirealaco, berba arinic esaten baguenduan aguiraca eguiten euscuelaco, eta gueure eroqueriac enzun gura etzituezalaco. Neu bai izan nasala zoroa eta sensunba'coa. Ycusico dau guizon aberats cequen-escu-eutsiac gloriaco atseguin artean araco berac ateetatic limosna bagaric deadarrez eta aguiraca quendu eban pobrechu billos eta goseac-ila: yaquingo dau Yaungoicoac biraldu eutsala bere atetara, eta orduan limosnea eguin baleutso, Yaungoicoac beré sarri biralduco eutsazala gracia gueiago eta salbaduco zala, eta ez emonagaitic dagoala su a-etan quisquilduten. Ycusico dau seme galdu, gueisto, eta aguindu-charrecoac Angueru artean bere ama, no-en esanic eguin gura izan ez eban, baita ezagutuco dau a-en aguiracac, ta oñoteac bere oneraco cireala: aguinduten beutsan gaubaz echetic urten ez eiteco, goshetic echera etorteco: esaten eutsanean etzediala lagun deungacaz batzaindu, ez cedila yocoan imini, igues (alde) eguiala nescatillac'anic; chochaturic egoala esaten ebala; baya bera izan zala benetaco sensunbagea, bere conselluen yaramonic eguiten ez ebanean. Ycusico dituz besteac arguiz yantziric, eta ceruco principe eta jaun andi eguinic araco berac bere loiquerietan, lapurrerietan, eta ordiquerietan equi cituzan lagunac: baita berac eguin gura izan ez eban, penitencia eguin ebeelaco, libradu cireala berac daucan suerte zori-gogorrecotic, eta dagozala Yaungoicoaren seme eguinic, bera barriz Demonioaren menpeco ta aguinduco. Ezaüera onegaz beteco da amurru gogorrez, diño David Erregueac, aguincac carrazcada bildurgarriac eguingo dituz; ta bere artean carramaratu ta arrabiauco da¹⁹².

9. Amurruturic (ernegauric) gogo aldi (gogoeta) oneecaz, biurtuco da bere buruaren contra, apurtuco dituz bere araguiac eta icusiric eztagoala iñondi beré erremedioric (urteiteco bideric), eta zarraturic dagozala beretzaco misericordiaren ateac esango dau negar, larri, eta garrashi artean: *Ergo erravimus a via veritatis*¹⁹³. Neuc, neuc dau-

¹⁹² Peccator videbit et irascetur, dentibus suis fremet et tabescet. Psalm. 111.vers.10.

¹⁹³ Sap. c.5.v.6.

(137) cat errua, neuc uts eguin dot: gura izan baneu neure escuan neuncan cerua, ce neure borondatera, neure auquera, ta escogiara ifini eustan Yaungoicoac; baya nic gurago izan neban neure guraari citalai (137) yarraitu, Yaunaren leguea gorde baño, eta orregaitic uts eguin dot bidea. *Ergo...* Sarri ta sarri esan eusten confesoreac cer yazoco yatan, ichi-ez-ic yoco larreguiari, taberneari, (danzea), eta beste pecatu-bide galtzaigarriai; baya nic uste neban ce estueguiac cireala confesoreac. Sarri ascotan esan eusten predicadoreac Demonioaren asmuac gu galdutecoac cireala, guc mutil-necatillac alcarren artean eguiten guenduzan batzaarrac, canta zoroac, danza, eta yolasac; ichi nenguiola birao eguiteari; biurtu nenguizala lapurreriacaz, trampacaz eta engañoacaz batu ta artu nituzan gauzaac, nic barriz enituzan eguin gura izaiten, nic neucazan chochaqueriatzat ta escrupulutzat: uste neban ece gu bildurtutearren esaten cituezala onango gauzaac: baya orainche dacust eguia ciñoela, eta neuc uts eguin nebala. *Ergo...* Orainche gomuta dot araco lagun gueistoagaz eguin neban pecatu loa; andishec erne yatan ecandu citala; ceimbat aciago aimbat eta indar gueiago artute'eban, eta ibili ta ibili berac onashe ecarri nau: Orainche gogoan dodaz, araco nire artu-emon, eta saldu-erosi oquerrac aberaztu gureagaz eguin nituzanac: beti neuncan bildurra eguin al baneban ala ez; baya diru zaletasunac (irabazteco amurruac) itsutu ninduan, eta eneuntzan causiñoric eguiten; baita alan galdu nintzan betico. *Ergo...* ¡Ah! Urliac eta urleciac eguin ebeen penitencia eguin baneu, ¡ce zori-onecoa izango nintzan ni orain! A-ec nire lagun izan cirean; neugaz eguin ebeen pecatu, neugaz naste ibili cirean ordiquerietan, lapurrerietan eta loiquerietan: baya demporaz acordau cirean; ichi ninduen ni, eta eguin ebeen euren pecatuen penitencia: zorotzat neucazan nic orduan: gura neban lengo moduan ibili citezan; baya eurac euqueen sensuna, neu barriz nintzan zoroa ta sensunba'co utsa. Amaitu zan a-en penitencia, amaitu cirean nire gustu lotsagarriac beré, baya ezta azquendu, ez azquenduco beré, ez euren gloria, ez nire tormentuac. *Ergo...* Aushe da, Cristiñauac, araco Ygcoac diñoan iños beré ilgo eztan concienciaco arra¹⁹⁴

10. ¿Cer eguingo dau tristeac bere burua alan icusita? Asico da, ea beguiztau eguin albalegui bere neque icaragarrien azquena: baya ecin. Contua ateraco dau ea oguei milla urteren buruan azquenic izango dabenez; baya eztaue izango. Ea, bada, eun milla urte-garren-go edo guichienez bost eun milla urte garren-go; baya orduan beré

¹⁹⁴ Vermis eorum non morietur et ignis eorum non exstinguetur. Isai.c. 66v.ulti.

orain leguez. Ea ezpabere milla millinoe urte igarota, edo ichasoac dituzan ur-tanga laimbeste millinoe urte igarota; baya orduan beré orain legue-che; cegaitic-ece eternidadeac, zorigogorreco beticoac eztauco azquenic, eztauco ondoric, ez ños ez izaiteric. ¿Cer eguingo dau, bada, icusiric urteiteco bideric eztagoala, eta Yaungoicoa dan arte guztiraco zori-galduco izango dala? Asico da biraoca bai biraoca. Zori-gogorrecoa izan deila arren eguin ninduan aita, zori-gogorrecoa sortu ninduan ama. Zori-gogorrecoa bedaratzilabetean erabili ninduan sabela, eta ugatza emon eustan bularra. Zorigogorrecoa yan neban oguiua, eta edan neban ura. Zorigogorrecoac niri yaioten, aciten, bici izaten eta pecatu eguiten lagundu eusten guztiac. Baita eztira emen gueldituco bere biraocac: beguiunduco yaco, Yaungoicoac, Y.C^o.c, bere ama guztiz santeac eta beste ceruco Angueru eta Santuac deutsela errua, eta eguingo dituz euren contra biraocac guztiz esquergaac, eta blasfemia enteroco icaragarriac. Baya ezteiguzan enzun; ichi daioegun lecu itzal atan dagozanai euren susterrac (izpiac) erabilten; eta iratzarturic gueure pecatuen lo zorrotic biurtu gaitezcan gure senera, baita artu daigun bertan yausi ez-eiteco modua. Ezagutu daigun, onetaraco, ce zoroac garean pecatu eguiten dogun bacochean.

11. Yzan beré, neure Cristiñauiac, non da gure sensuna pecatu eguiten dogunean yaquinic beragaitic yausi bearco gareala onango betico zori-deunganac? Esan eguidazu ezpabere, peccataria zareana zareala, iminico baleude laba, carobi, edo sutegui ondo eshetu bat, eta esango baleutsue, anche alboan dagoan sagarchu bat yan eguiten badozu (yateracoan, yatera ezquerocoan), bertatic sartu eguingo zaituezala laba, carobi edo suteguian ¿asartuco cinatequez sagarrari aguinacac eltzean? Euquico ceunque biotzic gustu cital ashegaitic su atan erreric ilteco bidean ifinten (zure burua iminteco)? Ezetz eranzungo dozu nire erechian. Eta, ¿berpertatic igaroten dan guraarichu bategaitic imini gura dozu zure burua infernuan yausteco bidean? ¿Cer dauco cer icusi mundu onetaco suric andienac, infernuco penaric (138) chiquienagaz? Guztiz andia izan arren laba, carobi edo suteguiric gorienean equi al ceunquean min-ala edo tormentua, gueien-gueien beré credo baten bitartean beré ez leuque iraungo, bada bertatic edo ito edo erreco (erre eguingo) cinatequez¹⁹⁵: baya infernuco suac ez dira bein bere amatauco, ta eztozu zeuc bein bere bicitzea galduco: beti-beticoa izango da ango errebearra. Eta alan

(138)

¹⁹⁵ (Tormenta hujus mundi) quando vehementissime intentantur, nunc maxime levia fiunt, celeriterque liberant corpore non sufficiente ad tantam vehementiam ac prolixitatem poenae. Chrisost. homil. 9 in Epist. 2. ad Corinth.

beré gach chiqui baten yausi ez-eitearren eguiten doguna, eztogu eguin gura gach, neque, eta zorigogorric icaragarrienetan ez yausteco: bertatico suari bildur andia, beticoari barriz bapere bildurric ez. Ederto baten (ondo) diño S. Juan Crisostomo-c umechu chiquerrac legueche gareala: Oneec, diño, papaoa icusten badabe bildurrez betetan dira, eta ezteutse bildurric suari (garrari); eta candela eshetua dacusen'aco, oratu gura deutse arguiari. Deshonraren baten yausico bada, lotsaariren bat igaroco bada, Erregue edo beste guizon andiren bat aserratuco bada, bertatic ichico da naien dan gaucea; barriz Yaungoicoa aserratu ez-eitearren (eiteco), eta betico deshonran eta lotsaarían yausi ez eitarren, eztogu ichi gura guraariric chiquienena, ta icusquiéna.

12. Cristiñaiac, biric bat; edo eztaucagu federic, edo ez beintzat sensunic: bada sinistuco baguendu infernu bat dagoala, eta sensuna bagueunco, ez gueunque ain ardura guichi euquico, andic libretaco. Eztaigun esan cristiñaiac gareala; eztaigun esan sinistuten dogula infernu bat dagoala, eta pecatuan ilten dana an yausico dala; ce icusiric gure bici-modua edoceinec esango deuscu, guzurra diñogula. ¡O Jesus ona! ¡O Jesus laztana! ¿Nos artean egongo gara itsuturic? ¿Nos artean izango gara zoroac? Esaten dogu eztagoala gauza gogorrororic zugaz betico aserre egotea bashen, zure gloriatic erbesteturric eta campora botaric, betico erretan egotea bashen: baya gure bici-moduac deadar eguiten dau eztogula sinistuten, ce sinistu ezquerocoan, ezguinatequez egongo neque zori-negargarrizco oneetan yausi eguiteco (yausteco) pellebruan. ¡O Jauna, Jauna! Eternidade oso baten egongo al nas zure icen santua blasfemetan, zure contra biraoca, zuri gorroto deusudala, eta zure arerio gogor eguinic? Ez Jauna, ez Jauna; ez alangoric, ezta izango alangoric. Bene-benetan artzean dot gogo sendo eta eraguille bat aleguina eguiteco lecu itsal atan yausi ez-eiteco: eztot luzatu gura zugana biurtutea; orainche, orainche echun gura nas zure oñetara, eta bicitza barri bat eguiteco proposituagaz dirautsut biotz guztitic: Neure J.C^o. Yauna.

4. INFERNUA

(J, 158-171. or.)

Discedite a me maledicti in ignem aeternum.
Math. 25.v. 41.

(158) ¡Ay cristiñauac! bacenkie ondo celan daucadan nic biotza gaurco arratsaldeco sermoia eguiteco! Banator eguitera Yaungoi-coac pecatariai andico (beste) munduan emoten deutseezan castigu ecin gogorrangoen ganean, araco pecatu mortalean il-da bere escu (gogorraren) itzalaren azpian artuten dituzanean: eta onelango gauza icaragarri au gogora etorteac larri larri eguiten deust neure biotz guztia. ¡Ay baneunco nic orain anchinaco profeta santuen besteco santutasun eta indarra, onelango gauza bildurgarriaren ganean bear dan leguez eguiteco! Isaias, Yeremias, Ezekiel, ¡ay noc leukean orain ceuen biotz andia, ceuen berba itzal ta indartsuac, neure entzula maiteai adietan (ulertuten) emoteco ce bildurgarria dan Jgcoac pecatari itsuai infernuan emoten deutseen castigua! Baya ¿izango ete liteke asco ori indar guztiori alango icaragarrizco castigüen ganean bear dan leguez eguiteco? Balitz, or, neure entzulai esatea euren pecatuac gaiti galdu bearco dituezala euren ondasun guztia, asco izango liteke ceuc leguez, Isaias, narru gorrian billosic, eta ortozic guztien beguietara urtetea. Balitz, or, esatea pecatuac gaiti preso catigu eroango dituezala erbesteco erri urrinetara (asagoetara), asco izango liteke ceuc leguez, Yeremias, urkia ta cateac idunean doazala ibiltea. Balitz esan bearra euren pecatuac gaiti goseta andi eskergaac icusi bearco dituezala, asco izango liteke, ceuc leguez, Ezekiel, berroquei egunean yatea errari utsa bei-corotzagaz errea. Baya eguin bear dodanean Ygcoac pecatariai infernuan emoten deutseen castigu ecin da besteco gogorren ganean, ¿cer eguin nei nic, edo cer esan nei? ¡Ay! eztakit nic ondoen izango ez pada esatea ceuc leguez, Yeremias, umea nazala eta berbetan eztakidala.

Pecataria, pecatuaren lo sorroan gogor gogorric zagozana, bai bai, esan eikezu, esan eikezu: «nic pecatu eguin dot: baya ¿ce gach etorri yat niri orregaitic? Bear bada iya iya ceure buru ganean daucazu Ygcoaren escu gogorra, eta ameneco urrean zagoz castigu ori ceure ganean icusteco. Bear bada iya orain ganic zagoz infernuco ilinti baltz izateco (159) ebaguiric, edo ebaguia izateco urrean. Irata-

zartu zaitez, iratzartu albacintekoz, eta beguiratu eguiozu ceure buruari guztiz galdua izan baño leen. Eta ori eguiteco, nic arrastegui onetan eracutsi gura deusut cein gogorrac eta bildurgarriac direan infernuan icusibear direan neke ta minac. ¿Baya e-naz ni lotuco ceuei banaan banaan adierazo ecinic bertaco kirats atsitu nascagarriac, ez ango labaña zorrotz, caco luce, burdiña gori, berun urtuac; ez ango chilio, deadar, ulu, ayari, eta negar belarri-arraila-garriac; ez ango echurabagaco demonio borreru crubel erruki-bagacoac, ezta osterantzaco neke-garri ecin andiagoac. Bacar bacarric bada berba eguingo deusuet Yesucristo gueure yaunac yudicioco egunean gais-toai emongo deutseen sentencian aitatuco dituzan (peneen) nekeen ganean. Esango deutse bada Yaunac deungo-okerrai: «Ken zakidace neure beguiera aurretic madaricatuoc, su beticoetara»: ceintzuetan berbetan aitatuco dituz neke icaragarri bi, infernuco sua (*in ignem*), eta bertan betico egon bearra (*aeternum*); eta biotzuoen ganean bein banaan eguingo deusuet, sermoiac izango dituzan beste ainbeste zatitan. Lenengo zatian esango deusuet, ce icaragarria, ta gogorra dan infernuco sua. Bigarreanean, ce nekegarri itzala dan betico an egon bearra. Bildurgarria da, eguia esateco, sermoia, baya arimearen oneraco ecin obea: bada san Yoan Crisostomo-c diñoan-di (ez), «infernua gogoan erabili izan davenic, ez garauric (coscolic) beré infernuan eztago: barriz infernua alde batera bota-ta euki izan daveenac, araco izan dira (danac) guztiac».

Ygco. andia, infernu gogor orren guiltzaac escuan dozuzana, gaurco arratsalde onetan bear neunkez nic guiltz orreec. Betoz ona, arren, Yauna, pusca bateraco. Eztodaz gura an betico galduric dagozanac ateretaco. Ceuc ara bota dozuzan ezkerco, ondo botata dagoz, eta begoz. Begoz bai euren damu gogorrean, erre bidiz, kiscaldu bidiz, ernegadu beguie, amurratu beguie secula ta betico. Baya nic gura neunkeana da, besteric gueyago lecu icaragarritzco atara yoan eztedila, eta orretaraco, eta ez beste gauzataraco, zabal zabalic imini nai neunskioe neure entzula maiteai infernu arrigarri orí. Bein-danic bein, Yaun errukior eta escu-andicoa, emoiozu entzula oneen oneraco nire berbai indarra eta indarra, eta izan bidiz oneec guiltz-ordeco ederrac, alic ondoen beguien aurrean iminteco lecu itzal ataco icusibear ecin bildurgarriagoac.

Dagoala infernuan gaistoac castiguetaco benetaco sua, dirauscu Yesucristo-c berac leen esan deusuedazan berbeetan. Eguia berau esaten yacu Escritura santuco makina bat lecutan, eta alan sinistu beré eguiten dave cristiñau guztiac. Orretan beré, neure entzula onac, izanic infernua Ygcoac pecatuen castigu-garriraco imini izan daven lecu icaragarria, eztirudi (160) ecelanbere asmadu leitekeala

(160)

sua baño mingarri eta nekegarri gogorragoric. Eztauczue gogora ecarri bashen cer yazo oi dan etse baten suac artu izan davenean. ¿Celango negarrac izaten eztira: celango deadarrac? ¿Cer eguiten ezta su ataric igues eguiteco? Beste bideric ezpadago, bentanati beerra botetan da burua, eta eztago edocein beré gauza eguingo ez leukeanic bertan erreric ez guelditutearren. Baya ños garrac alde guztietatic zabalduta bat edo bat erdian artuten badave, eta urten-bide guztiac galarazoten badeutseez, ¡ay! au bai dala icusgarri tristea! Asten da erretan: narrua (azala) chimurtu ta pustillatuten yaco, urtuten yacaz araguiac, irakiten deutso odolac, kiscalduten da, eta gueraturen da icatz baltz bat eguinic. Eta escu-artean darabilgun infernuco su gogorrari urreago eguiten gachacozala, ¿eztozue eguño beré artu Falaris-en cecenaren entzuteric? Biotz bagaco guizon oker onec, berac gura cituzanac gogorraco ilteco, burdiñazco (broncezco) cecen bat eraguin, guizonac billosic barruan sartu, eta guero azpitic astirochu suagaz bero bero, edo gori eguiten evan cecena eta alan erretan cirean edo urtu eguiten cirean ecin esanezco nekeagaz ñora beré ecin even barruco errucarri gaishoac, orroeca mundua beera ecarri bear eveela. Bein danic bein entzun izango dozue celan san Lorentzo (Llorente) eta beste santu asco burdina gorien ganean iminita gueldi gueldi erre eguin cituezan: alderdi bata kizcaldu ezker, bestera eguiten cituezala, agaz beste ainbeste eguiteco, eta onelan eriotza icaragarrizco bat emoten eutseen. Alanbere, ez eguizue uste ece infernuco sua mundu onetaco sua langoa dala.

Ez, diño san Agustin-ec, gueure su au infernuco suaren aldean su-usaiña baño ezta. Araco Nabucodonosor erregueac eshetu eraguin evan labea, ceinen garrac berrogueta bederatzi beso gora igote'evan, etzan infernuco suaren aldean ke pusca bat bashen, diño san Bernardo-c. Araco Sodoma, ta Gomorra-ren ganean ceruric yausi zan sua, eta ceñec uri orreec auts eguin ezker, eurac egozan lecu bera beré erre, eta ondatu evan, etzan santu onen erechian infernucoaren parean lasta-zuci (lasta moltso) baten garraren kea baño. Mundu onetaco sua da Ygcoac bere ontasunez gueure bearretaraco, eta gueure oneraco eguin evan sua, eta orregaiti ez eutsan emon onetaraco bear dan indarra baño gueiago. Baya infernuco sua da su bat Ygcoac eguin izan davena pecatari bere arerioac castiguetaco, baita berac bere aserrearen ashe indartsuagaz putz eguiten deutso, eracusteco celango gorroto gogorra deutsan pecatuari. Eta ¿noc gogoan artu ce indarra, ce car ta su emon izan deutsan su castigatzaille, eta min-emolle oneri?

¡Ay! Ygcoaren escua escu gogorra da castiguetaco. Orain mundu onetan gagozan artean bigun artuten gaituz, eta ñosco alditan gueu-

(161) re contra aserraturic castiguetan bagaituz, berac diño ece, eztakiala celan eguin aserreagaz batera (naste) bere ontasuna, eta errukia eracutsi bagaric. Sarri ta sarri bere burua alabetan dau esaten davela ece, bera dala guztiz ona, guztiz errukiorra, chito errai-samurreta-coa, ta epetasun ta paciencia andicoa; lur guztia barren bateric eta bestera bere errukiz bete beneric dagoala ainbesteraiñoocoan ece, ce-ru guztia bete (161) eta ceruac eurac baño beré gorago eltzean dan errukitasun ori. Alan-da guzti, ¿celango castigu eskergagarriac eguin eztituz Yaunac, bere aserre-aldi banaca batzuetan? Eta ¿cer derechazue izan direala castigu eskergarri orreec? Ygcoac berac diñoandi (diñoanez), castiguetan asi baño beneric ez. Nic eguia esan bear deusuet, baya ni icara icara eguiten naz, eta eztot yakiten cer esan beré araco iracurten dodanean Escritura santuan Ygcoac aserre aldi batzuetan eguin izan dituzan castigu tzar eskergaac, eta guztien ostean icusten dodanean Ygcoac berac diñoala ece, á guztia etzala izan aserre apur bat baño beneric.

Escritura santuan esaten da Ygcoac Israel-darren pecatuacaitic biraldu (aguindu) cituzala Yerusalen-era Caldea-co soldadu crubel gogorrac, ceintzuc millaca il tzituezan guizon, emacume, agura zar, eta ume chiker-guiñoocoac; galdu cituezan nescatillaac, loitu cituezan andira ezconduac, garbitu eutseezan diru ta ondasun guztiac; su emon eutseen etseai, eta azkenean il etzituezan guztiac cautibu eroan cituezan euren errira, Caldeara. Eta orregaitic beré Ygcoac berac diño Ezekiel profeta santuaren bitartecoz ece, au guztiau etzala izan bere aserrearen tantaca bacar bat baño¹⁹⁶. Iracurten da Escritura berean ece, barregarri erabili cituzala Yudea-tarrac Antioco erregue gaistoac eguin eutsen guerreagaz, eta euren arteco asco ecin esanezco gogortasunaz il eraguinic, ain modutan ece ascoc esate'even oba eukeela il beré, ainbeste gauza (alango gauzaac) icusi baño. Eta alanberé Macabeo-en arteco batec diño ece, pusca-pusca bat aserratu yacala (Ygcoa) euren contra¹⁹⁷. Baita alan bada puscachu bat aserraturic dagoanean, eta ain gogorra bada bere aserrearen tantaca bat baño botetan eztavenean, ¿cer izango ete da irrima aserratu eta botetan dituzanean ez colorearen tantacac (tistillac) ezpabere errecaac, ibaiac, ichasoac? Bada au eguiten dau infernuan, eta orretaraco eguin evan infernuco sua.

Orretaraco Ygcoac sartu cituzan su onetan munduco min, ala, eta neke-garri guztiac, eta bera bat izanic, emoten dituz Ygcoac berac

¹⁹⁶ Stilla ad sanctuaria. Ezequiel c.21.v.2.

¹⁹⁷ Dominus Deus noster modicum iratus est. 2.Maca.c.7.v.33.

dakizan min, ta doloreac. Ascotan icaratu izango zare entzunic Martiri santuak, eta beste ascori emon eroakeezan neke, eta ala icaragarrac: celan burdiña (burruña, parrilla) gorien ganean iminita gueldi gueldi erretan cituezan; celan burdiñazco orraciacaz gorputzeco alderdi biac eratzi, eta apurtuten eutseezan; celan atz-azal arteetati cañabera atal mee zorrotzac (162) sartuten eutseezan; celan mallu astunacaz cadera-besoetaco azurrac birrinduten eutseezan. Entzun izango dozue celan sartu eroezan berun (edo plomo) urtutan, edo uya eta orio irakitan: celan curutzeetan untzeacaz yosi eta breatan edo uyatan bustirico alcondaraac yantzi eta su emoten eutseen bertan erretaco; celan guizon bicia lurrean (celaian) aratinic luce luce eguin, ganetic gorpu il bat auzpez ezarri, eta bioc billosheic estu arpeguiz arpegui, bularrez bular, besoz beso, eta caderaz cadera, eta alan ichite' even bertan, ilaren atsac, usteltasunac, eta arrac yan ta il leguientzat, eta Ygcoac dakizan beste asco. (v. 5.2.)

Eta ¿ceinbat icusi bear izaten ez even carcela gogorretan bertaco atsagaz, goseagaz, egarriagaz, iluntasunagaz? Asco izango da bein gogora ecartea Victor Africano-c onen ganean diñoana. Diño bada ece, Ubandal-arrac Africa-errian imini cituezala erabatera carcela baten bost milla lau guichiago, eta ez eutseela ichiten ecetaraco beré andic urteten, eta anche egozala gau ta egun guishagaisho errucarrac, sardinac cestean legueche estu estu, belaun-etaguiño euren loi artean sarturic. Bein sartu guinean gueu bertan, diño berac, eta ain izan zan kiratsa, ain nascagarria (igüingarria) ango sunda charra ece, etzirudian iñondi beré alango kirats atsituric eta penagarriric izan leitekeala. Beste aldeti barriz, ceinbat gaisho eta min icaragarri igaro (eroan) bear eztoguz gueuc guizon emacumeoc? Buruco-mina, beguetacoa, belarrietacoa, aguinetacoa, zamacoa (eztarricoa), azurretacoa: alboco-inkea (alborengo), tripa-ala gogorrac, udaminac (eraitecoac): errematismoena, arriena, biciena, eta noc-taki-cer. Batzandu eguizuez bada oneec guztic, eta bat eguin dozuezan ezker, esango deusue san Geronimo-c ece oneec guztic eta beste asmadu al leitekezan guztic emoten dituzala infernuco suac. Oraindo beré gueyago esango deutse santu andi onec san Isidorogaz, eta san Agustín-egaz (batera) naste: esan doguzan guztic, eta beste, munduan direan eta izan leitekezan min, ala, neke, atsacaba, icusgarri guztic ecer (arean) eztireala, eta atseguin-garri artu leitekeezala infernuco suaren aldean.

Bai, neure biotzeco entzulaac, bai: ezta ecer infernuco suaren aldean burdiña gorien ganean erre bearra, edo orio irakitan prishidu bearra; yolas-garria da azurrac golpeca birrin birrin eguitea, edo atz-azal arteetatic cañabera atal zorrotzac sartutea; eta atseguina artutea

(163) da osterantzeco min, ala, neke, naibagaco eta atsacaba gogorrenac icusi bearra. Ez eguizue uste ece au larregui esatea dala : ezta bear dan bashen guichiago esatea baño (163); edo obato esateco, ezta ecer esatea baño. Utsac dira: ecer esan gura eztaveenac dira alde onetan bici gareanen berbaac andico aldico nekeac eta icus-garriac adierazoteco (ulertu eraguiteco). Infernuco bat etorri bear lichakegu sua ta garra dariola, ondo dakianac leguez gueuri orreec cer direan esateco, eta ori ta guzti e-liteke asco izango gaucea bera bera dan leguez gueure cenzun laburrac ulertuteco (adituteco). Baya au alan bada beré, emetic atera ciñaie ceuec celan edo alan celango icaragarritzco gogorra izan bearco daven infernuco suac. Guztioac dakigu, fedea alan daracuscita, ece, infernuco su bildurgarri orrec espiritu utsac direan demoniñoai eta guizonen arimai min eta ala ecin gogorragoac emoten deutsezala. Eta alangoa bada espiritu utsacaz, ¿cer izango da, edo celangoa izan bearco dau su itzal orrec?

Onezaz ganetic, baago infernuan beste gauza bat su icaragarritzco au nequetsuagoa eta eroan-ecinagoa eguiten daveena, eta da ecin iñondi beré, ez ecetara beré izatea min-aleen arin-garriric, ez atseguinaren apurric. Bir-milla urte eguin da Yesucristoc esan evan aberatza infernuan dagoala ur tanta bacar bat eske ta eske, bere miñertza bustiteco. ¿Cer da ur tanta bat infernuco gar artean dagoan batentzaco? Alanbere ezta apur ori beré echaco oraindocoarren emon, eta ez emongo beré. Mundu onetaco neke, min, eta atsacaberen artean garratzen garratzenac direala beré, beti izaten da nondi andi cer-edo cer cegaz neke orreec arindu edo guichitu; infernuan ezta alango gauzaric, ezta apurric beré. Mundu onetan gaisho andi bategaz dagoanac, minen minez ecin egonic egon arren, beti eukico dau oe zantar bat baño ezpada beré non echun, eta okerren dala beré, lurr gogorra guchienez izango dau; infernucoac eztauco esan dogun su arrigarria baño beste oeric, ez beste lurric non etzan. Gueisho orrec artu leike arnasa apur bat bateric bestera bere burua aldatuaz edo itzuliaz: infernucoac ¿nora aldatu leike suric eztagoan lecura, alde guztietatic suz ta suz inguraturic badagoz? Gueisho orrec euki leikez seme, guraso, senide, edo adiskideren batzuc, ceintzuc bera icusita biotza tangachu bat zabalduco deutseen: baya infernucoac eztau izango beste lagunac, ezpada bere borreru icaragarri direan demoniñoac, eta beste condenadu lagunac; ceintzucac gorroto gogorrean, eta chacur amurratuac leguez alcar zatituten baño bici ecingo dan. Gaisho orrec opa (opetzi, opatu) leikiotz Ygcoari bere alac, ta bere neke guztia bere pecatuen (164) zorren alderaco, ceinec emon daroyon biotzeco argui eta atseguintasun andia; infernucoac ezta atseguin au beré ecin euki leye, bada gorrotoz beguiratu-

(164)

ten deutse Ygcoari, eta daukee euren arerioric okerrenentzat. Gais-
ho orrec, eta nekepean dagoan beste edoceinec baaki bein edo bein,
eriotzeagaz baño ezpada beré, yoango yacazala bere gachac; baya
infernucoac eztauco alangoric, dakialaco bere zorigalduco izan bea-
rrac Ygcoa dan arte guztian iraun (yarraitu) bearco deutsalala.

Emenche bada, su icaragarrizco onen erdian egongo dira secula-
betico infernuco zorigogorreco madaricatuac, erreten eta erreten,
eta alde guztietatic sua dariela. Goitic ta beetic sua, alboetatic sua,
aurretic ta atzetic sua, beguietatic sua, belarrietatic sua, ao-surretatic
sua, araguietatic sua, azurretatic sua, unetatic sua, eta alde-guztietatic
sua. ¡Oy ce arrigarrizco min-alac, ce amurruac icusi bearco ditue-
zan. ¡Ce negarrac, ce uluac, ce chilioac, ce garrashiac entzungo dire-
an zori gogorreco lecu atan! Yaguico dira bata besteen contra,
alcarren erru iminten daveela eurac lecu atan egon bearra! Senar-
emazteac esango dave ece, an dagozala eurac alcarren artean ezcon-
du aurrean eta ezcondu ezkeru eguin cituezan pecatu zantarrac gai-
tic, eta arren bada alango lagunac eguño ezagutu ezpalevee. Umeac
gurasoai erru guztia ezarrico (egotzico) deutse, euracaz nastean oe
batean eratzan-da eracutsi eutseelaco bear etzana eguiten; euren au-
rretic birao eguin-da, beste ainbeste eguiteco oña emo'eutseelaco;
ichi eutseelaco yantzeetatic, fiesteetatic, yolaseetatic, gau-beguirec-
tatic, eta Ygcoac dakizan basterreetatic ibilten: eta ez eutseelaco ga-
larazo adiskidetasun okerra, ezcontzea galdu ce cidin achakiagaz.
Gurasoac euren umeen contra egongo dira chacur eguinic, orreec
oñ-onean imintearren, eta ondo icustearren eguin cituezan lucurre-
ria eta tratu okerrac gaitic, eta eurai gustu emotearren laketu eutsee-
zan gauzaac gaitic betico galduac izan bearco daveelata. Adiskideac
adiskidearen erru emongo dau bere galdu bearra; lagunac lagunaren
erru; eta guztiaac esango davee, oba eukeela, eta arren secula yaio
ezpalira ¡O ce birao latsac entzungo direan; ce maldiciño aserreat!
Madaricatuac izan ditezala, arren bada, secula betico nire aita-amac,
nire senar-edo emaztea, nire seme-alabaac, nire adiskide ta lagunac;
madaricatuac nic artu nevan bularra, eta nic yan nevan oguia: madari-
catua ni bici izan nintzan etsea, eta bere ganean ni euki ninduan
lurra. (165) Madaricatuac, arren bada Ygcoa, madaricatuac ceruco

(165)

santu-santaac, madaricatuac Maria-santisimea.
¿Cer diñozue onetara ceuec, neure biotzeco entzulaac? Baago
ceuen artean iñor onaco su bero artean, onaco bildur-garrizco gar
artean egoteco gogoric eta biotzic daucanic? ¿Izango zara ceu, ceure
gorputz orreri atseguin emoteco, nai yan-edanean dala, nai aragui-
zco cikinkerietan dala asmu billa zabiltzan ori? ¿Izango zara ceu,
emon deutsuen atsacabea, eguin deutsuen iraina, esan deutsuen ber-

ba astuna parcatu ecinic zabiltzan ori? ¿Izango zara ceu, ceineri barauaren icena entzun orduco, edo penitenciaren icena aitatu orduco biotza larri larri eguiten yatzun? Baya ara baño leen icusi bear ceunkee ea su ataraco onac bazare. Sartu eguizue, ea, surtan ez gorputz guztia, ez besoa beré; sartuco dozue bada escuco atz bat, eta ori bere a-chikinderea (chikia) eta ez luzaro eukiteco beré, ave-mariachu bat esaten dan artean baño eztozue an eukico. Ecin dozuela euki esango dozue. Bada zoroac, eta zoroac bashen zoroagoac, orain emeco surtan, infernucoaren parean, su iskia baño eztan su baten ain asti laburrean escuco atz bacar bat ecin euki badozue, ¿celan egongo zare betico ta betico buruz sartuta infernuco su gogor icaragarri atan? Bada ara, cristiñauac, onduten ezpazare, su bildurgarri orretaraco zare, ece Ygcoac esanic dauco, gaisto deungaac bertaraco direala. Eta bein ara ezkeru an egon bearco dozue Ygcoa Ygco dan arte guztian, secula aric urten bagaric. Eta ¿baakizue ce icaragarria dan infernuco betico egote ori? Bada nic eracutsico deutsuet aguindu deutsuedan bigarren zatian.

¡Betico! betico! ¡Ay, ce berba andia, eta asco baño gueyago esan gura davena! ¡Betico; Ygcoa dan arte guztiraco! Eta ¿noc azaldu cer esan gura daven betico orrec, eta infernuan betico egon bearrac? Ez yaioen artean iñoc, bear dan leguez beintzat. Alanbere lan au neure lepo ganean artu dodan ezkeru, eguinbear dot aleguina, santu eta asco-yaquinen esacune batzucaz, eta eurac dacarden irudi bat edo bategaz ea ceuei cerbait adierazo (ulertu eraguin) al baneizue. Ea bada, neure entzulaac, prestau zaitece, gauza itzal onen ganean esango deutsuedana entzuteco. Da bada betico izatea, diño san Dionisio-c, egunen errescada luce bat, bein beré, bein beré azkenic izango eztavena. Da, diño aita San Bernardo-c, izate bat iru izateac edo denporaac beragan artuten dituzana: lengoa, oraingoa, eta etorteco (166) dagoana. Da urteen yoan-etorri bat, beti atzera ta aurrera, gira ta bira dabilena, iños beré atzerengo urtera eldu bagaric. Da biribil biribil dagoan gauea leguez, ceineri bein ta bein ta ascotan inguru emon arren, osteru ta barriru asten yacan emoten, azkenic, edo non guelditu bearric topetan ez yacala. Alanche diño santu eta yakitun ascoc. Baya esacunoc bashen obeto adierazoco deuscue cer dan betico izan bear ori san Buenaventura-c dacarren irudi batec. Ara bada, entzun. Contu daigun infernuco batec eun urteric eun urtera bere beguetatic negar anpullu (malco) bacar bat botetan davela, eta anpulluca anpulluca ibai andi bat eguitera elduten dala. ¿Ceinbat urte bearco ete litekez orretaraco? ¡Ay! ¿Noc taki ori? Ygcoac berac, munduan bestec ez. Bada urteoc guztio, urtea doa, urtea dator, igaroco dira, baita beré bear direanac eguitemo urtean beingo negar

anpulluacaz mundu zabaleco iturri, erreca, ibai, eta ichaso guztietan dagoan lainbeste (gaña) ur.¡Au bai dala urte errescadea! Burua galduten da onen contua atera guraric (ecinic).

Oneec urte guztioac bada, eta beste ainbeste, eta beste ainbeste, eta milla bider beste ainbeste yoango dira, baya betico izan bearra, eta betico infernuan egon bearra orduanche asico da, urte bacoeh bat yoan ezpailitzan legueche. Bai, alper da, diño santu andi onec, yoango dira egaztiac daukeezan lumaac bashen urte gueiago; yoango dira guizaseme, emacume, eta abere guztiac dituezan ulleac bashen urte gueiago; yoango dira zuguetz eta arbola guztiac dituezan orri, lora ta frutu guztiac bashen urte gueyago; yoango dira landeetan, celaietan, eta mendietan dagozan berarrac bashen urte gueyago; yoan bearco dave ibaietan dagozan ondar, eta area garauac bashen urte gueyago; yoan bearco dave pozuetan, iturrietan, errekeetan, ibaietan, eta ichasoetan direan ur tantaac bashen beré urte gueyago. Baya infernucoac millínoe asco urte daukeez oraindo an eguiteco, edo obeto esateco an egon bearco dave iños azkenic izango eztaveen urteetan. Orduan beré ecin esango da: «asco da; oneguiño baño el-tzean ezta betico izanbear au; emenche dauco bere muga-arria, eta oneric aurrera ezta egunic gueyago izango». Orduanche beré asi barría izango da, eta yoan bearco dave beste ainbeste urte, eta milla asco bider beste ainbeste, bere bician atzerengo urteric icusi bagaric.

Aushe guztiau doa mundu onetaco nekeetarie eta beste aldeco nekeetara. Mundu onetan gagozan artean beti daucagu nondi andi, celan (167) edo alan edo arindu edo yoan eguingo yacuzalacoa. Gaisho bagara, baakigu atzera edo aurrera edo osatu edo il eguingo gareala; carcela itzal baten dagoanac baaki nos edo bein andic urtengo davela, edo libre bere etseraco, edo presidioetaraco, edo urcamendiraco baño ezpada beré, eta agaz bereac eguin izango davela. Baakigu nekeac, atsacabaac, naibagaac, zorigaistoac beticoac eztireala izaten: eta ibili ta ibili edo guichitu, edo guztiz yoan bearrac direala, eriotzeagaz baño ezpada beré. Baya andico munducoac eztira alangoac: gaurcoa da biar, biarcoa etsi, etsicoa etsidamu (etsirimo, etsi guey); aurtengoa datorren urtean, eta aric urte eta urte garreanean, eta secula guztian. Contu icaragarri onec deadar eraguiten deutso san Agustín-eri: «¡O betico izan bearra! ceugan gogoia imini (parau) ezkerco penitencia eguiten eztavenac edo federic eztavaco, edo ez beintzat bururic.»

(167)

Orain neure cristiñauac, entzunac entzunda, gura dot ceuen artean contu bat eguin daguizen. Edoceinec daki ce luce eguiten yacan gauba gaisho andi bategaz artega eta larri dagoanari: celan contetan dituzan ordu guztiac, celan dagoan estu bai estu gosh-aldeco arguia

nos elduco yacon. Baya, ¿cer diñot nic gaishoa? ¿cein (nor) da ceuen artean osasun oneric onenean dagoala beré, egongo litzatekeana gau oso baten alderdi baten ganera, ez batera ta ez bestera cirkin bat eguin bagaric, oeric bigunenean egonda beré? Bada emengo gaishoac emengo gaubari, ain laster yoaten yacun gaubari, ain luce eresten badeutso, eta osasun-dunac beré gueldi gueldi alde baten ganera egoteco danean, ¿cer erechico deutse infernuan dagozanac ango gau luce beticoari? ¡Ay gau lucea, gau baltza, gau itzala! ¡Gau icaragarria ollar-yoteric, ez egun-sentiric izango eztavena, eta bere bician arguiric icusico eztavena! ¡Ce nekegarria, ce zori-gogorra izango dan arguituco eztaven gau ilun atan egon bearra, eta etzan bearra, ez emengo gaishoac leguez oe bigun-onean, ezpabere laba gori beroan, suagaz dagoan carobian! Ondo itanduten dau Isaias Profeteac: alango lecuan, su ain beroan, betico gar artean, ¿nor egongo da? ¿nor bicico da? ¿noc iraungo dau? Ecin euki dozue icatz bici bat, chingar bat luzaro escuan erreten deutsuelaco: ¿cer izango da bada suz eta garrez canpoti ta barrutic (barruneti), arimaan ta gorputzean inguratuturic egotea, eta burdin goria leguez gorituric eta su eguinic egotea, eta betico alan egon bearra?

(168) Ain icaragarria da betico iraun bear onec infernucoai emoten deuten (168) neke ta atsacabea ece, Ygcoa icusi ecin-ez osterantze-co guztiac ezteutsee ainbeste emoten; ez onago beré. Ez leen esan deutsuedan ango su bildurgarri-gogorrac eta ain guichi ango cañibet zorrotzac, mallu astunac, azote gogorrac, eta echurabagaco demoniño arrigarriac eurac beré. Eta alan aingueru batec esango baleutse Ygcoaren partez infernuan dagozanai: «ea gazteac, barri onac (darcartzuedaz). Yakin eguizue bada ece, ichasoco ur guztia, eta mundu zabaleco ur guztiac iñurri batec urtean beingo ase aldiagaz edan daguezanean, yoango yatzuezala min eta neke orreec». Onelan bada berba eguingo baleutse, arguituco lichake biotza; ez lichaque aric aurrera leengo nekearen erdia eguingo. Eta arguitu beré bear, cegaitic ece munduco ur guztiac ichasoa euren artean dala, iñurri batec edateco bear direan urteac gueldi gueldi yoango dira bein edo bein: ece iñurriac guichi edana gaitic, beti cer-edo-cer edaten dau; baya infernucoen neke-minac oneec guztioac yoan-da beré, eztira yoango: orduan barrien barri asico dira urte bacar bat igaro ezpailtzan legueche. ¡Ay ene entzula maiteac, gogoari emoten deutsadan bacochean cer izango ete dan neke aecgaz, eta nos gueldituco ete direan, eta azkenic ecin icusi deutseedanean, ez ondoric idoro, ez acabararic topau (aurkitu), conorte guztia galduten dot, eta nekez dakit non nagoan beré. Cegaitic ece, celan Ygcoac eztaven izango ez azkenic, ta ez amairic, alanche neke gogor orreec beré izango eztave amairic ez azkenic eta iraun bearco dave Ygcoac dirauan arte guztian.

¿Cer esango dave zorigogorreco galdu orreec euren buruac alan icusita? ¿Cer esango dave? Esan bearco dau orretarico bacoachac: «*gustans gustavi...paululum mellis, et ecce ego morior*». ¡Ay nire zori gaistocoa! Ay nire adugogorrecoa! Munduco gustu arin citel batzuc gaitic etorri naz lecu itzal icaragarri onetara. Umekeria batzuc gaitic galdu dot betico cerua, eta emon deusat neure buruari betico erio-tza infernuco au: «*gustans gustavi...paululum mellis*». ¿Eztagoala ya onezkero erremedioric? ¿Eztagoala emetic urteteric? ¿Emen egon bearco dodala icaragarrizco neke, gogortada eta alen artean betico, bai betico, eta milla bider betico? Bein beré, bein beré ezta vela azkenic icusico nire min eskerga oneec? «*Et ecce ego morior*». ¡Ay, eta celan nire bicia etzan izan ashe tanga (tindi) bat baño! ¡Oy, celan ni yaio ni il, guztia bat izan tzan! ¡Ay, ta celan munduco ondasun, atseguintasun eta poz-zoro guztia etzirean izan utsa (169) ta ecerezkeria bashen! «*Paululum mellis!*» (169) ¿Non neuncan nic burua? (169) ¿Non neuncan cenzuna? Yakinic onango neke beticoac egozala, nenbilen ni arrapaca leguez, beingoan yoan bear yatazan gozoen atzean? «*Paululum mellis?*» ¿Cer daucat nic orain ain zoro nerabilden araguiaren atseguin cikinac-gaz? ¿Cer iño-en diru ta ondasun, legue etzan bidetic nireganatuta, nireac balirean leguez eukiacgaz? ¿Cer ain gozo eguiten yatan eta ainbeste bider catutu eraguin eustan ardaoagaz? ¿Cer munduco poz-zoro eta atseguintasun ero burua zoratu eraguin bear izan eusteenacaz? «*Paululum mellis?*» ¡Ay! Ez besteric ezpabere toki icaragarrizco onetara etorri bearra, «*et ecce ego morior*». Baita ¿nos urtengo dot oneric? Iños beré ez. ¿Nos yoango yataz neke-min oneec? Bein bere ez. ¿Nos guichienez (edolan bere) arindu edo guchituco yataz? secula beré ez. «*Et ecce ego morior*». ¿Emen egon bearco dodala ichasoac dituzan ur tantaac lainbeste (gaña, goara) millinoe urte yoan-da beré? Bai. ¡Ay ene! ¿Nosco yoango ete dira urte orreec guztio? Baya ¡ay! ta ay! guero bere ibili ta ibili yoango dira, baya nic zori-gogorreco galdu onec emen egon bearco dot, egun bacar bat yoan ezpailitzan legueche. «*Et ecce ego morior*». Ernegauc dave, amurratuco dira, eta euren burua apurtu guraco dave: eriotzea etorri dakien guraco dave, baya eriotzaric eurentzat ezta izango: an egon bearco dave beti ilten, eta bein bere il bagaric; beti amaituten, eta bein bere azkenic icusi bagaric.

Neure biotzeco entzula maiteac, ¿eguiac ete dira oneec? Bai eguiac dira, eta eguiac beré eguia andiac eta zoliac. Eta ceuec eguia oneec ¿sinistuten ete dozuez? Ez, ezcagoz gueu orain oneec sinistuten etzirean errian; eta iñoc sinistu gura ezpadituz, or conpon davela, berac icusico dau beste aldean iya sinistutea gauza ezta venean. Bada ¿celan da au? Oneec eguiac izan, eta ceuec alan sinistu, eta ¿celan

bici zare bici zareen leguez? ¿Celan ain bildur bagaric pecatu eguiten dozue? Ecer oker bayatortzue: biraoa, demoniñoa, añena, besteric ezdakizue. Seigarrenecoan beti bici bear dozue beguietaguño ondaturic; atara yoten eztaven berbeac eztauco gatzic, cirri ta mirri alcarregaz ezpazagoce nesca-mutilac eta beste asco, motz zagocela derichazue, okeluetan (zocondoetan) cer igaroten dan Ygcoac daki. Tratu oker bat eguiteco iñoren bearric eztaucazue, irabacia badago ece. Iñoena beré ascoc ishilic eguiten bakizue. Eta ¿infernua sinistu? Eta betico infernua dagoala sinistu? ¡Anchina fedebagaco yentilac esan even cristiñauac gaitic ece, infernua sinistu ta, deungaac bacirean, centzunen apurric ez eveela; eta ceuen arteco gueyenac (170) gaitic beste orrenbeste esan bearco dala nago ni, ceuen bici-moduari beguiratuta.

¿Cer da au, cristiñauac? ¿Ala uste al dozue beracauteco nekeren batzuc direala infernuco nekeac? Baya ¡ay! esaten evan anchina san Geronimo-c, eztabiltz aderde, min icaragarriac emoten direan lecuán. ¡Ay, cristiñauac, ainbeste bildur emon bear leuskegu infernu itzal orrec ece, baguenki bat bacar bacarric baño araco eztala, orregaitic beti bildurrez icara bici bear guintekez (guenduke), ea bat ori gueu izango gareanez. ¿Cer eguin bear dogu bada, yakinic ez bat, ez bi ezece, ezpada asco ta asco eta gueyenac infernuraco izango direala? ¿Baacutsue ceinbat lagun batu izan zareen elesha onetan gaurco sermoia entzuteco? Eta ¿ceuen arteco ceinbat derichazue infernuraco izango zareela? Itaune au berau eguiten eutsen san Yoan Crisostomo-c Antiokia-arrái. ¿Ceinbat derichazue, esaten eutsen, ceinbat izango direala erri onetan ceruraco izango direanac? Antiokia-c izango cituzan aldi atan eun milla cristiñau beerenetic. Eta ¿cer derchazue (uste dozue) erantzun evala santu asco-yakinac? Biotza ausi bagaric ecin entzun leitekeana. «Ozta ozta izango dira larrienetic (gorenetic, garaienetic) beré eun, eta orreec beré eztakit, eztakit.» Nekez sinistuten evan santu andi onec erri ataco milla cristiñauric bat salvaduco zala. Eta ¿uste dozue berba bildurgarri onec esan cituzala esateagaitic, edo bildur aldi bat emotea gaitic beste bagaric? Ez beintzat. Santuac berac dirautse cegaitic alan sinistuten daven. Ume deungaro aciac, guraso ardura bagacoac, gauz'onac eguiteco, eta charrac eragozteco egarri guichi, eta pecatuetaraco nasaitasun andia ecusazalaco. Eta ¿ceuen artean icusten da alango gauzaric? ¡Ay! Arren bada ezpalitz icusico, baya lar bere lar icusten da.

Eta onetatic ¿ceinbat izango dira bada ceuen artean infernuraco izango eztireanac? ¿Izango da bat, izango dira bi? (Eztot) E-naz ni orretan ez sartu ta ez urten gura. Baya anchinaco esakerea da eta eguia, celan bici alan il eguiten dala. ¿Celan bici zare bada gueye-

nac? Ondo ilteco moduan? ¡Ay! Ni bildur naz gueyenac pecatu mortalean bici zareela. Eztot ondo esan; baakit nic, eta baacat nondic yakin bere pecatuan bici oi zareela, eta orregaitic bildur naz gueyenac infernuraco izango zareela. Cristiñauac, arin arinca, eta esan daigun lauoinca goaz beste alderaco, laster eguin bear dogu etse-aldatzea, eta sartu bear dogu gueure betico etsean. Nos edo bein bada gueure buruari beguiratu dayogun. Urte yoanac, yoan; egun galduac, galdu; baya eztozue oraindo beranduric. Ea bada len bait leen Ygco-agana biurtu bear dozue bicitza barri baten bitartez. Orretaraco ezpekizue bein bere burutic kendu (yoan) betico infernu au, eta icusico dozue ce ona dan pecaturaco gogo guztia galarazoteco. Ara cer yazo yacon urrengo exenpluco guizonari.

Beda icen andico guizon yakitun eta santuac esaten dau ece, Nor-tunbria aldean iltzala Drichelmo erichon guizon bat, eta guero barri-ro biztu zala mundu onetaco arguitara. Oneri ilic egoan artean eracutsi eutsan Ygcoac infernu gogorra, eta ango suac, eta beste an icusi bearreco guztia. Berac esan eroian cer eta celango bildur-garrizco (gauza) itzalac icusi bear izan cituzan, baya berac esan ez-ta (arren) beré, ondo ta ondo aguiri evan bere bici-moduan, nonbaiste beré gogortasun ecin icaragarriagoren batzuc icusi bear izan cituzala, ce edoceineri arritu eraguin leikion berac bere buruari emoten eutsan bicitza, ecinda gueyagoan gogorrac. Sartu zan conventu baten, eta an guztizco bere barau latzac eguin eroazan; lo lur gogorraren ganean; cilicio icaragarriac soñean erabiltzazan; garrian, barriz, erabilen burdiñazco (burruñezco) catea orratz chikiz alde guztietatic bete beteric egoana. Bere burua azote crubelez apurtu bear evan, odol beroa ugari gorputz guztiti eriola. Eta iñoc esaten beetsan ea cegaiti orren gogor artuten evan bere burua, erantzun eroian: «*Acerbiora ego vidi*», oneec bashen gauza gogorragoac icusita daucadaz nic beste aldean. Neguaren biotz biotzean conbentuaren parean leituric eta engalasaturic egon yoian errekan, lei-carraldoa alde bateti zatitu, eta anche sartu oi zan abitu ta guzti iduna-guiño (samaraiño): eta andic urten da beré, ez evan soñecoric aldatu bearco. Eta iñoc ecer esate-utsanean, erantzun oi evan: «*Frigidiora ego vidi*», oneec bashen otz gordinagoac andico aldean icusita nago ni. Zar-tzar eguinda beré ez eutsan bere buruari bapere bakeric emon.

Neure entzulaac, ezta Drichelmo bacarric andico munduraco; geu bere bagara; eta bicitza ona ezpadaroagu, ac arimaco beguiacaz baño icusi ez evana, gueuc gueure buruan icusi bearco dogu. ¿Ceri beguira (171) zagoce bada? Oneec eztira atzera beguira egoteco gauzaac. Ea bada arin, goazan guztioac Yesucristoren oñetara, gueure pecatuen parcaciñoa escatutera. ¡Yesus laztana! ¡Yesus maitea! Ni

(171)

infernura yoan nintekeala? Beti betico galdu nintekeala? ¿betico ta betico ceure arpegi ederra icusi bagaric, demoniño (icaragarrien) okerren artean neure burua icusi neiala? ¿Cer izango da nigaz, ori yazoten bayat? ¡Ay nire zori-gaistocoa ori icusteco banaz! Oba neunkean orretaraco bein bere ez yaio (ezpanintz). Oneec gogora etortec, Yauna, larri larri eguin deust neure biotza. Baya ezta ori bacarric niri negar eraguin bear deustan gaucea; ece nic baakit ece, nire pecatuac bear even saria emon izan baceust, anchiñaric an egon bear neunkeala; eta neure biotzeco esker andiagaz autortu bear dot, ceure ontasunari zor deutsadala an ezpanago. ¡O neure Yesus gozoa! ¡O neure biotza! ¿Cer icusi cenduan nigan, beste ascori eguin ez ceuntsan mesedea niri eguiteco? Eta orregaitic bere, ez neure onari beguiraturic, ez ceuri zor deutsudan esker onari beguiraturic, ¿ezteusat pecatu eguiteari ichico? ¿Beti ebili bearco dot gaur onduco, biar onduco? Ez Yauna, ez: emen, orainche gueyago luzatu bagaric artuten dot gogo eguin eguina ez gueyago (aurrera) pecaturic eguiteco, eta biciera barri bat eguiteco. Leen eguina beré ondo damu dot, eta parca eskeca nagotzu. Biztu eguizu, arren, Yauna neure biotz il au, biotz biotzeric parcaciñoa escatuteco esaten deutsudala orretaraco neure Yesucristo Yauna.

5. PURGATORIOCO ARIMEEN LENENGO SERMOIA

(B, 177-181.or.)

Audierunt quia ingemisco ego, et non est qui consoletur me.
Thren. c.1.v.21.

(177) Jerusalengo uriac bere estutasun andien artean euqui (177) evan nequeric andiena zan bere burua bacarric icustea. Aberats egoanean David eta Salomon-en egunetan, guztiac gura euden adisquidetzat euqui. Erregueac emoiten eutsezan doe andiac: uri ta erriac ecarten eutsen ondasun andiac: erreinuac gura even bere laguntasuna, eta guztiac dei eguiten eutsen ao betean zorioneco eta bedeincatea: baya araco bere arerioen mempean icusi zanean eta guztia banatu pobre, eta negargarrizco premiña estuturic egoanean etzan aurquitu noc poztu eguien: araco leen guzurrezco adisquide cireanac, burla eta barre eguite eutsen, eta lagunic maiteenac cireala esaten evenac, arerioric gogorren biurtu yacozan. Leenago alabetan evenac, orain zorrozututen dituez euren miñac bere contra, eta leen anditasun, edertasun eta ondasunacaz poztuten cireanac, guero atseguin artuten dave iruli, banatu eta erreric dacuselaco. Esquerdeunga gogor oneshec minic andiena emoiten eutsen, eta alan ciñoan, esan beré Jeremias Profeteac Jerusalem-en icenean: Dei eguin neutsen adisquideai; baya ez eusten iñoc yaramonic eguiten. *Vocavi amicos meos et ipsi deceperunt me.* Enzun cituezan nire negarrac, baya ez ninduan iñoc pere poztu eguin gura izan. *Audierunt*, etc. Ain zan andia adisquide onen gogortasunac emoten eutsan nequea ce, escatuten eutsan Jaunari arren bada icusi eguiala gogortasun icaragarri au, eta emon eioela merecidu euden castigua, eta diño alanche egingo davela Jaunac. *Reddes, eis vicem, Domine, secundum opera manuum suarum.* Jerusalengo uriaren bacartasunean daucagu, Ne. E^a. Mc., Purgatorioan dagozan arima bacar ta aztuaren irudi benetaco bat. Leenago maite evenac ezteutse yaramonic eguiten, eta eztaude aurquituten euren adisquideric andienen artean bere gomuta danic. ¡Ah celan esan leiqueen Jerusalem-ec baño beré errazoe andiogoagaz: «deadar eguiten dot su gar bici onen erditic, eta eztago

enzun gura navenic. *Vocavi*. Enzun dituez nire negar, cizpuru eta erreguac; baya eztago erruquiric euqui gura deustanic. *Audierunt*, etc. Baya bildur izan daitequez guizon biotz gogorreco oneec beste onen beste yazo ce-daquien. Etorrico da egunen bat, ceinetan aurquituco direan ni nagoan moduan, eta orduan neurtuco dituez, ni eurac neurtuten naven neurriagaz. Aushe escatuten deutsee arima areec anchina Jeremias-ec Jerusalem-en icenean burla ta barre eguiten eutsenen contra escatuten eutsana leguez. *Reddes eis vicem, Domine, secundum opera manuum suarum*. Aror non daucazuen neure sermoe-guei edo asuntua zati bitan: lelengoan esango deusuet ce gogortasun icaragarria dan Purgatorioco arimaac aizturic euquitea; eta bigarreanean ceimbat aserratuten daven gogortasun onec Jaungoicoa.

(178) 2. Trentoco Batzaar edo concilioac iracasten deuscu J.C^o. gure Jaunac emon eutsezala Elesha Santeari escubidea parcamenac emoteco ta concedietaco. Parcmena edo indulgencia ezta beste gauzaric ezpabere pecatu eguiten dogun bacochean, gure ganean artuten dogun zorra paguetea. Onetaraco yaquin bear dogu ce Elesha ama santeac daucala ondasun aberats edo andi bat: ondasun au da, J.C^o., bere ama guztiz santa, eta ganeco Santu-Santeen mercedimentu ta irabaciac. Orain bada esatea Parcmena dagoala da adietan emoitea Aita Santuac edo Obispo Jaunac idigui daudeela ondasun au, bertanche artu daigun cegaz quitutu deusagun Jaungoicoari zorra. Ara obeto ulertu daguizuen irudinchu bat. Zor baceutsez edonori eun bat ducat, eta ez euquiric cegaz quitu eguin, iriguico baleutsue guizon aberats batec bere diru edo ondasun guztia dirautsuela artu daguizuela, eta pagadu ceüen zorra, erraz erraz pagadu cinaiquee ceüena izan ez arren: bada aushe berau eguin guinaique (178) Aita Santuac, Eleshaco ondasunac parcamenen bitartecoz idiguiten deuscuzanean berac aguinduten davena eguin guñai. Parcamenac ez baccaric irabaci guinaiquez guretzaco, baita beré purgatorioco arimeentzaco: baya ez edocein parcamen, ezpada escubide onegaz autortu edo concedietan direanac. Asco eta andiac dira arimac gaiti irabaci leitequezanac: Aita-gurea, eta Ave-maria bat errazaduagaz gaüez arimeen campaea yoten danean irapazten dira indulgenciac: aushe berau eguinic norbait il eta campaea enzuten danean bardin irabazten diraz. Beste parcamen guztiz asco irabaci leitequez purgatorioco arimeentzaco. Orregaitic chito da oitura ta ecandu ona Eleshara sartzten danean Gure Jaunaren estaciñoa esan, edo altarac visitetea edo icustea. Ara emen ce gauza erraza dan, Ne.Cc., arimaac Purgatorioric ateratea, eta alan-da guzti bere aushe pusca au bere nequea eguiteco. Ascoc ta ascoc gura dave meza aurrean Eleshaco ateetan barri-

quetan egon barrura sartu eta estaciño bat arimac gaiti errezau baño, mezaco demporea beré luce eguiten yaquela. Cc., ez gaitazan ain gogorrac izan arimacaz: eguin daigun aleguina betico atseguina artu daien, ce ainche euquico dituguz gure bitarteco Jaunari erregutute-co, biraldu deigula bere gracia. Ave-Maria.

Lelengo zatia

3. Ecin aurquitu leiteque mundu onetan gogortasun andiagoric, nequez beteric dagoanari gach eguitea baño, S. Juan Crisostomo-c diñoaneti, ce au eguiten davenen crueltasuna ez bacarric elduten da sensunba'co animalien gogortasunera, baya andiagoa bere bá abereric uzuenena baño; bada eci-bacoena izan arren, beti maitetu edo ametan ditu bere lagun eta irudicoac. Baya atsacabez beteric dagoanari min eguiten deutsanac eztau laztan bere izaite edo naturalecea eta ceimbat eta andiagoa dan iragoten dan lana, aimbat eta gogorra-goa da ari gach eguiten deutsanen biotza. Ain gogor erechi eutsan David Erregueari modu erruqui bagaco onec ce, castiguric itsaltsu eta icaragarriena escatuten eutsan Jaunari gogortasun au eguiten evenen contra. Ezarri eguiozu, Jauna, cirautsen, gacha gacharen ganean, eta ez eguizu beren erruquiric euqui: ez eguizu onelangoa ifini justuen artean; ez eguizu escribidu salvaciñoco liburuan, bada zu castiguetan dozunen contra yaiguiten dira, eta neureen mineen ganean eguiten deustez zauriac. Ain castigu andia merezidu beeven Daviden contra egozanac, nos erruqui gueiago euqui bear even, eta ain gogor escatuten beutsan Jaungoicoari guizon erruqui бага oneen castigua, ¿cer derichazue merecico eztavela purgatorioco arimeen dei, negar eta cizpuruac entzun gura eztituzanac? bada arima a'ec igaroten dituezan neque ala eta tormentuac, ez bacarric dira Dabid Erreguec igaroitzen cituzanac baño andiagoac, baita mundu onetan asmau (eta pensau) ta gogoac emon al leiquezanac bashen beré andiagoac, bada S. Agustin-ec diñoandi, pena ta neque andiagoa da purgatorioan puntuchu baten egotea mundu onetaco neque eta min guztiac igaroitea baño.

4. Ce gogortasun, ce crueldade andiagoric su icaragarrizco arteric deiez eta deadarrez dagoan arimeari ez yaramonic eguitea baño? Esan eguidazue, Ne.Cc., icusico bacendue guizon bat carobi, laba edo sutegui isio baten yausiric deadarrez an dagoan lagun bateri, eta onec escuetan emonic atera al daiala ezteutsala yaramonic egin gura, ¿cer esango ceunquee? Etzeunque esango arria baño biotz gogorra-goa daucala? Cruelago dala abereric uzuena baño bere? Yausten da

(179) bada arima tristea purgatorioco su icaragarrien erdira, deadarrez erregututen deuscu arren atera deigula lecu itsaltsu atati; eta izanic guri ain erraz escari au, ezteutsagu causiñoric eguin gura. ¡Gogortasun neurribaguea benetan! ¡crueldade parebaguea! Deadar eguiten dau lau-oñeoc, diño S. Agustinec, eta beste lagun guztiac irrinza eguiten dave: yausten da troca, edo leza baten idi, bei, zaldi, edo mandoren bat, eta guztiac doaz bertatic andic ateraten. Yausten da Jaungoicoaren irudira eguinico arimea purgatorioco su icaragarri-coen erdira, deadar eguiten dau, erregututen dau negarretan urturic, eta eztago noc enzun daguian: (179) ezteutso iñoc escua emon gura, leza itzaltsu atatic urteiteco. Beguira, guizon sensunbacoa, deiez yagotzun ori bear bada ceure aita da, araco izaitea emon eutsun aita, araco zugaitic ainbeste emon evan aita, araco zuri yateco, yasteco, bici izaiteco, eta beste bear cenduan guztia irabazteco nequepean bici izan zan aita, bere guraari guztia zu ondo icustea izan da eta ameneco zuri eutsun amodio larreguiac dauco erre eta quisquilduten. Orraco presondegui edo carcela ilun orretatic deiez yagotzun zure ama, da benturaz araco izaitea emon eutsun ama, bederatzi illabetean bere sabelean erabili cenduzana, eta zu mundura etorteco aimbat min eta ala igaro cituzana; berac aci cenduzan bere ugatz gozoagaz. ¿Ceimbat gau galduco cituzan zu zainduterren? Ceimbat bider ichi evan bere aoco copaüa zuri yaten emoterren? Eta alan da guzti ezteutsazu ori bashen yaramon gueiago eguingo? Eztituzuz enzun guraco bere negar cizpuru, eta zotin tristeac? Bada benetan diñot animaliaric sensunbacoenac baño beré biotz astunagoa daucazula, bada abereric ecibagueenac ezagututen dituz bere gurasoac, yarraituten deutse eta ezagututen dave euren moduan deuten esquer ona. Ylten dozuezala ceüen gurasoac diño Espiritu Santuac.

5. Obeto ezagututeco gogortasun onen aserrea ta anditasun esquerguea eztaucagu beguiratu baño cer escatuten daveen arima oneec. Ezteutsue escatuten ichiteco zuen etse, seme, alaba, senar edo emaztea, ez galdu daguizuezala diru, ondasun, edo haciendac; ez ibili zaitezala elesharic-elesha, ez eguin daguizuezala penitencia, barau, eta gaubelaac; guichiagogaz contentetan dira; bacarric escatuten deutsue atera daguiozuela meza bat, edo ecin badozue, guichienez enzun daguizuela, errezadu daguizuela estaciñoren bat, bisitadu daguizuezala altarac, confesadu eta comulgadu zaiteezala bere icenean, irabaci deiozuela indulgencia bat edo beste, eta onelango beste gauza erraz batzuc. Au guzti au eguin cinaique neque andi bagaric, eta ceure bear ta cereguinac ichi bagaric, diru eta ondasunac galdu bagaric, alperric zagozen artean, edo meza aurrean barriquetan zagocen artean. Eta ¿au puscachu au beré eztozue eguin guraco zuen gura-

soac gaitic? ¿Cer eguingo ceunquee, cer esango ceunquee escatuco baleutsue eguiteco eurac gaitic eurac zuec gaitic eguin daveen laimbeste, galdu daguizuezala gau osoac eurac zuec gaitic galdu dituezana leguez: egon zaitezala gosheric arratsera bearrean eurac zuec gaitic egon direana leguez, emon daizuezala ceüen diru eta ondasunac eurac zuec gaitic gastau dituezana leguez? Eta alambere ¿eztozue eguingo aushe pusca au bere zuecgaitic aimbeste eguin daveenac gaitic? ¿Eztozue ezun guraco izaitea emon eutsuenen negar cizpuru eta erreguac? Bada ara, zuen zori gogorrecoa etorrigo da egunen bat, ceinetan aurquituco zareen orain arec dagozan moduan, eta eztozue orduan euquico noc yaramonic eguin (daizuen), ce castigu oneshegaz cematuten dituz Jaungoicoac besteen erruquiric eztaukseenac, eta obeto ezagutu daguizuen eguia au, enzuzue ceimbat aserratuten daven Jaungoicoa gogortasun onec.

Bigarren zatia

6. Sarri yagocu esaten Espiritu Santua yustuac dagozala escatuten Jaunari castigadu daguizala eurecaz gogor izan direanac, edo euren erruqui izan eztireanac, eurac premiña eta nequepean egozanean. ¿Nor arrituco ezta, David Erregueac Jaunari beragaz esquer deungaco izan direanentzat escatuten deutsan castigu edo venganzegaz? (Sal. 108). Imini begui, Jauna, dirautso, onen nagusi pecataria eta Diabrua euqui daiala bere escoaco alboti, juicioan condenaduric urten daiala, eta pecatu sortu daquiola bere escaria, edo oraciñoa; egun guichi bici deila, bere semeac ume zurtz gueratu deitezala, eta alargun bere emazte, ateric ate esquean ibili deitezala bere semeac, eta bota daiezala euren etsetatic: eztaiala aurquitu lagundu gura deutsanic, eta eztaiala iñoc peré erruquiric euqui, eztaiala iñoc beré bere icena gomuta, eta batu deitecela bere contra guraso eta aasaben pecatu guztiac. ¿Eta cegaitic, derichazue, escatuten evala Davidec venganza eta castigu ain gogorra eta itzaltsu au (180) bere arerioentzaco? Ah, Ne. Cc.! Bere erruquiric euqui gura izan ez evelaco *pro eo quod non est recordatus facere misericordiam*. David-ec beronec escatuten eutsan Jaunari beste lecu baten, arren bada enzun eguizala Santuen deadarrac, ceintzuc escatuten eutsen biortuteco zazpi bider gueiago arerioac eguin eutsezan gachac. S. Juan Evangelistec dirauscu, icusi cituzala altarapean arimac, erregututen Jaunari, bengadu eguiala euren odola. ¿Eta derichazue ezavela arima purgatorio-coac zure eurac ganaco gogortasunaren castigua escatuco? Escatuco daude, sarri escatu davena leguez: deadar eguingo dave euren seme,

eta oñordecoen contra, Abel-en odolac Cainen contra, eta Nabot-enac Acab-en contra baño bere sendoago ta zoliago.

7. Eta ¿juste dozue eztituzala enzungo Jaungoicoac deadar one-ec, edo eztituzala bengadu guraco eurai eguiten yacazan gachac? Enzuzue cer diñoan Moyses-ec: «Jaungoicoac vengauco dau bere servitzalleen odola, eta galduco dituz euren arerioac.» Jeuscristoc berac araco juez alargun pobre bateri justicia eguin eutsanen irudian adierazoten deuscu ce laster enzuten dituzan bere serbitzalleen eta arima santeen negarrac, eta euren arerioen contra eguiten dituezan escabideac. ¿Derichazue eztituzala Jaungoicoac castigaduco bere adisquideai eguiten yacazan gachac? Bene-benetan dirautsuet laster egingo davela vengancea. *Dico vobis quod cito faciet vindictam illorum*. Eztau luzatuco zuen castigua; laster castigaduco dau arimac ganaco dauquezuen astuntasun eta gogortasuna, ceinegaz eztozuen eguin gura ceüen guraso, aide eta onguillaac euren testamentuetan aguindu eutsuena, *cito*, etc. Laster galduco dozue ceüen ondasunac, erreco yatzuez etseac, quenduco deusue haciendea, ostuco deusuez ganaduac, edo etorrigo yatzuez beste calteren batzuc, *cito*, etc. Laster sartuco da zuen etsean gacha, galduco dozue osasuna, ilgo yatzuez seme-alabac, senarra, edo emaztea, eta gueratuco zaree pobre, caden eta erquinic. *Cito*, etc. Laster icusico dozue labore faltea, gosea, premiña, nequea ta tristecea, *cito*, etc. Eta ¿cegaític? ceuen gurasoac aitzu dozuezalaco, eurac ichi eutsuezan obligaciñoac bete gura eztozuezalaco.

8. ¿Ceibat bider dacusgu beste onenbeste? Ychiten ditu guizon batec ondasun andiac, errepartetan dituez semeac euren artean, abietan dira guizon andi eta aberats izaten: apainduten dituez echeac, yasten soñeco ederracaz, mai ugaria, otseñac naico beste, guztia dagoz eurai beguira, eta beingo beingoan, nondic nora eztaquiela, gastetan dira ondasunac, aurquituten dira guztiz pobre, cer yan eztauquela, altsiz yanciric, eta iñoc yaramonic eguiten ezteutsela. Arzten dau beste batec hacienda zabal eta aberatz bat gurasoacganic, eta urte guichi barru asten da auci bat, erretan dira etseac, eguiten dira zorrac, saldu bear dira soloac, eta orra non eztaucan cer yan, ez cer yanci. Daucaz beste batec gurasoac ichirico ondasun eta hacienda andiac, etse miragarriac, yanari gozoac, oe bigunac, naico beste criadu, eta berba baten esateco, dauco guizon batec gura al leiquean guztia. ¿Baya cer deutso? Beti dago gueishoric, yanariac gach eguiten deutso, ecin urten dau echetic, eztauco ecetan pozic, loric pere ecin eguin dau, beti dago argal. Ytanduco baguendu nondic datozañ gach guzti onec? Batzuc esango leuque arduraric ez echeco gubernuric eztauquelaco: beste batzuc desfortunea dala: beste batzuc dala

gueishoquia, eta guztiac gaitic (guztientzaco) aurqitu guraco leu-
 quee achaquiaren bat nori errua ezarri. Baya sarri eta sarri neque
 oneec biralduten dituz Jaungoicoac, purgatorioco arimac azturic da-
 gozalaco: euren testamentuac cumplidu gura eztirealaco, agundu ci-
 tuezan mezaac, limosnac, edo beste obra onac atera gura eztirealaco.
 Ascoc dauque maldiciñoa ilen ondasunac osturic dauquezalaco S.
 Vicente Ferre-ec diñoaneti: ideo multi habent malediccionem, quia
 detinent bona mortuorum. Eta ushala mundu onetan gueratuco ba-
 litz guizon biotzbaco onen castigua, eta gordeco ezpalitz beste mun-
 dura beti betico irauteco, baya bildur izan daitequez infernuetan
 yausi ezteitezan, eta ango su icaragarrien artean negar eguin eztaien
 ilacganaco equi even gogortasuna, bada diño Espiritu Santuac;
 biotz gogorra deungaro aurquituco dala azquenengo (181) egunean. (181)
Cor durum male habebit in novissimo.

9. Bildurrez beteric equi bear gaituz, Ne. Cc., sententia onec,
 bada atserengo egunean deungaro urteiten badogu betico galduac
 izango gara, eta pelleburu onetan dagoz arima purgatoriocoacaz go-
 gor dana, bada bere contra deadar eguingo dave, eta Jaunac enzungo
 dituz eta bengauco dituz, eta eztago mundu onetan ez bestean gauza
 itsaltzuagoric Jaungoico biciaren escuetan yaustea baño, S. Paulo
 Apc. diñoandi: *horrendum est incidere in manus Dei viventis.* Alegui-
 na eguin daigun, Ne.Cc., ordu icaragarri atan sententia on bat (eu-
 qui) daigun arima purgatoriocoacaz erruquiorrac izanagaz, bada di-
 rauscu Jaunac bedeincatuac direala erruquiorrac, bada eurac
 aurquituco davela erruquia. Aushe izango da moduric onena, guero
 beré euracaz gu bat eguinic, Jauna beti beti alabetaco ceruco atse-
 guin artean. Amen.

6. PURGATORIOCO ARIMEEN GANECO BIGARREN SERMOIA

(B, 181-185. or.)

Dum tempus habemus operemur bonum ad omnes, maxime autem ad domesticos fidei. Galat. c.6.v.10

(181) 1. Bacochar mundu onetan ereiten davena artuco dau bestean, dirautse S. Paulo Apc. Galacia- tarrai, araguiaren guraari citalac ereiten dituzanac araguiaren usteltasuna artuco dau: baya eguiguera edo obra onen acia ereiten davenac betico bicitzearen frutu gozoa batuco dau. Ez gaitezcan alperrac izan bear on onetan, bada bere denporan artuco dogu saria. Ea bada, denporea, edo astia daucagun artean eguin deiegun on guztia guizonai. *Ergo dum tempus habemus operemur bonum ad omnes* eta guztiz beré gueugaz fede edo sinisquera bat dauquenai. *Maxime autem ad domesticos fidei.* Berba oneetan iracazten deuscu Apostoluac, bicitza onec diraüan artean batu bear doguzala arimaco ondasunac, eta irabazteco moduric onena dala guztiacaz caridadea euquitea, eta ceimbat eta nequet-su, gueisho eta pobrego dan bat, aimbat eta gueiago merecietan dala onelangoai eguiten yacan mesedeagaz. Yrudi bategaz adierazo gura deuscu. Gorputzeco alde guztiac, diño, dauquee bata bestean ardura andi bat, eta oneetatic bat gueshotuten bada, guztiac necatuten dira, eta ceimbat eta min andiagoa daucan, aimbat eta neque gueyago artuten dave besteac. Aushe berau eguin bear dogu bada guc beré. Cristiñau guztioc gara gorputz bat, buru bat daucagu bacarric cein dan Jesucristo, guztioc gara bata bestean parte edo alde, eta orregaitic euqui bear dogu batac bestean ardura. Ceimbat eta andiagoc direan euren min eta nequeac, aimbat eta erruqui gueiago euqui bear deutsegu, eta aleguin gueiago eguin bear dogu gach onen erremedietaco. Orain bada, En. Cc., ce gorputz onen alde edo partec dauco min, neque eta ala andiagoric Purgatorioco arimaac baño, eta orregaitic noc eurac baño erruqui gueiago emon bear deuscue? Eta ce modutan arimaco ondasunac obeto irabaci guinaiquez, euren oneraco al daigun on guztia eguinagaz bashen?

2. Ez gaitazan bada gogorrac izan arima nequez aserico areecaz, ezteiguzan zarratu gueure belarriac euren deiai. Astia daucagun artean eguin daigun al dogun on guztia gueugaz fede bat dauqueen arima oneecaz, aurquitu daigun guero eriotza ostean: bada orduan ezta merecietaco demporea izango, ezpada ondo edo deungaro eguinen saria artuteco, eta Apostoluac diñoana leguez, ecin orduan erein leiteque, eta alan emetic ezpadaroagu, goseac ilic egongo gara. Ez daigun uste emen gueraten direanac bialduco deuscuezala an bear doguna, gueuc orain an dagozanac gaitic ecer eguin gura ezpadogu, ce Abdiac Ygarla edo Profeteac diñoandi, ceuc besteac trateetan dozuzan moduan, trataduco zaituez ceu beré. Gogorra bazara eura-caz, gogorrac izango dira zugaz ceure semeac, aideac, eta adisquideac. Alperric ichico dozuz ondasun andiac, alperric aguinduco dozu zure azquenengo orduan atera deizuezala mezaac eta beste Elesha santeac ifiniric daucazan oraciñoac. Alperric erregutuco (182) deuteezu seme, oñordeco eta adisquideai gomuta zaiezala, aleguin guzti oneec ezteutsue arean balioco. Aushe da, Ne. Ea. Mc., ceüen beguinen aurrean imini gura neusquezuena gaurco gosh onetan biztu zaitezcan aldaizuen guztia eguitera arimeen oneraco. Eta alan esango deusuet lenengo bici zareen artean obra onac eguin bear dozuezala, ichi bagaric bestec eguin daguizan zuec gaitic il ezquero. Esango deusuet guero eguiquera edo obra onen artean gueien balioco deusua dala Purgatorioco arimaac gaitic eguitea.

3. Fedeco articulua da Purgatorioa dagoana: cein dan lecu bat non dagozan arimac garbituten mundu onetatic eroan cituezan orban edo manhaac eta pecatuen bitartez eguin cituezan zorrac (quitututen), bada ecin sartu leiteque ceruan chito garbi eztagoan gauzaric, eta orregaitic mundu onetatic orbanduric, ta loituric urteiten daven arimea, ainche garbitu bear da, ceruan sartuco bada. Guztiz dira gogor eta icaragarriac, an iragoten direan min eta tormentuac. Dira, barriz, modu bitacoac. Batari dericho caltezcoa. Besteari sensun edo sentiduzcoa. Caltezcoa edo dañuzcoa da ceru, eta Jaungoicoaren arpeguiric erbestetu edo desterraduric egonac emoten deuteen nequea. Daquie ceruco gozotasuna eta atseguinac ain direala zoragarri eta andiac ce, eztala euren guericca beré beguic icusi, belarric enzun, ez gogoc gura al leiquean guztiac, eta mundu onetan bici cirean artean ardura pusca bat gueiago euqui baleude poz areen artean aurquituco cireala, eta oneshec neque mingotzez betetan dituz. Sensun edo sentiduzco pena eta nequea da ango su, iluntasun eta tormentuac emoten deusena. Arima oneec ezpadagoz beré mundu onetan, Elesha santearen parte edo alde dira eta alan dauque gugaz Santuen comuniñoa. Orregaitic lagundu guiñaioe icaragarriz-

co su areetatic urteiteco oracino, meza, limosna, barau, nequegarri eta beste edoceimbere eguiguera edo obra onacaz. Oneshec dira, Ne.Cc., Purgatorioco arimac gaitic eguin bear doguzan gauzaac, eta ez arroqueria edo sobervia zoroac aurquitu dituzanac. ¿Cer balio deutsa zure senar, emazte, seme edo gurasoen arimeari egun luceetan negar ta uluetan egoteac adietan emoiteco auzo eta adisqueideai sentimentu andi bat artu dozula? Eta venturaz venturaz au canpoticoa bashen ezta izango, barruan poz andi bat daucazula bere ondasunen yaube ichi zaituzalaco, edo nai dozuna eguiteco escuicunean gueratu zarealaco. ¿Cer balioco deutso arimeari yan-edanac, eta ameneco ordituteac? Ondo da obia, edo sepulturearen ardura euquitea; ondo da senide eta adisqueideai entierruraco dei eguitea, baya au izan bear da ila gaitic Jaungoicoari erregututeco eta ez esan daien: ah ce entierru ta illeta ederra euqui daven, ceimbat yente etorri dan! Gauza guzti oneec bicien poza dira, ez ilen atseguina, diño S. Agustín-ec. Orregaitic ezta gastu oneetan ifini bear ilen onra ta atseguina, ezpabere lecu atatic aimbat lasterren aterateco dituezanetan. Oneshec eguin bear doguz aimbat lasterren yoan deitezan Jaungoicoa arpeguiz arpegui icustera. Escatu deiogun jaunari mesede aushe bitartecotzat ifinten dogula bere Ama Santea, dirautsagula Aingue-ruagaz batera: Ave Maria.

Lenengo zatia

4. Gach eta zoraqueria andi bat icusi dot mundu onetan ciñoan Salomon yaquintsuac, eta sarri yazo oida. Aurquituten dira guizon batzuc ceintzuei emon deutseezan Jaungoicoac hacienda zabalac, eta ondasun ugariac, eta orregaitic beré ezta euracaz balio gura, eta daucaz gorderic, eta il deinean beste batec heredaduten dituz, eta nai daven moduan gastetan dituz. Au eraqueria andia, eta miseria andia da. Berba oneetan adierazo gura deuscuz Salomon-ec, diño S. Geronimo-c, araco guizon aberatz ondasun, eta diruz beteac, ceintzuc euquiric cegaz arimaco ondasunac irabaci, eztaveen gura euren seme eta oñordecoac aberatz istearren, uste daveela oneec esquer oneco izango direala, eztituezala aztuco eta al daguien guztia eguingo daveela Purgatorioan badago aimbat lasterren andic aterateco. Baya guztiz dagoz engañaduric, eta bete betean uts eguiten dave, ce Salomonec diñoana leguez, billosic etorri zana leguez mundu onetara, billosic urtengo dau emetic. Sartuco dave obia edo sepulturaco ilumpean, eta egun guichi barru eztau iñoc gomuta izango. Araco bere Seme, araco bere oñordeco, nortzuc (183) ondo ichtarren ez euan

(183)

limosna bat emon gura izaiten, nortzuc aberaztuteren arrastaca bici izan zan, eguiquera eta obra on asco ichiten cituzala lenen lenen aztuco davee, eta ez bacarric eztave ecer eguingo beragaitic, baya eztituez bete edo complidu guraco bere testamentuan aguindu dituzan meza, funciño, eta beste memoriac. Eguia au ezagututeco, eztaucaguz beguiac idigui baño. Egunean egunean dantzuguz esaten oñordeco edo herederuac ezteutsala ecer ichi, beste obligaciño guichiago deutsanari gueiago emon deutsala, gueiago balio daveela ifini deutzazan cargaac, toque yacon herencia baño, eta guztiac paguetaracoan, ez bacarric ez yacala ecer gueratuco, baya calte andiac etorrico yacazala, bada bere dirutic ifini bearco davela herenciari falta yacona. Achaquia oneecaz eztira atera gura ilac euren testamentuetan eguinico aguindu edo mandaac, eta aitzuric ichiten dira anaie, guraso, eta adisquideric andienen arimaac.

5. Eta derichazu oneec bashen esquer obecoac izango direala zure seme, alaba, eta ganeco oñordecoac, edo obeto sarieztatuco deutzuezala eurac aberaztuteco emoitzen dozuzan icerdi, iragoten dozuzan neque, eta artuten dozuzan arazuac? Uste dozu orain esan-arren etzaituzala iños aztuco, beti beti Jaunari erregutuco deutsala zugaitic; gordeco deutsula berba au? Eztaquit, Cc. Baya ara cer diñoan Espiritu Santuac. Ascoc ta ascoc gura davena artu artean opetzi eta promesa andiacaz mun eguiten deutse escuan emongo davenari, eta humiltasun guztizco bategaz esaten davee guztiz sendo, esquer oneco izango direala euren onguillegaz; barriz, eldu deinean imini yacan eguin-bearra edo obligaciñoa, paguetaco epea aldaien guztia luzatuteco. *In tempore redditionis postulabit tempus.* Estutu gura badave pagadu daguiari arimai zor deutsena, berba astunac eranzungo eta murmuraduco dau. *Loquetur verba taedii, et murmuratum.* Badauco cegaz atera testamentuan ichi cirean aguindu edo mandaac, eranzungo dau eztaucala obligaciñoric, eta ifinico dau auci bat ez paguetarren. *Si potuerit reddere adversabitur.* Eta cerbait paguetan badau ozta izango da erdia, *Solidi vix reddet dimidium.* Pagadu ecin badau, orduan bai biraoac, maldiciñoac eta aserreac obligaciñoa ifini eutsenen contra. *Sin autem convitia et maledicta reddet illi.* Yzan bedi andi eta zabala ichi deutsan aciendea, eta chito chiquia obligaciñoa, bada orregaitio esango dau andiagoda dala daucan carguea, eta alan eguin deutsan mesedeen orde, sarri berba gogorrac eguingo dituz bere onguillearen contra. *Pro beneficio reddet illi contumeliam.*

6. Baya Jaungoicoac berac esango ezpeleuscu beré au, ez gueunque gueure beguiacaz dacuscuna baño besteric bear, ezagututeco ce eguia andia dan. Sarri eta sarri dacusgu herederuac aaztuten euren onguillegaz. Aldaiezan asmuen billa atzean dabiltz testamentuan

imini eutseezan obligaciño eguin bearrac ez paguetaco, eta norbaitec estutu gura badituz bear daveenera, leenago auci gogor eta luce bateri yarraituco deutse zor au pagadu baño. Ceimbat onelango auci icusten dira mundu zabalean! gozetan dira errenta andiac, baya ezta lauciri emon gura ondasun oneec ichi cituezanac gaitic. Eta yaquinic egunean egunean au yazoten dala, bici gura zara nequepean, beti arrastaca atseguin bagaric Jaungoicoa ozta ozta gomuta dozula, ceurre arimea aazturic, ondasunac seme eta oñordecoentzat oneec esquer oneco izango direanen usteagaz? Etzaitetz zoroa izan, artu eguizu Jeremias-en itundute edo conseillua. Contu bacoachac bere proximuagaz, diño, ez beiteque fiadu bere adisquideric urcoenetan beré, ce seme eta adisquideric andiena, oquer eta trampaz ibilico da. Esan eguizu Salomon-egaz, cetaco aimbeste adicatuten nas mundu onetaco ondasunac gaitic? Cetaco engañetan dot neure arimea ondo ifinterren, eta aberatz ichiterren, neure seme eta oñecoac, yaquin bagaric celangoac urtengo daven, eroac ala yaquintsuac, esquer oneco edo deungacoac? Pensamentu onegaz ichi eguizu seme eta aideai deutseezun amodio larregui eta zoro ori, ceiñec aiztu eraguite deutsun arduraric bearrena, cein dan arimaco ondasunac batzaindutea. Ara cer dirauscun Espiritu Santuac: Bicitzeac dirañan artean eguizu arimeagaitic aldaizun guztia, ce beste munduco iluntasunean bearric ecin eguin leiteque, ezta aurquituten yaquituriaric, ez yanariric, ez eguiquera edo obra onic eguiteric.

(184) 7. Baya emon daigun, C^a, zure seme, alaba, senide eta oñordecoac, nortzuc aberatz isten dozuezan esquer oneco izango direala, ezagutuco dituezala zugandic artu dituezan mesedeac, eta ateraco dituezala mezaac zure arimeagaitic, irabacico dituezala indulgencia edo parcamenac, errezaduco dituezala errosario eta estacinoac eta eguingo daveela aldaiena zure oneraco. Baya orain ceuc an dagozan arimaac gaitic ecer eguin gura ezpadozu, ¿derichazu orduan balioco deusuela? Ay, Ne. E^a Mc., bildur izan zinatequez cein araco Jaungoico artezac zuei quendu eta emon deioen araco zuec bashen ardura andiago bat arimaac gaitic erregututeco euqui daveenai. Ascogaz au yazo dala dirauscuc Eleshaco Yracurlari edo Doctoreac. S. Agustin-ec (diño) celan merezi mundu onetan, alanche balioco deusuela bestean gugaitic eguingo direan oraciñoac. Gura dozu bada balio daizuen il ezquero zugaitic eguingo direan escaari, meza, oraciño, eta beste eguiquera edo obrac? Eguizu bada orain an dagozanacgaitic al daizun guztia, bada celan eguin euracgaitic, alanche eguingo da zugaitic, eta artuco dau Jaungoicoac. Berac diño ceuc ceure proximua neurtuten dozun neurriagaz, neurtua izango zara. Neurri ugariagaz neurtuten badozuz Purgatorioco arimaac

ugari artuco dozuz an zagozanean meza, oraciño, eta parcamenac: baya urri sicua bazara euren alderaco, urri eta sicu izango dira zurez-zaco beré. Orra non daucazuen

Bigarren zatia

8. J.C^o. eta Apostoluac sarri eta estuago aguindu daveen onoide edo birtutea caridadea da, eta alan birtute guztiacaz apainduric egon leitezan bere discipuluac gura euquean S. Paulo Apc. Baya alambere dirautse Colosa-coai gauza guztien ganetic euqui eguzie alcarganaco caridadea, ce bera da guztien coroe eta guena. Guztiacganaco zabaldu cedín caridade au nai euquean, eta dirautse guztiacgaitic oraciño eguin daiela: Erregue, nagusi, aguintari, juez eta beste edoceingaitic; baya orregaitic gura leuque ardura andiago bat euqui santu eta onacaz, eta oneshen premia eta bearrac lenen socorridu daiguzan. Badirautse beré Galacia-coai, guztiai mesede eguin deioela bertatic diño, baya gueiago euracaz fede bat dauquenai. Erromatarrai badirautse arerioguiño-coai limosnea eguiteco, nai dau santuen premiñen ardura gueiago euqui daiela, eta alan ceimbat eta santuago dan premiña daucana, eta ceimbat gogorrigo dan estucuntzea, aimbat gogo obeagaz beguiratuten deutso Jaunac onelangoacaz eguiten dan caridadea. Purgatorioco arimacgan daucaguz gauza bi oneec. Dira santaac eta Jaungoicoaren adisquideac, eta ain modutan ce ecin galdu leie santidade au, eztabe orbanduco graciaren soñeco ederra, eta beragaz sartuco dira egunen baten ceruco Jaunaren esteguetan. Eztira iños beré Jaunaren arerio izango, eztira iños demoniñoaren aguindupean yausico; beti izango dira J.C^o.ren esposa maite, bere bicilecu, ta Jaungoicoaren seme eta ceruco herederu eta yaubeguei. Mundu onetan dagoan santuric andiena eztago seguru; bada beti dago arerio gogorrez inguraturic, eta gracia galduteco pelleburuan; baya Purgatorioco arimaac eztauque alango pellebururic, eztagoz aragui argalez yanciric, eztauco Demonioac eurac tentateco escubideric eta alan guztiz dagoz seguru. ¿Celango gogo eta borondateagaz artuco dituz bada Jaunac bere esposa, bere seme ain laztanai eguiten yaquezan on eta mesedeac?

9. Beguiratuten badogu cer igaroten daveen, icusico dogu mundu onetan irago direan ta irago al leitequezan neque eta tormentu guztiac eztireala euren gueriza beré. Dagoz icaragarrizco suz beteric leza ilun baten ondiaturic euren Aita cerucoaren echetic erbestetu edo desterraduric. Euren guraari guztia da Aita beticoa arpeguiz arpegui icustea, baya eztira elduco zorion au euquitera aric eta euren

ganean dauqueen zor guztia quitutu artean. Ain dagoz pobre ce, eztaunque cegaz (quitu) eguin. Dagoz lecu itsaltsu atan zarraturic, eta ecin idigui dituez atea, dagoz grillu gogorracaz loturic, baya eztaunque indarric soca eta catee oneec urratu, ez ascaturico. Jaungoicoaren justiciaco azoteac zaurituten dituz eta ecin escutadu dira escu gogor onegandic. Eguia da chito laztan dituzana, baya garbi garbi eguin artean arerio cruel balitz leguez castiguetan dituz: eguia da aita samur batec (185) seme biotzeco bat bashen gueiago maitetu edo ametan dituzala; baya aric eta zorra quitu eguin artean guizonic gogorrenac baño gogortoago artzen dituz, eta Job santuan diñoana leguez cruel ta aserre gogor biurtu da eurentzaco, eta arerio esquer-ga batec leguez ezarten dau euren ganera bere escu astuna. Mundu onetan Jaun arec biralduten dituzan gastiguac cer dauque cer icusi Purgatorioan arimeen ganera biralduten dituzanacaz? Batu bediz guizon guztia emen igaro al daiezanac: guesho, min, ala zauri, gach eta nequeac. Martiri guztia irago dituezan azote, presondegui edo carcela, su, berun urtu, laba gori-isio eta eriotza cruelac, guizonic cruel gogor eta asmularienac asmau ta aurquitu aldaiezanac: bada ezтира aoan artzeco bere an arima tristeac igaroiten dituezanen parean.

(185)

10. Orain bada, Ne. Cc., celango gogo, celango borondateagaz, celango gustuagaz artuco da Jaungoicoac bere adisquide ain andiai eguiten yaquen mesede guztizco au? Eta ce sari icharon ez guinaique Jaun ain on augan'ic bere seme maiteai eguiten deutsegun atseguin eta zorionagaitic? Berac diño poz andiangoagaz artuten davela pobre socorrietea, ume zurtzari lagundutea, eta alarguna zaindutea, aari, idi eta beien sacrificio guztia baño, eta au eguiten evanaren ganean guztiz ugari botaco cituzala bere misericordiaren ondasunac. Bada ceimbat eta pozago artuco dau Purgatorioco arimai eguiten yaquen ona, izanic munduan direan alargun, ume-zurtza eta larritu guztia bashen erruqui garriago? Ceimbat eta bedeincaciño ugariago artuco dituez onen onguilaac a'e'nac baño? Bere izenean emoiten dan pichar bete ur otzen saria galduco ezpada, ¿ce sari artuco dau Purgatorioco arima bedeincatuai ceruco atea idigui eta betico atseguin eta gozotasun a'etan sartuten dituzanac? S. Bernardino Senacoc dirauscu obra onen bat arima a'e'c gaitic eguiten dogunean, gueiago merecietan dogula amar bider gueiago eguingo baguendu baño. Bicien bat gaitic lotu, zarratu, guesho, billos eta goseac ilic balego beré, ce mundu onetaco guesho, eta carcelan sartu, eta burdiñaz yosiric dagoana nondic edo andic balia leiteque, barriz suzco leza atan dagoana eciñ iñondic beré balia leiteque. Biztu gaitez an bada, Cc., orainche demporea daucagun artean al daigun on guztia

eguitera, bada eriotzaco gaüa etorri ezquero ecin bearric eguin leiteque, dirauscu Salbagueilleac. Eztaigun iñoren ardurara ichi gueuc eguin al daigun gaucea, ce gu emetic yoan ezquero, aizturic euquico gaituez emen gueratuten direanac. Ceimbat eta ondasun gueiago ichi, aimbat eta aiztuago euquico zaitueze. Naiagoco dave andique-ria, guraari eta zoraquerietan gastadu zuec ichiten deutzazueena, zuen onean, eta zuec ceruco atseguinetan sartuten lagunduten baño. Eguizue bada aldaizuen guztia arima a'ec gaitic, bada mundu onetatic urten daguizueanean, aurquituco dozue ez bacarric eguiten dozue-na bapere falta bagaric, baita eun biderrez gueiagoturic. Euqui eguizue misericordia, eta erruquitu zaitece su a'e'tan dagozanacaz, eta Jaunac euquico dau zuecaz, bere erruquia. Berac diño: zori-onecoac erruquiorrac, cegaitic ce eurac aurquituco dave erruquia. Suertetsuac izango zare pobre eta nequetsu a'ei ondo eguiten badeutzazue, bada egun gogor eta estuan Jaungoicoac ondo ateraco zaituez, eta eroango zaituez cabubagaco atseguin artera, beti beti bera alabadu daguizuen Aingueruacaz batera. Amen.

7. PURGATORIOCO ARIMEEN IRUGARREN SERMOEA

(B, 186-191. or.)

Memor esto iudicii mei, sic enim erit et tuum; mihi heri, et tibi hodie.
Eccli. 38. v.23.

(186) 1. Esheturic Elesha Ama Santea bere Semeen zorionen guraarian beti emon deutse bera alcancetaco bear dituezan gauza guztiac, eta idiguiten deutsez zorion onetara elduteco bideac. Yaiota bertatic eguiten dituz J.C^o.ren seme bateoaren bitartez; armadu eta sendotuten (indartu ta gogortuten) dituz arerioen tentaciñoen contra Confirmaciñooco sacramentuagaz; ase eta mantenietan dituz altaraco sacramentuagaz: gueshotuten badira pecatuaren gachagaz, Penitenciaco sacramentuan imini deutse, eurac bear daveen, osasunguei edo medicina. Ydiguiten dituz J.C^o.c ichi eutsazan ondasun guztiac, eurac aberaztu deitezan (aberazteco); eta guztia bein goan esateco ezteutse ucatuten betico atseguinetara elduteco bear daveen gauzaric. Eztira amaituten edo acabetan (azquenduten) ardura oneec bere semeen eriotzeagaz; il ezquero beré eguiten dituz aleguin guztiac aimbat lasterren urten daien Purgatorioco ala, pena eta suteguitic, eta eldu daitezcan Jaungoicoaren arpeguia icustera. Onetaraco beti beti dago Jaungoicoari erregututen (erreguca) arren bada atera daguizala leza atatic, eta eroan daguizala ceruco gozamentura. Onetaraco opa deutzaz sacrificioac edo meza santuac, bigunduteco euracaz Jaunaren justicia (gogortasuna); eta onetarashe biztu gura dituz mundu onetan bici direan Semeac, eurac gaitic Jaungoicoari opa ta isquindutera euren meza, oraciño, barau, limosna, eta beste (osteranchaco) obra on guztiac. Eta gogo obeagaz eguin daigun Eleshearen esana, dirauscu ce, on guztiz andiac etorrico yacuzala misericordiaz beterico obra oneetatic, eta ez dugula galduco guere saria, bada guztiz dala osasuntsua ilac gaitic erregututea. *Salubris est cogitatio pro deffunctis exorare*: bada gure oneraco izango dala Purgatorioco arimaac gaitic eguiten dogun guztia.

2. Ez, Cc., eztaigun uste izan galduco dogula Purgatorioco arimac gaitic eguiten doguna, ez; guzti guztia aurquituco dogu beste munduan aciric eta gueiagoturic, diño Jaungc. berac. Onetarashe eroan

gura gaituz Espiritu Santuac, eta alan dirauscu arimen icenean: gomu-
 muta eguizu nigaz yazo dana (cer yazo dan), *memor esto iudicii mei*,
 ce bardin bardin yazoco da zugaz beré, *sic enim erit et tuum*. Ni su
 onen erdian nagoana leguez, aurquituco zara zu benturaz dempora
 guichi barru, eta orain nigaitic eguiten dozun guztiac orduan balioco
 deutsu, eta zure oneraco izango da; zuc orain nigaz eguiten dozun
 moduan, eguingo dave zugaz orduan. *Sicut fecisti sic fiet*. Zuc orain
 nigaitic erregututen badozu, ez yatzu orduan bitartecoric Jaunaren
 aurrean faltaco; barriz aitzuric banaucazu, aitzuric egongo zara or-
 duan ceu beré. Aushe da, Ne.Ea.Mc., adietan emongo deuntsuedana
 gosh onetan zati bitan. Lelengo esango deuntsuet ceimbat irabazten
 dozuen arimái aldozuen on guztia eguinagaz: bigarreno, ceimbat
 gach dacarzuen zuen ganera eurac aitzuric euquiagaz. Lenengoan
 icusico dozue celan aimbat lasterren ateraco zaituezan Jaungoicoac
 Purgatoriotic, orain an dagozanac aterateco aleguinac eguiten bado-
 zuez; bigarreanean icusico dozue celan Jaungoicoac dempora lucean
 su atan euquico zaituezan orain an dagozanen yaramonic eguiten
 ezpadozue. Eta yaquin daizuen celan lagundu aldeiezuen andic ur-
 teiten, enzuzue urrengo

Doctrinea

3. Elesha Ama Santeac iracasten deuscu, eta alan sinistu beré
 eguin bear dogu, dagoala Purgatorioa, cein dan lecu bat non dagozan
 gracion il cirean arimaac garbituten, paguetan dituezala mundu on-
 tan bear dan moduan pagadu etzituezan pecatuen zorrac. Eztago
 miñic aituten emon leiqueanic celangoac direan zor onen pagu iga-
 roiten dituezan pena, neque eta tormentuac. Pena eta tormentu one-
 ec modu bitacoac dira: bata da sua, iluntasuna, eta beste onelango
 penac; bestea da cerutic erbestetaduric edo desterraduric egonac eta
 Jaungoicoaren arpeguia ez icusiac emoiten deuntsena. Arima oneec
 beste munduan egon arren Elesha bat bacarric eguiten dave gugaz
 naste, edo dira Eleshearen parte, eta lagundu guinaioe lecu ataric
 urteiten eta cerura elduten, bada dauque gugaz naste Santuen Co-
 muniñoa, au da, dauque parte gure obra onetan. Arimaac gaitic
 (187) Jaungoicoari opa (187) guiñaiozan obrac dira oraciñoa, limosnea,
 mezaac atera, edo enzutea, baraiac, nequeac, (lanac edo) ceregui-
 ñac, eta guztien artean indulgenciac. Da, bada, indulgencia edo par-
 camena, pecatuac gaitic merecidu dan penea parcatutea J.C^o. Virgi-
 na Andra Maria, eta beste santu-santeen merecimentuac gaitic. Au
 obeto aditu daguizen yaquin bear dozue ce, J.C^o.c ichi evala Elesha

santan bere merecimentuen ondasun andi bat, edo daucazala Elesha santeac ondasun andi batzuc, ceintzuc direan J.C^o.c, Ama Birgineac, eta ganeco Santu-santac irabaci cituezan merecimentuac. Ondasun onen giltzac daucaz Aita Santu Erromacoac. Guc pecatu eguiten dogunear artuten dogu zor bat gueure ganean, cein parcatu-arren, pecatua ezta beti paguetan. Orregaitic esatea indulgencia edo parca mena dagoala, ezta beste gauzaric ezpada adietan emoitea Aita Santuac idigui davezala ondasun oneec, eta eguinic berac aguinduten da vena, euretatic paguetan dogula, pecatuac gaitic eguin guenduan zorra. ¿Gura dozue yaquin au celan dan? Ara bada. Zor baleutsazuz norbaiteri, daigun contu, eun dobloa, et ez euquiric cegaz pagadu, eroango bacenduz guizon aberatz batec bere echera, eta idiguiric diruz beterico uchabalda edo casha bat, esango baleutsu, artu daguizula zorra quituteco bear dozun guztia, errez pagadu cinaique ceure zorra diru onegaz iñoena izan arren. Bardin da parcamena.

4. Eta ez bacarric guretzaco, baita bere Arimentzaco irabaci guinaiquez parcamenac, baya ez guztia, ezpabere araco Aita Santuac autortu edo concedietan dituezanac arimeentzaco apliquetaco gura badogu, celangoac direan Garizuman, eta beste dempora ascotan altarac visitaduagaz irabazten direanac, eta alan guztiz da gauza ona egunean egunean, edo eleshara datorren guztian altarac bisitetea, Arimeentzaco parcamena irabazteco gogoagaz, egunean egunean Arimeena yoten daveenean *Aitagurea* bat eta *Avemaria* bat belaunico esatea, ce onegaz irabazten dira indulgenciac Purgatorioco Arimeentzaco. Norbaist ilten danean *Aitagurea* bat, eta *Avemaria* beragaitic errezaduagaz, irabazten dira indulgenciac Defuntu arentzaco. Onainche lagundu bear yacoe arimai, ez beste vanidade eta zoraque-riacaz, ez egun eta aste osoac negarretan emonagaz, negar guzurrez-coacaz, sarri yazo oi dana leguez, cer-esango davenagaitic, eta euren barruan poz andi bat dauquela benturaz, il dalaco. Ondo da bere norbaist ilten danean aideac eta adisqueideac combidetea eta deiegui-tea entierruraco: barriz izan bear da guztia bat eguinic, Jaungoicoari erregutu deioen, bada Jaunac borondate onagaz enzuten dau ascoren oraciñoa; eta ez, esan daguien ceimbat yente egon dan entierru, hondra edo illetan, bada au banidade utsa da eta ezteutso ecer balio arimeari, beragaitic erregututen ezpadave. Cc., biztu gaitzean al daigun guztia Arimacgaitic eguitera, ce sari andi bat dauco oparic Jaungoicoac obra on au gaitic, eta beste munduan aurquituco dogu gueuret-zat arimac gaitic eguiten dogun guztia, eta emen beré mesede andiac artuco doguz Jungoicoagan'ic, sermoe onetan enzungo do-

zuen a leguez, cein ondo esateco, bear dot Jaungoicoaren laguntasuna eta gracia: escatu deiogun, bitartecotzat iminiric bere Ama. Ave Maria.

Lelengo zatia

5. Eztau Jaungoicoac sari bagaric ichiten guc eguiten dogun obra onic. Ecin sinistu guinaique, dirauscu S. Paulo Apostoluac, aitzuco davela Jaunac gure ondo eguina; dan chiquien chiquiena gomutauco dau, beragaitic guc mereci dogun bere saria emoteco. Berac dirauscu ondo sarieztatu ta pagaduco deuscula bere icenean emoten badogu pichar bete ur, eta ez bacarric dirauscu pagaduco (emongo) deuscula obra onen gure saria, baita eun bider gueiago beré. Eta aimbeste ardura badauco Jaunac eguiten (eguin) dogun obra edo eguicune chiquiena paguetaco, ¿ce sari emongo deuscu Purgatorioco Arimac gaitic eguiten (arimen alderaco) dogun caridadeagaitic, izanic au ain bere gustuoa (gogocoa)? ¿Gura dozue yaquin ceimbat gustetan yacan Jaungoicoari Purgatorioco Arimacaz eguiten dan obra ona? Ara bada: obra on onegaz betetan (188) doguz J.C^o. gueure Jaunac erre-dencinoco misterioac eguitean euqui dituzan guraariac, eta daroaguz celanbait cabura bere arrigarrizco eguiquerac. Etorri bazan cerutic lurrera Jaungoicoaren Semea, bici izan bazan ogueta amairu urtean mundu onetan, artu (icusi) bacituzan aimbeste neque, pena, ala, zauri eta azote bere negargarrizco pasiñoan, bota beevan bere zanetaco odol guztia, eta emon beevan bere bicitzea curutze gogor baten lot-sariric andienean lapur bien erdian, au guzti au eguin evan gu cerura eroatearren. Eztave Purgatorioan dagozan arimaac artuco J.C^o.c. irabacirico gloria au, aric eta mundu onetan pecatuacaz eguin cituezan zorrac pagadu (quitutu) artean. Ecin eurac pagadu leiez, bada eriotzea ezquero ecin merecidu leie; dagoz araco Jerusalem-en egoan guizon caden pobrea leguez, bere (euren) burua osasuneco iturrira botateco indar bague; dagoz araco gau ilunean, ceinetan ecin iñoc obra onic eguin leique; iñoc pagadu ta quitutu bear dituz euren zorrac, bestec izan bear dau bitarteco; berba baten, dagoz guizon bat presondegui edo carcela baten zorrac gaitic leguez, lauciri bagaric bere zorrac paguetaco. Orregaitic, bada, gueuc gueure oraciñoacaz Purgatoriotic ateraten doguzanean bertan dagozan arimaac, egui-

ten gara Jaungoicoagaz euren artean bitarteco; ateraten doguz pecatu peetic; idiguiten deutseguz ceruco atea; eta eguiten doguz baqueac Jaungoicoaren eta euren artean moduren baten J.C.^o.c. bere eriotzeagaz eguin evana leguez. Ara celan.

6. Jaungoicoaren justiciac emon evan eriotzaco sententia guizonaren contra; barriz, bere misericordiac parcatu gura eutsan guizonari; justiciac escatuten eutsan guizonari quitu eguin ta pagadu eguiola pecatuagaz eguin evan zorra, eta au eguin artean ez eutsan parcatu gura, misericordiac gura evana leguez; baya ez eucan guizonac cegaz pagadu zor au. ¿Cer eguin evan bada J.C.^o.c? Artu cituzan bere ganean guizonaren zorrac; pagadu eutsan Aitaren justiciari, escatu evan guztia, eta idigui eutsazan misericordiari bideac bere ontasuna guizonari eracusteco. Aushe berau eguiten dogu, bada, guc peré Jaungoicoagaz Purgatorioco arimeen artean. Jaungoicoaren misericordiac atera gura leuquez su atatic, eta eroan betico atsegui-netara, ce guztiz dituz laztan arima oneec, eta eurac guztiz dave maite Jauna: dira bere esposa maite, dagoz bere graciagaz ederturic: baya bere justiciac eztau isten, ifiniric ta ebatsiric daucalaco ezuala bere etsean gauza loiric sartuco, eta alan daucaz, euqui beré, cerutic erbestauric, aric eta zor guztia, dan dana, quitu eguin artean. Eta ¿cer eguiten dogu guc eurac gaitic erregututen dogunean, parcame-nac irabazten doguzanean, eta beste obra onen bat eguiten dogunean? Quendu Jaungoico eta arimeen artean dagoan (arteco) orma lodia, S. Paulo Apc. diñoana leguez, ceinec galarazoten eutsen alcar-gana batutea, eta ceinec eucazan catigu arimaac, Jaungoicoagana el-duteco. Eta ¿ce mesede, ce bedeincaciño, ce ondasun artuco dogu Jaungoicoaganic obra onen sari, izanic ain beré gogocoa, ceinegaz poztuten dogun cerua, gueiagotuten doguz ceruco Principeac, eta arturic gueure lepoan, esate baten, daroaguz Aita beticoaren echera, ceruco artzainac leguez araco deslai ebilen ardi tritea? Orretan ce, Ne.Cc., andiac izan bearco dau artuco dogun sariac. Eun bider guei-ago emongo deuscula diño Jaungoicoac berac, Arimacaz eguiten dogun caridadea gaitic. Zorionecoa dala diño David Erregueac Purga-torioco Arima triteai aldaiana eguiten deutsena, bada Jaungoicoac libraduco dau egun deunga eta gogorrean, cein dan juicioco eguna.

7. Beste aldetic, ¿ce sari andiagoric, ceruan Principe andi bat gueure bitarteco eguinic euquitea bashen, eta ceinec zor deuscun bere libertadea? ¿Celango pozez bete bear gaituz gogora ecarteac, Jaungoicoaren aurrean daucagula arima bat gueuc gueure oraciñoacaz Purgatoriocac ateraric ara eroan doguna, non dagoan gugaitic erregututen? Eta ¿cer icharon bear eztogu adisquide oneganic, izanic arimea Jaungoicoaren esposa maite, eta ceruco Princesa? Cegai.

(189) tic ce eztau iños bere aitzuco guganic (gure escutic) artu daven mese-
 dea, beti gomutauco dave Arimaac euren onguillac izan gareana;
 bada izanic ain andia ceruan dagozanen caridadea, ezteutse ichiten
 eguin yaquen mesedea aztuten, eta alan ecin izan leitequez esquer
 deungaco, eta beti beti dagoz erregututen euren onguillac gaitic Jau-
 nari. ¡Ah! Celango amodioagaz, celango caridadeagaz (189) escatu-
 co deutse Jaunari ezarri daguizala, arren, bere bedeincacinoac eurac
 Purgatoriotic atera dituezanen ganera! Ainche escatuten deutse, di-
 ño S. Ambrosio-c; sarieztu eguioezue, Jauna, irabaci andiacaz, pre-
 so gueunquezan laquioac urratuic, leza ilunetic atera gaituezanai¹⁹⁸.
 Ceuc esan cenduan, zorionecoac direala erruquiorrac, ceuganic erru-
 quia alcanzaduco daveelaco: bada ezagutu beguie aguindu onen
 eguia gure erruquia euqui daveenac (erruqui izan direanac), arturic
 zure escuetatic erruquitasunez beterico saria. Baita ¿uste dozue, Cc.,
 eztituzala enzun guraco gueure Jaun eta Jaungoicoac, Arimaac ce-
 ruan eguiten deutseezan erregu (escari) oneec? Ez, Cc., ez alangoric.
 Deadar eguingo dave santuac, diño David Erregueac, eta Jaunac
 enzungo dituz deadar oneec, cegaitic ece bere belarriac beti dagoz
 zur eta prest euren deiac enzuteco.

8. Anchina enzun cituzan Moyses-enac, eta eurac gaitic parcatu
 eutsan bere puebluari, eta amatadu evan bere aserrea, ceinegaz gal-
 du gura cituzan Israel-tarrac. Enzun cituzan Josué-nac, eta eurac
 cireala medio, gueldiric egon zan eguzquia sartutera yoianean. En-
 zun cituzan Elias-enac, eta eurac gaitic ez evan euriric eguin iru urte-
 an eta sei ilabetean, eta barriro euria eguin evan berac oraciño egui-
 nagaz. Enzun cituzan Eliseo-enac eta eurac gaitic orio pusca bategaz
 bete cituzan (cirean) andra alargun pobrechu batentzaco echean eu-
 cazan (cituzan) onci eta picher guztia. Eta ain indar andicoac izan
 bacirean onen eta beste ascoren oraciñoac, eta ain borondate osoa-
 gaz enzuten bacituzan Jaungoicoac, ¿celan enzungo eztituz ceruan
 dagozan arimeenac? Areec pecatuaren araguiz yanciric egozan
 oraindiñoocarren, Arimaac, barriz, eztauque pecatuaren astuntasu-
 nic; areec oraindiñoocarren erbestean egozan, barriz oneec ya dagoz
 Aita beticoaren echean, cein dacusen arpeguiz arpegui ceruco Errei-
 nuco Principe andi eguinic. Orregaitic, bada, ciertu egon bear gara,
 Arimaac aztuco eztaveela eguin deutseen mesedea, eta beti egongo
 direala gugaitic erregututen; eta Jaungoicoac ucatuco ezteutsela gu-
 gaitic escatuten daveen gauzaric, eta alan neurriba'co ondasun an-

¹⁹⁸ Redde vicinis nostris septuplum in sinu eorum. In hoc textu Psalmista petit vindictam, non praemium. Psalm. 78, 12.

diac artuco doguzala Arimaac gaitic erregututen badogu. Barriz, ¿cer yazoco yacu aitzuric badaucaguz? Enzun eguizue

Bigarren zatian

9. Gueure proximuagaz erruquiorrac izateac Jaunaren erruquiac gure ganera daca-zana leguez, alanche euracaz erruquiric ez euquiteac (izateac) dacar gure ganera Jaunaren aserrea. Judicioco egunean enzungo davee onac J.C^o.ren aotic bendiciño zorionecoa obra misericordiazcoac eguin cituezalaco. Deungaac, barriz, betico galduac enzungo davee sententia bildurgarria eguin etzituezalaco. Orregaitic diño Santiago Apc. erruquiba'co juicioa eguingo yacala erruquiric eztaucanari¹⁹⁹. Eta alan celangoac zareen zuec Purgatorioco Arimaacaz, alanche izango dira zuecaz ceüen ostecoac. Orain yaramonic eguiten ezpadeutsazue, gortuten bazaree euren deietara, azturic badaucazue, ezpadozue ecer eguin gura Purgatorioco su, pena eta tormentuetatic aterateco, aztuco dira zuecaz bere, eta ezteutsue yaramonic eguingo an zagozengan, ez senarrac, ez emazteac, ez seme alabaac, ez aideac, ez adisqueideac, eta ameneco ameneco oneec zuec gaitic erregututen badave bere, eztituz zuen oneraco artu guraco Juez artezac, eta zuentzaco ateraten direan mezaac, errecetan direan oraciñoac, irabazten direan parcamenac, eta eguiten direan beste obra on guztia bear bada artuco dituz zuec bashen devociño andiago bat arimaac ganaco equi daveenentzat. Sarri eta sarri au yazo dala dirauscue Yaquintsuac eta Eleshaco Historiac. Bai guizon gogorr-arritzcoac, bai Cristiñau biotz gogorrecoac, eta erruquiric arean ba'coac; egun guichi barru aurquituco zare benturaz Purgatorioco su garren artean, orain arima tristeac dagozan legueche, eta orduan, zuec aec neurtuten dozuezan neurriagaz, neurtuco zaitueze zuec bere: eta zuen contra biurtuco da orain arima bedeincatuacaz daucazuen gogortasun ori.

10. Ondaturic leza ilun eta suzco atan, alde guztietatic gar biciz inguraturic, minen minez (190) negarretan urturic, eztozue euquico (190) noc poztu, eztozue aurquituco noc enzun daizuen. Orduan ezagutuco dozue ce deungaro eguin cenduen, ez yaramonic eguita arimai, munduan bici cineen artean. ¡Ah, celango larri, estutasun eta naibagueacaz esango (esan bearco) dozuen Jose-en anayac Egipto-n leguez: *Merito haec patimur quia peccavimus in fratrem nostrum, dum*

¹⁹⁹ Judicium absque misericordia ei qui non fecit misericordiam. Jac. c.2. v.11.

deprecaretur nos et non audivimus. Errazoe andiagaz nago ni su icaragarrizco onen erdian, guztiaac aazturic, ichiric eta inoc causiñoric eguin bagaric, cé neuc beré ez nituzan enzun gura izaiten neure anayen erreguac, lecu onetatishec dei eguiten eusteenean. Orregaiti etorri da nire ganera pena eta neque icaragarri au. *Idcirco venit super nos ista tribulatio*. ¡Ay ene penea! Esango dozue Job santuagaz: deadar eguiten dot, baya eztago enzun daguidanic, dei eguingo dot, eta ezteust iñoc yaramonic eguingo. Neure Semeac eurac, ceintzuc ondo ifintearren aibat icerdi bota dodan, eta ain neque andietan bici izan nasan, aazturic bere baño aztuagoric nauque. Barriz, ¿ce miraari guizonac ez yaramoitea, Jaungoicoac berac ezpadau nigana beguiratu gura? Neure arerio eguinic dago araco Jaungoico bigun eta erruquiorra, eta bere beso ta escu astunagaz nauco pena eta su esquergagarri onen erdian. Bai, ondo ezagaturic daucat ondo ta ondo mercedu dodala bacartasan au, eta iñoc ez yaramonic eguitea, cé nic beré munduan bici nintzan artean, ez neuntsen yaramonic eguin, emen egozan arimai, ez nituzan enzun gura izaiten Predicadoreen bitartez eguiten eusteezan deiac. Orreshegaitic etorri da nire ganera pena au. *Idcirco venit super nos ista tribulatio*.

11. Derichazue, Cc., etzareela egunen baten cispuru eta zotinen artean icusico, edo etzareela iños Purgatorioan egongo? Ain garbiric mundu onetatic urtengo dozuela uste dozue? Altaretan (altare ganean) gaurco egunean dacusguzan santu batzuc gaitic dirauscue euren bicitzac, euren arimaac Purgatorioan egozala euren gorputzac miraari andiac eguiten egozan demporan. ¿Cer izango da, bada, ain santu eztireanacaz? Alan, bada, eguin daigun aleguin guztia, Arimaac aibat lasterren lecu ilun eta suzco atatic aterateco.gueuc beré, an yausi gaitezanean, equi daigun noc atera. Yrabaci daiguzan adisquideac ceruan gugaitic erregutu daguien ceruco Erreguearen aurrean. Aushe eguitera biztuten zaitueze Arimaac eurac. Mututuric dagoz, eztarabildez euren miñac; baya Eleshara sartuten zareen bacochean, euren sepultura ganean emoiten dozuezan pausu bacochean yagotzuez esaten berba ishil bategaz, baya guztiz sendoagaz, ta indar zolizcoagaz: seme gogorra, emazte cruela, anaye esquer deungacoa, adisquide erruqui baguea, atera naguizu lecu itsaltzu onetatic; bigundu eguizu Jaunaren aserrea, eta lagundu eguidazu cerura elduten. Meza bat ateratea, limosna bat emoitea, edo beste obra onen bat eguitea costu guichicoa da zuretzat, eta probechu andicoa niretzat; eta au ecin badozu, guichienez Eleshara zatozanean irabaci eguizu niretzaco parcamenen bat, errezado eiquezu estaciñoren bat, enzun meza bat. ¿Ce gauza errezagoric au bashen? Eta orregaitic beré, ¿eztozu eguingo? ¡Ah seme gogorra! ¡Ah emazte esquer deun-

gacoa! ¡Ah senide cruela! ¿Ori da niri zor deustazuna, euqui neutsun amodioagaitic, eta eguin neutsuzan mesedeac gaitic? Gomuta egui-zu, ene Semea, ceimbat bear eguin dodan, ceimbat icerdi bota dodazan eta ce lanac igaro dodazan zu aciteco, zuretzaco yanaria irabaz-teco, eta zuri bear dozun guztia emoiteco; ceimbat gau eder galdu dodazan, eta ceimbat bider ichi dodan loa, zu ondo icustarren. Ez-teutsut escatuten beste aibeste eguin daizula zuc nigaitic, guichia-gogaz contentetan nas. Ezteutsut escatuten quendu daizula aotic copaua niri emotearren, nic sarri eguin nevana leguez. Meza bat enzunagaz, edo atereagaz, parcamen bat irabaciagaz, limosna bat emonagaz contentetan nas, eta ¿ucatuco deustazu, ene Semea, es-caari au, izanic ni zure gurasoa? eta ain gogorra izango zara, izatea zuri nic emon ezquero?

12. Bada guichitan badaucazu niganaco dozun zor andi au, beguiratu eguizu zure oneraco izango (191) dala, nigaitic eguiten dozun (191) guztia; eta zure gacheraco ni aitzuric euquitea. Ni nacutsun moduan icusico zara ceu bear bada dempora guichi barru. Ni juzgadu naven estutasunagaz, juzgaduco zaituz ceu Jaungoicoac. *Memor esto iudicii mei, sic enim erit et tuum*. Nigaz atzo yazo zana, yazoco da gaur zugaz. *Mihi heri, tibi hodie*. Atzo sepultura onetan botaten icusi ninduzuna leguez, botaco zaituez gaur zu, eta ni orain azturic naucazuna leguez, egongo zara zu, *Mihi heri, tibi hodie*. ¡Ah seme cruela! Ya-quin eguizu ce, nic ichirico ondasunacaz zu olgura artean zabiltzazan artean, emenche nagoana ni su icaragarrizco onen erdian, zuri euqui neutsun amodio larreguia paguetan. Zu ondo icusteco guraariac nauco emen, eta ¿zu zagoz nigaz aazturic? Ara bada, yaquin eguizu, ni neurtuten nozun neurriagaz neurtua izango zareala ceu beré. Etorrico da zure atserengo ordua, quenduco deustuez ain maite dozuzan ondasun orreec, yatzico zara lecu onetarashe, eta echatzu faltaco semeric (seme bat) edo beste oñordecoren bat ceñeac euquico zaituzan aitzuric, zuc ni orain naucazuna legue-che. Cc., ez gaitezan ain gogorrac izan Purgatorioco arimacaz, cé euracaz gogorrac izaitea gueure buruacaz gogorrac izaitea da. Yatsi gaitezan su eta tormentu a-etara gueure pentsamentuagaz, eta icusi daigun celan dagozan erre eta quisquilduten gure adisquide, aide, ezaun, anaye eta gurasoac benturaz. Erregutu deiogun Jaunari eurac gaitic, eta esan deiogun Elesha Santeagaz batera: Emon eguioezu, Jauna, betico atseguina, eta eroan eguizuz ceruco arguitara. Eroan eguizuz ceure etsera, ainche icusi daitezcan zure Santuacaz naste, beti beti bedeincatuten zaituezala. *Requiescant in pace*. Amen.

8. CERUCO GLORIAREN GANECO SERMOEA

(B, 139-144. or.)

*Oculus non vidit, nec auris audivit, nec in cor hominis ascendit quae
praeparavit Deus his qui diligunt illum.* 1 Corinth. c.2.v.9

(139) 1. Ain da andi eta miragarria Yaungoicoac bere maitela-
rientzat gorderic daucan gloria ce, diño S.Paulo Apc., ez beguiac
icusi davela, ez belarriac enzun davela, ez guizonen biotzera eldu
dala ce gloria, eta ondasun dauquen gorderic bera maite davenen-
tzat. Asi zan bein gloriaren ganean escribietan S. Agustin, eta aguer-
tu yacan S. Geronimo, eta esan eutsan: ¿ce uste darabiltsu, Agustin?
Derichazu emon cinaiela adietan cer dan gloria? Bada etzara (capaz)
espliquetaco laimbeste santuric chiquienac daucan pocic pusqueena.
Yaquin eguizu errezago eguingo yatsula mundu guztia escu barruan
artutea, edo ichasoco ur guztia zulochu baten sartutea, zuc pensetan
dozunagaz urteitea baño. Yzanic S. Paulo Apa. ain yaquintsua eta
Espiritu Santuz betea, esaten oi evan ecin esan leiqueala cer enzun
evan irugarren cerura igon evanean; bada Santu andi oneec mututu-
ric gueratuten badira berba eguiten daveenean gloriaren ganean, ce-
lan azartuco nas ni berba eguiten? Baya orregaitic beré, al daidan
moduan, cerbaist esango deusuet ezagutu daizuen ce guichi eguiten
dogun ara elduteco, eta biztu zaitezcan mundu onetaco nequeac pa-
ciencia andi bategaz eroatera. Lenengo, bada, berba egungo dot ce-
ruco gloriaren ganean; bigarreanean, barriz, ce guichitan daucagun
ain asco balio daven gauea.

Lelengo zatia

2. Emoiteco S. Juan Evangelisteac ceruaren irudi bat, dirauscu
eracutsi eutsala Angueru batec Jerusalem-go uri santua: guztia zan
urregorrizcoa, ain garbi, ain eder ta ain argui, cein da cristalic ta
bidirioric garbiena; bere orma lodi edo murallac arri diamante, es-
meralda, eta arri baliozcoac cirean: ate bacocho zan precio baco mar-
garita bat, eztau uri onec eguzqui bearric, bada Jaungoicoac berac

argui eguiten deutso eta araco orban bagaco bildotza da bere arguia, eztago an gauric, ezpada beti eguna; eztago uri atan ez goseric, ez egarriric, ez otzic, ez beroric, ez nequeric, ez negarric, ez cizpururic, ez gachic, ez eriotzaric, ez bildurric: guztia izango da betico poza, atseguina, barrea eta olgurea. An enzuten dira musica zoragarriac, canta gozoac, soñu barriac, Jaungoicoaren alabanzac; uri atan bici direan guztia dira Erregueac, yaquintsuac, aberatsac, eta milla eguzqui baño ederragoac. Eta alan, aguertuco balitz ceruetaco Santu bat mundu onetan an daucan arguitasun eta edertasunagaz, asco izango litzateque eguzquia ilunduteco, eta ain egongo guinatequez cocoturic berari beguira ce, ez gueunque comuta izango ez yatecoric, ez edatecoric, ez loric, gure gurari guztia berari beguira egotea izango litzateque, eta usteco gueunque ya gagozala ceruan. ¿Cer izango da, barriz, aibat milla millinoe icustea, bacocho eguzquia bashen arguiago? Batetic Patriarca eta Profetac, bestetic Apostoluac eta Martirac, emetic Confesoreac, andic Virginac, guztia gure adisquide maite eta laztan eguinic. Ain da andia alcarreganaco dauqueen amodioa ce, eztago amaric bere semea ain maite dabenic, cein Santu a'ec arcal maite direan. Eztago an aserreric ez gorrotoric, ez ecin alcar icusiric, ez eta otzatsunic beré; guztia da amodio bicia, guztia caridadea, ongurea; gueure gorputz eta arimaac egongo dira contentu, atseguin, poz eta olguraz aseric, iños beré galdu baga.

(140) 3. Guere beguiacaz icusico dogu Jaungoicoaren Ama: ¿baya celango edertasunagaz? Mundu onetan bici zan artean ain zan benegarria ce, S. Dionisio-c icusi evanean, arrituric eta mututuric gueratu zan, eta esan oi evan ce, fedec eracutzi ez-ic, ez egoala Jaungoico bat baño, usteco evala Jaungoicoren bat zala. ¿Celangoa izango da bada orain daucan edertasuna, eta ce poza artuco dogu bera icusiagaz? Ama guztiz Santa au bicico balitz mundu onetan, ¿cer eguingo ez gueunque (140) bera icustearren, beragaz berba eguitearren, eta beragaz etse baten bici izaitearren? Bada mundu onetan bera icusiagaz euqui cinaiquean zori-ona ezta ecer, ceruan euquico dozunen aldean; ez bacarric icusico dozu, ez bacarric bicico zara beragaz eche baten, baita beré izango zara beragaz adisquide, maitetu, edo amaduco dozu bera, bere seme bacina baño beré gueiago. Baya guztien ganetic, ¿cer izango da Jaungoicoa bera arpeguiz arpegui icustea, bere yaquituria, escubide, arteztasun, santidade, ontasun, eta beste perfección guztiaac? Anche ezagutuco dozu celan dan Trinitadeco misterioa, Aitea, Semea eta Espiritu Santua, iru persona eta Jaungoico eguiazco bat: celan yazo zan Encarnaciñoco misterioa, celan dagozan orain J.C^o.gan izaite edo naturaleza bi eta Persona bacar bat, eta beste misterio orain ezautu al-doguzanoc. Beragan icusico dogu ispillu argui baten leguez mundu guztia, lurra, ichasoa, ceruac,

izarrac, eta beste dagoan guztia: ezagutuco doguz izan direan, ta izango direan guizon guztiac, eta beingo baten esatarren, ezta aurquituco guc yaquingo eztogun gauzaric. Ain izango da andia gure yaquituria, ce bere parean munduan izan direan eta izango direan Filosofo, Teologu eta beste guizon guztien yaquituria ezta quea bashen. Eta ¿ce arguitasun euquico ez dogu, edo etorrico ez yacu Jaungoicoa arpeguiz arpegui icusiric? Moyses egunen batzuetan Aingueru bategaz egon zalaco, aimbeste argui eta arrayoz beteric yatsi zan menditic, ce ecin beguiratu eutsen Ysraeltarrac arpeguira, ecin sufridu even euren beguiac aimbeste arguitasun, eta orregaitic eurecáz berba eguingo beeban, pañulu, edo zapi bategaz estaldu bear izaten evan arpeguia. Bada aimbeste arguitu bazan Moyses-en gorputz astun ta ilcorra, ¿celangoa izango da gueure gorputz eta arima ilcortasun ta astuntasun ba'gaac euquico davena Yaungoicoa berbera icusiagaz? Arguitasun au moduren baten adierazoteco S. Paulo Apc. dirauscu elduco gareala Jaungoicoaren arguitasunaren irudi izaitera, bada bere arguiagaz beragaz arguituco gara, burdina bat sutegui baten sartuten danean leguez, ceinec eztirudian burdiña, ezpada sua bera. Alanche bada gorputzac eztau irudico gorputz ilcor astun eta iluna, ezpabere Jaungoicoa bera. Eta alan diño S. Juan Evangelistecac aguertu daquigunean Jauna bera leezcoac izango gareala, icusico dogulaco bera dan moduan.

4. Andia bada beré gloria au, ezlitzatequez orregaitic beragaz contentu egongo borondatea, beti betico izango dana ezpalequi, ce galduteco bildurrac mingoztu eta garrastuco leuquez bere poz eta atseguin guztiac, mundu onetan yazo oi dana leguez. Euqui beguiz guizonac gura dituzan gurari guztiac, ondasunac, diruac, yanariac, musicac, osasuna, indarrac eta asmau al leiquezan olgurac, eldu bedi Erregue, edo Aita Santu izaitera, ez begui euqui gachic, tristezaric, nequeric, lanic, arduraric, arerioric, otzic, beroric ez pena emon al leion gauzaric; bada ezdireala betico izango yaquitea da asco triste-tuteco; bere bici guztico izango direala, eta eun urte bicico dala bere, ezta asco miñ eta neque au gozatuteco. Baya ceruco ondasunac eztauque onelango bildurric. Daqui an dagoanac eztireala iños guchituco, eztireala iños acabaduco, eta eztireala iños galduco; beti beti Jaungoicoa dan arte guztian egongo dala poz eta atseguin artean gozo eta olguraz (beteric) aseric; bere sentiduac artuco daveen gozotasuna, ecin miñec azaldu ta esplicau lei; beguiac J.C^o.ren gorputza, bere Ama guztiz gozoa eta aimbeste milla millinoe Santu zoragarriac icusiagaz. Belarriac soñu gozo musica eder eta Jaungoicoaren alabanza miraarigarriac enzunagaz. Surrac Santuac emongo daveen usain gozoagaz, eta beste gorputzeco alde guztiac esan, enzun, eta

(141) pensadu beré ecin aleiquezan atseguin eta contentuacaz. Bere entendimentua edo adina ceruan eta munduan guizon, eta Angueru artean yazo dan guztia ezagutuagaz. Borondatea Jangoicoa, Santu eta Angueru guztiac maite izanagaz, eta memoria beragaz yazo dan gomuteagaz. Mundu onetan eguin dituzan pecatuac eurac pozez beteco dave, bada icusico dau Jaungoicoac beragaz euqui daven erruquita-suna, bada eztau gura izan galdu dedin bere pecatuac merecidu evenena leguez. Ynfernucio pena icaragarriac gueiagotuco dave bere gloria, ezaguturic celango su, ala, neque, eta tormentuetaric atara daven; ce asco ta asco yausi eguin dira an berac baño pecatu guichia-gogaz. Berba baten, euquico dau (141) on guztia nequeren apurric бага, osasuna gach бага, poza neque бага, aberaztasuna pobreza бага, asetasuna palagu бага, edertasuna ezaintasun бага eta gloria osoa azquen бага.

5. O Cristinaüac, ce zabala den Jangoicoaren echea, eta ce lucea bere aciendea! O gueure Jaunaren bicilecua! O Erregue andiaren Yauregui ta Palazioa! Gauza andiac esan dira zugaitic²⁰⁰. Escritura Santeac, Eleshaco Aita Santuac eta Yaquintsuac aleguin guztizco andiac eguin dituez adierazoteco zure edertasuna, zure anditasuna, eta zupan dagozan ondasun chitozco ugariac; baya guztiz gueratu dira labur, eta euren esan al guztiac ezta zure guericea beré. Ah ce maitegarriac direan, Jauna, zure etse bicitzac! Nire arimearen guraari ta gogo guztiac dira orche bici izaita; nire aragui eta biotza pozez betetan da orche bicico dalaco usteagaz. Bedeincatuac, Jauna, eta zorionecoac milla bider zure echean bici direanac, beti beti egongo dira ceu alabetan. Gauza bat, neure Jaungoicoa, escatuten deutsut, eta aushe bacarric billatuco dot, eta da zure etsean bici izaita, icusteco zure maitelariantzat gorderic daucauzan atseguin,poz eta gozoac. Cristiñauüac, ¿ez gara biztucio bear eguiten Jaungoicoagana el-tzeaco, beragaz batera bici izaiteco? ¿Gueiagotan euquico doguz bertatic igaroiten direan munduco guraarien apur pusca oneec, araco ceruco poz ta alguraac bashen? Ay ce zoroac garean! Mundu onetan dacuzcuna da gaur alegre bagagoz, biar triste gagozala; orain osasuna badaucagu, guero guesho gareala, gaur aberats bagara, biar pobre gagozala; eztago ordu segururic, barrea eta negarra, gozoroa, ta cizpurua nastauric dabiltzaz; eta orregaitarren beré, guraari guzurti oneec gaitic necatuten gara, eta araco beti betico gozo ta arguitasunac gaitic, eztoгу arean eguin gura, pausuchu bat emoitea astun eguiten yacu. Zoraqueria aushe adietan emoitea izango da

²⁰⁰ Gloriosa dicta sunt de te, civitas Dei. Psalm.86.v.3.

Bigarren zatia

6. Ycusi dozue igaroco Domequetan ce larria dan eriotzaco ordua, ce estua Juicioan emon bearco dozuen contu ceatza, ce icaragarriac infernuco min eta alac, eta ce miragarriac ceruco poz eta atseguinac. ¿Cer falta da bada? Ceuroc escogidu daguizuela cer gura: ala betico zori onecoac izaitea ceruan, ala adu gogorrecoac infernuan. Zuen escuan imini deutsue Yaungoicoac ura eta sua, diño Espíritu Santuac; nora gura ezarri escua, eta alan contentu bazare ez iñoen erru imini; zuen guraz, eta zuec autu ta escogiduta condenaduco zare. Cer nai dozue, bada, orain? ¿Cer escogietan dozue? Derichat Elesha onetan zagozan guztioac diñozuela cerua escogietan dozuela, salbadu gura zarela. Aushe diñoce Elesha Santearen seme guztiac, eta aushe esan oi even orain infernuan dagozan Cristiñauiac beré mundu onetan bici cirean artean, eta sinisturic egozan elduco cireala nosh edo nosh Jaungoicoa arpeguiz arpegui icustera. Baya ezteutsue guraari, edo gura-isqui oneec balioco a-ei euren icharomena ta uste osoac balio ez eutsena leguez. Ay ce zoroac garean, Ne.Ea.Mc., izanic ain erraz cerura eldutea, gueuc gura dogulaco ango gloria galcea, eta gueure borondatez infernura yoatea, izanic ain bigunac, ain leunac ceruco bideac, eta ain gogorrac, ain garratzac, eta ain oquerrac infernuracoac! Au alan eztala baderichazue, eta astunac eguiten bayatzue Jaungoicoagana garoacencac, beguiratu baño eztaquezue ce nequeac igaroten dituezan condenaciñoco bidetic dabiltzazanac, ce atseguin, eta pozez beteric cerucotic doazanac, eta ecin ucatu izango dozue dirautsuedan eguia. Ce ardurac darabiltz iñoena quendu gura daven lapurrac ezagutu eztaien, edo artu eztaien! Galduten dau loa, galduten dau gaüa, gauric ilunena, edo euritsuena benturaz, escogietan, ta aututen dau onetaraco igaroten dituz euriac, edurrac, izotzac eta indriscac, eta orregaitio beré bildurrez beteric dago; beti dago beguira iñor aguiri ete dan, zaratachu bat bada, betetan da bildurrez eta eztago seguru gaucea ezcutadu ta ostendu artean. Baita ¿derichazue gura daven gustuagaz eta baqueagaz euqui edo gozaduco davela osturico gaucea? Ay, En. Ec., beti dago bildurrez yaquingo ete dan ala ez nor izan zan lapurra, ezagutu ete daven yaubeac falta yacana; justiciac ete daquian, eta lapurtzat artuco ete daven. Ain izango da (142) andia euquico daven bildurra, ce bertatic guraco dau ostu ezpaleu. Guzurren bat erantetan bada, falso testimonioric eguiten bada, edo guzurragaz yuramentu eguiten bada, eztago atseguinic, sarri loa galtzen da, (egunez eta gaüaz) gau ta egun dago pensetan zabalduco, eta igarrico ete deutsee, artuco nave guzurrean. Ardao zalea bada, ce aleguin, eta asmuac cegaz edan topetaco; ce

(142)

gaüiac, ce estropezuac, ce lupatzac, ce buruco minac, eta ce nequeac. Lar beré yaquinac dira pecatu loietan dabiltzanen nequeac, galduten dira gau osoac, eguraldi gogorrac eta dempora cruelac gurari cital bat euquitearren. Ce ardurac cein iñoc icusi daizan, eta guero gustuac alcanzadu ezquero, ce bildurrac yaquingo ete dan ala ez; seindun bada ala ez; eta aguertuten bada, nequeac, auciac, ecin icusiac, onrea galduric, eta beste milla naibague. Gach lotsarizcoz betetan bada, celango minac, eta alac urte osoetan curetan eta beste burutic beatzetaraco neque guztiz yaquina, eta bear litzatequean baño eza-gunagoac. Zabaldu eguizuez beste condenaciñoco bide guztietatic beguiac, eta eztozue bat bacarric aurquituco garratz eta astun ezta-nic.

7. Baya daigun contu onelango bildur baga euquico dozuzala gura dozuzan guraariac, eztitu iñoc yaquingo, eztozula iñoen arduraric euquico, eztozula euroc alcancetaco ardura edo nequeric euquico, eta bete betean euracaz aseco zareala. Bada ara, eztozu orregaitic beré baque osoan euquico, edo gozaduco: anche aurquituco dozu ceure celatariric eta salatzaileric (andiena ta) gogorrena, cein dan zure conciencia; eztago bera bashen borregu edo berdigu cruelagoric, diño S. Juan Crisostomo-c, beti beti dago aguinca, beti usiguiten, beti yaten pecatariaren biotza, ezteutsa baquean isten etsean ez campoan, calean ez eleshan, oian ez maian, gaüez ez egunez, ez beste lecu ez ordutan. Batu eguizuz aldaizuzan diversiñoac, eta yolasac, comediac, cecenac, dantza eta sonuac, yanac eta edanac, yocoac eta berba-aldiac: bada eztozuz ishilduco ceure concienciaco arraren deadarrac. Nosh pozago zagozan naien dozun gauceetan, asmaduco dozu bere aguincada cruela eta garratzuco dituz ceure gusto guztiac. Alanche yazo yacan Babilonia-co Erregue Baltasar-eri: ain cirean gogor eta sendoac bere concienciaco deadarrac ce, ecin iñondic beré ishildu cituzan. Eucazan ondasun ugariac, musica genero guzticoac, Yauregui edo palacio arrigarriac; zan Erregue andia, egoan maian erregalu artean, yanari eta edaari gozoz inguraturic ta emacumez beteric, eta echacon falta guizon batec mundu onetan gura al leiquean gauzaric. Alan-da guzti, pozgarri guzti onec etzirean asco izan quentzeaco bere biotzeco neque, arantza ta usicadac. Eucazan aimbat milla guizon bere aguindura. Soldadu sendoac gordetan even, eta orregaitic beré egoan bildurrez beteric, eucan arpeguia colore baga, bere pensamentu tristeac zatituten eutsen biotza, eta icara dar dar ebiltzan bere belaun ta caderac, diño Escritura Sagraduac. Baita ¿cerc bildurtuten evan onela? bere pecatuac. Ain zan icaragarria Antioco Erregueari Jerusalem-en eguin cituzan pecatuen gomuteac emoiten eutsan tristecea, ce ecin iñondic beré poztu zan, ez eucazan

ondasunac, ez inguraten even soldaduac, ez irabaci cituzan bitoriac, ez Erregue izaiteac emon eutsan atseguinac egosicaturic, ecin loric eguinic, ecin oean beré egon zala, eta berac confesetan ta autortuten evan gach ta neque oneec emoiten eutzazala bere concienciaco arrac. ¿Cetara eldu zan Judas madaricatua? Ecin eroanic bere concienciaco arraren deadar eta aguincadac, astun eguiten yacan bicia, eta arinago ta erongarriago eguiten yacan eriotza itsala, deadar oneec enzutea bashen, eta alan eldu zan bere burua urcatutera.

8. Ez gaitezan, Cc., ain urrin yoan eguia au ezagututeco, ceuroc zaree testiguric asco. Esan eguidazue eguia, ¿celan aurquitu zaree pecaturen bat eguin dozuenean? ¿Ce tristeza sentidu dozue! ¿Ce iluntasuna, ce pisua, ce astuntasuna! Diversiño, yolas, eta olguraric andienen erdian etzengocen gogo bagaric? Etzenduezan asmetan ceuen barru barruan concienciaco ots eskuerga batzuc, ceintzuc garrastuten eutsuezan ceüen gusturic andienac? Eta pecatuan zagocela icusi bazare iños guerran edo eriotzaco pelleburuan, ¿ce icarac biotzac! ¿Cer emongo cenduen pisu eta astuntasun au bagaric egotarren? (143) ¿Cer eguingo etzenduen, celango tormentuac iragoco etzenduezan, zuecganic quendutarren astuntasun au? Aurquitu leiteque au bashen neque andiagoric? ¿Euqui dozue iñosh bildur andiagoric? Orregaitic diño Jaungoicoac berac: Pecatariaic iñoc yarraitu bagaric, dabil iñesi. Bai, Ca., gura ta gur'ez autortuco dozu David Erregueagaz, zure pecatua beti beti dagoala zure contra. Baya conciencia garbi dagoanean, ¿ce poza, ce atseguina! Mundu onetaco yolas, ondasun, erreinu eta zori-on guztiac eztira aimbeste onelango atseguin eta alegriaric emoiteco.

(143)

9. Ezpabere, esan eguidazu araco nosbaist pecatuan egon ezque-
tiño, aldaizun ondoen confesadu zareanean eta zure arimatic pecatuen carga pisutsua bota dozunean, ¿celango poz, celango atseguin, celango olgurea sentidu dozu? ¿Emon deutsu eguño onelango arguitasun eta alegriaric beste gauzac, ez ondasunac, ez combitac, ez fies-
tac ez guraric. Gura ta gura ez confesadu bear dozu egui au. Yzan beré gracian dagoanac Jaungoicoa dauco beragan, eta Jaungoicoa daucanac dauco beragan zorion guztia; eta orregaitic nequeric andienac, premiñaric estuenac, eta gachic gogorrenac pozgarri biortuten yacaz. Alan ciñoan S. Paulo Apc.: Jaungoicoa gure aldetic euqui azquero, ¿nor yaguico da gure contra? ¿Noc edo cec gach eguin leiquegu? Ez aguintariac, ez Erregueac, ez bicitzeac, ez eriotzeac, ez ezpateac, ez suac, ez Demonioñac, ezta infernu guztiac beré. Enzun eguizue oraindo cer ciñoan Apostolu andi onec beronec. Ain izan dira andiac eta gogorrac Asia-n igaro bear izan dodazan gachac ce, ozta ozta eroan izan dodaz, eta aimbestean estutu nabe ce eneucan

bici izaiteco bere gogoric²⁰¹. Alan-da guzti beré poz andi bategaz igaruiten nituzan neure barruan, conciencia garbirc neucalaco; ce nire gloria guztia concienciaren esana da²⁰². Ycusi eguzue aushe berau Patriarca, Profeta, Apostolu, Martiri... ¿Cer diñot? Emacume, eta doncella gazte eta argaletan eguin cituezan Erregue arro, eta aguintari cruelac eguin alac bildurtuteco euren biotzac; baya etzan asco izan euren escubide guztia; ezpata, berun edo plomo siotsu urtua, laba eshetu, eta beste milla asmu cruelac etzirean euren poza gueiagotuteco baño: gueiagotuten badira tormentuac, aciten da euren atseguina; ceimbat eta su gueiago artuten daveen borrareru, eta Demonioaren arrabiac, aimbat eta arpegui arguiagoagaz dagoz min eta ala icaragarrien erdian: parrilla gorietan dagoz, oeric bigunenean balegozan legue-che. Sugar bicien erdian aurquituen dira larrosa artean balegozan legue-che, eta mairic ugarienean ez litzatequez ain pocic egongo, cein dagozan euren araguiac zatitu eta urratuten deuteezanean. Eta ¿cetatic datorquioe sendotasun, eta poz au? Euren concienciaco garbitasunetic.

10. Orain bada, Ne.Ec., icusi dozue ce erreza dan ceruco bidea, ce pocic dabiltzazan bide onetatic doazanac, ce gogor, latz eta garratza infernucoa; eta orregaitio beré gura dogu aldats pica eta gachetatic yoan infernuco su icaragarrietara, bide leun eta bardinetatic ceruco atseguinetara bashen? Non dago au baño zoraqueria andiagoric? Non au baño itsumendi ilunagoric? Ydigui daiguzan nos edo nos gueure arimaco beguiac, eta baderichagu oraindio beré bear guichia-go eguiten dala infernuraco bidean, ceruracoan baño, beguiratu daigun cer aguinduten deuscun cerua alcancetaco eta cer eguiten dogun mundu onetaco galduco direan gauzac gaitic, eta icusico dogu ez-teuscula escatuten biar ichico doguzan ondasunac gaitic eguiten dogun laurenic beré. Jangoicoac escatuten ez deuscu bere mandamentua gordetea bashen, eta onetaraco eztaucaguz cer artu gueure ganean munduan iragoten direan lanac: ¡Diru pisca bat irabaci gura davenac, ce lanac igaruiten dituz! Gau ta egun dago pensetan nondic nora gueien irabaci daian. Ygaroiten dituz otzac, beroac, leiac, edurrac, indiscac, ecachac; artuten dituz ibilera luceac eta nequetsuac, eta (fiaduric) iminiric bicitzea olen batzuren pensuan, botetan dau burua ichasoaren erdira. Aracatuten dau munduric erdia eta alambere irapaci on bat ateraten badau, pocic iragoten dituz icerdi eta neque andi guzti oneec. (144) Baya irabacico bada indulgencia, edo

(144)

²⁰¹ 2 Corinth. c.1.v.8.

²⁰² Gloria nostra haec est testimonium conscienciae nostrae. ibi v.12.

parcamen bat, edo eguingo bada beste obra onen bat, guztia da naguitasuna, guztia atserabidea; ecin confesetan yoan leiteque, otz eguiten dau, eta bat goshetic ezpadoa, egun guztia galdu bear da.

11. Auci bat badago, ¡celango ibilerac, celango empeñuac! Ondo urteiteco berba eguin bear bada aserre danen bateri, nondic edo nondic beragaz baqueac eguiteco aurquituco dau modua. Baya aguinduten bada gaisquinen bateri, edo bere proximuari Jaungoicoagaiti parcatu daguiola, eranzuten dau ecin parcatu leiola. «Onrea galdu deust, ¿cer esango davee nigaitic berbaz beragaz icusten bannaude? Galduco neuque estimaciño guztia». Combit bat eguin bear bada edo beste ocasiñoren bat badago, eguingo da gastu andi bat, topauco da nondic edo andic, guero beste gauzaren baten guichiago gastauco bada beré. Baya limosna bat eguin bear bada, zorrac quitutu ta pagadu bear badira, eztago cegaz, «nequez elduten yat eguneco gasturaco, eta nire moduco persona batec ecin gastadu leique! (guichiago) yanci, mai ta etsean». Erromeriaren bat badago, urtengo dau echetic egüerdico eguzqui beroagaz, igaroco dira aldatsic gogorrenac. Baya sermoe edo beste Elesha edo devociñoren batera yoan bear bada, «¿Noc urtengo dau etsetic bero onegaz? Gachen batec emon leio». ¿Cecenac dagoz? Ea bada aoan copadua dala, lecu bat artzera, arratsalde guztian eguzqui beguira erretan egongo bada beré. Baya sermoian egongo bada beré yarriric guericetan, eta atseguin onean beré, «¡Ce lucea dan! ecin enzun leique». Berba baten, guztia eguiten da mundua gaitic, eta ecer eguin gura ezta ceruagaitic. Cristiñaiac, ain guichi balio davela ceruac uste dozue, edo larregui escatuten deutsuela Jaungoicoac? Ycusi eguizue cer eguin evan berac, eta lotsaturic gueratuco zare. Beguiratu eguiozue burutic beatzetara. Ara celan dagoan zauri andi bat eguinic. Eta ¿cegaitic dago modu onetan? Guc cerua artu daigun. Eguin dozu zuc beste onembeste? Ecin esan cinaique; eta orregaitic beré, astun eguingo yatzu, aguinduten deutsun pusquea eguitea? ¡O guizonaren biotzaren astuna! Nos artean egongo zare gogorturic ceüen ecandu gaistoetan? ¿Nos artean euqui gura dozue zuen ganean pecatuaren pisu esquerguea? Erdue, Jaun onegana eta beronec quenduco deutsue ceüen carga icaragarri ori; baya erdue ceüen biotzeco damu andi bategaz, eta negarretan urturic esan eguiozue bene benetan: Neure Jesucristo Jauna.

9. CERUCO GLORIA²⁰³

(A, 1-10. or.)

Satiabor cum apparuerit gloria tua.
Psalmo. 16.v.15

(1) Mundu zabaleco guizon guztiac onduteco asco dan eguia miragarri bat eracutsi gura deusuet gaur: eta da eriotzea ezkeru, betico ceru eder bat egongo dala oneentzat. Onec beti betico contu onec, onduco leukez guizon guzti guztiac, gogoan sarri balerabile. Berau da asco, ez bacarric sinistu eraguiteco, eguin errazac direala Jaungoicoaren legue santua, eta bere aguindu guztiac; baita bere arinac nekeric andienac, eta penitenciaric bildurgarrienac. Eztago itandu baño David Erregue Santuari ¿ea cer yazoten yacan, beti iraungo daven gloria au gogora etorcean? Berac erantzungo deuscu, celan gauac artega, loac ecin arturic, igaroten cituzan: Celan bere begui bietatic negar-angepullu beroac zara zara erioan, eta Jaunari esaten eutsala: «Ezta asetuco, ez beteco neure biotz au, ene Jaungoicoa, ceu glorian icusiar-tean». Modu onetan berba eguiten evan David Erregue Santuac. Icusten zan mundu onetan euki al eikezan zorionen artean, echacazan falta ez ondasunic, ez ondraric, ez beste gauzaric. Zan Erregue andi bat, bere menpecoac maite evena: alan bere ecusan bere biotzean utsuna andi bat Jaungoicoagaz beragaz baño beteco etzana; eta gogoratutean bici zala mundu pelleburuz, eta arribanez beteric baten, eta laprast eguin, yausi, eta galdu leikeala ainbeste gura evana, ecin bakeric euki evan bere biotzac, aric eta cerura yoan artean.

(1)

Gura neunke, neure entzula maitiac, arratsalde onetan zuen biotzetan onelango gurari bici bat erantsi. Onetaraco gura neuke eracutsi, celangoac dirian ango gozamenac, ango edertasuna, ango aberastasuna, ango pozcaria, eta betico iraute onegaz onac obetu daitezcan, eta deungac, ezaguturic euren alboan ecer eztiriala mundu onetaco gauzac, oneec ichita, cerucoen ardura andi bat artu daguien. Bakit au bear dan moduan ecin neikeana, bada Sn. Pabloc dirauscu ce,

²⁰³ Arantzazuko artxiboa dago sermoi hau. Nahiko akatsekin ageri da. Idazkerak ez dirudi Aita Zabalaren eskuz egina, letrak nolabaiteko antza badu ere. Estiloa eta ideia-mundua Zabalarenak dira gehienbat.

iñoc eztavela eguño ez entzun, ez icusi, ez yakin cer izan leitekean cerucoen gloria. Baita bein baten Sn. Geronimoc Sn. Agustini, ceruco gloriaren ganean escribietaco usteac eucazala, cerutic aguertuta esan beutsan: ¿Ce uste darabiltzu, Agustín? ¿Derichazu adierazo cinaikeala ez cer dan gloria, ezpada santuric chikienac daucan pocic puskeena bere? Yakin eguizu errezago izango yatzula ichasoco ur guztia zulochu baten sartutea, gogo orregaz urtetea baño. Bada orain nic santu onen yakituriaren guerizaric bere eztaucadala, eta beste aldetic pecatu ascogaz neure adimentua ilunduric, ¿celan adierazoco deusuet cer dan ceruco gloria? Dana dala cerbait esango al deusuet, eta alan nire sermoigui guztia izango da, eracustea 1º Jaungoicoac ce gloria andia daucan gorderic bere leguea gordetan davenentzat. 2n. Cer eguin bear dozuen gloria au irabazteco. Entzun bada gogo gogotic.

(2) Cerbaist adituteco, cer izan leitekean ceruco gloria, ondo izango da gogora ecartea Saba Erreguiñari Salomonegaz yazo yacana. Erreguina onec Salomonen anditasunaren ganean chito gauza andiac entzun cituzan bere errian; eta ecin sinisturic ainbeste izan leitekeala, yoan zan Jerusalenera bere beguiacaz icusteco eguiac bacirian entzun cituzanac. Baña Salomonen aurrera eldu zaneco, conorte, eta sentidu bagaric leguez gueratu zan. Icusi cituzan ango etse ederrac, eta yardin politac, ainbeste criadu guztizco yazteco ederracaz, eta ango ecin esaneco ondasunac; entzuten cituzan ango musica pozgarriac; bere surretara etorcazan ango usain gozoac; yaten cituezan ango maico guztizco yanariac; eta erdi cocoturic ainbeste icusiaz esan evan: «Bedeincatua modu onetan imini zaituzan Jaungoicoa, eta bedeincatuac zure aurrean (2) dabiltezanac, eta zure yakituria entzuten daven criaduac, eta otseñac. Asco entzun dot neure errian; baña ezta izan icusten dodanaren erdia bere, eta ez neuke sinistuco icusico ezpaneu». Aushe baño asco gueiago yazoco yake onai cerura doazanean. Entzun izan dave ceruan alango edo olango gozamina eta pozac dagozala! baña glorian sartu orduan esan bearco dave, ez Saba Erreguina leguez, eztala izan erdia; ezpada eztala ecer izan, entzun davena, an icusi daveneraco.

Ceruan icusico da, diño S. Juan Evangelistiac, lau aldeco uri chito zabal, eta eder bat, guztia urregorricoa, ain garbia, eta ain arguia cein da cristalic garbiena; bere inguruco ormac dira diamante, eta beste arri baliosocoac, ate bacocho da precio baaco margarita bat; eztauco uri onec eguzki bearric, bada Jaungoicoac berac arguituten dau, eta araco orban baaco bildotza da bere arguia; eztago uri onetan gauric, ezpada beti eguna; eztago goseric, ez egarriric, ez otsic, ez beroric, ez nekeric, ez cizpururic, ez eriotzaric, ez bildurric; guztia

izango da betico poza, atsegina, alegria, barrea, eta olgurea. Uri onetan bici direanac guztiac dira Erregueac, Yakintzuac, aberatzac eta milla eguzki baño ederragoac, eta alan aguertu balekigu ceruco santu bat, an daucan edertasun guztiagaz, cocoturic berari beguira egongo guinaitekez, ainbestean ce, ez gueunke beste gauzaric gomuta izango, eta usteco gueunke ya ceruan gagozala. ¿Cer izango da bada ainbeste milla millinoe icustia? Bateti Patriarca eta Profetac, bešetic Apostoluac eta Martirac, emetic confesoreac, andic Virginac, guztiac gure adiskide maite eta laztan eguinic?

Eta ¿cer izango da icustea Aingueru, eta Santu guztien Erreguina, Jaungoicoaren Ama Maria Ssma? Oraindiño gueiago, ¿cer izango da icustea Jasucristo berbera, Jaungoico eta guizon eguiazcoa? Cerura doianac, bada, oneec guztioe icusico dituz gloriaz, eta edergarriz jantziric. ¿Celangoa izango da, bada, orduan bere poza? Orduan bai esan bearco davela, gauza andiac esan yacuzan cerua-gaitic; baina ecer eztira izan icusten doguzaneraco. Bardin yazoco da beste gorputzeco sentzun guztiacaz: euren belarriac, alaco murmuraciñoraco, berba loi, eta labanetaraco sarraturic egon cireanac, eta guztiz zabalic entzuteco pobreen escariac, confesoren eta predicadoreen esanac, eta Jaungoicoaren berbac, an beti beti entzungo dituez Angueru eta Santuen canta eta soñu miragarriac. Araco escuac ainbeste limosna eguin, gueisoai lagundu, eta beste caridadeco (obrac) gauzac eguin cituenac, an eukico dave cetro bana, eta artuco dave ceruco erreinuaren posesiñoa. Araco buruac mundu onetan ainbeste pensamiento, eta gogo santu, eta ainbeste ardua obligaciñoacaz cumpliatco izan evenac, an eukico dave coroe eder bana. Baña ¿nos amaituco neuke esan bear banituz Escritura Santuetan esaten yacuzan cerucoen gustu, olgantz, atseguin, eta pozcariac? Icusten direanean modu onetan, esango dave, S. Pedro Alcantaracoac leguez: ¡O zorioneco penitencia! ¡O zorioneco neke, eta penac, onenbeste gloria ecarri deustenac! Etzirian ecer onenbeste atseguineraco.

¿Cer diñozue onetara, neure entzulac; izango dira zuentzat atseguin guzti oneec? Yakin gura badozue, entzun, ez niri, ezpada Jaungoicoari berari: neu serbietan navenac yango dave ceruan Mana, ez-tia baño gozoago dan yateco bat; baña pecatariac igaro bearco dave gose arrabiadu bat. Onac edango dave gustuz beterico edari bat; baña pecatariac eukico dave egarri amurrutu bat; onac alabaduco nave santuen laguntzan; baña pecatariac deadarrez, chilioca, eta garrashica doloreen (3) dolorez infernuan egon bearco dave. Etzaitze engañau, esango deusuet Sn. Pablogaz: bacoachac bicitza onetan eraiten davena, orishe artuco dau eriotzan: araguian eraiten badau, araguitic artuco dau usteltasuna. Yakin eguizue bada, eztiriala ce-

(3)

ruan sartuco, munduco zorakeriatatic igues eguinda, Jaungoicoaren gauceetan ibili gura eztabeenac; yakin eguizue ce, araco beguiac, orain ain zabalic dagozanac gauza loietaraco, eta pecatuen ocasiñoe-taraco, eztituezala icusico, ez ceruco yauregui (ederrac) urregorric-coac, ez bertan bici direan santu santaac; araco belarriac orain murmuraciñoraco ain zabalic dagozanac, gueratuco dira ceruco canta miragarriac entzun bagaric; araco escuac orain gauza loietaraco ba-ño eztireanac, eztauke cetan usteric izan, ceru-ederraren posesiñoa artuco daveela; bacar bacarric izango dira oneec gauzoc, edo erruba-coentzat, edo pecatu eguin badave, penitenciaren bidez garbitu dire-anentzat. Alan bada, pecatariac, edo ceuen bicitza aldatu eta ondu, edo errazki agur eguingo deutzazue ceruari: agur santu-santai, agur Maria SS.meari, eta agur Jesu-Cristori, ce eztira pecatarientzat ce-ruan gorputzeraco dagozan gozamenac, ezta orain esaten noatzue-zan arimacoac bere.

Ona eta yustoa, diño Escritura Santuac, uste evan baño leenago ilten bada, bere arimea bakean eta descantsuan gueratuco da. Ozta urten izango dau bicitza onetaric, eta orra non Jaungoicoac eroango daven bere gloriara eta betico descantsura. Bere arimeac mundu onetan gorputzean egoanean locarri asco eucazan Jaungoicoa ezagu-tuteco eta maitetuteco; baña bein ceruan sartu ezkeru, gloriaco arguiagaz sendaturic, ondo erraz ezagutu, eta maite izango dau Jaun-goicoa, beti gogoratuco da, esker onac emoteco, berein mesede on bere escuric artu cituzala. Onegaz bere memoriac, adimentuac, eta borondateac, ecin esaneco zorion, eta gozamenac eukico dituz ce-ruan. Memoriac gogora ecarrico dau gauza onetan igaro cituzala Jaungoicoac emon eutsazan indar eta graciac. Ce poza arimearena gogoratuten danean bere ondasunac emon cituzala pobre ascoren socorruan! Ce poza gogora dacarreanean sacramentu santuac sarri artuta, bere obligaciñoac ondo bete cituzala! Ce poza guraso batena gomutetan danean bere exemplo eder eta aci-bide onagaz ceruraco aci cituzala seme-alabac! Ce poza seme batentzat gogoratuagaz arduraz eguin cituzala gurasoen esan eta aguindu errazoezcoac! Ce atseguina eta gloria ceruco yustoentzat, yakinagaz etzituezala alpe-rric artu euren arimac, Jaungoicoaren arguitasun eta laguntasunac euracaz eguin cituezala obra on asco, pacienciagaz eroan nekeac, vencidu tentaciñoac! Orduan bai alabauco davela Jaungoicoa, eta bedeincatuco davela bere icen santua!

Adimentuac, barriz, icusico dau Jaungoicoa aurrez aur, arpeguiz arpegui, eta bera dana leguez. Ezagutuco dau celan berba bacar ba-tegaz eguin cituzan ecer ecetic gauza guztiac, eta celan berac iraun-erazo eta gobernetan dituzan. Ezagutuco dau arguiro celan izan lei-

tekean Jaungoico bacar bat baño ez izanic, iru persona izatea; celan dan encarnaciñooco misterioa, eta beste emen sinistu cituzan, eta Escritura santetan sartuta dagozan misterio santu, eta eguiac. Yakingo dituz filosofia, Teologia, istoria, eta beste ciencia guztiac. Mundu onetan bici garean artean, burua ausi eta necatu ezkerero bere, ozta dakigu eguia cierturen bat, Jaungoicoac esan deuscuzanen ganeti. Batzuc diñoec bat, beste batzuc beste bat, eta onango ezda-baidetan bici gara iluntasun eskerga batzuen artean; baña an ezta alan izango, cegaitic ece bein Jaungoicoa (4) icusi ezkerero beragan icusico dituez ispillu argui, eta garbi baten leguez, beste gauza guztiac. Andiac dira izan bere gure adimentuac, eta memoriac ceruan artuco dituezan poz atseguin, eta gloria; baña eztira chikiagoac, eta alde batera andiagoac dira gure vorondateac eukico dituzanac.

(4)

Eztago asetuteco gauza gachagoric gure vorondatea baño: au da egunean egunean icusten dogun eguia bat: cegaitic ece eztituez betetan bere utsunac, ez ondasunac, ez yakituriac, ez olgantzac, ez ecec; beti gueiago gura, beti gose. Baña santuac ceruan sartu deitezanaraco, eta Jaungoicoa icusi daieneraco, beteco dira (bere) euren utsuna guztiac, asetuco dira, eta eztira gueiagoren billa ibillico. Jauna, ciñoian Sn. Agustinec, Jauna zuganaco eguin guinduzuzan, eta ecin bakeric euki lei gure biotz onec, ceugan egon artean. Orduan Jaungoicoa arguiro icusi ezkerero, gueure borondatea isioco da amodiozco su ereshegui baten, eta ezauera, eta amodio andi onegaz, pozez eta atseguinez beteco da arimea ganez eguin artean. Jaungoicoa izango yake cerucoai gura daven guztia, diño Sn. Pabloc. Eta au cegaitic? Itanduten dau Sn. Agustinec, eta berac erantzuten dau, Jaungoicoa izango dalaco arimientzat mundu onetan billatuten even guztia, izango dalaco mundu onetan anditzat euken guztia. Gura zituezan ondasunac? bada beragan aurkituco dituez mundu onetaco aberatz guztiac eukezan baño ondasun gueiago. Berba baten, emen on erchen guztia, Jaungoicoa maite izanagaz eukico dave; onegaz eukico dituez gozamen, pozcari, atseguin, eta zorion guztiac, eta eztave iños yakingo cer dan nekea, premiña, gueshoa, ez atsacabea.

Andiac badira bere atseguin, eta gloria guzti oneec, ez litzateke euracaz contentu egongo gure borondatea, beti betico izango direala ezpaleki, bada galduteco bildurac mingoztu, eta garratzuco leukez bere poz, eta atseguin guztiac, mundu onetan yazoten dan leguez. Euki beguiz guizonac nai dituzan gurari guztiac, mundu onetan yazoten dan leguez. Euki beguiz guizonac nai dituzan gurari guztiac, ondasunac, diruac, yanariac, musicac, osasuna, eta asmau al leikezan olgurac; eldu bedi mundu onetaco nagosiena izatera, ez begui euki gachic, nekeric, lanic, arduraric, arerioric, ez penaric emon al leion

gauzaric; bada eztiriala betico izango gogoratutea da asco, bere biotza tristetutea. Baña ceruco zorionac, eztauke onelango bildurric: an dagoanac ondo daki, eztiriala iños amaituco, eztiriala iños galduco, eztiriala iños guichituco; beti beti Jaungoicoa dan artean, atseguin, eta pozen erdian egongo dala. Orain bada ¿cer derechazue eguin leitekeala cerura yoatearren? ¿cer igaro leitekeala, ango gorputzeco eta arimaco gozamenac eukitearren? Etzagoze egun guztian bear da bear diru apur bat irabaztearren? Etzagoze negu ta uda eguzkira ta eurira, icerdituten eta necatuten, frutu batzuc, ceuen lengo pobrezan isten zaituezan batzuc artutea? Eta cerucó ondasun ugari, balioso, eta guztiz aberatz eguingo zaituezanac gaitic ain guichi eguingo dozue? ¿ain guichi? Bai ain guichi, eta alan eracutsi gura deutsuet esatera noian bigarren zatian, cer eguin bear dozuen cerua irabazteco.

Bigarren puntua

(5) Etorri yacon Jesucristori bein baten gizon gazte bat, eta itandu eutsan: «Maisu ona, eta ¿cer eguin bearco dot cerua irabazteco?» Eta erantzun eutsan Jaunac: «Cerua gura badozu, gorde eguizuz mandamentuac». Orra berba guichitan Jesucristo berberaren aotic, cer eguin bear dozuen cerua irabazteco:mandamentuac gorde: Jaungoicoaren legueco amarrac, Elesharen bostac, euretan sartuten dirianac, eta bacocharen bici moduac escatuten (5) dituzanac. Orreec yagonic, eztozue pecaturic eguingo: orreec gorderic eguingo dozuez obra onac, eta izango dozue David Erregue Santuac bear tzala ciñoana; Jaunaren etsera igoteco, eta bere lecu santuan egoteco, mandamentuac gorde.

Baña esango deustazue: ¡Ay Aita! ori esaten erraz da, eguiten da gach ece. Bai, alanche da, eta bacust nic eguiten gach dala. Baña ainbeste balio daven gauza bat irabazteco, ez al dira gauza gachac eguin bear? Munduan bere balio andico gauzac irabazteco, eztira aldatzac, eta mendiac leundu bear izaten? Oean luce luce egonic irabazten da bicitzea? Alpertzar eguinic bici izanda, berotuten da etsea? Escuari igortzea da asco auciac irabazteco? Ay! ez. Olangoac irabazteco neke andiangoac artu bear oi dira ascotan, cerua irabazteco escatuten yatzuezanac baño; eta alan-bere orreec artuten dira; eta cerua irabazteco dirianac eztira eguin gura, gach direalata. ¡Ay bada! Cerua irabazteco bacenbiltze osterantzeco gogotic gura dozuezan gaucetaraco bashen cindo, ez neuskezue nic esango, ez, eztozuela aleguina eguiten.

Gachac direala diñozue. Eta nic gueiago dirautsuet: Jaungoicoaren laguntasunac bagaric, bear dan leguez eguin-ecinac direala; baña Jaungoicoac lagunduric errazac. Sartu bekizue biotzean Jaungoico orren bildurtasuna; eguizuez ceuec-gan dagozanac; eska zakioce Jau-nari escua eta laguntasuna escariacaz, oracinoacaz, sacramentu santuac sarri-artuagaz, limosnac eguinagaz, eta alangoacaz, eta alperric ece, alango ain gach eresten deutzazuen gauzai gachtasunic gueiena yoango yake. Eztira aztutecoac Sn. Agustinen berba eder oneec: «*Amanti suave; non amanti, durum est. Amanti suave est, Dominus dedit suavitatem*». Jesucristoren bustarria Jauna maite davenentzat biguna eta gozoa da; maite eztavenentzat gogorra. Maite davenentzat biguna eta gozoa: Jaunac berac emongo dau gozotasuna.

Gauzaric arrigarrienac, eta gogorrrenac, gozoac eta eroan errazac eguiten dituz iñori asko gureac. Gurasoac ceinbat neke galant icusi bear eztituz umeac aziteco? Eta alan da guzti, umeai deuten laztantasunac gogoz arrerazoten deutzaz ain gogorrac eta luceac izanda bere. Mercatariac, ichasoan dabilenac, necazaleac berein icerdi galant, berein buruco min eder icusi bear izaten dituez irabacia izateco; baña gaucea gureac, eta etseari beguiratu bearrac, umeac lecu onetan imini naiac, gogoz eroan eraguiten deutsez guztiac, gogorrac izan arren. Sortu-ta biztu beiteke bada zuen biotzean Jaungoicoaganaco amodiotasuna, eta gauza gachac bere errazac eta gozoac eguingo yatzuez.

Baita bakizue cein dan amodiotasun ori sortuteco, biztuteco, eta iracazteco bidea? Gueure escuan dagozanac, eta Jaungoicoari ondo erechico yacozala dakiguzanac albait gueien, eta albait ondoen eguitea; edo beste berba batzucaz: cerua irabazteco aleguinac eguitea. Munduan gagozan artean Jesucristoc diñoanez, soloan bear eguiten daveen achurlariac leguez gara. Gueure arloa, eta sailla dogu cerua irabaztea, eta salbetea. Eta celan achurlariac laborea artuteco bear dituzan bere icerdia, eta ceruco azaro onac, alanche guc bere cerua irabazteco bear dogu gueure aleguina, eta Jaungoicoaren gracia, eta laguntasuna. Baña Jaungoicoaren aldeti danac eztau bein bere utsic izaten, gueuc gueure aldetic danean utsic eguiten ezipadogu; eta ceinbat eta gueuc aleguin gueiago, aimbat eta Jaungoicoac bere laguntasun obeac, eta gracia ugariagoac. Eguin daiguzan bada salbaciñoico saillean lan andiac. Eguizuez laietaac, baita zaindu, ceuen bicitzea pecatuacaz luur otz gorri (6) eguinic dagoana, confesiño generalen bitartez goicoaz bera, eta barrucoaz campora eguiten dozuela. Galdatu (eshatu), areatu, eta achurtu eguizuez, osteian sarri eguiten dozuezan confesiño-comuniñoacaz; saztu eta cimaurtu errezuacaz, limosnacaz, eta ganeco obra onacaz; eta icusico dozue Jaungoicoaren

(6)

azaro onacaz celango indarrac, eta gurentasunac artuco dituzan ceuen biotzetan beraganaco laztantasunac, eta ce erraz, ce bigun, eta ce gozo eguiten yatzuezan leen aitatuac guztia. *Amanti suave est. Dominus dedit suavitatem.* Baña alperrac bagara ¿cer besteric izango dogu, ezpada Jaungoicoac alperren soloagaitic diñoana, gure solo guztia irea, asuna eta sasia izatea? Yzango dira bai, baita ugari, pecatu chikiac, pecatu mortalac, eta arima alde guztietatic Diabruentzat zabalac. Berba baten, cerura gura davenac, berotu bear dau bere biotza sarritaco confesiño-comuniñoacaz, egunean ascotaco, edo pitean beingo oraciñoacaz, aleguinezco limosnacaz, eta osterantzeco gauza on eguinacaz.

Baña ceatzago, eta argiroago eracutsi gura deusuet cerua irabazteco bidea. Ara onen ganean cer dirauscun Jesu-cristo gueure Jaunac: *Quaerite primum regnum Dei.* Billatu eguizue gauza guztien ganeti ceruco erreñua. Ez buruco min andiric artu, cer yan, eta edango dozuen, edo cegaz yantzico zareen: ceruan dozuen Aitac ondo daki zuec orreec bear dozuezala, eta berac artuco dau orreen ardurea, eta berac emongo deusue bear dozuena. Ezteuscu berba onetan galarazoten Jaunac, dirauscu Sn. Agustinec, ceruaz osterantzeco ardurea; baña gura dau gueure ceruco ardurea beste ganetico ardura guztia baño andiagoa izan dedin, eta guztien ganeticoa, eta beste ardurac onetara ekarri daiguzan: «Bacochac beguiratu eta eguin leikeez, diño oraindo santuac, etseac, edo lagunac aguinduten deutsezanic; baña eztau uste bear ce, gauza bi direala cerua irabaztea, eta orreec eguitea. Ez beintzat: eztira bi, bat baño. Cerua irabaci bear da orreec eguiten direala; eta orreec eguin bear dira, euracaz Jaungoicoa serbidu, eta cerua irabazten dala.» Dotrina ederra beintzat, eta bein bere gogotic, eta beguien aurretic yoan bear echacuna; eta ori eguiten eztogulaco, asco baño gueiago galdu daroagu.

Ez bada, cristiñauac, cerua irabazteco eztozue etseac, ondasunac, umeac, eta guztia ichita mendi bacarretara, edo combentuetara bearric: ez alangoric. Echatzue bere galerazoten beste gauceen ardurea; eragozten yatzuena da ardura larreguia: eragozten yatzuena da pecatuzco ardurea, edo pecaturaco bidea eta oña emon leikezuena. Esaten yatzue ce, ceuen dan leguezco arduretan Jaungoicoa eta cerua billatu bear dozuela, eguinic guztia. Jaungoicoac alan gura davelaco, ceuen obligaciñoiai eta eguin bearrai erantzutearren, eta deungaro dan gauzaric eguin bagaric; edo S. Pabloren berbacz esateco: «Yaten badozue, edaten badozue, edo beste edocein gauza eguiten badozue, guztia eguizue Jesu-cristo gure Jaunaren icenean.»

Eguin bear dozue bideazcoac eguin daroena. Bidean dabilen battec yan, edan, lo, berba, eta osterantzeco bear dituzanac eguiten di-

tuz. Baña guztiac eguiten dituz bidean ibilteco bear dituzalaco, edo bai ori galarazoten ezteutsela. Baaki ecer yan, eta edan bagaric, ez leukeala indarric, ez aguinteric izango; gueldi aldiric, eta loric eguin bagaric ez leuskiola gorputzac lagunduco. Baita eztituz orreec artuten bere cereguin bacarra edo nagusiena leguez; ezpada ce orreec igaropidez, edo bide batez bear bestean eguin ezkeru, bere bideari barriro ekiten deutso. ¿Cer? ¿Etzirian ezconduac eta gurasoac izan Sn. Isidro, eta bere emazte Santa Maria Buruco? ¿Etzirian ezconduac, eta gurasoac eta ganeti Erregueac izan Sn. Fernando Españolco, eta Sn. Luis Franciaco? (7) ¿Eztacusguz altara ganetan modu guztico santuac, gurasoac, umeac; ugezabac, otseñac, soldaduac, tratulariac, necazaleac, bearguinac, eta beste-langoac? Eta ¿orreec guztioac ez even cerua irabaci, eta irabaci bere, gurasoen, tratularien, necazaleen, eta bestericoen eguinacaz?

(7)

Celan bada eguin bearco dogu, esango deustazue, ceru eder ori irabazteco? ¡Ay bada, entzungo baneutsue biotzeric esaten, Sn. Juan Bautisteari achina ascoc esate'eutsen berba ori! Baña batzuc bai, besteac ez, entzun guraco dozue celan bear dan ori, eta esan bear deutsuet. Ezcondu batec bada eguiten dau ceruraco bidea, eguiten dituzanean Jaungoicoagaitic, Jaungoicoac iminiric daucan moduan, lagunagazco bake ona, umeen acierea, otseñen ardurea, eta etseco ingurua, pecatu direan gauzac galarazota. Tratulari batec eguiten dituz ceruraco lanac, saldu-erosietan Jaungoicoac eracutsiric daucan bashen garbi dabilenean: iñor neurrian, pisuan, gauceetan, precioan engañadu bagaric, legue eztan traturic eguin bagaric. Achurlariac, necazaleac, bearguiñac irabazten dave cerua, euren lanacaz, izardiacaz, eta yoan-etorriacaz, orreec eguiten badituez Jaungoicoagaitic eta Jaungoicoa beguien aurrean darabildela. Gazte batec eguiten dituz ceruraco irabaciac, gurasoen, edo ugaza ugazaba-andren esanac, pecatu eztirianac, Jaungoicoagaitic, eta Jaungoicoarenac balira leguez eguiten dituzanean.

Aberatza zara, edo escu-artean ondo zagoz? Bada ¿cer daucazu limosnac eguin baño? pobre necatuai aldozuna emon; premiñan dagozanac emendatu, orregaz irabazteco Jesu-cristoren aotic entzutea araco alangoac eguiten dituezanai esango deutsen berba gozoa, bere ceruan sartuteco? ¿Necatu argala zara? Bada onean, eta pacienciatan eroan eikezuz ceure meetasunac eta ezunaac, iñoren contra emon bagaric, ceure arteco bakea galdu bagaric, yakinic Jaungoicoac alanche gura davela, eta orregaz irabacico dozu Jaunac gogoz pobre dirianai aguinduric deutsen zorientasun doatsua. Nequepean bici zara: bicitzaric emoten ezteutsu lagunac; umeac asco eracusten deutsu;

barregarri zabiltz iñoc deusun gorrotoaz calte andiac eguiten deusuzala; osasun chacharra dozu, edo bear bada oe baten zaucaz Jau-nac, oñen ganean egoteco adore bagaric? Bada orra non escuetara etorri yatzun cerua, eta ceru andia irabazteco bide ederra: eroan eguizuz orreec nekeoc Jaungoicoagaiti, eta ceure pecatuen zorren alderaco, eta orregaz Jaungoicoac daki celango cerua erosico dozun. Onelan bada Jaungoicoac imini zaituezan bici moduan, eta lecuán, irabaci ciñaike cerua, mendietara ez beste lecu bacarretara bagaric. Eta berba guichiagotan yakin gura badozue celan cerua irabaci, ara bada: lelengo lelengo, eta guztien aurreti pecatuac kendu, eta arimea garbi garbi erabili: guero eguizuez cristinau onac eguin daroezan gauzachu onac, eta albait ondoen; eskini eta opa eikiozuez Jaungoicoari zuen pecatuen zorren alderaco, eta orra berba bitan cerua irabazteco bear dozun guztia.

(8) Itanduco baneu pulpitu onetatic gorputzaren ala arimearen onaren ardura gueiago euki bear dogun, derichat ce guztioac aobatez erantzungo ceuskedala, Aita, ¿Ori noc eztaki? Lenago da arimearen ona gorputzarena baño; bada arimea galduten bada guztia galdu zan, eta eztau ecer balio mundu onetan aberatz, andi eta Erregue bera bere izateac, arimea infernuan jausten bada. Aushe diño mundu guztia. Guztia dauke (8) eguia au ezaguturic, baño, orregatic bere, ezta ecergaitic guchiago eguiten, arimearen ona gatic baño; eta baldin baderechazue ponderaciño larreguia dala au, beguiratu eguizue cer eguiten dan gorputzaren onagaitic, eta onegaz bacarric confesauco dozue eguia diñodala.

Guizon batec gueriz puzca bat eracutsi gura badau, eztau ecergaitic bear gueiago eguiten, lecu ereiguiria igotea gaitic baño; eztau beste gauza gaitic augaiti beste lan igaroco; augaiti artuten dira nekeac, augaiti igaroten dira peligruc, augaiti galduten dira diru ta ondasunac; augaitic guchitan dago bicitzea bera. Ceinbat bicitza dacusguz galduric guizon batzuen Erregue izateco guraria gaitic? Ceinbat odolez luurra bustiric, ceinbat etse erre, ta uri iruliric? Celango guerrac, celango ibillerac, celango eriotzac, celango gastuac? Mundu guztia errebolbiduric ibilico dira, batac besteac baño andiago izateco guraria gaitic. Eta cer atera dave guizonac euren neke, lan, izardi, eta ibillera onecaz? Cer irabaci dave ainbeste guerra, ainbeste eriotza, eta ainbeste odolegaz? Ecerbere ez. Yl cirian jaio ezipalira leguez, isilic gueratu zan euren icena, eta sepultura baten lurpetu zan beti iraungo evala uste izan even anditasun, honrra, eta gloria guztia.

Noc eguiten dau cerua gaitic, diruac irabazteco beste? Guizon batec aberastu gura badau ¡ce lanac igaroten dituz! Egunez eta gauzez dago gogotan, ce modu artuco daven gueien irabazteco; ce

saldu erositico ondoen urtengo deutsan; celan urten leikian tratu onetan edo bestean, eta bein tratu onetatiko batera gogoia ezarri ezkerre, ezta atseguitico artuten; batzuetan saldu, beste batzuetan erosi, orain joan batera, guero bestera, eta irabazteco esperantzaz badauco, ichiten dau etsea, ichiten da familia, ichiten da atseguitico, yaiguico da gauerdian bearbada, igaroco dira pozico otzac, beroac, euriac, eta erurac. Baña ceruco ondasunac irabazteco ¡ce atzeracuntzea! ¡ce nagitasuna! ¡ce astuntasuna! ¡eta ceinbat achakia! Aste osoac beragaitico ecer eguitico bagarico, gomutarico, gueien bere erdi lotan eta arin arinca esanico errosario bat. Esaten bada indulgenciac dagozala ain egunetan confesau ta comulgauagaz, Eleshea bisitauagaz, erantzuten da bein da bear eguitico; elduten da yai-eguna, eta ¡cer eguitico da orduan bere ceruagaitico? orduan bere bear eguitico, eta eraguitico semealabai, otseñai, ganaduac yan bear davela; batzuc euren zorroacaz errotara eta ostera, beste batzuc andico eta emetic euren tratu eta saldu erositara. Etorri gura badau euren seme-alaba edo otseñen batec yai-egunetan confesetan, indulgenciac irabazten? ascotan echake ichiten: au edo bestea eguitico bear davela. ¡Cer da, bada, yai-egunetan bere ceruagaitico eguitico dana, eta mendean dagozanai eguitico ichiten yakena? Ozta ozta entzuten da meza bat, eta ori bere aguitico dagoalaco, eta Elespean berbetan, sacerdotea altara urten artean, egonico; eta mezea amaituten daneco arin arinetan Eleshatic urtenico, igarorico beste aldi guztia, edo bearrean, edo dantzatan, edo tabernan, edo yocoan, edo benturaz gauza deungoetan.

¡Ceinbat gueiago eguitico ezta gorputzaren onagaitico, ceruagaitico baño? Gueishotuten bada gorputza, bertatic medicua, ofizialea, gachac indarra artu baño lenago; aguitico badira edatecorico garratzenac bere, bertatic artuten dira osasuna gaitico, eta nondico edo andico billatuten da cegaz ecarri ezpalitico bere; eta esaten badeutso medicu edo oficialiac eztaguitico urten etsetico, ichico da tabernea, ichico da fiestea, eta ichico dira guren guren diran gauzac, osatutearren. Yausten da barriz arima gaishoa pecatuen gachagaz, ceinec eragotzen deutsan cerua, eta eukirico doarico medicua eta erremedioa, ezta ecer eguitico gura. Egunerico egunera, asterico astera, ilerico ilera, eta ascotan urterico urtera izten da pecatuaren gach gogoracaz urte osoetan. Elduten da nos edo bein confesorengana, (9) cein dan arimaco medicua, eta eguitico yacaz astun eta gogor aguitico deutsazan medesinac; aguitico badaguitico ezteiteala yoan tabernara, an edango davena bere etsean bere fameliagaz edan daguitico tabernari ichirico; aguitico badakio ezteiteala ibili fiestatara an dagozan ocasiñoen ashiac arimea gaishotu ezteion: esan bekio biurtu daguitico bacochari deungaro eroana eta galarazoa: aguitico bekio parcatu

(9)

daguioia gach eguin, edo deungaro esan deutsanari, berari bere Jaungoicoac parcatu daguion: adiskidatu deiteala arerioagaz: aguin-
du bekio egunean egunean eguiteco esaminea bere eten eta argalta-
sunac obeto ezaguteco: esaten baiaco sarrichu confesetaco, ordu
laurechu baten consideretaco Jesucristoren pasiñoa, edo guizona-
ren azkenac, eta daguizala sarritan, obligaciñoa daucan leguez, fede-
co, esperanza, eta caridadeco actoac, alan Jaungoicoaren amodioan
gueiago viztuteco edo beste onelango gauzaren bat aguinduten ba-
deutso ere arimearen salbaciñoraco: «ecin medecina au artu da», eta
diño bere artean: «Larregui estututen nau confesore onec, eta enaz
beronegana gueiago biurtuco». Dirautso confesoreac osatutearren
arimea pecatuaren gachetic, ostera gaishotu eztakion, ichi biar ditu-
zala araco leen gaishotu eveen gauzac, araco berbeta nasai, icen ciki-
nac, araco lagun-gaisto eta adiskidetasunac, araco ainbeste cikinke-
ria eta zantarkeria yazoten diran fiesta, yolasac, batzarrac,
gaubeguirac, errondac, dantza nastuac eta besteac, araco yoco eta
tabernac non ainbeste bidar yausi zan pecatuan; baña ezta yaramo-
nic eguiten, eta ez tira artu gura cerua irabazteco diran gauza oneec.
Gosetuten da gorputza, emoten yako janaria goshian, eguerdian eta
arratsian, eta arimeari sei illabetetic sei illabetera; eta benturaz, baña
¿cer diñot benturaz? ceinbat eztagoz Elesha onetan, eta ameneco
guraso izanic, urteric urtera baño confesau eta comulguetan eztiria-
nac, etsean escandalua emonic? Ceinbatec dauco euren arimea gose-
ac ilic, eta Sacramentu Santu altaracoen janari eta edariric emon
bagaric urte guztian? Eta orduan bere ¿cegaitic? Ez ceruaren ardu-
rea daukelaco, ezpada chartelen bildurrez eta abade Maisuac casti-
gadu ce daguizan. Sermoetara joatea neke ta gogor eguiten da. Ber-
ba baten, gorputzac daroaz egunac, gaubac, asteac eta urteac;
beretzat bearra, beretzat etsea, beretzat oia, beretzat jaztecoa, bere-
tzat janaria; eta guztia beretzat, eta arimia azturic, eta iños ceruric
gomuta bagaric.

Beguiratuten badogu celango ardurac artuten direan diruac eta
ondasunac ondo gordetaco, eta iñoc ostu eztaguioezan, icusico do-
guz gauaz atiac ondo zarraturic, cucha eta escaparatoc giltzez ichiric,
eta lapurrac dabiltzazala entzuten bada, eguiten da gau-bela, gueitu-
ten direala ardurac, eta artuten direala inon direan neurri guztiac,
ecer ostu ce daguioen; baña ¿eguiten da onelaco gauzaric ceruagai-
tic? Esan eguidazue zuec guraso zorigalducoac ¿ichiten dozue ondo
eta arduraz ceuen etseco ateac zuen umeac gauaz goruen achakian,
arta zuritan, eta beste neska mutilen batzarretara urten ce daguien?
artuten dozue bear dan ardurea zuen umeac plazetan, jolasetan, ola
ta carobietan, dantzetan ibili ezteitezan, an batuten dirian persona-

ren batzuc galarazo eztaguion ceruraco bidea? Ay cerua, cerua! ce aitzuric zagozan, eta ce guichi ezagututen dan zure balioa! Bada jakin-
nic infernuco lapurrez beteric dagoala mundu guztia, guri zerua era-
gozteco: jakinarren demonino lapur bildurgarriac daucazala lakio ta
sareac alde guztietatic ifiniric guri pecatuan jausi eraguinic cerua
eragozteco, ezta arduraric ecetan artu gura, ezta alderatu gura ocasi-
ñoetatic, eta ezтира bere ichigura ao, begui eta belarrietaco ateac
demoniñoac andi sartuteco ocasiñoa iminten dabenean guri cerua
galarazoteco.

¡Ay ce andia dan guizonaren zorotasuna! bada bide leun, bigun,
eta errazagoetatic cerura joan leitekezanac, doaz euren borondatez
infernuco sutequietara, bide ascoz oker, gogor eta garratzagoetati.
Ezprobere esan eguidazue eguia, ceuen gustu eta guraria jadiesteti-
gaitic (10) pecatu mortalean jausi zareenoc: euki dozue bakian eta
atseguinez ceuen biotza, pecatu mortal ori eguin cenduenetic ona?
Echatzue sarritan etorri gogora eguin cenduen pecatuen gorrotota-
suna, nai dala etsean, nai dala oean, nai dala soloan, nai Eleshan?
Baña, nora noa? Pecatari tristea, orainche bertan etzaitue icaratu eta
bildurtuten eguin cenduen pecatuac? Instante onetan bertan ezteu-
tsuez emoten kizketada gogorrac ceuen biotzean? Eguia esan gura
badozue, ecin ucatu cineikee confesau бага, beste David batec le-
guez, beti dagoala ceuen contra eguin cenduen pecatua. *Pecatum
meum contra me est semper.*

(10)


Beguir, nere entzula maiteac, ceinbat neke ta lan, ceinbat atsa-
cabe eta mingotstasun igaroten dirian munduagaiti eta gorputzaren
onagaiti eta azkenean infernura joatearren, eta ce onelaco guichi
eguiten dan ceruagaitic. Baña cer diñot? Ceruco gaucetaraco guztia
eguiten da astun eta gogor. Pobreari limosna emoteco, ostua atsera
biurtuteco, zorrac paguetaco esaten da «eztaucat zegaz, nekez eldu-
ten yat neure burua mantenduteco», baña eguin bear bada conbit
bat, bago; ocasinoren bat edo gurari citalen bat alcanzadu gura bada,
ezta beguiratuten gastura; Erromeriaren bat badago, ichico yaco e-
tseco cereguinari, goshetic urtengo da etsetic, eta igaroco dira men-
diric eta aldatzic gogorrenac eguzki beroagaz izan arren bere, baña
sermoera edo elshaco gaucetara joan bear bada, esaten da etsean
daucat cer eguin, aldatza dago, eta bero andia eguiten dau aguiño
yoateco. Eleshan puscachu bat egotia luce eguiten da. Meza Santua
astirochu esaten bada, sermoan minutu batzuc luceseago badago,
esaten da, ecin entzun lei urliaren meza, ecin yoan leiteke urleciaren
sermoara, eta egongo dira alperrerietan ordu osoetan, jocoetan,
murmuracinoetan; berba baten, igaroco dira ordu osoac pecatu gau-
cetan, pocic otzac, beroac, nekeac, lanac, izardiac munduagaitic, eta

ezta ecer eguin gura ceruagaitic. Aguindu begui confesoreac edo Predicadoreac quendu dagueizala moda ta banaiac, ichi dagueizala fiestac, batzarrac, dantzac, jolasac, jocoac, tabernac, eta ezta jaramonic eguiten. Esan begui sarrichutan confesau ta comulgau deitezala, Jaungoicoaren bildur santuan bici, eta arimea zuri zuri erabilteco, eta ezta jaramoten.

Neure cristinaubac, nondi dator ichumendi au? Nondi dator ain bear guichi eguitea cerua gaitic? Nondi dator ain guichitan eukitea ceruco gloria? Da venturaz larregui escatuten deusculaco bera gaitic Jaungoicoac? Icusi eguizue bada cer eguin evan beronec, eta guera-tuco zare lotsaturic. Beguiratu eguiozue celangoa dagoan, eztauco bere gorputzian alde osoric, bere burua dauco arantzazco coroe icaragarri bategaz zulaturic, bere arpeguia mallaturic, bere lepoa azotez zatituric, eta sorbaldac crucien pisuaz zulaturic, bere aoa biaz tun eta binagrez mingotzturic, bere escu eta oñac untze gogorrez josiric, eta alboa lantza bategaz idiguiric, eta guztia bururic biratzera zauri andi andi bat eguinic. Eta ¿cegaitic ori? ¡Ah! gu cerura eroatearren; guc cerua artu daigun. Bada, neure cristiñauac, Jesus maite onec igaro dituz ainbeste neke, lan, ainbeste azote, zauri, eta antzeco eriotza gogorra ceruco atea guri idiguiteco, eta eguingo yacu astun ara elduteco aguinduten yacun puskea? Eguingo yacu gogor crutzeco Jesus maite onen leguea? Nos artean egongo zare pecatari tristeac ichumendi orretan? Nos artean egongo zare eguia onec ez ezagutu guraric? Nos artean euki guraco dozue pecatuen pisu andia? Erdue ona pecatari errucarrioc: erdue, erdue Jesus maite onen oñetara, bada beronec arguituco zaitue, beronec kenduco deusue pecatuen pisu icaragarri ori; erdue guztioac ona, bada berau da graciaren iturria, ceruetaco Erregue andia, triste necatuac poztuten dituzana, pobreac aberaztuten dituzana, eta ceruan santuac atseguin eta gloriac betetan dituzana. Zugana gatoz, Jesus ona, pecatari guztioac, ezaguturic orain arteco ibillera char eta eguikera gaistoac escatuten misericordia: Ez eguizuz bada bota gure escari laburrac; Zuc ichiten bagozuz eztaucagu nogana biurtu, gueure biotzeco damu andi bategaz escatuten deusugu, gueiago negar eta zuzpiroz berbacaz baño esanic: Neure Jesu Cristo Jauna etc.

EUSKARAREN LEKUKOAK BILDUMAN
ARGITARATURIKO ZERRENDA
LISTA DE LIBROS PUBLICADOS EN LA SECCION
«EUSKARAREN LEKUKOAK»

1. *Doctrina Christioarén cathechima*, Joakin Lizarraga, Elkanokoa.
2. *Linguae vasconum primitiae*, Bernard Etxepare.
3. *Manual devotioñezcoa*, Joannes Etxeberri, Ziburukoa.
4. *Mendibururen idazlan argitaragabeak* (bi liburuki), Sebastian Mendiburu.
5. *Kredo edo sinhesten dut esplikatua*, Etienne Lapeyre.
6. *Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia (1785)*, Jusef Egiategi.
7. *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure Ginco Jaunaren eçagutcia, salbatu içateco*, Athanase Belapeyre.
8. *Eguia catolicac salvamendu eternalaren eguïteco necesario direnac*, Bernard Gasteluçar.
9. *Koplak*, Joakin Lizarraga, Elkanokoa.
10. *Ongui iltzen laguntzeco itzgaïac*, Joakin Lizarraga, Elkanokoa.
11. *Bayonaco Diocesaco bi-garren catichima*, Lavieuxville-Harosteguy.
12. *Euscal-Errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba*, Prai Bartolome Santa Teresa.
13. *Euskal testu zaharrak (I)*, Jose Maria Satrustegi.
14. *Cristaubaren icasbidea edo doctrina cristiana*, [Juan Antonio Moguel ta Urquiza].
15. *Latsibi*, Resurreccion Maria Azkue.
16. *Urteko igande guzietarako prediku laburrak*, Joakin Lizarraga, Elkanokoa.
17. *Jesu Christoren Evangelio Saindua*, Ioannes de Harneder.
18. *Aita Juan Mateo Zabalaren Sermoiak* (I. tomoa), Luis Villasante Kortabitarte.



LUIS VILLASANTE KORTABITARTE

Euskaltzainburu ohia.

Gernikan, Erretereriako auzoan (Bizkaia), jaio zen 1920an. Fraide frantziskotarra. Kantauri Probintziako frantziskotarren etxeetan burutu zituen ikasketak. Comillasko Unibertsitatean egin zuen Teologiako Doktoradutza, irakasle izana da Arantzazuko Teologi ikastetxean (Oñatin, Gipuzkoan), eta orain ere han bizi da.

Aldizkari eta argitalpen desberdinetan artikulatu ugari idazteaz gainera, ohiko lankide izan du *Arantzazu* aldizkariak.

Besteak beste, honako liburu hauek argitaratu ditu: *Historia de la Literatura Vasca* (1961, 1979an bigarren argitalpena); *Jainkoa* (1962); Axularren *Gero*, argitalpen elebiduna (1964); *Jesukristo* (1969); *Eliza* (1984); *Kristau fedea* (1986); *Axular: mendea, gizona, liburua* (1972); *Palabras vascas compuestas y derivadas* (1974); *Sintaxis de la oración compuesta* (1976); *Estudios de sintaxis vasca* (1978); *Sintaxis de la oración simple* (1980); *La H en la ortografía vasca* (1980); *La oración causal en vasco* (1986); *Euskararen auziaz* (1988).

Baita ere argitaratu ditu zenbait lan moja kontzepzionista baten bizia eta pentsakera aztertuz: *La sierva de Dios M. Angeles Sorazu* (Bi liburuki, 1950 eta 1951); *Nere izena zan Plorentxi* (1961); *Angeles Sorazu. Bizia eta mezua* (1990); *M. Angeles Sorazu. Un mensaje para tiempos difíciles* (1981); *El camino cristiano según Angeles Sorazu* (1994); *Sorazuren autobiografiaren edizio berriaren argitalpena* (1990).

«Lekukoak» sailean euskal idazle batzuen zenbait lan argitaratu ditu, hots Et. Lapeyre, J.A. Moguel, Lavieuvville-Harosteguy.

ISBN 84-85479-81-5



9 788485 479818

AITA JUAN MATEO ZABALAREN
SERMOIAK (II)

FRAY MATEO DE ZABALA

AITA JUAN MATEO ZABALAREN
SERMOIAK (II)

21

Edizio kritikoa

Fr. Luis Villasante Kortabitarte



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Kultura Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Cultura

Liburuki honen paratzaileak, edizio kritikotik aparte, jarraikook dira:

– *Aita Jose Luis Zurutuza*
eta
– *Itziar Rekalde andrea*

Taiutzaile-koordinatzailea: *Ricardo Badiola Uriarte*

© REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA
Plaza Barria, 15 - 48005 BILBO

I.S.B.N.: 84-95438-02-X
Legezko Gordailua: BI-2056-00

Fotokonposizioa: Ikur, S.A.
Cuevas de Ekain, 3, 1º - 48005 BILBO

Moldiztegia: A.G. Rontegui, S.A.L.
Avda. Ribera de Erandio, 4 - 48950 ERANDIO

AITA JUAN MATEO ZABALAREN
SERMOIAK
II. tomoa

SARRERA.....	IX
Argitalpenari zenbait ohar.....	XXVII

1. ATALA

1. Confesiño edo penitenciaco Sacramentuaren ganeco icas- -bide ta eracus-aldiac (B, 89-90. or.).....	3
2. Concienciaco esaminaren ganeco berba-aldia (B, 90-94)	7
3. [Concienciaco esaminea] (J, 1-16. or.).....	13
4. Ondo confesetaco bear dan damuaren ganeco berba-aldia (B, 94-99)	21
5. Damuaren ganeco doctrinea (J, 18-21)	29
6. Ondo confesetaco bear dan propositu edo gogoaren gane- co berba-aldia (B, 99-103)	37
7. [Propositua] (J, 22-25).....	45
8. Aozco confesiñoaren ganeco berba-aldia (B, 103-107) ..	51
9. [Aozco confesiñoa] (J, 26-31).....	59
10. [Confesiño osoa] (J, 143-156).....	71
11. [Confesiño generala] (J, 39-45).....	85
12. Confesoreac aguinduric-co penitencia eguin edo cumplie- tearen ganeco berba-aldia (B, 108-112)	97
13. [Penitencia] (J, 33-37).....	105

2. ATALA

1. Lenengo mandamentuaren ganeco icasbidea (B, 35-15)	117
2. Ycharomen edo esperancearen ganeco icasbidea (B, 16-19)..	123

3. Erasoguintza (B, 19-20)	129
4. Jaungoicoaren legueco [bigarren] aguinduren edo yuramentuaren ganeco icasbidea (B, 25-28).....	133
5. Biraoaren ganeco icas-bidea (B, 33-35).....	141
6. Jaiegunac gordetearen ganeco icas-bidea (B, 35-37).....	145
7. [Irugarren mandamentua] (J, 47-61).....	149
8. Laugarren mandamentuaren ganeco icas-bidea (B, 37-40)	167
9. Doctrina de los padres de familia (J, 63-71).....	175
10. [Bostgarren aguindua] (J, 72-79).....	189
11. Bostgarren mandamentuaren ganeco icasbidea (B, 40-43)	201
12. Ordiqueriaren ganeco icas bidea (B, 43-46, 75-76).....	207
13. Loiqueriaren ganeco icas-bidea (B, 46-50).....	215
14. Loiqueraric zuen artean entzun beré ezpedi (J, 81-95)	223
15. Seigarren mandamentuaren ganeco icasbidea lengoa bashen luceagoa (B, 51-56).....	241
16. Lapurquerya edo ostetiaren ganeco icasbidia (B, 81-83) ...	251
17. Saldu-erosien ganeco eracuz-aldia (J, 71-75).....	257
18. Yocoaren-ganeco icasbidea (B, 56-59).....	265
19. Murmuraciño edo iñogaitic deungaro esatearen ganeco icas-bidea (B, 59-62).....	271
20. [Zortzi-garrena edo murmuraciñoa] (J, 97-104).....	277

3. ATALA

1. [Arerioai parcatutearen ganecoa] (J, 105-111).....	293
2. [Artu direan gogo onetan irauteco bideen ganecoa] (J, 113-119).....	305
3. Esconduen eguin bearren ganeco icas-bidea (B, 63-70).....	317
4. San Matiasen eguneraco sermoia (B, 191-196).....	327

JUAN MATEO ZABALA AITAREN (1777-1840) MIXIOETAKO SERMOIAK

SARRERA

1. Aita Zabalaren garaia

Aita Zabala 1777.urtean jaio zen Bilbon eta Zarautzen 1840an hil. Berak bere deitura, batzutan, b-kin idazten zuen eta beste batzutan –eta sarriago, segur aski– v-kin.

Bilbok garai hartan 10.000 edo 11.000 biztanle izango zituen¹; uri elebiduna zen. Eta gure Juan Mateoren etxean bai euskaraz eta bai erdaraz ere egiten zen. Gurasoak, aita, Bakion eta ama Areatzan (Villaron) jaioak zituen. Bai aitak eta bai amak, bi-biek Zabala abizena zuten.

Garai nahasia benetan fraide honi bizitzeko gertatu zitzaiona. Frantziako Iraultza handia eta horren ondorioz han-hemen igarotako nahasmenduak. Baina garai horretan egin zuen bere egitekoa gure Zabalak eta bai zintzo eta konplituki egin ere. 1808. urtean, eta Bilbon hain zuzen, altxamendu edo matxinada bat gertatu zen frantsesen kontra, eta San Frantzisko komentuko fraideek ere parte hartu zuten. Horren ondorioz, sasi-errege Jose Bonapartek fraideak komentutik atera arazi zituen. Orduan Aita Zabala, Bilbo utzi eta hortik eta hemendik ibili (Galizian, etab.), eta azkenean, Zarautzen finkatuko da.

Euskal literatura ez zaigu garai horretan hain antzu agertzen. Hor nonbait ditugu mogeldarrak, Añibarro, J. Bta. Agirre, Gerriko, Astarloa anaiak, aita Bartolome karmeldarra, Ulibarri Okondoko perratzailea, Jose Kruz Etxeberría, etab.

Karlisten lehen gerratea ere ikustea tokatu zitzaion gure Aita Zabalari, Zarauzko komentuan bizi zela.

Bilbo, gure idazle honen jaioterria, Euskal Herrian halako salbuespen bat bezala izan zen. Karlisten eta liberalen arteko gerratean Bilbo erabat liberalen aldeko azaldu zen.

¹ Ikus *Diccionario enciclopédico vasco*. Vol. V - BI-CABALLE, San Sebastián: Auñamendi, 1974. "Bilbao" 101-336. or.

Bere sermoietan, ordea, gure Zabalak ez du sekulan politika arazorik aipatzen.

Lehendik ere ezaguna genuen Aita Zabala euskal literaturan. Ezaguna batez ere aditzari buruz egin zuen liburuagatik, euskal literaturaz utzi zuen bibliografia zerrendagatik eta euskarazko alegi eta fabulengatik. Baina haren euskal sermoiei buruz ez genekien tutik ere. Aita Ruiz de Larrínagak, gure Zabalari eskaini zion monografian, espreski dio berak ez duela haren sermoirik ikusi².

Baina gure mendean hor-hemen azaldu dira hiru liburu txukun enkoadernatuak, Zabalaren letra txiki eta ederraz idatziak. Non azaldu dira liburuok? Bata Bermeoko gure komentuan, beste bat Jerusalemen –San Salvadoreko gure komentuan– eta bestea, azkenik, Irungo pasiotarren komentuan.

Eduzkiaz denaz bezan batean, hiru liburu horietan sermoi batzuk errepikatuak daude, baina egilearen beraren hobekuntza batzuekin.

Aipatu ditugun tokietara heldu arte zer-nolako ibilerak eta gora-beherak ezagutu zituzten liburu hauek? Hori ez da jakiten erraza. Uste dudana esango dut. Aita Zabala hil zenean, fraideen exklaus-trazioa gertatu zen Zarautzen. Orduan fraide batzuek hartu eta berekin eramango zituzten liburuok beren predikuetarako lagungarri izango zituztelakoan. Liburuok zituztenak, ordea, hor-hemen barreiatu ziren –exklaus-trazio garaia zela ez da ahaztu behar–, eta azkenik inork ere ez zekien beroien berri. Urte askoren buruan, berriez, esandako tokietan azaldu dira.

Sermoi hauek bizkaieraz daude idatziak denak. Euskararen gordailuan toki bat zor zaiela uste dugu, eta hala Bizkaiko Diputatu Nagusi zen Alberto Pradera jaunari beroiek argitaratzeko laguntza eskatu genion eta bai berak laguntzeko hitza eman ere. Laguntza honi esker kaleratzen dira, bada, eta hargatik neure eskerrona agertu nahi dut.

2. Aita Zabalaren bizitza

Aita Juan Mateo de Zabala –esan dugun bezala– Bilbon jaio eta San Antongo elizan bataiatua izan zen 1777. urtean. Bere aita Juan, Bakiokoa zen eta ama Josefa, Areatza edo Villarokoa. Bi-

² RUIZ DE LARRINAGA (Fr. Juan), *El Vascófilo franciscano R.P.Fr. Juan Mateo de Zabala. Estudio Bio-bibliográfico*. San Sebastián, 1927, p.12-13; p. 40 ss. Lan hau RIEV-en ere agertu zen. Ikus RIEV VI, 33, 313, 337. or.

-biok, aita eta amak, alegia, Zabala abizena zuten. Gurasoak elebidunak ziren: bai euskera eta bai erdera ere zekitenak, alegia. Eta berdin gure Juan Mateok ere. Honek arreba batzuk ere izan zituen, eta horietako batzuekin gero har-emanak izango ditu eskutitz bidez. Lehenengo ikasketak etxean eta eskolan egingo zituen, noski.

Oso goiz, dirudienez, gurasoak ohartu ziren seme hark fraide izateko bokazio-aztarnak bazituela, eta latina ikastera jarri zuten. 15 urte zituela frantziskotar Ordenako habitua hartzen du eta Nobiziodoa egiten. Non? Ez dakigu. Aita Larrínagak dioenez, Bilbon ez zuen hartu habitua, beste komenturen batean baizik. Apaizgorako ikasketak ere Bilbotik kanpo egin zituen, Kantabriako Probintzia barruko etxe-komentuetan, hots, erderaz egiten zen herrietako komentuetan. Zein herritan, ordea? Ez dakigu. Urduñan? Gasteizen? edo Arabako beste komenturen batean? Ez jakin. Dena den, berberak esaten du orduan dorpetu edo atzeratu egin zela euskeraz. 1804. urtean Filosofiako Lektore izendatzen dute. Jose Bonaparte-ren exklausurazioa dator, ordea. Orduan Bilbotik irten beharra izan zuen.

1803. urtean argitaratzen da Astarloaren euskal apologia³. Astarloa honek anaia bat zuen fraidea eta Probintziala izatera ere iritsi zena, gainera. Gure Zabalak liburu hori irakurri eta euskera hobeki ikastera lotzen da sermoi eta aitortza-lanak hobekiago betetzeko asmoz. 1800. urte inguruan hartzen du apaizgoa eta predikari eta aitore izateko onespena ematen zaio.

Aita Ruiz de Larrínagak dio, 1808. urtean, –Bonaparteren exklausurazioa dela eta– irten zela Aita Zabala Bilbotik.

Badakigu, gainera, bi urte edo gehiago egin zituela Herbón-en (Coruñan), hango Mixiolari-kolejioan. Eta han aurkituko du bere bokazioa. Hain zaletu zen etxe horietan egiten zen bizimoduaz, non Bilbora itzultzean, 1814ean, eskatuko du Zarauzko Mixiolari-kolejiara joatea eta hartako baimena lortuko du. Zarautzera joate hori 1815ean izan zen. Hemendik aurrera, hil arte, Zarautzen biziko da, bada⁴.

Zer ziren «Mixiolari-kolejio» horiek? Frantziskotar komentukak, noski, baina xede berezi bat zutenak, hots, herrietan mixioak ema-

³ ASTARLOA, Pablo de (presbítero), *Apología de la lengua bascongada, o ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen: en respuesta a los reparos propuestos en el diccionario geográfico histórico de España, tomo II, palabra navarra*. Madrid, 1803. (Ikus, A. VINSON-en *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*, Paris, 1891).

⁴ Mixiolari-kolejioei buruz, ikus. PARRONDO, Fr. Domingo, OFM., *Historia de los Colegio-Seminarios de Misiones de la regular Observancia de N.S.P.S. Francisco existentes en esta Península de España*, Madrid 1818.

tea. Eta Zarauzkoak bazuen bere eremu propioa lan hori egiteko: euskal eremua, noski.

Zarauzko kolejio honek Sahagungotik hartu zuen hasiera 1746. urtean, nahiz eta frantziskotar komentu bezala lehenagokoa izan, 1610. urtean sortu baitzen, eta 1840ko exklastrazioaz izan zuen bere azkena. Egia da Restaurazio edo Berriztatze garaian berriz zabaldu zela, baina komentu bezala soilki, ez mixiolari-kolejio bezala.

Dena den, 25 urte, bere bizitzako azken urteak, Zarauzko kolejio horretan emango ditu Aita Zabalak. Eta han estimu handitan izan zuten. Bi aldiz izendatu zuten Guardian eta behin Bikario. Hil zenean ere Guardianaren zen.

Obra handiak egin zituen komentua eta eliza hobetzeko. Mixioak ematera ere maiz ateratzen zen, eta beti Bizkaira eta Arabako zenbait herritara. Zergatik? Bizkaieraz egiten zituelako bere sermoiak –hala uste dugu–. Aita Añibarrok, bizkaitar izanarren, mixioak ematen zituenean, berdin joaten zen Bizkaira, Gipuzkoa edo Nafarroara, baina Aita Zabala ez, dirudienez. Kontuan eduki behar da euskalkien mapa, euskalki bakoitzaren hedadura eta mugak zerkartzana, egin gabe zegoela oraindik. Aita Zabala hil ondoren Bonaparte printzeak egingo du euskalkien mapa famatu hori. Bizkaiko euskalkia zen, bada, Aita Zabalak menderatzen zuen euskalkia eta horregatik –uste dugu– Bizkaian eta Arabako bazter-herri batzuetan soilki ematen zituen bere mixioak.

Bi fraide gutienez joaten ziren herri batean mixioak ematera, bertako erretore jaunaren baimena izan ondoren, noski. Eta zenbait egun irauten zuten mixioek. Aita Añibarro hil zenean (1830), gure Aita Zabalak egin zuen, luze idatziz, haren aipamena Zarauzko komentuko kronikan.

Aita Zabalak mixio asko eman zituen. Bizkaiko herrietan eta Arabako zenbaitetan –euskalkiagatik, noski–. Hark mixioak emandako herri guztien zerrenda osoa, segur-aski, ez dugu ematerik.

Aita Zelestino Solagurennek dioenez, Aita Zabalak 1817-1818. urteetan honako herri haueetan eman zituen mixioak (Ruiz de Larrínagari pasatu zaizkionak, noski): Zaldibar, Elorrio, Durango, Audio, Zamudio, Mallabia, Urduliz, Mungia, Gorozika, Munitibar, Mundaika, Plentzia, Busturia, Ereño, Ipazter, Arratzu, Zeberio, Berriatu. Mixio haueetan Aita Manuel Ignacio de Aldekoa izan zuen mixio-emale lagun.

1819-1821. urteetan, berriz: Arrigorriaga, Abadiño, Berriz, Gamiz, Getxo, Lumo, Arrankudiaga, Sondika, Bakio, Ibarangelu, Mañari, Muxika, Gernika, Mungia, Bernagoiti, Zaldibar, Leioa, Errigoiti, Dima, Ea. Aita Juan Ignacio Astigarraga, Basaurikoa, zuen

berarekin batean mixio-emale lagun. Euskaraz egiten zen. Arabako zenbait herritan ere eman zituen mixioak: Okondo, Baranbio, ...

Mixioak ematera zihoanean poltsikoak liburuskez beteak eramaten zituen. Hartako kantuen letrea zekartzaten liburuskak ziren, alegia, jendeari partitzeko. Eta liburuskok inprimarazi egiten zituen⁵.

Lehen ere exkluazazioa ikusia zen Aita Zabala eta berriro ere horrelakorik ikusi beharko ote zuen beldurak kezkatzen zuen. Baina Zarauzko komentuan behintzat, Aita Zabala bizi zen artean, ez zen exkluazatorik ezagutu. Aita Zabala 1840. urtean hil zen. Eta hura hil eta bertatik, bai, etorri zen exkluazazioa.

Mendizabal-en desamortizazio-legea 1836.urtean emana izan zen, baina Gipuzkoan 4-5 urte igaro arte ez zen lege hori indarrean jarri, eta, hain zuzen, bitarte horretan gertatu zen Aita Zabalaren heriotza.

Esan behar da, azkenik, Aita Zabala gorputz osoko fraidea izan zela, guztiz jainkotiarra, otoitz-zale aparta eta bere barne-bizia ardu-raz zaintzen zuena. Anaia lego izateko gogoaz zegoen Hermano batek –Miguel Antonio Altunak– idatzi zituen komentuko kronikan lerro murrizt batzuk berari buruz, eta beroietan hara zer dioen: «Era Sabio y Santo... de poco comer y de poco beber, de poco sueño y mucha oración»⁶.

3. Aita Zabala euskalari

Aita Zabala, herri-mixiolari izateaz gainera, estudio-gizona ere bazen, intelektual bat, alegia. Euskera sustraitik ikasi eta aztertu zuena. Herrietan mixioak ematen zebilenean, entzuten zituen hitzak hartu, eta beroien ahoskera zehazki jasotzen zuena.

Adibidez, bada liburu bat argitaragabea eta egile-izenik ez duena, Azkuek «manuscrito de Otsandiano» deituraz bataiatua, eta gaur Urkixo liburutegian dagoena (Donostiako Diputazioan, alegia). Itxura guztien arabera, Juan Mateo de Zabala da beronen egilea. Hala uste dute Azkue berak eta bai Berriotxo anaiak eta Koldo Mitxelenak ere. Ikus Azkueren hiztegiaren hitzaurrean irakurtzen duguna: «La obra que figura con la abreviatura de «ms-Ot» es otro vocabulario anónimo, (debido, creo, al P. Zabala), que me lo regaló el Sr. Cura de Otšandiano»⁷. Hitz asko –edo hobeki esan, hitzen

⁵ Ikus, LEZAMA-LEGUIZAMON-en eranskina Ruiz de Larrínaga-ren monografian, 79-80. or.

⁶ Ikus, RUIZ DE LARRINAGA-ren monografia, 20. or.

⁷ Ikus, AZKUEren-ren hiztegiaren hitzaurrea, XIV. or.

adiera asko— datoz Azkueren hiztegian laburdura honen azpian. Gaur hiztegi hori Gipuzkoako Diputazioaren Urkixo liburutegian dago (argitaragabe, noski). Hartzen duzu, esate baterako, Azkueren hiztegian, *enda* hitza. Lehenik dakarren esanahia hauxe da: «casta, raza», eta bigarrena «(B, ms.t) hebra». Honelako aipamenik askotan egiten da Azkueren hiztegi honetan.

H.V.B. (Hermano Valentín de Berriotxoa-k) artikuluko koxkor bat du *Boletín de Amigos del País*-en eta berak ere hiztegi hau Zabalarena dela uste du⁸. Eta aburu berekoa da baita Koldo Mitxelena ere: «Más sobre el manuscrito de Ochandiano»⁹.

Azkue jaunak, 1918.urtean, Oñatin, Eusko Ikaskuntzaren lehen biltzarrean, euskal fonetikaz egindako hitzaldian, hara zer dioen: «Los autores que más fenómenos fonéticos de esta naturaleza han mostrado en sus escritos son los vizcaínos; tales como los presbíteros Micoleta y Moguel (el mayor) y en especial los religiosos franciscanos Añibarro y Zabala, castizos, de lenguaje fluido y seguramente por su estilo, los más recomendables de cuantos han cultivado este viejo dialecto»¹⁰.

Aita Zabalaren obrarik ezagunena honako hau da noski: *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno*, San Sebastián 1848, Imprenta Baroja; 110 orrialde. Ikusten denez, egilea hil ondoren ateratzen; baina hil zenerako, argitara ahal izateko Ordenaren baimenak eskuratuak zituen.

Azkuek txitean-pitean aipatzen du liburu hau *Morfología Vasca-n* (Ikus obra honen «Índice de autoridades»).

Eguzkitza-tar Jon euskaltzainak artikuluko koxkor bat du *Euskera* agerkarian: «Zabalak idatzitako adispiakera batzuetaz zerbait», *Euskera* III (1922), II. zenbakia (1922), 30-35. or. Euskal aditzaren flexio batzuez ari da, eta bereziki *zu*, berez antzina plural zenak, singular bihurtzetik sortu diren istiluez¹¹.

Esan dugun bezala, Azkue bere *Morfología Vasca* liburuan, aditzari buruz hitzegitean, maiz ari da gure Aita Zabala eta beronen liburuak aipatzen. Batez ere aipatzen ditu Zabalak aditzari buruz daukan liburua eta bai beronen alegiak edo fabulak ere, Azkue be-

⁸ H.V.B. «El manuscrito de Ochandiano, de la Biblioteca Julio de Urquijo», *Boletín de Amigos del País*, San Sebastián 1962, 80-82. or.

⁹ MITXELENA, Koldo, Ikus *BAP* 1962, 82-83. or.

¹⁰ AZKUE, Resurrección M^a de, *Fonética Vasca* en Primer Congreso de Estudios Vascos, Bilbao 1919, 478. or.

¹¹ Beste lan bat ere badu Eguzkitzak Aita Zabalarari buruz, hots: «Zabala Aita ta euskereazko bere lanak», *Lenengo Euskalegunetako itzaldiak*, Bilbon 1920, 13-30. or.

rak Parisko Biblioteka Nazionalan, 1904.urtean, aurkitu zituenak¹².

Zabalaren alegiak aipatu ditugu. Zabalak berak esaten digu gai-xorik zegoen aldi batean, beste ezer egiterik ez izaki eta, alegiok idatzi zituela. Alegi edo fabula hauek *RIEV*-en argitaratu ziren lehenik¹³. Eta geroztik liburu bezala ere azaldu dira behin eta berriz¹⁴.

Euskal bibliografia labur bat ere utzi zuen Aita Zabalak egile-izenik gabe, eta halaxe, izenik gabe, argitaratu zuen Bonaparte Printzeak Donostian 1856. urtean: *Noticia de las obras vascongadas que han salido a luz después de las que cuenta el P. Larramendi*, San Sebastián, imprenta Baroja, 1856 (10 orrialde)¹⁵.

Euskaltzaindiko *Euskera* agerkarian, berriz, 1922.urtean, gure Zabalaren beste lan bat argitaratzen da, hots, «103 Conjugaciones del presente perfecto de Indicativo en el dialecto vizcaíno ó Muestra de los 206 presentes de Indicativo que da al vascuence D. Pablo Pedro de Astarloa, escrita por Fr. J.M. de Zavala para Mr. Fl. Lécluse, catedrático de Literatura griega, Secretario de la Facultad de Letras, Caballero de la Legión de honor. En Zarauz, en 17 de Febrero de 1829 años»¹⁶.

¹² Azkuek bere hiztegiaren hitzaurrean dioenez, Antoine d'Abbadie-ren erregalu gisa joan ziren alegiok Pariseko liburutegi horretara. Ikus hiztegiaren hitzaurrea, XIV. or.

¹³ Ikus *RIEV* I, 90-98, 529-543; III. 27-40. or.

¹⁴ Klasikoak sortan agertu ziren Anjel Zelaietaren ardurapean, Labayru Ikastegia, Bilbo; inprimatzailea Itxaropena, Zarautz. Ez du urterik jartzen. Sorta berriari sarrera emanez Koldo Mitxelenaen hitzaurre luze bat dakar 9-19. orrialdeetan. Mitxelena sarrera honetan ez du Zabalaren aipurik egiten. Anjel Zelaietak, ordea, bai, Ikus 21-28. or. Alegion jatorriaz eta iturriez mintzo da Zelaieta orrialde hauetan. Alegion iturriez denaz bezanbatean, Juan Antonio Mogel aipatzen du Zelaietak (ikus 23. or.). Ikus baita ere KORTAZAR, Jon, «¿Fábulas inéditas de Juan Antonio Moguel?» *FLV* 1980, 253-277. or. Ikus, baita ere, «Zabala-tar Matai», *Eusko Alegiak, Euskaltzaleak*, Donostia, 1934.

¹⁵ Aita Larramendik bere garaian eman zigan euskal liburuen zerrenda osatu edo gaurkotu nahirik, geroztik eta bere egunera arte irteandakoen berri ematen digu hemen Aita Zabalak; baina, jakina, bera hil ondoren, 1856 urtean, alegia, agertu zen lan hau Bonaparte Printzeari esker. *Noticia* delako honetan Aita Zabalak esaten digu berak ez duela liburuen kritikarik egingo, liburuok kritika ona merezi dutenean baizik. Orain, bada, *Devociozco vicitzaraco sarrera*, San Francisco Salesek aterea eta Aita Frai José Cruz Echeverria-k euskeratua 1821. urtean agertu zen Tolosan.

Aita José Cruz Etxeberria hau Zarauzko mixiolaria zen; Aita Zabala bizi zen komentu berekoa, beraz. Eta Zabalaren katalogo honetan Jose Cruz Etxeberriaren liburu hau etorri badator, baina ez dio bat ere kritikarik egiten, eta berak egin digun abisuaren arabera, bada-kigu horrek zer esan nahi duen: Zabalaren ustez liburu honek ez duela kritika onik merezi, erderakada gehiegi sartzen dituelako etab., seguraski. Aita Añibarroren liburuei, berriz, laudoriozko kritika egiten die. Baina Aita Etxeberriak bazekien Zabalaren iritzi-aburuen berri eta, agian, aldezurretik erantzunez bezala, hitzaurrean hauxe esaten dio irakurleari: «Uti bada aurqueriai. Eta beguiratu sustanciari». *Iracurtzalliari advertencia labur*; 6. or. Tolosan, Don Francisco de la Lama-ren echean, 1821.urtean.

Hitzen kontu horiek haurkeriak ziren Etxeberriarentzat; Zabalarentzat, berriz, ez.

¹⁶ *Euskera* (1922), 36-64. or.

Tituluan bertan esaten denez, lan hau Lécluse-rentzat prestatu zuen Aita Zabalak.

Aita Zabalaren beste idazki bat orain arte Zarauzko komentuko artxiboan sekula argitaratu gabe dagoena, honako hau da: *Correciones a la obra Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac, ceinzubetan azalduten dan Erromaco Catecismua...* Lenengo liburua; Bilbon, Eusebio Larumbe, 1816. Bigarren liburua, Bilbon baita ere, handik bi urtetara irten zen¹⁷.

Aita Astarloa hau frantziskotarra zen eta Kantabria Probintziako frantziskotarren Probintziala izatera heldu zen. Abizen bereko euskal apologistaren anaia, gainera. Aita Zabalak haren liburuari egiten dizkion zuzenketak purismo aldetik eginak dira batez ere, eta neurri batean aditzaren erabileragatik ere bai.

4. Aita Zabalaren eskutitzak

Eta honenbestez pasa gaitezen beste sail edo arlo batera, hots, eskutitzen sailera, prediku eta mixioen saila azkenerako uzten dugula. Aita Zabalaren eskutitzak –guk ezagutzen ditugunak, noski– honela sailkatuko ditugu:

- a) Familia artekoei egin zizkienak;
- b) Fl. Lécluse-rekin Zabalak izan zituen har-emanak;
- c) Mendizabal Tolosako inprimatzaileari egin ziona;
- d) José Paulo de Ulíbarri y Galídez-i egindakoa.

a) Familia artekoein izan zituen har-emanak Luis de Lezama-Leguizamón jaunari eskerrak ezagutzen ditugu. Jaun honek bazuen ahaidego edo senidetasun hurbila Aita Zabalaren familiaz, eta hala, berri asko jakin izan ditugu beragandik. Aita Ruiz de Larrínagak, eranskin gisa sartu ditu eskutitz horiek Aita Zabalari eskaini zion monografian. Eskutitzok erderaz daude denak, bai etxekoenak eta bai Aita Zabalarenak, baina honek hor-hemen sartzen ditu euskal esaerak eta bai esaldiak ere. Gu ipi-apa guztietara ez gara hedatuko, noski. Pixka bat gainera eta gaingiroki ukituko dugu gaia.

Bere aitari –Juan de Zavala– idazten dio Zarauztik urriko 28an, 1827. urtean, eta esaten dio exklausurazio-zurrumurruak entzuten direla. Eta gaineratzen du: “Espero dut Jainkoak sekularizaziotik gordeko nauela, eta gaur dela 34 urte hartu nuen bizibidean hilko naizela”.

¹⁷ Ikus VINSON, *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*, nº 183. Liburu hau Aita Pedro Astarloarena da, noski.

Bere arrebari idazten dio Zarauztik 1822ko abenduaren 8an, komentuko Bikario izendatu dutela jakinaraziz.

Eta arreba honi beroni, 1822ko azaroaren 7an, exkluaztioa etorriko ote den beldur eta zurrumuruak agertzen dizkio, eta bera, bere anaia fraideak doazen bide beretik joango dela jakinarazten dio. “Jainkoak daki –esaten du– zer komeni zaigun”. Esaten dio, baita ere, Arantzazuko komentuarien zati bati su eman diotela Konstituzioaren aldekoek eta fraideek Oñatiko Bidaurretara jaitsi beharra izan dutela.

Abenduaren 8an berriz ere idazten dio arreba honi Aita Emaldia-
ren eskutitz bat bidaliz. Eta hauxe gaineratzen du: “Aita hau Foruko komentua kendu zenean, Arantzazuko komentura bidali zuten, baina hango fraideak Bidaurretan daude eta han lekurik ez izanez, honera etorri da –Zarautzera, noski–”.

Abenduaren 16an idazten dio berriz ere: “erabakia dago jadanik 450 auzotar ez dituzten herrietako komentuak kentzea. Gure herri honek –Zarautzek– ez ditu horrenbeste. Ez dut ahaztuko zuk zeureetan ematen didazun aholkua: Jainkoak, alegia, gure onerako zuzentzen dituela gertaera guztiak”. Dena den, azkenean bukatzen du: “Jainkoak eman diezaizkigula Gabon asko, aurtengoak baino zoriontsuagoak”.

1826ko abuztuaren 24ean idazten dio aitari Guardian izendatu dutela esanez. Eta izan ere, berehala hasten da hobekuntza-obra egiten, bai elizan eta bai komentuan ere. Santuen imajinak Bilbotik ekararazi zituen.

Hunkigarriak dira, baita ere, ama hil zitzaionean idatzi zituen lerroak (1826an).

Bergarako besarkadaren ondoren (1839an) berriz idazten dio aitari, gerragatik ez baitzuen idazterik izan. Bigarren aldiz Guardian izendatu dutela jakinarazten dio. Baita ere, Getaritik Gobernadorea etorri zaiela zera esatera: “Beldurrik ez izateko”, alegia.

1840an esaten du Getarira preso bezala eramana izan dela, Zarauzko herria zergak ordaintzeke dagoelako.

1831ko otsailaren 17ko eskutitz batean Juan Manuel Sagarminagak zera idazten dio: “entzuna duela bera –Aita Zabala, alegia– hiztegi baten egile dela”. Aita Zabalak erantzuten dio “berak ez duela hiztegi egin; aditz-jokatzeaz, ordea, bai, baduela eginik, edo ia bukatu, lan bat”. Lan hau 1840. urtean bukatu zuen. Eta hain zuzen, urte horretan hil zen Aita Zabala.

* * *

b) Fl. Lécluse-rekin Zabalak izan zituen harremanak.

1. Léclusek Aita Zabalari (1830, urriak 5). “Euskal aditza buruhauskarri bat dela”, esaten dio, eta laguntza-eske Aita honengana jo-

tzen du. Oraingoz indikatiboko presente eta perfektoa soilik eskatzen dio. Eskatzen dio, bada aipatutako denboren formak idazkiz bidaltzeko. Biata ere eskatzen dio seme galduaren parabola hiru dialektotan (B, G eta L, alegia). Inglesek nahi omen dituzte.– Gero eskutitz berean Larramendiri buruz ari da. Larramendik bere hiztegian ez du jartzen –eta behar zuen jarri– zein aditzek galdegiten duten *naiz*, eta zeinek *dut*. Ezta ere ez du jartzen hitzen bukaerako *a* noiz den artikulua eta noiz hitzaren beraren zatia. *Dut* laguntzailea aditz iragankorretan soilki jartzen dela eta eraman dezakeela osagarri bat zuzena eta beste bat zeharkakoa, etab.

2. Aita Zabalak Lécluse-ri (1830, abenduak 5). Labur bilduz, esaten dio eskatzen duena –aditzari buruz– ez dela lan makala, baina halere, berari atsegina ematearren, saiaturiko dela eskabideari erantzuten. Eskerrak ematen dizkio *Plauto Poligloto*-ren bi ale erregalatu dizkiolako, etab.

3. Lécluse-k Aita Zabalari (1830, abenduak 12). Berriz ere argi eske Aita Zabalarengana jotzen du. Aditzari buruz, etab. duda-muda batzuk agertzen dizkio. Leizarragaren aditzaz ere mintzo da.

4. Lécluse-k Aita Zabalari (1831, irailak 17). Bere atrebentziagatik barkazioa eskatuz, Lécluse-k bidaltzen dio –ez eskutitz honetan, honekin batera baizik– Mendiko hitzaldiaren itzulpena, oker daudenak zuzentzeko eskatuz. Euskal aditzaren adizkiak ere eskatzen dizkio. Euskal ortografiari buruz berak dituen ikuspuntuak ere bidaltzen dizkiola jakin arazten dio. Egiten dituen hutsak zuzentzeko etab. eskatzen dio.

Ikusten denez, Lécluse irakasleak estimu handitan zituen Aita Zabalak egiten zizkion aholkuak, zuzenketak, etab. euskerari buruzko gauzetan.

* * *

c) Mendizabal Tolosako inprimatzaileari egindakoak.

Mendizabal hau Tolosako Lopez Mendizabal euskal editore famatuaren arbasoa da, noski. Harremanetan zegoen Lécluse-Zabalarekin –eskutitzetatik ikusten denez–, Frantzialdeko editore eta abarrek. Bitartekotzat hartzen dute, alegia, Mendizabal hau, bai Zabalak eta bai Léclusek, liburuak, etab. elkarri bidaltzeko.

Léclusek Mendizabali egindako bi eskutitz datoz Ruiz de Larrínagak dakarren eraskinean, eta horiek zer ikusi dute Aita Zabalarekin, noski, baina zuzenean Mendizabalek Aita Zabalari edo honek hari egindakorik ez dakar.

d) Aita Zabalak Ulibarri Galindez-i egion zion eskutitza.

José Paulo de Ulibarri eta Galíndez (1775-1847), arabarra zen, Okondon (Oquendon) jaioa eta Abandon, «Bilbo Uriyaren alboan», perratzaile bezala lan egiten zuena. Euskaltzale sutsua zen. Euskal gauzetan nabarmentzen zirenei eskutitzak zuzentzen zizkien; eta bai idazten eta bai hartzen zituenak ere, berak *Gutunliburua* deitzen zuen liburuan kopiatzen zituen. Gaur *Gutunliburua* Donostiako Diputazioan dago, Urkixo liburutegian. *Gutunliburu* honen faksimil gisako argitalpena egin zuen Arabako Diputazioak Ulibarri Galíndez-en bigarren mendeburua ospatzean¹⁸.

Hemen dator, bada, Ulibarrik Aita Zabalari egindako eskutitza eta bai honek hari erantzunez egin ziona ere. Bai bata eta bai bestea ere euskaraz daude. Ulibarrik¹⁹ eskatzen dio, bada, Aita Zabalari Bizkaiko Forua euskaraz jar dezan; eta hori guti balitz, euskal gramatika bat eta bi hiztegi idatz ditzan. Aita Zabalak haxe erantzuten dio:

«¿Cer: burua galanto ausi liburuac eguin ecinic, urtu orreec arguitara ateraceco, or, ogueta amar, edo berroguet milla errial, ta guero saguac, cedenac, ta autsac yateco; edo dendeetan euracaz tabacoa edo piperra salduteco? Ezcagoz orren zoroac! eztakit nic cetaraco naucan langoicoak; baya orain beintzat eztarabilt alango amesic²⁰».

5. Aita Zabalaren mixioetako sermoiak

Zerbait bitxia da Aita Zabalaren sermoi liburuekin gertatu dena. Zarauzko frantsizkotarren komentuko artxiboan Aita Zabalaren hainbat gauza direlarik, haren mixio-sermoiei buruz ez da fitsik.

Aita Ruiz de Larrínagak 1927. urtean argitaratutako bere monografian aitortzen du berak ez duela ikusi Aita Zabalaren sermoirik, ez Zarauzko artxiboan eta ez hango bibliotekan ere²¹.

Egia da, bestalde, Aita Larrínagak berak dakarrela Anaia Miguel Antón de Altunak Aita Zabalari buruz etxeko kronikan idatzi zuen berri laburra. Eta bertan, beste gauzen artean, haxe dio: «Compuso muchos sermones».

¹⁸ Reproducción facsímil del *Gutunliburua* de José Paulo de Ulibarri y Galíndez, 1975.

¹⁹ Ulibarri y Galíndez, 1975.

²⁰ Ulibarri Galíndez-i buruz ikus «Disertación del P. Aquesolo sobre la figura de Ulibarri», *Euskera* (1971), 35-48. or. Ikus baita ere Okondon egin zitzaion omenaldian irakurri zirenak, hots, Lino AKESOLO: «José Paulo de Ulibarri Galindez (1775-1847). Actualidad de su obra»; M.B. ALTZOLA GEREDIAGA: «Ulibarriren idazti-lanen ganean hitz batzuk»; E. KNÖRR: «Ulibari eta Okondo»; Federiko BARRENENGOA: «El euskera de la tierra de Ayala». Ikus denak *Euskera* (1976), 167. eta hurrengo orrialdeetan.

²¹ RUIZ DE LARRINAGA, op. cit., 40. or.

Berri labur hau, ordea, ez da Aita Zabala hil zenean idatzia, urte asko geroago idatzia baizik. Edozein modutan ere, Zabalaren sermoi idatziei buruz zerbait zekien hark.

Sermoi idatzi hauekin gertatu dena ulertzeko, kontuan eduki behar dira, nik uste, urte haietako gertaerak. Aita Zabala hil zen urte berean exklausrazioa gertatzen da Gipuzkoan (beste probintzietan lehenago gertatua zen).

Fraide exklausratu haiek, ordea, apaiz bezala bizi zitezkeen. Eta batek baino gehiagok, bere apaiz-lanetarako mesedegarri izango zituelakoan, hartu eta berakin eramango zituen sermoiok. (Hala uste dugu).

Horrela sakabanatu ziren Aita Zabalaren sermoiak. Urte askoren buruan, ordea, –gure mendean, alegia–, Aita Zabalaren hiru sermoi-liburu eskuz idatziak hor-hemen azaldu dira: bat Bermeoko frantziskotarren komentuan, beste bat Irungo pasionistetan, eta bestea non eta Jerusalemen (hango San Salvador izeneko komentuan).

Jerusalemgoa, Aita Solagurennek uste du Aita Gerekak (1846-1912) eramango zuela, eta gero, handik itzuli zenean, oharkabez edo, han utzi²².

Irungo pasionistetan zegoena Lemoako apaiz batek Mezaberriko erregalu bezala eman omen zion pasionista bati²³.

Liburu horietatik zaharrena Bermeokoa da, eta data hau dakar: 1816. Irungoa, berriz, 1822-33 alderakoa. Jerusalemgoak ez du data-rik, geroagokoa, itxuren arabera²⁴.

Hau guztiau esplikatzeko, gure ustez, kontuan eduki behar da zer gertatu zen Aita Zabalaren heriotza inguruan: fraideen exklausrazioa Gipuzkoan. Espainiako beste lekuetan lehenago gertatu zen; Gipuzkoan pixka bat atzeratu zen, baina azkenean hona ere heldu zen.

Fraide exklausratu horiek apaiz bezala bizi zitezkeen, ordea, eta liburu horiek beren predikuetarako mesede egingo zietela pentsatuz, hartu eta berekin eraman zituzten. Horrela sakabanatu ziren eta gero inork ere ez zekien non zeuden; baina azkenean, liburu horiek zeuzkatenak hil zirenean edo, pixkaka hor-hemen azaldu dira. Hori gure mendean gertatu da.

Zein da, ordea, liburu hauen edukia?

²² Aita Solagurennek eskutitz batean Villasanteri adierazia.

²³ Ikus L. VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*, bigarren agerraldia, 1979, 43. orrialdeko nota batean.

²⁴ Hiru liburu horietaz gainera, badira Arantzazuko bibliotekan Aita Zabalaren sermoi solteak.

Mixioetan, eta bereziki Garizuman, predikatzen ziren gaiak. Adibidez, azken egiak: Heriotza, Judizioa, Infernua, Zerua, Purgatorioko arimen sermoia, Penitentzia, Erospena, Grazia, Arimaren balioa, Jainkoaren errukia, Garizumako domekatarako sermoiak, Misiorako sarbidea, Aitortza, Jainkoaren Aginduak, zer egin behar den onean irauteko, hots, hartutako gogo onean irauteko. Garizumako domeka arratsaldeetarako sermoien gaiak: Bekatua, Heriotza, Judizioa, Infernua, Zeruko gloria, Bekatu-bideak, Birrerioriak, Arimaren balioa; Jaungoikoaren grazia, Purgatorioko arimen sermoia, Barikuguren arratsalderakoa, etab.

Fedearen gordailuko egiak aldatu ezinak dira, noski; beti bat dirautenak dira, alegia. Baina mende eta tokien arabera lehentasuna ematen zaio bati besteari baino areago; misterioaren alderdi bat sakon daiteke bestea baino areago, etab. Horrekin zer ikusi handia du, baita ere, fededunaren adinak, kulturak, etab.

Gure mixiolariak bazekien, noski, zer gizaki-mota zuen entzule, eta hauen adin eta irizpide eta premietara egokitutako sermoiak egiten zituen. Beraz, euskaldun xaloak, fededun bai, baina askotan pixka bat nagi eta ezjakin zirenak, horietxek nahi ditu argitu, bizkortu eta kristautasunean sendotu.

Batzuetan badaki deskribapen oso biziak egiten, mozkorkeriaz mintzo denean, esate baterako.

Baina Aita Zabalarengan adimen edo buruak agintzen du. Entzuleei dotrina zuzena nahi die irakatsi; egiak, alegia, argi dezala gizonaren bizia. Ez da saihebidetan galtzen, xedera doa zuzen.

Joan mendeko hasieran Bizkaia nolakoa zen jakiteko, batez ere herri txikietan, ez dira ispilu txarra Aita Zabalaren sermoiak. Berak maite du herri hau, baina ez dago itsuturik akatsak ez ikusteko, eta nahi dio lagundu eta bide zuzenera ekarri.

Sermoion dataz, eta beste

Aita Zabalaren beraren iskribuetan agertzen da sermoi batzuen data: 1816, 1822, 1825, 1833, etab. Beste sermoi askotan ez da datarik ageri; baina inguru horretan eginak dira guztiak. Denbora nahasiak ziren politika eta ideologia berrien eraginagatik; Aita Zabalak, ordea, ez dugu uste politika egoeraz fitsik esaten duenik. Betiko kristau dotrina eta moralaz azaltzera mugatzen da.

Aita Zabalaren mixio-sermoiak argitaratzea, hori da, bada, gure xede eta helburua. Merezi dutela uste baitugu. Euskal gordailua ez da ugariegia, eta izkribu hauek, lehen ere galdu-gordean egon direnak, berriz ere —eta agian betiko— gal ez daitezen, nahi ditugu argitara eman eta euskal irakurlearen eskuetan jarri. Beroien barne-

-ikerketa egitea, etab., irakurlearen esku uzten dugula, halere. Gure zeregina, beraz, hauxe da: izkribu hauek argitara eman eta irakurlearen eskuetan jartzea.

6. Aita Zabaleren euskara

Aita Zabala bizi zen garaian euskal baratza ez zen guztiz antzua. Baziren, alegia, gramatikalari, apologista eta idazle batzuk; eta esan beharrik ez dago. Zabalak liburu horiek irakurtzen zituen eta beroriei buruz bere iritzia propioa moldatua zuen. Zabala bera dugu bizkaieraren aditza lehen aldiz osorik bere adizki eta aldi guztiekin eman ziguna, eta, bestalde, Larramendiren ondoren atera ziren euskal liburuen zerrenda osatu zuen, bi liburuok –aditzarena eta euskal bibliografiarena– bera hil ondoren agertu baziren ere.

Garai hartan euskara batuko bidearen ametsik ez zuen inork egin eta praktikan euskal idazleak bere inguruko euskera-modua segitzen zuen, hots, euskalkia. Hala egingo du Aita Zabalak ere. Bizkaiko euskalkia erabiliko du bere sermoietan eta euskalki hori mintzo den tokietan soilki egingo ditu bere sermoiak. Baina muga hau denek, dirudienez, ez zuten gordetzen. Aita Añibarrok, esate baterako, ez zuen eragozpenik izaten mintzoz bizkaitar ez ziren herrietan ere mixioak emateko; Zabalak, aldiz, bai, dirudienez.

Bizkaiera zen, bada, berak arretaz ikasia eta menderatua zuen euskalkia, eta berau hartu zuen lanabes-gisa bere mixio-sermoietarako. Eta hainbestearino da hori egia, non, mixioak emateko Bizkaia eta Araba aldean euskaldun ziren herriak soilki hartu zituen mixioak emateko eremu bezala.

Nondik hartua eta ikasia zuen Zabalak bere euskara? Mintzaira bititik aurrena –etxetik, kaletik–, eta liburuetatik gero. Familia elebidun batean jaio eta hazia zen. Aurki konturatu zen apaizak Elizan bete behar dituen zereginak betetzeko, behar zuela euskara errotikan ikasi, eta horretarako, eskumenean zeuzkan liburuak erabili zituen.

Bizkaieraz zein liburu zeuden orduan argitaratuak? Frai Bartolomé Santa Teresa karmeldarrarenak²⁵ eta Fr. Pedro Astarloa frantziskotarrarena²⁶. Astarloa hau beste Astarloa apologistaren anaia zen,

²⁵ Frai Bartolomé Santa Teresaren obrak: *Euscal Errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizko gatz-ozpinduba*, Pamplona, 1816; *Jaungoicuaren Amar aguindubeetaco lelengo bos-ten icasiquizunac*, Pamplona, 1816 (Hiru tomo dira).

²⁶ Aita Astarloaren obra: *Urteco Domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac, ceinzu betan azalduten dan Erromaco Catecismua*. Bilbao, 1816-1818 (Bi liburu dira).

frantziskotar fraidea eta Kantabria Probintziako Probintziala ere izan zena.

Hauek baino lehenagokoak ditugu Juan Antonio Mogel-en²⁷ eta haren iloba Juan Joserren²⁸ liburuak ere.

Beraz, bizkaiera literarioaren guraso edo aitaponteko bezala aipa ditzakegu –lehenagoko batzuk aipatu gabe²⁹– honako autore hauek: Mogeldarrak, Añibarro, Aita Prai Bartolome karmeldarra, Astarloa frantziskotarra eta bai gure Zabala bera ere, baina honen idazkiek ez dute gaur arte argia ikusi.

Aita Zabalaren sermoien egiturari begiratuz, trinko eta arduraz tajutuak daudela esan behar, bai hizkuntza aldetik eta bai mamiaren aldetik ere. Euskalkia zen orduan idazlearen bidea. Iparraldean lapurtera; Hegoaldean, berriz, gipuzkera eta geroago bizkaiera ere bai, esan dugunetik, agiri denez.

Gure egunotan zabaldu da *euskara batua*, idatzizko arrunta bezala erabiltzeko, euskalkien gaineratik (hauek erabat baztertu gabe); baina problematika hau berria da, eta Aita Zabalak ez zuen batere ezagutu.

Euskal apologistek euskera goratzeko erabiltzen zituzten ahoberoakeriak gure Zabalak ez zituen gehiegi maite. Ikus, adibidez, Lécluse-ri egiten dion karta baten zatitxo hau: «no he visto la obra del Abad de Iharce y no puedo asegurar he podido hacerme cargo de sus aciertos o desaciertos, pero su prospecto, que le tengo, no me satisfizo, y me pareció que podríamos tener en él no un segundo Astarloa, sino un nuevo Sorreguieta, falta de lo que en los talentos del hombre llamamos juicio (y es aquel peso con que damos a cada razón su propio mérito) o peso con que graduamos el mérito de las razones y damos a cada una su propio lugar»³⁰.

²⁷ Juan Antonio MOGEL, *Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac*. Pamplona, 1800 (Gipuzkeraz); *Confesino ona*. Vitorijan, 1803 (Bizkaieraz); *El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua vascongada en la Universidad de Basarte o Diálogo entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan*. Durango, 1881.

²⁸ Juan José MOGEL, *Baserritar nequezaleentzaco escolia*, Bilbao, 1816. *Egunoroc lan on ta erregubac meza santuba ondo enzuteco, confesino eta comunioya biar dan leguez eguiteco prestaera eta zuzenbidiak*. Bilbao, 1820.

²⁹ MICOLETA, Rafael, *Modo breve de aprender la lengua vizcaína*. (Micoleta XVII. mendekoa da, baina haren liburua 1880ra arte ez zen argitaratu eta orduan ere Bartzelonako errebista batean. Bizkaiera da berak irakasten duen euskara).

³⁰ Ikus RUIZ DE LARRINAGA, opr. cit., 67. or.

Hitz batean esanik, Aita Zabalak mixioak emateko bizkaiera erabiltzen zuen beti. Hauxe zuen sustraitik ikasia eta menderatua, eta hain urrun eramane zuen hori, non beste euskalkirik erabiltzen zen lekuetan ez baitzuen mixiorik ematen. Egia da euskalkien mapa egin gabe zegoela orduan. Hau lehenbiziko aldiz L.L. Bonaparte Printzeak egin zuen gure Zabala hil eta gero, baina zer euskara –modu egiten zen toki batean eta bestean handizka bederen, bazekiten gure mixiolariak, eta guk dakigunez –Aita Añibarrok ez bezala–, gure Juan Mateok Bizkaiko herrietan eta euskaraz egiten zen Arabako batzuetan soilki ematen zituen mixioak.

Bestalde, badakigu J.A. Mogelek adiskidetasun mina izan zuela Zarauzko kolejio edo komentuko fraide mixiolari batzuekin³¹ eta Zarauzko komentuan egon zela gorderik Mogelen *Peru Abarca* harik eta 1881. urtean argitaratu zen arte³².

El verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno bere liburuari ipini zion bibliografian 30etik gora liburu aipatzen ditu, bai Hegoaldeko eta bai Iparraldekoak ere³³. Ongi jantzia genuen, bada, Aita Zabala euskal gazetan.

Guk orain lehen aldiz argitaratzen ditugun mixio-sermoiak idazki gotorrak dira, ongi taxutuak eta egituratuak, bai azalez eta bai mamiz. Ezpairik gabe, euskararen lekukoen artean egotea merezi dutela iruditzen zaigu.

Euskalkian daudela eta ez euskara batuan? Bai, hala da, eta ezin izan zitekeen bestela. Eta euskara batuari deus kendu gabe, euskalkiak ere hor daude eta berauentzat gero ere leku bat izango dela uste dugu. Euskararen iturri eta lekuko diren idazkiak behar ditugu berreskuratu, bildu eta ezagutzera eman. Hizkuntza batek behar du bere gordailua zaindu.

Labur, Aita Juan Mateo Zabalaren sermoi hauek mamiz eta azalez ongi landuak diren idazkiak ditugu, eta bestalde, –gizonen lanekin beti gertatzen den bezala– beren garaiko eta tokiko seinale eta zantzuak dituztela, aitortu behar.

³¹ Ikus L. VILLASANTE, «El Padre Palacios (1727-1804). Estampa de un gran Misionero de nuestro siglo XVIII», *Scriptorium Victoriense*, 1961, 7-101. or.

³² Nola eta noren bidez joan zen Zarautzera *Peru Abarca*? Ikus Luis VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*, 2ª ed., 1979.

³³ Ikus RUIZ DE LARRINAGA, op. cit., 22-23. or.

7. Gure argitalpena

Gure asmoa da, bada, egilearen testua ahalik eta zehatzen ematea, baita ortografia bera ere errespetatuz.

Eskerrak eman beharrea gara Bizkaiko Diputazio eta beronetan Kultura Sailburu zen Tomas Uribeetxebarria jaun agurgarriari eta, egun den, Ana Madariaga Kultura diputaduari. Bestalde, baita ere, lan hau aurrera eramaten, modu batera edo bestera, lagundu diguten guztiei ere. Eta, bereziki, Luis Arozena, Joan Barrena eta Aita Zabalaren bizitzako zehetasun batzuk jakinarazi dizkigun Aita Zelestino Solaguren-i.

ARGITALPENARI ZENBAIT OHAR

1. Aita Juan Mateo Zabalak hiru sermoi liburu idatzi zituen: Bermeokoa (B), Jerusalemgoa (J) eta Irungoa (liburu bakoitza nondik datorren adierazten digu era horretara). Aita Zabala Zarauzko komentuan Guardian eta Bikario bezala bizi izan zen bitartean, bere lehengo sermoiak eraberritu eta oso txukun idatzi zituen berriro. Sermoi hauexek jasotzen dira Irungo liburuan. Beste bi liburuetan, berriz, sermoiak beren lehen edo bigarren idazkeran azaltzen dira, orrialde ertzetan ohar ugari dituztela. Arantzazuko (A) artxiboan badira Zabalaren beste sermoi batzuk ere.

2. Orrialdeen ertzetako oharrak testu barruan sartzten dira argitalpen honetan, bakoitza bere lekuan eta parentesi artean. Zenbait alditan, zalantzak izan dira ohar horiek non ezarri.

3. Zabalaren sermoietan hitz asko agertzen dira azpian puntu-
txoak dituztela. Era horretan esanahi berdineko hitz desberdinak ematen ditu edo erabil daitezkeen gramatikazko beste era batzuk: «intenciño» (edo «asmu»), «bailitzan legue-che» (edo «balitz leguez») ... Argitalpen honetan ez dira, noski, jasotzen puntutxoaren zehaztasun horiek, orrialde ertzetan beroriei dagozkien oharrak ez badoz behintzat.

4. Lehenengo bi liburuetako puntuaketa nahiko nahasia da eta ez beti era berdinekoa. Argitalpen honetan, irakurketa errazteko, zenbait zeinu sartzten dira behar-beharrezko edo komenigarri direla uste den tokietan, komak, normalean. Beste zenbait aldiz, gaurko erara egokitzen da puntuaketa, esate baterako, bi puntuak eta puntu eta koma erabiltzerakoan.

5. Noizean behin, hitz batzuk, ohartu gabe, seguru asko, gaizki idatzita daude, Zabalaren beste sermoietatik ikus daitezkeenez. Horiek zuzen jarri dira, berak ohi duen bezala. Beste zenbait hitz, nahiz eta Zabalak oso letra ona eduki, ez dira errazak irakurtzeko; kasu horietan, gure ustez egokien datorren irakurketa eman dugu. Guk geure aldetik zerbait osatuz eransten dugunean, kortxete artean ipintzen dugu.

6. Latinezko aipamenetan, lehen idazkeraren ondorioz nonbait, akats batzuk irakur daitezke. Behar den erara jartzen dira huts horiek.

7. Aita Zabalaren Bermeoko eta Jerusalemgo sermoiak zenbait sailetan ordenatuta ematen dira hemen, sermolariak berak egiten duen eran, gehienbat: Jainkoaren eta Graziaren saila, Jesusen Nekaldiarena, Garizumako sermoiak, Bekatuaren saila, Azken Egiena, Aitortzaren eta Jainkoaren Aginduena, beste eratako zenbait sermoi...

8. Aipatutako hiru liburuotan gai berdintsuak lantzen ditu aita Zabalak, misioetan eta Garizuman erabili ohi zirenak, gehienetan. Hala ere, idazkera nahiko desberdinean datozenez gero, probetxuzkoa iruditu zaigu Bermeoko eta Jerusalemgo sermoi guztiak argitaratzea. Semoi hauen artean ez dago Andra Mariarenik, ez Santuenik. Beste nonbait ote daude?

9. Sermoi bakoitzaren hasieran, zein liburutatik jaso den zehazten da, eta liburu horretan dituen orrialdeak ere bai. Jerusalemgo liburuko orrialde zenbakiak guk geuk Arantzazun jarriak dira. Batzuetan aita Zabalak berak ematen ditu aurkibidean sermoiak dituen zatiak.

10. Zenbait sermoitan parentesi zeinuak ageri dira, atal batzuk kanpora utz daitezkeela adierazteko. Parentesi horiek ez dirudite aita Zabalak ipiniak direnik, horregatik hemen ez ditugu jaso.

11. Sarri ikusten dira hitzaldi hauetan hitz laburtuak: Ygcoa edo Jgcoa (bi eratara, beti argi ez badago ere), J.C.º, Cr.c., Cc. (Cristiñauac), Ne. E. Mc. (neure entzula maiteac, pctua (pecatua), ne. (nere, neure)... laburdura horiek beren horretan utzi ditugu, irakurtzea nolabait oztopatzen ez badute behintzat.

1. ATALA

1. CONFESIÑO EDO PENITENCIACO SACRAMENTUAREN GANECO ICAS-BIDE, TA ERACUS-ALDIAC

(B, 89-90. or.)

Berba-aurrecoa edo sartzaiera

1. Bagueunco gure arimeagaz bear dogun ardurea; baguina gueure Jaungoicoaganaco esquer onecoac, beti yagongo gueunque bateo-an artu guenduan gracia, ta ez gueunque euquico bearric gueure arimea garbituteco penitenciaco sacramentuagaz. Baya ezaguturic gure Salbaguilleac etzala (ez yacala) erraz gure argaltasunari irautea Bautismuan arturico gracian, imini gura izan eban bere Elesha Santaan bateo ostean eguinico pecatuac parcatuteco modua. Aushe da, bada, Penitenciaco Sacramentua, cein eztan beste gauzaric ezpabere Jesucristoc bere Eleshan ifinirico Sacramentu bat, parcatuteco bateatu ezquero eguinico pecatuac, nai direala mortalac, nai benialac. Ain da bearra Penitenciaco Sacramentua bautismo osteco pecatu mortalac parcatuteco, cein-da Bautismua pecatu originala quentzeaco; eta alan bateadu ezquero pecatu mortala eguin davenac, gura badau parcatu daquion, confesadu bear da, edo bai guichienez equi bear dau Elesha Ama Santeac aguinduten dabenean confesetaco gogo benetacoa, bada borondate au bagaric eztau acto contricinozcoac parcatuco; edo obeto esateco eztago acto contriciño [sic] benetacoric, bear danean confesetaco propositu, ta gogo bagaric.

2. J.Cº gure Jauna da Sacramentu onen eguille, ipinlle, edo autore, eta leenago ez egoan onango Sacramenturic. Eguia da egoala erremedioa pecatuen contracoa, edo pecatu mortala parcatuteco modua Penitenciaco onaide edo birtutea, esan gura da pecatuen damuaria edo contriciñoa; baya Jaunaren ontasunac eregui gura izan evan damu edo contriciño au Sacramentu izaitera, ezarri, eta erazoric damutasun oneri confesiño, ta absoluciñoa. Iru errazoegaitic eguin gura izan eban au gure Salbaguilleac. Lelengo, obeto ezagutu guenguian, ecin gueurez, edo gueure indarrez urten guinaiala

Demoniñoaren mempetic (escupetic) ez aguindupetic, ezta eldu beré, bere adisquide izaitera; ezpabere au datorcula J C^o.ren pasiño ta merecimentuetatic. Bigarrego, errezago izan lequigui pecaturic urteitea. Sacramentu au imini baño leen pecatu mortala parcatuco bazan, bear zan Contriciñoa. Au eguita etzan ain erraz guizonaren argaltasun edo astuntasunarentzat. Baya, bein Penitenciaco Sacramentua imini ezquero, asco da atriciñoa, eta au errezago izanic Contriciñoa bashen, errezago da beré pecatuen parcaciñoa Sacramentu onen bitartez, anchinaco contriciñoagaz baño. Yrugarrego, ciertuago egon gaitazan parcatu yacuzala pecatuac. Contriciñoa ecin icusi leiteque, ecin enzun leiteque, eta alan ez egoan pecatuac parcatuic egozanen igargarriric: ez evan iñoc esaten, *parcatu yatzuz pecatuac*; baya Penitenciaco Sacramentuan daucagu Confesiñoa, eta beragaz ateraten doguz campora pecatuac, Enzunic gure confesiñoa, dirauscu Confesoreac: *Nic absolbietan zaitudaz ceure pecatuetatic*; esango baleuscuna leguez Jaungoicoac, guizon cadenari esan eutsana: Euguí eguizu uste oso eta confianza andi bat: parcatu yatzuz ceure pecatuac.

3. Yaquiteco cer eguiten daven arimaan Penitenciaco Sacramentuac, edo celangoac direan bere efectoac, leenago yaquin bear dogu cer eguiten deutsan pecatuac, mortala bada, guizonari. Lenengo quenduten deutso gracia, eta beragaitic eucan edertasun miragarria, baita iminten dau esan ecin leiquian baño ezain eta caczago. Bigarrego, quencen deutso eucan Jaungoicoaren semetasuna, eta au-gaitic ceruco ondasunetara eucan escuescunea edo derechoa; eta eguiten dau onen ordez Demonioaren escupeco ta esclabo, condenetan davela orregaitic infernuco su icaragarrietara. Yrugarrego, quenduten deutzaz ordura (artean) guiño eguin dituzan obra, ta eguite on guztien merecimentuac, ain modutan ce, Elesha Santuan dagan Santuric andienac, eguingo baleu pecatu mortal bat bacarric, bertatic galduco leuquez bere merecimentu guztia, eta gueratuco litzateque ain pobre, ain billosh, ain erruquigarri, ceinda pecatariric andiena. Yru gach oneec quenduten deutzaz Penitenciaco Sacramentuac guizonari, eta euren ordez, atsera biurtuten deutzaz pecatuac quendurico iru onac. Lelengo quenduten deutso ezaintasun bildurgarri guztia, eta emonic galdu evan gracia, biurtuten deutso beragaz naste leen eucan edertasun miragarria. Bigarrego ateraten dau Demonioaren aguindutic, eta eguiten dau Jaungoicoaren seme, eta emoiten deutso pecatuac quendu eutsan ceruraco escuescune, edo

derechoa. Yrugarrengo, biurtuten deutsoz pecatuac quendu eutsazan merecimentu guztiac bat beré faltatzaca. Baya ecin sacramentu onec ecarri leiqueguz mesede miragarri oneec, bost gauzac lagundu eguiten ezpadeutse; eta oneec dira: Lenengo, Examina concienciacoa = Bigarrena, pecatuen damu edo dolorea = Yrugarrena, ez gueiago pecaturic eguiteco propositu edo gogoa = Laugarrena pecatu guztiac confesetea, edo esatea = Bostgarrena, confesorea[c] aguinduten daven penitencia bete edo eguin ta cumplietea. Yzanic ain bear eta preminazcoa Penitenciaco Sacramentu au bateatu ezquero pecatu eguin daveenentzaco, ce bera bagaric, eztago Salvaciñoric; eta ecin iñor ondo confesaduric bost gauza oneec bagaric, gura neusquezuez aimbat ondoen azaldu, arguitan imini, edo explicadu. Onetaraco adierazoco deutsuedaz banaan banaan bacochoa berba-aldi baten.

FRAY MATEO DE ZABALA

2. CONCIENCIACO ESAMINAREN GANECO BERBA-ALDIA

(B, 90-94. or.)

1. Confesetaco gogo, borondate edo intenciñoa badaucazu, lelen-go lelengo eguin bear dozun gaucea da, imini al-daizun humiltasunic andienagaz Jaungoicoaren aurrean, eta ezagutu, ce zaurituric, ezainduric, ta gueshoturic, baita beré illic zaucazan pecatuac: ce aserratu ta irrituric dagoan Jauna zugaz eurac gaitic, eta aren Magestadea bigundu negar ampulluacaz, eta bere adisquide eguiteco gurari bici bategaz escatu eguiozu biotzetic, emon daizula ceruco arguia, bere contra eguin dozuzan pecatu guztiac ezagutu eta burura ecarteco. Ain da bearra mesede au Jaunari escatutea ce, bere laguntasuna bagaric ecin gomuta guiñaiquez gueure pecatuac bear dana leguez. Escatu ezquero Jaunari bere gracia ta laguntzea, artu eguizu ceure conciencia ondo aratuteco bear dozun astia, eta etzaitquez arin arinca ibili, ceure betico salbaciñoa doian cereguin onetan. Yaquin guraco dozu ameneco, ea ceimbat dempora bearco dozun ceure conciencia esaminetaco. Ecin au iñoc beingoan esan leiquezu, onen ganean gauza yaquinic eztago-ta. Ezta guztientzat dempora bardina bear. Gueiago bear dau urte-beteric urte-betera bashen confesetan eztanac, ilebeteric ilebetera eguiten danac baño; eta gueiago onec zortzirik zortzira eguiten danac baño. Gueiago artu-emon, eta saldu-erosi andietan sarturic dagoanac, egun guztian achurren soloan dagoanac baño. Gueiago ecandu cital, ordiqueria, lapurqueria, araguzco (pecatu) loiquerietan ocotzeraguñio sarturic dagoanac, onango ecandu citalic edo galgarriric eztaucanac baño; eta alan, bacarric esan neiquezue bacoachac artu bear davela ondo conciencia esaminetaco bear dan demporea, arrastaca ta estropezuca ibili bagaric.

2. Eta celango ardurea artu bear da esamina onetan? Irudi edo exemplu bategaz au adietan emongo deutsuet. Urteiten dozu ceure etsetic diru-polsa andi bat ceugaz aldean dozula cerbaist erosteco, zorren bat paguetaco, edo beste gauzaren bateraco. Elduten zara erri edo etsera; zoaz ceure polsea ataraten; baya aror non topetan zarean

bera bagaric. Beguiratuten dozu etse atan yoan bayatzu; eta icusiric ara baño leen galdu yatzula, ¿ce eguiten dozu? Biurtuten zara etorri zarean bidetic, bide edo albo guztietara beguira, iñondic aguiri bada, ceure artean diñozula: ¿non galdu al neiquean nic polsea? Urlia lecutan neugaz neuncan, ce anche atera dot, au edo beste gaucea paguetaco: alan bada andic ona galdu izango dot. Urlia lecutan yarri nintzan, eta alboan ichi nevan yaquea; beste lecu atan igon bear izan nevan lugaban bat, erreten bat igaro bear izan nevan, eta zabala zalaco, saltu andi bat emon nevan. Lecu onen baten yausi zatequean. Modo onetanche biurtuten zara leen ibilico bidetic, ardura andiagaz beguiratuten dozu bidea ta alboac; baya guztiz ardura gueiagogaz zabiltz eta aracatuten, edo erregistretan dozuz, non derichazun galdu dozula ceure polsea. Aushe berau, bada, eguin bear dozu conciencia esaminadu gura dozunean beré. Biurtu zaitez urrengo confesiño ondo eguinetic orainguiño erabili dozuzan bideetatic. Beguiratu eguizu alde guztietara, ea aguiri bada pecaturic; baya ardura andiago bategaz beguiratu bear dozuz araco lecuac non derichazun galdu ciñaiqueala ceure arimea. Au eguin bear dozu astiro, ez arrastaca; bada osteranchean ecin esan ciñaique conciencia esaminetan dozula. Ezpabere esan eguidazu: baciñoaz polsea galdu dozun bide orretatic al daizun arinen, edo carra guztiagaz, esan ciñaique, bide orretan galdu yatzun polsa baten atsean zabiltzala? Ezetz derichat; ce edoceinec esango leusquizu: Guizona celan esan ciñai galdurico polsien billa zabiltzala bide orretan, ain arinca bazoaz? Polsa ori aurquitu edo topau gura badozu, zoaz gueldi gueldi alde guztietara beguira, iñondic aguiri bada; ce osteranchean ezteutsu iñoc sinistuco, diru galdua topau gura dozula. Onen beste zuri beré esan leiquezu arrastaca, eta arrapataca bazabiltz conciencia esaminetan.

3. Oraindio beré obeto ta obeto ezagutu daizun, celan eguin bear dozun esamina au, gura deutsut, gueiago ceaztu, ce modutan eguin bear dozun. Escatu ezquero Jaunari, onetaraco bear dozun gracia ta arguia, beguiratuco dozu, ea ceimbat dempora dan azquenengo confesadu cineala, baita ateraten dozu contu zortzi illabete direala. Beguiratuten dozu, guero, ea ona izan bazan, ala ez, orduan eguin cenduan confesiñoa; eta derichazu ez-yacala ecer falta izan. Au eguini asten zara amar mandamentuetatic bost Eleshacoetatic, eta ceure bici-moduco eguin-bearretatic, edo estaduco obligaciñoetatic zortzi illabete oneetan eguin dozun bicitzea, eta pecaturic eguin badozu dempora guzti onetan. Asico zara bada Jaungoicoaren legueco lenen-

go mandamentutic; beguiratuten dozu cerbeist esan badozu, edo blasfemadu badozu Jaungoico, edo bere santuen contra, edo fedeco articuluen contra cerbeist sinistu badozu. Icusiric eztauczula ecer mandamentu onen contra, igaroten zara bigarrenera. Gogora etorten yatzu, aucu balio andico bat euqui dozula, ceinetan sarri yuramentu artu deusuen, eta ceinetan testigu ascoc zugaitic eta zure erreguz yuramentu eguin daveen; daquizu sarri-ascotan guzurragaz yuramentu eguin dozula, sarri-ascotan aldatu, guichitu edo gueiagotu dozula; sarri-ascotan testiguai escatu deutzazula guzurragaz yuramentu eguin daie-la; sarri gorroto euqui deutzazula ceure aucico arerioari; sarri birao eguin edo maldiciñoac bota deutzazuzala, eta sarri maldicino oneec ezarri dozuzala ceure seme-alabeen aurrean. Esamina au ezta asco bear dan moduan confesetaco, ce eztozu esaten, edo etzara acusetan, ez ceimbat direan zure yuramentu guzurrezcoac, ez ceimbat direan besteai erasoac, ez cembait direan gorroto ta maldiciñoac, eta ez ceimbat seme ta etsecoai emonico exemplu deunga, edo escandaluac. Ara bada celan burura ecarri bear dozuzan pecatu orreec.

4. Imini zaitetz astiro astiro pensetan celan asi zan aucu ori, ceuri emon beutsuen, ala ceuc emon bacenduan: errazoeric baceuncan, ala ez, aucia emoiteco, edo emon eutsuenari yarraituteco; emon bacenduan benguetaco gogoagaz, edo besteari ceuntsan gorroto, edo ecin-icusiaigaitic. Ce calteac etorri yacazan besteari, zuc errazoa bagaric emon edo yarraiturico aucu orretaric. Calte onen contu ateraric al-dai-zun ondoen, igaro zaitetz ceuc eguinico yuramentuetara, eta atera eguizu contu, ceimbat bider eguin dozuzan guzurragaz, ceimbat ezdabaidan ta dudeagaz; baita eguiagaz izan arren beré, ceimbat bider gueiagotu, edo guichitu cenduan. Yrago zaitetz guero, testiguac zure erruz eguin dituezanetara. Contu atera eguizu, ceimbat bider escatu deutsezun yuramentu guzurrezco, edo falsoac eguin daiezala; ceimbat bider eguin daveen, eta ceimbat bider eguin gura izan ezta-veen; ce eurac gura ez eveenean, pecatu erazo ezpaceuntsen beré, zuc zure aldetic eguin cenduan pecatu. Ezta ain gach contu ateratea ceimbat bider guzurragaz eguin dan, eta ceimbat bider besteari erazo yacan. Igaro zaitetz gachago dan esaminara, au da, ceure arerio aucilariari euqui deutzazun gorroto, eta eguin deutzazun biraoetara. Asten zara contu ateretan ceimbat bider gorroto euqui deutzazun; baya edo aucu onetatic etorri yatzuzan calteac andiac direalaco, edo derichazulaco errazoe bagaric emon yatzuzala aucia, edo ceure geniñoa errea dalaco, pitean pitean euqui deutzazun gorroto, ta aucia gogora etor-

tzen yatzun guztian ezarten ceuntsan biraoac. Orregaitic ecin contu ciatz atera ciñaique ceimbat bider gorroto euqui deutzazun, ez ceimbat birao eguin deutzazun, ez ceimbat bider izan direan seme-alaba, eta beste echecoen aurrean. Orduan, bada, eguin bear dozuna da, atera contu ceimbat izango cirean guichi bat gora beera astean, edo guichienegun egunean. Au beré ecin badozu, ecarri eguizu burura ceimbat dempora iraun deutzun birao eta maldiciñoac botetaco euqui dozun ecanduac, ce eratan gueien biztu oi cinean ceure arerioaren contra, ceimbat bider euqui cenduzan era edo ocasiño orreec, eta ceimbat gorroto euqui edo ceimbat birao eguin cenduzan bacochean.

5. Bigarren mandamenturic igaro zaitez irugarrenera, eta andic laugarrenera, eta eguizu bacochean esan deutzudana. Badaucazu ecanduren bat, edo euqui badozu ocasiñoren bat, mandamenturen baten contra pecatu eguitemo, ainche gueiago gueratu bear zara, ainche ardura andiago bategaz aratu bear dozuz ceure concienciaco basterrac. Modu onetan ibili ezquero Jaungoicoaren legueco amar mandamentuetatic, eta bost Eleshacoetatic igaro zaitez ceure estadu edo bici-moduco cereguinetara. Orietan ardura andiago bategaz beguiratu bear dau bacochoac eguin ezpadau, eguin bear davena, ce ez eguin badau eguin bear eztavena; bada errezago ezagututen da gach eguina, ce eguin bear dana ez eguitea baño. ¿Ezcondua zara? Beguira celan eguin dozun ceure bici-moduac aguinduten deutzuna. ¿Iracatzi deutsezu doctrina cristiana ceure seme-alaba ta otseñai? ¿Eci dozuz chiquichu cireanetic, ceure umeen muquerqueria, oquerqueria ta gwestoqueriac? ¿Eguin dozu aleguina, aterateco sustraitic, euren ecandu cite-lac, burua atera evenetic? ¿Ichi deutsezu gura daveen guztiagaz urteiten negar eztaielaco? ¿Celatu dozuz nora doazan, nogaz dabilantzaz, ce lagunacaz batzainduten direan, ce etsetan sartzean direan? Berba baten: Zara ceure umeen Angueru-guardaco? Aushe guzti-au esaminadu bear dau, confesadu gura daven ezcondu, edo guraso batec. ¿Zara errico Fiel, edo urico Alcate? ¿Celan beguiratu dozu ceure ardurara dagoan erri, edo uriagaitic? ¿Galaazo dozu, deungaro gastadu, edo galde [sic] ezteitezcan uri edo errico errenta, ondasun, eta diruac? ¿Eguin dozu aleguina auzotegui guztia baquean bici daiten? Artu dozuz, al-dozuzan, modu guztiac, quendu eta erbestetuteco escandalu guztiac? Castigadu dozuz gaizquin guztiac, alan ceure seme, aide ta adisquideac, cein-da beste guztiac, bardin bardin guztiac? Modu onetanche esaminadu bear dau bacochoac bere conciencia norberen bici-moduco bear, eta estaduco obligaciñoen ganean.

6. Enzun dozu, Cristiñaiia, ce modutan ecarri bear dozuzan burura zure pecatuac, ondo confesaduco bazara. Sarri ta sarri prediquetan da eguia au pulpituetic; alambere derichat asco ta asco confesetan direala dongaro, esaminearen faltaz. Au ezagututeco eztaucagu beguiratu bashen, confesetan datoanacaz yazoten dana. Iminten dira confesorearen oñetan, ceñatuten dira, eta dagoz ishilihilic zubil batzuc legue-che; eztaquie cer esan, ez celan asi confesetan. Itanduten deutso Confesoreac: ¿ceimbat dempora da confesadu cineala? Eranzuten dau: zortzi, edo amar ilebete, edo urtebete. Itanduten deutso Confesoreac: ¿eguin dozu esamina concienciacoa? Bertatic diño: bai Jauna. Eta ¿ceimbat dempora emon dozu esamina-ginean? Zortzi egun, Jauna. Edonoc usteco dau, au enzunda, zortzi egun emon dituzala guizon onec pecatuac burura ecarten. Baya itandu bequio: ¿baita ceimbat dempora emon dozu bacochean pecatuac gogora ecarten? Eta eztaqui cer eranzun: bacarric diño: zortzi egun da: gaur confesetaco asmuac artu nituzala, eta egunez ta gavez, echean, oean, soloan, basoan ta edonon egon nas gaur confesadu bear dodala. Baya esan eguidazu, ¿imini zara ceure bacarrean pensetan, nondic ebili zarean, eta ceimbat pecatu eguin dozuzan mandamentu bacocharen contra? Eztozu itaunde oneecaz beste gauzaric ateraco, ezpabere confesetaco artu evan gogoari dei eguiten deusala concienciaco esaminea; eta gueien gueien eranzungo deusuna da: Aita: guc daucaguzan artu-emonac eztira andi-andiac beré. Ain otzic au esaten dave ce, bertatic igarten yaque, eztaveela dempora apur bat beré emon esamina-ginean. Goazan aurrera.

7. Dirautso confesoreac; bein esaminea eguin dozun ezquero, confesadu eguizuz, burura ecarri dozuzan pecatuac. Ytandu beguit berrorrec eranzuten dau. Asten da, bada, confesorea itanduten, eta elduric birao, añaen, berba loi, ordiqueria, edo beste ecanduzco pecatuetara, itanduten deutso; ¿bota deutsezu ceure seme alaba, emazte, otsein edo oguitucoai biraoric? Bai, Jauna. ¿Ceimbat bider? Sarri, Jauna. Esan bequio confesiño ori eztala asco; esan daguiala ceimbat direan eguin dituzan biraoac. Arpelic eguingo dau aleguina Confesoreac yaquiteco ceimbat direan, edo ceimbat bider. Gueien gueien eranzungo davena da, eztira biotzetic izan, intencino deunga bagaric izan dira. ¿Cer dauco cer icusi batatc besteagaz? Esaizu, ceimbat izan direan biraoac, eta guero icusico dogu biotzetic izan direan, ala ez. Beste batzuc eranzuten dave: izango cirean ogeui, edo ogueta amar. Esaten badeutso confesoreac, eztala ori conciencia esa-

minetea, eranzuten dau: ecin bada nic gueiago esan nei. Beste batzuc bein esan badaguie oguei bider eguin daveela pecatu bat, guztia da oguei. Oguei yuramentuac, oguei biraoac, oguei gorrotoa, ogei berba loiac. Confesiño modu oneec pelleburuzcoac dira, baita bildur izan leiteque onetarico gueienac, guztiac ez esatearren, charrac direala, concienciaco esamina faltaz, ce au eguin-ez-ic, gura ta gur'ez gueratu bearco dave pecatu ascoc confesadu bagaric. Eguin arren Confesoreac aleguina bere itauneacaz, pecatu guztiac arguitara aterateco, ecin icusi leiqueana leguez cer dagoan an-barruan, biac ibili bearco dave itsu mustuan: confesoreac eztacusalaco, eta icusi beré eguin ecin leiquealaco, cer dagoan concienciaren barruan; confesetan dana, barriz, eztavelaco ondo aracatu bere conciencia. Orregaitic bada, neure enzula maiteac, gura badozue neque guichiagogaz, baita ondo confesadu, artu eguizue astia, eta aleguin guztiagaz aratu ceüen concienciaco baster ta oquelu guztiac. Au eguiten badozue, eztozue euquico confesetara zoacenean, orain daucazuen arazu edo embarazuric. Confesoreac lagunduco deutsue bere itauneacaz, arguitan ifinten ceüen conciencia, guztiz nastaduric badago beré, quenduco deutsue ceüen ganetic, macurturic zauqueezan pecatuen carga pisutsua, bicico zaree mundu onetan poz andian, eta artuco dozue bestean, penitencia benetacoa eguiten daveenentzaco gorderic dagoan gloria. Alan guerta deilla. Amen.

3. [CONCIENCIACO ESAMINEA]¹

*Scrutemur vias nostras, quaeramus, et revertamur ad
Domunum. Threnor. c. 3.*

(J, 13-16. or.)

Ezaguturic J.C.^o gure Jaunac echacola gueure argaltasunari erraz, bautismuan artutaco gracian irautea, ifini evan bere Elesha santun bateo ostean eguinico pecatuac parquetaco modua. Aushe da Penitenciaco Sacramentua edo Confesiño Santua, cein eztan beste guazaric, ezpabere gueure nac bere Eleshan imini daven Sacramentu bat, parquetaco bateatu ezqueroco pecatuac nai direa [sic] mortalac, nai benialac. Ain da bearra Confesiñoco Sacramentua bautismu oste-co pecatu mortalac parcatuteco, cein dan bautismua pecatu originala quentzeaco; eta alan bateatu ezquero pecatu mortala eguin davenac, gura badau parcatu daquion, confesadu bear da, edo bai guichienez eguin bear dau acto contriciñozcoa, Elesha Ama Santeac aguinduten davenean confesetaco gogo benetacoac lagunduten deutsalac ce ain bagaric ezta prestu (ezta gauza) acto contriñozco ori ezta gauza. Bost gauzac lagundu bear deutse Confesiñoari gauza izateco, eta dira: lenengoa esamina concienciacoa; bigarrena damua; irugarrena ez gueiago pecaturic eguiteco gogo edo propositua; laugarrena pecatu mortal guztiac confesoreari esatea; eta bostgarren Confesoreac aguinduten daven penitencia eguitea, eta cumplietea. Oneec bostoc bana banacean azaldu ta iragarrico deusueguz arratsalde batzuetan; gaurco onetan, barriz, lelengotic asi (asiteco) gaitezcan esplicaduco deusuet cer dan esamina concienciacoa.

Da bada. Esamina au, aleguina eguitea burura ecarteco azque-nengo confesiño ondo eguinetico eta ordioragino batec eguin dituzan pecatuac. Esan dot azquenengo confesino ondo eguinetico, eta contu onega Cristiñauac, ce ezta asco orainengo confesa alditico oneraco esamina eguitea, leenagoco confesiño bat edo gueiago deungaro

¹ Jatorrizko testuak ez dakar izenbururik.

eguinac badaucaz. Badira C.^u asco larregui dauqueezanac oquer eguin da Confesiñoac, edo lotsaz pecatu mortalen bat edo gueiago gorde dituezalaco, edo eguiazco damu bagaric confesadu direalaco. ¿Cer eguingo davee onelangoac oraintsuengo Confesiñoric ostera eguin gura daveenera arteco esamina eguinda? Ez gauz' onic, eta bai sacrilegioac gueiagotuteco bideac artu. Onelangoac Confesiño deungaro eguin guztiac barriztau bear dituez, ta orretaco eguin bear dave dempora guzti orretaco esaminea. Osteranchean ecin salvadu leitequez. Pecatuac burura ecartea da Confesoreari bere conciencia aguertuteco; acusetaco no-beren burua, Jgcoaren ordeaz pecatuac parcatu dagueizan absoluciñoaren bidez (dala medio). Confesorea da Cristo-ren lecuan dagoan Jueza. Onec emaiten dau epaia ta sententia; ta orretaraco yaquin bear dau ceen ganean emon, ganecoan oquer ibilico da. Araz ostean da arimaco osaguillea ta Medicua. Medicu bateri garbiro esan bear yacoz gorputzeco gachac ecer estaldu bagaric oquer ibili ce dedin. Yaquin bear dau noscoa dan gacha, zarra ala barria, nondi yaio yacon. Alan bada confesoreac beré Medicua dan aldeti yaquin béar dau pecatua zarra edo barria dan, anchinatic datorren edo ez; nondic ernetan dan, celango lecu edo adisquidec deungueetati; gacha dan miñecoa, escucoa, bularrecoa edo cein lecutacoa, au da berbaz, escuz, biotzez, edo cegaz pecatu eguin dan orretaraco, bada, bear da esamina contuzcoa, gauza esan bear direanac Confesoreari aguertuteco. Ain da bear bearra ta premiñazcoa esamina contuzcoa au ce, batec bere naguitasun andiz ichiten badau esaminaren faltaz pecatu mortalen bat confesadu bagaric, eguingo dau confesiño oquerra; ta esaminaco naguitasuna laburra ta chiquerra izan bada, izango da pecatu chiquerra edo beniala, baya ezta izango deungue confesiñoa, beste utzeguinic ezipadago.

Esamina onec contuzcoac izan bear dau, ta astiro eguinac; ez itoca, aringa ta priesaca eguinac. Ardurea emoiten deusuen gaucetan ¿celan gabiltz? Eztira beingoan ta itomendiz eguiten, eta bai astiro astiro beguiratuta. ¿Cer eguiten eztozue billatuteco diru-boltsa bat, ganaduren bat, edo beste, galdu dozuen balio andico gauzaren bat? ¿Ceimbat ausi bear eztozue burua auci bat irabazteco; edo escuarte-coa aurreratuteco? alan bada eguin bear dozue esamina eguiteco beré: eztago munduan pecatuac baño calte andiago eguiten daven gauzaric; ganeco calte ta galtzaiera guztiac, onen aldean umecontuac dira; eta orregaitic yaquitunac diñoce ce, esaminea eguiteco imini bear dan ardurea dala, guizon zuur ta beguiratu batec balio andico gauza

baten imini daroian ardurea ta contua langoa. Bada, Jauna, esango deustazue, ¿ceimbat dempora emon bearco dogu esamina-guiñan? Eta zuec cer diñozue, ¿ceimbat dempora bear da ullea orraztuteco, alcondara bat garbituteco, edo ari-matasa bat arilduteco? Jauna, ori celan dan, eta celan dagoan gaucea. Azpaldian orraztu eztan ulleac, ta guztiz nastituric dagoanac dempora lucea bear dau orraztuteco; aurrengo egunean orraztu zanc guichi; olaguizon baten obrereac, edo icazquin batec soñean luzaro erabili daven alcondareac dempora lucea ta ur asco bear dituz zuri eguiteco, beste ascorena ez ainbeste: eta alan da matasegaz beré ondo badator laster eguiten da; baya nastituric badago ta quisqui-biur asco baditu dempora gueiago bear dau. Baita badira gauza oneec eguin bear dituezeanean artean, modu obeac eracusten daveenac eta oneec lasterrago eguiten dituez, (besteac bañoen). Alanche da bada esamina eguiteco beré; eztago onetan gauza erabaquiric, ez guztientzaco neurri bardinic. Confesiño general ta bicitza guzticoac dempora gueiago bear dau esamina guintzan, iru edo lau urteco confesiñoac baño. Guizon iratzarriac, eta buru oneacoac lasterrago ecarrico dituz gogora, buru astun ta charra davenac baño. Sarri confesetan direanac errazago naguito-tzar beluric belura doazanac baño. Besteac bardin direala otsein batec obligaciño laburragoac aituz ugazaba edo ugazaba andreac baño: ezconda'coac, ezconduac baño. Barriz aberats batec guciago nequezaleac baño, trulari batec achu'lariac baño, eta alan besteetan. Leen esana bada, guizon zuur ondo batec ardura andico gauzean ipimico leuquean contua, orishe ipini bear dozue zuec beré, esamina eguiteco. Baya eztago orretaraco pecatuac paperean escribidu bearric, batzuetan ondo bada beré; burura datoanac esan eguizuez, ta ori da asco; ta esamina ondo eguin azquero pecaturen batzuc aztuten bayatzuez, ez orregaitic arduraric artu, cé guztiac parquetan dira; eta eztago besteric, gogora yatortsuezeanean, urrengo confesa aldian esan baño.

Esamina concienciaco au eguiten da Jgcoaren legueco amar mandamentuetatic, bost Eleshacoetic, obra misiericordiazcoetic, ta Pecatu capitaletatic. Baya eztozuez mandamentuac andizca igaro bear, ez guztiac erabatera, ta pilloan leguez, ezpabere bana banacean, ta bacocho berez: mandamentu bat ondo esaminadu artean ez igaro bestera: beste ori ondo esaminaduta zoace irugarrenera eta alan. Eta mandamentu bacochean ez bacarric esaminau bear dozuez gorputzagaz edo gorputzeco alderen bategaz eguiten dozuezan pecatu aguiariac, contu daigun escuagaz, miñagaz, edo alan eguiten dozuezanac,

baita bere gogoagaz edo pensamentuagaz eguiten dozuezanac: esan gura dot burura ecarri bear dozuela ea iñoz onetan edo atan pecatu eguiteco asmoric izan dozuen; ea iñoz gauza deungaren bat gogoan dozuela egon bazaren. Guero esaminadu bear dozue ceure oficioan, carguan, eta bicimoduan eguin dozuzan utsac eta pecatuac. Oficio ta bicimodu bacochoac dituz berezco ta aparteco eguin bearrac. Ezconduac, Ugazabac, Justiciaco direanac, tratulariac eta alangoac badituez obligaciño batzuc, besteac ez dituezanac. Azquenean barriz esaminaturic ceuc ceure escuz eguin dozuzan pecatuac, contua atera bear dozu besteac zure erruz, zuc orretaraco bidea emonda eguin dituezanena; ea iñori pecatu eguiteco aguindu edo consellu emon badeutsazu; ea iñori pecatu eguiten iracatsi badeutsazu; ea eragotzi bearrean aguintaria, ugazaba edo gorasoa cinealaco, eragotzi espadozu, eta olangoac. Liburuan daquienac ondo eguingo leuque, orretaraco escu-liburua. Olaechearen liburua, edo beste alangoren bat artuco baleudee ta bereti esamina ori eguin. Baya ez eguin nescachi batec eguin evana, onango liburu bat artuta, bertan egozan pecatu mota guztiac berac eguinac leguez, confesoreari esan eutsazan. Esamina au Confesorearen oñetara baño leenago eguin bear da, bada gach izango da bertan guztiac beingoan burura etortea, baita beré erraz da guztiz confesoreari itanduten aiztutea; eta esamina ez eguina gaitic pecatu mortalen bat confesadu bagaric ichiten danean, confesiño oquerra eguiten da. Baya alambere ascoren conciencia ez larregui estututeco esan bear dot pecatu mortalic eguin eztavenac estauquela esamina concienciacoa eguin bearric, ondo bada beré ori eguitea.

Eta obeto eta obeto ezagutu daguizun celan eguin bear dozun esamina au, gura deutsut gueiago ceaztu ce moduetan eguin bear dan. Zoaz bada Eleshara, edo sartu zaitez echeco guela baten, edo zoaz beste lecu bacar batera, ta esca eguiozu Jaunari esamina eguiteco bear dozun gracia ta arguia. Beguiratuco dozu guero ea ceimbat dempora dan azquenengo confesadu cineala, baita ateraten dozu contu zortzi illabete dala. Ea bada orduco confesiñoa ona izan bazan; ona ezpazan, contua atera bear dozu nosic onacoac direan confesiño deungaro eguinac bitarte orretaco esamina eguiteco: ona bazan eztaucazu yaramonic cetan eguin lenagoco confesiñoai. Au eguin ezquero asico zara lenengo lenengo Jaungoicoaren legueco lenengo mandamentutic, ta beguiratuco dozu ea cerbait esan badozu Jgcoaren edo Santuen contra, esateraco ea esan badozu Jgcoac eztaquiala cer darabilen escuartean, munduco gauzac bear dan leguez estarabiltza-

la; ea Fedeco articuluren baten contra ecer sinistu badozu; ea uste izan badozu eztagoala zuretzat parcacifñoric; edo ecin iñolacoz cerura yoan ciñatequezala aimbeste pecatu eguin ezquerocoan; ea amesai, sorguinqueriai, aztuen contuai sinisteric emon badeutsazu, ta mandamentu onetan sartzean direan osterarcheco gauzaac. Ycusiric estaucazula ecer, edo cer daucazun mandamentu onetan igaroten zara bigarregora. Gogora yatortsu auei balio andico bat euqui dozula ceinetan sarri yuramentu artu deutsuen, eta ceinetan testigu ascoc zugaitic ta zure erreguz yuramentu eguin daveen; baquizu sarri-ascotan guzurragaz yuramentu eguin dozula; sarri ascotan zana (bashen) gueiago guichiago edo bestera esan dozula; sarri-ascotan testiguai escatu deutzazula zure alde guzurragaz yuramentu eguin daguiela; sarri gorroto euqui deutzazula zure aucico arerioari; sarri birao eguin deutzazula, eta sarri birao oneec ceure seme-alaben aurean izan direala. Esamina au oraindo ezta asco bear dan moduan confesetaco, ce eztozu esaten, edo etzara acusetan ez ceimbat direan zure yuramentu guzurragazcoac, ez ceimbat direan besteai erasoac, ez ceimbat direan gorroto ta biraoac, ez ceimbat umeai ta etsecoai emonico exemplu deungoac. Ara bada celan burura ecarri bear dozuzan pecatu orreec.

Ymini zaitetz astiro astiro pensetan celan asi zan auci ori, ceuri emon beutsuen, ala ceuc emon bacenduan; errazoeric baceuncan ala ez, aucia emoiteco edo emon eutsuenari yarraituteco; emon bacenduan benguetaco gogoagaz, edo besteari ceuntzan gorroto edo ecinicusigaitic. Ce calteac etorri yacozan besteari zuc errazoe bagaric emonico edo yarraiturico aucí orretaric. Calte onen contu atararic aldaizun ondoen, igaro zaitetz ceuc eguinico yuramentuetara, eta atera eguizu contu ceimbat bider eguin dozun guzurragaz, ceimbat ezda-baidan cengozala ta dudeagaz; baita eguia izan arren bere', zan baño gueiago edo guichiago esan cenduan. Ygaro zaitetz guero testiguac zure erruz eguin dituezanetara. Contu atera eguizu ceimbat bider escatu deutseezun guzurraren ganean yuramentu eguiteco; ceinbat bider eguin izan daveen, eta ceimbat bider eguin gura izan eztaveen; bada eurac gura ez eveenean pecatu erazo ezpaceuntsen beré, ceuc ceure aldeti pecatu eguin cenduan. Oneec alan aterata igaro zaitetz esaminetara ea ceure arerio aucilariari gorrotoric euqui deutzazun, edo biraoric eguin deutzazun; baya edo auci onetaric etorri yatsuzan calteac andiac direalaco, edo derichazulaco errazoe bagaric emon yatzuzela aucia, edo ceure genioa errea dalaco ta errai estuac dozuzalaco lancean lancean euqui deutzazu gorroto, ta aucia

gogora etorten yatzun guztian biraoac eguiten ceuntsazan. Orregaitic ecin contu ceatzic atera ciñaique ceimbat bider gorroto euqui deutzazun, ez ceimbat birao eguin deutzazun, ez ceimbat bider izan direan seme-alaben, eta beste echecoen aurrean. Orduan bada eguin bear dozuna da, contu atera ceimbat demporan iraun daveen orreec, eta ceimbat bider izango zan egunean edo astean edo alan. Au beré ecin badozu asco izango da burura ecartea ceimbat demporan iraun eutsun orreec eguiteco ecanduac; ce ezetan gueien biztu oi cinean ceure are-rioren contra, ceimbat bider izan dozuzan era, aldi ta ocasino or'reec, eta ceimbat gorroto euqui, edo ceimbat birao eguingo ceuntsan bacochean.

Bigarren mandamenturic igaro zaitez irugarrenera, eta andic laugarrenera, eta eguizu bacochean esan deutzadana. Badaucazu ecanduren bat, edo izan badozu ocasiño edo pecatu bideren bat mandamenturen baten contra pecatu eguiteco, ainche gueiago guelditu bear zara, ainche ardura andi bategaz aracatu bear dozuz ceure concien-
ciaco bazterrac. Modu onetan ibili ezquero Jgcoaren legueco amar mandamentuetatic eta bost Eleshacoetic, igaro zaitez ceure estadu, edo bicimoduco cereguinetara. Onetan ardura andiago bategaz beguiratu bear dau bacochoac eguin ez padau eguin bear davena, ce ez eguin badau bear eztavena, bada errazago da ezagututen eguin dan gacha, ce eguin bear dana ez eguitea baño. ¿Ezcondua zara? Beguira celan eguin dozun ceure bici-moduac aguinduten deutzuna. ¿Yracatsi deutsezu doctrina cristianeana ceure seme-alabai, ta otseinai? ¿Eci dozuz chiquichutatic ceure umeen muquerrac, ta oquerqueric? ¿Eguin dozu aleguina sustaiz aterataco euren ecandu citelac burua atera davenic laster? ¿Ychi deutsezu gura daven guztiagaz urteiten, negar eguin eztaien achaquiagaz? ¿Celatu dozuz nora doazan, nogaz dabiltzazan, ce lagun-modugaz batzainduten direan, cein echetan sartzean diren? Berba baten zara ceure umeen Aingeru-guardaco, ta yagola ona? Aushe guztiau esaminadu bear dau ondo confesadu gura daven ezcondu edo guraso batec. Zara Errico Fiel, edo Urico Alcate? ¿Celan beguiratu dozu ceure ardurara dagoan Erri edo Uriagaitic? ¿Galarazo dozu, deungaro gastadu edo galdu eztaiezan Urico edo Errico errenta, ondasun eta diruac? Eguin dozu aleguina auzotegui guztia baquean bici daitean? ¿Artu dozuz al dozuzan modu guztiac quendu eta erbestetuteco escandalu ta pecatu-bide guztiac? ¿Castigadu dozuz gaizquille guztiac, alan ceure seme, aide ta adis-
quideac, cein da ganeca guztiac? Modu onetanche esaminadu bear

dau bacochar bere conciencia, no-beren bici-modua eguin bearren, eta estaduco obligaciñoan ganean.

Enzun dozu, cristiñaua ce modutan ecarri bear dozuzan burura zure pecatuac ondo confesaduco bazara. Sarri ta sarri prediquetan da pulpituetic eguia au; alamberé derecha asco ta asco confesetan dire-ala deungaro esaminaren faltaz. Aushe da diño Fr. Luis Granada-co Veneragarriac, aushe da alde guztietan gure aleguin guztiagaz predicatu bear gueunqueana, bada asco baño gueiago dira engañaduric bici direanac, beguitanduric ondo doazala, ta orretaraco oquer doaz; cé bat da, edo lotsaz pecatuac confesadu bagaric ichitea edo esamina eze-guinagaitic ichitea; batac eta besteac confesiño deunguea eguiten dave, eta salvaduco badira barriro confesadu bear dituez confesiño barri ondo eguinen baten. ¿Cétatic dator, ezpabere, urtebetecoac, ilean beingoac bashen pecatu gueiago ez confesetea? Ez bada urtean bein bashen eguiten eztireanac obeac direalaco, ce alangoac eztira cristiñau on-onac izaiten; eta ganecoan ez litequez egongo ain luzaro confesetan ta Jauna artuten etorri bagaric. Eztavee gauza dan esaminaric eguiten, ta guero eztavee amarrenic beré confesetan. Eta ezta au deungueen deungueena, ce badira beste asco urte betecoac ez izanagaitic, gauza onetan urtebetecoen lagun direanac: au ezagututeco eztaucagu beguiratu bashen confesetan datoanacaz yazoten danari. Yminten dira Confesorearen oñetan, curutze-santuarena eguiten dave, eta dagoz ishil ishilic zubil batzuc legueche: eztaquie cer esan, ez confesetan celan asi. Ytanduten deutse Confesoreac: ¿ceimbat dempora da confesadu cineala? Erantzuten dau zortzi edo amar ilabete, edo urte bete. Ytanduten deutse Confesoreac: eguin dozu esamina conciencia-coa? Bertatic diño: Bai, Jauna. Eta ¿ceimbat dempora emon dozu esaminaguinean? Zortzi egun, Jauna. Edoceinec usteco leuque au entzunda zortzi egun emon dituzala guizon onec bere pecatuac burura ecarri ecinic. Baya ez zortzi egun ez ece ezta guichiago beré, eta bear bada bapere ez. Ytandu bequio, ezpabere; eta ¿ceimbat dempora emon dozu egun bacochean pecatuac gogora ecarten? Eta eztaqui cer erantzun: bacarric diño: zortzi egun da gaur confesetaco asmua artu nevala, eta gau ta egun, echean, oean, soloan, basoan, ta alde guztietan egon nas gaur eguta bear nasala. Baya esan eguidazu: ¿imini zara ceure bacarrean pensetan, nondic ibili zarean, eta ceimbat pecatu eguin dozuzan mandamentu bacocharen contra? Eztozu itaunde onecaz beste ateraco ezpabere confesetaco artu evan gogoari dei eguiten deutseala concienciaco esamina eta gueien gueien erantzungo deutsu-

na da: Aita, guc daucaguzan artu-emonac eztira andi-andiac beré. Ain otzic au esaten davee ce, bertatic igarten yaque eztaveela demporaren apurric bere emon esamina gainean. Goazan aurrera.

Dirautso Confesoreac: bein esamina eguin dozun ezquero, confesadu eguizuz, burura ecarri dozuzan pecatuac. Ytandu beguit berrorec, erantzuten dau. Asten da bada Confesorea itanduten eta elduric birao, añen, berba loi-nasai, ordiqueria, eta beste ecanduzco pecatuetara, itanduten deutso: ¿Bota deutsezu ceure seme-alabai, emazteai, otseinoi edo oguitucoai biraoric? Bai, Jauna. ¿Ceimbat bider? Sarri, Jauna. Esan bequio confesiño ori eztala asco; esan daguiola ceimbat direan eguin dituzan biraoac. Arpelic eguingo dau aleguina confesoreac yaquiteco ceimbat direan, edo ceimbat bider. Gueien gueien erantzungo davena da; eztira biotzetic izan, inteciño deunga bagaric izan dira. ¿Cer dauco cer icusi batat besteagaz? Esaizu ceimbat izan direan biraoac, eta guero icusico dogu biotzetic izan direanez. Beste batzuc erantzun daroe, izango cirean oguei, edo ogueta amar. Esaten badeutso confesoreac, eztala ori conciencia esaminetea, erantzuten dau; ecin, bada, nic gueiago esan nei. Beste batzu bein esan badaguie oguei bider eguin daveela pecatu bat guztia da oguei. Oguei yuramentuac, oguei biraoac, oguei gorrotoac, oguei berba arinac. Confesiño modu oneec bildur izaitecoac dira, eta onetarico gueienac (guztiac ez esatearren) concienciaco esaminaren faltaz charrac direalacoen antza ba'unque, bada esamina au eguin ez-ic, gura ta gur'ez gueratu bearco dira pecatu asco confesadu bagaric. Eguin-arren Confesoreac aleguina, bere itauneacaz pecatu guztiac arguitara aterateco, ecin icusi leiqueana leguez cer dagoan an barruan, biac ibili bearco dave itsu mustuan: Confesoreac eztacusalaco, eta icusi beré ecin leiquealaco cer dagoan concienciaren barruan; confesetan dana barriz, eztabelaco ondo aratu concienciaco baster ta oquelu guztiac. Cetatic dator, ezpabere, urtebetecoac ilean bein eguiten direanac baño pecatu gueiago ez confesetea.

4. ONDO CONFESETACO BEAR DAN DAMUAREN GANECO BERBA-ALDIA

(B, 94-99. or.)

1. Confesiño on bat eguiteco bigarren bear dana da damua: au da euqui bear dau benetaco damuari bat pecatu eguinagatic. Modu bita-coa izan leiteque damu au; bata berezcoa, edo mundu onetaco gauzaac gaitic-coa, bestea berez-ganeti-coa, edo fedecac eracusten deuscuzan gauzaren bategaitic artua. Ezagutu gura badogu, nos daucagun bata eta bestea, eztaucagu beguiratu bashen, cegaitic daucagun damu au. Badaucagu damutasun au pecatuac ecarri deusculaco gorputzeco sensunacaz icusi edo yaquin al leian gachen bat, berezco edo naturala da damu hau; eta ezta duin, ez asco, ondo confesetaco. Contu egui-zue artuten davela Justiciac lapurretan davillen guizon bat, ifinten dau carcela baten, erri guztitic zabalduten da lapurreta au, eta damututen yaco lapurretan ibilia: ¿baya cegaitic? bere burua carcela baten eta lotsaari ain andian dacusalaco. Damuari au berezcoa da, edo naturala, ce gach oneec ezagututeco ezta federic bear, eta alan damu au ezta asco ondo confesetaco. Damutasun norberen izaitez ganeticoa dauco batec, damu davenean pecatu eguina, pecatuac ecarri deutsalaco gachen batzuc, ceintzuc ecin yaquin leiquezan fede bagaric. Esateraco: leen esan dogun, lapurretan ebillen guizonac, icusiric bere burua carcela itsaltsu baten, catea eta grilluz yosiric, ain lotsaari andian asten da beguiratuten, ce lecu bildurgarriac izan bear daven infernuac, ce ezainac edo echura bacoac egon bear daven bere arimeac, galduric graciaren edertasuna, celango lotsaaria euqui bear daven ain ezain, itsusi ta cacaz egonic Jaungoico, eta Aingueruen aurrean. Consideraciño eta gogoetaldi oneecaz artuten dau damutasun andi bat, ez, eguin daven lapurreteagaitic carcela baten dagoalaco, ez guizonen beguietan ain lotsari andian dagoalaco, ezpabere bere arimeari aimbeste gach icaragarrizco ecarri deutsalaco. Damu au gure izaitez ganeticoa, edo guc gueureanez ezagutu geiqueanen goracoa da; ce arimeari ecarri deutsalaco gach oneec ecin guizonac

bereanez, eta fede bagaric ezagutu leiez. Jaungoicoaganic dator damutasun au, eta asco da ondo confesetaco.

2. Oraindiñoocarren beré gura neuque arguiago azaldu, zuritu ta esplicadu nosh dagoan damuari bata ta bestea. Onetaraco iminico deusuet irudi. [sic] chu bat. Bici da nescatilla gazte ondo yaio, aci, ta eche andico bat bere guraso noble, eta bere neba-arrebacaz. Erri guztiac dauco on garbi, moduzco, eta charqueria ba'cotzat: baya malpecau yausten da gizon-gazte bategaz araguzco pecatuan, eta egonic guizon-gaztea gach atsitu, ta lotsagarriz ustelduric, erantziten deutso bere gacha. Eguneric egunera aurrera doa gacha, baya lotsaz beteric, ezteutso iñori esan gura. Yausten da gueshoric, eta dago oe baten erdi ilic, guztia erquinduric, azur utsac ta azala baño eztaucala, eta erdi ustelduric. Zabalduten da erri guztitic ce gach modu daucan, eta guztiac daquie ce pecatu ta loiquerietan ibili dan. Ar'or non dagoan nescatilla au gach modu bigaz: gorputzecoagaz, eta arimacoagaz: gorputzecoa ezagututeco ezta federic bear, ce edoceinec icusi leiquez, eta nescatilleac berac sentietan dituz bere gorputzean, pecatu ac ecarri deutzazan argaltasun, zauri, min eta alac; besteac dira arimacoac. Oneec dira Jaungoicoaren arerio, Demoniñoaren mempeco eta aguinduco izaita, cerua sarraturic euquitea, infernu bateco su beticora condauric egotea, Jaungoicoa aserraturic euquitea, eta beste esan beré ecin leiquezan gachac. Ycusiric bere burua egoquera edo estadu onetan, artuten dau guizon-gazteagaz eguin cituzan pecatuen damu benetaco bat, biotz guztitic deutso gorroto pecatu ari, beti dago negarretan urturic, cizpuru artean, eta atseguin bagaric. ¿Gura dozu yaquin nescatilla onen damuaria celangoa dan? Bereanezcoa edo naturala, ala norberen izaitez ganeticoa eta Jaungoicoaganic datorrena? Begiratu, bada, cegaitic daucan damutasun au, cegaitic direan negar, eta cizpuru oneec. Badira aimbeste min eta gachagaz oean dagoalaco, bere gurasoac aserraturic dagozalaco, euquico evan ezcontza on bat, euquico eztavelaco, eta beste onango gorputzeco gachac gaitic; damu au berezcoa da, eta bacoachac fede bagaric equi leiqueana, eta ezta asco penitenciaco sacramentua artuteco: alperric egingo dau Madaleneac bashen negar gueiago. Daucan garbai edo damua bada arimaco calteac gaitic, graciaren edertasuna galdu davelaco, Jaungoicoa beragaz aserre dagoalaco, edo beste onelango gauzaren bategaitic, gure izaitz ganeticoa da, eta fedeco eguietatic datorrena, eta asco (ona) da Sacramentu penitenciazcoa eguitico.

3. Modu bitacoa da damuari au; batari dericho contriciñoa eta besteari Atriciñoa: eta eusquera garbiago-an contriciñoari esan guinayogo On-damua, Atriciñoari barriz Bildur-damua. Contriciñoa edo On-damua da, euquitea, damutasun benetaco bat Jaungoicoa pecatuagaz aserratu davelaco, ez beraganic artu leiquean mesederen bategaitic, ez berac castigadu al leiquealaco, ezpada bera dana dalaco, ain on, ain santu, ain andi, eta ain maitegarri, eta damu onetan eztau beguiratuten, ez cerua galdu izana, ez infernua mercedu izana, ezpabere Jaungoicoaren ontasan, anditasun, eta maitegarritasunera. Atriciñoa da euquitea damuari andi bat eguin daven pecatuagaitic beragaz ezaindu davelaco bere arimea, zarratu davelaco cerua, mercedu izan davelaco infernua, eta bildur dalaco Jaungoicoac bota leiala ango suetara, eguin daven pecatuagaitic. Contriciñoa dator Jaungoicoari deusagun amodiotic, Atriciñoa, barriz, beragan daucagun icharote, edo uste ta esperanzatic. Gueienac uste dave damu bi onetatic edocein dala asco, ondo confesetaco; alambere aleguina eguin bear dogu, Contriciñoa eroateco, bada Contriciñoac berac bacarric ta uts-utsic, parcatuten dau pecatu mortala; baya ez Atriciñoac. Orregaitic balilloaz pecatu mortalean dagozan bi confesetara, bata Contriciñoagaz, eta bestea Atriciñoagaz, eta ilgo balira biac confesadu baño leen, cerura yoango litzateque contriciñoa eroiana, eta ez Atriciñoia eroiana.

4. Damutasun au izan bear da pecatu guztiena, bat-pere ichibagaric; osterancean (ganecoan), echacoz parcatuco, ez araco pecatuac ceintzuen damuric eztaucan ez-ece, ezta ganeco pecatuac beré euren damuaria equiagaitic. Daigun contu: daucaz guizon batec zortzi pecatu mortal; daroa confesetara zazpiren damua, baya ez zortzigarrena: bada guizon orreri ez bacarric echaco parcatuco zortzigarren pecatua; ceinen damuric eztaucan, baya ezta beste zazpirac ceintzuen damua equi daven beré; eta alan urrengo confesiñoan direanac confesadu bearco dituz, bardin cein ñorembere damutasunic equi ezpaleu. Damu au izan bear da biotzeco, edo benetacoa, eta alan ezta asco campoticoa, edo aozcoa bacarric izaitea. Orregaitic ezta asco esatea: Damu dot ceu aserratua, eta ucabilagaz bularra yotea, eta negarretan urturic egotea, cizpuru andiac botetea, biotza gogor badago, pecatuari deusan aficiñoa eta zaletasuna quentcen ezpada, eta gorroto guztizco bat berari equi ezpadaguio. Damuari au equi bear da Confesoreac absoluciñoa emon bashen leenago, edo guichienez Confesoreac absoluciñoa emoiten davenean, ce orduan

euqui-ez-ic, eztau arean balio bere confesiño guztiac, guero damututen bayaco beré pecatu eguina. Asco bada beré damua euqui edo artutea confesetan danean, edo confesoreac absolvietan daven artean, chito da pelleburutsua orduraco istea damutasuna artzeia; ce orduan pecatuac buruan euquiteac, ceatz confeseteac, eta pecaturen bat aĩztuteco bildurrac, daroe ardura guztia. Pecatuac confesadu ezquero eguiten dau Confesoreac aleguina artu-erazoteco confesadu danari, esan dituzan pecatuen damua; baya dempora guichi dalaco batetic, eta pecaturen bat ichi ete davenen bildurragaitic bestetic, ezta errez orduan damu benetaco artutea. Orregaitio onen onena da confesetara baño leen artzea. Demporaric onen onena da esamina concienciacoa eguin-da bertatic. Ara celan.

5. Conciencia esaminadu ezquero, ceure pecatuac gogoan dozuzan artean ifini zaitez Jaungoicoaren aurrean, eta humiltasunic andienagaz escatu egiozu biotz guztitic, esaminadu dozuzan pecatu guztien damu benetaco bati. Guztiz da bearra escaari au Jaunari eguitea: bada izanic damutasun au Jaungoicoac pecatari bateri eguin leion mesederic andiena, ecin berez euqui leique guizonac; ecin bestec emon leio, Jaungoicoac berac baño, eta orregaitic gura badau peccariac damutasun au euqui, Jaunari escatu bear deutso. Escabide au eguinic beguira zaitez, celangoa zaucazan pecatu orrec. Ce erain, eta echurabaco, ce atsitu zagozan, icatz bat bashen baltzago, Demonioño bat dirudizula, gorputz usteldu bat leguez, eta an arrac bateric bestera dabiltezana leguez, alanche dabiltezala Demonioñoac zure arimaan bere yaube eguinic. Beguira ondo celango calteac ecarri deutzazuzan ceure buruari pecatu orreecaz; zagoz cerutic erbesteturic, eta infernuraco ucentaduric, Jaungoicoa dago ain irritu ta aserre zugaz ce, dauco bere besoa ereguita bere justiciaco ezpata billosha davela, zu zatitu ta infernuetara botateco. Bildurturic guztiori gogoldi onegaz (beguitaciño) eldu zaitez Jaungoicoaren erruqitasunera, yaquinic ce, andiac badira beré zure pecatuac, andiagoa dala oraindiño Jaungoicoaren ontasun eta erruquia. Au zugaz euqui daian artu eiquezu aimbeste calte ecarri deutsuen pecatuen gorroto andi bat, eta icharon eiquezu Jaunagan, parcatuco deutsuzala J.C^o.ren bicitza, pasiño ta eriotzeagaitic.

6. Jaungoicoaren Seme onen eriotzea ta pasiñoan aleguina eguin bear dozu, ezagututeco Jaungoicoaren zureganaco amodioaren anditasuna, eta ezaüera onegaz esheturic zure biotza bereganaco amodioan, damuari andi bat artu bear dozu, bera aserratu dozulaco, izanic

ain on, eta maitegarria. Yatzi zan cerutic lurrera, zu pecatutic ateraric, bere seme zorioneco eguitearren; onetaraco bici izan zan oge'-ta amar urtean mundu onetan neque, lan eta gach andien artean; zuri eutsun amodio uts utsagaitic igaro cituzan bere negargarrizco pasiñoan esan beré eguin ecin leiquezan, zauri, epai, burla ta barreac; artu cituzan bost milla azote eta gueiago, euqui evan bere burua arantza gogorrezo coroe esquerga bategaz zulaturic, eta azquenean bere bicitzea galdu evan, curutze baten unce gogorracaz yosiric, lotsariric andienean. Beguira ondo noraguiño eldu zan Jaungoico baten zukanaco amodioa, esquer onecoa izan cenguizan zu beragaz. Jaungoicoaren amodio onegaz iciotu bear dozu ceure biotza bereganaco amodioan, zagoz seguru ezteutsula Jaunac ucatuco bere laguntasun eta gracia, ceuc ceure aldetic eguiten badozu aleguina. Berac bere ceruco su onegaz erre, eta garbituco deutsu ceure biotza; baya bazoaz confesetara ceure biotza prestadu bagaric, uste dozula ce confesoreac dirautsunagaz artuco dozula benetaco damuaria, bildur izan zaitez ezteutsula Jaunac emongo onetaraco bear dozun gracia.

7. Gauza guztiz bear bat emenche esan gura deutsuet, derichadalo ce, berau ondo ez beguiratutearren, confesiño char asco eguiten direala. Ondo confesadu gura davenac, eztau ecetan beré ardura andiagoric imini bear, bere pecatuen damua euquitean baño; bada Trentoco Batar, edo Concilioac dirauscu ce, Penitenciaco Sacramentuaren alderic yaquinena, eta parteric bearrena dala damua, eta orregaitic bearric bearrena. Bera bagaric eztago pecatuen parcañoeric; baya yazo leiteque esamina, eta confesino bagaric parcatutea. Emoiten deutso bateri aldi gueisto batec; eztauco nogaz confesadu, gura leuque baya: eguiten dau acto contricinoco bat, ilten da onegaz; aror non oneri parcatu yacazan pecatu guztiac, eta salbadu dan. Emoiten deutso beste bateri beingoango gach batec, elduten da Confesorea, baya eztauco lecuric edo astiric, ez esaminaric eguiteco, ez bere pecatu guztiac esateco; esaten dau bat bacar bacarric, eta absolvietan dau confesoreac; bada badauco benetaco damu cintzoa, guztiac parcatuco yacaz. Baya damuariric euqui-ecic, ecin iñondi beré pecaturic parcatu leiteque; arpelic izango da esaminaric arduratsuenta, eta confesiñoric ceatzena. Yaquizue, bada, bearragoa dala damua esaminea bashen, baita ezaüera onegaz artu eguizue ardura andiango bat damua euquitean, esamina-guinean baño. Confesetara yoan bashen leen artuten badozue damua, confesiñoa beré obeagoa, humillagoa ta negartsuagoa izango da. Guero absolbiciñoa artut'-

ordua eldu daitenean, eztauczue barriaztu baño damuari au, eta aushe da asco confesiñoa ona izaiteco.

8. Gura badozue, bada, neure enzula maiteac, ez pelleburuan egon confesiño dongaric eguiteco, eguizue aleguina, confesetara yoan baño leenago, artuteco pecatuen damutasun biotzeco. Berean dira ezagun confesonarioan, au eguiten eztaudeenac... Yfinten dira belaunbico, eguiten dituez arrastaca caco batzuc curutze orde, eta esanic *Ni Pecataria* arin arinca, iminten dira Confesoreari beguira, ea cer itanduten deutsen. Baya ¿celango moduagaz? ¿Celango otztasunagaz? Edocein conbersaciñotan, edo berbetan lagunacaz balegozana leguez. Ytanduten deutso Confesoreac: ¿Ba'ucazu Jaungoicoa ofendidu dozulaco damuric? Berpertatic eranzuten dau: Bai, Jauna: baya ezta iñondic beré damuari onen igargarriric. Asten da Confesorea pecatuac itanduten, eztau berac ecer aurreratuco. Echaco beste gauzaric enzungo, ezpada *bai Jauna* edo *ez Jauna*. Ytanduten badeutso ¿ceimbat bider eguin dozu pecatu au, edo bestea? Eztaqui cer eranzun; eta nosbaist esaten badau ceimbat izan direan, da destayuan. Amaitu edo acabaduric celan alan confesiñoa, abietan da Confesorea aldaian indar gueienagaz, biotz à bigunduten, eta pecatuen damua artu erazoten; baya esan al-daian guztia ezta asco cizpurruchu bat beré aterateco, ta erazoteco. Ainche dago gogorric, arri bat bailitzan legue-che, batera... bestera beguira, estu ta larri, aric eta absolviciñoa artu artean, luce eguiten yacala, an emoiten daven demporea, bere cereguinetara yoateco ¿Nondic ezagutu, eta igarri leiteque, onec benetaco damua daucala?

9. Baya onelangoac damutasunic eztaunqueenen bildurric andiena emoiten davena da, iminten yacoen penitencia artzeco dauqueen atseracuntzea, eta onetaraco asmetan dituezan achaquiac. Dacus confesoreac guizon edo andra a-ec confesadu dituezan pecatuac dauquen sustraya dagoala pelleburuan, edo arturic dauqueen pecatu-bidean, ta ocasiñoan. Nescatilla bat pensamentu loi, eta araguzco pecatuetan yausten bada, dala mutil gazteren bategaz adisquidetasuna daucalaco, eta au quendu ezic, eztituzala olango pecatuac ichico. Daqui bestearen aserre-aldi, birao, ta erneguac yocotic datorquiozala, eta yocoa ichi ezic, beti pecatu oneetan bicico dala. Aguinu beio, bada, batari ezteitela tabernara eldu, besteari ichi daiela mutil gaztearen adisquidetasuna, yocolariari ichi daiela yoco-lecua, eta ezteitela etse atara beré eldu. (Oneec-gaitic diñodana, diñot beste pecatuen pelleburu, sustrai ta bideac gaitic beré.) !Ce penitencia astuna! ¡Celango aguin-

du garratza! ¡Ce achaquiac ez artuteco, ce isquini, ce propositu aoz-coac, tabernara yoan arren eztala ordituco, mutil edo nescatilleagaz egon-arren, eztala yausico, yocora yoan-arren, eztavela biraoric eguingo? Baya ezaguturic confesoreac au Diabruaren asmua dala, peccataria peccatuan beti euquiteco, eztau absolvidu gura, aric-eta peccatuaren bide eta pelleburuac ichi artio. Orduan dira larriac, orduan esturac, orduan achaquiac ¿Cetatic dator au? Damu benetacoric ez euquitetic. Balego bear dan garbaia, balichaco peccatuari bear dan gorrotoa, berez eta confesoreac aguindu beré eguin bagaric alde eguingo leusquie onango peccatu bide galtzaigarriai; baya eztauque-elaco, gura dave confesoreac emon deioen, eta ichi daguizan lengo pelleburu ta bide galgarrietan. Baya Confesorea gogor badago bear davena leguez, ¿cer eguiten dau? Absolviciñoa ucatu ce daguion, emoiten dau berbea ichico deutsalara ordurarteco peccatu-bide ta ocasiñoari; au da eztala tabernara, edo yoco-lecura yoango, ichico deutsalara mutil edo nescatillearen adisquidetasunari; artzean dau onegaz absolviciñoa, eta doa aserraturic, eta puzca confesorearen contra ¿Noc esango dau benetaco damua daucala? Ez iñoc.

10. Emetishec dator egunean egunean icusten dogun ascoren negargarrizco bicimodua. Ordiac confesadu arren ordi gueratuten dira. Lapurrac confesadu-arren lapur gueratuten dira, loiac loi, murmulariac murmulari. Datoz confesetara damuric artuteco ardura bagaric. Eztatuez artu gura Confesoreac emonico penitenciaric bearren bearrenac; uste dave, Confesorea, estu gach dalaco, iminten deutsalara onango penitencia astun ta garratzac. Orregaitic deriche ce, penitencia au eguiteco obligacinoric eztauqueela, gogorregruia dalaco, eta alan uts-utsic cein absolviciñoa ucatu deioen, emoiten dave eguingo davenen bayezcoa. Uste dave onegaz bein absolviciñoa artu ezquero, ondo confesadu-ta doazala, eta gueratuten dira leen baño deungago, eta peccatu gueiagogaz. Ar'or cegaitic dacuscun ecandu citaletan sarturic dagozanac, confesadu-arren leen leguez gueratuten direala. Bildurturic icaragarrizco egoquera onegaz, eguizue aleguina aurrebideaz ceñen peccatuen damua artuteco, emon deizuen confesiñoac gracia, artu daguizuen bere sari betico gloria. Amen.

FRAY MATEO DE ZABALA

5. DAMUAREN GANECO DOCTRINEA

Dolor meus in conspectu meo semper, quonian iniquitatem meam annuntiabo, et cogitabo pro peccato meo. Salmo 37. v. 19.

(J, 18-21. or.)

Gaurco arratsalde onetan, N.^e E^a M^{ac}, berba eguin bear deutsuet Confesiñoraco gueien bear dan eta guichien izan oi dan gaucearen ganean; eta aushe da ondo confesetaco bear dan pecatuen damutasuna. Confesiño oquer asco eta lar beré asco eguiten dira pecatuac confesiñoan oso osoan ez esanagaiti, baya gaucea ondo daquienac dirauscue ece, oguei eguiten badira pecatuac lotsaz, edo bildurrez gordea gaiti, berreun badireala damu-eza-gaiti eguiten direan confesiño deungaac. Orregaiti bada contuz contuz entzun bear dozue gaurco dotrina au, bada dreachat ece ascoren oneraco izango dala.

Da damua pecatu eguin danaren garbaia, edo pecatuari gorroto biotzecoa artutea aurrerantzean ez ostera eguiteco gogoagaz. Damu au artu leiteque edo mundu onetaco gauzac gaiti, edo Jgcoac aguertu deuscuzan beste munduco gauzac gaiti. Damututen yaco bateri seigarreneco pecatua eguina gachen bat ezarri deutseelaco: edo bere pecatua zabaldu, eta ondrea galduric guztien aotan ebili bearco davelaco. Garbatuten yaco yocolariari yocoan eguina, diru moltso ederra galdu davelaco. Garbatuten yaco lapurrari ostua, Yusticiac atrapau ta presidioetara (yoan) bearco davelaco. Oneec guztioac bada, eta onelangoac dira mundu onetaco gauzac gaiti artuten direan damuac, eta ondo confesetaco orreec gauza eztira. Confesiñoraco bada bear da beste munduco gauzac gaiti artuten dan damua. Damu au dauco guizonac garbatuten yacanean, pecatuac ecarri deutzazalaco calteren batzuc, ceintzuc fedecac eracutsi ezic, ez leuquezan iñondi beré yaquingo. Eta damu oneri esaten deutzagu cerutico damua ez bacarric dalaco Ygcoac aguertu deuscun gauzaren bategaiti, baita beré Jgcoaren gracia eta laguntzea bagaric ecin izan guiñaiquealaco alango damu onic.

Modu bitacoa izan leiteque ceruti-co damuari au, batari dericho Contriciñoa edo amore damua, eta besteari Atriciñoa edo bildur damua. Contriciñoa da pecatuari artutea osterantzeco gach guztiai baño gorroto gueiago Jgco chito on eta maitegarriaren ofensea dalaco. Damu au dator Jgcoari artuten yacon amodio ta maitetasun garbiti, gure onari bapere beguiratu bagaric, ain modutan ece, ceruric ezpalego ondo bici direanentzat, ezta infernuric beré deungueentzat, orregaiti beré damutuco lichauegun pecatu eguina, eta gogoac artuco guenduquezan ez aurrerantzean eguiteco Jgco onac mereci davelaco guc bera beré ontasun neurribacoagaiti matite izatea. Atriciñoa da batec pecatuari artuten deutsan gorrototasuna edo infernuco peneen bildurrez, edo pecatuac ceruco gloria galarazoten davelaco, edo Ygcoaren gracia quendu ta arimea ezain ezain eguiten davelaco. Damu au dator Jgcoaren bildur santuti.

Au (zuec obeto adietaco) obeto aditu (ulertu) daguizuen irudi bat ecarrico deutsuet. Seme batec bere aserre-aldi itsuan (egur bat) maquillea artu ta emoten deutsanagaz Aitari burua ebaten deutso. Artuten dave preso seme ori, sartuten dave carcela ilun ta itzal baten, eta, burdiña galantac ganean ezarriric, anche ichiten dave bacar bacaric. Seme onec, bere sua yoan yacanean, ezagututen dau bere oquer eguina: emoten deutso negarrari, eta damuren damuz erdibitu bear yaco biotza. Damututen bayaco semeari bere burua alan dacusalaco, presidio batzuc icusi bearco dituzalaco, Aitac seni-parte galarazoco deutsalaco, edo berba baten bere buruari yatorcazan calteac gaiti, ar'or Atriciñoa dirudian damu bat. Garbatuten bayaco Seme oni ori eguina, bere guraso onari, errai erraietaric maite izan bear evan gurasoari, alango lotsabaco esquerguetasuna eguin deutsalaco, bere buruaren calteai bapere beguiratu bagaric, aushe da contriciñoaren antzeco garbaia.

Contriciñoa ta Atriciñoa bioc dira damu ederrac, eta gueienac diño eze euren arteco edocein asco dala ondo confesetaco. Orregaiti beré aleguinac eguin bear dozuez confesetara zoacenean Contriciño osoa eroateco, bada ascoz bere obea da alde bitati. Da obea bere sustraian, bada Contriciñoa dator amodioti eta Atriciñoa bildurreti. Da obea gueure arimetara dacarren mesedeagaiti, bada contriciñoagaz beste bagaric confesau baño leen parcatuten yacuz gueure pecatuac, beti orregaiti confesau bear badira beré. Atriciñoagaz barriz ez, ariceta confesau eta ausoluciñoa artu artean. Eta alan pecatu mortala eguin daven bic urtengo baleve etseti Elesharaco confesetaco gogo-

gaz, batac baleroa Contriciñozco damua, besteac atriciñoscoa, eta biac confesau baño leen il, Contriciñoa eroiana ceruraco izango litzateque, Atriciñoa eucana barriz infernuraco.

Eta ez eguizue uste, ascoc leguez, contriciñoa dagoala *Neure Jaun Jesucristo* ezpanacaz esatean, ucabilagaz bularra yotean eta negar eguitean, ez, eztago orretan, ez; eta orreec guztioec eguin da beré yazo leiteque, eta ascotan yazo beré eguiten da, damuric bapere ez izatea; pecatu bateri edo bateri ondo eresten yacolaco, eta biotzean oraindo ostatus emoten yacolaco. Damua bada dago biotz barruan, biotzeti pecatuari gorroto benetacoa artutean, ez beste bein eguiteco gogoac lagunduten deutsal. *Neure Jaun Jesucristo* esatea, bularra yotea, eta orreec izan oi dira damutasuna biotzean sortuteco edo biztuteco, eta negar ampuluac sarri lagundu daroaque damuari: baya ain bagaric beré damu ona euqui lei... Seme bat gurasoai ilten yaquenean amac eguin daroaz negar eta ileta andiac, aitari echaco alangoric icusten amac alaguiña min biotzean badauco beré. Orregaitic, Cristiñau onac, pecatuari gorroto deutzazuenac, ez larritu biotza samurtuten ezpayatzue, eta negarric ecin eguin badozue: zuec biotz barruan gordeta daucazue becatuen gorrotoa ta benetaco damutasuna, zuen bici-moduan aguertuten dana. Ceuec barriz, pecatariac, gaistaquerian ondatuta bici izan zareenoc, eguizuez aleguinac zuen biotz gogorroc austeco, eta orain artean eder erechi deutzazuen pecatuari gorroto gogorra artuteco.

Eta damu au artu bear da Confesoreac curutzea eguin baño leenago, edo bai beintzat eguiten dagoan artean eta ezta asco arrezque-ro artuten dana. Baya ondoen ondoen da Confesorearen belaunetara baño leen aleguina eguiteda damutasun ori izateco; bada confesetara ezquero pecatuac gogora ecarri ecinac, eta ceatz esateco ardureac cer-eguin asco emoten dave, eta artietan artuten ezpada, erraz da guztiz orduan artu bagaric guelditutea. Egia da confesoreac azcanean eguiten davela bere aldeti damua bere oñetan daucanaren biotzean sartutearren; baya bateti orduco aleguinac laburrac izan doaz, guztiz beré misiño denporan ascoren confesiño luceac artu bear direanean; eta besteti barriz Confesoreac esan ta esan diñarduanean ¿cetan egoten dira sarri-ascotan bere oñetan dagozanac? Ea ecer aztu bayaque esatea. Aldiric onen onena damutasun ori artuteco da esamina concienecioa eguin-da bertati.

Damua ona ta bear dan leguezcoa izateco zabaldu bear da pecatu mortal guztietara. Ondo confesauco danac euqui bear dau eguin ditu-

zan pecatu mortal guztien damua; eta bat-chu baleuco damuric emoten ezteutsana confesiño donguea eguingo leuque, eta ez lichaquio peccaturic bapere parcatuco. Esan eguidazue guizon batec baleucuz iru zauri edo herida zacon, ceinetarico bacochoac osatu ez-ic eriotzea ecarrico deutsanac, eta oficileari dei eguinda esango baleutso zauri bi osatuteco, baya irugarrenari ez yaramaiteco, ¿cer esango leusquio oficiale orrec? Zoroa, esango leusquio, ¿cetaraco da bi osatutea? bardin bardin ilgo zara irugarrenegaz, cein-da bapere osatuco ezpalitz. Beste orrenbeste da bada pecatuacaz ta pecatuen damuagaz beré. Eta alan confesetan dan batec baleuquez (-ca) iru edo oguei pecatu mortal, eta baten damuric ez artu, beste ganeco guztien ganean damua izan arren ez leuque gauzonic eguingo, elichaquio baperé (coscolic), garauric beré peccaturic parcatuco.

Ascoc, diño S. Agustin-ec, ascoc erdizca parca escatuten deutse Jgcoari. Batec gorroto andia deutso lapurreteari: baya biotzean sartuta dauco urliganaco zaletasun ez garbi garbia. Besteac eztau seigarrenecoric icusi gura; ezta urruneti beré: baya ezteutso arduraric tratuan bear eztan leguez irabaci arren. Besteac obrazcoric ez leuque mundua gaiti eguingo: baya baqui mosuca, oracadaca, zantarquerietan ebilten. Oneec dira araco, mutilac ariagaz (firuagaz) caderati catigu daucan, chorichua leguez. Chorichu onec libre dauco burua, libre iduna, libre cadera bata, libre egoac, (libre buztana). Abietan da egaz eta lelengo abiaduran esan lei ece eztagoala iñondi beré catigu: baya ¿cer da orregaiti caderati loturic badago; eta mutilac gura davenen ariti tira eguin-da bere escura badacar, beragaz gura davena eguiteco? Ez, diño S. Agustinec, eztaqui Jgcoac oso osoan baño pecatuac parquetan, edo guztia, edo bapere ez. Eta ¿ceinbat eta ceinbat ete dira confesetara datoanac alango damu labur pecatu guztietara elduten eztanagaz?

Baya asco badira beré niri derichat ece bitara datozala guztia, eta oneec dira peccatuti mesede artu daveenac, eta onduteco proposituric eztauqueenac: Lelengo bada gueienez damuric eztaoe izaten, egin izan daveen peccaturic mesede izan daveenac, edo izango daveela uste daveenac. Pecatuac munduraco calteac dacazanean laster da gorrotauric, eta andic ara erraz izaten da Jgcoaren ofensea dalaco beré alango peccuari gorroto artutea; baya oquerreco guztia yazoten da peccaturic mesedeac yatorcuzanean. Orduan gach baño gachago izaten da alango peccatuaren damuaria artutea. Otsein batec eguin izango dau ugazabagaz peccatu; peccatu onetaric etorri yaco beragaz

ezcondutea, eta ugazaba andra izatea. Dacus bere burua uste leiquean baño obeto, ondasunen artean, eta eheco aguintari eguinic. ¿Celan artuco deutso onec gorroto onenbeste mesede eguin deustan pecatuari? Tratulari batec batu dituz bere artu-emon charracgaz diru galantac, (edo contrabandoan eguinic) edo neurrian ta pisuan guichiago emonda, edo gauza caltetuac onacgaz nastauta. Dacus bere burua escu-arteco onagaz eta leen bashen cerchubait gueiago dirudila. ¿Celan bada onec gorroto artuco deutse alango tratu ainbeste mesede eguin deutseenai? Beintzat guztiz gacha da.

Onelan damuric eztaoe izaten gueyenean ezcontzaco esperantzeagaz pecatu eguiten daveen nescatillac, ezcontzaco usteac aurrera doazan artean. Eta ezcondu ta beré onetarico ascoc eztaoe ezcontza aurreco pecatuen damutasunic artuten, eta ascotan alangoen ganean itanduten yaqueenean erantzun daroa epel epelic: Jauna eguin guenduan, baya alcar erremediau guenduan. ¿Cer da erremediau arren? Pecatu eguina eguin eta ezta ori garbietan ezconduagaz; ezpada damu zoliagaz eguiten dan confesiñogaz. ¡Ay! neure Cristiña'ac, negar eguitecoa da onen ganean ascoren artean yazoten dana. Ascoc uste dave ece bein ezontzaco berbea emon ezquero Jgcoaren aurreraco ezconduta dagozala, eta edocein gauza eguina gaiti ezteutse ardurara. Guzurrea da ori, eta guzurra beré guzur andia. Eleshearen aurreti ezcondu artean ezta ecerchu beré libre, eta ecer eguiten bada pecatu izango da bardin cein da ezcontzaco barbaric emon ezpalitz.

Eztaoe damuric izaten guraso ascoc ceintzuc euren umeac ezcondu ditezan amurruagaz, aguinduten dituez fiestetara, celaietara, biguireetara, dantza nastuetara, eta alango mutil-necatillen arteco batzarreetara. Onelango gurasoac euren umeai pecatu eguiteco bideac emoten deutseez, eta alde orretati euren lepoganean dituez gazteac eguiten dituezan eta eguin leiqueezan pecatuac. Baya etorrigo yaquela uste daveen mesedeac itsututen dituz, eta eztituez ecetan artuten onelango pecatu icaragarriac. Jauna, alan ezpadabiltz eztira ezconduco. Eta ¿cer? Ezta beinago Jgcoaren leguea? Zori-gogorreco (gaistoco) ezcontza gurea, guraso ascoc Infernuetara bota dituzana, eta oraindo bere botaco dituzana! Etzaituez bada infernuti ateraco ume ezcondu orreec. Baya ezta eguia alan ezpadabiltz ezconduco eztireala. Obeto ezcondu oi dira eta lagun obeacaz alan eztabiltzazana.

Eta ara damu guichiago izango dave gurasoac, euren umeac urlia-gaz edo urlinaia-gaz ezcontzea eguitera etorri daitentzat, edo eguin

ezquero galdu ez daitentzat, ichiten deutesenac semeari nescatillearen echera yoaten, edo besteco mutilari eurenean sartuten: baita izan oi dira onelangoen artean gurasoac gazteac alcarregaz bacarchuric ichiteco, eurac etsetic canpora, solora, atartera edo bestetara (besteneca) urteten daquienac. ¡Oneec bai guero confesiñoraco damua! Yaquina da bada gazteac bacarric egon-da eztireala errosarioac esaten egongo. ¡Ay bada ce contu estua izango daven guraso ascoc onen ganean Ygcoaren aurrean aguertu ditezanean!

Damuric eztaoee confesiñoetara prest dagozanac irabaci bideba-coac eguitemo. Onelangoac dira araco mercatari, dendera eta tratulari atera al daven guztia ateraten daveenac, beguiratu bagaric cer dan legue eroatea; edo tratu oquerrac eguin, neurrian ta pisuan labur emon, edo adiona ta bastua finagaz, ta charra onagaz nastauta, iñoen lepoti aberaztuten direanac. Onelangoac dira bere Errietan carguac dituezan asco, bada euren artean izaten dira tranpac eguiten daquiezana, eta guero tranpac estalduteco, contuac emoteco orduan tranpa barriac. *Neque asco artu dot*, esan daroe, *besteac beré alan eguin oi davee*, au da euren betico leloa, ta soñua, baya itandu ez alanbere confesore on bateri ea garbiro eguin albaleite. Egin da guero izan oi dira quezcac, biozquetac ta beldurrac, eta esaten deutse cerbait confesoreari; baya orduan beré milla edergarriz yancita, confesorea euren aldeti euquiteco: Eztauque onelangoac damu onic, eta eztave gauza dan confesiño onic eguingo, aric eta quendu daveen guztia atzera biurtu artean. Eta Errico cargudunac gaiti esan dodana, esan bear da Mayordomoac gaiti, eta Cofradietacoac gaiti, alango tramparic eguiten badave eztavela damuric, aldaveela, biurtu artean, eta gach izaten daveela damu ori artuten.

Damuric beré izan ez oi davee gauza ostuac, biurtu al leguiezala, yaubeari biurtuten ezteutzezanac, edo zor eguiazcoai, bear dan leguez, erantzuten ezteutesenac. Damuric izan ez oi dave testamentario eta herederu ascoc, dirua arima fielac baño maiteago daveela bici direanac, urte osoetan ilac ichi cituezan zorrac pagau bagaric, eta mezaac atera bagaric, beti luzatu ta beti luzatu arima gaishoen caltean. Damuric izan ez oi dave Escribaiüac eta beste oficio ascotacoac, legueac aguinduten daven baño aloguer edo sari gueiago eroaten daveenac. (Eta damuric izan ez oi dave diruac corrian onenbeste demporaco emoten daven asco, aren ganeti ileco edo urteco onenbeste eroaten daveela). Oneec bada, eta onelangoac gueienean eztaoee damu onic izaten, bada batzuei etorteco dacusten mesedeac zora-

tu eraguiten deutse, eta gach eguiten yaque ori galdu bearra; beste batzuei barriz gogor erezten yaque bacochari berea emon bearra, araguituric eta etsecoturic dauqueezan ondasunetati.

Alan milla achaquiagaz yoango yaquez confesoreari: *Jauna, ecin dot orain; familia mantenidu bear dot; yanci bear dot; urte charrac izan doguz; Jgcoac ecarrico ditu beste denpora obaago batzuc eta orduan egingo dot...* Damu-bacoen achaquiac gueiengan. Baya, neure Cristiñauac, onelangoacgaz eztozue Jgcoa engañauco; ac ondo daqui zuen biotzen barri: ac ondo daqui nogaiño elduten direan zuen aleguinac, eta cer eguiten dozuen.

FRAY MATEO DE ZABALA

6. ONDO CONFESETACO BEAR DAN PROPOSITU EDO GOGOAREN GANECO BERBA-ALDIA

(B, 99-103. or.)

1. Ondo confesetaco bear dan irugarren gauea da Propositua. Au ezta beste gauzaric, ezpabere artutea bene-benetaco gogo, edo borondate irrime eta sendo bat, ez ostera pecatu eguiten biurtuteco. Iru gauza euqui bear dituz Proposituac ona izaiteco; izan bear da pecatu guztiena; sendo edo irrimea, eta eraguillea, edo alde-eraguiten deusana pecatariari pecatu guztietatic; eta euren bide eta pelleburu yaquinetatic. Lenengo izan bear dau pecatu guztiena; au da, euqui bear dau gogo edo propositu sendo bat ichiteco ez pecatu au edo bestea, ezpabere direanac; eta alan ezta asco, pecatu batzuc ganaco borondatea istea, gordeetan bada beste batzuc ganacoa. Esateraco: Guizon batec uts eguin dau mecea yai-egun baten bere guraz, eta azaz ganetic dauco ecandua bere araguiagaz pecatu eguiteco, edo ezpabere ordituteco. Bada onen propositua ona izaiteco, ezta asco artutea gogo bene benetacoa beste-bein mecea yaiegunean ez galdu-teco, euqui beré bear dau borondate oso-oso, pecatu loi, edo ordituteco daucan ecandu citela goitu, eta quentzeaco; osteranchean onen Propositua utsa da, ezta prestu parcatuteco, ez pecatu loaia eta ordiqueria ceinen Proposituric eztauquen ez-ece, baya ezta meza galdua beré, aen propositua euqui-arren. Ecanduzco pecaturic badago, eurentara ez biurtuteco Proposituan imini bear da arduraric andiena, gachago dalaco; eurac isteco gogo edo borondatea artutea, guichitan, eta nosic beifnean eguiten dana ez eguiteco baño. Sarri ta sarri dacusgu eguia au. Betor confesetara norbaist pecatu modu bigaz: izan bedi bata noshean bein bashen eguiten eztana, eta cein-eganaco ecanduric eztaucan: esateraco, mecea edonos ardura-ezagaitic galcea. Izan bedi bestea, ceinen ecandua daucan; contu eguizue: ordituteco edo araguzco pecatuac eguiteco. Bada guztiz erraz eguingo yaco, artutea Propositu sendo ta indar andico bat, ez gueiago mecea erratuteco;

barriz, guztiz astun, gach eta garratz eguingo yaco tabernea edo araguzco pecatuac ichitea. Agundu bequio ordituteco ecandua daucanari tabernara yoan ez-eiteco; ¿ce gach, ce nequetsu, ce aldatz-gora eguiten ez-yaco? Artuco dituz penitenciaric gogorrenac; baya ecin iñondic beré ecarri al izango da, tabernea ichitera: ¡celango achacuiac! ¡celango aguintzaac! Eta bear bada celango yuramentuac, eztala ostera ordituco tabernara yoan-arren! Al daian guztia eguingo dau Confesoreac galaazo ce daguion tabernara yoatea.

2. Betor confesetara mutil nescatillaren bategaz pecatu eguiten davenen bat, ta olgura, erromeria, edo danzan ibiliagaitic pecatuan yausten danen bat; onec badauco beste pecatu ecandubaco bat, berpertatic artuco dau, beste bein eguin ez-eiteco gogoa, eta emongo dau berba osoa, eztala iminico pecatu atan yausteco pelleburuan; baya agundu bequio ichi daiala nescatilla agaz daucan adisquidetasuna, eztaguiala beragaz berba-aldi luceric euqui, ezteitela beragaz bacarrean egon, ezteila yoan erromerietara, danza, ta fiestetara: ¡ce penitencia astuna! ¡Ce gogor, ce garratza! Eztago iñondic beré onda-bide onec ichi erazoteco moduric. Ba'quizue, guero, cegaitic dan ain gach, ecanduzco pecatuetara ez biurtuteco propositua euquitea? Ara bada: Ceimbat eta sarriago eguin pecatu bat, aibat eta andiagoo da beraganaco echutasuna; ceimbat eta andiagoo echutasuna, aibat eta gozoago; ceimbat eta gozoago aibat eta gurago; eta ceimbat eta gurago aibat eta gachago bera ichitea.

3. Gura dozue oraindio beré obeto ta obeto ezagutu, ce gach dan, ecandu charra quentceco gogoa artu edo euquitea? Beguira, bada, cer yazoten dan ecandu deunguen bat daucanagaz. Sarri icusten dira guizon eta andra guztiz santu dirudienac; egunean egunean errosarioa errezau, eta mecea enzuten davee: sarri confesadu eta comulgadu, beti errecetan, eta al daien guztian Eleshara; pecatuen gueric berac bildurtuten dituz, ta nosbaist pecatuan yausten badira eztaucque baqueric aric-eta confesadu artean, eta esan leiteque, artez artez doazala cerura. Euqui begui onetarico batec ecandu cital bat; contu daigun; sartu bedi tratu charretan, edo saldu-erosi oquerretan, atera begui irabaci on bat, zaletu bedi irabazi onetara, aberaztu bedi bere lucreriaca, bein sartu bequioz biotzean deungaro irabazirico ondasun orreec, bada icusico dozue, celan eztaven pecatuzat beré euquico daucan irabaci modu oquer au. Aurrera daroaz bere debocino, errosario, meza, barau, limosna eta beste eguite onac; baya aurrera daroa tratu eta irabaci charra beré. Esan bequio eztireala bereac dau-

cazan ondasunac; ichi daiola saldu-erosi bide baco ari; lucreria dala-ta; eztau yaramonic beré eguingo, eztau sinistu beré eguin guraco, pecatu danic. ¿Cetatic derichazue datorrela, beste pecatu guztien gorrotoa equi-arren, lucreria pecatuzat beré ez euquitea? Artu daven ecandutic. Saldu-erosi oquer edo tratu charrac gaitic diñodana, diñot beste ecandu citalac gaitic, celangoac direan: ordiqueria, loiqueria, murmuraciñoa, biraoa ta maldiciñoa, eta yuramentua. Eta (ta alan) ¿cer balio deutsu beste pecatu guztien ganeco propositu irri-meena euquiteac, ezpadaucazu guztiena? ¿Cer balio deutsue ceure meza, errosario, barau, confesiño eta Comuniñoac? Ecer-bere-ez. Ain zaucaz catigu Demoniñoac, cein-da ba-peren beré proposituric ezpaceunco. Chorichu bateri yazoten yacana yazoten yatzu zuri beré. Artzen dau mutil batec chorichu bat, eta lotuten dau cadera batetic ariagaz. Chorichu onec libre daucaz burua, iduna, cadera bata, egoac; eta esan leique gura daven lecura yoan leitequeala. Baya ¿cer deutso, buru, idun, gorputz eta egoac libre euquitea gaitic, cadera batetic catigu badago? Araco uste davenean libreago dagoala, eta nora-gura egaz eguingo davela, eztazaü alaco caderan daucan aria, tira eguiten deutso mutilac eta dacar escura, eta eguiten dau beragaz gura davena. Onen beste yazoten da zugaz Demoniñoaren artean; loturic zaucaz gaisquiñac ecandu citalagaz. Zuc ecandu oneri deuntsazun echuntasunagaz, eztozu ezaututen loturic zagozanic; eta beste peaturic ceugan eztacutsulaco, derichazu libre zagozala. Ceure debociño, meza, confesiño, comuniño ta limosnacaz uste dozu cerura zoazala egaz; baya engañaduric zagoz, Demoniñoac zaucaz loturic, ta catigu ecanduaren firuagaz; eta ezteutso arduraric, zu beste pecatu guztietatic libre egotea gaitic, bacar bategaz bere azpian bazaucaz. Orregaitic gura badozu urten Demoniñoaren atzamarretatic, pecatu guztietara zabaldu bear dozu ceure propositua.

4. Bigarrengo: Propositu edo borondate au izan bear da sendo, irrimea eta indartsua, au da prest egon bear da, daucana galtzeaco, bear bada, ondasun, diru; ondra, eta bicitzea bera, peatura ostera biurtu bashen leen. Propositu au equi leiteque, bildur izan arren, ameneco barriro yausico dala pecatuan. Contu daigun: Dauco batec bere araguiagaz pecatu eguiteco ecandu deunguea. Bildurturic infernuan yausteco daucan pelleburuagaz, artuten dau peaturic urteiteco gurari bici bat. Onetara al-daian ondoen pretauric confesetan da. Dauca pecatu onetara biurtu ez-eiteco gogoa, eta gogo sendo bat; baya ezagaturic, ce luzaro iraun deutsan ecandu cital onec, ce indar

andia artu daven, ce gozo eguiten izan yacan, ce echutasun andia sentietan daven bere araguiian, bildur da ostera yausi erazoco deutsalala bere argaltasunac pecatu onetan. Onec bada, bildur izan-arren pecatuan yausico dala, badauco borondate osoa, alde eguiteco aleguin guztiagaz, pecatuen bide ta ocasioetatic, euquico dau Propositu benetacoa. Baya ¿cer diñot? Bildur au ez bacarric ez da Proposituaren contracoa, ezpada benetacoa bada, berac sendatu ta fuertetuco dau, bada artu erazoco deutsalaz pecatuen bide ta pelleburu guztietatic iges eguiteco, arduraric andiena.

Irugarrengo: izan bear da Propositua erazoguillea; au da, artu erazo bear dituz pecatuan barriro yausi ez-eiteco al-dituzan modu guztiac. Aushe da Proposituac bearren daben gaucea, eta cetan ezaututen dan benetaco dan-ez; eta yaquin gura badozu euqui dozun, ala ez, bear dan propositua, beguira celan bici zarean confesadu ezquero. Ceatz eta ondo cumpletian badozuz Confesoreac emonico penitencia guztiac, ez bacarric araco pecatuen zorra paguetaco eta quitututeco direanac, ezpabere beste barrien barri biurtu ez-eiteco lengo pecatuetara, beré direanac beré; baita gogo onegaz ichiten badozuz leen pecatu erazoten eutsuezan bide eta ibilunaac, eta alde eguiten badozue pelleburuetatic, zure Propositua ona, eta irrimea izan zan. Barriz ezpadozuz ceatz, ta ondo ondo eguiten araco pecaturic urrun eguiteco direan penitenciac, ichiten ezpadozuz pecaturaco bideune, pelleburu ta arri labanac, eta ezpadozu eguiten aleguin guztia ecandu citel ori quenceco, ezaun (aguiri) da eztozula euqui propositu benetacoric, eta etzareala ondo confesadu. Arpelic esango dozu Propositu sendoa daucazula, ez beste-bein pecaturic eguiteco; arpelic eguingo dozuz penitenciaric icaragarrienac; arpelic emongo dozu egun guztia errecetan; eta arpelic negarretan urtucu zara, ce eztaucazu gogo edo Propositu eguiaczoric, ta utsac dira irudi utseco ezaugarri eta salañe naste orreec.

5. Obeto yaquin daguizuen nos daucazuen Propositu benetacoa, eta nosh ez, gura deutsalala imini irudichu bat. Nescatilla bat dago etse baten otsein, serbietan. Dauco soldata ona, probechu andiac, eta betico ondo gueratuteco uste andiac, eta esperanza galantac. Artuten dau adisquidetasun loi eta lotsagarri bat ugazaba, edo beste ehecoren bategaz, eta dago dempora lucean itsuturic icaragarritzco pecatu loian. Idiguiten dituz nos edo nos bere arimaco beguiac, eta icusiric infernu baten yausi aguinean dagoala, doa negarretan urturic confesetara. Orain bada, ¿gura dozue yaquin onen propositua sendoa, eta

eguiazcoa dan-ez? Beguira, bada, cer eguiten daven. Ceatz eta ondo eguiten badituz Confesorearen esanac, ta berac emonico penitenciac, eta onec aguinduten deutsalaco, urteiten badau etse atatic, gurago dituzala galdu daucazan probechuac, ondo gueratuteco daucan esperancea, eta bear bada artuen daucazan soldatac, pecatura biurtuteco pelleburuan egon bashen, aguiari da propositu eguiazcoa daucana. Barriz atsera badago etse ataric urteiteco eta aleguinac eguiten badituz, cein confesoreac urte erazo daguion; edo, bein urtengo davenaren bayezcoa Confesoreari emonic, cein absolvicioa ucatu daguion, bertan gueratuten bada, soldatac eta probechuac galdu ez-eitarren, gueroco ondo gueratutearren, edo cer-esango daveena gaitic, eztauco Propositu benetaco edo eguiazcoric, eta Confesio charra eguiten dau. Oneri ezteutso balio arean esateac etse atan egonagaitic eztala gueiago yausico pecatuan, eztala bacarric egongo, orduraguiño pecatu eguin davenagaz, ezteutsala urreratuten beré ichico, eta artuco dituzala al-daizan modu guztiac pecatuan barriz yausi ez-eiteco; ce bertan dagoan artean, pecatuen bideune labanean, eta pelleburuan dago, baita alan dagoan artean ecin esan leique propositu benetacoa daucala.

6. Berberau diñot beste pelleburuac gaitic beré; eta alan tabernan ordituten danac, ecin esan lei... propositu benetacoa daucala, taberna ichi-ez-ic; yocoan aserratuten danac, birao eta maldicioac ezarten dituzanac ecin esan lei... propositu eguiazcoa daucala yocoa ichi ez-ic. Jolas, olgura, erromeria, danza, eta mutil-nescatilla arteco adisquidetasunetan infernuco su ciquin eta loian erretan danac, eta berba atsituac esaten dituzanac, ecin esan lei... propositu eguiazcoa daucala, pelleburu guzti onetatic alde eguin ez-ic. Beste gauza baten beré aguiari da propositu-eza, edo onduteco gogo faltea, eta da, confesoreac emonico penitencia arceco atseracuntzean. Dacus confesoreac, confesetan danac daucala ecandu citalen bat, edo beragan yausiteco pelleburua, erremediau ecic. Contu daigun: dacus daucala bere buruagaz ucutu edo escuca loiac eguiteco ecandu lotsagarria, edo artu aguean dagoala: dericho confesoreari, ecandu au quentceaco, edo artutea galarazoteco bitartecoric, eta erremedioric, indartsuena, eta onen onena dala amabosteric amabostera confesetea: Aguinduten deutso, bada, penitencia au, ¡Ene! ¡ce garratz! ce astun ta gogor! ce gach ta gaci eguiten yacan penitencia bigun au! ¿Celango achaquiac eztituz asmetan? Beste edocein-beré penitencia, guztiz astunago izan arren beré, errezago eguiten yaque. Beste batec dauco biraoac, añe-

nac, yuramentu guzurragazcoac botateco ecandua; dacus confesoreac ecandu au daucana, urteric urtera bashen confesetan eztalaco, orregaitic aguinduten deutso penitenciatzat, illabeteric illabetera confesetaco. ¡Jesus! ¡ce penitencia astuna! ¡ce confesore gogorra! Ez nauco ain laster oster bere oñetan icusia. ¿Ce aleguinac beste penitencia bat emon daguion? Oneec eta onelangoac eztauque pecatura biurtu ez-eiteco gogoric: ce baleuque, poz-arren ozta artuco leuquee, euren arimeen osaguilleac emoiten deutsan, osasungarri ondutecoac.

7. Esan danetic, errez ulertuco dozue, neure enzula maiteac, confesiño on bat eguiteco gauzaric gachena, baita beré bearren bearrena, dala, pecatuac, guztiz ichiteco gogoa; orregaitic bada, onetanche imini bear dozue arduraric andiena. Derichat aimbeste confesiño deunga eguiten badira, gueienac gogo onen faltaz direala. Ascoc eta ascoc uste dave ce, bein esaminea eguin, pecatuac confesadu, eta absolviciñoa artu ezquero, eguinic dagoala ondo confesetaco bear dan guztia. Dacus confesoreac, pecaturaco bidean dagoan batec, ezavela urten gura pelleburutic, eta ucatuten deutso absolviciñoa. Anche dira larriac, estucuntzac, eta negarrac ¿Celango erreguac, celango escaariac, celango isquintza galantac absoluciño-bagaric bialdu ce daian. Esaten deutso confesoreac, ichi daguiala lenengo pecaturaco bidea, urten daguiala daucan pelleburutic, eta emon daguizala leenaz eta aurretiaz bere proposituaren igargarriac; bada bestelan absolvietan badau, bien arimaac galduco direala. Ezteutsala ecerbere balio absolviciño arin emonac, leen bashen deungago gueratuco dala: ce, pecatuac parcatu eta gracia artu bearrean, beste pecatu icaragarrizco eguingo davela. Adietan emon daguiala leenago beré Propositua, eguinagaz aleguina bere ecandu citala quentceaco, edo guichienez guchituteco, ichi daguiola pecaturaco bideari, urten daguiala bideune char ta pelleburuetatic, ce, au eguin-ez-ic, ecin iñondic beré absolvidu leiqueala. Baya au guzti au ezta asco. Gura leuque leengo ecanduan aurrera yoan, pecatu bidean gueratu, lengo pelleburuan egon, ta absolviciñoa artu; eta deungueen deungueena dana, uste dau ce, absolvietan badau confesoreac parcatuco yacazala guztia.

8. Guizon itsua, andra sensunba'coa, ¿cetaco dozu, cer balio deutsu absolviciño orrec? ¿Cer aurreratuten dozu bera artuagaz? Pecatuan barrurago sartzea, Demoniñoaren laquioan estuago catiguric gueratutea, Jaungoicoaren arerio izaitea infernuaren urrago yoa-tea. Orregaitic ecin confesoreac mesede andiagoric eguin leiquezu

absolviciñoa ucatutea baño: eta eguin leiquezun gach eta calteric andiena da absolvietea: bada ucatuten badeutsu, da urten daizun, infernura daroazun bidetic, eta sartu zaitezán ceruco bide artecetic; baya emonagaz absolviciñoa, ichiten zaituz ceure betico condenaciñooco bidean, eta charren dana, sinistu-erazoten deutsu ceruco bidetic zoazala. Itsuturic modu onetan, aurquituten zara infernuco ateetan. Gura badozu bada zure confesiñoa ona izan dedin, eta confesoreac absolvidu zaguizan, emon eguizuz ceure proposituaren igargarriac; urratu eguizuz ecandu citalac, ichi eguizuz ocasiñoac, urten eguizu pelleburuetatic, eta erdu J.C°.ren oñetara; esan eguiozuz berari, confesoreari esanagaz, ceure pecatu guztiac, eta orduanche gueratuco zara pecatuen catea bagaric, eta ibilico zara bide artezetic, ceinec eroango zaituzan cerura. Alan izan daiteala. Amen.

FRAY MATEO DE ZABALA

7. [PROPOSITUA]¹

(J, 22-25. or.)

Pecaturic mesede artu daveenetati igaro gaitazan proposituric eztauqueenetara. Damuari, ona izateco, lagundu bear deutso pecaturic ostera ez eguiteco gogo eguinac: aushe dau bere betico laguna, eta bera bagaric ezta gauza damu ori. Damututen yacanac cerbait eguina, eztau gura alangoric barriro eguin, eta aleguinac eguiten dituz beste bein ez eguiteco. Damututen bayatzue edonori artoa epe-tan emona, iñondi beré aren diruric artu ecin dozuelaco, esan daroazue: *yaquin izan baneu bada... Ez, eztauco ain laster nire artric artu-ric*. Alan bada damututen yacanac becatu eguina, gura ta gur' ez artuco dau ostera ez eguiteco gogoa. Gogo oneri esan daroaquegu *Propositua*.

Da bada propositua pecatuaz ondo damututa dagoan Cristiñauac artuten daven erabaguitasun eta gogo biotzeco sendoa ez gueyago pecaturic, beintzat ez mortalic, eguiteco, eta alde eguiteco pecatuen bide urco—ezagunetati. Ecin izan leiteque damu benetacoric, urren-goan pecaturic ez eguiteco gogoa bagaric, eta damu eguiazcoac beragan sartuta daroa alango asmu ederra. Alanbere beti da chit ona eguita propositu, eta gogo argui apartecoa: baya Cristiñau on, pecatuari gorroto deutseenac, ezтира larritu bear, gomatau ecin badira, eguin ete dituezan alango propositu damuaz ganeticoac. Propositua sarturic badago beré benetaco damuan, ezтира orregaiti bioc bat. Damuac beguiratuten deutse leen eguin da dagozan pecatuai, proposituac barriz etorquizunai. Batagaz damu dau pecatu egina, bestegaz gogoa ta asmua dauco gueyago ez eguiteco.

Propositu au euqui leiteque bildur izan arren barriro beré pecatuan yausico dala, badauco batec gogo eguina ta osoa bere aleguinez pecatuen bideetati alde eguiteco. Eta gogo ori cindoa bada, bildurrac berac bizcortuco dau aleguin orreec eguiteco. Idi-proba baten bosteco bat postura eguiten davena bildur da galduco davela, baya alanbere beti dauco gogoa, irabazteco aleguinac eguingo dituzala eguita-

¹ Jatorrizko testuak ez dakar izenbururik.

co, eta alan eguin beré eguiten dituz. Eguin beguiz pecatariac bere aldeti dagozanac, eta Jgcoac lagunduco deutso peccaturic ez eguitemo.

Gauza bi bear dituz Proposituac bear dan leguezcoac izateco, izan bear dau peccatu guztien ganecoa, eta eraguin–guillea. Lelengo peccaturic ez eguitemo gogoa zabaldu bear da peccatu guztietara; au da artu bear da gogo sendo eder–bat (bein bere) ez eguitemo, ez peccatu au edo bestea, ezpada bapere ez eguitemo; ezta onenbeste denporan, illa betean urte betean ez eguitemo ezpada bein betico ez eguitemo. Eta alan batec baleuco peccatu mortal bacar bat eguitemo gogoa, beste ganecoric ez eguitemo gogoric izan ez arren, ez leuque gauza izango bere propositua. Onelangoac izan oi dira leen aitatu deusuedazan, eta peccaturic mesede etorrigo yaquela uste daveenac.

Proposituac bear daven bigarren gauea da izatea eraguin–guillea, esan gura dot propositua benetacoa bada, bera daucanari artu eraguigo deusazala peccatuan ez barrigo yausteco modu guztiac. Aushe da porposituac bearren davena, eta onetan igarten yaco, benetacoa izan bada edo ezpada. Peccatari batec gogoz artuten badituz Confesoreac emoten deusazan penitenciac, ez bacarric lengo peccatuen zorrac ateretaco direanac, baita beré urrengoan ez yausteco iminten deusazanac, eta guero ceatz eta ardura onagaz eguiten badituz: alde eguiten badau lengo bide charreetati, lengo lagun deunguetati; eta aleguiyac eguiten badituz barrigo yausi ez eguitemo, propositu ederra; propositu galanta eta Jgcoaren beguiteman asco balio davena. Baya alan eguin bearrean, asten bayaco Confesoreari muquerca; edo bayetz esan arren, guero yaramonic eguiten ezpadau: badabil lengo bideetati, lengo lagun charracaz; orrec eztauco benetaco proposituric.

Nescatilla otsein bateri ugazabac edo etseco Semeac emon deutse deungueraco bidea. Dirautso Confesoreac etse orretaric urteteco. Bertati urtetan badau guztiai largata, aguiari dau propositu ona daucala. Baya asten bayaco Confesoreari achauquiteman, artu gura ezic milla bayacagaz: *Baya, Jauna, cer esango dave urtea eguin bagaric urte ten badot: baya Jauna, etse orretan beste etseetan baño soldata ohea, eta probechu andiangoac dagoz, eta ni guraso pobreen alabea, ecer eztaucadan bat nas:* edo esan arren Confesoreen belauiteman ondo eguitemo dagoala, guero bertan, urten bagaric gueldituten bada, aguiari dau eztaucala gauza dan proposituric. Ordi bateri esaten deutso Confesoreac, ez tabernan ofiic sartuteco, ez hondreetara elduteco, ez lagun ordiacgaz batuteco eta eda–aldi bacochean, gosh baten,

arrastegui baten quartillu batez gora ez edateco. Alan artu, eta alan eguiten badau propositu galanta, baya artu gura ezpadau, aurrera badaroaz tabernara bideac, ta lengo moduac, ezta gauza bere propositua. Onetan ecetan baño obeto igarten da, noc eztaucan benetaco damu cindoric; eta noc ez propositu eguiazcoric, eta orregaiti lecu onetaraco ichi dodaz leen icentadu neiquezan asco.

Lelengo eztauque propositu erazo guilleric eta orregaiti eztaroe damu eta propositu osoric eta benetacoric, cetan edo atan pecatu mortala eguiteco ecandu charra dauqueenac, ecandu ori galduteco aleguinio eguiten ezpadave. Onen artecoac dira araco guraso umeai edo umeen aurrean ascotan birao eguiten daveenac, confesau arren bein bere onduten eztireala. Onen artecoac dira guzurraren ganean lancean lancean yuramentu eguiten daveenac, esaten daveela euren guzurra aurrecoai sinistu eraguiteco: *ceinda Jgcoa ceruan dagoan: e-neunque ceruric icusi gura ori alan ezpada*, eta onelangoac. Onen artecoac beré dira yaiegun oso santuetan bear debecau ta eragotci luceac, euren maña gaistoz, eguin daroezanac, Confesoreac bein baño gueiagotan ez eguiteco aguindu arren.

Propositu eraguin-guille bacoen artean sartu bear dira seigarreneco ciquinqueria lotsagarriac, edo euren bacarrean, edo bear bada lagunagaz, eguiteco ecandua arturic dauqueenac, eta confesau ta confesauta beré onduten eztireanac: Euren artean beré pensamentu loiac gogoan erabilita euren barruan erretan egon oi doazanac, campoti ecerchu beré eguin ez arren, ezta eguiteco asmuric izan ez arren. Euren artean beré sartuco dodaz leen adisquidetasun deunguea euqui even asco; ceintzuc Confesoreac ausolbidu gura izan etzituzalaco, ichi beutseen beré euren arteco tratuari, alanberé euren barruan dauque sarturic arcalganaco ondo- gura ez garbi-garbia. Oneec bada eta onelangoac, dabiltzazanean bein confesau, eta guero pecatuan laster yausi, beste bein confesau, ostera laster yausi eta alan, esan oi dan leguez pecatuti confesiñora eta confesiñoti pecatura, aguiri dave eztauquela propositu eraguinguille onic.

Bigarren eztauque propositu eraguin-guilleric ocasiñoetan, eta bide gaistoetan sartuta dagozanac, alango bideetati urten gura ezta-veela. Ocasíñoa esaten yaco pecatura garoazan gauceari, edo pecatu eguiteco bideac emoten deuscuzanari. Edocein gauzac pecaturaco bideac emon leiqueguz: baya badira gauza batzuc besteen artean eurenaz dauqueenac pecaturaco gantza emotea, eta escuti leguez pecatu eguitera eroatea. Oneec bada ichi bear dituz pecatu eguin gura

eztauenac, eta ichi gura eztituezanac eztauque benetaco proposituric. Nescatilla batentzat izango da ocasiñoa, pecaturaco tenteran daven mutilagaz egotea: izango da edoceinentzat, berba loi nasaiac esaten direan toquian egotea. Bada propositua izango badave, ichi bear dave nescatilleac mutil donga orregaz egotea, eta guztiac alango berba loi esaleen artera yoatea.

Asco taasco dira alde onetati proposituric eztauqueenac: ona emen onetarico batzuc. Lenengo bada datoz lagun charracgaz batu-teagaiti biraoac eta yuramentu guzurrezcoac eguiten dituezanac. Bigarren, tabernara edo ondreetara yoan ezquero, edo urlia ta ulice-agaz batzandu ezquero orditu oi direanac. Irugarren, eurac daquiezan lagun dongac-gaz batzandu ezquero lar yocatu ta etsean bear leuqueena yocoan ondatuten daveenac. Laugarren urliegaz batu ezquero iñoren creituco gauza charrac esan bearco dituezanac. Oneec guztioac bada ichi bearco dituez lagun charrac benetaco propositua izango badave.

Eta seigarrenecoan ¿ceinbat eta ceinbat ocasiño eztagoz? Ceinbat arri laban pecatuan yausi eraguiteco? Eta ceinbat confesetan dira alango bideac ichiteco asmu bagaric? Ezagutu daguizen eguia au, nic aitatuco deusuedaz orain onetarico ocasiño batzuc. Gueienentzat dira pecaturaco ocasiñoac dantza nastuac, mutil-necatillac batzan eguiten dituezanac, nai plaza aguirian eguiten direanac, nai celaietan eta hermita basterretan eguiten direanac, nai oquelueta eta zocondoetan eguiten direanac. Izan oi dira ocasiñoac biguirac, gaubeetaco nesca-mutilen arteco batzarrac. Izan oi dira gaubeetaco errondac, eta oleetara batuteac. Izan oi dira carobietaco bearrac, necatillac fracadunai lagundutera yoan ezquero. Izan oi dira, beinic bein gazteentzat, fiestetara yoateac, gaubeetaco suac, eta berba baten gaztequeria, mutil ta necatillac, nastean batzanduten direanean, bada alango aldietan izan oi dira, baita ugari, berba loiac, ipuin ciquinac, oracadac, bultzadac, mocorcadac eta besteac. Eta ¿ceinbat eta ceinbat dira alangoai ichiteco gogo bagaric confesetan direanac? ¡Ay ce proposituac gazte ascoc confesiñora daroezanac! ¡Ay celango confesiñoac onelango proposituac gaz eguiten dituezanac! Oneec guztioac bada, osterantzeco pecatuen ganean propositu izan arren, eztauque propositu osoa ta eraguin-guillea, ondo confesetaco asco dana.

Eta ¿cer esango dot araco confesore nasaien, eta entzun ta entzun baño besteric eguingo ezteutsenen billa dabiltzanac gaiti, ecandu charren ganean, edo ocasiñoaren ganean estutu ce daguezan. ¿Itsu

batec beste itsu bat itsuaurrecotzat? Modu ona laster yausi eta banatuteco. Eta ¿cer esango dot araco urte guztian celan–gura bici, eta Pascoaz baño confesetan ez tireanac gaitic? Onen artean beré izan oi dira acericume asco–yaquin batzuc, confesetara baño leen, amabost baten leguez, egon oi direanac pecaturic eguin bagaric, sinistu eraguiteco Confesoreari onduten asi direala. Oneec ¿pecatu ez eguiteco (damuric eta) propositu onic bauque? Euren bicitzeac laster esango dau. Ausoluciñoa artu ezquero, eta bein chartela escu artean icusi ezquero denpora asco bagaric barriro lengo pecatuetara biurtuco dira. Damu ederrac beintzat, eta propositu galantac, Jgcoac beguiac ain zuur ezpalituz. Baya ac ondo dacusaz gure biotzac, eta eztoгу á engañauco damu guzurrezcoagaz.

Orain azcanean esan bear deutsuet cer eguin bear dozuen pecatuen damua izateco. Yaquinic egon bear zare orretaraco Sto. Tomasec diñoana, Jgcoac gueyago eguiten davela pecatariai euren pecatuac parquetean, ceru–lurrac eta gauza guztiac eguitean baño. Yaquinic egon bear tzare beré, damua dala, leen esan deutsuedan leguez, confesiñoraco bear dan gauzaric bearren bearrena. Yaquinic egon bear tzare oraindo, gueuc gueureanez ta gueure–ca butan, ecin artu guiñaiquela bear dan lango damutasunic: Jgcoac berac emon bear deuscu, eta ac emon–ez–ic eztoгу guc gauz’ onic eguingo.

Alan bada esamina concienciacoa eguin dozuenic laster, pecatuac gogoan barri barri dozuezan artean, ereguico dozue Jgcoagana zuen biotza, eta aldozuen devociñoric andienagaz escatuco deutzazue bere gracia ta laguntasuna, bear dan leguezco damu bat zuen biotzetan artuteco. Asico zare guero begiratuten, celan imini dozuen pecatuac gaz zuen arimea, ce ezain, ce atsitu, ce bildurgarri. Celan dagoan Jgcoaren beguietan ilic, icatza baño baltzago, eta Demonioñac bera-gan, arrac gorpu atsitan leguez dabiltzazala, bere yaube eguinic. Gogora ecarrico dozue, pecatua dala medio galdu dozuela Cerura–bearra, eta mercei izan dozuela Infernuan erretan betico ego-tea, baita asco an ainbeste bagaric egongo direala. Baya Jgco onac etzaituezala galdu gura, eta prest dagoala besoac zabalic zuei parquetaco, eta zuec bere adisquidetzat artuteco. Orretaraco Jgcoaren Semea guizon eguin tzala, ogueta amairu urtean neque asco icusi cituzala eta azquenean bost milla ta gueiago azote, arantzazco coroi gogorra, eta curutze baten untzeac gaz yosiric eriotza lotsagarria. Onegaz biztucoco dozue parcaciñoaren esperantzea eta artucoco dezue alango Jgco ona ofendidu dozuelaco damua. Eta ori gueiago bizcor-

FRAY MATEO DE ZABALA

tuteco, esaizue, al dozuen debociñoric beroenagaz, bost edo sei bider: *Neure Jaun Jesucristo*

Ejempl. vid. Roncal. Clarin Evangel. t. 2. Dominic. X. desp. de Pentecos. nº 8.

8. AOZCO CONFESIÑOAREN GANECO BERBA-ALDIA

(B, 103-107. or.)

1. Confesiño on bat eguiteco laugarren bear dan gaucea da pecatu guztiac, batpere ichi bagaric, confesetea. Confesiñoa ezta beste gauzaric, ezpabere confesoreari bere pecatu guztiac esatea bashen, beraganic artzeaco euren absolviciñoa, edo parcaciñoa. Ona izaiteco euqui bear dituz lau gauza. Lelengo izan bear da humilla, edo humildea, au da eztira pecatuac esan bear ipuin, edo beste conturen bat esaten dana leguez, ezpabere eguin dituzan gach andi eta calte icaragarrien parca-escatuten davenac leguez. Edoceinec daqui, badoa norbait beste bateri, eguin deutzazan, gach eta calte andien parca escatutera, elduten dala lotsaz beteric, eta humildade guztizco bategaz. Ceimbat eta andiagoo dan personea, ceimbat eta aserreago dagoan beragaz, ceimbat eta andiagooac direan eguin deutzazan gach eta calteac, aibat eta humillago doa bere aurrera parca escatuten. Beguiratu-izu, bada, nori dirautzazuzan ceure pecatuac, eta cetaraco acusetan zarean, eta aushe bacarric asco izango da, humildade, bildur santu, eta lotsaz beteric ceure pecatuac confesetaco. Baya yaquin bear dozu ce, Jaungoicoaren ordeco dagoala confesorea, eta alan bere oñetara zoazanean, edo bere oñetan belaunico ifinten zareanean, Jaungoicoaren aurrant iminten zareala, berari acusetan zayacozala, berari dirautsuzala zure pecatuac. Bera dago zugaz guztiz irritu ta aserraturic, beragaz euqui dozun lotsabacotasunagaitic; ce, zatitu, zauritu ta il deutzazu bere seme bacar ta maitea. Orregaitic zaucaz condenaduric infernu batera. Confesetan zareanean, bada, acusetan zachacaz Jaunari berari, eta dirautsazu ceuc zatitu, birrindu, odolustu, eta il deutzazula bere seme bacar laztana, eta confesiño au eguiten dozu parca-escatuagaz, ain aserre daucazun Jaungoico oneri. ¿Celango humildade, celango lotsa, celango bildur santu eta devociñoagaz esan bear ezteutzazuz bada ceure pecatuac Jaun oneri?

2. Bigarrego, izan bear da osoa: au da conciencia ceatz aratu, ta esamina eguin ezquero, confesadu bear dira, burura ecarri ta gogoan dagozan, pecatu guztiac, ba-pere ichi bagaric, ciertuac ciertu leguez, dudazcoac dudazcoac leguez; eta alan gomuta [yaquin] dozuzan pecatuetatic, bat bacarric ichiten badozu lotsa, bildur, edo maliciaz, confesiño deunguea eguingo dozu, eta echatzu pecaturic parcatuco, eta Jaungoicoaren gracia artu bearrean, icaragarrizco pecatu mortal bat eguingo dozu. Orregaitic nosbeist ichi badozu pecatu mortalen bat confesadu bagaric ceure erruz, edo guraz, guero confesadu bearco dozuz, ez bacarric confesadu etzenduzanac, baita confesadu dozuzanac beré. Esateraco: lau urtean euqui dozu ishilic pecatu bat lotsaz; bada gura badozu parcatu daquizun pecatu ori, ez bacarric confesadu bearco dozu ishilic euqui dozun... orishe, baita beré lau urte oneetan eguinico guztiac, leenago confesadu arren beré; baita onezaz ostein eguin dozuzan confesiño, eta artu dozuzan comuniñoac. Baya confesiño baten edo bestean ichi bacenduan pecatu bat lotsaz, eta guero aitzu bayatzun pecatu au ceure errubagaric, barriro gomuta dozunean pecatu au, euquico dozu obligaciñoa confesetaco pecatu au, eta orduan edo confesiño aetan eroan cenduzan pecatu guztiac beré, baya ez geroago eguinac. Contu daigun: Chiquichua cineala eguin cenduan araguzco pecatu loi bat, eta confesetan yoanic, ichi cenduan lotsen lotsaz. Ygaro zan demporaren bat confesetan yoan bagaric, eta aztu yatzun pecatu á. Ygaro cirean urte batzuc; eta guero, edo sermoiren bat enzun cendualaco, edo confesoreac eguin eutsun itaunde bategaitic, edo beste moduren baten, burura yatortzu pecatu á ichi cenduala lotsa edo bildurragaitic. Orain bada, ondo ondo beguiratu eta conciencia aracaturic, ciertu bazagoz etzenduala ceure erruz ichi confesadu bagaric gueroco confesiñoetan, eguin bear dozuna da, barriaztu araco confesiñoac ceintzuetan ceure erruz edo lotsaz etzenduan confesadu pecatu loia, eta eztauczuz cer barrieztadu gueroco confesiñoac. Bardin esamina concienciacoa eguiten dozunean, edo confesetara zoazanean, aitzuten bayatzu cer edo cer pecatu; eztago guero acordetan danean, cetan barriztadu orduan eguinico confesiño guztia, asco da esatea azturico pecatua bacarric.

3. Confesiñoa osoa izaiteco, ezta asco esatea eguin dan pecatu generoa, edo esatea sarri pecatu eguin davela urlia gauzatan: esango baleu leguez: “acusetan nas sarri ostu dodala”. Au ezta asco, diñot osterá beré: esan bear dozu ceimbat bider ostu dozun, ceimbat bider aserratu zarean, berba loiac esan, edo beste edocein beré becatu mor-

tal eguin dozun; ecin badozu esan ceimbat bider, esan eguizu guichi-
gora beera; au beré ecin badozu, ceimbat bider egunean, edo astean;
eta au beré ecin badozu, euqui dozun ecandua, eta ceimbat demporán
iraun deutsun. Onezaz ostean, confesadu bear dozuz, pecatuac dau-
cazan circunstancia eta lagungarriac, berez pecatu direanac.
Esateraco: ¿yo dozu Aita? Ezta asco esatea *yo dot guizon bat*; confe-
sadu bear dozu, *yo nevan Aita neurea*. Eguin dozu araguzco pecatu
bat nevarreba, aide, ezcondu, edo boto castidadecoa daucanagaz?
Bada ezta asco esatea, *eguin dot araguzco pecatu bat*; ezpaberé esan
bear dozu, celango moducoagaz eguin dozun, personea ucentadu
bagaric, osteranchean zure confesiñoa ezta prestu, osoa eztalaco.
Confesadu beré bear dira pecatua andiago eguiten daveen lagungarri,
albo edo circunstanciac. Contu eguizu: ostu dozuz eun dobloa; bada
ondo confesetaco, etzara contentadu bear esanagaz, *ostu dot gauza
grabe bat*; esaizu, *ostu dodaz eun dobloa*, cé emen pecatu barriric
ezpadago beré, guztiz da andiagoa, eta ondo da confesoreac yaquitea,
celango pecatua dan, datorquion penitencia, eta erremedioa iminteco.
Confesadu bear dira beré uste oquerragaz eguinico pecatuac. Contu
daigun: uste cenduan astegun baten yaieguna zala, eta zure naguita-
sunagaitic etzenduan meza entzun: guero barriz, yaquin cendun etza-
la yaieguna; au beré confesadu bear dozu, cé ezpazan beré pecatu
astegun atan meza ez enzutea, zuc uste cenduan yaieguna zala, eta
uste oquer onegaz, eguin cenduan bein-danic-bein pecatu mortala.
Bardin da pecatu beniala bashen eztan gauzaren bat eguiten badozu,
baderichazu pecatu mortala dala.

4. Confesoreac itanduten badeutsu, leenagoco confesiñoetan
euqui bacenduan, orain confesadu dozun, lezco peccaturic; ceimbat
bider yausi cinean; ce pelleburutan egon cinean, leenago euqui ba-
cenduan ecanduric, edo beste onango gauzaric, artez artez eranzun
bear deutzazu. Esateraco: Dirautsazu confesoreari, bost edo sei bider
euqui dozuzala ceure araguiian escuca edo ucutu-aldi loiac. Itanduten
deutsu confesoreac, ea euqui badozu leenagoco confesiñoetan one-
lango peccaturic; ceimbat dempora dan pecatu au eguiten abiau cine-
ala; ceimbat bider yausi oi cinean aste edo il bacochean, ce peniten-
cia imini eutsuen cumplidu bacenduzan penitenciac; oni guzti oneri,
eta beste onango itauneai artez, ecerberé estaldu-bagaric eranzun
bear deusezu. Ascoc eta ascoc onango gauzaric itanduten yaquenean
eranzuten daue, ori-guzti-ori confesaduric daucat; igaro zan, ¿ceta-
co orain berriztetea? Bai nai. Confesorea zure arimaco medicua da,

eta itaunde oneec eguiten badeutsuz, da igarteco ce gach modu daucazun, eta yaquiteco celango osasungarriac, ta erremedioac bear dozuzan, zu pecatuaren gachetic aterateco: orregaitic gura badozu benetan medicu onec osatu zaizan, esan eguiozuz ceatz ceatz buruan daucazuzan pecatu guztiac, ba-pere ichi bagaric, eta eranzun eguiozu artez, eguiten deutsuzan itaune edo pregunta guztietara, eta zure confesiñoa osoa izango da.

5. Yrugarrengo, confesiñoa izan bear da eguiazcoa, au da, eguia esan bear da, ecer beré ez gueitu, ez guichitu bagaric; bada guzurren bat badiño gauza grabean edo nagusian, leenagoco pecatuac parcatu bearrean beste barri bat eguingo dau, pecatu yaquinac esan bear dira yaquinac leguez, eta ezda-baida-coac, ezda-baida-coac leguez, guztiac bacoachac beretzat uste dituzan moduan. Bada yaquinic ciertu, pecatu bat eguin davela, badiño dudan eta bada-ezpadan dagoala, eguin daven, ala ez, pecatu mortala eguingo dau; eta bardin dudan dagoala eguin ete daven-ez, eguintzat, edo ciertutzat confesetan badau. Confesiñoa ezta eguiazcoa izango guichitu edo gueiagotuten bada, eta badiño direan bashen guichiago edo gueiago direala, ezta ondo confesaduco. Contu daigun. Esamina concienciacoa eguitorduan atera dozu contu zortzi bider gorroto euqui deutzazula lagunari, eta acusetan zara zazpi bider izan dala, etzara ondo confesetan; eta bardin da badiñozu bedaratzi bider. Ascoc ta ascoc onetan uts eguin daroe. Uste dave eztala ecer, pecatu gueiago esatea, diñoela; *obago da gueiago imintea, guichiago baño*: eta alan contu ateraten badave lau pecatu eguin dituezala, bada ezpada esan daidazan sei direala. Au ezta confesiño eguiazcoa. Beste gauzaric litzateque ezpalequi ciertu ceimbat direan, eta dudan balego, amar ala amabi direan; orduan esan lei... eta esan beré bear dau amar edo amabi direala. Laugarrengo confesiñoa izan bear da tolez, ta achaquia baguea. Yzan bear da tolez ba'coo; au da argui argui, eta claru clarutan imini bear deutzazuec confesoreari ceüen pecatuac, eta euren anditasun guztia ezagutu al-daguiian moduan, ibili bagaric contu luce, eta ipuin moduac esaten, sinistu erazoteco Confesoreari eztala, dan lango andia euren pecatua. Sinistu eguidazue, ascoren contu luce, inguru, eta contetan dituezan yoan-etorri luceac, eztira pecatua estaldu, edo guichienez chiquituteco asmuac bashen. ¿Eguin deutzazu iñori biraoric? ¿Euqui deutzazu gorrotoric? Confesadu eiquezu, eguin dozun biraoa, edo izan deutzazun gorrotoa, ibili bagaric atsera ta aurrera conteetan, ari eguin deutzazuzan mesedeac, zugaz euqui daven

esquer gaistoa, eguin deutsun charqueria, eta beste milla ipuin, confesiñoraco bear eztireanac. Eguia da, esaten davela: “yazo zan guztia esaten ezpadave dericheela, eztireala ondo confesetan”: baya ecin au sinistu leioe; gora-beera oneec eztira beste gauzataraco, ezpabere eurac artzen dituezan asmuac sinistu erazo albaleioe confesoreari euren pecatua eztala mortala, edo bada beré, ez ain andia, cein da leenengoan esan leiquean, eta alan contu luce onen sustraia da edo lotsea edo soberbia.

6. Confesiñoa izan bear da achaquiabagaricoa; au da: echaco bes-teri ezarri bear norberac eguino pecatuen errua. Ascoren confesiñoac obeto dirurie, pecatu eguin davena ucatutea, ecen ez pecatuac acusetea edo confesetea. Edocein beré pecaturaco dauque achaquia, eta topetan dave nori errua ezarri. “Jauna, diño emazteac, birao asco eguin deutsadaz senarrari: baya ¿cer eguingo dot? Ain da galdua, ain alperra, ain ardura guichicoa ce, ezteust ecetan beré lagundu gura. Ain da ordia cé, irabazten daven guztia, doa tabernara, eta etsera datorrenean guztia da aguiraquea, errieltea, eta ameneco maquilladea eta golpea. Nic al-daidan guztia, ezta elduten neure umeai yaten emoiteco, eta euren aragui tristeac estalduteco. Oneshec gueien estututen nau, eta aushegaitic biraoric gueienac ezarten deutsadaz. Nic beste senar modu bat baneuco, e-neuque neure bici guztian biraochu bat-beré botaco. Bator onen senarra; echaco oneri beré achaquiariac faltaco. “Jauna, diño birao asco eguin dodaz, baya ¿cer eguingo dot? Daucat emazte bat, ain miñ lucecoa, ain irritua, ain geniño citalecoa cé, ezteust iñosh beré baquean ichiten: beti beti dago oñoten. Traguchu bat edan badot, guztia da aguiraquea; puscachu bat beranduago bañoa etsera, guztia errebolbietan dau: egun guztian bearrean egon-arren, dericho alperric nagoala; aora datorquion guztia esaten deust, arpela, ordia, galdua, ardura-bacoa. Berba astun oneecaz ernegarazoten deust; cé osteranchean e-litzateque eguño nire aotic biraoric enzungo”. Modu onetan edocein-beré pecaturi idoroten deutse achaquia, eta ez yacoe falta nori ezarri errua. Emazteac senarrari; Senarrac emazteari; Gurasoac umeari; umeac gurasoari; ugazabac otseñari; otseñac ugazabari; eta lagunac lagunari. Izan bedi pecatua borondate oso, guraari bete, eta iñoc tentadu bagaric eguina; bada orduan beré aurquituco dave noren erru orduan beré aurquituco dave noren erru imini, eta besteric ecin badau, esaten davee *Demoniñoac engañadu ninduan*. Baya achaquia guzti oneec utsac diraz; pecatu eguiten badogu, gueuc gura dogulaco eguiten dogu, eta gueuc gura

ezpaguendu, ez senar, ez emazte, ez guraso, ez seme, ez lagun, ez ugazaba, ez otsein, ez Demonioño, ez infernu guztia e-litzatequez asco izango guri pecatu erazoteco. ¡Ah balequie cristiñaiuac, ondo beguiratuco baleude no-en aurrean dagozan confeseta-orduan, nori dirautsezan euren pecatuac, ez litzatequez ibilico achaquia atsean, ez leusquioe besteri egotzico euren pecatuen errua. Yaquin bear dozue, bada, cé Jaungoico berberaren oñetan zagozela, eta onerishe dirautsuezala ceüen pecatuac. Jaun onec dacusaz zure biotzeco oqueluric ezcutuenac, ecin arean ostendu cinaique bere beguietatic, eta alan nai argui argui esan, nai achaquiaca escutadu daguizuzala, bardin dacusaz Jaun onec. ¿Cer aurreratuten dozu, bada, gora-bera ta achaquia oneecaz? Ecer-bere-ez. Benturaz engañadu cinaique confesorea, sinistu eraguin cinaio, eztala zure pecatua dan baño andia, edo izanic mortala, beniala dala; baya ecin engañadu cinaique guztia dacusan Jaungoicoa. Eguin cinaique, emon deizula confesoreac, ondo confesaduco bacina emongo leusquezun, absolviciñoa, eta iminice-daizula iminico leusquezun penitencia guztia. Baya ¿cer balio deitsu confesorea engañaduagaz aterarico absolviciño orrec, Jaungoicoac absolvidu ez-ic? Leen bashen deungago gueratuten zara, cé lengo pecatuen ganera beste icaragarrizco sacrilegio bat ezarrico dozu.

7. ¡Ay! neure Cristiñauac, bildur izaiteco da confesiñora dacaruezan inguru, eta achaquia oneec, ifinten dozuezala, pecatuen damutasun benetacoric eztaucazuelaco eta pecatuetic urte-iteco gogo edo guraari benetacoric eztaucazuelaco. Gueshoric bazagoz, eta medicuari deituten badeutsazu, artez artez, eta claru esaten deutsazu ceure gach edo gueshoaren ganean daquizun guztia, eta inguru bagaric eranzuten deutsazu itanduten deitsun guztira. Gura badozu, bada, arimaco osasun.emoille confesoreac osatu zaguizan, claru claru, ta arguiro esan bear deutsazu gueshoaren asierea, eta daguizun ganecoa, eta artez artez eranzun bear dozu itanduten deitsun guztira; cé osteranchean ecin eguiagaz esan cinaique gura dozula osatu daguizan. Bera gana bazatoz da zure arimaco gueishoa osatu daizun. Onetaraco emon bear deitsuz zure gueshoari datozquiozan osasungarriac, eta aguindu cer eguin bear dozun, ez bacarric osatuteco, baita beré gueisho ostean osasuna yasoteco: eta au ecin leiteque zuc claru claru aguertuten ezpadeutsazuz zure barruco gach, eta peaturic ezcutuenac. Au ez eguinic, guztiz da erraz oquerreco erremedioac emoitea, ceintzuc gacha quendu bearrean, gueiagotu leiquezuen. Orregaitic estaldu edo guichituten badozuz ceure pecatuac, ecin esan

cinaique, gu[ra]dozula arimaco osasuna. Confesadu eguizuz, bada, ceure pecatu guztiac ba-peré ichi bagaric, lotsa bagaric, inguru bagaric, atsera ta aurre bagaric, achaquia bagaric, ezaguturic Confesoreac, esan deizun, eta iracatsi deizun cer eguin bear dozun, modu onetan parcatu daquizuzan guztiac, eta biurtu etzaitazan ostera euretara. Modu onetan izango da ona zure confesiñoa, quenduco dira ez bacaric pecatuac, baita pecaturaco bide edo pelleburuac beré, bicico zara Jaungoicoaren adisquidetasunean, eta ibiliric ceruco bide artecetic, elduco zara artutera Jaungoicoac benetaco penitencia eguiten davenentzaco daucan saria. Alan izan deilla. Amen.

FRAY MATEO DE ZABALA

9. [AOZCO CONFESIÑO]¹

Si confiteamur peccata nostra, fidelis est et justus ut remittat nobis peccata nostra, et emundet nos ab omni iniquitate (1 Joan. 1,9).

(J, 26-31. or.)

Confesiño on bat eguiteco bear dan laugarren gaucea da pecatu mortal guztiac bapere ichibagaric confesoreari esatea. Ezta asco pecatuen parcaciñoa Jaungoicoa-ganic izaiteco pecatu eguinen damutasuna, orrez ostean guztiac, al dala, Confesoreari esan bear yacoz. Alanche dauco erabaguiric gure Elesha Ama Santeac, ta excomunioa iminiric dauco esaten davenen contra edo alango esan bearric eztala, edo Jesucristoc alangoric agundu ez evala. Aozco confesiño au ezta beste gauzaric ezpada bacoachac no-beren pecatu mortallac Confesoreari esatea euren parcaciñoa absoluciñoaren bidez izaiteco.

Baya esango dau batec batec: gauza gogorra da beintzat besteri batec eguin dituan pecatuac esan bearra, eta no-berac bere bacarrean eguin dituzanac beré. Ez cristiñauac, ezta dirudian gaña gogor, eta alde guztietic beguiratuten bayaco gauza biguna da, ta ondo biguna. Ea ezpabere, eztaucazue gogora ecarri bashen ea nori esaten yacozan pecatuac, eta celango onaari ta ondasun andiac yatorcuzan olango pecatuac esateric. ¿Nori esaten yacoz pecatuac? Ecelambere, ecelambere iñori secula ecin esango deutsan bateri. Jaungoicoac eragotzi deuscu Confesoreai confesiñoan enzuna esatea, baya ain estu cé, ezta baguenqui beré erreco (erre eguingo) guinduezala esaten ezpadogu, edo pecatuchu venial bat esan-da infernuco guztiac andic urtenic cerura yoango leitequezala, ecin orregaiti beré esan guiñaique pecatuchu venial ori beré. Eta eztirudi ezpabere Jaungoicoac onen ganean aparteco ardurea ta berezco contua daucala baño. Confesore ascori burura eguin yaque, ta esan dituez milla gauza igaro, baya eguño beré ezta icusi alangoac bere confesiñoan enzuna esan dave-

¹ Jatorrizko testuak ez dakar izenbururik.

nic; eta ñosco alditan gaistoren batec tentazar ecer aitatuten badeutse, aserratu oi yaque zoro ta guzti. ¿Gura dozue entzun gueiago? Bada ara izan dira munduan Confesore Judas bera baño bere oqueragoac; izan dira heregia andiac iracatsi ta herege ascoren buru eguin direanac eta confesiñoaren contra asco esan ta asco escribidu daveenac. Baya alan-da guzti beré eztave eguño beré aguertu confesiñoan entzun daveenic; eta ez bildurrez ez escupuluz; ezpabere Jgcoac berezco contu bategaz aztu eguiten deuslaco ecer esatea. Eta ¿celango ondasun eta mesedeac echatorcuz confesoreari pecatuac esateric? Beste aldeti utsic ezpadago, Jgcoac parcatuten deuscu eguin doguzan pecatuac, atzera emoten deuscu pecatua dala medio galdu guenduan gracia, ta bera gure adisquide eguiten da, baita gu aric aurrera onac bagara, emongo deuscu, eriotzea ezquero, bere ceru ederra. ¿Cer? Aguertuten echacaz Medicuari seigarren mandamentuco pecatuetic datozan gachac? Bada au eguiten bada gorputzeco osasuna izateagaitic ¿gauza gogorra izango da Confesoreari belarrian ishil ishilic esatea, arimaco osasuna izaiteco? Ez beintzat, ezta gauza gogorra.

Confesiñoac ona izaiteco lau gauza bear dituz; izan bear dau humillac, osoac, eguiazcoac, eta achaquiabacoac. Lelengo izan bear da humilla, au da, eztira pecatuac esan bear ipuiñen bat, edo beste conturen bat esaten dana leguez, ezpabere biotza yausiric, eguin dituzan gach eta calte andien parca escatuten dagoana leguez. Edoceinec daqui ce, badoa ñor besteri eguin deutzazan calte andien parca escatutera, yoaten dala humil humillic, eta lotsea dariola. Ceimbat eta andiagoa dan caltea artu daven personea, ceimbat eta aserreago daucan bere contra, ceimbat eta andiagoc direan eguin deutzazan calteac, aimbat eta buruzbeerago eldu bear da bere aurrera. Beguiratu eguizu, bada nori dirautsazuzan zure pecatuac, ta cetaraco esaten deutzazuzan, eta berau bacarric asco izango da, lotsaz beteric eta bildur santu bategaz zure pecatuac confesetaco. Bada yaquin bear dozu ece, Jaungoicoaren ordeco dagoala Confesorea, eta alan bere oñetara zoazanean, edo bere oñetan belaunico iminten zareanean, Jgcoaren aurrean iminten zareala, Jgcoari acusetan zayacozala, Jgcoari dirautsazuzala zure pecatuac. Bera dago zugaz guztiz irritu ta aserre, bera-gaz izan dozun lotsa-charragaitic: bada manatu ta il ceuntzan beré seme bacar maitea. Orregaitic zaucaz infernu batera condenaduric. Confesetan zoazanean, bada, acusetan zachacaz Jaunari berari, eta berberari dirautsazu ceuc zatitu, birrindu, odolustu, eta il deutzazula

bere seme-bacar laztana, eta confesiño au eguiten dozu parca escatu-
ten deutzazula ain aserre dozun Jaungoico oneri. ¿Celango biotz
humillagaz, celango lotseagaz, celango bildur santuagaz esan bear
ezteutsazuz, bada, ceure pecatuac Jaungoico oneri?

(Bigarrego) izan bear da osoa; au da conciencia ceatz aratu ta
esamina contuz eguin ezquero, confesadu bear dira, burura ecarri
direan, ta gogoan dagozan pecatu mortal guztiac, ba-pere gorde ta
gueiagotu ta guichitu bagaric; yaquinac yaquinac leguez, dudazcoac
dudazcotzat, pensamentuzcoac, pensamentuzcotzat, berbazcoac, ta
obrazcoac aintzacotzat, eta guztiac batec beregango uste davena
leguez, ta berac beretzat daucazana leguez. Eta alan gogoan dozuzan
pecatu mortaletaric batchu bacarric ichiten badozu dala lotsaz, dala
bildurrez edo oquer eguin guraz, confesiño deunguea eguingo dozu,
ta echatzu pecaturic arean beré parcatuco, eta Jaungoicoaren gracia
artu bearrean, icaragarritzco pecatu mortal barri bat eguingo dozu.
Orregaitic edonos ichi izan badozu pecatu mortalen bat ceure erruz
edo ceure guraz confesadu bagaric, guero confesadu bearco dozuz ez
bacarric confesadu etzenduana, baita confesadu dozuzanac beré.
Esateraco: lau urtean euqui dozu pecatu mortal bat ishilic lotsaz ecin
esan-da; bada gura badozu parcatu daquizun pecatu ori ez bacarric
confesadu bearco dozu ishilic euqui dozun á, baita beré lau urte one-
etan eguinico guztiac, leenago confesadu arren beré; baita onezaz
osteian eguin dozuzan confesiñoac, eta artu dozuzan Comuniñoac.
Baya confesiño baten edo bestean lotsaz ichi bacenduan pecatu bat,
eta guero ceure errubagaric aitzu bayatsun pecatu ori, barriro gomuta
(gogora) daquizunean pecatua, euquico dozu obligaciñoa confeseta-
taco pecatu lotsaz gordea, eta pecatu au gogoan ceuncan artetaco
pecatu guztiac, confesiñoac ta comuniñoac, baya ez pecatua bururic
yoan ezquerocoac. Contu daigun; umechutan eguin cenduan araguiz-
co pecatu loi bat, eta confesetara yoanic lotzaarren etzendum esan.
Ygaro zan demporaren bat osterá confesetan yoan bagaric, eta aztu
eguin yatzun a pecatua. Aric urte batzuc garreanean, edo sermoiren
bat entzun cendualaco, edo confesoreac eguin eutsun itaune bategai-
tic, edo beste modutan burura yatortsu pecatu á lotsaz edo bildurrez
confesadu etzenduala. Orain bada, ondo ondo gauea beguiraturic ta
conciencia aracaturic ciertu bazagoz etzenduala ceure erruz ichi con-
fesadu bagaric gueroaco confesiñoetan, eguin bear dozuna da barriz-
tadu araco confesiñoac ceintzuetan ceure erruz edo lotsaz etzendum
confesadu pecatu loaia, eta eztaucazu cer barriazu gueroagoco confe-

siñoac. Bardin esamina concienciacoa eguitecoan, edo confesetara zoazanean aitzuten bayatzu pecaturic, eztago guero gogora datorzunean cetan barriztadu orduan eguinico confesiño guztia, asco da esatea azturico pecatua bera.

Confesiñoa osoa izaiteco ezta asco esatea eguin dan pecatu generoa, edo pecatu motea; ezta esatea beré sarri pecatu eguin dala urlia gauzatan; esango baleu leguez: *acusetan nai sarri ostu dodala, asco - tan escuca loia eguin dodala* ta alan. Au ezta asco diñot ostera beré; esan bear dozu ceimbat bider ostu dozun, ceimbat bider aserratu zarean, cembat berba-arin-nasaiac esan dozuzan, edo ceimbat beste edo ceimberé pecatu mortal eguin dozun. Ecin badozu esan ceimbat bider, esan eguizu ceimbat izango zan guichi gora beera: au beré ecin badozu, esan ceimbat bider astean edo egunean: eta au beré ecin badozu, esan euqui dozun ecandua, eta ceimbat demporan iraun deutsun ecan du orrec. Onezaz ostean confesadu bear dozuz pecatuac daucazan circunstancia ta lagungarriac, berez ta bereanez pecatu direanac. Contu eguizu; Aita yo cenduen? Bada ezta asco esatea; *yo dot guizon bat*; confesadu bear dozu: *Aita neurea yo nevan*. Senideren bategaz deungaro eguin davenac, dala escuz, dala obraz, aguertu bear dau daucan senidetasuna, alan odolecoa, celan (eraatsia, edo) coñatasuneti edo ezcontzatic yatorcona, laugarren belauneti campora ezpadago. Bardin ezconduagaz, edo voto-castidadecodunagaz eguin davenac aguertu bear dau celango moduco lagunagaz eguin daven eta lotsaz ishilduten davenac onelango lagungarriric edo pecatuaren alboric eguiten dau confesiño deunguea. Ez da, baya, icentadu bear confesiñoan pecatu laguna (Confesadu beré bear dira pecatua andiago eguiten daveen lagungarri, albo edo circustanciatic. Contu daigun; ostu dozuz eun dobroa, bada ondo confesetaco etzara contentadu bear esanagaz (ezteutsazu asco eretxi bear esateari) *ostu dot gauza grabe bat*, esai-zu: *ostu dodaz eun dobroa*; cegaitic ece emen pecatu barriric ezpada go beré, andiagoa da ascozaz beré pecatua, eta ondo da confesoreac yaquitea celango pecatua dan, berari datorquion penitencia ta erremedioa emoiteco.) Confesadu bear dira beré yaquitun ascoren erechian pecatu mortala direalacoan eguin direan gauzaac, eurac eurenez pecatu ez izan arren. Contu daigun: uste cenduan astegun baten yaieguna zala, eta uste onetan zure naguitasunez etzendum mez' entzun. Gueroagogarrenean yaquin cenduan etzala yaieguna, au beré confesadu bear dozu; ce ezpazan beré pecatu astegun atan meza ez entzutea, zuc beinic bein uste cenduan yaieguna zala, eta oquer uste onegaz en-

tzun etzenduanean, eguin cenduan pecatu mortala. Beste aimbeste esan bear da bereanez pecatu beniala bashen eztan gauzaren bat mortala dalacoan eguiten badozu; bada zuretzaco, zure uste charragaitic mortala da, ta confesadu bear dozu.

Onezaz ganeti esan bear izaten yacoz Confesoreari beste gauza batzuc. Lelengo pecatu bidean edo ocasiñoren baten sarturic dagoanac esan bear deutso celan dagoan, eta ori eguin-ez-ic, eztau gauza dan confesiñoric eguingo. ¡O, eta ceimbat uts eguin doazan onen ganean! Contu daigun, dagoala bat pecatuco ocasiño gaistoan bere echeco personaren bategaz. Diño beregango confesetan dagoanac: *nic agertuten badeutsat confesoreari celan neure echean daucadan pecatu-laguna obligauco nau edo urteitera, ehetic campora lagun ori botatera, ta absolbiduco ez nau ganecoan.* Bildur onegaz estalduten deutso circunstancia esan bearrau. Au da confesorea gauza astunean engañetea. Bigarrengo confesoreari esan bear deutzazu beintzat itanduten badeutsu, leenagoco confesiñoetan euqui bacenduan orain confesadu dozun lango pecaturic; ceimbat bider yausi cinean; ce pelleburutan egon cinean, leenago euqui bacenduan ori eguitemo oituraric, edo ecanduric, edo beste onango gauzaac. Onelangoetara bada, itanduten deutsunean Confesoreac, artez artez erantzun bear deutzazu. Esateraco: dirautsazu Confesoreari bost edo sei bider euqui dozuzala ceure araguien escuca edo ucutu aldi loiac. Ytanduten deutsu Confesoreac, ea euqui badozu leenagoco confesiñoetan onelango pecaturic, ceimbat dempora dan pecatu au lenengo eguiten abiau cineala; ceimbat bider yausi oi cinean aste bacochean edo il bacochean, ce penitencia modu imini eutsuen, cumplidu ta eguin bacenduzan penitenciac; oni guzti oneri eta beste onelango itauneai artez ta garbiro ecer beré estaldu bagaric erantzun bear deutzazu. Ascoc eta ascoc onango gauzaric itanduten yaqueenean erantzun daroe: *ori guzti ori confesaduric daucat; igaro zan, ¿certaraco da bada orain barrizteta? ¿Cetaraco?* Confesoreac orrec guztioz zure oneraco yaquin bear dituzalaco. Confesorea da zure arimaco medicu, eta itaunde oneec eguiten badeutsuz da igarteco ce gach modu daucazun, yaquiteco guero celango osasungarriac ta erremedioac bear dozuzan, zure burua pecatuaren gachetic (gach azpitic) ateretaco. Orregaitic benetan gura badozu medicu onec osatu zaguizan, esan eiguiozuz ceatz ceatz ta garbiro buruan daucazuzan pecatu guztiac ba-peré ichi-bagaric, eta erantzun eiguiozu artez eguiten deutzuzan itaune edo pregunta guztietara, eta zure confesiñoa

osoa izango da. Cer confesau bear dan icusi ezquero, dacusguzan orain onen ganeco utseguiteac.

Batzuc Confesoreac onelango ecanduen ganean itandu ce daguioen trampa eguiten davee. Bein ta gueiagotan estutu dituz confesoreac euren buruagaz edo iñogaz escuca eguiteco ecanduaren ganean. ¿Cer eguin daroe bada? Ygues beste Confesore erraz bategana ta aguertu bagaric lengo ecandu gaistoa, ta pecatuaren sustraia, bacarric confesetan deutzaz confesiño aldi ataco pecatuac; ta Confesoreac itanduten ezpadeutse noscoa daveen á ecandua, lenagoco confesiñotan izan daveen alaco oitura deungaric artuten davee absoluciñoa, ta doaz pocic, confesoreari trampa andi bat sartuta. Au eguin daroe ascoc. ¿Cer ateraco davee, baya, onelango tramposoac alango confesiñoetati? ¿Cer balioco deutse absoluciño arin orrec? Euren condenagarri gueiagoraco. Ona emen beste trampa, escuteta, edo pecatuaren estaltze bat larreguic eguin daroena. Berbea emoiten deutse confesoreari osturico gaucea atsera bere yaubeari emongo deutzela, ta errestituciñoa eguingo davela. Guero naguituten dira, ta urrengo Confesiñoaldian eztave aitauten euren naguitasuna, ta biurtuteco equi daveen atseracuntzea, ta lengo confesoreac carginic artu ez daguioen, doaz euren barri ez dauquen confesoreagana. Alan igaro daroez urte osoac confesiño deungaac eguiten osoz confesetan ezti-realaco. Confesetan beré dira deungaro, eguia ez agertuaz, tratulari asco, irabaci bideba'coac eguin, concienciac quezcatu, ta itandu gura ezteutseenac gogo onaz Confesore yaquitun bateri dan edo ez garbia ta zuzena euren irabaztea. Enzuten badavee cerbaist prediquetan tratu oquerren ganean, itoten dituez biotzeco deadarrac, ta confesetan dira ecer aitatu bagaric, obligadu ez daguizan Confesore yaquintsuac bide gaistoco irabaciac biurtutera. Onelan confesadu oi dira diruac prestadu edo ordeaz emon daroezanac, (obliguetan dituezala artzallaac artzen daveena baño cerbaist gueiago biurtutera; edo dirua aurretutearren) lotuten dituezala necazale gaishoac garia ta artoa merque emoitera, edo bardin icatzac precio laburrean eurai saltzera. Onec dira eurenz logreria charrac; cé dirua ordeaz emoitearren ecin iñoc obligau leiquee (emona baño gueiago biurtutera: ez da beré dirua aurretutearren obligau iñor) merqueago emoitera garia, artoa, icatza, ez beste gauzaric. Baya pecatu au guichic sinistu edo ezagutu gura davee, eta guichiagoc zucen ta osoz confesadu, ta lapur onradu ta castiguba'co onec doaz euren diruac emen largauta, Judas diruzalea leguez, infernura. Confesetan beré dira deungaro dirudun abe-

ratsac limosna chito guichi eguiten daveenac, edo, pobreac bear leu-queezanac, alperric gastauroic, edo gorde gureaz ta cequentasunez. Esatea ez daucala limosna eguin bearric cegaz eguin daucanac, Evangelioaren contraco doctrina da, ta Elesha Santeac beré eracuste oquerra dalaco eragotzita daucana. Aberatsen salbaciñoa da chito gacha. Eta ¿ceimbatec confesau daroez gastu alper larreguiac, edo diru-batu gurea, cequentasunetic, edo escu-eutsi-queriati datorrena?

Adierazo (deutsuedazan) ezquero cer confesadu bear dan, eta celango utsac onen ganean eguin doazan, ecer esan bagaric guelditu eztedin, esan bear deutsuet certzuc direan confesetaco premiñaric eztaucagun gauzac. Lelengo lelengo, bada, eztago obligacinoric pecatu arinac edo venialac confesetaco. Baña orretaraco yaquin bear da ciur ta garbiro pecatu veniala bashen eztala eguin dan utsa edo faltea. Bada, ¿ceimbat engañu eztago gauza onetan? ¿Ceimbatec dauqueez pecatu venial (edo) arintzat pecatu mortalac, edo astunac direanac? (Barriz ¿ceimbatec bapere pecatu ez direanac dauqueez pecatu ezain ta anditzat (icaragarritzat, bildurgarri), ta guero lotsaz aguer-tu ecin-da, condenetan dira, sustraian pecatu etzirean gauzacgaitic?) Baya azaldu daigun au puscachu bat. Edoceinec daqui guzurchu chiquer bat esatea, ta alan beste gauza batzuc, pecatu arinac edo venialac bacarric direala. Ychico balituz, bada, batec yaquinen ganean beré, orrela confesau bagaric, ez leuque alde onetaric confesiño gais-toric eguingo, beste bide asco dagozalaco, confesiñoaz ostean, onelango pecatuac parquetaco, ta pecatu veniala ez dalaco bere izaitez iñoen condenagarria. Baya ¿noc esan ceimbat cristiñauc dauqueezan pecatu arintzat, Jaungoicoaren aurrean pecatu mortalac direanac? Badira asco pensamentu loiac vorondatez gura osoz, ta ezagüera arguiz euquiac, arintzat dauqueezanac, ezpadauque gauza charren bat eguiteco vorondateric. Badira beste batzuc guraari edo deseo zantar ta vorondatez euquiac, arintzat dauqueezanac campotic gauza gaistoric eguiten ezpadave. Badira bai, (ta ondo asco direala) ceinzuei esan-arren berba (arin-nasai) ezain, zantar, lotsagarri ta arima ascoren ondagarriac, beguitanduten yaquen, ez eveela asmu deungaric izan, ta barre eraguiteco esaten dituezalaco edergarriaz confesau eguin daroezanac, edo eguin eztaroezanac pecatu andiac ezbalira leguez. Badira ceimbat eguin arren dantza naastuetan escuca, ta siñu tentagarriac, edo dantzatic campora ibili-arren apa-laztanga, ta escuzarte lujuriosoetan, gauza chiquintzat dauqueezanac, ta eguiten ezpadituez gorputzagaz gauza ezainagoac, pecatu arinac bailiran

leguez, edo confesau bagaric larguetan dituezanac, edo confesetan badituez, izan oi da damu bagaric pecatu venialac direalacoan. ¿Jaungoicoac daqui gauz'onen ganean ceimbat itsutasun ta ezyaquin dagoan. Beste aldeti guraso asco dira umeen acieran chito naguiac ta arduraba'coac, eta ¿noc confesadu daroa onelango arduraba'cotasuna? ¿Ceimbat irabaci oquer eguiten eztira saldu-erosietan, edo trampac eguinic precioan, neurrian edo pisuan, edo ontzat sarturic gauza chartu ta caltetuac? Eta alambere guichic confesadu daroaz oneec. Orregaitic bada da conseju guztiz ona Confesoreari aguertutea batec pecatu venialtzat daucazanac beré, bada ascotan yazoten da confesetan danac venialtzat eucazanac, Confesore yaquitunac mortaltzat ezagututea.

Bigarrengo eztago tentaciño utsac confesetaco obligaciñoric, bacocharc arguiro darauenean, tentaciñoari lecuric emon ez eutsala; baya orduan beré chito da ona Confesoreari esatea, beré conseju santuacaz biotza ta indarra artu daguian alango tentaciñoen contra gogor (tentaciñoai arpegui) eguiteco, eta ez euracgaiti gueiegui larrituteco. Alan fedareen contraco beguitaciñoac (eta tentaciñoac) buruac emoiteta ezta ecer norberen guraz (ta ezagüera zoroagaz) ta yaquinaren ganean lecuric emoitenez ezpayaque, baya ondo da alamberé confesetea, eta alan eguinagaitic, olango tentaciñoac guichitu doaz. Baya ¡ay! ¡Ceimbat egon oi dira alango beguitaciño gogaitgarriac confesau ecinic pecatu andi-icaragarriac direalacoan, ta alde onetatic eguin oi dituez Jgcoac daquizan pecatu esquergueac! Beste aimbeste esan bear da iñoc emonico tentaciño ta pecaturaco bideac gaiti; lecuric emoten ezpayaque eztira pecatu ta eztago olangoac confesau bearric. Cristiñau onai beré ascoc ezteutse larguetan tentadu bagaric edo berbaz edo escuz edo quiñu ta siñu gaistoacaz. Alango orduetan lecuric emoitenez ezpayaque, ta aleguinac eguiten badira no-beraganic alango tentadoreac botetaco, eta euracganic alde eguiteco eztago pecaturic ez confesaquizunic. Doa nescatilla bat bere bidean, eta mutilen batec, edo besteren batec eguiten deutso cirriren bat, edo bear bada ustecabean (ustebagaric) mosu emoitenez deutso. Orduan iguesa artuten badau, arpegui iluna eracutsita, edo deungaro esanda, ez dago pecaturic ez confesaquizunic; baya bai, arpegui arguia tentadoreari eracusten bayaco, (esanagaitic epel epel ta macal macal: *zagoz gueldi-ric*.) ta tentadoreari [beguir] egoteari yarraituten badeutso; cegaitic ece, ocasiñoan bere vorondatez egon gura davenac, gura dau pecatua. ¿Noc esan ceimbat guzur esan daroezan nescatilla ascoc onen gane-

an? Baya guero (astiroago eguingo dot) onen ganean. Confesiñoraco bear dan eguiaren ganean eguin daguidanean. Yrugarrengo batec uste onean pecatu eztalacoan cerbaist eguiten badau, edo yaquin-arren pecatu dala gogoratu bagaric, eztauco pecaturic, ez alan eguina confesau bearric, yaquin'arren guero pecatu zala: baya (contu onegaz) orretaraco ezta no'beren erruz izan bear ez yaquitea. Barau egun baten barauzaroa dala yaquin bagaric, edo yaquin arren alangoric gogoan eztozula, oquelea yaten dozu; bada eztozu orretan pecaturic eguiten ori yatean, zuc ori ez yaquitean zure erruric ezpadaucazu; baya zure ez yaquite ori, zuc itandu-gura-ez-etic badator, pecatu izango da ta confesau bearco dozu. Gauz'onen ganean beré ascoc uts eguin daroa. Ascoc eta ascoc eguiten dave euren burua-gaz escuca loiac, (baita ezcotasuna ateratea eta gustua artutea beré), ta guero esaten dave ezeuquela pecatutzat. Beste ascoc umechutan neba-arreben artean edo nescato-mutilen artean eguin cituezan bear etzirean zantarqueriac; lotsa izan cirean orduan confesetan, eta oraindocoarren beré eztave lotsa ori galdu, ta sinistu eraguin gura deutse euren buruai etzequiela orduan cer eguiten even. Ezcondu ascoc beré eguin oi dituez alcarren artean nasaiqueria asco umeac izaiteco ezti-reanac, ta guero esaten dave bestegaz balitz bai baya euren artean eztala ecer. Baya nic itanduco neusquie onelangoai: esan eguidazue iños zuen biotzac orreen ganean ez dituzue usigui? ¿Eztozue iños zuen biotz barruan arantzaric asmatu? Chiquichutan beré alango loiqueria eguiteco etzineen iñoen beguien aurretic ostenduten? Etzare arrezquero beti ibili pecatu bazala etzala quezca ta quezca bildur ta bildur? Cegaitic bada esan ezteutsazu confesoreari? Lotsea da lotsea ori esaten galaraz deusuna, eta lotsa orrec beguitan-arazo gura deutsu pecatu etzala; baya zuc (orreec esan ezta) eztozu gauza dan confesiñoric eguiten.

Confesiño ona izateco bear dan irugarren gaucea da eguia. Esan gura dot esan bear direala pecatuac norberac beretzat daucan moduan, ecerberé ez geiagotu ez guichitu ta aldatu bagaric, bada guzurren bat gauza grabe edo astunean esaten bada confesiño oquerria eguiten da, ta lengo pecatuac parcatu bearrean beste barri bat eguiten da. Alan confesiño gaistoa eguiten dau: bere pecatuac lotsaz edo bildurrez guichituten dituzanac, edo eguin dituzan bashen guichiago yaquinen ganean esaten dituzanac. Bigarrengo, eguiten dau Confesiño gaistoa bere pecatuac ain modutan edertuten dituzanac ece Confesoreac arintzat aituten, ta ulertuten dituz pecatu mortal andiac

direanac. Yrugarrengo, confesino oquerra eguiten dau pecatu mortal yaquinac, dudazcotzat edo ezdan baidan confesetan dituzanac edo dudazcoac yaquintzat ta ciertuac balira leguez. Laugarrengo, confesiño gaistoa eguingo dau pecatu chiquiac anditzat confesetan dituzanac, edo eguin dituzan baño pecatu gueiago, oquer eguin guraz, esaten dituzanac. Ascoc eta ascoc esan daroe obago dala gueiago imin-tea guichiago baño. Ez Cristinaüac, dana esan bear da, ez gueiago ta ez guichigo, confesiño ona eguingo bada. Baya alamberé esan bear deusuet ce orain artean, alan ondo dalacoan gueiago esan badozue, ez orregaitic arduraric artuteco, bada, alan danean, ezta alde onetatic gaistoa confesiñoa; baya emetic aurrera ez alangoric eguin, ezpada-ce esan (eguihue) zuec daquizuena, edo izan dala uste dozuena.

Eguia onen contra modu bitara gueien uts eguin oi da. Lelengoa da contu luceac confesiñoan esaten dituezanena (dituezanean), Confesoreari sinistu eraguiteco, eztala, dan lango andia, euren pecatua. Sinistu eguidazue ascoren contu luce, inguru, eta irabiotuten dituezan yoan-etorri luceac, eztira asmuac baino pecatua estalduteco edo bai guichienez chiquituteco. ¿Eguin deutzazu iñori biraoric? ¿Euqui deutzazu gorrotoric? Confesadu eiquezu, bada, euqui deutzazun gorroto, ta eguin deutzazun biraoa, ibili bagaric atzera ta aurrera, esan bai esan, zuc ari eguinico mesedeac, beraren zukanaco esquerdeunguea, eguin deutzun charqueria eta beste ipuin confesiño-raco eztireanac. Ascoc esaten dave ce, yazo zan guztia esaten ezpada-dave, ezterichela ondo confesetan direanic (direala). Baliteque au banaca batsuentzaco, iñoentzat alan izan bear ezpaleuque beré; baya gora-beera oneec eztira ascorentzaco beste gauzaric, ezpada eurac pecatua edertuteco artuten dituezan asmuac, confesoreari sinistu erazo albaleioe euren pecatua eztala mortala, edo bada beré ez lenengoa esan leiquean gaña andi; eta alan contu luce oneen sustraia guei(e)nean izan doa edo lotsea edo sobervia (onac erechi gurea). Eguiaren contraco bigarren utsa izan oi da pecatuen achaquiac imin-tea, edo besteri norberac eguinico pecatuen errua ezartea. ¡O ceimbatec eta ceimbatec onetan uts eguin daroien! Ascoren confesiñoac obeto dirudie (direala) pecatu eguin davela ucatutea, ecen ez pecatuac esatea ta euren buruac salatutea. Edocein beré pecaturaco dauque beti prest achaquia, eta beti topauco dave nondi andi nori errua egotzi. “Jauna, diño emazteac, nic birao asco eguin deutzadaz senarrari; baya ¿cer eguingo dot? Ain da galdua, ain arpela, ain ardura guichicoa ce ezteust ecetamberé lagundu gura. Ain da ordia cé, ira-

bazten daven guztia, tabernara doa, eta etsera datorrenean guztia da aguiraquea, errieltea, eta ameneco ameneco maquilladea ta yoitea. Nic al daidan guztia, ezta ecer umechu tristeai yaten emoiteco, ta bere araguichuac estalduteco. Oneshec gueien estututen nau, eta aushe dala medio biraoric gueienac ezarten deustadaz. Nic beste senar modu bat baneunco, e'neunque neure bician biraochu bat beré eguingo". Betor guero onen senarra, bada echaco oneri beré achaquiaric faltaco. "Jauna, diño, nic biraio asco eguin dodaz; baya ¿cer eguingo dot? Emazte bat baucan nic ain min lucecoa, ain irritua, ain genio citalecoa cé, ezteust inosh beré baquean ichiten (ichi gura): beti beti mormor deidan oñoten egon bearco dau. Traguchu bat edan badot (orduco), guztia da deadarra ta aguiraquea; puscachu bat berandugo echera banoa, eche guztia beera ecarri bearco dau: egun guztian bearrean egon-arren, arpelic nagoala dericho; aora datorquion guztia esaten deust; arpela, ordia, moscorra, galdua, arduraba'coa. Berba astun oneecaz ernegarazoten deust; ce osteranchean e litzateque neure aotic eguño beré biraoric entzungo". Orain ¿onetarico ceineri sinistuco deustagu? ¿Senarrari edo Emazteari? Gueiengan ez batari ta ez besteari, beintzat oso osoan. Bata ta bestea izango dira errudun ta erru andicoac ta bioc etorrigo dira confesonariora guzurra dariela.

Nescatilla batec lecu emon izango deutse guisacumeren baten mosu, laztanga ta escuca zantarrari, ta etorrigo da confesetara bere burua garbitu gura davela (guraric): "Jauna, ni baquean nengoan, ez neuntzan nic bideric emon; ez nevan nic alango gauzaric gura, eta esaten neuntsan gueldi egoteco". Erdu ona, ta ¿celango bidez yazo yatzuz gauza orreec? Yoan cinean ceu ocasinoa egoan lecura, edo yente nasaien artera? Yzan zan mutil-nescatillen arteco batzacuntzan edo olgantzetan? ¿Cec ceroazan, bada, alango lecuetara yaquinic cer igaro oi dan? Eta non nai zala ¿eracusten ceuntsen arpegui astuna ta becoqui iluna, eta alde eguiten cenduan tentadorearen ondotic? Ala ¿barre eguiten ceuntzan, ta algara gozoa? Bai, Jauna, barre eguiten nevan, baya esaten neuntsan gueldi egoteco. Ederto (guapo). ¿Celan diñozu bada ceure borondatearen contra izan zala? Gura ez dozuzan gaucetan ¿barreca egoten zara? Zure honrearen contra cerbaist esango baleutsue, ez cenduque, ez, barreric eguingo ez algararic beré. Eta sugueren bat zuri usiguitera baletor ¿esango ceunquio macal macal; suguea, zagoz gueldi? Guzurrac dira orreec; guzurrac, ta guzurrac beré guzur galantac. Badira, bai, obrazco pecatuan yausita beré con-

fesoreari esan daroaquenac, eurac gura ezta, izan zala. ¡O confesino ederrac! ¿Cer eguin eutsun bada besteac? ¿escu-oñac estu? ¿Eta ori mendi bacar baten? Alan izan balitz beré, cerura deadar eguin bear cenduan: dei eguin ama Virgineari eta ceure Aingueru Guardacoari. Munduco bildur guztiac gaiti, ezpata billos bat bularraren aurrean iminita, il etzaguiezan bildurrez beré, ichico baceuntso pecatuari gorputza, pecatu mortala eguingo ceunque, bicitzea emon bear dalaco, pecatu eguin baño leenago. Erri barruan balitz pecaturaco indar eguin gurea, deadar eguin bear dozu, lagunac batu ta burua gordetaco. ¿Cer eguingo cenduque bicitzea quendu gura baleutsue? ¿Celango deadar, garrashi, ta burua librau gurea? Bada maiteago davenac gorputzeco bicitzea arimacoa baño, ez da Cristoren escolacoa. Baya ¡ay! Erreguacgaiti, sari-esquintza ta utsqueria batzuc gaitic, edo ezcontzaco esperantzeagaitic eguiten da pecatu, ta guero confesetean esaten dave, Jauna, nic gura ez nevan neure gogoaren contra izan zan. Guzurra ta abarra, ta confesiño deunguea. Cein pecatua guttiz escutadu, ta ishildu, cein estalgarriren bategaz arindu ta edertu ta pecatu mortala izaiteric venialera ecarri, bardin leguez da confesiño deunguea eguiteco.

Baya achaquia guzti oneec utsaac dira; pecatu eguiten badogu, guc gura dogulaco eguiten dogu, eta guc gura ezpaguendu, ez senarra, ez emaztea, ez ugazaba, ez otseiña, ez laguna, ez infernuco guztiac ez litzatequez asco izango guri pecatu erazoteco. ¡Ah, balequie Cristiñauac ta ondo beguiratuco baleude no-en aurrean dagozan confeseta-orduan, ta nori dirautsazan euren pecatuac, e-litzatequez ebilico achaquia atsean, ez leusquioe besteri egotzico euren pecatuen errua. Jgcoac bada ondo daqui zuen biotzeco oqueluen barri, aren beguietatic ecin ecer ostenduco dozue: nai arguiro esan, nai achacquiaca edertu, ac bardin dacus guztia. ¿Cer aurretuten dozue bada gora-beera...²

Exempl. Roncal. Dominica X post Pent. n. 9.

² Sermoi hau amaituta agertzen da *Aozco Confesiñoaren ganeco berba-aldia* deritzon sermoian (B, 103-107. or.)

10. [CONFESIÑO OSOA]¹

Qui abscondit scelera sua non dirigitur, qui autem confessus fuerit, et reliquerit, misericordiam consequetur. Prov. 28. v. 13.

(J,143-156. or.)

Gaur daucagu neure cristiñauac, neure gogoco dan, eta ascoren arimeen oneraco izan dan, eta oraindo beré, Ygcoac nai badau, izango dan sermoi gozo gozo bat. Banenkian nic gaurco arratsalde onetan izango cirezala, besteetan bashen lagun gueiago, eta orregaiti berariz (beren berengui, apropos) gaurco gorde izan dot alango sermoi ederra. Eta ¿ceen ganecoa uste al dozue izango dala sermoi gozo ori? Izango da bada confesetaco ascoc daukeen buru-bagaco lotsa larreguiaren ganecoa, eracusten deutsuedala eztala alango lotsa gueyguiric bear munduco pecaturic eskergueenac, eta lotsagarrienac beré confesoreari esateco.

Anchinaric nenkian nic ece, lar beré eguia zala, confesiñoaren ganean beré, san Gregorio andiac ciñoana ece, ascoc eguin daroela pecatu eguiteco okeluetatic, zocondoetatic, eta ostendereetatic ibili, eta guero eguin izan daveela ucatu. Baya azpaldi oneetaco nire confesiñoac artu bearrac arguia baño beré arguiago eguin deust ece, uste dan bashen gueyago direala cristiñauen artean, lotsaz pecatuac ostuta, confesiñoan ecin esanic darabildeezanac; eta nire artean nago ece, ea gueyenac ete direanez. Onec erasoten deust, nire biotzeco min andiagaz bada beré, beste aldi baten san Vicente Ferrer-ec esan eroiana: ¡Ay ceinbat direan confesiñoco lotseagaitic galduten direan arimaac!

Onelango gauza negargarriac erdibituten deust biotza; eta kendu guraric argal gaisho oneec, yausi agueinean dagozan infernuco muna-
ren ertz ertzeric, gogoac artu dodaz aleguinac eguiteco, ea galerazo

¹ Jatorrizko testuak ez dakar izenbururik.

albaneyoe lotsa zori gogorreco ori. Ori eguiteco esango deutseet alangoai, onetaraco eguin eguinic datozen Yaungoicoaren berba oneec: “bere pecatuac ostu, eta gorde eguiten dituzanac eztau gauzonnic izango; baya artez autortu (esan) eta guero euretari alde eguiten davenac, orrec izango dau parcaciñoa”. Ea bada pecatari lotsorrac, biotza zabaldu bear dozue, bada Jgcoa lagun dodala, nic arratsalde onetan bota eraguingo deutsuedaz ain luzaro galduric, eta galdu bearez, erabili izan zaituezan lotsa orreec. Eta orretaraco neure sermoi guztia izango da eracustea eztagoala errazoiaren apurric beré pecatu guztiac, direanac direala, confesoreari artez ez esateco. Ori alan eguiteco erantzungo deutseet banaan banaan onelango lotsoor gaishoac gueyen ecarri oi dituezan achakia yakinenai.

Ea bada guizona, emacumea, gaztea, edo zareana zareala, azpaldico urteetan ceure pecatuac esan ecinic zabiltzazana, ¿ceen lotseac atzeratuten zaituz ceure pecatu orreec ez confesetaco? ¿Ce gogoac dira ceureac? ¿Eztacutsu oker zoazala? Lotsa pusca bat ez erotearren, ¿betico galdua izan gura dozu? ¿Orren erraz galdu gura dozu betico ta betico ceure arimea, izanic ceruraco eguina? Esan eguidazu, neure cristiñau maitea, aguinduco baleu Españaco Erreguec gitarico bateri urcamendi baten bicitzea kenduteco eguin izan dituzan gaistakeriac gaiti, eta urcamendi orren escalleretara elduric, errukiac yota esango baleutso Erregue orrec: ea urlia, ceuc baakizu celango eriotza lotsagarria merci izan dozun: baya orregaiti beré ceuc bear etzeunkean mesede andi bat eguin gura deusut. Ceuc ceure okerreria guztiac bapere ichi bagaric, ceurezean eta ceure buruen aurreti esan gura badeutsazuz eleshaco orma bateri, direanac parcatuco deusudaz: izango zara nire adiskide. Baya esan gura ezpadozuz, yakin eguizu ece bertanche urcatua izango zareala. Opaera eder au Erreguec eguin ezkerero, tematuco balichaco, ez bada, eztituzala esan bear, eta alan balego muker ta muker bein beré esan gura bagaric, ¿cer esango guenduke onelangoa gaiti? Edo bururic eraguinda dagoala; edo bai guichienez ernegaduric eta bere buruagaz ichiric; ecin cenzundunec eguin leikeala zorakeria andiagoric.

Bada cristiñaua; beguira aldi bat eguiozu ceure buruari. Beste onenbeste yazoten da ceugaz Jgcoaren artean, araco ceure pecatua confesadu nai eztozunean. Azpaldico urteetan pecatu mortalean bici zara, eta orregaitic idunean (zamaan) daucazuz socaac infernuco urcamendi lotsagarrian urcatua izateco. Arnasa baten pensutan zagoz betico galdua izateco: eta Jgcoac parcatu (-ten ezteutsula) ezic yaki-

na da ceure galdu bearra: elduco yatzu eriotzea, eta buruz amilduco zara infernuco ondarretara. Barriz Erregue guztien Erreguec, gueure Yesus maiteac opa (opetzietan) deutsu orain arteco pecatu guztien parcaciñoa, direanac osoro bapere (arean) ichi bagaric, bear dan damuagaz confesoreari belarran esaten badeutsazuz, edo, esan dai-gun, orma bateri, ce guztioac dakigun eguia arteza da confesoreac ormeac bashen ishil gorde bear dituzala confesiñoan entzunico pecatuac. Gauza erraz ori eguin gura badozu, kenduco deutsuz, gaishin citelac infernuco urcamendiraco idunean (zamaan) imini deutsuzan soca orreec. Baita ezta emen gueratuten (lotuten) eskintza eder au, ece azaz osterantzean (ganeti) eguingo zaituz gloriaco yaun andi, baita emongo deutsu ceruan, betico iraungo deutsun coroe edergarria. Eta alanbere ¿confesadu gura eztozuz ceure pecatuac. ¿Baliteke au bashen zorakeria andiagoric?

1.go ¿Cer da guero atzeratuten zaituzana ez confesetaco? ¿Cec zaucaz orren itsuric? ¿Nori deutsazu bildur? ¡Ay aita! esango dau bear bada batec edo batec, bildurtu nintzan confesetaco uste nevalaco ece, bearco zala Erroma-ra yoan edo Inkisiciñoa, ausolucioa izateco. Entzun dot edonor beré, ecin confesoreac ausolbidu leikeala, ezta bulda santua izanda beré, heregiaczco pecatua, eta nerechan ece, nic neunkazan pecatuac, eregiaczcoac cireala= ¡Oh diabruaren asmu citalac, arimaac confesiño osoa eguiteric atzeratuteco! ¿Cer da guero ceuc eregiaczco pecatutzat daucazun ori? ¿Abereren (ganaduren) bategaz eguinico pecatu loa? Ezta, ez, ori eregiaczco pecatua, eta edocein confesorec ausolbiduco zaituz alango pecaturic damu zoli onagaz confesetan badozu. Eregiazco pecatua dago yakinen ganera, eta temaz leguez ucatutean, edo sinisteric emon nai ez izatean fedeco articuluai, edo elshaco eguia yakin bateri. Baya burura etortea onen ganeco duda moduco beguitaciñoac, eta pensamentuac, ezta ori pecatu, damu emoten badau alango tentaciñoac etortec, eta no-beren guraz eta yakinen ganera lecu emoten ezpayake. ¡Oy ceinbat bider egon direan asco ta asco confesadu ecinic onelango pensamentu gogai-carri pecatu eztireanac beré, leen esan doguzan loikeriac ez ece, (beguitanduric) buruac emonagaz beste bagaric, eregiaczco pecatua eguin eveela. Baya dana dala, eztago Erromara edo Inkisiciñoa bearric, eregiaczco pecatu benetacoan yausi izan baciña beré: confesoreac artuco dituz (bere) bideac, ceuc ceure burua aguertu bagaric ausoluciñoa izateco. ¡Ay balegoz arima becatuari gorroto artu izan

deutseenac, eta onduteco gogoan dagozanac, eta ¡ce pociç emongo gueunskioen ausoluciñoa pecatu anditzar icaragarriac izan arren!

2n.= Bigarren engañua izan doa: yauna, bildurtu nintzan confesoreac norbaiteri esango eutsala, edo aric aurrera arpegui iluna eguingo eustala, eta nencusan lecuan buruac emongo eutsazala nire pecatuac= ¡Á da zorakeria! Confesoreac ¿iñori esan? Ezta erreco baleve bere. Confesoreac ¿iñori aguertu? Ezta ceuri beré ceure bayezcoagaz ezpada (ez izanic), eta ori beré esan bearren bat danean. Ederto baten dirautsu san Agustin-ec: “¿ceen bildur zara pecatuac ez esateco? Confesiñoti dakidana guichiago dakit oraindo, iñondi beré ezdakidana baño”. Ygcoac galarazo deuscu confesiñoan entzuna esaten; baya ain estu ece, ezta bagueunki pecatuchu chiki bacar bat esanagaz infernuco guztiac andic urtenda ceruraco izango litekezala, ecin orregaitic beré esan guiñaike dan chikien chikiena beré. Baguenki pecatu chiki ori ez esanagaitic gueue il eguingo guindukeezala, edo mundu guztia erre, galdu eta ondatu eguingo litekeala, ecin esan giñaike orregaitic! Baita barriz eztirudi ezpada ce Yaungoicoac onen ganean aparteco ardurea daucala. Confesore izan direan ascori burura eguin yake, eta esan dituez milla gauza igaro: baya ezta eguño bere icusi, ezta onelangoac beré, confesiñoco gauzaric aitatu izan daveela: eta iñosco alditan okerren batzuc ecer aitatu izan badeutse, aserratu eguin yake zoro ta guzti. Gura dozue entzun gueyago? Bada ara. Ceuec dakizue eta eztago ezdakianic confesoreen artean bere euren moducoac izaten direala: eta batzuc batetic, besteac bestetic, argalac leguez, euren utsac, eta erracuntzaac izaten dituezala. Baya ¿ceimbat confesore icusi dozuez confesiñoan entzuna zabalduten? Izan dira sacerdoteen artean eregeac beré, confesiñoaren contra asco esan, eta asco escribidu izan daveenac: baya eztira oneec beré ibili confesiñoan entzuna esaten, eta ez bildurrez, ez escrupuluz, ezpada ce Jaungoicoac aparteco contuagaz olangoac esatea bururic kendu izan deutseelaco. Beste ainbeste esan bear da becoki ilunaren ganean: ecin confesoreac iñori becoki ilunic eguin leyo confesiñoan entzunacgaiti. Eta dana dala, ezta gauza ceuen achakia ori. ¿Cer daucazue confesore ez ezagun baten oñetan echun, eta ari ceuen pecatuac bota baño?

3n.= ¡Ay, yauna! Esan daroe batzuc, eztau iñoc beré entzun nireac bashen pecatu ezainagoric, ¡Ay esanda baneuncaz! Eta celan oneric aurrera eguingo neunkean bicitza on on bat. Osterantzeco guztiac esango neunkez: baya bi edo iru daucadaz guztiz lotsagarri eta ezai-

nac.= Aror diabru gaiskinac ascori buruan cer sartuten deutsen, pecatuac confesadu eztaguiezan, alan guero sacrilegioz beteric beragana infernura eroateco. Azpaldi da dollor au onango dollorkerietan dabilela; baita urteac dira San Yoan-Crisostomo-c igarri eutsala. “Ygcoac, diño santu andi onec, Ygcoac pecatuari lotsea ezarri eutsan, eta penitenciari esperantzea: baya gaiskin citalac okerretara iminten dau guztia, eta pecatuari esperantzea emoten deutso, confesiñoari barriz lotsea”. Pecatu eguiteco lotsaric ez, eta guero confesetaco ainbeste lotsa: arimea loituteco lotsaric arean (bapere) ez; eta garbituteco lotsaari andia: pecatari eguit-orduan etzeuncan lotsaren apurric; orain barriz santu, ta ona eguiteco lotsaz bete beteric zagoz. ¡Eh! ¿Cetaraco dira buru-bagaco lotsa orreec? Ceuri bere esan leki-kezu anchina Socrates filosofoac gazte bateri esan eutsana. Egoan au andracume galdu baten etseric lotsa-arren urten ecinic, eta esa' eutsan filosofoac: “Ez ene seme, ez lotsa izan urteten; sartuteco lotsea izan bear tzenduan”.

Baya goazan achakia onei ate guztia ichiten (ra) ezteyogun ichi ezta dan irrikituric chiquiena beré. Pecatu icaragarriac dira diñozu, eta eztaucat esateco arpeguiric. ¿Cer eguin dozu bada? ¿Esan birao erneguzcoac Ygcoaren contra? ¿Madaricatu izan dozu bere icen santua? ¿Artu deutzazu gorroto andi bat Yesucristori? Poztu eguin tzara Yudeguac il eveelaco? ¿Il eguin dozu ceure arerioa, edo bateatubagaco seña ceure pecatua estaldutearren? ¿Cer eguin dozu bada? ¿Erabili osticopean ostia consagraduac? ¿Ostu eleshaco calizaac? ¿Saldu eguin deutzazu demoniñoari arimea ceure firmearen bean?= Ez orrenbeste beré esango deustazu. Eta alan balitz beré, ¿cer dauca-gu orregaz? ¿Icaratuco ete guintekez orregaiti? Baya guichi goiti beeti (gora beeran) erraz da igarten ceuc daucazuna. Izango da aren baten, edo ceure buruagaz eguinico loikeriac edo ganaduagazco (abereagazco) pecatua, edo chikerretaco (chikitaco) neba-arreben arteco edo mutil-nescato arteco zantarkeriac, edo andi eguinda iñogaz izan dozun araguiazcoa, edo beste alangoren bat. Eta dana dala, ezta izango leen confesoreac entzun edo iracurri izan eztaven gauzaric.

Eta esan eguidazue, ¿cegaiti edo cetaraco icaratuco da confesorea? Confesore ori ¿ete da ceruric yatzi dan aingueruren bat? ¿Ezta Adan-en semea? ¿Ezta pecataria? Bai cristiñauac, confesorea dana dala pecataria da, dan santuena beré, eta yakinic egon bear dau ece ceuc lotsaz darabiltzuzan pecatu orretan, eta ascoz beré andiagoean

yausi leitekeala bera; bada eztau batec eguiten, beste edoceinec eguin ecin leikean pecaturic; eta eguiten ezpadau, Ygcoari eskerrac gorde izan davelaco; eta besteric uste izatea da zorakeria garbia eta soberbia uts utsa. Bada confesorea guizon peccataria bada, “¿cec lotsatuten zaituz, dirautsu San Agustin-ec, ceen lotza zara, peccataria, confesetaco ceu lango guizon bategaz, ceulango peccatar bategaz?” Ona-emen onen ganeco yazoera eder bat.

Ebilela san Luis Beltran misaño-guinan, eldu yacan bein baten confesetara guizon bat icaraz icerdi labana gorputzeti eriola, egon bear evalaco bera leguezco peccatari batec alango santu andiaren oñetan. Laster igarri eutsan santuac ac guizonac eucan icarea, eta asi yacon berba bigunacaz peccatuac itanduten. Esaten eutsanean peccatu lotsagarrizcoren bat, erantzuten eutsan santuac arpegui amodiozco bategaz: ederto zoaz; ea, aurrera. Guizon gaishoac biotza zabalduric, esaten eutsazan artez artez guztiac, eta esanago eta arguiago san Luis-en arpeguia, pozezco negar anpullu-gozaoc bere beguietaric eriozala. Ito bear evan negarrez guizon orrec bere peccatuen damuz eta azkenean esan eutsan: aita, bada beste peccatu guztiac bigun entzun deustaz, entzun bear deust orain emenche bertan buruac emon bear izan deustan susma charra, edo peccoco okerra. Iкуси dodanean berorren biguntasuna, buruac emon deust ece, ezcala izango berori diñoen bashen santua: berorrec beré nos edo noscoan eguin izango dituzala nireac leguezco peccaturen batzuc. Ganecoan ¿celan artuco ninduan onen bigun? ¿celan aguiraca itoco e-ninduan?

¡Ay, ene seme biotzeco! esan eutsan santuac guichi gora beera-co berba oneecaz. Ygcoari eskerrac, eztot nic iños eguin alango gauzaric. Mundua ezagutu baño leen dei-eguin eustan erreligiñora, eta gorde izan nau Yaunac peccatu zantarretaric. Baya ¿cer gura dozu? Ceruco Aingueruac, ni baño ascoz ta ascoz garbiagoac, poztu eguiten dira Jesucristo-c diñoan-ez (di) peccatari bat onduten danean, ¿celan bada ni poztuco ez nas icusi ezkerco celango damu ederragaz eguin dozun ceure confesiño general oso osoa? ¿celan batuco eztodaz ceure negar-anpullu (malco)-ac, ceure biotzeric atera deustuzan Ygcoari berari eskeintzeco (eskiniteko)? Arimaco medicu eguin izan banau Yesucristo-c, ¿celan poztuco e-naz ceu osaturic icusita? ¿Non euqui nei nic alango bezcari gozoric? ¡Ay neure seme biotzeco! Iraun eiquezu orain artu dozuzan gogo santuetan; ece salbetan bazara zu ta ni, bioc cantaduco deustaguz Yaungoicoari alabantza eta esker ederrac; ceuc icharon deustulaco penitencia eguin artean, eta nic nire

belaunetara biraldu (aguindu) zaituzalaco, Cristoren pasiñoco frutu gozoa ceure arimaan erantzeco (iraasteco).

Cristiñaua, ceure urte ascotaco pecatuac esateco icaraz, eta bildurrez igaroric zagozana, ¿cegaiti etzoaz confesore arima-zale on bategana? Bota alde batera bildurroc: eguin bet betico agur bat pecatuari eta pecatuaren bide ezagun guztiai, eta esan direan direanac artez artez, eta arguiro arguiro confesoreari. E-chatzu icaratuco orregaiti, ezta Yudas bera baño okerrago izan bazara beré, aurrerantzean, biciera barri bat eguiteco asmuacaz icusten bazaituz. ¿Uste al dozu ece confesorea ceure pecatuac entzun-da burruca abiaduco yatzula, edo errieltan eguingo deutsal? Uste al dozu ece, ceure pecatuac esanagaz confesoreari atsacaba (atsapada) andiren bat emongo deutsal, eta ceure contra chacur eguinic paraduco (dala) yatzula? Ez, ez, cristiñau maitea, ezta alangoric izango; eta orain artean orretan egon izan bazara, eztakizu ondo cer eguiteco paretan dan confesiñoan sacerdotea. Ez, ezcara yarten iñoren pecatuac-gaiti icaratuteco ezpabere Ygcoagaz guizonen artean bakeac eguiteco. Confesoreac gara arimeen arraiñtallaac; eta celan arrañetan dabilen bat, ceinbat arraiñ andiago artu, ainbat eta pozago eguiten dan, alanche gueu beré ceinbat eta pecatari andiagoo, baya ondo prestaduta, yatorcun, ainbat eta arguiago, eta zabalago eguiten yacu biotza. Alan bada, egon bazara urte osoetan diabruaren aguindupean, eguin izan badozuz eguin al leitekezan pecaturic lotsagarrienac eta icaragarrienac beré, ezta orregaitic ecer: esan guztiac ba-chu beré gorde bagaric; direanac direala, eztira izango munduan leenago icusi izan eztireanac; eta balira beré confesoreac guztia conponduco dau. Ez orretaraco lotsaric izan, bada, san Agustin-ec diñoana, Adan-en seme-alabeena da pecatu eguitea, eta cristiñauena pecaturic urtetea.

4. Oraindo asta guichiago dauco beste ascoren achakiac. Ara celango zorakeriac atzeratuten dituzan asco, pecatuac bear dan leguez esateco. “Neu, esan daroe euren artean, neu beti bategaz eguin noa. Pecatu chikiac, besteric ezteutsat confesadu, eta ¿orain guztiac esango deutsal? ¿Cer esango leuke nigaiti? Beste bategana banoa, Jgcoac daki buruac ari nigaitic cer emongo deutsal”. ¡Ay ce zuur dabilen diabrua arimaac galduteco! ¿Noc usteco leuke onelango umekeriac gaiti dabiltzazala asco confesiño okerrac eguiten? Baya ¿celan izango da, baabiltz-eta? Baya, alan zabilizan cristiñau argala, esan eguidazu, ¿uste dozu eztakigula confesoreac, asco baño gueyago dabiltzazala confesiñoan pecatuac esan ecinic? ¿Ete da ori urru-

neric (asagoric) etorririco gueuc eztakigun gauza barriren bat? ¿Ez al dakigu zu ta guztioac Adan-en seme-alabaac pecatuan sortuac garea-la, eta ceuc daucazuna eta gueyago eguiteco iñoren bearric eztogula? ¿Cetaraco dira bada sen-bagaco bildur orreec? Ara bada, nic ondo dakit, eta ondo-yakinac leguez esan gura deutsut: esaten badeutsazu garbiro ceure conciencian daucazun guztia, oneric aurrera orain artean baño obeto beguiratuco deutsu ceure arimaren oneraco, cegaitic ece usteco dau ece, bene benetan cerua gura dozula, bada orainguiño bere lotsaz ichi cenduana, berberari orain humil umil guztia aguertu deutsazu. Ez euan San Agustin-ec orrenbeste bildur erabili bere pecatu lotsagarriac liburu baten escribidu, eta guztien escuetara zabalduteco, eta gaur dan egunean beré gura dogunac anche iracurten dogu bere gazte zorotan celango nesca-zalea izan zan, ceinbategaz ibili zan, celan bateganic ishilcumechu bat izan euan, eta osterantzeco bere okerreriac. ¡O santu andia! ceu zara burubagaco lotsoor oneen lotsagarria; bada oneec lotsa badira confesoreari pecatuac belarrian ishil ishilic esaten, ceuc, ceure burua umildutearren, mundu guztiari iragarri deutsazuz ceure oker-eguin guztiac. Eta ¿cer galdu euan san Agustin-ec ori eguinagaz? Ecer (arean) ez: bada orregaz eta beste gauza on ascogaz eguin euan bere pecatu andien penitencia; lotsaac yoantcirean, eta orain dago ceruan Jaungoicoa icusten.

Baya daigun aurra gura badozu, ecer galduten dozula. ¿Cein da oba, edo bategazco galdutea, edo ascogazco? ¿Baten aurrean ala ascoren aurrean da errazago pecatuac esatea? ¿Edo ishilic eukico davenari esatea, edo mundu guztiari esatea? Zoroac bere bakie lotsagarri guchiago dala lagun ishil bateri esatea, ascori esatea baño. Bada bitaric batec izan bearco dau. Orain bateri ceure borondatez aguertu gura ezpadeutsazu ceure pecatua, guero bapere onic atera bagaric asco eta ascoren aurrean esan bearco dozu: ceure esker gais-toan, eta damu gogorrean mundu guztiaren beguietan aguertu bearco dozu, eta guztiac yakin bearco dave celango gaistoa izan tzarean. Barriz orain confesetan badozu, iñoc yakingo eztau, ceure lotsagarri-raco beintzat, esaten dan arteco lotsa apurra beingoan yoango yatzu, eta orregaz izango dozu pecatu orren parcaciñoa. Ea bada ceineri ondoen derichazun.

Atzeratu eta gorde gura dozu? Bada ara cer dirautsun San Yoan Crisostomo-c. “Ez eutsan Yaungoicoac David erregueari bacarric esan, eta bai ceuri, eta ceu-langoai onaco icaragarritzco berba au: *ceuc ezcutuan eguin izan dozuz gaistakeria orreec*, eta ostu gura

izan dozuz: baya ez, eztozu ceureagaz urtengo. *Nic, nic ateraco deutsudaz mundu guztiaren beguietara, eguzki arguitara urten bearco dave guztiac.*” Ceuc okeluetan (zocondoetan, ostenderetan) ceure cabutan (ezean) eguin cenduan (ukiera) escuca loya: eztozu confesadu gura izan: baya nic zabalduco deutsut mundu guztiaren beguietan, ceu basterretan, sabayetan, guela bacarretan ostenduten (ezcutetan) cinean ceure lagun charragaz pecatu eguiteco: eztozu confesadu nai izan: bada nic aguirian iminico dodaz ceure loikeria guztiac munduaren aurrean... Ceuc gau utsez, iñoc etzencusala eguin cenduan lapurreria; ostu cenduan iñoren artoa, garia, etc.: gaucea: eztozu confesadu gura izan: baya nic ateraco deutsut mundu guztiaren beguietara. Ceuc ceure adiskideac baño ez ekizula artu cenduan ceuc daki zu cer: eguin cenduzan aleguin guztiac pecatuti-co seña galduteco: ito (ireto) eguin cenduan ume yayo-barria ceure pecatua aguertu ez cedin: eztozu confesadu nai izan: bada nic zabal zabal eguingo deutsut mundu guztiaren aurrean. Mundu guztiac yakin bearco dau nor izan zarean, nogaz batzanduten (lagunduten) cinean, cer eguiten cenduan; ichozu, ichozu, elduco da yudicioco eguna, eta direanac aguertu bearco dave mundu guztiaren beguietan. Baita ganora-bagaco lotsoorra, ain lotsa bazara orain confesore bateri, pecatari bateri belarrian ishi ishilic esaten, yakin-da beré iñori ac ecin esan leikiola, ¿celango lotsea izango eztozu azkenengo egun itzal icaragarri atan, aguirian zabal zabal imini ditezanean ceure guraso, neba-arreba, seme-alaba, adiskide, auzo, eta errico eta canpoco guztien aurrean?

Onec entzun da baakit nic cer esaten dozun ceure artean. Nonbait diñozu, ilgo ez al naz confesadu bagaric. Etorrico da gueure errira misiño aldi barri bat; izango dot nos edo nos confesore ez ezagun bat, eta derechat ece, ari erraz esango deutsedazala. Baya diabruaren asmuac dira orreec beré, eta ez chiker chikerrac. Ea ezpabere ¿nondic dakizu ceuc icharongo deutsula Ygcoac arik-eta misiño barri bat etorri artean? ¿Baucazu egun segururic mundu onetan? Bai barriz, Ygcoac ceuri bicitzea luzatuteco alazoco (alagalaco) bideac dozuz confesiño eta comuniño deungaac. Baya ondo, datorrela misiño-aldi barri ori, edo confesore ez ezagun ori, eta orduan ¿confesadu dozuz ceure pecatu guztiac ba-chu beré ichi bagaric? ¿Etzaituz artuco icara barri batec, ceinec ito arazoco deutsun biotzean ceure pecatua? ¡Ay, cristiñau eroa, diabrua itsututa zaucazana! ¿Ceri adi (beguira) zagoz? Ecin aguertu dozula orain, diñozu, eta guero bai? Guero errazago izango ete da pecatu gueyagogaz arimea cargadu

ezkero? Ara bada cer yazoco yatzun: confesiño-comuniño okerracaz gogortuco yatzu biotza, gueyagotuco yatzu lotsea, diabruac indar, eta nagusitasun gueyago artuco dau, beteco dozu ceure pecatuen neurria, ezteutsuz Ygcoac emongo lengo kisketadac, eta deyac, ¿eta..? eta yoango zara Lucifer infernuco confesorearen oñetara confesiño oso oso bat eguitera; eta an, nire contu, eztozu, ez, ba-chu beré ichico (ostuco), eta guero ac emongo deutsu betico izango dozun penitencia.

Bai cristiñaua, eztago emen erremedioric; edo galdu zori-gogorreco lotsa ori, edo artez artez infernura. Eztago onen bien arteco bitartecoric, eztago urten-bideric. Orain, dirautsu san Agustin-ec, orain erraz erraz dozu salbetea, confesiño on bat eguin-da: baya au eguin-ezic (eguiten eztozula) betico galdua zara. Alper alperric necatuco dozu ceure burua urte guztian ur ta ogui barau eguin ecinic: alperric emongo deutsazuz pobreai ceure ondasunac; alperric eguingo dozuz san Pedro Alcantaracoac baño beré penitencia eta nekegarri andiangoac. Confesetan ezpadozu pecatu gordea, oneec guztioic eguinda beré, betico infernu bat izango dozu. Orduan damuco dozu, orduan negar ta negar eguingo dozu, baya ondo alperric. Ea bada Cristiñaua ¿onetic cein gura dozu? ¿cein aututen dozu? ¿ceinetara escua luzatuten dozu? ¿Opa deutsazu ceure arimeari betico cerua, ala betico infernua? Oraindo beré ¿atzerazagoz? ¿Eztaucazu ainbat lasterren confesiño oso bat eguiteco asmuric? Bayetz derechat diñozula ceure artean. Bada badaucazu arin(carra) laster confesorea-gana ez ebili gaurric biarreraco contuacaz. Eta lotsea kenduteco nic emongo deutsut bide on bat. Zoaz confesore topadu al dozun onenagana, eta asi ta bertatic esango deutsazu: Yauna, bada nic lotsa andia emoten deusten pecatu iños confesadu bagacoac daucadaz. Lagundu bear deust berorrec guztia esaten. Au entzunda berac biotza zabalduco deutsu berba bigunacaz. Eta guero asi zaitez esaten lotsa gueyago emoten deutsuenetic, (ce ameneco) bada bear bada, gueroago esateco ichiten badozu, yazo lekikezu beste ascori yazo yacana, esan bagaric ichitea. Ona emen onen ganeco yazocuntza ascotan pulpituetic esan dana ascoren oneraco.

Egoan erri baten andra bat, urte osoetan bere pecatuac aguertu ecinic, confesore ez ezagun bateri guero esateco usteaz. Bitartean erorian bicitza larri-estua yanac bere onic eguiten ez eutsala. !Ay, esanda baneucaz! ¡Ay baletor ona nic ez dazaudan, eta ni ez nazauan confesore yakintsu bat! Ar'or bada non usteric guichien evanean

elduten direan erri atara igaro-pidez san Francisco-co ordeaco misionista bi. Arguitu yacan orregaz biotza andra gaishoari, eta yoan tzan biaramon goshean eleshara icharoteco erligioso bi-aen arteco batari. Etorri cirean oneec meza emotera, eta bategana elduric esan eutsan: aita, mesede eguin beguit confesetea. Bai, pocic beré, erantzun eutsan, eta sartu zan confesonarioan. Asi evan andreac confesiñoa; bitartean egoan misionista laguna eleshaco baster baten oraciño eguiten. Eta Ygcoac eracutsi eutsan cer yazoten zan andra gaisho orregaz, urrengo icusgarri itzal onegaz: Icusten evan misionista onec celan zapo errescada andi batec urtete'evan elesharic canpora. Cirri batec emoten deutso beingoan: ¡Jesus! diño, ¿cer da au? ¿Nondi nora dato? zapo zantar oneec? Boa, boa beguira ea nondic etozan, eta icusten dau confesetan egoan andraren aotic urten daveela zapo guztia. Icusten dau gueyago: icusten dau mortal (zapo) tzar icaragarri bat dagoala andrearen samaan (eztarran) urten guraric eta urten ecinic: ¿Cetan lotuco (gueldituco) ete da gauza au? Baya bere biotzeco damuric andienagaz icusten dau celan mortal tzar ori atzera guztia sartu zan, eta aren atzean elesharic canpora urten evan zapo errescada guztia. Confesiñoa amaitu (azkendu) zan nos edo bein: meza emon misionista biac eta euren bidean yoazala esan eutsan lagunari cer icusi evan. Laster biotzac emo'eutsen cer izan leitekean, eta aren arimea galdu etzidin bildurrez alcarrereri esan eutseen goazan atzera ea topau al baguinai andra ori.

Batoz eleshara: bay orduraco yoan yaken elesharic andrea. Goazan bere etsera. Boaz etsera; baya ¡ay! eta ¡ce icaragarria dan Ygcoa bere gauceetan! Ya orduraco andra orrec contu emo'eutsan Ygcoari. Gogortu (arritu) cirean danac, eta gogortu beré eguin bear icusi evenagaz eta icusten evenagaz. Yarri (parau) cirean andra gaisho aren arimea gaiti oraciño eguiten, eta atan egozala (cinarduela) orra non aurrean paretan (iminten) yaken arima ori. Baya ¿celan parau? Sua ta garra alde guztietatic eriola, eta suga tzar bildur-garri batec sustarragaz (eztenagaz) biotza apurtuten eutsala. Conorte guztia yoan yaken ori icusita (orrenbeste icusita) baya andreac berac biotz pusca bat emon eutseen cirautseela: "Ygcoaren ministroac, animau zaitece entzuteco nic esango deusuedana. Yakin eguizue bada, celan ni egon nazan urte ascotan gauza dan confesiño artezic eguin bagaric, lotsaz atzeratuten izan dodazalaco pecatu batzuc, eta euren artean bat besteac baño lotsagarriago nerichona. Ygcoac bitarte orretan berein bider biotza yo deust, gogora dacardala celan nagoan

deungaro, eta confesetaco, eta cenfesetaco, eta confesetaco. Baya deabruac engañetan izan nau sinistu eraguinic etorrigo zala nos edo nos canpoco confesore ez ezagun bat, eta alango bateri esatea zala chito erraza. Guero ta guero beré Ygcoac ecarri cinduezan ceuec, achakiaric izan ce nenguiantzat. Asi nintzan confesetan, esan nituzan bat-ez ganeco guztiac: eta bera beré esateco abiau nintzan, baya icara andi bat sarturic, ichi nevan esan bagaric. Pecatu ashec berac biotza apurtuten (zatituten) deust sugatzar onen irudian. Galdua naz betico; ez nigaiti oraciñoric esan: predicadu eguizue erriric erri nigaz cer igaro dan, besteen bildur-garriraco.

Orra, neure cristiñauac, celango azken deunguea izan daroen lotsaz pecatuac confesadu bagaric darabildeezanac. Uste evan andra zori gaistoco orrec ece, guero guztiac confesaduco cituzala, eta alan salbaduco zala: baya alangoric eguin bagaric dago, eta egongo da betico infernuco gar artean, erretan, eta kiskalduten, Ygcoa Ygco dan arte guztian aric urten bagaric. Beguira bada, cristiñaua ceuri beré beste orrenbeste yazo ezdakizun, ceure zori-gogorra leen baño leen urrengo confesa-aldian confesetan ezpadozuz! Bear bada urrengo confesiñoaren beguira dago Ygcoa, ceuri guztien castigua emoteco. Bear bada gaurco arratsalde onetan entzun dozuzan Ygcoaren deyac izango dozuz Yaun orren atzerengo deyaac. Gaztea edo osasun onecoa zarealaco, ¿uste al dozu ece orain ichi arren guerogo confesaduco dozuzala? Eta gueroago ori ezpaletorkizu? ¿Eztozu icusten celan asco ta asco gazteac eta osasun onecoac izan da beré, nos guichien uste daveen ilten direan, confesetaco lecu bagaric? ¿Baakizu guero ceu onenbesteen beguira bazagoz? ¿Baakizu astia izan arren eraric izango dozunez? ¿Bakizu astia ta erea izan arren, eguin guraco dozunez? Ez ecelanberé, eztakizu ecer, itsu itsuan bici zara, cer etorrigo yatzun eztakizula. Eta orregaiti beré ¿ezteutsezu ichico gueroco contuai? Arren bada, cristiñaua, etzaitz ain biotz gogorrecoa ceure buruagaz izan: galdu eguizu bein edo bein ceure lotsa galtzaigarri ori. Orain dozu astia; orain dozu erea ceure conciencia pecatuz beterico ori garbituteco, manea zaitz bada, betico atzeracuntza gogaicarrri orrec ordu gaistoan botata. Ygcoa deyez yagotzu pecatuen paracaciñoa opaca.

Orretaraco ezteutsu esaten mendi bacarretara penitencia-guiñan yoateco: ez munduric mundu galduric ibilteco, ez penitencia icaragarriacaz ceure burua galduteco, ezta beré ceure pecatuac mundu bete lagunen aurrean deadarrez esateco. Ezteutsu besteric escatuten

ezpada pecatu orreec, bear dan biotzeco damuari onagaz, ishilic gordeco deutsun, eta ceuc nayen dozun confesoreari belarrian esateco. ¿Ceri beguira (adi) zagoz olango ecer-ezkeria ez eguiteco? Ez, ez; eztogu luzamen gueyago bear. Orain, orainche emen emon bear deutzazu Yesucristo-ri ori leen bait leen eguiteco berbea.

Entzun san Antonino Florencia-coac dacarren yazoera bildurgarri au. Dama ondo yaio batec eguin evan bere buruagaz eta bere bacarrian escuagazco zantarkeria loi bear etzan bat. Eguinda laster sartu yacon eguin evalaco damu gogorra, cegaitic ece etzan bera beste asco leguezcoa, bein, birritan, eta ascotan eguinda beré, euren bake onean bici direanac. Chikitututen (galdu bear) evan negarrez bere burua. ¡Ay ene! cirautsan concienciac ishil-tzaca; pecatu mortalean zagoz; ilten bazara condenaduco zara. Zoaz confesore bategana, eta agertu eikiozu eguin dozuna, ecer estari bagaric: bada edo confesau, edo condenau. Diabruac esesten eutsan besteti; eta ¿celan leen orretan ain garbia izanic, esango deutzazu confesoreari gauza ain ezaina? ¿Cer esango deutsu? Ichi eguiozu beste era obeago bateraco. Alan bada confesau eta comulguetan zan ecer aitatu bagaric, gueroago ta larriago eguiten tzala.

Buruac emo'utsan ece, bere pecatuaren parcaciñoa izateco esateco bear bagaric, monya sartu bear evala, eta alanche eguin evan. Ez egoan conventu guztian bat bera bashen penitenteagoric ez oraciño zaleagoric. Baya saguitea biotzean atera bagaric eta beti ta beti min emote'utsala. Ygcoac oraciñoco egon aldietan emoten eutsazan arguitasun andiac, eta dei gozoac. ¡Ay, gaishoa, esaten eutsan bere biotz barruan, ¿cetaraco dozuz ceure penitencia guztiac ceure pecatua confesadu bagaric badaucazu? Alperrean zabiltz lotsaac botata esaten ezpadozu. Baya bildurrac lotuten evan ez aguertuteco, eta aurrera eroazan penitenciacaz batera bere confesiño comuniño okerrac. Alango baten eguin even conventuco buru edo abadesa eta leen gacha beeban bere zantarkeria confesetan, orduan ascoz beré gachago eguin yacan. Orrenbeste pecatugaz ibilian ibilian bete evan pecatuen neurria. Eldu yacon atzenengo gacha orduan beré bere biotzac, edo bear bada bere Aingueruac, edo bitzuoc estututen even confesetaco ta confesetaco. Dei eguin eutsan confesoreari, eta bildurrac erasota esan eutsan berba au: Yauna badá nic escrupulu bat daucat. Baya celan confesoreac eucan santatzat esan eutsan: ¡ay! orreec diabruaren tentaciñoac dira eta echaramon: bota biar dira escrupuluac. Alan gueyago esan bagaric comulgadu, oleaciño santua artu eta il

tzan, conventuco guztiac negarrez egozala alango abadesa santa bat (il yakeelaco) galdu bear eveelaco.

Il tzan gau atan, egoan bacarric coruan monya santa bat bere abadesaren arimea encomendetan. Eta orra non lanparaco arguiian icusten daven keriza baltz icaragarri bat. Igaro zan dana buruti beatzeta-
ra; baya Yaungoicoaren graciaic sendotuta itandu eutsan: ¿cer bear dozu? ¡Ay ene! erantzun eutsan echura baltzac; neu naz ceuen abadesea, gaur il eta infernuan nagoana: ez nigaitic oraciñoric eguin: Yaunaren yusticiac errazoe andiagaz condenadu nau, sarri, bici nintzanean abisadu eustalaco confesetaco, gaztechua nintzala, eta conventuan sartu baño leen neure buruagaz eguin nevan zantarkeria. Alperrac izan dodaz nire penitencia eta oraciño luceac. Santa andi bat izan nintekean pecatua eguin barritan confesadu izan baneu, nic guero eguin dodazan gauza on guztiacaz. Baya galdua nas, galdua betico neure onrea neure arimea baño gueyagoan euki nevalaco. ¡O egemplu arrigarria, arriac bigunduteco asco dana! ¡Pecatu bacar batec galarazo bearra ain beste penitencia, ain-beste oraciño, eta ain-beste gauz'on!

11. [CONFESIÑO GENERALA]¹

Recogitabo tibi omnes annos meos in amaritudine animae meae. Isaiae c.38.

Gogora ecarrico deutsudaz neure bizi guztico urteac nire arimaco damuric andienaz.

(J, 39-45. or.)

Gaurco arratsalde onetan, neure entzula biotzecoac, eguin bear deutsuet Confesiño generalaren ganeco doctrinea Misiño denporan eguin oi diranetaric onena eta mesedegarriena. Misiño Santuac eguin oi dira pecatari gaishoac onduteco, bide gaistoetatic edo bildurrezcoetatic dabiltzazanac bide ciurrera eta artezera ecarteco, eta Cristiñau epelac Jgcoaren amodioan berotuteco. Baita onetaraco batzuc eguin bear dave Confesiño generala, eta beste batzuentzat ondo da Confesiño ori eguitea. Bai, bada Confesiño general ondo eguinac zucenduten dituz ordu-ra arteco Confesiño gaistoetaco oquerrac, ateraten dituz arimaco quezcac eta arantzac, quenduten dituz oneraco epeltasunac eta naguiac, eta dacar gure arimeetara guztizco baque gozo bat.

¿Cer dala uste dozue guero Confesiño general ori? Da bada leen banaz banaan eguin cirean confesiñoac ostera guztiac erabatera eguitea eta barrieztetea, esaten yacazala aldebatera confesoreari, leen confesa aldi ascotan confesau eta esan cirean pecatuac, baita leen confesauric eztagozanac beré. Confesiño generala ezta guztientzat bardin datorrena. Batzuentzat Confesiño generala eguitea da guztiz caltegarria, beste batzuei Confesiño general ori eguiteac mesede andia eguiten deutse, beste batzuc berriz gura ta gur'ez eguin bear dave ceruraco izango badira. Dacusgun orain nortzuentzat dan caltegarria, nortzuentzat mesedegarria, eta nortzuentzat bear bearrezcoa.

I. Da caltegarria Confesiño generala benetaco escrupulosoentzat, edo arima bildurtieguientzat. Leen, euren aleguinez, ondo eguinic badauque, eta ori eguin ezquero bicimodu ona badaroe, onetarico

¹ Jatorrizko testuak ez dakar izenbururik.

asco larregui estutu oi dira: aztu oi yoaquez ceintzuc confesau cituezan: larrituten dira, eta barriro esan gura leuquez; eta esan arren Confesoreac lengoai baque baquean ichiteco, barriro eta barriro yoaquez lengo gauzacaz burua austen. ¡Ay ene! esan daroe euren artean, ¿cetaraco da Confesoreac lengoai ez eraguiteco aguinteata, ac nire biotzeco barri ezpadaqui? Aren esana ta guzti infernura yoan bearco dot. Onelango zoraqueriataz galduten dabe Jgcoaren gaucetaraco gogo guztia. Baya esan eguidazu zareana zareala: zuc Confesiño generala eguin cenduanean ¿etzenduzan esan gogoan ceuncazan pecatu mortal guztiac? = Bai Jauna, baita gueyago izan balira beré, direanac esango nituzan. = Eta arrezquero ¿eztozu aleguina eguin lengo ecandu charreetara biurtu ez eiteco? = Bai, Jauna. = Bada zagoz gueldi, eta eguizu itsu itsuan Confesorearen esana. Osterantzean bein beré eztozu biotzean baque onic izango.

Baña contu Cristiñauac, leen esan deusuet; eta barriro ta barriro esan bear deusuet nic berba eguiten dodala benetaco escrupulosacgaiti: bada badira escrupulosoac dirudienac eta benetan escrupulosoac eztireanac beré. Onetaricoac eguin izango dave bear bada bein baño gueyagotan Confesiño generala; baya lotsaz ichi izango dave pecaturren bat edo beste esan bagaric. Estututen dituz guero euren biotzac, eta beti dabiltz bildurpean; eta alango larri-aldi batzuetan bayoaquez Confesoreari euren bildurrac adierazotera eta iragartera; baya bayoaquez erdi berbacaz, bein beré ondo agertu bagaric colco barruan gordeta darabilden pecatua. Onelangoen bildurrac eztira escrupuloac ez burubaco bildurrac, ezpada Jgcoac biralduten deutseezan arguialdiac ta bildurtasunac; eta eztave baque onic izango aric eta euren pecatu lotsaz ishilduac osoz oso esan artean. Orregaiti Confesorearen esanera egoteco zucen esan bear yaco biotzean dagoan guztia, bere itaunetara garbiro erantzuten yacala.

Da guztiz mesede andicoa Confesiño generala Cristiñauasco ta ascorentzat. Lelengo iños leenago eguin eztavenentzat, baita neure erechian escrupulosoentzat beré oneec leen eguin ezpadave, eta au izan leiteque bildur guztietaric urteteco bidea, Confesore yaquitun baten oñetara badoaz. Eztago iñor zucen yaquin leiqueanic ume egunetaco edo zortzi urteti amabostera arteco confesiñoetan utsic eguin eztavela. ¿Celan prestetan da esamina eguinaz? ¿damua ta propositu artuanaz [sic] egun zoro aetan? ¿Nor baquetuco da bada denpora ataco confesiñoacaz?²

² Azken parrafo hau guzti-guztia parentesi artean ageri da Jerusalemen dagoen orijinalaren fotokopian.

II. Da beré chito mesedegarria ta ona ezcondutera doazanentzat, alan arimac garbi garbi eguinda, emon deioezan Jgcoac, bear dituezan graciac ta laguntasunac, ezcontzeac dacazan obligaciñoai erantzuteco, nequeac pacienciatan eroateco ta lagunagaz baque ona eguiteco. Ozta ozta izango da Fraileric ez Monyaric, edo habitua sartuteco [sic] edo profesetaco Confesiño generala eguin eztavenic leen eguinda izan arren beré. Alan bada eguin bear leuque ezconduten direanac beré, bada ascoc uste ezpadau beré, ezcontzeac aguinduten dituzan eguin-berrac eztira Erligiosenac [sic] baño laburragoac. Baya ¿cer diñot nic? ¿Ceinbatec eta ceinbatec ezcondutera doazanen artean izango dave Confesiño generalaren premiña ta eguin bear osoa euren gazte denporaco zantarqueriacgaiti, eta bear bada ezcontzaco berbea emon ezquero eguin izango dituezalaco ezconduen gauzac, guero alcar erremediauco direalaco achaquiagaz? ¡Ay! Guichi ta guichi sartu oi dira garbiro ezcontzaco Sacramentu santua artzera.

Da beré guztiz mesede andicoa ezcondu ascoentzat bizi izan badira euren lagunacaz baque charrean, bear bada matrimonioco gauzetan bear danean lagundu gura bagaric, edo euren seme-alabai bear dan conturic artu ez padeutse, galarazoten ez deutseela dantzetara, fiestetara, biguiretara, eta nesca-mutilen arteco batzarretara yoa-tea. Izango da mesedegarria Confesiño generala auciac eta demanducac izan dituenentzat, euren ustez garbiro eta gauza oquerric eguin bagaric ebili badira beré, bada aucitan ibili ta pecaturic ez eguitea Santu andientzat baño ezta (andiac beré nequez eguiten daveen gauce da), diño S. Francisco Sales-ec. Izango da beré mesedegarria Jgcoaren bideetan, eta serbizioan leen baño beroago ibilteco gogoac artu dituezanentzat, Confesiño generalagaz, lengo naguitasunac eta epeltasunac galduteco. Eta azquenean berba baten asco artuteco, ondo da Confesiño generala eguitea leen bere bizian eguin eztaveenac, baita iruroguei eta irurogueta amar urtecoac (urte eguin daveenac) badira beré, eta nire ustean escrupulosoac beré, leenago eguin ezpadabe; eta au izan leite bildur guztietati urteteco bideric onena, Confesore yaquitun baten oñetara badoaz. Eztago iñor seguru yaquin leiqueanic bere ume egunetaco edo zortzi urteric amabosteraco confesiñoetan utsic eguin eztavela. ¿Celan prestau oi da egun zoro aetan esamina eguinagaz? ¿Celango damua ta propositua eroan doa confesiñora? ¿Nor bada baquetuco da denpora ataco confesiñoacaz?

III. Entzun dozue noentzaco dan caltegarri Confesiño generala, eta noentzaco dan mesedegarri. Orain entzun bear dozue nortzuc

eguin bear daveen gura ta gur'ez Confesiño generala. Aushe da doctrina onec daucan gauzaric onena eta alan orain zuur egon bear tzare, bada nonbait zuen arteco asco artuco dituz orain esango dodanac, eta nire erechian ascoren oneraco. Zuec daquizue ondo Confesiño on bat eguiteco bost gauza bear direala: lelengo, esaminea; bigarren, damua; irugarren, propositua; laugarren, Confesoreari eguin direan pecatu mortal guztiac esatea; eta bostcarren, Confesoreac emon daven penitencia eguitea. Bada onetarico baten edo baten uts eguin daveenac eguin bear dave Confesiño generala. Dacusguzan onec gauzoc astiro astiro.

Lelengo lelengo eguin bear dave Confesiño generala euren Confesiñoetaraco bear dan esaminaric eguin eztaveenac. ¿Eta ceinbat onetarico etorri yoacuz egunean egunean gure belaunetara? ¿Ceinbat esaminaren apurric beré eguin eztaveenac? ¿Ceinbat esaminea azaleti ta iraitzean baño eguin eztabeenac? ¿Celango esaminea eguin oi dave urte guztian confesau bagaric egon oi direan ascoc edo gueyenac? Bada, Cristiñauac, batec bere erruz, esamiñearen faltaz, eta aleguinac ez eguinagaitic pecatuac bear dan leguez burura ecarteco, ichiten badau esan bagaric pecatu mortalen bat, eguiten dau confesiño deunguea, eta pecatu mortal barri bat, eta confesiño deunga ori zucenduteco eguin bear dau Confesiño generala.

2.3. Baya Confesiño gaisto gueyago eguiten dira benetaco damua eroaten eztalaco. Ona emen nos alde onetati izan oi dan gaiztoa Confesiñoa. Batec, osterantzaco pecatu mortal guztiai gorroto izan arren, bateri edo bateri ondo eresten badeutso, eta aren ganean damuric artuten ezpadau, Confesiño oquerra eguiten dau, eztaucalaco bear dan leguezco damuric, eta alan eguinico Confesiño guztiac barriztau bear dituz Confesiño general bat eguinda. Bada asco dira Cristiñauen artean au eguiten daveenac. Nic orain esango deuntsuedaz onetarico batzuc³.

Baita ain asco badira beré, niri derichat ece bitara datozala guztiac, eta onec dira peaturic mesede artuten daveenac, eta onduteco proposituric eztaunqueenac. Lelengo bada Confesiño generala eguin bearra izaten dave peaturic mesede izan daveenac, edo izango daveela uste daveenac, bada onetarico gueienac damu bagaric confesau doaz. Alan bada Confesiño generala eguin bear izaten dave ezcontzaco esperantzeagaz pecatu eguin even nescatillac, ezcontzaco urte

³ Azken esaldi hau eta hurrengo bi parrafoak parentesi artean jarriak eta arrasto batez ezabatuak daude.

orrec luzaro iraun badave. Baita onetarico ascoc ezcontzeac ondo urten badeutse, eztaroe ezcontza-aurreco pecatuen damu andiric artu, bada ascotan icusten dogun gaucea da, onelango pecatuen ganean itanduten yaquenean otz otzic erantzun daroe: eguin guenduan, baya arcal erremediau guenduan. Erremediau arren pecatu eguina pecatu, ori parcatuco bada damu ona ta andia bear da. Orregaiti bada onelangoac aleguinac eguin bear dituez damu ori artuteco eta Confesiño general on bat eguiteco.

Confesiño generala eguin bear izaten dave guraso ascoc, ceintzuc euren umeac ezcondu ditezan amurruagaz, aguiduten dituez fiestetara, celaietara, biguiretara, dantza nastuetara, eta alango mutil-nescatillen batzarretara. Onelango gurasoac euren umeai pecatu eguiteco bideac emoten deutseez eta alde orretati euren lepoganean dituez gazteac eguiten dituezan, eta eguin leiquezan pecatuac, ceintzuen ganean bear bada bere bician eztave damuric artu izango, entzun arren ori ecin eguin leitequeala. Eta ara gueiago eguin bearco dave Confesiño generala gurasoac, euren umeac urliagaz edo urlinaiaiaz ezcontzea eguitera etorri daitecentzat, edo eguin ezquero galdu ez daitentzat, ichi oi deutseenac semeari nescatillearen etsera yoaten, edo besteco mutilari eurenear sartuten: bada orrec iraun daven arteco Confesiñoac eta bear bada arrezquerocoac, deungaac izango cirean.

Confesiño generala eguin bear dave prest egoten izan direanac (edo prest dagozanac) irabaci bidebacoac eguiteco; celangoac direan araco mercatari, dendera eta tratulari atera al daven guztia ateraten daveenac, beguiratu bagaric cer dan legue eroatea; edo tratu oquerrac eguin, neurrian edo pisan labur emon, edo charra onagaz ta bastua fiñagaz nastauta, iñoen lepoti aberaztuten direanac. Confesiño generala eguin bear dave lapurrac; eta ez bacarric lapurto-tzar andiac bideetara urteten daquienac, edo zaldiac, beiac, diru moltzo andiac ostu oi dituezanac, baita bere lichurrerietan dabiltzazanac emen artaburu batzuc ostu, an gari pusca bat, bestean cabilla batzuc; edo bicuntzaco lagunari orain abico arrautzac, guero ollo bat eta alan. Eguin bear dave amarren-primiciai bear dan bashen guichiago emon oi deutseenac. Confesiño generala eguin bear dave gauza ostuac biurtu al leiqueezala biurtu bagaric dauqueezanac, edo amarrenai atzeratua amarrentzalleai emon bagaric, edo zor eguiazcoai bear dan leguez erantzuten ezteutseenac. Confesiño generala eguin bear dave testamentario eta herederu ascoc, dirua arima fielac baño maiteago daveela bizi direanac, urte osoetan ilac ichi cituezan zorrac pagau

bagaric eta mezaac atera bagaric beti luzatu ta luzatu arima gaishoen caltean.

Onen ostein⁴ (ondoren) datoz propositu on bagaric confesau direanac. Onduteco gogo bagaric eztago damu onic, eta pecatuac parquetaco asco danic, eta alan eguinico Confesiñoa barriztetaco Confesiño generala eguin bear da. Baña ¿nortzuc dira onduteco gogo bagaric confesetan direanac? Guztiaac confesetara datozanean esan daroe eurac onduteco asmua badaveela, baya ez guztiaac ezece ezta guichiagoc beré eztaoie asmu ori izaten. Ara nondi igarten yaqueen. Orreec confesau ezquero (aleguinac eguiten badituez onduteco) ceatz ta ardura onagaz eguiten badituez confesoreac orretaraco emon deuteezan penitenciaac eta aguinduac, alde eguiten badave lengo bide charreetati, lengo lagun deungueetati, eta aleguinac eguiten badituez barriro ez yausteco propositu ona. Baya alan eguin bearrean, yaramonic eguiten ezpadave, badabiltz lengo bideetati, lengo lagun charracaz, eztauque benetaco proposituric. Eta alan eguin oi daveenac bitara datoz. Lelengo proposituric izan eztaoie eta orregaiti Confesiño generala eguin bear izaten dave, cetan edo atan pecatu mortala eguiteco ecandua dauqueenac edo leen izan daveenac.

Alan Confesiño generala eguin bear dave pitian pitian guzurragaz juramentu eguiteco ecandua dauqueenac. Jaiegun oso santuetan euren maña gaiztoz bear eragotzi luceac eguiteco ecandu charra dauqueenac. Confesiño generala eguin bear dave gurasoai lotsa charra artuten daquien umeac euren erremushcadacaz, purrustadacaz, atzera erantzuteacaz, musingacaz gurasoen biotzac beti minberaturic eta damuz beteric darabildezala. Confesiño generala eguin bear dave gurasoac umeai edo umeen aurrean birao eguiteco izcune donguea daveenac; aguinduten dituezanac celaietara, hermita bazterretara, biguiretara, eta nesca-mutilen arteco batzarreetara (fiestetara); euracaz batera andichu eguinda eratzoten dituezanac; edo mutil-nescachichuac alcarregaz nastean; doctrinea iracasten ezteutseenac; ichiten deutesenac ezcontzea eguin ezquero, edo eguitera etorri daitentzat semeari nescatillearen etsera yoaten edo besteco mutilari eurenera etorten; edo gazte biac nondi-gura ebiltan.

Confesiño generala eguin bear dave arcalen artean baque charra eguin daveen ezconduac, bear dan orduetan matrimoniocono gaucetan lagundu gura bagaric; edo euren buruti arcal ganic alde eguinda bizi-

⁴ Hurrengo parrafo hau zirimarratua dago orijinalaren fotokopian.

alargun azpaldian eguiten daveenac. Eguin bear dave iñogaz gorrotoan azpaldi onetan bizi izan direanac, bestea beguiz beré icusi ecin daveela; ordiac; lurra, carea, icatza, edo calte eguingo deutsen besteren bat yaten edo edaten izan daveenac. Eta seigarrenecoen ganean ¿cer esango dot? ¡Emen bai datorrela Confesiño generala eguin bear daveenen errescadea! Emen datoz bestegaz adisquidetasun deunguea izan daveenac; emen berba nasaiac edo ipuin loiac esaten daquizeanac; emen pensamentu loiac gogoan erabili eta euren artean erretan egon oi direanac; emen gazte dantza naastu-zaleac, batzaar, ta erronda zaleac; eta emen Jgcoac daquizanac, ezconduen artecoac beré. Bai ezconduen artecoac beré, ece ¿ceinbat onetaricoc eguin oi ditue umeac ez izateco zantarqueriac; eta guero confesetan ez ditue pecatu ezpalira baño gueiago; baita orretaraco pecatu andiagoa eguiten dave ezconduta ezpalegoz baño? Eta ¿ainbatec bestelango gauza charrac eguin eta guero biotzean quezquea ta arantzea izan arren eztituez confesetan? ¡Ah Cristiñauac! noberen zaguico ardoagaz beré orditu leiteque, tabernacoagaz ez-ece. Iñoc gauzonen ganean bildurric edo quezcaric badauco, itundu bedi confesoreagaz; bada eztira orreec lecu onetaraco. Confesiño generala eguin bear dave prest egoten izan direanac (ut supr.).

Confesiño generala eguin bear dave besteac gaiti deungaro esateco eta murmuretaco izcune charra dauqueenac, besteai guzurrac asmetan (erantetan) deutseezala, edo emen entzuna an esaten daveenac zabal eztabilen gauzea izanic.

Onec guztioac bada eta onelangoac (bada guztiac ezin icentadu leiz), onelango ecandu gaistoai yarraitu deutseen artean, eztave Confesiño onic eguin, eta Confesiño gaisto orreec zucenduteco eguin bear dave Confesiño general bat ondo ondo pretauta. Bai ondo ondo pretauta, pecatuen bideac quenduta, ecandu deungac quentzen asita, eta bacochari berea emonda. Ez etorri confesetara pecatuac oñean diraiuela, eta onduteco aleguinic eguin bagaric. Alan birao-guilleac, juramentu-guilleac, berba loiac esaten daquizuenac, Confesiñora baño leen ichi zuen biraoac eta juramentuac eta berba loiac. Gurasoac, Confesiñora baño leen galarazo zuen umeai fiestara, celaira, biguirara eta alangoetara yoatea. Gazteac, zuec gogoac artu alango lecuetan oñic ez ifinteco eta gurasoai euren lotsa ona gordetaco. Bici-alargunac, ez etorri Confesiñora arcalgana batzandu bagaric. Iñoen ondasunac dozuezanac, ez etorri bacochari berea emon bagaric, (aleguinean), eta lotsa bazare yaubeari berari emoten, aldean eca-

rri eguizue confesonariora, eta confesoreac eguingo dau zuen buruac aguertu bagaric.

Entzunac entzun-da bear bada esango dau batec edo batec: Jauna, bada contu gogorra da beintzat ori. Nic esaten nituzan pecatu guztiac, ez nevan bapere ezcutetan. ¿Cetaraco, bada ausi bearco dot burua, Confesiño generala eguin ecinic? = Alan galdu gura dituz diabruac asco, galarazoten deutsela Confesiño generala, aora daroen erraria baño bearrago daveena. ¿Cer da confesau arren, pecatuen damuric ezpaceuncan? Utsa da, edo obeto esateco caltegarria da damu bagaric eguiten dan Confesiñoa. = Bada, Jauna, damua beré banerichon neroiala. Samurtuten yatan biotza; esaten nevan e-nevala gueiago pecaturic eguingo. Eguia da guero griña ta pasiño charrac itsututen ninduala; baya ez nic, confesetan nintzan orduan, alango asmuric neuncalaco. = Baya, Criatiñaua, ¿egua da ceuc urte ascoan pecatu mortala eguiteco ecandua izan dozula, eta confesauta denpora andi bagaric lengo pecatuan yausten cineala? Bada aguiri da bear dan damuric izan eztozula. Balitz baten edo baten (alangoren baten / alan baten / bein edo baten) argaltasunez yaustea, orrec eztau galerazoten damua izatea; baya bai izcunez eta ecanduz eguiten dan pecatu yarraituac eta alan olangoac izan dozuzalaco, eguin bear dozu Confesiño generala.

4. Baya cetan igarten dan gueiago Confesiño generalaren bearra da norberen guraz eta yaquinen ganera confesiñoan esan bearren bat esan bagaric ichiten danean. Emendi bada dator Confesiño generala eguin bear izatea pecatu mortalen bat edo bat edo beste esan bearren bat lotsaz edo bildurrez edo oquer eguin guraric confesau bagaric ichi daveenac. ¿Eguin cenduan chiquichutan zantarqueriaren bat nebachuagaz, arrebachuagaz, escolaco edo auzoco lagunagaz, eta lotsaz edo bildurrez eztozu iños confesau? Bada Confesiño generala eguin bear dozu. Baya lelengotan, eta guero beré amazazpi amazortzi urtera artean gogoac emon ezpeutsun ori pecatu izango zanic; eta guero edo sermoiren baten entzunda, edo libururen baten iracurrita, edo beste alde bateti conturatu bacinean, eta lotsaz edo bildurrez esan bagaric ichi bacenduan, amazazpi amazortzi urteric onaco Confesiño generala eguin bear dozu, eta leenagocoa beré obeto izango da eguitea, bada chiquitan beré ain arguiro arguiro batec ezpadaqui pecatu direala, beti alanbere eguin oi dira malicia moduren bategaz, billatuten direala orretaraco lecu ezcutuac eta bacarrac.

Eguin cenduan andi eguinda ganaduren bategaz pecatu loiren bat eta ¿lotsaz etzenduan confesau? Bada eguin bear dozu Confesiño generala. Ceu beré, nescatilla, yausi cinean seigarrenecoan; edo oso osoan eguin ezagaiti (ezarren), ibili cinean zantarqueriac eguiten; eta guero ¿lotsaarren etzenduan confesau, edo esan cenduan zan baño guichiago edo ederrago? Bada Confesiño generala eguin bear dozu. Zuc, beste orrec, eguin cenduan seigarreneco ori, nebeagaz, arrebeagaz, ezconduagaz, voto castidadecodunagaz; confesau cenduan pecatua, baya lotsaz etzenduan esan celango lagunagaz izan zan? Bada Confesiño generala eguin bear dozu.

Eguin bear dave Confesiño generala Confesoreac itandu ez eutselaco pecaturen bat confesau bagaric ichi daveenac. Ara ascogaz cer yazoten dan. Itanduten deutse Confesoreac: eguin dozu ain gauza? = Bai, Jauna. = ¿Ceinbat denpora da eguin cenduala? = Jauna, lau urte. = Eta confesau dozu ños ori? = Ez, Jauna. = Eta ¿cegaitic ez? = Ezteuste, Jauna, itandu (escatu) berorrec leguez. = ¿Cer da itandu ezagaiti? Nai itandu nai itandu ez, esan bear dira Confesiñoan pecatu mortal guztiac, eta alan eguin ecic ezta gauza dan Confesiño onic eguiten. Eguin bear dave Confesiño generala pecatu bein lotsaz ichiac, aztuta ichi balituez leguez confesetan dituezanac. Au beré ascoc eguin daroe. Ichi izango dituez lotsaz esan bagaric pecaturen batzuc, estututen dituz biotzac, eta guero ta guero beré batoz bada pecatu orreec esatera; baya orduan beré lotsatuten dira esaten celan leen lotsaz ichi cituezan, eta esaten dave aztuta izan zala. Oneec ezta-be onegaz gauz onic eguin, eta bear dan bidean sartuteco Confesiño generala eguin bear dave. Eguin bear dave Confesiño generala euren pecatuac ain modutan edertuten dituezanac, ecei [sic] confesoreac benialtzat adietan (ulertuten) dituz pecatu mortalac cireanac.

Oneec entzunda, eztaquit bateri bateri biotza larritu ez ete yacon. Nic, esango dau bere artean, Confesiño generala eguin bear neuque, eta erraria (aoco oguia) bera baño beré bearrago dot. Baya ¿celan nic eguin nei Confesiño general ori? ¿Celan nic arteztu nire pecatuen contu nastauac? Ni chiqui chiquitaric asi nintzan pensamentu ciquinai lecu oso osoa emoten, berba loiac esaten ta entzuten; eguin dodaz Jaungoicoac daquizan escuca loiac, neure bacarrean, baita lagun gaistoen artean beré; ibili nas edocein naste-borrasteco batzarreetan, edocein nasaiqueria eguin arren ecer ez eustala; neure buruco ulleac baño pecatu gueiago eguin dot; confesetan izan nas, baya esaten ez nituzan erdiac, ezta onago beré; esaten nituzan buruac emoten eusta-

zanac, ta besteac gorde; esaminaric eguiten ez nevan, damuric bapere ez. Onelan izan da nire bicitzea. ¿Celan bada nic eguingo dot Confesiño general ori? ¿Celan atera anbeste pecatuen contua?

Cristiñau larritua, ¿ondu gura zara? ¿Ichi gura dozuz bein betico orainarteco lecu, olgantz, ocasiño eta ecandu deungaac? Bada orreec badira zure gogoac, errazqui zabalduco dozu cere biotz ori. Ez estutu; guztia errez errez eguingo da. Billatu eiquezu Confesore yaquintsu arima-zale bat; ari arguiro esan celangoa izan zarean, eta lagundu deizula Confesiño on bat eguiten, eta icusico dozu, ce ederto eguiten dozun guztia.

Eta au obeto eguin daguizuen esan bear deuntsuet zuen aldeti cer eguin bear dozuen. Yaquin bear dozue bada ece, eztavela iñoc Confesiño charric eguiten bururic ez izan-arren. Eta alan atso-agura lauroguei urtecoac beré, erraz eguin leie Confesiño generala, burua erdi concorturic euqui arren. Jgcoac ezteutso bacochari escatuten, bere aldeti aldavena bashen beneric. Ori eguin ezquero, pecaturen bat, edo pecaturen batzuc, edo pecatu asco, aztuta gueldituten badira, ezta ardura: orreec besteacaz batera Jgcoac parcatuten dituz; eta guero Confesiño generala (eguin) ezquero, gogora baletoz, eztago Confesoreari urrengo confesa-aldian esan baño. Eguizue bada zuen aldeti dagoana pecatuac gogora ecarteco.

Eta esamina ori eguitemo lelengo lelengo ateraco dozue contu ea batz bester urte bacochean ceinbat bider confesau zareen. Guero mandamentuetati yoango zare. Bein edo beste baño eguin eztirean pecatuac laster dira burura ecarrita. Alan batec seigarrenecoan bere ezcongueiagaz baño bestegaz eguin ezpadau, eta ori beré alango banaca batzuetaco guichitan, laster buruac emongo deutso orreri ceinbat bider izan direan guztiac. Tintago eguin direanean ezтира ain erraz zucenduten; eta ecin esan badira ain zucen zucen, esan ceinbat izango cirean guichi goiti beiti. Ecanduzco pecatuetan oraindo gachagoac dira contu ceatzac, eta orregaitic beneric ecin dozuenoc ateraco dozue contu ceinbat denporan iraun deuntsuen gauza charra eguitemo izcuneac, eta batz bester ceinbat bider izan zatequean eguinean, astean, ilean, edo urtean.

Genero bateco pecatuac alde batera esango dozuez. Seigarrenecoan bost ezcondu-bacogaz oguei bider eguin daveenac eztau ibili bear: Jauna, bategaz eguin nevan bein, bestegaz iru, bestegaz sei. Esan begui beingoan: Jauna, ezcondubacoacaz oguei bider pecatu eguin dot. Genero banataco pecatuac bacocho berez esan bear dira.

Alan ezcondubacoacaz eguin direan pecatuac eztira nastu bear ezconduacaz eguin direanacaz; ezta aideacaz eguin direanac atzeacaz eguin direanacaz. Bacocho berez esan bear da: onenbeste ezconduacaz, onenbeste ezcondubacoacaz, onenbeste aideagaz, onenbeste voto castidadeco-danagaz.

Itanduten bayaque confesetara datozanai ea damuric badauque Jgcoa ofendidu daveelaco, guztiac diño bayetz; baya asco baño gueiago dira eguiazco damu-bagaric confesetan direanac. ¡Ay! damututen yacanac cerbait eguina, eztau gueiago alangoric eguin gura, eta aleguin guztiac eguiten dituz ostera ez eguiteco. Damututen bayatzue iñori mesede eguina, esan daroazue: ¡Ay bada, yaquin izan baneu...! Eztauco urrengoan nigana etorri baño; nic emongo deutsal: arin joan bearco dau neure aurreti. Alan bada pecatuen damua daucanac beré, eztau pecuric eguin gura, eta aleguinac eguiten dituz ez eguiteco. Baya ¿ceinbat eta ceinbat dira alango aleguic eguiten eztaveenac? ¿Ceinbatec diraue urte osoetan pecatu mortala eguiteco ecandu gaistoa aurrera daroela, confesauta confesauta bein beré onduten eztireala (ondu bagaric)? Bada alan eguin daveenac eztave damu onic izaten eta eguin bear dave Confesiño generala. Eguia au ezagutu daguizen, mandamentuetati icentaduco deutsal onetari-co ecandu charretaco batzuc, eta orregaz era batera yaquingo dozue nortzuc eguin bear daveen Confesiño generala damuariric eta proposituric izan ez daveelaco. Alan bada Confesiño generala eguin bear dabe: pitian...

Ejempl. Dutari...Cardav^Z. pag 29.

FRAY MATEO DE ZABALA

12. CONFESOREAC AGUINDURIC-CO PENI- TENCIA EGUIN EDO CUMPLIETEAREN GANECO BERBA-ALDIA

(B, 108-112. or.)

1. Confesiño on bat eguiteco bear dan bostgarren gaucea da, Confesoreac aguinduten daven penitencia cumplidu ta eguitea. Penitenciaren alde, edo parte oneri dei eguiten yaco pagua edo satisfaciñoa; beragaz quitututen eta paguetan yacolaco Jaungoicoari, guizonac, pecatu eguin evanean bere ganean artu eban zorra. Au celan dan ezagututeco, yaquin bear dogu cé, pecatu mortal bacochean dagozala gauza bi: bata da errua, edo culpea, orbana, loia, cacaztasuna edo manchea, ceinegaitic dagoan pecataria condenaduric infernucosuetara. Bestea da, pecatu onegaitic pecatariac merecidu izan daven betico neque eta sua. Confesiño ondo eguinac quentzen deutso pecatariari orban edo mancha au, eta eguiten dau Jaungoicoaren areriotic bere adisquide laztan; baya ezteutso beti parcatuten erru, edo culpa onegaitic merecidu evan pena guztia; Eguiten davena da, ezteila izan neque au beti-beticoa infernuan, ezpabere demporaren batecoa. Pena onen zorra quitu bearco dau, edo mundu onetan bici dan artean obra onac eguinagaz, edo, ezpabere guero Purgatorioan. Irudi bat iminico deusuet au obeto ulertu daizuen. Dauco Erregue batec dirutza andi bat. Ostuten deusazu Erregue oneri ondasun onen zati andi bat, eta galtzean dozu dana yan-edan, yoco eta beste ceure gueistoquerietan. Artuten zaituz preso, eta condenetan zaituz Erreguec urcamendi baten bicitzea galdutera lotsaariric andianean. Bildurturic guztiori sentencia onegaz, damututen yatzu lapurretan eguina, eta escatuten deusazu Erregueri arren parcatu deizula ceure erru, edo culpea. Emoiten deusazu berbea, etzareala oster biurtuco beste aibeste eguitera, eta eguingo dozula aleguina, quendu deusazun guztia paguetaco. Erruquituric Erregue, dirautsu: Ondo dago: nic parcatuten deusut erru edo culpa guztia; etzara ilgo; etzara urcamendi baten icusico; neure adisquide izango zara. Baya ecin parcatu neiquezu, quendu deustazun ondasuna. Eta alan emoiten deusut sei,

zortzi, edo amar urteco epea zor au quitutu ta paguetaco. Baya contu; orduraco paguetan ezpadeustazu azquenengo lauciricoraguiño, carcela ilun ta guztizco gogor baten egon bearco dozu, burdiñaz yosiric, goseac ilic, egarriz itoten, eta minic gogorreneen artean, eta eztozu andic urtengo, edo zor guztia pagadu, edo quendu dozun ondasunari datorquion pena guztia igaro artean, edo beste batec zu-gaitic zor guztia pagadu artean. Aushe berau yazoten da bada zugaz... Jaungoicoaren artean beré, confesetan zareanean: parcatuten deutsu Jaunac pecatuaren erru edo culpea, quencen dau zure contra infernuraco emonic egoan sententia: baya ezteutsu parcatuten pecatuari datorquion zorra, guzti guztia pagadu artean, edo mundu onetan obra onacaz, edo bestean Purgatorioco neque eta su artean.

2. Orain bada, confesoreac emonico penitencia eguinagaz, paguetan dozu zor au, edo guichienez bere zati edo parteren bat, eta aüshegaitic dei-eguiten yaco pagua edo satisfaciñoa. Edocein-beré obra onagaz quitu eguin guinaique zor au; baya alan-beré obeto edo gueiago... confesoreen aguinduz eguinagaz. Esateraco: errezaduagaz errosario bat; barau eguinagaz, edo limosnea eguinagaz paguetan dogu Jaungoicoari deutsagun zor au, edo bere zatiren bat; baya guztiz gueiago pagaduco dogu errosario au errecetan badogu, baraua eguiten badogu, edo limosnea emoiten badogu, confesoreac penitenciatzat iminten deuscunean; bada Confesorearen aguinduz eguiten doguzanean eguiteco oneec, Penitenciaco Sacramentuaren zati eta parte dira, eta Sacramentuetan ifini evana leguez, J.C^o.c beré merecimentuen ondasunteguia, orduan artuten dogu eguiteco oneecaz gracia ugariagoa. Ain dira andiac pecatu eguinagaz gure ganean artu guenduzan zorrac, eta ain balio guichicoac gure obraric andienac cé, escatuco baleuscu Jaungoicoac gogorrean guztien pagua, ecin guc iñondic beré pagadu guñaiquio guzti guztia oso osoan. J.C^o.c bacarric pagadu eutsan modu onetan bere Aitari, orduraguiño eguin cirean, eta guero munduac dirauan artean eguingo direan pecatu guzti guztiac-gaitic; eta alan guc penitenciagaz paguetan badeutsagu Jaungoicoari deutsagun zorra da J.C^o.ren merecimentuetatic artzean dogulaco. Orregaitic eta humildade andiagoagaz, damuari benetacoagaz, eta onduteco gogo irrimeagoagaz confesetan gareanean, eta ceimbat eta debociño gueiagogaz cumplietan dogun confesoreac emonico penitencia, aimbat eta gueiago arcen dogu J.C^oren merecimentuetatic, eta aimbat eta zor gueiago paguetan deutsagu Jaungoicoari.

3. Gauza bitaraco iminten da penitencia, diño Trentoco Batzarrac, bata leen eguínico pecatuac castigadu edo paguetaco, bestea ostera euretara biurtutea galaazoteco; eta edocein-beré penitenciatan beguiratu bear dira gauza bi oneec. Alan-bere batzuc besteen artean iminten dira lengo pecatuen castiguraco, eta beste batzuc euretara beste-bein biurtutea eragozteco, guztiac guztiraco badira beré. Orainguiño esan doguna, lenengo moduco penitencien ganean izan da; orain esango doguna bigarren moducoen ganean da. Onei, barriro yausi ez eiteco direanai dei eguiten yaque osasungueiac edo medicinalac. Onetatic batzuc ain dira bear bearrecoac edo premiñacoac cé, ecin confesoreac aguindu bagaric ichi leiz eta ez confesetan danac beré ez artu edo gorde. Contu daigun: daucazu etsean nescatilla edo otsein bat, ceinegaz pecatu eguiten dozun, nos gura, echetic bota al.dozula; bada ecin confesoreac ichi leiquezu etse-barruan euqiten, eta zuc beré ecin euqui cinaique. Dacus confesoreac, yocoan iminten zarean guztian, zagozala biraoca, yuramentu guzturtica, gura ta gura ez aguindu bear deutsu ichiteco yocoa, eta zuc, beré eguin bear dozu confesorearen esana (aguindua). Dacus Confesoreac eztozuzala pagadu gura zorrac euqui-arren beré cegaz; ecin leiquezu aguindu bagaric paguetaco, eta zuc eguin bear dozu bere esana. Dacus confesoreac urlia ta urleciagaz batzainduten zarean bacochean daucazuezala alcarregaz berba, ucutute, edo beste loiqueriac; bada Confesoreac ecin ichi leiquezu ifini bagaric penitenciatzat, etzaitecela alcarregaz batu. Beingoan guztia esatearren, yaquinic edo ezaguturic confesoreac cerbaist dala zuentzat pecatuan yausteco bide, arri laban, edo pelleburua, gura ta gur.ez, eta ecin bestez aguindu bear deutsue ichiteco, eta ichi-ez-ic, ecin absolvidu cinaiqueez, ecin curutzeric emon leiquezue. Arpelic esango dozu: Jauna, emon beguit beste edocein beré penitencia, dan gogorrena; ce au ez aguindutea izango litzateque, zu pelleburuan eta gal-bidean ichitea, cein eztan beste gauzaric, ezpabere zu pecatu barruan ichitea. Orregaitic baceunco pecatura ez biurtuteco borondate (osoa, ta) benetacoa, etzeunque bear confesorearen aguinduric pelleburu orretatic urteiteco; ceuc ceurez urtengo ceunque.

4. Beste penitencia modu batzuc dagoz ceintzuc ain bear bearrecoac ezpadira beré guztiz da ondo ceatz ceatz eguitea, pecatariac, negargarrizco pecatutic urten gura badau. Onelangoac iminten dira pecatuen ecandu citela dauquenai, euren pelleburua quenceco, eta eurac euren burutic ichi edo aldatuteco escuric eztaquela. Contu

eguizue: mutil edo guizon gazte batec dauco ecandu citala bere aragiagaz pecatu eguiteco; dericho confesoreari cé, mutil onen ecandu citela quentceaco eztagoala iru barau astean eguitea langoric: aguin-duten deutso, bada, penitencia au, eta asiric barau eguiten, dacus, ecin aurrera igaro leitequeala, edo gorputza argala daucalaco, edo necazalea izanic, bearric ecin eguin leiquealaco, edo beste gauzaren bategaitic. Onec escatu leio Confesoreari aldatu deiola, eta confesoreac emon leio, beste derichon penitencia bat; baya peccariac ecin berez ta bere burutic aldatu leique penitencia au. Penitencia osaguei, edo osasungarri oneec, Confesoreac aguin-duten deusuezana leguez eguin bear dozuez, arean beré guichitu edo aldatu bagaric; bada izanic zuen bici-modua zucenduteco, eta infernuco bide oquerretic ceruco artecera aterateco, arduraric andiena imini bear dozue, humildade eta debociñoric beroenagaz confesorearen aguindua eguiten, cé au eguiten badozue, eztave asco iraungo zuen ecandu citalac.

5. Emenche, neure enzula maiteac, emon gura deusuet consellu osasuntsu, ta chitozco errez bat. Andia da benetan pecatu bacochean gueure ganean artzean dogun zorra, baya modu guztiz asco daucaguz zor au quitututeco. Ez bacarric pagadu guinaioz Jaunari, Confesoreac emonico penitenciacaz, baita beré beste edocein beré eguiteco onagaz, celangoac direan oraciño, barau, limosna, Meza-enzute, errosario, curutze-bide, Aita-gurea, Ave-maria, eta beste obra on guztia. Ez bacarric oneec arcen dituz Jaungoicoac, deusagun zorren pagu, baita beré bacochoac bere bici-moduco eguin-bearrac bete ta estaduco obligaciñoac eguin edo cumplietaco, iragoten dituzan neque, lan, icerdi, premiña, estura, eta naibague guztia. ¡Emenche bai ichi euscuzala Jaungoicoac ondasun-tegui ta aberaztasun.garri miragarriac, cegaz pagadu eta quitu zorrac! Baya ¿ce errezac? Ceure cereguin, ceure echeco arduraac, ceure eguin bearrac bapere beré ichi, edo aitzu bagaric, batu ciñaiquez arimaco ondasun aandiic cegaz quitu eguin zor deusazuna.¿Zara escondua? Eguizu ezcondu bateri dagoquion guztia, Jaungoicoac emon eutsun bici.modu orren eguin.bearrac, eta eguinenac bete eta cumplietaco gogo ta borondateagaz. Opa eiquisozuz Jaunari, onetaraco igaro bear direan nequeac; nai dala etseco ardurea euquiteco bear direanac, nai dala senar edo emazteagaz baquean bici izaiteco, nai dala seme-alabac ondo aciteco, nai dala eurentzaco yan-edana, oña ta soña irabazteco, nai dala eurai bici.moduren bat emon edo irabazteco; aror non aurquituco dozun cegaz pagadu Jaunari ceure zorrac. ¿Otseina zara? Obeidu eiquiozu

ceure nagusi ta ugazabari, Jaungoicoac berac aguinduco baleutsuna leguez; eguiquezu ceure bici-moduari datorquiona, eguin bear dozuzanac cumpletaco gogoz; isquini eiquiozuz Jaunari onetaraco eguiten dozun bear guztia, eta igaroten dozuzan nequeac; aror ondasun.tegui ugari bat, cegaz quitu ceure pecatuen zorrac. ¿Necazalea zara? Araco soloan zagozanean eguzqui berotan quisquilduten achurra, layea edo escobaria escuan dozula, alde guztietatic icerdia dariozula; igaro eguizuz lan oneec, ceure obligaciñoac cumpletaco bear direalaco, opa ta isquindu eiquiozuz Jaunari, eta ara non daucazun, cegaz quitu ceure pecatuen zorrac. Oneec gaitic diñodana, diñot beste edocean.bere bici.modu, eta oficio.gaitic.

6. Ain da andia Jaungoicoaren gunganaco amodio ta ontasuna cé, ez bacarric artuten dituz gure pecatuen zorren ordez Confesoreac emonico penitenciac, ez bacarric gure borondatez eguinico obra onac, ez bacarric bacoachac bere bici.moduan icusiten dituzan lan neque eta bear orduac; baita beré berac pecatuen castigu bialduten deuscuzan gach eta nequeac, eta alan pacienciatan badaroaguz berac bere aserreagaz biralduten deuscuzan gach, guesho, neque, min, guerra, each, labore falta, gose, pobreza, ondasun.galce; eguiten deuscuezan lapurreta, ondasun edo diru-quence, edo Jaunac biraldu al leiqueguzan gach guztiac euracaz pagaduco deutsaluz Jaungoicoari, deutsaluzan zorrac. Au ondo beguiratuco baguendu, ez litzatequez icusico aimbeste errielta, aimbeste aserre, aimbeste gorroto, aimbeste ecin-icusi, ez etsetan, ez errietan; bacoachac ezagutuco leuque, gach eta neque oneetan dagoan ondasun ugaria, eta tristetu bearrean poztuco guinatequez.

7. Baya, ai neure Cristiñauic, ¡ce atsera gagozan, Jaungoicoari zor deutsaluzana paguetaco! ¡Ce astunac pecatuaren bidea ichiric, cerucoan sartzeaco! ¿Ceimbat eta ceimbat dacusguz, ez batera ta ez bestera cirquinic erazo ecin leioela? Etorrico da guraso bat confesetan, acusaduco du birao asco ta icaragarriac eguin deutseezala seme-alaba, eta beste etsecoai. Itandu bequio oneri ea cer eguin daven ecandu au quentceaco? Eta icusico da, eztavela arean.beré.eguin. Esan bequio ¿eguin daven Confesoreac aguindu eutsana? Eta icusico da ez evala eguin. Aguindu beutsan birao edo yuramentu eguian bachean, lurrari mun eguiola, edo Ave.maria bat semeen aurrean errezadu eguiala, eztau ecerbere eguin; eta itanduric cegaitic? eran-zuten dau: lotsa izan nintzan, aimbesteren aurrean eguiten. Dacus confesoreac bestea, birao, añen eta aserre artean bici bada, dala ardao

echera, edo yocora doialaco; aguinduten deutso alango lecuetara ez eltzeaco; baya eztau yaramonic beré eguiten, eta biurtuten da bere ecanduetara. Itandu bequio, cegaitic ausi daven confesoreen aguindua? eranzungo da, adisquideac eroan ninduen; e.nintzan yoan yocauteco usteagaz; uste nevan biraoric, ez añenic e.nevala ezarrico, baya gura ezean leguez urten eusten. Dazau confesoreac, bestea ordituten bada, araguizco pecatuan yausten bada, edo bere ecandu citelac aurrera badaroaz, dala urteric urtera bashen confesetan eztalaco; aguinduten deuso, bada, confesadu deila ila.beteric ilabetera. Eztau causiñoric eguiten. Itandu bequio, cegaitic yagon eztaven aguindu yacana? Eranzungo dau luzatu eguin yat, beti nengoan confesetaco, echatan gogoa falta; baya beti atseratuten yatan. Bide bagaco achaquia oneecaz eztave eguin gura, edo eztave cumplidu gura Penitencia, eta alan, euren ecandu citalac guichitu bearrean, gueiagotuaz doaz egunean baño egunean dira ordiago, egunean baño egunean loiago, egunean baño egunean birao.cariago.

8. Icusiric gure Jaungoico maiteac, eztavela artu gura guizonac euren pecatua quentceaco erremedio ta bide ain bigun, ain erreza, atera gura leuquez daroien bide onetatic castigu, neque eta azote gogorragacaz. Bialduten dau labore-urritasuna, biralduten dau gosea, pobrecea, eta billoshtasuna; biralduten dau guerrea, gacha, eta peste, bialduten dituz nequea, atsacabea, naibaguea eta lanac edo trabajuac, modu onetan eroan al.daizan gogorrean, bigunean eguin gura eztaveen penitenciara: baya azote eta castigu oneec beré eztira asco, guizon itsuac pecatuaren lo sorrotic iratzartuteco. Eguia da, gach oneec estututen gaituezanean, esan oi dogula au Jaungoicoaren Castigua da au gueure pecatuac gaitic dator; baya emenche gueratuten da gure ezaiari guztia. Eztogu ecer eguin gura gach onen sustraia, cein da pecatua quentceaco: eztegu arean, eguin gura, Jaunaren aserrea bigunduteco; eztogu.ecer eguin gura Aita cerucoari escuan daucan azote edo cigorra quentceaco ¿Cer diñot nic, guero? Gueure pecatuen penitencia eguin bearrean, Jaunari parca escatu bearrean, aurrera daroaguz gueure pecatuac, egunean baño egunean dira andiagoac; barrien barri aserratuten dogu ceruco Aita, eta orregaitic gure gachac eta nequeac guichitu bearrean, beti doaz gueiagotuaz. Baita ¿cegaitic? gu gach oneecaz humildu bearrean, gueiago ta gueiago irritu ta aserratuten gara euracaz. Eztaquit cer eguin daiquean Jaungoicoac gugaz. Onean eta biguntasunagaz urrundu gura bagaituz pecatuetic, ezteutsagu yaramonic eguiten: confesoreen bitartez aguinduten

deuscun erremedio osasungarriric eztogu artu gura, aurrera daroaguz gueure gaistoqueria esquergueac. Gogorrean artu gura bagaituz, guztia da negarra, cispurua, zotina, baya onduteric ez; eta alan ez onean, ez gachean, ecin eroan al gaituz Jaungoicoac beragana. Ez.gaitezan, Cristiñaiac, zoroac izan, pagadu daiogun Jaunari, ceatz ceatz zor deutsaguna, eta ardurarican andienagaz: artu daiguzan confesoreac aguindurico penitenciac, eztaiguzan artun eta gogortzat euqui, cé balira beré gozotzat artu bear gueunquez, yaquinic, eurecaz irabazten doguela ceruco erreinua. Alan guerta deilla; arren bai.

FRAY MATEO DE ZABALA

13. [PENITENCIA]¹

Facite fructus dignos paenitentiae. Luc.c.3.

(J, 33-37. or.)

Confesiño on bat eguiteco bear dan bostcarren gauza da Confesoreac aguinduten daven penitencia cumplidutea, ta eguitea. Au eguitari esaten yaco pagua, edo satisfaciñoa, beragaz quitututen yacolaco Jgcoari, guizonac, pecatu eguin evanean bere ganean artu evan zorra. Bear-bearreco gaucea da confesorea errazoez emonico penitencia artutea, eta confesetan danac ezpaleuco penitencia ori cumplietaco (eguiteco) gogoric ez leuque confesiño onic eguingo, ta pecatu mortala eguingo leuque. Baya izan leiteque confesiñoa ona ta baliotsua obraz penitencia eguin ez-arren. Yazo leiteque Confesoreari penitencia emoitea aztutea. Onelangoan confesetan danac gomutarazo bear deutso: baya yazo leiteque (guerta lequiquio) beré oneri bere erru-bagaric aztutea. Baita guerta lequiquio, Confesoreac penitencia emon-da beré aitzutea. Alangoan ona da confesiñoa, beste aldetic utseguiteric edo faltaric ez padago; alan bere laster contuan yausten bada, atzera yoan bear dau Confesoreagana, itanduten ea ce penitencia eguingo daven, ta ori eguiteco eraric ezpadauco, urrengo confesetara doianean, aguertu bear da cer yazo zan. Baya yazoco balitz iñoz ondo eztan penitenciaric emoitea, ecin iñoc bere buruz larga lei cumplidu bagaric, eta eguin bear dana da, edo confesoreari berari esan, celan ecin cumplidu leiquean á penitencia, aren lecuan beste bat emon daguion, edo beste confesore yaquitun ta birtutetsu bategana yoan, ta ari esan cer yazoten yacon. No-berac eguin bear dau Confesoreac emonico penitencia, eta ezta gauza besteren escuz eguitea, penitencia ori cerbaist emoteco ezpada. Aguindu eutsuen barau eguiteco mez'enzuteco, errosarioa esateco? Bada ceuc ceuro-rrac eguin bear dozu, eta ezta asko iñori eguiteco aguindutea. Aguindu eutsuen ainbeste diru pobreai emoiteco, edo onembeste

¹ Jatorrizko testuak ez dakar izenbururik.

meza aterateco? Bada asco izango da semeari, otseinari edo besteri dirua emonda ac ateraten badituz. Penitencia guztia ecer eguin bagaric larguetan danean, pecatu mortala izaten da; baita guztia ez izanagaiti aren zati andiren bat eguiten eztanean. Pecatu mortala da beré, penitencia cumplidutea gueiegui luzatuten danean. Gauza bitaraco iminten da penitencia, diño Trentoco Concilio Santuac: bata leen eguinico pecatuac castiguetaco, eta paguetaco, bestea ostera euretara biurtutea galarozoteco; eta edocein beré penitenciatan beguiratu bear dira gauza bi oneec. Alan beré batzuc besteen artean ifinten dira lengo pecatuen castiguraco ta euren zorra ateretaco; eta beste batzuc pecatuetara beste bein biurtu ez eiteco; guztia guztiraco badira beré. Dacuguzan penitencia bitzuoc bana banacean.

Lelengo moduco penitencia da ifinten dana eguin direan pecatuen castigugarriraco ta euren zorra paguetaco (zorrari erantzuteco): aguinduten danean leguez mez'entzuteco, errosarioa esateco, altarac icusteco, limosna eguiteco, ta onelangoac. Oneec eguinagaz paguetan deutzazu Jaunari zure pecatuen zorra, edo bai guichienez zorraren zatiren bat. Guc gueure buruz eguiten doguzan obra (gauza) onacaz beré, limosnacaz, barauacaz, errezuacaz ta besteacaz, qutu eguiten dogu pecatuen zor au, baya ascozaz beré gueiago Confesorearen aguinduz eguiten doguzanacgaz: cegaitic ece oneec Penitenciac Sacramentuaren zati edo parte dira; eta Sacramentuetan imini evana leguez Jesucristoc bere merecimentuen ondasunteguaia, orregaiti alangoac eguinda gracia ugariagoac artuten doguz. Eta yaquin (ezagutu) daguizuen ce zor-modu dan penitenciagaz paguetan dana, yaquin bear dozue ce, pecatu mortal bacochean gauza bi dagozala: bata da guc daucagun (pecatariac daucan) errua, edo culpea ceinegaz orbanduten ta loituten da arimea, eta ceinegaitic dagoan infernuco suetara condenaduric. Bestea da erru onegaitic pecatariac merecidu izan daven betico nequea ta sua. Confesiño ondo eguinac quentzen deutso pecatariari arimaco orbana edo pecatuaren loia (loitasuna), eta eguiten dau Jgcoaren arerio zanetic bere adisquide laztan: baya ezteutso beti parcatuten pecatu onegaitic merecidu evan pena guztia. Eguiten davena da, quenduten deutso infernura (yoan) bearra, eta eguiten dau eztedila izan neque au beti-beticoa, ezpaberé demporaren batecoa. Pena onen zorra qutu bearco dau, edo emen mundu onetan bici dan artean obra onac eguinagaz, edo ezpaberé guero Purgatorioan ango su ta neque icaragarriac gaz. Yrudi bat iminico deutsuet au obeto ulertu daguizuen.

Ostuten deutzazu Erregueri diru-pillo bat, ta dana ondatuten dozu yan-edanean, yocoan ta zoraquerietan. Artuten zaituz preso, ta condenetan zaituz Erreguec urcamendi baten lotsariric andienezan bici-tzea galdutera. Bildurturic guztiori alango sententia icaragarriagaz, negarretan urturic, escatuten deutzazu, arren bada, parcatu deizula; ezteutsazula alangoric ostera eguingo, ta quendua beré atzera biurtuteco aleguinac eguingo dozuzala. Erruquituric Erregue, esaten deutsu: Ondo, nic parquetan deutzazu zure oquerqueria, ta eguin deustazun iraina ta injuria, nireac cirean ondasunai bear zan lotsaric eracutsi ezta. Etzara ilgo, etzaitue urcatuco; baya quendua guztia atzera emon bear deustazu, ta orretaraco nic emoiten deutzazu amar urteco epea. Eta contu amar urte onetan pagaduagaz; ce ezpabere carcela gogor baten guerizpean egon bearco dozu aric eta edo zuc, edo bestec zure ordez, dan-dana lauciri-guiñooca pagau artean. Beste onenbeste yazoten da zugaz Jaungoicoarean artean beré ondo confesetan zareanean: parcatuten deutzazu Jaunac pecatuaren errua, quentzen dau zure contra emonic egoan sententia: baya ezteutsu parcatuten pecatuari datorcon zorra guzti-guztia pagau artean, edo mundu onetan obra onacgaz, edo bestean Purgatorioco neque eta su artean.

Bigarren moduco penitencia da lengo pecatura barrero biurtu ez-eiteco emoten dana, ta oneri dei eguiten yaco penitencia *osasun-gueia*, *edo osasungarria*, arimaco osasunean irauteco dalaco. Onetatic batzuc ain dira bear bearrac, ta ain premiñazcoac ece ecin Confesoreac aguindu bagaric ichi leiz, eta confesetan danac beré gura ta gur'ez artu ta eguin bear dituz. Contu daigun daucazu etsean nescatilla bat, edo otsein bat ceinegaz pecatu eguiten dozun, eta cein nosh gura etsetic campora bota ciñaiquean? Bada ecin Confesoreac ichi leiquezu nescatilla eche-barruan euquiten, eta zuc beré ecin echean euqui ciñaique. Dacus Confesoreac yocoan iminten zarean guztian zagozala biraoca, guzurrezco yuramentuca? Gura ta gur'ez aguindu bear deutzazu ichiteco yocoa, eta zuc beré eguin bear dozu confesorearen esana. Dacus Confesoreac ezteutsazula zorrai erantzun gura, euqui-arren beré cegaz? ecin ichi leiquezu paguetan aguindu bagaric, eta zuc eguin bear dozu bere esana. Dacus confesoreac urlia ta urleciagaz batzainduten zarean bacochean daucazuezala alcarren artean berba nasaiac, escucac, ta osterancheco loiqueriac? Bada Confesoreac ecin ichi leiquezu penitenciatzat ipini bagaric, etzaitzela alcarregaz batu. Ta beingoan guztia esateco, yaquinic Confesoreac cerbaist dala zuentzaco pecatuan yausteco bidea ta arri

labana, ecin bestez aguindu bear deutsue ori ichiten, eta ichi-ez-ic, ecin absoldidu ciñaiqueze, ecin curutzeric emon leguiquezue. Arpelic esango dozue: Jauna, emon beguit beste edocein beré penitencia, dan gogorrena beré; ce au ez aguindutea izango litzateque zuec pelleburuan eta galbidean ichitea, cein eztan beste gauzaric ezpabere zuec pecatu barruan ichitea. Orregaitic baceunque pecatura biurtu ez eiteco gogo benetacoa, etzeunque Confesorearen aguinduren (Confesoreac aguindu) bearric izango pelleburu orretaric urteiteco; zuec zuenez urtengo ceunque, iñoren esanen beguira egon bagaric.

Baya ¡O cristiñau ascoren itsutasuna! Artu gura eztituez ascoc Confesoreric bigunenac (escusau ecin leiquezean) penitenciac, edo gura ta ez emon bear dituezanac. Ara emen onetarico batzuc. Yzango da guizon bat ardaoan sarri igaroten dana, tabernaac Eleshea baño gogo (begui) obeagaz icusten daroazana. Dacus Confesoreac aren pecatuen etorburua dagoala tabernan bera lango lagunacaz sartutean; an belutu-ta doiala bideetan zabuca, albo alboca: ta errosario orde daroazala echera birao errescadac, deadarrac, añenac, eta emazte gaishoari ta ume tristeai bicitza gogaitcarri bat emoten (bicitzaric emoten ez) deutsela, echean bear davena ardaotan emon-da. Dirautso, bada, Confesoreac: adisquidea, zuc, salbau (cerura) gura badozu, eguin bear dozu Confesiño general bat, (ondo ondo eguin) astiro astiro prestau-ta, ta nic aguinduten deutsut oñic ez iminteco zorigogorreco taberna orretan, edateco ez beintzat, ta onez ostean, edan aldi bacochean, gosh baten edo arratsalde baten cuartillu bat ardaotic ez igaroiteco (ez gora edateco), ta ori beré ez, orditu oi direan lagunacaz, ezta tabernan bertan beré. Eztau artu gura onelango penitencia. Beste batec echean dauco pecatu-laguna, edo beste echearen baten dauco sartu-urtenchu bat ondo ondo eztirudiana. Esaten deutso Confesoreac: bota etsetic campora lagun deunga ori, edo urten beste lecu batera; ez ecelamberé oñic sartu pecatu laguna dagoan lecuan. Ez dau artu-gura onelango penitencia osasangarriric. Egongo da besteren bat lagunagaz gorroto gogorrean, barbaric ta agur onic eguin gura ezteutsala (areriotzat daucanari), alcar auzo onac leguez icusi bagaric gaisho direanean beré. Dirautso Confesoreac: zoaz, ta eguizuz baqueac, quendu eguizu cer-esana, umillau zaquioz; zuc uste dozu ac ofendidu zaituzala, ac usteco dau zuc eguin dozula, eta nic diñot ce batac eta besteac, bioc daucazuela errua. Bada eztau artu gura penitencia au. Confesore on batec dacus

confesetara (bere oñetara) etorri yacon gazte bat, dala dantza ta fiesta-zalea: topetan dau alango lecuetan bideetaco yoan etorrietan igaro yacozala bere guraz ta bere erruz berba arin-nasaiac, escu-egozte loiac, laztangac, ta onelango zantarqueriac, igarten deutso alango bideetatic alde eguin ez-ic, ecin iraungo davela gogo ta propositu santuetan. Emoten deutso penitenciatzat, ez yoateco alango dantza nastau, nasai ta lotsaba'coetara. Au da penitencia osasungarri bear bearra, ta alan beré artu gura eztau. Oneec, bada, ta onelangoac ezta-ve gauza dan confesiño onic eguiten, artu ta eguin gura eztituezalaco penitencia osasunagarriac, eguin bearrac, ta preminazcoac direanac.

Beste penitencia osasungarri batzuc dagoz ceintzuc ain bear-bearrecoac ezpadira beré, gutziz da ondo, orregaitic, ceatz ceatz ta con-tuz eguitea, pecatariac negargarrizco pecatutic urten gura badau. Onelangoac iminten yaquez pecatu eguiteco ecandu citala dauqueenai, ecandu ori galduteco, ta pecaturic barriro ez eguiteco: eta eztago inoren escuan norberen burutic penitencia orreec ichitea, edo euren lecuan beste gauzaren bat eguitea. Daucazu birao eguiteco ecandua, edo lancean lancean guzurraren ganean juramentu eguitecoa, ta ori quenduteco aguinduten deutsu Confesoreac lurraren ganean miña arrastaca erabilteco, edo beragaz iru curutze luce eguiteco, alangoric eguiten dozun bacochean. Arturic daucazu escuca loaia eguiteco ecandu lotsagarria, ta galdu eraguiteco aguinduten deutsu Confesoreac ori eguiten dozun bacochean aste baten edo egun baten ez piparic edo cigarroric arteco, edo ez ardaoric edateco, edo besoac zabalic ta belau gorriac lurrean dozuzala onembeste Aitagurea ta Avemaria esateco. Penitencia osasungarri oneec, bada, Confesoreac aguinduten deutsuzan modu moduan eguin bear dozuez, arean beré guichitu ta aldatu bagaric; bada izanic oneec zuen bici modua zucenduteco, eta infernuco bide oquerreti ceruco bide artecera aterateco, arduraric andiena imini bear dozue humildaderic andienagaz, eta devociñoric beroenagaz Confesorearen aguindua eguiteco; eta au eguiten badozue ezta-vee asco iraungo zuen ecandu citalac. (Eta ez eguizu usteascoc leguez, ece onelango penitenciac urrengo confesa-aldira artecoac baño eztireala; ez, ezta ori eguia; iraun bear davee, zure ecandu citalac diraüen artean; eta eguiten ezpadozuz, Confesoreari esan bear deutzazu, cer aguindu eutsuen, eta celan cumplidu ez dozun.)

Baya ¡ay Cristiñauiac, eta ce negargarria dan gauza onen ganean egunean egunean icusten dana! Eztira eguin gura Confesoreac aguinduten dituezan penitenciac, ta orregaitic bere oñean diraüe ecandu

oquerrac, beti sen baten, gueroago oquerrago ezpada. Etorrico da gazte bat confesetara, ta itanduco deutso Confesoreac: *¿ceimbat dempora da confesadu cineala? Jauna, urte bete. ¿Cumplidu cenduan penitencia? Jauna, aguindu eustan illabeteric illabetera confesetaco. Ta ¿cegaitic aguindu eutsun ori? Jauna, nire buruagaz escuca loia eguiten nevalaco. Eta ¿cegaitic, bada, etzara confesadu? Jauna, beti nengoan confesetaco, confesetaco; echatan gogoa falta; baya biar yoango, etzi yoango, luzatu eguin yat. Eta ¿alango escucaric aurten eguin dozu? Bai, Jauna. Baator guraso bat, ta acusetan da birao asco umeen aurrean eguin dituzala. Esango deutso Confesoreac: ¿ez eutsun aguindu lengo Confesoreac ecer eguiteco olango biraoric eguiten cenduan bacochean? Bai, Jauna; esan eustan lurrari umeen aurrean mun eguiteco, ta Avemaria bat esateco. Ta ¿eguin dozu? Ez Jauna; lotsa nintzan ainbesteen aurrean eguiten. Etorrico da dendera saltzalle bat, ceinec puntuan puntuan guzurraren ganen juramentu eguin oi daven. Lengo Confesoreac cer aguindu eutsun eguiteco juramentu guzurragazcoa eguiten cenduan bacochean? Jauna, aguindu eustan zortzi-laucoco bat urrengo pobreari emoitico. Ta? emon deutzazu? Lelengo atan bein edo birritan emon neuntsan; baya arrezquero ezteutsat emon. Baya, Cristiñauac, ¿cer da au? ¿Celan galduco dozuez zuen ecandu gaistoac? ¿Celan osatucoco zare zuen arimeetaco gach andietatic? ¿Cer esango ceunque gaisho bategaitic eguin gura ezpaleu medicuaren esanic, ez artu beré aguinduten deutsan gauzaric? Eztala osatucoco, il eguingo dala. Bada Confesorea dozue arimeen medicu, ta alamberé eztozue eguin gura ac aguinduten deutsuen erremedioric, ta osagarriric. Eta guero ¿cer yazoco yatzue? Ebilico zare zuen bici guztian ecandu charren gaishoen azpian, ta azquenean elduco yatzue infernuco eriotza beti-beticoa.*

O ce bestelan eguin oi even anchinaco egunetan Cristiñauac! Orduan zan icustea pecatariac Eleshaco ateetan urte osoetan lutuzco soñeco etenacaz, buruac autsez bete-ta euqueezala, ta Eleshara yoazanai erreguten arren bada, Jgcoari euracgaiti escatu eguiela, euren erruqui izan cidin. Lo luur gogorraren ganean eguiten even. ¡Ceimbat barau eder ur ta ogui utsezcoac! Diversiñoen ta yolasen icenic beré etzequien cer tzan. Alanche equi oi cituezan urte osoetan Eleshara sartuten beré ichi bagaric, aric eta Obispo Jaunac icusiric euren pecatuacaiti negar asco eguin eveela, sartuten ichiten eusteen: baya ez orduan beré meza guztian egoteco, ezpada sermoian ta

mezaco ofertorio guiño. Guero aric urte batzuc garreanean meza guztian egoten ichiten yaquen; baya ez comulguetan. Ta onelan eguin oizan penitencia egun zorioneco aetan. Eta ¿celango pecatuac gaiti? Zuec ain sarri, ta ain bildur bagaric eguiten dozuezan pecatuacgaiti. Enzuzuez, arren, zuen lotsagarriraco onetarico batzuc. Yaquinaren ganean guzzurrezco juramenturic eguiten evanac berroguiei eguneco ur ta oguizco baraüa eguin bear evan, ta onezaz ostein zazpi urteco penitencia. Eleshan Oficio santuac artean barriquetan egon cireanac amar egunean eguin bear even ur ta oguizco baraüa. Gurasoari bideba'co iraunic ta atsacabaric eguiten eutsan umeac, eguin bearco evan iru urteco penitencia; ta zazpi urtecoa gurasoagana yoitera eguiten evanac. Seigarrengo peccaturic eguiten even nesca-mutilac iru urteco penitenciac. Ezconduac amar urtecoa: coñata zen bategaz edo senideren bategaz eguin evanac amabost urtecoa. Garizumaco baraurer bat austen evanac, oguei eguneco ur ta ogui utseco baraua eguin bearco evan, ta berroguiei egunecoa Quarta demporacoa ausi bazan. Amarrenac eguin etzituzanac eucan oguei eguneco ur ta ogui utseco baraüa. (Gauza astunera elduten zan lapurreteagaitic zazpi urteco penitencia: ta beste aimbeste inori guzurric erantetan eutsanac.) O urregorritzco egunac ceintzuetan on gueiago ecarten eutsen peccatariac eguiten even penitenciagaz, peccatu eguinagaz eguin eutsen caltea baño.

Gaurco egunean barriz? ¡O gure lotsagarria! Etorrico da urte osoetan peccatuan begui bieta-guiño ondatuta (sarturic) bici izan dan bat, edo adisquidetasun loian, edo escuca ciquinac eguiten, edo bear bada onec baño beré peccatu esquergueagoac eguiten dituzala; ta aguiduten bayaco urte betean ilean bein confesetaco, ya dericho penitencia gogorregruia dala, ta iru illabete garreneco eztau yaramonic eguiten. Baya Cristinaüac, gaurco peccatuac anchinaco peccatuac bashen andiac dira, gaurco Jaungoicoa anchinaco Jgcoa, ta gaurco fedea, lengo fedea. Eztaquit nic cer izango dan guero, gauza dan penitencia onic eguiten eztogula. Baya eztot ondo esan, baquit nic, ta ondo daquidala, baquit bai cer izango dan: lengo bideetara biurtu ta azqueanean infernua. Ycusico dozuez Cristiñau bicitza deunguea eroan daveenac, goshean belu yaigui, oparo yan, galanto edan, egun guztian yocoan, edo barriqueta alperretan: meza bat aringa entzun, ori beré yaiegunean, (astegunean bai, gura leuque) errosario arinago bat esan, eta beste gauza onic eguiten eztavela. ¿Cer eguingo dau guero onen aragui mizqueac? Lengoetara biurtu. Ycusico dozuez gazte

asco, ceintzuc dantza nastatuetara yoanagaitic izan dituezan pecatu ez guichi guichi, euren escu ezarte; siñu lotsagarri, albocada (moccada), cirri, pensamentu, berba laban, ta besteacgaz. Confesore on batec eragotzi eutsen onei dantzan eguitea, ta orreri larga deutse. Baya Jgcoaren servicioan epel epelic bici dira, guichitan ta barachi (meatz) confesetan direala; euren errosario ta ganeco errezuac, baita yaiegunetaco mezaac beré ganorabagaric ta cetan dagozan eztaquie-la entzunda eguiten dituezala, ta beste moduco obra onic eguiten eztaudeela. Guero ¿cer yazoten da? Lengoetara biurtutea.

Baya esango dau batec edo batec bere artean: Jauna ¿ce penitencia modu eguingo dogu guc? Lar beré penitencia eguiten dogu, guc daroagun bicitza gogorragaz. Baita Cristiñauac, ori da oquerrena: bicitza gogorra eroatea, eta ez bicitza gogorrari penitenciatzat serbidu eraguitea. Ezteutsuet nic aguingo, ez, penitencia eguiten basoetara ta mendi barruetara yoateco, ezta arri bat artuta bularra austeco, ezta azoteca zuen araguiac apurtuteco ta triminduteco: Ez alangoric. Aguingo deusuedana da pecatuac quendu, arimea garbi garbi erabili, zuen bicimoduco eguin bearrari erantzun, eguingo dozuezan errezuac ondo eguin, ta zuen lanac, bearrac ta nequeac epetasunez ta pacienciatan eroan ta Jgcoari esquindutea. A'ror cé penitencia eguin erraza, eguin gura ezquero, eta penitencia beré balio andicoa. Ara bada confesiño on on bat eguizue, eta campora pecatuac, campora biraoac, campora aserracuntzac, campora juramentuac, seigarrengoc, ordiqueriac, lapurretac ta besteac. Au eguin bagaric ezta gauza eguiten dan guztia, ez zuen gorputzac suetan Jgcoagaitic erreco bacenduez beré. Baita quendu bear dozuez pecaturaco bidea emoten daveen gauzac beré, celangoac direan gueienean dantza nastuac, erromeriac, tarbenac, biguirac, yoco luceac, ta sarri eguiten direanac. Guero goshean goshetichu yaigui ta Jgcoari gau ataco mesedeac gaitic esquerrac emon, ta opa ta esquini egun ataco bear ta cereguin guztia, errezu batzuc eguin (esan) Ama Virgineari, Aingueru Guardacoari, edo Santu-Santaren batzuei. Eguneti achina beré nosic pein edo erloyuac yot-orduan edo alangoetan Avemariachu bat, edo beste oraciñoren bat esan. Al dozuela zuen mezachua egunean egunean entzun; ecin badozue, gura davenac echean eguin leique bere mez' entzute modua contu eguinic meza aurrean dagoala, ta orduco debo-ciñoac esanic. Ylean bein confesetea Cristiñau on batentzat ezta neque andicoa. Guero bacoachac bere bici moduco cereguinac, ta eguin bearrac eguin beguiz. Ezcondua zara? Eguizu, bada, ezcondu

bateri dagocon guztia, ta opa eiquiozuz Jaunari onetaraco igaro bear direan nequeac; nai dala echeco ardurea euquiteco bear direanac, nai dala senarragaz edo emazteagaz baquean bici izaiteco bear direanac; nai dala seme-alabac ondo aciteco, nai dala (edo) eurentzaco oña ta soña ta yan-edana irabazteco bear direanac. ¿Otseña zara? ¿edo gurasoacaz zagoz? Eguizuz, bada, ceure gurasoen edo ugazaben esanac Jaungoicarenac balira leguez, eta ondo ondo eguizuz ceure con-tura dagozan cereguinac. ¿Necazalea zara? Bada araco soloan eguzqui berotan zagozanean, achurra, layea, escubarea escuan dozula; alde guztietatic izardia dariozula igaro eguizuz lan oneec Jgcoaren ondraric andieneraco. Nequeren batzuc iñoren escutic, edo beste aldeti bayatortsuez, orreec bere Jgcoaren amodioz eroan. Berba baten Cristiñau onac izan zaitece, eta aror penitencia eder bat, penitencia galant bat, eta balio andico bat, cegaz quitutu zuen pecatuen zorra. Ez gaitazan, bada, zoroac izan, Cristiñaiac; pagadu daguiogun Jgcoari ceatz ceatz, ta arduraric andienagaz, zor deutsaguna; artu daiguzan onetaraco Confesoreac aguindurico penitenciac, eztaiguzan astuntzat ta gogortzat euqui: eguin daiguzan Jgcoagaitic gure bici-moduac dacazan eguin-bearrac, ta guc gure borondatez eguiten doguzanac beré: alan ateraco doguz gure buruac pecatuen zorren azpitic, ta irabacico dogu Ceruco Erreinua. Alan guerta daiteala. Arren bai.

2. ATALA

FRAY MATEO DE ZABALA

1. LENENGO MANDAMENTUAREN GANECO ICASBIDEA

(B, 13-15. or.)

Jaungoicoaren lelengo mandamentuac aguinduten deuscu, neure Cristiñaiac, Jaungoicoa maite izaiteco gauza guztien ganean edo gauza guztiac baño gueiago. Eta esan gura dau mundo onetaco gauza guztiac, diruac, ondasunac, osasuna, honrea, eta bear bada bicitzea bera beré galdu bear doguzala Jaungoicoaren contra pecatu eguin baño leenago, eta au eguingo dogu bere aguindu edo mandamentu santuac ondo gordeagaz. Baya orrezaz osterancean beré dago obligaciñoa Jaungoicoa maitetu eta ametaco; eta alan Alexandro zazpigarrenac eragotzi eban esatea, eztaucala guizonac iños beré fede, esperanza ta caridadeco actoac eguiteco bearriac, edo pecaturic eguiten eztala eguño beré bere artean esan ez-arren sinistuten dituzala fedeco eguiac, edo Jaungoicoagan dauquela esperanza ta uste andia, eta Jaungoi[co]a, bera biotz guztiti maite ta laztan dabela. Baita yaquin gura badozue nos dagoan Jaungoicoaren amodiozco actoac eguiteco obligaciñoa eta nos barrieztatu eguin bear dan aren Magestadearen ondogurea, dirautsuet eguin bear dogula lenengo ezaiüerea euquiten, edo errazoiaren usura elduta bertatic eta ar' or non gurasoric gueienac eguiten daben pecatu, euren seme-alabai orduraco doctrinea eracusten eusteusalaco¹. Emoiten dabe achaquia esanic, aita, oraindio gazteac dira; guero aci ditezanean icasico dabe. ¡Ah guraso zorigorrocoac! gazteac dira zuen seme-alabac doctrinea icasteco; eta eztira, bear eztirean gauza asco icasteco. Zuec dauquezue (daucazue) obligaciñoa ceuben seme-alabai adinera edo usorrazoera baño leen doctrinea eracusteco; bada ara eldu ezquerocean dauque obligaciñoa, ta eguin bear dituez esan doguzan fede, esperanza ta caridadeco actoac. Barriz celan eguingo dituez orduraco doctrinea icasi- ez-ic?

¹ Hitz hau honela dago idatzia orijinalean: eta, behar bada, forma horrek honela behar luke: [ezteusalaco].

Bigarrenago, eguin bear dira eriotzaco pelleburuan icusten bagara; irugarrenago, Jaungoicoaren amodioaren contraco tentaciñoren batec estututen gaituzanean, eta beste modutan ecin goia-artu yaconeane. Diñot Jaungoicoaren amodioaren contraco tentaciñoren batec estututen gaituzanean, bada orduan eztau obliguetan fede, edo esperanzaco actoac, ezpada caridadearenac (caridadezcoac). Balitz tentaciñoa fedearen contracoa orduan eguin bear da fedeco actoa, eta bada esperanzearen contracoa eguin bear da esperanzazcoa, eta alan ce'en contra dan tentaciñoa a-en contraco actoac eguin bear dira pecatu mortalen bean. Osterancheco demporetan beré eguin bear dira fede, esperanzaco, eta caridadearen eguiteco oneec; ce icentauric edo erabaguiric egon ez arren ceimbateric ceimbatera eguin bear direan, Elesha Ama Santeac dauco galarazoric esatea eztala pecatu mortala bici guztian bein baño ez eguitea, baita beré esatea eztagoala obligaciñoric bost urteric bost urtera baño eguiteco. Orregaitic bada gauzaric onen oneena da, aibat sarrien eguitea: ce eztoqu orregaitio beré laarreguiric eguingo: bada eztago orduric ceinetan artuten eztozuzan beraganic mesede asco eta andiac. Baya ¿celan eguingo dituez ezpadaquie ascoc eta ascoc, eta gueien gueienac cer dan fede, esperenza ta caridadeco actoac edo eguinenac eguitea? Ycasi bada celan eguin, artean barriz yaquin eguizue ce caridadeco actoa dala *Neure J.C^o Jauna* esatea, eguiten bada biotzetic; fedeco actoa dala *Credoa*, edo *Sinistuten dot*, beardan moduan esatea, au da cargu eguinic cer sinistuten dan eta cegaitic: esperanzaco actoa barriz, dala *Aita gurea* esatea, ez papagaioac leguez, ezpabere gure biotza Jaungoicoagan iminiric, eta sinisturic bere gracia eta gure obracaz edo (eguienacaz) eguiquera onacaz batera emongo deuscula ceruco gloria.

Onez ostean mandamentu onec aguinduten dauscu Jaungoicoa bacarric adoretea arima eta gorputzagaz. Lelengo adoradu bear dogu arimeagaz gueure Yaube eta eguillea, au da humildu bear gara bere aurrean ezaguturic gueure ecereza eta bere neurribaco anditasuna, confesetan dogula gueure eguille, gueure onguille, gueure salvaguille, eta daucagun on guztien emoigilletzat: sinistuten dogula adierazo deuscuzan eguia ta misterio guztia, eta iminiric daucagula beragan gure icharomen eta uste guztia. Adoradu beré bear dogu gorputzagaz, emoten doguzala campotic gueure biotzeco ondo gura, ta amodioaren ezaugarri (igargarri) edo señaleac, eta au eguiten dogu belaunico yarriten gareanean bere aurrean, oraciño eguinagaz, mezea enzunagaz, eleshan devociñoz egonagaz, eta beste onelango gauzacaz.

Modu ascotara eguin leiteque pecatu mandamentu onen contra. Lelengo eguiten dabee pecatu araco euren gueshoetan bideric ezta-cardén erremedioac eguin edo artuten dituezanac, celangoa dan batzuc eguiten dabeena laruena dauqueenean: ebagui euren oña besteco inchaure azala ta laratzuan esquegui, sinisturic celan doian sica-tuaz, alanche osatuco dala, eta au bereanez da pecatu mortala siniste osoa dauquelaco eurenec ecin arean eguin leien gauceetan. Bigarrenge eguiten dabee pecatu mortala aaztuac-gana doazanac, edo berbaren batzucac osatu deioezan, edo cerbaist galdu badabe non dan, edo noc quendu daben esan daioen. Irugarrenge eguiten dabee pecatu berbaren batzuen indarrez osatuten dabeenai dei eguiten deute-seenac; eta ezteusto berba oneec santuac izanagaitic; ce icusten danetida onelangoac gueien gueienetan, guizon eta andra galdu batzuc izan oi dira, ta sarri ta sarri enbustero ta guzurti garbi ta galantac, gentea engañetarren eta euren lepotic yan ta edatearren dabil-tzanac. Laugarrenge eguiten dabe pecatu mortala, ez yaquiteac escu-setan ezpadituz, araco guraso eta iñudac ume chiquiai... eta beste alango milla zoraqueria iminten deutseenac, uste dabela aecaz libre gueratuco direala beguizcotic eta beste gacheetatic. Aita ¿cer eguingo dot bada? Umea gueshoric daucat, ezteust loric eguiten beré isten; gau guztian negarra dario, argalduaz doa, eta eztaquit ala dan beguiz-coagaitic, ala dan sorguinqueriagaitic, ala dan beste gauza deungaren bategaitic. ¿Umea gueshoric dauquezula (dauczula), eta eztaquizu-la cegaitic dan? Bada yaquin eguizu cé guesho ori etorri lequiquiola edo Jaungoicoac alan disponietan dabelaco zure pecatuacaitic, edo yaquinic zuc deungaro asico dozula, beragana gaztetaric eroan gura dabelaco, edo beste motivu guc ecin igarri doguzan asco gaitic; bai eta beré etorri leiteque umearen gueishoa, eta gueienetan alan izan doa guraso edo iñude ascoren erruz, eta onetan eztau escrupuluric iñoc iminten, izanic ascotan euren ume ascoren eriotzeen sustraia. Ascoc eta ascoc eztabee beste gauzaric eguiten yan eta edan edocein gauza baño asetu artean, eta alan galduten dabee ugatza, edo iminten dabee umeac ecin artu leiquean moduan, eta guero urteiten dabe esanez, eztaquit ume onec cer daucan, beguizcoren bat eguin deutse oneri. Ceüec, ceüec zaree gueienetan ori alan egotearen errua dauquezenac. Beste batzuc euquiten dituez umeac oraindocoarren iru edo lau illabete eztaunqueenac euren erdian oien barruan, eta euren arnasa eta berotasun larreguiagaz gueishotuten dituez ume bigunaren erraiac eta odola, eta guero esaten dabe umeac ezteutsela loric egui-

ten ichiten, sorguinen batzuc darabillela, eta onelango eroqueriac. Beste batzuc gueishotuten dituez umeac lecu santu onetatic ecin esan leitequezan gauzagaitic; bada matrimonio gauzaac beré dauque euren demporea, modua eta neurria, eta ez ezarri errua edo gaizquiñai, edo sorguiñai, edo ari edo besteari; ceüec ceuen matrimoninoco gauzac dira ascotan eta gueienetan umeen gueishoen sustraia. Beste gauza asco egoan cer esan onen ganean; baya ichi daiguzan loitu ce-daiguzan ezpanoc.

Bostgarren egoiten dabe mandamentu santu onen contra pecatu mortala Jaungoico eta Santuen icena blasfemetan dabeenac. Ba'quit onen ganean ezyaquinac escusaduco dituzala batzuc pecatu mortalic; baya ez gueienac, alan emoiten dabeen exemplo charragaitic, cein enzun izango dabeelaco edo nos pecatu icaragarri onen ezaintasuna. Baya orregaitarren beré sarri eta sarri enzun doaz yocogan, tabernan eta beste lecu eta ocasiõ ascotan berba batzuc ain deungaac ce, edoecin Cristiñau gueratu bear litzateque arritu eta icaraturic. Batzuc esaten dabe: diñodana gaur esan dan Evangelioa bashen ciertuagoa da. Beste batzuc au Evangelio leguez da eguia, edo Evangelioa berbera da. Beste batzuc icusten direanean gachen bategaz edo yazoten yaquenean calte edo galtzaiaren bat, esaten dabe: Niri Jaungoicoac ezteust gura: imposible da Jaungoicoac ni galdu gura e'nabela; eta beste onelango ecin entzun leitequezan buruba'co blasfemiac. Oneec guztioac, bada, eguiten dabe gueienetan pecatu mortala; eta baderiche diñoen gaucea dala ain ciurra, cein Evangelioa, bera izango da bere blasfemia heregiazcoa, confesiõan berez ta aparte confesau bearco dabeena.

Azquenean barriz eguiten dabe mandamentu santu onen contra pecatu Eleshan erreberencia ta lotsa bagaric, egoquera deungan, berbaz edo barreca egoten direanac. Jaungoicoaren echea dirauscu J.C^o.c, oraciõ eguiteco echea dala, non daucan Jaungoicoac berac beré bici lecu. Bagueunco bear dogun fede bicia, ceru eguic icu-sico gueunquez Eleshaac diño S. Juan Crisostomo-c, eta oraindio beré andiagoa da alde batetic eta obeagoa Eleshea Cerua baño; bada etzan eguin Eleshea Cerua-gaitic, ezpada Cerua Elesheagaitic. Orretan beré neure Cristiñaiac, ¿cec eguiten dau ain zori-oneco, eta ain andi Cerua? Jaungoicoa an egoteac. Bada neure Cristiñaiac, aushe berau daucagu gueure Eleshetan: emenche bertan dago benenetan Jaungoicoa, eta eguia guztiagaz orche altara orretan dago Aita Eternoa; orche dago J.C^o bere Seme bacarra, bere gorputz eta

arimeagaz batera Ceruan bertan dagoana legue-che: orche dago Espiritu Santu Jauna Aita eta Semeagaz naste. Altara orren inguruan auspez echunic humiltasun andi bategaz adoretan euren eguille, yaube, eta Jauna: beingoan esateco, Ceru guztia dago gure Eleshetan. Baya orregaitic beré ain andia da guizonen itsumendia ce, ezagutu ta confesadu-arren eguia au, dagoz Eleshan plazaan legue-che, batzuc echunic, besteac lo..., oneec barreca, a'ec berbetan: orain beguiratuten dabe nor sartuten dan, guero celango yaztecoacaz doian. Eta ¿ceimbat bidar urbedeincatu oncietan iñon direan cumplimentu eta zoraquerietan? Beste batzuc etorten dira Eleshara egunen batzuetan icusi eztaben personeari agur edo berba eguiten; yarten dira alcarrren ondoan, eta itanduten deutse alcarreri celan dagozan echecoac, osasunic badauque, ce barri dagoan, urliagaz egon bada, eta modu onetan dagoz conversaciñoan, plazaan bailegozana legue-che, eta ameneco altareari atsea emonic.

¡Ah fedeba'co Cristiñaiüac! Jaungoico orren aurrean dagoz bildurrez icara Ceruco Serafinac, eta zuec lotsabacotasun orregaz: Angueruac dagoz alabetan lurreraguiño macurturic, eta zuec zagoce ascotan vanidade eta zoraqueriaz buru eta gorputza yanciric Jaungoico baten aurrean, eta echean alcarreri siñuca, irri-barrez eta tabernaan bacengocena leguez. Eta orregaitarren beré eztago onetan esc[r]upuluric, ezta confesau bear danic beré. Baya ¿cer dinot esc[r]upulu? Noraguiño eldu da ascoren ichumendia? Ceimbat mutil eta nescatilla, guizon ta andra zoro elduten dira Eleshara euren biotzeco su loa alcarreri adierazoten euren ciquinqueriacaçz betericico beguicune eta siñuacaz? Ceimbat persona egoten dira Eleshan murmuretan? Ceimbat persona? ...baya ecin esan neiz guztiaç. ¿Eguin leio Jaun andi oneri desprecio andiagoric? Eta ¿ce castigu mercedu-co dabe onangoac, J.C^o.c Jerusalem-go Eleshan orduco sacrificioetaraco bear cirean gauzaac saltzean egozanac atara bacituzan narruzco azote bategaz? Bildur izan zaitete neure Cristiñaiüac zuec Eleshan lotsabagaric, berbetan, iñogaitic deungaro esaten, burlazar ta barreca zagozen artean Sacramentu Santu orretan egon ce din escribietan ceüen condenaciñoco sentencia. Ydigui daiguzan neure Cristiñaiüac edonos gure fedeco beguiac, eta considerau daigun no-en aurrean gagozan Eleshan, eta aushe izango da asco humildancia, lotsa ta debociñoç bertan egoteco.

FRAY MATEO DE ZABALA

2. YCHAROMEN EDO ESPERANCEAREN GANECO ICASBIDEA

(B, 16-19. or.)

Bigarren onoide edo virtute teologala da Ycharomen edo Esperancea, eta da Jaungoicoac gure ariman iminten daven doe, onoide edo birtute gure izaitez ganetico bat, ceinec garoazan icharoi-ten edo ceinec icharon eraguiten deuscun Jaungoicoagan emongo deuscula gloria bere erruqui edo misericordia gaitic, eta bere gracia ta laguntasunagaz eguin daiqueguzan egite onacgaitic. Diñogu icharomen edo Esperancea dala doe gure izaitez ganetico bat, eztagoalaco naturalezan edo gueugan birtute au, eta bear dan moduco Esperancea euquico badogu, Jaungoicoac berac emon bear deusculaco; orregaitic euquico badogu benetaco Esperancea, Jaungoicoaganic etorri bear yacu; baya gueurez ez cara duin esperanza au euquiteco. Yru gauza beguiratu bear doguz icharomen, edo Esperanza bear dan moducoa izango bada; cer icharoten dogun, noganic icharoten dogun eta celan icharoten dogun. Lelengo begiratu bear dogu cer icharoten dogun, edo cer esperetan dogun. Ycharon bear doguna da, ceruan Jaungoicoa arpeguiz arpegui icustea. Aushe da icharomen edo esperanza guztia; baya onetara elduteco, bear doguzana leguez obra onac, oneec beré sartuten dira esperanza onetan, eta alan esperetan dogu Jaungoicoaganic, cerura elduteco bear dogun guztia, celangoac direan bere gracia, eta laguntasuna, Sacramentuac, pecatuan bagagoz euren parcaciñoa, eurac parcatu ezquero, atzera ez biurtu eiteco gracia, tentaciñoac eta ecandu deungaac goitu edo bencietaco indarra, eta berba baten cerura elduteco bear dogun gracia. Baya ez gara gureratu bear onetan, ce gueuc beré, gueure aldetic eguin bear dogu aleguina betico bicitzara eltzezo; eta bitarteco oneecaz balietaco, ce osterantzean ezta icharomen edo esperanza benetacoa izango. Ycharon beré guiñaiquez Jaungoicoaganic gorputzezo onac, celangoac direan, bicitzea, osasuna, yanari, edari eta yaztecoa, ondasunac eta bicitza au igaroiteco bear dituguzan beste gauza guztiac; baya izan bear da Jaunaren honra, eta gueure arimeen oneraco izango

badira, ganecoan ecin icharon guinaiquez Jaungoicoaganic. Sarri icharoten dogu emongo deuscula Jaunac osasuna, bicitzea, ondasunac, eta ganeco gauzaren bat, usteric guere arimeen oneraco izango yacula; baya ezteuscuz Jaunac autortu, edo concedietan, daquialaco, emongo baleuscuz gure condenagarri izan litzatequezala; eta orduan guc beraganic icharoten doguna ucatutea da bere erruquitasun andiena.

Bigarren, icharomen, edo Esperanza beguiratu bear doguna da nogan icharon edo esperetan dogun. Jaungoicoagan bacarric ifini behar dogu gueure uste guztia; bada ecin bestec emon leiqueguz gueure arimaco onac, ecin iñoc parcatu leiqueguz gure pecatuac berac baño; ecin bestec imini leique gracia gure ariman berac baño, ecin iñoc cerua emon leiquegu berac baño. Gorputzeco onac beraganic datorquiguz, bada guizonen batec mesederen bat eguiten badeuscu, lelengo mesede onen iturri ta sustraia Jaungoicoa da, eta guizona ezta bere bitarteco bat bashen, eta alan, edo cimberen on edo mesede artzen dogunean, beti beti ezagutu bear dogu Jaungoicoaganic datorrela. Ifini beré guinaique gueure ustea Ama Virginia eta Santuetan, eta escatu eurai pecatuen parcaciñoa, ondo confesetaco gracia, Demonioagaz ondo peleetaco indarra, gorputzeco osasuna, bicitzea igaroiteco bear doguna; baya eztozu sinistu bear eurac emongo deuscuezala gueure escariac, ezpada eurac gure bitarteco eguinic erregutuco deusala Jaungoicoari, eta Santuac Jaunaren adisquide ain maiteac izanic, emongo deuscula euren erreguz icharon eta escatuten doguna. Bardin munduco gauceetan beré. Guizon batec beste bateri mesederen bat eguiten badeutso, aberatz batec pobre bateri limosna eguiten badeutso, da Jaungoicoac bere biotza ucutu edo yo deusala eta alan sinistu eta confesadu beré eguin bear dogu daucaguzan eta euqui al daiguzan on guztien emollea dala Jaungoicoa, datozala nondic datozan, eta orregaitic beragaz bacarric imini bear dogu gueure uste guztia.

Esperanza beguiratu bear dogun irugarren gaucea da celan esperetan dogun. Gure esperancea ciur ciur, edo ciertu ciertua izan bear da; bildur bago dudatzaca, uste bear dogu ezteuscula Jaungoicoac gloria eta ara elduteco bear dogun bere gracia eta laguntasuna ucatuco. Berac dauco esanic ezteuscula ucatuco bear dogun gauzaric; yo daiguzala atead, eta idiguico yacuzala, escatu daigula eta emongo yacula; eta ain da leiala ta prestua emonico berbea ta baia yaoten ce, leenago uts eguingo dave ceru luurrac, bere esanac baño. Baya espe-

rancearen ciurtasuna, edo seguridadea ezta ain andia cein da fedearena; cegaitic ce fedea alde guztietatic da ciur edo ciertua, dagoalaco sendatu edo fundauric Jaungoicoaren esanean bacar bacarric; eta orregaitic fedecac diñoana alanche da, alanche izango da, eta ecin beste gauzaric izan leiteque. Esperancearen ciurtasuna ezta onelangoa; ce eztago Jaungoicoaren isquini edo promesan bacarric, bear beré dalaco gueure aldetic eguitea aleguina, artuco badogu icharoten doguna; eta ciur edo seguru egon arren eztavela faltaduco Jaunaren aldetic, ecin ciurtasun au equi guiñaique, eztogula gure aldetic ucatuco. Orregaitic gure esperanza au beti dago nastaduric ciureztasunez, eta bildurrez. Alde batetic yaquinic ce leiala dan Jaungoicoa bere esanetan, ce neurribacoa bere ontasuna, eta ce azquenbacoa bere erruqui edo misericordia, esperanza oso oso bat equi bear dogu beragan; baya ezaguturic bestetic gure araguiaren argaltasuna, gure ecandu citelen indarra, Demonioaren asmuac, eta mundu onetaco pelleburuac, ecin yaquin guiñaique, eranzun guraco badeutsagu Jaungoicoaren deiai, eta oneshec equi bear gaituz bildurrez icara. Uste oso eta bildur onen artean ibili bear gara, izango bada bear dan moducoa gueure icharomen edo esperancea, yausi ez gaitezan desesperaciñoan, edo esperanza larreguian.

Oneshec bioc dira Esperancearen contraco pecatuac. Lenengoa desesperaciñoa, eta da uste izaitea ecin salvadu leitequeala edo nai ta nai ez, condenadu bear dala; edo eztagoala beretzaco erremedioric, ain direalaco andi eta icaragarriac bere pecatuac ce, ecin euretatic urten leiala, ezteusalaco Jaungoicoac emon guraco euretatic urteiteco bear daven gracia; edo gracia onegaz beré ecin urtengo davelaco. Eta badericho, ain direala andiac bere pecatuac ce, eztaucala Jaungoicoac eurac parcatuteco bear dan erruqui edo misericordiaric, au heregia izango da. Pecatu honetan yausi oi dira araco pecatari itsutu, Jaungoicoaren bildur bagaric edocein trampa, edocein engaño, eta edocein guzurregaz aldaicen ondasunac irabazten dituezanac, araguiaren gustu citalez mando zaldi leguez aseten dabiltzanac; al daien guztian ordituten direanac, eta beste edocein beré pecatu ura leguez edaten dituezanac. Ezarten dituez pecatuac pecatuen ganean, igoten deutsee onec buru-guiño, macurtuten dituez euren pisuac lurreguiño, bildurtuten dituz euren ezaintasunac, dagoz indar bagaric ain icaragarrizco carga yasoteco; eztauque podereric, datzazan lupatzatic yaguiteco. Tristetuten yaque biotza, ilunduten yaque errazoia, echuten dira yaso ecin daven carga esquergueagaz, eta yausten dira

desesperaciñoan. Contu bada, Cc., ceüen guraari citalac lenengotic, eta ezagutu orduco eci, eta quenduteagaz, bada ichiten badeutsezue indarra artzen, desesperaciñora eroango zaituez. Gozo dira lelengoan, bigun sartzen dira biotzean, eta beti abietan oi dira norbait ichi eta Jaungoicoagana biurtuteco esperanceagaz, baya azquenean deseperaciñora eroan daroe...

Esperancearen contraco bigarren pecatua da esperanza larreguia, edo presunciñoa. Modu ascotan equi leiteque pecatu au. Lenengo: eguiten dau pecatu uste davenac, bere aleguin, eta indarracaz bacarric, eta Jaungoicoaren gracia eta laguntasun bagaric, eldu leitequea-la ceruco gloriara edo sinistuten davenac eztala bear graciatic obra onac eguiteco. Bigarren: deritzanac, ain dala andia Jaungoicoaren erruqitasuna ta miseriodia; ain ugariac J.C°.c guretzaco irabazirico merecimentuac ce, eurac gaitic beste bagaric salbaduco dala obra onac eguin ez arren; eta pecatuac parcatuteco asco dala J.C°.ren eriotzea eta pasinoa penitencia eta damuen bearric baga: onec bioc heregeac dira. Yrugarren: uste davenac eztireala ilgo confesadu bagaric Ama Virgina, Sta. Barbara, edo beste Santuren bateri deuten devociñoagaitic, eta egunean egunean Aita-gure eta Ave-mari-en batzuc errecetan deutsezalaco; uste zoro onegaz, nai daven moduan eta pecatuetan sarturic bici direala. Laugarren: pecatuaren pelleburu, eta mugaldi edo ocasiñoa ichi nai eztituzanac, sinisturic, euretan imini arren, eztala pecatuan yausico. Ez leuque batec pentsamentu loi, oracada ciquin, eta berba atsitueta yausi gura; baya ez leuque ichi nai erromeria, yolas, danza, eta berbaldi edo conversaciño arin eta alegrea; eztau alderatu edo apartadu gura laztan daven mutil, guizon, nescatilla edo emacumeaganic, derichalaco eztala orregaitic pecatuan yausico. Ez leuque besteac orditu gura; baya eztau ichi gura taberna eta beste lagun, nortzucac orditu oi dan. Ez leuque onec maldiciño, birao, ez añeniñoric ezarri gura; baya eztau ichi gura yocoa non botaten dituzan, usteric, ara yoan arren eztituzala botaco.

Bostgarren: eguiten dave pecatu euren ecandu, eta oitura citaletatic urten gura eztavenac, sinisturic, guero eguingo daveela, euren pecatuen penitencia. Onelangoac luzatu oi davee confesetea, eta penitencia eguitea egunerico egunera, ilerico ilera, eta urterico urtera. Onelangoai itanduten bayacoe cegaitic aimbat lasterren urteiten ezta-ven euren pecatuetatic, bertatic aguirico da, euren bide bagaco esperanza larregui edo presunciñoa. Oraindio gaztea nas eranzun daroe, dempreari emon bear yaco berea; ezta orain chochaquerietan ibilte-

co demporea. Araco urteac aurrera doazanean izango da demporaric onena, penitencia eguiteco. Arte atan enas ilgo, osasun ona daucat, gorputz sendoa, eta indar andicoa, eta eztau Jaungoicoac guraco penitencia eguin bagaric eta confesadu bagaric il naitean: andia da bere erruquia eta eztau gura iñor galdu daitean. Oraindio beré guei-ago estutu gura badozuz eranzungo dave, gauza andi bat esango bale-ve leguez, cetaco eguin dau Jaungoicoac cerua, lastoz betetaco ala? Ceimbat onelango esperanza zoro ete dagoz infernuetan! Seigarrengo: eguiten dau pecatu, bein pecatu eguin ezquero, aurrera pecatu eguinaz doiana, diñoala: bein pecatuan nagoan ezquero bardin da pecatu bat confesetea, cein asco; etzaco Jaungoicoaren erruquiari guei-ago costetan pecatu asco parcatutea, cein bat. Ez eiquezue esan, diño Espiritu Santuac, andia da Jaungoicoaren erruquitasuna, ta berac euquico dau nire pecatuaren erruquia; eta uste onegaz etzaitz egon ceure pecatuetan, ce bertatic etorrico da bere erruqui eta ase-rea.

Zazpigarrengo: eguiten dau pecatu gura leuquianac Jaungoicoac mirari, edo milagroren bat eguin daian, premiña edo necesidade bagaric, eta berac ecer eguin bagaric. Esateraco: dago gueshoric eta esanic medicuac osasunguei edo medicina onegaz, edo bestegaz osatuco dala, eztau gura eguin medicuac dirautsana, nai leuqueala Jaungoicoac mirari edo milagroren bategaz osatu dagueian. Bardin da nai baleu batec Jaungoicoac emon deion yanari, yasteco, edo beste bear daven guztia beretzat, eta bere seme, eta alabeentzat berac arduraric artu baga, bearric eguin baga, eta alperric dagoala. Ara, C^a., eguizu ceure aldetic aleguina osasunagaitic, eta beste bear dozuna irabazteco, eta onegaz batera erregu eguiozu Jaunari emon deizula osasuna, eta beste, bicitzea igaroiteco, bear dozuna, eta orduanche izango da bear dan esperancea. Baya onetaraco esperetan dozuna bide onecoa izan bear da; bestelan Jaunaganic icharotea, pecatu izango da. Esateraco: daucazu auci oquer bat, ceinetan eztaucazun errazoeric, eta badaucazu beré, ezteutsazu yarraituten, ceureagaz urten eta besteari gastadu erazotarren bashen; bada icharotea orduan Jaungoicoaganic auci au irabaztea izango litzateque gauza deunga bat icharotea Jaungoicoaganic, eta au ecin eguin leiteque pecatu bagaric.

Esperanzaco eguintza, edo actoac eguin bear dira, fedecoac eguin bear direanean. Lelengo: Cristiñauia errazoien usura eldu deitenean. Bigarrengo: desesperaciño edo esperanza larreguico tentaciñoren

batec estututen davenean. Yrugarrenge: Penitenciaco Sacramentua artu bear danean; bada izanic Sacramentu au gure pecatuac parcatuteco, ecin onec euren parcaciñoa escatu leio Jaunari, ezpadauco parcatuco deusanen icharomen edo esperanzaric. Laugarrenge: eriotzaco orduan, bada izanic cerua, lenen icharoten dogun gaucea, eztoгу iños obeto sendatu bear, bertara elduteco esperancea, bertan sartzeco ain urrean gagozanean baño. Laugarrenge: oraciño eguin bear dogunean, edo cerbait Jaunari escatu bear deusagunean; bada eztau iñoc escatuten icharoten ezpadau emongo yacala. Bostgarrenge: sarri gure bician, Fedeco actoac-gaitic esan dana leguez.

3. ERASOQUINTZA

(B, 19-20. or.)

Ain dago zabalduric mundu guztitic esperancea ce, eztozu aurquituco Cristiñauric, cerura elduteco uste edo esperanzaric eztaucanic. Betor pecatariric itsu eta galduena, eta pecatuac ura leguez edaten dituzana. Bebil lapurreta, ordiqueria, loiqueria, eta gogora eldu al leitequezan pecatu guztietan sarturic dagoana [sic], eta bere arimea, eta Jaungoicoa gomuta baguea; itandu bequio daucan ala ez ceruan Jaungoicoa arpeguiz arpegui icusteco esperanzaric? Bertatic eranzungo dau baietz. Baya au badiñoer beré, derechat (derichat) onetatic gueienac eztauquela benetaco esperanzaric, ce euqui ezquerocean ez litzatequez ain nagui, ain otz egongo cerura elduteco bear dan bearra eguiteco, paciencia andi bategaz igaro edo eroango lituquez mundu onetaco nequeac, eta ez leuque ain ardura andia euquico munduco ondasunac batuteco. Eguia au ezagutuco dogu, yaquinagaz, cer eguiten daven benetaco esperanceac, bera daucanagan, edo celangoac direan bere eguintza edo afectoac. Lenengo emoiten dau icharoten daven gloriara elduteco bear dan guztia eguiteco gogoa. Au iracazten deuscu Santiago Apostoluac nequezale baten irudiagaz. ¡Ce pocic daroazan onec, solo baten eguiten dituzan bearrac! Neguco otzac, udaco beroac, goshetic yagui, egun guztian macurturic egon, laiea, achurra, edo beste gauzaren bat escuan davela, icerdia dariola egoitea! ¡Cec eroan erazoten deutzaz lan, ta bear ain nequetsu oneec poz andi bategaz? Labore, gari, arto, edo beste bear davena artzeco uesteac, yaquinic bearric eguin bagaric eztavela solo atan ecebere artuco. Aushe berau eguiten dau benetaco esperancea daucanac: poz pocic igaroten dituz cerura elduteco bear direan nequeac, yaquinic, ez bacarric bear dala Jaungoicoaren misericordia, baita beré gueure obra onac; eta eguin ecic, ecin esan leique benetaco esperancea daucala. Esan eguidazu: balego necazale bat alperric bere etsean soloa achurtu bagaric, erein bagaric; eta esango baleu, esperetan davela Jaungoicoagan gari, edo artoa ugari artzeia, ¿sinistuco ceusquio, benetan daucala esperanza au? Ezetz derichat. Bada beste onen beste da, cerura eltzece Cristiñau ascoc dauquen esperancea. Eztaudee ecer

eguin gura, eztave obra onen acia erein gura, eztave necatu gura, eztave euren araguaia eci gura; alperqueria, gurari citel eta gogoac emoten deutsen buruera guztietan sarturic egon nai dave, eta alambere diño, icharoten davela gloriaco frutu gozoa artzeia. ¿Noc au sinistuco deutse?

Bigarren, esperanceac eguiten davena da, sendatu biotza, mundu onetaco gachac pacienciagaz eroateco. Neque eta lan andien artetic irago bear dau, cerura eldu nai davenac, diño San Paulo Apostoluac (...)¹. Eztago beste bideric ara elduteco. Ain da gauza bearra, bide latz eta garratz au igaroitea, ce ezta iñor beste bidetic ibili, ezta J.C. bera beré. Orain bada, ¿celan esan ciñaique icharoten dozula cerura eldutea, ibili gura ezpazara bide onetatic? Contu eguizu, uri eder zoragarri bat dagoala mendi guztiz eregui edo altu baten ganean, noraco eztagoan bide bat bacarric baño. Esango bacendu eztozula igaro gura bide atatic, sasi, arantza eta abarrez beteric dagoalaco, eta onezaz ostean aldats andiac daucazalaco, eta alambere icharoten dozula uri eder atan bici izaitea, noc sinistuco leiquezu? Ez iñoc; edonoc esango leuque zure esperanza ori eztala benetacoa. Ara bada, uri eder ori da cerua; bide garratz, eta arantzaz bete ori da mundu onetaco gach, neque lan atsacabe, eta nai-bagueac. Gura badozu bada uri orretara eldu, nai badozu bertan bici izan, pacienciaz igaro bear dozuz; bestelan ecin esan cinaique daucazula benetaco esperancea bertara elduteco. Yrugarren, benetaco esperancean eguiten davena da quendu mundu onetaco ondasun, anditasun, eta beste gauza guztien ardura larreguia. Norbaitec cerbait alcanzadu nai davenean, quentzen dituz bera euquitera eltzeco galazoten deutsezan estropezu guztiac, eta ezta eurentan, edo euren arduran gueratuten; izanic bada ardura larregui au estropezu andi bat cerura eltzeco, balego benetaco esperancea, ez litzateque aimbeste ardura, aimbeste aleguin, aimbeste gurari euquico mundu onetaco gauzacgaitic. Ce ondo iracutzi even santuac, benetaco esperancea euqueena! Ez egunez, ez gavez egozan gueldi; oraciñoa bateti, baraüa bestetic, emetic mortificaciñoa, andic pobrecea, guztia garbitasuna, guztia humiltasuna, eta guztia aleguien bearra eguitea; eta alambere beti bildur santuz yosiric. Eta guc naguitasun, alperqueria eta munduco gauceetan emonic demporea, deré-chagu (derichagu) artez artez goazala cerura. Cc., equi daigun esperanza oso osoa Jaungoicoagan, yaquinic, andiac badira beré gure

¹ Hemen ez du aipamena zehazten.

AITA JUAN MATEO ZABALAREN SERMOIAK (II)

pecatuac, andiagoa dala bere erruqui edo misericordia, baya lagundu daigun esperanza au gueure obra onacaz, igaro daiguzan paciencia andi bategaz, datorquiguzan nequeac eta artuco dogu sari ugaria ceruan. Amen.

FRAY MATEO DE ZABALA

4. JAUNGOICOAREN LEGUECO [BIGARREN] AGUINDUAREN EDO YURAMENTUAREN GANECO ICASBIDEA

Non assumes nomen Dni. Dei tui in vanum, nec enim habebit insontem Dns. eum qui assumpserit nomen Dni. Dei sui frustra. Exod. 20, v.7.

(B, 25-28. or.)

1. Jaungoicoaren legueco bigarren mandamentuac aguinduten deuscuna da Jaungoicoaren icen santua ez utsean artzea; edo bardin dana, yuramentu alperrecoric edo falsoric ez eguitea. Yuramentua da esaten dan gaucearen eguien ganean Jaungoicoa testigutzat ecartea. Modu ascotan yuramentu eguiten da: curutzeari, justiciaco cigor, chuzo edo beste ezaugarri edo señaleari mun eginagaz; Evangelio, curutze, edo justiciaco cigorrean escua iminiagaz; esanagaz: *yuramentu eguiten deusat Jaungoicoari, Trinidadeari, Jesucristori*, eta alan. Da beré yuramentu testigutzat ecartea araco criaturac, ceintzuetan arguiago, edo claruago aguiari dan Jaunaren ontasun eta anditasuna; esango balitz leguez: *Ama Virginea gaitic, ceruco Santuac gaitic, J.C.ren pasiñoa gaitic, zazpi Sacramentu*, edo *cerua gaitic*. Baya au esaten bada araco gauzac gaitic ceintzuetan eztan aimbeste ezagututen, edo eztan ain argui aguiari Jaungoicoaren guganaco ontasuna, ezta yuramentu izango; esango balitz leguez: *escuan daucadan oguiagaitic; aushe emen daucadana leguez*. Ezta yuramentu esatea: *emenche nagoana leguez, Cristiñau nasana leguez* (edo como soy Cristiano), *guizon prestu nasanez, neure conciencian*, bada itzcune oneetan ezta Jaungoicoa testigutzat ecarten. Beste esacune modu bat, guztiz sarri euqui oi da aoan: *ondo daqui Jaungoicoac eguia diñodana*, edo *guzurric eztiñodana. Jaungoicoaren aurrean nago*, eta *daqui cer diñodan*, oneec dudazcoac dira. Esan gura badozu, ezin Jaungoicoaren yaquituria ganic ecer escutadu (ostendu) leitequeala, ezta yuramentu izango. Baya esan gura badozu, Jaungoicoa dacarzula, diñozun eguiaren testigu, yuramentu izango da.

2. Iru gauza (aurquitu) behar dira Yuramentuan, ona eta bear dan leezcoa izaiteco. Eguia, arteztasun edo justicia, eta premiña, eguin-bear edo necesidadea. Lenengo, eguia; au da, ciur-ciur egon bear zara, diñozuna, diñozun moduan dala. Artuten deutsue yuramentu ea Domeca goshean Pedro eleshan egon bazan, ala ez; bada yuramentu eguiteco an egon zala, ciur ciur egon bear zara an egoala itanduten deutsuen demporan, bada dudan bazagoz begoan ala ez, pecatu mortala eguingo dozu. Orregaitic yuramentu arcen danean, baco-chac esan bear dau gaucea berac daquian moduan; ciur daquiana, ciur; dudan daquiana, dudan; icusia, icusia leguez, eta enzuna, enzuna leguez, ecerbere guichitu gueiagotu (ascotu) edo aldatu bagaric, bere gogoan, (memoria), edo ustean daucana leguez; bada aushe da yuramentu eguiagaz eguitea. Esan gura dot yuramentuaren eguia dago yuramentu eguiten davenac berac, bere memorian, edo ustean daucan moduan gaucea esatean, ez berez dana leguez. Esateraco: itanduten deutsue, begoan ala ez Juan urlia egunetan yazo zan errieltan; zuc uste dozu ez egoala an, baya benetan bertan aurquitu zan. Zuc yuramentu eguiten dozu etzala an aurquitu. Yuramentu au eguiagaz da, bada zuc diñozuna, derechazun moduan da. Bestera. Eritzun zeuri Juan errieltan icusi cenduala, baya benetan ez egoan an: artzen deutzue yuramentu an begoan; eta zuc gachen bat etorri cé daquion, yuramentu eguiten dozu ez egoala; guzurrezcoa da yuramentu au, eta pecatu mortal; ce eguia bazan beré, an ez egoana, etzan au zure erichia, eta ezta zuc diñozuna zuri derichazunagaz bardin.

3. Ain da gauza bearra eguia yuramentua ona eta pecatu baguea izaiteco ce, ecin iñondic bera bagaric eguin leiteque, ezta dan gauzaric chiquien, chiquienen ganean bada beré; eta alan chanchetan, bur-laz (barrez), edo yolasean bada beré, pecatu mortala izango da guzurragaz eguinico yuramentua. Eta alan ezta achaquia ona, guzurragaz yuramentu eguiteco, echacala iñori calteric etorri, cé pecatu mortala izaiteco asco da guzurragaz izaitea. Jauna, cer eguingo nevan? Neure adisquide baten contracoa zan, escatuten eusten yuramentua; mesede andiac deustaz eguinic, berac escatu eustan, arren e-nenguiala salatu; eta banequian beste aldetic, nic guzurragaz yuramentu eguiten ezpane-an, calte guztiz icaragarriac etorrico yacazala, eta bera ta bere etsea betico galduco zala; bada sartuco even presondegui edo carcela baten, edo betico presidio batera botaco even, salduco eutsen eucan guztia, bere emazte ta umeac gueratuco cirean caleen erdian. Au icusiac erruquitu ninduan, eta nequiana leguez echacola iñori cal-

teric etorten nire yuramentutic, orreshegaitic uste izan nevan e-nevala peccaturic eguiten guzurrezco yuramentu agaz. Bai nai ez, neure C.ac. Bacenquie zuec guzurrezco yuramentu bat ez eguinagaitic mundu guztia galdu, erre eta amaitu edo acabauc leitequeala beré, ecin orregaitio beré yuramentu ori eguin cinaique. Bacenquie zuec guzurragaz eguinico yuramentu bategaz cerura yoango litzatequezala munduan dagozan, eta yaioco direan guizon guztiac, eta urtenic infernuric an dagozan guizon ta Demonioño guztiac, cerura betico atseguinetara igaroco litzatequezala, ecin orregaitic eguin cinaique, eta peccatu mortal icaragarri bat eguingo ceunque; bada leenago da Jaungoicoaren honrea, eta bere icen santuari zor yacan itzal eta erreberencia (lotsea), mundu, ceru, mundutar, cerutar guztien zoriona baño. Ba'quizue cer dan guzurragaz yuramentu eguitea? Da Jaungoicoa guzurtizat euquitea, edo esatea Jaungoicoa guzurtia dala; cegaitice norbaist guzurren baten testigutzat dacargunean, guzurtizat daucagu, ce osteranchean, ez gueunque ecarrico bere testigutzat. ¿Ce lotsabacotasun andiagoric eguin leio Jaungoico eguia bera danari?

4. Yuramentuac, ona izaiteco, bigarren (euqui) bear daven gaucea da, arteztasun edo justicia, au da juramentuagaz cerbait aguinduten bada; edo esaten bada au edo beste cerbait eguingo dala, modu onetan aguindurico gaucea, ona izan bear da. Onen ganean cer yaquin bear dan, guero esango dogu. Irugarrengo: yuramentuac (euqui) bear davena da premiña edo eguin-bearra: baya au bagaric eguinico yuramentua, bacarric izango da peccatu veniala, beste biacaz eguiten bada, au da eguiagaz eta justiciagaz bada. Alambere ardura andi bat euqui bear dozue, yuramentu eguiteco ecanduric edo costumbreric ez artzeco, eta artu badozue quentzeco. Espiritu Santuac dirauscu: Ez eguizue euqui yuramentu pitian pitian eguiteco oituraric, ce guztiz dira andiac ecandu orretatic datoza peccatuac. Sarri yuramentu eguiten davena, ezta peccatu bagaric egongo. Yuramentu asco eguiten daven guizona peccatuz beteco da eta ezta bere echean gacha faltaco. Egua au icusi eta enzun oi dogu araco saldu erosietan edo tratuan dabiltezan ascotan. Beti dagoz yuramentu urtica. *Baneuco cerua*, esan oi dave, *opa deustazun beste*, edo *gueiago*, *ori costa yatana leguez*. *Eztaidala alderic eguin*, *ori baño gueiago opa ezpadeuste*. *E-neuque cerura yoan gura*, *irabaciric gueratuten bayat*. Onelango yuramentuac ezarteco oiturea, edo usadioa dauqueenac gueiencan eguiagaz ezarri arren, ezta erraz noshean bein (nos edo nosco) guzu-

rragaz ez botatea, eta bein abietan badira guzurragaz ezarten, eta badacuse sinistuten deutsela, eta irabaci ona ateraten davela, bildur bagaric ezarten oi dituez: bada erraz da, irabaci andi batec arimaco beguiac itsututea, eta ez icustea pecatu onen anditasuna.

5. Izan ezquero yuramentu iru-gauza oneecaz, ez bacarric ezta pecatu, baya dago eguin-bearra, edo eguiteco obligaciño estua Justiciaco nagusi, edo aguintariac escatuten daveenean; eta alan ecin escutadu cinaitequez, ecin igues eguin cinaique, cein artu daizuen; eta onelango gauzaric eguiten badozu, ta noribait calte andiren bat badatorquio, zuc yuramentu ez eguina gaitic, ascoc diño osotu edo errestituidu bearco deutsazuzala, zuc yuramentu eguin ez gura gaitic datorquiozan calteac. Errazoe andiagagaz (obeagaz) osotu, edo biurtu bearco dituzuz zure guzurrezco yuramenturic datozanac. Pecatu mortal icaragarri bat eguingo dau, besteri guzurrezco yuramentua erazoten deutsanac, edo erregututen deutsanac, bere aldera edo favore eguin daijala yuramentu guzurrezco edo falsoa. Guztiz dago zabalduric oitura bat. Prestadu deutsazu noribaiti diru edo gauzaren bat, zor deutsu cerbait, saldu deutsazu epetan baitura cerbait; elduten da emona biurtu edo paguetaco demporea, escatuten deutsazu prestadua, zorra, edo saldu deutsazunen balioa; ucatuten deutsu. Ea bada bertatic yuramentua eguin daijala, biurtu badeutsu ala ez; pagadu badeutsu ala ez. Esan eguidazu: badaquizu guzurragaz yuramentu eguingo daven ala ez? Bada badaquizu, edo baderichazu guzurrezco yuramentu eguingo davela, ecin erazo cinaio. Eztiñot au nic, ezpabere S. Agustin-ec: Euqui eizue dinotsuedana ceïen ariman irrima escribiduric. Diño Santu andi onec: Yñori yuramentu erazoten deutsanac yaquinic guzurragaz eguingo davela, pecatu andiagao eguingo dau guizona ilgo baleu baño. Contu bada, Cc., cein arima bi galdu daizuezan diru edo ondasun pusca bat gaitic: bata ceïena, guzurraco yuramentua erazoten deutsazuelaco, eta bestea yuramentu eguiten davenena.

6. Lau modutacoa da yuramentua, (baieztua, edo) bayezcoa, cematuguina (cemauntzazcoa) edo amenazazcoa, biraozcoa, eta aguinduzcoa. Lenengoa da, yazo edo igaro dan gauzaren baten ganean alan dala edo eztala yuramentu eguitea. Contu daigun esaten badot: *yuramentu eguiten deusat Jaungoicoari eztodala ecer ostu*. Aushe da orain artean azaldu edo explicadu dogun yuramentua. Bigarrena da norbait calte edo gachen bategaz cematu edo amenacetea yuramentuagaz (yuramentu eguiten dogula). Eguiten dau mutil

batec gaistaqueriren bat, eta dirautsa bere aitac yuramentu eguinagaz, J.C°.ren curutzeari mun eguiten deutsal: *aushe gaitic ezteuvat par - catuco galantac emon bagaric*. Irugarrena da biraoagaz eguiten dana: *e-naiala emetic yagui diñodana eguia ezpada*. Juramentu au izan leiteque igarorico gauzaren baten ganean, eta orduan izan bear da leenago esan direan iru gauzacaz: izan leiteque etorteco dagoan gauzaren baten ganean eta orduan euqui (izan) bear dau guero esango dogun leezcoa. Esateraco: *E-naiala biar gaiëra biciric eldu, orduco paguetan ezpadeutsut deutsudan zorra*. Laugarrena da aguinduzcoa, eta da isquini, prometidu edo berbea emoitea yuramentuagaz (pean) cerbait eguingo dala. Yru yuramentu oneec, baten sartuten dira edo obeto esaterren cematuteagaz eguiten dan yuramentua beti da aguinduzcoa; biraozcoa izan leiteque edo izango dan gaucaren ganean, eta orduan da bayezcoa berbera; eta izan bear da bera leezcoa; edo izan leiteque etorteco dagoanen [sic] gauzaren baten ganean, eta azalduric cer dan aguinduzcoa, dago esanic, cer dan, eta celangoa izan bear dan.

7. Yuramentu eguiten danean cerbait aguinduagaz, edo dala cematuz nai biraoagaz berbea emoiten danean, iru eguia edo uste (gogo modu) euqui leiquez yuramentu onec. Bata da yuramentu eguiteco benetaco gogo edo intenciñoagaz eguitea; bestea aguinduz, cematutez, edo biraoz eguinico yuramentua bete edo cumpletaco borondatea euquitea; eta irugarrena aguindu edo esana eguitea. Ara esanguei bat. Zara guizon aberats bat, bazoaz ceure bidean baya diru bagaric. Urteiten deuntsue lapurrac, eta icusiric eztauczula arean, yuramentu erazoten deuntsue iru egun barru bialduco deuntsuezala sei milla erreal, cematuten zaituezala eriotzeagaz, yuramentu au eguiten ezpadeutsezu. Zuc eriotzearen bildurrez eguiten dozu. Yru modutan eguin cinaiquez yuramentu au: lenengo benetaco yuramentu eguiteco gogo edo intenciño bagaric, edo aoz edo berbaz (utsacaz) bacarric: modu onetaco yuramentua pecatu mortala da. Bigarrego euqui arren yuramentu eguiteco gogoa, etzara lotu gura, eta alan eztauczazu sei milla errealac pagadu edo emoiteco gogo edo borondateric. Yuramentu modu au beré pecatu mortala da. Yrugarrego eguiten dozu yuramentua benetan, edo eguiteco intenciñoagaz, baita beré daucazu gogoa sei milla errealac iru egun barru eroateco, baya eztozu yaramonic eguiten, edo irugarren eguna eldu arren, ezteutsezuz eroan edo biralduten. Yuramentu au eguin cenduanean, etzenduan pecatu eguin; baya eguingo dozu betetan ezpadozu yuramentuagaz

emonico berbea. Beraz (alan) lapur areri pecatu mortalen bean bialdu edo emon bearco deusdaz sei milla errealac: esango deustazu. Ez Cristiñaiac. Onelango gauzaric yazoten bayatsu, zoaz ceure confesoreagana, esan eguiozu cer yazo yatsun, eta escatu eguiozu ascatu zaizala yuramentuen bitartez artu cenduan eguin-bear edo obligaciñoric.

8. Ychi daiguzan guichitan yazo oi direan yuramentu oneec, eta beguiratu daiguzan, egunean egunean eguin oi direanac. Cerbaist iñori aguinduten deusazunean, edo berbaren bat emoiten deusazunean, bardin da castiguren bategaz cematu edo amenazetan dozunean, bardin birao eguiten dozunean, equi bear dozu gogoa aguindu, cematu edo birao eguiten dozun gaucea eguiteco nai dala andia nai chiquia, nai dala ona, nai donguea, bada ezpadaucazu gogoric edo borondateric, pecatu mortala eguingo dozu. Eguiten dozu yuramentu pobrechu bateri lau ciri emongo deusazula; bada ezpadaucazu emoiteco gogoric, pecatu mortala eguiten dozu gauza chiquia bada beré. Dacutsu ceure semea guestaquerian (oquerquerian) dabilela eta dirautsazu: *milla demoniñoc eroan neiala (nayala) afariric gaur emoten beuvat*: au esan cendunean baceuncan afariric ez emoiteco gogo edo intencinoric, etzenduan pecatu mortalezco yuramenturic eguin: baya baceuncan afaria emoteco edo ez quenceco usteric, pecatu mortala eguin cenduan. Escatuten deuszu batec, esan daizula guzurchu chiqui bat, bildur dalaco aguiraquen bat eguin ezteioen, eta zuc gauza au estaldu daizun gurariagaz esaten deuszu eguin deiozula yuramentu guzur au esango dozula, eta zuc eguiten deuszu yuramentu. Bada yuramentu au eguin ceuntzanean, baceuncan gogo edo intenciñoa guzurra esateco, pecatu beniala bacarric eguin cenduan; baya ezpaceuncan guzurra esateco usteric, pecatu mortala eguin cenduan. Zure yuramentua bada pecatu mortalen bat eguingo dozula, pecatu mortala eguingo dozu, nai equi daizula, yuramentugaz aguindu dozuna eguiteco gogoa, nai equi eztaizula. Badaucazu, eguiten dozu pecatu mortal, bada eztauca yuramentu orrec bear leuquean arteztasun edo justiciaric. Ezpadaucazu, eguiten dozu pecatu mortal, zure yuramentu ori guzurrezco edo faltsoa dalaco. Yrudi bategaz au arguituco dot. Esaten deusuz lagun batec berba astun batzuc; emoiten deuszu querella bat; ezagututen dau arec deungaro eguin davena eta bialduten deuszu adisquide baten bitartez parca escatu eta baqueac eguitera, eta zuc diñozu: *eztaidala Jaungoicoac cerua emon orreri parcatuten badeusat*: pecatu mortala eguin cen-

duan; ez parcatuteco intenciñoagaz bazan, ez eucalaco bear zan arteztasun edo justicia, eta baceuncan, etzalaco eguiagaz.

9. Yaquinic ce gogo edo intenciño eta uste euqui bear dan aguin-
duzco yuramentuan; icusi daigun, celan bete edo cumplidu bear dan
yuramentuagaz aguindu dana, eta ce pecatu dan ez cumplietea.
Aguindu edo prometidu dozuna nagusi edo grabea bada, pecatu mor-
tala izango da ez yagotea. Eguiten dozu yuramentu ogei erreal
(oguerleco bat) emongo deutzazuzala pobre bateri, emoten ezpadeu-
tsazuz pecatu mortal eguingo dozu. Aguindurico gaucea chiquia
bada, pecatu mortala izango da ez emoitea. Juramentua bada pecatu
eguingo dozula, eztozu euquico yuramentu au cer zaindu; nai izan
deila mortala, nai izan deila beniala. Eguiten dozu yuramentu ezto-
zula meza enzungo yaiegunen baten, eztozu gorde bear yuramentu
au, eztozu pecatu barriric eguingo meza enzunagaz, eta eguingo dozu
pecatu ez enzunagaz. Eguiten dozu yuramentu guzur chiqui bat esan-
go dozula, eztozu pecatu eguingo ez esanagaitic. Bardin da eguiten
badozu yuramentu eztozula eguingo gauza onen bat...

FRAY MATEO DE ZABALA

5. BIRAOAREN GANECO ICAS-BIDEA

Venenum aspidum sub labiis eorum. Psal. 13.

(B, 33-35. or.)

1. Da biraoa Demoniñoari norbaistentzat dei eguitea, edo escatutea gachen bat norberen buruari, edo iñori etorri daquiola: esaten danean leguez: *milla Demoniñoc eroan ayela, eriotza gogorrac artu ayala; biciric biurtu ez adila; lupu gogorrac yo ayala; tripa-ala minac aroala; arren bada gorronci gogorrac nire beguietatic quenduco al-
au*, eta onelango beste aimbat modu, ce eztago guztiacontadu aldaianic. Esaten dan gacha andia bada, eta gogo edo deseoric badago yazo edo etorri daquion, pecatu mortala izango da. Atenciñoz zagoce, Cristiñauac, bada da guztiz bearra emoitera noian doctrinea, bada aindago zabalduric pecatu genero au ce, derichat, Cristiñau guztiz asco doazala beragaitic Ynfernuetara. Sarri-ascotan etorten oi zare confesetara, eta esaten oi dozue: Aita, nic birao asco bota dodaz, baya ezтира biotzetic izan. Baya ecin beti sinistu leguiquezue. Gura dozue yaquin biotzetic direanez ala ez? Ara emen bada ezaugarri alazocoa. Birao eguiten deutzazun persona ori laztana badozu esateraco adisquide guztizcoren bat, senar edo emaztea, nori asco gura deutzazun, eta nogaz baquean bici zarean; nosean bein eta guichitan bada, eta su andi bagaric, señale (aguiuri) da eztireala biotzetic izan. Baya birao eguiten deutzazuenagaz aserraturic bazagoz, aguiuri da biotzetic dana. Quenduten deutzue falta andi bat eguiten deutzun gauzaren bat, eta aserraturic orregaitic diñozu: *Arren, bada beso biac yausi (igartu) daquiozala*; ondo aguiuri da biotz charra daucazula bere alderaco, eta gur'ozula yazo daquion. Emoiten badeutzue auciren bat, eta errazoeoric euqui ez arren zure erechian, irabazten badeutzue, eta sentimentuz beteric esaten dozu: *Jaungoicoac, niri eguin deustana leguez, pagadu daquiola; arren bada ateric ate icusi daguidala; lucidu eztaiala; auts biurtu daquiola; guesho gogorrean gastadu daguiala*. Oneec eta onelango biraoac gueienetan dira pecatu mortalac.

2. Baderichazu eztaucazula orduan yazo din [sic] gogoric, esan eguidazu: ¿nos bota oi dozuz birao orreec? Eguin deutzuen gacha

gomuta dozuenean; a-en ganean berba eguin deizuenean; baita onetaco ceruraguino ponderetan (goratu) dozue eguin deutsuen gacharen anditasuna, guztiai adierazoten deutsezu sentimentuaren (naibaguearen) anditasuna ain modutan, ce eztozu aurquituco dantzueenetic bat, ceinec esan eztaguian ecin icusi dozula. Baya esango dozu: Aita, bertatic damututen yat. Ezteutso; bada ezarri cenduan orduan berean biotzetic bazan, eguin cenduan pecatu, laster damutu arren. Esan eguidazu ezpabere, yaurt-eguingo baceuntso bateri balasu bat, excusadu cenduquez eriotza atatic bertatic damutuac? Edo esan ceinque: eztot nic eriotza a eguin, ce bertatic damutu yat. Bada bardin da biraoan. Nai damutu, nai ez, ya dago orduraco pecatu mortala eguinic. Beste batzuc eranzun daroe: Aita, aserreagaz izan da; baya bertatic igaroten yat. Eguia da ordu berean eztaquit cer eguingo neusquion, baya gira bira bat eguin orduco, eztago ecer. Bai, Cristiñaua, aserreagaz bota dozuz, eztaquizu cer eguingo ceuzquion, eta etzeuncan gogo edo intenciño deungaric? Ori noc sinistuco deutsu? Nic beintzat eztaquit iñoc sinistu al-deiquezun. Aita, bertatic igaroten yat. ¿Cer da orregaitic? Beindanic bein eguin zan gacha. Su emon eyozu aserreagaz polvora-barrica bateri, eta esan eguizu guero bertatic igaro yatzula. Beste batzuc esan oi dabee: Aita, nic birao guztiz asco eguin dodaz, ecin contadu beré eguin leiz; baya ezta daucadan ecandu charra baño. Ecandua daucazu? Aibat oquerrago: bada andiagocac dira ecanduz eguiten direan pecatuac. Eta ¿ce aleguin eguin dozu ecandu ori galtzeaco? Arean bere ez: ce dacuzguna da eztireala eguin gura confesoreac emonico penitenciac, neque tangaren bat badauque; eta orregaitic galdu bearrean, aurrera doazala, eta gueroago ta gueia-gora doazala.

3. Calte andiac dacar biraoac: baya echecoen aurrean eguiten direanen calteac, guztiz dira andiagocac. Onen artean alcarreri eguiten direan biraoac pecatu mortala izaiteco, ezta bear biotzetic izan ditezan; eta alan pecatu mortalac izan leitequez alango gogo char bagaric. Semeac botaten badabee, pecatu mortala izango da, borondate deungaric euqui ez arren: bada galduten deutso zor deutsan lotsea: eta alan aguinduten eban Jaungoicoac achinaco leguean, gurasoen contra birao eguiten eban semea ilteco. Senar-emazteac alcarreri eguiten deutsezanac, ascoc diñoec pecatu mortala direala arrabiagaz bada beré eta sarri badira, oneecaz galduten deutse alcarreri zor deutesen lotsea, amateetan dabee amodio ta caridadea eta quentzen dabee echeco baquea. Gurasoc seme-alabai eguiten deutsezanac

gueien gueienetan pecatu mortalac izan oi dira biotzetic ez izanagaitic; bada pecaturaco bidea emoiten deutse, eta eracuste charra: eta bardin da eurai ezarri ez arren, euren aurrean eguiten badira. Negargarrizcoac dira, Cristiñauac, biraoac dacazan gachac. Gueuc, geuc: Gueuc enzuten oi doguz oraindio lurrean aguiri eztirean umechuen biraoac. Arritu eta bildurrez icaratutecoa da enzutea, oraindo coarren berbaz ondo eztaquienen biraoac, eurenagaz urten ecin dabenean: gura eztabeen gauzaren bat aguinduten yaqueenean, lagunacaz aserratuten direanean, ez yaque enzuten demoniñoa, Diabrua eta biraoa ezpada. ¿Cergatic, guero? Zuei enzuten deutsuelaco. Au esaten yatsuenean eranzun darozue ¿Cer eguingo dot? Seme galdu batzuc daucadaz, eztabee nire esanic eguin gura, lancean lancean lotsea galduten deuste, arrabiau erazoten deuste, eta orduanche eguiten deutset birao. Esan eguidazue guraso zori gogorrecoac, edo obeto esatearren borreru gogorrac, ¿ecer eguin dozue zuen birao orreecaz? Eguiten dabee obeto esana? ¿Dira cristiñau obeac? ¿Ychi dituez gueistoquericac? Ondu dira? Baya cer diñot nic ondu? zuen semeac gueistoac badira, zuen biraoacaitic dira, eta oraindo coarren oquerra goac izango dira. Eztozue gauz'onic eguingo, ez zuec, ez zuen semeac. Zorigaistocoac izango zare mundu onetan eta bestean: bada Espiritu Santuac diño: gurasoen biraoac cimentuetaraguiño eche guztia iruliten ta galduten dabela. *Maledictio Matris eradicat fundamenta.*

E-neunsquio bein beré azquenic emongo onen ganean yazo direan guertacuntza edo exempluac esan gura banituz. S. Agustin-ec diño ce, ama batec amar seme-ri birao eguin eutsela, esanic arren bada Cain-eri leguez icara gogorra sartuco balequie. Guztien ganean yausi zan biraoa, eta amarrac gueratu cirean dardar icara gueldi ecin egonic. Amac au icusita sentimentuaren sentimentuz bere burua urcatu eban. Eurac barriz lotzaarren, iñon egon ecinic ibili bear izan eben erriric erri; eta S. Agustin-ec dirauscu berac onetarico bi icusi cituzala. ¡Ah gurasoac, gurasoac! Derichat familia osoac, aasabac (aitobeac), gurasoac, semeac, llobac, eta onen semeac eta beste seme ta seme asco, bata besteen atsean doazala infernuetara biraoacaitic. Zuec emoiten deutzazue aciera deunga au semeai, onec artuten dabee ecandu deunguea, iracasten deutse euren semeai, eta onec besteai; eta modu onetan batat bestean heredetan dabee hacienda edo mayorazgua bailitzana leguez, baita orregaitic icusten dira familia osoac ceintzuetan eztagoan biraoa, añena, aguiraquea, deada-

rra, eta aserracuntzea bashen. Eztirudie, eztiñot cristiñaiüenac, ezta guizonen echeac beré, ezpabere infernuco Demoniãoaren bici-lecua. Ezta euretan enzuten Jaungoicoaren icen santua, blasfemetaco ez izanic: guztia da demoniñoa, Diabrua, Barrabasa, arrayoa, añena ta bira-
 oa. Danzuen guztiac escandalicetan dira. Auzotegui guztia dago arri-
 turic, eta bildurrez icara gogorrean, euren semeac, eta ume guiñoco-
 ac edonon dira ezagun, euren birao, esacune deunga ta gueistoque-
 riacaitic. Eta orregaitarren datoz confesetan baque eta epetasun andi
 ATEGAZ, pecaturic ezpaleuquena leguezche, eta acusetan dira: Jauna,
 birao batzuc bota (eguin) dodaz, baya eztira biotzetic izan, ezto
 intenciño charric euqui. Eta ¿emon dozun escandalua? ¿Semeen
 exemplu deunguea? Cristiñaiüac! Quendu eguizue ecandu deunga ori,
 galdu gura ezpazare. Erremedio ta bide asco dagoz onetaraco; baya
 nic bat bacarric emongo deusuet, baita bera da S. Juan Crisostomo-
 c ecandu onen contra emoiten dabena, eta diño Santu andi onec ce,
 au eguin ezquerocoan, quenduco dozuela, eta berau bacarric asco
 izango dala guztiz galduteco. Ba'quizue, guero, ce erremedio dan?
 Ara bada. Eguiten badozue biraoren bat, diño Santu onec, ez eguizue
 afaldu gau atan, eta zoace oera ecerbere artu bagaric. Ymini eguizue
 aushe legue au zuen echeetan, eta birao eguiten dabenari ez emon
 afariric. Ba'quit gogor eguingo yatsuena eta esango dozuena ecin
 loric eguin dozuela: baya obago da gau bat edo beste nequez igaroi-
 tea, Ynfernuetan beti betico erretan egotea baño.

6. JAIEGUNAC GORDETEAREN GANECO ICAS-BIDEA

*Memento ut diem sabatti sanctifices.
Exod. 20.v.8.*

(B, 35-37. or.)

1. Jaungoicoaren legueco irugarren mandamentuac aguinduten deuscu yai-domequetan gordetea. Gauza bi bear dira onetaraco: meza osoa enzun, eta bearric ez eguin. Larregui luzatuco nintzateque gauza bi oneec adi erazo gura baneutsuez; eta alan bacarric berba eguingo dot Mezearen ganean. Enzun bear da bada meza osoa; alamberé ezta pecatu mortala izango mezea puscachu bat igaroitea. Noraguiñotic enzun bear dan mezea pecatu mortala izaiteco, batzuc diñoec evangeliotic aurrera, beste batzuc epistolatic; eta orregaitic onen onena da aurretiaz etorri, eta ateetan berbaz egon baga asique-ratic enzutea. Mezea bear dana leguez enzuteco, bear da atenciñoa eta debociñoa. Bear da intenciñoa: au da, euqui bear dau mezea enzuteco gogoa, eta adi egon, eta yaquin bear dau cetan doian Sacerdotea; eta orregaitic eztabe mezaric enzuten ordiric dagozanac, lo...dagozanac, berbaz, edo batera ta bestera beguira dagozanac: mezara dato-zanac, eurac ondo-gura edo maite dabeen personea icustearren, eta ac icusi daiantzaco. Euqui bear da debociñoa alan gorputzeco, celan arimacoa. Campoticoa da gorputzaren modu ona, au da, belaun-bico edo yaiguiric egon bear da, aguinduten dan aldietan, al izanic; eta ecin bada, aldan egoqueraric oneenean. Barruco devociñoa da gogoa edo pensamentua Jaungoicoagan edo Jaungoicoaren gauceetan euquitea, edo mezeac berac esan gura dituzan gauceetan: esateraco, Jaungoicoaren anditasun, ontasun, erruquitasun, yaquituria, edo J.C^o. geure Jaunaren yaiquera, bicitza, pasiño ta eriotzan. Alan bada eztabee mezaric enzuten bancuetan luce luce echunic, eta maien besoe-tan arrimaduric, plaza edo taberna baten leguez, dagozanac. Jaungoicoaren seme bacar laztana Aita Beticoari ofrecietan dan (yacan) artean, araco echeco cereguin, diversino, (tratu, contratu)

saldu-erosi, artu-emon edo beste munduco gauceetan euren (norberen) guraz dagozanac. Ezta araco corupe, edo ate ondoan, lecuia egonic eleshan, gueratuten dirianac, andishe icusteco nor sartu edo urte'iten dan, edo campoan iragoten dana icusteco; luce eguiten yaquela mezaco demporea tabernara, yocora, cereguinera edo erromeriara, dantzara aimbat lasterren yoateco, oin bata elesharic campora dauqueela, mezea emon orduco, bertatic urte'iteco, Sacramentu edo altareari erreberenciaric eguin beré bagaric. Baya onetarico pensamentuac bayatorcuz gure vorondate bagaric, eta aleguina eguiten dogula quentzeaco, eta Jaungoicoagan pensetaco, orduan ezta gueurea errua, eta mezea enzuten da.

2. Mezea galdu agueinean, eta ez enzuteco pellebruan iminten danac, pecatu mortala eguiten dau, guero meza enzun arren. Modu bitan galtzen oi dira gueienean mezaac yai-egunean. Batzuc euren ibillera eta biageetan, ez pusca bat icharotearren, edo ez meza enzuten gueratutearren, urte'iten dabee erritic, bestean enzuteco usteagaz, eta gueienetan ezda-baidan, eta dudeagaz mezaric euquico ete dabenez. Onelangoac gueienetan pecatu mortala eguin daroe. Oba litzateque onelango eguinenac eta ibilcunac astegunean eguitea, ta yaieguna Jaungoicoari, eta arimeari emoitea, eta ibili edo beste lecutara yoan bear bada, meza lenengo enzutea. Beste batzuc dabilz arrastaca euren cereguinetan, Mezaraco ordu ordura artean, eta euren eguinenac ez ichitearren, dagoz esaten, ¡eh! oraindocoarren ba'go demporea (astia), eta guero datoz arrastaca, arnasa artu ecinic, eta sarriascotan uts eguiten dabeela. Guero confesetan datozanean dauque achaquia esanagaz: e-nenquian ce ordu zan, uste neban gosha zala. Baya achaquia oneec eztituz gueienetan escusetan, eta alan leenago sinistu leique pecatu mortala eguin dabeela, bada beti dauque euren biotzean bildur bat mezea sartu ete dan. Barriz euren errubagaric, mezea besteetan baño leenago sartu dalaco, edo beste gauzaren bategaitic belu badatoz, eztabee pecatu mortalic eguingo; baya enzun bear dabe emparetan dan mezaren zatia (mezaren ganecoa).

3. Iru gauzagaitic ichi leique mezea. Lenengo ecin enzunagaitic, bigarren go caridadeagaitic, eta irugarren go oficioagaitic. Lenengo bada eztabee peccaturic eguiten ez meza enzunagaz geshoric dagozanac, edo gesho ostean oraindio echeric urteiteco eztagozanac; edadean sarturic dagozan atso-agurac, echea urrun dauquenean, edo eguraldi gogorrac dagozanean; echea yagoten norbaist gueratu bear bada. Baya onetan beguiratu bear da guztia meza enzun daien, alda-

ben goshetic edonor biralduagaz: cegaitic-ce otseinen bat ichiten badabee meza enzun bagaric echean, aldaiala, ugazabac alan gura izan-ta, onen ganean yausico da pecatua; eztau otsein edo oguitucoac pecatu eguingo, ugazabac baño. Ichi leiteque mezea gach edo calte andiren bat bizitzan, honran edo ondasunetan etorrico bada enzutetic, edo orren bildur andia badago. Bigarrengo ichi leiteque caridadeagaitic, eta alan ezta pecatu meza enzun bagaric egotea guesho bateri lagundutearren, ezpadago besteric nor egon, eta calte etorrico bayaco; ichi leiteque aserracuntza andiren bat amatetearren, edo besteren bateri etorri leiquion gachen bat gala'azotearren. Irugarrengo ichi lei mezea oficioagaitic; eta alan egon leitequez meza enzun bagaric iñudaac, eta gurasoac ezpadauque sein chicarra nori ichi; arzainac ezpadauque besteric, noc yagon daguioezan abere edo animaliac; eta beste olango ocasiñoetan. Onelangoetan eguin bear dozuena da, esan artez, eta dan moduan, daucazuen dudea Confesoreari, Abade-Maisuari, edo beste ondo daquian bateri; eta ez ceuroc ceüen buruz erabagui, teologu andi batzuc bachine legueche; bada icusi oi dana da, gueiago beguiratu oi dala irabaci, interes eta gorputzaren ondo egoteari, Jaungoicoaren legueari bashen; eta eguinic Confesore, Abade-Maisu, edo daquianen batec esaten deusuen seguru zagoze. Onez genetic Cristiñauiac bagara, ez-cara contentadu bear meza bat enzunagaz; yaquin bear dogu yai-egunac imini cituzala Jaungoicoac bera alabetaco eta gueure arimeen oneraco. Sei egunean bearra eguingo dozu; baya zazpigarrena egun santua da, diño Jaungoicoac.

4. ¡Oh ontasun neurriba'coa! Bereac dira egun guztiac, eta gura izanic aguindu eiquegun guztiac gordetaco; baya zazpitic ez eban bat bashen beretzat gorde, eta aushe beré gura izan eban gure arimaren oneraco izan cidin. Eta ain da andia guizonaren gogortasuna ce, ezteutso Jaunari emon gura berea dana; eztau orduan beré arimearen oneraco bearric eguin gura. Yai-egunetan arimea gueien galtzean da. Uste dabee ascoc ce, meza bat arrastaca enzunagaz, eguin dituezala yai-eguneco cer-eguin guztiac; baita au eguin ezquetiño, gura dabeen moduan emoiten dabee ganeco eguna, edo tabernan, edo yocoan, edo alper-erian, edo fiesta edo tambolinean; barriz oneetaricoetatic datoz pecatu icaragarrizco esquergaac.. Dacusguna¹, Cristiñauiac, da, yai-egunean eguiten direala pecuric andienac. Aste guztian egongo

¹ Zenbait hitzetan bi idazkera jartzen ditu egileak: *dacuzguna / dacusguna, azpaldi aspaldi, azte / aste...*

zare zuen bearra bashen gomuta eztozuela, ezteutsue buruac beré emongo ez ardaoric, ez yocoric, ez aserreric ez beste peccaturic. Ba'tor yai-eguna; bada orduanche izango da taberna, orduanche ordiqueria, orduan aserracuntzea, orduan yocoa, orduan echeco aserrea; beingoan esango dot, orduanche zabal zabal eguiten yaquee atea peccatu guztiai; eta esan lei eztala Jaunaren eguna, ezpabere Demonioaren eria. Beroneshecaitic ciñoian S. Agustinec: onelangoetan yai-egunac emoiteco, ushala bat-pere ezpalego; ushala egun sentiric gaubera artean bearrean bacinardue; ce peccatu guichiago egingo ceunque. Jaungoicoac berac achinatic maldiciñoa botaric deutse, onaan yai-egunac gordetan dituezanai. Gorroto deutset, diño, zuen yaiai, ecin icusi dodaz. ¿Ceta-aco dira yai-egun oneec? Egun ilunac dira orreec niretzaco, egun garratzac. Ba'quizue, guero, cer datorren onelangoetic? Nequea, lana, gacha, labore faltea eta beste esan-ecinezco gachac. Cristiñaiac, sinistu eguidazue: aspaldi onetan (urteocaz) dacusguzan gachen sustrai ta etor-burua gure peccatuac dira, eta euren aurrengo yai-egunac ez ondo gordetea. Alanche ciñoen achinaco leguean Profeta ac; alanche Eleshaco gurasoac, alanche yaquintsuac, eta alanche Santuac. Eta alan gura badozue Jaungoicoaren bedeincaciñoa zuen ganera etorri din, gorde yaiegunac; yoan Eleshaco oficioetara, obra misericordiazcoac eguin, gueshoac icusi, al daizuen limosnea emon, devociñoac esan, eta parcamenac edo indulgenciac irabaztearren eguin. Eguzue bada, onelangoac, diño Jaungoicoac Isaias-en aotic, eta icusico dozue celan yausico dan zuen ganean ceruco bedeincaciño zabala. Bicico zare gorputz ta arimaco atseguinean, guero barriz artuco dozue yaiaac ondogordeen saria beti-betico neure echean. Amen

7. [IRUGARREN MANDAMENTUA]¹

Memento ut diem Sabbati sanctifices

(J, 47-61. or.)

Jaungoicoaren legueco irugarren aginduac esaten deuscu yaiac gordetaco. (Celan esaten eutsan anchina Jaungoicoac israeltarrai). “Sei egunean bear eguingo dozu, esaten eutsen anchina Jgcoac Israel-tarrai ta euretan eguingo dozuz ceure cer-eguinac. Zazpigarren eguna da ceure Jgcoaren atsedena ta descansu eguna; eztozu berean bearric eguingo ez ceuc, ez ceure semeac, ez ceure alabeac, ez ceure otsein mutil edo nescatilleac, ez ceure (animaliac) abereac ezta ceure etsean dagoan campocoac”. Eta erri aetaco berbaicunean atsedena esateco *Sabat* esaten zana leguez, andic etorri zan egun ari *Zapatua* dei-eguitea. Baya Jesucristo gueure Jauna ilen areric bistu ezquero, Apostolu santuac Jaunaren biztuera au guc Cristiñauoc sarri gogoan erabilteco (erabili guenguiantzat) agundu even *Zapatuaren* lecuan Domequea gordetaco, S. Agustin-ec diñoanez, imini eutsen domequearen eguna guc egun au gauz'onac eguiten emon daiguntzat. Yzan beré, nere cristiñauac, domequea da beste egunen artean egun andia: bada, San Leon Aita Santu zanic diñoana, domecaz eguin dituz Jgcoac, eguin dituzan gauzaric miragarrienac. Domecaz eguin evan Jaunac mundu au: domecaz biztu zan Jesucristo; domecaz esan eutsen Apostoluai Jesucristoc bere legue santua mundu guztiti zabaldu-teco, ta bautismu santua emoteco: domecaz emon eutsen Jaun onec Apostoluai eurai pecatuac parcatu-teco escubidea, eta domecaz yatzi zan Apostoluen ganera Espiritu Santua.

Gauza bitaraco agundu evan Jgcoac asteco egun bat gordetaco: bata da sei eguneco bearragaz macaldu izango cirean gorputzac, zazpigarrenean arnasa pusca bat, eta indar barriac artu leguientzat; ta bigarrena da munduco cer-eguinetan gogoa euqui bagaric, Jgcoa bera astean bein ondretaco. Bigarren gauza oneri beguiraturic, Elesha

¹ Jatorrizko testuak ez dakar izenbururik.

Ama Santuac aguindu dau yai–egunetan mez’entzuteco. Eta anchina Jaungoicoac Israel–tarrai zapatuaz ganeti beste yai batzuc bere aguindu eutsezan leguez, alanche Apostolu Santuac, eta Elesheac beré domequeaz ostein aguinduric deuscuez beste yai batzuc. Onetarico batzuc barriz dira domecac leguez yai osoac, eta beste batzuc yai erdiac, yai arinac, edo eguzaroac (yaizaroac). Yai erdietan eztago mez’entzuteco baño beste obligaciñoric; baya domecac eta yai osoac gordetaco gauza bi bear dira; au da euretan bearric ez eguitea, eta meza osoa entzutea. Onen bioen ganean bada, astirochu berba eguin bear deutsuet.

Lelengo, bada, yai–domecac gordetaco ezta bearric eguin bear. Iru modutaco bearrac dagoz yai–domequetan eragotzita, eta dira gorputzagazco bearra, saldu–erosiac, ta tribunaletaco cer–eguinac. Dacusguzan bacocho banaan iru bearroc. Lelengo lelengo bada dago galarazoric araco gorputzagazco bearra ceineri esan oi yacon serbitzarien bearra, otseñiac eta aluguerecoac alango bearrac eguin oi dituezalaco. Onelango bearric bada dempora lucerocoric eguiten bada yai–domequetan, izango da pecatu mortala. Baya ezta erraz beingoan esaten ceinbat demporaco bearra dan asco pecatu mortala izateco, bada onen ganean yaquitunac batzuc bat diñoce eta beste batzuc beste bat. Badira euren artean pecatu mortala izateco bear luceagoa escatuten daveenac, eta bai bear guichiagori beré asco derichenac. Baya alanberé gueienac diñoce erloju bico bearra eta andic goracoa pecatu mortala izango dala, andic beeracoa barriz pecatu veniala, eguin bear esturen bat edo premiña andicoren bat eztagoanean eta alan esan beré eguiten dau doctrinaco cartilla barriac.

Alan luzaroco bearra izan ezquero pecatu mortala izango da yai domequetan solo–bearrac eguitea, nai achurrean dala, nai laietan, nai moquillac (erpillac) austen, nai arta yorran, nai beste edocein bear moduan. Pecatu mortala izango da baso–bearrac eguitea, egurra eguitea, zuguetzac edo landarac imintea, arechac iñaustea, orbela batutea, carobiari edo icasztobiari su emotea eta onelangoac. Contu icazquinac, Jgcoaren escua basoetara beré elduten da, ta basoan egon arren ecin bearric eguin cinaique yaiegunean. Suagaz dagoan icasztobiari bear dan contua artu bai, ori ondo. Baya ez beste bear moduric eguin; ez icasztobiari suric yai egunean emon, ez adacquiric eguin, ez ecerberé. Eta besteen agindura bear eguin bear badozue, ori lelengo ajustean atera bear dozue, eztozuela yaietan bearric eguingo, eta ori bagaric ez iñogaz bardindu. Pecatu mortala da arguintzan, arotzian,

errementaritzan, urreguintzan, zapataritzan, eta olangoetan eguitea. Pecatu mortala eguiten davee burdiacaz dabilztanac bateric bestera eroaten laborea, ardaoa, lastoa, satza, eta beste edocein beré gauza. Pecatu mortala da yai–domequeetan bogadea igarotea, edo errecan icuzitea (yotea); chabonadurea eguitea edo yotea; uruna eralguitea, orea eguitea, laba–suac eguitea, ta oguia erretea. Pecatu mortala da goruetan eguitea, edo caltzerdi–guiñan, yosten, icuruzquituten, edo arilduten egotea. Pecatu mortala eguiten davee zapatariac zapatuan, edo yai–eguneco aurrengo egunean gauerditic aurrera luzaro bearrean badagoz. Eta pecatu mortala eguiten davee yai egunean ilundu ezquero edo gauco bederatzietati aurrera dagozanac gurdiac (aparejetan edo) iminten, edo cargac eguiten, biaramoneco gosh–aldera euren bidea asteco. Domequea asten da zapatu–gauerdian, eta dirau ogueta lau orduan, urrengo gauerdian astelena asi artean; eta beste ainbeste da beste yai–egunacaz. Orain enzun daiguzan bearguilleen achaquiac.

Aita, egia da ni yai–egun arratsaldeetan yosten egon nasala: baya es nau iñoc icusi. Neure aldeti atea ichita nire bacarrean egon nintzan yosten. Beintzat Jaungoicoac icusi cinduzan? Ori ecin ucatu ciñai, cristiñaua bazara, eta pecatu eguin dozu iñoc bestec ez icusi arren. Zure bacarrean eguinagaz atera dozuna da, ezteutsazu iñori exemplu charric, ez pecaturaco bideric emon; eta alde orretati ezta ainbeste pecatu cein–da besteen aurrean eguin bacendu; baya pecatu bai. *Aita premiña estua (necesidadea) neuncan: biaramonean bear nevan soñecoa (erropea) ifinketan (adobetan) egon nintzan.* Etzeuncan beste yaztecoric (erroparic) cer aldatu, aste barruan (erroppa) ori adobetaco? *Aita, astegunecoa zan.* Bada yai–egunecoa yanci, astegunecoa adobetan cenduan artean. *Eztogu guc astegunecoa adobetaco (ifinketaco) astiric izaten.* Baquit nic, sarri ta sarri euquico eztozuena, guttiz bere otseñac bazare. Ori alan bada eztiñot nic ecer; eta guero orren ganean berba eguingo dot. Baya eguia esan bear da: ¡Ay! gogoti artuco bacendue topauco ceunque orrenbesteco tercioco astiunechu bat astegunecan beré. Contu (bada) cristiñauac, Jgcoa ezta guzurragaz engañetan.

Aita esan daroa zapatariac, dendariac eta orreec, nic eguin bearra nevan: berbea emon neutsan, ta ecin eguin neinquen yaiegunecan bear eguinbagaric, eta orregaiti egon guinean ni ta criaduac gosh alderaño bearrean. Ta cegaiti artu cenduan bear ori? Cegaiti emon ceuntsan berbea, yaquinic yai egunecan bearric eguin ecic ecin eguin

ciñaiquiola? *Aita, bada, becerua zan ta, berbea emon ezpaneutso, beste bategana yoango yatan (zan), ta galduco nevan beceru ori.* ¡Ay, Cristiñaua! Alan eguin, ta alan esan daroe gaurco eguneco cristiñau ascoc. Jgcoac berac dirauscu bera gauza guztien ganeti maite izateco, eta itanduten bayaque onelango cristiñau deungai: ea cer dan Jgcoa gauza guztien ganeti maite izatea, berlan erantzuten davee dala: gurago izatea gauza guztiac galdu, bera ofendidu, ta pecatu eguitea baño. Eta alanberé beceru bat ez galdutearren, irabaci labur bat ez galdutearren, bere ofensan yai egunetan bear eguin bearco davee. Baya onduten ezpadira nos edo nos, icusico davee celango infernua irabaci izan daveen onelango yai–domequetaco bearragaz. *Ay, Aita! Al daigun bear guztia eguin da beré, guztiaren bearrean ebili oi gara gure oguiia ira - bazteco.* Sinistuten deusuet nic ori, baita alan izan bearco dau, yai–domequetan bear eguiten badozue, baita zuen buruac beti arrastaca bearpean badarabiltzuez beré, bada Jgcoac maldiciño onegaz cematu cituzan beré Profeta santuen aotic Israel–tarrac, euren yaiegunetaco bearrac gaiti. *Jauna, bada, obe da yaiegunean bearrean egon, murmu - retan egon baño.* Bai Cristiñauac, yai egunetaco bearra ezta murmurañoa bashen deunguea, baya bata ta bestea deunga dira, pecatu dira, ta eguin bear eztireanac. Deungago da guizon bat iltea, amaseico bat ostutea baño; baya ecin orregaiti ostu lei amaseico ori, eta pecatu eguiten dau ostuten davenac. Alan bada, ez iñogaiti deungaroric esan, ta ezta yaiegunean bearric eguin.

Bear eguiten daveenac gaiti esan dana, esan bear da bere moduan besteai bear eraguiten deutseenac gaiti: eta alan pecatu mortala eguingo davee gurasoac eta ugazabac euren umeai ta otseñai yai–egunetan luzaro bear eguiten aguinduten badeutsee. Eta seme–alabac, ta otseñac eztavee onetan gurasoen ta ugazaben esanic eguin bear: bein da Jgcoa, ceinec aginduten daven bearric yai–domequetan ez eguiteco: eta esan bear deutsee lotsa onean, eztireala aec egunac bear eguitecoac, Jgcoac galarazoric daucalata. Baya alanbere bildur balira seme–alaba ta otseñ oneec, eurac bear ez eguinagaiti, aserre andia biztucu (sortuco) dala, edo calte andiren batzuc etorrico yaqueezala, eztavee pecaturic eguingo aguinduten deutseen bearra eguin-da; baya otseñac beste moduric echean icusten ezpadavee, eguin bear daveena da, beste ugazaba Jgcoaren bildur obeco batzuc billatu, ta etse orretaric urten: edo ezpabere gurasoen etsera yoan (oso calte andiric ezpayatorque). Azquenez pecatu mortala eguin davee, besteai yai–domequetan luzaro bear eguiteco burua (conse-

yua), aurrera bidea ta gantza emoten deutseenac, eta orretan alan olan iminten daveezanac.

Ecin esan lei, nere cristiñauac, noguño eldu dan gaurco egunean yai–domequetan bear eguiteco amurru deunguea. Guizonac bazaree yai–egunean eguin bearco dozue abarcac yostea, yai–egunean arrate edo esi zabalic edo bigunduric dagoana ichitea, yai–egunean lastoa ta cabilac balcoiti camarara edo sabaira eroatea; maia, aurquia, lenquea, asquea, atea, oarquea, burdia edo azpirea manaturic badagoz, yai egunean imini (compondu) bearco dira: yai–egunean azcoreari eta achurrari quirtena ezarri bearco yaco: yai–egunean gurdia biaramoneraco (aparejau ta) imini bearco da: yai–egunean surtaraco egurra chiquitu ta ceatu bearco da: ta milla onetarico. Emacumeac bazaree yai–eguneraco izan oi dozue alcondarea eta gonac garbietea; pañuelua azpildu ta zuritutea: eta, fiestaraco, yolaseraco ta dantzaraco ezpada... Eztaquit bada... Yai–eguneraco zarrac adobetea (ifinketea). Yai–egunean arto zarancadea zuritu bearco da: yai–egunean errotraco artoa garaundu bearco da: yai–egunean erri ascotan izan doa errota osterea, eta yai–egunean Jgcoac daquizan beste asco. Bada oneec guztioac bear–lanac dira, eta eurac eguiten aldi (dempora) lucea emoten badozue, pecatu mortala izango da premiña ta estucuntza andia izan ecic. Baita yazo leiteque batean dempora pusca bat emon, bestean beste pusca bat, contu daigun barbaraco: abarcac yosten iru ordu lauren, atea componduten ordu erdi; esia zarratuten ordu bete: edo pracac adobetan (ifinketan) erloju bete, gona batzuc eta panicelubat garbituten erloju erdi: artoa garaunduten erloju erdi; uruna eralguiten erloju erdi, eta lan puscaca puscaca dempora lucea bearrean emotea eta pecatu mortala eguitea.

¡Ah bada, bacenquie ondo ce gorroto gogorra deutzan Jaungoicoac yai–egunetaco bearrari! alperric ece etzeunque yai–egunean bearric eguingo. Entzuzue (bada) arren Escritura Santuan iracurten dan onenganeco egemplu icaragarri bat. Bein baten Yudeguac topau even yai–egunean guizon bat basoan egurrac batuten. Eroan even guizon gaisho ori Moyses–en, Aaron–en ta yentearen aurrera. Moyses Santua guelditu (lotu) zan guizon agaz cer eguin ez equiala. Sartu even, bada, carcelan, ta itandu eutsan Moyses–ec Jaunari, ea cer eguin bearco zan agaz guizonagaz. Ta erantzun eutsan Jgcoac: il bear da guizon ori: atera eguizu yente arteti campora, ta an guztia arrica il daguiela. Alanche eguin zan: atera even yente arteti lecu bacarrera, eta an arrica il even Jgcoac agindu evan modu–moduan,

yai egunean bear eguin evalaco. Onenbeste bada, gorroto eresten deutso Jgcoac yai–egunetaco bearrari: eta aguinduten ezpadau beré gaurco egunean alango bearrac gaiti iñor ilteco, echaque faltaco orregaiti beste munduan (yai egunetaco) alango bearguillai, ori baño castigu gogorraoa. (Echaquez falta alanberé onango bearguinai...). Izan oi dituez orregaiti euren bearretaraco achaquiac, eta achaquia onei erantzun bear deutset orain.

Aita, eguia da [...]

Bigarren bear modua, yai–domequeetaraco galarazoric dagoana da saldu–erosia ta artu–emonac, edo tratuac. Eta alan pecatu mortala eguiten davee mercatariac, eta denderuac, alango egunetan saldu–erosietan badabiltz. Onelango egunetan saldu lei yan gaucea: oguia, artoa, oquelea, ardaoa, orioa, tabacorria. Saldu lei argui gaucea; candelac, saiña, errechinac: saldu lei egun ataraco bear dana: baita eztiñot nic ecer campoco bateri nos edo noscoan barruco aldeti cerbait saldua gaiti; ezta erietan saldu oi direan ganadu edo besteac gaiti: ezta zapatari batec berac eguinico zapata batzuc saltzea gaiti, edo bardin dendari batec eguin dituzan frac batzuc, edo chapelen bat saltzeagaiti. Baya pecatu da canaco gaucea saltzea: pecatu piche-rrac, charroac, onciac eta beste lur ... gauzac saltzea; pecatu azcorac, achurrac, codañac, eta alangoac saltzea. Eta orretaraco tranpea zaballic badauquee pecatu gueiago izango da: eta zaballic euquitea bera pecatu da ecerchu beré saldu-ez-arren. Onelango gauzaac galarazo bear dituez Abade–Maisu jaunac, eta orretaraco escua emon ta lagundu bear deutse Justiciaco yaun prestuac.

Aita, bada, yai–egunetaco saltze ori gure errian sarturic dagoan gaucea da. Sarturic nai sarturic ez, Benedicto amalau–garrenac esanic ta erabaguiric dauco usadio ori deunguea dala, eta Obispo jaunac, eta Abade-Maisu jaunac usadio ori galduteco aleguinac eguin bear dituezala; eta esan oi dana usadio charrari bernea ebagui. Beste aldeti barriz urte guichiz onantzacoa da usadio ori eta oraindo erri guichitan icusten dana. Orra Bilbo ce uri andia dan, eta ezta an alango gauzaric icusten. *Aita, bada, besteac beré ori eguiten davee.* Baita besteac Infernura badoaz, zuc beré besteen atzean yoan guraco dozu. Besteacgaz naste Infernura yoan arren, etzara bada, guichiago erreco. *Baya nic saltzen ezpadeutset nigana datozanai, beste bategana yoango dira, ta ac salduco deutse.* An daveela, Cristiñauac. Besteac gaucea salduagaz batera arimea Diabruari saldu gura badeutse, ¿zuc beré saldu gura deutzazu? Ez legoque ondo esanic egüen–gurenean:

aragui au guc yaten ezpadogu, arrac yango davee; yan daigun bada. Ez legoque ondo esanic urliari diruac bestec ostuco deutzaz; ostu daiodazan bada nic. *Jauna, bada, domequetan etorri doaz baserrie - tacoac*. Eta cegaiti datoz? Zuec salduten deutzazuelaco. Alan guero eztaquiez euren Elestaraco bideac: eztoaz meza nagusitara (nagusi batera), eztavee Abadearen dotrinaric entzuten; eztira urtean bein baño confesetan. Eztaquize ondo celango calteac eguiten dozuezan yai–domequetan salduta. Nic dacusdana da aste barruan eriaren bat, edo mercaturen bat badago, an direala baserrietacoac, euren laborea edo euren ganadua artuta.

Aita, bada, nic yai–domequetan salduten ezpadot, ¿celan iraba - cico dot nire oguiu? Cer yan beré eztot nic izango. Ori ezta eguia. Balitz beré obeto litzateque pobrechu mundu onetan bici ta ceruraco aberastasunac irabaztea, ece ez emen aberats bici ezquero, Infernua icusi bearra. Baya Jgcoa aberatsa da ta bauco, bai, cer emon francu; prestua da ta baqui emoten bere leguea gordetan daquienai ori ondo bayagoque zor badeutse. Ondo bayagoque diñot, cé ascorentzat obe izango litzateque aberatsac ez izatea, euren galtzairaco izango bada-vee. Baquize barriz cer yazoco dan zuen yai–domequetaco dirua- caz? Anchina Jgcoac Miqueas Profetearen aoti Israel–tarrai esaten eutsena (c.1. v.7) *De mercede meretricis congregati sunt, et usque ad mercedem meretricis revertentur*. Deungaro irabazten dozuez zuen diruac, eta deungaro irabacien pagua eroango dave. Nondic eztaqui- zuela, ondatuco dira diru orreec. Eztira zuen lobetara, edo zuen bir- llobetara elduco. Echatzue faltaco seme, edo suiñ yocolari, edo ordiren bat; edo alaba, edo erran ondatzalleren bat, direanac urtuco dituzana; edo auciren bat, suren bat, gueishoren bat, lapurren batzuc, edo beste alangoren bat, ospitaleraco bideac zuei ta aei eracutsico deutzuezana.

Yugarren galarazoric dagoan bearra da Tribunaletaco bearra. Eta alan Juezac, Escribauac, Notarioac ecin leie, premiña edo estu aldi- ren batzuetan ezpada, ez juramenturic iñori artu, ez testigantzaric; ez sentenciaric emon; ez testamenturic eguin; ez besteric, premiña edo estu aldiren batzuetan ezpada.

Ycusiric (erechi baten bear bestean) nos dan pecatu yai–dome- quetaco bearra, dacusgun orain nos eztan pecatu bear ori. Ezta bada beti pecatu yai egunean bear eguitea. Ez evan Jgcoac guizona yai–egunarentzaco eguin, eta bai yai–eguna guizonarentzaco, ciñoian Jesucristo gure Jaunac. Onegaz ulertutera emoten deuscu

Jesus maiteac, berez yai domequetaco bearra eragotzita egon–arren, nos edo noscoan pecatu eguin bagaric bear eguin leitequeala. Pecatu eguin bagaric bada, bear eguin lelengo galduteco arriscuan dagoanean noberen, edo lagunaren bicitzea, osasuna, edo balio andico gauzaren bat; laborea, ganadua, etsea, edo aciendea. Alan noberen etsean, edo iñoenean suac artuten davenean, onciren bat galdu guraric dabilenean, euriac, arriac, chingorriac, edo alangoac, canpoan dagozan frutuac galduco dituzanean, eta alangoetan edoceinec bear eguin lei calte orreec galarazoteco.

Alan ezta pecatu carobia, edo icaztobia suagaz dagoanean, yai–domequetan bear eguita (beguiratutea), ez carobia daucanari lagundutea. Baya gauza onen ganean ascoc trampa andi bat eguin daroe. Ascoc bada, eguin daroena da, carobiari edo icaztobiari su emoteco, contuac ateraten ibili celan domequea barruan artuco davenen, edo yai bi edo iru errescan badatoz, orreec celan artuco dituezan, auzoac doaric lagundu daguioentzat, cerbait gueiago irabazteco amurrugaz. Baya, Cristiñauac, Jgcoac beguiac (zuurrac) arguiac dituz, ezteutsagu ari atzic aguin arteti sartuco. Balitz carobiari astelenean, marticenean, edo alan, su emoteco egotea; euria andiac ecarri, eta baricuraguiño, edo alan, suric ecin emotea, ori ondo; baya berariz yai egun aurreco egunetan su emotea, yaia edo yaiac barruan artutearren, ori ezta Jgcoaren aurrean igaroco dan gaucea. Baya onango bearretaraco estucuntzeac lecu emoten badau (Baya onango estucuntzeetan estuac lecu emoten badau, oba da Abade Maisuari licencia escatutea, ta guero bere bayezcoagaz bear eguin).

Modu berean mandazaiñac, eta itzaiñac yai egunac bidean artuten badituz aurrera yoan leitequez euren bidean, ta eztaque cetan galdu egunic yai–eguna gaiti. Baya contu oneec beré yai–egunean bidea asiteagaz, edo yai–eguna barruan artuteco asmuacaz asiteagaz, edo yai–egunean mandoac edo burdia biaramoneraco aparejaduagaz. Modu berean errotac yai–egunean yo leie, ori eguin ez-ic bear dan urunic izango ezpada, edo errota guichi edo changuelac dagozalaco, edo ur guichi dagoalaco; eta orretan bacoachac beguiratu bear dau bere errian cer dagoan ontzat leguez arturic. Modu berean otseinac euren erropa zarrac yai–egunean adobau leiez, ugazabac, ta ugazaba–andrac astegunetan eguiteco astiric emoten ezpadeutse: baya ugazabac, ta ugazaba–andrac asti ori emon bear leusquioe. Bigarren, pecatu eguin bagaric bear eguin lei, Obispo jaunac edo esan dogun Abade Maisuac orretaraco licencia ta ondo dalacoa emo-

ten davenean. Alan abustu demporan eguin doa itzinean, gari–ebaten edo yoten; alan etseren baten guztia, edo gueienac gaishoric dagozanean, yoan oi doaz (yoakez) yai–egunean auzoac, (aen) solo–bearrac eguitera (eguiten). Yrugarren, errian Jgcoaren bildur onecoen artean usadio artua, yaquina ta ontzat emona dagoanean yai–egunean bear eguiteco (bildur onecoen artean yaquina ta ontzat emona dagonean yai–egunean bear eguiteco usadioa), pecatu bagaric eguin lei. Orregaiti pecatu bagaric eguin leiz eguneango eche–bearrac, echea garbitu, autsac quendu, lapicoa eguin, taloa edo auts–opila eguin, ta erre ta onelangoac. Pecatu bagaric imini lequioz zaldiari bere aparejuac, iñoc edonora zaldiz yoan bear badau. Pecatu bagaric eguin lei ganadu (berarra) sarallea egun ataraco bear dana, ez biaramonecoa. Baya orregaiti beré, ecelanberé aurrengo egunean eguin albadozue, ez eguizue yaieguneraco ichi, ori ta olangoac eguitea. Baita ezta pecatu, soñean imini bear dan yaztecoari botoi bat ezartea, edo galtzai edo galtzerdiai zuloren bat artutea, edo beste alango ecezerqueria bat eguitea.

Yai–egunac gordetaco bear dan bigarren gaucea da mez–entzutea: eta mez–entzun bear da ez yai osoetan bacarric, baita beré yai–erdietan edo yai arinetan beré. Mecea bear dan leguez entzuteco iru gauza bear izaten dira: lelengoa meza osoa; bigarrena atenciñoa, ta irugarrena devociñoa. Entzuzuez bana–banacean iruroc = Lelengo bada, meza osoa entzun bear da, mezearen asierati eta azquena guiño. Baya meza osoa izateco, ezta gauza meza biren erdi bi erabatera entzutea, eta alanche dauco erabaguiric gure Elesha ama santuac, ta ez ori ez ece elitzateque asco izango meza biren erdi bi bein banaan entzutea. Entzun bear da bada, Sacerdote batec emoten daven mezea, lelengoti asi ta guztia emon artecoa. Eta ori alan ez eguitea izaten da pecatu: batzuetan mortala, eta beste batzuetan beniala, celan dan eguiten dan erracuntzea. Meza guztia noberen erruz (galduten) uts eguiten bada, edo mezaren zati andiren bat, izango da pecatu mortala, nai zati ori andia dala dempora lucecoa dalaco, nai andia dala zati nagusiren bat dalaco.

Alan pecatu mortala izango da mezaric entzun bagaric guelditutea; pecatu mortala izango da mezaric erdia, edo lauren bat galdutea; pecatu mortala izango da mezaco sagaran ez egotea, edo meza emoten davenac gueure Jauna artuten daven comuniñoa artean ez egotea. Pecatu mortala izango da meza osoa, edo mezaren zati andia erratuteco arriscuan no–beren erruz bere burua imintea. Baya erratuten dan

zattia chicarra (chiquerra) bada, pecatu beniala baño ezta izango. Eztago baya erabaguiric yaquitunen artean ceinbat bear dan erratu, pecatu mortala izateco: Batzuc diñoē epistolaric aurrera meza guztia entzuten bada, edo lenengo asiqueraric comuniñoa artu arteco guztia, eztala pecatu mortala izango. Beste batzuc evangeliara artean eztala igaroten mecea. Nire conseyyua, bada, da liburua aldatuteco (biretaco) demporara artean mezarara elduten ezpazaree beste meza bat enzute-co. Meza osoa ecin entzun davenac, baya bai mezaren zatiren bat, entzun bear dau zati ori dana dala; baya guztiz beré sagarea bada, zati ori. Orain dacusgun nortzuc gueien pecatu eguin daroen meza ez enzunagaiti.

Lelengo bada pecatu mortala eguiten davee euren naguitasunaz (naguiaz), alperqueriaz, arduraezaz, edo yoan gura ezagaiti mecea uts eguiten (galduten) daveenac. Bigarren, pecatu mortala eguiten davee euren etseco eguinenetan sarturic, mezarara yoatea bear dan baño gueiago luzatuten daveenac. Ascoc esan daroe euren artean: eh! oraindo astia dago, oraindo astia dago ta bein beré eztira maneatuten. Guero arin arinca artuten davee mantillea, capea edo balenciana, ta carradan doaz Eleishara; baya ara orduco edo mecea emon zan, edo beintzat igaro zan, ta ascotan lotsa izaten dira sartuten besteac cer esango daveenen bildurragaiti (cer esango daveen eta). Yrugarren, pecatu mortala eguiten davee mecea euren erruz galduten daveenac bideetaco yoan etorriac gaiti. Urteten davee euren erriti Bilboraco, etc. mez' entzun bagaric bertan guero entzungo daveenen adiagaz, yaquinic besteetan beré alan yoana gaiti mecea galdu daveela ta guero ara orduco ya meza guztia yoan cirean, ta meza bagaric guel-dituten dira. Guero barriz confesonarioan esan daroe: Aita bada, uste nevan elduco nintzala = ¿Cetaraco da ori esatea, badaquizu zuc ezta-la oraingoa modu orretaco bidean yoan—da mezea galdutea (galdu dozun aldía)? Pecatu mortala eguin dozu. Gueiago esango deutsut: ori yaquin ezquero pecatu mortala eguiten dozula, meza entzun bagaric alango bidea artuten dozun bacochean guero cegaiti edo agaiti entzungo bacendu beré; ceure burua mecea uts eguiteco arriscuan imini dozulaco. Beste gauza bat litzateque zuc erriti beste erri orretaraco urtengo bacendu, erraz erraz eldu ciñaitequezala (ciñaitequezan moduan), eta guero bidean cerbait yazon, edo ceuri edo lagunari larriren bat edo estamanguco iluntasunen bat eguin; edo eguraldi ase-rre² bat ecarri, edo lapurren batzuc bidera urten—da, edo alan mecea

² ez da garbi irakurtzen.

erratuco bacendu: orduan elitzateque pecatu izango. Laugarren pecatu mortala eguiten davee ango edo emengo plazara edo errunera, (mercatura) edo eriarra cerbait saldutera yoanic, anche dagozanac irabazteco amurruagaz orain yoango, guero yoango ta bein beré meza-tara yoan bagaric, guero ta guero beré mecea (galduten) uts eguiten daveela.

Ezta baya beti pecatu mez'entzun bagaric lotutea. Leen bearra-gaiti esan doguna, ostera barriro mecea gaiti esan bear dogu noberen, edo bestearen calte andi bagaric mezea enzun ecin danean, ezta pecatu mecea uts eguitea. Calte au izan leiteque arimacoa, bicitzacoa, osasunecoa, creitucoa, edo ondasunetacoa, eta dana dala bein andia izan ezquero, asco da mecea pecatu bagaric uts eguiteco. Eta alan pecatu bagaric galdu leie lelengo gaishoric oean dagozanac, edo oean egon ez arren, gaisho naste, edo (erdi macal) osasunean chachar ebilita, bildur direanac, Eleshara yoateac calte andia bere osasunean ecarrico deusela. Bigarreanean: besteric ez-da, gaisho andiagaz oean dagoanari aitu bear deusena. Yrugarreanean, ume chiquia nori ichi eztauquenac, bacarric ichiten bildur badira calteren bat etorri eztaquion. Laugarreanean, seindun direan andrac guelditu leitequez etsean bide labanac direanean, bildur badira yausita, caltea eurai edo umeai etorri lequiquiela. Bostgarreanean, nescatillaren bat edo alargunen bat bear eztan bideti (erracuntzaren bat izanda) sabel catigu bada, zabaldu eztedin bere pecatua, egon liteque etsean gorderic mez'entzun bagaric. Baya erri andietan, meza asco direan lecutetan, gosheco ilunabarrean entzun albalegui, iñoc iguerrico ezteutsan moduan, alan eguin bearco dau. Seigarreanean, aserre dabiltzanac baquean iminteco, etse(ren) edo basoren bateco sua amatetaco, frutuai suac, asheac, urioleac eguin leiquioen calteac galarazoteco, meza bagaric lotu bear bada, ezta pecatu alan eguitea. Eta berba baten edocein-beré calte andi galarazoteco bear danean, ezta pecatu mezaric ez entzutea. Baya onelango aldietan meza bagaric geldituten dirianac, echean edo beste lecutan mezaren orde z eguin bear leukez (dituez) beste obra on batzuc, edo errosarioac esan, edo beste errezu batzuc eguin edo beste gauza on batzuc, dino S. Antonino-c, modu orretan yai-eguna santututeco, ta Jaungoicoa bere egunean ondretaco. Ycusiric nortzuc meza entzun bear daven dacusgun orain celan entzun bear dan.

Eta meza ondo entzuteco bear dira leen esan deusuedazan gauza biac, atenciñoa ta devociñoa. Atenciñoa izateco, euqui bear da mez'entzuteco gogoa, eta adi egon, ta alean yaquin bear da cetan

doian Sacerdotea, eta orregaiti estavee mezaric entzuten dagozanac ordiric edo lo, edo, berbaz (dagozanac) edo batera ta bestera, bazterretara ta atetara beguira (dagozanac) ea nor datorren nor doian, nor non dagoan, celango soñecoac daucazan, eta onelangoac. Eta ain guichi entzungo davee, mezara datozañac bertan adisquide charra edo galaia icustearren, edo beragaz egotearren. ¿Noc sinistuco leuque, arpeguico beguiacaz icusico ezpagueñdu, onenbesteraguñño elduco litzatequeala Cristiñau(en) ascoren lotsa–eza (lotsa deunguea), cein da Eleshea ta meza santua artuco leuqueen euren zantarquerien estalgari ta guerizgarrizat? Baya lar beré lar icusten dan gaucea da ori. Gurasoac alabeari galarazoten badeutso urlia mutilagazco edo zaldunagazco berbetea ta egotea, edo gurasoen bildur bada alaba ori, arcal artuten davee mutilac ta bioc ordu baten mezatara yoateco, eta an dauquez arcalegazco ishil–contuchuac; edo orrenbesteraco arpeguic edo biotzic ezpadauquee, arcaleri beguiratu ta ecer–ecean leguez arcaleri siñu ta quiñuac eguin, irri barreac ta estul falsoac eguin; edo beintzat arcal icusita biotzac erretan euqui daroez. ¡O Jaingoicoaren ontasuna! Oneec bere etsean icusita, ishilic dago alanberé. Baya berari elduco yaco berba eguiteco aldia, ta onduten ezpadira onelango lotsa galduco gazteac, euren ganean icusico davee nos bait Jaunaren aserre gogorra. Onelangoac guichienez pecatu mortal bi eguiten dituez; bata mezaric entzuten eztaveelaco; bigarrena pensamentu loiac eta besteac dauqueezalaco. Eztavee mezaric entzuten umeac (chikiac) gaz mezatara doazanac, eta meza denporan eurac gaz siñuca, mosuca, laztanca ta barreca dagozanac. Umeac lagungarri charrac dira mez entzuteco. Bein doaz bategana, guero datoz atzera euracgana, batzuetan besoan egon gura davee, beste batzuetan indar eguiten davee besoric urteteco, bateric bestera ibilteco: orain barre, guero negar, gueroago deadar ta chilio: eta emacume zoroac umeari adi, aoa zabalic, adurra dariela; ez eurac mez' entzun, ez besteai entzuten ichi. Ume chikiac, Eleshara etorteco, besteri ichi bear yacoz, eta eztauquenac nori ichi, obeto eguingo leuquee mezatara ezpaletoz, leen esan dan leguez.

Mecea ondo entzuteco bear dan beste gaucea da devociñoa. Devociño au modu bitacoa da: canpoticoa edo gorputzecoa, eta arimacoa ta barruticoa, ta bietara euqui bear da devociñoa. Gorputzagaz egon bear da modu onean, meceac escatuten daven lotsa ona guztiai eracusten deusagula. Orretaraco moduric onena da evangelio bietara zutunic egotea ta ganeco guztira belaunico, eta alan dacar ecarri

beré mezataco liburu, Misala esaten deutsagunac (meza erreztatueta-raco misalac). Baya edonori–beré gorputzac orrenbesteraco lagunduten ezpadeutso, orduan egon liteque al daven ondoen, edo zati baten belaunico, ta bestean zutunic, edo yarriric. Baya ezta ondo eguinic guizoto–tzarrac aurquietan ofertorioric santusera artean eta Sacerdoteac gure Jauna artu ezquero yesarriric egotea.

Barrutico devociñoa da gogoia Jgcoaren gauz onetan euquitea, buruan darabilgula, contu daigun, Jesucristoren pasiño negargarria, edo bere yaietz gozoa, edo zeruco gloria zoragarriac, edo beste alango gauz-onen bat. Liburuan daquienac liburuan egon litequez, ta ondoena da liburuan puscachu baten egon eta beste puscachu baten iracurri danaren ganean pensetea, eta alan aldizca aldizca mez–entzutea. Baita ondo da meza artean errecetan egotea edo errosarioa esaten, edo Jesucristo mundu onetan bici izan zan ogueta ama iru urteen ondran ogueta ama iru Aita-gurea esaten, edo Santu artuai errecetan, edo alan orreec devociñoz eguiten badira: baya errecetan gagozala lasterrago gogoac beste gauza batera igues eguiten deuscu. Eta gura badozue yaquin meza devociñoz entzuteco modu errazago bat entzuzue orain liburuan eztaquizenoc beré erraz erraz eguin ciñaiqueana.

Meza santua lau zatitan eguingo dozue: lelengo zatia izango da lelengo asiqueratic credoa esan artecoa: bigarrena ofertorioric sagarara guiñocoa: irugarrena sagararic comuniño artecoa: eta laugarrena enpardua (aric eta guztia emon artecoa). Lelengo asiqueraric eta credoa esan artecoan egongo zare Jgcoa adoretan, opa deutzazue-zala orretaraco zuen eguicune on guztiac, Santu–Santa ta Aingueruenac, Ama Virginearenac, eta Jesucristo gueure Jaunarenac: baita bitarte orretan esan ciñaie credoa, eguin fedeco, esperanzaco, ta caridadeco actoac, edo beste oraciño batzuc esan, eta olangoac. Ofertorioti sagara guiño ecarrico dozuez gogora zuen bici guztian eguin dozuezan pecatuac, ez banaan banaan, ezpabere guztiac erabatera ta piloan leguez: eta ezaguturic ceinbat bider ta ceinbat alderara (modutara) Jgcoa ofendidu izan dozuen, lotsatuco zaree ain esquer deungacoac izan zareelaco, ta damuz beteric Jgcoari berari biotz biotzeric guztien parca escatuco deutzazue. Sagararic eta mez–emollean gure Jauna artu artean gogora ecarri bear dozuez Jgcoaren escuti celango mesede ederrac artu dozuezan, celan ecerbere ecetic eguin cinduezan; celan cristiñau errian sortu cinduezan, celan bere odolagaz erosi cinduezan ta besteac eta guztiac gaiti esquer andiac Jgcoari

emon bear deutzazue. Azquenengo zatia barriz emon bear dozue Jgcoari mesedeac escatuten, alan arimaracoac celan beste edocean modutacoa, beti onelangoen ganean esaten dozuela eguin dedila Jgcoaren borondatea. Modu onetan zatica zatica da errazago gogoia Jgcoaren gaucetan erabiltea eta alan eguin cinaie zuec beste modu obagoric ezpadaquize.

Baya ¡ay! eta ceinbat dagoz meza santuan devociño bagaric etseco eguinenac, lagunen contuac, euren artu-emonac eta beste milla zoraqueria gogoan dituezala! ¡Ceinbat oraindo orreec baño gauza charragoac gogoan dituezala! Onelangoac bada euren guraz alangoetan badagoz, aleguinic eguin bagaric orreec gauzoc buruti botetaco, eztavee gauza dan mezaric entzuten, eta alango meceagaz yaiegunean gueldituta, pecatu mortala eguiten davee. Baya aleguinac eguiten dituezanac alango erabaaco pensamentu, mezataraco eztireanac burutic, asmau orduco, botetaco, meza ona entzuten davee, mezaric zati baten edo mezaric gueienez beré cetan dagozan eztaquiela gogoaz bestera egon arren. Onelango pensamentu gogai-carriac ez etortea eztago gueure escuan, eta guc gura eztozula bere etorri oi yoacuz. Jgcoac, bada, besteric aguinduten ezteuscu, ezpada gueugan dagoana eguiteco (eguin daigula) orreec iguerri ta laster buruti botetaco. Baya orretaraco ezta ondo ascoc eguin daroen leguez mecea asi artean eleshepean berbetan egotea. ¿Celan guero etorrico ez yaquez orduco contuac burura? Aurretiaz devociñoa izateco bideac artu bear dira: mecea baño leen eleshan sartu, ta ur bedeinca tua artu ezquero, alango burutaciño alper utsai ta eroai lecuric ez emon, eta mecea sartu artean egon ciñaitequece edo concienciaco esamina guintzaan (eguiten) edo altarac bisitetan (eguiten o icusten) edo alangoetan.

Ay Cristiñauac baguenqui ondo cer dan meza santua, ez yaiegunetan atenciñoz ta devociñoz entzun ez ece, baita beré astegunetan beré beti ibilico guintquez aleguinac eguiten nondi nora mezea icusico dogun. ¿Cer derichazue dala meza santua? Ezta mezea ez guizonen batec asmau daven oraciñoen bat, ezta Santu Santaren batec imini izan daven gauzaren bat, da bai Jesucristoc berberac Jaungoico ta guizon eguiacoz bere Elesheari emon deutsan gauza bat, ta guc cer dan ez esan ta ez ezagutu ecin gueinquena. Da Jaun onec bere azquenengo afarian eguin cituzan mirariric andienac eta miragarrienac barrieztetea. Da Jesucristoren eriotza balio andicoa Jaungoicoaren ondric andienaraco, ta gure oneraco odolic bota bagaric barrero eguitea. ¿Celango devociñoagaz egongo cineen, egon bacine

Apostoluen artean Jesucristoc azquenengo afarian oguia bere escuetan artu, bedecatu, consagradu ta apostoluari emon eutsenean? ¿Celango biotzeco biguntasun ta samurtasunagaz egongo etzineen Calvario—co mendian icusi bacendue Jesucristo gueure Jauna curutze baten untze gogorraz yosten, ta curutzean esqueguiric min—al gogor eta icaragarrien artean ilten? Bada Cristiñauac, beguiacaz ez dacusgu, baya Fedec eracusten deuscu meza santuan azquenengo afarian legueche Jesucristo guere Jauna bene benetan iminten dala. Fedec eracusten deuscu Jesucristo gure Jauna barrien barri opetziten yacola bere Aitari gueure pecatuen parcaciñoraco, ta gu guztioen oneraco. Alan bada, nere cristiñauac, eguizue aleguina Elesharic paraje bici zarenoc egunean egunean zuen mezachua atenciñoz ta devociñoz icusteco, eta Elesharic urrun ta asago zagocenoc zuen etsean, edo zuen cer eguin artean contu eguizue mez—entzuten zagocela ta orduan al dozuen ondoen esaizuez meza arteco oraciñoac.

Eta ezteutsazue asco erechi bear yai-egunean meza bacar bateri entzutea, ta azaz ganeti beste gauza on batzuc bear dozuez celangoac direan meza nagusitara zuen Eleshara yoatea, doctrinea entzutea, errosarioa esatea, altarac eguitea eta onelangoac.

Ara bada celan eguingo dozuen. Domeca baten Aita familiagaz batera meza nagusitara, eta Ama, bear bada seme—alabaren bategaz, edo otseinagaz, gosheco mecea entzun—da, etsea yagoten guelditu daiteala. Urrengo domecan Aita gosheco mezara, ta Ama seme—alabacaz meza nagusitara. Baya ez iñolaz beré etsean ichi seme alabaric edo otseinic bacarric, bada alango orduac ordu asetuac izan oi dira laborea camaratic ateretaco, lagun charragaz egoteco eta bear eztana eguiteco; eta zuen seme—alabac edo otseinac onac izan arren eztira orregaitic bacarric ichi bear: gazteac dira (ta gazteac asco esan gura dau) eta eztira errietan falta izaten gazteac orretan iminten daguiezana. Arratsaldean Elesha ingurucoac Eleshara, besperac badagoz entzutera, errosario esatera, crutze—bideac ibiltera. Ergoienetacoac, auzo batzuc batu ermitaren baten, urrean badago, edo ezpaberé etseren baten, edo atarte baten; eta an errosarioa esan, guero liburu on baten iracurri; ta eztaquienac, ordu erdichu leiduten icasten emon leguie, nescatillac nescatilla daquien bategaz, eta mutilac mutilen bategaz. Alan eguin dave erri ascotan, eta oguei urteacaz beré ascoc icasi dave: eta au arimearen on andiraco izan doa. Guero gazteac, mutilac mutiletara, nescatillac nescatilleetara, solaztu ta divertidu zaitece. Mutilac pelotan, boloca, edo beste yoco on baten; nescatillac

beré edo carta yoco on baten, edo zuen artean dantzan eguin gura badozue, eguizue, ondo, ondo—ondo icerditu artean. Iluntzean barriz guztiac etsera. Guizonac barriz zuec beré cetan atan divertidu zaitece, eta tabernara gura badozue, eta edanean igaroten ezpadozue, zoace zuen cuartilluchua adisqueideacaz ezarten; gau—erortean barriz zuec beré echera; anche erloju lauren tercioan doctrina puscachubat itandu; edonoc echean badaqui liburu on baten iracurri ta guero afalduta baque baquean oira. Confesetara beré domeca baten batzuc, bestean beste batzuc, bestean beste batzuc, alan zatituco zare. Aushe da domecac santututeco modua.

Baya ¡ay, nere Cristiñauac! ¿cer yazoten da gaurco egunean? Eztirudi gaurco egunean yai—domecac direala pecatu eguiteco egunac baño. Yai—egunetan izan bearco dira ordiqueriac, yai—egunetan errieltac ta aserreac, yai—egunetan yolasac, dantzac eta fiestac, eta euretan berba zantarrac, escuca loiac, sasquelqueria guztiac. Orche etorrigo N. Santuaren eguna, orishe arturic daucazue zuen patroí andi ta Jaungoicoaren aurrean zuen bitartecotzat. Bada orduan izango dira iñoz baño pecatu gueiago ta andiangoac. Guero ¿celan gura dozue Santu andi onec beguiratu daguizuen? ¿Celan gura dozue Jgcoac mesedeac eguin daizuezan? Ara cer cirautsen anchina Jaunac Israel—tarrai Ysaias Profetearen aotic: “ecin icusi dodaz zuen yaiegunac; gaistoac dira zuen batzarrac; guztizco gorroto gogor bat deutset zuen yaiai: ta guztiz gogai—carriac dira niretzat, ta asco icusi eraguiten deuste, eurac eroan ecinic”. Gogaitcarriac dira, bai, Jaungoicoarentzaco guere yai—egunac, eta asco eracusten deusagu egun aetaco pecatuacaz. Baya bildur izan bear gara Jaunaren aserrea gure ganera, Judeguen ganera leguez, etorrigo yacula. Echacuz faltaco labore falta, gosetea, eguraldi ta azaro charrac, gaishoac, guerrac, nequeac ta eriotza gaistoac. Baita au ezta deungueena, beste aldeco contuac dira conturic oquerrenac. ¡Ay ceinbat dagozan infernuetan erretan yai—egunetaco pecatuac gaiti!

Orregaitic neure biotz guztiric escatuten deutset Justiciaco Jaun prestuai, arren galdu daguezala errico fiestaac. Gauetaco suac galduteco eztau Alcate Jaunac inoren bearriac. Besteac galduteco guztiac alcar artu, eta bein betico galdu eguizuez. Eta ¡ay! zuce aldozuela, galduten ezpadozuez, zuen ganera etorrigo dira alango egunetan eguiten direan pecatu ta nasaiqueria guztiac; eta guztien contu larría artuco deusue Jgoico Juez gogorrac. Eta siserua quexetan bada calteac dituzalata, guizon aituen escuetan imini, eta aec igarri daguienac

abonadu; eta urrengoan errematac eguitorduan, ori aurreti imini, erriac galduco dituzala fiestac. Gauza lotsagarria da beintzat, erriac siseruen aguindupean egotea (egon bearra), eta lotsa apur bat baceunque eztaquit nic orreri ondo erechico baceunsqioe. Baya diru apur bat gueiago irabaci gureac guztia aztu eraguiten dau, lotsea, Jaungoicoaren bildurra.

FRAY MATEO DE ZABALA

8. LAUGARREN MANDAMENTUAREN GANECO ICAS-BIDEA

Filii tibi sunt? erudi illos... a pueritia illorum. Eccl. cap.7 v.25.

(B, 37 - 40. or.)

1. Jaungoicoaren legueco laugarren mandamentuac aguinduten deutse gurasoai euren semeen ardurea. Lau dira aguindu santu onec gurasoai iminten deutsezan obligaciño ta eguin bearrac. Mantenmentua, castigua, icas-bide edo doctrinea, eta exemplu ona. Lenengo emon bear deutse bicitzea iragoiteco bear dabeena; zaindu beré bear dituez bicitza, osasuna, edo gorputzeco alderen bat galdu ce daien; eta alan eguingo dabe pecatu mortala gurasoac euren erruz umeac ilten badira, escu, oiñ, begui edo gorputzeco beste parteren bat galzen badabe; gueshoric dagozanean aleguina eguiten ezpadabe osatuteco, emoten deutseezala osasun-guei edo medicinac. Ez bacarric dauque gurasoac obligaciño estua mantenietaco euren bician (bici direan arte), baita beré emon bear deutse bici-moduren bat gueroco, iracasten deutseela oficioeren bat, edo artuten dabeela beste moduren bat, euqui daien guero cegaz oguia irabaci bicitzea igaroiteco bear dabeena. Emetic ezagutuco dabe, celango pecatu andiac eguiten dituezan araco gurasoac dauqueena eta euqui al daien guztia gastetan dabeenac auçi edo querella deungacaz, ordiqueria, yoco eta beste ecandu citaletan, euren semeai bear leuqueanic ichi bagaric, eta oficio edo bearguintzaren bat emoiteco arduraric artu bagaric. ¿Cer eguingo dabee guero seme oneec, araco gose direanean, cer yan eztauquela, eta celan irabaci eztaquiela? Ostu, quendu, engañadu, eta lapurretan ibili. ¿Nondic dator aimbeste Jaungoicoagarrenco [sic], edo esqueco erriric erri, ta erromeriaric erromeriarã ibiltea, eta ascotan mutil eta nescatilla bear eguin leiqueanac? Emon baleutse gurasoac oficioeren bat chiquichu cirean artean alperric ibilten ichi bagaric, edo topau izan baleutse ugazaben bat, edo cetan atan bear eguiten iracatsi baleutse, ez litzatequez icusico aimbeste lapur mendi eta bide orreetan, ez litzatequez aurquituco ain galduric, erri, uri eta

Errepublicac, ezta ez litzatequez icusico aimbeste bagamundu eta alper. Ycusi daizuezanen ceüen lotsagarri egunic, orduanche eza-gutuco dozue zuen itzumendia ta erracuntzea.

2. Gurasoac dauquen bigarren obligaciñoa da castigua, edo (correcciñoa) lotsea emoitea, au da castigadu bear dituez berba loi edo deungaren batzuc esaten badituez, eguiquera edo obra charrac eguiten badituez, gueistoqueria, oquerqueria, edo pecaturen batzuetan ibili gura dabeenean; eta alan eguiten dabe pecatu mortala gurasoac ichiten badeutse umeai nai dabeen guztiagaz urteiten eurai deustsen ondogura larreguiagaitic. Au ezta, neure Cristiñaiac, semeai ondo gura izaitea, cé Espiritu Santuac dinoandi, semea maite dabenac castiguetan dau (a.) eta castiguetan eztabenac agui da ezteutsala ondo gura. (b.) Castigu au umechu direanetic asi bear da. Ay Aita, esango deust norbaistec, oraindio gazteac dira nire umeac, eztaquie cer eguiten dabeen beré; edadeac ecarrico dituz; oraindocoarren biguneguiac dira castiguraco. ¡Ah zorigogorreco gurasoac! diño S. Juan Crisostomo-c, ¿gazteac dira zuen umeac castiguraco? Eztira bada gazteac Adan-en pecatuan sortuac direala adi-erazoteco, euren biotzeco gorrotoa eracusteco, beguiracune oquerrac eguiteco (cearretara beguiratuteco), escuetan dauquena yaurteguiteco, lurraren contra osticoca eguiteco, eta bear bada escuac zuen contra ereguiteco; ichi eguioezue castigu bagaric aci dedin (ditezan), eta icusico dozue guero celan ecandu citel orreec indarra artu ezquero, quendu ecingo dozuezan: arbola bat yaio barri edo gazte danean erraz da sustrai ta guzti ataraten; baya aci eta gogortuten bada, eztozuez bere sustraiac ateraco; ausico dozue, baya anche gueratuco da sustrai edo erro bat baño ezpada beré. Alanche da bada umeacaz beré (yazoten da): ceüen seme-alabachuen ecandu deungaac icusten direanean bertatic castiguetan badira, erraz da sustrai bigunac quentzea; baya bein aci eta gogorguten badira eztozuez ataraco; alperric yoco dozuez, alperric bana-bana eguingo dozuez, ce eztozue ataraco an dagoan sustraia: bada Espiritu Santuac diño ce, zaldi eciba'coac, gogorrac urteiten dabena leguez, alanche gogorrac urteiten dabela beré, castiguba'co semeac (...)¹. Ychi eguioezue nai dabenagaz urteiten gazteac direalacoan, eguioezuez gura dituezan gustuac, erabili eguizuez atzen puntan ganean, ez eguioezue ucatu nai daven guraariric, palagadu eguizuez; eta guero icusico dozue celan izango direan ceuben borreru (cruelac) gogorrac. Ichi eioezue beré ibilten danza ta fiestetatic, yoa-

¹ Ez du aipamena osatzen.

ten erromeria ta beste ibilte nastecoetara chiquerrac direalata; eta guero icusico dozue... Baya cer diñot? Etorrico da egunen bat, ceinetan icusico zareen Jaungoicoaren tribunalaren aurrean, eta non emon bearco dozuen ceuen seme-alabac, zuec ez castigauagaitic, eta licencia (escu gueiegui) emonagaitic eguin dituezan pecatuen contu.

3. Irugarren gurasoen obligaciñoa da doctrinea; au da, eracutzi bear deutse euren seme alabai doctrinea, eta Jaungoicoaren legue santua, eta au aimbat umechutatic; bada errazoera eldu, edo ezauquera apur bat euqui daieneraco eguin bear dituez fede, esperanza ta caridadeco acto ta eguitecoac, eta eguiten ezpadituez ez yaquinagaitic, gurasoena izango da erru guztia. Iracatsi bear deutseez ondo adierazoric *Ave-Maria*, *Aita-gurea*, eta beste oraciño Eleshacoac, *Credoa*, amar mandamentuac, zazpi Sacramentu santuac, eta ceñatuten debociño andi bategaz, cé curutze santea da Demoniñoaren tentaciñoen contra gordegarrri, edo escudoric sendoena, ta au guzti au iracatsi bear deutse berbetan asi ditezanetic, modu onetan euren biotzeetan aci dedin aimbat lasterren Jaungoicoaren ezaüera ta bildur santua, Demoniñoac pecatuaren acia erein (daian) baño leenago. Baya celan iracatsico deutse guraso asco ta ascoc, eurac ezpadaquie? Euretaric gueienac ezpadaquie celan eguin, edo cer dan fede, esperanza ta caridadezco actoac eguitea, ezpadaquie cer esan gura daben *Santuen comuniñoac*, araguiaren biztuereac edo erresurreciñoac, seculaco bicitzeac eta beste onelango misterio edo gauza yaquin bearrac? Celan iracatzico deutse euren umechui? ¡Ay, ce falta andia dagoan doctrinarena! Bada ceimbat seme alaba dagoz zazpi, zortzi eta amar urte ta gueiagocoac encarnaciñoco misterioa eztaquienac eta cer esan gura dan, edo berean cer adietan emoitzen dan eztaquienac; J.C°. nor dan eztaquienac; berac ceimbat persona dituzan eztaquienac; eta benturaz benturaz ceñatuten beré bear dana leguez eztaquienac? Onelangoen gurasoai esaten bayaque ea cetaraco eztauquen ardura gueiago euren umeacaz, bertatic erantzuten dabe, oraindocoarren gazteac direala orreec icasteco. ¡O guraso galduac! ¡o guraso zorigorrecoac! Eztauquela diñozue zuen umeac doctrinea yaquiteco edaderic? Euquico dabe, bada, oquerqueria, muquerqueria, gues-taqueria eta beste gauza deungueetaraco; eztabe yaquingo ondo *Aita gurea* ta *Ave Maria*, eta guztiz egongo dira aurretuac lotsaba'co eta loiqueriazco berbaac esateco; dei eguingo deutse diabruari ta demoniñoari eta eztituez yaquingo Jesus eta Maria-ren icen gozoac; botaco dituez añen(ac), birao(ac), ta maldiciñoac, baita eztabe yaquingo

ceimbat Jaungoico dagozan, ez J.C^o. nor dan, ezta ceimbat persona daucazan beré; cantaduco dituez canta zoro gangar eta loiac, ceintzuc idiguiten deutsezan beguiac pecaturaco, eta diñozue eztaquela demporaric doctrinea yaquiteco? ¡Ah guraso gogorrac! Edo obeto esatearren borrareru cruelac! Cer izango direala derichazue biar edo etsi seme-alaba orreec? Ceüen deshonoragarria (lotsagarria), ceuen biotzeco naibaguea, eta zuen condenagarria, diño Espiritu Santuac.

4. Laugarren obligaciñoa da exemplu ona: au da, ez bacarric berbacaz, baita obra edo eguiqueracaz (eguiteacaz) beré eracutsi bear deutse ceruco bidea, eta alan eguingo dabe pecatu mortala euren umeen aurrean eguiten badabe pecatu erazo al leioen gauzaren bat; emetic ezagutuco dabe ce pecatu icaragarriac eguiten dituezan, araco gurasoac euren semeen aurrean berba loi eta arinac esaten dituezanac, eta matrimoniñoeco gauzaac euren seme-alabac bere oian edo guela atan euquiric eguiten dituezanac. ¡Ah ceimbat descuidu (uts-eguite) dagoan onetan! Ezarten dituez guraso batzuc eurecaz naste oe baten bost, sei eta zazpi urteco seme alabac; beste batzuc euracaz batera ez izan arren iminten dituez bost, sei eta zazpi urteco nebarrebac oe baten nastauric. ¡Aguraso gogorrac! Ah adugaistoco gurasoac! Eta ce ordu tristearen beguira zagocen! ¿Eztaquizue ceuen seme alabac dagozala ascotan zelata, eta zuec cer eguiten dozuen beguira, guero eurac beré alcarren artean, nebarrebac izan arren alan eguiteco? Norbaistec esango deust: Aita, ori alan da, baya familia andia daucat nic eta echeac eztauco disposiciñoric (moduric) guela apartecoetan seme-alabac iminteco. ¡A guraso gaistoa! Etzara zu bacarric ori esaten dozuna; ce asco ta asco datoz confesonariora olango achaquia ta quesheagaz. Baya esan eguidazu: ¿Cegaitic zoaz, bada, olango eche-bicitza estuetara, acomodauco ezpadozuz ceure seme alabac Jaungoicoac aguietan daben moduan? Edo ¿cegaitic erregututen ezteusazue ceüen ugazaba, edo echeen yaubeai, ol batzucac baño ezpada beré eguin daiola echeari errepartiñoren bat (guela bat edo beste)? ¡Ay Aita! Ba'qui nire ugezabac ceimbat seme-alaba daucazan, eta ceimbat guela daucazan beré, ni bici nasan echeac; baya yaquin ta esan arren eztau lauziri[c] beré gastau gura. Sinistuten deustuet batzuei. Diñot batzuei, ce ba'quit nic ugezabac batzuc beguiratuten dabela, eta gueitu (eguin) deutsezana guelac. Baya zuetarico ascoc familiarentzat eguinico guela onetan iminten dozuez, ordura artean beste lecutan euquiten izan dozuezan traste eta laboreac, gueiago beguiraturic ceüen ondasunai, familia bear

dan moduan acomodeteari baño. Ba'quit beste ugazaba ascoc, erren-tea cobretan badabe cé, eztabeela beguiratuco euren etseetan eguiten direan loiqueria eta maldadeetara (oquerquerietara), erreparticiñoric (guela moduric) etseac eztauquelaco, iminiric achaquiatzat, eurac eztauquela obligaciñoric galarazoteco besteen pecatua. Baya yaquin beguie onelan pensetan dabeen ugazabac ce, ecin artu leiela euren errentadoretzat, echeac daucan disposiciñoa bashen gueiago bada errentadoreen familia. Eta alan erregututen deuntsuet neure biotz guztitic zuei ugezaba eta echeac daucazuenoi arren beguiratu dagui-zuela celan dagozan zuen errentadoreen guela ta oiac; eta ezpadagoz familia bear dan moduan acomodetaco decenciagaz, artu daguizue-zala medioren batzuc, ol batzucaz baño ezpada beré guelachuren batzuc gueiago eguiteco; bada lastimaric andienagaz icusten dira etseen batzuetan bost, sei eta zazpi urteco neba-arrebac oe, ta guela baten nastauric, eta emetic ba'quigu larregui beré cer yazoten dan.

5. Oneshen ganean beré eguiten dabe pecatu araco guraso, taber-naan egun guztian egon ezquero edo bai Onretatic ordiric echera doazanac, euren ordiqueria umeac dacusela: birao, maldiciño, demoniño eta añenac eurac dantzuela botaten dituezanac, eta eurac daquielatrapa, engañu, lapurqueria eta yocoetan dabiltzazanac. Engañaduric dagoz gurasoric gueienac, usteric, cumpliduten dabeela euren bear edo obligaciñoagaz, iracatsiric umeai doctrina pusca bat garizuman chanteleen bildurra-gaitic, errosario bat arrastaca, erdi loo, eta debociño bagaric euracaz batera errezaüagaz; gauza deungaren bat eguiten dabeenean deadar bat eguin, edo zapladacoren bat emonagaz, baya exemplu charra ichi bagaric. Esan eguidazue, neure Cristiñaiac, ¿cer izango da semea, bere gurasoen aotic ezpadanzu ezpada demoniñoa, diabrua, añeniñoa, biraoa, maldiciñoa, eta juramentua? ¿Cer icasico dau ezpadanzu echean Jaungoicoaren icen santua blasfemetea (osticopean lurrean erabiltea) baño? ¿Celan urtengo eztau ordiac, ordiric badacus gueienetan bere gurasoac? ¿Celan izango ezta alperra, lapurra, tramposoa, yocolaria, gach guzti oneec badacusaz eche barruan? ¿Cer icasico dabe araco seme-alaba, eta oguitucoac, euren guraso ta ugazabac urteric urtera baño confesetan ezpada, eta orduan beré chantelen bildurragaitic, eta Jaungoicoaren gau-cetaraco beti atzera badagoz? Berba baten esango dot: celangoac zuec, alangoac zuen semeac. Guero araco zartzarora eldu zaitezenean, eta atsacabez edo pesadumbrez bete zaiecenean, esaten oi dozue negarretan urturic, esquer-deungacoac urten dabeela zuen umeac,

eztituezala ezagutu gura, eurac'aitic igaro dituezan nequeac, lanac, icerdi eta esturaac, eta azquenean ceüen qesha (garratzac ta) mingotzac acabaduteco esango dozu: ¡Ay ce seme gueisto, gogor ta esquer-galducoac emon deustazan Jaungoicoac! Baya au guzurra da, ce Jaun andi onec guizon guztiac eguin cituzan artezac ta onac: zuec, zuec, emonic eurai libertadea, gura dabeen dantza, fiesta ta lecu ta basterretatic ibilteco, eta ceüen exemplu deungueagaz, zuec galdu dozuez. Ondo aci bacenduez etzirean izango zuen borreru gogorrac. S. Paulo-c dirauscu bacocharac ereiten dabena artuten dabela: eta zuec dacutsuena da, artoa ereiten dan soloan eztala gariric artuten. Erein bacendue umeen biotzeco lurrean exemplu onaren acia, virtute ta santidadearen lora ederra eta frutu gozoa artuco cenduen; baya erein badozue eguiguera deunga eta pecatuaren exemplu deunguea ¿cer icharon cinaique esquer-deunguearen, eta gogortasunaren sasiac, arrac eta arantzac zuen biotza atsacabez betetaco baño?

6. Lau bear edo obligaciño onec beteco balituez (oneei erantzungo baleutse) gurasoac, ez litzatequez icusico aimbeste pecatu mundu zabalean; guztia izango litzateque baquea, guztia caridadea, guztia santidadea. Baya norbaistec esango deust: ¡Ay Aita! sarri ta sarri yazo oi da seme ondo aci aciac charrac urteitea. Ezeiquedazu onelango gauzaric esan, dira[u]tsu S. Juan Crisostomo-c. Guizona ezta berez gaistoa: deungaac bagara norberen guraz gara; borondateac ta gura izaiteac bacocharen ecanduai ta artu cituzan costumbreai yarraituten deutso; gurasoac barriz umeen borondatea ecandu ta eguin leie gauza onetara ardura (guichigaz) equiagaz. Ondasunac eurentzat batuteco gaña ardura, iminico bacendue ondo eurac azteco, dudatzaga izango litzatequez onac; baya euren gorputzac (nombait) ondo iminteco neque ta lan andiac iragoten dozuezan artean daucazuez aitzuric euren arimaac. Eztago gurasoentzat solo, eche, ez ondasun obeagoric umeen arimaac baño, eta alan eztabe ecetan beré ifini bear ardura andiagoric, euretan dagoan graciaco ondasuna yagotean baño, cein infernuco lapurrac ostu daguian. Ardura au eztauqueen gurasoac dira ascozaz gogorrangoac eta cruelagoac, eurac ilten dituezanac bashen. Eta alan yaquin eguizue cé pecatu andiagoa ta esquergueagoa eguiten dozuela semeac deungaro azten dituezanecan [sic], ezpata bategaz biotza erdebituco baceuntse baño: bada orduan gorputza bacarric ilgo ceunskuioe, barriz aciquera deungueagaz gorputz ta ari-me botaten dozuez betico infernura.

7. Eta ¿ce castigu merecidu dozue pecatu onegaitic? Heli Israelgo Sacerdote andiac, bere semeen pecatua castigadu ez ebalaco, galdu cituzan semeac, galdu eban bicitzea, galdu eban abedetasun edo Sacerdotetasuna; ta ez bacarric beretzaco, baita bere seme, lloba ta ondorengo guztientzaco beré. Ez eucan aushe baño beste pecaturic, santu bat zan ganecoan, ce ardura guztizco bategaz eguiten eban bere oficioari etorquion guztia. ¿Cegaitic derichazue etorri yacazala aimbeste gach David Erregueari, bere semea bere contra yaiguitea, uritic campora oñez iguesi urten bearra, ta aimbeste negar, cispuru eta guerra? Bere seme Ammonec eguin eban pecatua castigadu ez ebalaco. Baita ¿derichazue castigu bagaric ichico dituzala Jaungoicoac zuen semeen aciqueran eguiten dozuezan pecatuac? Ezetz diño, neure Cristiñaiiac, S. Juan Crisostomo-c. Seme edo alabac ilten bayatzuez, ondasun eta aciendac galduten bayatzuez, gacha eta gueshoa bada-torquize, edo beste calteric badacutsue, pecatu onen castigu izan doa gueienetan. Eta ushela mundu onetan izango balitz castigu au; baya bildur nas cein infernura yausi zaitezcan betico ceüen seme-alaba deungaro aciacaz batera. Aci eguizuez bada, neure Cristiñaiiac, zuen seme-alaboc S. Paulo Apostoluac diñoana leguez Jaungoicoaren bildur santu ta amodioan eta castigadu eguizuez bear danean, ce Espiritu Santuac diñoandi, euren gorputzac necatuagaz euren ari-maac libraduco dozuez infernutic.

FRAY MATEO DE ZABALA

9. DOCTRINA DE LOS PADRES DE FAMILIA

Educate (filios vestros) in disciplina et correptione Domini. Efes. 6. v. 5.

Aci eguizuez ceuon umeac Ygcoaren leguean eta lotsa onean.

(J, 63-71. or.)

Jaungoicoaren legueco laugarren aguinduan sartuten da gurasoen umeac ganaco ardurea. Eguia da Yaunac onen ganeco (aguindu onetan) berba arguiric eguin ez evala, baya yaquitunac diño ece, ori izan zala ain yaquinac direalaco gurasoen eguin-berrac ece, buru charreco abere mutuac, eta pistia zantarrac beré orreec ezagutu eta eguin eguiten dituez. Baya agindu onetan Jgoicoac ecer arguiro aitatu ezpeevan beré, Escritura santuco maquina bat lecutan gurásoai umeen acieraren ganean berba eguin deutse. Contu lucea izango liteque orain ceuei orrec guztioac banaan banaan esan berra: guero aldian bat, aldian bat, ereac daczan leguez esango deutsuedaz onetarico batzuc. Asco izango da bein esatea San Paulo-ren bitartez dirautsena: “aci eguizuez zeuen umeac Ygcoaren leguean ta lotsa onean.

Iru direala diño S. Antonino Florencia-coac gurasoac umeai zor deutseezan gauzaac, eta dira amodioa, euren oguia, eta aci-bide ona. Lelengo bada gurasoac laztan izan bear dituez euren umeac, eta pecatu au gurasoric gueienac eguin daroe: larregui ascoc gura ezpaleutsee: izaten dira orregaiti beré guraso banacaac, sayac leguez, euren umeacaz, eurenac ezipalitzez leguez gogortuten direanac, eta onelangoac gaiti esan bear dot nos pecatu eguiten daveen. Pecatu eguiten dave bada gurasoac 1º. gura badave euren umea il daquioen artuchu bici direalaco eta cer emon andiric eztauqueelaco. 2º. Pecatu mortala eguiten dave ama seindunac, eguiten badave sabeleco seinchua galduteco (gastetaco) izan leitequean gauzaric, celangoac direan aserre andiac (gogorrac) izatea, pisu andiac (astunac) buru-ganean artutea, bateric bestera saltu andiac (luceac) eguitea eta onelangoac. 3º. Eta oraindo pecatu icaragarriagoa eguin daroe nescatilla seindunac (izorrac) euren pecatua aguertau eztedin, aleguinac eguiten ditueza-

nac seinchua galduteco edo ilteco. Iya biziric dagoan seiña aleguinacaz galdutea da pecatu icaragarrizco esqurera bat, ceinen contra Elesha Ama Santuac descomuniñoa eta beste castigu bildurgarrizcoac iminiric daucazan. 4º. Pecatu mortala eguin daroe seinchu galdua edo gastaua bateatu bagaric, yaquinen ganera, artuta uretara botetan daveenac, edo lurpean sartuten daveenac.

¡Ay, cristiñau maiteac! negar eguitecoa da onen ganean ascotan baño gueiagotan yazo oi dana. Entzuzue, arren, alango aldietan cer eguin bear dan, bada au ez yaquinagaiti Ygcoac daqui ceinbat arima eder gueldituten direan bere arpegui gozoa icusi bagaric. Galdu dan seinchua bere formeagaz badator, eta ustelic ezpadago, bateatu bear da, baita ilaren echureagaz eta eceri eraguiten ezteutsala baletor bere. Azalaren (sacuto, mintzaren) barruan badator, orduan contuz contuz azalchuari idigui (eten) bat egin bear yaco edo artaciacaz, edo atzazalacaz, eta barruan dagoanari ura eguiten yaco, esanagaz batera (biciric dagoala aguiri bayaco, ura eguiten yacanean esan bear da): “nic bateatuten zaitudaz Aitearen eta Semearen eta Espiritu Santuaren icenean”. Eta contu, Cristiñauac, lelengo berbacz; *nic bateatuten zaitudaz* esan bear da, eta ez ainbagaric *Aitare* etc. Eta biciric dagoala aguiri ezpadau, eta ustelduric ezpadago, esan bear da *biciric bazagoz nic bateatuten* etc. Baita orrenbestegaz guero aren arimachua cerura yoango da ume ori ilic ezpegoan. Eta ez esan iru astecoa zala, amabost egunecoa zala: dana dala alanchec eguin bear da, ece batec eztaqui nosgarren denporan biztuten dan seinchua, eta alan eguinagaz ezta ecer galduten, eta bear bada ez eguinagaiti aren arime bein betico linbora galduten da.

5. Pecatu eguiten dave gurasoac umeren bat eurac aci ezpadave, ari besteai bashen legue guichiago eracusten deutenac. 6. Pecatu eguiten dabe gurasoac umea eurac gura ez evenagaz ezcondu dalaco, beragaz tratau gura eztaveenac, eta ichiten ezteutsenac eurenear sartuten: edo umeagaz eguin arren, suiñagaz, edo erranagaz eguin gura eztaveenac. 7. Eta azquenean pecatu eguin daroe gurasoac umeai larregui gura deutseelaco guztia parquetan deutseenac, eta gura dituezan mizqueria guztia eguiten deutseezanac, bada alan eguinda umeac deungaac, eta lotsa galducoac urten bearco dave. Onelango gurasoac gaiti diño Jaungoicoac: “Zartea geldi daucan gurasoac gorroto deutso bere umeai.”

II. Gurasoac umeai zor deutseen bigarren gaucea da euren oguia: esan gura da emon bear deutseela euren bicitzea igaroteco bear dave-

en guztia, yan-edana, soña ta oña, bicilecua, etza-lecua: yagon beré bear dituez galdu eztaguien bicitzea, osasuna, edo gorputzeco alde-
ren bat. Onen ganean diño S. Paulo-c: Ezta umeena gurasoentzat ondasunac batutea, eta bai gurasoena umeentzat ori eguitea. Eta
1. Gauza onen contra pecatu eguiten dave gurasoac arpel-onci egui-
nic bici direanac, bapere (bear dan) bearric eguin gura eztaveela,
euren buruentzat eta umeentzat oguia irabazteco. 2. Pecatu eguin
daroe dauqueena eta eztauqueena tabernan, yocoan, yan-edanetan,
aucitan eta zoraquerietan ondatuten daveenac, euren umeac guero
ortozic, erdi billosic, arlote eguinic, eta goseac ilic darabildezala.
3. Pecatu mortala eguin daroe araco guraso cequen escu-eutsiac emo-
ten ezteutseenac umeai bear dan leguez yanzteco, alci eguinic dara-
bildezala, eta yan bere eguingo ezpaleve guraco leuqueela.

4. Pecatu mortala eguin daroe gurasoac euren umeai ucatuten
badeutsee, edo luzatuten badeutsee emotea orren bearrean dagozala
senipartea, legitimea, dotea, edo yatorqueena umeac gurasoen gogo-
co eztanagaz edo gurasoac gura ez evenagaz ezcondu cirealaco.
5. Pecatu mortala eguin daroe gurasoac euren ardura-ezagaiti galdu-
ten badave umeac beguia, besoa, caderea edo alangoren bat, edo
euren erruz ume orrec gueishotuten bayaquez, edo gueishoric dago-
zanean Medicuari edo oficialeari dei-eguiten ezpadeutse edo emoten
ezpadeutseez osatuteco bear direan gauzaac, edo euren erruz, dan
leguez dala, ilten bayaqueez. Contuz ibili bear dave bada bularreco
umechu chiquiac euracaz nastean eratzoten dituezan gurasoac, bada
itoten badituez edo ilteco bidean paretan badira pecatu mortala
eguingo dave. Orregaiti diño Erroma-co doctriña liburuac ece, ez
leuqueela gurasoac euracaz eratzo bear alango sein titicoric, eta iños
eguingo badabe imini bear leuquee bitartean almoadaren bat, edo
erropa moltsoren bat alangoric yazo ce dedin.

Ez bacarric emon bear deutsee gurasoac umeai bicitzea igaroteco
bear daveena euren aguindupean ta euren ardurara dauqueezan arte-
an eta umeac euren oguiaren yaube izan (eztirean) artean, baya emon
beré bear deutsee gueroco oguia irabazteco edo izateco moduren bat,
edo cetan edo atan bear eguiten iracatsiagaz, edo bide oneco ondasu-
nac eurai ichiagaz edo alan. Onen ganean beré ascoc pecatu eguin
daroa. Batzuc euren diruac zelan etorri alan yan eguiten dituez, gue-
roco etorquizunai bapere beguiratu bagaric, eta alan eurac irabaci al
daben artean, edo errentaac diraeen artean emoten badeutse beré
umeai bear daveena, edo bear bada (ameneco) bear leitequean baño

gueiago, guero escu utsacaz ecer-ez-ean ichiten dituez, ez ezconduteco, ez euren oguia irabazteco, ez ecetaraco moduric baperé eztaueela. Beste batzuc alango zoraqueriaric eguin ez arren eztave arduraric artuten euren umeai oficioen bat, bearguintzaren bat iracaste-co, edo oguia irabazteco moduren bat emoteco. Beste guraso batzuc ardoari, alperrieriari, auciai emoten deutse, eta umeentzat irabaci bearean, etse guztia zorrez betetan dave, eta bein baño gueiagotan euren etsaguntza, solo ta bazter guztiac concursoan saldu eta esquean ateric ate ascoren arpeguiac lotsatuten urten bear izaten dave; eta dana dala, beti umeai calte ecarten deutse, bada ezteutse emoten emon bear leusquioenic. Guero ¿cer izango dira onelangoen umeac? Lapur andi batzuc. ¡Ay! Ichico ezpaleutse gurasoac umeai alperric ebiltzen, iracatsico baleutse oguia irabazten, edo ichico baleutse gueroco cegaz bizi, e-litzatequez ain galduric icusico uriac, erriac eta elesha-teac, e-litzatequez icusico ainbeste arpel-andi, ainbeste lapur eta ainbeste galdu orco bideetan.

Oguian sarten da umeen ezcontzea Ygcoac bide orretara badacaz, eta onen ganean beré pecatu andiac izan oi dituez gurasoac. Pecatu da umeac ezcondutea euren biotzez contra, edo euren gogoco ezta-nagaz. Guraso ascoc esan daroe semearen edo alabearen borondate-ari bapere begiratu bagaric: “urlia da gureraco ona: ain lecutan sartu-co dot neure semea edo alabea: gura ezpadau, nai davenac lagundu daguiola bestegaz eguiten.” Edo diño: “gurean sartuco danac onen-beste dote bearco dau”: eta beguiratu bagaric ezcondu bear davena-ren borondatera eguiten edo deseguiten dituez euren buruti ezcontza-ac. Ori ezta ondo: gurasoai yatorquee seme-alabeen gogoaren barri artutea: eta eurac gura daveen ezcontzea, bideric eztacarren buruba-aco ezcontzaren bat ezpada, eta ondo urtengo ezteutsan lagunagaz; lagundu bear deutse aleguinean. Pecatu beré eguin leie gurasoac umeac ezconduteco, edo acomodetaco arduraric artuten ezpadave. Guraso ascori entzun yoaque buru bagaric diñoela (esaten): “gueure umeac adinecoac ta edadecoac dira: eta gura davenean erremediaco dira: cer emon andiric beré eztaucagu: eta gura daveena eguingo dave. Alan guero izaten dira ainbeste nasaiqueria eta ainbeste ezcon-tzaco berba, pasiño zoroac eta berotasun itsuac erazoac, eta ondo sarri guzurrzagzaco. Sarri eguiten dira onelango ezcontzaac fiestan, eta alcarregaz nasaiquerietan eta zantarquerietan dabiltzazan aldietan. Amodio argalac erasoten dituz, eta guero sarri laster garba-tu. Eta ¿noc dauco alangoen errua? Guraso ardura charrecoac.

Orregaiti bada, gurasoac, ardura andia artu bear dozue seme-ala-baac, gueiegui luzatu bagaric, ezconduteco; eta ños asmetan badeu-tsazue ceuen umeari berochu davilela, eta ezcondu guraric, eguizue ainbat lasterren ezcondutera: osterantzian buruco-mina etsean ugari sartuco yatzue. Baya ceuec, umeac, gurasoen buruti ibili zaitece, eta aldozuela euren esana eguizue, ece gueiengan obeto urten daroe onelango ezcontzaac ceuec ceuen buru zoroti eguiten dozuezanac baño. Baya gogoa ecin berotu bayatzue, gurasoac gura daveenagaz ezconduteco, arguiro eta artez esan, zelan biotzac lagunduten ezteutsuen, eta ez or lotsa-arren ezcondu, eta guero beti damuz beteta bici, egun onic bein beré icusi ecin dozuela. Baita contuan egon zaitece, guztiz beré nescatillaac; ezcontzaco berbea naztetan bada labanqueriacaz, eta zantarquerien asmua dacarren gauzacaz, aguiro da guzurragaz dabilela lagun ori, eta berotasun itsuac erasoten deutsalala. Ez bada alangoai sinistu milla yuramentu eguin-arren.

III. Baya eztave asco gurasoac, gorputzeco bizitzea igaroteco bear daveena umeai emonagaz: arimaco bizitzea da beinago, eta alan onen ganean ardura gueiago (obeia) artu bear dave, eta ori eguingo dave aci-bide ona emonagaz. Aushe da bada laugarren mandamentuac gurasoai aguinduten deutseen irugarren gaucea, umeai aciera ona emotea. Eztira gurasoac izan bear Santu-guiñac leguez zeintzuc eguiten dituezan santuac campotic eta azal-ganeti ederrac eta politic eguiten badituez ece, barruticogaiti ezteutse arduraric. Gurasoac euren umeac azaleti bashen barruti obeac eguin bear dituez, esan gura dot umeen arimeagaz gorputzagaz baño ardura gueiago bear daveela eta ori eguingo dave (gorputzeraco) oguiaz ganeti, (arimara-co) aciera ona emoten badeutsee. Aciera ona emoteco iru gauza eguin bear dituez gurasoac: 1. gauz'onac iracatsi, 2. gauza charrac galarazo, eta 3. exemplu ona emon. Entzuzuez iru gauzoc bein banaan. 1º Gurasoac umeai gauz'onac iracatsi bear deutseez. Ygcoac anchina gurasoai cirautsen: "iracatsi eguioezuez umeai nire berbaac gogoan erabilten, etsean zagocengan, bidean zabiltzengan, oera zoacengan, eta yaguiten zareengan". Au bear dan leguez eguiteco, umeac berbaz asten direaneti iracatsi bear deutseez gurasoac Jesus ta Maria-ren icen gozoac: iracatsi bear deutsee ondo ondo siñatuten, bada curutze santua da Ygcoac gueure arerioen contra ichi euscun gorde-garriric andiena. Iracatsi bear deutsee Aita-gurea, Ave-maria, Credo, amar mandamentuac, bost Eleshacoac, zazpi sacramentuac eta onelangoac. Eta orreec eracusteco eztira beguira egon bear umeac adinera eto-

rri artean, bada errazoera eldu, eta ezagüera apur bat dauqueenean eguin bear dituez fede, esperantza ta caridadeco actaac, eta eguiten ezpadituez celan eguin eztaquielaco, gurasoena izango da erru guztia. Baita beré zazpi urteric aurrerá mezatará aguindu bear dituez iracasten deutseela celan moduz egon: eta confesetara beré bai, guero-co icasi daguien(tzat). Eta celan urteetan aurrera doazan, alan doctrinea beré obeto yaquin bear dave. Baya ¿eguiten ete da alan? ¡Oy ce negar-garria dan onen ganean gure errietan icusten dana! ¿Ceinbat seme-alaba sei, zazpi, zortzi urtecoac, eta gueiagocoac beré icusten ez dira doctrinaren apurric beré eztaquienac?

Esaten bayaque onelangoen gurasoei ea cegaiti ardura gueiago eztaunqueen umeai doctrinea eracusteco: beingoan erantzun daroe:”¡Ay, Aita! gueure umeac gazteeguiac dira oraindo orreec icasteco. Bai, gazteeguiac dira ceuen umeac orreec icasteco. Eztira bada izango muquerrac eta erremushcadac eguiteco. Echaque entzungo Jesus ta Maria-ren icen gozoric eta pitian pitian entzun bearco yaquez añenac eta arrenac, biraoac eta arraioac. Eztaquie Aita-gurea eta Ave-maria, eta batu bearco dituez baster guztietaco ereciac, errondoac eta ipuiñac. Eztaquie curutze-santearen eguiten, eta yaquingo dituez milla soñu gangar, loi ta lotsagarri. Oraindio gazteeguiac dira confesetara biralduteco (botetaco), eta aguindu bearco dira iñoren solora, ortura basora, iñoren gauea eguitera (ostutera). Egongo dira bear bada pecatu mortalean, eta eztave yaquingo, eta ameneco (venturaz) entzun beré eguin izango eztave ceinbat gauza bear direan confesiño on bat eguiteco. Onelangoen gurasoac pecatu mortalean bici dira. Bada yaquin beguie umeai doctrinea iracasten ezteutseen gurasoac pecatu mortala eguiten daveela.

2º. Aci-bide onac gurasoai escatuten deuten bigarren gauea da gauza charrac umeai galarazotea. Bai, gurasoac, umeac lotsa onean aci bear dituez, Ygcoaren bildurtasuna eracusten deutseela. Esan bear deutseez Ygcoaren berba oneec: “Ene seme, pecatariac euren bide charreetara ecarri gura bazaituez, ez lagundu: etzaitetz euracaz batzandu, bada euren oñac arin dabiltz gauza oquerrac eguiteco: ez ondo erechi deungueen bideari, ce orreec eztagoz ondo, deungaro eguiten ezpadiñardue. Orretaraco eragotzi bear deutsee pecatu dan guztia, baita beré pecatu eguitera ecarri leiquezana. Eragotzi bear deutsee pecatu mortalen bean biraoac eguitea, berba loi arinac eta nasaiac esatea, lapurretac eguitea, eta onelangoac. Eragotzi bear deutseez lagun deungaac, lecu charrac, gaüetaco ibileraac, eta bide

pelleburuzcoac. Ori eguiteco yaquin bear dave euren seme-alabaac celango lagunacaz batzanduten direan, celango etsetan sartuten direan, ce lecuetara yoan oi direan: celango adisqueideac dauqueezan: eta bein yaquin ezquero lagun, lecu edo adisqueide orreec deungaac edo adinonac direala, ezteutsee ichi bear euretara elduten. Bildur badira lagun eta etse orreec alan-alangoac direala, orduan beré galarazo bear deutsee alango lagun artera eta etsetara yoaten, eta alan eguin ecic pecatu mortala eguiten dave gurasoac.

Emeti dator pecatu mortala eguitea guraso ascoc ceintzuc euren umeac ezcondu ditezan amurruagaz edo ainbagaric aguinduten dituezan fiestetara, celaietara, biguireetara, dantza nastuetara, eta alango nesca-mutilen arteco batzaarretara. Eta oraindo pecatu mortal andia-goa eguingo dave gurasoac euren umeac urlriagaz edo urlinaiñagaz ezcontzea eguitera etorri ditecentzat, edo eguin ezquero galdu ez daitentzat, ichiten deutesenac semeari nescatillearen etsera yoaten, edo besteco mutilari eurenear sartuten. Baita izan oi dira onelangoen artean gurasoac, gazteac alcarregaz bacarchuric ichiteco, eurac etseti canpora, solora, atartera, basterretara urteten daquienac. ¡Oneec bai gurasoac! Yaquina da bada, gazteac bacarric egonda, eztireala erro-sarioac esaten egongo. Azquenean barriz, ezcontzeen ganean esan bear deutsuet ece, gurasoac galarazo bear deutseezala umeai luzaroco eguiten direan ezcontzaac, urtebetegarreneraco, lau urtegarreneraco eta onelangoac. Au gogotic artu bear dave gurasoac, bada ori ez eguinagaiti Ygcoac daqui gazteac celango pecatuac eguiten dituezan bai gogoz, bai escuz, bai araguiz, eta guero gurasoac Ygcoaren aurrean onelangoen ganean cer icusi andiac izango dituez.

Eztira oneec bacarric gurasoac umeai galarazo bear deutseezanac, pecaturaco bideac quenduco badeutseez . Beste gauza bi bere badira ez esatea guraago neunquezana, pecatu asco eragozteco esan bear ezpalitz. Bata da gurasoac eztituezala eurecaz nasta eratzo bear ume cascondochuac eta nagustochuac. Batzuc batzuc ori eguin daroe, orregaiti beré gueldi egoten eztaquiela. Iru-lau urteric gora euren oeti eta guelatic beré campora bota bear dituez umeac pecaturaco bide andiac emon gura ezpadeutsoez, eta euren lepo ganean pecatu anditzar asco artu gura ezpadituez. Yauna, oraindo umeeguiac dira alan-goa zer dan yaquiteco. Ezta ardura. Ceuec atan icusi edo asmauagaz beste ainbeste eguin leie eurac euren artean: eta orduan yaquin ez arren zer eguiten dabeen, artu leie ecandu citala, eta guero zer dan yaquitera datozeanean, ecin galduric bein arturico bezu charra aurrera

eroan leiquee. Yauna, lo-gogor egoten dira. Ceuec uste izan arren lo dagozala bear bada iratzarriric egongo dira, eta ceuec cer eguiten dozuen adi egongo dira, eta bear bada eurac igarri bagaric infernuco su loian erretan. Sinistu eguidazue guztizco calte negargarriac etorri dira gurasoac umeen arcuntzan (parean) alan eguinagaiti. Bigarren esan bear deutsuedana da deungaro eguina dala oe baten erabatera seme-alabaac eratzotea, chiquinac eta gazteac izan arren; edo euren oichuac bata besteen parean imintea. Cristiñauac, andiac dira gueure arerio dollorraren asmuac, eta pecatu asco sortu dira alango gauzeetati. Orregaiti etse batec, ondo ibilteco, iru guela bear dituz, bata senar-emasteentzat, bestea mutillentzat, eta irugarrena nescatillentzat, eta alan eztala, milla zantarqueria ta ciquinqueria yazo bearco dira. Eta alan nic biotz-biotzeric escatuten deutset ugazabai eta etseyaubei, arren bada beguiratu daguiela errentadoreen oiacc eta guelaac celan dagozan, eta ezpadagoz cristiñautasunac aguinduten daben leguez, eguin daguiela eurecan dana, ol batzucac, edo esto batzucac baño ezpada beré, bear dan leguez iminteco. Eta ori eguin ezic, nic artez dirautset, euren lepoganean izango dituez errentadoreac eta errentadoreen oguituocoac alango ardura ezagaiti eguin dagueizan pecatuac. Eta ezpeguide esan onelangoac, eurac eztauqueela iñoren pecatua cetan galarazo: bada yaquinic egon bear dira ece, ecin errentadoretzat artu leiqueela, etsearen barruac, garbiro iminteco, aguinduten davena baño lagun gueiagodaucanic. Baya ugazabaac eguiten ezpadave, eguizue zeuec errentadoreoc, eta Ygcoac zor badau orren duiña ta gueiagoda emongo deutsue. Zuen ume gaishoen arimeen onac ori ta gueiagoda aguinduten deutsue.

Esanac guztiac, bada, galarazo bear deutseez umeai gurasoac, bear dan bidean acico badituez. Baya ¡o guraso ascoren negargarri-zco itsumen gogorra! Ecin esan beré eguin lei noraguñño elduten dan gueure arteco guraso ascoren nasaiqueria, eta ardura eza lotsagarria. Ichi bear izaten deutsee edocein batzaar nastuetara ibilten, edocein mutil buru-arinegaz, edo edocein nesca gangar zorapillogaz lagunduten, gaubaz berandu artean beré etseric canpora egoten, orregaitic bapere bildurric ez errencuraric artuten eztaveela. Eta iñoc arpeguiric artuten badeutse, edo ecer esaten badeutse, burucominic izan ce daguien, epetasun andian erantzun daroe: “¡Eh! eztago arduraric. Guztiz da ona ene semea; ene alabeari ecin iñoc ucutu leio, zarata bacoda bera. Ez, ez: eztago euracac bildurric. Gauza orreec gaztetasunac escatuten dituzanac dira. Gaztetasunari (gaztezarolari) berea

emon bear yaco. Gueu beré alanchec ginean.” Guero gura eztana yazo daquienean edo nescaren bat bete: semeac burubaaco ezcontzaren bat eguiten davenean: alabearen oqueluetaco nasaiqueriac guztien beguietara aguertuten direanean; orduan dira negarrac, cizpu-ruac, zotinac, ulle-tiracaac. “Ez neunquean nic sinistuco neure semeac, neure alabeac, ori eguingo eustanic. ¿Noc esango evan au eguingo evala? ¿Noc usteco evan alangoac urten bearco evala?” ¿Noc? ¡A guraso zoroa! ¡Asenbaaco gurasoa! Noc esango ez evan ceure umeagaz cer igaroco zan icusiric nogaz ebilen, nora yoian, non sartuten zan, ta celango bide macurrac erabiltzazan? Edoceinec igarrico eutsan icusita ceuc emoten ceuntsan laza ta escu-escune larreguia gura evan bideetati ibilteco nai gaubaz zala, nai egunez zala ecin onean yo leiqueala ceure umeac. Ceure buruaren erru imini bear dozu orain daucazun naibaacoa.

Alan bada gurasoac ardura andi bat imini bear dozue, ceuen umeai Ygcoac dirautsuen leguez ondo eracusteco, eta pecatuac eta pecatu-bideac (galarazoteco) quenduteco, eta ondo esanean ecin badozue, gogorrean ta garratzean eguin bear deutzazue. Ori ondo eguiteco Ygcoac berac dirautsue cer eguin bear dozuen. Entzun bere berba ederrac: “Loren yau eta palagau eiquezu ceure umea, eta berac bildurpean erabilico zaituz: ibili zaitez beragaz (parlantzuan), chanchaquerietan eta chuchupuchuetan, eta berac nequeac ugari eracutsico deutzuz. Ez beragaz barre andiric erabili, guero damutu ce daquizun. Emoiozu ceure semeari lotsea; zarteagaz yo-arren echatzu ilgo. Gurasoac, ez eguiozue umeai aserratu eraguin, ez su-mina artuteco bideric emon.” Oneec eta onelangoac dirautsuez Ygcoac berac. Alan bada umeac ondo aciteco eguin bear dozuena da lotsea ta itzala beti emon bear deutzazue. Eta lotsa au eta ondo eracuste au ainbat umechutati asi bear da diño Ygcoac berac: *dum infans est*, umecondoa danean; ezpabere bear bada, gogortu ezquero, gueiago eguingo deutzue, eta buruco-ala andiac icusi bearco dozuez.

Au esaten yaquenean, guraso ascoc erantzun daroe: ¡Ay bada! oraindo gazteac dira orretaraco gueure umeac; aec eztaquie gaishoac cer eguiten daveen beré asco; gueldi gueldi edadeac ecarrico dituz. ¡A guraso gogorrac, edo obeto esateco ceuen umeen borreru gogorrac! Eztira bada gazteac ceuen umeac biotzeco sumina eracusteco, beguirauac, adicuneac, erremushcadac, eta muquerrac eguiteco. Ichi eguiozue gogortuten, eta guero icusico dozue celan eci ecingo dozuezan. Umechuacaz yazo oi da arech-landaracaz yazo oi dana.

Arech-landarachuac erne barri direanean, laster dira sustrai ta guzti atereac; baya bein gogortu eta andi eguin ezquero, eta sustrai luceac eta erro zabalac eguin ezquero, eztozuez guttiz ateraco: bertan gueldituco da erro bat baño ezpada beré. Alanche da umeacaz beré: lenengo mañachu charrac burua aguertuten daveenean, guichi bear izaten da maña orreec galarazoteco; eta bear bada zapladaco bat, aguiraca bat, berba bigun bat, becoqui ilun bat asco izaten da orretaco. Baya bein ecandu gaistoac sustraiac eta erroac basterretara zabaldu ezquero, ezteutsazue bezu charra galarazoric. Alper alperric yoco dozuez, alper alperric bana bana eguingo dozuez: anche gueldituco da erro bat bashen ezpada beré, ceinec gosh edo berandu atera bearco daven burua, araco ceuen umeac ceuen bildur eztireanean. Orregaiti contu, gurasoac: ceuen umeai mañachu gaistoac lelengo lelengo barritaric galerazo: aguertauta lasterrean burua ebagui: ez ichi temea(gaz) cabiduten (urteten): eci eguizuez euren oquerrune guztiac indarra artu baño leen, ezpabere Ygcoac diñoana:”zaldi ecibaacoac gogorrac urteten daven leguez, alanchec castigu bagaco umeac gogorrac eta lotsa galducoac urteten dave.

3°. Oneec alan dira, eta alan eguin bear dira: baya eztave gurasoac orregaz ezer eguingo eurac onac ezpadira. Indar gueiago dauco beguietati sartuten danac, belarrietati datorrenac baño. Arpel arpelic esango deutso gurasoac umeari, “au eguic, bestea ez eguic eguin”; umeac beste gauzaric eguiten gurasoa icusten badau, dacusana eguin bearco dau, ez gurasoari entzun deusana. Orregaiti cirautsan Leta-ri San Geronimo-c: “ezpeguizue icusi ceuen alabeac ez ceuri ta ez aitari, berac eguinda pecatu izango leuquean gauzaric”. Eta aushe da aciera onac gurasoai escatuten deutsen irugarren gaucea, exenplu ona emotea. Eta onen contra pecatu eguiten dave gurasoac umeen aurrean eguiten daveenean pecatu dan gaucea, edo pecaturaco bidea ta oña emon leiquioena. Alan pecatu mortala eguingo dave 1°. tabernan edo ondretan izan ezquero umeen aurrean ordidiric paretan direan gurasoac. 2°. Pecatu mortala eguingo dave umeai edo umeen aurrean birao eguiten daven gurasoac. 3°. Pecatu mortala eguingo dave gurasoac umeen aurrean arcalegaz aserratuta, batat besteari berba astunac eta lotsa charrecoac esaten badeutseez, irauna garratzac emoten badeutseez, edo gogor eta legue eztan leguez alcar artuten badave. 4°. Pecatu mortala eguingo dave umeen aurrean esaten daveenac, eurac ezteutsela alango billaüari parcatuco, querella bat ecarri bear deutsalala, gastarazoco deutsalala, vengauco yacala, edo celan alan iragarten

deutsenac besteari deuten gorrotoa. 5°. Pecatu mortala eguingo dave umeen aurrean esaten dituezanac celebrequeriac, berba loiac, ipuin ciquinac, errondo edo ereci deungaac, edo etseco bearretaraco alangoac esaten daquiezanac dacardeezanac. 6°. Pecatu mortala eguiten dave umeen aurrean ateraten dituezanac euren gaztezaroco ibilera zoroac, adisquidetasun loiac, panparreriac eta eraqueriac. 7°. Eta ara beré pecatu gueiago eguingo dave guraso orreec, umeac daquiela, edo icusi, entzun edo iguerri leiqueela, ñogaz adisquidetasun charric, zantarqueriaric, edo gauza oquerric badarabilde. 8°. Pecatu mortala eguingo dave, eguiten badituez umeac daquiezala lapurretaac, saldu-erosi oquerrac, eta engañuac. 9°. Pecatu mortala eguingo dave, umeen aurrean esaten badituez ñoren cleituco gauza astunac, oraindo ishilic dagozanac. Eta berba baten leen esana: pecatu eguingo dave gurasoac, eguiten badave, edo esaten badave umeai oquer-bidea emon, edo pecatu eraguin leioen gauzaren bat.

¡Ay, neure entzula onac! Ce zorionecoac izango litzatequezan etseac, erriac, uriac, provinciatic eta erreinuac, baita mundu guztia beré gurasoac ondo ondo eguingo balituez Ygcoac laugarren aguin-du santu onetan esaten deutsezanac. Guztia izango litzateque ontasuna, guztia santutasuna, guztia baque gozoa: baya alan eguiten ezta-beelaco guztia doa galduric. Imini bediz legueric eta castiguric gogorrenac gaiztoen contra: bebil yusticia aleguinac eta ecin-eguinac eguiten erriti canpora ecandu charrac eta cer esan gaistoac ushatu ta erbestetuteco: deadar beguie predicadoreac indar ta gogor izcune deungueen contra: alperric dabilz guztiac, eta euren eguinalac eta indarrac guztiac utsean yo bearco dave, gurasoac euren umeac ondo aciten ezpadituez. Sinistu eguidazue mundu onetaco oquerreria eta pecatu guztiac gurasoen aciera deungan dauque euren sustraia. Ume ondo aciac onac dira, eta guraso guztiac eurenac lotsa onean acico balituez, aror mundu guztia onduric. Ori eguitea eztago gueure escuan, baya zuenean dago Ygoicoac emon deutesuezan umeac ondo aztea: ori eguizue eta ori guichiago euquico dau munduac deungata-sunic. Baya esango dau bearbada batec edo batec bere artean, yazo leitequeala, eta yazo bere ascotan eguiten dala, gurasoac euren umeac ondo aci eta ume oneec gaistoac urtetea. Bai, eguia da yazo leiteque alango nosbaiteco baten; edo lagunen batec ume ori galduten davelaco, edo beste alango bategaiti. Baya gueienean eztoa alan izaten, ezpada ce ume ondo aciac onac izaten dira, eta ume deungarero aciac deungaac. Ygcoac berac dirauscu; baita eguia Ygcoaren

esana leguez, pecatarien semeac oquerrac izaten direala eta lapurren lagunac eta guraso onen semeac barriz euren modu moducosheac, eta umeetan dala aguri nor nor dan. Ez, diño San Yuan Crisostomo-c, eztauque gurasoac achaquia onic euren umeac ondo aciten ezpadituez, eta onac eguiten ezpadituez. Guizonac ezcara gueuracauten ta gueurez deungaac, eta alangoac bagara da gueuc gura dogulaco. Gurasoac umeac euracaz dauquez aciteco ume chicar direanetic, eta beti dagoz euren ganean; eta alan erraz erraz eguin leiquez onac izatera. Baya ¿cegaiti eztituez alan eguiten? Euren ardura guztia dalaco escuartecoa eta ondasunac aurreratutea eta azturic dauqueelaco umeen arimen osasuna, baita euren buruena beré. ¿Cer? Abereric uzuenac eta mistoenac, otsoac, artzac, catamotzac ¿eztira ardureagaz eta moduagaz mantsotuten, eztaoz escura eta gura doguna eguitera? ¿Echaquez milla arrigarrizco gauza eracusten? eta umeai gachic eztaquienai ecin ondo iracatsi leiquioe? Bai gurasoac gura baleve, eta orretaraco aleguiñac eguingo balituez. Baya guraso ascoc, diño Santu berac, mandoagaz eta astoagaz ta basterragaz ardura gueiigo dauquee euren seme-alabacaz baño. Eta ori baño ezpalitz oraindo gacherdi litzateque. Baya guraso ascoc eta ascoc, (oquerrago dana) umeacaz ardura artu bearrean, eurac deungaac izaten iracasten deutsee. Ozta ozta idigui izango dituz ume gaishoac beguiac, belarriac eta beste sensunac, eta orra non ezta cusan, non ezta ntzun, non asmetan ezta ven deunguea izateco oña emongo deutsan gaucea baño. Ezta oraindo berbaz yaquingo umeac, eta negarrez asten bada arrebeac, otseiñac buruac emon deutsanen bat eguin gura ezteutsalaco, ama asico yaco palaguetan (lorenyetan), eta arrebeari edo otseinari yoten davelaco siñua eguingo (eguiten) deutso, eta esango deutzaz min emoteco moduco berbaac, eta onegaz iracatsico deutso umeari celan andi eguin dedinean, inoc ezer eguiten badeutso, berac bere escuz bengaia artuco daven. Yancico deutse umeari soñeco polit bat, eta milla zoraqueriaz, eta labanqueriaz puztucó dave, burua ashez beteco deutse, sinistu eraguiten deutzela, besteen beguítan ederto dirudiala; eta orregaz iracasten deutse yanzqui eder zalea izaten. Yoango da sein-zaina (ume-yagolea) tanbolin otsa dan toquira, eta bera besoan daucala abiauco da besoai eraguiten, eta umea dantzán erabilten, eta alanche eracusten yaco umeari yantzán ibiltén zalea izaten. ¡Ey! esango dozue, orreec ¿cer dira? Ecerezqueria batzuc baño ez tira. Bai, baya ezerezqueria zan Santa Monica-c umetan ardao tanga tanga (tindi) bat ao bete beré etzana edatea, eta agaz-guztiagaz beré diraus-

cu bere seme S. Agustin yaquitsuac ece, orretaric etorri zala bere ama, ardaoari ondo eresterá, eta bear tzan bashen gueiágo edatera, eta guichic eguin ebala ordi concor bat izateco bideac artu etzitzuzanean. Orregaiti bada echaco umeari emon bear deunguea izateco dan bide-ric chiquiena beré.

Baya ¡ay! guraso ascoc euren umeai emoten deutseez ez onelango bide chiquiac ez ece, baita andiágoac beré, eta ez ume chiquitan bacarric, baita bardingotan eta gáztetan nagustochu eguinda beré. Etseren batzuetan eztantzue ezpada biraoa, añena, demoniñoa, yuramentua, berba loia, celebrequeria, eta iñoren deungaroac esatea. Eztacusde euren gurasoacgan devoziñoaren izpiric, eztacusde ezpada eztaveela errosario bat esaten, eztireala urteric urtera baño confesetan eta orduan beré chartelaren bildurrez; yaiegun santuetan meza bat entzunda, ganeco enparadua emoten daveela saldu-erosietan, tabernan; alango egunetan yoan bearco dala errubera, N-ra, gaucea (sagar-rac) saltzera, errota-osterara, bazterretara. Eztacusde baneria, apaindutea, eder ibiltea baño besteric. Guraso ascoc poz-pozic eta ezpanetati adurra dariela contetan detseez umeai euren gázte-zoroco panparrieriac, eraqueriac, ibil-bide deunga negar eraguin bear leusquioenac. Guero ¿zer gura dozue izan ditezan ume orreec? ¿Cer? Cristiñau deungaac, biraoguilleac, gurasoacganaco gogorrac eta esan charrecoac, edaleac, seigarrenecoan ez garbiac, ao charrecoac, lapurrac. Baya ¡ay, ta ay! ce zorigaiztocoac direan onelango umeen gurasoac! Izango dave, bay, buruco-mina, baita ez chicarra mundu onetan, eta oquerrago dana, icusi bearco dituez bestean neque icaragarrizco beticoac. Alangoric guerta ez daquizuen, esango deusuet nic orain celan aci bear dozuezan ceuen umeac. Entzuzue bada contuz.

Lelengo lelengo ceuec onac izan bear tzare; ceuen etsetic canpora biraoac, maldiciñoac, yuramentuac; etseti canpora aserreac, errieltac, baita quirrimorroac eta ezdabaida chiquiac beré. Ceuec senar-emazteac alcarreri lotsea ondo ondo gorde bear deusazue; eta alan eguin ezic ezteusue umeac beré gordeco. Ceuec Elesharaco bideac yaquin bear dozuez sarrichu confesetaco eta comulguetaco, yaiegunetan errosariora, beluco mezara (meza nagusitara), abade-maisua-ren sermoira etorteco. Errosario santua gaubean gaubean etsecoacaz esan bear dozue oera baño leen, eta obeto afaria yan baño leen, bada afaldu ezquero lo-agoa (gurea) beré urrean izan oi da. Berba baten, ceuec onac izan bear tzare. Aushe da aurrengo aurrengo bear dana eta bera bagaric eztozue umeacaz bapere gauz'onic eguingo. Berbaz asi

ditezaneric iracatsico deutzazue Jesus eta Mariaren icen gozoac eta devociñoz eta astiro ta ondo siñatuten, eta gueldi gueldi Ave-maria, Aita-gurea eta euren dotrinachua. Ordutishec asi bear tzare umeai Ygcoaren bide ona eracusten, eta aguertuten dituezan mañachuac galarazoten. Lotsea beti emon, guichitan yo, temea cabietan bein beré iños ez ichi, belaunico imini, beari mun eraguin, guela baten zarratuta euqui, parca escatu eraguin, dira ceuec, umeac bear eztanen bat eguiten daveenean, gueien erabili bear dozuen zartea, eta emon bear deutzazuezan castiguac. Barriz ondo eguiten dabeenean ez-gauzachu bat emoten badeutzazue eguin-sari, edo (aguinduten) esqueintzen eta opetan badeutzazue eguin daguientzat, (onez) onean onean ecarrico dozuez ederto baten zeuen esana eguitera. Baya iños yoten badozuez alan bear izanda, guero negarrez dagozanean, ez palagau, ezpabere guztia galduco dozue: Ichi baquean, eurac aspertuco dira; eurac ishilduco dira. Eta charriac artuta yan gura ezic asten direanean, echaramon, goseac ecarrico dituz. Zazpi urteric gora ecarrico dozuez Eleshara mez'entzutera, eta confesetara, eta sarrichu confesau eraguin. Eztozuez erabili bear soñean apainduegui: apaindugureac ascori alde ascotara pecatu eraguin deutso. Baya bere moduchuan erabili bear dozuez, ganecoan eurac ondo eztan bideren bateti eguin bearco dave. Andi eguin ezquero eragotzi bear deutzazue naasteco batzaarrac, fiestac, yolasac, batzaaco dantzaac, biguirac, gaubelac, errondac, eta osterantzeco mutil-nescatillen arteco batzalcuntzaac, bada onec dira lotsea quenduteco eta itzalac botateco, eta loiqueriac ta zantarqueriac icasteco alagalaco lecu onac. Yaiegun santu osoetan zeuecaz ecarri eguizuez beluco mezatara, eta ez ichi gazteric etsea yagoten, ece alango aldietan izan oi dira sabaico (camaraco) lapurretac eta oquerrago direan gauzac. Onelan gurasoac, umeen ganean, eta beti ardura andiATEGAZ ZAGOCELA, yo andi bagaric ondo acico dozuez, ceuen esanen bean euquico dozuez, eta Ygcoac diñoana, emongo deutzue guero atsedon ederra, eta biotzeco atseguintasun gozoa.

10. [BOSTCARREN AGUINDUA]¹

Non occides.
Eztozu iñor ilgo.
Exodi.c.20.

(J, 72-79. or.)

Gueure Ygco laztanac yagon ezquero laugarren aguinduan gurasoac ganaco lotsa ona, galarazoten deuscu bostcarrenean besteai gach eguitea. Orretaraco esaten deuscu: (yagon gura dau bostcarren-goan guztien bizitzea, osasuna, eta ondo egona; eta orretaraco dirauscu:) eztozu iñor ilgo. Berba oneecaz bada esan gura deuscu ez iñori beré gachic eguiteco (ezta gueure buruari beré) ez gueure eguiteacaz, ez berbeagaz, ez ecetara beré. Eta alan aguindu onetan ez bacarric eragozten yacu iñor iltea, baita beré iñori osasunean, gorputzean, eta ariman calte eguitea. Alan gueure burua edo besteren bat iltea, banatutea, odoltutea, beso bat edo azurren bat austeia, benenoa edo gachgarriren bat emotea, edo artutea, eta gaishotutea, oneec guztioac eta onelangoac eragotzita dagoz bost-carren mandamentuan. Eta ez bacarric galarazoten yacu olango gauzaac gueuc guere escuz eguitea; baita beré besteren bateri eraguitea. Eta orregaitic batec iñor il ez arren edo ez banatu arren, besteren bateri ori eguiteco, (edo iñor banatuteco) aguindutea, lagundutea, atan imintea edo bidea emotea, orretaraco benenoa, boticacoa, edo trechuren bat emotea, eta oneec, galarazota dagoz bostcarreneco aguindu andi onetan.

Oneec alan yaquinda icusi daigun orain nortzuc gueien onen ganean pecatu eguin daroen. Eta bear dan argui-bidez berba eguiteco, lelengo esango deusuet nortzuc eguiten daveen pecatu euren buruari calte ecarten deutseelaco (ecarriagaz): bigarren go nortzuc (eguin oi daveen) besteai calte eguinagaz; eta irugarren go barriz nortzuc (pecatu eguiten daveen) deungaroac esanagaiti.

Eta euren buruai calte eguiteagaiti pecatu eguin daroe 1º. Baliau oi direanac Ygcoac emonico gorputzeco sendotasunagaz eta gogor-

¹ Jatorrizko testuak ez dakar izenbururik.

tasunagaz gorputza macalduteco, osasunagaz osasuna galduteco, gorputzeco indarracaz gorputza argalduteco eta manquetaco. Guizon ta mutil indartsu ta gogor ascogaz gueure errietan icusten dana da, ashe batzuc buruan sartuta dabiltzazala euren indarracaz arroturic, eta Ygcoac pecatu eguiteco emon izan baleutseezan leguez lagunac desafietan, temac ta posturac eguiten, ecin dituezan cargaac ereguiten (erantetan, yasoten) ta eroaten. Yatun ta edatun ascoc posturaac eguiten dituez onenbeste edo ainbeste yan edo edan eguingo daveela, edo noc gueiago yan ta edan. Onelangoetati guero ascoc osasuna galduten davee, eta betico erasoren bategaz gueldituten dira. Bada pecatu eguiten dave alangoetan dabiltzazanac.

2° Eguiten dabe pecatu mortala osterantzean, alango postura eta panparrerria bagaric larregui yaten daveenac, yaquinic larrac gach eguin oi deutsela. 3° Eguiten dave pecatu mortala yan oi daveenac carea, icatza, lurra, autsa, edo beste onelangoren bat; bada ori alan eguinda erquinduric, mascarturic eta osasuna motelduric guelditu oi dira. Eta berba baten, bein yaquin ezquero yanariren batec gach eguiten deutsalac, edatecoren batec gaishoric iminten davela, (pipea edo cigarroa -tabaco orria- artuteac calte eguiten deutsalac), larregui yan-edanac galduten davela, onelangoren bat orregaitic beré eguiten davenac pecatu eguingo dau.

4° Pecatu mortala eguiten dave euren borondatez eta yaquinen ganera orditu eguiten direanac. Ascoc eta ascoc uste dabe ece, eda'ala edan-arren, burua nastauta euren buruen yaube eztireala parau-arren, eztala catua artutea; eta barrucoa aurrean icusten ezpadave, eztave pecatutzat beré artuten. Baya ez, ezta ori eguia, eta bein burua nastau eta sensuna galdutera ezquero ya pecatua eguinda dago, ecer errebesadu ez arren: baita barriz yazo leiteque larregui edan bagaric beré barrucoa atera (bota) bearra, edo batec gorputz-aldi charra daucalaco, edo oñac bustiric dituzalaco edo beste alangoren bate-gaiti. ¿Nos bada, esango deustazue, nos igarrico deutsalac gueure buruari orditu izan gareala? Nic esango deutsalac; entzun. Araco biaramonean gogoratu ecin dozuenean edan ezquero zer esan, edo zer eguin cenduen, besteetan baque onecoac izanic, ardaoaren beroagaz etse guztia beera ecarri bear dozuenean: biraoac eta yuramentuac eguiteco izcuneric ez izanic, edanac eraguiten deutsalac birao-yuramentuacaz guztia darda ganean erabili bear dozuezan: etsera zatozanean albo alboca oñac alborantza eguiten deutsalac, bideric zabalenac estu ta bedar dozuezalac, emen labratau, an yausi; emeco ormea

yo, ango sasipean echun; urrengo goshean non loitu cinean asco eztaquizuela: oneéc bada eta onenlagoac yazoten yatzuezanean aguirri da catutu eguin cineela, eta pecatu mortal andia eguin cenduela.

Baya ezpeguie ordiac uste ece, catututen direanean bashen bestetan eztaveela (edan-aldunac uste ece, catututen danean bashen bestetan eztala) pecaturic eguiten. Bai, catua artutera eldu bagaric (ainbagaan) beré pecatu eguin lei, eta ascoc eguin daroe orretaraco bidean yarten direalaco, edo besteri bide char ori emoten deuteselaco. Ara emen nos alde onetati pecatu eguin doian gueyen. Lenengo ardan-guelara doazanac yaquinda bere ara ezquero gueyenetan larregui edan bearco daveela. Bigarrengo, dabiltzazanac asmu billa ea nondi nora izango daveen ondo edateco erea, aldian sabelari ase-aldi bat emoteco. Yrugarrengo doazanac yocora, fiestara, iletara, conbitera, eta alangoetara al dayen ardao guztia edaterren. Laugarrengo ordiac batzanduten direanac yaquinic olango lagunacaz batu ezquero orditu oi direala. Bost-carrengo iñori orditu eraguiten deutesenac edo ishilic gordeta daucan gauzaren bat aguertu eraguíteco (erasateco, edo edan baacoan eguingo ez leuqueena eraguíteco), edo ainbagaric burubaaco tema gogai-carriacaz. Ardaoa salduteco dauqueenac beré pecatu eguiten dave emoten badeutse beragaz ordituco direala daquienai edo ichiten badeutse berandu artean tabernan yocoan ta edaten egoten.

Ordiqueria da beste pecatu ascoren artean pecatu andia ta icaragarria; beste ascoren sustraia, beste pecatu ascoc baño guizona gueiango itsututen davena, eta beste asco baño (ascoren aldean) quenduten gachago (gach) dana. Ygcoac berac dirauscu ce ordiac eztaveela ceruric icusico: ordiquerian dagoala seigarreneco loiqueria, ta zantarqueriac. Ordiqueriatu etorri oi dira biraoac, aserreac, gorrotoac, auçi-ondagarriac, lapurreriac, eta beste asco. Ardao larreguiac emon daroa seigarreneco zantarquerietaco gantza, eta ordiac eta edanduac esan ta eguin daroez, euren buru arguiari dagozala esan ta eguingo ez leuqueezan nasaiqueriac, ta loiqueriatzar andiac. Nequez icusico dozue bere burua orditzat daucan ordiric. Nequezago oraindo ondu izan danic.

Ain da gach ordi bat salbetea ece, diño S. Juan Crisostomo-c ecin ecetara (iñondi) beré izan leitequeala. Ordi bat ecin ecec beré atera leique artuta daucan ecandu lotsa-garriti (Ordi bateri ecin ecec beré galdu eraguingo deutso (eraguin leio) artuta daucan ecandu lotsagarria), diño Santu andi onec. Imini bequioz bere beguien aurrean

Jaungoico onac beragaitic eguin izan dituzan mirari andiac; alper izango da. Esan bequioz Jaun onec beragaitic icusi cituzan neque, atsacaba, zauri eta eriotza gogorrac; alperric izango da. Gogora ecarri bequioz aren escuti artu izan dituzan mesede, eta ondasun guztizcoac, berac onentzat prestauta daucazan gloria, ta atseguintasun ederrac, eta deungueentzat daucazan betico su, neque, ta ala ezin gogorragoac; ezteutso eceri bere yaramongo; eta nago ece, bere arpeguico beguiacaz icusico balituz infernuco su itzaltsu ta icaragarri orreec beré, e-litequeala orregaitic (orregaitarren) onduco, eta tragu bat ardaogaitic anche suen erdian sartuco leuqueala bere burua. Eztago diño Santu andi onec ordi bat ceruco bidean sartuco daven gauzaric.

Ceuec dacutsue egunean bein celan zarrago eta gozoago eguiten yaqueen ardaoa aurrerago eta zaleago (eguiten dira); indar guchiago eta edan gura gueyago. Emetic ernetan yaque arimaco itsutasuna, eta onduteco gachtasuna. (Itsutasunagaz) eztave ezagututen euren pecatua, eta eztaroe confesau (ordiac) artu daveen moscorric (artu izan dituezan catuetati ezta amarrenic beré); eta ascotan bapere ez daveen moscorric, edo bai beintzat ondo guichituric eta ederragaz aurrera (edercaturic). Itandu bequio ordiric galantenari ea iños catutu izan bada, eta beingoan (belan) esango (erantzungo) dau: “ez Jauna. Ara, nosicpein baten edan ondochu, choromorotu, eta besteetan bashen (puscachu bat) apurchu bat arguiago parau bai, baya, caturic ez bein beré. Ecin inoc esango dau ni catuagaz icusi navela.” Ondu gura eztaveelaco ibili doaz itsu oneec confesore nasaien (arinen) edo euren barri ez daquienen billa. Neure entzula onac, cerura gura badozue, bildur andi bat artu bear deutzazue ordituteari, bada bein (oitura) ecandu char au icasi ezquero, ezin aztu izaten da, eta betico arimea infernuan galdu bearra ecarri oi dau. Ordiqueraren ganean beste emparaduen ganean bashen apur bat luceago egon naz; baya gueiago ta gueiago eguingo baneu beré ondo eguinic legoque, eta guztia ez litzateque asco izango, ce eztago escuen artean darabilgun bostcarren aguindu onetan ecandu lotsagarri onec baño arimeari calte gueyago ecarten deutzanic. Goazan beste gauza batera.

Orain artean berba eguin deutzuet euren buruai larregui emonda calte eguiten deutseenac gaitic, orain azquenean eguingo deutzuet bear dana euren buruai ez emona-gaiti calte ecarten deutseenen ganean. Pecatu mortala eguiten dave euquiric cegaz bici, cequentasunez, escueutsiz, eta lauciri ez casteteagaitic osasunaren caltean euren buruai gosea emon, edo soñari ta oñari bear leuqueena ez

emon-da, calte andia eguiten deutseenac. Eta ¿ceinbat cristiñau bici dira gueure artean bai guizonac ta bai emacumeac gau ta egun, eta esan lei yai ta aste, negu ta uda, nai euri, nai aterri, nai ecach, beti arrastaca, beti amurraturic, euren buruac narras (tresna eguinic) dara-biltzazala cerbait aurreratuteagaiti. Eta orretaraco etsean euqui zegaz ondo igaro? ¿Ceinbat andra seindun, ta ascotan osasun motelagaz, auzoetacoai cer esana emoten deutseela, euri ta aterri lanean eten bearrez, etsean dauqueela cegaz ondo bici, cerbait gueiago euquitearren? ¿Ceinbat cristiñau, laborea salduteco (ceruac emonda) etsean dauqueenac, eta arto puscachu bat ozta gorrian sabelari emoten deutsenac, eta gose gogorrac igaroten dituezanac (ez casteteagaitic)? Ceinbat gaisho dirua ta euquia osticopean (bear bada galduten) dauquenac, eta codiciaren codiciaz [erri]el bat guichituteco erruquiagaitic ilten dira euren buruai bear leuqueena emon ez eutseelaco (ez emonda)? Oneec guztioac bada, eta euren moducoac pecatu mortala eguiten dave.

II. No-beren buruari gach eguiten deutseenen ganean celan alan eguin ezquero, igaro gaitazan orain bestei calte edo gach eguiten deutseenetara, eta iragarri daigun nortzuc eguin daroyoen euren eguite charracaz, eta nortzuc deungaroac esanagaz. 1º Eguiten dave bada pecatu mortala euren guraz besteren bat il, ebagui, edo irrime yo eguiten daveenac, dala arriagaz, dala maquilleagaz, dala ucabillagaz, dala osticoagaz, dala beste edocein beré gauzagaz. Baita onelangoac pecatu eguin ez ece, baita beré andic datorquiezan calte eta castau-bear guztiac beré oso osoan emon ta pagau bear deutseez. Berbaraco: maquilleagaz artuta, eyo eyo eguin cenduan guizon ezcondu bat, bere bear eguinagaz emaztea ta umeac mantenduten cituzana (bere bear eguinaren beguira eucazana): bada ceuc osotu, eta emon bear deutzazuz osatuteco bear dituzan diruac, eta oian dagoan artean galdu bear dituzan aloguerac, eta irabaciac; 2º Eguiten dabe pecatu mortala armaac artuta bideetara, ta etseetara lapurrerian doazanac; bada onelangoac aldean darabilde beti, edo bestea ilteco, edo eurac ilac izateco pelleburua. 3º Armea artuta (esan dan leguez) izan ez arren beré pecatu eguin leye bostcarren mandamentuaren contra, iñoren ortura, solora, etsera ishil ostuca ortuariac, artoac, gariac, frutac eta; edo lapurreria eguiten doazanac edo bidera inori urteten deutseenac: cegaitic ece sarri onelangoac izan daroe bertan ilac izateco bidea: guztiz beré gaurco egunean lapurrac ascotu (gueitu) eta lotsabaacotu, eta guizon-ilteari itzala ta bildurra galdu yacan ezquero.

4° Pecatu mortalean bizi oi dira maquillacariac, eta ocasiñõ-tzuac (zaleac) alcar banatuteco, eta ez bein alcar ilteco bidean paretan (yarten) direalaco. Eta baque-charreco oneec pecatu ascoren yaube izan doaz, bada sarri ta ascotan erabili oi dave biotzean eguiten daven baño gach gueyago eguin gurea, eguin-ez-aren damu gogorra, luza-roco gorrotoa ta icusi-ecina, emon daroe besteac beré beste orren-beste eguiteco bidea, eta imini oi dituez errietan cer-esan (berba-lecu) andiac. Ecin esan bere eguin lei ce caltegarriac direan errietan onelango maquillacari ocasiñõtsu baque gaiztocoac. Baquea gura daveenac eztaquie euren aurrean ez cer esan ez celan berba eguin. Bear bada bapere eztan berba bateri oratuta, bertan ernetan dabe ezdabaidea, errieltea, aserrea. ¡O ceinbat pecatu eguin ta eraguin daroezan onelangoac! Etsea zorrez beteta, emaztea, ta umeac billosic ta goseac ilten dauqueezala, dabiltz alango guizon baque deungacoac guelditu bere bagaric erriric erri, probaric proba, tabernaric taberna, ta ocasiñoric ocasiñõ, alde guztietan atsacabea, cer-esana (berba-lecua), escandalua, eta gorrotoa, besteric ichiten eztaveela.

5° Eguiten dave pecatu mortala amaac eta iñudaac edo seinzaiñac ardura andi bat iminten ezpadave euracaz eratzoten dituezan umechuac ez itoteco (irototeco) edo ez ilteco. Onen ganean diño Erroma-co doctrina liburuac ece, ez leuqueela gurasoac eta besteac euracaz eratzo bear alango ume titicoric, eta iños eguingo badave, imini bear leuquee bitartean almodaren bat, edo erropa moltsoren bat alango gauza charric yazo ce dedin. 6° Eguiten dave pecatu mortala euren umeac legue eztan leguez, eta gogortasun larreguigaz castiguetan dituezanac, araco euren umeacaz aserraturic, suaren suagaz itsuturic, cer eguiten daveen beré eztaquiela, edonon yoten dituezanean, nai buruan, nai betondoan, nai sabel edo estametaganean, nai sayetz-aldeetan, eta edocean gauzagaz, ucabilagaz, osticoagaz, maquilleagaz, bartzunagaz, edo escuan lelengo emon dayoen edocean trechugaz: guero umeac baltzunez, tontorrez ta zauriz galduric egun osoetan bear bada oean egon bearco daveen moduan. Castigadu beguiez bear danean gurasoac euren umeac, yo beguiez, eci beguiez, baya ez araco aserre arren cer eguiten daveen bere ez daquienean, ezpada euren epetasun onean; eta ez biotzeco arrabioa asetearren, ezpabere umeac ondutearren.

7° Eguingo dave pecatu mortala emacume seindunac, eguiten badave sabeleco seinchua galduteco (gastetaco) izan leitequean gauzaric, celangoac direan aserre gogorrac izatea, pisu astunac buru ganean artutea, bateric bestera (dagoz) arri labanaren ganean saltu

luceac eguitea, eta onelangoac. Eta oraindo pecatu icaragarriagoa eguin daroe emacume orreec euren pecatua aguertu eztedin aleguinac eguiten dituezanean seinchua galduteco edo ilteco. Iya biciric dagoan seiña aleguinacaz galdutea da pecatu icaragarritzco esquerba bat, ceinen contra Eleisha ama santuac descomuniñoa, eta beste castigu bildurgarritzco asco iminiric daucan. Eta ez bacarric eguingo dau pecatu au eguin daguian nescatillac (emacumeac) baita beré orretan iminten daveenac, edo ori eguiten celan alan lagunduten deutesnac, boticacoa aguinduten deutesn medicu-oficialear, edatecoa eguiten daven boticarioac, eta beste edoceinbere aldetic sein-galtze orretan escua sartzen daveen guztiac.

Jauna, au yazo izan yacana etse on bateco alabea da, eta errian zabalduten bada, galduric lotuco (gueldituco) da, ecin ezcondu leiteque seiñaren aitagaz: bestec au yaquinic eztau beragaz eguin guraco: bera ondra (cleitu) bagaric, gurasoac, etsecoac, eta senidetahun guztia damu andiagaz, eta erri guztian cer-esan andiac (ebilico dira). -Bai gura badau. Orreec contuoc leenago atera bear cirean: baya oqueluetan (ostenderetan, zocondoetan) eta basterretan cer gura eguin, celan gura ibili, guero coari bildurric artu bagaric, eta guero seiña oratu yaqueenean: ¡ay ene ondra! ecin ezconduco naz... eta oquer eguina estalduteco ta lotsaritan ez ibiltarren erruric eztaucan sein gaishoari bizitzea galarazo gura? Ori ezta legue, ez Yaungoicoac aguinduten (eracusten) davena. Mendietaco pistiaric uzuenac bere eztaue orrenbeste eguiten euren sabeleco umeacaz.

Ezta balitz nescatilla ori erregue andi baten alabea, eta balequi bere sabelean daucan seinchua ez galduteagaiti erreinu guztia guerra gogorretan erre ta ondatuco litequeala; edo seiñ ori galduagaz baque, zorion, eta ondasun ederrac erreinu guztian zabalduco litequezala, ecin orregaitic beré eguin lei alango gauzaric, eta eguingo baleu, pecatu icaragarritzco esquerba bat eguingo leuque. ¡O sein-galtzallac, sein-galtzallac! bacenquie ondo zer eguiten dozuen seiña galduen dozueanean nonbaiste beré etzenduquee alango gogorqueriaric eguiteco biotzic izango. Eztaquit nic zelan gau bacar baten beré lo gozoa eguin cinaiqueen, arima gaisho bateri, bapere erruric eztaucan arima bateri Jgcoa icustea betico galerazo deutesazuen ezquetiño. ¡Ay! Ceuen contra vengantzeta Jgcoari escatuco deutso arima gaisho orrec, eta bildur izan bear tzare Jgcoac entzun eguingo dituzala ceuen arimac gaña costa izan yacazan arima orreen deadarrac, eta mundu onetan eta bestean cer icusi andiac izango dozuezala.

Pecatu mortala eguiten dave seindun dan andrea edo nescatillea gogor artu eta aguiraca, ta bear bada yoca, galantac emoten oquer darabildeenac. Bildur izan bitez bada araco senar gogorrac emazte nai seindun, nai seindun ez, deadarca ta otsac emoten darabildeezanac. Legue guztiac seiñ-eguiteco dagoan emacumeari lotsaz ta erruquiz beguiratuten deutse, eta aric eta seiñ eguin artean echaque castigoric emoten deungaac (oquerrac) eta gaistoac izan arren. Eta ¿senarrac erabili bearco dau bada emazte catigua osticoca, ta colpeca bildur gueiago bagaric? Eztaquit nic nongo legueac eracusten deuten onelango nabarbentasunac.

Pecatu mortala eguin daroe seinchu galdua (gastaua) yaquinen ganera bateatu bagaric artuta uretara bota, edo lurpean sartu eguiten daveenac. ¡Ay cristiñau maiteac! negar eguitecoa da onen ganean ascotan baño gueiagotan yazo oi dana. Enzuzue arren ceuen oneraco eta seinchu gaishoen oneraco alango aldietan cer eguin bear dan, bada au ez yaquinagaiti Jgcoac daqui ceinbat arima eder galduten direan bere arpegui gozoa icusi bagaric. Galdu dan seinchua bere formeagaz badator, eta ustelic ezpadago, bateatu bear da, baita ilaren echuregaz eta eceri eraguiten ezteutsala baletor beré. Sacutochuaren (azalaren) barruan badator sacutochuari eten bat eguin bear yaco edo artaciacaz, edo atzazalacaz edo alan, eta barruan dagoanari ura eguiten yaca. Biziric dagoala aguii badau ura eguiten yacanean esan bear da: “nic bateatuten zaitudaz Aitearen, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren icenean”. Eta contu, cristiñauac, lenengo asieraco berbacz; “nic bateatuten zaitudaz” esan bear da, eta ez ainbagaric, “Aitearen” etc. eta biciric dagoala aguii ezpadau, eta ustelduric ezpadago, esan bear da: “biciric bazagoz nic bateatuten” etc. Baita orrenbestegaz guero aren arimachua cerura yoango da, ume ori ilic ezpegoan. Eta ez esan iru astecoa zala, amabost egunecoa zala: dana dala alanchec eguin bear da, ece batec eztaqui nosgarren denporan biztuten dan seinchua, eta alan eguinagaz ezta ecer galduten, eta bear bada ez eguinagaiti aren arimea bein betico linbora galduten da.

Azquenez pecatu mortalean bici oi dira bear dana yaquin bagaric errietan paretan direan medicu-oficialear, edo leen iños beequien beré, liburuai autsa quendu ezagaiti aztuten ichi izan daveenac. Guero itsu-mustuan aguinduten dave sangria bateti, purguea besteti, osatuten bada osatuten dalaco, ilten bada ilten dalaco; eta Jaungoicoac daqui celango calteac eguiten dituezan ascoren osasunetan, eta oquerrago dana, ascoren bicitzan beré.

III. Eldu gara ibilian ibilian eguin bearrera irugarren agundu deutsuedanaren ganean, eta orain esango deutsuet nortzuc eguin daroen gueyen pecatu mandamentu onen contra, besteren bateri deungaroac esanda. Eguiten dave bada 1° besteren bateri su minagaz esaten deutsanac *ordia, lapurra, andratia, nescazalea, charria, zantarra* edo onelangoren bat besteac ori entzunda biotzean min andia artuco badau. Onelango gaucetan beguiratu bear nori ta cer esaten yacon, bada bateri esan-da bear bada ecer eztana, edo ecerezqueria bat dana, beste bateri esanda gauza astuna ta zacona izan leiteque. Esatea, contu daigun nesca gogo-arin, (zorapillo), lotsa-galduco nogaz gura dabilen bateri *zantarra, urdea, Elesha osteitico emaztea*, ezta pecatu andiric izango eta echaco orregaiti gorrituco arpeguia; baya esaten badeutsazu nescatilla garbi bateri edo andra bere lotsa onean bici danari, pecatu andia izango dozu. Esaten badeutsazu asco lotsatuten danari, *sasicumea*, edo *borta*, pecatu mortala eguingo dozu; baya esaten badeutsazu bapere ezdeutsanari (biotzera igaroco e-chacanari), edo entzunda barre eguingo davenari, ezta orduan ecer.

2° Pecatu mortalean bici oi dira araco guizon-emacume sutsu, aserrecor, baque charrecoac, aldea-uri, auzotegui guztia, eta bear bada erria, goicoaz bera darabildeenac: orain aserratuten dira bategaz, guero beste bategaz: erdi-berba bat entzutea, eurai adicune (beguiracune) bat eguitea edo bear bada eurai buruac emotea, edo cerbait eguin deutseela beguiundutea (eguin deutseelacoa artutea), asco izaten da aora datorquiezan (iñon direan) deungaro guztiac esateco. Eztau iñoc euracaz barbaric eguin gura, guztiac dabiltz (dabilquez) eurac ganic iñesi, guztiac deutsee bildur. Onelangoac ecin ausolbidu leiz euren ecandu citala galduteco aleguinac eguiten ezti-tuezan artean. 3° Pecatu mortalean bici oi dira araco senar-emazteac, alcar ondo artu-ezta, beti chacur-catuac leguez aserre ta baque charean bici direanac, etse guztia ta etsecoac darda ganean darabildeezala euren betico deadar ta aguiracacaz, eta euren birao esquera itzalacaz. Onelangoac guero esan daroe: ¿esteutsagu bada ecer esango lagunari bear eztana eguiten davenean? ¿Ezteutsegu aguiraca eguingo seme-alabai, otseinai (oguitucoai) eta mendecoai gaucea oquer eguiten daveenean? -Eta ¿orretaraco bear dozue ainbeste astrapala? Ori berba andi bagaric eta arrantza andi bagaric beré eguin leiteque, bear dan leguez eguin ezquero. Eta dacuscuna da, guraso aguiracariac ume lotsabaacoagoac ateretan dituezala, eta ugazaba deardarcariai, oñon ta oñon (marmar) baño egoten eztaquienai otseinac lasterrago lotsea galduten deutseela.

Ascoc eta escoc imini oi dave achaquiatzat, arminac eta errai-estuac direala, eta barruac icharoten ezteutsela. eta berbachu bat entzun orduco ain modutan suac artuten dituzala ece, cer diñoen bere eztaoen yaquin. Baya ori da Jgcoari pecatuen errua egozte (ezartea), bada da esatea leguez alan eguiten badave dala Jgcoac genio errea ta estua emo'eutselaco. Barriz Jgcoac berac dirauscu ece, berac guizona arteza eta zucena eguin evala, eta guizona bera guero sartu doiala milla oquerrunetan. Eguia artz esan bear yatzue. Ceuc, ceuc daucazu errua, ceure ecandu citalari indarra emon ceuntsalaco, araco lenengo burua aguertu evanean, eci ta azpiratu ezta. Ea ezpabere esan eguidazu ¿cer eguin dozu ceuc ceure genio larri ta irritu ori galdute-co, edo cerbait bigundu ta escura ecarteco? Ecerbere ez. Araco icusi cenduanean odola berotuten yatzula ¿eguin cenduan aleguina su gueiago artu baño leen amatetaco? ¿Alde eguiten izan dozu aserratute-co bide ta pellebruetati? Ceure contra cerbait esan izan daveela asmau edo susmatu dozunean ¿eguiten izan dozu ez yaquitearren? Norbaitec deungaroren bat esan izan deuntsunean ¿eguiten izan dozu-tzazu [sic] ceure buruari indar ishil ishilic egoteco edo besteari bigun erantzute-co? Bai cera. Oquerreco guztia bai eguin izan dozula.

Yaquin izan badozu norbaitec ceure contra ecer esan izan davela, bertan bera ichi bearrean, ibili izan zara yaquin ezinic esan daven chiquien chiquien guiñoco guztia, eta laster gogoac emon eta ceuc sinistu bere eguin izan dozu cegaitic izan dan, eta ceentzaco eguin izan daven. Ceure contraco berbaren bat iñori entzun badeutsazu, edo baderichazu ceure contra besteac diñarduela, aric alde eguin bearrean, belarriac zur zur eguiten dozuz ea entzun al-baciñai aec cer esaten daveen. Iñoc deungaroren bat edo berba astunen bat esaten badeutsu, aztu bearrean, beti zagoz á gogoan ta aoan dozula; guztiai esan gura ceunquioe, eta guztia imini gura cenduquez ceu zagozan leguez aren contra aserre (ceu zagozan aren contraco aserrean). Eta alan ¿celan izango eztozu genio errea ta irritua? ¿Celan biotzac sua artuco ezteutsu zu ceu su emoten bazagocoz ? Ez, Cristiñauac, ezta achaquia ona genio irrituena; norberen buruari indar eguin, eta eci, ta azpiratu bear da genioa.

“Yauna, esan daroe beste ascoc, bera asi yatan deungaroac esaten: niri ezer esan ezpaleust ni ishilic egongo nintzan. ¿Cegaitic ac esan bear eustazan ainbeste picardia ta lotsa-galduco berba?” -Orretati, besteac deungaro eguin davelaco, ceuc beré eguin bear dozu: besteac pecatu eguin evalaco, ceuc bere eguin bear dozu: eta bestea infernura

doialaco, ceuc beré atzean yarraitu bear deutzazu. Eta ¿cer atera izan dozu orregaz? Ecerberetz; gaucea deungago imini, irritu, aserratu, eta bein baño entzungo etzenduana ascotan entzun bear. Eta bear bada ataric atara querellea, demandua, aucia ta gorrotoa. Orra cer dacarren asheac eroango euan berba bateri oratuteac, eta yaramaiteac.

Baya oraindo beré andiagoa, eta lotsagarriagoa da beste batzuen itsumendia. Ascoc eta ascoc ez bacarric eztave artuten eguin izan daven pecatuen damutasunic, ez bacarric eztira lotsatuten aoac emoten izan eutseezan deungaro guztiac lagunari esan izan eutselaco, ezpada ce euren buruac edertu ta alabadu (goratu eguin) oi dituez ori eguin eveelaco, gauzaric ederrena eguin izan balebe leguez; eta deungueen dana, urte osoetan iraun oi dave euren buruen alabantza (iraun oi deutse euren buruen goratasun, alarde) orreec. “Ay celangoac entzun bear izan dituzan”, esan daroe cristiñauen icena baño eztauqueen cristiñau oneec: “celangoac esan deutzadazan: iños entzun bear badituz, entzun dituz beintzat oraingoan. Bela baltz bat baño baltzago eguin dot.” -Orretan cristiñaua ezteutzazu ceure buruari alabantza charra emoten. Pecatu mortal icaragarrizco bat eguin izan dozu, eta cristiñau batec bada alabau bearco dau bere burua pecatu mortala eguin izan davelaco? Benetaco cristiñaua bacina lotsatu, mututu eta arpeguia yausi yausi eguinic gueratuco (lotuco) ciñatequez (olango gauza charra eguin izan dozulaco) icusiric ceinbat pecatu eguin cenduzan besteari bere chacharqueriac eta oquer eguinac bere mosuan esanda (emonda). Alan eguiten daveenac ez bacarric pecatu eguin eueen euren asarre uean lagunari deungaroac esan eutseezanean, baita bere euren buruac alabetan dituezan guztian, eta alan eguiteco gogoan dirauen artean ezin crutzeric emon leioe (ausolvidu leiz), cé eztauque pecatu eguinaren damuric, ezta barriro ez eguiteco gogoric.

Pecatu mortala eguiten dave araco ezconduac euren etsea ta etseco guztiac darda ganean darabildezanac euren deadarracaz, aguira-cacaz, astrapaladacaz; chirimiri (chiqui-miqui) bategaiti, ecer eztan gauceagaiti (ecen ganean) paretan (iminten) dira dariela aoti bitza, begietati sua, eta alde guztietati garra. Echaque enzuten besteric ezpada barbaric astunenac, garratzenac, eta lotsabacoenac, senarrac emaztearen contra, emazteac senarraren contra, gurasoac eta umeac alcarren contra. Etsea da infernu eguin eguin bat, auzoco guztiac dagoz icaraturic ango egunean eguneango aserreacaz, errieltacaz, tirlluacaz ta desgarrioacaz.

FRAY MATEO DE ZABALA

11. BOSTGARREN MANDAMENTUAREN GANECO ICASBIDEA

(B, 40-43. or.)

1. Jaungoicoaren legueco bostgarren mandamentuac dirauscu, ne. Cristiñaiac, ez iñor ilteco. Baya berba oneetan ez bacarric galaazoten deuscu iñor iltea, bai eta iñori gach eguitea ez berba, ez obra, ta ez gogoz beré. Lelengo aguinduten deuscu ez gachic eguiteco eguiquera[z] (eguitez) edo obracaz; eta alan eguiten dau pecatu mortala norbait ilten dabenac, zauri edo eparen bat besteri eguiten deutsanac, osticada, arricada, maquillada edo beste golpe andiren bat emoiten deutsanac; eta ez bacarric eguiten dau pecatu, baita biurtu ta errestituidu bearco dituz eriotzea edo zauri atatic datozan calteac, nai dala osatuteco eguin direanac, nai dala bearric ecin eguinetico datorcozanac. Contu daigun, iñori zauriren bat eguiten badeutsazu pagau bearco deutsazu zauri ori osatuteco eguin dituzan gastuac, eta egon bada egun batzuetan bearric eguin ecinic, osotu bearco deutsazu irabacico ebana. Eguiten dau pecatu mortala mandamentu onen contra izor (andi), edo seindun dan emacumeac seiña galduteco pelleburuan iminten bada, edo cerbaist artu edo eguiten badau seiña galduteco honrea galdu ezeiteagaitic. ¡Ah ceimbat onelango yazoten ete dan munduan! Dabiltzaz ecin esan leitequezan loiqueria ta maldadeetan, eta guero iñoc yaquin ce daguien, edo estalduteco euren maldadea artu, eta eguiten dituez Jaungoicoac daquiezanac seiña galduteco. Baya yaquin bear dabe onelangoac ce, Abel errubacoen odolac Cain bere anayaren contra deadar eguiten evana leguez, alan eguingo dabela beré euren sein galduenac, eta ez bacarric bere contra, baita beré berari au itundu edo consellu emon deutsenac, botica edo edariren bat emoiten deutsenac, eta lagunduten deutsenac; bada da pecatu guztiz icaragarria, eta ecin eguin leitequeana, nescatillearen edo bes-teren baten honrea galduco bada beré.

2. Bigarrego: mandamentu onec aguinduten deuscuna da ez iñori gachic eguitea berbaacaz, edo esanagaz; eta alan eguiten dabe pecatu iñori esaten deutsezanac berba astun, garratzac, edo injuriaz-

coac; esango beleutsana leguez: *ordia, lapurra, sorguina*, edo beste onango berbaren batzuc. Ezteutso eguia izana gaitic; bada alambere lotsatuten bada, edo honrea galduten bada, izango da pecatu; eta ishiliic beegoan, edo iñoc ezpequian modu orretan esaten yacon gaucea, parca escatu ez ece, baita biurtu ta osotu bear yaco modu orretan quendu yacan honrea. Ascoc ta ascoc ez bacarric eztaucque onetan escrupuluric, baita beré alabadu oi dira orren ganean eta alazoco gauzaren bat eguingo baleudena leguez esaten dabe: nic beintzat ezteutsat parcatu; iños enzun badau, oraingo aldian enzun dituz. Bai izan beré, gauza andi bat eguin dozue. Esan eguidazue ezpabere, ¿cer atera dozue lotsaba'co gauza orreec, eta aora datorquizuezan guztiac esanagaz? Zuen buruai eguin deutzazue calteric andiena. Ay Aita, esango deustazue, bera asi zan, ishiliic egon balitz e-neuntsan nic ecer esango. ¿Cetaraco, bada, niri esan bear eustazan esan eustazanac? Ezta gauza, dana dala honraren contraco gauzaric esan baceuntsan eguin cenduan pecatu, baita daucazu obligaciño estua biurtuteco bere honrea.

3. Eguiten dabe mandamentu onen contra pecatu iñori birao eguiten deutsenac. Da biraoa gauza deungaren bat edonori beré etorri daquion escatutea: esango balitz leguez: *tripa-ala gogorrac yo ayala; correnia gogorrac eroan ayala; arren bada, milla demoniñoc erango al aude; ilic gueratuco al as*; eta beste onango berbaac. Escatuten dan gacha andia bada, eta gura bada etorri ta yazo daquion, izango da pecatu mortala. Baya edonoc beré esango deust: Aita, ezтира biotzetic izan. Baya ecin au beti sinistu leiquezue. Esan eguidazue ezpabere ¿nos bota daroazue birao orreec? Gueienetan gachen bat eguin deutsuenean: azaren batzuc quendu badeutsuez esan oi dozue arren bada beso biac igartu daquiozala. Frutaren bat quendu badeutsue diñozue: *beragaz ito deila*; idia edo beia sartzen bada ortuan edo soluan, *lupu gogorrac yo dayala*; dirua edo beste gauzaren bat quendu badeizue, *milla demoniñoc quendu daiela; atserengoac eguin dai zala*. Eta ceimbat andiagoa dan eguin yatsuen gacha, aibat eta gogorrangoa da eguin oi dozuen biraoa, eta arrabia andiagozcoa. Orregaitic izaten da gueienetan birao au biotzeticoa, bada dator caltea emoten daben sentimenturic. Ez, Aita, esango dozue, bertati igaroten yat, eta damututen yat; ezteutso orregaitic, ya dago pecatua eguinic, gogo edo biotzetic bazan, ce onetaraco mementochu bat da asco. Esan eguidazue, arrabio bategaz yaurt eguingo baceuntse norbaisteri tiro bat, eta bertan ilgo bacendue, esan cinaie eztozuela zuec

il bertatic irago yatsuelaco? Ez, bada orduraco ya dago caltea egu-
nic. Beste batzuc eranzuten dabe: Aita, dauquedan ecandua bashen
ezta. Aibat oquerrago, ce izanic borondateagaz, deungagoa da cos-
tumbrez, edo ecanduz eguiten dan pecatua, eta ecandu ori galdu cinai
gura bacendu.

4. Yrugarrengo: mandamentu santu onec aguinduten dabena da
ez besteri gachic eguitea, guraari, edo deseoz: eta alan eguiten dau
pecatu mortala ñori eriotzea, gach edo calte andiren bat gura deu-
tsanac, gorputzean, osasunean, ondasunetan edo arimaan. Eguiten
dau pecatu poztu eguiten danac besteri yazoten yacazan gachacaz,
edo tristetuten danac besteari datorquiozan ondasun, honra, fortuna,
edo beste onen batzucaz. Bardin da pecatu gach eguiteco gogoia
euquitea. Eguiten dau pecatu edonori gorroto deutsanac; baya ¿ceim-
bat achaquia euqui oi da gorroto onen ganean? Batzuc aserratu arren
iñogaz, esan daroe ordu atan berean eztaquiela cer eguingo eutsan;
baya gira eguin orduco bertatic igaroten yaquela. Baya orreec gorro-
to euqui beutsen besteari, eguin ebeen pecatu bertatic igaro bazan
beré, leen esan dodana leguez. Ascoc ta ascoc ezteutse barbaric eguin
gura gach eguin deutsenai: bidean aurquietan badira aldenduten dira,
eztabe icusi gura beré, eta orregaitarren diñoie, ezteutsela gorrotoric,
bada ezteutsela gachic gura. Eztaquit, ne. Cristiñaiac, au celan izan
leitequean, ce icusten dana da, guizon edo anra [sic] orregaitic berba
eguiten bada bertatic eracusten dozue zuen biotzeco aserrea: ondo
berba eguiten badare beragaitic ecin sufridu dozue; deungaro berba
eguiten bada poz andi bat artuten dozue, zanzuezan guztiac ezagutu-
ten dabe aserre zareana beragaz; auzotegui guztiac, eta ameneco erri
guztiac daqui arerio zareana, dagoz escandalizaduric, eta ceüec baca-
rric diñozue eztaucazuela gorrotoric. Contu engañadu ce zaitezen, ce
ezta asco beste aldetic mandamentu au gordetaco gauza deungaric ez
gura izaitea; bada emon bear dira beré biotzeco edo barruco amodio-
aren ezaugarri ta igargarriac, eta beste gauzaric esatea galarazo eban
Ynocencio amaicagarren Erromaco Aita Santuac. ¿Celan bada emon-
go dozuez biotzeco amodioaren señale edo igargarriac beragaz berba
eguin gura ezpadozue, eta beraganic bidean edo calean alde eguiten
badozue? Beste batzuc esaten oi dabe: Ezteutsat gorrotoric, baya
eztot gura aurean imini daquidan, ce iminten bayat eztaquit cer
eguingo dodan, bada bera icusiac berac aserratuten nau. Baya esa-
quera modu onec adietan emoiten dau, biotza gorrotoan icioric dau-
cazula. Yazo leiteque, ne.C^a.c, zuen errubagaric sentimenturen bat

euquitea, araco gach eguin deusuenen icusten dozuenean, baya orduan eguin bear dozuena da, aleguina eguin aserre ori amatetaco, eguinagaz beraganaco caridade edo amodiozco actoren bat, edo escatuagaz Jaungoicoari quendu daguizula aserre edo gorrotoa. Osterancean ¿noc sinistuco deusue eztaquezuela (eztauczuela) gorrotoric?

5. Amadu edo maite izan bear doguz arerioac, andi eta gogorrenac izan-arren beré, eta alan osteranchacoacaz eguin bear dogun guztia, eguin bear dogu aecaz beré, ametan doguzala: eta ezta asco amodio campoticoa bacarric, ezta barru edo biotzecoa bacarric beré, ezpada bitzuoc erabatera bear dira (bietacoa). Lelengo izan bear da barrucoa, au da, parcatu bear deusaguz eguin deusczuzan gach guztia; ez gara poztu bear yazoten yacan gachagaz, ez gara necatu bear datorquiozan on eta fortuneagaz, eta guztien ganean gura izan bear deusagu betico gloria. Izan bear da beré amodio au campoticoa, au da, emon bear deusaguz barrutic deusagun amodioaren igargarri, ta ezaugarriac; eta alan gose bada, emon bear deusagu yaten, egarri bada edaten; gure bear bada, lagundu bear deusagu; ezteusagu ucatu bear berbea, eta gure eguite ta gauza guztietan adierazo bear dogu maite dogula ta ondo gura deusagula. E-chacu galarazoten mandamentu onetan eztaigula escatu gurea dana, eta alan escatu leiteque zor deuscuenen pagua, ondasun edo haciendaren biurquerea, eta bestelan ecin bada Justiciaren aurretic beré; baya aucia emoiten bada, izan bear da intenciño, gogo ta biotz deunga bagaric; eta auciric badago, contu neure Cristiñaiac, gorrotoa biotzean sartu ce dedin, ce guztiz da erraz au yazotea edo obeto esateco guztiz da gach gorrotobagaric aucitan (eguitea) ibiltea. Orregaitic J.C°. gueure Jaunac ez evan gura Cristiñaien artean auciric izan cedin; eta alan cirautsen Apostoluai, ta Apostoluetan guztioi: Etzaitete aucitan ibili, eta alan iñoc matrallan yoten bazaituz, imini eiozu beste matralla; iñoc auciren bat ifinten badeutsu eta ce[u]re chupea quendu gura badeutsu, emon eiozu capea beré; norbaistec eroan gura bazaituz milla pausu, zoaz beragaz milla ta bi beré. Eta berba oneetan dirauscu gure Salbaguilleac, S. Juan Crisostomo-c diñoanez, obe dogula diruac, ondasunac, honrea, eta erropac galdu, aucitan ibili bashen. Baya ¿ce urrun dagozan asco ta asco gaurco egunean J.C°.c emonico itundute edo consellutic! Tabernan, conversaciñoan, yocoan, edo ayuntamentuan esan edo urteiten daben berba bategaitic, berpertatic aucia ta querellea. Esan arren onelangoac asheac daroian gaucea dala, bertan

bera istea dala ondoen, guztia gueratuco dala aitzuric, eztau enzun gura izaiten. Honrea galdu deust, esan daroe; *guzurtia, ordia, lapu - rra*, edo *picaro* bat nasala esan deust; ezteutsat parcatuco daucadana galduta beré. Neuc iracatsico deustat celan berba eguin bear daben eta bertatic querellea. Sartuten dira emetic procuradorea, andic aguacila, emetic escribauba, andic letradua, eta gueratuten dira arimea galduric, ascogaz arerio, eche eta soloco bearrac atseraturic, eta bolsea utsic. Eta ¿cer atara dozu, edo cer aurretu dozu? Ecer ez; ez daucazu leen baño honra gueiago, leen cineana zara, eta gueienetan onango auci eta querellac compondu bear izaiten dira, ceure contuac lepoan dozuzala. Yaramonic eguin ezpacendu, ishil ishilic egon bacina ez eutsuen ataraco pruebetan enzun direan milla gauzachu, bada guzurrac izan arren, ascoc uste dabe eguiac direala; azquenean (guero beré) ezagututen dira diñodazan eguia oneec; baya belu, erre-medioric eztauquenean. Orregaitic lenagotic beguiratu bear dira gorputz eta arimaco calte oneec. Aushe berau yazo oi da zor edo artuenen baten ganean aucitan ibilten danean, bada guztiac balio daben baño milla bider gueiago gastetan sarritan asten dira, euren temeagaz urteitarren.

6. Neure Cristinaüac, bide oneco, eta gauza andien ganean danean aucia, ardura andi bat euqui bear da gorroto eta aserracuntzaric izan ez-tedin; baya dacuscuna da leen adisquideric andienac izan arren, aucia asi ezquero bertatic aldendu, edo apartetan direala; ecin alcar icusi dabe, bata besteen contra dagoz amorroturic, ataraten dituez daquiezan tacharic ezcutuenac, eta beti dagoz bata besteen contra. Orregaitic cirautsen S. Paulo Apostoluac Corinto-tarrai, oba ebeela injuria eta gachac irago, aucitan asi baño. Eta aushe berau dirautsuet nic beré zuei, oba dozuela edocein berba astun enzun, eta edocein neque eta gach igaro, aucitan asi baño. Eta bear bearrecoa bada aucia, imini lelengo Jaungoicoaren escuetan, escatu berari conveni yatsuena, eta euqui contu andi bat ceüen biotzagaz, gorrotoric euqui ce daizuen. Erbestetu edo desterradu daguizala Jaungoicoac mundu guztitic auciac eta querellac, eta emon deigula bere baquea. Amen.

FRAY MATEO DE ZABALA

12. ORDIQUERIAREN GANECO ICAS BIDEA

(B, 43-46, 75-76¹. or.)

Esanic Espiritu Santuac ardaoa dala fede edo sinistea guizonai ichi erazoten deutsana, berba eguin gura neunque ardao larregui edateco ecanduaren ganean, bera dalaco cristinautzea, eta guizona izaitea beré guizonai quenduten deutsena: bada egunean egunean dacusgunetic, ordi batec obeto dirudi abere mutu edo animalia bat guizona baño. Ba'quit probechu guichi ateraco dodana eracutsi alde edo doctrina onegaz; cé egunean bein dacusgu ecandu galtzaigarri onetan yausi direanetatic guztiz guchi emendetan eta onduten direala, eta ceimbat eta zarrago ordiago ta ardao zaleago izaiten direala. Baya bai nai (dana dala): onangoac dagoz condenaciñoco bide ta pelleburu guztizco icaragarrian, ta orregaitic berba eguin bi'ot, Jaungoicoaren aurrean achaquiatic euqui ce daien. Da bada ordiqueria ardao larregui edatea, sensuna galdu guiñocoan. Ascoc ta ascoc uste dabe ce, orditutea dala ardaoa estamangutic botetea, edo errebez eguitea; eta alan burua galdu-arren, non dagozan yaquin-ez-arren, cer esan edo cer eguiten daben gomuta ez izan arren, barruan dauqueena botetan ezpadabe, uste dabe ce, eztala orditutea, eta eztabela beré pecaturic eguiten. Baya ez, neure Cristiñaiac, uts eguiten dozue onetan; erraturic zagoce; ce sensuna galduten bada, da pecatu mortala, ecer botaten ezpada beré; baita erraz yazo leiquio bateri botatea tragu bat ardao bacarric edanda beré; edo estamangua otzic dagoalaco, edo beste gauzaren bategaitic norberen errubagaric, eta pecaturic eguin bagaric. Norbaitec itanduco deust: Aita, nos edo cetan igarrico deutsagu orditu gareana, edo pecatu mortala eguin doguna? Ara bada. Lelengo, biaramonean gomuta eztozunean cer eguin eta cer esan cenduan edan ezquero = bigarrengo, besteetan baquetsua izanic, eche

¹ Orijinaleko 75-76. orrialdeetan, hemen sartu beharreko zenbait eranskin jartzen ditu egileak izenburu honekin: "Ordiqueriaren ganeco icasbideari numeroac diñoezan lecuetan eraso bear yaquezanac". Zati horiek, beraz, beren lecuetan ipini ditugu, bakoitzari dagokion jatorrizko orrialde zenbakia ezarriz. Hortik sortu da testuan orrialde zenbakien nahasketa dirudiena.

guztia, eta echeocoac errebolbietan dozuzanean = irugarrenge, maldicino, birao, edo blasfemiatic botaten dozuzanean olango ecandu edo usadioric euqui bagaric = laugarrenge, echera nondic zabilzan eztaquizula, zoazanean, bideric zabalenac bedar-estuac dozuzala: emeco ormea yo, ango munean yausi, sasi onetan echun, eta ango lupatzen sartu, urrengo egunean eztaquizula ez non yausi, ez non loitu dozuzan soñecoac. Onelango gauzaren bat yazoten yatzuenean bada, ezagun da ordiric cengozena, eta pecatu mortala eguin cenduana; baita zure seme, alaba, emazte, edo otseinen batzuc icusi bacenduzan alan, aibat oquerrago, ce alde onetatic eguin cenduan beste pecatu mortal bat emon dozun escandalu ta exemplu charragaitic.

Eta yazo yatsu onelango gauzaric iños? Ez, aita, iños beré. Aror bada Demoniñoaren itsumendia. Baita obeto ezagututeco celan Demoniñoac itsututa gogortuten dituzan guizon ordiac, esan eguidazue: ¿icusi dozue edonos guizon edo andraren bat ordiric (andra ordiren bat)? Jesus, Aita, erantzungo deustazue, icusi iños? Larregui beré bacusgus: ushela ezpalegoz, cé dauquena eta eztauquena gastetan dabe ardaotan, galtzean dituez euren buru eta arimac, eta escandalicetan dituez dacuzezan guztia, eta ascotan euren emazte eta semealabachuac dauque infernu bici bat echean. Bada ori zuec badiñoazue; baya yaquin bear dozue ece, confesonariora eztatorrela ordia dala diñoanic. Itandu bequio ordiric andienari ea ardaoac gachic eguin deutzan, edo sensuna galdu deutzan, edo besteetan leguez gauzaac ez eguituco ardaoac iños imini dabenez, eta bertatic eranzungo dau: ez, aita, ara, edan ondochu, eta choromorotu ta alegrechu ifini bai, baya ordiric ez iños beré. Baya oneec gueienetan, eztauque errazoeric, eta euren confesiñoac izaiten dira gueienetan utsac eta deungaac, batetic eztauqueelaco euren pecatuen eguiazco damuric, ta benetaco garbairic, beste aldetic barriz eztauqueelaco eguiazco gogo ta proposituric ecanduari ichiteco, bada ezagututen eztaudena leguez euren gacha, alan eztabe iminten bere gach onetaric urteiteco vorondateric. Mundu guztia dacusaz ordiric, etse barrucoac ta aideac dagoz lotsaturic arpeguia dariela; yente guztia dago deungaro esaten; entzuten yaquez eurai ganorabaco berbaac, canta zoroac, errieltac, euren artean iñogaz balegozan leguez berbetan, eta oñen ganean egon ecin direala albo alboca bagaric, adietan emoiten dabe ardaoz bete bete eguinic dagozala, eta orregaitarren diñoec confesetan datozeanean, Aita, choromorochu, ta alegrechu bai, baya ordiric ez. ¡Ah ce confesiñoac! ¡Ah ardaoac itsuturico guizonac!

Onelangoac obeto aditu daguien bada, esango dot nortzuc eguiten daben pecatu leen esan dodazanez ganetic. Eguiten dabe bada pecatu mortala lelengo ocasiñoa dauquen guztian ardaoz asetuteco gogoa (edo biotza) ifiniric dauqueenac = Bigarrenge eguiten dabe pecatu ordituteco pelleburuan iminten direanac, celangoac direan tabernara doazanac, yaquinic doazan guztian edo gueienetan ordituten direala, ecin ichi deutselaco ardaoari ocasiñoa euqui ezquero. = Irugarrenge aldaian guztia edaten dabenac ocasiñoa dauquen guztian. = Laugarrenge yocoan yarten direanac, yaquinic yoquetan daben bacochean edo bai beintzat sarri larregui edaten dabeela. = Bostgarrenge, ordiacaz batzainduten direanac yaquinen ganean eurecaz batuten direan guztietan edo bai gueienetan ordituten dituezala, edo ordi eguiten dituezala. = Seigarrenge, larregui norbaiteri eda-arazoten deutsenac porfiagaz equin-ta equinda, yaquinic orditu aguinean dagoana, aserratuten direala edonoc euren escutic artu gura eztabean. = Zazpigarrenge, nori edo nori edan eraguiten deutsanean conveni yacan baño gueiago cerbaist esan daian, edo gauza ishilicoren bat arguitu daian, edo fiantzaren bateraco bayezcoa ateratearren, edo beste gauzaren bat eguin daguian cein sensunagaz edo edanbaaric eguingo ez eban. = Azquenean barriz eguiten dabe pecatu tabernerac ardaoa emoiten badeutse, ordituten direana daquienai, edo ordituguinean dagozanai; bai-eta beré gaüez berandu artean yocoan, edo ardaoz ase ase eguiten badauquez euren echean yaquinic lenagotic euren barria. Ez beguie esan ardao saltzalleac ecin osteranchean saldu edo irabaci leiela, ezta beré osterancean ecin pagadu leiela euren errentea, ce taberna artu edo errematau evenean yaquin bear ebeen au ecin zala, eta alan orditu aguinean, edo ordiric egonic escatuten badabe ardao gueiago, ecin emon leie concienciaren bean, eta pecatu mortala eguiten dabe emoiten dabeen bacochean, baldin ez emonagaitic ezpadatorquie gach andiren bat. Orduan bada onelango ardao saltzallaac eguin bear dabeena da, modu onean, edo au edo bestea esanagaz ecin atara badituz ehetic, emon justiciari contu, eta Juezac euqui daijala cepoan urez asetan, aimbeste egarrigaz badagoz; bada alan quenduco litzatequez mundutic ordi asco; alan acico litzatequez seme-alabac obeto, alan egongo litzateque echeetan baque gueiago, eta alan ofendiduco litzateque Jaungoicoa guichiago.

Bear bada norbaistec esango deust, Aita, eguia da ni tabernara yoaten nasala, baya neure bician e-nas ordituteco usteagaz eldu. Sinistuten deutsut ori eta itanduco baneutsu orduan nora zoiazan,

derichat eranzungo ceusquidala: Aita, tabernara noa neure cuartillu-
 chua erarten, guero gueldi gueldica ilunceraco echera yoateco. Baya
 ¿cer yazo oi da? Topetan dozu adisquide bat, ateraten dozu cuartillu
 bat, convidetan dozu beragaz. Eta besteac zu baño guichiago ez izai-
 tearren ateretan dau beste cuartillu bat; batuten dira beste lagun ba-
 tzuc, azten zaree conversaciñoan edo yocoan divertidutearren; arda-
 oa doa ardaoa dator edaten dozu, eta guero cer eguiten dozun ezta-
 quizula arinduten yatzu burua, asten zara ganorabaco berbaac esaten,
 aserratuten zara agaz edo besteagaz edocean gauzagaitic, eta ilundu
 yatsu echera yoateco; urteiten dozu gaubeco aimbeste orduetan
 tabernatic, echeraco bideric zabalenac estu ta bedar dozuzala; emen
 estropezau, an yausi, orain batera eta guero bestera, nondic zoazan
 beré ameneco ondo eztaquizula; elduten zara echera, eta aror infernu
 bicia, emaztea oera yoan bada edo berbachu bat esaten badeutsu,
 asten zara deadarrez, eta esaten Demonioa, Diabrua, eta arrayoa,
 baita beré benturaz golpeca ceure emazte eta familiac errua baleu-
 tzuna leguez, eta biaramonean burua astun eta gorputza nagui, bea-
 rreraco adin bagaric.

Aushe da, neure Cristiñaiac, egunean egunean dacusguna, guztiz
 beré yaiegunetan, entierru eta onrac edo ileteac dagozanean, edaten
 dabe meceen balioa bashen asco gueiago, dagoz arratzalde guztian
 edan-da edan, eta guero bidean topetan badabe tabernaren bat ez tira
 batzuc edo batzuc sartu bagaric gueratuco: ataraco daude euren cuar-
 tillua bapere beré bearric izan bagaric; tragu bateric doaz bestera,
 edaten dabe uste eben baño gueiago, berotuten dira, eta ardaoa barri-
 tzua dana leguez, esaten dabe edocean gauza, aserratuten da bestea
 bere contra cerbaist esan dabelaco, eta barbaric berba ezarten deutsez
 ascotan escuac alcarrerri, eta lauciri balio eztaben gauceagaitic atera-
 ten da querella bat; sartuten dira emetic escribauac, batetic letraduac,
 bestetic procuradoreac, andic testiguac, emetic justicia, asquenean
 barriz quendeutse [sic] daucana, eta gueratuten da, esan doiana
 leguez alcondara utsean, cer yan eztaucala, cegaz mantenidu, eta
 acomodau beré bere semeac. Aushe da onelango ordiai yazo oi
 yaquena, Espiritu santuac berac dinoandi (²). Ezpabere, esan eguida-
 zue, nori datorquioz gachac, nequeac, aserreac, lanac, ayariac, zau-
 riac eta pobrecea? nori ardao-zaleari, eta edaleari ezpada? Non egui-
 ten dira bidebagaco tratuac, eta buruba'co fiantzac gueien gueianean

² Egileak ez du aipamenik ez oharrik jarri.

ardao artean ez izanic? ¿Cegaitic dagoz aimbeste familia galduric, eta aimbeste eche zorrez beteric? Gueienetan ardoagaitic. (75) Eztot zuec bashen beste testiguric gura. ¿Ceimbat etsaguntza icusten diraz salduric eta zorrez beteric? ¿Ceimbat etsagun eta euren familia euren etseti campora buruba'co fianza onelangoac gaitic? Yaquin gura badogu, non, celan, eta ce modutan sartu cirean fianza oneetan, icusico dogu gueienac eguin cireala ardao-echeetan, eta ardao artean. Orraco guizon galdu ceintzuc ecin iñondic aurquitu al even euren tratu oquerren fiadoreric, convidadu even etsagun ori tragu bat edaten. Emon eutsen ondochu edaten, eta araco beroric egoanean, erre-gu, palagu, eta berba laztanacaz, sartu eraguin eutsen fianza galgari(etan) orretan; eta orain dacutsue bere etsealde bagaric, cer yan, ez cer yanci eztaucala, alciz beteric, erdi billoshic, eta bearbada ateric ate, ogui cotsur bat yango badau. Ceüec sarri ta sarri icusi izango dozue beste onen-beste. Emetic ezagutuco dozue ce eguia andia dan Espiritu Santuac diñoana: Nequezale ordia ezta iños aberats izango. Eta ¿ceimbat arimaco gach, eta pecatu eskuerga eztira ernetan ordiqueriatic? ¿Cegaitic yazoten dira aimbeste echeetan errieltac, quimerac, biraoac, eta añeniñoac?³ Gueietan ardaoagaitic. Ardao larreguitic datoz berba loiac, escuca ciquinac gueienetan, bada S. Paulo Apostoluac diñoanez, ardaoan dago luxuria, ta deshonestidadea; ardaotic datoz lapurretac, yuramentu guzurrezcoac, eta ecin esan leitezcan beste aimbeste gach: ce ardaora eguin danac gastau ezquero escu artean daucana edocein gauza eguingo dau cegaz edan euquitearren nai ostu ta bear bada bideetara urtenda beré, nai edocein testiganza emon, edo guzurraren ganeco yuramentu eguin, ondo sarri gure damuan enzun ta icusi oi doguna legez. Andiac dira celan-beré ordiqueriatic dacarzan calte eta gachac; baya andiangoac dira parebaga emacumeena[c] dacarzanac guizonenac baño. Emacume ordia, ase-re andia da, diño Jaungoicoac berac, lotsaari andia da senarrantzat, eta senide guztientzat; ecin estaldu lei bere ezaintasuna, edonon aguirico da, ce itsusi dan. Leenago galduco dau etsea emazte ordiac, guizon ordiac baño. Errezago yaco emazteari, senar ordiaganic echeco gauzaac ostendutea, senarrari emazteaganic bashen. Emazte ordi batec salduco dau etsean dan guztia, senarrac yaquin orduco, bere yaztecoac, umeenac, senarrenac [sic], izara, samau, urdai, cecin, eta

³ *Cui vae? Cujus patri vae? cui rixae? cui foveae? cui sine causa vulnera? cui suffusio oculorum? nonne his qui commorantur in vino, et student calicibus epotandis?* [Proverb. 23, 29-30].

ora eroan bear davena guiñocoa, ardaoa erostearren, eta orditutearren, eta ezpadauco beste gauzaric cegaz erosi ardaoa bere gorputza emongo dau, ardaoz aseterren. Ceimbat bider icusi izango ete dozue au yazoten?

Baya eztira emen gueratuten ardaoarean gachac, ce gueien gueien bildurtu bear gaituzana da, ordien salvaciñoaren pelleburuac. Ain da gach ardaora emonic dagoana salvetea ce, ecin dala urrean, diño S. Juan Crisostomo-c, ordi bat ecec beré movidu ecin leiquealaco. Alperric dira olangoentzaco sermoiac, arpelic aguiracac, arpelic cemacontzaca, eta arpelic confesoreac eta predicadoreac bere oneraco eguin al leien guztia. Ymini bequioz beguien aurrean Jaungoicoac beragaitic eguin dituzan gauzaac; bere escuetatic artu dituzan mese-deac; bere maitelariantzaco ceruan prestauta daucazan ondasunac, eta cabu ta neurriba'co atseguin ta olgurac; idigui bequioz bere beguietan infernuco pena, su ta tormentu guztiac; bada eztau ecec beré icaratuco; ezta dana ta daitequean guztia asco izango ardaoari ichi eraguiteco; eta guragoco dau anche Demoniãoen erdian, eta su icaragarizco aetan sartu-ta egon ardaoarean ecan du larreguiari ichi baño; berba baten esateco echaco ecegaz beré, ecegaz beré bere ecan du deunguea quenduco, ezta bera salvetaco moduric aurquituco beré⁴, ce zuec dacutsue onelangoai ceimbat zarrago aimbat gozoago eguiten yaquela ardaoa, eta beste pensamenturic eztauquela ardaoa ta edatea baño. Baita ¿celan gueratuten dira onelangoac asquenean, eta oraindio gazteac izanic? Cocoturic, sensun bagaric, indar bagaric, podere bagaric, edo animalia batzuc leguez, edo claruago esatarren, zubil bat dirudiela, ez confesetaco, ez Jaungoicoari erregututeco, ezta aren Magestadearen gomutaric euquiteco beré. Euren gogo eta guraari guztia, eta euren amesa beré, ezta besteric, ezpabere nondic nora ardaoa edango daveen. Eta alanche⁵ il beré eguin doaz gueienean, batzuc accidente bategaz confesadu beré eguin bagaric, eta beste sacramentu bagaric; beste batzuc confesetan direala, ¿baya celan? ganora bagaric, cer eguiten daveen yaquin bagaric, eta erdi cocoturic. Orregaitic diño Espiritu Santuac ordien izenean: azotadu ninduen, eta e-neban yaquin⁶, eta e-neban beste gauzaric pensetan ta

⁴ *Neque aliud quid salvare potest sic periclitantem animam.*

⁵ Hemengo eranskina sartzean, beste era batera geratzen dira lehen idazkerako hitzok: "eta alanche il beré eguin doaz gueienean, ozta confesetan direala."

⁶ *Verberaverunt me, sed non dolui; traxerunt me, et ego non sensi* [Proverb. 23, 35].

esaten neure artean, ezpada, nos edango dot?⁷ Eta alan esan bear deuntsuet Espiritu Santu berberaren icenean ta bere berbacaz: ez eguiozue ardaoari beguiratu basuan argui eguiten davenean, ez eiquezue esan: ¡ay! ce colore ederra daucan; cé gozo eta bigun igaroco da zure samatic, baya ibili ta ibili sugueac leguez yango deutsu zure barrua, eta sugue-tzarrac leguez beteco zaituz pozoiz ta bene-noz. Eta zuec, ordi concorroc, ordi zorigogorrecooc, edan eguizue, ase ase eguin zaitece. Edan eguizue bada ordi zorigogorrecooc, ase ase eguin zaitece ardaoz, eta bein beré ecandu deunga orreri ichi gura ezpadeutsazue, zoace Demonioño guztiacaz. Sarri ta sarri esan yatsue pulpitic, eta confesonarioetati celango pecatuac eguiten dozuezan, baita celangoac eraguiten dozuezan ceüen emazte eta seme-alaben artean ardao larreguira ecanduagaz; sarri ta sarri imini yatzueez beguien aurrean celango escandaluac emoiten dozuezan echean familiaren artean, auzoteguien, eta erri guztian, zuen ordi-queriacaz, eta celan zagocen condenacioño bidean accidente batec baleutsue, acto contricioño bat ecin eguin cinaielaco; baya orregaitic beré ezteutsazue eguño ecandu deungueari ichi gura. Edan bada, orditu zaitece, bete zaitece ardaoz samaguiño, eta zoaze infernuco Demonioño guztiacaz, ceuen gustua alan dalaco⁸. Icusi dozue, Cristiñauac, ceimbat, eta ce icaragarrizco gachac dacarzan ordique-riac, alan gorputzean, cein da arimaan; ala gorputzeco ondasunetan, cein da arimacoetan. Etzaitece bada miraritu ez admiradu Confesore eta Predicadoreac badagoz beti beti aleguin guztia eguiten, zuec yausi ce zaiteezan ecandu onetan, eta yausi bazaree, andic ateretaco. Dacuse erri guztietatic zabalduric pecatu au, etse, cale eta videetan aurquituten dituez ordiac; batzuc oñen ganean egon ecin direala; beste batzuc berba ero, gangar eta ganora ba'coac esaten dituezala, baita ameneco ameneco, loi eta ciquiñac bere; oneec eztauquela bagueria iñogaz, aec euren emazte, seme, eta etseco guztiac darabildezala aidean, ta ushaturic. Aushe gaitic prediquetan dave aimbeste bider ordien contra. Cer deutse gueiigo bere contra edo bestee pecatuen contra eguitea? Cer emoiten Yaque onegaitic? Cer irabazten dave? Arean bere ez. Eta alan-beré beti zagoce esaten: oneec Predicadoreoc beti beti dagoz ordien contra; ezpalego leguez beste pecuric ceri eguin. Eztauquenean cer esan, edo acabetan yaquene-

⁷ *Quando evigilabo, et rursus vina reperiam?* Proverb. 23, 35.

⁸ ... et ... *Calicibus ... epotandi.*

an sermoia, equin ordiai eta tabernari: beti dauque eguinic sermoia. Ez, Cristiñaiac, ezta au cegaitic ain sarri prediquetan dan ecandu onen contra. Zuei deutsuen amodio, eta ongureac, zuen erruquiac au erasoten deutse. Gura dozue onen ganean barbaric eguin eztaien Predicadoreac? Quendu eguizue ecandu citel ori, eta eztozue enzungo ordien contra sermoiric; barriz zuec aurrera ordiqueria, eta ez predicadu bere contra, ecin au izan leiteque.

Beste gach guztiz andi bat icusten da ordietan. Eztira aguertuten confesetara urtean bein baño. Eltzean da aste-santua: ¿celango esturac? ¿Celango izerdiac, celango larriac? Eztira confesetan yoango lelengo egunetan, ezpada azquenengoetan. ¿Eta orduan celan elduten dira? Urcamendi batera bililloaz [sic] legueche. Beguiratuten dave ce confesore dagozan, an ete dagoan bere ezaunen bat, modu onetan bera engañadu al-dayan, eta aguindu ce daguion tabernara yoan ez-eiteco. Ezta yoango igaz edo leenago confesadu evagana, modu onetan dabil, cer eguin eztaquiala. Aror cegaitic direan ain ezaun ordiac aste santuan. Confesoreac aguinduten badeutso eldu beré ez eguiteco tabernara, berac zabalduten dau emon yacan penitencia. Ah ce gogorra dan, diño urlia confesorea, e-nauco urrengoan artua. Esai'zu guizon itsua: Cer gura ceunque eguin daizun confesoreac badacus confesoreac tabernara yoatea bardin bardin dala zuretzat, cein da orditutea? Orditutea bardin dala cein zure etse eta auzoac escandalicetea? Emon deutse Confesoreari diru pilloren bat, zuri aguindu deizun, tabernara ez yoateco? Emetic ateraco dozue contu celangoac izango direan ordien Confesiñoac. Alanche daroe aurrera euren ecandu citela; beragaz elduco dira eriotzaco ordura, eta Jaungoicoac yaquin celangoa izango dan, orduan eguin daien confesiñoa, eguiten badave. Idigui eguizuez bada nosbaist ceüen beguiac, infernuetara yausi gura ezpadozue. Alan izan daiteala. Amen.

13. LOIQUERIAREN GANECO ICAS-BIDEA

(B, 46-50. or.)

1. S. Paulo Apostoluac diño ce, deungaac Jaungoicoaren erreinua gozaduco eztabela, ez araguizco pecatuac eguiten dituezanac nai libreac izan nai ezconduac; ezta beste loiqueria lotsagarrizcoetan dabilitzezanac beré. Pecatu aushe da gueien gortuten dabena Cristiñaiia, ez enzuteco Jaunaren deia; eztau bestec aimbeste itsututen, eta alan itsumendi onegaz doaz infernuetara Cristiñau asco baño gueiago. Orregaitic gura neunque onen ganean berba eguin. Baquit nic eztana erraz bear dan leguez azaldutea, ta arguian imintea pelleburuz betea dana. Aingueru baten garbitasuna bear neunque ez loituteco nagoan lecu santu au, eta alan pocic ichico neunskuio ecer esan bagaric. Baya yaquinic beste aldetic Demonioñoac, arrañac sare bategaz legue-che, artuten dituzala Cristiñaiiac pecatu oneshegaz, e-neunque ichi gura cer edo cer esan bagaric; uste dodala Jaungoicoac iminico dituzala bear direan berbaac, garbiro adietan emoiteco pecatu loi, atsitu ta infernuco quiratsez beterico au. E-nas gueratuco pecatu andi andi ta yaquinetan; ce onangoac guztiac ezagututen dituez; ezpabere araco ascoc ta ascoc ainzacozat artuten eztituezanetan, celangoac direan pensamentu loiac, berba ciquinac, ebilera pelleburuzcoac, lagun deungaac eta alan.

2. Lelengo bada eguiten dabe pecatu mortala pensamentuz, gauza loiac euren guraz gogoan darabiltzenac. Gauza loia buruac emoitea ezta pecatu, ce au eztago gueugan, edo gure escuan. Pecatua, bada, dago pensamentu loia igarri-ta bertatic quentzeaco aleguina ez eguitan, edo norberen guraz gogoan erabiltean. Esateraco: eguin cenduan nosbaist araguizco pecatu bat; etorten yatsu burura orduan euqui cenduan gustu citela; bada pensamentu au asmau orduco quentzera eguiten badozu, eztago pecaturic; baya quendu bearrean, aurrera bazoaz, gustu artuten dozula, edo gauza aren ganean pensetan bazagoz ceure guraz, ya pecatu mortala eguin dozu; baita arpel izango da pecatu eguiteco gogoric ez euquitea, ce atan egotea bera uts utsic asco da pecatu izaiteco. Ara emen irudi eder bat, diñodana ulertuteco. Bazagoce subete baten lau edo bost lagun berotuten, ta

alangoren baten, beingoan yaguiten da bat ta diño: ¡ene! emen cer edo cer erretan da; erre usaña data. Zu ta besteac beré beingoan zutunduten zaree, eta beguiratu beré bai ea no-ena dan erretan dan yaztecoa, baita zorionean cegaitic etzan ceurea izango. Zuc orduan berpertatic amatetan badozu, edo amatetaco aleguina eguiten badozu, ecin lei iñoc zure erru imini erre dana; baya amatau bearrean bazagoz mamó eguinic erretan danari adi, aric aurre zurea da erretan danaren errua. Bada beste onen beste yazoten da pensamentu ta tentaciño loiagaz beré. Buruac emoten deutsu bear eztan gaucea, edo Diabruac putz emon-da, biztuten da zure biotzean acordu loiaren sua: oraindocoarren ezta pecatu; au ezta, zure yaztecoan yausten dan chingarra bashen; oraindio ezteutsazu lecu emon, eta S. Agustinec diñoandi, eztago pecaturic no-beren borondatea bagaric, eta igarrita bertatic botatera eguiten badozu edo biotza Jaungoicoagana ezeguiagaz, edo Ama Virginearen laguntasuna ta gracia escatuagaz, edo beste onango gauzaren bat eguinagaz, garbi izango dozu zure burua. Baya bein asmau ezquero cer dan gaucea, atanche bazagoz apurchu baten baño ezpada beré, eguin bagaric aleguina ceuganic ushatu, ta quentzeaco, ya eguin dozu pecatu mortala, eta ceimbat eta gueiago zagozan atan atsera ta aurra [sic], aimbat andiagoa izango da eguiten dozun becatua.

3. Baya esango deustazu: Aita, apurchu baten baño ezta izan; ce guero errezado neuntsan Ama Virgineari, eta eguin neban quendutera. Bai nai, neure Cristiñaiac; apur apur bat da asco onen ganean pecatu mortala eguiteco. Ondo da guero beré aleguina eguitea pensamentu loa quenduteco; baya bein danic bein eguin cenduan pecatua ceure guraz egon baceinean pensetan gauza loian, memento baten bashen ezpazan beré. Aita, e-neuncan gauza charric eguiteco asmuric. Etzaitece engañoau, Cristiñaiac. Pensamentu loa pecatu mortala izaiteco, ezta eguin gura bear buruan dagoan gaucea. Adituco dozue cerbait irudi oneshegaz: Zoaz denda batera, non dagozan gauza guztiz ederrac; ifinten zara eurai beguira ecer erosteco gogo bagaric; baya gustetan yatsu icustea, eta zagoz guztiz pocic eurai adi. Itanduco baleutsue cer eguiten dozun, eranzungo ceunque, beguiuai gustu emon. Onembeste, bada, da pensamentu loiagaz yazoten dana: ezta eguin gura gaucea, baya gustu emoitén yaco norberen buruari gogoan erabiliagaz, eta aushe uts utsic, ta bera bacarric da pecatu mortala. Beste pecatu eguiteco modua, baita lengoa bashen deungoia da araguzco pecatua eguin gura danean, cer edo cergaitic egui-

ten ezpada beré. Contu eguizue icusten dozuela erromeria baten nes-catilla edo guizon gazte eder bat. Bera icusiagaz sartzean yatzue pecatu eguin gurea; baya edo galduric gueratuteco bildurrac, edo lotsa zareelaco berba eguiten, edo beste alango gauzaren batec galazoten deusue gauza zantarra eguiten. Bada aushe gurari edo gogo char au bera berez ta beste bagaric da pecatu mortala, ce J.C.c diño-anez, iminten dituzanac beguiac andreagan pecatu eguiteco asmua-gaz, ya eguin eban pecatu bere biotzean¹. Baya pecatu eguingo leu-qualacoa buruac emoitea, no-beren erruz eztanean, eta laster boteta-
ra eguinic, ezta pecatu.

4. Baya contu, Cristiñauiac, diñodanagaz; no-beren erru bagaric izan bear dau, ce osteranchean pecatu mortala izango da. Ascoc eta ascoc esan daroe eztabeela pecatu eguin gura; baya eztituez ichi gura urlia edo urleciagazco berba aldiac, amurruturic dagoz beragaz ego-teco al daien guztian, berbaz dagozanean sentietan dabe euren bio-tzean infernuco su edo berotasun zorigogorreco bat, ceinec erretan dituzan azurretaraguño, eta orregaitic beré eztaude alangoetatic urrun eguin gura; baita esaten yaquenean alde eguiteco onango onda-bideetatic, bertatic eranzun daroe: Aita, eztogu iños gauza deungaric eguin. ¿Cer da campotic eguin ez arren, zuen biotza infernu bat egui-nic badago? Ascoc uste dabe ce, eztagoala araguzco pecaturic, obrazcoa ez izanic; baya yaquin bear dabe ce, eguin gurea, ta gogo-an gauza loia erabiltea, eguiteco asmuric izan ezagaitic, bardin pecatu mortala direala.

5. Berbaz beré eguiten dabe pecatu mortala araco berba loi eta ciquinac esaten dituezanac, bearrean dagozanean, alcarren artean berbetan, ta biguiretan yazo oi dana leguez. Solo baten badagoz, ascoc eztaquie berba loiac eta arinac baño esaten; eta bear bada, deungueen dana agura buru zuriac. Onec gazteen berba deungaac galaazo bearrean, eurac aurrengo izan oi dira, yente guztien beguiac idiguiten dituezala. Esango deuste venturaz onelangoac: Aita, chan-
chetan esan oi duguz ¿Cer deutso? berba loiac badira pecatu mortala da. ¿Cer daquizu zuc berba loi orrec cer eguingo daben bestearen biotzean? Bear bada lecu emongo deutso zure berbea dala medio datorquion pensamentu loiari; baita escu artu lei aurrerancean pecatu andiangoetan yausi-eiteco. Chanchan diñozu dala. Bai orretan ce, chancha ona da. Infernura bazoace, bardin bardin izango da nai benetan, nai chanchetan yoan. Aita, eztaucaguz pecatutzat orrelango ber-

¹ Matth. 5, v. 28.

baac. Aibat oquerrago: bada aguiri da zuen biotza ta aoa dagozana ecandu orregaz atsituric. Baya ¿celan esan ciñaique eztaucazuezala pecatutzat? Esan eguidazue, olango conversaciño loian zagocela elduten bada Sacerdote, Abade, Ugazaba, guraso edo beste errespetozco personaren bat ¿etzare bertatic ishilduten? Eta berbaicune orretan dagoan batec icusten badau esan-danico personaren bat, ¿eztau bertatic esaten: Ishi, urlia dator-ta? Eta onelango personaren batec enzuten badituz zuen berbaac, ¿etzare lotsatuten? Eguia da, Bai, Jauna, esango deustazue. Bada deunguetzat ezpadaucazue, ¿cetaco ishilduten zare? ¿Cetaco lotsatuten zare? Gauza ona balitz diñozen ori, etzinatequez ishilduco; ezpaleuque berba orreec gauza deungaric etzinatequez lotsatuco; eta alan ecin sinistu leiquezue eztaucazuezala pecatutzat.

6. Eguiten dabe pecatu mortala araco neguco gaubeetan contu loi eta ipuin ez garbiac contetan dituezanac, guztiz beré bada euren umeen aurrean, edo eurac dantzuela, pintetan daudeela gauza deunguea aldaien ondoen, obato aitu, ta ulertu daien esan gura dabeena. Aita, barre eguiteco, eta demporea emoiteco bashen eztozuz esaten contu edo ipuin orreec. Ondo: eta ¿non da zuec artuten dozuen gustu citala, eta besteac eguiten dabeen algarea, araco gauzaric loiena contetan dan orduan? Demporea ez euscun emon Jaungoicoac modu orretan igaroiteco. Cerbait contadu gura badozue, eztira falta santuen bicitzac, edo beste contu garbiren batzuc. Doctrinea iracurten, edo itanduten bacengoce bardin bardin igaroco ceunque demporea. Pecatu mortala eguiten dabee araco canta loiac maliciac cantetan dituezanac, mutil gazte zoroac, eta nesca gangar buru arinac cantetan dituezana leguez, guztiz beré basterretan baturic danzan eguiten dabeenean, canta loien soñuan, guztia edo gueienac barre eguiten dabeela gauza loiena cantetan danean. Aita, eztaucat nic orrelango berbeetan intenciño deungaric: esan² esan bashen ezta izaiten Cristiñaiac, asco daqui Demoniñoac, eta alan asco ta ascotan, berac ecin dabena, logretan dau berba oneec esateco ecandua daucanen bitartez. Asten da Demoniñoa norbaist tentetan pecatu loiraco; baya ecin dau berez goitu edo vencidu, aurquituten dau ecandu citel au daucan personea, batzainduten da, bada, beste batzucac; esaten dau batec berba arin edo barre eraguiteco bat, eranzuten dau besteac beste bat, asten dira guztia barreca; aurrera doa infernuco berbaicunea, eta

² Hemen ulergaitza den seinu bat agertzen da. Baliteke C (cristiñaua) izatea.

aurrerago eta loiago ta gozoago. Lelengoan lotsa apur bat beegoan; baya icusiric guztiac dagozala modu batecoac, besteac baño guchiago ez izaitearren, euracaz bat eguiten da; eta aror non Demonioac zure bitartez alcanzadu daben, berac ecin ebana. Pecatu mortala eguiten dabe mutil eta nescatillac, araco alcarregaz batzaindu ezquero, esaten dituezanean amudiozco berbaac, eta siñu cital batzuc alcarri eguiten dituezanean. Eta ez bacarric pecatu mortala eguiten dabe esaten dituezanac, baita beré guztuz enzuten dagozanac, alde eguiten ezpadira lecu atatic. Eta oraindio beré pecatu andiagooa eguingo dabe ugazaba, guraso, eta besteen ganean escua dauqueenac, galarazo, eta ishilduten ezpadituez onango miñ infernucoac. Oneshec dira berbeagaz eguiten direan pecatu mortalac.

7. Guztiz asco dira beste modutaco pecatuac, ta pecatu bide ta pelleburuac. Pecatu mortala eguiten dabe araco mutil eta nescatillac alcarregaz adisquidetasuna artu ezquero, alcar bagaric egon ecin direanac, batac besteagaz gura dabeen licencia artuten dabeela; alcarregaz fiestetara, alcarregaz meriendetara, alcarregaz berba-aldi luceetan, eta albadaguie lecu escutuetan, eta bacarrean. Jauna, ezto gu gauza deungaric eguiten. Eztaquit, neure Cristiñaiuac, engañaduric eztagozen. Mutil gazte bat nescatilla bategaz berbaz dempora lucean egon, yan ondo, edan obeto, eta ¿ez euqui pensamentu deungaric, ez eguin movimenturic, ez euqui llanezaric? Miraari andia da ori. Jauna, adisquideac gara, eta asco gura deutzagu alcarreri. Ushela adisquideac ezpacine, pelleburu guchiago euquico ceunque. Alcarreri esan deutzazue asco gura deutzazuela, ecin alcar bagaric egon zaree, ecin alcarreganic alde eguin dozue, alcarregaz zagozenez asmetan dozue zuen erraietan infernuco su icaragarritzco bat, ceinec quisquildu ta erretan zaituezan, eta ¿diñozu eztozuela gauza deungaric eguiten? ¡Ah cristiñaiuac, au Demonioaren itsumendi latsa da, ta beré tentaciño aserrea. Zabiltze, zabiltze orretan; batu zaitece alcarregaz, eta demporeac esango dau cetan yoco dabeen zuen adisquidetasun orreec. Pecatu mortala eguiten dabe araco mutil zoroac, bidean dabiltzezanean, topetan dituezan andra, edo nescatillai siñu, oracada, eta beste onelango gauzaac eguiten deutsezanac, escandalicetan dituezala beguira dagozan guztiac. Pecatu mortala eguiten dabe (contu onegaz) araco erromerietara yoateco, alcar billatuten direan mutil, eta nescatillac, alcarregaz ibili, alcarregaz meriendau, bata besteagaz biurtuteco echera; eta gaubaz, libreago ibiltearren, emen bota, an oratu, orain yo, guero ucutu, eta gueroago ta laztanago. E-neunque,

Cristiñaiac, larregui idigui gura ascoren beguiac; baya arrituric, mututuric, eta bildurrez icara gogorrean gueratuteco da, beguiratutea celan daucan araguiaren pecatuac gaurco egunean mundua. Eztau ichten ez zarric, ez gazteric, ez humeric, ez aguraric, ez mutilic, ez nescatillaric, ez ezconduric, ez libreric.

8. Aushe da Demonioac mundu guztitic zabaldu daben sarea. Pecatu au da infernuco atead zabal zabal eguin dituzana, eta infernua Cristiñauz bete dabena; eta alan derichat sartu albaguintequez orainche infernuan, baita iminiric erdi erdian itanduco bagueunsquioe bertan dagozanai, ea cegaitic dagozan an, gueienac eranzungo leusqueguela, araguiuzco pecatuac gaitic. Ta orregaitarren beré, ¿ce ardura artuten da pecatu onen bideetatic iñesi eguiteco, ta ocasiñoa quentzeaco? ¡Ah! zuec zabiltze galbide ta ocasiño onen atsean, danzaric danza, ta erromeriaric erromeria; guztia da apaindutea ondo zuen buruac, ta ameneco ostuagaz; guztia da adisquidetasuna, canta loiac, eta munduan direan zoraqueriac, eta orregaitic bere su andi onen erdian errebagaric egon gura dozue. Enzun bada cer diñoian S. Geronimo andiac bere burua gaitic: Nago ermu itsaltu baten sarturic, nire yatecoa ezta besteric ogui utsa ta ura bashen (besteric); lur gogorra da nire oia, eztaucat nire gorputzean azur ta azal uts utsac bashen (besteric); beti nago guerra bician neure araguiagaz, baraiac, azoteac, oraciñoac, negarrac, cispuruac, gosea ta egarria dira neure betico lagunac, oneshecaz eguiten dot aleguiña gorputz macal au azpiratu ta aguindeupan euquiteco; eguiño atseguinic, poz-aldiric, ez olguraric emoiten ezteutsadala, eta alambere, beti dagocat aragui citel au muquer ta bere citelqueriac eguiten. Ecin secula beré aitzu dodaz Erroman beñolan icusi nituzan Damaac, eta oneshecaz eguiten deust guerra icaragarrizco bat, pesamentu loi eta ciquiñez betetan nabela. Baita zuec gura dozuen libertadeagaz ibilita, ¿eztaunquezue pensamentu loiric? Dancetan ibili, berba bigunac euqui, berba-aldi luceac, quiñuac, oracadac, eta garbi egon gura dozue pensamentuetan? Eztaquit noc sinistu leiquezuen; nic ez beintzat. Obetoago sinistuco neunque amuco zati bat erre-bagaric dagoala laba icio baten erdian, zuec infernuco su orregaz quisquildu bagaric baño. Jauna³, ¿bada ce erremedio garbi izaiteco? Ara S. Pablo Apc. emoiten deus-

³ Hurrengo testu zati hau, “erretan beti betico” hitzetaraino, sermoiaren azkenean dago erantsita, ohar honekin: “Azquenengo au *Jauna*-tic asita, beste, icasbide onen ganeco, paper baten aurquitu neban, ta sartu bear da goian, * au dagoan lecuán.”

cuna: igues eguizue araguiusco pecatuen bide guztietatic⁴. Igues dantzaz, yolas, ta emacumeen berba-aldietatic. Bardin diño S.Agustin-ec, gura bo'zu ondo urten araguiac eguiten deuscuzan burruqueetatic, iñesa artu bear dozu. Ara emen beste bat araguiusco pecatuan yausi ez-eiteco; onetaraco quilia ta zale-isquia ceugan asmetan dozunean, gogora ecarri eiquezuz iru berbachu oneec: *Orain, Guero, Iños*. Orain il neinteque; Guero yatzi infernura; Iños andic urten ez. Baita emen aguinetaco min bat gau labur baten oztaz eroan albadot celan eroango dot su bician neure gorputz guztia erretan beti betico? Ay Cristiñaiac! odolez negar eguitecoa da itsumendi arrigarri au. Egunean egunean icusten dira escandaluac, egunean egunean icusten dira oracada loiac; eta confesonariora bagoaz mundu guztia daguscu [sic] Demonioaren sare onetan yausiric; eta orregaitic beré eztau iñoc gura galbideetatic ta pelleburuetatic igues eguin. Eztaude sinistu gura yana, edana, dancea, erromeria, gaüez berandu etortea, eta berba bigun eta labanac pelleburuac direala. Barre ta burlazar eguiten deutse au dirautsenai. Eta orregaitic eznas bildur esateco au Demonioaren itsumendia dala, eta beragaz daroazala infernuetara Cristiñau guztiz asco, non nos-edo-nos idiguico dituezan, belu bada beré, euren beguiac, eta orduan ezagutuco dabe, baya provechu baga, orain sinistu gura eztabeena. Orregaitic diño Jaquintsu batec, idizcoac saltuca ta dantzan doazana leguez canniceriarra [sic] edo beste illecura, baia bicitzea galtzeaco, alanche Cristiñau guztiz asco doazala dantzan, ta saltuca infernuetara danza ta erromerietatic.

⁴ *Fugite fornicationem.*

FRAY MATEO DE ZABALA

14. LOIQUERIARIC ZUEN ARTEAN ENTZUN BERÉ EZPEDI

Omnis inmunditia nec nominetur in vobis.

Ephes. c.5. v.3.

(J, 81-95. or.)

Jaungoicoaren legueco seigarren mandamentuac dirauscu, iñoren senarragaz edo andregaz obrazco (araguizco) pecaturic ez eguiteco; eta bederatzigarrenac, ez alangoric eguin gura izateco. Baya berba oneetan ez bacarric galarazoten deuscu Jaungoicoac berba utsac eurac diñoena, baita loiqueriaco gauza guztiac beré, nai pensamentuz eguinac direala, nai berbaz eguinac, nai deseoz ta gurari (gogo) utsez eguinac. Gauza onen ganean izango da arratsalde onetaco doctrinea. Baquit nic, eta edoceinec alan esango dau, guztiz dala gach, bear dan leguez eguitea. Aingueru baten garbitasun guztia bearco litzateque, gauza ain loiaren ganean garbiro berba eguiteco, eta bere yaquituria guztia yaquiteco zer esan bearco dan batzuei contuan yausi (igarri) eraguiteco eurac eguiten dituezan, eta pecatutzat artuten ezituezan gauzac, pecatu direala, ta pecatu beré pecatu icaragarriac; beste batzuei barriz eztaquiena ez eracusteco, eta ez yaquitea bere oba dana yaquin ez daguien; eta orregaiti pocic ichico neusquio ecer esan bagaric. Baya aushe da, mundua gueien galduric daucana; eztau bestec ainbeste gortuten Cristiñaua, ez entzuteco Jaungoicoaren deiac; eztau bestec aimbeste itsututen, Jaungoicoaren legueari ez beguiratuteco: eta alan pecatu onegaz artuten dituz Demonioac Cristiñauac, arrañac sare bategaz artu oi direana leguez. Orregaiti ezin ichi neio ecer esan bagaric; ta, San Agustinec ciñoana, nic bildur-bagaric esango dot, zuec lotsa-bagaric eguiten dozuena. Uste dot, barriz, Jaungoicoac iminico deustazala bear direan berbac, garbiro garbiro, bere ondraric andieneraco, adietan emoteco pecatu loi, atsitu, ta infernuco quiratsez beterico au.

Eta e-nas lotuco azaldu eta iragarri ecinic araco pecatu andi andi ezagunac, bada oneec guztiac aintzacotzat ezagututen dituez; eta

bacarric esango deuntsuet onelangoen ganean, confesiñoan aguertu bear dala celango moduco lagunagaz eguin dan; izan bazan ezcondagaz edo libreagaz (ainbacoagaz); izan bazan aideagaz, eta ce aidetasun eucan (ceinbatcarren aide zan); izan bazan boto-castidadecoa eucanagaz; izan bazan ganaduren bategaz edo patariren edo guiberriren bategaz; izan bazan embrac embretara eguina, edo guizase-meac guizasemeetara eguina; baita beré esan bear da norberen buruagaz eguin bacirean escuca loiren batzuc eta zer yazo zan... Oneec guztio, bada, alde batera ichita, goazan berba eguiten araco beste pecatuen ganean, ceintzuc ascoc eta ascoc aintzacotzat beré artuten eztituezan, eta oneec dira pensamentu (gogo) loiac, berba zantarrac, ebillera pelleburuzcoac, lagun deungac, eta alangoac.

Lelengo lelengo bada, datoz gogoagaz eguiten diran pecatuac. Gogoagaz modu bitan eguin lei pecatu; edo gauza loiren bat, norberen guraz, gogoan erabiliagaz; edo gauza loia eguiteco gogoa artuagaz. Eguiten dave bada pecatu, ta pecatu mortala, gauza loia euren borondatez gogoan darabildenac, gauza ori eguiteco asmuric equi ez arren. Gauza loia buruac emotea ezta pecatu, bada au eztago gueugan, ez gueure escuan. Pecatua, bada, dago, pensamentu loia bein iguerri azquero, pensamentu ori quentzeaco aleguinac ez eguitean, ta norberen guraz gogoan erabiltean. Contu eguizu: buruac emoten deutsu cer izango ete dan seigarreneco pecatua, celan eguiten dan, ce gustu ciquina artuten dan. Bada zuc orduan, pensamentu au asmau orduco, quentzeara eguiten badozu, eztago peccaturic, baya quendu bearrean, aurrera bazoaz, aleguinac eguin-bagaric botetaco, eta pensamentua beste gauza batera yocatuteco, pecatu mortala eguin dozu.

Deungagoa da oraindo gogoagaz eguiten dan bigarren pecatua, eta da araguizco pecatua eguiteco gogoa artutea, edo beste loiqueriarren bat eguin-gurea, cer edo cer gaiti eguiten ezpada beré. Contu dai-gun: ezconguei bat dago bere ezconguei lagunagaz; alan egonagaz, (oi dana) berotuten yaco biotza, ta sartuten yaco pecatu eguiteco gogoa: baya edo orretaraco era onic eztagoalaco, edo gurasoen bildurrez, edo uste davelaco edo uste dauelaco besteac lagundu guraco eztauela (ezteutsala chitic), edo beste alangoren bategaiti; eztau berbachu bat beré orren ganean ateraten, ezteutso siñu bat beré eguiten. Bada aushe –gogo char au–, uts-utsic eta beste-bagaric, da asco pecatu mortala izateco, eta alan eguin beré eguin dau; ce Jesucristo gueure Jaunac diño, beguiz deungaro yoten davenac emacumea, eta beguiratuten deutsanac pecatu eguiteco asmuagaz, ya bere biotzean

eguin evan pecatu. Baya buruac emotea pecatu eguingo leuquealacoa ezta pecatu, norberen erruz eztanean, laster bururic botetaco aleguina eguiten bada.

Baya contu, Cristiñauac, orain esan dodanagaz; norberen errubargaric izan bear da, bada ganecoan pecatu mortala eguingo da. Ascoc eta ascoc esan daroe eurac eztaveela pecaturic eguin gura; baya ezti-tuez ichi gura urlriagazco ta urleciagazco berba-aldi luceac, amurraturic dagoz beragaz egoteco aldaien guztian, alcarregaz dagozanean asmetan dave euren biotzean su zorigaistoco bat, ceinec azurretargu-iño erre bear dituzan; eta orregaiti beré eztaudee alangoetaric urrun eguin gura; baita esaten bayaque alango onda-bideetatic alde eguitemo, bertati erantzun daroe: *Aita, eztogu guc iños gauza deungaric eguin.* ¿Cer da campoti eguin ez arren, zuen biotza infenu bat eguinic bada-go? Oneec bioc bada dira gogoagaz pecatu eguitemo dagozan modu biac; gauza loia norberen guraz gogoan erabilten danean, eta gauza loi-ren bat eguin gura danean; eta ezta eguia ascoc uste dauena, seigarre-necoan obrazco (araguizco) pecatua baño besteric eztagoala.

Icusi ezquero celanbait celan gogoagaz seigarrengo mandamentu santuaren contra pecatu eguin leitequean, dacusgun orain nortzuc gueien eguin daroien gogoagazco pecatu ori. Lelengo, bada, pecatu mortala eguin daroe gazte ascoc, zeintzuc ezconduen contuac burura ecarrita, esaten daudeen euren artean: *bada ni ezconduta(ric) banen-go, au eguingo neuque, bestea eguingo neuque, eta ezconduta(ric) banengo-co* isqui orregaz, edo ezconduen gauzac eguin guraco leu-queez, edo bai beintzat ezconduen gauzac (gauza orreec) gogoan erabili. Bigarren, pecatu mortala eguiten dave gauza loia gogoan artuta, euren artean esaten daveenac: *pecatu ezpalitz bada, au eguingo neu-que, ori eguingo neuque.* Irugarren, pecatu mortala eguin daroe leen iñogaz adisquidetasun charra izan ezquero, ichi bear izan badeutse beré adisquidetasun orreri, edo Confesoreac eragotzi deuselaco, edo gurasoac, abade maisu jaunac, edo bestec galarazo deuselaco, alan-beré beti darabildez buruan ta biotzean lengo contuac, beti dabiltz nondi nora icusico direan (arcal icusico daven), alcarrerri goranciac biraldu, alcarren cartaac iracurri, edo batac besteari pañueluren bat edo beste gauzaren bat erregaladu badeutso, ashe escuetan artu-ta, beti ari beguira ta beguira. Laugarren, pecatu mortala eguin daroe ezteguetara yoanic, edo yoan ez arren, entzunic nor edo nor ezcondu dala, ezcon(du) barrien gauza ez garbiac euren guraz gogoan dara-biltzezanac.

Bostcarren, pecatu mortala eguin daroe gura leuqueenac lotan etorrigo balichaquenez seigarreneco ames loiac, contu eguinic lotacoa ta amesetacoa eztala pecatu. Lotaco ames loiac eztira pecatu, norberac orreec etorteco oñic emoten ezpadau, eta iratzartuta berbertati burutic quendutera eguiten badau; baya gura izatea alangoac etorri daquiozan, pecatu da, ta pecatu andia. Seigarren, pecatu mortala eguin daroe alargunac, lengo ezcontza arteco gauza ez ain garbiac burura ecarrita, atan atan badagoz. Alargundu ezquero ezta alango gauzaric buruan erabili bear; eta baletoz, gazteac leguez, buruti bota bear dituez. Zazpigarren, pecatu mortala eguin daroe gazteac, bein ezcontzaco berbea emon ezquero, ezcondu ezqueroco contu ez garbi garbiac euren guraz gogoan darabiltzezanac, eta au gueienezan yazoten yaque alcarregaz dagozanean ezconguei biac, edo alcarganic alde eguin ezquero, gustiz beré arcalegazco egote (aldi) ori lucehua izan bada, eta bacarchuric egon badira. Zortzigarren, pecatu mortala eguin daroe nesca-mutilac alcarregaz naste dagozanean barre-zantzoca, cirrica, bultzaca, igozca, quilica, berba zantar nasaiac esaca, eta olangoetan, bada orduan euren gogoa eztoa gueldi egon; eta ez alan dabiltzezanena bacarric, baita beré alango lecuetara euren borondatez yoan ta alan deungaro dabiltzazanai gustuz beguira dagozanena. Onelango pensamentu loiac bada, bertan buruti aleguinez quentzean ezpada, pecatu mortal andiac dira, eta alde eraguiten deuscue Jaungoicoaganic: *perversae cogitationes separant a Deo*.

Baya esango deustazue: eta ¿alango pensamentu loiac burura yatorcuzan bacochean pecatu eguiten al dogu? Ez, Cristiñauac, ez, ezpabere alango pensamentu eta gogoetai arrera (abegui) ona eguin ta lecu emoten deusazuenean. Leen esan deusuedana leguez, pensamentu loiac burura ez etortea eztago gueure escuan, eta guc gura eztozula beré etorri oi yacuz malpecadu, sarri ascotan beré. Orduan, bada, igarri orduco eguiten badoguz aleguinac pensamentu loi orreec burutic albait lasterren botetaco, eztago peccaturic, eta contrara, ori eguinda, Jaungoicoaren beguientan irabazten dogu merecimentu gutzico bat. Baya quendu bearrean, ezpadozue quenduteco aleguinic eguiten, eta aurrera bazoaze pensamentu loi orreecaz, pusca pusca baten baño ezpada beré, pecatu mortala eguin dozue. Ara emen au ulertuteco irudi alazoco bat.

Bazagoze neguco arrastegui baten sut-ondoan lau edo bost lagun berotuten, eta alangoren baten yaguiten da bat dagoan lecuti, eta

diño: emen erre-usaña da, soñecoren bat erretan da. Zutunduten zare guztioc, eta asten zare beguiratuten ea noena dan erretan dan yaztecoa: baita orra non zorionean, cegaiti zurea izango etzan erretan zan ori. Zuc orduan berpertati amatetan badozu, edo sua amatetaco aleguina eguiten badozu, ecin iñoc zeure erru imini lei artean erre dana; baya sua amatau bearrean bazagoz aoa zabalic, erretan danari adi, zurea da aric aurrera erretan danaren errua. Baya contu eguizu ain modutan eshetu yacala zure yaztecoari ce, aleguin guztiac eguin-da beré ecin amatadu dozun: bada ezta orduan beré zurea erretan danaren errua, amatetaco aleguinac eguin dozuzalaco. Beste onenbeste bada yazoten da pensamentu eta tentaciño (burutaciño) loiacaz. Buruac emoten deutsu bear eztan gaucea, eta Diabruac putz emonda, biztuten da ceure biotzean acordu loiaren sua: oraindo au ezta pecatu; au ezta zure yaztecoan yausten dan chingarra bashen: oraindo ezteutsazu lecuric emon, eta S. Agustinec diñoana, eztago pecaturic no-beren borondatea bagaric; eta zuc orduan igarri ta bertati botetan badozu, edo botetaco aleguinac eguiten badozuz, edo biotza Jaungoicoagana ereguiagaz, edo Maria Santisimeari bere laguntasuna ta escua escatuagaz, edo beste onango gauzaren bat eguinagaz, garbi izango dozu ceure burua, pensamentu loia quendu ecin izan arren beré. Baya bein contuan yausi ezquero celango pensamentu loia, edo burutaciño charra gogora etorri yatzun, atanche bazagoz apur apur baten baño ezpada beré, aleguina eguin bagaric ceuganic ushatuteco ta quentzeaco, ya eguin dozu pecatu mortala; eta ceinbat eta gueiago zagozan atan atan [sic] atzera ta aurrera, ainbat andiagoa izango da eguingo dozun pecatua

Baya bear bada batec edo batec esango deust: *Aita, tanga tanga baten baño etzan izan gauza loi ori gogoan erabiltea: cé guero bein-goan errezadu neutsan Ama Virgineari, eta eguin nevan buruti quendutera.* (Bai nai, neure Cristiñauac:) tanga tanga bat da asco onen ganean pecatu mortala eguiteco. Ondo da guero beré aleguina eguitea, pensamentu loia gogoti botateco, eta pensamentua beste gauza batera yocatuteco; baya bein danic bein eguin cenduan pecatu, ceure guraz egon baceinean gauza loian pensetan, memento bacar baten baño ezpazan beré. *Aita*, esan daroe beste batzuc, *e-neuncan nic gauza charric eguiteco asmuric*. Ezteutso orregaiti, Cristiñauac. Pensamentu loia pecatu mortala izateco, ezta bear buruan dagoan gauza loia edo pecatua eguiteco gogoric, ez asmuric. Ulertuco dozue cerchubait irudi onegaz. Bazoaz ceu denda batera non dagozan gauza

guztiz eder politac; urregorricco ta zurizco gauza ederto eguinac, arri baliotsuac, sedazco ta urrezco yaztecoac, ta beste onelango asco; ifinten zara eurai beguira baperé erosteco gogo bagaric. Itanduco baleutsu mercatariac, ea cer eguiten dozun, erantzungo ceunsquio: emen nago beguiac gustu emoten. Onenbeste bada da pensamentu loiagaz yazoten dana; ezta obraz (araguiz) eguin gura pecatua: baya gustu emoten yaco memoriari, gauza loa gogoan erabiliagaz; eta aushe uts-utsic eta bera bacarric da asco pecatu mortala izateco.

Baya gauz'onen ganean modu bitaco personac izan doaz, batzuc estueguiac, eta besteac nasaieguiac. Badira persona batzuc Jaungoicoaren bildur andicoac, sarri ta ondo confesetaco ta comulguetaco aleguinac eguiten dituezanac, euren soñecoetan, berbaicunecan, ibilcunecan, eta eguicunecan modu ona eracusten daveenac: alde eguiten daveenac dantzeetati, fiestetati, batzarretati, eta pecatu bide guztietati; goishean goishean Jaungoicoari egun ataco gauza ta eguinen guztiac opetziten deutsezanac, eta eguneti achina beré Jaungoicoa gogoan sarri darabildeenac. Onetarico gueienai ascotan etorri yoaquez onelango pensamentu loi gogaitcarriac, eta euren arteco batzuc larregui estutu oi dira, eta alangoa asmau orduco, dabiltz buru guztia austen ea lecuric emon badeutse edo ezpadeutse; eta deungaro eguiten dave, bada ceinbat eta estutuago, ainbat eta gueiagorrico yaquez pensamentu ta gogoeta gogaitcarri orreec. Ez Cristiñauac, Jaungoicoaren bildurpean bici zareenoc etzaitete larritu alango pensamentuac buruac emon-arren. Eguin bear dozuena da, pensamentu loi orreec asmau orduco, biotza Jaungoicoagana eguin, eta gogo beste gauza batera yocatu, ta ez ibili atzera ta aurrera lecu emon badeutsazue edo ezpadeutsazue. Buru guztia galduco dozue, eta eztozue gauza garbirc ateraco. Ezpadaquize ciur lecu emon deutzazuela, ez yaramonic eguin, ezta confesetaco esaminea eguiten dozuenean beré: bada-ez-padan esaten yaco confesoreari celan pensamentu orreec etorri yatzuezan, ta eztaquizeuela lecu emon badeutsazue, eta alan eguin ezqueitio, gueldi gueldi eurac yoango dira.

Badira beste persona batzuc gauz onen ganean nasaieguiac eta ascategieac direnac. Oneec meatz confesetan dira, ta bear bada gararic garara, edo confesetan badira izan doa damu bagaric eta munduaren beguieran ondo erestearren. Eurac dabiltz dantzaric dantza, fiestaric fiesta, celairic celai, ta nesca-mutilen arteric nesca-mutilen arte. Ezteutse arduraric berba nasaichuac, eta nasaitoac beré esan-arren: mozuac, cirriac, escuac edocein lecutara eroateac, eta orreec

eztira ezer. Eta alanberé ezteriche dauqueela bein-beré pensamentu loiric, eta confesonarioan eguño beré echaque entzuten orren ganean berbachu bat beré ateraten daveela. Oraindio ori baño gueiago yazoten da. Etorrico da confesetan, obrazco pecatu bat, edo pecatu asco eguin dauen bat, edo animaliareen bategaz deungaro ebili dana, edo bere bacarrean zantarqueria asco eguin dituzana. Eta itanduten bayaco, ea pensamentu loiai iños lecu emon badeutse, beingoan erantzuten dau ezetz. Baya au, neure Cristiñauac, ecin izan leitequean gaucea da. Sut-ondoan egon ta ez berotu, edo surtan bertan egon ta ez erre, belu yazoco direan gauzaac dira orreec. Onelango personac, bada, pensamentu loiz bete beteric ibili doaz, eta gueiengan, edo bear bada beti lecu emoten deutse alango gogoraciño zantarrai, eta bein baño gueiagotan onelangoentzat amesetaco pensamentuac beré pecatu izan doaz, eurac iratzartuta egozala, emon eveelaco pensamentu amesetaco orreec etorteco oña. Orregaiti, bada, oneec guztioac esamina contuzco bat eguin bear dauee gauza onen ganean. Goazan orain berbeetara.

Berbeagaz beré pecatu eguin lei mandamentu santu onen contra, eta eguin beré ascoc eguin daroa. Lelengo bada pecatu mortala eguiten daudee iñor seigarreneco pecaturaco tentetan daudeenac. Bigarren, pecatu mortala eguin daroe gauza charra eguiteco gogoa izan ez-arren ta chanchan leguez, eta barre eguiteco izan arren esaten dituezanac berba loi tentagarriac, ta iñor pecatu eguitera ecarteco moducoac. ¡Oh, eta ceinbat onetarico entzun oi direan yolasetan, yolas-osteco batzacuntzetan, biguiretan, ta alangoetan! Irugarren, pecatu mortala eguin daroe berba amodiozco laban ta estalduac iñori esaten deutsezanac, ceintzuc berez loiac ez izan arren, adierazoten dave biotzeco sua, eta eztagoala garbi dauquen intenciñoa. Alan pecatu mortala izango da esatea mutil batec nescatilleari *biotza, ederra*, eta onelango labanqueriac, amodio loia eracusteco direanean. Laugarren, pecatu mortala eguin daroe berba loi guztiz zantar, ezain, eta claru claruac esaten dituezanac, iñor pecaturaco tentetaco berbac izan ez arren; soloetan, bearguintzetan (bearlecuetan), biguiretan eta beste alango batzarretan ascotan baño gueiagotan entzun oi direana leguez. Modu onetan pecatu mortala da barre eraguitearren icen loiac esatea. Pecatu mortala da norberen burua seigarreneco gauceen ganean alabetea, esanic, loiqueria au edo besteia eguin davela, eta ara oquerrago esaten badau, urlriagaz edo urleciagaz eguin evala; bada orduan dira pecatu mortal bi, bata seigarren mandamentuaren con-

tracoa, eta bestea murmuraciñocoa zortzigarrenencoaren contracoa; eta dauco obligaciño estua, besteari quendu deutsan creitua biurtute-co. Contu, nescatillac; Diabrua zur dabil zuei pecatuan yausi eraguiteco, eta guero eztau loric eguiten, zuen pecatua aguertuteco.

Pecatu mortala eguiten dave ezcondu ascoc, ishilic equi bear leuquezanac besteen aurrean esaten badituez, guztiz beré gazteen aurrean bada. Pecatu mortala eguiten dave araco neguco gauetan contu loiac, eta ipuin ez garbiac contetan dituezanac; guztiz beré euren umeen aurrean danean, edo euren umeac dantzuela; pintetan daudeela gauza deunguea aldaien ondoen, obeto ulertu daguien, cer esan gura daven. Pecatu mortala eguin daroe canta loiac yaquinen ganean cantetan dituezanac, eguin oi daroena leguez mutil gazte zoroac, eta nesca gangar buru-arinac, guztiz beré zelaietan, zocondoetan eta bazterretan batzanduric, dantzan eguiten daveenean, guztia barre'ta algara eguiten daveela gauzaric ciquinena, claru ezpada beré, adietan emoten danean. Oneec guztioac bada, pecatu mortala eguiten dave, eta ascoren aurrean danean ez pecatu bat bacarric, ezpabere ainbeste pecatu ceinbat direan aurrean dagozan lagunac.

Ay Cristiñauac, onenbeste zabaldu da gaurco egunean gueure errietan berba loiac esateco izcune charra ce, nago ece Cristiandade guztian erriz erri, ta yentez yente, eztala iñon beré euscal-errietan bashen berba loi gueiago esaten. Nai batu dedila yentea (ditezala lagunac) solora, basora, carobira, ira-ebatera, gari-ebatera edo yotera, orbela-batzaitera, arta zurietara, linoa apaindutera (linaguintzara), chacolinac eguitera, nai beste bearguintzetara (bearlecuetara), gaubelai eurai beré parcatu bagaric, anche urten bearco dave berba loi, zantzar, ta infernuco quiratsez bete-beteac. Ezconduac ezconbacoai (ainbacoai) atera bearco deutseez onelango loiquieriac; mutilac nescai esan bearco deutseez milla zantarqueria; nescac algaraz, barre-zantzoca entzun ezece, baita urtenchuac badira nesca orreec, eurac beste ainbeste esateco eztaudee iñoren bearric izango: eta atso-agurac eurac, cadereari ozta eraguiten deutsenac beré, eztira alangoac esanbagaric izango; eta bear bada oneec aurrerengo izango dira gazteen beguiac idiguiten. Eta ¿zer esango dot ezteguetan yazoten dana gaiti? ¡An bai naste-borrastea! ¡An bai berba loiac, ta lotsagarriac! Guizon yaquitun batec, asco icusi, ta asco entzun evanac, esan oi eroian: bera pocic egongo litzatequeala, ezteguetara doazan bacocho-ganic Diabruac ogueina pecatu mortal baño ateraco ezpalituz. Eta egun ataco berba loiac asco ezpalira leguez, biaramonean, ta biaramonean,

ta biaramon ascotan, esan bearco deutseez ezcondu-barriai loiqueria ulertutera emoteco berba zantarrac; emazte barria lelengo seindun aguertuten danean beré bai, ta eztaquit nic nos ez.

¡O ceinbat arima dagozan infernuetan erretan olango berba loiac esana-gaiti! ¡Ceinbat dagozan onelango loiqueriac gustuz entzun ta barre eguina-gaiti! Onelango berba zantarrac galduten dituez ascoren ecandu onac eta biciera santuac, bada S. Basilioc diñoana, berba loiai lotsea ta bildurra galdutea da gueldi gueldi gauza loia bera eguiteco bideac artutea. Demoniãoac eraguiten deutse loiqueriac esaten dituezan miñai, diño S. Buenaventurac; eta berba loia bat bada beré ascoren arimac ilten dituz, esaten dau S. Bernardoc. Contu bada Cristiñaiac, onelango berbacaz; ez bein beré loiqueriaric esan, ta ez entzun gura beré; eta besteac esaten abietan badira, ishildu eraguin alango infernuco miñac; eta ori ezin badozue, alde eguin olango lecuetati; ezpaberé zuen biotzetan biztuco da loiqueriac su icaragarrizco bat, pecatu asco eraguingo deusuen. Eta zuec, gurasoac, ez ichi zuen seme-alabai alango eztegiutara, yolasetara, biguireetara ta leen aitatu dodazan besteetara yoaten; eta bacarric yoan leitequez Jaungoicoaren bildurreco lagunac baño izango eztierean eztegiuren batera edo bearguintzaren (bearlecuren) batera; eta ori beré al dan guichien, bada lagun onen artean bat izan leiteque adin-ona, eta bat da asco, lagun asco galduteco; eta beste aldeti barriz ezta lagun esan bearric izaten gogoac gauza charren bat emoteco. Zuen echeco bearrac barriz, cerbait estututa beré, eguizuez echeco familiagaz, eta campoco lagun ecarrico badozue, beguira nor ecarten dozuen, ez ecarri Jaungoicoaren bildurrecoac baño; alango berba zantarric esaten eztaquiezanac. Osterantzean zuec, gurasoac, alango lecu charretara yoaten umeai ichiten badeutsazue, edo echeco bearretaraco lagun charric badacazue, zuen umeac pecatu andiac eguingo dituez berbeagaz, ta gogoagaz, ta pecatu orreec guztioac zuen lepo-ganera etorrico dira, ta Jaungoicoac guero estu artuco zaituez.

Esan dodan beste bildur izatecoac dira berba loiac, baya alan da guzti beré echaquez falta izaten achaquiatic berba-loi-esaleai. Onelango achaquiatic bada erantzun bear deutset orain. *Aita*, esan daroe batzuc, *chanchetan esan oi doguz (gueuc) berba orreec, beste - ai barre eraguitearren*. Besteai barre eraguitearren, diñozu esaten dozuzala berba loiac. Eta ¿zu lango cristiñau batec bada esan bear leusquet olango gauzaric? Barre eraguin Jaungoicoaren ofensaco berbacaz, eta bear bada besteen arimetan calte andiac eguingo ditue-

zanacaz? ¡Ah Jaungoico laztana non da zuri zor deutsugun lotsa ona ta amodioa, ceure lepoti, bada, barre eguin bear badogu? Besteai barre eraguin? Bai, diño S. Juan Crisostomo-c, Diabruac barre gozoa eguiten dave berba loiac esaten direan lecuan, baya ¡Aingueru Santuac negar minac, eta ondo minac, eguiten dituezala! Eta eguin beré bear icusiric Jaungoico andia ecetaraco ez icusqui batzuc oñ azpian darabildela. Besteai barre eraguin? Baita zer daquizu zuc cer eguingo daven besteen biotzean zure berba loi orreec? Bear bada lecu emongo deutso ceure berba loi ori dala medio datorquioezan pensamentu loiai, ta oña artuco dave aurrerantzean pecatu andiagoe-tan yausteco. *Aita*, esango dave besteren batzuc, *demporea emoteco bashen eztaoaguz guc esaten berba, ipuin, eta canta orreec*. Ondo: eta ¿non da zuec artuten dozuen atseguintasun eta gustu loia, eta besteac eguiten daveen algarea, araco gauzaric loiena esaten dan orduan? Demporea ez euscun Jaungoicoac emon modu orretan igaroteco, ezpada bera serbietaco, eta gueroco zerua irabazteco. Demporea emon gura badozue eztira falta berba garbiac, santuen bizitzac, ta ipuin ez loiac. Doctrinea iracurten, edo itanduten bacengoce bardin bardin yoango lequiquezue demporea, eta bitartean barriz ceru andia irabacico cenduque.

Jauna, esan daroe ascoc, *eztaucaguz guc pecatutzat orrelango berbaac*. Ainbat oquerrago: bada agui da atsituric dagozala izcune orregaz zuen biotzac, eta aoac. Guela atsitu baten norbait sartu-barri danean, beingoan suurrac emoten deutse ango atsa, eta bertan ecin egonic egon doa; baya bein atara eguin ezquero eztau atsitutasunic asmetan. Alanche da berba zantarracaz beré. Lenengueran orrelaco berba loi bat esan edo entzun orduco icaratuten da bat; baya bein atara eguin ezquero ezta ezer sentietan; eta orregaiti diñozue eztaucazuezala pecatutzat onelango berbaac. Baya celan esan ciñaique eztaucazuezala orreec pecatutzat? Esan eguidazue olango berbaicune loian diñarduzuela badator Sacerdote, Abade, Guraso, Ugazaba edo beste lotsa-andico personaren bat ¿etzare beingoan ishilic gueldituten? Eta ceuetarico batec icusten badau onango personaren bat etorten, ta besteac aurrera badoaz euren berbaicunean, ¿eztau bertati esaten: ishi, urlia dator emen-da? Eta onelango personaren batec entzuten badituz zuen berba nasai orreec, etzare lotsatuta gueratuten? =Bai, Jauna, eguia da. = Bada deunguetzat ezpadaucazuez, ¿cetaraco ishilduten zare? ¿Cetaraco lotsatuten zare? Gauza ona balitz diñozuen ori, etzinatequece ishilduco; ezpaleuque berba orreec gauza

deungaric etzinatequece lotsatuco, eta alan ecin sinistu lequiquezue eztauczuezala pecatutzat.

Aita, esango dau beste norbaitec, *nic eztaucat onango berbetan asmu charric, esan baño besteric ezta izaten*. Cristiñauac, esan deusuet leen beré, ezuala asmu charric bear berba loia pecatu mortala izateco, bein berba loi andi-tzarra bada edo ñori pecatu eraguingo deusana, edo eraguiteco moducoa. Baya gorroto gueiago artu dagueioezuen alango berba zantarrai, esango deusuet orain Diabruac sarri ta sarri onelango izcune charra dauqueenac artu oi dituzala bere mandataritzat, eta bear bada berac berez galduco etzituquezanac alangoen bitartez galdu daroazala. Ara zer yazoten dan. Elduten da persona garbi loiqueriareen barri eztaquienen bat, edo loiqueriarri gorroto deusana, alango berba loiac esateco (esaten) ecandu deunguea dauquenen artera. Asten dira besteac, oi davena leguez, berbetan: batec esaten dau berba arin barre eraguiteco bat, erantzuten dau besteac beste bat; asten dira guztiac barreca ta algaraz: aurrera doa infernuco berbaicunea eta aurrerago eta loiago eta gozoago. Lenengueran bestea lotsatuten da, baya icusiric guztiac dagozala modu batecoac, besteac bashen guchiago ez izatearren, eguiten da euracaz bat, eta asten da berba loiac esaten. Eta aror non Diabruac galdu dauen arima triste au, cein galduteco, alango mandatariric izan ez-ic, bear bada etzan asco izango Diabru ori.

Irugarren, mandamentu onec galarazoten davena da gauza loiac eguitea. ¡Ay, Cristiñauac ceinbat loiqueria eguiten ete dira munduti achina, eta ceinbat achaquia billatuten eta topetan ete dira guero, loiqueria onec estalduteco edo edertuteco! Guei onen ganean bada da pecatu mortala gauzaren bat eguitea, ceinec bereanez daucan gogoa berotutea, obrazco (araguizco) pecatua eguiteco, edo ceinec orretaraco bideac ecarri leiquezan, guero alango pecaturic eguingo ezpalitz beré, edo eguiteco asmuric artuco ezpalitz beré. Alan pecatu mortala izan doa mutil-necatillac, edo guizonac ta andraac alcarreri laztan eguitea, edo mosu emotea. Baliteque ama batec azpaldian campoti ibili yacon semeai gogo char bagaric laztan eguitea, edo mosu emotea, eta bardin arrebeac urruneti etorri yacon nebeari, eta pecaturic ez izatea, orduan beré obato izango balitz beré alangoric ez eguitea. Eztot bada nic alango mosu eta laztangac gaiti berba eguiten, ezpabere osterantzeco fracadunac embra gaucari emon oi daroacoezanac gaiti, eta onec gaiti diñot pecatu mortalac izan doazala. Pecatu mortala da mutil-necatillac alcarreri, edo mutilac mutilai edo necatillac

euren artean bear eztan lecuetan deungaro ucututea, edo alcarreri siñu cital tentagarri ta pecatua adierazoteco moducoa eguitea, edo nesca-mutilac alcarregaz oraca, egozca, cirrica charto ebiltea.

Onetarico asco eguiten dituezalaco pecatu mortal andiac eguiten dituez araco mutil eta nescatillac, alcarregaz adisquidetasuna artu ezquero, alcar bagaric egon ecin direanac, batac besteagaz gura daven licencia artuten daveela, alcarregaz fiestetara, alcarregaz meriendetara, alcarregaz berba-aldi luceetan, eta albadave oqueluetan, eta bacarrean. *Jauna, eztogu guc gauza deungaric eguiten.* Ori ezta eguia: Ori esaten dozue uste dozuelaco seigarrenecoan obrazcoa (araguzcoa) baño beste pecaturic eztagoala. Baya non dira leen esan dodazan mosuac, laztanac, tiracac, ta besteac? *Jauna, adisquideak gara, eta asco gura deutzagu batac besteari.* Ainbat oquerrago. Adisquideac ezpacine pelleburu guichiago euquico ceunque. Arcaleri esan deutzazue asco gura deutzazuela, ecin arcal bagaric egon zare, ecin arcalganic aldendu zare, arcalegaz zagozenezan barriz asmetan dozue zuen erraietan infernuco su icarragarritzco bat, ceñec quiscaldu ta erre bear zaituezan, eta ¿diñozue eztozuela gauza deungaric eguiten? Ah Cristiñauac, ori Diabruaren itsumendi latza da, eta bere tentaciñoa. Zabiltze, zabiltze orretan, batu zaitece alcarregaz, eta demporeac esango dau, cetan yoco daven zuen adisquidetasun orrec. Leen esanetarico pecatu mortal andiac eguiten dituez araco erromerietara yoateco arcal billatuten direan mutil eta necatillac, arcalegaz ibilli, arcalegaz meriendau, batac besteagaz biurtuteco echera, eta gaubaz libreago ibiltarren, emen bota, an oratu, orain yo, guero ucutu, eta gueroago eta laztanago.

Pecatu mortal asco eguin oi dira placeetaco dantza nastuetan, yolasetan, biguiretan, liño-apaindutzeetan (liña-guintzeetan), artoac-zurituteetan, eta beste onelango batzacuntzeetan, nai gauaz direala, nai egunez direala: bada berba laban ta loiez ganera izan oi dira escucac, mosuac, laztanac, eta osterantzeco zantarqueria asco. Pecatu mortal asco ta asco eguiten dira gauaz San Diandolinetan, Andra Marietan, edo Errico Santuen egunetan gauaz eguin oi direan suetan; bada gauac egunac baño era ta gogo obeac emoten dituz zantarquerietan ibilteco. Eta orregaiti Alcate Jaunac, edo Fiel Jaunac eragotzi bear dituez onelango suac; osterantzecan euren lepo-ganera etorrico dira orduan eguiten direan pecatu asco ta esquergueac. Eta au ez eguiteco eztauque achaquia onic, bada euren escuan dauque eguin gura izan ezquero. Pecatu mortal asco eguiten dira yolas ta dantza

osteco batzarretan, bada orduan dantzan bertan baño beré loiqueria ta nasaiqueria andiagoac eguiten dira. Pecatu mortal asco eguiten dira dantzeetaric, yolaseric, fiestatic etzeraco bideetan, guztiz-beré iluntzean badira, edo gautu ezquero, orduan eguin doazan cirri, oracada, bultza, ta beste olangoac gaiti. Pecatu mortal asco eguiten dituez nesca-mutil ascoc arcalen altzoan yezarten direanean, bitartean miña ta escua gueldi eztagozala.

Onelango aldietan, bada, eta beste asco ta ascotan eguin oi dira pecatu guztizco esquergueac, baita bideac artu oi dira aurrerantzean andiagoac eguiteco. Alan-da guzti eztaudee sinistu gura izaten ez gazteac, ez gurasoac. Baya gurasoac eztauque onetan achaquia onic, bada eurac ibiliac badira alango dantza batzacuntza ta bide nastuetati eurac daquie ondo cer yazo oi dan alango lecuetan, ta barriz ibili ezpacirean sinistu bear dave euren ta umeen oneraco esaten yaquena, ta itundu confesore edo arima-zale bategaz, edo beste guizon yaquitun Jaungoicoaren bildurrecoacaz. Gazteac beré eztave sinistu gura izaten aric-eta euren buruac galduric icusi artean; eta alan edo eztave alan-goric confesetan edo iñosco alditan confesoreac itanduta badiñoec eguin daveela, ain epel esaten dave cé, laster dave aguiri eztauqueela damuric, ezta apurric beré. Nescatilla ascoc barriz eztave confesau gura izaten eurac erruric izan daveenic, ezta obrazcoan yausi ezquero beré, eta guztia izaten dira achaquia ta achaquia: Jauna, ni baquean nengoan; ez neutsan nic orretaraco bideric emon; ez nevan nic alango gauzaric gura; esaten neutsan baquean egoteco. Erdu ona; ta ¿celango bidez yazo yatzuz ceuri gauza orreec? ¿Yoan cinean ceu ocasifioa egoan lecura edo yente nasaien artera? ¿Izan zan mutil-nescatillen arteco batzacuntzan edo olgantzetan? ¿Cec ceroazan bada, alango lecuetara yaquinic zer igaro oi dan? Eta non nai zala ¿eracusten zeuntsen aurpegui aserrea, eta becoqui iluna, eta alde eguiten cenduan tentadorearen ondoti? Ala ¿barre eguiten ceuntsan eta algara gozoa? Bai, Jauna, barre eguiten nevan; baya esaten neutsan geldi egoteco. Guapo. ¿Celan diñozu bada ceure borondatearen contra izan zala? Gura eztozun gauzaren bat eguiten deusuenean barre eguin daroazu? Ceure ondorearen contra cerbait entzungo bacendu alperric ece etzeunque, ez, barreric eguingo ez algararic beré. Eta sugaren bat usiguitera ballilloatzu? esango ceunsqiuo macal macal: suguea, zagoz gueldi? ¡Ah Cristiñauac! eztozue guzurracaz Jaungoicoa engañauco.

Beguiacaz ta belarriacaz beré pecatu eguin lei seigarreneco mandamentuaren contra, miñagaz ta escuacaz ez ece. Eta alan pecatu

mortala eguin daroe beguira dagozanac icusten celan besteac eguiten dituezan alango loiqueria ta zantarqueria andiac. Pecatu mortala eguin daroe celataca besteai zorotziten dabilztanac, belarriac zuhur dituezala, ea asmau albaleguie besteac celan deungaro dabilztazan. Ay celango contu estua ta larria emon bearco deutsen Jaungoicoari gurasoac, euren ume andichuac, sei, zazpi urteric goracoac euracaz naste eratzoten dituezanac, edo mutil-nescato andichuac alcarregaz nastean eratzoten dituezanac edo oia euren oiaren parean iminten deutseenac, edo bai euren guela-barruan. Pecatu mortala eguin daroe gustuz, barreca, algaraz entzuten dituezanac berba loiac, ipuin loiac, errondo loiac, canta loiac, eta seigarreneraco bidea emon leioen beste edocein beré zantarqueria. *Aita, nic entzun dodaz berba loiac, baya nic ezteutset yaramonic eguin; belarri bateti sartu ta besteti urten eguiten deuste niri olango berbaac.* Eta esan eguidazu; lagun aen artera ziñoazanean ¿bacenquian zuc alango berba zantarrac esateco izcunea euqueena? *Ori bai, Jauna, baya ez naz ni euren artera yoan olango berbaac entzutearren, ezpaberé demporea emotearren ta dibertietearren.* Eta ¿cer eguiten cenduan bertan cengozanean? ¿Barrerac eguiten cenduan, olango berbaac entzun-da? eracusten cenduan arpegui arguiric? Bai, Jauna, bada; besteac beré eguite' even ta, niri beré barreac urteiten eustan. Bada yaquinic olango berba ciquinac esan oi zituezala, pecatu mortala eguin cenduan; bada imini cenduan ceure burua pecatu eguiteco arrisguan: eta deungueen dana, ceure barreagaz adierazo cenduan ondo eresten zeuntsela alango berbai. Eta ez orduan ez-ece, baita edocein demporatan barrea gorde bear da alango berbac entzunda, ustezuste-bagaric (edo gogoaz bestera) entzuten badira beré, beste esaten davenari oñic ez emoteco urrengoan alangoac esan daguizantzat (esateco). Eta nescatilla garbiac aurpeguico gorritasunean eracutsi bear leuquee alango berbac lotsatu eguiten daveela.

Orain esango deutsuedaz besteai seigarrenecoan pecaturaco bidea ez emoteco, eta zuec beré ez artuteco eguin bear eztozuezan gauza batzuc. Eztave uguer eguin bear mutil aciac, eta guizonac bideen parean, yentea yoan-da etorri ibilico dan lecuan, edo cale, plaza ta cai aldean, lagun ascoc icusi leiqueezan moduan: eta Justiciaco Jaun prestuac galarazo bear dave ori eguitea, eta obeto litzateque ume-bardingoi beré galarazotea, gueroco icasi daguientzat; eta beste aldeti barriz modu ascotaco yenteac dagoz munduan. Eztago ondo eguinic batariái, ganaduái, ta orrei beguira egotea umeac artuten dabilztane-

an, eta orren bearric eztagoanean, beste alde batera beguiratu bear da, eta ondoen ondoen lecu atati alde eguitea; cegaitic-ece gure gogoac eztaqui gueldi egoten. Deungaro eguiten daue emacumeac errequetan eta ibaietan bogadea icuzten, edo chabonadurea yoten dagozanean, beac ondo ondo estalduta ezpadauqueez: edo iñoc icusi leiqueezan lecuetan bernac garbituten iminten badira. Deungaro eguiten dave paparra edo besoac aguirian dituezala badabiltz, edo bularrac atera ta anditu ecinic; edo gona estuegui edo laburreguiacaz, edo umeari ugatza emoteco pañuluagaz contuz bularra estalduten ezpade. Deungaro eguiten dave nescatillac guizon yanciten badira, mutilac orraztuten badituez, edo mutilagaz naste gurdi baten, edo zaldi baten-ganean badabiltz. Eta oneec edo onelangoac eguinagaiti edonori pecatu egiteco, pensamentuagaz baño ezpada beré, oñic emoten badeutse pecatu mortala eguingo dave.

Ezconduen arteco pecatuen ganean beré, asco legoque cer esanic: baya oneec confesoreagaz itundu daitezala. Nic bacarric esango dot, cerbait eguiten badave umeac izatea galarazo eiqueana, pecatu icaragarria eguingo daueela, ta ecin ecelamberé eguin leiqueela ez ume sabelecoa edo bularrecoa euqui-arren, ez ume larreguiric ez izatearren ez ecegaiti. Beste modutaco gauzac gaiti beré ezcondu asco pecatu mortalaren azpian bici oi dira: eguiten dituez pecatu mortala izango direalacoaren bildurragaz, ta guero lotsa dira confesetan, eta guero dabiltz pecatu mortala eztireala, bai direala, confesiño deunga asco eguiten, bear bada pecatu mortala eztirean gauzac gaiti. Lotsac bada alde batera botata, onelangoric dauqueenac zucen ta garbiro confesadu beguie guztia. ¡Ay, Cristiñauac! Seigarreneco pecatu au da mundua galduric daucan pecatua. Arrituric, mututuric, eta bildurrez icara icara eguiteco da icustea celan daucan gaurco egunean pecatu onec mundua; ezteutso iñori beré parcatuten, ez zarrari ez gazteari, ez ezconduari, ez ezcondu-bacoari, ez guisacumeari ez emacumeari, eta ume bardingochu-guiñoocoac dagoz pecatu onetan sarturic. Bideetan, caleetan, celaietan, eta plaza aguiri guiñoocoetan entzuten dira berba loiac, zantarqueria esquergac; icusten dira escuca ziquiñac, oracadac, bultzadac, cirriac, beguiracune loiac, eta arren bada Elesha santuac eurac alangoric entzun ta icusico ezpaleudee. Oqueluetan barriz ¿cer yazoten da? Jaungoicoac daquiana.

Pecatu aushe da beste pecatu ascoren sustraia, ta etorburua. ¿Cegaiti eguiten dituz ainbeste lapurreta araco mutilac, araco nescatilleac, araco ezconduac? Adisquide loiari erregalu eguiteco. Cetati

datoz ainbeste gorroto, ainbeste ecin-icusi, ainbeste auci bidebaco eche galantai bea yo eraguin deutseenac? Seigarreneco pecatuti. ¿Cec eraguin dituz ainbeste ta ainbeste eriotza? Seigarreneco pecatuac. ¿Cec galdu eraguin dau ezcondu ascoren arteco baque ona? Seigarreneco pecatuac. ¿Cec eguin dituz ainbeste herege? ¿Cec galarazo deutse ainbesteri Jaungoicoac aguertu dituzan fede santuco eguiari sinistea emotea? Seigarreneco pecatuac. Quendu eguizue gueure errietati seigarreneco pecatua, ta agur, yoan cirean heregia guztia. Baya ¿cer yazo doa? Yausten dira seigarreneco pecatuan: lelengo eguin barritan damututen yaque, confesetan dira, ta Jaungoicoari parca escatuten deutse. Baya seigarreneco pecatua ceinbat eguinago, ainbat zalegarriago, eta eguiten errazago, eta orregaiti yausten da bigarrenez, irugarrenez, ta laugarrenez. Orduan beré confesetan da, baya ez lengo damuagaz; esaten dau eztavela beste bein eguingo baya ez len bashen gogo eguinagaz, eta orregaiti leen baño errazago, eta leen baño sarriago yausten da. Eta guerora guerora, eguin ta eguin, artuten dau eguiteco ecandua, eta ecandua beré ecandu gogorra. Eta ecandu oneri arpegui ez emonagaz yatorco pecatu eguin bearra. Alanche dirauscu S. Agustin andiac, berari yazo yacala. Orduan dericho pecatariari ecin onduco dala, eta daquiana leguez, ondu ez-ic, guero beste aldean deungaro yoango yacala, guraco leuque beste munduco conturic ezpalego. Orretaraco sinistu eraguin gura deutse euren buruai batzuc infernuric eztagoala, edo il ezquero chacurrac leguez gareala, eta esan beré asco eguin daroez olangoac; beste batzuc sinistu gura leuque seigarrenecoa eztala pecatu; beste batzuc Jaungoicoric eztagoala, eta beste onetarico asco. (Baya contu Cristiñauac, onetaricoric entzun badozue, Inquisiciñoari parte emon bear deutzazue, nori zer entzun deutzazuen). Onec guztioac eguiten dituez ea ishildu albaleguiez euren biotzeco deadarrac, eta aguiracac, eta gueldi-arazo albaleguiez bere biotzquetac, eta usiguiac. Baya ondo arpelic; bada biotza beti biotz, beti deadarrez, beti usiguiten, ta biotzquetan. Beti esaten deutse biotz onec; bai zu bazabiltz, bazabiltz; orain ondo zure gogora bici zara; baya ¿guero? Guero ¿cer izango da zugaz?

Eta mundua pecatuz bete badau seigarreneco pecatu onec, infernua Cristiñauz bete beteric dauco, ain modutan ece, Ligorio benegarriac, altara ganetan laster icusi bear dogunac, diño cé, seigarreneco pectua gaiti edo seigarreneco pecatuagaz infernura doazala ara doazan guztia. Eta derichat ece infernura yatzi albaguintequez, eta

anche erdi erdian yarriric itanduco bagueunquie banaan banaan bertan dagozan guztiai ea cegaitic infernura yausi cirean errescan errescan esango leusquegüela seigarreneco pecatuagaiti. Eta orregaiti beré cer eguiten dogu alango pecatuetati alde eguiteco? =Cer eguiten dogun alde eguiteco? Cer eguiten eztoгу seigarreneco pecatuan begui bieta-guiño gueure buruac ondatuteco? Guztia da dantzeta, guztia yolasa, guztia fiestea: biguirac, errondac, berba loiac, cirriac, siñuac, adisquidetasunac, ta Jangoicoac daquizanac. Cristiñauac nos edo nos contuan yausi gaitazan: ezagutu daigun seigarrenecoa dala guri pecatuan yausi eraguiteco munduan dagoan arriric labanena, eta eguin daiguzan beraganic urrun eguiteco aleguinac.

FRAY MATEO DE ZABALA

15. SEIGARREN MANDAMENTUAREN GANECO ICASBIDEA LENGOA BASHEN LUCEAGOA

(B, 51-56. or.)

1. Neure Cristiñaiuac, arimaric gueienac condenetan direalaco seigarren, Jaungoicoaren legueco mandamentu edo aguinduan uts eguiten dabeelaco gura neunque onen ganean berba eguin. Ba'quit ezta erraz bear dan leguez azaldu ta expliquetan, eta pelleburuz betea dana: baquit angueruen garbitasuna bear dana ez loituteco lecu santu au, eta orregaitic, ichico neusquio pocic bapere esan bagaric. Baya beste aldetic yaquinic arraina sare bategaz legue-che artuten dituzana pecatu onegaz Diabruac Cristiñaiuen arimaac, e'neunque cer edo cer esan bagaric ichi gura: barriz uste dot Jaungoicoac iminico dituzala nire espanetan bear direan berbaac, garbi garbi adietan emoiteco pecatu loi, atsitu ta infernuco quiratsez betericu au.

2. Seigarren mandamentu onen contra eguin leite pecatu, neure Cristiñauac, gogoagaz, berbeagaz, eta eguiteagaz. Lelengo eguin leiteque pecatu gogoagaz (ez gauza loia gogora etortea pecatu dalaco, ce etorri-arren bateri gogora pensamentu edo gauzaric loien loiena, eta ciquinenic ciquinena beré, lecu emon-ez-ic, edo eguiteco gurariric euqui-ez-ic, eztago pecuric bapere beré). Eta alan gauza pensamentuzcoetan, edo gogozcoetan modu bitara pecatu eguin leiteque. Lelengo eguiten da norberac gauza loia eguiteco guraria, eta ataraco deseoa artzean dabenean guero eguin ez-arren beré. Ara irudin ta exempluchu bat obeto aditu daizuen. Icusten dituz mutil batec ormaz sarraturico hortu baten madari umaoc ara beguiratu dabelaco. Aec icustea berez ezta pecatu. Baya onec aec icusita diño bere artean: Ah ce ederrac direan aec madariac! Ah, bada, igon albanegui ormatic achina aec artuteco! Eta bere biotzean dauco ostuco leusquiozalacoa yabeari erea baleuco: baita ichiten badituz artu bagaric da edo ormea altueguia dalaco, edo edonoc icusi ce daien bildurrez. Onec bada, lecu emon deutso ustuteco gureari, ta beragaz bacarric pecatu eguin dau eguño ostu ez arren. Bada beste onen beste yazoten da pensa-

mentu, ta tentaciño loiacaz beré: datorquioz bateri pensamentu loi ta ezainac au enzun dabelaco, ain gauza iracurri dabelaco, edo edonor billosic, edo modu charrean uste baguean icusi dabelaco: au orain-diocoarren ezta pecatu, ce S. Agustinec beste yaquitunacaz naste diñoandi, eztago peccaturic, norberen borondatea bagaric. Baya etorri ta asmadu ezquero pensamentu loaia, borondateac eracutsi badau, begui ichi idigui baten baño ezpada beré, eracutsi badau (dinot) barruan gauza aren guraria, eta emon badau consentimentu osoa gogora etorri yacon gaucea eguingo leuqueala erea baleuco, ara non eguin daben pecatu mortala, eguño eguin ez arren, consentidu ta gura izan daben gaucea. Esan pecatu mortala, baita ondo, ce seigarren mandamentuco gauzeetan eztago gauza chiquerric, bein vorondate osoagaz gura izanic, eta ceimbat bider artuten daben batec onango gauceen guraaria, edo á gaucea bera dan aldetic eguiteco gogoa, aimbat izango dira pecatu mortalac, baldin borondatea lelengo gura izan eban gauzatic atseratu edo otzitu bagaric egon ezpada: eta alan onec contu atara bear dau ceinbat bider lecu emon ta consentidu daben, eta esan bear dau beré izan bada pensamentua esconduagaz, esconbagacoagaz, edo voto castidadecoa eguinic daucanaz, edo aideren bategaz, eta ce aidetasunean.

3. Beste modua, gogora datoza gauza loietan pecatu eguitecoa da, tentacinoa edo gauza ciquina gogora etorri ezquero, badago norbera guztuz, ta berac gura izanda, pensetan gogora etorri yacan gauza atan apur apur baten baño ezpadaberé, eta alangoric eguiteco asmuric, ez gogoric edo gurariric euqui ez arren beré. Ara emen irudi eder bat obeto ulertu daizuen. Dagoz zeugaz naste lau edo bost lagun subete baten berotuten: eta batec diño: ene, cerbait erretan dago emen, errean usaiña da, eta yaguiten zaree guztio, beguiratuten ea zuen erroparen bat bada erretan dagoana. Beguiratuten dozu zu-peré, eta dacutsu zure erropea dala erretan dagoana. Zuc bertatic amatetan badozu, edo ceure aldetic eguiten badozu aleguin guztia amatetaco, ezta zurea errua artean erre yatzuenena, baya aric aurre, amatadu bearrean bazagoz berari adi, eta icusten celan erretan dan, edo bai nagui amatetaco, ya ordutishec ceurea da errearen errua. Bada bardin da tentacinoetan, eta pensamentu loietan beré; tentaciñoa da Demoniñoac ceure biotzean iminten daben chingar bat: zuc au tentaciño au, pensamentu loi au, edo infernuco chingar au igarri orduco botaten badozu, amatetan badozu, edo eguiten badozu aleguina quendu ta botetaco ceure biotz eta gogotic, edo Jaungoicoari biotza ere-

guiric, edo nequegarriren bat arturic, edo eriotzaco ordu tritea, edo infernuco penaac gogora ecarriric, ordura artean tentaciñoac edo pensamentu charrac ceure biotzean cerbait erre badau, ezta zure errua. Baya ezagutu eta igarri ezquero etorri yatzula tentaciñoa edo gauza bear ezтана gogora, bazagoz berari beguira, eta gustu eta atseguñen bat atan artuten, ara non dan errua zeurea, eta non eguiten dozun pecatu mortala apur apur baten baño ezpazagoz beré, ta eguitemco gogoric euqui ez arren beré. Eta aror nondic ezagutu eta yaquingo dozuen nos dagoan pecatu, eta nos eztagoan; bada pecatu mortala seigarren mandamentuaren contraco gaucetan eguitemco, asco da norbera, bere guraz badago pensetan gauza atan apur, edo tangachu baten baño ezpada bere.

4. Orregaitic eguiten dabe pecatu mortala, lelengo araco guizon eta mutil, andra ta nescatillai, edo oneec aei, edo ederric dagozalaco, edo ederrac direalaco, edo danzan dabiltezala beguira edo adi egonic, euren barruan atseguin edo gusturen bat artuten dabeenac apur apur bat, edo beguiac ichi idigui artean baño ez izan arren. Bigarrenco eguiten dabe pecatu mortala araco esconbagaric egonic euren biotzean atseguin edo gustu artuten dabeenac, apur apur baten baño ezpada beré, esanic euren barruan: ah bada, urliagaz edo urleziagaz ezconduta banengo aushe edo aushe gustu au euquico neuque. Irugarrenco eguiten dabe pecatu mortala araco personac ceintzuei edo justiciac, edo gurasoac, edo confesoreac alderatu eraguin deutseen beste personearen eche edo (laguntzatic) laguntasunetic, baya euren biotza oraindio besteagan imini eta yosiric dauqueenac, eta euren biotzean gustuz agan pensetan dagozanac apur apurbatecoa baño ezpada beré. Laugarrenco eguiten dabe pecatu mortala araco estegüetara (edo escontzetara) yaten, edaten eta danzetan doazanac euren barruan gustu edo atseguin arturic, egun atan ezcondu direanen artean gaubez igaroco danen gomuteagaz. Bostgarrenco eguiten dabe pecatu mortala araco personac euren honrea ez galduterren obraz yausi ezteitezan ondo beguiraturic, barreca, cantaca, zantzoca eta berbetan euren artean erretan dagozanac edo gustu eta atseguin artuten dabeenac gauza ezain eta loietan, apur apur baten baño ezpada beré, izanic oneec araco sagar campotic gorri ta cindo egonic, barruan eta biotzean ustel ta gauza eztireanen leezcoac. Seigarrenco eguiten dabe pecatu mortala araco persona, esconduteco berbea emon ezquero, euren barruan, apur apur baten baño ezpada beré, gustu eta atseguin artuten dabeenac, ezcondu ezquero eguingo ditue-

zan gauzeetan. Zazpigarrengo eguiten dabe pecatu mortala araco alargunac, ezconduta egozanean eguiten cituezan gauzaac gomutauric, euretan gustu ta atseguin artuten dabeenac apur apur baten baño ezpada beré. Zortzigarrengo eguiten dabe pecatu mortala araco senar eta emazte bata besteaganic aparte egonic gustu eta atseguin artuten dabeenac apur apur baten baño ezpada beré bere lagunagaz dagoalacoaren gomutan. Bederatzigarrengo eguiten dabe pecatu mortala araco esconduac, matrimoniñoac eguiteco escu emoten deutsen gauzan, bere lagunagaz egonic, euren biotz eta barruan gustu eta atseguin artuten dabeenac apur apur baten baño ezpada beré, beste eurac gura leuqueen personeagaz balegozana leguez. Amarrengo eguiten dabe pecatu mortala araco seme-alaba, otsein eta beste ascoc euren guraso, ugazaba, edo ezconduen oera zelata egonic, euren artean gustu eta guraari loiz dagozanac, apur apur baten bashen izan ezpada beré. Amaicagarrengo eguiten dabe pecatu mortala araco personac, gauza loiac iracurten, icusten, eta enzuten dagozanac bere artean gustu ta atseguin artutearren apur apur baten baño ezpada beré. Amabigarrengo eguiten dabe pecatu mortala...baya ¿nora noa? Ecin icentadu leiz nortzuc, eta ceimbatec eguiten dabeen euren biotz, pensamentu eta barruan onen ganean pecatu mortala: baya esango dodana da asco igarteco ceimbat arima daroiazan Demoniñoac bide onetatic. Pensamentuetatic igaro gaitazan berbeetara.

5. Eguiten da, bada, pecatu mortala seigarren mandamentuaren contra berba loiacaz beré. Eta aushe beré da sarri ta sarri yazo oi dana eta beragaitic yaramonic eguiten eztabeena, eta confesetaco beré gomutetan eztireana. Solo baten badagoz, eztaquie ascoc berba loi eta arinac bashen esaten, eta bear bada, deungueena dana, atso-agura buru urdinac beré. Oneec gazteen berba gangarrac galarazo bearrean, eurac izan doaz aurrengo yente gazteen beguiac idiguiteco. Ameneco esango deuste, Aita, chanchetan eta barre era'iterren esaten doguz. Bai nai, berba loa bada, pecatu mortala da. ¿Cer daquizu zuc zer eguiten daben berba orreec besteen biotzean? Bear bada pensamentu loiari lecu emon eraguingo deutzazu, eta bai galdu beré bere arimea. Bigarrengo eguiten dabe pecatu mortala araco neguco gaüetan echeetan goruaren achaquiagaz batzainduric ipuin loi alegreac contetan dituezanac, guztiz beré ume eta gazteen aurrean edo eurac dantzuela, pintauroic gaucea aldaien ondoen obeto aditu daien esan gura debeena. Aita esango deustazue, demporea iraotearren baño eztoguz esaten. Obeto eguingo zeunquee bacoachac zuen echeetan bearrean egon,

orretaraco batu baño: eta eztaquit celan ichi leioen gurasoac euren seme-alabai gäüetan olango batzaarrac eguiten; ce ondo yaquin beie, onango lecuetan yazo oi dana. Baya yaquin gura ezpadabe, edo aiztuenä eguiten badabe, nic gomutarazoco deutset. Ara bada. Onango biguira ta batzaarreetan batzainduten dira auzoteguico mutil ta nescatilla ero gangar guztiac; eta ez bacarric ezteutse iñori euren deungaro esanacaz ta murmuraciñoacaz azurric osoric isten, baita beré an esaten dira ascotan enzun beré ezin leizan gauzaac; an ascotan mozuca, an cirica, eta andic gabeco aimbeste orduetan echeraco urteiten dabeenean zantzoca, edo obeto esateco irrintzaca mandoac leguez, eta beste esan ecin leizan gauzaac ascotan. Eta au guztiau, ¿noen ganera yausico ete da? Gurasoenera, yaquinen ganean biralduten dituezalaco umeac alango lecuetara. Gurasoac eguin bear dabeena da euren seme-alabac echean euqui. Baya esango deuste oneec: Aita, pocic euquico neuquez echean, baya laster loac artuten dituz, eta eztabe goruric erdiric beré eguiten cein lagunen artean: alcarren artean olguetan dira, eta alan dagoz zuur; loac artu bagaric. ¡Ah zorigorresco gurasoa! ¡Ah guraso gogor ta cruela! Emen aguiiri da gueiägo gura dozula aec eguin al leian bearra, aen arimea baño: emen aguiiri da gueiägo gura deutzazula ac betetan daben ardatz ariari, beré arimaco garbitasunari bashen; ce alan ezpalitz, ezeusquio ichico batuten aimbat ero eta gangarren artean, ta ameneco zure seme edo alabea gangarrena izanic, zuri sensuna daucala irudiarren. Baya ondo, izan daiteala sensun-onecoa, ta batu dadila sensun-onecoacaz, ¿eztaquizu venturaz ocasiñoac galdu leiala beste asco eguin dituzana leguez? Gaur danzu ipuin edo berba loi bat besteen artean; biar artuten dau adisquidetasun gueiägo ara batuten dan, edo bertaco mutilagaz: esaten deutso au edo beste berba arina eta Diabruac, lo eztagoana leguez, iminten dau euren biotzean guraari loien chingarra. Eta emetic ¿cer? E-nas asartuten, neure Cristiñauac, esaten olangoen artean zer yazo oi dan: baya elduco da juicioco eguna, guztia aguer-tuco dabena.

6. Irugarrenge eguiten dabe pecatu mortala araco canta loiac, ari-nac eta maliciäz beteac cantetan dituezanac, mutil eta nescatilla zoroac eguin oi dabeena leguez erromeria, yolas edo fiestetatic gau utsez datozanean. Laugarrenge eguiten dabe pecatu mortala araco mutil eta nescatillac, alcarregaz batu ezquero esaten dituezanean amodioz-co berbaac, baita siñuac alcarrerä eguin amodioaren ezaugarritzat. Bostgarrenge eguiten dabe pecatu mortala araco mutil eta nescatillac

gaüez edo fiestatic doazanean, edo errondan dabiltezanean zantzo eguiten dabeenac zantso au bada besteari dei-eguiteco, edo besteen biotzean guraari citalen chindarra biztuteco. Seigarrengo eguiten dabe pecatu mortala araco guraso euren seme-alabaren aurrean berba arinac, ezainac, eta matrimoniñoco gauzaac (edo senar emazteen artecoac) esaten dituezanean, ceintzuecaz idiguiten dituezan euren beguiac gauza deungaraco. Eta beingoan esan ta erabatera asco sartzaiteco, berba loi, ciquin, arin eta amodiozcoac esaten direan bacochean, ceintzuecaz emoten dan adietan gauza deungaren guraria, eta bai dantzuenai beré beste ainbeste gura izaiteco bidea, edo bai beintzat gogoan onango loiqueriac euren guraz erabiltecoa, da pecatu mortala; baita ascoren aurrean esaten badira izango dira aurrean dagozanac lainbeste pecatu.

7. Seigarren mandamentuaren contra eguiten da pecatu eguinagaz edo obraz beré, eta au izan leiteque sei modutacoa. Lelengoa da eguiten danean araguizco pecatu ezcondubaco leen yazoagaz, edo doncellatasuna leenic galduric daucanagaz. Bigarrengo da eguiten danean doncella garbi ordura artean iñogaz zer icusi, edo eguño pecaturic eguin eztabenagaz: eta au da pecatu gueiago eta confesiñoan esan bear dana. Irugarrengo da inori gura ta gurez ta indarca pecatu eraguiten yacanean, berac aleguin guztia eguiten dabela ez eguiteco: eta alango orduan pecatu icaragarrizco bi eguiten dira, confesiñoan esan bearrac. Baya onetaraco besteac bene-benetan ta cindo cindo gura izan bear eztau, eta ezta gauza ascoc dauqueen gura-eztabeenen isquia; ce indarric eguin bagaric badator atara, ezta pecatu mortal bat bashen izan, beste alde batetic gueiago ezpadira (izanezic), eta aushe da gueienetacoa. Embra asco etorri doaz, guztiz bere nescatilla gauce, esaten eurac gura ez eveela iños alango gauzaric eguin, esan eutsela geldiric egoteco, eguin ebala aleguin guztia beraganic libretaco eta beste onelango ganorabaco achaquiagaz: baya ez yaque sinistu bear; guztia izan doa guzurra ta abarra. Esan eguidazue ezpabere zuec, burua garbitu gura dozuenc; ¿batzainduten zaree gustuz alango personacaz? Bazabiltze euracaz conversaciñoetan, fiestetan, erromerietan, dantzetan, bideetan, baita ascotan gau utsez? Bada noc sinistuco deusue ceuen vorondatearen contra izan zala? Berba loi edo arinen bat esaten deusuenean asten bazare barreca, ucututen deusuenean igues eguiten ezpadozue, ¿noc sinistuco deusue zuec gura etzenduela? Etorrico balichaquezue mutil bat escopeta edo ezpata bategaz bicitzea quentzean, ¿etzinatequez asico deadarrez,

lagunac batuta libradu zaguiecen, edo etzeunque guichienez yente artera eguingo? Bada yatorzunean beste personea ucututen, mozu emoiten edo beste olango gauza loien bateraco, ¿ce eguiten dozue? ¿Nora eguiten dozue iñesi? ¿Ce aleguin eguiten dozue lagunac batu-tearren libretaco emon-gura deutsuen arimaco eriotzatic? Ecer bere ez: gueien gueienez eguin cenduana da, esan motel motel, ta erdi esanean gueldi egoteco, alangoric ez eguiteco, baya zuec gura eguitea, ta ichi eguiten. Bene-benetan gura izan ezpacendue, ez even eguingo eta alan guzurra diñozue esatean zuen borondatearen contra, eta zuec gura etzenduela izan zala.

8. Laugarrenkoa da eguiten dabenean ezcondubaco batec ezconduagaz eta emen dagoz pecatu mortal bi, cegaitic ce ezconduaren lagunari injuria andia eguiten yacon. Baya bitzuoc ezconduac badira, iru pecatu mortal icaragarrizcoac izango dira, batac eta besteac alcarren lagunari eguiten deutsen bidebacoagaitic bi, ta castidade edo garbitasunaren contracoa irugarrena. Bostgarrena da aide edo senideren bategaz eguiten dana, eta au bere confesiñoan esan bear da, bada senideagazcoa da berez pecatu, gordetan ez yacolaco aideari zor yacan lotsea, eta ceimbat eta urcoagoa dan aidea aimbat eta andiagoa izango da beragaz eguiten dan pecatua. Aidetasuna aimbat bideti etorri leiteque: etorri leiteque odoletic, eta au laugarren belau-neguiño elduten da: celangoa dan guraso, neba-arreba, osaba, iseco, eta lenguzeñen artecoa: etorri leiteque ezcontzatic edo deionenatic; au da ezconduric dagoana, edo ezconduteco deionac bota dituzana eguiten da bere lagun senar emaztearen, edo senar emaztegueiaren aideen aide: eta au beré da laugarren belauneguiño: eta oneri esaten deutsagu coñatecea: eldu leiteque aidetasuna araguzco pecatu osoric eta ezcontzaco barbari [sic], eta au bigarren belaunaguiño baño ezta eltzean: esan gura da seindun eguiteco moduco pecatu eguiten dabena, eta ezcontzaco berbea emoiten dabena eguiten direala besteen guraso eta anaya ta aizteen aide. Azquenean, barriz, eldu leiteque aidetasuna bateoco edo confirmaciñooco sacramentuetatic, bada bateatuten edo confirmetan dabena, eta aita-amabichi edo besoetacoac eguiten dira umearen eta bere gurasoen aide, eta onerishe esan daro-quegu aidetasun arimacoa edo espirituala. Onetaricoen batzuen artean, bada, eguiten danean araguzco pecatu, izan oi dira guchien guichienez pecatu mortal bi, ta orregaitic ceatz ceatz esan bear yaco gauza bacoa confesoreari. Seigarrenkoa da voto castidadecoa daucanac, edo Jaungoicoari promes eguinic deutsenac guztiz garbi izai-

teco berba, gogo ta eguicunetan, edo onangoric euqui-ez-arren, daucanagaz eguiten dabenean. Promes au dauque Fraile, Monja ta Abadeac, Elesha ama santearen licenciaz edo aguinduz eguin-da, baita beste ascoc bere norberen devociñoz; eta esan bear yaco confesoreari ea lelengoetaricoac bacirean, ce orduan zan pecatu ascoz icaragarriagoa, ala bigarrenetaricoa, bada orduan beré izan doa sacrilegio chitozco andia. Da beré sacrilegioa Eleshaan, hermitan, edo beste alango lecu santuan eguiten danean, edo comuniñoa (edo beste sacramenturen bat) artuta ordu laurengarrenge. Eztot ezer esan gura, araco lotsabacotzar, guizonac direalacoa aitztuta abere zantarracaz alango lotsagarritzco gauzeetan dabiltezanac gaitic, ez araco euren buruacaz Jaungoicoac daquiezanac eguiten dituezanac gaitic; biotzecco arrac beré usiguiacaz esango deutse celango arrigarrizco pecatuac eguiten dituezan.

9. Ara emen neure Cristiñaiac seigarren mandamentuaren contra eguinagaz ta obraz eguin leitequezan gauza nagusienac. Baya bagoz beste asco beré gueienac edo pecatutzat eztaunquezanac, edo euquiarren beré eurai ichi gura ezteutsenac, eta confesetan eztituezanac. Orregaitic bada, Jaungoicoaren aurrean achaquiariac euqui ce daien, eta confesetaco eta olangoai ichiteco obligaciñoa dauquela yaquin daien, baita mandamentu au osoro adietan emoitearren, esango dot nortzuc eguiten dabeen pecatu lengo-ez ganeti. Lelengo bada diñot eguiten dabeela pecatu mortala norberen edo besteen bular, arpegui, aragui edo lotsarrietan escua guztuz eta bear izan bagaric darabileenac, edo erabilten ichiten dabeenac (deutsenac), yaztecoen ganetic bada beré, edo apur baten baño ezpada beré. Bigarrenge eguiten dabe pecatu mortala gueien gueienetan araco neba-arreba gazteac, sentzainac eta mutil eta nescatilla gazteac, eta malician cerbait sarturic dagozanac alcarregaz bear eztirean gauceetan dabiltezeanean. Eta ¿ceimbat onelango yazoten da umeen artean? ¿Eta ceimbat nagusi eta zar ete dagoz umetan eguin cituezan loiqueriac oraindocoarren bear direana leguez confesau eztituezanac, eta euren penitencia bear dana oraindio eguin eztabeenac? Irugarrenge eguiten dabe pecatu mortala araco mutil eta guizon alcarregaz, edo besteren bategaz gustuz mozu edo laztanca dabiltezanac eta mozua edo laztana ataraco emoiten ichiten deutsanac. Laugarrenge eguiten dabe pecatu mortala araco mutil eta guizon, andra eta nescatillacaz, emen bota an cirri; orain yo, guero oratu dabiltezanac faltriqueretacoa atarateco achaquiagaz, izanic euren gogoa gustu edo guraari loa: baita beré egui-

ten dabe andra edo nescatillac alan ibilten ichiten deutsenac. Bostgarrengo eguiten dabe pecatu mortala araco mutil eta guizon andra edo nescatillai gustuz ta gurari loiagaz, oña edo escua estutu edo sacatuten deutsenac, eta au eguiten ichiten deutseenac. Seigarrengo eguiten dabe pecatu mortala abere edo animaliai atan dagozanean gustuz adi dagozanac, edo eurai guraari edo gogo loiagaz oratu eta ucututen deutseenac. Zazpigarrengo eguiten dabe pecatu mortala... Baya ¿nora ete noa onenbestegaz? E-neunque izan beré larregui idigui gura ascoren beguiac, baya arritu, mututu ta bildurrez icara gogorrean gueratu leiteque beguiraturic zelan daucan araguzco pecatu loiac mundu zabala galduric, bada eztau isten ez zarric ez gazteric, ez umeric ez aguraric, ez mutilic ez nescatillaric ez ezconduric pecatu onec cacaztu ta loitu bagaric. Aushe da Demonioac mundu guztitic zabaldu daben sarea; pecatu aushe da infernuco atead zabal zabal eguin ta infernu guztia cristiñauz bete dabena: bada derichat cé sartuco baguintez orainche bertan, eta erdi erdian iminiric itanduco bagueunquioe an dagozanai: cegatic zagoce or? gueien gueienac esango leusquiguela araguzco pecatua-gaitic. ¡Ah zori-gogorreco pecatua, eta ce zabalduric, zagozan mundu achina! ¡Ah adugaistoco pecatua eta celan daucazuzan itsu eguinic Cristiñauric gueienac! bada izanic entero erraza zугan yaustea bideune charreetatic alde eguin ecic, eztaude ecetambere ardura guichiago iminten onetarico galbide ta pelleburuac ichitean baño.

FRAY MATEO DE ZABALA

16. LAPURQUERYA EDO OSTETIAREN GANECO ICASBIDIA

Non furtum facies

(B, 81-83. or.)

1. Jaungoicuaren legueco zazpigarren mandamentubac aguinduten deuscuna da iñori ez ecer ostu edo quendutia. Aguindu onetan ez bacarric aguinduten da ez iñoena quendutia ezece, baita beré ez iñori calteric eguitia ondasun edo bere gauceetan ez iñoena euqitia bere borondatiaren contra, ez iñor engañetia saldu-erosi, edo tratu-contratuetan, eta zorra paguetia. Oneetati edoecin beré ez gordetia pecatu mortala da berez; baña onetaraco quenduten dan gaucia, edo eguiten dan caltiac andijac¹ izan biar dau, bada chiquija bada bacarric izango da pecatu arina edo veniala. Ceinbatera eldu biar dan quenduten dan gaucia edo eguiten dan caltia pecatu mortala izaiteco, ezta erraz icentetia (ebastia) ta señaletia; baña guichi bat gora bera lau errial izan oi da. Baña jaquin biar dozube ce batentzat gauza chiquija dana, beste batentzat andija edo (contu daigun) gravia izan leitequiala: esateraco errial bat guizon aberats batentzat gauza chiquija da; orregaitic ori oneri ostutia pecatu veniala da; baña errialchu au pobrechu batentzat gauza andija izan leiteque, eta au berari ostutia pecatu mortala: jost-orratz (jostun-orratz) bat gauza chiquija da, baia quenduten bajaco dendari, edo josquilla (jostun) bati, eta onec besteric ez euquitarren galduco baleu aloguera, calte andija etorri lequijo, eta pecatu mortala eguingo leuque quenduten deusnac jost-orratzau. Au jaquinic bada, lenengo eguiten da pecatu mandamentu onen contra proximuari cerbaist ostuten deusnac, nai dala diruba, nai dala erropia, nai dala garija, nai dala artua, nai dala oguia, nai dala beste edoecin beré gauza. Modu bitan au eguin leiteque, edo beinguan gauza andiren bat quendubagaz, edo puscaca, puscaca, gaur lauciri, bijar lau marai eta etsi zortzi marai. Modu onetan ostuten davenac, lenengo gauza chi-

¹ Ez da ondo ikusten *andijac* ala *andÿac* idatzita dagoen, *-ij* -az idaztea erabaki dugu eta horrela doaz jarraiko guztiak ere.

quija ostu ebanian beevan intenciñoia lapurqueri onecaz gauza andirra elduteo, ordubanche eguin eban pecatu mortala; baña onelango borondateric ezpeucan eguingo dau pecatu mortala ostute-puscaoneec elduten dirianian gauza andija eguitera.

2. Baya pecatu mortala izan dedin modu onetaco ostutia gueijago izan biar da, beinguan quenduten dana baño: esateraco lau errial bada asco beinguan ostuten dana pecatu mortala izaiteco, zortzi errealera eldu biar dau puscaca ostuten dana. Modu onetan pecatu eguiten dabee araco Criada edo Otseinac, plazara duazanian gaur lau ciri, bijar lau marai, etsi zortzi marai quenduten dabeenac, eurac gura ditubezan gulerijac erosi eta jateco, edo onan batuten dabeen dirubagaz cerbait erosteco. Ceimbat onelango ete dagoz! Icusten dabee euren lagunac darabiltzala zapata politac, pañubelu ederrac, mantilla eta gona finac, cinta edo gauza ederracaz apainduric; eta euren enbidijaz beteric ez leuque eurac baño guichijago izan gura, ez jaque onetaraco elduten soldatia, eztaque noc emon daijoen, eta orregaitic artuten ditubez milla modu pecatuzco apainduric ibilteco. Baña zer jazoten jaque? Uste daveenian guztijac alabetan eta ponderetan dau-bela, euren soñeco erropa ederrac gaitic guztijac abijetan dira murmuretan: “Nundic ete dauco onec ain majaric ibilteco, zapata bat costa jaca aimbeste, mantillia eztau eguin aimbestegaz, gonia eztau erosi izango aimbeste dirugaz, soldatia echaco elduten aimbesteraco, eche orretan sartu zanian ez eucan orrelangoric, darabilen guzti guztija barri barrija da, eta azquenez urteiten dau ostu eguin izango dabela, deungagoric esaten ezpada. Cristiñaubac, eztozube esaten zeuroc beste onenbeste bestiac gaiti? Bada bestiac beré auxe esango dave zubez gaitic: “Aita, guztiz da guichi emoten deuscuben soldatia, echat zapataraco beré elduten; eta berac merecidu daven baño beré biar ascoz gueijago eraguiten deuste, eta ni nagan echian eztago besteetan dagan aguilandoric beré, eta alan quendu dodan guztijagaz beré ezta elduten eguin dodan biarra paguetara. Esan eguidazube, ¿ajustadu cinien soldatan? Bai, aita, eta paguetan deuste soldatia. Bada ezteutsube gueijago zor, eta au baño geijago artutia pecatu da Aita-Santu Inocencijo amaica-garrenac diñuana leguez.

3. Aguilanduac, edo sartu urtenac, eta beste onelango irabacijac borondatezcuac dira, eta eztago obligaciñoeric emoteco. Baderichazube guichi dala soldatia, eguin ajuste barri bat, edo topadu beste ugazaba bat. Baña ¿cegaitic elduten echatsube soldatia? Amabi errealeco zapatia asco dozubela ogeui errialecua gura dozubelaco, eta au

bere politena laster urratute: ogueta amar erreleco mantillia asco dozubela iruroguei edo gueijagocoa gura dozubelaco; modu onetan ecin asco izan soldatia. “Aita icusi ditubez ugazabac nire erropac, eta ezteutse ecer esan, eta eurac beré gura dabee ondo janci naitian. Esan eguidazube, itanduco baleutsube ugazabac nundic dauquezubezan esango ceunquijoe, euren lepoti eguin dozubezala, echeco gauzaac ostubagaz? Guzurren bat asmaduco ceunquee, eta esango zeunquijoe norbaitec erregaladu deutesbezala, edo aideren batec emon deutesbezala, edo gurasuac eguin deutesbezala. Eta bacenquije ugazabac ontzat daroiela quendutia guichica guichica, etzeunquee euquico bildurric, ezta lotsaric eguija esateco”. Eguiten dabe pecatu criadu criadac ugazaben licencia edo borondate бага emoten dabeenac orain oguija, guero araguija, gaur urdaija, bijar bacallaua (macallaua), batzubetan erropia, beste batzubetan garija edo artua, bada ezta euren modu onetan emoten dabeena. “Jauna, echeco cer-egui-netan lagunduten deust, mandatuac eguiten deustaz, eta edocein ordutan dei eguiten deustadania dago prest. Esan eguidazube, cer eguin orreetan noc dei eguin deutso ugazabac, ala ceuroc? Ceuroen obligaciñocuac cirian biar orreec edo etcirian? Ezpacirian zure obligaciñocuac, eta ugazabac dei-eguin beutsan, edo aguindu beutsan ecarten, berac pagaduco deutso, edo esango dau zer emongo jacon. Baña ceuria bazan obligaciñoia, eta ceuc dei eguin baceuntsan biar guichijago ceuc eguitarren, alperric egotarren, edo ceure lagunacaz pasietara juatarren, ceuc ceureti pagadu biar deustazu; bada ezta arrazoia ugazabac gauza bat birritan pagadu daguijan, bata zuri soldatia emonagaz, bestia zuc quenduten deustazunagaz”.

4. Guichica quendubagaz pecatu mortala eguiten dabee ardaa, orijua, bacallaua, oguija eta beste onelango gauzaac salduten ditubezanac, ondo neurtu eta pisetan ezpadabee. Eta ez esan, esaten daruena; au eguiten ezpada ecin ondo urten leitiala tratuban, eta au eguinagaz bere ozta ozta ateretan dozuela ceuroena; ez esan echiaren errentac caru dagozala, eta ceuroi bere neurri falta asco etorten jatzubela. Eranzune edo errespuesta oneecaz uste daubee ascoc eta ascoc eztala pecatu lancian puscachu bat neurrijan edo pisuban quendutia. Baña au Demoniñuaren asmuba da, eta berac ifini daben zazia. Cer adierazo gura dozube diñozubenian, ecin bestelan tratuban ondo urten ciñaiqueela? Esan gura dozube quendu dozubena baño gueijago galdu dozubela? bada tratu orretan sartu baño lenago beguiratu bear cenduben, cer eguiten cenduben. Bestiac deungaro eguin dabe

zu engañetian, eguija da; baña beraac deungaro eguin dabeelacuan ceuc bere deungaro eguingo dozu? Denda edo eche errentia caru badago eztau zugana erosten datorrenac artu gura bere ganian paguetaco obligaciñoeric. Baña gueijen adierazo gura dana esaten danian ezuala tratuban ondo urteiten izaten da eztozubela irapazten gura dozuben laimbeste. “Beguiratu eguizube cer jazoten dan, eta ezautuco dozube. Esconduten da guizon gazte bat nescatilla bategaz, eta euquiteco cegaz bizi ifinten dabee dendachu bat. Lenenguan tratura eguinic eztagozana leguez bildur andi bategaz dabilz pisu eta neurrian bacochari beria emoteco. Baña laster aberastuteco deseoa sartuten badira, abijetan dira emen pisca bat quencen, an guichijago emoten; aguiraca eguiten deutse venturaz concijencijac, baña esanagaz euren bijotzian, orco pusca bat gaiti ezta ardura, bestiac bere alan eguiten dabee, aurrera duaz. Ateretan dabee irabaci on bat, pozturic onegaz artuten dabee denda andijago bat, eche obago bat; eta errentia andijagua dana leguez uste dabee irabazijac bere andijaguac izan biar dabeela. Sartuten dira tratuban, eta orra nun, atzo criadu criadac cirienac gaur aberasturic dagozan; alan cer jan ez euqueenac gaur ondasunez beteric. Oneen ondasunen eta irabacijen Juez eztoz izan gura, baña daquidana da, bein sartu ezquero laster aberastuteco deseotan, guttiz dala gach, ez edocein modutan ondasunac batutia, oquer nai artez”.

5. Eguiten dabee pecatu zorrac paguetan eztitubezanac, eta paguetaco aleguinic eguiten eztabeenac. Jauna, bazaudaz zorrac, baña chiquijac baño eztira: zapatarijari zapata batzuc, dendan pañuelu bat, dendarijari jaque bat, eta onelango chucherija batzuc. Baña eztozube pensetan calte andijac eguiten deutzazubezala bearguin edo oficialai: zuec zor deutzazubena leguez zorco deutse benturaz zuec lango ascoc; elduten jaco demporea oficiale coitadubari zubentzat atera daben generua paguetaco, estututen da; escatuten deutzube artubena, eta cer eranzuten deutzazube? Erdu beste ordu baten; beste onen beste eranzuten deutso bestiac eta orra nun dagan premiña andijan. Bada cer eguingo deutzat, Aita, ezpadaucat cegaz pagadu? Eztaucazube zegaz? Euquico ceunquee ez ain apainduric jancijagaz, eta ez eguinagaz ceuroc daquizubezan beste gastu zoro asco. Ori bai dala, Jauna, baña cer esango dabee jazten nazan moduban jasten ezpanas? Nic beste itauna edo pregunta bat eguingo deutzubet. Cer derichazube diñuela jazten zareen moduban jasten zareelaco? Ceuroc besteac gaitic esan oi dozubena. Nundic ete dauco onec ain majaric

ibilteco? Eta eranzuten dau bestiac iñori ezpagadubagaz erraz da apainduric ibiltia. Zapatarijac diño, zapata politac daruaz, baña nic artuco neunque euracgaiti zor deustana: dendarijac eranzuten dau, arro arroric dua mantilla eta goniagaz, baña neure lepoti, pagadu biar izan deutsadaz mercatarijari, eta eztago jaquin baño nos pagaduco dituzan aloguerac. Denderubac diño: ah ce alajia ori bacochari beria paguetaco, soñian daruazan pañuelu, calzerdi, eta cintac oraindijo pagadu bagaric daucaz, eta eztago jaquin baño nos pagaduco dituzan. Orra cer diñoen zuben ederto janciric ibiltia gaiti; eta ez leuque esango ori, guichijagogaz contentaduric zorrac pagaduco bacendubez.

6. Pecatu eguiten dabee araco eheco seme-alabai, Criadu Criadai edo Otseinai erosten deutseenac, edo salcen eruaten ditubezanac, echian oneec osturico arto, gari, bacallao edo erropac, eta ezta importa esatia, eztala izan eurentzat gauza onen balijua, edo eurai bijurtu eutsela; bada ondo daquije onelango gauzaac gurazuai eta ugazabai ostubac diriala eta ecin eurenac izan leitequez. Modu onetan seme-alaba edo otseinen batec cerbaist dacarrenian eguin biar dana da contu emon ugazaba edo gurasuai; bada bestelan euqui ezquero onelango seme edo otseinac noc estaldu eta noc saldu ostuba eche guztija ondatu leiquee, eurac lapur batzuc urtengo dabee, eta beste pecatu icaragarrijetan jauci; bada modu onetan ostuten dana ezta izaten mezaac aterateco, edo pobriai emoteco, ezpada milla picardija eguiteco eta alan estalguille onei artuco deutse Jesucristoc seme ta otseinac eguiten ditubezan pecatu guztijen contu; cegaitic, ezpaleuquee oneec noc estaldu, noc saldu, eta noc ezarri ostu ditubezan gauceen diruba, ez leuque ostuco, ez leuquez eguingo eguiten ditubezan pecatubac diru onegaz. Jaquin ezquero noena dan artu dan gaucia, edo nori eguin jacon caltia jaubiari berari bijurtu biar jaco; eta orduban ezta asco arimiagaitic mezaac atetia, edo limosna eguitia, edo composiciñoco buldia erostia: bada au bacarric eguin leiteque ecin jaquin leitequenian nor da gauza ostubaren jaubia. Ascoc eta ascoc uste dabeee aurquitu, edo topetan dabeen gaucia eurenac dabee; baña orduban eguin biar dana da aleguina eguin jaquiteco noena dan, bijurtu oso osoric, billa-zariric, ez beste gauzaric quendu baga; eta aguirri ezpada jauberic, esan bere Confesoriari eta berac esango deuto cer eguin biar daben.

FRAY MATEO DE ZABALA

17. SALDU-EROSIEN GANECO ERACUZ-ALDIA

(B, 71-75. or.)

1. Jaungoicoaren legueco zazpigarren mandamentuac galaazoten dituzan gauceetariac bat da proxima edo laguna engañetea saldu-erosian. Aimbeste dira iñoena quentzeaco¹ dagozan moduac eta tratuac ce, eztago guztiac arguitan imini leiqueanic. Eta alan berba eguingo dot ezauenen ganean, edo gueien eguiten direanen ganean, yaquin daguizuen nortzuc eguiten dabeen pecatu. Lenengo eguiten dabe pecatu salcen dabeena nasteetan dabeenac beste gauzaren bategaz: celangoac direan tabernari ardaoari ura ezarten deutsenac: errotari, eta oguiguña edo panaderac, urun edo oguiari carea, saia, edo beste gauzaric ezarten deutsenac; eta nasteetan dabeen gaucea bada osasunean gach eguin leiqueana, beste pecatu mortal bat eguingo daudee. Eguiten dabe pecatu icasquinac, edo icatzen yaubeac, icatzari ezarten badeutse iduri, lur, edo beste gauzaren bat, eta icatz ontzat saltzen dabenac; eta beingoan esaterren, edo ceimbere naste eguiten dabeenac, eta alango naste-ba'coen precioan saltzen dabeenac pecatu mortala eguingo dabee. Bigarrengo eguiten dau pecatu, neurri edo pisuan cerbaist guichitu edo quentzen dabenac. Modu onetan eguiten dabe pecatu, ardao, ogui, aragui, edo beste onelango gauzaren bat saltzen dabeenac, pisuan pusca bat guichiago emoiten badabe. Bardin oyala, cinteac, edo beste gauzaren bat salduten dabeenac, ondo neurrituten ezpadabe. Eguiten dabe pecatu icazguinac, edo icatzen yaubeac bear dan moduan betetan ezpadituez sacuac. Eguiten dabe pecatu cana pisu eta neurri chiquerragoac dauqueezanac aguinduric dagozanac baño, edo bear direanac baño. Berba baten; erozten dabenari bear leuquean bashen guichiago emoiten deutsenac, dan moduan dala, pecatu mortala eguiten dau.

¹ Egileak puntu txikiak ipintzen ditu sarri letra batzuen azpian: adibidez, “quentzeaco” (*t / a*, beren puntutxoekin). Era horretara adierazten du hitz hori bi modutara esan daitekeela: “quentzeaco / quenceco”. Argitalpen honetan horrelako hitzak osorik jartzen dira, puntu-txoak baztertuz.

2. Irugarrengo eguiten dau pecatu gauza charra ontzat salduten dabenac, erosten dabenac yaquin bagaric, eta onaren precioan. Eta alan eguiten dau pecatu oyal, mieza, galtzerdi, cinta, edo beste gauza mareadu, sitzac yan, edo usteldua, ezagututen eztaquianari saltzean deutzanac ona bailitzan leguez, edo onen balioan. Eguiten dabe pecatu gari cocoac yana, arto berotu edo galdua, aragui ustela, edo erdi usteldua ontzat salcen dabenac. Eguiten dabe pecatu idi, bei, chal, cecor, idizco, zaldi, mando, ari edo beste abere tacha edo faltaren bat daucana, alangoric ezpaleuquena leguez salduten dabeenac. Ara Cristiñaiac, onango saldu erosiric eguiten danean azaldu ta esan bear dira saltzean dan gauzeac daucazan utsune, edo faltaac, eta aimbat obeto ishilar badira, ce osteranchean bestea engañetea da. Enzun daiguzan orain onelangoen achaquiac. Jauna, (esaten dabe ondo pisau, edo neurtuten eztabeenac edo pisu eta neurri chiquiangoac dauqueezanac) Jauna, au eguin-ecic, ecin ondo urten guiñaique tratuan, eta alan beré ozta ozta ateraten dogu costadu yacuna: guztia dago gora eta caru. Gueu beré sarri eta sarri engañetan gaituez. Neurrian, barriz, eta pisuan utsune edo falta andiac euqui daroaguz: pusca bat guichiago emon arren, ba'roe emoiten deuscuen laimbeste, bada escatuten badeutsagu balio dabena, larregui derichoe, eta eztabe erosi gura; eta alan guichiago emonagaz, edo puscachu bat quenduagaz, daroe balio dabena. Achaquia oneecaz uste dabe ascoc ta ascoc edocein beré naste eguin leiela, eta cerbaist quendu leiela neurri eta pisuan. Baya ezta au Demonioaren asmua bashen. Esaidazue ezipabere, ¿Cer esan gura dozue diñozuenean ecin bestelan ondo urten ciñaiela? Esan gura dozue, aragui, ardao, edo abaceria errematau dozuela, eta onango nasteric eguinecic, edo cerchubaist guichiago emon-ecic, irabaci bearrean galdu eguiten dozuela? Onetan sartu baño leen, beguiratu bear cenduan, cer eguiten cenduan, eta uts eguin badozu, ezteutsu erruric zuri gaucea erosten doianac. Jauna, nic erremata eguin ezquero, igon dau asco ardao, orio, macallao, eta araguiac: orduan baño gueiago balio ezipaleu, e-neunque eguingo onango gauzaric. Orretan sartzan ciñianean, yaquin bear cenduen au yazo lequiquezuela. Mercatu balira gauza oneec, eta icusiric zuen irabaci andia beeratu gura izan baleutsubee, imini zan lengo preciotic ¿cer esango cenduen? Tratua tratu, eranzungo cenduen, eta alan ecin beeratu leiteque. Bada aushe berau eranzungo deutzue zuen gaucea eroatera doazanac. Dauczun tratu ori ceure borondatez artu badozu, ichi eguiu zu galcen badozu eta artu eguiu zu beste bici-modu bat. Ceüec

dacutsue ce buru bacoa dan achaquia au, eta ecin eguin leitequeala ez nasteeric, ez pisu ez neurri chiquerrago emoiteric.

3. Icusiric noc eguiten daben pecatu saldu-erosian icusi daigun noc eguiten daben beste artu-emon eta tratuetan. Eguiten dau bada pecatu gaucea salduten dabenac balio daben baño gueiagoan, epean emoiten dabelaco. Onetaraco yaquin bear da iru balio, edo precio modu dauquezala gauzaac. Bata goren goren: bestea beeren beere-na, eta irugarrena onen bioen erdicoa. Esateraco; idi bustar batec balio dau gueien gueien eun-da berrogueta amar ducat, aushe da goren goren: balio dituz guichien guichien eun da berroguei, aushe da beerena: eta onen bien artean dagoana da erdicoa. Orain bada, idi bustarra epean emon edo saltzean dozulaco badaroazuz berrogueta amar ducat baño gueiago pecatu mortala eguingo dozu. Bardin dirua escuan emoiten dozulaco, erosten badozu eun-da berroguei baño guichiagoan pecatu mortala eguingo dozu; baita biurtu bearco dozu gueiago eroan dozuna, edo guichiago emon dozuna. Eguiten dabe pecatu, gauceac balio daben bashen gueiago escatuten dabeenac gogoia dauqueela saltzeaco gaucea al-daien goren. Esateraco: daquizu gauceac balio eztavena oguei bashen, eta zuc escatuten dozu berroguei. Eta ¿cetaraco? Ogueta amarrean salduteco. Ez, Jauna, orretaraco, ezpabere balio dabenean gueratuteco: cegaitic ce erosten dabeenac beti gura dave beeratu precioa al-daien guztia, eta orregaitic gueiago escatuten dot. ¿Noc ori sinistuco deutsu? Esaizu, araco zure gaucea premiñaz bear izan daben batec, balio daven baño gueiagoan eroan deutsunean, edo eztaquialaco precioa gueiagoan saldu deutzazunean, ¿atsera emon deutzazu larregui eroan deutzazuna? Eztaquit nic azartuco zarean bayez esaten. Icusten dana da, bacoachac salduten dabela aldaien goren, milla guzur esaten direala onetaraco.

4. Emenche, neure Cristiñatiac, gauza bat esan gura deutsuet. Beti gagoz enzuten, Jauna, guzur batzuc esan dodaz saldu-erosian; baya eztira izan gauza grabeen ganean. ¿Ce guzur modu izan dira bada? Jauna, esatea, ori baño gueiago opa izan deuste; orretan emon gura izan baneu, guztia neucan salduric; ori bashen gueiago neuri costa yatan; precio orretan pocic nic erosico neunque. Baita ¿chiquiac direala, diñozu, guzur orreec? Zuc guzur orreecaz salduten badozu gaucea balio daben baño gueiagoan, pecatu mortala eguingo dozu; eta salcen ezpadozu beré bildur izan ciñatequez pecatu mortala eguin izango dozula. Ara cegaitic. Mandamentu onetan ez bacarric galazotzen yacu iñoena quentzea, baita beré iñoena gura izaitea. Ceuc

guzur orreec diñozuz erosten doiana engañetaco; eta alan au badiño-zu berac sinisturic, balio daven baño gueiagoan erosi daizun, gura dozu besteen gauea. Jauna, guzur oneec ezpadiñoguz, ecin ecer saldu guiñaique. ¡Ce zoraqueria! ¿Sinistuten deutsu erosten datorrenac, ala ez? Sinistuten badeutsu, eta caru erechiric, erosten ezpadau, eztozu guzurragaz ecer aurreratuten. Erosten badeutsu balio daben baño gorago, engañetan dozu, eta au ecin ciñaique. Sinistuten ezpa-deutsu, guzurtizat zaucaz, eta aushe da aurreratuten dozuna, ceu guzurtizat euquitea. Esan eiquezu beti eguia, escatu eiquezu ondo dana, eta icusico dozu, celan guztiac yoango direan zugana.

5. Eguiten dau pecatu, prestetan dabenac diru, gari, arto, edo beste gauzaren bat, iminten badeutso prestetan deutsanari, emoiten deutsanen ganetic, cerbait gueiago biurtuteco obligaciñoa. Esateraco, bear dituz zure adisquide edo auzo batec eun bat ducat escu artean: escatuten deutsuz ceuri, eta ceuc ezteutsazuz emon gura, berbea emon-ez-ic biurtuco deutzazula eun-da iru. Escatuten deutsuz beste batec anega bi edo iru gari edo arto; eta emoiten deutzazuz anegaco celemiña bat gueiago atsera emoiteco obligaciñoagaz. Au lucrua, eta usuria da, eta pecatu mortala. Cerbaist prestetan danean ez bacarric eroan leique prestetan daben diru, arto gari edo beste gauzaric baño gueiago; baya ecin ifini beré leio beste obligaciñoeric. Esateraco: zure adisquide batec bear dituz eun ducat bear-ordu edo estucuntza bateric urteiteco: escatuten deutsuz eta dirautsazu: *gura badozuz eun ducatac prestadu deizudazan, ezteustazuz eun ducatac bashen biur - tuco; baya saldu bearco deustazuz ceure arto eta gariac, beste bate - ri emongo ceuzquiozana leguez; bota bearco deustazuz olara ceure icatzac, etorri bearco zachataz alogueren*. Modu oneetaco obligaciñoac lucrua edo usuria dira eta pecatu mortala. Jauna, beste batec emongo leusquiona, emongo deutsat, eta eztau ecer galduco bere arto, gari, icatz ez alogueretan. Ezteutso: ecin ezer quendu leiquio, ezta bere gauzacaz gura dabena eguiteco escuescuna bere. Ain modutan, ain estu au yagon bear da ce, ecin ecer escatu leique, prestetan dana uts utsic eta bacar bacarric baño.

6. Jauna, nic diru orregaz gueiago irabaci neuquean, mercatari edo tratuan dabilen bateri emon baneuntso, euneco sei emongo eustazan. Irabaci ciñaiqueanagaitic ecin ecer eroan ciñaique; bada onetara beguiratuco balitz ¿noc esan lei... cer irabazi leitequean? Baita errazoa au emon leique bere dirua gueldi gueldi daucanac beré. Beste gauzaric litzateque diru ori tratu on edo artez baten imintera baciño-

az, eta besteari mesede eguitemarren, eta bere erreguz ichiten badozu irabacico cenduana; edo prestetearren calteren bar etorrico balichatzu, eta berari esanagaz, osotu gura baleutsu; bada orduan emongo baleutsu, nai dala irabaztera zoazana, nai dala datorquizun caltea, au eztator prestetatic, edo ezta prestetan dozunen saria. Bada, Jauna, ecin ecer eroan al-baleiteque presteteagaitic, eztau iñoc prestadu guraco, eta alan guztiac, edo bai gueienac daroe cerbaist presteteagaitic. Badaqui ori. Baya cegaitic ezta aurquituco prestadu guraco davenic? Caridaderic eztagoalaco, edo otzitu dalaco. Baya ara cer diñoian J.C.c.: prestadu eguizue emoiten dozuen baño gueiagoren uste bagaric. Gueiago eroate au lucreria edo usuria da, eta dago eragotzi edo galaazoric. Escritura Sagraduac, Evangelioac, eta beste legue guztiac condenetan dabe. Ori gueienac eguiten dave, diñozu. Larreguic. Ushala eroango ezpaleu, prestetan dan baño gueiagoric. Ara, Cr.c, berez char, deunga, ta pecatu dana, ecin ondu leiteque mundu guztiac eguin arren beré. Ezpabere esan eguidazu; eguin ciñaique lapurretan, ascoc ta ascoc eguiten dabeelaco? Edo esanic zuri, cegaitic lapurretan eguiten dozun, derichazu achaquia ona izango litzatequeala eranzutea: beste ascoc beré lapurretan eguiten dave? Bada beste onenbeste eranzuten dozu diñozunean, ascoc daroe presteteagaitic, ¿nic cegaitic eroango ezto?

7. Eguiten dave pecatu, garia, artoa edo beste bearreco gauzaac erosiric, batuten direan demporetan escutetan ta ostenduten dituezanac modu onetan carutu dedin laborea, guero eurac gura daveen bestean salceco. Onelangoac madaricatuac izango dira erri ta urietan diño Espiritu Santuac. Eguiten dave pecatu mortal araco guizon gogor eta cruelac, ceintzuc yaquinic eurac bashen eztaunqueela bear bearreco gaucea, euren borondatera ifinten dave precioa. Modu bitan yazo leiteque gogorqueria au. Esateraco: daqui guizon aberats batec gordetan badira erri bateco amarrenac gura ta gur'ez laborea guztiz urri ebilico dala. Bada ¿cer eguiten dau? erosten dituz aldaizan gari ta arto guztiac, errematetan dituz amarrenac, eta gordetan dituz guztiac, aurquitu ce-din errian bere arto ta gariac baño; eta modu onetan iminten dau gura daven balioa edo precioa. Onec pecatu mortala eguiten dau. Beste modu baten au eguin leiteque. Eztaunque gaucea edo generoa sei edo zortzic bashen: oneec guztioac alcar artuten dave eta diñoec; gueuc baño bestec eztauco onango gauzaric; bada eztoqu salduco onen beste baño merqueago. Contu eguizue: dauquez, sei, zortzi edo amar guizonen artean merindade bateco amarren guztiac,

eta icusiric urrituaz doazala arto, gari, labore ta frutu guztiac, arcal arturic compounduten dira, eztaveela gari, edo arto aneguea onembestean baño guichiagoan salduco: au pecatu mortala da. Bardin da euren artean compounduten badira, urlia demporara artean eztogu salduco, urrituric laborea guztiz gora igon daian. Bildurto, eta larritu beitez onelangoac enzunic Jaungoicoac berac eguiten deutesen biraoa Amos Profeta-igarlari santuaren aotic. Zuec zatituten dozuez pobreac, eta goseac ilic daucazuez nequez ta premiñaz bici direanac, diñozuela: ¿nos igaroco da ila ta salduco doguz merceriac? ¿nos elduco da demporea ucha eta troshac idiguiteco? Orduan chiquertuco dogu neurri ta pisua, eta goratuco dogu precioa. Ondoco guiñocoa salduco dogu gura dogun bestean. Ara bada, neuc yuramentu eguiten deutesuet eztodala eguño aztuco ceüen gogorqueria au eta uriolac [leguez] etorrico direala gach guztiac zuen ganera.

8. Cristiñaiac, ¿nor bildurto ezta Jaungoicoaren aotic cemauntza au enzunda? Orregaitic beguira cein engañadu zaiezan irabaci-gureac. Onango saldu-erosi, ta artu-emonetan sartu bashen leenago; ondo ondo itandu edo consellau zaitece ceuen confesore edo guizon yaqitu bategaz, zuec zuen burutic erabagui bagaric, teologu andi batzuc bacina leguez. Ay, neure Cristiñaiac; irabaci andi bat beguien aurrean iminten bada, guztiz da errez itsututea, eta traturic oquerrena, on eta arteztat euquitea. S. Paulo Apostoluac esaten eutsan bere discipulu Timoteo-ri: aberastu gura direanac yausi oi dira tentaciño andietan, Diabruen laquioan, eta guraari char, oquer ta galgarrietan. Cequenqueria, misquenqueria eta ondasunen guraari larreguia, da gach guztien sustraia; bere atsean ibili direan ascoc fedea galdu dabe, ta yausi dira min-ala eta gach andietan. Eguin begui bacoachac bearra, yanci, yan, eta bear davena irabazteco ez bacarric beretzaco, baita bere seme, echeco, edo bere ardurara daucazanentzaco; eguin begui aleguina, ichiteco seme-alabai cegaz bici: au gauza ona da, Jaungoicoac aguindua, esan eutsanean Adane-ri, eta beragan bere seme guztioi: ceure arpeguico izardiagaz yango dozu oguia; baya ezpedi au izan ardura larreguiatz, eta ondasun pillo andiac batuteco guraariagaz, ez acienda zabalac iminteco (uste errea-gaz) amurruagaz; ce sartzen bayatzue zuen biotzean ondasunen zale-tasun larreguia, ceuen arimea beré salduco dozue eurac batzaindutearren; eta saldu-erosi ta artu-emon oquerreric oquerrenac, ontzat euquico dozuez. Eguizue aleguina quentzeaco ceüen biotzetic gurari larregui au; billatu eguzie aurrengo, Jaungoicoaren erreinua, eta

berac emongo deusue gorputzeraco bear dozuen guztia: berac dauco berba au emonic, baita lenago galduco dira ceru lur ta euretan dagoan guztia, bere esana bashen. Bera da guztioen aita; baya ¿celango aita? Munduco aita guztiac eztituez ain laztan euren semeric maiteenac, cein-da berac gu. Bear badoguz ondasunac, berac emongo deuscuz; eta emoiten ezpadeuscuz izango da ondo ez yaculaco. Ecarri daiguzan, bada, beragana gueure gogo ta uste guztiac, eta oneshegaz bacarric bicico gara mundu onetan poz pocic Jaungoicoac emoiten deuscunagaz, eta artuco doguz bestean neurriba'co ondasunac. Alan guerta deilla. Amen

FRAY MATEO DE ZABALA

18. YOCOAREN-GANECO ICASBIDEA

(B, 56-59. or.)

1. Yocoa ezta beste gauzaric, neure Cristiñauac, ezpabere contratu, edo artu-emon bat, ceinetan iminten daben yocolariac bere diru edo gaucea galduteco arrisguan, beste yocolarien dirua berea eguiteco usteagaz. Yocoa bereanez ezta pecatu, baya edonos izan leiteque, ta bear bada mortala bere, baita pecatu ascoren sustraya ta etorburua. Yocoac pecatu ez izaiteco asco bear dituz, baya bearrenac dira: lelen-go, yocoan emoiten dan demporea izan ezteila bacoçhac bere (estaduco edo) bicimoduco eguin bearrac ondo eguiteco, edo yaquin bear dituzanac icasteco bear leuqueana, bacarric artuten dala yocoa nosic bein cerbaist divertidutearren guero gogo gueiagogaz bearretan sartuteco (bearretara biurtuteco). Eta alan pecatu eguin daroe araco Confesore, Letradu, Medicu, Barberu edo Cirujau, eta beste onango ascoc euren oficioço gauzaac ondo yaquiteco obligacino estu estua dauquela eurai datorquioezan gauzaac ondo icasteco, bear dabeen, demporea, yocoan emoiten dabeenac. Beroneshegaitic eguiten dabe beré pecatu araco Juez, Guraso, Uguezaba eta iño-en ardurea dauqueenac, eurac ondo yagoteco, eurac nondi nora, ta celan dabiltezcan yaquiteco, eurai ondo beguiratuteco, eta eurai doctrinea ondo iracasteco ondo ta ondo bear leuqueen demporea yocoan igaroten dabeenac. Bigarrengo, yocoa pecatu ez izaiteco bear da yocoagaz iñori beré escandaluric ez emon, ez pecatu eguiteco eraric edo bideric. Eta orregaitic pecatu eguiten dabe araco guraso, eta ugazaba (bai eta beste ascoc beré) euren yoco larreguiac eta astegunetan beré onetan egonagaz, euren seme-alabai, oguitucoai, edo beste edoceineri exemplu charra, eta eracuste deunguea emoiten deutenac. Cegaitic cé ¿zer urtengo dabe onelangoen seme-alaba ta oguitucoac eurac lango arpel-onci ta yocolari galdu batzuc (bashen) ezpada? ¡Ah ceimbat onelango, yente asco galduteco direanac, icusten direan nai astegun, nai yaiegunetan ortic anchina, echeric eche, ta oqueluric oquelu; dendaric denda ta basterric baster yocoan ordu osoetan; ori, barriz, escupulu bapere bagaric, eta beguiratu bagaric emoiten dabeen exemplu charrari, eta iminten dabeen cer esanari.

2. Irugarrenko, yocoa pecatu ez izaiteco eztau izan bear pecaturren bateraco bidea ta ocasiñoa. Onen faltaz pecatu eguiten dabe araco yaquinic leenago beré yocoan iminten direan bacochean, edo bai gueienetan birao, añen, blasfemia, edo berba loi ta bear eztireanetan yausten direala, edo yocoa galtzean dabeenean aserratuten direala, orregaitic beré barrien barri yocoan asten direanac, bada iminten dira leen leguez aserratuteo, añen ta birao eguiteco pelleburu ta ocasiñoan. Laugarrenko, yocoac pecatu ez izaiteco izan bear ez dau Elesha santaco, edo Erreinuco legueac eragotzita dauqueen yoco generoren bat: onen contra eguiten dabe araco no-beren abilidadebaco, ta etorri-bear utseco, edo, legueaac diñoena leguez, fortunazco yocoetara eguiten dabeenac. Esateraco dirautsazu besteari: urlia yocatu daigun bateco urrera erleguin bat, edo beste onango zuen aldetic cereguinic eztauqueenac, cartaac ondo suertetea ta etortea bashen: ara emen non eguin dozun pecatu, bada onetarico yocoac galarazota dauquez ez bacarric concilio edo Eleshaco batzarraac, Inocencio aita santu irugarrenac, eta beste Eleshaco legue ascoc, baita beré Españaco achinaco ta gaurco eguneco legueac; eta ontsuengo Erregue Dn. Carlos irugarrenac birriteco aldiz, eta barriro bere seme Dn. Carlos laugarrenac eragotzi dituez ezarriric guztizco castigu andia onango yocolarien contra; baita iragarri ta declarau dabe eztituezala eurenac eguiten modu onetan irabacirico diruac eta biurtu edo errestituidu bear dituezala.

3. Bostgarrenko, yocoa pecatu ez izaiteco gorde bear dira iminiric dagozan edo iminten direan legueac edo condiciñoac; eta eguin bear ezta trampa ez engañuric. Onen contra doaz eta eguiten dabe pecatu araco carta ezaunacaz yocatuten dabeenac, edo carta gueiagogaz, edo ishilic carta-ren bat gorde edo artuagaz, bear dan baño tantu gueiago eroaten dabeenac, besteari tantuac ishilic quentzean deutsezanac, eta onangoac, eta ez bacarric eguiten dabe oneec pecatu, baita beré dauque obligacino estua olan irabacia atsera biurtuteo. Seigarrenko, ezta yocatu bear leguea permitietan dabeeneti ganera; eta alan cartetan ecin iños yocatu lei errealbiaz gora, eta aric aureco irabaci guztia atsera emon bear da, leen esan doguzan legueac alan aguinduten dabee-ta. Eta ceimbat onetarico icusten ete da munduan? Ceimbat icusten ezтира bola lecuetan, eta eche ta oqueluetan yocatuten, eta trabesean iminten permitiduric dagoan baño gueiago, beguiratu bagaric euren arimai emoten dituezan escandaluai, iminten dituezan cer-esanai, eta Juezac eguin bear leuqueena leguez, ezarri al

leioezan multai, eta emon al leioezan castiguai. Aita, esango deust edonoc, ezteusat nic orregaz ñori calteric eguiten, bada galduten badot, neurea galduten dot. ¿Noc esan deutsu ezteutsazula ñori calteric eguiten? Ez al da caltea, baita guztietara zabalduten dan caltea olango yoco eragotziacaz, eta permitiduric dagoan bashen gueiago yocatuagaz emoiten dozun escandalua, besteai bere orretaraco emoitent deutsazun bidea, Erregue ta beste Juecen aguindu ta leguea guichitan euquitea, eta zure etsecoai emoitent deutsazu ernegu-aldia? Orrez ganean ¿noc engañau eta itsutu zaitu esateco ceurea dozula galduten dozuna? Esan eguidazu, or yocoan eta trabesean iminten dozuzan lau, zortzi, amar, ogei edo beste erreacalac bear dozuz edo ez: bear badozuz zeure familia mantenietaco, eurai oficioren bat emoiteco, acomodetaco, bear dan decenciagaz erabilteco, ceure zorrac paguetaco, ceure echean yausi ce dedin obraren bat, edo cereguinen bat eguiteco, deungaro eroanic dauquezuna biurtu, edo zor dozuna quitututeco, edo bear badozuz yocoan iminten dozuzan diruac beste onango gauzaren bateraco, orduan eztira ceureac, aenac bashen, edo gurabozu zureac dozuz, baña ñori zor yacazanac, ta ñoenac izan bear direanac: besteac dauque diru orren zucena, ta derechoa, eta alan zara lapur bat besteena izan bear leuquean diruagaz yocoan zabilzalaco. Bear ezpadozuz yococo diruac lengo gaucetaraco orduan beré ecin alan imini cinaiz, eta eztago zure escuan edocein gauzatan emoiteta, ce bauquee noenac izan. ¿Noenac, bada, Aita? Noenac? Pobreenac ta purgatorioico arima erruquigarrienac. Cer diño, Aita, ¿neuc neure izerdiagaz irabazirico dirua edo gurasoac ichi deustezan ondasunac pobreenac izan bear dabeela? Bay leen esan dodana leguez ceuc ceuretzat, ceure familiarentzat, edo zorrac paguetaco bear ez izanic: ce Jesucristo berac ta ez bestec, diño Evangelio Santuan ceuc bear dozunez ganeticoa pobreai eta bear dabeenai emoiteco¹. Uste cenduan, bada, ontzat eroango eutsula Jaungoicoac gauza guztien yaubeac gastetea diruac yoco eta vanidadeetan egonic pobrechu asco cer yan eztauqueela, ta gueshori dagozanean oe bat non echun eta salda pusca bat cegaz eguin eztauqueela? Erraturic eta itsuturic bici zara bada alan uste izan badozu.

4. Zazpigarrengo, yocoa pecatu ez izaiteco, bacochari bere escuan ichi bear yaco nai yocatu nai ez; eta alan pecatu eguin daroe araco gura ta gura-ez besteari yocatu eraguiten deutsenac erregu larreguiac edo cemaiaacaz yocoan iminten dituezanac, eta bestea

¹ *Quod superest, date eleemosynam.* Luc. c.11. v. 41.

engañetearren eztaquielacoena eguinic lelengueran galduten dabee-
nac bigarren yocoan asco gueiago irabaztearren. Eta oneec ez baca-
rriec eguiten dabe pecatu, baita beré atsera biurtu bear dabe pecatu
mortalen bean irabaci dabeen guztia. Zortzigarrego, yocoan ifinten
dan diruac bereac izan bear dau, edo bai beintzat berac gastetaco
escuescunea euqui, esan gura dot, edo á dirua ezteiteala iño-ena izan,
edo diru atan ezteiala iñoc euqui derechoric ez cer aguinduric. Eta
alan onen contra eguiten dabee pecatu araco seme-alaba gurasoen
borondatearen contra gurasoi arturico diruagaz yocatuten dabeenac,
yocora besteren bateri ostuagaz doazanac, edo dirua baleuqueena
leguez dirubagaric yarten direanac, eta oneec pecatuaz osteian atsera
emon bear dabe irabazi guztia. Bardin badaquizu ceuc besteac dau-
can dirua ostua dala, edo ugazaba edo gurasoena dala, edo eche-
familia mantenietaco bear dabena, pecatu eguingo dozu agaz yocoan
iminten bazara, ta ecin artu ciñaio, ceuc irabaziarren beré; baita,
yocatu-torduan ezpacenquian besteen dirua iñoena zala, etzenduan
pecaturic eguin, baya irabacia biurtu bear deutzazu yaubeari, ez
lagun yocolariari, baya oneec badauco iñondi cegaz pagau emon bear
deutsu galdu ebana.

5. Aror, neure Cristiñaiac, yocoac pecatu ez izaiteco bear dituzan
lagungarri yaquinenac, eta euretatic atera cinaie nos dan, ta nos eztan
pecatu. Baya ¿yocatuten da lagungarri ta leta guzti oneecaz?
¿Gordetan dira Jaungoicoaren leguea, eta Eleshaco ta Erreinuco
legue eta aguinduac, eguiten diran yoco guztietan? ¡Ah ce guichi!
Eta oraindiocoarren negargarriagoa dana, ¡ce guichic esaten dituezan
confesiñoan yococo escandaluac, trampaac, biraoac, pecaturaco
bideac, ta deungaro irabaciac! Dacusguz etse asco ondaturic yocoa-
gaitic; dacusguz, beguiratu bagaric familia, zor eta pobreai, yocatu-
ten dabeela edocein diru; trabesean iminten dituezala lau, zortzi,
amar, eta ogeuei errealguiño, baita ascotan gueíago beré bai: dacusgu
eguiten dala yoco eragotzietara; yocatuten dala permitiduric dagoa-
nen ganetic. Guztioac daquizue yocoan botetan direala biraoac, esaten
direala berba garratz eta astunac, eguiten direala yuramentu guzu-
rrezcoac: guztioac daquizue yocotic datozala gueienetan errieltaac,
areriotasunac, ecin icusiac, lapurretac, ordiqueriac, eta beste ecin
esan leizan gauza deunga asco. Baya ¿nor acusetan da gauza onen
ganean? Noc beguiratu eguiten deutso yocoari pecatu ascoren sus-
traigarriari leguez? Noc artuten dau yocoa bear leitequeana leguez,
Jaungoicoa servietaco? Noc eguin daroa bear litzatequean escupulua

yocoan galduten dan diru ta demporearen ganean? Noc atsera emoi-ten dituz yoco larreguiaz, edo eragotziric dagoanagaz, edo trampacaz eroan dituzan diruac? Ah, neure Cristiñauac, ce zori-onecoa izango nitzatequean adietan emon al baneizuez yocotic datoza calteac, eguiten direan pecatuac, eta yatorcuzan zorigogorrac, au yaquinic ichi daguioezuen ecandu gaisto orreri. Baya ezeguizue uste izan nic onegaz esan gura dodala guztiz yocoari isteco; ez eguño yocatuteco: ez eztirautsuet nic orrembeste; ce eguia esateco, gurago neunque yaiegun arratsaldeetan Errosario santua esan ezquero, Vesperac amaitu ezquero, ta beste, Yaiegunari datorquiozan gauzaac eguin ezquero, gura neunque, diñot ostera beré, danza fiesta eta ibilera deungai ichiric mutilac mutilacaz, guizonac guizonacaz, andrac euren artean dibertidutearren *Ave-Maria* bat edo beste, edo lauciri-laumarai yocatuco bacendue: bada yocoa bear dan moduan aldian bein arturic izan leiteque Jaungoicoa servietaco, arnasa apur bat artuta guero lengo bearretara ta norberen cereguinetara indar eta enda gueiagogaz biurtuteco. Nic esan gura dodana da alde eguin daizuela Jaungoicoaren ofensea dagoan yoco eguiten direanetatic, eta beguiratu daizuela celangoac izan direan orain artean zuen yocoac, ce ameneco euquico dozue euracgaitic cer emon Jaungoicoari contu estua, baita bere euqui cinai cer eguin errestituciñoren bat, eta iñoren gaucea atsera emon bearra: Eta alan itandu confesore yaquitun arima-zale danari cer eguin bear dozuen yococo irabacien ganean.

FRAY MATEO DE ZABALA

19. MURMURACIÑO EDO IÑOGAITIC DEUNGARO ESATEAREN GANECO ICAS-BIDEA

(B, 59-62. or.)

1. Eztago murmuraciñoa baño sarriago eguiten dan pecaturic. Cristiñau asco icusico dira beste gauza guztietan pecaturic eztaque-nac, mandamentu guztiac gordetan dituezanac, eta ardura andi bat dauqueenac pecaturaco bide ta pelleburuetatic iñesi eguiteco; baya guztiz dira guichi murmuraciñoan yausten eztireanac. Orregaitic diño Espiritu Santuac: nor ete da esanagaz pecaturic eguin eztabena?¹ Eta Santiago Apostoluaren aotic diño miña gordetan daben guizona santu bat da, ce onec bere gorputzeco alde guztiac zucen erabilico dituz². Aleguina eguin daizuen bada pecatu onetatic alde eguiteco adietan emongo deusuet cer dan murmuraciñoa. Da bada iñogaitic deungaro berba eguitea berac eztantzula, edo gauza deungaren bat bere atzetic esatea. Esatea leguez lapurra dala, urliagaz pecatu eguin dabela ta alangoac. Esaten dan gaucea astuna ta andia bada, pecatu mortala izango da; chiquia, ta ecerezqueria bat baño eztana, beste batzuentzat astuna izan leitequeala. Mutil gazte bategaitic esatea guzurtia dala, ezta gauza andiric; baya esango balitz beste-onen-beste Obispo edo beste onango errespeto garrico personaren bategaitic gauza nagusia izango litzateque. Modu ascotara deungaro esan leite bestegaitic, baya direanac zortzitan sartu leitequez. Lelengo guzurragaz gachen bat esaten danean, edo eztan gaucea iñori ereguiten yacanean. Bigarrenge eguia esan arren, cerbaist gueiagotu ta andituagaz. Yrugarrenge zabalduric eztagoan gaucea iñori esanagaz. Laugarrenge eguiten daben gaucea lecu charrera boteagaz. Bostgarrenge besteac eguin daben gauza ona ucatuten danean. Seigarrenge, beste persona batec alabetan dabenean, alan dala esan bearrean maleciaz ishilic dagoanean. Eta zortzigarrenge iñoren

¹ *Quis est qui nom deliquerit in lingua sua.* Eccli.c.19.v.17

² Jacob. c. 3.v. 2

gauza ona esan bearrean ishilic ishilic eta gorderic daucanean. Edocein beré modutan besteri bere icen ona ta famea galdu edo guichituten badeutsazue osotu ta lengora biurtu bear deutsazue.

2. Baya, Aita, esan daroe ascoc, nic iñori guzurric erantadu ezteusat, besteai enzuna baño esan eztot. Bai nai neure Cristiñaiac: ishilic egoan gaucea, edo publicu etzana besteai esan-da zabaldu bazenduan, edo zabalduteco escu emon bacenduan galdu ceuntzan famea eta biurtu bear deutsazu ¿Baquizu barriz, au celan eguingo dozun? Bada burura ecarri eguizu, ea nori, eta no-en aurrean esan cenduan deungaroa, eta eure-chen aurrean esaizu edo guzurra zala alan bazan, edo etzenquiala orduan ondo cer esaten cenduan, errazoeric etzeuncala urligaitic esan cenduan gauza atan; edo beste aldaizun ondoen. Baia Aita, nic ezpaneban eregui, e-neban neure burutic atera, enzun eguin baneban. Ezteutso; ce zuri enzun eutsuenac ezpequien eta beste aldetic zabalduric ezpegoan, ceurea da, besteari bere icenean yatorcan caltearen errua. Eta bardin beste aldi baten publicu izan arren, zuc esan orduco aitzuric beegoan, pecatu eguin cenduan eta biurtu bear deutsazu fama galdua. Baya, Aita, eguia zan, neuc icusi neban. Bai nai; eguia bada beré noberac dauco escubidea edo derechoa ez zuc ta ez iñoc bere (creitua) famea galdu ez daguion, eguin daben gauza deunguea zabalduric eztagoan artean. Eta alan ori esanagaz pecatu eguin cenduan, eta ecin parcatu leiquezu (pecatu ori creitua) famea osotu, biurtu ta aleguinez lengo senean iminteco gogoric euqui-ez-ic.

3. Beste modu bat euqui oi dabe ascoc deungaro esateco esan guraezic, edo esan gura eztabenena eguinic; baita da sarri ascotan icusi doiana. Ara celan. Dagoz lau edo bost iñogaitic deungaro esaten, baita urteiten dau beste batec: Cer! (orrec mirariz betetan zaituez?) Orrec icaratuten zaituez? Esango banituz, bada, nic daquidazan gauza batzuc; Baya gagozan ishilic, ce orretaraco obeac dira: Eztaigun murmuradu. Besteac yaquin gureagaz itanduten deutse ea certzuc direan (bada) ain ishilic euqui gura dituzan gauzaac. Berac, barriz, erantzuten dau: Ara, esango banituz arrituric gueratuco cinatequeze, etzeunque sinistuco beré (eguingo); etzaituedaz escandalizadu gura: ichi daiogun (baq-baquean) ishi ishilic, eztaigun murmuradu. Aushe bai dala caridadea! aushe bai besteari ondo eguin gurea, edo calteric arean beré ez eguin gurea! Aushe bai. (obeto esango dot) aushe bai dala infernuco susterra! Ezteutsazu azur osoric ichi, eta ettozula murmurau gura? Esaizu esango dozuna, ce calte guichiago

eguingo ceunsquio daquizun guztia esanagaz berba erdi orrecaz baño; bada bear bada besteac diñoena bashen guchiago izango da, eta ishilic egote-barritsu orregaz sinistu eraguiten deutsezu danzuenai icaragarrizco pecatuac eguin dituzala. Onelangoac gueienetan pecatu mortala eguin daroe. Beste batzuetan yazo oi da egotea batzuc edono' gaitic ondo esaten: urlia cristiñau on bat da, devocino andicoa; ezta taberna zalea beré, beti daqui eguia esaten, eta beste onic asco dauco orrec. Elduten da beste bat, eta asten da irribarrechuca, ta buruari eraguiten, erruqui bailitzan leguez engañaduric dagozalaco, izanic alabetan dabeena guizon galdu ta deunga bat. Onegaz eguiten deutzan caltea andia bada, eguiten dau pecatu mortala, eta chiquia bada, pecatu beniala. Beste batzuc ain dira miñ deungacoac ece, eztago eurentzat gauza onic, besteen eguitada ta obraric onenen ganean (beti) dauque cer esan. Astegunean, Meza enzuten badaude, oba leuque echeco ardurea euqui, diño; errecetan badaude, simple bat da; danzara edo plazara ezpadoa, ez gastetearren eguiten dau; tabernara, yocora ta bideune charretara elzean ezpada cequena ta escu-eutsia dalaco; berba eguiten badau, betico barritzu bat da; eguiten ezpadau, barriz, motz-illuna; baita mirariric andienac eguiten icusico balebe beré, esango leuque sorguinqueriatic direala eta diabruqueriatic. Onelangoac Fariseoac leezcoac dira, ceintzuc J.C.^o geure-Jaunac eguiten cituzan gauzaric santuenetan, eta mirariric andienetan euquico eben cer-edo-cer cer-esan. Baya Jaungoicoac berac diño, zorigaistoac direala onari deunuea dirautselaco³.

4. Deungaro esatea gueienetan asi oi da ondo esanagaz, eta aushe da ascoc eguiten deutzan sartzaierrea, ta aurreco berbea Urlia! guizon on bat da, ezta lenengoan tabernan icusico; guizon arteza da, eztau iñor engañauco; (guizon) prestua da, mesede bat edoceineri eguingo deutso; baya... Urlecia! sarri confesadu ta comulgadu doa, beti dago errecetan, al-daizan mezaac entzuten dituz; e-neunque besteric adisquidetzat gura; cintzoa da; baya... Zorigogorreco baya! Ynfernucobennoz benerico baya! Asieraco alabanzea eguin ezquitiño uste dabe (ce) eztala ecer edocin gauza esatea, baita baderiche bein iñogaitic ondo berba eguin ezquero, bauquela deungaro eguiteco escuescunea: eta alan zorigaistoco baya-zen [sic] osteian asten dira esaten daquiena, ta eztaquiena. Ecer icusi badeutse anche zabalduco dabe; ecer enzun badabe anche ateraco dave; ezta ichico ezta buruac emon deutseen juzgu charra ez sumea beré: azquenean, barriz, sinistu eragui-

³ Isai. c. 5. v. 20

teco esan dabeena, ecer-ecean leguez esan daroe: ara, ezteust niri gachic eguin, eztaucat ecer beragaz, eta alan ezteusat nic gorrotoric; ni-gaitic izan bedi gura dabena langoa, eztoat ecer (orretan): baya ecin eguia esan bagaric ichi neique: eztaquit nic ceta'co direan aimbeste errosario, aimbeste confesiño ta comuniño: oba leuque bere echeco ardurea euqui, ta ichi, eguiten dituzan tratuac. Santua, santua: nai dabena eguin ezquero edocein da santua; eztot nic alango santi-daderic gura. Modu onetan ezteutse saietzic osoric ichiten. Baquizu, barriz, cer eguin dozun orduan? Palanca bat lurrean sartu gura dozunean eguiten dozuna. Zuloren bat lurrean eguin gura dozunean, palanca bat artu-ta, gora ereguiten dozu. Baya cetaraco? Ez an goian ichiteco ezpabere lurraren barruan sartuteco, eta ceimbat eta gueiago sartu gura dozun, aimbat eta antza gueiagogaz gora eguiten dozu. Bada onembeste eguiten dozu deungaro esate orregaz, murmuraciño modu orregaz. Ereguiten dozu ondo esanagaz, ez bertan, goian isteco, ezpada lurpean ondatuteco eta ceimbat eta gauza deunga geueiago esan gura dozuzan aimbat eta gueiago alabetan dozu. Ez, Aita, olango gauza astunic, simplezaren batzuc esan dira, echaco gachic etorri. Eta ¿derichazu ori sinistu-lequiquezula beti? Ay Cristiñaiac, bein deungaro esaca abiau ezquero ezta erraz gauzaric andienac esan bagaric ichitea. Batac esaten dau gauza bat, besteac beste bat, eta, miña berotu ezquero, ezta ecetara beguiratuten. Simpleza bat diñozu? ¿cer da urlia nescatilla emeco edo ango mutilagaz dabilela? Bestea seindun dagoala? Araco guizona lapurra dala, araco emecumea anra galdu bat dala? Bada olangoac izan doaz murmuraciño, ta deungaro esate gueienac. Baita oneec creituco gauzaac ez al dira? Ezpadira eztaquit nic cer izan lietequean. Eta esan eguidazue edonos enzun dozunean iñoc zugaitic esan dabela, zuc bestea gaitic esan dozun gaucea ¿celan artu dozu barri au? ¡Ce aserrac orduan! Uste izan dozu ce creitua galdu deutsuela, eta daucala biurtuteco obligaciñoa estua, eta au eguinez-ic ecin salvau leitequeala: eztaucala concienciaric. Eta ara non daucazuzan zuc neurri bi; batagaz neurtuten dozuz zuc besteac gaiti diñozuna, eta orduan da gauza chiquerra: bestegaz, barriz, zugaitic dinoena, eta izan arren gauza bera, urteiten deitsu guztiz andi ta onracoac. Neurtu eguizuz neurri bategaz eta icusico dozu bardinac direala.

5. Ezteusat eguin gach andiric, esango dozu ameneco, ce persona bateri bacarric esan deusat. Ay Cristiñaiac, alanche zabalduten da. Persona batec zuri esan eutsun, zuc besteari, besteac beré badauco

bere satisfaciñoco bat, esango deutso eta guichien uste danean, urtengo dau calearen erdira. Tella batec artuten dau euria, eta guztiz ishilic emoiten deutso urrengo tellari, eta alanche doa aurrera tellaric tella, eta guichien uste danean yausten da calearen erdira, guztien beguietara. Aita, esan neutsan ishilic euquiteco. Ay Cristiñaiia, zuc ishilic euqui ecin izan dozu, eta gura dozu besteac euqui daizun? Gura dozu ganeco guztiac yaquin daguien adisqueari dirautsazun gauza ori, ala ez. Gura ezpadozu ceta'co da esatea? Eta gura badozu yaquin daguien ¿cetaraco dirautsazu iñori esan ce daguiola? Ondoen ondoen da ishilic euquitea; eta alan diño Espiritu Santuac: enzun badozu berba deungaren bat bestearen contra, ishilic euqui eiquezu zure barruan, bada ezteutsu orregaitic errebenta-arazoco⁴. Azquenean barriz eranzuten dabe murmuralariac eztaquela gurari edo gogo charric, ezteutsela gachic gura. Baya esan eguidazue ¿Ce gogo deutzazue bada, murmuretan dozuenean? Cetaco deungaro esaten dozue? Ete da ondogura deutsezuelaco, edo onen bat etorri daguion? Eztaquit, Cristiñaiiac, ontzat eroango ceunquean: dacuscuna da, zuec gaitic beste aimbete esaten danean eztozuela (uste) izaten vorondate onic deutsuenic, bada orregaitic ezteutsue iñoc sinistuco zuei beré eztaquezuela borondate charric. Baya, borondate charric euqui ez arren beré pecatu eguingo dozue, eta pecatu au izango da celan dan diñozuen gaucea, mortala gauza nagusi edo creitucua bada; barriz beniala chiquia bada eta dana dala biurtu bearco deutzazuec datorquiozan calteac, baita andiac badira ecingo dozue ain bagaric cerura yoan.

6. Murmuracinoa, Cris.c, edo datoz invidiati edo bestearen gorrototic ce eztozu gura izaiten gure adisqueagaitic ez bacarric deungaro esan, ezta deungaro esaten dan lecuan egon gura beré, eta orregaitic ceimbat eta aserreago dagoan norbait lagunagaz, aimbat eta gozoago yaco murmuraciñoa, eta guztiz atseguin andi bat artuten dau enzuten dabenean besteac bere arerioaren contra dagozala, eta alan su gueiago artuten dau, eta guraco leuque aurrera doazan. Baya ondo beguiraturic onelango murmuralariac icusico leuque euren buruai egiten deutsela calteric andiena, bada euren arerioai famaazauriric eguiten badeutse andiangoac ta cruelagoac dira euren arimetan eguiten dituezan zauriac: eta guztiz da andia euren ganean yausten dan Jaungoicoaren aserrea, eta alan diño J.C.ºc: ez eguizue iñor juzgadu,

⁴ Eccli. c. 19. v. 10

⁵ Matth. c. 7. v. 1

ta ez zare juzgaduac izango⁵. Esan eguidazue, Cristiñaiac, cetan dago zuen zoriontasun guztia? Azquenengo Judicioan ondo urteitan; ¿ezta alan? bai, ce, an sententia ona emoiten bayatzue, betico zorionecoac izango zare ceruan; baya emoten bayatsue condenaciñoco sententia, galdu cinen bein betico. Orain bada, guztiz yatsue erraz orduan sententia on bat euquitea. Baquizue, guero, celan? Bada ara, J.C°.c berberac dirautsue; Ceüen lagunac neurtuten dozuezan neurriagaz, neurtuco zaituezala ceuec beré orduan. Ceuen lagunacgaitic bigun eta erruquiz artuco zaituez ceüec beré Jaungoicoac: barriz gogor ta erruqui bagaric (pensadu ta) juzgaduco zaituez Jaun onec, araco ceüen bici guztico contua artuteco dei eguin daizunean. Cris.c, ez gaitazan zoroac izan; beguiratu daigun ce pelleburu icaragarrian iminten garean iñogaitic deungaro esaten dogunean, baita aushe bacarric izango da asco geure miñac iñoen contra ez zorrozuteco: au eguinagaz guizonac eurac amadu edo maitetuco gaituez, Jaungoicoac beguiratuco deuscu bere seme maiteac leguez, biotz bigun ta erruquiorragaz egongo da bere lecuan leguez baquea, poza, ta gracia.

20. [ZORTZI-GARRENA EDO MURMURACIÑO¹A]

Custodite ergo vos a murmuratione quae nihil prodest, et a detractioe parcite linguae quoniam sermo obscurus in vacuum non ibit. Sap. cap.1. vers.11.

(J, 97-104. or.)

Eztago munduan besteac gaiti deungaro esatea baño zabalago dabilen pecaturic. Ederto baten diño onen ganean S. Paulinoc: “Guichi ta guichi dira (diño san Paulino-c) e candu gaisto au artuta eztaqueenac; eta nequez aurquituco dozu bere bicitzea ain modutan zucenduten davenic cein da besteen bicitzai eraguin bearco ezteutsan; eta onenbestean yarraituten deutse guizonai besteac gaiti char-to esateco lera gaisto onec ece, beste ganeco pecatuetati alde eguin daveenac beré onetan atzenengo laquioan leguez nastitu eta catigatu (eta yausi) bearco dira”. Baya Yangoicoac berac onen ganean contuan iminten gaituz eta dirauscu: “beguira murmureteagaz, ece ezta ecetaraco beré ona, eta ez iñogaitic deungaro esan, bada atzetic eta aopean esaten dan berbea beré ezta castigu bagaric izango. Alde eguin daguizuen bada ceuec pecatu onetaric, nic esango deutsuet orain murmuraciñoaren ganeco doctrinea.

Da murmuraciñoa iñogaiti deungaro esatea berac eztantzula, edo iñoren atzeti gauza deungaren bat esatea; esaten danean leguez batac yuramentu oquerra eguin davela, bestea ordia dala, besteac lapurretan eguin davela, nescatillea seindun dabilela eta alangoac. Esaten dan gachagaz besteari cleituan biciro ucututen bayaco, izango da pecatu mortal astuna; baya calte guichi egiten bayaco, pecatu chiquia baño ezta izango. Baya ori igarteco, echaco berbeari bacarric beguiratu bear; ece batentzat esanda, berba chiquia dana, besteentzat bear bada berba andia izango da. Soca lodi bateri emoten yacan moropilla (gorapilla, tornua) laster da ascatura; baya emoiozue sedari mee bateri moropil estu bat, eta ¿ea celan ascaturen dozuen?

¹ Jatorrizko testuak ez dakar izenbururik.

Alanche da bada deungaro esanagaz beré, nogaiti eta cer esaten dan. Esatea mutil coshcor bategaiti, edo guizon barritsu barbullo bategaiti guzur utsa dala, alde guztietati guzurra dariola, ezta gauza andiric; baya beste orrenbeste esango balitz Obispo Yaunagaiti, edo beste alango lotsa ta gueriz andico bategaiti gauza astuna eta zaco-na izango litzateque.

Alde ascotara pecatu eguin leiteque deungaro esanagaz; baya guztiac, edo bai gueienac datoz orain nic, San Tomas-eri artuta, esango deusuedanetara. Lelengo besteren bategaiti berac eguin eztaven gachen bat esaten danean, edo guzurra asmetan yacanean. Onen ganean pecatu eguin daroe mutil ascoc, ceintzuc ezcontzaco berbea emonda, damutu bayaque, euren buruac garbitutearren, nescatilleari milla guzur asmetan deutsezan: bestegaz adisquide izana dala, yazoa dala, eta onelangoac. 2° Pecatu eguin daroe nescatilla ez guichic ceintzuc eurac daquienaganic seindun sortu ezquero, gaucea dauca-nari, edo senartzat gura leuqueenari errua ezarten daquien. 3° Eguin daroe querella eta contraquerellac ecarten dituezanac; edo aucitan dabiltzazanac, eurenagaz urtetearren auci-lagunari eguin ez evana, esan ez evana ezarten deutesnac; baita beré euren alde, bear bada tragu bat ardaogaiti; guzurraren ganean yuramentu oquerra eguiten daveenac. 4° Eguiten dave norbaitegaz aserratuta umea edo senarra gaishotu bayaque, edo calteren bat etorri (bayaque), bestea sorguin eguiten daveenac. 5° Pecatu eguiten dave etsaguntzaren baten euren buruac sartuteco asmuagaz, ugazabagana doazanac milla guzurregaz lengo errentadorearen contra. 6° Pecatu eguiten dave beré nescatilla-ren bat gaishoqui eta motelchu icusten daveelaco beingoan asten direanac, ac nonbaiste beré seindun izan bear davela. Bost onetarico bada ereguiten (esantetan, iracoriten) dira errietan, baita ondo arin, eta ardura andi bagaric.

Bigarrego: pecatu eguiten da eguia izan arren esaten dan gaucea, gueiagotuten eta andituten bada. Icusi dozuz bein nesca-mutil bi alcarregaz modu char andi bagaric berbeetan; eta beste bagaric atatic asten zara ceu zabalduten, orreec adisquideac direala, nescatilla ori (bero dabilela) itzalac botata dituzala, orrec nonbaitean (aurquiz) ezconduteco izarachua bearco davela eta olangoac. Bada pecatu eguin izan dozu. Icusi cenduan bein guizonen bat edan zamar, epel eta choromorochu, eta gueiago bagaric esaten dozu a guizona ordi concor bat, eta edatun galdu bat dala. Bada pecatu eguin izan dozu. Izan izango dau batec seigarrenecoan argalqueriaren bat, eta diñozu

ceuc, ori nesca-zalea, edo mutil-zalea dala. Bada pecatu eguin izango dozu.

Irugarrengo, pecatu mortala eguiten dave ishilic dagoan gaucea eztaquianari edo eztaquienai esaten deutseenac. Otsein batec ostu izango dau cerbait etsean, eta ugazaba andreac ez bacarric etse guztia beera ecarri bearco dau; eta etseric campora bota bearco dau, baita beré guztiai iragarri bearco deutse cegaiti dan ta cegaiti eztan. Bada pecatu eguiten dau ugazaba andra orrec. Ucatuten deutsu iñoc zorra edo emon ceuntzan gaucea: baya berac eta bioc bashen eztaquizue. Bada pecatu izango dozu besteai esaten bazabiltz. Izan izango dau mutilen batec erracuntzaren bat nescaren bategaz: baya, oi dan leguez, ishilean eta bioc baño eztaquiela. Bada mutil orrec esaten badau agaz cer izan daven, pecatu mortala eguingo dau.

Eta ez (eguzue) uste ece or batec edo bic, edo alango banaca bazuc yaquin ezquero, edo bateri edo besteri aopean eta ishilic entzun ezquero, iya zabal dabilela gauza ori. Ez beintzat, eztago alango legueric, lagunaren cleitua aotan erabilteco. Ea ezpabere ¿guraco cenduquee ceuc bear eztanen bat eguinda, bic edo iruc daquiela, orreec zabalduco baleutsue? Bada orretati atera bear dozue, ceuc besteacaz cer eguin bear dozuen. Nos pecatu eztan ishilic dagoan gaucea bear danari esatea guero entzungo dozue. Ishilic dagoan gauceagaiti esan dodana, esan bear deutsuet² guztiac yaquin-arren, aztuta leguez dagoanagaiti; ceuc esanda, barriztetan badozue, pecatu eguingo dozuela. Alan pecatu eguin daroe, iñor ezconduteco dagoanean, daquiezan aren gach eta oquer guztiac, aztuta lo leguez dagozanac, barriztetan eta palonbretan dituezanac.

Laugarrengo: Pecatu eguiten dave, batec esan daven edo eguin daven gauz'ona, edo ez deunguea, deunga eguiten daveenac. Badira munduan asco ta asco ain miiñ citalecoac ece, eurentzat eztago ez lagun onic, ez gauza artezic. Ezteutse iñori beré parcatuco ez guizonari ez mutilari, ez andreari ez nescatilleari; ez abadeari ez fraileari; ez iñori. Eztago eurentzat ondo eguinic dagoan gauzaric. Icusten badave iñor astegunetan mez'entzuten, (esaten dave) oba leuque(ala) etseari ardura ohea artuco baleutso. Errecetan sarri badiñardu, simple bat da. Limosna-guin ona bada, bere burua santu eguitearren ta onztat euqui daguien eguiten dau. Tabernati, yocoti eta bide gaistoetati alde eguiten badau, cequentasunac eta escueutsiac eraguiten deutso.

² Esaldi hau parentesi eta ezabatze batekin dator; ulerterrazago izan dadin, lehen idazkeran utzi dugu.

Yolasera, erromeriara, dantzara ezpadoa, simple ta zoro eguiten dave. Eta nago ece, balecuse oneec bat edo bat mirariac eguiten, esango leuqueela sorguina dala, gaisquiñac dituzala. Onelangoac Fariseoac leguezcoac dira, ceintzuc Jesu Cristo gueure Yaunac eguiten cituzan gauzaric santuenetan eta eguicuneric andienetan beré, beti izan bearco even cer-edo-cer cer esan. Baya euren zori-gaisto-coac onari deunguea esaten deutsalaco.

Onezaz ganeti pecatu mortala eguiten dave iñoren ona ucatu eguiten daveenac, iñoc besteren ona esaten diñarduanean ontzat emon bearrean, gaistoz entzuteric eta sinisteric emoten ezdeutsenac, edo besteren ona esan bear ta, otz-otzic eta erdi-esanean bashen esaten eztaveenac eta olangoac. Baita beré pecatu mortala eguin lei siñuacaz, begui-quiñuacaz, barreagaz, irri-barreagaz, destañacaz eta onelangoacaz, adietan (ulertuten) emoten bada besteren pecatua, edo ucatu eguiten bada besteac eguin izan daven gauz'ona. Oneec dira deungaro esateco dagozan modu arguiac eta aguiariac; baya? ceinbat beste modu eztagoz estalduac eta edertuac besteai orpoac yateco? ¿Ceinbat apaingarri ta estalgarri asmetan eztira norberen buruari sinistu eraguiteco bere deungaro esatea pecatu eztala? Diabruac onelango edergarriacaz galdu ce zaguiezan orain iragarri bear deuntsue-daz onetarico batzuc.

Batzuc, bada, berba eguiten dave iñogaiti pecatu andia eztan gaucearen ganean, baya cearretara leguez adietan emoten dave pecatu andia dana beré; orregaiti beré orren ganean arguiro eguin eztaveelaco uste dave ece, eztaveela alango berba-icuneagaz pecatu andiric eguiten. Ara emen ascotan baño gueiagotan entzun oi dana. Batzanduten dira andracume bi edo iru eta birautso batac besteari: “¿eztozu icusi urlia nescatillea? ¡Eguno! ni icaturic guelditu nas, icusiric celan dabilen ain ederric eta apainduric. Eztaquit nic nondi nora daucan orrec orrenbesteraco: bere gurasoac guc bazauguz, aec eztaque cer emon andiric, eurac artuco leuquee baleuquee: soldata uts bat orrenbesteraco ezta. Bada ¿nondi irabazten dau orrec alan ibilteco? Nic eztaquit. Gu beintzat bear ta bear (arrastaca guztiac) eguinda beré, ezcara ez orrenbesteraco ez ece ezta guichiagoraco beré”. Onetan lotuten da (gueldituten da) euren berba-icuntza guztia, eta gueiagoric esan eztaveelaco uste dave ece, eztaveela cleituco (murmuraciño) gauza andiric (erabili) esan, eta confesiñoan itanduten yaqueenean ea cleituco deungaro andiric esan badave; beingoan erantzun oi dave: “ez Jauna; or yancien ganeco guztiac daquien

gauza bat esan dot; baya ez iñori oratuco yacan cleituzcoric”. Baya gauceari ondo beguiratuten bayaco ezta ori eguia.

Ea ezpabere ¿zer esan gura dau gurasoac zer emon andiric ezta-queela; soldatea orrenbesteraco ezta; eztaquizuela nondic daucan alan ibilteco? Esan gura dau edo adisquideren bat daucala gaucea emoteco, eta ez adisquide on ona, edo ostu eguiten davela: edo seigarrenecoti edo zazpigarrenecoti eguiten davela. Eta ori cleituzcoa ezpada, eztaquit nic zer izan leitequean. Eguia da batzuetan nescatillaac eurac olangoac esateco bide andiac (larregui) emoten dituezala, soñari bear leuqueen baño gueiago emonda; baya alde onetati laburtuten ezpada pecatua, gaucea bera berez cleituzcoa da, eta pecatu mortala izango da orreec alan esatea. Eta dana dala beti da oquer eguina besteai atzea yaten eбилtea. Berac eguiten badau, berac Yaungoicoari contu emon bearco deutso; ceuei ezteutsue ecer, eta an davela bere oquer eguinagaz.

Beste batzuc deungaro esan daroe deungaroric arguiro esan bagaric, eta esan gura eztaveelacoa eguinic. Ara celan: Egongo dira lau edo bost iñogaiti charto esaten, eta urtengo dau besteren batec: “¿cer? ¿ori baño eztaquizue? ¿Bestelaco! ori ezta gauza. Esango banituz, bada, nic daquidazan batzuc... Baya gagozan ishilic, orretaraco obeac dirata: eztaigun murmuradu”. Besteac yaquin gureagaz itanduten deutse, ea certzuc direan ain gorderic euqui gura dituzanac. Berac barriz erantzuten dau: “Ara, esango banituz gogorturic eta icaraturic gueldituco ciñatequece; etzeunqueez sinistu beré eguingo; etzaituedaz ezcandalizadu gura; eztaigun murmuradu”. Bai orretan, eztozu murmuradu gura; eta bestearen oquerren bat arguiro esan ta aguertau eztozulaco usteco dozu ece, pecatu andiric eguin eztozula; baita orretaraco pecatu gueiago eguin dozu erdi berba ernari orregaz, daquizuna esanda baño: bada bear bada besteac diñoena bashen guichiago izango da guztia, eta ishilic egote barritsu orregaz sinistu eraguiten deutsezu dantzuenai icaragarrizco pecatu esquergueren batzuc daquizuzala.

Beste batzuetan yazo oi da egotea lau edo bost norbait alabetan. Elduten da beste bat, eta abietan da irribarreca buruari eraguiten, erruqui baleutse leguez atan (engañaduric) dagozalaco, eta dirautse: “¿ori alabetan zagoce? Eztaucazue beintzat cer eguin charra. Bacenque bada, nic leguez, nor dan bera, etzeunque orretan denpo-rea galduco”. Emenche ichiten dave guztia bertan bera, edo gueien gueien beré erdiz erdizco berba apurren bat baño esaten eztave. Baya berba oneecaz galdu eraguiten badeutsee alabetan egozanai bestea-

gaiti euqueen uste ona eta sinistu eraguiten badeutse deunguea dala, pecatu mortala eguin dau.

Deungaro esatea ascotan asi oi da ondo esanagaz, eta aushe da ascoc eguiten deutsen sartzaiera, eta aurreco berbea. Eta bein alabantzea eguin ezquero uste dave ece, eztala ecer edocein gauza esanagaiti. Alan ateraten dave daquien eta eztaquien guztia. Ecer icusi badeutse, ondracoa izan arren, eta bestec yaquin ez arren, anche arguitara urten bearco dau. Ecer entzun badave anche zabaldu bearco deutse. Eztau onelango batec esan bagaric ichico ezta bere buru charrac emon deutsan susma deunguea, edo peco gaiztoa beré, eta besteric ecin davenean, bestearen gauza ona lecu charrera ezarri (deunguera yo) bearco dau, eta esango dau, ac baaquiala cegaiti dabilen, ac baaquiala cegaiti eguiten daven; eta eztala urregorria argui eguiten daven guztia.

Alan entzungo deutzazue onelango bateri esaten: “¡Urlia! ¡ay! ce guizon ona dan! Eztozue, ez, ori tabernatan ta yocoan ain laster icusico. Ezteutsu orrec egunic ichico mez’entzun bagaric: ezta luzaro egongo confesau ta comulgau bagaric. Guizon zintzoa ta prestua da: adisquide bateri mesede bat eguiteco eztau orrec iñoren bearric. Eneuque nic gura bera bashen adisquide obaric”. Eta onen osteian esan bearco dau, zorrai erantzuten eztaquiala, umeacaz ardura guichi daucala, nondi-gura ta nogaz gura ibilten ichiten deuntsela, saldu-erosietan aldaven guztia eroatearren ecer ezteutsala, iñoc ecer eguiten badeutso querella bat ecarri bagaric izango eztala, eta onelan irabiotu bearco dituz onci bete gauza.

Onelangoac, diño Fr Luis veneragarri Granadacoac, direala sangria eguin, eta odola ateraten daveen oficialeac langoac (leguezcoac). Oficialeac gaishoari odola aterateco, lelengo besoa ondo igotzi, labandu eta leundu eguiten deutso, eta guero erruqui bagaric (trast) zart, zana urratu eta odola atera. Alan eguiten dave oneec beré, lenengo ondo esanagaz igotzi ta labandu, eta guero deungaroagaz ebagui ta manatu. Eta azquenean oficialeac eguin daven zuloari leguez, eurac beré esan daven deungaroari euren chaplatachua ezarri bearco deutse. “Ara, esango dave, niri eguño beré gachic eguin ezteust orrec; eztaucat nic beragaz ezer (arean), nigaitic izan bedi gura daven leguezcoa; ez yoat niri orretan ecer: baya nic ezin ichi nei eguia esan bagaric. Eztaquit nic cer eguiteco direan ainbeste confesiño ta comuniño, ainbeste errezu: oba leuque etseari ardura obea artu, daucazan tratu moduac ichi, eta pusca bat umillago izan, gura daven guztiagaz urteteco temac artu bagaric. Santua, santua... Neu beré santua izango

nas, gura dodan guztia eguiten ichiten badeuste. Eztot nic olango santutasunic gura...” Aror cetan gueratu dan lenengo alabantza guztia. Baya ¡ay! ceinbat pecatu icaragarri artu daroen onelangoac euren lepoganean! Ezteutse garbietan euren pecatua, ez aurrengo ondo esanac, ez azqueneco chaplatadeac.

Baago deungaro esateco beste modu polit bat beré, eta da norberen burua Jaungoicoaren amodioan erre erreric eracutsita, edo bestearen erruquiz bete beteric dagoalacoa eguinda, eta onetan yausten dira asco beste aldeti onac direanac, eta sarri confesetan direanac beré. “¡Au bai mundua! esango dau batec. Eztaquit ni cetan yo bearco dogun. Ecin iñogaz beré fiau lei. ¡Josus! nic entzun dodana... Nequez sinistu beré eguin lei... baya urlia mesedeac ain lecutaco nescatillea beteric ei darabil. ¡Eguño! ¡Alango guizonac ori eguin bearra! Ori orreec eguiten badave, ¿cer eguingo dave guero besteac?” Eta alan esan bearco dituz bataren adisquidetasun loia, bestearen izorra, bestearen seiñ-galdua, edo iñora botea, bestearen edana, bestearen lapurretea, bestearen aserracuntzea, eta beti orreec eguiten direalaco biotzean min artuco baleu leguez; eta usteco dau ece, orreec alan esanagaiti eztavela pecaturic. ¡O Diabruaren itsumendi negargarria! Onelan atrapetan dituz gaizquin zital onec, arrañac, carnadeagaz estalduta dagoan amuagaz, artu oi direan leguez, osterantzean galduco ez leuquezan arima asco.

Azqueneraco ichi dot besteac baño oraindo charrago eta caltegarriago dan deungaro esatea, eta au da enbusteria. Errietan izan oi dira chimeru enbustereu-enbustera baque galtzailleac. Onec batzuetan eguiagaz, beste batzuetan guzurragaz, batzuetan icusi edo entzun daveenagaz, besteetan azalac emon deutesenagaz, batari ondo-gura baleutso leguez, bestea contuan imini gura baleu leguez, besteari conseju on bat emon gura baleutso leguez, esaten deutseez adisquiddeen, auzoen eta senideen artean noc cer esan daven, ta cer eguin daven, alcarren contraco berbaac. Batari esaten deutse [sic]: “Ceugaiti urliac au ta au esan evan”. Besteari: “¡Ceure lepoti, bai, urlecia olgau zala! ¡Berein barre gozo eguin cituzan aurtemin ceure gauzacaz!” Beste bateri esango deutse: “Ceure senarra (edo emaztea) ulin aiñagaz egon tzan atso”. Beste batzuetan esango dau: “ona daucazu urlia... Oraindo ez ei deutsu atan ichico... ¡Jesus! ¡Aren miiña!... Neu lotsatuta egon nintzan ac ceu gaitic esan zituzanac entzunda. Beintzat gauza [sic] arima gaistoaren yaubea da bera. Nic alangoari aushe ta aushe eguingo neusquio...”

Onelango esanacaz iminten dituez bata besteen contra, eta sartuten dave etseetan guerra bicia. ¡O ceinbat senar-emazte leen euren baque onean bici cireanac imini oi dira alcarren gorrotoan, eta chacur-catuac leguez arcal ecin eroanic otseiñ cital bategaiti, edo beste miiñ-gaistodun bategaiti! ¡O ceinbat ezcontza eder galduten dira, Jgoicoz eguingo cireanac! ¡O ceinbat auzo leen adisquide cireanac gelditu oi dira arcal ecin icusiric, eta arcalen gorroto gogorrean! Ez arren entzuteric emon onelango miiñ gaisto-labanai, ceuen baque onean bici gura badozue: bada Jgoicoac berac diñoan leguez onelangoac errietati garbituten badira ezta aserreric ez errieltaric izango. Ez eguin burubagaric ascoc eguin daroena, urdai zatia, bata ta bestea emon: ez neure Cristiñauac: ezpabere baster guztietaco errondo, ereci, ipuin ta guzurrazac etorrico yatsuez ceuen calte charrean.

Oneec dira iñogaiti deungaro esateco dagozan moduric yaquine-nac, eta euracaz besteari cleitua gauza astunean galarazoten bayaco pecatu mortal icaragarrizcoa eguiten da, eta atzera biurtu bear yaco, eta aleguinean lengo senean imini bear yaco cleitu galdua, eta ori eguin ezic ecin parcatu lei pecatu ori, eta bitartean eguiten direan confesiño-comuniñoac oquerrac dira, eta pecatu mortal esquergaac. Baya ¿celan atzera biurtuco da cleitu galdu ori? ¿Noc ori eguiten dau? ¡Ay! ori gach baño gachago da, eta munduan nequez icusten dana. ¿Bacutsue ze gach dan pichar bateco ura, bein lurrera utzitu ezquero, atzera picharrera artutea? Bada oraindo gachago baño ezta iñori galdu eraguin yacan cleitua lengo oñean imintea. Eta alanbere Eleshaco guraso eta teologuac dirauscue ao betean ece, iñondi al-bada gura ta gur'ez eguin bear dala, pecatua parcatu eta ceruco bidean sartuteco. Eta orregaitarric baño ezpalitz beré, beti bildurpean ibili bear guintequez iñogaiti deungaro esateco.

Alanbere Jgoicoaren gracia lagun dogula, eztá ecingo dan gaucea iñori galdu yacan cleitua atzera emotea, eta orregaiti orain nic esango deuntsuet, ori celan eguingo dozuen. Guzurra bazan besteagaiti esan cenduen, esan bear dozue artez ta garbiro guzurra zala: eta alan siñistu gura ezpadeutsue, yuramentu eguin ciñaiquee sinistu eraguiteco. Eguia bazan baya zabalduric ez egoana, orduan guzurric esan bagaric esango dozue, etzenduela ondo esan, etzenquiela ondo cer esaten cenduen, bear etzana esan cenduela, errazoeric etzeunqueela esan cenduen gauza atan, eta alangoric sinistu eztaguiela. Beste modu eder bat dago ori eguiteco, eta da orain ondo esatea leen deungaro esan cenduenagaiti, eta esan cenduenen aurrean, eta ceuen esana

yaquin daveneen aurrean. Baya ecelan beré ecin bada galdu zan cleitu ona atzera biurtu, edo aztu bazan gauza ori, eta gaurco egunean ilic leguez badago, edo besteac beste aldeti bere cleitua irabaci beeban, eta alangoetan eztago olango cleitua biurtu bearric. Confesore yaquintsu eta ondo aituten yacan batec esango deuntsue nos, non eta celan eguin bearco dozuen guztia berari zucen ta garbiro esan ezque-ro.

Yaquin bear dozue baya, eztala beti pecatu iñoren deungaro eguina aguertutea. Batzuetan aguertu bearra izaten da, eta beste batzuetan ondo da aguertutea. Oficialec ascotan epaia eguin bear izaten deutso zaldar itsuari, eta zabaldu bear izaten dau osatu gura daven zauri erdi usteldua. Iru gauzataraco esan lei pecatu bagaric besteac eguin izan daven gauza charra; edo norberac cer eguin bear daven yaquiteco, edo ez daquianari calteric etorri ce daquion; edo gauza oquerra eguin davenaren oneraco. Alan ceuei iñoc eguiten badeuntsue, edo eguin gura badeuntsue calteren bat, edo ondo eztanen bat cein galarazo guraco cenduqueen, itundu ciñaitequece gaucea ondo aituten yacan bategaz, yaquiteco cer eguin bearco dozuen, orretaraco aguertu ta iragarri bearco badozue beré nor dan alango bear eztan oquerra eguiten deuntsuena.

Alan ezta pecatu izango gurasoai esatea, eragotzi daguioentzat, umeen oquerreriac, ibilcune charrac eta adisquidetasun ez onac: ezta pecatu ugazabai esatea otseñen lapurretac, eta maña gaistoac: ezta pecatu izango Alcate Yaunari edo Fiel Yaunari esatea gaveetaco guizonen batzaar deungaac, edo gazteen sartu-urten alan-olangoac: ezta pecatu izango Abade-maisu Yaunai esatea etseetaco cer-esanac ta pecatu-bideac: ezta pecatu izango otseñ guichi yaquinai esatea lagunen edo ugazabeen ecandu gaistoac, eta emoten daquiezan deungueraco bideac. Ezta beré pecatu (izango) iñoc itanduten davenean iño-gaiti, edo ezconduteco dala, edo otseña artuteco dala, edo beste alango gauza bateraco, orretaraco bear dana esatea, bestearen pecatua aguertu bearco bada beré.

Onelango aldietan bada, eta alangoetan ezta pecatu iñoren deungaroac, yaquinac eta ciurrac izan ezquero, esatea, galarazo leiquezari edo yoacanari bacarric, gorrotoz eta vengau gureaz ezpada, eta bai gauzaac ondo icusi gura zintzoz. Alan da guzti alango orduetan ezta esan bear bear-bearra dana baño gueiago, eta azaz gora cleitu astuneco gauza andiric esaten bada, pecatu mortala izango da. Itanduten deuntsu ezcondu gura daven batec ea ain lecutaco nescati-

Ilea ona bada, modu onecoa, eguillea, eta bearguina (lagunguin ona). Ceuc daquizu ac gaishoac erracuntzacho bat izan ebalá; baya gauza ori ishilic dago, eta ceuc eta alango besteren batec bashen eztaqui. Bada pecatu eguingo cenduque olango erecia besteari iragarrico baceuntso. Iñoren pecatua edo gauza deunguea errian zabalduric badago, eta guztien artean badabil, edo laster beste alderen bateti zabaldu bearco bada, ezta pecatu mortala izango erri atan orren ganean berba eguitea; baya izan leiteque beste erriren baten zabaldutea edo zabalduteco bidea emotea.

Oneec alan dira; baya ascoc eztave esan bear andiric bear izaten besteen cleitua bal bal zabal erabilteco eta edoceinegaiti bildur bagaric edocein gauza esateco, eta oquerrago dana onelangoac guero ori zucen confesetaco ardura andiric artu eztae. Eta edonoc nosbaiteco baten alangoric autortuten badau, izan bearco da milla edergarriz yanciric, eta achaguaia alde guztietati dariola. Baya onelango achacquiaca eztituez euren buruac Jgoicoaren aurrean zurietan, ez. Icusi daguizuen bada gauza eztireala ecarri oi dituezan achacquiaca, orain nic banaan banaan alango achacquiaca erantzungo deutset. “Yauna, esan daroe ascoc, nic iñogaiti deungaro esan dot; baya ezteutsat nic neure araguiari quendu; besteari entzuna, edo nic icusia baño esan eztot”. Bai gura badau, neure Cristiñaua; ishilic beegoan gauza ori, eta ceuc etzequien aurrean palonbrau bacenduan, pecatu eguin cenduan; bada ceuc, eta ac, eta edoceinec dauco escubidea iñoc galarazo eztaguion bere cleitu ona, eguiaren ganean beré.

“Yauna, esan oi dave beste batzuc, eguia da nic deungaro esan dodana; baya ez alango gauza astunic: ecerezqueria batzuc baño izan eztira. Ez, ene deungaro esanac ezteutso iñori guiarrean ucutu”. Baya ¿derichazue ori beti sinistu lequiquezuela? ¡Ay, Cristiñauac! Bein deungaro esaten abiau ezquero, berbeac berbea dacar; batac bat esaten dau, besteac beste bat, eta miiña berotu ezquero echaco eceri beré beguiratuten. ¿Cer esan gura dau ezpabere, bateco nescatillea seindun dala, bestecoa urlia mutilegaz adisquide dala; emeco guizonac edo emacumeac lapurretan eguin davela, edo bear eztanagaz dabilela: angoac yuramentu oquerra guzurragaz eguin davela? ¿Eztira oneec cleituzco gauza astunac? Niri derichat ece guiarrean bere elduten direala. Bada onelangoac izan oi dira gueien, errietan izan doazan deungaro esateac. Eta esan eguidazue, iños entzun dozuenean norbaitec (bestec) ceuec-gaiti orrenbeste esan davela, ¿celan artu oi dozue barri ori? ¡Ay ce biotzquetea, ce min zolia artu daroazuen bio-

tzean! ¡Ce su minac, ce aserreac artuten zaituezan! Esan daroazue arimaric eztaucala, cleitu guztia galarazo deuntsuela, ceuen garbitasuna bear dozueta, eta emoten ezpadeutsue infernu gogorra icusi bearco davela. Eta aror non daucazuezan pisu bi; batagaz pisetan dozue ceuec besteac gaiti esan dozuena, eta beti urteten deuntsue gauza arina, eta besteagaz pisetan dozue ceuec gaiti besteac esan davena, eta gauza bera izan arren, urteten deuntsue gauza astuna eta pisutsua. Pisatu eguizuez biac pisu baten, eta icusico dozue bat direala.

Beste batzuc esan daroe: “astunchuac, bai, izan dira nic esan dodazan gauzaac, baya zabal ebiltzazanac; guztiac equiezanac”. Leen beré entzun dozue eztala asco gauza bat zabal (azal) ebilteco bost edo seic edo gueiagoc yaquitea, erriric gueienac ezpadaqui. Baya eztago noc au ascori buruan sartu daguioen, eta bein lagun artean edo bear bada lagun arte bagaric (edo ain bagaric) entzun ezquero, non gura ardura bagaric esaten dave. Baya ezta alan, eta pecatu mortala eguiten dau iñoren deungaroa erriric gueienac eztaquiana, eztaquianari esaten deuntsanac, gauza ori zabalduco bidea emoten davelaco. ¡Ay! onen ganean ardura eta bildur puscachu bat artuco balitz, ez litequez ain laster zabalduco errietan iñoren etenac, ta erracuntzaac.

“Yauna, bada, derichat ece, neure esaneti echacala cleituan calte andiric etorrico; bateri bashen nic esan ezteutsat, eta ari beré barruan eta ondo ishilic”. Bada, Cristiñauac, alanchec zabaldu doaz gauzaac. Ceuri besteren batec ishilic esango eutsun: ceuc beste bateri ishilic esan deuntsazu, ac beré izango dau bere cutunen bat nori ishilic esan, eta guichien uste danean urtengo dau calearen erdira errondo ta erezi char orrec. Tellacaz euriari diñautsanean yazo oi dana: tella batec ishilic artuten dau ceruti euri tantea, ishilic emoten deutso urrengo telleri, ac besteari, besteac besteari, eta alan escuric escu leguez elduten da ertzean dagoan tellaraguño, eta guichien uste danean aror non yausten dan tasca tasca ots andiagaz itoshura calearen erdira guztien beguien aurrera. “Baya esan neutsan ishilic euquiteco”. Ceuc ecin ishilic equi izan dozu, eta gura dozu besteac equi daguizun. ¡A da zoraqueria! Gauza ori gorderic egon dedin gura badozu, eguizu Jgoicoac dirautsuna: “iñoren deungaroa entzun badozu, ceure barruan ito eguizu; ezteutsu orregaiti istand’ arazoco, ez”.

Deungaro esaleen eta murmuratzalleen ganean cerbait esan ezquero esan daiguzan berba bi iñogaiti deungaro esaten dagozanai gogoz eta pocic entzutea emoten deutseenac gaiti. Alcarren antzeco-

ac dira deungaro esalea, eta deungaro esalearen entzula gozoa; eta batac leguez besteac beré pecatu eguiten dau. Eztaquit nic, ciñoan S. Bernardo-c, eztaquit nic noc daucan erru gueiago, ala deungaro esaten diñarduanac, ala ari entzuten dagoanac. Batac eta besteac diabrua aldean dauque, esaten diñarduanac miñean, entzuten dagoanac belarrian. Ezpalego noc entzun, ezlegoque noc esan. Iñoc eztaroa saldu ten bere zaldia edo bere idia, iñoc erosico ezteutsala daquian lecura. Ederto erantzun eutsan batec cirautsanari, beragaiti urliac iñon direan deungaroac esan cituzala: “Ez, bada, ceuc entzuteri eumon ezpa ceuntso”. Beragaiti ez bacarric eztozue iñogaiti deungaroric esan bear; baya ezta beré lagundu eta batzandu bear etzare deungaro esateco ecandu charra dauqueenacaz.

Onelango aldietan bada, iñor ceüen aurrean deungaro esaten abietan danean, pecaturic gura ezpadozue, eguin bear dozuena da, besteren ganean aguintaritasuna badaucazue gurasoac, ugazabac, maisuac, edo alangoac zareelaco, ishildu eraguin bear deutzazue. Aguintaritasunic ezpadaucazue; baya biotzac lagunduten badeutsue, ascotan ondo izango da deungaro-esalea lotsatutea; eta orretaraco alazocoac (alagalacoac) dira beste ascoren artean S. Bernardoren berbaac: “ceuc esaten dozuzan bestearen faltac eta deungaroac alan badira ezpadira, gueuc eztaquigu: baya ceu deungaro-esale-murmuradorea zareala artez dacusgu”. Eta esaten badeutsue murmuradoreac: “baaquiala berac iñoren falta aec non ezarten dituzan; edo, arren iñori ez esateco: confesiñoan leguez esaten deutzuezala”; erantzun eguioezue S. Juan Crisostomo-ren berbacaz: ea zoroa ala gaistoa dan, berac obeto euqui bear leuquean eta euqui ecin daven iñoren faltea, zuec ishilic euquico dozuela uste izateco.

Baya onenbesteraco biotzic ezpadaucazue orduan eguin bear dozuena da alde eguin lecu ataric, edo beinic bein arpeguia ilundu, becoquia moztu, biotzean min artu alangoac esaten direalaco, eta ishilic egon. Au edoceinec eguin lei, eta guztizcoa da deungaro esaleai ishildu eraguiteco. Jgoicoac berac dirauscu: “iparrac euriac eta lañoac garbituten dituz, eta arpegui ilunac ishildu eraguiten deutse miñ deungaro esalaai”. Baago beste modu polit pat beré deungaro esateac galarazoteco, edo ebateco; eta da tercióa artuta, berbeari beste gauza batera yo eraguitea. Conturaco, besteac iñogaiti deungaro esaten dagozanean, ceuec aren osabea, izecoa, edo ari dautsanen bat aitatutea, eta orregaz berbetea beracauten leguez gauza atara ecartea.

¡Ay Cristiñaiac! Gogoan artuco baguendu ce gorrotogarria dan besteac gaiti deungaro esatea, ezquenduque alangoric bein beré ez esan ta ez entzun beré guraco. Jgoicoac berac dirauscu gorrotogariac direala beretzat, baita igüingarriac guizonentzat deungaro-esaleac. Bai, gorrotogariac dira Jgoicoarentzat deungaro-esaleac, bada deungaro esanacaz eguiten dave pecatu icaragarrizco bat parcatuco ezta-na aric eta besteari galarazo deutsen cleitu ona alean lengo senean ta oñean imini daguioen artean. Eta deungaro-esate orregaz galarazoten badeutsaz escuartecoac, ondasunac, ezcontzea edo beste zorionen batzuc, ascotan yazo oi dan leguez, pecatu bat ez ece, orduan asco beré izango dira. Dira gorrotogariac Jgoicoarentzat deungaro-esalac, bada sarri ta sarri Jgoicoari escua artuten dautse, Jgoicoac beretzat gorde evan yuzguetea eta biotzeco barrunac iguerte, eurac euren aurreti eguiten dave.

Dira igüingarriac eta gorrotogariac guizonentzat, direalaco cital batzuc ceintzuen miñ gaistoetaric eztagoan iñorbere seguru eta gorderic: ez ezcongueac ez ezconduac, ez Yusticiaco yaun prestuac ez Erregue yauna, ez Sacerdoteac ez Obispo yaunac ez Aita Santua ta ez iñor. Guztiac gaiti izango dave zer esan, guztiai ebagui bearco deutse cleitu ona, galerazo bearco deutsez beste on asco. Eta ¿cer derichazue daczala alan deungaro esatera? Euren biotzeco citalqueriac. Citalqueriac bai, bada gueienez deungaro esaten dave iñogaiti edo gorroto deuteslaco ta ecin icusi daveelaco, edo besteren onac erre eguiten dituzalaco. Aushe da deungaro esateac daucan sustrai pres-tua; eta mundu zabala aracatuten ibili bagaric icusi ciñaiquez besteari ondo gura deutsanac eta aren onagaz (poza) artuten davenac ezta-vela beragaiti deungaro esaten, eta entzuteac beré onic eguiten ezteutsala. Gueure buruac gaiti eztaoagu deungaro esaten, eta entzunac beré su emoten deuscu. Eta ¿cegaiti? Gueure buruari ondo gura deutsagulaco. Gurasoac ez oi dave euren umeac gaiti deungaro esaten, entzun beré gura izaten ezta-ve, eta ume orreen oquer eguin guztiac gorde ezcutadu, (ostendu) eta lurpean zacatu gura leuqueez. Orregaiti ez nas aspertuco ceuei bein esanagaz lenengo asiqueran esan dautsuedazan Jgoicoaren berbaac, eta barrien barri esango deutsuedaz. “Beguiria murmureteagaz, ece ecetaraco beré ezta ona, eta ez iñogaitic deungaro esan, bada atzeti eta aopean esaten dan berbea beré ezta castigu bagaric izango”. Eta azquenean esango deutsuet

FRAY MATEO DE ZABALA

Jgoicoac berac dirautsuela: “Ez batu deungaro esalacaz, cegaitic ece beingo beingo baten yausico da euren ganera euren galtzaia, eta ¿noc taqui celangoa izango dan bitzuen atzena?”

3. ATALA

1. [ARERIOAI PARCATUTEAREN GANECOA]¹

Ego autem dico vobis diligite inimicos, benefacite his qui oderunt vos. Math. 5, v. 44.

Nic dirautsuet: Maite izan eguizuez arerioac, eta mesede eguioezue deungaro gura deutsuenai.

(J, 105-111. or.)

Eldu zan bein baten Jesucristo gana Fariseo bat, eta itandu eutsan²: “Maisua, ¿cein da Jgcoaren legueco mandamentu andia?” Eta erantzun eutsan J.C^o.c: “maite izango dozu ceure Jgco Jauna ceure biotz guztiti, ceure aleguin guztiagaz, eta ceure gogo guztiagaz. Aushe da guztien arteco aguinduric andiena, eta lelengo lelungoia. Bigarrena barriz da onen irudicoa: maite izango dozu ceure laguna ceure burua legue-che”. Eta ñoc esan ce leguian, anchina Yudeguac eguin even leguez³, lagunaren icenean eztatzala arerioac, eta geuri gach eguiten deuscuenac, esan evan beste bein Yaun onec⁴: “nic dirautsuet maite izateco zuen arerioac, eta ondo eguiteco gach eguiten deutsuenai, eta oraciño eguiteco ceuen contra dabilzazanac-gaiti, eta ceuei guzurren batzuc ereguiten deutsuezanac-gaiti”. Arerioai, bada, ondo gura izatea da Jgcoac aguinduric deuscun gaucea.

Ascoc uste izan dave, San Geronimo-c diñoanez, arerioai, eta calte eguiten deuscuenai ecin ondo gura izan lequiquiela; eta asco dala alangoai gachic ez opa izatea. Baya Santuac berac diño, onelangoac yaquin bear leuqueela, Jgcoac eztavela aguinduten ecin dan gauzaric; eta bai gauza alde guztietati onac, eta tacha-bacoac (achaquia-bacoac). J.C^o.c berac maite (laxtan) izan cituzan bere arerioac. Davidec maite izan evan Saul, bera il guraric ebili yacana; baita Absalon bere seme gaistoa beré, berari Erregue izatea quendu gura izan eutsana. Jose-c maite zituzan bera erbestera saldu even anayac.

¹ Jatorrizko testuak ez dakar izenbururik.

² Mat. 22, 36.

³ Mat. 5, 43.

⁴ Mat. 5, 44

S. Estevan-ec eta S. Paulo-c maite izan zituezan euren contra ebiltzazanac (ebilzanac⁵), eta S. Juan Crisostomo-c, S. Gregorio Nacienceno-c, S. Ambrosio-c, eta beste ascoc mesede andiac eguin eutseezan, eurai gach eguin eutsenai. Eguia esan bear da, gach izaten da alan eguitea; baya ¿cer? Jgcoac gauza gachac ecin aguindu al (beré) leiqueguz?, eta berac bein aguindu ezquero ¿eguin bear ez aldoguz?

Bein, bada, arerioac maite izan bear doguzan ezquero, eta gorroritic artu bear ezteutsagun ezquero, dacusgun orain cer aguinduten yacun onen ganean. (Eta J.C^o.c leen aitatu deuntsuedazan berbeetan gauza bi dirauscu: *diligite inimicos vestros*: maite izan eguizuez zuen arerio gaisquillac, *benefacite his qui oderunt vos*, eta mesede eguioezue zuei gorroto deuntsuenai. Onen bitzuoen ganean bein banatan eguingo deuntsuet.)

I. Lelengo bada dirauscu J.C^o.c, arerioai eta gach eguiten deuscuenai ondo gura izateco. Onetan gauza bi aguinduten yacuz, bata da gorroritic eurac gana ez izateco, eta bestea amodioa edo ondo-gurea izateco. 1. Gorrotoa da besteren bat icusi ecina, edo gachen bat ñori opa izatea.⁶ Ezta gorrotoa, ñoc eguin deuscuzan gachac gaiti, edo esan deuscuzan deungaro eta berba laburrac gaiti biotzean min artutea. Gueure biotza minbera da, eta ecin gueuc galarazo guiñaique min ori; baya eguin bear doguna da, min eta damu ori Jgcoari esqueñi, eta aleguinac eguin baque onean eroateco. Ezta beré gorrotoa buruac ecartea alango laburtasuna, ta bide-bacoa eguin deuscunari au ta bestea eguin bear lequiquiola, alango burutasunai arpequi emoten bayaque, eta burutic (bururic) quendutera eguiten bada. Baya quendu bearren atan atan bazagoz, lecu zabala emoten deutsezula benguetaco asmaciñoai, alangoric eguiteco gogoric artu ez arren, aguri da zure biotzean gorrotoaren saguitea sarturic daucazula. Eta ara beré oquerrago badiñarduzu aren contra deungaro esaca: ba' aquizula zuc alangoari cer eguin bear lichaquion; alan ta alan eguin bear lequiquiola, querella bat ecarri bear lichaquiola, astin-aldi bat emon bear lichaquiola eta onelangoac.

⁷Jauna, esan daroe ascoc Confesonarioan, nic ezteutsat gachic opa, baya bera dacusdan orduco odol guztiac iraquiten deust. = Eta zuc orduan ¿cer eguiten dozu? ¿Eguiten dozu aleguinic ori gueldi gueldi galduteco, eta gach eguin deustun orreri ondo gura izateco?

⁵ Hitzaren azpiko puntutxoez baliatuz ateratzen da bigarren era hau.

⁶ Ertzeko oharrean dio “*hic a*”, beste nonbaitetik osatu beharreko zerbait.

⁷ “*hic b*”, ertzeko oharrean.

¿Escatuten deutzazu beragaiti Jgcoari ceure biotz-barruan? Alan bada, eztaucazu pecaturic. Baya contu alan eguinagaz; bada erraz izaten da alango orduetan gorrotoari ondo esatea, eta biotzean ostatu emotea. = Jauna, diño besteren batec, nic urliari nigan dagoan on guztia eguin gura neusquio; beragaiti Jgcoari erregututen deutzat; topetan dodanean agurra eguiten deutzat; baya eztaquit nic neure biotzean cer daucadan, derechat ece eztodazala oneec biotzeti eguiten. =Biotzac aguinduco ezpaleutsuz, etzenduqueez zuc orreec egingo, eta alan ez bildurric izan orregaiti.⁸

(Ecegaitic beré ecin iñori gorrotoric artu lequiquio, eta pecatu mortala da lagunari gorroto izatea dana dalagaiti.)⁹ (Oztasuna izatea edo curruquea artutea pecatu beniala izaten da quentzera eguiten eztanean, baya ezta mortala izaten, ori eztalaco gorroto-antza, edo gorroto cisca baño (besteric)¹⁰. Zuec ascotan bioc bat eguiten dozuez; baya eztira bat, bada gorrotoa izateco biotz charra eta barru gaistoa izan bear yaco). 2. Baya ezta asco J.C^o.c aguinduten deuscuna eguitemo besteai gorrotoa ez artutea; azaz ganeti maite izan bear doguz biotz biotzeric, eta ondo gura izan bear deutsegu, baita gach eguiten deuscuenai eta deungaro gura deuscuenai beré.¹¹ Eta yaquin guraco dozue nos maite izan bear dozuezan gach eguiten deutsuenac, eta nos ceuen biotzean esan bear dozuen ondo-gura deutsezuela. Eta orain nic esango deutzuet.

Lelengo bada, ari calteren batzuc eguitemo edo ceuen calteen vengaiartuteco tentaciño aserreren bat, edo amurru gogorren bat daucazue zuen biotzean asmetan dozuenean. Bigarren, tentaciño andiren bat daucazuenean ez beragaz tratetaco cristiñautasunac aguinduten daven moduan, eta besteacaz eguin oi dozuen leguez. Irugarren, ain modutan artu deutsuenean biotza besteac eguinico laburtasunac edo gachac, cein da ceuen buruai ichita, eta ernegaturic edo ichiteco ta erneguetaco bidean zagocen, edo besteai cer-esana (berba lecu) emoten deutzazuen. Onelango aldietan eta beste alangoetan, biotza Jgcoagana eregui bear dozue, eta gogo gogotic escatu bear deutzazue

⁸ “*hic c*”, ertzeko oharrean.

⁹ Sermoi honetan, eta beste batzuetan, parentesi artean dator zenbait testu. Ez dago esaterik parentesi hauek egileak berak ipiniak diren ala beste eskuren batek; izan ere, hemen erabilitako testua Jerusalemgo liburu orijinalaren fotokopia denez, ez dago tinta-motatik edo ezer ziurtatzerik.

¹⁰ Ertzeko oharretan, “*a sup*”, “*b sup*”.

¹¹ “*hic d*”, ertzeko oharrean.

bere escua ta bere gracia, ceuei gach eguin deutsuenac edo deungaro gura deutsuenac bera gaiti maite izateco.

Arerioai zor yacan amodio onen contra pecatu eguiten dave 1n. gach eguin deutseenai canpo ederra eguin bai, baya barruan gorroto deutseenac, eta euren contra chacur amurratuac leguez dagozanac. 2n. Justiciaren edo confesorearen bildurrez, edo besteren batzuc bitarteco sartu direalaco, azaleti adisquide eguiten direanac, baya barruan beti arantzea; eta bear bada onelangoac etsera etorrita esan daroe: billau dollorra; ichoc bada, ce, nic eracutsico deuvat cer eguin deustan. 3n. Pecatu mortala eguin daroe celataca dabiltzazanac calte eguin deutsenai zoroztuten [sic], ea icusi al baleioee cer edo cer, gero galerazoteco aec gura daven oficioeren bat. 4n. Pecatu mortala eguin daroe ascotan oficio edo bearguintza batecoac, ceintzuc icusten daveelaco bestea euren buruac baño cerbait obetochu, beti dabiltz aren contra deungaro esaten, eta tachtetan (achaquietan) aren gauzac, moduac, buru ona, escolac, eta besteac. Au urri icusi oi da mercatarien artean, escribau, medicu, oficiale ta beste ascoren artean, eta ara gueiago errico escribau oficiale izateco, edo beste alangoren baten atzean badabiltzazanen artean.

6n. Pecatu mortala eguin daroe ñoc calteren bat eguin deutsenean, edo berba astunen bat edo cleitucoren bat esan deutsenean, justiciara bagaric conpondu gura eztaveenac, ez baqueac eguin, besteac alan gura izan arren. Onelangoac esan daroe: eurac eztoazala justiciara benguetaco gogoia gaiti, ezpada justicia eguin bear dalaco eta gaistoac castigau bear direalaco; baya gueienean euren biotzeco gorroto citalac daroaz oneec juecen aurrera. Esan eguidazu ezpabere, ceuc besteari calteren bat edo gachen bat eguin baceuntso, eta guero conpondu guraric, besteac esango baleu ezetz, eztavela gura, justiciara bear davela, ¿esango cenduque justiciaren amodioz dabilela? Ez beintzat. Esango cenduqueana da ceuri bengau guraric dabilela. Bada beste orrenbeste eguiten dozu ceuc beré. ¡Ay, diño S. Juan Crisostomo-c¹², ceuc uste dozu ece ori eguinda biotza zabal zabalic gueldituco yatzula: Diabruari bai zabalduten yacala biotza ceu orretan icusiric.

Baya, Jauna, ezteutsagu gueure cleituari beguiratuco? Gueuc beré gueure garbitasuna bear dogu. = Ondo, beguiratu eiquiozu ceure cleituari ordu onean. Baya cer derichazu, Juecetara yoan da ¿ceure burua

¹² In Mat. 5. homi. 12 [?]. Ezker ertzetako zenbait ohar ezin irakur daitezke ondo.

zurituten dozula? Bai beintzat. Querellea besteari emoten deutzazu: papeletan ezarten da ac ceuri cer esan eutsun. Besteac bere berbea yan guraco eztau; eutsi guraco deutso bein esan davenari, eta orretaraco on eguin guraco deutsu alan zareala. Ascoren belarrietara zabal-duten da leen guichic equiena; eta ascori ¿noc galarazoco deutso asco esatea? Obeto beguiratuten yaco cleituari lurpean guztia zacatuta, ece ez querellea aterata. Bertan bera ichiten danean gaucea, laster aztuten da, papelean dabilenac luzaro dirau; guero ta guero beré papelean datz, eta papelean ascoc icusico dau.¹³

Oneec guztioac, bada, esan arren eurac ezteutsela besteari gorrotoric, eta canpoti arpegui arguia eta chera andia (abegui ona) eguin arren, eztituez benetan maite; bada (Jgcoac aguintuten¹⁴ deuscun amodioa ezta azaletico amodio utsa, ezpada biotz biotzeticoa, Elesha ama Santuac eracusten deuscun leguez. (Inocen. XI prop. 10 et 11.) Amodio au modu bitara izan leiteque. Bata da guztia erabatera eta pilloan leguez maite direanean, esango baleu leguez batec bere biotzean: nic guizon guztia maite dodaz Jgcoa gaiti. Beste modua da bat edo bat berez, eta besteacganic aparte maite danean, esango balitz leguez: *nic urlia maite dot Jgcoagaiti.*)

II. Baya biotzean dagoan amodioa canpoti beré aguertu bear da, besteai lagunduten deutsegula, eta ondo eguiten deutsegula gueure bearrean dagozanean. Eta orregaiti esan evan J.C^o.c: *Benefacite his qui oderunt vos*: mesede eguioezue zuei gorroto deutsuenai. Onen contra pecatu eguiten dave lenengo, icusiric, eurai gacha eguin deutsena, premiña andiren baten, lagundu ta socorridu gura ezteutsanac. San Agustin-ec diño¹⁵: “¿carcelan dago zorrac gaiti ceure anayea; goseac ilten dago, edo beste premiña gogorren baten? Bada cegaz badozu, emendatu bear dozu. Baya esango dozu: ¿eta nic, neure diru ederra emon bearco dot, besteac premiñaric eta estu-aldiric icusi ce dagueian? = Ori badiraitsu ceure biotzac, eztaucazu Jgcoaren amodioric: etzara Jgcoaren seme. ¿Celan bada daucazu cristiñautzat ceure burua?”

Pecatu mortala eguiten dave gurasoac euren umeai ucatuten badeutse edo luzatuten badeutse emotea, orren bearrean dagozala, senipartea, legitimea, dotea edo yatorqueena; euren gogoco etzanagaz edo gura ez evenagaz ezcondu zirealaco. Baita eguia esateco,

¹³ “*Hic c*”, ertzeko oharrean.

¹⁴ Ertzeko oharrean, “*d sup*”.

¹⁵ *In epist. 2 S. Joan...[?]*.

gueienezan gurasoac eurac izan oi dave alango ezcontzen errua, umeac itzal onean azi eztituezalaco, ichi bagaric fiestetati, celaietati, biguireetati, eta alangoetati ibilten, eta galarazo bagaric non gura sartuten, nogaz gura batzanduten. Pecatu mortala eguiten dabe dabiltzazanac beti erea daven guztian bestearen contra deungaro esaca, beti usiguiten (aguinca) leguez, aganaco dauqueen borondate charra eracusten daveela. Pecatu mortala eguiten dave azpiti dabiltzazanac galarazoten besteac gura daven errentea, officioa, aguintaritzea, beste bagaric ezpada besteac gachen bat eguin deutsalaco. Onelan prest dagozanac besteari calte eguiteco nai esanagaz dala, nai eguinagaz dala, nai beste modutan, ezteutse ondo gura besteari.

Pecatu mortala eguiten davee azquenezan, iñoc cerbait eguin deutsalaco, beragaz tratetan eztaveenac, alangoen artean tratau oi dan moduan. ¡Ay ceinbat confesiño oquer eguin oi direan alde onetati! Lelengo, bada, pecatu mortalean bizi oi dira ezcondu asco, ceintzuc, edo bata besteentzaco eztirealaco, edo euren borondateaz contra ezcondu cirealaco, beti dabilta catu-chacurrac leguez aserreca, alcarrren gauzac ecin baquetan eroan dituezala. (Pecatu mortala eguiten dave ezconduac aserratu direalaco, edo bear bada quirrimorrotu baño beste bagaric, (ce onetaricoac beré izan doaz) gogortuten yaqueezanac lagunari, laquetu gura bagaric lagunac matrimonioa servidu gura davenean). Pecatu mortala eguiten dave ezcondu orreec euren buruti alcarganic alde eguin eta bizi-alargun eguiten badave, eta alan bici direan artean eztagoz ez confesetaco, ez gure Jauna artuteco.

Pecatu mortala eguiten dau iñogaz cerbait izan davelaco, bestea conbidetan ezpadavenac yaten, edaten, ezteguna, funciñora, edo beste lecuren batera, ceintzuetara alango moducoac conbidau doazan, eta á bera beré berac conbidauco evan alango aserreric edo irrimirri-aldiric beragaz izan ezpaleu. Baita pecatu mortala eguingo dau besteagaz cerbait izan davelaco yoan gura eztavenac besteenera bascariten, estegura edo funciñora, besteac esanda beré. Eztago obligaciñoric iñor conbidetaco, ez iñoren conbitera bayetz esateco; baya ez conbidetea edo ez yoatea aserratu dalaco, edo besteac cerbait eguin deutsalaco, da esatea leguez gorroto deutsalaco, eta vengau gura yacolla. Eta beingoan guztia esateco, iñoc gachen bat, edo nai-bacoren bat eguin ezquero, edo berba astunen bat esan ezquero, edo cleitua galarazo ezquero, tratau gura ezpadozu beragaz, errian besteac tratau oi daveen moduan, da esatea leguez agaz gorrotoan bizi zareala.

Bardin pecatu mortala eguin daroe aide ascoc, auciren bat izan badave, edo euren artean berbaren bat edo aserreren bat, arcalegaz, aideen artean eguin oi dan leguez, tratau gura ezic dabiltzazanac. Guztiz dira asco aideen artean alangoac gaiti pecatu mortalean bici direanac. = Jauna, esan daroe, agurra eta berbea eguiten deusat bide-
ren baten topetan badot. = Eta ¿noc esan deuszu orrenbestegaz asco dozula pecatu ez eguiteco zure etsea iños idiguiten ezpadeutsazu, eta ceu beré aenean eguño sartuten ezpazara? = Bicuntzan bici direanen artean beré, edo urringo auzoen artean, ezta asco bidean edo calean arcal icusten direanean agur eguitea, edo berba eguitea: bada alango-
ac arcalen baque onean bici direanean ori baño gueiago eguin daroe, eta alan ori ta ez besteric eguinagaz arcalen gorrotoa eracusten dave, eta cer-esana iminten dave.

Azquenean pecatu mortala izan doa arerioari, edo gach eguin deusuenari agurric ez eguitea; berba eguiten deusuenan ez erantzutea, edo burrufada (burrume) bat eguitea, errecetan astea agurric edo barbaric ez eguiteagaitic; berac dacusala bidea auste beragaz ez topetaco; berari irri ta barre eguitea; zuenera datorrenean parca escatutera, yaquinic berac zuce etsean zagocela, canpoti zareela esatea. Eta ¿ceinbat onelango eguin oi dira mundu zabaleti achina, eta ¿ce bildur guichi artu yoaquen onelango pecatu anditzarrai! Eta ¿cer esango dot araco guraso edo senarrac gaiti, ceintzuc iñogaz cerbait izan daveelaco eragozten deutseen umeai edo emazteari besteanean sartuten? Oneec pecatu mortala eguin daroe, eta ez bat ez-ece, baita asco ta asco, bada cer esana iminten dave errian.

Orain itanduco deustazue ea guraso bat egon al baledi umeari barbaric eguin bagaric, edo etsean sartuten ichi bagaric deungaro ta gurasoen gogoaz contra ezcondu dalaco. Onetara esango deusuet: umea ezcondu bazan bere ideacoagaz, eta odolari calteric eguiten ezteutsanagaz, eta gurasoari bere ezcontzaren barri emon beutsan, eztauco alangoan ez gurasoac ez senideac escubideric etseco sar-tzaierea galarazoteco, ez berbea ucatuteco, ez bere eztegura orregaiti ez yoateco, bada umeac ez evan orretan gauza charric eguin. Umeac eguin badau bideric eztacarren ezcontzaren bat, odolari echa-torcanagaz, eta orregaz gurasoai bide-baco andia emon badeutse; orduan gurasoac, ondo daquienen esanera, egon leitequez ilabetean, edo ilabian umea etsean artu bagaric, edo barbaric beré eguin bagaric, orregaz berari iragarteco eguin daven buruerea, ta zantarqueria (charqueria), eta beste umeai bildurgarrizat izan daquioen.

Baya egon guraso asco egon oi direan leguez lau bost urtean, edo gueiagoan umeagaz tratau gura bagaric, etsera etorten ichi bagaric, edo umeagaz tratau arren, suñagaz edo erranagaz eguin gura bagaric, ori pecatu da, eguin ecin leitequean gaucea da. ¿Cer da au, gurasoac? ¿Orren gogorrac izan bearco dau zuen gorrotoac, cein da gueiago iraungo deutsuen umeen alderaco atzeen alderacoac baño? Ceuen odolari eztautsan atzeagaz bildur zare agur eta berba eguin bagaric egoten; eta umeagaz, suiñagaz, edo erranagaz alan egoteco ¿eztago baperé bildurric? Ori ezta legue, ez Jgcoac aguinduten davena: eta olan zagocen bitartean etzagoce confesetaco, eta ain guichi ceruan sartuteco. = Jauna, desondrau gaituz ume orrec ezcontza orregaz. = Ori ascotan ezta eguia izaten, ezta besteric izaten gurasoen andi usteac eta putzac baño. Baya alan balitz beré, asco da orren castiguraco ilabeteco edo ilabico atzerea. Alan egonagaz ¿garbituco al dozu deshondra ori? Ezcontza orrec eztauco atzera bideric, eta alan egon, nai egon ez, beti izango dozu umea ume, suiña suiñ, errana erran, eta guztiac zure odoleco, edo zure odolari dautsenac.

¹⁶(Ainbestera elduten da batzuetan ascoren biotzaren citelqueria ece, gorroto artuten deutse, erru bagaric eurai calte eguiten deutsenai, edo calte eguingo deutseela derichenai, eta alde onetati beré ascoc pecatu eguin daroa. Ara emen onetarico batzuc. Pecatu eguin daroe umeac, gura leuqueenac euren gurasoac ilda balegoz, euren gauzaac, aciendac ta ondasunac eurentzat izateco. Pecatu eguin daroe gura leuqueenac gurasoa Jgcoac garbituco baleu, edo chochaturic (guichienduric) ta ume eguinic dagoalaco, edo oaturic dagoalaco, edo gaishoagaz diru pillo andia yoateco bideac dacazalaco, edo beste alangoren bategaiti. Pecatu mortala izango da gurasoac nai izatea Jgcoac umea eroango baleu, arlotechu bici direalaco, edo cegaz emendatu, ta aci ascotzaric eztaunqueelaco. Pecatu izango da ezcondac nai izatea laguna ilda baleuco, bere burua libre icustearren.)

III. Iñori gachen bat eguin deutsanac, cleitua galarazo deutsanac, berba astunac esan deutzazanac, eta alangoac parca escatu bear deutse; baya besteac beré artu bear dau biotz onagaz, ta errai zabalacaz; eta alan eguingo ezpaleu, pecatu eguingo leuque. Eta gauza onen ganean pecatu eguingo dau, bestea orretara datorrenean, etsean sartuten beré ichi gura ezteutsanac, edo esquer gaistoan botetan davenac, edo gizon onen batzuc bitarteco iminten deutzazanean, entzun beré gura eztavenac. Errua daucanac parca escatu bear dau, legue dan

¹⁶ Ertzeko oharrean, “*c sup.*”.

leguez; baya á ezpaletor, eta aurrera bere gorrotoan iraungo badau, ceuc aurreratu bear zachaco^z baqueac eguitera, non-da guztiz gach eguiten ez yatzun, edo calte andiren bat orregaiti izango eztozun. Caridadeac eracusten deuscu besteen arimeen osasuna billatu bear dogula, nequeren bategaz izango bada beré, eta gauza yaquina da, á gorrotoan bici dan artean, ceruraco ondo eztagoala. Eta beste aldeti ceuc beré eztozu biotzeco baquetasunic ez gozoric izango barriz aric eta baqueac eguin artean.

Baya ¿ceinbat achaquia iminten eztituez au ez eguiteco gorrotoan, bici direan guztia? Mendi^{ac} eta aldats-gora andiac aurreti iminten yaqueez ori eguiteco esaten yaqueen bacochean. Aita, diño batec, nic ezteutsat ari gachic opa. Jgoicoac eguin daguiola nireztat gura dodan on guztia: baya a bere etsean, eta ni neurean. = Eta Jgoicoac ceuri pecatu eguiten dozunean beste ainbeste eguingo baleutsu, eta botaro bacinduz bein betico bere etseti, ceruti, ¿ondo cengoquez ceu? Ori ezta J.C.ºc diñoana eguitea. Diño Jaunac bestea ondo gura izateco gueure buruari gura deutsagun modu moduan. Eta alperric ece zuc zureztat guraco etzenduque besteren batec zuri beste ainbeste eguitea. Ceuc ari ondo gura izateco, eguin bear dozu beragaz, aren moduco besteacgaz eguin oi dozun guzti guztia; agur eguin, berba eguin, mesede eguin orren bearra davenean, conbidau bear bada, eta alangoac. =

¡Ay Aita! Balequi berorrec nor dan bera ez leuquet alangoric esango. Cital dollor bat da guztia: eztauco ac zati onic; agaz ecin iñor baque onic eguin lei. = Cital dollorago izan zara bada zu Jgcoagaz, ceuc eguin dozun ainbeste pecatugaz, eta alan da guzti gura dozu Jgoicoac parcatu deizun. Eta ¿nosc onacoa dau orrec alangoa izatea? Ceugaz aserratu zanetic onacoa nonbait. Leen beré ac orain daucan genio eguin eguina izango evan, eta leen baquean bici cineen. Baya guztic daucagu gueure citalqueriachua, eta citalqueriachu oneri ecer ucatu gura ezteutsagu. Eguin bear dozu bada aleguina ceure buruari cerbait ucatuta beragaz baqueac eguiteco. = Aita: nic agaz tratetan badot, bat escatu, bestea escatu, etse guztia ondatuco deust. Eta ac bein gaucea eroan ezquero, eztaqui atzera bideric. = Bada ez emon. Eztirautsut nic ari emoteco ceuc ceure etsean bear dozuna. Premiñan dagoana emendatu bear izaten da; baya osterantzean ethaco¹⁷ emon bear atzera ecarten eztaquianari, etseraco bear dana. Baya ezta orregaiti aserre bici bear, agurra eguin bagaric, berba eguin bagaric, eta besteai eguiten yaquena eguin bagaric. =

¹⁷ Behar bada "etchaco".

Eta, Aita, niri eguin deustana castigu-bagaric gueldituco da? = Ez, ezta gueldituco, deungaroric eguin badeutsu. Edo berac bere buruari castigua emon bearco deutso, edo ezpaberé Jgoicoac orren castigua eracutsico deutso. Baya ceuri ez yagotzu castigu ori emotea, bada Jgcoac esanic dauco: “nire contura vengaiia: nic emongo deutset bear davena”¹⁸. = Eta ichico deutsat gura daven guztiagaz urteten? = Orren ganean bago cer-esan. Quendu gura baleutsu ceurea dan etsea, soloa, basterra, basoa, orretaraco escubide bagaric; orduan bestelan galarazo ecin badozu, aucia emon ciñaio, edo berac emonari yarraitu. Quendu gura baleutsu asco balio eztaven gauzaren bat, eta contuac ondo atarata, aucitan abiau ezquero, aren aleguiña ta gueiagio gastau bearco badozu, ezta aucitan asi bear. Al badozu guizon baten escuetan imini, eta aren esanera egon; eta ori ecin bada, galdu eguizu ceure gauza ori. Berba astunen bat esan badeutsue, aserreren bat izan badozu, bide-bacoren bat eguin badeutsue eta alangoetan, ito eguizu ceure barruan guztia; eta etzaitz yoan Escribauetara: Auciatic eztacar gauz’onic: Diruac guichitu, lanac atzeratu, naguiqueria icasi, ospitaleraco edo concursuraco bideac artu; burua alatu, baquea galdu, orreec dira aucien irabaciatic eta ondasunac. Eta ezta ori oquerrena: arimaco calteac dira orreec baño deungagoac. Ozta ozta icusico da pecatu-baco auciric. Aucitan ibili, eta bear eztanic ez eguin, ori Santuac beré nequez eguiten daveen gaucea da, diño San Francisco Salesec.

Asico dozu bide oneco auciren bat; baya guerora guerora sartuco yatzu auci ori irabazteco alango amurru gogorra ce, edocein gauza eguingo cenduque auci ori irabastearren, bear eztana beré bai; eta San Joan Crisostomo-c diñoan leguez, pozago egongo zara pecatu eguin-da auci ori irabazten badozu, ece ez, pecatu eguin bagaric aucia galdu badozu. Orregaiti J.C^o. geure Jaunac ez guinduzan aucizaleac gura, eta eracutsi euscun atal bat galduta beré, edo naibacoac, eta laburtasunac ishilic eroan da beré, ez auciric artuteco. Ara emen bere berba ederrac¹⁹: “Iñoc escoaco matrallan yoten bazaituz, imini eguiozu beste matrallera beré. Eta aucia emon gura deutsunari, eta auciangaz soñeco tuniquea quendu, emoiozu capea beré. Eta iñoc bazaroz milla pausuen bidean, zoaz zu beragaz beste bir-milla pausu beré”. Eta ¿ceinbat etse eder saldu eztira euren yaubeac aucitan ibilita zorrez ondatu cirealaco? Ichi eguiozue, arren, aucitan ibiltari;

¹⁸ Rom 12 v. 19.

¹⁹ Mat 5 v. 39 ss. V. Calmet. in hunc locum, et P. Scio.

eta escu artean darabiltzuezan auciac, guizon on baten escuetan imini, eta aren esaneti ebagui. Osterantzean etseac, diruac, baquea, arimea eta guztiac galduco dozuez. =

Aita, berac dauco erru guztia; ni baquean nengoan; nic ez neutsan gachic eguiten. = Au entzun daroagu egunean egunean; baya gueie-nean ezta eguia. Batac eta besteac errua izan daroe; batac asi zalaco, ta oña emon evalaco; eta besteac parcatu ez eutsalaco, eta bateri beste bategaz, edo beste bigaz erantzun eutsalaco. Eta alan ezpalitz beré, gogora ecarri eguizu celan eguin dozun ceuc Jgcoagaz, eta ceinbat bider ari bear eztana eguin deutzazun, ac ceuri gauza charric eguin bagaric; eta agaz guztiagaz Jaunac parcatu deizun gura dozula.

Orain biar ta etsi dira Comuniño generaleco egunac, eta gure Yauna artuteco guztioac baqueac eguin bear dozuez. Eta alan alcarren gorrotoan bici izan zareenoc ez etorri baqueac eguin bagaric. Toledoco amaicagarren Concilioac aguinduric dauco Comuniño santura ez etorteco gorrotoan bici direanac²⁰. Orretaraco gaur sermoiric urten da laster, ecer izan dozuenoc alcarrerri parcaziñoa escatuco deutzazue. Jgcoac berac dirauscu, besteren bategaz cerbait izan badozu, ezpedi eguzquia sartu beragaz baqueac eguin bagaric. Eta parca escatutea biotz biotzetic izan bear da, bacoachac nor beren buruari errua egozten deutzala. Eta ez lengo contuai eraguin: ez asi ceuc au eguin ceustan, bestea eguin ceustan; alan eguiteco oba da bapere ez eguitea, bada ori ezta besteric ezpada lengoa barriztetea, eta biotze-co zauria gordinago eguitea. Contu bada orregaz. Ara bada, aushe da parca escatuteco modua. Urlia, baquit nic bear eztana eguin neutsuna; baya damuturic nago, eta Jgcoagaiti parcatu eguidazu. Besteac erantzungo deutso: nic orretan izan nevan ceuc baño erru gueiago, eta ceuc parcatu bear deustazu, eta onic aurrera adisquideac leguez bicico gara, eta onenbestegaz ichi bertan bera.

²⁰ Can. 4. loquitur [?] de Episcop. et ideo... Mat c. 5 v. 23; Efes 4.

FRAY MATEO DE ZABALA

2. [ARTU DIREAN GOGO ONETAN IRAUTECO BIDEEN GANECOIA]¹

Poenitentibus... dedit (Deus) viam justitiæ, et confirmavit deficientes sustinere... minue offendicula... et cognosce justitias et judicia Dei, et sta in sorte propositionis et orationis altissimi Dei.

Eccli. c. 17. v. 20, 22, et 24.

(J, 113-119. or.)

¡Ce pozic egon doian achurlaria, icerdi galantac bota, eguzqui onac artu soloac erabilteco, eta guero batuteco demporan dacusaz bere artoac edo gariac galbegui² eguinic! ¡Ce pozic egon doian ichasoti ibili dana, bide andiac egin, neque ederrac icusi eta azcanean ondasunez beteric bere errian leorra artuten davenean! Aztu eguiten yaquez ordura arteco nequeac. Alanche yazoten yacu gueuri beré gaurco egun onetan. Amabost egun da misión santu au asi guenduala. Zuec icusi dozue celan buruac necatu bear izan doguzan bai pulpitan, bai confesonarioan. Zuec beré, zuen nequeac artu izan dozuez sermoiac entzuteco eta zuen confesiónac eguiteco. Baya dacusgunean ceinbat arima ederr, Diabruaren atzamarretaric aterata, Ygcoagana etorri direan, biotza pozen pozez urtuten yacu, eta ontzat emoten doguz gueure neque guztiac, eta orain arteco buruco-minac. Bai, N.co erri noblea, egunocaz ¡ondo aguiri izan da ceugan Yaungoicoaren erruquitasuna, ta gracia! ¡Ondo escu-betean zabaldu dituz Yaunac zure ganera bere arguiac, bere samurtasunac, bere laguntzac! Derichat ece asco ta asco gaur amabost il-da Infernuraco cireanac, gaurco egun onetan ilgo balira, Ceruraco izango litzatequezala. Beragaiti esan bear dogu gueure biotzeco poz andi bategaz, aushe dala Ygcoac eginico eguna, eta berean poztu egin bear gareala.

Baya ¿cetaraco izango da Ceruraco bidea artutea, bide erditi atzera eguiten bada? Bilbo-raco bidea milla bider batec artu arren, bide

¹ Jatorrizko testuak ez dakar izenbururik.

² Hitz hau ez da ondo irakurtzen. Dirudienez, beste baten gainean zuzenduta dago.

erditic atzera eguiten badau, eztau eguño Bilbo icusico. ¿Ceinbat ete dago gaurco egunean Infernuco gar artean erretan eta quiscalduten, aldicada baten edo bear bada luzaro onac izan cireanac? Saul, Yoas, eta Yudas aldi baten onac izan cirean; baya euren calte gogorrean ichi eutsen bide onari, euren buruac'az Infernuan yo even. Eta onetari-coz bete beteric dagoz liburuac. Arpel arpelic eguin izango dozuez zuen confesiño generalac, arpel arpelic ichi izango deutsezue zati bateraco orain arteco pecatuai; barriro euretara biurtuten bazare, eztozue Ceruric icusico; Infernua izango da zuen betico etsea. Onen bildurrac biotza ilun ilun eguiten deust, bada baquit nic errietan cer yazoten dan Misiñoa yoan ezquero. Bai, baquit, eta zuen oneraco orain zuei iragarri bear deustuet.

Ezterichat, neure entzula onac, ecarri leitequeala irudi obagoric adietan emoteco Misiñoacaz errietan yazoten dana, cein-da Yosue-ren aldian Yordan erichon ibaico uracaz yazo zana. Yosue Santuac aguindu-ta sartu cirean Sacerdoteac Yordan-eco ibaian, ucha santua lepo ganean eveela. Bertati goiti beera etozan urac, ucha santuari lotsea ta itzala artu izan baleutse leguez lotu cirean gueldi gueldi, aurrera bideric eguin bagaric; beste urac barriz beerantza yoazala eguin tzan ibaiaren erdi erditi bide leor ederra Israel-tar guztiac oñic busti bagaric igaroteco. Baya ¿ceinbat derichazue iraun evala bide leorr orrec, eta urac gueldi egote orrec? Ucha santua ibaiaren erdian egon tzan bitartean ta ez gueiago. Ac andi urten orduco urac lengo bidea artu even, eta agurr, yoan tzan ibai erdico bide leorr ori.

Ara emen Misiño santuacaz yazo oi danaren irudi eguin eguina, nic biotzean minic artu bagaric zuei ecin adierazoco deustuedana. Batoz Misionistac erri batera, asten dituez sermoiac, eta orra non pecatuai ebaten yaquezan lengo bideac. Guztiac datoz euren arimac garrbitu guraric Confesoreen oñetara; ichiten yaque adisquidetasun charrai; galdu gura dira lengo ecandu dongac, gazteac artuten dituez gogo ederr batzuc gueiago ez yoateco dantza nastuetara, yolasera, biguirara, eta batzar gaistoetara; biurtu oi dira iñoen gauzac: orduan ecin bada, artuten dira asmu ederrac aleguinac eguitemo; sartzen da etseetan baquea; quentzen dira gorrotoac, eta, guztia berba baten esateco, erriac beste bat dirudi. Baya ¿ceinbat derichazue dirauela alditze onec, on izate onec? Misiño santuac errian dirauan artean, edo ez asco gueiago. Aric denpora guichi garrenean, entzun daroagu batzaaco dantzac, eta naasteco batzarrac leen leguez eguiten direala, lengo

bideac artu oi dituez, leengo adisquidetasunac, zantarqueriac, biraoac, gorrotoac, ordiqueriac, auciac, lapurreriac eta oquerrqueria guztiac.

Eztiñot nic au guztiac gaiti, ezta onago beré; baquit nic banaca batzuc, eta ascoc uste daveen baño gueiagoc iraun oi daveena urteetan eta urteetan, baita euren bici guztian beré, eta onei beguiraturic ontzat emongo guenduquez gueure buruco-alac, eta icerdiac, bestea-
caz ecer ateraco ezpaguendu beré, baya gueienac lengo bide deungueetara biurtuten dira; eta bear bada leen bashen amurru andiagoga-
gaz. ¿Cetan dago guero au neure Cristiñauac? ¿Nondi datoz onelan-
go calteac errietara? Leen negar eguin alango gauzaac eguin (eguiña)
direalaco; leen esan eztituezala eguño beré eguingo, eta barriro eguin
bear? ¿Ez al dira biotzetic izan emon dituezan berbaac? ¿Euren negar-
rac izan ete dira guzurrezco negarrac? Ez, neure Cristiñauac, ezteust
niri biotzac alangoric emoten, eta uste dot ece, euren negarrac cindo-
ac izan direala, eta euren berbac beré biotzeric emonac. ¿Cetan bada
derichazue dagoala calte ori?

Nic esango deutsuet orain cetan dagoan gueien. Batzuc biurtuten
dira lengo bici-modu charrera, eztituezalaco artuten asi daveen onean
irauteco bear direan neurriac. Besteac galduten dira besteren batec
pecaturaco bidea emoten deuselaco. Oneec bioc dira erriac galduten
dituezanac. Nic, cristiñauac, gura neunque (baita ondo biotzeric gura
dodala), zuei alangoric yazo eztaquizuen, eta orretaraco esango deu-
tsuet doctrinatzat cer eguin bear dozuen artu dozuen bici-modu
onean irauteco, eta guero Sermoian ulertuten emongo deutsuet ce
pecatu icaragarria dan besteai pecaturaco bidea emotea. Ara emen
arratsalde onetan entzun bear deustazuena. Entzuzue bada orain irau-
teco eguin bear dozuena.

1. Lelengo lelengo, bada, alde eguin bear dozue pecatuen bide ta
ocasiñoetic. Aushe eguitea gogo gogoti artu bear dozue, bada au
eguinda bideric erdia eguinic daucazue; eta au eguin ez-ic, galdutzat
emoten dot nic zuen arimaco osasuna. Beguien aurrean equi bear
cenduquee; eztot ondo esan, biotz biotzean sartuta equi bear cendu-
quee pecaturic urten dozuenoc, gaisho andi bateric urten dozuela, eta
argalic eta erquin eguinic zagocela, eta edocein beré ecerezqueriac
lengo gachagaz iminico zaituezala. Ez eguizue au bein beré aztu:
argalic zagoce, erquinic zagoce, macarric zagoce, indarric eztauca-
zue, eta edocein beré gauzac yausi eraguingo deutsue; eta orregaiti
ardura guztizco bat izan bear dozue pecaturaco bideetati alde eguite-
co.

Alan zuc mutil gazte, zuc nescatilla, ¿entzun deuscuzu bein baño gueiagotan, dantzan ibilteac nai dala plaza aguirian, nai dala celaie-tan, edo oqueluetan ta zocondoetan, ecarri oi dituzala escu-estutute laztanac, labanqueric, berba loiac, eta guero etseraco bideetan, eta gueroago gogo ta pensamentu loiac, zantarqueric, berotasunac, edo bear bada orreec baño beré oquerragoac? Bada ez oñic imini dantza toquian, ezta dantzan eguiten icusteco beré. Bacutsu ceuc biguireta-ra yoanagaiti, edo carobira, olara, chacolinac eguiten direan toquira, gorularietara, ezpalarietara, gaubelara yoanagaiti, ibili oi direala bultzaca, egozca, amilquetan, cirrica, quilica ta zantarqueric? Ez yoan alangoetara. Bacutsu ceuc beste orrec urligaz berba eguin dozunean izan dozuezala mosuac, laztangac, escuac bear eztan lecuetati erabilteac eta zantarqueric? Ez agaz egon; alde eguin beraganic.

Ceuri, otseña, etsecoren batec emoten deutsu deungueraco bidea? Urten etse orretaric. Otseña dozu ceure tentagarri? Camporaco bidea emon. Baquizu ceuc, guizona, tabernara edo ondretara ezquero, orditu oi zareala? Betico agurra eguin tabernari eta ondrai. Baquizu beste orrec, urligaz edo uliceñagaz batzandu ezquero izango dozuzala yuramentuac, biraoac ta araoac? Ez orreecaz batu. Baquizu emacumea auzoco andreagaz batu ezquero besteen bicitzai eraguin bearco deutzazuela, eta cleituco gauzac, ishilic dagozanac beré anche urten bearco daveela? Bada ichi agazco berbaiteari. Eta, berba baten esateco, bein yaquin ezquero ain gauza edo orren gauza dala zuentzaco gacheraco bidea, eta pecaturaco arrilabana, ichi bear deutzazue gauza orreri. Ain bagaric etzare onduco, eta utsean yoco dave zuen gogoric beroenac eta zolienac beré. Ezteutsat nic au neure araguaia... quenduten, Ygcoac esanic deuscu, baita eguia Ygcoac esana leguez, pelleburua maite davena berean galduco dala, bide labana gura davena berean yausico dala. Esaten deutsue gueiago: ceuei pecaturaco bidea emoten deutsuena badozue escoaco beguia, escua edo caderea bera bashen bearrago, orregaiti beré zuecanic quenduteco.

Ondo equian au anchinaco basamortuco (...) ³ agura santuac. Entzuzue au zuen oneraco. Yoan yacon bein baten mutil gazte bat Padar agura zar bateri conseychu batzuc emoiozala. Bayetz bada, (erantzun eutsan agureac) paperean imini leizala berac esango eutsazanac, gueroco beré aztu ce lequiozan: *Lelengo conseychua*, esan eutsan

³ Ez du aipamena zehazten.

agura onac, *pecatuen bide dongueetatic alde eiguizu. Bigarren conse - yua, pecatuen bide dongueetatic alde eiguizu. Irugarren conse yua, pecatuen bide dongueetaric alde eiguizu. Aitashe, esan eutsan gazte - ac, irugarrenez gauza bera entzun evanean, ori gauz' ori bein ez-ece birritan beré iminiric daucat. Orduan agureac, agura asco yaquitunac leguez erantzun eutsan: Ezta ardura, ene seme; imini eiguizu iruga - rrenez beré, ce ain da ona, eta ain sustrai andicoa conseyu au ece, eztira gauza nic emon neinquenezuzan ganecoac; baya berau gogo gogoti gorde ezquero, Ceruraco bideric gueiena eguinda daucazu. Bada esana esan: pecatuen bide charretaric urrun eguin bear dozue, artu dozuen bicitza onean iraun gura badozue. Ez esan, zoro ascoc esan daroena; yoango gara, baya eztogu dantzaric eguingo, ezcara zantarquerietan ibilico; ezcara ordituco; egongo nas besteagaz, baya ezteutsat ichico gauza charric eguiten. Orreec utsac dira; eta bide orre - ec galdu ez-ic gura ta gur'ez yausico zare. Eta orretan bazagoze contu eguizue zuen confesiñoacaz bapere gauz' onic eguin eztozuela.*

2. Bicitza onean irauteco bigarren eguin bear dozuena da sarri ta ondo confesau (ta) comulguetaco, eta biotzeco beroric al dozuen andienagaz. Esan deutsuet sarri ta ondo confesetaco. Bada ¿cetaraco izango da sarri confesetea ondo eguingo ezpada? ¿Cetaraco izango da amabostean bein confesetea, lotsaz ichitaco pecaturen bat beti colco barruan erabilico bada? ¿Cetaraco izango da zortzian bein eguitea zorrac paguetaco aleguinic eguiten ezpada, edo iñoena bere yaubeari biurtuten ezpayaco? Deungaro eguitemo oba litzateque bein beré ez eguitea. Esan deutsuet beré al-dozuen biotzeco berotasunic andienagaz confesetaco, eguiten zareela pecatuen damu ta gorroto andiagaz, eta ez ostera pecaturic eguitemo gogoagaz. Asco dira cristi - ñauen artean confesau-ta aric lasterrean pecatu mortalean yausten direanac; ostera beré confesau, ostera beré pecatu eguin eta alan dabiltzazanac. Baya onelangoac bildur izan bear dira eztireala gauza euren confesiñoac, eta pecatuaren damuric baperé artuten eztaveela, eurac bayetz uste izan arren.

(Eta pecatuac chiquiac eta benialac izan arren, orreec beré calte andiac dacardez, guztiz beré ecanduz leguez, eta gauceari zaletasuna artuta eguiten badira, eta orregaiti oneec beré albaitenez galarazote - ra eguin bear dozue, eta orregaz beré pecatu mortaletaric urrunago ibilico zare). Eta prestaera obeacaz confesetaco gauza bi artu bear cenduqueez gogoan confesetan zareen bacochean. Bata da bear bada orduco confesiñoa izango dala zuen atzenengo confesiñoa. Batec edo

batec alan izan bearco dau, eta ¿noc esan deutsue orducoa izango eztala? ¡Ay! Sinistu bear ezteutsazue ez gaztetasunari, ez osasun onari. Ez gazteai, ez osasun onecoai ezteutse beldurric arean artuten eriotzeac. Bigarren gaucea da, confesorearen belaunetan zagocenean, uste izan bear dozuela Yesucristo-ren belaunetan zagozela. ¡Ay! Ta alan balitz ¿celan bigunduco lichaquezuen biotza, zuen pecatuac esaten dozuezan orduan! Bada alanche bigunduteco aleguinac eguin bear dozuez confesetan zareen guztian.

Confesiño ondo equina da, diño San Agustin-ec, pecatuac galarazoteco, eta pecatuacaz galdu cirean birtute onac barriro atzera artute-co; da Diabruari iminten yacan debecu ta eragozgarri andia, eta Infernuaren bildurgarri itzala. Emeti aguri da guztizcoa dala pecatuac galarazoteco sarri eguiten dan Confesiño ona. Baita itanduco deustazue ea ceinbateric ceinbatera eguingo zareen. Eta nic dirautsuet batzuc zortzi eguneric bein eguiteco, beste batzuc amabostean amabostean, eta ezta izan bear zuen artean garauric beré ilean bein eguingo eztanic. Ez esan zuec orretaraco cer-eguin andiac daucazue-zala. Eztago ilean bein ez eguiteco cer-eguinic, ez gauza dan achaiquiaric. Ceuen cer-eguin andi orreen artean ¿topetan eztozue astia, eta astiune galantac beré lo eguiteco, yateco, ibilteco (paseetaco), eta bear bada arpelic egoteco beré? Baita orreec orretaraco ilean bein bashen gueiagotan eguiten direanac dira. Eta arimea garbituteco, eta bere osasunari beguiratuteco ¿eztozue ilean beingo astiric topauco?

Ez esan beré, buru bagaric ascoc esan daroen leguez, ea ain sarri cer confesauco dozuen. Eztago munduan cer confesau eztavenic. Egunean zazpi bider yausten direala santuac, dirauscu ondo daquian Ygcoac berac; eta zuec ain santu izan bagaric, zortzian bein edo ilean bein eztauczue cer confesauric. ¡Eh! Orreec *pecatu chiquiac* dira, esango dozue. Yaungoicoari alan gura daquiola; baya eztaquit, eztaquit... Cer confesau eztaunqueela diñoenen artean concienciaco nasaiqueria, eta ardura eza puscachu bat beré izan leiteque. Baya ondo: alan baderichazue chiquinac baño izan eztitezala pecatu orreec; baya buruan epai chiqui bat daucazuenean ainbat lasterren osatuteco aleguinac eguiten dozuez; ¿ezta alan? Bada arimaco epaiac buruocac baño guichiago eztira. Eta ¿non da arimaco epai chiquer orreec osatuteco confesiñoa lango gauzaric? Confesoreen ganean barriz esango deutsuet guztiai lotsa ona aguertuteco, baya zuentzaco albait onena artuteco. Iñoc galarazoten badeutsue fiestara, yolasera eta alangoetara yoaten, zuec usteco dozue estueguia dala confesore ori; baita niri

derichat ece bera leguezcoric eztala. Nire erechian confesore nasaien atzean dabiltzazanac eztaque pecatuen damuric, ezta apurric beré.

Comuniño santua beré sarri ta bear dan leguez artutea da bide ona onean irauteco. Comuniño santuan artuten dogu bene-benetan gueure Yauna, ceru-lurraren eguillea, ondasun guztien iturria. Eta bera bularrean daucagula ¿celango mesede ederrac eguingo ezteuscuz Yaun onec? San Agustin-ec eta S. Joan Crisostomo-c diñoec ece, ume chiquia yan-da aci ta gogortuten dan leguez, alanche gueure Yauna artuta indartuten eta aziten dala gueure arimea graciaren eta gloria-ren merecimentuacaz. Eta San Vicente Ferrer-ec dirauscu: gueiago irabazten dala comuniño ondo eguinico bategaz, aste guztian ur ta ogui barau eguinagaz baño. Au alan izanic eztaquit nic celango lotsea dauqueen ascoc urte guztian confesau bagaric eta comulgau bagaric egoteco. Ceruraco bidea, Yesucristo-c diñoaneti, bide estua ta bedarra da, eta eztau ac nasairic ondo artuten: bide lucea da eta aldats-gorea, eta indarrac bear doguz bide ori egiteco. Comuniñoaren ganean eztirautsuet nic ceinbateric ceinbatera artuco dozuen; orretan confesorearen esanera egon bear dozue. Baya zuen escuan daucazue nos-gura eta non-gura eguitea beste comuniño modu bat ceineri comuniño espiritualaren icena emoten yacan, eta ezta besteric ezpada comulguetaco guraria biztutea, eta gueure Yauna artuteco daucagun gurari eder bat Yaunari berari aguertutea.

3. Bide onean irauteco eguin bear dozuen irugarren gaucea da, egunean egunean liburu on baten iracurtea, eta zati baten gauz' onen bat gogoan dozuela egotea. Gauz' on ori gogoan izateari oraciño mentala esaten yaco; baya nic eztot aotan artu gura izan berba ori, zuec ez icaratutearren; bada esaten bayatzue oraciño mentala euquiteco, berbertati erantzun daroazue, ori eztala zuen buruetaraco, escola guichien yaube zareela zuec ori eguiteco; eta beste aldeti barriz zuen oguia irabacico badozue, lanean (bearrean) eguin bear dozuela, eta oraciño mentalean egoteco lecuric eztaucazuela. Baya, Cristiñauac, eztago iñor munduan, gauz' onen bat gogoan davela egongo ezin danic. Santocristo bat dacutsuenean, ¿echatorzue gogora Yaun onec gugaiti celango eriotza gogorra icusi evan? Iñor errian ilic topetan badave, ¿ezteutsue gogoac emoten eztaucagula ordu segururic, eta guichien uste dogunean gueu beré ilgo gareala? Bada ori da ta ez besteric oraciño mentala euquitea: olangoren bat gogoan artu eta orretan egotea. Eta au eztaue galerazoten cereguinac, lanac, eta arazuac, bada eurac eguiten direan artean bere ori eguin lei.

San Joan Climaco-c diño ce, berac topau evala Sinai-co mendian fraile escola guichico bat, baya Yaungoicoaren amodioan aurrera ebi-lena, eta beti gogoan gauz' onen bat evala egon bearco evana. Ez evan onec liburu andiric escuetan artu, bere eguinen guztia zan, esca-ratzecoa (subetecoa) eguitea; baya anche, lapico artean, eucan bere oraciño mentala, anche suaren aurrean urtuten yacan bere biotza, eta begui bietati zara zara eriozan negar ampulu gozoac. Itandu eutsan San Yoanec berac ea celan ainbeste cer-eguinen artean beti beti ora-ciño eguiten egoten zan, eta besteac erantzun eutsan: nic lapicoa eguiten dodanean contu eguiten dot eztodala guizonontzat eguiten Yaungoicoarentzat baño. Aurrean daucadan suac gogora dacart Infernuco sua, eta alan nago beti gauz' onen bat gogoan dodala.

¿Cec galarazoten deutsue, barbaraco, achurrean eguiten dozuen artean gogoan artutea, beintzat Yaungoicoac gueuri mesede ederrac eguiten deuscuzala, lurrari alango frutu eta labore gozoac emon era-guin...; edo zuei lurra emoteco beré alan achurtuco daveela; edo acia usteldu ta ernetan dan leguez, alan gueure gorputzac beré lurpean usteldu ezquero biztucoc direala Yudizioc egunean? ¿Cec galarazoten deutsue edocein bearretan zagocela burura ecartea Yesucristoren yaio-tzea, edo pasiñoa ta eriotzea, edo Infernuco pena gogorrac, edo Ceruco gloria gozoac? Ceuen gogo charrac. ¿Ceinbat obago izango litzateque alangoac gogora ecarrita, orreen ganean berba eguitea, ece ez besteen bicitzai eraguiten egotea, edo barre eraguiteco achaquiagaz celebre-queriac eta zantarqueriac esaten egotea, eta arimea alan galdutea?

Yaungoicoac berac dirauscu beti beti oraciño eguiten egoteco, bein beré, utsic eta ichi-aldiric eguin bagaric. Bequian Yaunac egui-nenac eta lanac izango guenduzala; baya baqui beré orreec eragozten eztaveela oraciño eguitea. Azaz ganeti ¿cec galarazoten deutsue gos-hean oetic yaguiten zarenean edo gauean oera baño leen gauz' onen bat buruan artu ta miñari eraguin bagaric gueldi gueldi egotea? Ordu laurenchu guichienez egoteco debociñoa artu bear dozue; eta besteric ezpadaquize, edo buruac besteric emoten ezpadeutsue, esaiozue biotzagaz Yaungoicoari: asto batzuc zareela, eztaquizuela berari celan berba eguin; eztaquizuela bere contra eguiten baño besteric; berac iracatsi bear deutsuela oraciñoa euquiten, berac lagundu bear deutsuela onac izaten eta onelangoac.

4. Artu dozuezan gogo onetan irauteco laugarren eguin bear dozuen gaucea da, ardura guztizco andi bat artu bear dozue pecatu chiquiac edo benialac ez eguiteco. ¡Ay bacenquie ondo onec ceinbat

balio daven! Pecatu chiquiric ez eguiteco contuan dabilenac, orrec eztau, ez, eguingo pecatu andiric; baya ardua ori artuten eztavena, gosh edo berandu ori ezta pecatu mortal bagaric izango. Yaungoicoaren esana da gauza chiquiai bildurric artuten ezteutsana, gueldi gueldi bera andietan yausico dala. Baita barriz errazago da pecatuai, chiquiac direan artean, arpegui eguitea, ece ez guero, andi eguinda, pecatu mortalac azpian artu gaituzanean. Eztacutsue ascotan charar bateti ascotan etse galantac erretara datozala? Eta charar ori lelengoan amatau balitz etse orreec etzirean erreco. Baita orduan guztiz zan erraz charar ori amatetea; baya guero suac indarrac artu ezquero, errico guizonac eta ibai bateco urac eztira asco izaten sua amatetaco.

Alanche da bada pecatuacaz beré. ¿Nondi uste dozue asi direala lapurto-tzar andiac? Lauciri, laumarai ostuteti; sagar bat, arrautza bat, arta bichin (micher) bat, edo cabilla bat quenduteti. ¿Nondi asi zan galduten araco gaurco egunean seigarrenecoan begui bietaguiño ondatuta bici dan gazte ori? Leleng' ueran etzan izan labanqueriachu bat epelic entzutea bashen, guero gogoz eta barrez entzuten cituzan berba arinac ta celebrequeriac; gueroago berba nasai loiac beré bai; gueroago abiau zan besteai erantzuten eta berac beré besteinbeste esaten; gueroago izan evan uquiera arinchu bat, escua bear eztan toquietati erabilte bat; eta guerora guerora obrazcoan (aragizcoan) beré yausi zan. Lelengoa eguin ezquero errazagoa izaten da bigarre-na, errazagoa oraindo irugarrena eta laugarrena; eta azquenean (güenean) onenbestean itzalac bota dituz, eta galdu deutse bildurra obrazco (aragizco) orrei ece, ur otza leguez parra parra edaten dituz.

Aushe da pecatari andi guztiac eroan izan daveen bidea: pecatu mortal-tzarren oña beti izan da pecatu chiquiren bat. Birao andien oña birao chiquerra, guzur andien oña guzur chiquerra, murmuraciño andiena murmuraciño chiquerra, gurasoai lotsa charra artuteena murrushcada (burrufada) bat, gorroto andiena curruquea, eta ordi galanteena traguchu bat gueiago ezartea, eta alan besteetan. ¡Ay ceinbat ete dagoz Infernuetan pecatu benialacaiti! Ez pecatu benial utsac asco direalaco bat Infernura botateco, ezpabere pecatu benialetaric bidea artuta, pecatu mortalac beré eguitera etorri cirealaco. Yudas-egaiti dirauscue yaquitun andi ascoc lelengo asieran chitozco santu andi bat izan zala eta milagro andiac eguin cituzala⁴. Baya ara gue-

⁴ Vid. Corneli. a Lapid., citante S. Aug., Ciril. Hierosoli., S. Leon et Gregor. Nazi., in cap. I. Actuum.v. 7.

rorra cetara yo evan. Eta ¿baquizue cein izan zan bere galdu bearra-
ren sustrai guztia? Yudas-ec eucan lagunen arteco diruen contua; ata-
ric atara así zan ciri miri cerbait beré aldera atzeratuten, eta lapurre-
ta chiquiac eguiten; otzitu zan Yesucristo ta Apostoluac ganaco amo-
dioan; deungaro beré esan evan Madalenea-gaiti, eta azquenez ibili
ta ibili Yesucristo Yaungoico ta guizon eguiazcoa saldu eta bere
burua urcatu evan. Orregaiti bada bildur icaragarri bat artu bear deu-
tsezue pecatu chiquiai, eta aleguinac eguin bear dozuez orreec gala-
razoteco.

Bai, sinistu eguidazue, errietan ainbeste pecatu eguiten badira,
dala pecatu benial chiquiai bildurric artuten echaqueelaco. Confesetan
zatocenean igarten yatzue ceuen bildur-eza. ¡Eh! esan daroazue, *biraoac eguin dodaz nic, baya ene biraoac eztira izan
iñori oratuco*⁵; *murrushcada (burrufada) batzuc gurasoai eguin
deutsedaz, baya ezteutset, alan, lotsa andiric galdu; guzurrac esan
dodaz, baya jeh! ez iñoren caltecoric; iñogaiti deungaro esan izan
dot, baya jeh! ene murmuraciñoac ezteutse iñori cleituan ucutu.*
Onelangoac esan oi dozuez epel epelic ecer ezipalira leguez. Sarritan
entzuten yatzue, *¡Ah bestelaco! Origaiti eztoa iñor Infernura; ¡Ei,
eroa! Ori ur bedeincatuagaz quenduten dan gaucea dozu;* eta oneta-
rico beste asco adietan emoten daveenac ceuec pecatu chiquiai lotsa-
ric baperé artuten ezteutsazuela. Baya emendi ¿cer dator guero?
Pecatu andiai beré lotsea galdutea eta bildur bagaric eguitea. Bada
neure Cristiñauac, iraun gura badozue artu dozuen bicitza onean, bil-
dur andi bat artu bear deutsezue pecatu chiquiai eta ardura andi bate-
gaz ebili bear tzare orreec ez eguiteco. Eta alan eguin ez-ic, galdutzat
emon eguizue ceuen buruac.

Oneec lau gauzoc dira guztizco bide onac bici-modu onean irau-
teco, eta pecuric ez eguiteco, eta ondo ondo yagoten badozuec deri-
chat ece zuen buruac pecatu eguiteric gordeco dozuezala. Baya iños-
co alditan ceuen argaltasunez pecatu mortalen baten yausten bazare,
eguin bear dozue ainbat lasterren confesetara, eta ceuen arimac gar-
bitutera. Geishotuten bazare, bertati dacazue medicua edo oficialea
gueishoac indarric artu baño leen. Umechuren bat ibaira yausten
bayatzue leen-bait-leen atera gura dozue bertan ito ce dedin. Eta zuen
arimac icusiric pecatuaren gueishoaren azpian, eta infernuco oshine-
an ondatu agueinean, ¿etzare ansiatuco ta estutuco leen bashen leen

⁵ Zuriune bat agertzen da hemen, esaldiari zerbait gehitzeko, agian.

ceuen arima orrei beguiratuteco? ¡Ay! Cristiñauac: pecatu mortalean luzaro dagoanac aguri dau pecatuari bildur ascotzaric ezteutsala eta orrec laster osterá beré pecatu eguingo davela. Pecatu mortal bat ezta luzero bacarric egongo beste pecatu bateri atea idigui bagaric, bada San Gregorio Aita Santu zana diñoan leguez, penitenciaco uragaz laster garbituten eztan pecatuac bere pisuagaz dacar guizona beste bat eguitera. Oneec bioc pisu gueiágo dauqueen leguez errazago dacarde irugarrena, eta ceinbat eguinágo eta ainbat eguiten errazago.

Beste aldeti barriz, ¿baquizue ceuec, Cristiñauac, ceen beguira zagocen? ¿Noc esan deutsue nos artean bicico zareen, eta nos ilgo zareen? Ez eguizuec zuen buruac palagau (lorenyeu): leen esan deutsuet, eta barriro esan bear deutsuet ez beguiratuteco gatzetasunari, bada gazte asco ilten dira; ezta osasun onari beré, ece osasun oneco asco ta asco ilten dituez lapurrac, suac, urac, ames dongac, yanac, eta beste milla gauzac. Eta ¿alangoric yazoco balichazue? ¿Baucazue Infernura yoateco biotzic? Ori badozue, eztago munduan zuec bashen biotz gueiagocoric. Alan uste evan, eta ondo, Carlos Emperadore icen onetaco bostcarrenac. Bein baten bere Capitai-soldadua-caz egoala, itandu eutsen onei ea nor erichen mundu onetan zala biotzic gueien eucana. Batec bat esaten eutsan, besteac beste bat, baco-chac erichon moduan. Baya berac ceruco yaquituria bategaz esan eutsen guizonic asartuena eta biotz gueien eucana zala, pecatu mortalean egon eta barre ta lo gozo eguiten evana.

Azcanean barriz esan bear deutsuet Ama Virgineagaz debociño andi bat artu daizuela. Maria Santisimeari asco gura deutsanac ondo aguri dau Ceruraco dala, diño Alano-c. San Buenaventura-c diño Virgineari dagocala: ¡O Virgina gozoa! Virgina zorioneco! Galdu bearrac direan leguez ceuganic alde eguiten daveenac, alanche ecin galdu leitequez, ceugana datoanac, eta ceuec erruquiz beguiratuta mantupean artuten dozuanac. Baya, ez eguizuec uste or cirri-morro abemaria zarraparra batzuc esanda, edo beste alangoren batzuc eguinda guztia eguinic daucazuela Ama Virginearen devoto izateco. Ez, errezuacaz batera bicitza ona beré bear da, eta Yaungoicoac aguinduten daven moducoa: onec lagunduten ezteutsala ganeco guztia guichi balioco dau. Ama Virgineari oraciño batzuc esan, eta beste aldeti bere Semea pecatuacaz il, derichazue ondo erechico deutsala Virgineac orreri? Ez beintzat, Ama Virgina Maria ezta adisquide azal-ganeti-coen zale. Orregaiti bada bicitza ona aurreti, eta guero Ama Virgineaganaco biotz beroa, orishe da benetaco debociñoa izatea.

(Au ondo eguiteco ondo litzateque agaz batera artuco baceuntse San Yosepe-ri beré debociño andia. Santu au izan zan mundu onetan Maria Santisimearen lagun maitea, Yaungoicoaren Semearen Aita ordecoa, eta iruroc ceruan beré arcal ondo artuten dave. Eta alan San Yosepe-c ecetan escua sartuten badau, gauza orrec ondo urten bearco dau. Eta santu andi oneri gauza ascotaraco escua emon deutso Yaungoicoac yaquitun ascoc dirauscueneti. Emon deutso escua yadiesteco ta alcantzetaco berari dei-eguiten deutsenentzat gracia gorputzean ta ariman seigarrenecoetaric garbi izateco. 2° Pecatuetaric urteteco. 3° Ama Virgineagaz debociñoa izateco. 4° Eriotza on bat eguiteco. 5° Osasun galdua atzera artuteco. 6° Seme-alabac izatea alcantzetaco. 8° Eta Démoniño gaistoac beré guztizco bildur andi bat deutse bere icenari. Orregaiti da guztiz ederra Santu andi onen debociñoa, eta gauza orretaraco artu ciñaique egunean egunean zazpi aita-gurea ta ave-maria esatea.)

3. ESCONDUEN EGUIN BEARREN GANECO ICAS-BIDEA

Honorabile connubium in omnibus, et torus immaculatus.
Hebreor. 13.v.4.

(B, 63-70. or.)

1. Andia da Matrimoniñoco Sacramentua, diño S.Paulo Apostoluac, eta ezcontzaco bici-modua alde guztietatic ondragarria, ta guztiz garbia. Izan-beré, nai emetic beguiratu, nai bestetic, edoecin bere aldetic aguertuco yacu enteroco veneragarri ta errespeto andicoa. Bere eguillea ezta besteric Jaungoicoa bera bashen; bera barriztu ebana J.C^o., bera eguin zan demporea, mundua beste zarra, ta beragaz bateracoa da. Barriz berac emon dituzan frutuai beguiratu gura badeutsagu, ah, ce santu escondu pillo icusico dogun! ¿Noc ucentau leiz, Adan-etic ona asita, gaurco egunera (artean) Elesha Ama santeac izan dituzan ezconduen arteco Santu-Santaac? Asco izango da Ama Virginea eta San Josepe glorioso euren artean datozala (esatea). Da bada ezconzea Sacramentu santu bat J.C^o. gueure Jaunac eguin ebana ezconduai gracia emoiteco, ceinegaz baquean bici ditezan, eta umeac ceruraco aci dagueizan. Yru gauza eguiten dituz Ezcontzaco Sacramentuac: Bata da guizonari gracia emoitea emazteagaz baquean, ta ondo bici iraiteco, eta bardin andreari senarrazagaz ondo biciteco, eta bitzui alcar maite ira'iteco, J.C^o.c Eleshea, eta Jaungoicoac arimea maite dabeena leguez (santea). Bigarren gauea Matrimoniñoco Sacramentuac eguiten dabena da gracia emoitea umeac aciteco Jaungoicoaren bildur santuan. Yrugarrena da imintea senar-emazteen artean ain moduco batzacuntza, ta laquoio (locarri) edo moropil ain estu emona ce, ecin deseguin edo arcatulei eriotzeagaz ez izanic; celan ecin arcatu leian J.C^o.ren eta Elesha santearen arteco batzacuntzea.

2. Yzanic ain andia Sacramentu Santu au, bera artuteco eroan bear dira prestaera onac. Guztien aurrengo ezconduteco berbea emonic dagozanac ecin bici leitequez etse baten; baita ez au bacarric, ce

ezta arcal icusi beré eguin bear eztira bacarrean¹. Onen ganean gurasoac dauque obligaciño estua baño beré estuagoa, ebateco eta quentzeaco (umeai) edocein beré tratu edo adisquidetasun euren ezcongueiegaz artu ta euqui leiena, bein ezcontzaco berbea emon ezqueroan. Guztiz ardura andia encarguetan deutset onetan, ce chiquitan yazoco da novio ta novia ezcongueien arteco tratua, pecatu mortal ascoren pelleburu ba'coa: orregaitic (gauzaric) onen onenan da, bein ezcontzaco berbea emonic, aibat lasterren, aldayela, ezcondu eraguitea. Ezcondu aurreco demporan ondo litzateque ezcondugueiac emongo balira oraindo besteetan baño gueiago Jaungoicoaren gauceetara, eta escatutera bere serbicioco ezcontza on on bat eguitemo arguia ta escua. Onetaric ameneco etorri lequiquie euren betico salbacinoa; orregaitic gauza ain pisu andicoan ondo da (eta alan encarguetan deusuet guztiai) aurrebideagaz demporea arturic, prestau ta disponidu deitecela confesiño santuagaz, onetaraco ezconduco direan aurreco egunai ichadon bagaric, eta oibat [sic guichiago egun berari edo bospereari; bada orduan gueiengan izan doa azaleric eguino confesiño otz-epel bat. Conveni da beré ba confesoreari esatea estadua artuteco dauquen gogoa, bada, yaquintsua izanic, berac esango deutse cer eguin bear dabeen, eta aurrerancheco euren ganean artzean dituezan eguin-bear ta obligaciñoac. Baya cetan bear daben ardurea euqui beré ezconduco direanac da Matrimoniño Sacramentu au intencino eta gogo onagaz artutean: au gogo au izango da artutea bicimodu bat, non errezago izango yaquen Jaungoicoa serbidu ta euren arimaac salvetea: celangoa dan ascoentzat escontzea; baita ushela oneri beguiraturic guraso ascoc aibat lasterren edade nagusiagoaren beguira egon bagaric acomoduco balituez euren umeac. ¡Oh, eta ceibat pecatu galarazoco leusquioezan! Esan dodanen ganera Ezcontzaco Sacramentua artuteco motibu yaquinena ta nagusiena da umeac euquitea; ez euretan ondasunen, eta ondra edo tituluen oñordecoac ichiteco gogo utsagaz, ezpabere sortutecoagaz J.C^o.ri eta Elesha santeari seme barriac, au da aziteco aurrecoac edo umeac, ceñecaz gueiagotu daitezcan mundu onetan eguiazco Fedearen gordetzailleac, eta güero alabadua izan din ceruan Jaunaren icen santua. Aushe izan zan Tobias santuaren ezcondu zaneco motibua, eta alan cirautsan Jaungoicoari: Jauna, zuc daquizu celan e-

¹ Esaldi honetan autoreak zenbakiak jarri zituen hitzen ganean, ordena aldatzeko edo. Beraz, honen arabera, honela izango litzateke: [ce ezta arcal bacarrean icusi beré eguin bear eztira].

naben ecarri Sara emaztetzat artutera (ecarri ebana) araguiari gustu emoiteco gogoac, eta bai bacarric aurreco batzuc euqui gureac, ceintzuetan ceure izen santua ezagutua, ta bedeincatua izan din beti betico². Baita beroneshegaitic eguin eban Jaungoicoac munduaren asiqueraric Ezcontzea. Emetic aguiari da celango icaragarrizco pecatua eguiten dauden galaazoten dabeenac umeac euquitea onetaraco erremedioac arturic, edo beste modutan.

3. Beste motibu bat Ezcontzaco Sacramentua artuteco da, Adan guztioen gurasoaren pecatuari yarraitu deutsana³. Jaungoicoac eguin eban lelengo guizona bere antzera ta irudira, eta borondate artezagaz, eta ez eban asmetan beragan geuc daucagun pecaturaco zaletasun ta quilia: baya pecatu eguin-da bertatic sensunen alderaco gogo ta inclinaciñoac asi yacazan yaiquiten, eta errazoiaren contra eguiten geuc guere caltean guegan barruntetan ta igarten doguna leguez. Alan bada, ezaguturic bere argaltasuna, eztabenac sufridu ta eroan gura ain guerra andia, artu leique Ezcontza santuco erremedioa. Oneec dira motibu edo errazoiac, ceintzuetaric artu lei, eta artu bear dau bat, edo bai guztiac, Matrimonio santua artu gura dabeenac Jaungoicoaren borondatea eguiteco, celan eguin bear dabeen santuen ta cristiñaiñen umeac direanac. Baya, o gauza negargarria! ¿Ceimbat eltzean ete dira Sacramentu au artzean abere mutu, edo animalia itsu eta loiac legue-che, euren gurari edo deseo citel ta araguiaren gustu lotsagarritz asetarren! Oneec güero beré euquico dabeen suertea, laster da esan. Onelangoen ganean Demonioño gogorrac artu daroa escuescunea ta poderioa. ¿Icaratuten zaituez entzunac? Eztiñot, bada, nic: S. Rafael Arcangelu gloriosoac esan eutsan Tobias-eri berba oneshecaz. Araco zaldi edo mando sensun-bacoac legue-che ezconduten direanac, euren gurari edo deseo ciquinetan ibilterren, emoiten deutse Demonioñari euren ganeco escuescunea⁴. Onelangoacaz gura daben guztia eguin daroa Demonioño gaizquiñac. Au berau adietan emo' iten deuscu Tobias santuaren historia edo bicitzeac. Zazpi guizon gazte ezcondu cirean Sara erichon Bagüelen alabeagaz, eta ezconduten cirean gau berean, banaan banaan ilten cituzan bacocho Demonioñac. Cegaitic, güero? Gogo loiac araguiaren gustu gureac eroan cituzalaco (ezcontzara) esconduten. Ederra zan, eta edertasun (oneri) beguiratu eutsen bacarric, ez euqueen beneric gogoan araguiaren gustu

² Tob. C.8.v.9

³ Vide, Augustinum, libr. 14 de Civit, cap.15, 16, 17.

⁴ Tob. C.6, v, 17

citela bashen, eta orregaitishe il cituzan ezcunduta [sic] gau atan berean Asmodeo derichon Demoniño-tzarrac. Alan S. Rafael Arcangelu gloriosoac quenduteco Tobias-eri, agaz nescatillegaz zortzigarren ezconduteco eucan beldur latsa, emon eutsen consellu aushe, beste batzuen artean. Artuco dozu ceuc nescatilla au zure emaztetzat Jaungoicoaren bildurragaz, ez gustu citela-gaitic, ezpabere semeac euquitearren, alcanzadu daizun euretan Abraham-en (-eri aguindurico) bedeincaciñoa. Alainche eguin eban Tobiasec, eta alan ez bacarric ez-uitsan gachic eguin Demoniñoac, baita beré mercedu (izan) eban igaro'itea zorion andico bicitza luce bat ezcontza atan⁵.

4. Jaungoicoac, bada, ezconduteco deia bein emon deutsun ezquero, eldu zaitez Jaunac aguinduten daben gogo tan intenciñoagaz: ondasunac eta araguiaren gurariac baño leenago billatu bear dozu Jaungoicoaren legue santua gorde eraguingo deutsun bicimodua. Eguia da, esan dodazan errazoe edo motibuac gaitic ezconduten danac, gura izan leiquela bide batez beste araco doiac beré, ceintzuec az inclinetan eta zaletuten dituez guizonac euren laguna izango dana artu edo escogietaco; celangoac direan ordecoa edo herederua ichigurea, ondasunac, edertasuna, familiaren edo odolaren garbitasuna, ecanduetan alcarren antzecoac izaitea: oneec eta olango errazoiac ecin esan leiz deungueac direala, ce eztira ecetan Matrimoniñoico santidadea eragotziten dabeenac. Baya cein euretan erracuntzaric ez itsumenduric egon daitean, gurasoi yatorque guztizco ardura andi bat euquitea. Beti beti Escritura Santan aguietan yaque au ardura au gurasoi, eta alan diño Jaungoicoac berac: Yaquituriaco Liburua derichon liburuan: “emon eiquiozu zure alabea guizon zuurrari, eta eguin dozu beratan gauza andi bat”⁶. Beronegaitic, eta ezcontzac eguin ditezan Jaungoicoaren borondateagaz batera, yaquin bear dozue celan Carlos irugarrenac (Erregue) bere cedula edo ordena errcalagaz aguindu eban ez bacarric e-leiela emon ezcontzaco barbaric ogueta bost urte eztauqueen seme-alabaac euren gurasoen baiezcoa'bagaric, baita beré alagoric eguin ta, aitaren bayezcoa euqui bagaric ezconduteracoan emoitzen deutse gurasoi escuescunea alango atenciño baco umeai quenduteco yatorqueen herencia. Bere seme Carlos laugarrenac cerchubait laburtu eban edadea alabeen alderaco, baita andra alargunen semeen alderaco beré. Baya dana dala beti eguiten

⁵ ibid. Infr.

⁶ Eccli. C.7, v, 27

dabe pecatu mortala gurasoen bayezcoa euqui bagaric nai ezcondutean, nai ezcontzaco berba emotean.

5. Bein oneec esan ezquero Ezcontzaraco prestaeren ganean, orain esan bear deuntsuet Trentoco Concilio Santuac Cristiñau guztiai dirautsena⁷. Yaquin eguizue ezcondutorduan eztozuela artzean guizonac iminirico gauzaren bat; oneric errez yaquingo dozue Jaungoicoaren gracian eldu bear dala Matrimoniño santua artuten, eta pecatu mortalean dagoala ezconcetana danac, ezconduric gueratuten bada beré, guztizco icaragarrizco pecatu mortal bat eguiten dau, eta Sacramentuari modu onetan artutean eguiten yacan injuriaren castiguan errazoe andiagaz bildur izan bear dau cein bere ezcontzea atsacabez betea, eta zorigaistocoa izan din. Garbi eguizuez, bada ceüen (concienciac) arimaac leenagoric confesiño santuan, leen esan deuntsuedan moduan, eta alan uste cinaie, Escontzaco sacramentu onec ez bacarraic gueiagotuco deuntsuela gracia, ganeco sacramentuac legue-che, baita beré emongo deutzuela gracia ta berezco escu ta laguntasuna arinduteco ezconduen bici-moduac daucazan cereguin ta nequeac, eta betetaco, eta ondo ondo eguiteco zuen ganean artuten dozuezan eguin-bearrac, ta obligaciñoac.

6. Onen ganean esan bear deuntsuet ce, dana leguez Ezcontzaco Sacramentua senar emazteen arteco tornu guztiz estu emona, alanche direala beré estuac ta andiac euren ganean iminten dituzan eguin-bearrac. Baita guztien aurrengo alcar maitetu bear dira, ce osteranchean ecin eroan leique bear dan leguez ain carga pisutsua ta uztarri gogorra. Adietan emo'iteco S. Paulo Apostoluac celan maite izango daven Senarrac bere emazte, diño ce izan bear dabela J.C^o.c bere Elesha santea legue-che⁸, baita oraindiocoarren biño, guri urragotic yagocun beste gauza bat beré, eta au da: ondo gura bear deuntsela, norberac bere gorputzari legue-che. Eta eztago cegaitic miratu; bada, munduco lelengo andrea Eva, gu guztioen ama eguin zan Adan lelengo senarragoric eta bere biotze ondoco sayetz bateric, yaquin dayen senar guztia biotz biotzetico gura izan bear deusseela euren andreari. Emetic, barriz, aguiri da senarrac mandamentu onegaitic amadu, ta lotsea gorde bear deuntsala emazteari ez bacarric bere biotz barruan, baita bere ganeco eguicunetan, eta obeidu beré bear deutso Ezcontzeac guizona emaztearen zordun eguiten daben gauceetan. Alan pecatu eguingo dau sentimentu andico errazoeric esaten badeu-

⁷ Concil. Trident. Session 24, can, 1.

⁸ Ephes. C.5, v, 25 et 28

tso, golpe andiric emoten badeutso: baya geniño gaistocoa bada, soberbia ta suster, ta izpi charrecoa, gangarra beeratuteco ondo litzateque nosic beinchuan azurric ausico ezteutsan ciorchu bategaz lepoa neurtuco baleutso eta astinduco baleu. ¿Ce'gaitic uste dozue eguin daudeela gura daudeena andra ascoc, ezpada eztauqueelaco ecetaco animu edo biotzic euren guizonac? Alango aztin-aldichu modu oneco batec emongo deutso bicitzea: baya esan bear deutsuet senar guztiai eztaielá alangoric eguin Confesoreagaz consellau bagaric eta esperantza andia ez dagoanean ondo urtengo dabela bide onec. Azaz ganetic eguiten dau pecatu emazteagaz batera bici gura ezpadau, edo beraganic apartetan bada errazoe on bagaric; ezpadau emon'gura emaztearen eta familiaren decenciaraco bear dana; eta are gueiágo pecatu eguingo dau emoiten badau celoac artuteco motiburic (oñic) edo sospechaco ta icen deungaro echeren baten sarri sartuagaz, edo beste nescatilla edo andraren bategaz sarri trataduagaz: au da, gaucea errazoe onean beguiraturic uste leiquenean eztala Jaungoicoac agui-netan daben moduco tratua; baya encarguetan deutset biotz guztitic gauza onen ganean ezcondu guztia ce, euquiric errazoe guztiz andiac, eta euren beguiacaz eguneco arguia legue-che icusi-ezic, eztaioela lecuric emon onango icaragarrizco pasiñoari; bada guztiz dira asco ezconduen artecoac lehenago Aingueru batzuc leguez baque onean bici cireanac; guero barriz, zeloac direala medio, Diabruac infernu bici bician imini dituz, eta da pecatu esquerguea errazoa edo motibu arinac gaitic lagunaren pecatua sinistutea. Azquenengo, pecatu eguiten dabe euren etseco bicimodua eta escu-artecoa galduteco pelleburuan iminten dabeenac, yocoetara, burubaco fientzatará, ta onango tratu deungueetara emonagaitic.

7. Esan ezquero oneec senarren eguin-bearroc, igaroco gara emazteac eguin bear dituezanetara. Euracgaitic diño S. Paulo Apc. celan Elesha santea dagoan J.C^o.ren aguindepean, alanche andraac beré egon bear dabe senarraren esanetara edocein beré gauzatan⁹. Au da, eguin bear dituez senarren esanac, ez eurac gura dituezan gauce'tan, ez nos eurac gura, ezpabere beti, eta gauza guztietan, ez izanic Jaungoicoaren leguearen contraoac (contraoetan). Yaquin beguie, bada, Señora andra guztia ce, senarra dabeela buru, ta etseco nagusi, Jaungoicoac berac Eva lenengo andreari esan eutsana leguez, eta eurái beré bai ezconduatorduan Abade-Maisuac Jaungoicoaren

⁹ Ibid. V. 24

berbacaz¹⁰. Alan pecatu eguiten dau andreac eztagoanean senarraren aguidura echeco governuco gauceetan, eta senarrari yaramonic eguin bagaric, berac aguidu gura badau echean. Echeco aguintearicheagaz edo gobernuagaz yagui gura daben andrea, beraushe gaitic doa senarraren contra, Espiritu Santuac diñoandi; eta emazteac aguiduten deutsan guizona, beragaitic lotsatuco dabe arririoac, ta burlatzar egongo yacaz, diño Espiritu Santuac berac¹¹. Pecatu eguiten dau andreac, senarrac aguiduten badeutso urlriagaz edo urleciagaz ez tratetaco, edo urlia etsetan ez sartzaiteco, eta eguiten ezpadau senarrac onetaraco errozoe justua euquiric, eta ezpadauco beré, pecatu eguingo dau badaqui, edo badericho ez eguinagaz etseco baquea galduco dala. Pecatu eguiten dau beré senarraren borondatearen contra cenbaisteco importanciaco gauzaric gastetan badau. Eguia da, bere estaduco Andrai yatorqueena gastetaco senarrac baiezcoa edo licencia aguirian, eta ao betean emon ez-arren, uste leiqueala aushe dala bere borondatea, eta beste aldetic senarrac etseraco bear dan decenciaraco ezpadau emon gura, ishilic artu leiala ataraco emazteac, baya cein norberen burua iñoc engañau daguiian, andra-gauceari sarri ascotan yazo daroaquena leguez, guztiz beré yaciteco gauceetan, eztabe eguin bear aric-eta Confesore yaquintsu bategaz consellu artean.

8. Azcanean barriz, etse baten bear dana da arcal sufrietea, ta pacienciatan ta baquean eroatea: bada bacoachac gura izaitea norberen gogora guztia etorri daquion, da ecin dan gaucea escatutea. Jauna esango dau batec: Gogaitarazoten deuste eta ernegarazoten, eztaudelaco nire esanic eguin gura. Bada yaquin eguizu ezabela iños abisuac eta aguiraqueac guichiago eguiten, colereagaz eta paciencia falteagaz eguiten danean baño, eta alan aguiraca eguin edo castigadu bear dozunean ichadon eiquezu aserrea, ta sua yoan asteguiño; soseduric arimea eta epetasun onean zagozala obato urtengo dau edo cein beré avisuc, eta obeto eguingo dituez esanac. Azez ostian beré cerbaist sufridu bear deutzazue emazteai, ce S. Pedro diñoanez, zuec baño argalagoac dira ta ez aimbesteracoac; baita gizagaishoac miña dau yausten, edo uts eguiten errazagoa¹². Guztia eguingo dau amodio caridadezcoa, cein equi bear deuten arcaleri senar-emazteac. Amodio caridadezcoa diñot: baya contu cein amodioa eldu daitean

¹⁰ Genes. C.3, v, 16

¹¹ Eccli c. 25, v, 30 et 35

¹² Petr. 1^a c. 3 v, 7

aimbestera ce, berari guztu emoitearren ichi daizuen Jaungoicoaren legue santua. Contu, diñot ostera beré, cein amodio loi batec eguin daian pecatu izan deilla oetaran senar-emazteari galarazoric eztagoan gaucean. ¿Oh, eta ceimbat senar-emazte eroan dituz infernura uste izaiteac ardura bagaric edocein gauza euren artean eguin leiqueela! Neure ordeco Fr. Gil santuaren aurrean alabetan eban bere burua guizon ezcondu batec, esanic bera zala casto eta garbia, ez eutsalaco bere emazteari galdu Matrimoninoan eutsan fielta. Esan eutsan orduan S. Gilec: Eta ¿eztaquizu etsean norberac daucan ardaoagaz, berea izanarren beré, orditu leitequeala? ¿Oh, eta ceimbat esan eutsan berba (guichi) labur oneecaz! ¿Oh ce ondo izango litzateque ulertuco baleude au ezcondu guztiac! Yaquin neguie, bada, gorde bear dabeela euren estaduari ta ezcontzaco bici-moduari yatorcan castidadea. Baya ¿cer diñot, ezconduai castidadea? Bai celam-beré cristiñaiiac. Gagocazan conturaco dagoz castidade bi. Bata da ezconduac eztireanac gorde bear dabeena, baita onec eragozten dau seigarrren mandamentuac legue-che, edocein beré araguiaren gustu nai dala pensamentuz, nai gogoz, nai berbaz, nai eguinez. Beste castidadea bat dago eztabena orrembeste eragozten, eta au da ezconduac euren artean gorde bear dabeena. Castidade onec ezteutse galarazoten ezconduai umeac euquiteco eguin bear dana; baya bai osterancheco gauza guztiac, eta eguiten badabe gustu artu, ta seña galaazoteco moduco gauzaric, eguingo dabe pecatu mortal icaragarrizco esquerguecoa eta oraindocoarren ezcon-bacoac eguingo leuquean baño esquergueagoa; edo obeto esateco, ezcondubacoac pecatu mortal bi eguin baleuquez, ezconduac eguingo dituez lau icaragarrizcoac. Barriz, eguiten dabeen osterancheco gauzea, ezpada seiña euquitea eragotzi leiquena, izango da pecatu mortal guztiz loi loi, eta ezain ezaina danean; ganecoan, barriz, beniala; baya benialen artean andia.

9. S. Francisco Sales-co gloriosoac diño ce, eguia andi bat dala, Sta. Catarina Sena-coac icusi cituzala arima asco tormentu esquerquen artean, Ezcontzaco santidadea loitu ta cacaztu ebealaco, alcarren artean eguin cituezanacaz: eta au yazo da, santeac diñoandi, eztauqueelaco pecatu oneen arduraric, bera eguiten daudeenean, eta alan dagoz luzaro beratan Italiaco erri baten aguertu yacan, il ezquero, ama bat bere alabeari. Campotic emoiten eban exemplu ona bici zan artean ama onec; baya orregaitic esan eutsan alabeari: Condenauta nago zure aitagaz naste eguin nituzan pecatu mortal batzuc-gaitic, ceintzuez enituzan lotsea gaitic eguño beré confesau.

Izan deila, bada, ezconduen arteco amodioa amodio garbi bat, J.C°.c
Elesha santeari deutsena langoa; amodio casto bat, ceinegaz estutu-
ric arima bi, bici guztia umeac ceruraco azten emoten daudeela,
alcanzauc dabe eurecaz batera bertaco betico gloria. Esan dodanez
ganera ondo da ezcondu guztiac gorde daien garbitasuna yai-egun
andietan eta barau egunetan, ce alanche conselletan dabe Doctore
Santuac, eta Eleshaco erreguela edo legueac: baita beré comuniño
santua artuco dabenez iru egunez lehenago, encarguetan dabena
leguez Erromaco Doctrina liburuac; ez pecatu mortalen beian, baya
bai Sacramentu altaracoa erreverencia (andiagogaz) gueiagogaz artu-
teco.

FRAY MATEO DE ZABALA

4. SAN MATIASEN EGUNERACO SERMOIA

Ezcontzaco Sacramentu Santura eldu bear dan gogo eta prestaereen ganeco Sermoea

(B, 191-196. or.)

1. Eztau guizonac ecetan beré¹, bici-modua, edo estadua autu, ta escogietean baño beguiratu bear, bada onetanche doa bere betico cerua edo infernua. Acertetan badau convenidu yacona, mundu onetan bicico da baque andi bategaz biotzeco poz andiagaz; euquico dau arimaco atseguina, batuco dituz birtute eta graciaren ondasunac, eta elduco da azquenez beste munduan ceruco erreinua artutera. Barriz uts eguiten badau, euquico dau mundu onetan naibaguea, atsecabea penea, eta bestean beti betico infernu bat. Ceimbat ete dagoz orain infernuetan Sacerdote edo Mezaco izan cirealaco, ceintzuc egongo cirean ceruetan escondu balira? ¿Ceimbat escondu condenadu ete dira salbaduco cireanac Abade eguin balira? Ceimbat Fraile, ceimbat Monja erretan ete dagoz beti betico, egongo cireanac Jaungoicoaren arpeguia icusten munduan gueratu balira? Ceimbat anra esconduarren galdu dira betico eurentzat etzan guizonagaz eguin cirealaco? Ceimbat senar dagoz gaurco egunean infernuco garren artean, ceintzuc beste emazte bat artu baleudee izango cirean zorioneco? Orregaitic bada estadua artutean uts eguiten bada guztia uts eguiten da, eta doa galduric. Bada ce erremedio acertetaco? Cer eguin bearco da uts ez eguiteco? Yarrantu Apostoluac emoitien deuscuen icasbide edo doctrinea S. Matias-en auquera edo eleccinoan, dirauscu S. Juan Crisostomo-c. J.C^o.c cerura igon ezquero, esan eutsen S. Pedro-c autu edo escogidu bear zala norbaist Apostolutzat, bete cedin Judas madaricatuac utsic ichi evan lecua. Baya etzirean azartu iñori estadu onetaraco dei eguiten, diño S. Juan Crisostomoc berac: equien Jau-naren escuetan dagozana guizonen suerteac ta goraberac, eta orre-

¹ Esaldi hau, dagoen moduan, nahiko ulergaitza da. Honela ulerterrazagoa litzateke, alegia: [Eztau guizonac ecetan beré beguiratu bear, bicimodua edo estadua autu ta escogietean baño, bada onetanche...]

gaitic billatu even bere borondatea. Imini cirean oraciño eguiten, eta erregutu eutsen modu onetan, diño S. Lucas-ec: Zuc, Jauna, daucazuz bacarric guztien biotzac; adietan emon eguizu bada nor autu edo escogietan dozun oneetatic zure Apostolutzat. Escabide humiltasunez beteric onegaz ecarri even, Jauna adierazotera nor gura evan Apostolutzat, eta ezagutu even S. Matias zala suertetsua. Aushe berau eguin bear dave gurasoac euren seme-alabacaz. Escatu Jaunari eroan daguizala euren seme-alabaac bere Magestadearen borondateco bidetic. Barriz ¿cer yazoten da? Gueienetan gurasoac errepartietan dituez estaduac semeen artean ogui zati bat eguiten dana leguez. Etseari datorquio capellania bat, eta urlia seme aregaz Abade eguingo dogu; nagusiac eroango dau etsaguncea, edo haciendea, eta ar'or onec ondo acomodauric; besteari oficio aushe emongo deutzagu, eta guztiac ondo gueratuco dira. Au pensadu ezquero Abade izango dana ifinten da gramatiquea icasten. Ez yaco bada oneri itanduco, Mezaco izan gura daven ala ez, ezta beguiratuco vocaciñoric daucan-ez, Jaungoicoac dei-eguiten deutzanez. Capellania dago? bada izan bedi Abade. Beste oneri emongo deutzagu haciendea eta ezconduco da yaquiteco aleguinic eguin bagaric, bici-modu edo estadu au ondo bayaco ala ez. Eta ¿celango gachac datorquioz munduari onetatic? Eztot ni[c] cer esanic; yaquineguiac dira munduan deungaro arturico estaduric erne ta yaio direan escandaluac, eta cer-esateac.

2. Orregaitic bada pecatu mortala eguingo dave gurasoac semeai artu erazoten badeutse eurac gura eztaveela estadia. Contu daigun; ecin Abade eguin leie semea berac gura eztavela; eta ezta escondu beré, bere borondate bagaric; bada eguia izan arren semeac gurasoen aguindura egon bear daveela, estaduaren ganean borondate osoa ta librea dauque, eurentzat oneena derichoena (al izan ezquero) artute-co, eta alan ecin estutu leiz ordenduteco, edo esconduteco. Ai, Aita, esango davee, bear bada, seme aushe ordenduco balitz ondo guñatequez betico, ce etse guztia ondo gueratuco litzateque. Eta esan eguidazu: ¿gura dozu infenuetara bota ceure erraietaco semea, eta ceuc beré yarraitu berari? Bada aushe da araco bideric artecena. Cegaiti ce Jaungoicoaren borondatea billatuten eztanean edo semeen estadian munduco ondasunac edo convenienciatic ta ondo-egoteac baño beguiratuten eztireanean bildur izan ciñaitequez eztireala sartuten Jaunac gura daven bidetic, eta bide au uts eguin ezquero lenengoan, ecin guero atsera biurto leiteque, edo gura ta gur'ez ibili bear da bide oquerretic, edo Jaunac señaladu eztabenetic. Eguia da, Jaungoicoac

uts au emendatu ta zucendu leiqueana, baya Jaun onec beronec dirauscuna da, zori-galducoac direala berari itandu bagaric, itundu edo conselletan direanac euren gustua; bada oneec ezarrico dituez pecatuac pecatuen ganean, diño Isaias-ec. Eta ¿uste dozu mundu onetan beré aurreratuco dala zure ondasun, zure etse edo familia? Sarri icusten dana da galduric gueratutea eguiten direan gastuacaz edo gazteric ilten direalaco, edo deungaac urtenic dauqueen errentea bashen gueiago bear daveelaco, edo dauqueena besteri emoiten deutselaco gueratuten direala gastuacaz, eta probechu bagaric. Aushe da Jaungoicoac Ageo Ygarla edo Profetearen aotic cematuric daucan castigua. Diño bada: asco erein dozue, baya guichi artuco dozue, cé modu orretan batu gura izaita da boltsa urratuan edo zulodunean diruac botetea. Ondasun andien yaube eguingo cineala uste cenduan; barriz guichitu yatzuz. Batzaindu dozuz, baya neuc guztiac galduco deusudaz. Baita ¿cegaitic erichazu au yazo yatzula? itanduten dau Jaungoicoac berac. Bada berac erantzuten dau: Nire echearen, cein dan Elesha santea, arduraric eztaucazulaco, eta bacoachac bere echea aci gura davelaco, nire echearen, cein dan Eleshea, yaramonic eguin bagaric.

3. Baya enas onetan gueiago luzatu gura, eta izanic gueienac Ezcontzaco estadu santua artuten daveenac, oneshen ganean berba eguingo dot arraztegui onetan. Barriz enas gueratuco aituten emoten ondo yagotzuen ala ez, ezpabere autortu edo concedidu gura deusuet, estadu onetara deituten deusuela Jaungoicoac, eta ezcondutea ondo yatzuela salbetaco; orregaitic beré ezta au asco seguru egoteco, eta alan beguiratu bear dozue, nogaz ezconduten zareen, celango prestacuntza ta disposiciñoagaz elduten zareen sacramentu santu au artutera, eta celango intencinoa, ta gogoa daroazuen. Aushe izango da gaur predicaduco deusuedana. Gauza guztiz bearra ain gurasontzat, cein ezconduco direanentzat, ce bear bada onetan doa guztien salbaciñoa. Virginia ederra, Jaungoico guztiz altsuaren Ama garbia, emon eguidazu bear dan indarra ta espiritua adierazoteco neure enzulai celan eldu bear direan zure semeac Elesha santan ifini evan sacramentu onetara. Garbitu eguidazuz neure ezpanac urten eztaguidan neure aotic bear eztan barbaric, eta enzun eztaguidan escandalizadu al neiquean gauzaric. Eguizu nire errazoe guztiac izan ditezan arimeen oneraco. Seguru gagoz Ceruco Erreguiña, alan izango dana, zu gure bitarteco izaiten bazara; escatuten deusugu, dirautsugula Aingueruagaz batera: Ave Maria.

4. Yaquin beguie Matrimoniño edo Ezcontzaa santua artutera doazan Cristiñaiac, diño Trento-co batzar edo Concilioaren icasbide edo Catecismoac, yaquin beguie ce eztaveela artzen guizonac ifinirico gauzaren bat, ezpada Jaungoicoa dala [sic] eta J.C^o.c bere Eleshan ichirico sacramentu santu bat. S. Paulo Apc. deieguiten deutso ezcontzeari Sacramentu andia, misterio beneragarria, eta alan eroan bear dave intenciño arteza eta gogo garbia. Yaquin guraco dozue ce gogo eroan bear dan Ezcontzara? Bada izan bear da semeac euquiteco, Elesha santea aci dedin mundu onetan, eta güero, onecaz bete dedin cerua. Aushe zan Aingueru S. Rafael-ec Tobias-eri esan eutsana: Artuco dozu emaztetzat Sara Raguel-en alabea, barriz eztozu gustu citelen guraariz Ezcontza au eguingo, ezpabere semeac euquiteco alcanzadu daguizun ceure semeetan Abraham-en bedecincaciñoa. Aushe berau diño Eleshaco Yaquintsu eta Guraso edo Aita Santuac. Barriz itandu deiegun ezconduten direanai, ce gogo daroien Sacramentu onetara. Eta gueienac eztave yaquingo cer eranzun, eta badauque [sic] beré gueienac artuco dave Sacramentu au edo ezcongueia aberatsa dalaco, edo abere edo animalia sensunbagueac leguez euren gurari citalac asetaco. Oneshec bioc izan doaz ezcontzatic gueienetan, guztietan ez esatearren, beguiratuten direan gauzaac, eta euquiten direan gogoac; eta bioetatic yaioten dira aimbat gach, aimbat escandalu ta cer-esan ce, eztago ponderau leiqueanic, diño S. Juan Crisostomo-c. Batzuc ezconetan dira ezcongueia aberatza dalaco eta onetan sarri gurasoac pecatu eguin daroe. Yaquin ezquero ezcongueia aberatsa dana ezta itanduten ez beguiratuten celangoa dan, ce bici-modu daucan; ezta yaquin gura ce cristiñau dan, ez ecan-du deungaric badauco. Ezta beguiratuten ce bicitza(n) eguingo daven besteagaz, ez ona dan, beragaz Jaungoicoaren leguea gordetaco, eta baquean bici izaiteco. ¿Dote ona dauco, aberatsa da, diru guichigaz acomodaucodogu alabea? Asco da, ezta gueiango bear.

5. Eta ceinbat pecatu eguiten dira Novio edo Novia izatera eldu orduco? Ara Cristiñaiac, lotsa izango nintzateque onen ganean prediquetan, lecu santu onetan egunean egunean yazo oi danac eracutisico ezpaleu ce eguia dan. Orregaitic guztiz da bearra onen ganean berba eguitea, bada derichat ce, Cristiñau guztiz asco daroazala Demoniñoac augaitic, eta alan esango dot cer yazoten dan al dodan garbitasun guztiagaz. Icusten dau nescatillaren batec, mutilen batec ondo beguiratuten deusana, eta ameneco ameneco beguiz yoten dau. Daqui berari eztatorquiona bera baño aberatsago dalaco, edo bere

gurasoac guraco eztavelaco. ¿Celango asmuac artuten dituz bada bere guraariagaz urteiteco? Artuten dau beragaz adisquidetasuna, eta bein artu ezquero beti dabil beguira nondic nora beragaz egongo dan. Conbidetan dau merienden batera, ostuten davela onetaraco aldaiana etsean. Erromeriaric bada, arashe doa anche beragaz egotearren; eta obeto erechi deion apainduten da aldaien ondoen; ainche alcarregaz yan da edaten dave, eta dagoz berba-aldi luceetan. Baita ¿nosh datoz echera? Gaüez, edo bai guichienez iluntzean libreago ibiltarren. Eguneric egunera su andiagoo artuten dau euren amodio loiac; eguneric egunera doa galduaz bildurra. Noc esan leiquez orduan eguiten direan pecatuac? ¡Ce loiqueriac! ¡Ce guraari deungaac! ¡Ce berba ciquinac! ¿Eta bicico dira dempora lucean osoric? ¿Noc esango dau amuco edo liñu (quirru) sicua dempora lucean errebagaric egon leitequeala sut-ondoan? Elduten dira guero beré azquenera, emoiten deutso bere gorputzearen ganeco escabidea, ezcontzaco berbea quentzeco, eta aguertuten da erri guztien beguietara eguin daveen pecatua.

6. Eta ¿cer eguin daudee denpora guzti onetan nescatilla onen gurasoac? Eurac erantzungo dave eztaveela ecer yaquin; ezteutsela euren alabeari gauza deungaric icusi. Eguia dala nosbait guizon gazte agaz icusi eguin daveena, baya ezteutseela eguño gauza deungaric buruac emon. Barriz ¿celan au erantzun cinaiquee? Erri guztian esaten zan zuen alabeari asco gura eutsala mutil arec; guztiac ecusezan beti beti alcarregaz; eta ¿zuec bacarric etzenquien? Ceimbat bider yoan da gau utsez zuen echera? ¿Ceimbat bider yoan da guizon gaztea esque zuenera, erromeriara lagunduteco, eta emon deutzazue baimena edo licencia batera ibilteco gaüa ilundu ezquero beré? Ori bai, erantzungo dozue, baguenquian ondo gura eutsana, baya ez euscun gogoac emoiten beste gauza deungaric. ¿Noc sinistuco deutzue? Errezago sinistuco dau edoceinec beste gauzaric; eta eguia esan gura badozue, ara emen zuen gogo guztia. Bacenquien zuec guizon gazte á ezcongüei ona zana ceuen alabearentzat, baya bildur cineen bere gurasoac guraco ez eveela, ezcontza obeac euquico cituzalaco, eta orregaitic ez yaquin eguin cenduen, edo bista lucea, ya modu onetan alcarregaz ezcondu al daitezcan; eta alan ceüen ishilic alcarregaz egonagaz, ceüen ez yaramonagaz idigui deutzazuec bideac aimbat pecatu loiri. Ara bada guraso zorigogorrecooc, ceüen alabeac eguin dituzcan pecatu guztien contu ceatz eta estua emon bearco deutzazue J.C^ori juicioan, ez bacarric pecatu oneena, baita beré errian emoten

dan ceresanena, dabiltzazan deungaro esanena, edo murmuraciñoena, guizon gaztearen gurasoac artu daveen atsacabe edo naibaguenena, familietan yaguiten direan aserracuntzeena eta,... eta... esan beré ecin eguin leique ceimbat pecatu artu dozuen zuen lepoan. Baya guztia iruntziten dave gurasoac ura leguez, alabea ondo ifintearren. Eta onetara ¿cer yazoten da? Ondrea, creitua quendu deutso, seindun dago, ezcondu bear dau beragaz. Urteiten davee eurenagaz nescacha eta gurasoac, eta artez edo oquer ezconduten dira. Ea bada: eldu zara gura izan dozunera, ya daucazu aimbeste gura izan dozun senarra. Baita ¿derichazu baque onean gozaduco dozula senar ori, eta bere haciendea ta ondasunac? Derichazu, zorioneco izango zareala? Obeto sinistuco neuque eztozula egun onic euquico, eta mundu onetan infernu chiquer bat euquico dozula, eta andi ta osoa bestean. Cegaitic, guero? Ara.

7. Lenengo pecatuacaz idiguiten danean bidea cerbaist alcanceta-co eztator Jaungoicoagandic, eta Jaungoicoaganic eztatorren on, ondasun eta gustuac ecin iraun leique; bada David Erregueac dino-andi arpelic dabiltz echeguintzac Jaunac eguiten ezpadau, ce yausico da. Guichien uste dozunean ba-pere bagaric icusico zara, bada Jaungoicoac berac diñoana leguez deungaro eta pecatuacaz irabazten danac, eztau euquico Jaunaren bendiciñoric; eta ceruco bendiciñoric eztaucan gauceac, eztau iraungo. Emetishec dator bigarren gacha. Icusiric guizonac celango bear, premiña, eta ameneco necesidade, eta pobrezan dagoan idiguiten dituz beguiac, ezagututen dau zugaz ezcondutea ce deungaro eguin evan eta beste etorquion emazte bat artu baleu bear evana etsean euquico evana, baya ceuc engañadu cenduala zure modu ta libertadeagaz; eta icusiric eztagoala erremedioric, ecin zuganic apartadu leitequeala, asten da tristetuten, amatetan da araco amodio zoroaren garra, eta abietan da sartzen bere biotzean zaganaco gorrotoa, daucazulaco bere bear, necesidade ta pobrecearen erru guztia. ¿Cer irudingo dau onic aurrera etse onec infernu bat bashen? Eguiten dozun guztiac enfadetan dau, diñozun guztiac aserratuten dau, ecin icusi zaituz bere beguien aurrean; guztia da aguiraquea, errieltea, biraoa, maldiciñoa, añena, maquillea, escua, osticoa ezpalitz. Ez euquiac, edo bearrac estututen badau emoiten deutsu arpeguian etzenduala ecer ecarri echera, zuc engañadu cenduala, zu bashen obagoac eucazala nogaz ezcondu; ushala eguño ez icusi ez ezagutu ezpacenduz. Berba baten chacur catuac legue-che zagoce beti, ecin alcar icusiric, ecin alcar sufriduric, alcarren arnaseac beré

aserratuten zaituezala. Etzagoz confesetaco, etzagoz meza bat beré entzuteco, etzagoz errosario bat beré errezetaco. Eta ¿cer izango dira matrimoniño onetaco semeac? ¿Cer? Guizon eta andra galdu batzuc, Cristiñau deunga batzuc. ¿Cegaitic? Emoten deutzazuen eracuste ta aciera deungueagaitic. ¿Cer gura dozue urten (icasi) daien umeac, ezpadantzue Demoniñoa, Diabrua, maldiciñoa eta biraoa bashen? Eta ezpadacuse aserrea, gorrotoa, eta infernua bera dirudian etsea bashen? Orregaitic eztago deungaro eguinico ezcontzeac baño infernura gueiago daroian gauzaric. Daroaz ezconduac, onen gurasoac sarri ta sarri, oneen semeac, semeen semeac, eta bear bada belaun ascotaco generaciño osoac. Eta orregaitic beré eztau iñoc confesadu gura berac errua daucanic. Egunean egunean dantzugu senarrai esaten: Ay Aita! Jaungoicoac emon eustan emazte bat, ecin beragaz baqueric eguin leique: ain da temosea, ain da berbalaria ta min lucecoa, ain arrabiosea ce neure arimea galdu erazoten deust. Emazteac barriz diño: Jaungoicoac emonico senar bat baucac, ceinegaz ecin bicitzaric eguin lei; beti beti dago nire contra, ecin icusi nau, berbachu bat eguiten bot aserratuten da, ecin gusturic ecetan-beré emon deustat. Biac diño bada guzurra, Adan-ec leguez. Jaungoicoari ezarten deutse errua senar edo emazte á emon deustelaco. Ah zorigaistoco ezconduac! Jaungoicoac ez eutsun emon senar edo emazte ori; ceuc artu cenduan Jaunari escatu bagaric, eta bere borondatea itandu bagaric. Berari escatu baceuntso, eta sartu bacina bide artectic matrimoniño santuan, etzineen orain aurquituco infernuco bide garratz onetan.

8. Beste errazoe bat dago cegaitic ecin alcar icusi dozu[e]n, eta amodio bagaric bizi zareen, eta eztozue benturaz iños yaramonic eguin izango. Sacramentu guztiac emoten daudee berezco gracia, edo esan daigun particularra, edo apartecoa. Matrimoniño santuac emoten daven gracia da baquean arcalegaz bici izaiteco; onetaraco aci edo gueituten dau arcalganaco amodio, edo ondogurea. Baya onetaraco ezconduten dana gracian egon bear da; osterantzean pecatu mortalean badago, gracia artu bearrean pecatu mortal barri bat eguingo dau. Eta ¿ce estadutan ezcondu cinean? Ez cenbiltzan egun a-etan loiqueria icaragarrietan? Confesadu nintzan ezconduteco, erantzungo deustazu bear bada. Ondo: ¿eta quendu cenduzan guraari deungaac, equi cenduan damu benetacoa, eta propositu sendo eta firmea? Ezta errez, bat gustu citeletan sarturic dagoanean a'en damua euquitea, eta guichiago propositu edo gogoa euquitea gueiago biurtu ez eiteco

estadu atara. Orregaitic gach da, orduan confesiño eguiazcoa eguitea; errezago sinistu leique deungaro confesadu cineala, eta pecatuz beteric sartu cineala estadu ta bici modu barrian. ¿Ce miraari bada bicitza deunguea (eroatea) igaroitea, ecin alcar icustea, eta gustu bagaric iragotea Sacramentu santuaren gracia baga? Eta ¿ce erremedio? confesiño on bat eguin, parca escatu Jaungoicoari, eta paciencia euqui, neque oneec ceuen pecatuen orde Jaungoicoari esquindu ta ofrecietaco.

9. Beste batzuc elduten dira sacramentu onetara abere edo animalia itsu eta loiac leguez, euren guraari cital eta araguiaren gustu lotsagarritz asetarren, eta onen suertea ez oi da lenengoena baño obea izan! Baquizue cegaitic, guero? Onen ganean Demoniñoac escuescunea daucalaco. Icaratuten zaituez au entzunac? Eztiñot bada nic neure buruz, S. Rafael Aingueruac esan eutsan Tobias-eri. Araco zaldi edo mando sensun ba'coac leguez ezconduten direanac, euren guraari loietan ibiltarren, emoiten deutse Demoniñoari euren ganean escuicunea. Onelangoacaz gura davena eguiten dau Demoniñoac. Zazpi guizon gazte ezcondu cirean Sara Raguel-en alabeagaz, eta ezcondu cirean gäietan il cituzan Demoniñoac. Cegaitic? Intenciño, gogo loiac eroan cituzalaco ezcontzara. Ederra zan, edertasun oneri beguiratu eutsen bacarric, ez euquen beste gogoric araguiaren gustu citeletan sarturic egotea bashen eta orregaitic il eguin cituzan Asmodeo erichon Demoniñoac ¡Ah Cristiñaiiac! Ceimbat onelango ezcontza eguiten dira? Celan gura dave Jaungoicoac bedeincatu daguizan? Ah! Errezago sinistuco neuque aserraturic sacramentu onetara dacarren prestaera oquer ta loiagaz ezteutsela emongo caridade ta alcarganaco amodioric eta bicico direala baque bagaric, aseracuntza andietan, eta alcar ecin icusiric. ¿Baquizue, guero, cegaitic? Irudi bategaz adietan emongo deutsuet. Sarri yazoten da guizonen bat yanariren baten zale izaitea; dauco ocasiñoren bat, eta yaten dau ase guiñocoa. Larregui yate onec palaguetan dau, eta andic aurrera, ecin icusi beré eguin dau á yanari á. Erraz ezagututen [da] cer esan gura dodan.

10. Bada Jaungoicoac dei eguiten badeutsu estadu onetara, eldu zaitetz Sacramentu onetara, Jaungoicoac aguinduten daven gogoagaz. Ondasunac eta araguiaren gustuac bashen leenago billatu eiquezu Jaungoicoaren leguea gordetan lagunduco deitsuna. Erregutu eguiotzu berari emon deizula ceure arimearen oneraco conveni yatzun senar edo emaztea; bada berac bacarric au emon leique. Espiritu

Santuac diño gurasoac emon leiquezala ondasunac eta onrea; barriz Jaungoicoac bacarric emazte ona. Au eguiten badozue, ceüen semeac santuac izango dira, diño S. Paulo Apc., ceuec santuac izango zare, santua zuen etsea; mundu onetan euquico dozue baquezco bicitzea, lurrean euquico dozue cerua, eta ceruan aurquituco zaree ceüen seme-alabacaz Jaungoicoa alabadu eta bedeinquetan beti betico glorian azquen bagaric. Amen.